SABIN MUNIATEGI

# OLERKI GUZTIAK

Edizioaren prestatzaile:
JULEN URKIZA

S. MUNIATEGI

# OLERKI GUZTIAK

KS - 3

KARMEL SORTA

Zuzendari: Julen Urkiza

© *Ediciones El Carmen* (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-058-4
Legezko Gordailua: BI-2495-90

Fotocomposición Didot, S.A., Nervión, 3-5.° - BILBAO

SABIN MUNIATEGI

# OLERKI GUZTIAK

Edizioaren prestatzaile:

JULEN URKIZA

KARMEL SORTA - 3

Larrea - Zornotza
1990

Edizio honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.

Edizio honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso dau.



Sabin Muniategi
(1912-1990)

## AURKIBIDEA


**Aurkibidea** .......... 7
**Sarrera** .......... 41

I. SABIN MUNIATEGI: BIZITZA ETA OLERKIAK .......... 43

1. Bizitza .......... 43
2. Olerkiak .......... 52
   1. Poesi-gaiak .......... 52
   2. Sinboloak .......... 68
   3. Izkera .......... 71
   4. Urreratze berezkoa .......... 74
   5. Klasiku bat .......... 76

II. SABIN MUNIATEGIREN BIBLIOGRAFIA OSOA .......... 78

1. Laburdurak .......... 78
2. Olerkigintza - Aldizkariak - Estadistika .......... 80
3. Non gordeak .......... 81
4. Argitaratutako lan jatorren bibliografia .......... 87
5. Euskerara itzulitako olerkien bibliografia .......... 103

III. ARGITALPEN ONTAZ .......... 123

# O L E R K I A K

## I
## 1933-1937 (1945)
## GERRA AURREKO EUSKAL-OLERKI BIZKUNDEAREN PARTAIDE


**1. «Biotzeko lorak» (1933-1934)** ........ 131

Biotzeko lorak ........ 133
Elaiak ........ 134
Peru-ren maitasuna ........ 135
Itxaron ama ........ 137
Itxaron ama ........ 137
Zoriona ........ 138
Sagar ustela ........ 139
Alkartasuna ........ 140
Egunak neguan ........ 141
Edertasun galduak ........ 142
Noiz-arte? ........ 143
Gosez ........ 143
Aberrirantza ........ 144
Bidean galduta ........ 145
Inguma bati ........ 146
Inguma bateri ........ 146
Lena eta oraña ........ 147
Kabi utsa ........ 147
Illun abarrak ........ 148
Illunabarrak baserrian ........ 148
Arana-Goiri'tar Sabin-i ........ 149
Aurrera euzkotarra! ........ 149

**2. Egunkarietako olerkaria eta «Goiz-Aize» liburua (1935-1937)** .. 151

**«Euzkadi»ko olerkiak (1935-1936)** ........ 153
Itxaropena ........ 154
Zeugatik ........ 154
Uri illa ........ 156
Gaberdiko amesa ........ 157
Udako gaba ........ 158
Argia ........ 158
Lilluratuarena ........ 159
Atsedenaldia ........ 159
Zorakeria ........ 160
Arrain-saltzallea ........ 160
Ez autortu! ........ 161

Udabarriko eresia ........ 162
Abertzale zintzoarena ........ 163
Biotzaren deia ........ 164
Gurari utsa ........ 165
Orrillakua ........ 165
Orrilla ........ 165
Amalur ........ 168
Burtzaina ........ 169
Dantzariak ........ 169
Ume-olerkiak. Jostallua ........ 171
Bei zarra ........ 171
Moskortuak ........ 173
Ametsezko itxasoan ........ 174
Jauntxo ........ 175
Euzko gudariai ........ 175
Lilitegian ........ 177
Arrats beran ........ 178
Narkis ........ 179
Zugatz bati ........ 180
Bai dakit bai ........ 181
Josu ........ 181
Egunaren eriotza ........ 182

**«Goiz-Aize» liburua (1936)** ........ 183

Ereñozar ........ 184
(Ez autortu!) ........ 185
(Arrain-saltzallea) ........ 185
(Kabi utsa) ........ 185
Kolombo'ko belak ........ 185
(Lilluratuarena) ........ 185
Izkuntza ixilla ........ 186
Baikortasuna ........ 186
(Zeugaitik) ........ 186
(Itxaropena) ........ 186
Atzipetuarena ........ 187
(Argia) ........ 188
Eta orain... ........ 188
(Udako gaba) ........ 188
(Illunabarrak baserrian) ........ 188
Arto opillak ........ 189
(Atsedenaldia) ........ 189
Gabekua ........ 189
(Itxaron ama) ........ 190
(Gaberdiko amesa) ........ 190

(Inguma bati) .... 190
(Zorakeria) .... 190
Goietako edurra .... 190
(Edertasun galduak) .... 191
Oroitu gaitezan... .... 191
(Uri illa) .... 193
Txori donetsia .... 193
Ume itxastarrarena .... 194
(Udabarriko eresia) .... 194
Egun labur ta urte luzeak .... 194
Jon gaztearena .... 196

**«Eguna»ko olerkiak (1937)** .... 197

Eskeintza. Neskatil lirain bati .... 198
Eskeintza. Neskatil lirain bati .... 198
Elantxobe .... 199
Nai .... 200
Norentzat? .... 200
Neskatxarena .... 201
Basetxea .... 201
Negarra .... 202
Umearena .... 202
Agurra .... 203
Udara garaian .... 204
Otsein zoriontsuak .... 205
Gure ikurrinpean .... 208

**3. Gerrate ondoko olerki bakarrak (c. 1937-1945)** .... 211

Udabarri alaian .... 213
Libe .... 214
Itz argikorrezko .... 216

**II**

1962-1970

OLERTI, (ZERUKO ARGIA), «BIDEAN GORA»

**1962**

Gizonaren itzak .... 220
Artoak .... 222
Txoriakin bat .... 222
Ire esku txuri .... 223
Baserrira dei .... 224

Illargia .......... 226
Adar billutsetan... .......... 227
Arto sortu-berriz... .......... 227

## 1963

Neguak aldegiñaz batera .......... 230
Gutxien uste zanean .......... 231
Udaberri goizean .......... 231
Eguzki goiztarraren gozotasunez .......... 232
Eta ego-aize epel artean... .......... 233
Gau argi zerutsu batean... .......... 234
Eta, olaxe bidean gora .......... 236
Auts artera eroriz .......... 236
Angelus .......... 237
Goiza... .......... 238

## 1964

Bai bidezkaz eta bidez bide .......... 242
Gau-eresia .......... 242
Udazkenekoa .......... 243
Izadiarekin eskuz esku .......... 245
Andrakillatxoa .......... 246
Gaztetasun bidean .......... 246
Neguaren atedian .......... 247
Illargipean .......... 248
Argi iaio berria .......... 248
Neure esku dan biotzari .......... 249
Bideari emana .......... 250
Biziak gaur .......... 250
Udaberritarra .......... 251
Itz argi... .......... 251
Gure aur, eder polita... .......... 252
Goizeko belar... .......... 252
Billutsik .......... 253
Garaitza .......... 253
Epalla .......... 254
Bizi-ikara .......... 254
Itxaskari .......... 255
Mitxeleta .......... 255
Eskari .......... 256
Irudiak .......... 257
Olerkariarena .......... 259

## 1965

Nere gogo ........ 266
Ikurrin ........ 266
Itxaroa ........ 267
Bidean gora ........ 269
Udaberri eresi ........ 270

## 1966

Bide-ikara ........ 272
Arrats bidez ........ 279
Gorakunde ........ 280
Ibaiarena ........ 282
O, udazkeneko arratsalde...! ........ 282
Biok batera ........ 283
Ibilliz ........ 284
Itzarkunde ........ 285
Oroitza ........ 286

## 1967

Itzartze ........ 288
Udaberriarena ........ 289
Maitetasun ........ 291
Izarrik ederrena ........ 291
Ametsa ........ 291
Onoimen ........ 292
Ildura ........ 295
Asko dira bai ........ 295
Kaieratze ........ 296

## 1968

Aizearen kideko... ........ 300
Ibillaldia ........ 304
Uri barnez ........ 306
Marigorringo ........ 307
Negu ondorengo esnatze ........ 208
Bizi-gorapen ........ 309
Itxasoratze ........ 311
Oñezkoak gera ta egunik egun... ........ 312
Ogia ........ 313
Maitezko egada ........ 313
Kemena ........ 314
Ni naizen ontzi beartsu oni ........ 316

Aizearen menean .......... 316
Amets eder baten antzera .......... 317
Ezbaitasun .......... 318
Larra'ko Amari .......... 320

**1969**

Arteaga .......... 324
Egia da bai, egia... .......... 326
Bein ta berriz .......... 328
Iturria .......... 329
Aizea nora... .......... 329
Ta, egiz... .......... 329
Ta, or... .......... 330
Bideratu nadin... .......... 331

**1970**

Zerbaitek iges dagi .......... 334
Izkuntza .......... 334
Zugarramurdi .......... 335

**«Bidean gora» liburua (1970)** .......... 337

Agur .......... 338
(Bideratu nadin) .......... 338
Biziratze .......... 338
Gizonaz .......... 338
(Oñezkoak gera ta egunik egun) .......... 339
(Bein ta berriz) .......... 339
Aztuna .......... 339
Gizonaz .......... 339
Ta gogo barrengo ikuste .......... 340
Amonaren ikasbide bat .......... 341
Iñoiz .......... 341
Aldibera .......... 342
Gurari .......... 343
Eguneroko itz egokiaren billaketa .......... 343
Nire ibillia da... .......... 345
Eman .......... 346
Itz egoki .......... 346
(Iturria) .......... 347
(Bidean gora) .......... 347
Kalbarioa .......... 347
Lokatza .......... 348
Odeiak .......... 348

Ez dakit ez... 349
(Bideari emana) 350
(Aizea nora...) 350
Odeietan 350
(Ta, egiz...) 350
Norberarea lurra 351
(Ta, or...) 351
Zu ere... 351
Ioatearen ioatez 352
Ta, eguneroko 353
(Olerkariarena) 353
(Eta, ego-aize epel artean...) 353
(Gau argi zerutsu batean...) 353
Bizi-ikara poemaren atala 354
(Izadiarekin eskuz esku) 355
(Gorakunde) 355
(Auts artera eroriz) 355
(Eta, olaxe bidean gora) 355
(Angelus) 355
(Ibaiarena) 355
Ontzian 356
Goizero 356
(Ibilliz) 356
(Ogia) 356
(Gau-eresia) 356
(Kaieratze) 357
(Itxasoratze) 357
(Neskatik lirain bati...) 357
Biotz abesti 357
(Maitezko egada) 358
(Gutxien uste zanean) 358
(Biok batera) 358
(Ikurrin) 358
(Udaberritarra) 358
(Epalla) 358
(Udaberri eresi) 358
(Bizi-gorapen) 358
(Oroitza) 358
(Amets eder baten antzera) 358
(Neguak aldegiñak batera) 358
(Negu ondorengo esnatze) 359
(Bizi-ikara) 359
(Itzarkunde) 359
(Ibillaldia) 359
(Dantzariak) 359

(Itz argi...) .... 359
(Biziak gaur) .... 359
(Gaztetasun bidean) .... 359
(Goizeko belar...) .... 359
(Bai bidezkaz eta bidez bide) .... 359
(Arteaga) .... 359
Oroitz-miñez .... 360
(Negarra) .... 360
(Arrats bidez) .... 360
Arratsaldeko epelean .... 360
Orbel artez... .... 361
(Billutsik) .... 361
(Garaitza) .... 361
(Udazkenekoa) .... 361
(Ildura) .... 361
Ama bati .... 362
(O, udazkeneko arratsalde...!) .... 362
Neure gogo .... 362
(Neguaren atedian) .... 363
(Asko dira bai) .... 363
(Uri barnez) .... 363
(Aizearen kideko) .... 363
Billaketa .... 363
Euskal Erriari .... 364
(Egia da bai, egia...) .... 365
(Kemena) .... 365
(Eskari) .... 365
(Itzartze) .... 366
(Aizearen menean) .... 366
(Ni naizen ontzi beartu oni) .... 366
Beti ezin da bai esan .... 366
Bidera ateratzen geran... .... 368

III
1971-1990
OLERKI-LAN UGARIA SARIKETA ETA ALDIZKARIETAN

**1971**

Egiz .... 376
Mundu zabalean .... 377
Lenaren lenetik .... 378
Lengoa .... 378

Udazkenez ........ 379
Itza ........ 379

### 1972

Gernika ........ 382
Mintzo ixil batez aoz ........ 383
Maitezko bidean ........ 384
Izate ........ 384

### 1974

Udaberri ........ 386
Mintzoa ........ 387
Bide goienean ........ 387
Gauza apalak ........ 388
Donosti ........ 389
Billaketa ........ 389
Oroituz ........ 391

### 1975

Abotsa ........ 394
Udaberria ........ 394
Bai, galdera bat da... ........ 395
Ba-degu bai nun lan egin ........ 396
Gaztetako egoekin ........ 397
Urrutia'tar Gotzon Aita zanaren gomutaz ........ 398
Itsukeria ........ 398
Tantai-ondo igerra ........ 399
Odeiburua ........ 399
Itzen inguruz ........ 400
Egoak ........ 400
Mundua ........ 401
Egunon diogu egunon ........ 402
Argiaren alde ........ 403
Leio iriki zabalez ........ 404
Aldaba ........ 405
Sokoa ........ 405
Itzala ........ 406
Kezka ........ 407
Oroitzapen zarrak ........ 408

### 1976

Zu ere ene maitea ........ 414
Artistea ........ 415

Erriagandiko arnasaz ........ 416
Bost poema ........ 417
1. Olerkia ........ 417
2. Argiaren alde ........ 417
3. Agerpena ........ 418
4. Betiko baserria ........ 419
5. Sorkuna eta elburua ........ 419
Aiete ........ 420
Erretako biotzaren suan ........ 421
Arteaga ........ 421
Udazken ........ 422

**«Odolaren irakiñean» (1976)** ........ 423

Erria aldeztuz ........ 424
Kukurrukua ........ 425
Itsuan ez utzi ........ 425
Iaio berriak ........ 426
Gizona ........ 426
Lenengo txintada ........ 427
Aurkitze ........ 427
Biotza ........ 428
Atera zaitez bai burrukara ........ 428
Itsosoaren sakona ........ 429
Kitarra ........ 429
Ispillu aurrean ........ 430
Etsaiaren ........ 430
Besterik ezik ........ 431
Itzegiten da bai... ........ 431
Gernika ........ 432
Ez zait gogoa lilluratu ........ 432
Erri zapalduak ........ 433
Odolaren irakiñean ........ 433
Izatezko oñaze gordin ........ 434
Kristo gurutzetuari ........ 434
Gauzak aldatuz doaz ........ 435
Begirakun zorrotza ........ 435
Salakuntza ........ 436
Egiaren iabe ........ 436
Etxepare ........ 437
Arana Goiri ........ 437
Lauaxeta ........ 438
Enbeita ........ 438
Egoki ta eder ........ 439
Alea ........ 439

1977

Aldiaren zorabio errean ..... 442
Imanol Lekuona jaun argiari ..... 443
Laburpenez ..... 444
Laburpenez ..... 444
Bakartade abestiz ..... 445
Abestu, abestu, abestu... ..... 446
Labayen-tar Andoni ..... 446

**«Estebantxuren eskutik» (1977)** ..... 449

Paper zuriaren aurrean ..... 450
Noan... ..... 450
Atoz, Estebantxu ..... 451
Aurrerako bear dogun argia ..... 452
Argi iakinduriz burubidetzeko ..... 453
Loiola ..... 454
Aberria ..... 455
Gernika ..... 456
Otoitz antzera ..... 457
Ordutik ona ..... 457

**«Bizia baieztuz» (1977)** ..... 459

Otoitza ..... 460
Bizia baieztuz ..... 460
Abestutzeko gogoa ..... 461
Iztegia ..... 463
Egungo gizonaren ..... 463
Leiotik begiratuz ..... 464
Gizona ..... 465
Eguna argitzean ..... 466
Nire buztinki arruntaz ..... 466
Arantza zorrotzetan ..... 467
Udaberri bultzadea ..... 467
Maitasunari abestuz ..... 468
Iaioterri garbia ..... 468
Itzen izakuntzaz ..... 469
Nire ametsak ..... 469
Itz egintzalleak ..... 470
Ezetza ..... 470
Edozeiñentzako ..... 471
Orain maitasunez ..... 471
Ikasketa ..... 472
Goiz-arrats bakoitzean ..... 472

Guda aurkako zantzoa ..... 473
Iosu'ren oroitzapenez ..... 475
Asarrearen semeak ..... 476
Ereintza gaiztoa ..... 476
Gurutz bidean ..... 477
Debekukeria ..... 477
Ileta ..... 478
Zinopak ..... 478
Loturik ..... 479
Oinazea ..... 479
Zailtasuna ..... 480
Txarkeria goldatu dutenen aurka ..... 481
Ezin beti buru makur ..... 481
Eriotzak banatu arte... ..... 482
Azken eguna ..... 482
Bizi iragankorra ..... 483
Iriki, zabaldu ateak ..... 483
Emaidazu eskua ..... 484
Barrukoa ..... 484
Biharko olerkariek ..... 485
Ipurtargiak ..... 485
Ahantzitakoak ..... 486
Bakezko izkuntza argiz ..... 486
Ekaitzaldi gogorrari ..... 487
Bilaketa ..... 487
Oharkuntza ..... 488
Gauzaen ikusian ..... 489
Itsukeria ..... 490

**1978**

Olarizu'ko landetan ..... 492
Urrillak 28 ..... 493
Arana-Goiri'tar Sabin. Agur! ..... 495
Itzekin bakarrik ..... 498
Bizitzeko gogoz ..... 498
Xabier'i ..... 500
Bidebera, egunik egun ..... 500
Gauzarik ederrena ..... 501
Ane ..... 501
Zaitegi gogoan ..... 502
Txiribiria ..... 503
Neure agurra ..... 504
Deustasun utsean ..... 507

Izena ur izana ..... 509
Itza ..... 509

**«Begoñako Andra Mari» (1978)** ..... 515

Begoña ..... 516
Andra Mari ..... 517
Bilbo ..... 517
Otoitza ..... 518
Maitasuna ..... 519

**«Bizitzako ibilliz» (1978)** ..... 521

Ondorioa ..... 522
Beltza ..... 522
Tabernaz taberna ..... 523
Ugiñak ..... 523
Egun argitze ..... 524
Zugaitzak ..... 524
Usoak ..... 525
Bidaztia ..... 525
Esan ..... 526
Aize bolada bat ..... 526
Euria ..... 527
Eguzkia ..... 527
Lorea ..... 528
Txakur zauritua ..... 528
(Bakartade abestiz) ..... 529
Bidea ..... 529
Mezua ..... 529
Gurutzea ..... 530

**«Betiko itxasoa» (1978)** ..... 531

Betiko itxasoa ..... 532
Zapiño zuri bat ..... 533
Ur ixiltsun ..... 534
Arraunketa ..... 535
Abesti soilla ..... 535
Lorailleko eguerdian ..... 536
Lurrarenn biotzaren taupadak ..... 536
Ez da txantxetakoa ..... 537
Orrialde urdiña ..... 537
Itsasertz ezagunak ..... 538
Etsipenduarena ..... 538
Aurrera ta atzera ..... 539

Abestia ........ 539
Itsasontzi berberean ........ 540
Goizaren zantzua ........ 540
Abotsa ........ 541
Ispillua ........ 542
Amalaukoa itxasoari ........ 542

**«Aintziñakoz» (1978)** ........ 543

Seaska abestia ........ 544
Pilota bat ........ 545
Txoria kaiolan ........ 546
Egun onaren señalea ........ 546
Maritxu tellatuko ........ 547
Apoak ........ 548
Kataliñ gorri ........ 548
Igelak ........ 549
Lamiñak ........ 549
Erleak ........ 550
Pinpilinpauxa ........ 550
Euri ederra ........ 551
Mitxirrita ........ 552
Txindorra ........ 553
Muskerrarena ........ 554
Kukua ........ 555

**«Betiko alorrean» (1978)** ........ 557

Betiko alorrean ........ 558
Egiaren iabe ba'lira bezala ........ 558
Abots deskeilladun gizona ........ 559
Biotz onekoa ........ 559
Azi ona ........ 560
Ikur bezala ........ 560
Itz bakar batez ........ 561
Bateko euria, besteko laiñoa ........ 561
Eskua emanik ........ 562
Bide ibilgarri bat ........ 562
Ezetza ........ 568
Azkatasunez ........ 564
Eskaria ........ 565
Itzaldura ........ 565
Bizitza ........ 566
Urtegiro atsegiña ........ 566
Miraripean ........ 567
Nirea dan zerbait ........ 567

Egunen batez ........ 568
Ezkutupean ........ 569
Iturbegi minkatza ........ 570
Gizonari buruz ........ 571
Aurrekoen bide berdiñez ........ 572
Argiren bat biztuz ........ 573
Euskara'ri bai ........ 573
Euskal arnasa ........ 574
Maitasunaren neskatxa ........ 574
Gau eta egunaz ........ 575
Bi eskuak uts-utsik ........ 575
Batzuetan ........ 576
Udazken alaz ........ 577
Gogoaren negua ........ 578

**1979**

Ispillua ........ 580
Laguntza ........ 581
Odolaren besapean ........ 582
Susmoa ........ 582
Orduko egunak ........ 583
Buru jabe ........ 584
Neure buruari buruz ........ 585
Euriarekin ........ 586
Nire abotsa ortzian gelditu arte ........ 587
Ereintza ........ 587
Biotzeko gogoa ........ 588
Biziaren alde ........ 589
Ori nai izanik ........ 589
Urtegia ........ 590
Elurra erortzen ikustean ........ 591
Poesiaren bidez ........ 592

**«Gizatasun elburuz» (1979)** ........ 593

Gizatasun elburuz ........ 594
Itxasoa ........ 594
Homeini ........ 595
Amalauko izankorra ........ 595
Sarean ........ 596
Aren izeneko amalaukoa ........ 596
Mendiaren biotza ........ 597
Amalaukoaren sointasuna ........ 597
Argi ori ........ 598
Udazkena ........ 598

(Edozeiñentzako) .................................... 599
Danok .................................... 599
Erori, bai... .................................... 599

**«Gizonaren nekea» (c. 1979)** .................................... 601

Gizonaren nekea .................................... 602
Bizitz erraiñupean .................................... 602
Gogo goldaketan .................................... 603
Tilili eta talala .................................... 603
Irudia .................................... 604
Egutegia .................................... 604
Alperrik .................................... 605
Ibaiari .................................... 605
Oldozkunak .................................... 606
Ereintza .................................... 606
Lasapidez .................................... 607
Egin dezakeguna .................................... 607
Gaur goizean .................................... 608
Egun goibela .................................... 608
Itzak .................................... 609
Bertanberazko ibillian .................................... 609
Basoko loreak .................................... 610
Gauaren ostoak .................................... 610
Billa gabiltzanak .................................... 610

**«Esakunezko soka-dantzan» (1979)** .................................... 611

Txerrenari buruz .................................... 612
Katuari buruz .................................... 612
Gogoari buruz .................................... 613
Etxeari buruz .................................... 613
Zartzaroari buruz .................................... 614
Berbeari buruz .................................... 614
Bearrari buruz .................................... 615
Aizeari buruz .................................... 615
Aizeari buruz .................................... 615
Lurrari buruz .................................... 616
Esakunak .................................... 616
Astoari buruz .................................... 617
Ian-edanari buruz .................................... 617
Txoriari buruz .................................... 618
Buruari buruz .................................... 618

## c. 1975-1980

Bizitzako bidean .......... 620
Baserrian .......... 620
Azkatasunaren aldezko gogoz .......... 622
Loreil .......... 622
Dilindan .......... 623
Ta etsipenez beterik .......... 624
Legorreratutako itxastarra .......... 624
Neure esku dan biotzari .......... 625
Arrimena .......... 626
Ain argi eder zetorren eguna .......... 627
Bizitzako bideak .......... 627

## 1980

Maitasunaz .......... 630
Erantzuna .......... 632
Itz artean .......... 632
Denpora illa .......... 633
Urte barriaren aurrean .......... 634
Julene Azpeitia .......... 634
Andra Mari Martiko .......... 635
Nor da... .......... 636
Basarri .......... 637
Izan siniste .......... 637
Ego billa .......... 638
Udaberria .......... 638
Iturria .......... 639
Terese Ama .......... 639
Itxasoa .......... 641
Begiakaz .......... 641
Marrau aurpegizko .......... 642

## 1981

Norbera dan zugatzan .......... 644
Bizi izateko .......... 645
Aramua eta elbia .......... 645
Ur txiki, ur guztiak .......... 646
Zaildura .......... 646
Ondoratzea .......... 647
Aizeak .......... 647
Ontzi baztertua .......... 648
Antzarrak .......... 648
Kabitik ara .......... 649

Pablo Zamarripa gomutatuz ..... 649
Peña Albizu'tar Xabier zanaren gomutaz ..... 651
Barri onarena ..... 652
Zer da maitasuna? ..... 653
Urte barrikoa ..... 653
Negu baltzaren ondoren ..... 654
Euri bizikorra ..... 654
Urarena ..... 655
Ezaren billa ..... 655
Izan zori on ..... 656
Gabon zoriontsu eta urtebarri ..... 657

**1982**

Sho-Sho erria ..... 660
Izan ..... 661
Eskuak laztanduz ..... 662
Loratan dagon zeruarena ..... 662
Itzak ..... 663
Verlaine gogoratuz ..... 663
Itxasoa ..... 664
Egun argitzen ..... 665
Neska gastez ..... 665
Emantza ..... 666
Neurekerak ..... 666
Umezaroko ..... 667
Lorratzak ..... 668
Arrantzale adintsua, kai bazterrean ..... 669
Mendiko iturria ..... 669
Pozgai txikiak ..... 670
Euskerea zelairatzeko ..... 670
Egun illunak ..... 671
Orbelak lez ..... 671
Munduaren negarra ..... 673
Beren atun ta lebatzakaz ..... 673
Nekaldi ta guztiz ere ..... 674
Zelaia ..... 675
Edurnetxuren amesetea gabon gabaz ..... 676
Udabarria emen dogu ..... 677
Begipean ..... 678

**«Kresal abotsez» (1982)** ..... **679**

Sarrera ..... 680
Kresal abotsez ..... 681
Zaintzaketa ..... 681

Izena, abestia ..... 682
Kaioen egoetan ..... 682
Urarena ..... 683
(Ibaiari) ..... 684
Itxastar abestia ..... 684
Arraiña laket urean ..... 684
Egiazko kolorez ..... 685
Bera dan lez... ..... 686
Olerki gatzitua ..... 687
Itxasondokoa ..... 687
Itsasoa ..... 688
Itxasoaren aurrean ..... 688
Itauna ..... 689
Itxasoan ..... 690
Itxasontziak ..... 691
Ontzi baten ..... 693
Ontzi baten ..... 693
Itsasoa ..... 694
Ekatxa ..... 695
Itsas asarretua ..... 696
Ekatxa aldendu zanez gero... ..... 697
Ugin goiberatan igeri ..... 698
Ur izpiren bat ..... 699
Baterakuntza ..... 700
Neska eder ..... 701
Zure izena ..... 701
Arrantzalearen alorra ..... 702
Kantaurin eziñik ..... 703
Mundu onen joan-etorreratan ..... 703
Itxasontziz igarotzean ..... 705
Itxasoa danena zanean ..... 706
Atuneta ..... 707
Irudia ..... 708
Itxasontzizko ibilian ..... 708
Otoitza ..... 709
Ontziaren ondoratzea ..... 710
Itsas-txorieri begira zegon umearena ..... 710
Illuntze ..... 711
Aitzera igongura zebillen neskearena ..... 712
Monterrios ..... 713
Lañoa dala-ta ..... 714
Ingumak itsasoz ikustean ..... 714
Urretxindorra eta itsas-neskak ..... 715
Nasaikeriz ..... 716
Ur gora, ur beera... ..... 717

Begipean .... 717
Leio idigitik .... 718
Leio zabaldutik .... 718
Jakituria .... 719
Ikuspegi bat .... 720

**1983**

Itxaropena .... 722
Mindura .... 723
Izatearen muinean .... 723
Baietza .... 723
Udaberriz .... 724
Puxana .... 724
Txirtxirra .... 726
Gauzak eta guraria .... 727
Asis'ko Prantzisko Deunari eskaria .... 727
San Lorentzotan .... 728
Ollar arroa .... 730
Mari Urraka .... 730
Udaberriaren etorreraz .... 731
Dar-dar-dar'en ipuiña .... 732
Atoz gogoz .... 735
Gabonetan gabon .... 736

**1984**

Zipitria-tar Elbire andereñoa .... 740
Atsegin txikiaren abestia .... 741
Unea .... 741
Maitaleen soñu-aldia .... 742
Itsasoaren azala .... 743
Bultzia .... 743
Billuts-billutsik .... 744
Oldoztu neban .... 744
Beti diardogu igarotzen .... 745
Illotsa .... 745
Mundu ontako txarkeri artean .... 746
Urril bidez... .... 747
Urte joankorrak .... 748
1984 .... 748
Uri bi .... 749
Udabarriari buruz .... 749
Bakea .... 750
Urduritasuna .... 750
Elantxobe .... 751
Gure mundua .... 751

Barre egiten dakin... 752
Unamuno gogoratuz 753
Zubikarai-tar Agustin 755
Arpezulo bat ikertu ondoren 755
Maitezko ikasle 756
Ur tantatxuak 757
Mendiarena 758
Orrilla 758
Txo 759
1984 urteburuan 760
1984 urteburuan 760
Izarra 761
Eskergarria 762
Bearbada biar... 763
Bearbada biar... 764
Bideberako autsa jasoaz 765
Eguzkia argi bizi... 766
Betetasun betea 767
Elorria loratan 768
Osasunaz 769
Erdipurditasunezko itzak 769
Mari burduntzi 771
Inguma begiragarria 772
Mirentxu 773
Nun dago Jaungoikoa? 775
Udaberriko arratsaldea 776
Mertxeren ateraldia 777
Abestia 778
Zu baño andiago 778
Eguzki ezkongaiz 779
Udaberri goizean 779
Umeak bezela dira bai 780
Ardoa 780
Belarrak 781
Mari burduntzi ortzi argi baten eguratspean 781
Aintziña baten 782
Erein azia 783
Odeia 783
Egun ozkarbian 784
Ondaeziñezko gogamenez 785

## c. 1975-1985

Itxasoratzeko gogoz 788
Bakartadea 788

Miseriaren lorratzak ........ 789
Gizarte errea ........ 789
Geu izanik ........ 790
Europa'rantz doan erri bat ........ 791
Ixillean ........ 792
Bizitzaren aldezle ........ 792
Ibai bi ........ 793
Bizitzaren poztasunean ........ 794
Jostaketa zoragarri bat ........ 794
Jostaketa ........ 795
Olatuz olatu ........ 796
Gogoa sendo, soiña osasuntsu ........ 797
Aingeru-kanpai otsez ........ 798
Ezkutuko txingarra ........ 799
Begiak ........ 799
Esakunez esakun ........ 800
Astelendar oiturapean ........ 801
Ibilian ........ 802
Mari orratz ........ 803
Iturri goikaria ........ 804
Aspaldiko partez ........ 804
Dinbili-danbala ........ 805
Itxas aurreko egonetan ........ 805
Nai nukeana ........ 806
Jauskerak ........ 807
Izatearen bizi mintzoz ........ 807
Lau urtearo ........ 808
Autsa iasoaz ........ 809
Loreil bidez ........ 810
Oldozketa utsa ........ 812

**1980-1985**

Bermio ........ 816
Bagilla amalaugarrena. Lizarra ........ 819
Lengo bideetan ........ 820
Lengo bideetan ........ 821
Berbak ........ 822
Gorakuntzazko bideetaz ........ 822
Lau aro ........ 823
Ipar ta egoz ........ 823
Egi billa ........ 825
Nork ........ 826
Kea eta kea ........ 826
Negu aire baltza ........ 827

Dan bezalaxe .......... 827
Argibidez ta ekandu onez .......... 828
Txoria .......... 829
Bakoitza bere erara .......... 829
Urteak leporatzean .......... 830
Egun eder on baten aurrean .......... 830
Gauza arrunten abotsa .......... 831
Igandea .......... 832
Bizitz-lokarriz .......... 833
Bizitz lokarriz .......... 833
Zoragarria .......... 834
Agur ta zorion .......... 834
Igarotzen dan ezebezarena .......... 835
Irun .......... 835
Egizko kolorez .......... 836
Uraren ikusbidez .......... 837
Mendiko iturria .......... 837
Poema txikiak .......... 838
Ondoratzea .......... 839
Izpi bat .......... 839
Jakituria .......... 840
Makurtu bear danean .......... 841
Egoak moztuarren .......... 842
Bakoitza .......... 842
Euskalerri zaurituari .......... 843
Itzulerarik bako bidea .......... 843
Bakoitzarekikoz .......... 845
Margolariaren antzera .......... 847
Margolari antzera .......... 847
Udazkeneko aizearen bildur .......... 848
Ur tanta .......... 848
Ur zirrizta .......... 849
Aldi ioana izanarren .......... 849
Erein lur onean .......... 850
Illunabarrean .......... 851
Bizitzaren aldaketa barruz .......... 851
Ikusmira .......... 852
Ezer ez geiago .......... 852

**1985**

Urte barrira begira .......... 854
Zorroa leporaturik .......... 854
Lore txoria .......... 855
Lore txoria .......... 856

Amaren aolkua ........ 857
Beren loreil gurenean ........ 857
Abestu larroseari ........ 858
Aizea eta neskak ........ 858
Nun zagoz gaur? ........ 859
Txoriz jantzitako zugatz bati ........ 860
Bizialdi urrun bat gogoratuz ........ 860
Lur orbeldua ........ 863
Arrese-Beitia ........ 863
Iragarkiak ........ 865
Erkiaga-tar Eusebi olerkari eta idazle argiari ........ 866
Atzokoaz mintzatzea ........ 868
Arraintzportu euskaldunak ........ 868
Mundua agurtuz ........ 869
Beste egunetan lez ........ 870
Beste egunetan lez ........ 870
Aldatz gora ........ 871
Eztabaidak ........ 871
Ongura maitez ........ 872
Berba bakarra ........ 872
Bizia martxan ........ 873
Guztioi zorion ........ 874
Miren Lore ........ 875
Gizonaren jazarkundearen etxakideak ........ 876
Billaketa ........ 877
Berba merkeak ........ 877
Usoa ........ 878
Loidi-tar Paben ........ 879
Zorion-poza dagerren olerki bat ........ 880
Berba egitea ........ 881
Gora begira dagon lurra ........ 882
Arginabarrean ........ 884
Iru poematxu ........ 885
Berbakaz ........ 885
Itauna ........ 886
Udabarri birbiztua ........ 886
Oldozketa ........ 887
Oldozkun baltzezko gabean ........ 888
Goizaren barruz ........ 889
Itxas biribilketa ........ 890
Munduko txikiaren aundia edota munduko aundiaren txikia ........ 891
Aurkezpen biribilla ........ 892
Semeak egin neutsozan gabari ........ 892
Bakezko gentzadurapean ........ 893

**«Bizitzazko gogapenez» (1985)** ..... 895

Sarrera ..... 896
Su barik... ..... 897
Paper zuria ..... 897
On eta eskergarri ..... 898
Eriotzapeturiko eguna ..... 899
Etenbako alkar-jana ..... 900
Olerkiari ..... 901
Itxasoari ..... 901
Bizitzan aurrera goazenean ..... 902
Barruko negua ..... 902
Bidean al gagoz? ..... 908
Udabarria ill orduko ..... 904
Oroitzapen gomutakia ..... 904
Nabaitzen al dozu? ..... 905
Negar ikuspegiz ..... 906
Aizeak daroazan odeiak lez ..... 907
Maitezko baietza ..... 907
Maitasunaren aurrean ..... 908
Lorea ..... 908
Urruntasuna ..... 909
Ibilizkoz ..... 910
Udabarriko lorea ..... 910
Jostaketa ..... 911
Aldibera ..... 912
Bizi dirdiran ..... 912
Izadiarekiko maitasunaz ..... 913
Zure izena ..... 914
Bizia ..... 914
Eurizko arratsaldea ..... 915
Erleak ..... 916
Joale otsak ..... 916
Zugatzak ..... 917
Poematxo bat tristurakizun batentzako ..... 917
Egunak dagoz ..... 918
Bizi ontzia itsasoan ..... 919
Loikeria ..... 919
Gauzaen irakas-bidez ..... 920
Egun argiarena ..... 921
Iraupena ..... 922
Iraupena ..... 922
Itxaropen egingarriz ..... 923
Ortzia ..... 924
Bizitza bat, poema bat ..... 924

Euria ..... 926
Maitasunari ..... 926
Udazkeneko itundurapean ..... 927
Emazteari ..... 927
Mendibidez ..... 928
Deia ..... 929
Oroitzapen zearrezko begiradea ..... 930

**«Nire aintzindar oiartzunak» (1985)** ..... 931

Nire aintzindar oiartzunak ..... 932
Gomutapena ..... 934
Sorlekua ..... 935
Nire abestia ..... 936
Etxeko izandakoen abotsak ..... 938
Bizitzako itzal arabera ..... 938
Igaro izan dan urak ..... 939
Giltz bakanak ..... 940
Kustiñe zan aren izena ..... 940
Seaska abestia ..... 941
Agin zarra ..... 942
Jai-egun arratsaldetan ..... 943
Etxeko labaldia ..... 944
Donianak ..... 945
Patxi txikerra ..... 947
Saldue galdue ..... 948
Bagillako euzki beroz ..... 948
Txirotasun aberatsa ..... 949
Urrundiko abotsak ..... 949
Da... ..... 950
Igarozko aldaketa barruz ..... 951
Txikita astotxoa ..... 952
Baserritar arratsaldez ..... 953
Euri berera eder ona ..... 953
Ollarra ..... 954
Inguma ..... 955
Txindortxua ..... 955
Kukua ..... 956
Txori bedeinkatuak ..... 957
San Markosetan ..... 958
Artoarena ..... 959
Etsera begira ..... 959
Baserria ..... 960
Ganbara utsak ..... 960
Itzulerarik ez daukan bidez ..... 961

## 1986


Loreil bidezko oarpenak .......... 964
Zadorrezko uretan .......... 966
Uste dozu ugartea zarala .......... 966
Oetik baterakoan .......... 967
Kempis'en erabidez .......... 968
Olerti .......... 969
Udazken ikuspegiz .......... 971
Gabarena .......... 971
Poztu zaitez neugaz .......... 972
Une, tini... .......... 973
Bakoitzkeria .......... 973
Orriak aizean .......... 974
Suaren eta gatzaren arduradun .......... 975
Super Gau .......... 975
Bakartadezko nekepean .......... 976
Oiu bat .......... 977
Orriz orri .......... 977
Bei txuria .......... 978
Kolonbia .......... 979
Manterola-tar Gabiel-i .......... 980
Askotan .......... 982
Antza danez .......... 983
Udazkena .......... 984
Nun-nai .......... 985
Zu .......... 986
Baserriaren negarra .......... 986
Mundu zabaleko bidez .......... 987
Abotsak... .......... 987
Tellatuz tellatu .......... 988
Ur tantatxoa .......... 989
Illunabar urrez jantziak .......... 989


## 1987


Orbeldu baiño lenago .......... 992
Urrundiko ipuiña .......... 992
Itxasoa .......... 993
Otoitza .......... 994
Itxasoa danena zanean .......... 995
Udazken aizeaz .......... 995
Udako ikuspegi bat .......... 996
Egin amets .......... 966
Zu nire alboan .......... 997
Zu nire alboan .......... 997

Aberria .......... 997
Sendotasunez .......... 998
Etsipenez beterik .......... 998
Ereduak .......... 999
Maxiaketa .......... 1000
Ez al dozu ikusten? .......... 1000
Orriak eta aizea .......... 1001
Paper zurizko itxasontzia .......... 1002
Edurra .......... 1003
Barrien barriz .......... 1004
Oroitza zarrak .......... 1004
Galburuak .......... 1005
Galburuak .......... 1005
Itz argiak .......... 1006
Ametsak ume batentzat .......... 1006
Danboliñ-ots pozgarria .......... 1008
Gernika'ko triskantza gogoratuz .......... 1009
Egunaz nago .......... 1011
Bordazuri .......... 1011
Galburuak .......... 1013
Txori bako aizepe kantariz .......... 1014

## 1988

Destaiuzko ezeztapenez .......... 1016
Ondoratzea .......... 1017
Udabarriko egun bat .......... 1017
Arginabarra .......... 1018
Begi argiakaz .......... 1019
Zazpi iluziñotan .......... 1019
A, nundik nora .......... 1020
Eriotza .......... 1020
Udako zerupean .......... 1021
Eguneratzean .......... 1022
Olerkiaren oñatz, abestia .......... 1022
Itxarozko oldozkunez .......... 1023
Gabaren atarian .......... 1024
Arginabarrezko semeak .......... 1024
Egun urratze .......... 1025
Gogoa .......... 1026
Ontza .......... 1026
Izena da argitzea .......... 1027
Eguerdi artan .......... 1027
Joanez doa .......... 1028
Maritxu tellatuko .......... 1029

Sua ........ 1030
Argia eta itzala ........ 1030
Gabon gaba ........ 1031
Urteen joanean ........ 1032
Maitatu abestia ........ 1033
Maitetasunezko emoitz leguna ........ 1034
Maitasunezko emoitza ........ 1034
Udabarritarra ........ 1035
Lirin-laran... ........ 1035
Oñazez ........ 1036
Olerkaria ........ 1036
Olerkariaz gogaketan ........ 1037
Orri jauskordun zugatzak ........ 1038
Dardarazko azkentze larritua ........ 1040
Mirentxuren begiak ........ 1040
Udaberria ........ 1041
Giza malkoak ........ 1043
Itxasoan jaiotako aurrarena ........ 1044
Bira biraka ........ 1046
Gurari baten arantza ........ 1048
Sinismenik eztagonean ........ 1049
Munduko oñazea ........ 1050
Munduko oñazea ........ 1050
Gauzaen bizitzaz gain ........ 1051
Barrukoz ........ 1052
Ospitaleko gela batean ........ 1053

## 1989

Egunaz esnatutzean ........ 1056
Maitezko opari ........ 1056
Txindoki'ko Mari... ........ 1057
Aurrerabidezko ekintzaz ........ 1058
Akesolo'tar Lin agurgarriari ........ 1059
Goiz nabar urdin oneskorrez ........ 1060
Biotz-zugaitzarena ........ 1061
Gora begira ........ 1061
Urtearo berria ........ 1062
Neguko ipuiña ........ 1062
Bizitza bertara ........ 1063
Neurea da bidea ........ 1064
Udazkengo eguzkia ........ 1064
Urteak ........ 1065
1989 urtebarri zoriontsua ........ 1065
Aizea ........ 1066

Barriro izan ... 1066
Gogamenaren txingarra ... 1067
Txaneltxu bat daukan gizona ... 1068
Udabarriaren eriotza ... 1068
Gaba ... 1070
Jaio nintzan erri maiteak ... 1070
Apurra ... 1071
Aurtzaroko oroitzapena ... 1071
Udabarritar gogoz ... 1072
Jorrailleko euri, ta... ... 1073
Aizeño pozkorrez ... 1073
Bakezkoa ... 1074
Larogei urteko mutiko bati ... 1074
Maite dot maite ... 1076
Udabarritar gau-intz lurrunez ... 1076
Umezaroko biotzez ... 1077
Esker mila ... 1078
Lorketa ... 1079
Arano ... 1080
Egoaizearen izkuntza epel jostarian ... 1081
Zugaitz ituna ... 1082
Izarrezko keiñupean ... 1083
Izamen illa ... 1083
Urte barriaren aurrean ... 1084
Itxurakizunak ... 1084
Larrosea ... 1085
Zeleta ... 1086
Ur kresalaren osasunaz ... 1087
Antxetak lez ... 1089
Neskatil bati ... 1090
Itxasoarena ... 1091
Euria egin eban atzo ... 1093
Atzoko abestiak... ... 1093
Aitxitxeren ipuiña ... 1094
Ametsak ... 1095
Babarrun aize beroz ... 1096
Euria ... 1096
Udazken kutsadura ... 1097
Orrilleko lorape usaintsuan ... 1097
Umearen lillurapean ... 1098
Itxaropena zaintzeko denporatan ... 1098
Beranduan ... 1099
Itzal betikorra ... 1099
Gogaitasun alaikorra ... 1101
Olatu antzera ... 1102

## 1990

Epel eta euri-zirimiriz .......... 1104
Ereintza .......... 1104
Txakolin .......... 1105
1990 urte zoriontsua .......... 1106
Euriaren grazia .......... 1106
Zugaitz egunean .......... 1107
Biok bat .......... 1108
Gauza arruntenakaz .......... 1108
Betiko bakarra .......... 1109
Esku-makil .......... 1110
Gautasun baltzean .......... 1111
Alaitasuna aldarrikatuz .......... 1111
Batasun ederrean .......... 1112
Beste bat .......... 1112
Neure soñari .......... 1113
Sugar sutsua .......... 1113
Lillurakizun .......... 1114
Eskaria .......... 1115
Arkaitzeko aditza .......... 1115
Izadiaren erakutsiak gogartuz .......... 1116
Ni naz udabarria .......... 1116
Irripar aidekorrez .......... 1117
Olerkariaren biotza .......... 1117
Bizia bera da .......... 1118
Txirula .......... 1118
Biok bat .......... 1119
Iraupena .......... 1119
Atzo .......... 1120
Itzultze .......... 1121
Udazkeneko aizea .......... 1121
Baterazko begipez .......... 1122
Biar .......... 1123
Izan edo ez izan .......... 1123
Ustel ta nagi .......... 1124
Udabarriaren aurrean .......... 1124
Biotza bakean .......... 1125
Orria eta aizea .......... 1126
Jai .......... 1126

**Ipuin abestikor ariñak (1990)** .......... 1127

Bost aboski .......... 1128
Egia .......... 1129
Txakurtxoa .......... 1129

Kirikiñoa .......... 1130
Antxumea .......... 1130
Lepoluzea .......... 1131
Dordoka .......... 1131
Untxi batek .......... 1131
Txingurriak .......... 1132
Papargorria .......... 1132
Usoa .......... 1133
Maiteminduak .......... 1133

Gurutzeko Jon Deuna .......... 1135

**Geigarria** .......... 1139

Nocturno .......... 1141

**Olerkien alfabetozko zerrenda** .......... 1143

# SARRERA

# I. SABIN MUNIATEGI: BIZITZA ETA OLERKIAK

LUIS AROSTEGI

## 1. BIZITZA*

Sabin Muniategi Astorkia Gautegiz-Arteagan (Bizkaian) jaio zan 1912.eko Gabonillaren 11n, Felix eta Luzia gurasoakandik, Pantxikone baserrian eta Portu auzunean.

Aita berezko itzala eukan gizona zan, zaldun itxurakoa; marinoa zanez, mundu asko ikusia, irratia entzun eta irakurtea atsegin ebana. Sabin'en izakerea, zati baten beintzat, aitaren jasekoa izan ei zan.

Lenengo ikasketak erriko eskolan egin ebazan Sabin mutikoak. «Euskaldun utsutsa nintzan eskolara asi nintzanean ta orregaitik makiña bat zigorkada artu nebazan neure bizkarrean Celestino Martínez Alesanco erdal maixu astaputzaren eskuetatik. Egun negargarri itunak» (idazlearen eskutitzan). Maixu aldeketa izan eben ikasleak, eta bigarren onek, Fermin Garzia Ezpeleta nafarrak, oso estimadu eukan Muniategi, ikasle samurra zalako.

Bizitzarako obeto gertatzeko, Gernikako Agustindarren ikastetxean ikasi eban urte bi zear.

---

*Ainbat jakingarri Miren Edurne Muniategi, Sabin-en arrebeari, eta Maria Pilar Bereziartua, alargunari, zor dautseguz. Eskerrak euren oroimen eta borondate onari.

Etxeko atarte arkupetik kanpora urtekeran, an aurrean ikusten eban Gaztelua, ezkerrean San Migel ermitea Ereñozar mendi zorrotzaren tontorrean, eta urrago Atxarre mendia, eskumaldean Muruetamendi, eta atzean, urriñean, Sollube.

Sei nebarreba ziran; iru mutillak, aitaren lanbideari jarraituz, itxas-gizonak izan ziran. Sabin amairu urteko zala, artu eben etxean anairik zaarrena Inglaterran geixoz il zanaren barria.

Ume eta gaztetxutako irudi ta biotz-mundua tinko gelditu jakon betiko Sabin'i, argi eta askatasunaren aberria balitzan: lagunak, ibar eta zugaztiak, ibaiko bustialdiak, baserriko izenak, eta lanak, jalasak eta ameskizunak:

O, Arteaga, errietan erri! Zure luze zabalean,
betikoz zaitut bai ementxe biotz-arimaz barrutu.

Araxe zortzi, amar, amalau bat urteko egalez...
urte lilluratsu, urte zindo, urterik baikorrenez;
araxe usoa baño usoago, aizeaz bat egiñez,
oinkada goikari, etorkizunik etorritsuenez.

(*Arteaga*, 324)

Baiña 1929.ean «bizi-bearrak» urriñera eroan eban ozta gaztearora eltzen joian Muniategi. Filipinas ugarteetako Ilo-Ilo'n amaren lengusuak bizi ziran, eta ara aldatu zan bizi-bidea billatzen. «Claudio López» ontzian, Itxas Gorri eta Indikoa zear, «begiak ase eziñik» «piramide ta pagodaz» «palmondo dirdariz» eta «lotoz» (*Bizialdi urrun bat gogoratuz*, 860), eldu zan Manila'ra. Bere jomuga, baiña, Bisai ugartea zan: ango Bais izeneko errian eta Basak landetxean asi zan lanean azukera kaiñabera artean. Administradore izatea lortu eban laster Sabin gazteak. Lan eta gizarteko artuemonetarako bearrezko ikusi ebanez, malai jatorriko bisaiera ikasteari ekin eutson, «Ango izkuntza ta ango lur maitasunez» (*bertan*).

Urte bi ondoren Manapla'ra aldatu zan, Nerbion eritxon landetxera, emen be lan bardiña burutzen ebala. Eguneroko artuemonak bultzatuta gazteleraz egiten oitu zan euskaldunen artean be. Ez jakon au atsegin izan Periko Telleria «osabeari» (amaren lengusuari), eta «norbere izketa izten dauanak norbere ama izten dauala» bota ei eutson. Eztenkada onek eraginda aurki, eta Filipinas'en bere inguruan egoan euskal zaletasunak eraginda be bai bearbada, «emen asi nintzan lenengoz euskeraz idazten. Aldi onetako olerkiak, itzulpenak 22 ta beste 20 neureak bildumatu nebazan liburu antzera ezarririk *Biotzeko Lorak* izena ta emen diraue oraindik neugaz neure lenengo zirriborruak» (Eskutitzan). Etxe eta aberri-miñez idatziak dira geientsuenenak. Itzulitakoen arteen Longfelow, Lamartine, Victor Hugo, Verlaine, Alarcón Meléndez, Maeterlinck, Lessing, Villaespesa eta Unamuno aurkitzen dira. Aldi



*Sabin-en gurasoak*

berean, 1933-34, olerki bilduma bi osotu ebazan, bata euskal olerkariena, eta erdal olerkariena bestea. Lenengoak *Euzkadi*'n artutakoak dira: Lizardi (ogei olerki), Udalaizpe, Urre, Tene, Mañariko, Arana-Goiri, Garate, Sota, Ametzaga, Agirre, Zubiaurre, Zugazaga, Erletxue, Jautarkol, Sokoa, Endaitz, K. Enbeita, Kimu, Basarri, Iruñatar, Ibaialde.

Erdal olerkiak Literatura Universal batetik artu ebazan, aldi eta naziño ezbardiñetako olerkiak bildurik: Schiller, Gabriel y Galán, S. Rueda, Unamuno, Rosalía de Castro, S. Pellico, Torcuato Tasso, Lope de Vega, Luis de León, Victor Hugo, Camoens, Baudelaire, Heine, Dante, Goethe, Chocano, Poe, Selgas, J.R. Jiménez, Prudhomme, Valle Inclán, Byron, Leopardi, Carducci, Rubén Darío, Jorge Manrique, Calderón, Metastasio, Turgenev, Santa Teresa, J.M. Heredia, E. Marquina, Trueba, Góngora, Becquer... Oargarrienak aipatu ditugu, bildumako jarraian.

Bost urte ostean etxerako bidea artu eban, «President Adams» ontzian. Kolonbotik urtekeran *Kolonbo'ko belak* olerkia ondu eban (185). Bidaldi onetan ugazaba gaztea, nafar jatorrikoa aitaren aldetik, izan jakon bidelagun. 1934.eko Gabon aurrean etxera etorririk, dudan ibilli zan Sabin bere errian geratu ala Filipinas'era itzuli oporrak ondoren, ugazabak beragaz eroan gura ebala. Barcelona'n be egotaldi bat egin eben zalantza orretan ebillala. Uri onetan euskeratu eban Unamuno'ren *El otro* antzerki laburra. Azken baten Muniategik Euskalerrian gelditzea erabagi eban, zalantza-burruka amaituz. Ez eukan, alan be, Filipinas ugartea aaztuteko: «Rizal'en aberri laztana», «nire biotzean zagoz esker oneko biotzaz / Pilipinas eder!» (*Bizialdi urrun bat gogoratuz*, 862).

Pantxikone'n lan-gela bat egokitu eban beretzat, idaz-maia, liburu-arasa eta idazmakiñaz (gero, gudaldian, irabazleak baitu eutsoena) ornidua. 1935.eko agorrillan asi zan *Euzkadin* idazten: olerkiak, itzulpenak eta itz-lauzko lan batzuk be bai. 1936.ean atara eban *Goiz-aize* olerki bilduma (Bilbo'n). *Euskerea*'n be argitaratzen dau olerki bat. 1937.ean *Eguna*'k eta *Gudari*'k argitaratzen ditu bere lanak.

1936.ean guda sortu zanean, Muniategi «Muñatones» batalloiagaz Elorrio'n kokatu zan, intendentzian. Ogei egun geroago *Euzkadi*'ra bialdu eban idazki alaiak («Elorrioko Guda etxetik») bizkor ispillatzen eban gudarien arteko giro alai-baiezkorra eta erriaren eskuartzea. Aldi onetako olerkirik geienak oizko gai ezbardiñak ditue, eta batzuk baiño ez guda-gaia. «Au gure gastedi alai, aberriaren zaindari!» (*Euzko gudariai*, 50). Une atako biotzondo biziaren oiartzuna be or da: «Oi napar anai, anai itsu» (*bertan*). Geroago, baikortasunak atzera egin dau: «Intxortarantz jarrita / ene begiok mendirik mendi / aberriaren samiña darakuste», «itaunak eta itaunak erantzunge» (*Arrats beran*, 178). *Bai dakit bai* olerkiaz gudariak adoretu nai ditu: «Oi, ene gudari lagun / alaitu arpegi motel ori», eta Lauaxeta'ren bertsoz emoten dautso amaia: «Dana emon biar yako / maite dan azkatasunari» (181). 1937.eko *Elantxobe* olerkian erriari begiratzen dautso: «Oi dardaraz akust erri gaxo / itxasoaren begi!... / dardaraz gudeak ekarritako / oñaze mingotsez» (199). Batez be *Negarra* (202) eta



*Sabin jaio zan baserria*

*Gure ikurrinpean* olerkietan, erri eta etxe «austuta», «birrinduta» (208) ikusi ondoren baikortasuna estaldu eta olerkariaren garrasia entzuten da.

1937.eko aprillaren 26an, Gernikaren bonbardaketaren lekuko izan zan. «Ogetabost urteko neure begi argiakaz / ikus nebazan Gernikako inpernuketak» (*Gernika'ko triskantza gogoratuz*, 1010). Uneko sakabanatze eta noraezean, Sabin'ek Foru'rantz jo eban (*Gernika*, 456) Gernika ikustera joan eta atzera etorri zanean ilda aurkitu eban zugaitz baten azpian itzitako gudaria. Arteagan bere errian, bonbardaketan eta gerran zear ildakoak edo gero afusillatuak, guztira amairu-amalau bat izan ei ziran, ia danak Sabin'en sasoikoak.

Berak anai-arreba gazteai ebakuaten lagundu eutsen, Bermeoraiño, lenengoz. Gero batalloiagaz Santander'erantz abiatu zan. Laredon izan ziran atrapatuak. Illebete bi inguru Santoñako baituran igarota, Muniategi'ri Canfranc'era joatea suertatu jakon, langille-batalloian lan egiteko. Urte bi bete zituan an. Euskal langille batzuk Euskalerriko neskatillen eskutitz adoregarriak artzen ebezan. Sabin'ek be izan eban zori ori, eta neskatilla maratz ezezaguna urteak geroago bere emaztea izango zan. Oindiño Begoñako Karmelon (espetxe biurtuan) izan zan espetxeratua. Irabazleen epailleentzat naiko zio egoan, orretarako: gudari zan, euskal idazlea, abertzalea, erriko batzokiko



*Sabin eta Maria Pilar eskontza egunean*

lendakariaren semea. Elgezabal abogadu gernikarrak, sor Luzia frantziskotarra Ibarrangeluako alabea be bitarteko zuurra izan zala, lortu eban, Sabin urtebete garrenean kartzelatik ataratea.

1940.eko urtea zan. Sabin'ek Firestone'n lan egiteko erea izan eban, baiña amaren borondate biziari jaramon eginda, marino lanbidea artu eban. Lenengo «Castillo de Ampudia» ontzian. Gero, 1941-56, Rezola'n, itxasoan, sartu zan, bere eginkizuna maiordomo zala. Ondoren, baltzu berean, legorrean, Donostiko kaian egin eban lan, ataraten zan zementoaren kontua eroanik (1956-75). Orrela, bere bizitzan, Asia, Ozeania, Europako ainbat naziño eta Ipar-Afrika ezagutzeko erea izan eban.

Maria Pilar Bereziartua donostiarragaz ezkondu zan 1949.ean. Iru alaba eta seme bat izan zituen. Donostiako Errera'n bizi izan ziran 1988.erarte; orduan, Sabin'en makaltasunagaitik, Errenteri'ra aldatu zirala. Bata bizkaitarra eta bestea gipuzkoarra izanik, alkar ezagutukeran erderaz asi ei ziran. Baiña laster erabagi eben zindo be zindo aurrerantzean euskeraz egingo ebela beti.

1937.tik 1962.era bitartean eten luzea aurkitzen dogu Muniategi'ren olerkigintzan. Gerra osteko giroa, itxasoko lana, argitaratzeko biderik eza izan bear zioak.



*Sabin mutikoa*

Bitarte orretako olerki bi ezagutzen ditugu: *Libe,* 1940.ekoa (aldakera bi), eta *Itz argikorrezko* (Urkiza argitaratzailleak 1945 c. kokatzen dauana). Muniategi oso zeatza zan idazkiak zaintzeko; beraz, ez ebala idatzi tarte orretan atara bear dogu, arrigarria izan arren ain berebiziko dei-griñaz olerkigintzan asi zanaren utsune luzea.

1962.ean asi zan barriro, eskerrak S. Onaindiaren *Olerti*'k eskeiñi eutson ereari. Aldizkari au eta Larreako urteroko Olerti-egunak izan jakozan euskal olerkariakaz alkartzeko tokia. Jarraian, eurrez artu eban parte euskal aldizkarietan, liburu onetako bibliografian ikusi daitekenez. Sariketetara be bialtzen ebazan bere lanak. *Olertik* sariztatuak berein dira. *Olerti* inguruan etxeko zan, eta euskal olertia eta Olerti-eguna biztutearren beti artzen eban parte. 1978.ean Nafarroako Aurrezki Kutxaren «Xalbador» saria eskuratu eban, eta 1982.ean, Ondarroako «Euskal Lore Jokuak» saria. Istoriaren zatia danez, zati txikia, sari-arazo au be aipatu bear zan emen.

*Kolonbiar Olerki-Txorta euzkeraz* lana argitaratu zan 1968.ean («Ekin», Buenos Aires) S. Onaindia itzulpenaren arduradun izanik. Muniategi'k be esku izan eban. Ori dala ta, eta Patxi Abrisketa'ren bidez, artuemon miñetan sartu zan arrezkero amerikar olerkari talde bategaz, eskutitzak eta olerki-liburu opaltzeak erakusten dabenez. Euskeratuta daukazan amalau olerki liburuetatik amerikar olerkarienak dira

amabi. Eta ganera, olerki sueltu asko ditu itzuliak amerikar olerkarienak. Itz lauzko itzulpen luze biak amerikarrenak ditugu: Gabriel García Márquez'en *Historia de una muerte anunciada* eta Gabriela Arciniegas'en *Una casita en el aire*. Lenengoa argitaratzeko eskatua zan, eta lan gogor neketsua egin ondoren ez eutsoen argitaratu. Samin andirako izan jakon au. Kultura-bide oneetan be idatzi eban: Colombia'ko «Esparavel», «El Colombiano», Venezuela'ko «Poesía de Venezuela», «Panorama», Filipinas'eko «La Opinión». Batez be 1971-1973 bitartean ainbat ameriketarren aurkezpen egin ebazan euskal aldizkarietan.

Itzulpen lanak trebetasuna eta olerkaritzaren ezagupena adierazten dau. Endre Ady hungariarra izan zan lenengo argitaratu ebana, 1935.ean. Altolaguirre eta García Lorca datoz 1936.ean. Ogei ta bost urtetako ixilpearen ostean, Unamuno 1964.ean, Altolaguirre eta García Lorca barriro, eta J.R. Jiménez (bein bakarrik) 1966.ean, eta ondoren León Felipe, Miguel Hernández, Alberti, Nicolás de Hierro, Juana de Ibarbourou, Blas de Otero, Pablo Neruda, Pedro Salinas eta abar (begitu *Bibliografia*).

Bere liburutegian gaztelerazko antologia eta olerkariez ganera, naziño ezbardiñetako olerkarien bildumak eukazan, eta Walt Whitman, Pessoa, O. Elytis, T. Hughes, S. Espriu, P. Eluard, K. Kavafis, Jaroslav Seifert, Gimferrer, Rimma Kazakowa, Cardenal, Tagore, B. Brecht eta abar.

1970.ean argitaratu eban *Bidean gora*, ordurarteko olerkian antologia, S. Onaindiaren itzaurreaz (Bilbo'n). Olerkigintzan eta otzulpen lanean jarraitu eban geroko urteetan, batez be, 1975.ean, sar-zaritzeak asti geiago itzi eutsonean. Euskera be irakasten eban Errera'ko batzokian.

1988.ean izan eban lenengo ondoeza arduragarria. Naiko sendatuta, lengo lanean jarraitu eban gogotsu, Errenteri'ra aldaturik, azkenerarte. Ezinduta egon barik il zan 1990.eko bagillaren 17an. J. Urkiza bere lanak biltzen ebillala, «ez det nik ori ikusiko», esaten ei eutsen etxekoai, joranez eta maitez itxaroten eban bere olerki guztien bilduma onegatik.

Begirunezko gizona, besteai begiramena eutsena eta berari be errez autortzen izan jakona. Benetakoa. Erlegiño, etika eta giza-izateari buruz ideia eta sentipen barrenduek ebazana. Leuna itz egiteko eta artuemonetan. Fatxadatsu entzun eta erantzun eta iritziak emotean. Asarre-gaitza eta bakezalea. Sentibera zearo, jazokun mingarri zein pozgarriak jasateko, gertaera tristeak (erailketak, zoritxarrak, miseriak), malkoak aterateraiño.

Jazoera samingarriak gorde eta ixilik eroaten ebazan. Barrukoia, gomutakizun, amets eta oldozpenezko bere mundua eukan. Beste mundu baten bizi zala emoten eban.

Abertzalea, erriaren zatiketak biziro mintzen eben. Alan be, bakearren, samin orreek be ixilik gorde oi zituan. Laguntasunerako gertu. Bizitza eta etorkizuna ezkor

ikustera joten ebala, pesimista zala esaten eutsoenean, berak ezetz, errealista zala, gauzak diran eran ikusten ebazala erantzun oi eban.

Bere bizi-deia idazle izatea, zeatzago, olerkari izatea zan. Astirik ebanean, or biltzen zan, irakurten, itzultzen, olerkiak sortzen. Ori zan bera bizi zan «beste mundua»; mundu berbera, baiña olerkariaren gogoak artzen eta barrentzen dauna. Gaztetan aurkitu eban, bakarrik, eta arrezkero bere bizi-leku izan da. Ederra eta Onaren aberria, samiñetan araztu eta billatua.

Olerkaria
bakarrik bizi da,
bizia dalako
olerkia.

(*Olerkaria*, 1036)

Nik atzo lez gaur be
abesten dot (...)

Betiko apaltasun
ta bakartadean (...)

Egun batez, ordea,
ez dozue entzungo
nire abotsik.
Baiña, erabereko
beste abots argidoi
batzuk, ederrik
dautsue abestuko
bizitza beraren
etorkun argiz.

(*Nire abestia*, 936-937)

# 2. OLERKIAK*

## 1. Poesi-gaiak

### 1.1. *Bizia, bizitza*

Muniategi'ren poesia, geien baten, gai oneen inguruan dabil: bizia, aldia eta betikotasuna, umezaroa, izadia, giza-anaitasun eta maitasuna.

Bizia, bizitza, da gairik zabalena eta beste guztiak barruan artzen dituana. Edozein olerkarik nai ta nai ez darabillan gaia dala erantzun leiteke emen. Baiña Muniategi'k, ikusiko dogunez, bizia eta bizitza bera, bere osotasun eta batasunean, dau poesi-gaitzat. Jakiña, baita bizitza barruko beste gai partikularrak be. Baiña sarritan bizitza bera zuzenean, eta ez gai bereziak utsik. Eta bearbada sarriago oindiño, gai partikularrak ikutzean bizitzako ezkutua edo bizitza esperientzi osoa da aurreratzen edo, orizonte lez, atzean geratzen. «Gaia» diñogu, berbaren bat erabilli bearrean gagoz-eta. Baiña ez da, poesi aldetik, gai neutroa, poesia gai orren ondoan edo gaiñean, geroago, jarriko balitz lez. Bizia, bizitza, bere osoan eta misterioan da poesi-bizikizun Muniategi'gan. Beste gai bereziak olerkariaren adimen-sentimena gai sakon orretara daroez. Biziaren ederrak eta zadorrak eta nekeak dardarazo egiten dabe eta bere olermena biztuten.

*Bidean gora* bildumako lenengo olerkia (agur-olerkia) «bizitzako/margo argi» zez asten da (*Agur*, 338). Bigarren olerkian «biziminduzko bidegintza» daukagu (331). Irugarren olerkiak «Biziratze» dau izena: «une guztiak biziz / biziratu zaitez gogoz, bizi-barrenez». «Bizi biziaren ondasunak eskuratuz». «Bizi bai, biziaren ede-

* Aurkezpen au, muiñean, neure *Sabin Muniategi'ren Olerkiak* lana da (*Olerti*, 1985-86, Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta literatura, 343-363 orr.) orraztu eta edatua.

rrera esnatuz», «izateari darion poza zeuganatuz» (338). Olerki txorta osoa dau «Bizia baieztuz» izenaz (459-490).

Izaki eder batzuk aipatuz asten dau olerkia, baiña, gero, olan apurtu bear dau izendatze lerroa:

Bizia da bizi-min,
bizia lur ta urez,
bizia goi ta, makur
bizia bai, egamin.

(*Miraripean*, 567)

*Olerkariarena* arnas andiko poeman be lenengo deia auxe da: «O, atozte bizira!» (259). *Baietza* olerkiak biltzen ditueala esan leiteke bere biziazko ideia eta sentipenak:

Bizi Izatearen ederra!
Aizearen ego, eguratsez,
uraren betiko ioanez...
zelairik zelai, ibarrez,
une bakoitzeko etortez,
itxasoa, zerua, lurra
argi ta margo leiaketan
eguntzen diran betimiñez!

Ai! Nola ez! Bai, nik baietza
baietza damaiot izateari,
baietza damaiot biziari,
esker onezko igarotzez
aintziñatearen aintziñatez
bere zauri ta atsegiñez,
aunitz mende ta gizaldien
zuztarpe ta burubidean
izakizunez oñarritu,
ta, biziz, nortzen gaitun arnas,
eguneroko itzartzeari!

(723)

Olerki au naiko litzake Muniategi'ren olerkigintza, bere muiñean, aztertzeko (ez, jakiña, bere aberastasun guztia ezagutu eta gozatzeko). Poesiak «ederra» sortu eta azaltzen dau; baiña ez beti ederraren ederra, falta danaren edo erdi-agiri danaren, itxaroten edo erdi-asmatzen danaren ederra baiño. Olerki onetan biziaren ederra jatorko olerkariari aurrera. Eta betetasun ori emoteko errealidade batzuk aipatzen ditu: aizea, eguratsa, uraren joana, zelaia, ibaia... argi ta margo leiaketan. Lenengo

aapaldian biziaren lekua zabaltzen dau. Bigarrenean, biziaren aldia: aintziñatea, bere zauri ta atsegiñez nortzen gaitun leenaren arnasa. Lenengo aapaldia azalekoagoa dala esan leiteke. Alan be, «betimiñean» amaitzen da. Eta orrela bigarren aapaldian sartzen gaitu: giza-igarotzean eta giza-aintziñatean. Geu eratzen gaitun gizazko leena dau orain olerkariak zerumugan. Eta baietza damotso biziari, «bizia baita danetan ederren!» (*Gau argi zerutsu batean*, 235).

Bizia bere oparotasun zabalean agiri jako okerkariari; orain emondako olerkiak be erakusten dausku ori, baiña edonon ikusi geinke. Aipatu daiguzan *Bizi-gorapen* olerki luzearen lenengo bertsoak:

Gora, aupa bizitzaren emaitasuna!
Bai lur,
bai itxasoz
eta bideetako goiz-arrats ibilgarriz,
bizitza dan guztia
norbereka,
atz-begietan
betikoz,
egamin;
bakoitza bere izakera,
adur,
bere eresiz;
bakoitzaren biotz-muin,
goi berezia,
amets-ikutuka,
gogora ekarriz.

(309)

Eta emen be «emaitasun» orren erdian olerkaria deadarka, lotuta lez, geratzen da, ezin-esanak jota, berba orokorrak esaten:

O, Izadi!
O, Bizi!
O, Etorri!

(310)

Olerkaria ez da nekatzen izadiaren joritasun beti barri onen aurrean edo barruan:

Izadiari darion goramin
edertasun ederra,
egalik egalerako aberastasun
maitebide zabala...

(*Gizonaz*, 340)

Bizikuntza lilluragarri ta alaia da sarritan bizitza esperientzi poetiku au. Adibidez beterik dagoz Muniategi'ren olerkiak:

Bizi, bai, biziaren ederrera esnatuz,
arako ikuste baikor ta maitasunez,
izateari darion poza zeuganatuz.

(*Biziratze*, 338)

Baiña ez beti eta ez osorik. «Biziari/negarra dario...» (*Oñezkoak gera ta egunik egun*, 312).

Ikusi daigun olerki zirraragarri baten lenengo aapaldia:

Negarra dator
lur, itxaso eta aizez,
or-emendik urtendako
barre-karkaxa lasai batzukin,
karkaxa batzukin nastua,
aundiagotzeko ludia,
etengabeko itunez.

(*Negarra*, 202)

Munduko ugaritasuna argiz eta itzalez beterikoa da. Eta olerkariaren bizitzagandiko eder-lillura ez da paraisoko atsegiña. Itzalak, nekeak eta atsekabeak eder orren parte dira:

Ez, nire bizitzako bideak ez dira izan
larrosazko lorategi bitxi, lurrintsuak,
baizik nekezko itxaso ta lur bazterretan
ametsik ametsera emandako pausuak.

(*Denpora illa*, 633)

Era askotakoak izan bear itzal eta samin orreen zergaitiak. Esate baterako, besteak beste, olerkariak ain minak dituan zuzentasun eta anaitasun ezagaitik (olerkietan agertzen diran giza illunak aipatzen ditugu). Gero, norbere miseriak sortzen dauan oiñasea:

illumpe orren
argaltasun
aterpe ixillean
billutsik ikusiko zera
billuts-billutsik,
narru gorrian...
argirik ezaren,
eziñaren eziñezko
gau illunaren
ondamendizko sakosta,
mintzo
ixillezko
bakartade
negargarri
eskurik ezaren
lotura
utsune beltzean.

(*Ta gogo barrengo ikuste*, 340)

Baiña oindiño, eta batez be, «itzala nagusi», bizitza guztia joanean dalako, gero ikusiko dogunez. Poz-nekeak, illun-argiak alkarturik oretzen dabe bizitzea. Baiña illunak ez dau guztiz irabazle urteten; ikusi daigun *Oñezkoak gera ta egunik egun* olerkian:

eskurik ezaren,
argirik ezaren,
miseri arteko goi illuntasun,
gaubide miña...
Alere...
O, biziok!:
oñaze,
neke,
arantza ta zauri arteko
amets-zirrikillu,
egun bakoitzeko
argi-une
ta itzartzetan...
Zenbatzu ibilbide ioran
ta, ametsaldi sortzen diran!
Zenbatzu laztan-giro eder
ta, itxaropen, bat-batean!

(312)

Guzti onegaz batera olerkariak bizitzako edo bizitzearen misterioa asmatzen dau ixillean. «Ezkutuaren ezkutu!» diño bein *Miraripean* olerkian (567).

Goi zabaldi azkengabean
eta, milloikaren artean...,
izarbideetako misterioz
itxasoan eroritako
ur tantotxo bat bezala,
betikotasunean galdua...
zeiñek daki geroaren etorri,
betiko ibilli orren
bizitzako ezkutu ta berri?

(*Mundua,* 401)

Giza biotza dardaratu egiten dauan ikuspena. Benetako olerkariak giza jakintzaren iturri dan asikerako ezaguerea dau. Zer da azken-azken baten giza-bizitzea?

emen ari gera,
itzal
illunpean,
eskua luzatu ta luzatu,
luzatu ta luzatu
ain bearrezko
argi bizi,
gure izar begiko
izar ori
nun ote dan!

(*Ioatearen ioatez,* 352)

## 1.2. *Aldia ta betikotasuna*

Orain aipatu doguzan gogapenetan aldiaren eta betikotasunaren artekoa be sartzen da zuzen-zuzen. Bizitzan zer eder asko nabaitzen ditu olerkariak (itzala tarteka), baiña bizitza batez be joan-etorrikoa da, joanean da. Muniategi'rentzat gogapen-sentipen au ez da noizbeingoa, ia ez da aparteko gai berezi bat (au be izan arren): bizitza poesi-gaiaren ondoren, zabalena, orokorrena dogu, itzal baten antzera bizitzako bizikuntza guztien atzean. Maitasun-uneak edo izadiaren edertasunak, une baten, euren lilluragarritasunean agertzen dira, ia geldi, baiña Muniategi'k eder geldi orretan ibiltea ta joatea ikusten dau. Asikeran emon dogun olerkian be «uraren betiko ioana» eta «betimiña» asmatu ditu: bizitza barruan, azken baten, orokorren eta sakonen ditun bizipenak.

Ibilte ori sarritan biziaren etorria da; izakuntza eder-alaien etorria. Baiña sarriago joatea. Etorrian bertan jazoten dan joatea. Adibide batzuk aukeratuko doguz zenbatgura olerkiren artean:

Ta, Aldi'ren ontzian betikari,
beltzuraz datozten gogai, ametsez...
Ibilliz dabiltz Eguzki ta Illargi,
ta, ibilliz dua bai, gure bizia,
beeratze betean, laño, orbelez...
ibai ertzetan —unerik unera—
erantziz biotz ta, arima guztia...
ai! nai eta nai-ezko beera bearrez!

(*Udazkenekoa,* 245)

Begitu daigun lenengo bertsoko kontrastea: «Aldi'ren ontzian betikari». Aldian garala ezagutze agiria; eta, batera, betikariak, ames eta asmuz. Joate orren bizikuntzak itzaldu egiten dau bizitzako eder-argiak olerkariagan ixiotzen dauan entusiasmua. Aldiak eta betikotasunak dagie borrokarik gogorrena olerkariaren gogoan:

Bai, bizi nai degu bai, bizi, ementxe izan,
ta, gero ere izan, egun berri batean!
Izan! Izan! Bai, ni naizen onek dei ta oiu,
oiu dagit neure ezur eta aragipean,
oiu dagit neure izatearen zador oni.

(*Aizearen kideko,* 300)

Olerkaria gizonaren testigu dogu barriro be emen, iñon izatekotan. Ez da naiko ederra, betikoa ez ba'da:

O, bai, agertze onen
miraritza betean,
inguruak neuganduz...
egoa naiz, betiren
zabalpe zabalean
gogoa betiratuz!

(*Miraripean*, 567)

Maitasun bizikuntzak eragite bardiña dau: aldiko izateetan gogoak betikotasuna billatzen dau:

Eta, ezpanik-ezpan,
biotz-ikara bizian,
maitasun estalkiz bildua,
Udaberri eze, iantzian,
(betikotasun egarriz)
mundu guztia alai neregana.

(*Gutxien uste zanian*, 231)

Giza izatea bera da, olan, aurrera jo bearra:

Ibilli egin bear
eta, aurrera iarrai
bidez —goiz ta iñular—
begiak argi, ernai.
Ibilli, negar ta par,
ibilli aldanaño
ur andian, bat-bakar,
bat egin arteraño.

(*Ur txiki, ur guztiak*, 646)

Giza burruka onetan, olerkariak ez dau itxaropenik guztiz galtzen, jausialdiak izan arren:

aurrera nua itxaropenez
arantza arteko larrosa
eta, izar baten pozera,
mendi gañeratuz... gero...
beste zerudi, beste egun berri,
beste argi baten deira
bizitzeko pozez!

(*Eta, olaxe bidean gora*, 236)

Edo, aurreko sinbolo berbera erabilliz:

Bizi aldatze, unetxo oargabean
elduko naiz bai, azkenengo nerera,
neure itxaso sakon, Egun Aundira!

(*Ibaiarena*, 282)

Biziaren bizikizunak ia bat egiten dau igarokortasunaren bizikizunagaz, eta geroago eta geiago eta sakonago egin be. Ogei ta bi urteko zala «O, ene goguaren itxaropen igesak!/Norantz juan ziran lenagoko amesak?», idatzi eban olerkariak bizitza osoan zamatu dau joatearen pentsakizuna. Bizikizun narea batzuetan, atsekabez illundua bestetan, beti giza-burruka sorra, eta amaieraz, igesaz, oroimen eta itxaropez oretutako poesia.

1.3. *Umezaroa*

Ezin leiteke azpimarratu barik itzi Muniategi'ren olerkian umezaroak dauan leku poetikua. Bizitzako ibilliaren asikeran geldi —oroimen eta naimenean— geratu dan argia.

Aurtzaroa gogoratuz bizi ta naiz ilten.
Ume eldu bat dirudit baiña, ume bat naiz (...)

Aurrerazko ibilte oro da itzultze bat (...)

Alan ere or dago eriotzea, unero zai,
ta aurtzaroa da edandako ardo mozkor bat,
lañopean an urrunan dagustana, deslai.

(*Aurtzaroko oroitzapena*, 1071)

Olerki txorta osoa dau bere umezaroko munduari buruz (*Nire aintzindar oiartzunak*, 768-798), eta ainbat olerkitan biurtzen da aurtzaroko gomutapenetara. Baiña aipatutako lenengo bertsoak argi adierazten dausku olerkaria aurtzaroa gogoratuz bizi dala, aurrera joatea «itzultze bat» izateraiño. Umezaroko errira doa olerkaria:

Aurtzaroko arimapean sugar-berrituz bizitza,
araxe noa txustarrik-txustar, ioana orainduz.

(*Arteaga*, 324)

Zelai, zugadi, arto-garitzak («Bai, gariak etsera begira dagoz», 959), gaztain ta intxaurrak, etxekoak, auzo ta mendien izenak, «Etxeko izandakoen abotsak» (938),

lagunkideak, jolasak, «lapurketak», «Txikita astotxoa» (952), jaiak (945), labaldia (944), erri eta baserri bizitzako milla izaki eta egite.

Baiña errealidade bakoitza ze girotan sartzen dan eta zelako giza-kalidadea daukan da emen garrantzitsua. Okerkariak daroan mundu ori «aldi alaia» da (*Arteaga*, 324), eta zerupe *argia:* «argia argiago zan begi zolien ikuste argira» (*bertan*), «egaztada garbira», «argi izpirik gurenenak dantzatzen dira» (*Jaio nintzan erri maiteak*, 1070). Udaldiko egun argitsuak, eta gogoaldi argiak: «urte lilluratsu, urte zindo, urterik baikorrenez» (*Arteaga*, 324).

*Itxaropena* sortzen zan aro orretako urteetan:

... Bizia egunean eguneangoz
itxarozko eskeintzapenean nabaitzen neban.
garitzak lez, an, olatuzko zibuzadapean.

(*Nire aintzindar oiartzunak*, 932)

Oiñak arin, itxarozko gure begi argietan,
zorioneko zerupe urdin, lurbide loratsuz
(etorteko ziran egunen ikustapen barruz).

(*Oroitzapen zarrak*, 410)

Itxaropena eguratsa eta arnasa zan, baiña ameskizunetan be zeazten zan:

Orduko gazte-egun ederrak datoz gora,
itxaropenezko ameskizun bidegarriz.

(*Jaio nintzan erri maiteak*, 1070)

Mundua eta etorkizuna zabalik egozanaren bizikuntza «itxaropen egotuakin», «Arako ume-ibillien itxaro ta ego-zabaltze» (*Arteaga*, 325, 324).

Berezko *askatasunez* aurkezten jakezan mundua eta bizitzea:

Azkatasunaz, ikusi-alan, egalik egal
txori antzera, arin (...).

(*Nire aintzindar oiartzunak*, 932).

«Antxume iostari» lez ziran, «iñuzentzizko begiarte» (Arteaga, 325), «iñuzentzizko bizitzan» (*Kustiñe zan aren izena*, 941).

*Maitasun-seguridadeak* oiñarritzen eban bizitza au: «sutondo epeletako sendi alkartuen maitasunez» (*Arteaga*, 324), «sorleku maitearen magalpean», «gurasoen maitasunez» (*Sorlekua*, 935).

Bakezko ziurtasuna auzo eta errira edatua ikusten dau olerkariak bere umezaroko bizikuntzan:

Baserri bizitz neketsu bezin arduratsua
euren elizako ta munduko zaletasunez,
atontzen ziranak alkarri luzatuz eskua,
anaidiak-eta sortuz oker aldietarako.

(*Nire aintzindar oiartzunak*, 933)

Aurtzaroa gogoratzean, beraz, olerkaria *biziaren* billa doa:

Araxe bizi billa, ioandako bizitz ori berbiziz.

(*Arteaga*, 325)

«Bizi-eskeintza» zan aurtzaroa, izan be, «gora zetorren bizitza» (*Sorlekua*, 935-936).

Biziaren bizia asmatzen dau olerkariaren oroimenak umezaroan danen ganetik, bere unerik garbi eta indartsuenean, oindiño bereizkuntza eta urradura barik. Orregaitik abestu dau: «Aurrerazko ibilte oro da itzultze bat» (*Aurtzaroko oroitzapena*, 1071). Asikeran asmatutakoaren billa ibiltea da bizitzako ibillia.

Bizi indartsu orren parte zan ezer gitxiren bearra:

Berein nimiñokeri, ezer gitxiz
poztuten ziran bai gure egunak,
baserrietako atari, landetan.

(*Umezaroko*, 667)

Au zan «txirotasun aberatsa», biziaren aberastasuna:

Txirotasun aberatsa, benetan,
an, umezaroko tellatupekoa.

(*Txirotasun aberatsa*, 949)

Olerkariak ez ditu «oroitzapenezko sorburu maitagarriak» (*Itzulerarik ez daukan bidez*, 961) gaurko erralidadetik kanpo bizi, onen barruan baiño, batez be gizartearazokoak, gaztetarik asita. Eta, kontrakotasunik andienaz, or dagoz igarokortasunaren bizipen orokorra eta eriotzaren geroago eta sarriagoko agerpena. Baiña olerkariak umezaroan eratu eban bere munduaren muiña, gero gorabera artean aldatu eta osotu bear izan arren:

ibarretan ta basoaren onduan,
azkatasunezko eragin-otsez
barrendu giñan, alairik ta nekez,
benetako bizitzaren kantuan
jatorrizko argitasun ta senez.

(*Umezaroko*, 667)

## 1.4. *Izadia*

«Izadiko artu-emon barrutiz», «izadiz bizitzen ikas gendun» (*Umezaroko*, 667). «Izadiaz bizia biziz ume egazkadatan/aizeaz, txoriekaz, zugaitzakaz ere itz egiñez» (*Sorlekua*, 935). Muniategi'ren olerkia izadian zearo murgilduta dakusgu. Izadia da sarritan gaia zuzen-zuzen, edo erea, poesiaren abiapuntua. Izadia eratzen daben errealidadeak eta izadiko aldiak eta aldakuntzak. Izadiko errealidadea eta onek sinbolitzatzen dauan beste errealidadea batera dabiltz sarritan, bereiztu barik, anbiguidade poetikuan. Esate baterako, *Gau argi zerutsu batean* olerkiaren estrofa guren onetan:

Ai! bai, aundi, sakonak dira
goietan altsu, zeruetako bideak;
gogoarentzat ain eskuera
eta, ala ere... ain urruti!
betiratasun-argiz beteak,
ain eder eta, ikusgarri!

(235)

Zer dira zeruetako bideok? Izar-bideak be bai; baiña ez bakarrik. Jarraian olan esan dausku-ta:

Baña nire oñak lurrean dagoz (...)

Goiruntza nai eta, zirkinge,
lurraren gerriari lotuak:
nere izakera, nere bizia
lurraren aragian sustartuak!

Izadiko urtaro bik dauke garrantzi paregabea: udabarriak eta udazkenak. Ez ainbeste euren fisikotasunean soillik, bizitzearen, biziaren eta joatearen agerbide diralako baiño. Udabarrian:

Millaka biotz zabaldu dira,
millaka ego, millaka erle...
millaka amets eta, lillura,
poztasunezko zerutza bizi!

Maitasun bideak dira bai,
bizitzako itxaropen bide...
biotz-arloak, goraka, alai...
ikututxo eder baten eske!

(*Goizeko belar...*, 252)

Udagoienaren poesi-bizipena ikusteko *Oroit-miñez* olerki labur osoa emongo dogu:

Egungo Udazken arrats batez,
neure aintziñako giro batera,
murgildu nintzan unetxo baten
ta, angoxe billera maitean,
gaztetasun zantzo ta ametsez
neurez-neure goizetik gabera,
bakar-bakarrik arkitu nintzan
ioana zan lenari begira,
orbel-artean, oroitz-miñez.

(360)

Olerkariaren gogoak udabarria dau atsegin, bizia eta itxaropena jako ta. Udabarri eratsua, ez margoz nabarmenegia, zaratatsuegia. Baiña, beste aldetik, ez dau bearbada gitxiago maite, poesi-bizikuntzan, udazkena, antzez beintzat bizia makaltzen eta amaitzen dan aro ori. Geroago eta sarriago artuko dau udazkena gaitzat olerkariak. Aurtengo udabarrian idatzi dau azkenengoa gai onetaz: *Udazkeneko aizea,* ederra deritxodana. Izan be bere olerkirik ederrenak udagoienari buruzkoak dira aurki. Ez dago kontraesanik: udagoienean beste bizi eta beste udabarri bat, beste munduen munduren bat asmatzen dau olermenak. Udabarria bera baiño ederragoak dira olermenak asmatzen dituan izen eta forma bako munduak:

Aurrez-aurre bai, Izadiarekin,
zer neretza ta zer etorbide!
Betikotasun gogoz, izamin...
argi-itzalezko eskuratze (...)

Ai! ze igarokuntza oargarri,
nire eguzki ta orbelakin,
nire amets il, amets biziakin
bidea irikiz nere geroari!

(*O udazkeneko arratsalde...!*, 283)

Sentipen naastua da olerkariak bizi dauana. Batzuetan amaieraren sentipena azaltzen dau, beste barik:

Udazkenak lurreratutzen
ditun orbel zimel, illakin,
niri ere, ai!, eriotzaren
etorri beltza adiraziz.

(*Arratsaldeko epelean*, 360)

Bizitza guztian zear, batez be izadiaren bizikizun poetikua dauanean, udabarri zein udazken, «betiratze sakon» intziria dau Muniategi'k lagun:

T'itxaropenezko egungiro barneminduz,
(igeskorra izanda ere gure etorria)
garo usai oiantsu, bidondo itzalgarriz
begiak argiz bete ta, biotz-oñak arinduz,
alako, betiratze sakon, geroko munduz
emai intziritsu bat, betimiñez dabilgu,
zerbaiten kezkaz, bizitzako bide estuan
muin-muiñetaraño arima dana zirkinduz.

(*Gorakunde*, 281)

### 1.5. *Maitasun-anaitasuna*

Sarri biurtzen da olerkaria gai onetara. Maitasun berezia eta maitasun orokorra edo, beste era batera, anaitasuna esan geinkena. Lenengoa zertzelada gizatsu baten bidez daki adierazten:

Eta
bat-batean
zure eskuekin iabetuz,
neuretu nintzan
arako
goizbide argi
ezean...
zeru berriak oartuz
zure begien artean.

(*Maitezko egada*, 313)

Gutxien uste zanian
itz gozo baten bitartez,
biotzak loretu ziran
irripar emez (...)

O, ze goizak,
ze arratsak alkarrekin,
alkarrekin alkar,
gogoz-gogo,
Iaungoikoa bitarte!

(*Gutxien uste zanian*, 231)

Zertzelada oizkoak, gauza nabarmen arrarorik billatu bage, itzik lauenakaz. Baiña oartu «neuretu nintzan» ori (beste bein «geureagotuz» diño: *Maitezko egada*, 314), eta «alkarrekin alkar» (azkenengoz aipaturiko lekuan, «biok-biotarra»). Eta «Iaungoikoa bitarte», eta goizak eta arratsak. Maitasunean izadiak parte artzen dau, edo maitasuna izadian zear edatzen da:

O, ze goi eskuratze
ta, edertza ederrak
egunaren bidean!
Dana zan ego, lore...
dana, emai pozgarri;
dana, bata-bestezko
ikuste zoragarri!

(*Biok batera*, 283)

Bein ta barriro biztutzen dau bere olermena anaitasunak. Badaki gizonak ogia ta aterpea bear dituala. Baiña baita ez gitxitan itz laguntzaillea be:

atozte gizonarengana,
itzik apal,
itzik alkartsuenez
ta gizondu zaiteze,
itz egoki,
egitada anaikorrez...
bere kezka ta eragozpen,
bere illuntze ta gau illunak,
erabat arindu ta argituz...

(*Gizonaz*, 340)

Asikerarik urten gura dau «gizarte, aberri, zuzentasun alde» (*Bideratu nadin*, 331). Orregaitik, ekin, diño, aberriaren eta zuzentasunaren alde:

> ekin
> io ta ke,
> mallu,
> atxur,
> idazkortz,
> tresna egokiakin (...)
>
> Ekin
> umezurtzen,
> txiroen,
> menperatuen
> bideko
> biurrikeri guztien aurka.
>
> (*Zu ere...*, 351-352)

Guda aurreko olerkietan agiri da gizarte-arazoa (*Oroitu gaitezan*, 191; *Jauntxo*, 157; *Alkartasuna*, 140; *Egunak neguan*, 141-142). Gero, ardurea kritika zorrotza biurtu da:

> Asko dira zitalkeri utsez
> iñoren min, iñoren izerdiz,
> iñoren odol, lepo bizkarrez
> ari diranak... asko dira bai
> iauregi altsu, eliz zuloetan
> ardi larruz iantzi oi diranak,
> gizona ioputzeko ekiñetan.

(*Asko dira bai*, 295). Ikusi giro onetan, naiz ta beste tankera baten, *Uri barnez* olerkia (306).

Olako gaiak ainbat ditu. Baina anaitasuna bizitza osoa ikusi ta sentitzeko moral-goitasun eta gizatasuna da Muniategi'ren olerkietan.

Nabaria da aipaturiko gai orokor guztiotan tratzendentzia sarritsu agiri dala. Agerpen onen berezkotasuna oar-azo gura dogu bakarrik emen.

*Billaketa* olerkian «Billa ta billa, Zure billa nabiltzu, o, Iauna!» autortzen dau olerkariak. Billa izadi, zeru lur ta itxasoan, odei, arri ta ibaian, igarotze, gorputz ta arimean (363). Ez da bizitza-bazter batzuetako billaketa. Olerki beronek adierazoten

dauanez, bizitza guztian, bere atal ta osotasunean billatzen dau Jaungoikoa. Eta au olerkariaren azken eginkizuna izateraiño:

> kanta goraka, kanta Egillearen Izena,
> egarri asetuz Bere Magal Eskuartez!
>
> (*Olerkariarena*, 263)

Bere oparotasunean, goraberetan, «bizia Iaungoikoz dabil bai, itzal-argipean», «intzirika dabil goi billa, bideak betean» (bertan, 260). Era berean sentitzen dau sakonean olerkariak izadia:

> Eta, Iaungoikoa dabil ego ikaraz
> zelaietan gora, belar ta lorez
> Iaungokoa dabil bideratua,
> maitetasuna erein ta zabalduz
>
> (*Eta, ego-aize epel artean*, 234)

Orregatik dei egiten dau olerkariak: zatoze izadiaren edertzetara.

> Bizia dan guztia besarka,
> Danok batera
> Iaungoikotan.
>
> (*Izadiarekin eskuz-esku*, 245)

*Gorakunde* olerkiani jarrai, izadian «Iainko aztarna alaitsu»aren bizipena izan dau. Beraz, olerki ori gloriz beterik amaitzen da:

> O, ze gogo-aizeratze, bioztasun garbiak,
> goi-ikarazko geroratze ixil-ixillean,
> betikoz-betiko, Izadiaren muin-barnez
> Eleizpe aundienean Iaungoikoa aitortuz,
> gorakunde bizigarri baten baitasunez!
>
> (281)

Bizitzaren bizi barriak gogamen au sortzen dautso: «Esku-artean dabilgu bai Iaungoikoa» (*Bizi-ikara*, 255).

Gizarteko anaitasunean, edo gizonarekiko kontzientzian, trazendentzia asmatzen dau. Ez dogu ez astirik, ez gogorik ez adorerik oinperatuari edo lur jotakoari laguntzeko. Baiña ortxe dabil Jaungoikoa:

Bai, ortxe dabil,
langille beartsu,
gizon izarditu,
gizon mindu,
oñazetu guztiakin...
ortxe,
bein ta berriz
noiz itzar,
guri deika,
noiz bereganatu,
noiz gizon izatera
bein ta betiko,
iritxiko ote geran!

(*Uri barnez*, 307)

Berez-berez somatzen dau Jaungoikoa giza-bizikuntza orren barruan. Gizarte-eskakizun orretan gure billa dabil, bereganatzeko, eta gizontzeko. Berezkotasun bardiñez asmatzen dau maitasun-bizipenean: «Jaungoikoa bitarte!» (*Gutxien uste zanian*, 231).

Bere *egarri* da olerkaria («ase iziñezko Iainko-egarriz»: *Gau argi zerutsu batean...*, 235). Edo *azken itxaropen* lez asmatzen dau («deadar ta oiu dagigu Iaungoiko bearrean»: *Aizearen kideko*, 300). Eta beti biziaren *trazendentzi* edo *zabaltasun mugage* lez; bai izadiaren eder-bizikuntzan, bai anaitasun eta maitasunean, bai beste bizikizun sakonetan. Ain sarri aurkitzen dogun betikotasun gogapena mugagetasun onen alderdia da. Baina Jaungoiko bizikuntza ez da aparteko aundikeriren bat, eguneroko bizitzaren egia baiño:

Maite ditut gauza apalak,
bakoitzaren biotz-arimaz
eguneroko bizi-lorrean,
Iainko Apurño Zoragarriz
eskutu maitezko ariakaz
ta, ederdura ikusgarriz
bizia goitarazten dutenak

(*Gauza apalak*, 388)

## 2. Sinboloak

Muniategi'k poesi-izkera zuzena dau. Alan be, sinboloak badarabiltz, euren berezko gaitasunagaitik beste zeozer adierazten daben irudiak. Emen gogoan dogu-

zanak sinbolo errealak dira: sinbolo orreek euren izatean be badauke poesi baliorik; baiña, batera, eder orretan beste zer bat adierazteko gaitasuna dabe. Euren edertasuna ez datza sinbolo izatean bakarrik (beste zer bat adieraztean); baiña berezko poesi-balioa andiagotu egiten da sinbolo-gaitasunaz erabiltean. Olan, «bidea» berbeak eta irudiak badauka olerkariarentzat bere lenengo errealidadean poesi-balioa, beste barik (edo, beintzat, besterik zuzen eta berariz adierazo barik: poesian batez be adierazpen-muga zeatzak jartea eziñezkoa da-ta). Baiña Muniategi'k bizitzako bidea emon gura dau edo zuzen edo zearka (zearka: «lengo» bide fisikoa adieraztean be bide orrek bizitzako pausuz beterikoak dira, bizitzaz eta bere sakontasunaz beterikoak). Eta au da, bidea, bat aukeratzekotan, Muniategi'ren sinboloa. Sinbolo onetan bizitza eta aldikortasuna batera datoz: giza-bizitza konkretoa. Olerki bildumaren izena be «Bidean gora» dogu; eta lenengo olerkian «bideari oles» dagitso; bigarrenean «bideratu nadin» da gaia, eta olan jarraian. Sinbolo onegaz «bizitza» berbeaz adierazten dan berbera azaldu nai ete dau olerkariak? Alperriko berba aldatzea ete da, edo beintzat berba gogaikarri badiñari iges egitearren? «Bizitza» esateaz ez da intuiziño edo poesi-une orretan asmatu dan guztia azaltzen. Bizitzaren aberastasuna (gai partikularretan ezere, bizitza intuiziñoan bertan be bai) askoz emonkorragoa da, eta orregaitik erabilten dira sinboloak: poesi-intuiziñoa bera konkreto emotearren. Bizitza intuiziñoan (bere osotasunean edo nekean edo pozean, joanean, oroipenean...), «bidea» diño bein olerkariak, «goiza» beste bein, eta abar. Eta, bestera: bideak sortzen dautsoen lenengo zirrararen ondoan, bearbada beste zirrara sakonagoak menperatzen dau olerkaria, eta «bideak» diño, baiña bideok bizitza poeziz inguratuta dagoz. Esate baterako:

O!, Lenaren bide argi,
bide egakor, bereziak;
bide latz, bide egokiak,
ioandako bide amesti,
bide zabal, bide maiteak...
amaika aldiz, kutunki,
biotz-gogoz laztanduak!

((*Arrats bidez*, 279)

Bidearen antzekoa, baiña ez ain zabala, dogu «goiza» (edo «argia». Bidea bizitza osoaren (iñoz be ez osorik) sinboloa dogu; «goiza», ostera, bizitza alderdi baten sinboloa (berezko edertasunaz gaiñera). Gogoratu daigun Muniategi'ren gaztetako lenengo liburuaren izena «Goiz-aize» izan zala. Itzok ez dira liburuaren izena bakarrik, eta olerki bilduma bera baiño zabalagoak dira: olerkariaren lenengo ta betiko intuizinoa datza or. Geroko olerki-lan guztian bein ta barriro urtengo dabe: olerkariaren poesi barru-forma dira, aurrerago emondako adibideak be erakusten dabenez. Ordurik ona azaltzen dau Muniategi'k bizitzako poesi-bizikizuna sinbolo sendo trinko batzuen bidez.

Bigarren bildumaren izentzat «Bidean gora» aukeratu eban, izenik egokiena esan leike, olerkariaren momentua gogoan arturik. «Gora» sinboloa be oso erabillia da;

kontesto diferenteetan, idealaren sinbolo dau batzuetan, eta bizitzako aldatza beste batzuetan. Lenengoaren adibide bat:

Bidean gora, amets... Izatekotan!
Izarrak, iturriak... Bai, bizitza da

(*Bidean gora*, 269)

Bigarren erabilkeraren adibidea:

Eta, olaxe bidean gora
nekezko bidean beti aurrerantza,
biotz zauritu, arima mindua
aldapa gora, gau otzaren bildur (...)

Eta, gora nua, aldaz gora,
(gorputz guztia minbera)
tontorreratzeko ametsez,
aurrera nua itxaropenez.

(*Eta, olaxe bidean gora*, 236)

Erabilkera biak batera ikusi daitekez emen: aldatz gora, eta tontor amets eta itxaropena.

Argi eta goizaren kontrako sinboloa arratsa da (edo gaua ta illuna). Amaitzearen sinboloa geiago, baiña baita munduko noraezarena be.

Aizea, goiz-aizea edo udabarri-aizea izaten dogu: bizitasunaren aizea; baiña askotan, udazkeneko aizea be bai, eta ekaitza.

Beste sinbolo batzuk: itxasoa, ain maite dauan olerki-gaia (aunditasuna, amaia, betikotasuna); iturria (jatorria eta anaitasuna: «Iturria ba'nintz iturria/ura ba'nintz ura» (329); ibaia, ontzia.

Sinboloak ez dira berba bakar eta lotu batean geratzen. Aldakerak artzen ditue edo beste antzeko berbaz azaltzen dira. «Bidea» sinboloa ez da berba soil orretan agertzen: aberatsagoa da eta berba-arlo bat artzen dau, ixurkorra eta malgua izanez, beti be «bide» irudiagaz zerikusi euki arren: bidegite, joan-etorri, igarotze, bidebera, bidegintza, ibillia, bidegarri, ibilbide, gogobide, etorbide, biozbide, ederbide, argibide, bidetasun, begibide, gaubide, bideratze...

Goiz, argia, egunbera, egunsenti, egundu, argitu, goizgora, argibera, eguzkibera, eguntza, eguntasun, argimin, egunbide, egunkera, argitasun...

Goi, goitura, goibide, goibera, goigarri, goratze, goramin, gorakunde, gorapen, goitada, gorakuntza, gorati, goraketa, goikari, goitu, zeru, zerudi, zerutza, izarbide, zerumin, zeruketa...

Gau, illun, arrats, gaubide, illuntze, itzala, illunpe, gautada, arratsbide, gaubera, gaudi, gautasun, gaueratze, beltzura, gauaro, laiño...

## 3. **Izkera**

*Bidean gora* bildumari egindako itzaurren S. Onaindia'k olan diño: «Izkera berri, argi, ari, ausartean egiñak ditu olerkirik geienak (...). «Arrigarria da poema geinetan darabillen itz-jokoa. Olerkariak ez dagi gogapen eta ideiak erein bakarrik, poesi-izkuntza berezia aizeatu ere bai. Nere eritziz, eredugarri dugu: olerki-izkuntza bipilla darabil. Eztu kidekorik euskal olerkarien artean, ez lengoetan ez oraingoetan. A-tzerritarrenetan, baiña, badu antza zenbait poematan, bear bada, Gabriel y Galán-'ekin» (9. orr.). Au azkenengo au bearbada kendu ezkero, Onaindia'k diñoana egi utsa da. Lenengo ta bein, izkera kreatzaillea dauka Muniategik. Sorkera-indar ori batez be atzizkien erabilpidean dakusgu. Gogoratu aurrerago sinboloen edakortasunaz esandakoa eta ipiñitako adibideak. Atzizkidun berbak olan alkarren atzean erreskadan jarteak ez dau berez askorik erakusten, jakiña; euren une eta kontesto egokian artzen dabe bizia eta indarra:

Izadiari darion goramin
edertasun ederra,
egalik egalerako aberastasun
maitebide zabala...

(*Gizonaz,* 340)

Eta, bai,
eraman nazazute argiz-argi,
itzalez-itzal,
zerupe
gogamiñezko egoz
gogai sakon, lillura-amesetan,
bizibidezko iturriz
ederketan.

(*Izadiarekin eskuz-esku,* 245)

Izkera zuzena dau: poesi-bizipenean parte artzen daben errealidadeen izenak zuzen aipatzen ditu, ingurumari ibilli barik. Olakoa da beretzat itza, eta olerkian be billatzen dauan elburua:

> Gun ta izanez gauza bakoitza izentatuz:
> goiari «goi» arriari «arri» egunari «egun»
> zeru-lurren arimatasun, itxaso sakonez
> «otso» «azeri» «illargi» «odei» «laño» ta abar,
> aldi-girozko arabera, gogai ta oldozkun,
> bai udaldi eguzkitsu edo negupe otzez,
> eguneroko artueman, bidezko goiberatan,
> itza da bai itza bere sustar zabalduratan,
> gose-egarrien, nai guztien goiburu ta izar!
>
> (*Beti ezin da bai esan,* 366)

Metaforak berez erabili eta ogeigarren gizaldiko olerkari metaforazaleak berak itzuli izan arren, poesia billatu eta azaltzeko bidetzat ez dau irudi-jokoa artu. Erabilten dituan sinboloak giza-bizikuntza unibersalak dira. Atzizkien bidez lortutako izenak, orokorrak eta abstraktoak, baiña fresko eta ulergarriak.

Izenen errepikatze eraldatzailleak indarra damotso izkerari: «O, au bai, gauaren gautada illuna!» (*Kalbarioa,* 347). «Zoaz gizonki gizonaren gizonera», «bere biotzeko/berearen berera» (*Bidera ateratzen geran...,* 370). Izenak izenlaguntzat be badarabiltz: «Oillokeri oillo», «oillotasun oillo», «usotasun uso» (*Aizearen kideko,* 302).

Atzizkibidezko itzak eta izen abstraktoak erabilli arren, bere izkerak egitura laua eta aratza dau. Gaia be konkretoa danean, olako ondorioa aurkitu geinke:

> Egun batez
> ume nintzala,
> amonarekin
> baserriko etartean,
> babarrun ale batzuk
> bere altzotik
> lurrera
> erori zitzaizkidan
> eta maitez,
> gozoki eta laztan,
> agindu zidan:
> bai, seme, iaso, arren.
>
> (*Amonaren ikasbide bat,* 341).

Beti dau izkera landu eta aukeratua. Lirika sortu nai dauanez, mailla orretan jarten da, baten baiño geiagotan itzen ederretan ia gelditu eta deslaitzeraiño. Berbak

eta esaldiak berez-berez datoz eta korda erreza eratzen dabe: ibai garbia litzake bere irudia, ez, esate baterako, eskulturea.

Nai dauanean bertso zabal aundikiak onduten ditu:

> O, Arteaga, errietan erri! Zure luze, zabalean,
> betikoz zaitut bai ementxe biotz-arimaz barrutu,
> ementxe bai, neure-neurean, magalperik beroenean,
> betikoz ainbeste egun ioanen itzal berritu!
>
> (*Arteaga*, 326)

Batzuetan bertso oso laburrez baliatzen da, izkerari igiera bizkorra emotearren. Baiña geienetan luzera normaleko bertsoak eratzen ditu. Oizko aapaldi klasikuak (kopuru, neurri, errimaz) biribiltzen daki, berezkotasunik andienaz. Sonetoak taiutzen, batez be, berebiziko, gorengo trebetasuna dau. Baiña asko ditu errima azkedunak eta bertso azkeak neurririk ezbardiñenetan. Beti izkuntza erritmo senaz egiñak.

Ugaritasunera jotzen dau, izenak eta izenlagunak lerrokatuz. Bikoteak eta irukoteak eratzen ditu, adibide onetan lez:

> Olaxe, betikoz...
> bateko poz,
> besteko nekez...
> zori ezberdiñez
> itxasbera,
> ibilliz ibilliz...
> bere eresi
> ta bere doñuz,
> bere itzal
> ta bere argiz,
> uintxoak uin,
> itxasoak-betean
> naramate.
>
> (*Itxasoratze*, 311)

Poesi bizikuntzak biltzea baiño edatu eta barreiatzea eskatzen dautso olerkariari bizikizunaren betea azaltzeko.

Badaki neurrizkoa izaten be. Sonetoak bere egitura mugatuaz eta beste olerki laburrak sintetikoagoa izatera beartzen dabe (edo berak aukeratzen ditu era trinko eta bilduok). *Mindura* olerki laburra osorik ikusi daigun:

Aize itun, mindua,
bakartiaren gogoan;
(euri, izotz, lañoa)
egalpe illunean;
ez gaurko, ez biarko
itxaropenik gabe,
maitasunik ezaren
utsune aztunean:
argi otzezko negua
biotzondo zaurituan!
(723)

Asko ditu olan trinko eta giartsu taiuturiko olerkiak, batez be laburrak diranean, soneto eta bestetan. Ain zuzen be, laburpena zan bere olerti-ideiak (eta orokorrago, bere izkera-ideiak) eskatzen ebana. «Alperreko/esan-mesak/itzeteria» arbuiatu egiten dau:

Bearrezko dan
itz egoki
ta mamitsuz
lau lerrotan
laburkiro
adierazi
ditekeanean...
(*Laburpenez*, 444)

## 4. Urreratze berezkoa

Muniategi'ren olerkigintzaren berezitasunetariko bat poesi-errealidadera urreratzeko erea da: urreratze berezkoa. Poesi bizikuntzatik eguneroko bizitzako errealidadera ez dago saltu andiegirik. Beraz, olerki errealidadearen aurrean jarrera bakuna dau. Berezkotasuna agirikoa da bertsoa ondukeran eta izkuntza erabilkeran, aleginbako ixurian datoz eta. Baiña, sakonago oindiño, berezkoa da batez be olerkiaganako gogo-jarrera, poesia ikusi eta sentitzeko barne-era.

Gaztetako olerkietan nabaria da urreratze berezko au:

Aurrean nekusan —bai edergarri!—
eskuzko katea;
begiak begietan,
—eta, nire maitea?...—
Begiak ortziratutzean
illuntzeko izarra,
bakarrik agiri zan.
(*Dantzariak*, 170)

Berezkotasunez urbildu ezeze, batzuetan erti «naif» burutu nai izan dauala esan daiteke:

Bijaŕ, aundija nazanian,
neure ingizko ixontzijan
itxasora jungo naz, ama;
bijaŕ, aundija nazanian...

(*Ume itxastarrarena,* 194)

Geroko olerkietan izkera, guztitara, oso aldatu da (sortzaille, malgu, sendo), eta poesi-bizikizuna be asi eta edatu egin dala esan leiteke. Baiña urbiltzeak berezkoa izaten jarraitzen dau, arnas eta doiñu zabaleko olerkietan be. Naif tankerako lantxuak idazteari ez dautso itzi: adibidez, *Maritxu Tellatuko* (1029) (bein ta barriroko gaia); ipuin-bertsoak (730, 732, 1127-1133), pizti eta egaztiei buruzko bertso jostariak (547-555), erri esakunez oretutakoak (611-618, 635, 769, 800), umeenak (778).

Berezkotasunari lotuta dator Muniategi'ren olerkien *gardentasuna*. Gardena edukia, eta izkeraren egitura osoa. Olerkiaren gaia biotzondo igeskariak eratzen dabenean, edo ta oldozpenak, ez da beti erreza izaten argitasuna zaintzea. Izkera aberats eta biurkoiak be sortu leike illuntasuna. Iñoz aztunago azaldu arren, ia beti da gardentasuna Muniategiren bereizgarria:

Ta argi ori, argi izango ez danean
ta gu betiko ixilla, gaur deusa diranak
begiratuko dute bai arrimen betean.

Azkena diran asiera biren izantzapean
mundu-zear dabiltza bai, biran-biran, danak
bizi-arauzko ibilliaren loturapean.

(*Argi ori,* 598)

Bere olerkiaren aldakuntzari buruz onako au oartu geinke. Filipinas'en bera beretara, bakarrean, olerkigintzan lenengo saioak egiten asi zanean (berebiziko dei arrigarria gazte arena), Lizardi'renak izan ziran ugarien bildu ebazan euskal olerkiak. Orrela, bere asikerako «zirriborroetan» olerkari onen kutsua aurkitzen dogu: «andere Luŕa» (*Illunabarrak baserrian,* 148), eta aapaldi au: O, zein dan bene-benetan ituna/ Aberritik urrun egon-biar au!/Nik ez nai emen amatxu kutuna/zu ikus-barik bixitia geyau! (*Noiz arte,* 143). Adibideak baiño ez dira.

1935.ean *Euskadin* idazten asi zan olerkari (eta gazetari) gazteak Lauaxetaren adore biotzberogarria izan eban. Laukiniz'ko olerkariaren eragina agiri da, esaterako, *Narkis* olerkian (179), edo *Izkuntza ixilla* (186) eta *Neskatil lirain bati* (198) olerkietan: bertsoan, izkeran eta gaia erabilkeran (maite-zalantzak, samiñak eta zoritxarra). Era berean alderatu leiteke *Egunaren erijotza* (182).

Baiña aldi berean orduko Muniategi'ren berezko urreratze aske-bizkorra ikusi daikegu:

Atzo, iturrira etor zan
neskatillia... A ete da?
Ala, nabillen bakotxian
neure bidian daurkidana;
ala, leyotik, egunero
eskuaz agur dagistana;
ala, begitukeran, lotsaz,
burua makurtzen daustana?

(*Egun labur ta urte luziak*..., 195)

Gaztetako eta geroko olerkien bitartean 1937.eko *Negarra* dogu muga (25 urte eukazan olerkariak). Azkenengo aapaldia aipatuko dogu.

Egalak illun,
aulduta dagoz, itzalez iantziriko
irudi argalez.
Eta itzala da nagusi,
itzala nagusi
eta, besterik ez!

Olerki trinko eta bizkorra. *Bidean gora* bilduman irakurtean ezin leiteke bere ondoko eta geroagoko olerkietatik bereizi. Kopuru ezbardiñetako bertsoak erritmoz ebagiten ditu. Aukeran lez jarritako errimak batasun askea damotso olerkiari. Oartu leiteke emen be ain sarri erabilliko dauan zerezko kasua.

1940.eko *Libe* olerkian bere izkeraren ezaugarri diran itzak daukaguz: egamiñez, irripartu, zorion-egarrizko, goitar ta gurgarri, edermin maitagarriz.

## 5. **Klasiku bat**

Lan andiaren jabe diranen artean beintzat ez da muga bako olerkaririk. Bestera, gizaz gaiñekoa litzake. Muniategi'k baditu bere mugak, nire uste apalez. Aipatu dogun ugaritasun larregia. Ugariegiak olerkiak, bein ta barriro gai bardiñak edo antzekoak errepikatuz (naiz ta gai bardiñak barriro erabiltea, berez, akatza ez izan olerkigintzan). Ez eban, jakiña, olerki guztietan gorengo lirika lortzeko asmoa izan, eta beraz aukeraketa egin bear da bere benetako eta azken lirika aurkitzeko. Ugariegia batzuetan olerkigintzan izen eta izen-lagunak lerrotzean, erretorika kutsupean jausiz, inspiraziñoak edo erreztasunak eroanda lez. Gizarte eta anaitasun gaietan nozik bein moralismo kutsua asmatu leiteke: gizabidezko gogapen eta sentipen garai moralak, baiña poesi gitxiagokoak.

Muga oneek gorabera, baiña, Muniategi klasiku bat da euskal lirikan. Klasikua: bere poesi-bidean betetasunera eldu dan olerkaria, eta, beraz, erriarentzat ondasun orokor eta erreferentzi-puntu biurtu dana. Muniategi'gan gizatasun zabal sakona aurkitzen dogu, bizitzako eta gizarteko arazoak, giza-duintasuna eta munduko misterioa olerkari danez barriro asmatu eta adieraztean; egiz, errealismoz ikusi, eta, batera, mugabako itxaropenez argituz: «Ez dadilla izan illungarria/zure abestiaren, sen, magala» (*Emantza*, 666). «Danik gogorrenik ere/eusten diot biziari/ibilliarren noragabe» (*Neurekerak*, 667).

Gizonagandik ur bizi, lan egin eta abestu dauan olerkari onek beti zaindu dau lirika mailla goitia, zintzoa izan jako bere poesi-deiari beste ezegaz naasta barik. Izkuntza poetikua menperatzean bikaiña da. Errekurso artifizial barik, sinbolo unibersal sakonak eta izkera kreatzaillea erabilliz, erriaren izkuntza bere ederrera eta betetasunera jaso dau.

«Lauaxeta»k *Goiz-aize*'ri egindako itzaurrean olan agurtu eban olerkaria: «Muniategi'k dardara, ikara bar̃ija dakarskigu. Odei zardor̃tsuben itxurak, palmondoen amets-nayak, Kolonbo'ko belaen baltza. Gaur̃ arte ixan doguzan oler̃karijakandik zerbaitek berestu darua. Bere begijak daukaz. Gitxitan aurkitu daikegu gaste onengan aurkitzen dogun eder̃ti-miña» (*Goiz-aize*, 8-9). «"Lizardi" il zanian itun gengozan; gaur̃ pozik gagoz. Muniategi'ren oler̃kijak edozein eler̃tik beretzat autuko leukez» (*bertan*, 13).

Lenengo olerkiak gerokoakandik, geien baten, naiko urrin geratzen dira. Gerokoak dotoretasun, malgutasun eta sakontasunean aurrera egin dabe. Baiña orduan be Muniategi, bai gaiak ikuskeran eta bai izkuntzan berezko eta fresko agertzen zan. Berezkotasun eta barritasun ori asmatu ebazan bearbada Lauaxetak aurreko eritziak emotean. Ordurik ona Muniategi, berezkotasuna galdu barik, azi eta sakondu egin da bizitza eta poesi bizikuntzan, eta lirika izkuntza gaiñak lortu ditu.

Bere itzulpen ugariak be erakusten dabenez, euskaldunez gaiñera, erdal olerkimobimentuak eta olerkariak ezagutu izan ditu. Artuemon orrek nai-tanai-ez izan bear eragiña. Baiña nekez zeaztu leiteke norena aparteko eraz. Ez dau biderik artu iñoren kontra, ez iñoren alde; ez jako iñongo eskolari lotu. Berari dagokion olerkia emon dau, originalkeririk be billatzeke. Ezagupen aberats orretatik artu ebazan gogoko egokiozan baliagarriak, baiña batez be, moden ganetik, zabaltasunean eta norbere bidea jarraitzeko askatasunean sendotu zan.

Aske eta benetako, bere poesi-senari jarraituz, eregi dau bere monumentu poetikua, bizitzako lan zintzo ixillean. Ixiltasun au ondo jagoko olerkariari, kreatzailleari. Orain, autortzea zor dautsogu euskal erriaren emoi jator yaukal oni.

L. A.

# II. SABIN MUNIATEGIREN BIBLIOGRAFIA OSOA

JULEN URKIZA

Sarrera onen bigarren zatian egokitzat daukagu S. Muniategiren olerki-lan guztien noizko eta nongoa aurkeztea. Bere-bereak dituen olerki guztiak aurkezten ditugu, bai argitaratuak eta bai argitara bakoak; ori izan da gure asmoa. Geigarritzat, idatzi izan dituen beste idazlanen zerrenda ere emon nai dot. Azkenez, euskerara itzuli izan dituen olerkien, argitaratu eta argitara bakoen bibliografia osoa joango da.

Ikusi daitekenez, olerki onen beraren olerki-lanen zerrenda euskal-literaturan luzeena izan daiteke. Eta euskerara itzuli dituenak bere kopuru andia egiten dabe, 700 olerkitik gora, bai.

## 1. LABURDURAK

| | |
|---|---|
| Agur | *Agur*. (Illerokoa, amabosterokoa, asterokoa). Bilbao. |
| *Bidean gora* | Sabin MUNIATEGI, *Bidean gora. Olerkiak*. Bilbao 1970. 184 orr. |
| Eguna | *Eguna*. (Egunkaria). Bilbao. |
| El Colombiano | *El Colombiano* [Egunkaria]. Medellín. |
| *Esk.* | Esku-idatziak. |

| | |
|---|---|
| Esparavel | *Esparavel*. Revista de poesía. Cali-Colombia. |
| Euskerea | *Euzkerea*. (Aldizkaria) Bilbao. |
| Euzkadi | *Euzkadi*. (Egunkaria). Bilbao. |
| Euskerazaintza | *Euskerazaintza*. Euskeraren Erri Akademia. (Iru-illerokoa). Donostia - Bilbao. |
| *Goiz-Aize* | Sabin MUNIATEGI, *Goiz-aize*. Bilbao 1936. 82 orr. |
| G-Argi | *Goiz-Argi*. (Asterokoa). Donostia. |
| Gudari | *Gudari*. (Revista semanal de Euzko-Gudaroztea). Bilbao. |
| Karmel | *Karmel*. (Bi-illerokoa, Iru-illerokoa). Larrea-Amorebieta. |
| *Kolonbiar olerti-txorta* | *Parnaso colombiano en euskera. Kolonbiar olerti-txorta euskeraz*. Buenos Aires [1968]. 257 orr. (Euskeratzaileak: L. Akesolo, J. Beistegi, I. Goikoetxea, S. Muniategi, J. Onaindia). |
| Kurpil | *Kurpil*. (Revista mensual de literatura). Donostia. |
| *Las cien mejores* | Santiago de ONAINDIA Gregorio - SAN JUAN, *Las cien mejores poesías de amor de la Lengua Vasca*. Bilbao 1975. 215 orr. |
| *Milla euskal-olerki eder* | Aita ONAINDIA. *Milla euskal-olerki eder. Aldiz-urren aukeratuta*. Larrea-Amorebieta 1954. 1199 orr. |
| Olerti | *Olerti* (Iru-illerokoa. *Karmel*'en olerti geigarria. Orain urterokoa). Larrea-Amorebieta. |
| Panorama | *Panorama*. [Egunkaria]. |
| Poesía de Venezuela | *Poesía de Venezuela*. [Aldizkaria]. Caracas. |
| PVV | *«Príncipe de Viana»*. «Suplemento mensual de la revista, destinado al fomento del vascuence». Iruña. |
| Z-Argia | *Zeruko Argia*. (Asterokoa). Donostia. |
| Zer | *Zer*. Bizkaitarrai-bizkaieraz. (Illerokoa). Bilbao. |

## 2. OLERKIGINTZA - ALDIZKARIAK - ESTADISTIKA

### a. *Zenbat olerki*

Egia esateko, S. Muniategiren olerkigintza euskal-literaturako ugariena dogula esan geinke; bere-bereak bakarrik 1180raño joten dabe... Eta argitaratuak 450 inguru (euneko 38) badira, argitara bakoak geiago dira, 728 (euneko 61).

Bardin jazoten da euskerara itzuliekin: 85 inguru olerkarienak euskereratu ditu, guztiz 732 inguru, eurotatik 201 argitaratuak ainbat aldizkaritan (euneko 27), eta argitara barik 531 inguru gelditzen jakoz.

### b. *Zenbat olerki eta noiz idatzi dituen*

Liburu onek eskintzen dituen olerkietan errez agiri da S. Muniategik ia bere bizi luze guztian zear ekin izan deutsala olerkigintzari, erribarruko gerratearen ondoko urte gogorretan izan ezik; izan ere, 1951'tik 1961 bitarteko olerkirik nik ez dautsat ezagutzen.

Euskaditik urrun, 21 urte zituela, Filipinetan bizi zala etorri jakon olerkari-sena; arrezkero, etenbako olerkigintzan diardu: 1933n sei olerki, 1934n zazpi, 1935n 12, eta 1936n 34. Urte onetan argitaratu eban *«Goiz-aize»* olerki-bilduma «Lauaxeta» zanaren sarrera ebala; 1937n, gerrate barruan, beste 12 idatziko ditu eta urrengo lau urteetan 3 baiño ez.

Orduan bere olerkigintzak etena dau. Baiña 1961n, *Olerti* aldizkariak bultzaturik, barriro asten da idazten, eta gaur arte eztau urterik izan, 1973koa izan ezik, olerkirik idatzi bakorik (baiña urte onetan 21 artikulu argitaratu ebazan). Esaterako, 1964n 24 idatziko ditu, eta 1970n *«Bidean gora»* liburua aterako dau eta or argitara emon ditu 98 olerki, eurotatik 62 lenago aldizkarien baten argitaratuak, batez ere *Olerti* aldizkarian; beste 36 argitaratu bakoak ziran.

Amar urtez 1970tik aurrera eta batez ere 1975n bere 63 urte bete-betean, laneko oporrak aurretiaz emon deutsoezanean ugariago asiko da olerkiak ateraten; esaterako 1976n 43 olerki sortu ditu, 1977n 65, 1978n 102, eta olan doa aurrera.

Baiña 1980tik 1990-ra agertuko da emoikorrago. Asti ordu geiago dau eta ainbeste olerki-sariketak poztuta, sarriago datoz bere olerkiak; bitarte orrean 600 olerki idatzi ditu: 1982n, esaterako, 76, 1985n 132, 1989n 61, eta olantxe.

Bere olerkien noizkoari buruz, alegiñak egin ditu olerki bakotxari bere urte jakiña emoten, baiña olerki askoren noizkoa ateraterik eztago, eta orregaitik ziur ezin

jakiñekotzat ipinten ditut eta batzuetan gitxigoraberako urte bitartea emoten deutset, esaterako 1975-1980 bitartekoa, eta oraintsuagokoa danean, *c* bat ezartzen deutset (c. [circa] 1980 ingurukoa). Beste batzuetan noizkoa dan ez jakin arren, argitaratua izan bada, argitara urten ebaneko urteak balioko dau.

c. *Aldizkarietan argitaratuak*

Gerrate aurretik bere 23tik 25 urtetara *Euzkadi* egunkariak (31 olerki) eta *Egunak* (11 olerki) 1935tik 1937rako olerkiak argitara emoteko aukerea emon eta olan, Lauaxetaren eritxian, olerkari bikain lez agertu bazan, 1962tik aurrera bigarren olerkigintza aldia izango dau aldizkari bati edo besteri, batez ere *Olerti* aldizkariari esker; *Olerti*-n atera izan ditu 124 olerki. Baiña bai beste aldizkari batzuetan ere: *Karmel*-en 99, *Zer*-en 98, *Príncipe de Viana*-n 19, *Goiz-Argi*-n 15, *Zeruko Argia*-n 9, beste 9 *Agur*-en, eta abar.

*Olerti*-n idazten dau geien 1962tik 1969ra, *Karmel*-en 1970tik 1978ra, eta gitxiago *Agur, Goiz-Argi* eta *Príncipe de Viana*-n; 1979tik 1990ra *Karmel* eta *Zer*-en geien baten.

d. *Ez-izenak*

Bere gaztetako beste idazle eta olerkariak ez bezela, S. Muniategik eztau seudonimorik edo ez-izenik erabilli; beti bere izena erabilli dau, noiz edo bein ez-ustean lez «Ereñope» edo olako ez-izen batek urten ba-deutso ere. Alan, bere eskuz idatzietan ez-izedun olerki asko aurkitzen ditugu (adibidez: Sorbide, Ereñope, Ollozope, Mendiolape, Basozale, Itxalpe, Atxarrepe, Itxasert, Artiatar, etab.), eta ori zergaitik? Olerkiok sariketaren batera bialtzekoak izan zituelako, eta orduan, jakiña, ez-izenpean bialdu bear zituen. Alan gero, konturatu barik, ez-izenaz joan dira argitaratzerakoan (baiña gitxitan).

## 3. NON GORDEAK

a. *Artxibatze-lana*

Ainbeste olerki (c. 1180) argitaratzeak eta eurotatik euneko 61 orain arte argitara bakoak, zera ekarten dausku gogora, mordo askotan dagozala batuta edo gordeta. Izan ere, ala da. Emen aitatuko ditudan esku-idatziak (*Esk.*) edo manuskritoak *Karmel*

aldizkari onen artxiboan daukadaz gordeta, Larrean, Zornotzan. S. Muniategik berak ondo ikusi dau esan dan artxiboan gordetako sartzea.

Esku-idatziok zenbakarrenka dagoz *A*-tik *C*-ra, eta *I*-tik *XLVI*-ra; eta orri bakotxak bere zenbakia daroa, arabeerara idatzita.

Esku-idatziok begiratu geinkeoe euren barruko aldetik naiz euron agiriko itxuratik. Barruko aldera begiratu ezkero, ona zer daukagun euretan: S. Muniategi beraren olerkiak, beste izkuntzetatik euskerara itzuliak eta bereak ez dituen eta berak makiñaz jotako euskerazko naiz erderazko olerkiak.

Azaleko itxuratik begiratu ezkero, iru taldetakoak dira: 1. Iru manuskrito (*A, B, C*), 1933-1934n makiñaz joak eta kartoizko azalpetan sartuak; 2. Beste manuskrito mordo bat, guztiak makiñaz, eta S. Muniategik berak josi eta azala ipiñiak; onelakoak dira I-XX, eta XXV-XLIgarrenak; 3. Beste manuskrito batzuk, S. Muniategiren paperen artean aurkitu eta ainbat karpetetan neuk banandutakoak, XXI-XXIV, XXIV[a], eta XLII-XLVIIIgarrenak.

Manuskritoi dagokionez, kontuan izatekoa da guztiak S. Muniategik idatziak dirala, baiña ez dirala beti berak lenengoz idatzi eta argitaratzeko bialduak, argitaratu ziranetatik berak kopiatuak, beste paper batera aldatuak baiño; au jazoten da, esaterako, I-V manuskritoetakoekin.

Kontuan izatekoa da, baita ere, olerki berberak datozela bein baiño geiagotan idatzita edo kopiatuta, edo fotokopiatuta...

b. *Esku-idatziok banan banan*

— *Esk. A:* esku-idatzi onek (219 x 143 mm., 116 orrialde) *Biotzeko lorak* daroa titulutzat, eta kartoizko azal ederra dau, Filipinetan 1934n ipiñita. S. Muniategi beraren olerkiak ditu, baiña bai berak euskeratuak ere; 1933-1934ra bitartekoak dira. Makiñaz idatziak.

— *Esk. B:* (325 x 210 mm., 208 orr.). Izena: *Eusko-olerkiak;* ondo josia eta kartoizko azalez jantzia, 1934 inguruan Filipinetan au ere. Makiñaz idatzitako olerkiak dira, *Euzkadi* egungaritik artuak. Ogeta zortzi euskal-olerkariren olerkiak dira, 20 Lizardirenak, J. M. Garaterenak 6, eta abar. Muniategik berak sortuak ere baditu manuskrito onek, zortzi (21-22, 69, 107, 133, 171-173, 183-184, 189, 191garren orrialdietan).

— *Esk. C:* Manuskrito onek (320 x 208 mm., 328 orr.) *«Colección de poesías»* titulua daroa. Au ere kartoizko azal ederraz 1934n Filipinetan egiña. Olerkiak

1933-1934n makiñaz idatzita dagoz, guztiak erderaz, eta leku eta izkuntza askotako olerkarienak dira: Gabriel y Galán, Manuel del Palacio, Schiller, Lope de Vega, Shelley, Torcuato Tasso, Victor Hugo, Rubén Darío, Heine, Goethe, Unamuno, G. A. Becquer eta abarrenak. Baiña erderazko olerki bat, *Nocturno* tituluz, Muniategi berarena ere bai 227.orrialdean.

— *Esk. I* eta *II:* Manuskrito bi, josiak (325 x 217 mm., 189 orrialde guztiz, orrialdez orrialde zenbakituta). Muniategi beraren olerkiak dira *Olerti*-n argitaratutakoetatik aldatuak.

— *Esk. III:* 42 orri dira, josiak (315 x 217 mm.), *Gurpil, Zeruko Argia, Príncipe de Viana* eta *Goiz-Argi* aldizkarietan atera ziranetatik 1985n kopiatuak.

— *Esk. IV:* 58 orri (315 x 217 mm.); emen *Karmel*-en 1970-1985n argitaratu zituen olerkiak jaso ditu.

— *Esk. V:* 73 orridun manuskritoa (315 x 217 mm.) *Zer* eta *Agur* aldizkarietan argitaratutako olerkiekin (eta *Bidasoako Egutegia 85*, eta *Panorama*-ko gitxi batzuekin). Au 1986n amaitutako lana dau.

— *Esk. VI[a]*: 18 orridun manuskritoa (295 x 210 mm.). Fotokopiak dira. Emen Muniategik «Lauaxeta» sariketara bialdu zituen olerkiak batu dira. Titulua: *Estebantxuren eskutik.*

— *Esk. VI[b]*: 20 orri grapatuak (313 x 215 mm.). Kalkoz egindako kopia. Bere olerkiok, 18 guztiz, Muniategik «Lauaxeta» sariketara 1978n bialduak dira. Titulua: *Bizitzako ibilliz.*

— *Esk. VI[c]*: 20 orri (315 x 215 mm.) grapaz josi eta kalkoz kopiatuak; «Lauaxeta» sariketara bialduak onek ere (1978n ?). Titulua: *Betiko itxasoa.*

— *Esk. VI[d]*: 17 orri (315 x 215 mm.) grapatuak (kalkoz kopiatuta). S. Muniategik bere 16 olerkiok 1978n «Lauaxeta» sariketarako bialdu zituen. Titulua: *Antziñakoz.*

— *Esk. VII:* 35 orri (318 x 215 mm.), grapaz josiak. Fotokopiak dira. S. Muniategik bere 49 olerki oneik 1977n «Jose Artetxe» sariketarako bialdu zituen Irunera. Titulua: *Bizia baieztuz.*

— *Esk. VIII:* 72 orridun manuskritoa azalez jantzia (315 x 215 mm.). S. Muniategik 35 olerkiok Ondarroako «Euskal-jokoetara» bialduak dira eta lenengo saria irabazi eben 1982n. Titulua: *Kresal abotsez.*

— *Esk. IX:* 52 orri (315 x 215 mm.) azalez jantzita. XI. Azkue sariketara 1985n bialdutako olerkiak. Titulua: *Bizitzako gogapenez.*

— *Esk. X:* 50 orri azalez jantziak (315 x 215 mm.). XI.Azkue sariketara 1985n bialdutako olerkiak. Titulua: *Nire aintzindar oiartzunak.*

— *Esk. XI: Esk. X*garrenaren fotokopiak, azalez jantzita.

— *Esk. XII:* 31 orri azalez jantzita (290 x 215 mm.) S. Muniategik Larreako *Olerti*-sariketara 1977n bialdu eta saria irabazitako 30 (31) olerki. Titulua: *Odolaren irakiñean.*

— *Esk. XIII:* 39 orri, azalez jantzita (315 x 215 mm.). Fotokopiak. «Xalbador» sariketara (Iruñera) 1978n bialdu eta saria irabazitako 33 olerki. Titulua: *Betiko alorrean.*

— *Esk. XIV:* 16 orri grapatuak (315 x 215 mm.). Larreako *Olerti* sariketara 1979n bialdutako 15 olerki. Titulua: *Gizatasun elburuz.*

— *Esk. XV:* 19 orri, grapaz josiak (315 x 215 mm.); 15 olerki ditu, 1979 ingurukoak. Titulua: *Gizonaren nekea.*

— *Esk. XVI:* 18 orridun manuskritoa (315 x 215 mm.), 15 olerki, 1979 inguruan edo egiñak.

— *Esk. XVII:* 8 orridun manuskritoa, kalkoz kopiatua. S. Muniategik euskerara itzulitako lana, Rafael Urraza-ren *Egunerokoa (Diario).*

— *Esk. XVIII:* 17 orri, grapaz josiak (315 x 215 mm.). Ia guztiak fotokopiak dira. 16 olerki 1984-1985-n idatziak.

— *Esk. XIX:* 17 orridun manuskritoa, grapaz josia (315 x 215 mm.): Euskerazko 5 olerki ditu, bat erderatik itzulia.

— *Esk. XX:* 6 orri, grapaz josiak (315 x 215 mm.). Kalkozko kopia da, eta 1978-ko 5 olerki ditu.

— *Esk. XXI:* 148 orridun karpeta, geienak 315 x 215 mm. dabezala. Emen bere olerkiak eta berak euskerara itzuliak bere eskuz edo fotokopiaz egiñak ditu.

— *Esk. XXII:* 131 orridun (315 x 215 mm.) karpeta. Urte askotan idatzitako bere olerkiz eta erdaratik euskerara itzulitakoz osotua.

— *Esk. XXIII:* 223 orridun karpeta bat da eta berak idatzitako eta erderatik itzulitako olerkiak ditu.

— *Esk. XXIV:* 157 orridun karpeta onetan berak egindako olerkiak eta euskerara itzulitako batzuk sartu ditu, geienak bere-bereak.

— *Esk. XXIV*[a]: 25 orridun karpetatxoa (315 x 215 mm.) 1989-1990ko 18 olerki dituela.

— *Esk. XXV:* 91 orridun manuskritoa, azalez jantzia (315 x 215 mm.). Olerkari erdaldun askoren olerkiak, S. Muniategik euskerara itzuli eta *Olerti*-n argitaratuekin.

— *Esk. XXVI:* 25 orri, azalez jantziak (315 x 215 mm.). Dionisio Aymarak erderaz idatzi eta S. Muniategik euskerara itzulitako olerkiak dira. Titulu nausia: *Laztantasuna eta Asarrea (La ternura y la cólera).*

— *Esk. XXVII:* Plastiko baten barruan 11 orri (315 x 215 mm.). *«Hiroshima»* izeneko olerkia, Dora Etxeberri Castellanos-ena, S. Muniategik euskerara 1975n itzulia.

— *Esk. XXVIII:* 47 orri, azalez jantzita (315 x 215 mm.). Hildebrando Rodríguez-en *«Oarketak» (Reflexiones),* S. Muniategik 1986n euskerara itzuliak.

— *Esk. XXIX:* 41 orridun manuskritoa (295 x 210 mm.). Fotokopiak dira. Olerkiak Oscar Echeverri Mejiak erderaz idatzirik S. Muniategik 1980n euskerara itzuliak. Titulua: *«Lau aroak» (Las cuatro estaciones).*

— *Esk. XXX:* Grapaz jositako 24 orridun manuskritoa (295 x 210 mm.). Juan Ibarbourou-ren 23 olerki, S. Muniategik euskeraratuak ditu.

— *Esk. XXXI:* 63 orri (320 x 215 mm.), azalez jantziak. Fotokopiak. Gabriela Arceniega-ren lana, olerkizkoa barik itzlauzkoa, *Kontakizunak* eta abar. Azalean daroan titulua: *Etxetxo bat airean (Una casita en el aire).* S. Muniategik 1983n euskerara itzulia.

— *Esk. XXXII:* 42 orridun manuskritoa, josita (315 x 215 mm.). Manuel Moreno Jimenok erderaz idatzitako olerkiak, 1975n S. Muniategik euskeraratuak. Titulua: *Odolaren Sugarrak (Las llamas de la sangre).*

— *Esk. XXXIII:* Esk. XXXIIgarrenak dakarrena bera dau, baiña XXXIIIgarrren onetan orri biko sarrera dauka, eta gaiñera, badirudi aiztu egin jakola XXXIIgarreneko olerki bat.

— *Esk. XXXIV:* 41 orri, azalez jantzia (315 x 215 mm.). Oton Chirino-ren olerkiak, S. Muniategik 1975n euskeraz jarriak. Titulua: *Argiaren bezperak (Vísperas de la luz).*

— *Esk. XXXV:* 71 orri, azalez jantziak (315 x 215 mm.) Jorge Marel-en olerkiak, S. Muniategik 1983n euskeraratuak. Titulua: *Itxasoaren gauezkoak (Nocturnos del mar).*

— *Esk. XXXVbis:* Esk. XXXVgarrenaren fotokopia.

— *Esk. XXXVI:* 33 orri, azalez jantziak (312 x 215 mm.). Fotokopiak. Pablo Mora-ren olerkiak, S. Muniategik 1979n euskeraz jarriak. Titulua: *Mintegi (Almacigo).*

— *Esk. XXXVII:* 30 orri, azalez jantzita (315 x 215 mm.). Víctor Manuel Crespo-ren olerkiak, S. Muniategik 1977n euskeraratuak. Titulua: *Lorratzak dira bidea (Huellas son camino).*

— *Esk. XXXVIII:* 37 orridun manuskritoa, azalez jantzia (310 x 210 mm.). Andrés Athilano-ren olerkiak, 1977n S. Muniategik euskeraratuak. Titulua: *Venezuelako erara egindako amalaukoak (Sonetos hechos al modo venezolano).*

— *Esk. XXXIX:* 39 orridun manuskritoa (310 x 215 mm.), azalez ornidua. Rafael Alberti-ren olerkiak. Fotokopiak. S. Muniategik euskerara itzuliak. Titulua: *Aingeruetzaz (Sobre los ángeles).*

— *Esk. XL:* 64 orridun manuskritoa, azalez jantzia (315 x 215 mm.). Helcías Martán de Góngora-ren olerkiak S. Muniategik 1976n euskerara itzuliak. Titulua: *Itzeri lotua (Encadenado a las palabras).*

— *Esk. XLI:* 36 orri grapaz josiak (315 x 215 mm.). Kalkoz kopiatuak. Helcías Martán de Góngora-ren olerkiak, S. Muniategik 1975n euskeraratuak.

— *Esk. XLII:* 64 orridun karpeta olerki kopiatuzkoa. Olerkari askorenak dira, S. Muniategik euskerara itzuliak.

— *Esk. XLIII:* Grapaz jositako orri-mordoa daukan karpeta. Olerkiak Pedro Salinas-enak (1-7 orr.), León Felipe-renak (8-36. orr.), V. M. Crespo Mendizábal-enak (37-52. orr.), Dionisio Aymara-renak (53-66. orr.) et Helcías Martán Góngora-renak (67-71), S. Muniategik euskeraratuta.

— *Esk. XLIV:* 139 orridun karpeta, S. Muniategik berak sortutako olerkiak geien baten dituana.

— *Esk. XLV:* 158 orridun karpeta, S. Muniategi beraren olerkiak dituela, geien baten 1988-1990koak.

— *Esk. XLVI:* 136 orridun karpeta moldezko beste paper batzuekin. Olerkari askotxoren olerkiak, S. Muniategik euskeraz ipiñiak.

— *Esk. XLVII:* 124 orridun karpeta S. Muniategiren artikulo, olerki ta itzulpenakin.

— *Esk. XLVIII:* 63 orridun manuskritoa (313x 213 mm.). Fotokopiak. Gabriel García Márquez-en elebarria: *«Iragarritako eriotza baten edestia» (Crónica de una muerte anunciada),* S. Muniategik 1981n euskeratua.

## 4. ARGITARATUTAKO LAN JATORREN BIBLIOGRAFIA

Orain argitaraturik dituen lan jator guztien bibliografia urtez urte aurkezten dot. Baiña itz lauzko lan batzuen tituluak ere jartzen ditut (geienak olerkigintzarekin zer ikusi dauken lantxoak); onelakoak asterikoa daroe aurrean, eta argitaratu bako artikulo batzuk ere jartzen ditut (*).

### 1935

*Itxaropena,* Euzkadi 23 (1935, 7009.zenb.) 12.

*Zeugaitik,* Euzkadi 23 (1935, 7016.zenb.) 12.

*Uri illa,* Euzkadi 23 (1935, 7020.zenb.) 12.

* *Jarraitu dagigun aurrera,* Euzkadi 23 (1935, 7023.zenb.) 12.

*Gaberdiko amesa,* Euzkadi 23 (1935, 7029.zenb.) 12.

* *Filipinas'ko landetxe baten,* Euzkadi 23 (1935, 7032.zenb.) 12.

*Udako gaba,* Euzkadi 23 (1935, 7039.zenb.) 12; *Milla euskal-olerki eder,* 748-749.

*Lilluratuarena,* Euzkadi 23 (1935, 7061.zenb.) 12.

*Atsedenaldia,* Euzkadi 23 (1935, 7064.zenb.) 10.

*Zorakeria,* Euzkadi 23 (1935, 7074.zenb.) 12

*Arrain Sailtzallia,* Euzkadi 23 (1935, 7078.zenb.) 12; *Milla euskal-olerki eder,* 750-751.

*Ez autortu!,* Euzkadi 23 (1935, 7083.zenb. 10.

*Udabarriko eresia,* Euzkadi 23 (1935, 7118.zenb.) 10.

### 1936

*Abertzale zintzoarena,* Euzkadi 24 (1936, 7279. zenb.) 14.

*Biotzaren Deia,* Euzkadi 24 (1936, 7283.zenb.) 14.

*Gurari utsa,* Euzkadi 24 (1936, 7292. zenb.) 16; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 61-62.

*Orrillakua*, Euzkadi 24 (1936, 7302.zenb.) 14.
*Ama Lur*, Euzkadi 24 (1936, 7325.zenb.) 14.
*Burtzaina*, Euzkadi 24 (1936, 7338.zenb.) 14.
*Dantzariak*, Euzkadi 24 (1936, 7342.zenb.) 12.
*Ume-olerkiak. Jostalua*, Euzkadi 24 (1936, 7348.zenb.) 14.
*Bei zarra*, Euzkadi 24 (1936, 7366.zenb.) 8.
*Moskortuak*, Euzkadi 24 (1936, 7387.zenb.) 8.
*Ametsezko itxasoan*, Euzkadi 24 (1936, 7403.zenb.) 8.
*Jauntxo*, Euzkadi 24 (1936, 7404.zenb.) 8.
*Euzko gudariai*, Euzkadi 24 (1936, 7414 [bis].zenb.) 8.
*Lilitegian*, Euzkadi 24 (1936, 7421.zenb.) 8.
*Arrats beran*, Euzkadi 24 (1936, 7438.zenb.) 8.
* *Elorrio'ko Guda etxetik*, Euzkadi 24 (1936, 7442.zenb.) 10.
*Narkis*, Euzkadi 24 (1936, 7446.zenb.) 8.
*Zugatz bati*, Euzkadi 24 (1936, 7470.zenb.) 8; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 47-48.
*Bai dakit bai*, Euzkadi 24 (1936, 7479.zenb.) 8.
*Dakit*, Euzkadi 24 (1936, 7490.zenb.) 10.
*Egunaren eriotza*, Euskerea 8 (1936, 15.zenb.) 173-174.
* *Ludi-ziar. Kulion, ludiko legenardundi aundijena*, Euzkadi 24 (1936, —?)
*Goiz-Aize*. Bilbao 1936. 82 orr.

**1937**

*Eskeintza. Neskatil lirain bati...*, Eguna 1 (1937, 6.zenb.) 1; 1 (1937, 86.zenb.) 3; Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 11-12.
*Elantxobe*, Eguna 1 (1937, 14.zenb.) 2.
*Nai*, Eguna 1 (1937, 26.zenb.) 1.
*Norentzat?*, Eguna 1 (1937, 33.zenb.) 4.
*Neskatxarena*, Eguna 1 (1937, 40.zenb.) 4; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 46.
*Basetxea*, Eguna 1 (1937, 42.zenb.) 4.
*Negarra*, Eguna 1 (1937, 44.zenb.) 4; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 44.
*Umearena*, Eguna 1 (1937, 49.zenb.) 6; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 48-49.
*Agurra*, Eguna 1 (1937, 52.zenb.) 2.
*Udara garaian...*, Eguna 1 (1937, 86.zenb.) 2.
*Otsein zoriontsuak*, Eguna 1 (1937, 136.zenb.) 4.
*Gure ikurrinpean...*, Eguna 1 (1937, 9.zenb.) [3].

## 1962

*Artoak*, Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 8-9.

*Txoriakin bat...*, Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 9-10.

*Ire esku txuri...*, Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 11.

*Baserrira dei*, Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 12-14.

*Illargia...*, Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 15-16.

*Adar billutsetan...*, Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 16.

*Arto sortu-berriz...*, Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 17.

## 1963

*Neguak aldegiñaz batera*, Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 36-37.

*Gutxien uste zanian*, Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 38-39.

*Udaberri goizean*, Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 39-40.

*Eguzki goiztarraren gozotasunez*, Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 40-42.

*Eta, ego-aize epel artean...*, Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 43-44.

*Gaur argi zerutsu batean...*, Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 45-47.

*Eta, olaxe bidean gora*, Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 36.

*Auts artera eroriz*, Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 37.

*Angelus*, Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 38-39.

*Goiza...*, Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 40-42.

## 1964

*Bai bidezkaz eta bidez bide*, Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 46.

*Gau-eresia*, Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 47-49.

*Udazkenekoa*, Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 49-51.

*Izadiarekin eskuz esku*, Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 52-53.

*Andrakilatxoa*, Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 53-54.

*Gaztetasun bidean*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 42.

*Neguaren atedian*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 43.

*Illargipean*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 44-45.

*Argi iaio berria*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 46.

*Neure esku dan biotzari*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 48.

*Bideari emana,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 49.
*Biziak gaur,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 49-50.
*Udaberritarra,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 50-51.
*Itz argi...,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 51-52.
*Gure aur, eder polita...,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 52-53.
*Goizako belar..,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 53-54.
*Billutsik,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 54.
*Garaitza,* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 55.
*Epalla,* Z-Argia 27 (1964, 54. [55].zenb.) 6.
*Bizi-ikara,* Z-Argia 27 (1964, 58.zenb.) 4.
*Itxaskari,* Z-Argia 27 (1964, 59.zenb.) 4.
*Mitxeleta,* Z-Argia 27 (1964, 60.zenb.) 6.
*Eskari,* Z-Argia 27 (1964, 67.zenb.) 4.
*Irudiak,* Z-Argia 27 (1964, 95.zenb.) 6.

**1965**

*Olerkariarena,* Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 14-20.
*Nere gogo,* Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 20.
*Ikurrin,* Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 21-22.
*Itxaroa,* Olerti 7 (1965, 3-4.zenb.) 23-27.
*Bidean gora,* Z-Argia 28 (1965, 100.zenb.) 8.
*Udaberri eresi,* Z-Argia 28 (1965, 110.zenb.) 8.

**1966**

*Bide-ikara,* Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 69-75.
*Arrats bidez,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 38.
*Gorakunde,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 39-40.
*Ibaiarena,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 40-41.
*O, udazkeneko arratsalde...!,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 42.
*Biok batera,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 43.
*Ibilliz,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 44.
*Itzarkunde,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 45-46.
*Oroitza,* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 49-51.

## 1967

*Itzartze*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 11-12.
*Udabarriarena*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 39-41.
*Maitasun*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 48.
*Izarrik ederrena*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 49.
*Ametsa*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 49.
*Onoimen*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 50-55.
*Ildura*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 56.
*Asko dira bai*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 57.
*Kaieratze*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 58-61.

## 1968

*Aizearen kideko...*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb) 41-45.
*Ibillaldia*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 120-122.
*Uri barnez*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 49-52.
*Marigorringo*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 53-55.
*Negu ondorengo esnatze*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 55-56.
*Bizi-gorapen*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 53-56.
*Itxasoratze*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 56-57.
*Oñezkoak gera ta egunik egun...*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 58-59.
*Ogia*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 59-60.
*Maitezko egada*, Olerti 10 (1968, 3-5.zenb.) 62-63.
*Kemena*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 63-64.
*Ni naizen ontzi beartsu oni*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 65-66.
*Aizearen menean*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 67.
*Amets eder baten antzera*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 68-69.
*Ezbaitasun*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 80-81.
*Larra'ko Amari*, in: [S. ONAINDIA, Zuz.], *Giza-bizia*, Bilbao 1968, 21-23.

## 1969

*Arteaga*, Olerti 11 (1969, 1-2.zenb.) 22-24.
*Egia da bai, egia...*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 25-26.

*Bein ta berriz*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 40.
*Iturria*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 41.
*Aizea nora...*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 42.
*Ta, egiz...*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 43.
*Ta, or...*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 44.
*Bideratu nadin...*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 45.

**1970**

* *Gaztediari buruz*, Karmel 1970-3, 7-8.
*Zerbaitek iges dagi*, Karmel 1970-3, 13.
*Izkuntza*, Karmel 1970-4, 26.
*Bidean gora. Olerkiak*. Bilbao 1970. 184 orr.

**1971**

* *Biotzaren agoz*, Agur 2 (1971, 12.zenb.) 12.
* *Itxasoetako emoitzak*, Agur 2 (1971, 15.zenb.) 1.
* *Udako bidez*, Agur 2 (1971, 19.zenb.) 12.
* *Artetxe idazlea*, Agur 2 (1971, 23.zenb.) 8.
* *Esakunak*, Agur 2 (1971, 26.zenb.) 2.
*Egiz*, Karmel 1971-1, 36.
* *Jean Barbier gogoratuz*, Karmel 1971-1, 54-56.
*Mundu zabalean*, Karmel 1971- 2, 9.
*Dendarik denda*, Karmel 1971- 3, 34.
*Lenaren lenetik*, Karmel 1971- 3, 39.
*Lengoa*, Karmel 1971- 4, 21.
*Udazkenez*, Karmel 1971- 4, 31.
*Itza*, Z-Argia 33 [34] (1971, 432.zenb.) 11.

**1972**

* *Goiznabar*, Agur 3 (1972, 28.zenb.) 8.
* *Erein gogo onez*, Agur 3 (1972, 29.zenb.) 8.
* *Mahalia Jackson*, Agur 3 (1972, 32.zenb.) 5.

* *Txori eta egaztiak olertian,* Agur 3 (1972, 33.zenb.) 8.
* *Udabarriko bidez,* Agur 3 (1972, 36.zenb.) 5.
* *Gogoa,* Agur 3 (1972, 39.zenb.) 8.
* *Neure erria ikertuz,* Agur 3 (1972, 40.zenb.) 6.
* *Zerbait oldoztuz,* Agur 3 (1972, 42.zenb.) 6.
* *Heine olerkaria,* Agur 3 (1972, 44.zenb.) 8.
* *Ibillaldi bat gogoratuz,* Agur 3 (1972, 48.zenb.) 1.
* *Biziaz arduratuz,* Agur 3 (1972, 49.zenb.) 4.
* *Ikusi ta ikasiz,* Agur 3 (1972, 53.zenb.) 4.
* *Adizkidetasun bidez,* Agur 3 (1972, 55.zenb.) 6.
*Gernika,* Agur 3 (1972, 60.zenb.) 7.
* *Egiaren bidez,* Agur 3 (1972, 64.zenb.) 8.
* *Gabon bidez,* Agur 3 (1972, 66.zenb.) 8.
*Mintzo ixil baten aoz,* Karmel 1972-1, 9.
*Maitezko bidean,* PVV 7 (1972, 80.zenb.) 5.
*Izate,* PVV 7 (1972, 81-82.zenb.) 4.

**1973**

* *Mireya Robles,* Agur 4 (1973, 71.zenb.) 4.
* *Dora Castellanos,* Agur 4 (1973, 75.zenb.) 4.
* *Itxasoak eta bertsoak,* Agur 4 (1973, 80.zenb.) 3.
* *Estrella Genta,* Agur 4 (1973, 81.zenb.) 4.
* *Izparra,* Agur 4 (1973, 82.zenb.) 8.
* *Lauaxeta oroituz,* Agur 4 (1973, 87.zenb.) 2.
* *Ta ene aitaren lurraldean gertatu zan,* Agur 4 (1973, 88.zenb.) 2.
* *Loreilla,* Agur 4 (1973, 89.zenb.) 4.
* *Magda Stella,* Agur 4 (1973, 91.zenb.) 4.
* *Aldiaren ordularian,* Agur 4 (1973, 95.zenb.) 1.
* *Euskereaganako maitasuna. Olerkietan,* Agur 4 (1973, 96.zenb.) 2.
* *Atserritar olerkiak,* Agur 4 (1973, 97.zenb.) 5.
* *Lauaxeta, olerti bidean,* Agur 4 (1973, 104.zenb.) 2.
* *Euskal literatura,* Agur 4 (1973, 105.zenb.) 8.
* *Ikusiz ikasi,* Agur 4 (1973, 106.zenb.) 1.
* *Berriotxoa idazle?,* Agur 4 (1973, 107.zenb.) 8.

* *Enbeita*, Agur 4 (1973, 110. zenb.) 8.
* *Kutsutasuna*, Agur 4 (1973, 114.zenb.) 8.
* *Rafal Alberti*, G-Argi 14 (1973, 159.zenb.) 7.
* *Pedro Salinas*, G-Argi 14 (1973, 173.zenb.) 2.
* *Pablo Neruda*, G-Argi 14 (1973, 177.zenb.) 2.

**1974**

* *Soina ta soiñekoak*, Agur 5 (1974, 123.zenb.) 2.
*Udaberri*, Agur 5 (1974, 132.zenb.) 6.
*Mintzoa*, Agur 5 (1974, 164.zenb.) 4.
*Bide goienean*, G-Argi 15 (1974, 220.zenb.) 2.
*Gauza apalak*, Karmel 1974-4, 58.

**1975**

*Abotsa*, Agur 6 (1975, 169.zenb.) 4.
*Udaberria*, Agur 6 (1975, 178.zenb.) 4.
*Bai, galdera bat da...*, Agur 6 (1975, 179.zenb.) 5.
*Ba-degu bai nun lan egin*, Agur 6 (1975, 183.zenb.) 6.
*Gaztetako egoekin*, Agur 6 (1975, 186-187.zenb.) 4-5.
*Urrutia'tar Gotzon Aita zanaren gomutaz*, Agur 6 (1975, 188-189.zenb.) 2.
*Itsukeria*, G-Argi 16 (1975, 239.zenb.) 2.
*Tantai-ondo igerra*, G-Argi 16 (1975, 240.zenb.) 2.
*Odeiburua*, G-Argi 16 (1975, 248.zenb.) 2.
*Itzen inguruz*, G-Argi 16 (1975, 252.zenb.) 2.
* *Martí, erri baten abotsa*, G-Argi 16 (1975, 254.zenb.) 2.
*Egoak*, Karmel 1975-3, 59.
*Mundua*, Karmel 1975-3, 59-60.
*Nire aurtzaroko ibaia*, Karmel 1975-3, 60.
*Egunon [diogu egunon]*, Kurpil (1975, 7.zenb.) 20; G-Argi 18 (1977, 326.zenb.) 7.
*Argiaren alde*, Kurpil (1975, 7.zenb.) 22.
*Leio iriki zabalez...*, PVV 10 (1975, 116.zenb.) 4.

### 1976

*Zu ere ene maitea*, G-Argi 17 (1976, 317.zenb.) 24.

*Artistea*, Karmel 1976-3/4, 80-82.

*Erriagandiko arnasaz*, PVV 11 (1976, 121.zenb.) 8.

*Olerkia*, PVV 11 (1976, 121.zenb.) 9.

*Argiaren alde*, PVV 11 (1976, 122-123.zenb.) 8.

*Agerpena*, PVV 11 (1976, 124-125.zenb.) 9.

### 1977

*Kitarra*, G-Argi 18 (1977, 324.zenb.) 18.

*Aldiaren zorabio errean*, G-Argi 18 (1977, 326.zenb.) 24.

*Iztegia*, Karmel 1977-4, 75.

*Betiko baserria*, PVV 12 (1977, 126-127.zenb.) 9.

*Sorkuna eta elburua*, PVV 12 (1977, 129-131.zenb.) 9.

*Laburpenez*, PVV 12 (1977, 132-134.zenb.) 8.

*Bakartade abestiz*, PVV 12 (1977, 135-137.zenb.) 8.

*Imanol Lekuona jaun argiari*, In: *Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma*, II., Tolosa 1977, 165. orr. (Kardaberaz Bilduma, 20).

### 1978

*Olarizu'ko landetan*, G-Argi 19 (1978, 408.zenb.) 22.

*Leiotik begiratuz*, G-Argi 19 (1978, 415.zenb.) 19.

*Ereintza gaiztoa*, G-Argi 19 (1978, 415.zenb.) 19.

* *Gabon Kantak. Baibelenak*, G-Argi (1978, 418.zenb.) 18.

*Gurutzea*, PVV 13 (1978, 138-140.zenb.) 8.

*Itzekin bakarrik*, PVV 13 (1978, 141-143.zenb.) 7.

*Bizitzeko gogoz*, PVV 13 (1978, 141-143.zenb.) 8.

### 1979

*Arana-Goiri'tar Sabin*, Zer (1979, 17.zenb.) 13; Olerti 1984, 127-130.

*Edozeiñentzako*, Zer (1979, [25].zenb.) 7.

*Ispillua*, Zer (1979, [25].zenb.) 7.

## 1980

*Maitasunaz*, Karmel 1980-2, 84-85 (Bidasoako Egutegia-81).
*Erantzuna*, Karmel 1980-2, 86.
*Itz artean*, Karmel 1980-2, 87.
*Denpora illa*, Karmel 1980-2, 88.
* *Dora Etxebarria*, Olerti 1980, 64-69; Karmel 1980-4, 91-96.
*Miraripean*, Olerti 1980, 69-70.
*Urte Barriaren aurrean*, Zer (1980, 29.zenb.) 4.
*Julene Azpeitia (Arritokieta)*, Zer (1980, 32.zenb.) 5.
*Andra Mari Martiko*, Zer (1980, 32.zenb.) 7.
* *Arana Goiri'tar Sabin Olerkari*, Esk. XLVII, 9-19. (c.1970-1980).

## 1981

*Norbera dan zugatzan*, Karmel 1981-2, 77.
*Bizi izateko*, Karmel 1981-2, 78.
*Aramua eta elbia*, Karmel 1981-2, 78.
*Ur txiki, ur guztiak*, Karmel 1981-3, 69.
*Zaildura*, Karmel 1981-3, 70.
* *Zer da Olerkia?*, Olerti 1981, 13-15.
*Ondoratzea*, Olerti 1981, 78-79.
*Aizeak*, Olerti 1981, 79.
*Ontzi baztertua*, Olerti 1981, 80.
*Antzarrak*, Olerti 1981, 83.
*Kabitik ara*, Olerti 1981, 86.
*Pablo Zamarripa gomutatuz*, Olerti 1981, 87-88.
*Peña Albizu'tar Xabier zanaren gomutaz*, Olerti 1981, 89-90; Zer (1981, 39.zenb.) 12.
*Barri onarena*, Olerti 1981, 148-149.
*Zer da maitasuna?*, PVV 15 (1981, 147.zenb.) 9.
*Urte Barrikoa*, Zer (1981, 40.zenb.) 6.
*Negu baltzaren ondoren*, Zer (1981, 42.zenb.) 10.
*Euri bizikorra*, Zer (1981, 48.zenb.) 5.
*Urarena*, Zer (1981, 49.zenb.) 7.
*Ezaren billa*, Zer (1981, 49.zenb.) 7.
* *Tene*, Esk. XXIV, 18-25.

## 1982

*Sho-Sho erria,* Karmel 1982-1, 91-92.
*Izan,* Karmel 1982-2/3/4, 175.
*Eskuak laztanduz,* Karmel 1982-2/3/4, 177.
*Loratan dagon zeruarena,* Olerti 1982, 33.
*Itzak,* Olerti 1982, 33-34.
*Verlaine gogoratuz,* Olerti 1982, 34-35.
*Itxasoa,* Olerti 1982, 35-36.
*Egun argitzen,* Olerti 1982, 37.
*Neska gaztea,* Olerti 1982, 37-38.
*Emantza,* Olerti 1982, 38-39.
*Neurekerak,* Olerti 1982, 39-40.
*Umezaroko,* Olerti 1982, 41.
* *Eusebio Erkiaga «Endaitz»,* Olerti 1982, 135-149.
*Lorratzak,* PVV 16 (1982, 149.zenb.) 10.
*Arrantzale adintsua, kai bazterrean,* Zer (1982, 51.zenb.) 4.
*Mendiko iturria,* Zer (1982, 52.zenb.) 12.
*Pozgai txikiak,* Zer (1982, 55.zenb.) 5.
*Euskerea zelairatzeko,* Zer (1982, 55.zenb.) 5.
*Egun illunak,* Zer (1982, 55.zenb.) 15.
*Orbelak lez,* Zer (1982, 57.zenb.) 10
*Munduaren negarra,* Zer (1982, 58.zenb.) 12.
* *Bidetik amesetan,* Zer (1982, 60.zenb.) 11.
*1982,* Zer (1984, 71.zenb.) 14 (*1984*).

## 1983

*Itxaropena,* Olerti 1983, 181 (Bidasoako Egutegia-1985?).
*Illuntze,* Olerti 1983, 182.
*Mindura,* Olerti 1983, 182.
*Izatearen muinean,* Olerti 1983, 183.
*Baietza,* Olerti 1983, 183.
*Udaberriz,* Olerti 1983, 184.
* *Arregi-tar Joseba. Heine, doixtar olerkariaren itzultzaille,* Olerti 1983, 312-319.

*Txirtxirra*, PVV 17 (1983, 153.zenb.) 10.
*Gauzak eta guraria*, PVV 17 (1983, 154.zenb.) 10.
*Asis'ko Prantzisko Deunari eskaria*, PVV 17 (1983, 157.zenb.) 9.
*Puxana*, Zer (1983, 70.zenb.) 12; Olerti 1985-86, 237-238.

## 1984

*Atsegin txikiaren abestia*, Karmel 1984-1/2, 49.
*Ardoa*, Karmel 1984-3/4, 122.
*Unea*, Karmel 1984-3/4, 123.
*Maitaleen soñu-aldia*, Karmel 1984-3/4, 124.
*Itsasoaren azala*, Olerti 1984, 123.
*Bultzia*, Olerti 1984, 123.
*Billuts-billutsik*, Olerti 1984, 124.
*Oldoztu neban*, Olerti 1984, 125.
*Beti diardogu igarotzen*, Olerti 1984, 126.
*Illotsa*, Olerti 1984, 126.
*Mundu ontako txarkeri artean*, Olerti 1984, 131.
*Urril bidez*, Olerti 1984, 132.
* *Aizkibel-dar Bingen*, Olerti 1984, 253-256.
* *Manterola-tar Gabirel olerkaria*, Olerti 1984, 265-278.
*Uri bi*, Zer (1984, 74.zenb.) 2.
*Udabarriari buruz*, Zer (1984, 74.zenb.) 14.
*Bakea*, Zer (1984, 76.zenb.) 13; (1984, 77.zenb.) 3.
*Urduritasuna*, Zer (1984, 77.zenb.) 3.
*Elantxobe*, Zer (1984, 77.zenb.) 3.
*Gure mundua*, Zer (1984, 77.zenb.) 3.
*Barre egiten dakin...*, Zer (1984, 77.zenb.) 16.
*Unamuno gogoratuz*, Zer (1984, 80.zenb.) 4.

## 1985

*Urte barrira begira*, Karmel 1985-1, 90.
*Sorroa leporaturik*, Karmel 1985-1, 91.
*Lore txoria*, Karmel 1985-1, 92.

*Amaren aolkua,* Karmel 1985-2, 100.

*Beren loreil gurenean,* Karmel 1985-2, 100.

*Abestu larroseari,* Karmel 1985-3, 108.

*Aizea eta neskak,* Karmel 1985-3, 108.

*Nun zagoz gaur,* Karmel 1985-3, 109.

*Txoriz jantzitako zugatz bati,* Karmel 1985-3, 112.

*Bizialdi urrun bat gogoratuz,* Karmel 1985-4, 45-47.

*Lur orbeldua,* Karmel 1985-4, 91.

*Iragarkiak,* Olerti 1985-86, 239.

*Erkiaga-tar Eusebi olerkari eta idazle argiari,* Olerti 1985-86, 240-241.

*Atzokoaz mintzatzea,* Zer (1985, 85.zenb.) 8.

*Arraintzportu euskaldunak,* Zer (1985, 85.zenb.) 8.

*Mundua agurtuz,* Zer (1985, 86.zenb.) 7.

*[Beste egunetan lez],* Zer (1985, 86.zenb.) 3.

*[Txo],* Zer (1985, 86.zenb.) 3.

*Aldatz gora...,* Zer (1985, 86.zenb.) 7.

*Eztabaidak,* Zer (1985, 86.zenb.) 7.

*Ongura maitez,* Zer (1985, 89.zenb.) 7.

*Berba bakarra,* Zer (1985, 90.zenb.) 3.

*Bizia martxan,* Zer (1985, 92.zenb.) 7.

* *Batiz-tar Bingen,* Esk. XLVII, 38-47. (1985-II-24).

* *Maruri-tar Erramun,* Esk. XLV, 118-128. (1985). (*Olerti 1987-1988*n argitaratzeko).

* *Bermeo,* Esk. XLVII, 1-8. (c. 1980-1985).

* *Talankeriak,* Esk. XLVII, 26-27. (c. 1980-1985).

* *Eli,* Esk. XLVII, 23-25. (c. 1975-1985).

**1986**

*Zipitria-tar Elbire anderenoa,* in: EUSKERAZAINTZA'K, *Zipitria'tar Elbire «Anderenoa» Omenaldia.* Tolosa 1986, 171. orr.

*Loreil bidezko oarpenak,* Karmel 1986-1, 108-109.

*Arrese-Beitia,* Karmel 1986-2, 110-111.

* *Ama euskera,* Karmel 1986-3, 103-110.

*Zadorrezko uretan,* Karmel 1986-4, 105.

*Uste dozu ugartea zarala*, Karmel 1986-4, 106.
*Oetik baterakoan*, Karmel 1986-4, 109.
*Kempiz'en erabidez*, Karmel 1986-4, 110.
*Guztiori zorion*, Zer (1986, 93.zenb.) 4.
*Udazken ikuspegiz*, Zer (1986, 93.zenb.) 4.
*Gabarena*, Zer (1986, 95.zenb.) 5.
*Poztu zaitez neugaz*, Zer (1986, 95.zenb.) 10.
*Une, tini...*, Zer (1986, 95.zenb.) 12.
*Bakoitzkeria*, Zer (1986, 96.zenb.) 6.
*Orriak aizean*, Zer (1986, 97.zenb.) 10.
*Suaren eta gatzaren arduradun*, Zer (1986, 99.zenb.) 7.
*Super Gau*, Zer (1986, 100.zenb.) 4.
*Itzulerarik ez daukan bidez*, Zer (1986, 100.zenb.) 13.
*Txikita astotxoa*, Zer (1986, 100.zenb.) 13.
*Bakartadezko nekepean*, Zer (1986, 100.zenb.) 32.
*Oiu bat*, Zer (1986, 100.zenb.) 32.
* *Udazkeneko biotzkadak*, Zer (1986, 102.zenb.) 17.
*Orriz orri*, Zer (1986, 103.zenb.) 12.

## 1987

* *Unamuno*, Karmel 1987-1, 89-91.
*Orbeldu baiño lenago*, Karmel 1987-2, 103.
*Urrundiko ipuiña*, Karmel 1987-2, 104.
*Alea*, Karmel 1987-2, 105.
*Itxasoa*, Karmel 1987-2, 106.
*Otoitza*, Karmel 1987-2, 107.
*Itxasoa danena zanean*, Karmel 1987-3, 107.
*Itxasoak*, Karmel 1987-3, 108.
*Udazken aizeaz*, Karmel 1987-3, 109.
*Udako ikuspegi bat*, Karmel 1987-3, 110.
*Egin amets*, Karmel 1987-3, 112.
*Zu nire alboan*, Karmel 1987-3, 112.
*Aberria*, Karmel 1987-4, 103.
*Sendotasunez*, Karmel 1987-4, 106.

*Etsipenez beterik,* Karmel 1987-4, 107.
*Ereduak,* Karmel 1987-4, 110.
*Maxiaketa,* Karmel 1987-4, 111.
*Zubikarai-tar Agustin,* Zer (1987, 107.zenb.) 7.
*Inguma,* Zer (1987, 107.zenb.) 7.
*Orriak eta aizea,* Zer (1987, 108.zenb.) 3.
*Paper zurizko itxasontzia,* Zer (1987, 108.zenb.) 14.
*Barrien barriz,* Zer (1987, 110.zenb.) 11.
*Oroitza zarrak,* Zer (1987, 110.zenb.) 11.
*Galburuak,* Zer (1987, 112.zenb.) 6.
*Itz argiak,* Zer (1987, 113.zenb.) 5.
* *Lauaxeta,* Esk. XLVII, 10-22. (1987-VI-16).
* *Etxaniz-tar Nemesio gogoratuz,* Esk. XLVII, 35-37. (1987).
* *Gabon Kantak,* Esk. XLVII, 97-101 (c. 1987).

**1988**

* *Eguzkitza-tar Jon Gurutz, 1875-1919,* Euskerazaintza (1988, 5.zenb.) 10-14.
*Destaiuzko ezeztapenez,* Karmel 1988-1, 104.
*Ondoratzea,* Karmel 1988-1, 106.
*Udabarriko egun bat,* Karmel 1988-1, 107.
*Arginabarra,* Karmel 1988-1, 109.
*Begi argiakaz,* Karmel 1988-1, 112.
*Olerti,* Karmel 1988-2, 107-108.
*Erein azia,* Karmel 1988-2, 109.
*Ez al dozu ikusten?* Karmel 1988-3, 98.
*A, nundik nora,* Karmel 1988-3, 101.
*Eriotza,* Karmel 1988-3, 105.
*Udako zerupean,* Karmel 1988-3, 109-110.
*Eguneratzean,* Karmel 1988-3, 112; Zer (1989, 128.zenb.) [1[b]].
*Olerkiaren oñatz, abestia,* Karmel 1988-4, 99.
*Mari Burduntzi ortzi argi baten eguratspean,* Karmel 1988-4, 109.
*Aintziña baten,* Karmel 1988-4, 100.
*Sorlekua,* Karmel 1988-105-106.
*Ametsak ume batentzat,* Zer (1988, 115.zenb.) 2.

*Gabaren atarian*, Zer (1988-116.zenb.) 13.

*Arginabarrezko semeak*, Zer (1988, 118.zenb.) 15.

*Egun urratze*, Zer (1988, 119.zenb.) 15; Zer (1988, 123.zenb.) [1[b]]; Karmel 1989-3, 108.

*Gogoa*, Zer (1988, 120.zenb.) 4.

*Edurra*, Zer (1988, 120.zenb.) 12.

*Ontza*, Zer (1988, 121.zenb.) 14.

*Izena da argitzea*, Zer (1988, 122.zenb.) 16.

*Eguerdi artan*, Zer (1988, 123.zenb.) 5.

*Joanez doa*, Zer (1988, 123.zenb.) 9.

*Maritxu tellatuko*, Zer (1988, 123.zenb.) 16.

*Sua*, Zer (1988, 124.zenb.) 10.

*Argi eta itzala*, Zer (1988, 124.zenb.) 15.

* *Olabeaga-tar Iñaki*, Esk. XLVII, 28-34 (1988).

**1989**

*Egunaz esnatutzean*, Karmel 1989-1, 109.

*Maitezko opari*, Karmel 1989-1, 112.

*Itxarozko odolkunez*, Karmel 1989-2, 108.

*Txindoki'ko Mari...*, Karmel 1989-2, 101-102.

*Aurrerabidezko ekintzaz*, Karmel 1989-2, 111.

*Akesolo-tar Lin agurgarriari*, Karmel 1989-3, 104-105.

*Goiz nabar urdin oneskorrez*, Karmel 1989-3, 107.

*Osasunaz*, Karmel 1989-3, 109.

*Biotz-zugaitzarena*, Karmel 1989-4, 109.

*Gora begira*, Karmel 1989-4, 112.

*Gabon gaba*, Zer (1989, 126.zenb.) 15.

*Urteen joanean*, Zer (1989, 126.zenb.) 15.

*Urteak*, Zer (1989, 126.zenb.) 16.

*1989 urtebarri zoriontsua*, Zer (1989, 127.zenb.) 4.

*Maitasunezko emoitz leguna*, Zer (1989, 127.zenb.) 4.

*Maitatu abestia*, Zer (1989, 127.zenb.) 16.

*Aizea*, Zer (1989, 129.zenb.) 7.

*Barriro izan*, Zer (1989, 129.zenb.) 7.

*Gogamenaren txingarra,* Zer (1989, 129.zenb.) 7.
*Txaneltxu bat daukan gizona,* Zer (1989, 129.zenb.) 7.
*Udabarriaren eriotza,* Zer (1989, [131].zenb.) 14.
*Udabarritarra,* Zer (1989, 133.zenb.) 14.
*Gaba,* Zer (1989, 134.zenb.) 6.
*Jaio nintzan erri maiteak,* Zer (1989, 134.zenb.) 6.
*Apurka,* Zer (1989, 134.zenb.) 6.
*Aurtzaroko oroitzapena,* Zer (1989, 136.zenb.) 12.

**1990**

* *Garmendia-Kortadi-tar Jon «Zeleta»,* Euskerazaintza (1990, 11.zenb.) 61.
*Zeleta,* Euskerazaintza (1990, 11.zenb.) [64ª].
*Urtearo berria,* Karmel 1990-1, 99.
*Neguko ipuiña,* Karmel 1990-1, 104-105.
*Epel eta euri-zirimiriz,* Karmel 1990-1 107.
*Bizitza bertara,* Karmel 1990-1, 106; Zer (1990, 138.zenb.) 5.
*Neurea da bidea,* Karmel 1990-1, 108; Zer (1990, 138.zenb.) 5.
*Udazkengo eguzkia,* Karmel 1990-1, 110; Zer (1990, 138.zenb.) 5.
*1990 urte zoriontsua,* Zer (1990, 138.zenb.) 5.

## 5. EUSKERARA ITZULITAKO OLERKIEN BIBLIOGRAFIA

Emen S. Muniategik euskerara itxulitako olerkien bibliografia aurkezten dot, bai argitaratutakoena eta bai argitara bakoena, geienak argitara bakoak.

Ez doguz ipinten urrenez urren urtez urte, eta bai euskeraratutako idazleen alfabetozko izen zerrendan; olerki euskeratuok 700 olerkizko kopuru galanta egiten dabe.

ABRISKETA «URIBITARTE», Patxi, *Illetasu,* Karmel 1981-3, 67-68; *Esk.* XLII, 40.

ADY, Endre, *Dei dagist ene oeak,* Eguna 1 (1937, 62.zenb.) 2; Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 60-61.

—— *Goxeko adikunea,* Euzkadi 23 (1935, 6958.zenb.) 12; *Goiz-Aize,* 45-46.

—— *Maitatua ixatea nai neuke*, Euzkadi 24 (1936, 7390.zenb.) 8; Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 61-62.
—— *Emakumeak ertzean*, Euzkadi 24 (1936, 7391.zenb.) 8; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 103-104.
—— *Gora jaurtitako arria*. Olerti 1984, 201.

ALARCÓN MELÉNDEZ, Julio, *Arago*, Esk. A, 69-70.

ALBERTI, Rafael, *Aingeruetzaz (Sobre los Angeles)*, Esk. XXXIX, 1-38.
—— *Atsedentoki galdua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 1.
—— *Lañoetako etxe-lagun*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 2; G-Argi 1 (1973, 159.zenb.) 7.
—— *Soin uztua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 3-5.
—— *Aingeru ona*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 6.
—— *Alperrikako madrigala*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 6.
—— *Epaia*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 6.
—— *Aingeru burrukalariak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 7.
—— *Zenbakien aingerua*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 107; Esk. XXXIX, 8.
—— *Zori bako aingeruarena*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 8.
—— *Aingeru gogaitua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 9.
—— *Aingeru gezurtia*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 108-109; Esk. XXXIX, 9.
—— *Aizeari deituz*, Esk. XXXIX, (Aingeruetzaz), 9.
—— *Aingeru erdoituak*, G-Argi 14 (1973, 159.zenb.) 7; Esk. XXXIX, 10.
—— *Aingeru autserrekorra*, Esk. XXXIX (Aigeruatzaz), 10.
—— *Aingeru amorratua*, G-Argi 14 (1973, 159.zenb.) 7; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 112; Esk. XXXIX, 11.
—— *Aingeru ona*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 11.
—— *Lañoetako biztanleak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 12-13.
—— *Lasterraren aingeruak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 14.
—— *Aingeru ankerrak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 15.
—— *Aingeru aingerua*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 108; Esk. XXXIX, 16.
—— *Atzipena*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 16.
—— *Ikatz aingerua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 16.
—— *Aserrezko aingerua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 17.
—— *Aingeru bekaiztia*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 17.
—— *Aingeru aiertiak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 18.
—— *Suzko zakurra*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 18.
—— *Aingeru tuntuna*, Esk. XXXIX (Aingertuetzaz), 19 (20).
—— *Zadorraren aingerua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 20.
—— *Igokunde*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 21.
—— *Aingeru mutuak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 22.
—— *Gogo mindua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 23.
—— *Aingeru ona*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 111; Esk. XXXIX, 24.
—— *Aingeru zikoitza*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 113; Esk. XXXIX, 24.
—— *Aingeru sonanbuluak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 25.

—— *Lañoetako bizilaguna. Zeruko iru oroitza*. Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 26-27.
—— *Ondarrezko aingerua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 27.
—— *Egunsenti izentatzallea*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 27.
—— *Minutu txarra*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 28.
—— *Ardangeletako aingerua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 28.
—— *Eriotza ta epaia*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 29-30.
—— *Igorketa*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 30.
—— *Aingeru ikasleak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 31.
—— *Nobela*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 31.
—— *Elur bizia*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 32.
—— *Arpa deia*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 32.
—— *Illargi etsaia*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 33.
—— *Zigorrak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 33-34.
—— *Aingeru gezurrezkoa*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 34.
—— *Ondakiñetako aingeruak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 35.
—— *Aingeru illak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 36.
—— *Aingeru itxusiak*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 37.
—— *Bizirik gelditu zan aingerua*, Esk. XXXIX (Aingeruetzaz), 38.
—— *Aingeru ameslariak*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 109-110.

ALIGHIERI, Dante, *Beatrize*, Esk. XXIII, 164.

ALTOLAGUIRRE, Manuel, *Ene begi aundiak...*, Euzkadi 24 (1936, 7388.zenb.) 8; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.), 103; Esk. XLVI, 80.
—— *Gaua, amaiketan*, G-Argi 14 (1973, 166.zenb.) 4; Esk. XLVI, 76.
—— *Bere labea zan*, G-Argi 14 (1973, 166.zenb.) 4; Esk. XLVI, 76.
—— *Nire bakartadea*, G-Argi 14 (1973, 166.zenb.) 4; Esk. XLVI, 77.
—— *Nire Ametsak*, G-Argi 14 (1973, 166.zenb.) 4; Esk. XLVI, 77 (85).
—— *Odeia*, Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 104-105; Esk. XLVI, 81.
—— *Aldia*, Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 105; Esk. XLVI, 75.
—— *Zumarrondo bati*, Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 106; Esk. XLVI, 82.
—— *Illuntze. Gogo abestia*, Olerti 1982, 67.
—— *Ibai baten gogo antzera*, Esk. XLVI, 75.
—— *Gogaia*, Esk. XLVI, 76.
—— *Illunabar*, Esk. XLVI, 78.
—— *Zure itzak*, Esk. XLVI, 78.
—— *Ontziñoak [Ontziak]. Ondartza*, Esk. XLVI, 79. (83).
—— *Aizea bezalako berdiña da gogoa*, Esk. XLVI, 84.
—— *Zubizko begiak nireak*, Esk. XLVI, 85.

ARANGO, Gonzalo, *Matxinada*, Esk. XLVI, 54.

ARELLANO Iturria, S., *Itxaropen-gabe*, Esk. B, 203.
—— *Zeure eskuak*, Esk. A., 43; Esk. B, 193.

ARP, Jean, *Gizonezko tanta batek*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 97.

—— *Urte aroak bere izarratz ta laguntzalleak*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 97-98.
—— *Etxeko arriak*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 99-100.

ATHILANO, Andrés, *Sonetos hechos al modo venezolano. Venezuelako erara egindako amalaukoak*. Esk. XXXVIII, 1a-35.
—— *Izugarri eta eragotzia*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 1.
—— *Utsaltasuna*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 2.
—— *Izatearen aberria*, Olerti 1985-86, 296; Esk. XXXVIII, 3.
—— *Katuaren iragarpena*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 4.
—— *Lauda'ri atxakia*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 5.
—— *Arinketa*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 6.
—— *Iranankortasuna*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 7.
—— *Ikusten*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 8.
—— *Aguaitakamino*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 10-11. (Olerti 1981, 77-78).
—— *Ama*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 12-13.
—— *Egaztia*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 14-15.
—— *Izaki*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 16-17.
—— *Bizitza*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 18-19.
—— *Ketadea*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 20.
—— *Oldozkunik gabe*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 21.
—— *Errakuntza*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 23.
—— *Ori*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 24.
—— *Maixu ordezkoa*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 25.
—— *Txirtxilla*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 26.
—— *Esnaldia*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 27.
—— *Gogamena*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 28-29.
—— *Ontasuna*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 30-31.
—— *Iainkoa*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 32-33.
—— *Betikotasun*, Esk. XXXVIII (Venezuelako), 34-35.
—— *Duida'ren arribitxiak (Las esmeraldas del Duida). Olerkiak*. Aranzazu-Oñati 1973. 46 orr. (Euskeratzallea: Muniategi'tar Sabin):
—— *Lurra*, 7.orr.
—— *Bizitza*, 8-9.
—— *Arrapaketa*, 10.
—— *Etsipen*, 11.
—— *Lorratza*, 13.
—— *Igesa*, 14.
—— *Eresia*, 15-16.
—— *Gaua*, 17.
—— *Lautada*, 18.
—— *Bioleta*, 19.
—— *Oarkuntza*, 20-21.
—— *Oiartzuna*, 22.
—— *Ezkutapen*, 23.
—— *Emakume*, 24.

—— *Biotza*, 25.
—— *Bakuntasun*, 26.
—— *Zadorra*, 27.
—— *Aierkuntza*, 28.
—— *Amurrua*, 29.
—— *Negarra*, 31-32.
—— *Txirotasun*, 33-34.
—— *Arribitxi*, 35.
—— *Ameslari*, 39.
—— *Bakar*, 40.
—— *Ixil*, 42.
—— *Idazti*, 42.
—— *Azkenik gabe*, 43.

AYMARA, Dionisio, *Laztantasuna eta asarrea* XXVI, 1-24:
—— *Iatorrizko argia*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 1.
—— *Eskaria*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 2.
—— *Azpikeria*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 3.
—— *Laztantasun Ondoren*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 4.
—— *Ondamendi aundia*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 5.
—— *Ikustuntasuna*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 6.
—— *Izugarrizko Errekuntzak*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 7.
—— *Illunaren erdian*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 8.
—— *Gu ere*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 9.
—— *Lazdura*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 10.
—— *Maitetasunezko altasuna*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 11.
—— *Parkatu egiguzu amargarren aldiz*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 12.
—— *Azkeneraño*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 13.
—— *Iñoren aurpegia*, Olerti 1981, 85-86; Esk. XXVI (Laztantasuna), 14.
—— *Balada*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 15.
—— *Ez da naikoa*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 16.
—— *Beste gauza bat da bizi izatea*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 17.
—— *Laztantasunaren lurraldean*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 18.
—— *Arabiar abestia*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 19.
—— *Beste jendea*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 20-23.
—— *Ez dago geldi-unerik*, Esk. XXVI (Laztantasuna), 24.
—— *Gaua ikusiz*, Esk. XLIII, 53-66. (viendo la noche).
—— *Berbak eta berbak*, Karmel 1983-2, 69-70.
—— *Izen bako soñua*, Olerti 1984, 202.

BAILEY, Edgar, *Egitazko eremuak*, Esk. XXIV, 57.

BASTERRA, Ramón de, *Kearen agurra*, Esk. XLII, 1.
—— *Tomateak*, Olerti 1984, 197.
—— *Artogi*, Zer (1984, 75.zenb.) 14.

CALAMATA, Danilo, *Aldarbidezko poema*, Esk. XLII, 49; Esk. XLVI, 55.

—— *Irakaslearen otoia*, Olerti 1981, 82; Esk. XLVI, 57.
—— *Trukean*, Karmel 1982-1, 92-93.
—— *Orain*, Esk. XLVI, 56.

CAMPOAMOR, *Gijon-ko txistularia*, Esk. A., 63-65.

CARRANZA, Eduardo, *Amalaukoa salbuespen bataz*, Esk. XXIV, 146.
—— *Urtarrillako ametsa*, Karmel 1988-3, 111.

CARREJO, Omar, *Gizon bat*, Esk. XXIII, 198 (199).
—— *Soiña*, Esk. XXIII, 198.

CASTILLA, Yolanda, *Eta ni beti ibilliko naiz*, Esk. XXIII, 67-68.

CELAYA, Gabriel, *Txoriburutasun deuna*, Esk. XLII, 21.
—— *Lillurakizuna*, Karmel 1982-2/3/4, 176.
—— *Etengabeko eztanda*, Karmel 1984-1/2, 122.
—— *Gizatasuna*, Karmel 1984-1/2, 122.
—— *Itzul-aldia*, Olerti 1984, 195.
—— *Euzkadi, nire maitasuna*, Zer (1983, 68.zenb.) 16.

CHIRINO, Otón, Vísperas de la luz / *Argiaren besperak*. Esk. XXXIV, 1-40:
—— *Itza*, Esk. XXXIV (Argiaren), 1.
—— *Ardatza*, esk. XXXIV, (Argiaren), 2.
—— *Udaberriko irudia*, Esk. XXXIV (Argiaren), 3.
—— *Eskerrak, iorrail*, Esk. XXXIV (Argiaren), 4.
—— *Sonia Sanoja*, Esk. XXXIV (Argiaren), 5.
—— *Iguana*, Esk. XXXIV (Argiaren), 6.
—— *Udazkena*, Esk. XXXIV (Argiaren), 7.
—— *Kolibri*, Esk. XXXIV (Argiaren), 8.
—— *Koartza*, Esk. XXXIV (Argiaren), 9.
—— *Bezperako kartak*, Esk. XXXIV (Argiaren), 10.
—— *Umeak ildako txoriñoa erakusten du*, Esk. XXXIV (Argiaren), 11.
—— *Baturik*, Esk. XXXIV (Argiaren), 12.
—— *Bururakizunak*, Esk. XXXIV (Argiaren), 13.
—— *Beti zure izena*, Esk. XXXIV (Argiaren), 14.
—— *Esteban Smith Monzon*, Esk. XXXIV (Argiaren), 15.
—— *Txunba*, Esk. XXXIV (Argiaren), 16.
—— *Zure izena asmatutzean*, Esk. XXXIV (Argiaren), 17.
—— *Iru geigarri berberarentzat*, Esk. XXXIV (Argiaren), 18.,
—— *Olatuak bezela*, Esk. XXXIV (Argiaren), 19.
—— *Iazintuen egoatik*, Esk. XXXIV (Argiaren), 20.
—— *Ene itzal*, Esk. XXXIV (Argiaren), 21.
—— *Taldea, oroimenaren mamia*, Esk. XXXIV (Argiaren), 22-23.
—— *Gorbataren orratz antzera ibillia izan litekean amalaukotxoa*, Esk. XXXIV (Argiaren), 24.
—— *Aantzitasunean ezik*, Esk. XXXIV (Argiaren), 25.
—— *Zure illeak lotazillean*, Esk. XXXIV (Argiaren), 26.

—— *Oial atzean*, Esk. XXXIV (Argiaren), 27.
—— *Baiña dana ontzat izan bedi*, Esk. XXXIV (Argiaren), 28.
—— *Basagudari baten lurperatzea*, Esk. XXXIV (Argiaren), 29.
—— *Egun eskuragaitzak*, Esk. XXXIV (Argiaren), 29 bis.
—— *Kaioak*, Esk. XXXIV (Argiaren), 30.
—— *Parkean*, Esk. XXXIV (Argiaren), 31.
—— *Zure abotsa izan baiño lenago*, Esk. XXXIV (Argiaren), 32.
—— *Eresi laburra*, Esk. XXXIV (Argiaren), 33.
—— *Kapatarida*, Esk. XXXIV (Argiaren), 34.
—— *Margarita ugartea*, Esk. XXXIV (Argiaren), 35.
—— *Lo-esnatuzko domiñea*, Esk. XXXIV (Argiaren), 36.
—— *Bidaitxertela illargiaz*, Esk. XXXIV (Argiaren), 37.
—— *Picasso*, Esk. XXXIV (Argiaren), 38.
—— *Izen bat asmatzeko egitadak*, Esk. XXXIV (Argiaren), 39-40
—— *Bertanbera utzitako baserriko kanpaiak*, Olerti 1981, 81.

CICEROL GOLIART, Mariette, *Abestu olerkia*, Esk. XXIV, 66.

CRESPO LANDAZABAL, Víctor Manuel, *Arri bizia*, Esk. XLIII, 37-52:
—— *Eguzki biltokia*, Esk. XLIII (Arri), 38.
—— *Zuta*, Esk. XLIII (Arri), 38.
—— *Itzulera*, Esk. XLIII (Arri), 39.
—— *Goratze*, Esk. XLIII (Arri), 39.
—— *Zirrikitu*, Esk. XLIII (Arri), 40.
—— *Kurubilla*, Esk. XLIII (Arri), 40.
—— *Iainkoa izatera iokatzen det*, Esk. XLIII (Arri), 41.
—— *Bakardadea*, Esk. XLIII (Arri), 41.
—— *Utsa*, Esk. XLIII (Arri), 42.
—— *Iraultze*, Esk. XLIII (Arri), 42.
—— *Azkatasuna*, Esk. XLIII (Arri), 42.
—— *Barrengo ixilia*, Esk. XLIII (Arri), 43.
—— *Asiera*, Esk. XLIII (Arri), 43.
—— *Itzak*, Esk. XLIII (Arri), 44.
—— *Arri bizia*, Esk. XLIII (Arri), 44.
—— *Agerpen*, Esk. XLIII (Arri), 45.
—— *Maitetasuna*, Esk. XLIII (Arri), 45.
—— *Keñuak*, Esk. XLIII (Arri), 46.
—— *Billaketa*, Esk. XLIII (Arri), 46.
—— *Oinkadak argirantza*, Esk. XLIII (Arri), 47.
—— *Atsekabea*, Esk. XLIII (Arri), 47.
—— *Itxaroa*, Esk. XLIII (Arri), 48.
—— *Egia*, Esk. XLIII (Arri), 48.
—— *Neurekiko zerua*, Esk. XLIII (Arri), 49.
—— *Alaitasun bakana*, Esk. XLIII (Arri), 49.
—— *Laztanak*, Esk. XLIII (Arri), 50.
—— *Ispillu*, Esk. XLIII (Arri), 50.

—— *Bidezkoa*, Esk. XLIII (Arri), 51.
—— *Begiradak*, Esk. XLIII (Arri), 51.
—— *Esku utsak*, Esk. XLIII (Arri), 52.
—— *Lorratzak dira bidea*, Esk. XXXVII, 1-28.
—— *Itxasoan*, Esk. XXIII, 3.
—— *Ixiltasunen ereskidetasuna*, Esk. XLVI, 1-9.
—— *Lorezai*, Esk. XLVI, 86.
—— *Guztizkoa*, Esk. XLVI, 87.
—— *Utsarte-maitasuna*, Esk. XLVI, 87.
—— *Izartar ura*, Esk. XLVI, 87.

DELGADO, Agustín, *Bare-aldia*, Olerti 1984, 196.

DURÁN, Renata, [*Muñeca rota*], Esk. XLVI, 62-65.

(ETXEBERRY) CASTELLANOS, Dora, *Egun batez*, Esk. XLII, 50.
—— *Asiera*, Esk. XLII, 58-59.
—— *An, izarrez loratu ziran...* Esk. XXI, 60-61.
—— *Atsegin txikiaren abestia,* Esk. XXII, 49; Esk. XLII, 19.
—— *Gezi ereskintsua,* Esk. XXIII, 140.
—— *Arieta*, Esk. XXIII, 141.
—— *Aurkitzen zaitut maite*, Esk. XXIV, 64.
—— *Hiroshima ene maitea*, Esk. XXVII, 1-8. (Olerti 1980, 65-66; Karmel 1980-4, 92-93).
—— *Zeñetan ametsa egia dan*, Agur 4 (1973, 75.zenb.) 4; Esk. XLVI, 27.
—— *Nire izate berberean bezela*, Agur 4 (1973, 75.zenb.) 4; Olerti 1983, 236-237; Esk. XLVI, 28.
—— *Betikor lorratza*, Agur 4 (1973), 75.zenb.) 4; Esk.XLVI, 27.
—— *Maitasunaren eite eta graziz*, Olerti 1980, 67; (Karmel 1980-4, 94); Esk. XLVI, 36.
—— *Lore zutitua*, Olerti 1980, 68; (Karmel 1980-4, 95); Esk. XLVI, 26.
—— *Ametsezko aurra*, Olerti 1980, 68-69; (Karmel 1980-4, 95-96); Esk. XLVI, 39.
—— *Maitezko aldi bat zan*, Esk. XLVI, 24.
—— *Nefertite*, Esk. XLVI, 26.
—— *Maite eresi (Trova)*, Esk. XLVI 29.
—— *Maitezko uberka*, Esk. XLVI, 34.
—— *Nun itzal guztiak urdiñak diran*, Esk. XLVI, 37-39.
—— *Loreil urreztatua*, Esk. XLVI, 40.
—— *Itzal batek*, Esk. XLVI, 40.
—— *Maitasuna asten dan lekuan*, Esk. XLVI, 48.
—— *Zugaitz berria*, Esk. XLVI, 49.
—— *Aizearen maniura*, Esk. XLVI, 66.
—— [*Zodiaco del hombre*], Esk. XLVII, 65.

ECHEVERRÍA MEJÍA, Oscar, *Lau aroak (Las cuatro estaciones)*. Esk. XXIX, 1-40:
—— *Oroipen*, Esk. XXIX (Lau aroak), 1.
—— *Giltza*, Esk. XXIX (Lau aroak), 2.

—— *Aurkitzea oroipenean*, Esk. XXIX (Lau aroak), 3.
—— *Nire ontzi nagusia*, Esk. XXIX (Lau aroak), 4.
—— *Gauetik gingoazen*, Esk. XXIX (Lau aroak), 5.
—— *Itxasontzi onaen antzera*, Esk. XXIX (Lau aroak), 6.
—— *Nire elburua*, Esk. XXIX (Lau aroak), 7.
—— *Bai aldakizu nola deitzen dizudan?*, Esk. XXIX (Lau aroak), 8.
—— *Paule'ren argazkia*, Esk. XXIX (Lau aroak), 9.
—— *Egitazko olerkia*, Esk. XXIX (Lau aroak), 10-11.
—— *Maitalleak*, Esk. XXIX (Lau aroak), 13.
—— *Oroitzapen bidezko sortzea*, Esk. XXIX (Lau aroak), 14.
—— *Argazkia*, Esk. XXIX (Lau aroak), 15.
—— *Itzulia*, Esk. XXIX (Lau aroak), 16.
—— *Gauekoak*, Esk. XXIX (Lau aroak), 17.
—— *Emango balizuteke aizea...*, Esk. XXIX (Lau aroak), 18.
—— *Zer esan al nizuke?*, Esk. XXIX (Lau aroak), 19.
—— *Itxasoa bezala*, Esk. XXIX (Lau aroak), 20.
—— *Nire odolak baiño geiago zenezake*, Esk. XXIX (Lau aroak), 21.
—— *Nun ote dago nire ontzia?* Olerti 1983, 235; Esk. XXIX, 22.
—— *Erreza balitz bezala*, Esk. XXIX (Lau aroak), 23.
—— *Eraztuna*, Esk. XXIX (Lau aroak), 24.
—— *Oldoztu*, Esk. XXIX (Lau aroak), 25.
—— *Arratsaldean itxaroten nizun*, Esk. XXIX (Lau aroak), 26.
—— *Arieta*, Esk. XXIX (Lau aroak), 27.
—— *Nabaitzen dut*, Esk. XXIX (Lau aroak), 28.
—— *Zaukat eta ez zaukat*, Esk. XXIX (Lau aroak), 29.
—— *Axolarik ez du*, Esk. XXIX (Lau aroak), 30.
—— *Maitasunaren gau-abestia*, Esk. XXIX (Lau aroak), 31.
—— *Amalauko zauritua*, El Colombiano (1980-XI-16) 6; Esk. XXIX (Lau aroak), 32.
—— *Uztatze urria*, Esk. XXIX (Lau aroak), 33.
—— *Zuk aztuarren nik ez zaitut aztutzen*, Esk. XXIX (Lau aroak), 34.
—— *Nun ote zaude orain?*, Esk. XXIX (Lau aroak), 35.
—— *Zugaitz egin nintzan*, Esk. XXIX (Lau aroak), 36.
—— *Aldirik bako soñu-aldia*, Esk. XXIX (Lau aroak), 37-38.
—— *Amalauko urruna*, El Colombiano (1980-XI-16) 6; Esk. XXIX (Lau aroak), 39.
—— *Aantzipena*, Esk. XXIX (Lau aroak), 40.
FALLERSLEBEN, Hoffman, *Ura ta arduna, Esk. A., 41*.

FELIPE, León [Antología rota], Esk. XLIII, 8-36.
—— *Atzo etzan iñor ioan*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 100-101; Esk. XLVIII, 9-10.
—— *Au tamala!*, Esk. XLIII, 11-13.
—— *Erromesa izan*, Esk. XLIII, 14.
—— *Zu bezela...*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 102; Esk. XLIII, 15.
—— *Ondatuak*, Esk. XLIII, 16.

—— *Odei txuria bezela*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 73; Esk. XLIII, 17.
—— *Au egun ain luzea*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 74; Esk. XLIII. 17.
—— *Orain erririk erri*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 74; Esk. XLIII, 18.
—— *Ene biotz*, Esk. XLIII, 18.
—— *Atoz gukin*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 75; Esk. XLIII, 19.
—— *Ain bakarrik nago, Iauna!*, Esk. XLIII, 19.
—— *Au oñazea!*, Esk. XLIII, 20.
—— *Olerki txikiagoak*, Esk. XLIII, 21-22.
—— *Velazquez'en Vallecas'ko mutikoarentzat oñarria*, Olerti 1982, 72-73; Esk. XLIII, 23.
—— *Andre Eriotz ta iaun Maitasun*, Olerti 1982, 68; Esk. XLIII, 24.
—— *Ba'dakigu...*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 50-51; Esk. XLIII, 24.
—— *Igokundea*, Olerti 1982, 75; Esk. XLIII, 24.
—— *Makina*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 76; Esk. XLIII, 25.
—— *Eta illargia?*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 75-76; Esk. XLIII, 26.
—— *Iraultza*, Esk. XLIII, 27.
—— *Errezago*, Esk. XLIII, 27.
—— *Otoitza*, Olerti 1982, 76; Esk. XLIII, 27.
—— *Kristo*, Olerti 1982, 77; Esk. XLIII, 28.
—— *Drop a star*, Esk. XLIII, 28.
—— *Illeta*, Esk. XLIII, 29.
—— *Ez egidazute geiago ipuirik edestu*, Esk. XLIII, 30.
—— *Nik ipuin guztiak dakizkidaz*, Esk. XLIII, 31.
—— *Opiltxoaren ipuin gozoa*, Esk. XLIII, 31.
—— *Azpikeriak*, Esk. XLIII, 32.
—— *Edestu egidazute amets bat*, Esk. XLIII, 32.
—— *Entzun*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 47-48; Esk. XLIII, 33.
—— *Txitxarea*, Esk. XLIII, 34.
—— *Nai det... ametsa*, Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 49-50; Esk. XLIII, 35.
—— *Zein naiz ni?*, Esk. XLIII, 36.
—— *Zein bakarrik nagon Iauna!*, Olerti 11 (1969, 3-4. zenb.) 51.
—— *Bidazti izan*, Olerti 1982, 71-72.
—— *Poema txikiak*, Olerti 1982, 73-74.
—— *Matxinada*, Olerti 1982, 76.

MARTÍN GARCIA, Elvira, Ezebezez jantziriko Neskea, Esk. XXIII, 16.

FIERRO, Martín (*Con la guitarra en la mano / Atzarrabita eskuan*), Agur 4 (1973, 74.zenb.) 1.

GARCÍA LORCA, F., *Neskatx baten ixatea*, Eguna 1 (1937, 62.zenb.) 3; olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 58 (*Neskatx baten belarri ondora*).
—— *Egia da...*, Euzkadi 24 (1936, 7408.zenb.) 8; Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 59-60.
—— *Eriotza argiaren kasida*, Karmel 1987-4, 101.

—— *Zaldikariarena*, Euzkadi 24 (1936, 7408.zenb.) 8; Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 59.

GARIBALDI, A., *Bakezko abestia*, G-Argi 15 (1974, 109.zenb.) 2; Karmel 1974-4, 59.

GENTA, Estrella, *Bizia zan*, Agur 4 (1973, 81.zenb.) 4.
—— *Emakume logillea*, Agur 4 (1973, 81.zenb.) 4.
—— *Errotarimea*, Agur 4 (1973, 81.zenb.) 4.

*Gogo Deuna*, Esk. XIX, 9-11.

GRILO, *Bolua*, Esk. A., 49.

GROSSI, Tomás, *Enara bateri...*, Esk. A., 19-20.

GUEVARA, Che, *Maite zaitut Kristo*, Karmel 1982-1, 90.

GUILLÉN, Jorge, *Susmo argarri*, Olerti 1985-86, 295.

GUILLÉN, Nicolás, *Sensemaya*, Olerti 1983, 239-240.

HEINE, H., *Bitarte*, Agur 3 (1972, 44.zenb.) 8.

HERNÁNDEZ, Miguel, *Suge*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 77.
—— *Limoi*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 80.

HESSE, Hermann, *Aldakortasun*, Zer (1986, 93.zenb.) 4.

HIERRO, Nicolás de, *Bost poema*, Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 103-104.

HUGO, Víctor, *Amonatxoa*, Esk. A., 23-25.
—— *Itxasoa eta iturria*, Esk. A., 101.

IBARBOUROU, Juana, *Udabarriak bezela*, Esk. XXX, 2.
—— *Pikondoa*, Esk. XX, 3.
—— *Igali usaia*, Olerti 11 (1969, 1-2.zenb.) 35-36; Esk. XXX; 4.
—— *Estutasuna*, Karmel 1972-2, 84; Esk. XXX, 5.
—— *Ogei urteko semearen aldezko otoitza*, Karmel 1972-2, 56; Esk. XXX, 6.
—— *Zorrotzalea*, Esk. XXX, 7.
—— *Alatz pozgarria*, Olerti 11 (1969, 1-2.zenb.) 37; Esk. XXX, 8.
—— *Kabia*, Esk. XXX, 9.
—— *Arrebatxoa*, Esk. XXX, 10.
—— *Aien belarria*, Esk. XXX, 11.
—— *Aberatsak*, Olerti 11 (1969, 1-2.zenb.) 34; Esk. XXX, 12.
—— *Itundasun*, Olerti 11 (1969, 1-2.zenb.) 35; Esk. XXX, 13.
—— *Etxea*, Esk. XXX, 14.
—— *Naia*, Esk. XXX, 15.
—— *Seaska*, Olerti 1982, 68-69; Esk. XXX, 16.
—— *Ibai ibiltaria*, Esk. XXX, 17.
—— *Sukarra*, Esk. XXX, 18.

—— *Tropiku'ko igalia*, Esk. XXX, 19.
—— *Edontzia*, Esk. XXX, 20.
—— *Baretasun*, Esk. XXX, 21.
—— *Autserrea*, Esk. XXX, 22.
—— *Sustrai basatia*, Esk. XXX, 23.
—— *Emakume*, Olerti 1982, 70; Esk. XXX, 24.
—— *Naikunde*, Olerti 1982, 70-71.

IRARRAZABAL, A., *Larrosa zuriak*, Esk. A., 47.
ITURRIA, S. A., *Itxaropen-gabe*, Esk. A., 81.

JIMÉNEZ, Juan Ramón, *Udabarri*, Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 58.

JODOROWSKY, Raquel, *Abrakadabra*, Esk. XXIII, 184.
—— *Ezkutapena*, Esk. XXIII, 183. XXIII, 184.
—— *Gizona, beti gizona*, Esk. XXIII, 183; XXIII, 184.

LAMARTINE, A., *Txirtxilla, Esk. A., 15-17.*
—— *Gurasoen etxeko leioa*, Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 62; Esk. A., 87.

LAMUS RODRÍGUEZ, Alfredo, *Peter Nord*, Karmel 1986-1, 111; Esk. XLII, 5.

LARREA, Juan, *Aizekirri aldakorra*, Karmel 1984-1/2, 121.
—— *Orri zimelezko soiñekoan*, Olerti 1985-86, 294.

LEÓN XIII, *Gogo saminduaren oldozpena*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 78-79; Esk. A., 67-68.

LESSING, Gottlod Efrain, *Azeria*, Esk. A., 91.

LIGALUPPI, Oscar Abel, *Zugaitza*, Esk. XLII, 61-62; Esk. XLVI, 58-59.

LONGFELLOW, H.W., *Gorago*, Esk. A., 11-13.

LÓPEZ, Luis C., *Topaldia*, Esk. XLII, 9.
—— *Ipuintxoa*, Karmel 1988-3, 99.

MAETERLINCK, M., *Eta etorriko ba-litzake egun baten...*, Esk. A., 89.

MARCH, Susana, *Neurea*, Karmel 1985-4, 92.
—— *Denpora asko da*, Karmel 1986-4, 107.

MAREL, Jorge, *Itxasoaren gauezkoak - Nocturnos del mar*. Esk. XXXV, 1-70:
—— *Olertitza*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 1.
—— *Olerkia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 1.
—— *Mugaketa*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 2.
—— *Asmaketa*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 2.
—— *Ondartzan ildako bi. Mutikoarentzat idazpurua*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 2.
—— *Gaizkapen*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 3.
—— *The general and the butterflies*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 3.
—— *Loreak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 4.
—— *Neguko ipuiña*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 4.

—— *Doai*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 4.
—— *Bearbada*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 5.
—— *Erostarta'ren oroitzapena*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 5.
—— *Ikuste*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 5.
—— *Itsasoak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 6.
—— *Itsasoa*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 6.
—— *Bat bakarrik dago*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 7.
—— *Antza*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 7.
—— *Ilgo naizenean*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 7.
—— *Idazpuru*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 8.
—— *Ondoratze*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 8; Esk. XLIII, 30.
—— *Neguko ikuspegia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 9.
—— *Tximizta artean*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 9.
—— *Entzun abesti ori*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 10.
—— *Itsasoaren gabean*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 11-12.
—— *Aldiaren abestia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 13.
—— *Gau-aldi*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 13.
—— *Eriotz zintzoa*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 14.
—— *Aurpegi garbia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 14.
—— *Beste egun bat*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 15.
—— *Lorik-eza*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 15.
—— *Bertsu bat edozein eriotzetan*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 16.
—— *Poema bat poema bati buruz*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 16.
—— *Poema ametsez betea*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 17.
—— *Aldi baten itzul-miña*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 18.
—— *Norbere-bizitzaren poema*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 19.
—— *Aizearen bakalderria*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 20.
—— *Gabeko itaunak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 20.
—— *Eriotza ametsean*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 21.
—— *Berriro biztu dezagun sua*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 22.
—— *Gorputz baten naikura*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 23.
—— *Leopoldo Bloom'en Abestia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 24; Esk. XLII, 10.
—— *Gomutapen*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 25.
—— *Topaketaen lekuan*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 26.
—— *Izen baten zentzumena*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 27.
—— *Erbesteratuak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 28.
—— *Ezer berririk eztago nire abestian*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 28ª.
—— *Dana izango da alperrik*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 29.
—— *Ezer*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 30.
—— *Abots*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 31.
—— *Norbere agiria*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 32.
—— *Itsasoari entzungo ba'zenekio*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 33.
—— *Bakardadearen gauezkoa*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 34.
—— *Itsas-andi*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 35.
—— *Ikuskizun*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 36.

—— *Ia ez begiratu*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 37.
—— *Itza*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 38.
—— *Nire arimagaitik*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 39.
—— *Itsas leze*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 40.
—— *Itsasoratze*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 41.
—— *Jai*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 42.
—— *Emakume billutsa itsasoan*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 43.
—— *Eskuak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 44.
—— *Lo zaude ene ederra*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 45.
—— *Itsasoak maitatuko zaitunean*, Zer (1985, 86.zenb.) 7; Esk. XXXV, 46.
—— *Etorriko ba-ziña*, Olerti 1984, 203; Esk. XXXV, 47.
—— *Ametsetan bakarrik*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 48.
—— *Alejandria'ko emakumeak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 49.
—— *Olertiztia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 50.
—— *Sinizte*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 50.
—— *Bizitza eta eriotza*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 51.
—— *Izateari buruz (Unamuno'ri irakurriz)*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 52.
—— *Gizona izan*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 53.
—— *Ispilluko gizona*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 53.
—— *Eskale*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 54.
—— *Iñoiz ere*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 54.
—— *Azkenengo urak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 55.
—— *Aldiak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 55 (57).
—— *Ekaitza*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 56.
—— *Olerkariak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 58.
—— *Itxi begiak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 59.
—— *Ametsa*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 60.
—— *Ametsean*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 60.
—— *Aaztutzerako itzak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 61.
—— *Autserantza itzuliz*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 62.
—— *Ondarrezko olerkia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 63.
—— *Sutzarra*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 64.
—— *Itsasaldi*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 64.
—— *Oraindik itsasoak*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 65.
—— *Ikurritza garailearentzat*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 65.
—— *Obi-itza Luis Carlos Lopez'entzat*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 66.
—— *Obi-itza Vincent van Gogh'entzat*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 66.
—— *Olerkia*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 67.
—— *Liburu*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 68.
—— *Irakurgai*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 68.
—— *Tximizta*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 69.
—— *Ikustatze*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 69.
—— *Jibarta'ri*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 70.
—— *Jainko txiki bat dala uste duen olerkari bati*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 70.

—— *Itza bakarrik*, Esk. XXXV (Itxasoaren), 70.
—— *Oroimena*, Esk. XLII, 3.

MARTAN GÓNGORA, Helcías, *Encadenado a las palabras / Itzeri lotua*, Esk. XL, 1-63:
—— *Egarriaren itzaurrea. Aantzitasun esaria*, Esk. XL (Itzeri), 5.
—— *Erdi muga* , Esk. XL (Itzeri), 6.
—— *Egarriaren itzaurrea*, Esk. XL (Itzeri), 7.
—— *Leiarkoi*, Esk. XL (Itzeri), 8.
—— *Laude*, Esk. XL (Itzeri), 9.
—— *Ispillu aretoa*, Esk. XL (Itzeri), 10-19.
—— *Gizonaren ugartea*, Esk. XL [(Itzeri), 20. (Esparavel (1972, 60.zenb.)].
—— *Itsasoaren atsegiña*, Esparavel 7 (1974, 71.zenb.); Esk. XL (Itzeri), 21.
—— *Ia balada (Erdi balada)*, Esk. XL (Itzeri), 22.
—— *Eguneroko abotsa*, Esparavel 7 (1973, 70.zenb.) 4; Esk. XL (Itzeri), 23.
—— *Antiokia'ko oian-dantza*, Esk. XL (Itzeri), 24-27.
—— *Artoaren ipuina*, Esparavel 8 (1974, 80.zenb.) 6-7; Esk. XL (Itzeri), 28-29.
—— *Ibaietako oda*, Esk. XL (Itzeri), 30.
—— *Agure baten argazkia*, Esk. XL (Itzeri), 31.
—— *Job*, Esk. XL (Itzeri), 32.
—— *Oiñarri*, Esk. XL (Itzeri), 33.
—— *Delia Zapata'rentzako zarrapata*, Esparavel 8(1974, 79.zenb.) 3; Esk. XL (Itzeri), 34-35.
—— *Barruko ikuspegia*, Esparavel 6 (1972, 57.zenb.); Esk. XL (Itzeri), 36.
—— *Itzultzearen gaualdiak*, Esk. XL (Itzeri), 37-42.
—— *Burrukaldiak*, XL (Itzeri), 43-46.
—— *Bost ateko etxea*, Esk. XL (Itzeri), 47-48.
—— *Bakartade berria*, Esk. XL (Itzeri), 49.
—— *Itzari lotua (Encadenado a las palabras)*, Esparavel 6(1972, 57.zenb.); Agur 3 (1972, 55.zenb.) 6; Esk. XL, 50.
—— *Irudia*, Esk. XL (Itzeri), 51.
—— *Gizon bat bakarrik*, Esk. XL (Itzeri), 52.
—— *Izen bat*, Esk. XL (Itzeri), 53.
—— *Tropikuaren arrendia*, Esk. XL (Itzeri), 54.
—— *Abesti nimiñoa*, Esk. XL (Itzeri), 55.
—— *Eresaldia*, Esk. XL (Itzeri), 56.
—— *Alperrikako giltza*, Esk. XL (Itzeri), 57.
—— *Ia zugaitz bat*, Esk. XL (Itzeri), 57. [Esparavel (1973, 63.zenb.)].
—— *Igesia*, Esk. XL (Itzeri), 58.
—— *Eskuak*, Esk. XL (Itzeri), 58.
—— *Piscis*, Esk. XL (Itzeri), 59.
—— *Siniskuntza*, Esparavel (1973, 67.zenb.); Esk. XL (Itzeri), 60.
—— *Aztarnak*, Esparavel 7 (1974, 71.zenb.); XL (Itzeri), 60.
—— *Iduriki*, Esk. XL (Itzeri), 61.
—— *Bakarrik urak*, Esparavel (1973, 67.zenb.); Esk. XL (Itzeri), 62.

—— *Ondamena*, Esk. XL (Itzeri), 62.
—— *Adan*, Esk. XL (Itzeri), 63.
—— *Barrengo loreil*, Esparavel 4 (1971, 44.zenb.) 1-2; Esk. XLIII, 67-68.
—— *Emakume logille ederra*, Esk. XLIII, [Esparavel (1973, 63.zenb.)].
—— *Ibaitar egunerokoa*, Esparavel (1974, 72.zenb.) 8; Esk. XLIII, 70-71.
—— *Simon bolibar'en Eun eta berrogeitamargarren urtebetetzean*, Esk. XXI, 77-79; Olerti 1981, 91-92 (*Odea azkatzalleari*) [CHUQUEHUANCA'k].
—— *Parabola*, Esk. XLI, 35.
—— *Marian Anderson*, Esparavel (1975, 86.zenb.).
—— *Damutasuna*, Esparavel (1975, 86.zenb.).
—— *Koktela*, Esparavel (1975, 86.zenb.).

MARTÍ, J. M., *Zergaitik ez zidaten esan*, G-Argi 16 (1975, 254.zenb.) 2.
—— *Gezurrak*, G-Argi 16 (1975, 262.zenb.) 2.
—— *Erroiak*, G-Argi 16 (1975, 262.zenb.) 2.
—— *Lengadok Gorria*, G-Argi 16 (1975, 263.zenb.) 2.

MORA, Pablo, *Mintegi* (Almaciego), Esk. XXXVI, 1-32:
—— *Monomio*, Esk. XXXVI (Mintegi), 1.
—— *Binomi*, Esk. XXXVI (Mintegi), 2-3.
—— *Irukoki*, Esk. XXXVI (Mintegi), 4.
—— *Polinomio*, Esk. XXXVI (Mintegi), 5.
—— *Izpide*, Esk. XXXVI (Mintegi), 6.
—— *Muga*, Esk. XXXVI (Mintegi), 7.
—— *Oñarri*, Esk. XXXVI (Mintegi), 8-9.
—— *Almena*, Esk. XXXVI (Mintegi), 10.
—— *Nabaria*, Esk. XXXVI (Mintegi), 11.
—— *Mugaldeak*, Esk. XXXVI (Mintegi), 12.
—— *Osagarri*, Esk. XXXVI (Mintegi), 13.
—— *Egi-antza*, Esk. XXXVI (Mintegi), 14.
—— *Esaera*, Esk. XXXVI (Mintegi), 15-16.
—— *Berdintasun*, Esk. XXXVI (Mintegi), 17.
—— *Arkibide*, Esk. XXXVI (Mintegi), 18.
—— *Neurri*, Esk. XXXVI (Mintegi), 19.
—— *Azterketa*, Esk. XXXVI (Mintegi), 20.
—— *Sustraiak*, Esk. XXXVI (Mintegi), 21-24.
—— *Iñarkun*, Esk. XXXVI (Mintegi), 25-31.
—— *Ondorioa*, Esk. XXXVI (Mintegi), 32.

MORALES, Rafael, *Oroitza*, Esk. XXI, 41, XXIV, 9.
—— *Etsipenezko eta oñazezko arratsalde bat da*, Esk. XXIV, 10.
—— *Oroitzapen*, Olerti 1985-86, 292.
—— *Aantzitakoak*, Karmel 1989-2, 107.

MORENO JIMENO, Manuel, *Las Llamas de la Sangre / Odolaren sugarrak*, Esk. XXXIII 1a-42; XXXII, 1-41:

—— *Sugar azkortzalleak*, Esk. XXXIII (Odolaren), 2; Esk. XXXII, 1.
—— *Suaren aldia*, Esk. XXXIII (Odolaren), 3; Esk. XXXII, 2.
—— *Biotzaren ondoregoa*, Esk. XXXIII (Odolaren), 4-5.
—— *Eriotzaren ondoregoa*, Esk. XXXII, 3-3bis.
—— *Begiaren ginga*, Esk. XXXIII (Odolaren)), 6; Esk. XXXII, 4.
—— *Aldi murriztua*, Esk. XXXIII (Odolaren), 7; Esk. XXXII, 6.
—— *Beti begiak erdian*, Esk. XXXIII (Odolaren), 8; Esk. XXXII, 7.
—— *Gainberaldietan arrapatua*, Esk. XXXIII (Odolaren), 9; Esk. XXXII, 8.
—— *Aztarnak*, Esk. XXXIII (Odolaren), 10; Esk. XXXII, 9.
—— *Aldia - Este sua*, Esk. XXXIII (Odolaren), 11; Esk. XXXII, 10.
—— *Aldiaren aragi bizian*, Esk. XXXIII (Odolaren), 12; Esk. XXXII, 11.
—— *Maillukatua aragia*, Esk. XXXIII (Odolaren), 13; Esk. XXXII, 12.
—— *Oñaze*, Esk. XXXIII (Odolaren), 14; Esk. XXXII, 13.
—— *Iltzen ez dan odola*, Esk. XXXIII (Odolaren), 15; Esk. XXXII, 14.
—— *Gel bedi*, Esk. XXXIII (Odolaren), 16; Esk. XXXII, 15.
—— *Berdingai aundian*, Esk. XXXIII (Odolaren), 17; Esk. XXXII, 16.
—— *Atzerakadea*, Esk. XXXIII (Odolaren), 18; Esk. XXXII, 17.
—— *Odolaren ondoren*, Esk. XXXIII (Odolaren), 19; Esk. XXXII, 18.
—— *Ikuitzen da argiaren muiña*, Esk. XXXIII (Odolaren), 20; Esk. XXXII, 19.
—— *Gauak dagoz*, Esk. XXXIII (Odolaren), 21; Esk. XXXII, 20.
—— *Deia*, Esk. XXXIII (Odolaren), 22; Esk. XXXII, 21.
—— *Lasterka lasterka dabil odola*, Esk. XXXII (Odolaren), 23; Esk. XXXII, 22.
—— *Olatu ori ez da gelditzen,* Esk. XXII (Odolaren), 23
—— *Lurbira guztian*, Esk. XXXIII (Odolaren), 24; Esk. XXXII, 24.
—— *Suteak*, Esk. XXXIII (Odolaren), 25-26; Esk. XXXII, 25.
—— *Aldia gaur*, Esk. XXXIII (Odolaren), 27; Esk. XXXII, 26.
—— *Eguzkiak dizdiz dagi gorri*, Esk. XXXIII (Odolaren), 28; Esk. XXXII, 27.
—— *Ziurtasun amai eziña*, Esk. XXXIII (Odolaren), 29; Esk. XXXII, 28.
—— *Gugaz dago*, Esk. XXXIII (Odolaren), 30; Esk. XXXII, 29.
—— *Eskuak alkartzen ditugu*, Esk. XXXIII (Odolaren), 31; Esk. XXXII, 30.
—— *Egunaren seme sorberriok*, Esk. XXXIII (Odolaren), 32; Esk. XXXII, 31.
—— *Sugarrezko iturri irika bat*, Esk. XXXIII (Odolaren), 33.
—— *Egunaren sugar garaillea da*, Esk. XXXIII (Odolaren), 34, Esk. XXXII, 32.
—— *Aantzitzea*, Esk. XXXIII (Odolaren), 35; Esk. XXXII, 33.
—— *Geure ametsak idazten ditugu*, Esk. XXXIII (Odolaren), 36; Esk. XXXII, 34.
—— *Argiaren gorespena*, Esk. XXXIII (Odolaren), 37, Esk. XXXII, 35.
—— *Aintza gizonaren biziari*, Esk. XXXIII (Odolaren), 38; Esk. XXXII, 36.
—— *Egun zabaletan*, Esk. XXXIII (Odolaren), 39-40; Esk. XXXII, 37-38.
—— *Azkeak gara*, Esk. XXXIII (Odolaren), 41-42; Esk. XXXII, 39-40.

NERUDA, Pablo, *Nun ote dago Gillermina?*, Esk. XLII, 35.
—— *Erregiña*, Esk. XLII, 47; Esk. XLVI, 18 (23).
—— *Beltzakin dantzan*, Agur 4 (1973, 111.zenb.) 6.
—— *Walking around,* Agur 4 (1973, 111.zenb.) 6.
—— *Ioan zan uria*, G-Argi 14 (1973, 177.zenb.) 2.

—— *Ontzi bat ezberdiña*, Karmel 1982-1, 90-91.
—— *Egoaldera itzuli nai nintzake*, Olerti 1985-86, 291; Esk. XLVI, 15.
—— *Etxaso*, Esk. XLVI, 10 (11).
—— *Errekabarren, Txile'ren aita*, Esk. XLVI, 12.
—— *Auteskundea Txinbarongo'n*, Esk. XLVI, 13.
—— *Eskubide osoak*, XLVI, 14.
—— *Amerika*, Esk. XLVI, 16-17.
—— *Margarita Naranjo*, Esk. XLVI, 19-20.
—— *Olegario Sepúlvera*, Esk. XLVI, 21-22.
—— *Barcarola (1935)*, Esk. XLVII, 123-124.

NEUMANN, E., *Oraindiño ama bat ba-daukozu...*, Esk. A., 93-94.

NIETO, Ricardo, *Gizon itunaren abestia*, in: *Kolonbiar olerti-txorta*, 178-181.

OTERO, Blas de, *Emakumearen soiña*, Karmel 1971-4, 15.
—— *Gizona*, Karmel 1972-1, 44.
—— *Urrun*, Olerti 1981, 84-85.
—— *Asieran*, Zer (1983, 38.zenb.) 16.

PALACIO, Manuel del, *Paraiso'ko bidean*, Esk. A., 51-53.

PAREDES, Pedro Pablo, *Leiotilla*, Esk. XXIII, 197.
—— *Uria zurekin*, Esk. XXIII, 197.
—— *Txoriak*, Esk. XXIII, 197.
—— *Sutargidun atzaoa*, Agur 4 (1973, 97.zenb.) 5.
—— *Bere abotsa egon zan tokia*, Agur 4 (1973, 97.zenb.) 5.
—— *Garai makoa*, Agur 4 (1973, 97.zenb.) 5.

POMBO, Rafael, *Igeltxo ibiltaria*, in: *Kolonbiar olerti-txorta*, 182-187.

PORRAS, José A., *Gizonaren naastekuntzaren etxakideak*, Esk. XLII, 32.

POSADA, Eduardo, *Kolonbiar ikurriña*, in: *kolombiar olerti-txorta*, 188-191.

RIVAS GROOT , José, *Izardiak*, in: *Kolonbiar olerti-txorta*, 193-197.

RIVERA, José Eustasio, *Maitari ta emankor*, in: *Kolonbiar olerti-txorta*, 198-199.

RIVERA PODESTA, Ignacio, *Maitasunak otsegin zidan*, Esk. XXIII, 206.

RIVERO, Mario, *Aita*, Esk. XLII, 46.

RIZAL, José, *Maria Clara'ren abesa*, Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 78.

ROBLES, Mireya, *Aldiaren ezkutapena*, agur 4 (1973, 71.zenb.) 4; Esk. XLVI, 70.
—— *Aldian edatzen naizelarik*, Agur 4 (1973, 71.zenb.) 4; Esk. XLVI, 69.
—— *Ixillean agertzen ziran...*, Agur 4 (1973, 71.zenb.) 4; Esk. XLVI, 68.
—— *Aldiaren atzetik urruntasunean...*, Agur 4 (1973, 71.zenb.) 4; Esk. XLVI, 68-69.

RODRÍGUEZ, Hildebrando, *Oarketak (Reflexiones)*, Esk. XXVIII, 1-47.

ROJAS HERAZO, Héctor, *Zure buruan sartzeko arantza*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 88; in: *Kolonbiar olerti-txorta*, 200-201.

ROJAS, Jorge, *Neskatz baten uneak*, Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 88-90; in: *Kolonbiar olerti-txorta*, 202-207.

ROJO LEÓN, Armando, *Gernika*, Olerti 1980, 70-73.

SALINAS, Pedro, *Ez zaitut ikusten*, G-Argi 14 (1973, 173.zenb.) 2; Esk. XLIII, 2.
—— *Argiari Erantzuna*, G-Argi 14 (1973, 173.zenb.) 2; Esk. XLIII, 2.
—— *Lur-gaiña*, Esk. XLIII, 3.
—— *Adizkide*, Esk. XLIII, 3-5.
—— *Iñoiz berkiñ ez dana*, Esk. XLIII, 6.
—— *Far West*, Esk. XLIII, 6.
—— *Galderakizuna*, Esk. XLIII, 7.
—— *Maite zaitut, ni naiz*, Olerti 1985-86, 293; Esk. XLVI, 53.

SOLÍS, Dionisio, *Eguzkia'ri*, Esk. A., 55.

STELLA, Magda, *Judibana*, Agur 4 (1973, 91.zenb.) 4; Panorama (1973-IV-29) 10; Esk. XXIII, 177.
—— *Itzak*, Agur 4 (1973, 91.zenb.) 4; Esk XXIII, 177.
—— *Gizona*, Agur 4 (1973, 91.zenb.) 4; Esk. XXIII, 177.
—— *Eskuak*, Esk. XXIII, 179-180.
—— *Nire aurtzaroko ibaia*, Poesia de Venezuela, (1974, X.zenb.) 9; Esk. XXIII, 181.
—— *Kondaira*, Olerti 1983, 240.
—— *Erantzuna*, Olerti 1981, 84.
—— *Utzipena*, Esk. XLVI, 61.

UNAMUNO, Miguel de, *Gabaz etorriko da*, Esk. XXIV, 80-82.
—— *Itzuli dira elaiak*, Karmel 1987-4, 104-106.
—— *Zugatz bakartia*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 47.
—— *Peru eta Maritxu*, Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 47-48; Esk. A., 99.
—— *Irakur, irakur, irakur...*, Olerti 1984, 198.
—— *Urte joankorrak*, Olerti 1984, 199.
—— *Bizkaia nire lurreko mendiak*, Olerti 1984, 200; Zer (1984, 75.zenb.) 14.
—— *Bestia* [Antzerkia], Esk. XLVII, 66-82 (1934.ean).

URRAZA, Rafael, *Egunerokoa*, XVII, 1-8.

VALBUENA, Angel, *Larrosa zuriaren illetak*, Esk. XXI, 46.
—— *Erdi-oartuzko poema*, Esk. XXI, 47.
—— *Neke-minduriko Kristori erromantzea*, Esk. XXI, 48-49.
—— *Kristo etsipenduari erromantzea*, Esk. XXIII, 6-7.

VERLAINE, Pablo, *Euria dariola*, Esk. A., 45.

VIAN, Boris, *Poema*, Olerti 1982, 67.

VILLESPESA, F., *Neure arreba*, Esk. A., 95-96.

VITALE, Carlos, *Gizona*, Esk. XXIII, 196.
—— *Ixilla*, Esk. XXIII, 196.
—— *Itzartze*, Esk. XXIII, 196.
—— *Batera*, Esk. XXIII, 196.
—— *Egun txarra*, Esk. XXIII, 196.

* * *

(PM JESUS), *San Cristobal*, Esk. XLII, 71-74.

(?) , *Betetasun*, Esk. XLII, 65.
*Kausitze*, Esk. XLII, 65.
*Zure Izena*, Esk. XLII, 65.
*Esnaldi*, Esk. XLII, 66.
*Bitarte-Maitasun*, Esk. XLII, 66.
*Zure Argiaren Eguntzea*, Esk. XLII, 66.
*Zeruak*, Esk. XLII, 67.
*Betiko*, Esk. XLII, 67.
*Izarrak*, Esk. XLII, 67.
*Izartar ura*, Esk. XLII, 68.
*Itxasoan*, Esk. XLII, 68.
*Lorezai*, Esk. XLII, 68.

J. U.

# III. ARGITALPEN ONTAZ

## 1. Bilduma onen premiña

Euskal-olerkaririk onenetakoa dogu aurrean eta euskal-literaturako ugariena. Ugaritasunak bere alde onak eta ez onak dituela egia da; baiña egia olerkari ugarienaren aurrean gagozala ere...

Gaiñerakoan, olerkari onek bere bereak dituen olerkien euneko 38 baiño geiago ez dituela argitaratuta jakiñik, garbi agertzen jaku bere olerki argitaratuez gaiñera argitara bakoak argitara bearra. Onela, S.Muniategi merezi dauan aiñean ezaguna egingo da eta euskal-literatura eta S.Muniategiren olerkari-nortasunari serbitzu ona egiten deutsegulakoan gagoz.

Irakurlea konturatuko da S.Muniategi 1936ko gerrate aurrean olerkigintzara sortua dala, eusko-olerkaritzaren pizkundea sortuzaneko urteetan, ain zuzen; baiña orrez gaiñera, azkenengo 60 urteetako gure literaturarekin zubi egitea jazo jako. Baiña, bere leen urteetan lez, bere betiko olerki-moduari eusten deutso, bere olerki-tankera berezian irauten dau, Lauaxetak bikaintzat goretsi eban nortasunari eutsirik, zelanbait moda eta joera barriai geiegi jaramonik egin barik...

## 2. Textoen jatorrizkotasuna

Emen, bilduma onetan eztogu argitara emoten S.Muniategik bere berea eztauan olerkirik, beste izkuntzetatik euskerara itzulirik. Euren jatorrizko testo garbia aurkezten dogu. Baiña olerkariagaz itz egin eta batera etorrita, bere len urteetako idazkera, grafia, apur bat gaurkotu egin dogu. Esaterako, orduko *r* tildeduna *rr*, *l* eta *t*

marra edo txapeldunak *l* eta *t* egin, eta *-uba* eta *-ija*, *-ua* eta *ia* biurtu: onetara ga*rr*a, i*ll*una, a*it*a, gald*ua*, zur*ia*, eta abar.

Lengo grafia ori askotan orduko aldizkariak, gerrate aurrekoak, idazleai ezarten eutsoena zala dirudi, ez idazle bakotxak beretzat artutakoa.

Aldaketa geiago: askotan *y*-ren ordez *i* jarri dogu, adibidez *y*antzia (*i*antzia); S.Muniategik bietara idatzi izan dau, baiña azkenerantza *i* geiago erabilli izan dau.

Egin dogu beste aldaketa txikirik ere: S.Muniategik asieran gu*s*tia idazten eban, eta gero beti guztia, edo ga*s*te, eta gero ga*z*te: orregaitik guk beti *z* jarri dogu. Ia bardin jaso izan de *x* eta *z*-gaz (axea, guk beti a*iz*ea jarri dogu; edo bixi - bizi, gixon - gizon, ixar - izar, eta abar). Asieran j*u*an idazten eban, eta gero beti j*o*an edo i*o*an... Batzuetan (gitxitan) *dx* erabilli izan dau, baiña ia beti *j* edo *i* (*dx*ako - iako).

Komak jartzeko era berezia eukan lez, guk koma geiegiok askotan kendu egin doguz.

Beste aldaketarik ere egin dogu: adibidez *tz ts*—ren ordez eta alderantziz; o*ak* u*ak*-ren ordez *(gurasuak - gurasoak); ean* i*an*-ren ordez, bertsoetan errimarik egiten ez badau (diranian - diranean). Idazkera oneik gerrate ondokoak dira. S. Muniategi berak gero grafia normalizatu eban; orregaitik gure aldaketa txiki oneikin S.Muniategi berari jarraitu deutsagu.

Orrela egiñez, olerki-liburu onek itxura bardiñagoa lortuko dau. Ortik aurrera, aldaketarik oso gutxi egiten alegindu gara, S. Muniategiren olerkigintzari begirune osoa erakustearren. Baiña L. Arostegiren *Sarrera*-ko artikuluan orain aipatutako Muniategiren berezitasun txikiak zaindu egiten dira.

## 3. Lanaren sailkapena

S. Muniategik 58 urtez, ainbeste kultur-aldaketa, ainbeste politika eta gizarte gorabera izan dituen urteen barruan idatzi dauan ezkero, bere olerkigintzako bitarte luze au sail jakin batzuetan banantzea erabagi dogu, olerkiak noiz eta non, zein girotan eta zein aldizkaritan argitaratu edo idatzi zituan kontuan artuta.

I. 1933-1937 (-1945): Gerra aurreko Euskal-olerki bizkundearen partaide:

1. *Biotzeko lorak* (1933-1934).
2. Egunkarietako olerkiak eta *Goiz-aize* liburua (1935-1937).
3. Gerrate ondoko olerki banakak (c.1937-1945).

II. 1962-1970: *Olerti* (*Zeruko Argia*), *Bidean gora* liburua.

III. 1971-1990: Olerki-lan ugaria sariketetan eta aldizkarietan.

Oiñarri legez urtez urteko sailkapena artu dogu, noizik argitaratutako liburu batzuetan dauken urrengorik urrengorakoa sailkapena kontuan dogula.

## 4. Eskerrak

Amaitzeko, neure esker ona agertu bearra daukat S. Muniategi olerkariari (eta Mari Pilar, bere emazteari), neure eskuetan itxi dauztazalako berak ain maitero batu eta gorde dituen bere esku idatzi guztiak. Olan dogu orain gure eskuetan euskal-literaturan iñork izan dauan olerkari baten olerki-sail oparoena.

Eta eskerrak ere Lino Akesolo, karmeldar jakintsuari, batez ere inprentako probak zuzentzen emon dauztan laguntzagaitik.

*Azken oarra*: Lan au irarkolan inprimatzen egoala il jaku Sabin Muniategi, biotzekoak emonda, ekaiñaren 17n. Eta sentipenez beteta itxi gaitu! Izan daitela liburu au berarentzat azken omena, eta euskal-literaturak jarri daian S. Muniategi berari dagokion lekuan.

# OLERKIAK

# I
# 1933-1937 (1945)

## GERRA AURREKO EUSKAL-OLERKI BIZKUNDEAREN PARTAIDE

# 1
# «BIOTZEKO LORAK» (1933-1934)*

* Txukun samar josita dagoan esku-idatzi onek *(A)*, *Biotzeko lorak*, (22 × 14 cm., 116 orr.) 1933-1934ko urte bitarteko olerkiak daukaz, olerkariaren 21-22n.urte bitartekoak. Orduan Filipinas'en ebillen lanean, eta an idatziak ditu, itzulpenak eta berak sortuak... Olerki jatorrak emen esku-idatzian datozen saillean urrengoz urrengo aurkezten ditut, bat edo beste tarte ezbardiñetan idatziak badira ere.

## BIOTZEKO LORAK*

Zein egun ituna
ta arrigarria zan
Josu gurutzean
il-eben eguna!

Golgota ganean
lapurren antzera
gurutze batean,
oiñ ta eskuz josita,
guztiz zaurituta,
zerura begira...

Bien bitartean
juda'tar gaiztoak
iñuan-«Jatzi, jatzi!
zu Urtzi'ren semea
benetan ba-zara...
jatzi gurutzetik!
Jatzi adi bera
ta guztiok orduan
ziñistuko dogu!»

«Aita, aita! —Josu'k
otoi egin eban—
zergaitik, ene Aita,
emen itxi nauzu?
Parkatu eureri,
parkatu egizu
zer egiten daben
ezdakielako!».

O zein aundia zan
Josu'ren biotza!
An erakutsi eban
biotzeko lora bat:
Maitasuna.
Edozein biotzean
arkitzen ez-dana,
baña biotz guztietan
jaio biar litzaken
loratxu ona.

Ta gero begiak
bigarren estu-aldiz
be-aldera biurturik
ta amagaz, Jon deuna
bertan ikusirik,
esan eutson ari:
Ez negarrik egin
Andrea,
or daukazu zeure
semea.

O, zein aundia zan
Josu'ren biotza!
An erakutsi eban
beste loratxu bat:
Anaitasuna.
Edozein biotzean
arkitzen ez-dana,
baña biotz guztietan
asi egin leiteken
lora biguna.

Zein egun ituna
ta arrigarria zan
Josu gurutzean
il-eben eguna!

---

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 7-9 (1934-II-17).

Baña zein aundia
eta maitagarria,
loratxu kutunak,
larrosa bigunak
biotz guztietan,
biotz garbietan
usain estitsuaz,
usain zerutarraz
biotz guztietan,
biotz garbietan
bizkor erne ziran
zerutar eguna!

Lurbira guztian
asi eta zabaldu
loratxu maiteok
Josu'ren odolaz
sorturiko usain
gozo estitsuak!

## ELAIAK*

An, ederki, basetxe zarreko ate-onduan,
maitasun kabi bat egin eben elaiak,
ta, bertan, urterik urtera jaio dira
egaz ikasten daben elai-kumetxuak.

Edur-moltso zuriaren edertasun otzak
aginduten dautsoe alde egiteko urrun,
baña lorak ager diranean edonun,
kabira[a] biurtzeko poz dabiltz euren biotzak.

Ta or, barritsu eltzen diranean kabira
ikus dabe andra bat itaunduten dagola:
Ai, zuekin ezta etorri neure semia?

Ez-dozue ikusi iñungo erbeste-errian
neure ondotik alde egineban ume gaxua?
Ta ez dautsue esan etorriko litzakela?

---

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 21. (1933) *(A)*, *Esk.* B, 133 *(B)*.
[a] Kabira *B* kabirantz.

## PERU-REN MAITASUNA*

Illuntzeak geldi-geldi ekarran zenbat argi!
Izar garbiak, argiaren argiaz jantzita,
odei baltz-artean, burutzat euken gure Ilargi,
arpegi larriaz aurrera joian... jaurtita
maitaleentzat
begirakun ixillak,
begirakun maiteak;
maitaleentzat
amesak
ludira.

Maitaleentzat
ortziko edertasunak,
izarren itz sakonak,
maitaleentzat
amesak
ludira.

Ixil-ixil aizea, joten orriekin soñua
laster dalako Peru ta Marien ordua,
laster dalako, beti'lez, Peru ta Marien
erosta maitasuna illunetan agirien...

Gau erdian
sispuruka ene Peru,
besoak zabal-zabalik
toki onean,
leunean
Marie.

Gau erdian
maitasunez beterik
pozik eraten Peru,
toki onean,
leunean
eztie.

Ortzi zabalean odei baltz-baltzak nagosi,
izar argi-argiak iñun eztira agiri...
Izar ederrak odeien erruz eziñ ikusi
mosuka Peruk zelan dabillen Mariori.

Itz samurrak
gau illun-illunean
espanen gan-ganean
Peruk dabilz:

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 27-30 (1933).

«Ez beldur
Maritxu
maitea, larri ez ibill,
sorgiñen apatx-otsak
neure eskuak
ez ditu
ez, beldur!».

Peruk mosuka gau erdian diño onela:
Ez dago lurrean piztirik, ezta sorgiñik
neu bizi nazala zeure biotza kentzekorik:
Neure Maritxu maitea gal baño len gibela!

II

Agur, Peru
agur andra Maria!
Zeukana gatoz gu:
Eun anei
Barrabas-
gudari.

Barrabasa dakargu
burutzat. Errukaria
ez ba'zu nai
beragaz
etorri!

III

Zer da ori? Entzun dozu? Goazen emetik ariñ...
Goazen etxera! Sorgiñak, sorgiñ-baltzak dira...
Ai, Maria, ikus gaituz; laster etorko dira,
goazen emetik, ai ene, goazen emetik ariñ.

Ene or datorz
akelarreko sorgiñak,
gona gorri zikiñak...
Narrez dakarz
abarka-
txapiñak.
Buruan dauke adar bi,
Barrabasen irudi...
Or, or datorz
oyuka sorgiñak!
Ariñ ariñ
eurek etor baño len,
aguro emetik goazen;
Ariñ ariñ
eurek etor baño len
geure etxera goazen.

**IV**

Ezatoz...?
Maitea
ezatoz...?
Orduan bai noa...
Maite zaitut baña
asko maiteago dot
neure burutxoa!

## ITXARON AMA*

*Pinaga'tar Paul'i, biotzez*

Sorkaldeko Aberri onetara eldu nintzan
itxirik neure alaitasun eta poz guztiak,
itxirik neure gurasoak baserri-bizitzan
negarrez, saminduta ain biotz maitagarriak.

Oi, zenbat bider dantzut amatxuk niri esana:
«Noiz-arte zoiaz, noiz-arte ene seme laztana?
Zeu zara seme, zeu, neure biziaren bizia,
neure maitasuna eta itxaropen guztia!».

«Aztuko dozu zeure ama? eta Aberria?
ta, bastertuko dozuz euzkal ekandu onak?
Alperrik ete da, ba, neure alegin guztia?».

Aztu? Ez, ama, itxaron beti, itxaron gogor,
laster Aberrirantz nator, gogoz entzutera or
maitasuna darien euzkerazko itz samurrak!

## ITXARON AMA**

Ai, erbeste Aberri onetara eldu nintzan
itxirik neure alaitasun poz guztiak,
itxirik, gurasoak baserri bizitzan
negarrez, saminduta biotz maitiak.

Orain entzuten dot amaren esana:
«Noiz-arte zoiaz neure seme laztana?
Zeu zara neure biziaren bizia!
Neure maitasun ta itxaropen guztia!

Aztuko dozu zeure ama? Ta Aberria?
Bastertuko dozuz euzkal ekandu onak?
Alperrik izan neure alegiñ guztia?».

Aztu? Ez, ama, itxaron beti, gogor,
laster aberrirantz noia, entzutera or
euzkal biotzaren maitasun itz samurrak!

---

* *Goiz-Aize*, 54. *A* esku-idatzian (*Biotzeko lorak*), 31garren orrialdean, (eta *Esk*. B'n, 69) lenengoz idatzi ebana ez da oso bardiña, eta ezbardintasunok askotxo diran eskero, 1933. testoa ere aurkezten dot.
** Esk. *A*, 31.

## ZORIONA*

Zein gizasemek ez dau esan
ator, ator neugana, Zorion?
Lurbiran ete dau benetan
biotz gogor ta ituneko gizon
errukarrien bat, ene iñoiz
zorion'az ein-barik amesetan?
Arkituko ete noiz edo noiz?

O, Zorion, itxaropen maitea!
zenbat, zar eta gazte dabiltz or
zeure deika: Ator ba, ator!
Danak zu, eurentzat izatia
nai. Baña, au negargarria!:
Ondotik igaro arren bein
nor zaran ezagutu ezin!

Or, ara eta ona, gau eta egun,
lo eta itxarturik, amesetan,
zeure billa leku-guztietan
dabiltz, ainbat eta ainbat lagun!...
Zorion maitia... Nun ago nun?
Deitu dot ludiko egaletan
ta ez aut ikus zekula iñun!

Itun ta[a] artega or nenbilken,
lorarik lora, neskatxak
maitekiro laztanduez,
eurekin arkituko ustez
ene zorion maite-maitiori.
Baña euren biotzeko negarrak
barren mingotz-mingotza ekarren!

Neguko eguntxu illun baten
gizon zar, janski zarragoaz,
ta eskeiko-antz andiagaz
ikus neban nik egal baten,
idaztitxu bategaz negarrez...
Bere malkoak... Nok esan ez
itunak zirala zori-txarrez?

Itaundu neutsan bere tamala
ta irrika abestu eustan onela:
«Euzkaldun jaio nintzan
euzkaldun naiz asi
euzkera utsa amak
eusten irakatsi.
Euzkera maite-maite
zabiltz neugaz beti,
euzkera il ezkero
eztot gura bizi».

«Ez ba, uste, neure malkoak
itunak dirala, zoritxarrez!
Idaztitxu orren bitartez
ene biotza dabil zorionez,
beran neurtitz samur-samurrak
diralako elearen omenez»!

Eta, Gora Euzkadi Azkatuta!
biok, gogor, batera esanik,
biotzean neukala sartuta
zoriona ikasi neban nik.

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 33-35, (1933) *(A)*; *Esk.* B, 21-22 *(B)*.
[a] Ta *B'n ez da agiri.*

## SAGAR USTELA*

Mutiltxo bat, apal-apala,
sagasti aurrean zoli eguan,
bertatik ikusten ebala
sagar urdiñ bat bere onduan.

Bere begi zuriak esan eutsoen laster:
O! ori da benetako sagar gozo ta urtsua,
pitxidun urdiñ, guztiz samur ta mamintsua,
sagastiko sagar ederrenetatik eder...

Urdiñ-sagar mamintsuak ariñ igarri eban
mutiltxo kozkor ziriñaren asmo zitala;
igarri ban, bere eriotza an aurrean zala,
ta, bildur, ikeratuta lurrera jauzi zan.

Begiak zoli, oñak ariñ,
ene mutiltxoak artu-ban
poz-pozik sagarra ezkuan
ta azala kendu eutson bardiñ.

Azala kenduta itxuraz, sagar ederra zan;
baña atala kenduta gero... zer, zer ete zan?
O! A zan, barru loi-loi, ustel-ustel, zikiña!
O! A zan, bene-benetako zantar usaña!

Nork esango eban, ikusirik,
ain sagar pitxidun ederra
galduta ebala biotz susterra
ta ezeukola zati bat onik?

Ara mutil zirin gizaxua,
noiz edo noiz artuik taxua,
ta begituten ikasizu.
Zuk orain-arte eztakizu
zelan, sagar ustel-antzera,
gixon azkoren ibillera?
Beti dira kanpotik eder
baña, biotzetik... zer dira zer?

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 37-38 (1933).

## ALKARTASUNA*

Basetxe aundi baten garitzan,
usaba jaun batek eukozan
soloko bedar txarrak garbitzen
eta lur gogorrak astinduten,
larogei biargiñ.

Egun baten asarre eldu zan
langille talde gizagaxuana;
bere ustez txarto eiben dana,
ta agirika gogorrak ein ebazan
danentzat bardiñ.

Onela egunak igaro ziran
ta usabaren asarreak ezeban
langilleentzat amairik arkitzen.
Solo ligorrak mamindu arren
bai jaunak ekiñ!

Alan da guzti be, ondo langillak
lanean gogoz jarraituko eben
iñoiz usaban abotik urten
ezba'leu itz zantar ta mingotzak
emoteko miñ...

«Neure lepotik bizi zarie gosekill guztiok
neure txindiaz eiten dozue jan;
zuek zer zarie ba, lotsa-bako eskeko alperrok?
Txindia artzeko obeto ein lan!

Langille taldea ixilik... Agur!
esan-da-andik aldendu ziran;
usaba jauna bakarrik bildur
an, langille barik geratu zan.

Egunak joan, egunak etorri
langille barririk eziñ lortu.
Ta bere ondasunak apurka galdu...
Ai, onelan jasoten da sarri!:

Alkartasun barik eztau ondasunik;
alkartasun barik eztau ez bakerik.

---

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 39-40, (1934); *Esk.* B, 107.

## EGUNAK NEGUAN*

Ene biotza,
joan zan udaro maitia,
joan zan poztasun guztia:
Txori-kantari alaiak
ta larrosa usaintsuak!

Orain dana dago itzel,
lurra ere beterik orbel...
Alde guztietatik otza
ta estu langillearen biotza!

Nun dira eder ta ugari
lora-usain zoragarriak?
Nun dira sagasti zuri
inguma atsegin-tokiak?

Entzun biotza,
danak, or joan ziran ariñ
uda maitearen atzean;
uda maitea il-zanean
danak or il-ziran bardiñ.

A ze tamal eta ze illun
igaroten dira egunak
neguan!

Begiak donokirantz jagi,
baña bertan zer ikusi?
Zeru goitik lurreraño
ezta illuntasuna baño
toki guztietan agiri.

Illun eguna
illunago gaba;
bien bitartean aizotza
saminduten geure biotza
gugandik urrundurik, ba,
eguzki berotasuna.

Otz,
otz,
ene Izaki osoa;
negarrez basoa,
orroka itxasoa.

Esan biotza,
nora joan zan eguzkia?
Zer-gaitik bere argia
urrunduten dau gugandik?
Ez daukolako indarrik?

An dago, tamal odei atzean,
beti urten-gura eta eziñ;
arerio baltzak aurrean
emoten dautso zeregiñ.

Aizeak, zoli, edonun
joten dau bere soñua
ta or-emen, jauzten dira
areitz adar-zar igerrak.
Adar zarraren egurraz
biztuten da etxietan sua,
baña andra errukiorrak!
ikusirik ipar lañua...
Tamal dauke biotz-barrua,
itxasorantz begira
ia noiz agertuko dan
ontzia ta, ene bertan
euren biotzeko ondasun!...

O, arrantzalle zintzuak,
zuena da bai, nekea.
Ondo itxaso asarratuak
neurtzen dau zuen saria!

---

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 57-60, (1933); *Esk.* B.

Otz
otz,
ene Izaki osoa,
negarrez basoa,
orroka itxasoa,
uts ene sabela
ta, nasai gibela?

Ai, langille txiroarentzat
lanik ez
ta lan ein-barik iñontzat
ezer ez!

Lan lan,
nai ba-dozue jan
lan lan,
al-egiñ guztian!

Au bizitzearen itzela!
Nok esan-ez ba, onela
bizitzea baño ilda
edo ezer ez izatia
oba izango litzakela?

A, ze tamal eta ze illun
igaroten dira egunak
neguan!

## EDERTASUN GALDUAK*

Oi, mendi gallurretako edur zuria!
(Izadiren lora eder zoragarria)[a].
Noizik-bein euzkiaren berotasunak
urtuten ditu zure soin-edertasunak.

Menditik bera dator bai[b], zure negarra...
Oi, edur zuria! Laster da, zoritxarrez,
basa-lur zikiñetan nastaurik[c], tatarrez,
lengo soin garbiaren irudi ederra.

Baña, ene, ezara zu bakarrik edur...
Jolas nasai-nasaietan neskatx[d] lirañak
galtzen dabez biotzeko edertasunak.

Ez zara bakarrik eta, ez izan bildur.
Zure gorputzoi gal eban euzki-indarrak[e];
barriz berena[f], atsegin bete-eziñak!

---

* *Goiz-Aize*, 63 *(B)*; *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 61 *(A)*; *Esk. B (A')*; *Milla euskal-olerki eder*, 752 *(C)*.
[a] Izadiaren – zoragarria *A'(A)* zuritasun garbienaren irudia [b] Dator bai *A* dator [c] Basa-lur zikiñetan nastaurik *A* or, nastaurik lur zikiñetan [d] Nasai-nasaietan neskatx *A* nasaietan, neskatxa [e] Zure gorputzoi gal eban euzki-indarrak *A* zeure soiña galduan eguzki-indarrak [f] Barriz berena *A* Barriz eurena, *C* berena, barriz

## NOIZ-ARTE?...*

Aize gozo labanaren besoetan,
ixil-ixil, maitekiro, lo ta lo
gau illuna.
Ta gau baltzaren illuntasunetan
nabil ni ames eta ames, lo eta lo,
arkitu nairik Aberri-oroitzetan[a]
maitasuna.

Zelan ba, ene gogua eziñ arkitu
maitasuna,
biotzagaz egiñ-eskero begitu?

Urrun dagola neure ama maitea?
Gauza eziña dela bera ikustea?
Zoaz gogua... Zoaz ene biotza!
Ez adi beldur... Ez adi lotsa!

Aurrean daukazu zeure baserri:
alde bat musker:
arto eta gari.
Beste bat zuri:
zugatz talde eder
sagar, madari...
Batzuek sorkeran,
geienak loran;
danak ingumari egiten irri!

Zoaz gogoa... Zoaz ene biotza!
ez-adi beldur... Ez-adi lotsa!
Urrun dagola neure ama maitea?
Gauza-eziña dala bera ikustea?

Aurrean daukagu geure baserri.
Bertan neure ama, itxaroten, larri
atzerrirantz joan zan seme gazteari:
uliak zuri, begiak itun, aoan irri...

O, zein dan bene-benetan ituna
aberritik urrun egon-bear au!
Nik ez nai emen amatxu kutuna
zu ikus-barik bizitia geiau!

Arin-arinka doiaz urte astunak
baña, ez amatxu!
ez dira amaitu
neure gogoan zeure itz samurrak:
«Noiz-arte zoiaz
seme lastana?
Biurtuko zara
zeure ama-gana?».

Noiz-arte ama maitea, noiz-arte?
Itxaron ene ama,
itxaron beti...
Ni gaur biurtu ez arren, biar-arte!

## GOSEZ**

Iñoiz ete dozue ikusi basoan
kabi uts, urrutua, ta andik ez urrun
txioka gosez, otzak-iltzen, azkenetan
txorikumetxua ez-dakiela nora jun?

O, zein dan itzela igaropen ori:
Sabel utsak, jan nai eta iñun ezer ez;
ega ezin, eztakielako zoritxarrez,
eta itxaropena, iñun ez agiri!

---

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 71-73 *(A)*; *Esk.* B *(B)*.

[a] Oroitzetan *B* [*A*, aldatu baño leenago] inguruetan.

** *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 75; *Esk.* B.

Baña ezta orrena bakarrik irudi au:
Seme asko lan barik, Aberritik urrun
dagoz, lan billa, norantz eztakiela jun.

Ene, zein dan ituna, txirotasun au:
aberritik urrun, lan nai ta lanik ez,
eta iñok, iñontzat emoteko ezer ez!

## ABERRIRANTZA*

Ze geldiro doia izontzia
neure zoriona dagon lekura,
neure lur maite kutunera!
Ze geldiro portura doia!
Euzkadi kutuna,
aberri maitia!
Zenbat bidar neure begiak
ikusi zaitu amesetan...
Aize eze, indartsuak
gu eroan gaizala
ondarreta bigunetara,
bere besuetan lo-egitera!
Nozbait itxas-gizontxu batek
«erria»! —egiten dau oiu;
neure atsekabeak antzita
aberri maite... Agur, agur!

Or, ikus Euzkadiko lurrak;
ikus portua ta itxas urdiña,
ikusi baserriko ibarrak,
danak aiñ ederki apainduak.

Euzkadi kutuna,
aberri maitea!
Ai, zenbat eta zenbat urte
igaro neban, zeugandik urrun,
zeure altzuan jarteko
tamal itxaroten!
Esan daigun: Gora Euzkadi!
or dira ba, basetxeak ager.
Au da neure biotzaren poza!
Au da neure amesik ederrena!
Or lenen maitatu neban...
Or dago neure ama itxaroten;
aberri maite... Agur, agur!

Gaztea nintzala atzerrirantz
nik biurtu nebazan begiak,
baña etziran bertan gelditu
aberrira biurtzeko amesak!

Euzkadi kutuna,
aberri maitea!
Zeugaz dabil bai Jaungoikua;
berak zainduta euzkotarrak
ez dauke iñoren
gorroto bildurrik.

Zeure mendietako ota-lora
legorrak, atzerriko lora
ederrenak baño maiteago
dodaz, euren orri orietan
ager dalako azkatasuna.
Aberri maite... Agur, agur!

Ai, zenbat eta zenbat ondasun
itxi dot, atzerri-urietan;
nekez lorturiko ondasunak
zeu, barriz, betiko ikustearren!
Euzkadi kutuna,
aberri maitia!
Zeu zara ondasunik onena,
iñun arkitu ezleitekena.
Nik euzkera barik
eziñ lortu maiterik!
Emen nator pozik zeugana,
neure bizitzako egunak
bakez igaroteko berton;
ta, azkenez euzko-illobira
eriotzeak eroaten ba-nau
soin illak, lur bigun-biguna
atsen eiteko eukiko dau.

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 77-80 (1934).

Portura eltzen doia ontzia
eta emen danok alai gabiltz.
Goazen ba, geure ondarretara
zorionez besarkatutera!
Euzkadi kutuna,
aberri maitea!
Maitasun-bakez biziteko
zeugana betiko etor naz
beti zeuretzat lan
eiteko, asmuetan.

Emen nago emen... Baña zer da au?
Euzkadi noren eskuetan dau?
Jagi, jagi! Gora euzkotarrak!
Ez iñoren menpean beti egon,
ez atzerritarrai jaramon!
Itxartu oñarte lo-dauzanak!
Itxartu ta jagi euzkotarrak!
Ez larregi
lo ta-lo ein!
Goazen ba, guztiok lanera:
lugiña atzurren solora,
artzaña ardiakin mendira,
itxas-gizona be, itxasora,
ta Aberriko seme guztiok
goazen Euzkadi goraltzera,
bakotxa zur, bere lanera
geure aberria azkatutera!

Gaurkoa da gau-ona
ta ezta lo egiteko gau-ona.

## BIDEAN GALDUTA*

Ba'noa... Baña zein bidetik ta nora ete noa?
Eztakit ziur-ziur nun nagon'be zutunik.
Bide-ertzean, nun-nai ikus dot ederki, lorea...
Edozenbat larrosa arantzaz bete-beterik!

Aize labanak euren orri labanagoak
ta usain gozoz betiak dabiltz, ara ta ona
abestuten soñu azkarraz, lora-edertasunak
ta euren biotzeko ene ezti-maitasuna.

Larrosa lirañak, larrosa eder usaintsuak:
Emen nago zoraturik zeueri begira...
Ezti-maitez asetutia nai neure espanak!

Baña, ez, ez! Beldur naz, beldur... or ager dira
bai, arantza zorrotz-zorrotzak. Gaur egunean
bat naiko da, iltzeko, sartu-eskero biotzean!

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 83.

## INGUMA BATI*

Lili-buru mardulan irin gozoak mizkatzen
—zeure ego-bigunak, txorien antzera, luma
bat soñean euki-ezarren— egaka ibilten
zara, lorarik-lora, Udabarriko inguma...

Maite-miñez, lilluraturik begira nagotzu
zelan, ain laburra izanik zeure bizia
zabiltzazan ain bizkor eta ain gogotsu
asetu eziñik biotzan dozun egarria.

Zeure irudi-zati bat naz... Goazen ba, aurrera
idoro-arte, lei-biziz maite dogun loria!
Aurkitzen[a] ba'dogu, nik, neuria, ta zuk zeuria...

Ez larritu! Eriogatik ez izan ikara!
Geu, ilda jausten ba'gara lenengo, lurrera,
orri maitaleak jausiko dira geure ganera!

## INGUMA BATERI**

Lora-zuri ederran gozotasunak mizkatzen
zeure ego bigunak txorien antzera luma
bat euki ez arren soiñian, ega ta ega ibiltzen
sara lorarik lora, udabarriko inguma...

Emen nago tamal-tamal zeuri begira,
zelan ain laburra izanik zeure bizia
zabiltzazan ariñ lora batetik bestera
beldur-gabe eraten euren biotzeko eztia.

Zeure irudi zati bat naz... Goazen ba aurrera
arkitu-arte biotzak maite daben lorea!
Ta arkitzen ba'dogu, nik neurea ta zuk zeurea...

Ez beldur Eriotzeagaitik ez ixan ikera
geu, il-da lenengo jausten ba'gara lurrera
orri maiteak jauziko dira geure gañera!

---

* *Goiz-Aize*, 58 *(B)*; *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 85 *(A)*; *Milla euskal-olerki eder*, 751 *(C)*. A esku-idatzian leenengo textoak aldakuntza asko ditu, eta orregaitik biak datoz emen.

[a] Aurkitzen *B* Zarkitzen.

** *Esk* A, 85.

## LENA ETA ORAÑA*

*Zartzaroko abesa*

Lenago lez, be, orain ortzia agertzen da:
urdiñ batzuetan ta geienetan zuri.
Baña gaztearoko begiak ikusi
ebazan margotxoak onek ete dira?

O, ene gogoaren itxaropen igesak!
Norantz joan ziran lenagoko amesak?
Eurek be, ames zuri eta urdiñak ziran
orain lez, baña zein alde aundia euken!

Margoz, zuri eta urdiñ beti-beti lez,
baña biotzeko begiakin begituta...
Nok esan zuri au, lengo zuria dala.

Eta urdiña au, lengo urdiña? Iñok b'ez!
Lengo gazte-amesak gozoak ziran eta
ezeuken zartzako atsekabe itzala!

## KABI UTSA**

Udabarriko egun alai loratsuetan
toki ederrean, txori[a] bik egin eben
kabitxu bat, bertan zoriontsu euren
bizitza guztien biziteko ustetan.

Eta maitekiro[b] dabiltzazanian,
adar batetik bestera, abes ta abes,
orduan, bene-benetan, zorionez,
gero[c] miña jaioten da kabian:

Urretxindor kumetxua dator ludira...
gurasoen biotzak maitasunez beteta
poz-pozik dagoz txoritxuari begira...

Baña ezta, ez, luzaroko zoriona,
kaiola bataz mutil kozkorra dator-ta.
An dua txoritxu matiaren[d] poztasuna!

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 97, (1934-II-27).
** *Goiz-Aize*, 25 *(B)*; *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 103 *(A)*.
[a] Txori *A* Txoritxu [b] Maitekiro *A* maitekiro ara ta ona [c] Gero *A* Geroko [d] Maitiaren *A* maitia, an.

## ILLUN ABARRAK*

### I

Azkar-azkar kabirantz doia gautxoria
bere egun illunari emonik amaia;
izarrak egunsentiaz bat-batean
begitik galtzen dira ortzi zabalean.

Egunak dei egiten dautso Eguzkiari,
ta Eguzkik Gorrieneko Pepantoneri
oia itxita juateko orbelak zabaltzen,
euri-garoz bertan usteldu ez daitezen.

Txoriak astinduten dabez euren lumak;
irri-barre egiten dau Andere Lurrak
artunik eguzkiaren ma kutuna.

Ta ortzi urdiñ zabaletik aurrera doia
ludiko edertasun guztien egillia,
basterretan zabaldurik ondasuna.

### II

Bere ate illunak edeiten ditu gabak,
ta gautxoriak euren kabitik urteten
asi diranian, itxaso eta basoak
asten dira itzal artian larrituten.

Pepanton sukaldean dago oerako gert
arto-txokorrak garanduta erreten,
ixil, tamaltasunez su-txinpert
gorrietan, noizik bein, eskuak berotzen.

Gabeko aize-otzak dakar danen gogora
beste ludira joan ziranen oroitzak,
ill-atsekabez saminduteko biotzak.

O, biotz maite... gizon zar edo ume gazte,
zoaz, zoaz betilez bildur barik oera,
illobira Alguztidun Jaunak deitu-arte!

## ILLUNABARRAK BASERRIAN**

*Intza'tar Joseba'ri bijotzez*

### I

Azkar-azkar kabirantz doia gau-txoria,
bere egun illunari emonik amaia;
izarrak egun-sentiaz, laño-artian
osoro galtzen dira ortzi zabalian.

Euzki goiztarrak dei dagitso Egunari
ta Egunak, «Gorrieneko, Kepandon»i,
oia itxi-ta, juteko orbel zabaltzen
basoko garoaz usteldu ez daitezen.

Nunaitik datorz txorien txorrotxioak.
Irribarre dagi alai, andere Lurrak,
jasorik eguzkiaren laztan biguna.

Ta ortzi ostin-zabaletik gora doia
ludiko edertasun oron egillia,
baster danetan zabaldurik ondasuna.

### II

Ate illunak edegiten ditu gabak
eta, itzal-artean, ludia estalduz,
uri ta baserri, itxaso ta basuak
lotara doiaz, garrantzi gustia galduz.

Kepandon, sukaldian dago oerako gert,
artoak garandu ta txokorrak erreten,
ipuin zarrak gogoratuz, su-txinpart
gorrietan noizik-bein eskuak berotzen.

Ate-bitartetik dator aize labana,
Kepandonek biarko itxi daiskun, bere
«Peru eta Maritxu'n» edesti kutuna.

Eta gogoz, otoi-ondoren, lo-gozoak,
baserritarrai amesetan darakutsez
begiakin ikusge diran zokondoak.

---

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak*, 105-106, (1934-II-22).
** *Goiz-Aize*, 47-48. Emen olerki baten idazkera bi. Aldakuntza asko ikusten dira.

## ARANA-GOIRI'TAR SABIN-I*

Il-zan, il-zan! —arerioak pozik esan eban—
ikusirik zeure soin illa lurperatuta
baña laster ludiko euzko biotz guztietan
zeure gogo aundia agertu zan sendotuta.

O, abotz altsua! Zeure dei maitia nok aztu?:
«Itxartu euzkotarrak, betiko guztiok itxartu!
Ez-dozu-be ikusten ilten dagola geure Ama
baltzituta bere sanetako euzko odola?».

O, Sabin, Sabin, zein aundia dan zeure gogoa!
Berezi, baso, mendi, uri eta baserri...
Euzkadi osoan, zeure abotsa zabaltzen dijoa.

Il-zan, il-zan! —areriuak pozik esan eban—
baña laster euzko biotzetan eta euzko erri
abertzallietan zeure euzko gogua agertu zan.

## AURRERA EUZKOTARRA!**

Aurrera! Aurrera euzkotarrak
beldur barik
euzko biotzaren azke-amesak
zabaldurik.

Aurrera Sabin'en bide onetik
jarraiturik
Euzkadi areriuen menpetik
azkaturik.

Aurrera! Gora ta gora igonik
alkarturik
atzerriko otsari jaramonik
egin barik.

Aurrera! Gora ta gora Euzkadi
goraldurik
geure euzko biotzak beti Urtziri
zuzendurik.

---

* *Esk.* A: *Biotzeko lorak,* 107, (1934-II-26).
** *Esk.* A: *Biotzeko lorak,* 109.

# 2
# EGUNKARIETAKO OLERKARIA ETA «GOIZ-AIZE» LIBURUA (1935-1937)*

* Bigarren zati onetan S. Muniategik «Euzkadi» (1935-1936), «Eguna» (1937) eta «Goiz-Aize» liburuan (1936) argitaratutako olerkigintza aurkezten dot, baiña «Goiz-Aize» liburuak «Euzkadi»n idatziak ere jaso zituela ez daigun aaztu.

Olerkiok argitaratu ziraneko urtea eta eguna eroango dabe. «Goiz-Aize» liburukoak liburuan dauken saillean jarriko ditut, baiña «Euzkadi» egunkarian argitara emonak ez ditut emen barriro jarriko; euron titulua bakarrik emongo dot eta edizio onetan zein orrialdetan datozen esan. Olan irakurleak liburu aretakoen zerrena osoa aurkituko dau eta emen non daukezan jakingo.

# «EUZKADI»-KO OLERKIAK
# (1935-1936)

## ITXAROPENA*

Mendi, zelai eta aranak
baso, erreka eta ibarrak
legorte luziaren menpean
gora-begira, ao-zabalik.
Inguru guztia
egarriak dauka!
Zeru urdiñean odei baltza,
—Eurien jaubia—
igeska digaro
tantarik lurrai eskiñi-barik.

Arratsaldeko euzki epelak
leunkiro darakarsku gaba.
Illuntzean izartxu ederra
dir-dir agertzen da oztiñan.
Ta lur legortua,
lur lilluratua
begiz-gora, ametsez beterik.
Itz ixillez diño:
A, arrats leuneko
odei txukuna noiz biurtuko da?

## ZEUGAITIK**

Maitasunezko bide pozgarritik
lañopean, eskutuki,
zeu agertuz batera sortu ziran
ezauge iatazan biotz-ikarak:
oñaze eta ezbai mingarriak,
poztasun ta itxaropen larriak.

Ta, ezbaitasun ta naigabepean
betiko jausiko nintzan
erripe iatan bideska estuan,
zeure neskutz begietan idoro
ezpaneban goiko laguntasuna,
ezbaitasunak bastertuz
jarraitzeko gogoz, bide autua...

* *Goiz-Aize*, 35; *Euzkadi*, 23 (1935, 7009.zenb.) 12.
** *Goiz-Aize*, 32-35; *Euzkadi* 23 (1935, 7.016.zenb.) 12.

Orain, O, ene maiteño maitea!
elburu dan geroko batasunak
damostan pozez —erripea leunduz—
zeugaitik,
leunkiro dargist gaba dan illunak

zabaldurik bizitzako ateak;
zeugaitik,
ametsezko lorategitik datorz
iñok iñoiz susma-bako
lurringai zoragarriak,
ta iturri gardenetik,
itxaso barrien eres sakonak.
Zeugaitik:

> zeure begi amesgarri
> ta oin ariñakaitik,
> zeuria dan ao txiki
> ta esku politakaitik.

Zeugaitik, ene itxaropen-lore!
biotzaren maitasunezko ondasuna
zeuretzat oso ugaritu dedin,
ametsezko otoi samurrenakin
(mendi-goitik ta berafio)
gogotik

ludiari kendu neutson mamiña
ta amaige dan ortzi diztikorrai
neure begi-niniakin
(gau illargitsu batean)
ixilkiro ostu neutson
bere izkidun azala.

Orain, irudi ederrez iantzirik
gartsuki dagertzut ene biotza,
zeuk nai dozunean maite!
gogo onez, espantxuak zabalduz
erantzun dagidazun: bai.

## URI ILLA*

Gau illun baten begiak jasorik ortzira,
oroitz-bide leunetik, neure oin-azkarrak
urreratu nenduen lengo amets zarrak
biztanle bakarrak[a] ziran betiko urira.

Uri negargarria!
Ez etxe bat sutunik,
ez leio bat zabalik,
ez argi bat bizturik.
Dana zan illuna,
dana zan ixilla...
baltza ta ituna,
uri uts ta illa!

Len, jauregi ederraen jaube zan urian
etxe on bat be, zutunik eneban ikusten,
ta anei neurkin ebazan kale andian
tximistgurdi ez notin bat eneban arkitzen!

Uri negargarria!
Ez etxe bat sutunik,
ez leio bat zabalik,
ez argi bat bizturik.
Dana zan illuna,
dana zan ixilla...
baltza ta ituna,
uri uts ta illa!

Uri illaren illuntasunaz arriturik,
suzotz bat biztu neban neure oroimenean,
ta, ene alatza! neure aurrean egoan
geriza, bizia, arri-tartean ixilik...

Jarri nintzan
ta bera, be, bai;
jagi nintzan
ta bera, be, bai;
ibil nintzan
ta bera, be, bai.

Ta irrika, ele ixillez, itaundu eustan:
«Oñarte enozu ikusi
ala enozu ezagutzen?
Zoaz, ba, emetik aurrera zeure bidean
eta illai bakean itxi
antsitasunean biziten».

---

* *Goiz-Aize*, 68-69, *(B); Euzkadi* 23 (1935, 7.020.zenb.) 12 *(A)*.
[a] Bakarrak *A* goitarrak.

## GABERDIKO AMESA*

Betor neure loa,
betor egi biurtuz
bartko ames gozoa!

Amesaren pozgarria
ames atsegiña neure bartko amesa!
Edoi-artetik igaroz
unetxu baten, zazt! izarreratu nintzan
txoriño baten antzean.

Urretxindorra zan biotz onen jaubia
ta egaizka joian.
Nigandik aldendu zan txori zolia!
Baña besuak zabalduz,
—matasunaren egoz—
unetxu baten zazt! izarreratu nintzan.

Izarreko baratz mardul argian
eriñotz baten ganian
txori maitia idoro neban kantari...
Jaso nebazan pozkiro besoak,
jaso nebazan maiteki
ta emon neutson abesari:

«Nora zua maitia,
nora ain kantari?
Neuregan dot izarra,
neuregan eguzki.
Edozenbat argi-izpi!
Nora zua maitia
nora ain kantari?».

Neure kantea entzunaz
dardar jarri zan izarra maite-ikaraz;
dardar baratzeko lorak
eta gabaren begiak.
Dardar maite-miñez zoraturik
neskatxa maitagarriak!

Bi milla ezpan gorri zabaldu ziran,
milla abo itaunlari:
«Maitatzen nauk olerkari?».
—Bai, guztiok zarie neure maitiak,
baña txori eder ori
neure maiterik maitiena!

Jatsi zan zugatzetik txoria...
A zan alatz arrigarria!
Txoria zana neskatil lirain biurtu iatan:
ezpanak gorri-gorriak
ule baltz luze-luzia,
begitxu zoragarriak...
«Maite zaitut» —esan eustan.
Erantzun-ordez mosutxu bat emon neutsan.

Mosu bat emon, beste bat artu!
Eta izarrez-izar alkarturik
gaberdian lurreratu gintzan
izar-izpien jantzian bildurik.

Amesaren pozgarria,
ames atsegiña neure bartko amesa!
Zoriontsua bai izango nintzake,
zorionez bete-betia
ames a egi biurtuko ba'litzake!

---

* *Goiz-Aize*, 55-57; *Euzkadi* 23 (1935, 7.029.zenb.) 12.

Betor neure loa,
betor egi biurtuz
bartko ames gozoa!

## UDAKO GABA*

Eguzki-argi mea uxatuz
gaba dator, udako gaba.
Ames-lurrinkaiak zabalduz
zer ete dakarzu lurrera?

Gora eta bera
begira nago amesetan:
goian illargia
izarrakin diz-diz izketan;
beian, bertanbera,
soloko garia
aze leunakaz dabil dantzan!

Alkarren atzean
zugatzetan ipurtargiak
jolasean duaz!
Or-emenka zaunka txakurrak.
Baso-aldean gau-txoriak
alaru ta egaz!

Ta neure auzoko leioan
—maitasun-garra dariola—
abestitxu samur bat dantzut.
Orren abots leuna yaukoan
neskatxa poxpola,
biotz samur ori
beste batentzat ezpalitza!

Gora eta bera
lilluraz nabil amesetan:
goian illargia
izarrakin diz-diz izketan;
beian, bertanbera,
soloko garia
aize leunakaz dabil dantzan.

Ames danak zeuregan bilduz
argizko larrosadun gaba,
izpien artean goralduz
zer ete daroak zerura?

## ARGIA**

Jakiñeza maltzurrak labankeriz
jaso ninduen izarretaraño.
Gero beko zakar-osiñeraño
erori nintzan gogo-kaltegarriz.

Illunetik argitara egaz nai,
baña egoetan indarrik ez, Jauna!
Sendotu dedin adimen biguna
norbait eztozu bialduko neure-zai?

Bakarrik nago bakardi baltzean,
azpian naukoe, zatarkeripean,
urratu nairik betiko argia...

Oi, barneko jakin-naien egarria!
Jaunaren baratzeko lora kutuna
iñoiz geugan eukiko eztoguna!

---

* *Goiz-Aize*, 43-44; Euzkadi 23 (1935, 7.039.zenb.) 12; *Milla euskal-olerki eder*, 748-749.
** *Goiz-Aize*, 40; Euzkadi 23 (1935, 7.043.zenb.) 12.

## LILLURATUAREN A*

Lats-aizea artotzan kantari,
tanbolin-soñua enparantzan:
ametsezko gaztaro bizitzan
neskutz pillua dantza-dantzari.

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi
ba'neki, maitea nun zagozan!

Maitagar adu ezkongilleak
ixilki diraust belarrondora:
«au, a, bestia... zoaz ondora!
aneika daukazuz maitaleak».

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi
ba'neki, maitea nun zagozan!

Emakume-artean galdurik
zeure irudi-atzetik nabil;
zeure irudi-atzetik nabil
maitontzi sutsua jasorik.

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi
ba'neki, maitea nun zagozan!

Begiak zeuganatzen ba'dira
lasterki dazaitut ezpanetan
ba, Izadi-aoz mintzaten zara
zeure egikera guztietan!

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi
ba'neki, maitea nun zagozan!

Oldozkun sakonakin bildurik
ostiña daukazu begietan;
kanta ariñakin margozturik
odol zerutarra ezpanetan.

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi
ba'neki, maitea nun zagozan!

Sar naiz emakumien begietan
ta eztot osotu neure amesik;
barruratu naiz biotz danetan
ta eztot idoro maitasunik.

Oi, ba'neki neskutz ezezaunoi
ba'neki, maitea nun zagozan!

## ATSEDENALDIA**

Izadiaren magal urtsuan
gelditu zaitez ene Abes-min,
edan-arte, geldi, une baten!

Neure lur ta neure itxasua,
oi, neure ametsezko zerua!
Edertasunez bete-beterik
emoidazu neure edontzia
emoidazu, arren!

Edanda, ibil ta ibil nadin
ardau zerutarraz moskorturik:
(itxaso sakon eta legorrez)
gaur emen-berton eta biar an,
maite-kanta ariñak kantetan.

Neure lur ta neure itxasua,
oi, neure ametsezko zerua!

---

* *Goiz-Aize*, 27-28; Euzkadi 23 (1935, 7.061.zenb.) 12. Olerki oni «Lauaxeta»k oar au idatzi eutson: «Olerkari on bat agertu yaku. Orain arte, be, esan dogu, baña berriro esan nai dogu. Muniategi gastiak zer egin daiken igarri geinke. Abixen au buruban artu begije geure elerti-zaliak.—L.»

** *Goiz-Aize*, 51-52; Euzkadi 23 (1935, 7.064.zenb.) 10.

Edertasunez bete-beterik
emoidazu neure edontzia
emoidazu, arren!

Izadiaren magal urtsuan
gelditu zaitez ene Abes-min,
edan-arte, geldi, une baten!

## ZORAKERIA*

Nik eztakit zer zan:
gaba ala eguna
une bat izan zan.

Maitagarrek zirikatuta
—neure begi biak itxirik—
izar-bagako zeruetara
alaikiro zuzendu nintzan.
Argitasunaren ederra
izar-bagako zeruarena!

Gero, zeru goi-goietatik
—neure begi biak zabalik—
uin-bako itxasoetara
jatsi nintzan maitasun-barik...
illuntasunaren tamala
uin-bako itxasoarena!

Aztu-barik gertakizunok
orain, maitasunezko izkiz,
urrez idatzirik daukodaz
ametsezko ingi zurian,
beraz oroitzen nazanian
barre dagidan nasai-nasai.

Nik eztakit zer zan:
gaba ala eguna,
une bat izan zan.

## ARRAIN-SALTZALLEA**

Eguzkiaz batera dator
kaialdeko irribarrea;
eguzkiaz batera dator
neska arrain-saltzallea.

Zenbat gazte dago larrian
noiz etorko ete zarean!

* *Goiz-Aize*, 59-60; Euzkadi 23 (1935, 7.074.zenb.) 12.
** *Goiz-Aize*, 23-24; Euzkadi 23 (1935, 7.078.zenb.) 12; *Milla euskal-olerki eder*, 750-751.

Otzara luzea buruan
—arrañak saltoka barruan—
otzara luzea buruan
eta zenbat ames kolkuan?

Esku bat daukazu gerrian
bestia jolaska aizian.
Neska! Kantauri itxasoan
begiok margoztu zenduzan?

Txitxarruak eta sardiñak
—itxasoko okela mamiñak—
zeure ointxuakin batean
saltoka dozuz buru-ganean.

Zenbat gazte dago larrian
noiz etorko ete zarian!

Zeure abots bulartsua
—itxasuaren orru leguna—
ortzirantz pozkiro dua...
Zer ete da gaztetasuna!

Gorputzoi dabilzu bai, pinpin,
—oñak etxerik-etxe arin—
otzara luzia buruan
eta zenbat ames kolkuan?

Txitxarruak eta sardiñak
—itxasoko okela mamiñak—
zeure amesakin batean
saltoka dozuz buru-ganean.

Zenbat gazte dago larrian
noiz etorko ete zarian!

## EZ AUTORTU!*

Biotza,
galendun eden mingotsa
biar edan eztagizun,
ez esan,
ez autortu ezpanakin
zer daukozun begietan!
Maitasuna
—bizitzako ondasuna—
amets zuri garbiakin
gorde
biotzaren sustarretan.

Zoriona
mosu bero lizunakin
betiko gal eztagizun
ez esan,
ez autortu ezpanakin
zer daukozun begietan.
Maitasuna
—bizitzako ondasuna—
amets zuri garbiakin
gorde
biotzaren sustarretan!

* *Goiz-Aize*, 21-22; Euzkadi 23 (1935, 7.083.zenb.) 10.

## UDABARRIKO ERESIA*

Izadiren edertasuna
udabarriko goiz onetan!
Oi, biotz, zegaitik ezara
poztuten gaurko egunean?

Txoritxuak txorrotxiuka;
inguru legorrenak loran,
edoi urdiñak goi oztiñan...
Oi, zenbat oldozkun aizean!

Aizearen abarrots leuna
goietago zugatz-artean;
goietako marmarra gozua
arin, berantz datorrenean!

Zenbat alaitasun ta algara
edertasunan magalean!
Oi, biotz, zegaitik ezara
poztuten gaurko egunean?

Maitagar lankide dodala
irudimen biziz, sakonki,
izadiaren oldozkunok
neuganatzen asiko ba'nintz...

Ames leitsuenakin bildurik
neure kutunai eskeintzeko...
Oi, zenbat edergai ezilkor
barnean irarko neukozan!

Baña, bakarrik nago,
bakar-bakarrik...
Oi, ene, zer dagiket
maitasun barik?

Ezpa'daukot nori opaldu...
Zetarako ainbat oldozkun,
zetarako biotzeratu
zetako, ainbat edertasun?

Zoriontasuneko bidea
arantzaz idoro arren be,
zer ete noberan biotza
jakitea nori eskeñi!

Baña, bakarrik nago,
bakar-bakarrik...
Oi, ene, zer dagiket
maitasun barik?

Nunai daurkidaz emakumak,
—zenbat biotz-eder maite-min—
nunai daurkidaz emakumak
baña, bat be, etxat atsegin.

---

* *Goiz-Aize*, 74-76; Euzkadi 23 (1935, 7.118.zenb.) 10.

Zer dala-ta, ene biotz
zer dala-ta ezaz poztuten?
Ainbat emakume-artian
maite bat eztozu arkitzen?

Izadiren edertasuna
udabarriko goiz onetan;
alaitasunaren sustarretan
biotzaren tamaltasuna!

Nunai daurkidaz emakumak
—zenbat biotz-eder maite-min—
nunai daurkidaz emakumak
baña, bat be, etxat atsegin.

Itun, bakarrik nago,
bakar-bakarrik...
Oi, ene, zer dagiket
maitasun barik?

## ABERTZALE ZINTZOAREN A*

Orok orontzat,
lan dagigun, lan,
erriarentzat.
Oi zenbat zidarrezko ezpan
eguzkitara datorz dantzan!
Neurea zeuretzat,
zeurea neuretzat?
Bai!
bai!
Oro neurea,
oro zeurea
oro neuretzat,
oro zeuretzat.
Bai!
bai!
Neurea zeuretzat,
zeurea neuretzat!
O! zenbat zidarrezko ezpan
eguzkitara datorz dantzan!
Orok orontzat,
lan dagigun, lan,
erriarentzat.

* Euzkadi 24 (1936, 7.279.zenb.) 14.

## BIOTZAREN DEIA*

### I

Gaur
oro yat eder:
oro atsegin!
Zer dala-ta?
—Oi larrosadun
biotzaren Udabarri!—
Zer dala-ta?
—Lur ta itxasoz
goiko izarretaraño—.
Gaur
oro yat eder:
oro atsegin!

Oi ene begien poza,
ene atsegiña!
zer dala-ta?

Bai izar bakana
an urrunan dakustana!
Zer, biotza? maite dotan?
Neuk al ba'neuke ulertu!
Eder'en izpi-ontzian
begiak ioataz noranai...

Oi ene begien poza,
ene atsegiña!
zer dala-ta?

Bai izar bakana
an urrunan dakustana!

### II

Bai emakume;
batera gurtu gadizan
begi Jilluratuakin
erdu neuregan.
Ezetz? Ez etorriko?
Bai emakume;
erdu neuregan.

Oi etorten ba-zara
etorri!
Zeruaren argitasuna
gau illargitsuetan;
lurraren alaitasuna
eguzki goritan!
Oi etorten ba-zara
etorri!

Ez etorriko? Ezetz?
Bai emakume;
erdu,
erdu neuregan!

Illargi oi, eguzki oi:
esan etorteko, esan...
Bai illargi,
bai eguzki.
Bai-bai!
zeuk illargi,
zeuk eguzki
esan etorteko, esan
itxaroten nagonari.

---

* Euzkadi 24 (1936, 7.283.zenb.) 14. Olerki onek «Lauaxetaren» oarra daroa: «Olerkari barri onek eztakigu zer daukan, baña euzkereak eztauz entzun gaur arte olako gauzak. «Goiz-aize» liburu ederraren egilliak egun zoruntsubak ekarriko dautsoz geure izkuntzeari. Bere txinta edo abestia dauko gero! Norbaitek esan dausku: rarua dozu! Biar ba baña «raro» batzuk ondo yatorkuz.
«Lotsati», «Ereño» eta Muniategi. Iru gaste oneik poztuten gaitube. Txapelak kondu dagiguzan onein aurrian.—L.»

## GURARI UTSA**

Eskatuko neuke, eskatu,
baña zetarako
eskatu?
Zenbatu, zenbatu:
bat, bi, iru, lau... Bai,
zenbatzu gauza nai!
Nai![a]
Nai!
Mosu baten beroa
eta, zer...?
Biotz baten laguntza
eta, zer...?

Geiago!
Geiago!

Neure begiakin
norano ez eldu?
Esku me auekin
zer ez laztandu?

Zenbatu, zenbatu,
bat, bi, iru, lau... Bai,
zenbatzu[b] gauza nai!

Nai!
Nai!

Ortzerik argitatsuena
eta, zer?
Ludirik alaitsuena
eta, zer?
Geiago!
Geiago!

Eskatuko neuke, eskatu,
baño zetarako
eskatu?

Zertarako bai zertarako
gizona ezin bada iñoiz
asetu?[c]

## ORRILLAKUA*

Bai une eder, zoragarriak
orrillako egunetan,
udabarri'k laztantzen gaituzanean!
Oro dakusgu eze eze,
oro orlegiz muskertuta.
Zelai eta baratzak,
mendi eta lilitegi loratsuak
amets daragiskue,
amets;
ezpan gorriakin,
begi samurrakin...

## ORRILLA**

Bai une eder zoragarriak
orrillako egunetan
udabarrik laztantzen gaituzanean!
Oro dakusgu eze-eze,
oro orlegiz, musker.
Zelai eta baratzak
mendi eta lilitegi loretsuak,
amets dagizkue,
lillura eta amets...
zein eder!:
ezpan gorriakin,
begi samurrakin...

---

** Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 61-62 *(B)*; Euzkadi 24 (1936, 7.292.zenb.) 16 *(A)*.
[a] Nai! Nai *B'n ez dira agiri.*
[b] Zenbatzu *B* zenbat [c] *(Azken bertso au A'n ez da agiri).*
* Euzkadi 24 (1936, 7.302.zenb.) 14.
** *Esk.* XLIV, 1-3. Emen olerki baten idazkera bi. Aldakuntza asko agertzen dira. Emen ikusten dira S. Muniategiren alegiñak olerkiak edertzen.

Loreil-erdian
bizitza dan eder, odolak zanetan
mun dagiskunean berotasunez!
Bai gizaseme,
bai emakume.
Zergaitik ezetz esan ta ukatu?
Zergaitik ixilpean estaldu?
Nok legikean betiko
udabarri ori biotzean sartu!
Izadi oro,
izaki oro
itun edo alai naikun baten darabil
bai, bai!

Gurari bat ernai dago
biotz bakoitzean.
Eta zenbat amets sortu daroaz
gurari orrek!
Bai gizaseme,
bai emakume.
Zetarako ezetz esan?
Oi biotz, gazte,
ondo ba'zenki zer dan maitasuna!
Maitasuna, Maitasuna...
Ez dozu sentitzen
zeuregan?
Ez dozu nabaitzen
txori-abestietan,
lora kukuluetan,
margul Izadi'ren edertasunean?
Eta gero, gaua datorrenean,
ain ixil,
ain geldi,
illargi Amandrea'ren argipean...
Oi biotz gazte,
eztizko didarra eztozu entzuten?
Bai, Maitagar, bai,
zeure izenean
zenbat izaki iagokoz ametsari!
Kar-kar, kar-karka,
kilin kolonka
zenbatzu ugario eta sapok
agur dagitse gauari,
agur alkarreri!

Loreil erdian bizitza dan eder
odolak zanetan,
mun dagizkunean
berotasunez!
Bai gizaseme
eta, emakume...
Zergaitik ezetz esan
eta zergaitik uka?
Nork leikean
udabarri ori betiko biotzeratu!
Izadi oro,
izaki oro,
itun edo alai
naikun batek darabil...
Oi, bai!
Gurari bat ernai dago
biotz bakoitzean,
eta, zenbat amets, lillura
sortu daroaz gurari orrek!
Bai gizaseme,
bai emakume
zetako ezetz esan?
Oi, biotz gazte!:
ondo ba'zenki zer dan maitasuna!
Maitasuna, Maitasuna!
Ez dozu nabaitzen
txori abestietan,
lore kukulluetan,
egoz-ego,
inguma txuri-gorrietan
landare ezez,
margul Izadiaren gilbera bizian?
Eta, gero
gaba datorrenean
ain ixil,
ain geldi...
aize bigun
epelarekin jostaketan,
illargi amandrearen altzo
dizdikor gelgarrian,
oi, biotz gazte,
eztizko deadar gozoa
ez al dozu entzuten?
Bai Maitagarri, bai,

Loreil-erdian
bizitza dan eder, odolak zanetan
mun dagiskunean berotasunez.
Bai gizaseme,
bai emakume,
pizti txatxar itxusienak bere
baitagoz kantari.
Oi biotz gazte,
zeure ametsak eztira loratuten?
Zeure gogo urduria,
guztia maitatuz,
guztia laztanduz
goi argitsuetara,
ludi barrietara
besoak zabal, ezta zuzenduten?
Bai gizaseme,
bai emakume
bizitza dan eder odolak zanetan
mun dagiskunean berotasunez.
Zergaitik esan ezetz ta ukatu?
Zergaitik ixilpean estaldu?
Nok legikean betiko
udabarri ori biotzean sartu!

zure izenean
zenbatzu izaki dagoz ametsari!:
kar-kar, karkarka,
kilin-kolonka,
zenbatzu ugariok
zenbatzu xapok
agur dagitse gauari,
agur alkarri!
Loreil-erdian
bizitza dan gorakor
odolak zanetan mun dagiskunean
berotasunez!
Bai gizaseme,
bai, emakume
pizti txatxar itxusiak ere
baitagoz kantari.
Oi, biotz gazte,
zure ametsak ez dira loretzen?
zure gogo urduria,
guztia maitatuz,
guztia laztanduz
goi argitsuetara
zeru barrietara
besoak zabal
ezta zuzenduten?
Bai gizaseme,
bai emakume,
bizitza dan zerutar
odolak zanetan
mun dagiskunean
ikara emez!
Zergaitik ezetz esan eta uka?
zergaitik ixilpean estal?
Nok leikean
betiko,
udabarri ori
biotzean sar!

## AMALUR*

Ludi bakan, ganorabakoa!
Gaur orbelez itun, biar alai,
zador utsa zaran
ene ludia!
Eta ortzipean
itxasoz bilduta urduri zakusgun
ludi ori... zeu zara,
zeu bizia damoskuzun
auts itun, ene ama Lur!
jaiotz-eriotzakin
(bizitz-irule)
bai izaki eta bai landare
guztia da zeurea;
zeuk asi eta alikatua
guztia! Eta etzara
zeure buruaren jabe!
Esku zabalez,
egunero zaukaguz eskeinka,
zeure igali,
zeure aterpe,
zeure magal bero,
etengabeko maitetasuna.
Egunero lan dagizu, lan,
zeure semeon sabel nasaiontzat,
izadi eta izaki guztiontzat.
Lan!
Bai, nork daikean ondo ezagutu
zeure anditasuna,
zeure arpegia laztandu...
Oi bizia damoskuzun
auts itun, ene ama Lur!
Dana da zeurea,
dana zeugandik ditxarogu.
Baña zeuk emonala
eta geiago bear, geiago nai!

Ezin bete geure biotzak,
ezin asetu
geure itxaropen mengelak...
Eta zeuk zer dirauskuzu
ain ixil,
ain maite
zeure emokuntza etengabean,
auts-itun, ene ama Lur?
Menderik mende
luzatu baitozu bizia;
menderik mende
margo ta bitxiz apaindu ludia...
Zergaitik malkoakin
ludia busti daroazu?
Oraindik itxaropena baño ezpaita
zeuk sortutako ortzia!
Begi sakonakin, urduri,
zeri begira zakusgu?
Atz-puntetan dabil naia,
sustraietan,
biotz-biotzean!
Oi, bete-ezin andia,
zeure naia,
neure naia,
auts itun, ene ama Lur!
Baña ezagutu zaitudan-arren,
ta zeure arpegia laztandu...
artu egizuz maiteki
neure abestiak,
zeure biotz ixillarentzat;
neure maitasuna
maitetasun orrexentzat...
zeure lan ordaingarritzat
neure lana... Amets labur:
auts itun, ene ama Lur!

* Euzkadi 24 (1936, 7.325.zenb.) 12.

## BURTZAINA*

*Mussolini'rentzat*

Ori ire txapel aundi,
ire akulua!

Bai neure burtzain, bai,
gosez yabiltsok beiok.
Burtzain, zelan arindu
burdi utsaren aztuna?

Ori dokala garra,
abotsaren indarra!

«Aida, Txuri! Oo, geldi!
—bide estuan—.
Zer dabilk, ba, Txardio?
Aida, Txuri, aida!
Bide estuan
ez lotu besoka».

Ori dokala garra,
abotsaren indarra!
Bai neure burtzain, bai,
gosez yabiltsok beiok.
Burtzain, zelan arindu
burdi utsaren aztuna?

Ori ire txapel aundi,
ire akulua!

## DANTZARIAK**

...Todo el valle está danzando
en un corro bajo el sol,
y al que no entra se le hace
tierra, tierra el corazón.

*Gabriela Mistral*

Amaitu zan eguna, amaitu,
baña lerden, zenbatzu[a] mutil gazte
ta[b] neska lirain nekusan dantzari!

---

* Euzkadi 24 (1936, 7.338.zenb.) 14.
* *Bidean gora*, 123-124 *(B)*; *Euzkadi* 24 (1936, 7.342.zenb.) 12 *(A)*.

enparantza erdian,
eskuak zabal,
soiña lerden, beatz puntan
aizea baño
ariñago zebiltzan![c]

Aurrean nekusan —bai edergarri—!
eskuzko katea;
begiak begietan,
—eta, nire maitea?...—
Begiak ortziratutzean
illuntzeko izarra,
bakarrik agiri zan.
Gogoaren mingoztasun ituna![d]
Dantzarien dantzaldi alaia!
Oneik eukezan...
—bai zoragarri!—
begietan Udabarriko eguzki,
zanetan bildur bako odola.
Nire ituntasun aul, mengela,
laster zan alaipean estali!

Gero legunkiro
arrats-aizeak
sarkaldetik zekarren[e]
ta, bideak etxietarantz zeraman[f]
gauaren illuna:
enparantzako alaitasuna.

Baña, zenbatzu[a] lotu ziran
bidertzetan ametsari...
zenbatzu ezpan loratu ziran
illargipean kantari:

«Oi, betikorra ba'litz
gure amets gordin au, betikoa
gure ezpan gorri,
gure irribarrea...
Egiz, zeruan,
zeruan biziko gintza»[g].

Amaitu zan eguna, amaitu...
baña, lerden, zenbatzu[a] mutil gazte
ta neska lirain nekusan dantzari!

Arratsaldeko seiretan
enparantza erdian,
eskuak zabal,
soiña lerden, beatz puntan
aizea baño
ariñago zebiltzan![c]

---

[a] Zenbatzu *A* zenbat [b] Ta *A'n ez da agiri* [c] Zebiltzan *A* ebiltzan [d] Mingoztasun ituna *A* ituntasun mingotsa [e] Zekarren *A* ekarran [f] Zeraman *A* eroian [g] Gintza *A* gintzake.

## UME-OLERKIAK*

### *Jostallua*

Biontzat amatxu,
jostallu bat nai neuke euki:
—txiki, arin, polita—
arat-onat berez dabillen
urrezko belbilla.

Erosi amatxu,
erosi!

Tu-tu-tu... Zu eta ni
egunoro ibilliko gara
joan eta etorri:
ni izango naz eroatzalle
eta zu tutulari.

Gernika-osteran
geure Areitz donea gurtu
eta etxeratutean
eun gozokiz etorriko gara
bidea gozatzen...

Erosi amatxu,
erosi!

Biontzat amatxu
jostallu bat nai neuke euki:
—txiki, arin, polita—,
ezeunke nai ene amatxu
biontzat erosi?

Auzoko Mikeltxu'k
jostallu bereziak daukoz.
Bere egazkiñaren
ta burdiaren arintasuna!
Oi bere zaldia...!

Zergaitik amatxu
berez ibilten dan belbilla
erosten eztaustazu?
erosten eztaustazu?
Ni izango naz eroatzalle
ta zu tutulari...

Erosi amatxu,
erosi!

## BEI ZARRA**

Eta orain
dinbili-danbala...
Oi, bei zar,
bei zar!
Nora oa, nora
saltzallearen eskutik?
Nora oa, nora
eguna argitu baño len?

Legauste ori estalduteko
etxagok illunik!

* Euzkadi 24 (1936, 7.348.zenb.) 14.
** Euzkadi 24 (1936, 7.366.zenb.) 8.

Zenbat «aida» eta «oo»
entzuna aiz, i, aragitegira
okelatzat ugazabak saldu auan
ene bei zar!
Eure bizitzan —bai, bizitz apala!—
zenbat solo landu dozak,
zenbat sats ongarri soloratu,
zenbat azpigarri etxeratu.
Eta ainbat neke...
norentzat?
Ugazabarentzat!
Zenbat esne eder emon dok,
zenbat txal mardo azi,
zenbat txindi irabazi
ene bei zar!
Eta, guztia,
guzti-guztia,
norentzat?
Ugazabarentzat!

Eta ordañez —bai ordañ negargarri!—
zenbat zirikada artu dok,
zenbat otz eta bero!
Jan-edanez ondo asetua
izan ba'aiz bere
ire buruaren onerako baño, ai!
asko geiago, ire
ugazabarentzat!

Eta orain,
dinbili-danbala...
Oi, bei zar,
bei zar!
Nora ua, nora
saltzalliaren eskutik?
Nora ua, nora
eguna argitu baño len?
Zenbat ao gosekil dagoz
ire okelearen zai!

## MOSKORTUAK*

Gizonak dauken itxutasuna
asarre-gorrian!

Aizto zorrotzak eskuetan...
napar ardo baltzaren bidez
itz zantarrak dabilz burruka
moskortuen ezpan loietan.

Begira dago illargia
zidarrezko izpi argiakin;
zaunka, auzoetako txakurrak
zadorrezko itzal baltzakin.

Moskortuak, albo-alboka...
—odolaren berotasuna!—
itz mingots gaiztoakin dabilz
alkarren lei-biziz, zirika...

Abots garratzenak, bai, zoli:
«Ba'dakit ire atsoaren barri;
saspi illabete baño len
semea, aita eztanari...».

Moskorti biotz zaurituak
negar samiñez oiu dagi:
«Beti-betiko, izan zadi
ordi, txarri-madarikatu...».

odol-ardoen zaparrada;
sabelik-sabelera, zorrotz,
uztoak diz-diz, este billa...

Une a, bai une larria,
ama Lurraren sabelean!
—Goietako illargi eder,
sartu zaitez edoi-artean!

Erori dira, bai, lurrera
itz loi, zikiñakin nastaurik...
Erori dira lurrera, ai!
ardo ta odolez bustirik.

* Euzkadi 24 (1936, 7.387.zenb.) 8.

Batak, begiak zabal-zabal;
bestiak, idigi nai eta, ez...
eriotziari begira, bai,
begira jarri da bildurrez!

Gero, ene! —bai, bildurgarri—!
Nun lotu ziran txakur-zaunkak,
*mingañaren esten zorrotzak?*
A zan a, gauaren samiña!

Gizonak dauken itxutasuna
asarre-gorrian!

Saspi illabete baño len
negarrez jaio zan umeak,
umeak ezeukan aitarik!
Ta alargun gaxua baltzik!

## AMETSEZKO ITXASOAN*

Sobre la tierra amarga,
caminos tiene el sueño
laberíntico, sendas tortuosas
parques en flor y en sombra y en silencio.
*Antonio Machado.*

Gabeko zortzirak eta geiago
erriko enparantzan!
Neska-mutillak, alaikiro? dantzan.
Ni, itzarrik eta bakar
ametsezko itxasoan.

Ene itxaso zabal, itxaso sakon,
ain bakarra ete aiz ludian?
Atzoko ametsak etziran loratu
eta, gaurkoak loratu naian...!

Ene ontzi ontziño azkar,
ibilli adi ibilli
joan eta etorri
joan eta etorri
kendu emonka biotzari!

Itxas-ertzean ondarra gorri,
arto soloak musker, landak orlegi...
Ez ete dautse zuzenduko egia
uren gañeko bits urduriari?

Oi, zein aundia dan, gora-beraka,
oiñaren zalaparta
etengabe, mozu leunakin munka
itxas oroldi berdezko
aitz labanaren gain!

Ene ontzi, ontziño azkar
lengo amets zarrak
barriakin bastertuz
ibilli adi ibilli
kendu-emonka biotzari!

* Euzkadi 24 (1936, 7.403.zenb.) 8.

## JAUNTXO*

*(Argazkia)*

Txintxin lurraldeko
gizaki zaputz,
sur-luze, oker,
belarri motz, deunge
betaurreko oriak
surraren gain:
Txerrena irudi
eta, izan Kain.
Jokolari amurratu,
eleiztar zintzo...
Ama Neskutzaren aurrean
otoika... zetarako?

Arpegi illun,
burusi uer...
endore makil agintaria
barriro eskuetan ba'leko...!
Baña, —ain buru gitxi!—
ekandu loidun
gizon txorobillo:
maltzurkeriakin, beti,
nor atzipetuteko?
Begiak argiegi bai'tagoz gaur
iñoren lepotik bizi eta,
Madril'era joan ta etorri,
joan ta etorri ibilteko!

## EUZKO GUDARIAI**

«Dana emon biar yako
maite dan azkatasunari».
*Lauaxeta.*

Agur ene anai maiteok, euzko-gudari lerden
aberriaren oñarri sendo, biotz kementsuok, agur!

Mendirik-mendi ernai, zuek pozkiro ikustean
izkilluak eskuetan, irri samurra ezpanetan...
zenbat oroitz zaar, aintzagarri datorzkit gogora,
zenbat argazki ikusgarri ene begien aurrera!

Orreaga'ko garaitz, Arrigorriaga'ko gudaketa...
Orpoz-orpo Euzkadi zainduz egunik-egunera,
Aitor'en endako odolaz geure lurra bustita,
zuek zatoze aberriaren azkatasuna lortzera.

Oi, zenbat izardi-larri, zenbat neke eta odol
emon izan dira emon, eta oraindik emongo!
Baña, ainbat izardi-larri, estualdi eta odol
zoritxarrez, —Ama laztan— alperrik ete izango?

Ez erromatar azpiratzalle, ez mairu ankerrik,
gure zugatz donearen azpitik ez'pazan igaro...
Zein gudaroste altsuk eta, nok, geuk nai izan ezik,
nok, kemen utsa dan erri itzartua zapaltzeko?

* Euzkadi 24 (1936, 7.404.zenb.) 8.

** Euzkadi 24 (1936, 7.414.zenb.) 8 *(A); esk.* XXI, 4-6 *(B)*. Olerki onen kopia *(B)* «Euzkadi»k argitaratua baiño geroagokoa da, eta aldakuntza txiki batzuk eginda, baiña 10garren bertsoa kopiatzea aaztu jakon, itxuraz.

Ekin gudariok aberriaren azkatasun biderantz,
begiak zuzenduz egizko iturri gardenerantz.
Ekin azkatasun biderantz, ta, aspergabe jarrai,
Urtzi jauna bai'tago geure asmo zindoaren zai.

Kendu begietatik malko mingotza, negar ituna,
itxaropenez sendatu biotza... Aberri kutuna!:
aundia da, bai, arerio zitalak dakarren garra,
baña, ez koldar eta txikiago euzkoen bularra!

Baserri apaltxuenetik, uri aundieneraño,
zeuekin dago erria: zeuekin arrantzallia,
lugiña, langille oro odola emoteraño
gert, sendatuz izpideak damoskun naimen bizia.

Euzkadi eder, aberri laztan! Aintziña lez orain,
orain aintziña lez, jagita zagoz jagita, tente,
oraindik aurrera, seme bakar bat daukazun-arte,
etzara, etzara izango, ez, edonoren otsein!

Betorz etsaiok betorz, ikusi dagien ikusi
gure erri itzartuaren naimen gori eta bizia;
betorz etsaiok, geure maitasun goriaz maiteki
estaldu dagigun beren gorroto igingarria.

Oi, napar anai, anai itsu! Zeure anaien aurka[a]
eskuetan —koldar— zerk, izkillua artu-eragin dautzu?
Zerk bide negargarri orretan, zerk ipiñi zaitu?
Zerk ipiñi zaitu zeure amaren semeakin burruka?

Zeure begiak zabalduko diran egun zoruntsuan,
a izango da zure poz eta naigabe ituna,
negar alaiez munka, goiz eguzkitsu batean,
amatxu maitea laztanduko dozun eguna!

Baña, orain, ene! amordea daukazue amatzat,
eta, aurka zatoze amatzat eztogulako nai...
Zein naigabe aundia ama benetakoarentzat,
eta, seme maite, seme maite zintzoarentzat, be bai!

Orain, aurrez-aurre ara emen, amaren seme zintzoenak:
Gipuzkoa lerden, kementsu Bizkaia aintzagarri.
Emen daukazuez mendigoizale, gudari lerdenenak
aurrez-aurre, eskuetan izkillu, ezpanetan irri...

[a] Zeure anaien aurka/eskuetan –koldar– zerk *B* Zerk zeure amaien aurka/eskuetan, koldar.

Gizadiak daukon illun-aldi eta itsutasuna!
Gizadiak daukon odol-egarri etengabea!
Gizadiak daukon ikusi-ezin zorotasuna!
Oi, Euzkadi'k daukon bizi nai eta, naigabea!

Ekin gudariok aberriaren azkatasun biderantz
begiak zuzenduz egizko iturri gardenerantz.
Ekin azkatasun biderantz eta, aspergabe, jarrai,
Urtzi jauna bai'tago geure asmo zindoaren zai.

Baserri apaltxuenetik uri aundieneraño
zeuekin dago erria: zeuekin olerkaria,
lugiña, langile oro odola emoteraño
gert, sendatuz izpidiak damoskun naimen bizia.

Oi, au gure erri zar Euzkadi zindo, kementsua!
Oi, au gure itxaropen zar egunaro barritua!
Oi, au, ene ludiko, ene biotz-biotzeko aberri![b]
Au gure gaztedi alai, aberriaren zaindari!

Agur ene anai maiteok, euzko-gudari lerden
aberriaren oñarri sendo, biotz kementsuok, agur!

## LILITEGIAN*

Bitzabal-ondoko lilitegi
lilitegiko lora
landara ikusgarri!
Anitz bidazti
egunaro igaroten dira,
egunaro zeure ondotik.
Begiak ortziratuz,
begiak lurreratuz
danak geltzen dira begira,
danak lilluratuta
danak... zer dala-ta?
aurrera joan-arren
atzera begira...

Oi, zure usai gozo
margo gorri eder
eta, lilluratuen biotza!
Norbait, geiago-ezinda,
lotuko da bidean
—oñak aztun, biotza pilpil—
Maitagar'an oñetan.
Aize mee batek
(errukituta edo)
zuzenduko dau lilitegira.
Eta, arrats apalean
lau begi, samurkiro
arkituko dira izketan,
eta aotxu bi, mutu ta,
zer esan eztakiela
lilitegiaren erdian.

[b] Aberri *B* anai.

* Euzkadi 24 (1936), 7.421.zenb.) 8.

## ARRATS BERAN*

*Olaskoaga'tar Paskal*
*adizkide eta euzko-gudari zintzoari.*

Arrats beran, leioa zabalik
eta euria etengabe.
Intxorta'rantz jarrita
ene begiok mendirik mendi,
aberriaren samiña darakuste.
Kalamua, Kanpantzar...
euzko-odolez bustiriko
mendi urtenak ikusiz,
baneki zer esan!
Berengo basetxetik
gorengo txabolaraño
inguruetan dabillen zalapart
gizonak gizonakin
—abere antzo—
izugarrizko zalaparta!
Au ipar aizearen otza,
izkillu dunbotsakin
era negargarri eta mingotsa!
Bai ete
ez ete?
Zenbat itaun urduri erantzunge!:
ezpanetan,
begietan,
biotzean...
itaunak eta itaunak erantzunge.
Oi, zu, izkillua eskuetan dozula
aberriaren zaindari gazte:
zuretzat da nire gaurko otoia;
zuretzat nire abestiak,
eta nire gogoa zure jarraitzalle.

Zein aundia dan zure oparia
Euzkadi'ri dopaltsazuna!
Ene anai maite
euzko-gudari lerden...
Emen eztaukazu; ez,
ez etxeko oe bigun
ez amaren laztan samur
biotzaren atsedenik!
Orrez ganera,
zenbat otz eta naigabe
jasan biar dozuzan!
Eta nun da zure maitea
ogei urteko lili gordin,
—neskutz zoragarri—
biotzaren kutuna?
Nun bere izketa gozoa,
zure itxaropena, nun?
Au ipar aizearen otza,
izkillu dunbotsakin
era negargarri eta mingotsa.
Bai ete;
ez ete?
Zenbat itaun urduri erantzunge:
ezpanetan,
begietan;
biotzean...
itaunak eta itaunak erantzunge.

* Euzkadi 24 (1936, 7.438.zenb.) 8.

## NARKIS*

*Hierro-Lazkano'tar Kepa'ri biotz-biotzez.*

*«Ja-jai,*
*goiz abil alai».*
*Lauaxeta.*

Narkis!
Eroriko aiz!
Mutil!

Dizdiz, aurrean daukok
begi baltzdun osiña,
udabarri ezean
larrosakin egiña.

Oi, beren begietako
argitasun illuna
nai-ezka, osturiko
mosu-bero gordiña!

Larrei ez ertzeratu
laban eginda, mutil!
amai bako sakonan
bakarrik galdu ezadin.

Narkis!
Eroriko aiz!
Mutil!

* Euzkadi 24 (1936, 7.446.zenb.) 8.

## ZUGATZ BATI**

*(Negu aurrean)*

Otz-ikaraz dart-dart,
narru-gorrian zinkurinka,
zinkurinka akusdan
ene zugatz maite,
zugatz billoiztu ori!:
Zeri dagitzak negar
eta, zer dala-ta?
Zeren billa, zeri deiez abil
aize gogor,
ekaitz itsuaren menpe?
Negar dagitzak
orriño[a] zimel,
soñeko zar ustelari?
Negar Udabarriko
txoriño alai,
eguzki epelari?
Legortu begiok,
baikortasunari ateak zabal;
emon bularra
aldi txar, era mingotsari!
Zer dala-ta kikildu,
ezbearrak eraginda...
zer dala-ta begiak
malko-iturri biurtu?

Niretzat beintzat,
eta... norentzat ez?
Eure utsune ta akatzakin
billoiz-billoizik, erantzita...
len baño mardulago,
len baño argiago,
zindoago akust.
Azana az!
ene zugatz: zer nai dok geiago?
Zetako dozak orri zimelak,
zetako guzur-berokiak
txoriñoak —edurrak izututa—
igandik ba'duaz igesti?
Oi, nok daikean
adar puntatik beraño
osoro biotza agertu;
nok daikean
(edonoren begi aurrean)
burutik orporaño,
gogoa erantzi!
Azana az!
ene zugatz, zer nai dok geiago?

* Olerti 8 (1966, 2-4.zenb.) 47-48 *(B)*; Euzkadi 24 (1936, 7.470.zenb.) 8 *(A)*
[a] Orriño *A* orritxu.

## BAI DAKIT BAI*

Begiak argi gabe, aul,
soin izarditua
otz-ikaraz dar-dart...
Eriotz tximurraren
arpegi larri
arpegi galdua!
Izara zuriz
estalduta dago lurra,
laño illunez
ain garbia zan zerua...
Zer dala-ta!
Oi, zer dala-ta?
Nundik dator zinkurinka
aizearen negar-ots ori?
Nundik etengabeko
samin mingotz au?
Oi, ene gudari lagun
alaitu arpegi motel ori!
Ba'dakit, bai
zure biotzaren barri:
negarrez ama kutuna,
anai-arrebak samiñez...
eta, ezkongaia?
Ain maite biotzeko zendun
ogei urteko lili gordin
neskutz zoragarria...
Zelan utzi, laga zenduan?
Oi, ene gudari lagun
ba'dakit, bai,
zure biotzaren barri
baña, alaitu arpegi motel ori!
Zeure gudari lagun
olerkariak dabestzu:
«Dana emon bear iako
maite dan azkatasunari».

## JOSU**

Umetxu baten jaiotza dala-ta,
abesti alai
kanta samurrez
zerutik datorren eresko iturria
luditarrai osoro zabalduz
zorion atea!
Baña, zer dala-ta!
Emen akust orain? nola
i, aiz Urtzi'ren Seme?
Zer dala-ta akust emen,
bei apal
ardiakin inguratuta
soñutsik... soñutsik zeu!
Nora ator, nun ago nun
umetxu argi
umetxu eder
gizadiaren gaizkatzalle ori!
Oi Bethlem!,
ez aiz erri aundi
ez errietatik txikerren
bai, erri aintzagarri.
Josu, Josu
umetxu laztan,
umetxu maite:
Nora ator nora Jaungoiko txiki?
Ludira ator, ludira
beste umetxuakin «potxika» eta,
«birin-bolaka» egiten?
Ludira ator ludira
ludia zer dan jakiten?
Ua zelairik zelai,
lora polit, usaitsuenak biltzen;
gero daukek zeregiña
ogia zabaltzen...
ementxe geldi: amaren altzoan,
gizon egiteko, titi gozo
esne gardena eraten,
«patxu» samurrakin
amaren biotza poztu!

---

* Euzkadi 24 (1936, 7.479.zenb.) 8.
** Euzkadi 24 (1936, 7.490.zenb.) 10.

## EGUNAREN ERIOTZA*

Nora ua, nora, lau-oinka?
Ume! izarrak estalduz
urrezko zaldiño-buruz
nora oa, nora, lau-oinka?

Oa aurrera;
oa aurtzaro argira!

Atzo, karraxika il zan
ire Aita? A zan ituna!
Zadorrezko ego-puntan
ire jaiotza bakana!

Etor aurrera;
etor aurtzaro argira!

Orreik dozak begikunak!
Oi, zer daukak ezpanetan?
Ezpaian urduri naukak
aitaren seme ete azan.

Oa aurrera;
oa gaztaro gorrira!

Begira dozak egalak,
—arren, ez lotu bidian—
begira dozak egalak
zer ete dokan eskuan.

Etor aurrera;
etor gaztaro maitera!

Zoruna dakark batean;
bestian negar ituna?
Amets apain-artean
ire bizitza ozena!

Oa aurrera;
oa zartzaro zurira!

Orreik dozak esakunak
eriotzaren musturretan!
Ezpaian urduri naukak
ezilkorra ete azan.

Etor aurrera;
etor zartzaro zurira!

Eriotz daukak zanetan,
—begik lausoz, oñak txakil—
eriotz daukak zanetan
eta maite-miñez abil?

Oa aurrera;
oa bizitza barrira!

Lañozko estalki-artean
—lepuan dokan aztuna!—
lañozko estalki-artean
oi ire eriotz ituna!

Oa aurrera;
oa bixitza barrira!

* Euzkerea 8 (1936, 15.zenb.) 173-174.

# «GOIZ-AIZE» LIBURUA (1936)*

* Liburuak «Euzkadi»n argitaratuak (ik. 151.orr.) jaso zituen, beste argitaratu bakoez gaiñera. Liburuak Lauaxetaren «Aurre-itza» (7-14.orr.) daroa.

## EREÑOZAR*

*Euzko-mendigoizaleai*

Negu eta uda,
orlegiz iantzirik dager
Ereñozar'ko mendia!
Bere babespean
lo datza neure erria
etxe bakotxetik
ke-ariña dariola
ametsez beterik...

Oi, bere edertasuna
lanbru illun edo
edurrez ianzten danean!
Gorantz igoteko
garra sortzen iat barnean!

Irakurle, iñoiz
ezagoz mendi orretan?
Bere edestia
ez al'dozu ezagutzen?
Mikel Deuna eta
deabruaren gudua
eztozu iñoiz be, entzun?

Mikel Deunak ta Txerrenak
biak gura eben
Ereñozar'en agindu,
baña biak ezin izan!...
Zerua ta Inpernua
asarratu ziran eta
zeingeiagokorako,
Mikel Deuna ta Txerrena
mendiratu ziran;
Mikel'ek aitz baten ganian
bere ezpata luzia
itxi izan eban...

Oi, Txerren adartsuak
burutik kendu baituzan!
Gallur-gallurrean,
amurruz beterik,
zeñek urrunago
saltateko gertu ziran.

Oi, unearen larria
goi ta beiaren erdian!
Lenengo Mikel Deuna
gero, Deabrua...

A! edesti ori
zuk eztozula siñisten?
Deabruaren apatxak
begiakin ikusteko,
betor ba, neurekin
Ereñozar'era!
Eta Muruetagana'ra
Arri-zapal baten dagon
Gongotzon, Mikel Deunaren
odola gurtuten!

Nor izan zan garallea?
Ez al-dautzut esan?

Ara, an... goi-goian...
Gautegiz Arteaga'tik
lañopean, eskutuki,
baselez polit bat
eztozu ikusten?

Negu eta uda,
orlegiz iantzirik dager
Ereñozar'ko mendia!
Bere babespean,
lo datza neure erria
etxe bakotxetik
ke-ariña dariola
ametsez beterik...

---

* *Goiz-Aize*, 17-20.

Oi, bere edertasuna
lanbru illun edo,
edurrez ianzten danean!
Gorantz igoteko
garra sortzen da barnean!

**EZ AUTORTU!** 161.orr.

**ARRAIN-SALTZALLEA** 160.orr.

**KABI UTSA** 147.orr.

## KOLOMBO'KO BELAK*

Oi, ene neure euzko-begi, begi urdiñak!
Zeylon urartean, Kolombo'ko urian
zenbat bela ikus dozuez egazean
aragi ustelez beterik erpiñak?

Bela guztiak lez baltzak ta loiak ziran,
baña ez euretariko bat il, ez ikutu...
Abere goitarrak dira ta, benetan
eurentzat obarik ezin leike arkitu.

Izontzia egaka doia itxas-ganian
alaitasunez itxirik an, urian,
Kolombo'ko bela aragi ustel-zaleak.

Ai, al baneuke al, erri orren antzean
itxi, barruki emen, neure biotzean
sartu diran oitura baltz eta loiak!

**LILLURATUAREN A** 159.orr.

* *Goiz-Aize*, 26. Kolombo'tik urtekeran «President Adams» izontzian.

## IZKUNTZA IXILLA*

Beti begiakin!
Baña,
ixillik dago
ta, ixillik nago…

Oi, ene begi urdiñok
zer itaundu dautsazue?
Nik eztakit ezer
ta ezin neike erantzun.
Itaundu edoi, izar ta
ortzi zabalai;
itaundu bedar, lora ta
ludi guztiai;
itaundu zeure biotz ta
neskutz eder orren ezpan
gorri sutsuai.
Nik eztakit ezer
ta ezin neike erantzun.

Beti begiakin!
Baña,
ixillik dago
ta, ixillik nago…

Oi, ene begi urdiñok
ezer erantzun dautzue?

## BAIKORTASUNA**

Goizeko eguzki argiaren menpean
anei mitxeleta zuri egaka dabiltz
larrosondo zoragarrien goi-aldean,
lili-buruen zain, bat zabalduko ba'litz!

Legun, aizeak, biotz-onduan mun-dagist.
Goizaren adia, ain ixilki, ain bigun
biotzai eskintzeko ainbat gozotasun
neskutzaren maitasunak ete dargist?

Eztot ulertzen ez, zure goitar izkuntza.
Baña ainbat edertasunek zoraturik
uste dot baso ta oianen lorakuntza

neugaitik sortuko zala, neure omenez,
ta neke-miñak uxatuz, argiz bildurik,
maitagar datorkidala esku zabalez…

**ZEUGAITIK** 154.orr.

**ITXAROPENA** 154.orr.

---

* *Goiz-Aize*, 29-30.
** *Goiz-Aize*, 31.

## ATZIPETUAREN A*

Oi, zenbat bide
zeugaitik ibilli nintzan
ta zenbat neke
zeugaitik jaso nebazan!

Baña dana alperrik
dana, guztiz alperrik!

Zeugaitik!
Neure bizia,
neure naimena
ta neure maitasunaren giltzak
zeure eskuetan laga nituzan!
Eta,
ametsezko estalgiz bildurik,
zeruaren azal diztikorra,
ludiaren onura mamiña
ta itxasoaren barren sakona
maitekiro opaldu neutsuzan,
danakin biotz on bat egiñik,
zeuretzat!
Eta,
neure bizia,
neure naimena
ta neure maitasunaren giltzak
zeure eskuetan laga nituzan!

Ta zuk ezenduan nai,
ta zuk ezenduan nai...

Luzaro,
zeure atzean,
zeure menpean
lilluraturik ibilli nintzan
noiz maitatuko ete ninduzun!
Eta, ixil-ixilik, neure begiak
zeure begitxuetan jarririk
ta zeure eskutxu politak
neureakin, legun, bat-egiñik,
lei-biziz, neure maitasuna
sakonki azalduten neutzun.
Eta,
luzaro
zeure atzean,
zeure menpean
lilluraturik ibilli nintzan
noiz maitatuko ete ninduzun!

Baña dana alperrik,
dana, guztiz alperrik!

Il zan, bai,
il zan betiko,
ene maitasuna!
Joan zan, urrundu zan nigandik
urrundu zan amesak bastertuz!

Eta,
naigabezko bide itunetik,
guzurra baño nabaitzen ez zan
gau illun ta ikaragarrian
barruratu nintzan, zoraturik...

---

* *Goiz-Aize*, 36-39; *Milla euskal-olerki eder*, 749-750.

Baña ene barrundi illuna
argitu zan, argitu zan nozbait!
Baña,
il zan, bai,
il zan betiko,
ene maitasuna!
Juan zan, urrundu zan nigandik
urrundu zan, amesak bastertuz!

Oi, zenbat bide
zeugaitik ibilli nintzan
ta zenbat neke
zeugaitik jaso nebazan!

Baña dana alperrik
dana, guztiz alperrik!

**ARGIA** 158.orr.

## ETA ORAIN...*

Eta orain zeu zatorz
maitontzi betia eskuan dozula!
Zegaitik zatorz, zegaitik?

Ene
begiari ainbat malko
ixuri daragiotson
ta atzo ainbat maite neban biotzoi
legunkiro dopalstazu
zeure ames eztitsuenakin bildurik...
Baña
berandu zatorz berandu!
Zeure ezetz saminkorrak
lurreratu zituzan nire amesak
eta, ene biotzean
samurtasunez beterik,
ganezka, irakiten neukon odola
zeure begi ederrakin
edenez bete zenduan.

Beste bide eder batetik jo neban
ta beste begitxu batzuk
neure begietatik barruratu ziran,
eta, gogo saminduak
beste gogo baten magal zoruntsuan
daurki bere atsedena.

Eta orain zeu zatorz
maitontzi betia eskuan dozula!
Zegaitik zatorz, zegaitik?

**UDAKO GABA** 158.orr.

**ILLUNABARRAK BASERRIAN** 148.orr.

---

* *Goiz-Aize*, 41-42; *Milla euskal-olerki eder*, 750.

## ARTO OPILLAK*

Erduze ona mutillak
egur-garrastak ekarten.
Gaur, amama dabil laban
opil bigunak erreten.

Opillaren usaintsua,
geldiro errerikua!

Labarto usaintsu eta,
axartozko opiltxuak
amamak baño obeto,
nok ete dakiz erreten?

Opillaren usaintsua,
geldiro errerikua!

Erduze ona mutillak
egur-garrastak ekarten.
Gaur, amama dabil laban
opil bigunak erreten.

Opillaren usaintsua,
geldiro errerikua!

## ATSEDENALDIA 159.orr.

## GABEKUA**

Eguna amaikeran Eguzki'k itxasora
jaurti eban bere buru argia,
ta, Illargi pozarren dator menditik gora
ikusteko gabeko bizi zoragarria.

Zugatzetan dabiltz ipurtargiak dantzari,
zugatz bakotxean ortzi eder bat sorturik,
uri ta baserrietan txakurrak zaunkari,
bide ertzetan, maitaleak ametsez josirik...

Ipurtargiak dantzari, txakurrak zaunkari
maitaleak... ta, zu begiz-gora olerkari?
zazpi izarretatik zein da zure kutuna?

Olerkari gaxua! Zoaz ames-egoetan
izarretaraño ta goiko izar orotan
asetu zeure biotzan gurari kutuna!

* *Goiz-Aize*, 49-50.
** *Goiz-Aize*, 53.

**ITXARON AMA** 190.orr.

**GABERDIKO AMESA** 157.orr.

**INGUMA BATI** 146.orr.

**ZORAKERIA** 160.orr.

## GOIETAKO EDURRA*

Egun otz eta lañotsu baten,
sagastiaren loratze edo,
maitagarrien ames-antzera,
zeru goitik edurra iatsi zan
lur zipotza kolore garbiaz
iantziteko.

Orain,
beko leunetan, basa-ganean,
zuritasuna da, bai, nagusi;
ta goietan, mendi gallurretan
edur zuri-izoztua dago
bere garbitasun betikorra
erakusten.

Gero,
biarko euzki bizi-biziak
leuneko basatzan jarri dana
zikintzan lurperatuko dau
ain edertasun ikusgarria
ondaturik.

Baña,
mendi gallurretako zuritasuna
eguzki'k bere izpi biziak
sutsukiro bidaldu-arren be,
beti, goietan ikusiko da.

Gogoaren luditar amesak
bana-banaka, galen itunak
bizirik lurperatuko ditu,
bizirik lurperatuko ditu,
baña, O, goietako edurra!:
ene bizitzako asmo-goitarra
bizi-nazan-arte iraungo da.

* *Goiz-Aize*, 61-62.

## EDERTASUN GALDUAK 142.orr.

### OROITU GAITEZAN...

*Urkiaga'tar Estepan,*
*«Lauaxeta» ospatsuari, biotzez.*

Negua da, bai,
negua.

Goietan edurra nabari
eta lanbrua;
errekaldietan uiola
guztiz ugari.

Negua da, bai,
Negua.

Ezer be eztaukenakin oroitu gaitezan,
geure erruz,
bide-zior baten ilda jauzi eztaitezan!

Joan zan udaro maitea
ta ixildu ziran txorien
txorrotxiu entzungarriak
eta, lora berezienak
izotzpean igartu ziran.

Axotsak lurreratu ditu
azkanengo orri zimelak
eta baso ta bidertzetan,
edergarritzat dakusguz, bai,
orbelezko azpiki loiak.

Kalerik-kale dabil, eske,
zazpi seme ta andria
daukon aita agurgarria!
Burdiñolatik, askorekin
batera, jaurtien kanpora!

---

* *Goiz-Aize*, 64-67.

Oi, ze tamal eta ze illun
igaroten dira egunak
neguan,
nun berotu eta, gosia
nun asetu eztaukonantzat
etxean!

Lan-billa dabilzanarentzat
lanik ez,
ta lan-egin barik iñontzat
ezer ez!

Oi, zer ete da, zer
gosemiñez, janaria billatu eta,
ezerrezaren samiña;
oi, zer ete da, zer
ate bakotxean
eskua luzatu eta idorotea
arpegi gogor illuna.

Lan-billa dabilzanarentzat
lanik ez,
ta lan-egin barik iñontzat
ezer ez!

Au bizitz zori txarrekoa!
Nok esan ez, ba, nok, onela
bizi izan baño il, edo
ezer bere ez izatea
obeto izango litzakela?

Begiak donokirantz jagi
baña, ai! bertan, zer ikusi?
—Zeru goi-goitik lurreraño
ezta illuntasuna baño
leku guztietan agiri.

Oi, ze tamal eta ze illun
igaroten dira egunak
neguan,
nun berotu eta, gosea
nun asetu eztaukonantzat
etxean!

Negua da, bai,
negua.

Goietan edurra nabari
eta lanbrua;
errekaldietan uiola
guztiz ugari.

Negua da, bai,
negua.

Ta, ezer eztaukenakin oroitu gaitezan
geure erruz,
bide-zior baten ilda jausi eztatezan!

**URI ILLA** 156.orr.

## TXORI DONETSIA*

Txindortxua dabil mimenetan,
—ama-semeak alkar-izketan—
txindortxua dabil mimenetan
izpar barri ta onak kantetan.

Oi, txori eder txintxinlaria...
zer izpar dakark eure kantetan?

Amaren poza txoritxu ori
aurreratzen iakon bakotxean;
semiaren amurrua, arri
eder bat eskuan daukanean!

—Ama, ilko dot txindortxu ori?
—Zer Txindorra il? ene biotza!
Eztakizu zelan, txepetx-kaka
garbitu eutson gure Jaunari?—.

Oi, txori eder txintxinlaria,
guztien artean donetsia!

Bide-ziar ioiala... Txepetxak
arpeia loitu eutson Josuri,
eta txindor polit apalak
laster garbitu eutson maiteki.

—Ta, ama, pekatu da iltea...—.
—Bai. Bai ene semetxu maitea,
pekatua da, eta, aundia
txoritxu apal ori iltea—.

Txindortxua dabil mimenetan,
—ama-semeak alkar-izketan—.
Txindortxua dabil mimenetan,
izpar barri ta onak kantetan.

Oi, txori eder txintxinlaria...
zer izpar dakark eure kantetan?

* *Goiz-Aize*, 70-71.

## UME ITXASTARRARENA*

Biar, aundia nazanian,
neure ingizko izontzian
itxasora jungo naz, ama;
biar, aundia nazanian...

Txipli-txapla, uin-ganetik...
Oi, norarte elduko nazan!

Neure ingizko izontziai
zikiriozko oial zuriak
lotuko dautsodaz, gogorki,
aziak putzitu dagizan.

Txipli-txapla, uin-ganetik...
Oi, norarte elduko nazan!

«Izarrak sortzen diran erri
ikusgarrira» elduko naz.
Ta eun izar ta artizar bat
sartuko ditut izontzian.

Ontziaren argitasuna
kaiera sartzen nazanean!

Aizoial zabal-zabalakin
geldiro sartuko naz portura.
Noren izontziak lekarke
eun izar eta artizar bat?

Ontziaren argitasuna
kaiera sartzen nazanean!

E, itxastar! —esango dauste—
zeure ingizko izontzian
itxastar gazte! nundik dakark
orrenbeste argi-ondasun?

Kaian entzungo dan txalotsa,
nik, edestuko dodanean!...

«Izarren sorterritik dakart»
—maiekiro esango dautset—
baña ingizko izontzian
ara ume bat jun biar da!

## UDABARRIKO ERESIA 162.orr.

## EGUN LABUR TA URTE LUZEAK**

Eta,
egun labur
ta urte luzeak digarotaz
itxaroten!

---

* *Goiz-Aize*, 72-73; *Milla euskal-olerki eder*, 751-752.
** *Goiz-Aize*, 77-78.

Nun bizi da
nun, ene kutuntxu maitea?

Atzo, iturrira etor zan
neskatillea... A ete da?
Ala, nabillen bakotxean
neure bidian daurkidana;
ala, leiotik, egunero
eskuaz agur dagistana;
ala, begitukeran, lotsaz,
burua makurtzen daustana?
Zein ete da
zein, ene kutuntxu maitea?
Biarbada,
bere urrezko ule eder
eta begi baltz samurrakin
maitekiro ditxarost, bere
ames zoruntsuan bildurik...
Biarbada,
oldozkor bein eta barriro
albotik igaroko nintzan
bere, urrezko ule eder
eta, erdu ona! zirausten
begietara begitu baga...
Biarbada,
ene! bein baño geiagotan
mintzako giñan bidertzetan...
Ta, ezkendun,
ezkendun alkartu biotzik!

Eta,
egun labur
ta, urte luzeak digarotaz
itxaroten!
Nun bizi da
nun, ene kutuntxu maitea?

## JON GAZTEARENA*

Itxasora doia Jon gaztea.
—Maite'ren ama daurki bidean—.
Itxasora doia Jon gaztea
kamañia dabela lepoan.

Jon gaztearen ituntasuna
itxasorako bide luzean!

Maite'ren amak, samur, ditauntso:
Nora oa Jon, zorroaz lepoan?
—Itxasora noa —darantzutso—
dantzatuteko uin-ganean.

—Jon, idatzi gero sarri-sarri
ta ez aztu zeure etxekuakin.
—Idazteko sarri? Amaseikuakin
oba etxera arin etorri!

—Tira, ba, ondo ibil danakin;
zatozaneko gure Maite, be...
—Eskerrikasko, andre Mikele,
enaz aztuko ez itz orrekin.

Jon gaztearen alaitasuna
itxasorako bide luzean!

Gau atan, Jon, zibuka ebillen
kamañazko oe txukunean.
Gau atan, Jon, zibuka ebillen
bere Maite'rekin, amesetan.

Uñen txipli-txapla gozoa
itxas baketsuaren altzuan!

* *Goiz-Aize*, 79-80.

# «EGUNA»-KO OLERKIAK
# (1937)

## ESKEINTZA NESKATIL LIRAIN BATI...*

Nai ba'dona,
tori ene biotza
zeurearen ordez.

Baiña argi nai neuke argi-argi,
zeure soin lirain ori ikusiz
ene soin argal au[a] erakusteko
argi-argi nai neuke oso argi.

Bion artean
ume antzo,
ez bekoki illun
ez ezkuturik:
zeru[b] garbia
izarrez beterik!

Ez etorri itunez edenduta
malkoakin! Etorri bai larrosakin,
biotz ori pilpil, mosu emotean
odol gaztearen dardara biziakin!

Nai ba'dona,
tori ene biotza
zeurearen ordez.

## ESKEINTZA NESKATIL LIRAIN BATI...**

Nai ba'dona,
tori ene ogei urteko biotza
zure amazortzikuaren ordez!

Baiña argi argi nai neuke argi
eure son lirain ori ikusiz
ene soin argal au erakusteko
argi-argi nai neuke oso argi.

Bien artean
ume oene antzo,
ez bekoki illun
ez ezkuturik:
zeru garbia
izarrez beterik!

Ez etorri itunez edenduta
malkoiakin! Etorri bai larrosakin,
biotz ori, pilpil, mosu emotean
odol gaztearen dardara biziakin!

Nai ba'dona,
tori ene ogei urteko biotza
eure amazortzikoaren ordez!

---

* S. ONAINDIA, *Las cien mejores*, 174-176 (D); *Bidean gora*, 92 *(C)*; Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 11-12 *(B)*; Eguna 1 (1937, 6.zenb.) 1 *(A)*.
[a] Argal au *A* argalan [b] Zeru *A* zerua
** Eguna 1 (1937, 86.zenb.) 3: Olerki au ezbardintasun azkoekin agertu zan.

## ELANTXOBE*

### Lena gaba eta eguna

*R. Asua'tar Andoni «Ogoñope'ri adizkidetasun sendagarritzat.*

Len beatz puntan, beatz puntan
biotzik-biotzera,
alaitasuna ebillan... bizitza zan ederra!
Uren gañean bitsa bezin arro
bitsa bezin jolasti.
Eta, orain, begikoa zan
erri polit
erri maite ori:
Nun dok nun eure
txaideetako zalaparta,
neska-mutillen
jai-egunetako dantza eta,
biotzetako poza?
Au ituna: ikusi eta
lenagaz gomuta!
I ete aiz lengo Elantxobe
i, arrantzaleen txoko kutun,
itxas-ertzeko kabi eder
biotz-begien betegarri?
Kai bazterrean izontziak lotuta
berengo etxetik gorengoraño,
uriak daukon ituntasuna!
Nun dira oialak zabal,
itxas-bideak urrutuz
ekaitzari arpegi emotzen ontziak,
nun, ondasunez beteta,
txiru-liruka kaiera,
kaiera etozan biotz-gazteak?
Nora itzuli dira
itxaso sakona bezin ostin
eguzkia lez argi,
illargia baño legunago
legunago ziran
neskatx lilluratuen begiak?

Oi, dardaraz akust erri gaxo
itxasoaren begi...
dardaraz gudeak ekarritako
oñaze mingotsez.
Ire etxeak —samiñak erasota—.
Ogoño bizkarretik
laprast egingo ete dabe
eta bilin-bolaka,
ostin sakonera amil?
Au ituna: ikusi eta,
lenagaz gomuta!
Baltzez iantzita
negarrez ba'dakust erria...
zetako dot itxasoaren ostiña,
zetako inguruetako lorategi
izadiaren edertasuna?
Aberri-aldez jausi ziran...
biotzaren samiña!
Eta emakume au...
Noren ama?
Noren arreba?
Ai, ezkongai polita:
nun galdu dona nun
biotzaren itxaropena?
Ezta geiago agertuko
ain maite zenduna!
Bermokitz'eko
itz iraunkorrak sendatu,
berpiztuko ete dabe
itunez ildako ametsa?:
«Otoi bat eta gero arte»
bizitzan, ludiko bizitzan
bizi aizana!

* Eguna I (1937, 14.zenb.) 2.

## NAI*

Begiak zenbat ikusi,
biotzak ainbat ete nai?
Neuk ere ez jakin
ez jakin zer dodan nai!
Zerua, argi diztikorrakin,
ludia edertasunez...
Goian,
begiko iatazan izarrak;
bean,
luditar baratzeko lorak!

Nori jarraitzeko, nori
ametsaren bidez,
txikiegia baita ene biotza
danak laztantzeko
etengabeko maitasunez?
Izarrak zerutik izpi gelgarriakin;
ludiak bere edertasunakin
dei dagiste dei...! Jauna!
Bien artean. Nok jakin, nok
zer egin?

Emen egon, ibilli eta,
ara ere joan nai!
Oi, jauna! Nora jaurti
ene biotz ase-ezin,
ene biotz ustel au
naiko ezpaiako ibiltzea
toki bateko bidez?

## NORENTZAT?**

Okela gordiña
saleroska dabil, saleroska
gogoaren sustraietan.
Mardul baño mardulago
loran dagon bitxia
nok maite izan
eta nai ez?

Norentzat ete,
norentzat?
Maitatua izan
eta, zein maite?

Oi, zure naia,
neurea balitz zure naia?

Zer nai dona zer
begiakin deika,
urrutira begira,
egon ezin, eta,
aoa josita?

Norentzat ete
norentzat?
Maitatua izan
eta, zein maite?

Oi, neure naia,
zeurea balitz neure naia!

* Eguna 1 (1937, 26.zenb.) 1.
** Eguna 1 (1937, 33.zenb.) 4.

## NESKATXARENA*

Begietan iaio,
biotzean sartu... O[a], ama!
Zer egin,
bere begietan nekuzan
zugaztxo zoro bik,
zugaztxo zoro bik
zoratu ba'nabe ama?

Ez andrakilla, soka dantza
eta, ume iolasak eztauke,
eztauke aren begiak dauken
argi eta gozotasunik.

O, ama!
Zer egin,
bere begietan nekuzan
zugaztxo zoro bik,
zugaztxo zoro bik
zoratu ba'nabe ama?

Nik dakustana,
egiztuko ba'litzake egiz[b]...

## BASETXEA**

I aiz emengo basetxe zuri,
mendi orlegiezean josita
kistar sustrai zindoakin
aberriaren oñarri.

Lau solo zabal,
artedi ta pagodi
azpigarri arloakin
sendiaren bizi.

Bakartadean galduta ixilik...
bai ete da ludian
lora ta arantzaz ingurututa
abenda batentzako
ezaugarri obarik?

Lau solo zabal,
artedi ta pagodi
azpigarri arloakin
bake onaren kabi.

---

* Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 46 *(B)*; Eguna 1 (1937, 40.zenb.) 4 *(A)*.
[a] O *A* Oi [b] Egiztuko ba'litzake egiz... *A* ikusiko ezpa'neuke, ama!
** Eguna 1 (1937, 42.zenb.) 4.

## NEGARRA*

Negarra dator
lur, itxaso eta aizez,
or-emendik urtendako
barre-karkaxa lasai batzukin,
karkaxa batzukin nastua[a],
aundiagotzeko ludia,
etengabeko itunez.

Eta, aizeak austu-ta,
(orri zimel antzo)
amets-itxaropenak duaz iges...
Oi, ludi, ludi!:
Noiz asetuko aiz
negar-izardiz beteriko
iturriaren ur minkatzez?[b]

Egalak illun,
aulduta dagoz, itzalez iantziriko
irudi argalez.
Eta itzala da nagusi,
itzala nagusi
eta, besterik ez!

## UMEARENA**

Lorarik lora dabil
—Bai[a] inguma polita!—
lorarik lora dabil ama
eta, nik ezin arrapatu.

Ezin arrapatu
mitxeleta txuri-baltz ori!
Egoak ariñak,
ariñak dituz bai, ama!

Zelaiak udabarri usaia dauka,
udabarri usaia euki eta,
mitxeleta ori
eskua luzatuarren, egaka...

Neure inguruan,
neure aurretik egaka dabil
egaka, beti!
egoak ariñak.

Ariñak dituz bai, ama!
Gerturik daukat txapela,
baita txirtxirri kaiola...
baña, alegiñak egiñarren,

ezelan ezin arrapatu,
ezin arrapatu,
ene ama!
egoak ariñak.

Ariñak dituz bai, ama!
Eguzkia sartaldean
—bakarrik nago eta...—
sartaldean sartu baño len,
zergaitik etzatoz, ene ama,

zergaitik etzatoz
neuri laguntzen?
Egoak ariñak,
ariñak dituz bai, ama!

---

* *Bidean gora*, 134 *(C)*; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 44 *(B)*; Eguna 1 (1937, 44.zenb.) 4 *(A)*.
[a] Nastua *A* nastauta [b] Minkatzez *A* mingotzez.
** Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 48-49 *(B)*; Eguna 1 (1937, 49.zenb.) 6 *(A)*.
[a] Bai *A* Zein

## AGURRA*

Lillurazko maitasun ari ezea
ari ezea eten iakon-eta,
biotza osatzeko,
biotza osatzeko,
berentzat ludiak ezeukan
ludiak ezeukon
ez argi
ez itxaropenik... entzun dona
oi zu, bere maite?
Oldozkun illunean gogortuta
aren begiak euken ituntasuna!
Aizeak ibairantz
ibairantz sakatu eutson
eta urpeko zeruari begira
zeruari begira lilluraz lotu zan:
«Bai urpeko zeru,
ludi baltzau baño argiago
argiago izango zara-eta,
laztandu nagizu!».
Muštada baten urotsa
aizeak zabaldu eban oiuka
eta azkenengo bulbuladak
azkenengo bulbuladak euken
ludiarentzako
mait-ukatuaren agurra!

* Eguna 1 (1937, 52.zenb.) 2.

## UDARA GARAIAN...*

Eta zu,
eta, ni
baratzen geldi...
Orain,
zer esan zer?
Biotzean
itz bakar bat euki
ta, bera emon nai...
Oi, bai, bai
eskuak,
begiak zuzen onantz,
maite ori!

Idigi begiak
eta ikusi!

Ludiak daukon biotz-miña
udara-garaian!:
ortze ameskorra ostin,
lurra, eguzkitan gori...
Bai eder,
atsegin!...
Lora-artean, egaka,
zeren billa?
Zer ete nai?

Zenbat mitxeleta zuri,
zenbat izaki, maite-min,
munka, eskuetatik
igeska ioaken izpiari.

Ludiak daukon biotz-miña
udara-garaian!:

Artotzak musker-musker,
garitzak, ori;
solorik solo
pospoliñak kantari.
Bai eder,
atsegin!...

Eta, zu
eta, ni
baratzen geldi...
Orain,
zer esan zer?
Biotzean
itz bakar bat euki
ta, bera emon nai...
Oi, bai, bai
eskuak
begiak zuzen onantz
maite ori!

* Eguna 1 (1937, 86.zenb.) 2.

## OTSEIN ZORIONTSUAK*

*Arriaga'tar Jon Kisostome ereslari ospatsuaren oroiz*

Begiak zabal, biotz ernai, zerutar txori-antzo
eresi legunez, nok daikezan zeru-lurrak alkar;
Iainkotar[a] izpi argitsuenak atz garbiakin jaso
ta, alaitasunez[b] ludiko samin mingotz au estal!

Oi, ba'neki zer esan eta, begiak norantz zuzen,
ludia ba'dakust min, zauri gordiñez, odoletan...
Gorrotoz, ludia dagon itsu, gizadia kirten!
Odei baltzok ez ete[c] dauskue utziko baketan?

Bai ikuskizun negargarria gaurko gizadiarena:
ludi bat eriotzatik iges eta, beste bat erne-min...
Jaungoiko altsu, izaki oron egille zarana,
zerk[d] dabilz zerk, anaiak anaiakin ikusi-ezin?

Ludi, Ludi! Au alkar uler ezin zorotasuna;
Bastertuz Egi ta Eder azaltzeko idazkortza,
eskuetan dakust odol-ezpata, mingañetan biotza
ta, argi diztikorraren ordez jarrita illuna!

Baña ikusi-arren zulatuta ludiaren bularra,
ikusi-arren ainbat zoritxar, odolezko iturri,
ez naiz, ez, —zergaitik izan?— ain koldar eta bildurti
malkoakin ez'baita kentzen ez, biotzetako negarra.

Abestiz daukot[e] mingaña, maitetasunez biotza,
begiak eder-miñez, noranai daukodaz begira...
Orain ba'dator gogoz ain kutun dotan izarra[f],
oi, ez'litzake izango ez txikia nire poza!

Arren, egiak[g] garai dagidazan, Older, lagun maite,
indarra emon ta, olermena bizte egidazu;
ta, zuk, Nerbion-ertzan sorturiko ereslari trebe
donokitik, Eder'en otseintzat autu nagizu.

---

* Eguna 1 (1937, 136.zenb.) 4 (A); beste egunkari baten ere argitaratua (B).
[a] Iainkotar *A* Iainkotarri [b] alaitasunez *B* alaitasunek [c] ete *B* eta [d] zerk *B* zer [e] daukot *B* dauket [f] izarra *B* zarra.

Ibaizabal ertzetatik Sena ibai-ondoraño,
zenbat bider ereskiñez agertu zenduan biotza,
estalduz, goietatik beko sakonetaraño,
biotz itun, negartien alperrikako ai-otsa!

Zein atsegin, gozo iatan zure goitar eresia!
Oi, nok daikean, orpoz-orpo jarrai zure bizitza!
Zergaitik alde zintzan —ain gazte!— lurretik igeska,
agorturik jaio-barri zan ereskoi iturria?

Iltzer zorian, zure poz eta naigabe gorria:
donokira igo nai eta utzi-bearra ludia!
Maitagar! Maitagar! bere ogei urteko aragia
etzan estutu utzi baño len ludiko bizia?

Ai, bizi izan ba'litz[h], luzaroago ementxe, bizi,
zenbat eresi sortuko zituzan eta, idigi
zenbat ate, zenbat eskutu ager ta, bide-barri...!
Ai, bizi izan ba'zan, luzaroago ementxe, bizi!

Egunaro lanean, —otsein zoriontsu!— asper gabe,
bere bizitza laburrean emoskun erakutsi!
Zergaitik garaenok margozki eta idazkortz jabe,
Eder'entzat ezkara bere ekandu onakin, antzi?

Ernai, biotz ongilleok, ederti-zaleok, ernai:
izan gaitezen gorrotoaren eta illunaren etsai.
Etorri neurekin ta, ikus, (biotz-begiak zabal)
ainbat edertasun eta,bertaratzeko bitzabal...

Gauean illargiz eta, egunez eguzki argiz,
zenbat bide-zior aztertu daikeguzan urduri
eta, zenbat ipuin zar barriro gogora ekarri
sorgiñak eta dantza[n] ziran akelarrak ikusiz!

Ez larritu bizitz-bideetan negarra ba'daurkizu
atsegin iakuzan edertasun izpien gain.
Ekin gogoz lanari eta, azi onenak erein
izateko Eder'en baratzeko otsein zoriontsu.

---

[g] egiak *B* goiak [h] ba'litz *B* ba'zan.

Mendi-mendian daukazue txabola eta, artzain,
mendi-mendian aize mee, osasun, bakea, be, bai;
mendi-mendian ostiñago zerua, odeien-gain[i]...
Baña, artzaiak ezik, bertan bizi nok ete nai?

Berantzago, mendi-bizkar ta zelaietan banatuta,
basetxeak eguzki goritan dauken irriparra!
Zenbat arto-gari loran ta zenbat solo landuta
ereindako aziakin kentzeko neguko bildurra!

Ikus, soloan zut; lugiñak[j] atxurrari itz daragio,
auts-mamin biurtuz lur buru-gogorrak zinan sokil...
Ene aita, ene ama!: ni bere ez ete nintzan jaio
baserritar lugin? Basetxea[k] dagon bakar ta ixil!

Ikus itxasoan aizeak sorturiko ekaitza
ta, ur ostin-ganean jolasti dabillen bitsa;
entzun uiñek aitz-artean dabillen zalapart-otsa
bildur-ikaraz arrituz itxas-ondokoen biotza!

Zenbat edertasun-izpi eta, zenbat egi mardul
itzalari daikeguzan begi sakonakin lapur;
zenbat ortzi arakatu zenbat, itxaso eta lur,
argazki deunokin sendatzeko ainbat gogo aul!

Igo mendietara eta, mendiak baño gorago;
gero, gogoz, beko sakonetara geldiro amil.
Ta, orain sakonean, gero, odeiak baño gorago
Jaunak aziriko igaliak gizadiarentzat bil.

---

[i] odeien-gain *A* odein-gain [j] soloan zut; lugiñak *A* itxasoan aizeak sok [k] Basetxea *A* Basetxe.

## GURE IKURRINPEAN...*

Gure ikurrinpean mendi, mendi...
kemenez gogortuta, mendiak eta mendiak
len aundi, orain aundiagoak!
Odolez gorrituta ezpa'legoz
ezpa'legoz austuta, birrinduta
neke-izardiz iragiriko
ainbat erri —etxe eta ol—
itunez ezpa'legoz ainbat biotz...
Izadi berbizkunde,
urte giro, Loreil zoragarri onetan
Euzkadi litzaken eder
eder zoriontsu!
Baña arrano baltzak etorri ziran etorri
eriotzez zamatuta... Gure mendietako artzain,
arrantzale bulartsu, uri-baserritar
uri-baserritar langille beargin!
Nok zeure etxekoen
—ama, arreba, emazte—
nok zeure zoriona kendu dautzu?
Arrano balzak etorri ziran bai
eta, euzko lur garbian
illobi aundi bat, illobi aundi bat
nai eben jarri...
Oi, ene Lur Ama, ene Aberri maite,
ziñopa odolez aintzatua;
oroitz eztietan datorkidan
izandako lantegi, baratz gentzatsua!
Len. Oi, len!!
Orlegi ezean, geroari buruz
ene begiak zabal baño zabalago
—usoa bezin zoli lilluratuta ioiazan
itxas-ertzetatik mendietarantz
basetxerik basetxe
zelai-ibaiak igurtziz
estin sakonerantz...
Zer zan a begietan zoroki
biotzean agiri eskutuka
agiri ezkutuan ebilkidana?

* Gudari 1 (1937, 9.zenb.) [3].

Oi, ene nai, orain nai orokor,
ene min oñaze iturri bizi...
Egoak,
ametserako egoak, egoak euki-eta,
nai-ta ere ega,
ega ezin!

Basatikeri aundienak
ene begiakin bai'ditut ikusi... Oi,
esan al'balitzakez esan
biotz-begietatik marapillotuta
ganezka datorkidazan itz
ao beteko iturri...
Oi, ez euki bear une, ez euki bear
batera esateko almenik, ene!

Euzkotarren zugatz
zugatz donaren erri:
Suak iruntsitako etxe
kaleetatik igeska ioiazan
igeska ioiazan emakumak,
umetxu txiki, zar eta gazteak erailduta
egazkin izkilazkarrez ilotzik
luze-luze, bidertzetan nekuzan
eriotz arpegiak zurbil
lur baltz asegaitza biurtuz
odolez gorri!

Ikuskizun negargarria!
Tinko! Gudari!!
Mendi, mendi...
mendi gordiñak sutan,
erriak ziranak orain auts,
ludi gelduaren agiñetan.
«Ilgo zara ama,
ilgo zara zeu betiko?
Ez ama,
jarion biot neure odol au
lenago!

# 3
# GERRATE ONDOKO OLERKI BAKARRAK
# (c. 1937-1945)

## UDABARRI ALAIAN*

Udabarri alaian eder ta lirain,
biotz-egadun ezagutu aut begietan
maitasun aizetara, itxaropen gain,
amets eztienakin soilki, ametsetan.

Loreak diran pitxi eder! Ederrago
lats ondoko lizar orritsu, lerdena;
ire biotza izanez goikari ta uso,
gaztetasun bizi-iturri, gardena!

Ta, apalkiro, adats kirruaren urrez
begietako sugarra dona, doi-doian
biotz maitekorra agertuz irriparrez,
ezpan gorrietako marrubi odolean.

Oi, ire gerriaren ioera geldia!
Ointxoen auts gañeko iolas bizia!
Zeruratzeko... zein bide egokiago
gauz oro utziz iri iarraitzea baño?

Geroko biotz-bizibidez iantzia,
nai berezi bat dabil ire kolkoan
zorion-egarri otoitz beroz asia
iaunaren baratzetako lur betean.

Olerkariak nai-arren... Oi!, bai ete al
egokiro abestu bere goi-argietan
ta, ludian ire edertasuna zabal
neurtitz bizikor zintzo ta apaletan?

Egalak oztin-garbi, zeruarenak dira
laiño txuri-gorriz, eguzkitan eder...
Zerukari naukana iri begira,
milla otoitz iganduz amaika bider!

Oi, neska! I ete aut goramin, lerden,
neure baratzeko larrosatxu gorri,
esku zabalez ain ixiltsu, biozti
eskar bereziakin eder-apainduen?

---

* *Esk.* XXIII, 12-13 (c. 1937-1939?).

Itzak aoratuz pilpil, lillura bizian
txaloak goitu dira ikusle begian,
zenbat geiago ikus, geiago naian,
ire mosu-zai, amets bete-betean.

Ta, edermiñak erdi-txorabiatua,
aize epela dator ioka atean
bultzaka gora, maitetasun bizian,
argitara nairik bere ezkutua.

Zein biotz ete, zein bekoki zabal gazte,
oldozkun iruditsuakin, amesbera...
gaingora begikoz, eskurik eskura,
oi!, zein ete zein ire biotzaren iabe?

Ixo ezpanok! Iaso begiak goirantza,
ixillean gurtuz egiaren aztarna
ta, eio biotzaz biziaren ederkuna,
iarraituz bidean beti aurrerantza.

Garaitu bizia esku zabal maitez
eta, erein biotza lur mamin garbian,
erein aapaldi gozoetan ederrez
Iaungoikozko bizi, itxaropen betean!

## LIBE*

Udaberri alaian eder eta lirain,
egamiñez ezagutu aunat begietan,
goiz argiko eguratsez, etorri-gain,
maitegai eztiz gozoro amesetan.

Goizean loreak diran eder! Ederrago
lats ondoko lizar lerden ta gaztea,
ire biotza izanez askoz apainago
egun garbiaren kidetasunez betea.

Ta apalkiro adats luze dizdiratsuz,
begietako sua dabilna pilpillean,
biotz maitekorra goraka irripartuz
ezpan gorrietako marrubi odolean.

* *Esk*. XXIII, 162 (1940). Aurreko olerkiaren antzekoa, batzutan itzez itz bardiña.

O, ire gerriaren zirkin zoragarria!
Ire oin ariñen ibilte gelgarria!
Zeruratzeko... O, zein bide egokiago
gauz oro utziaz iri iarraitzea baiño?

Muxu eskeintzarik gogotsuenez iantzia,
nai berezi bat dagerna ire kolkoan
zorion-egarrizko otoitz beroz azia
ain agiria den maitezko zuztarrean.

Olerkariak nai izanarren... bai ote al
egokiro abestu bere goi-argietan
ta, ludian edertasuna zabal
biotzezko neurtitz goigarri ta apaletan?

Egalak txuri-oztin, zeruarenak dira
odei zuri-gorriz eguzkipean eder,
ire itzalari laztankiro begira
bein eta berriz igana, amaika bider!...

O, Libe! I ote auguna... —Eme lerden—!
euskal baratzako larrosa ikusgarri,
arima zabalez ain goitar ta gurgarri
ontasunik ederrenakin apainduen?

Itzak aoratuz pilpil, esan-nai bizian,
txaloak iagi dira bai ikusle begian,
zenbat geiago ikus, geiago naiean,
itzerditxo baten itxaropen betean...

Ta edermin maitagarriz txorabiatua,
aize bigun bat ari zait ioka atean,
bultzada ariñezko ikutu bizian,
agertu nairik biotz barrengo ezkutua...

O, zein ote, zein bekoki zabal, zein gazte,
oldozkun iorantsuenakin bere-berean...
zein ote zein, zein gazte ta bene-benetan,
zein ire itz gurenaren, biotzaren iabe?

Idi ezpanok, zuzen begiak ederrerantz,
ixil sakonaren argiune zabalerantz!

## ITZ ARGIKORREZKO*

Itz argikorrezko
arnas bizi,
egiazkorrez;
zernaitarako
bear degun
egokitasun
ta, sugarrez,
gogairik argienakin
biotzez
irarri nai nituzke
bideberako
iasokun,
ikuste,
ibilliak...

Izate ororen
gauz eder ta ontan
berezitasunezko
bizi-oñarriak
betikoz iantzi
ta, iraun-aziz...

Bidegarritu nai nituzke
eta, biotz-arimaz bete,
bakoitzaren gatz
ta, piperrez,
izneurtuzko
lokarri sendo
ari berriakin:
lurra lurrekoz
ta, itxasoa itxasoaren
uin ta bitsez
ta, aizea...
goibideetako egonezin
ta, eguratsez.

Bakoitza
bere gogo ta gogakera,
bere soinekoz;
bakoitza,
bere izendun izan,
bere margo
ta, apainduraz,
egiazko giartasun
egokienaz.

Baña tamalez, bai,
igesi doakidaz
eziñaren eziñez
ta itzalik itzal,
igesi doakidaz bai,
iausi ta eroriz
orbelak bezela,
udazkenaren biotzean!

* *Esk.* XXIII, 163 (c. 1945?).

# II
# 1962-1970
# Olerti
# (Zeruko Argia)
# «Bidean gora»

**1962**

## GIZONAREN ITZAK*

Itza da gizonaren argi, gogamena,
adimen zuzpertzallearen, ats biziaren
zentzu ta biotz-bidezko iturriaren
ur garden, laguntzallerik bikañena.

Aizean zabal, betiraunezko egoz,
ogibidez, gezurbidez, bizibidez:
uste, iritzi, izan ta izatekoz,
betiko erabide, betiko ametsez...

Narratz, zital, gogor, aundikiro, ixil,
eder, itxusi, labur, urduri, goitsu;
or dator apal, garbi, sendo, bipil
edo illun, makal, beerati, beartsu...

Itzak ta itzak bere ioan-etorriz,
aldean alde doaz betiko ariz,
argiaren jarrai, illunaren zauriz,
betiko negar-malko ta amets biziz...

Itxasoko ontzibide bazterretan,
lantegietako ke ta, makina otsez,
nekazaritzazko lanbide nekezez,
lurbirako ekin, ibilli guztietan.

Itzak goiberaka, or doaz bakoitzez:
uso ego baldar, zerbaiten zerbaitez;
batzuk laztan, besteak ezten zorrotzez,
bakoitzaren izan-giro, gogalbidez.

---

* *Esk.* XXIII, 168-169 (c. 1962?).

Maldan gora, maldan beera, bizibearrez...
itz eder, aditsu, ongarri, maitekor,
itz ioran, iakintsu, itz aztun, izukor,
itzak ta itzak, esan-mesan lasterrez!

Negar-parrezko izate-gurpillean,
gau-egunez... or doaz bai, illun-argiz,
ekite nabarmen edo ixillean,
bakoitzaren ioan-etorri ta zoriz.

Itz lasai, zabal, itz ergel, zikin, zatar,
itz ustel, loi, mengel, itz gordin, berunak;
itz zokotsu, itz arro, itz ero, baldar,
itz lotsagaldu, itz ozen, itz illunak.

Millaka itz otz-bera, milla bizigai
aoz-belarri, ikus-mintzaz, ari bidez...
or doaz bai arin, bakoitzaren aizez,
gorrotoz beteak edo biotzez alai.

Eriozko ertzi, zerupez... bai, or doaz
gudaren negar-ots bizi ta, odolez
edo, dantza alai ta maitasun opaz,
bakoitzaren iokera ta itzalez.

Batzuk aingerukor, besteak inpernuz,
mintza bezin laster edatzen dira bai,
batzuk argiro, besteak itun, deslai,
biotzak gogoz alkartu edo zaurituz.

Odol itzak, irri itzak, maite itzak...
berein zoriren emai ta bioztasunak,
lagunak uxa, ondoratzen dituztenak,
sortuaziz goiz argi eder ta ekaitzak.

Itz suge, itz estalkor, itz irriztakor,
itz bidetsu, itz berri-zale, itz bero,
itz aidekor, itz sakon, maiteberakor,
ta ainbeste itz zuri, nastu, itz ero!

Itzak ta itzak zabaldura betean...
itxasoz, lurpez, aidez, ariak etenez...;
or doaz gurari ta amets utsean...
bizi ta eriotzazko goibetasunez.

Aidean aide, poz ta goi-argizko
itz ezti, itz laztan, samur, izartuak;
aidean loikerizko ta bekaitzezko
itz errukarri, itz ergel kakaztuak.

Ekaitz zaratatsuaren abots ozenez,
batzuk aize gangar arroan ollartuak;
besteak, biotz egadatan usotuak,
goi ikutuzko edergai zabalenez...

Itzak ta itzak... batzuk argi bizian,
etorri onbidetuaren ederkari...
besteak, itxitura illun, gorrian,
lausotasun okerraren eletari!!

## ARTOAK*

Artoak,
iñar loretsuz untzatuak,
gara zurizkaz musker.
Gazteak,
besoz-beso alkartuak
amesbera... zein eder!
Oro ioake gañezka
pozkariozko urbegiz,
biozbera... izatekotan,
izan!
Begiak begietera
eta,
eskuak usu,
marrubi ezpanez
eskeñiz... Oi, Jauna!
Zer eskeñi ez odol bizian
goiak-goi
alkar bearrezko ibilpide
eder,
amesketa zoragarrian?
Oi! zer eskeñi ez zer
amets-katez alkartuak
begirik-begi,
ain dotore
eta,
ain usu!
Eder-gosez itsutuak
biozkoi,
eskurik esku,
ixil-mixil eztitsuz
aorik-ao
zerurik berezienak
aukeratuz?
Zer eskeñi ez... Oi, biotz!
—bein eta berriz—
udaberri goizean,
aize-boladatan egaz
dardara bizian
eta,
maite-ikaraz?
Larrosazko bideak dira bai,
gozoro, nun-nai,
biotzian sustartuak:
ezpan urdurietan
izkuntza emez,
otoika,
arrenka...
ikusge diran mundu berriak...
eskari zoragarriz sortuz
oiñik oin,
egakada bakoitzean, alai,
gorputz eta, ariman biziz!

## TXORIAKIN BAT...**

Oi, bai
zugatzak berriz ere
neguari iges,
bizitzara datorz goraka
gurari emez,
gurari biziz
orriz-orri,
xurrumur gozoan
aize epelean
egaka
txoriakin bat!

* Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 8-9.
** Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 9-10.

Bizitzara datorz bai
maite-min,
ostoz-osto
alkar-joka ederrez
arro,
eta,
kantari...
Bizitzara datorz bai,
bat-batean, alai,
biotzak taupaka
ele ezezaunez,
aopekotan
zeru billa,
txoriakin bat.
Eta, ametsak eralgiz
erroz-erro,
intzirika
bizitzara datorz bai,
bizi-min betean
lurrari tenka
aizeari amore,
eden-gosez
adarrik-adar alai
odeiakin
artu-emanetan, goi!
Eta, lur illunean
lur gogorrean
bizitzara esnatuz,
eguzkiaren indar
eta,
eguzkiaren graziz,
udaberriko arnas goriz
odola berpiztuz
bizitzara datorz bai
santzoka,
adarretan gora ernai
aize billa
aize billa eta,
maitetasun eske
eskuz-esku
txoriakin bat!

## IRE ESKU TXURI...*

Ire esku txuri mintzakor billa
atz biziok negar sotinka dabiltaz,
amaika aldiz gurari bizienaz
biotzeratuz ire begien ixilla.

Baiña, a! gure oiñok bidean alkar
nai lotsakorrez uxatuz ain tentel,
bildur-ikaraz dabiltza bai, baldar,
naitere alkarrengana ezin el.

Ai, biotz ene! Oa beingoz bidera
bildur eta eragozpenok ezetsiz,
muxuz-muxu ao-betez esatera...

Oa, bai amaika mundu eder ausnartuz,
kemen adoretsuz, larrosa bitxiz...
Oa, eskuz-esku, bildurra uxatuz!

---

* Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 11.

## BASERRIRA DEI*

Sagar madari umaoz ale gorriz iantzia,
baserria kiñuka iabik ire begietan,
labarto barri usañez urun orizkia
esne kipurratsuz urre, morokil eztietan...

Amets samur ori eure begiakin igurtziz
etor enera beingoz, neure adizkide min,
etor lenbait-len uritar aizea itzaliz,
mendiko gentz neketsua izanez atsegin.

Mai txikerrean eskuz esku alkarrekin
jaunkiro artuko aut soloetako emoitzaz
egiaren ahapaldi garratz gazi-gozoakin
ametsak eralgiz uste bako galbaiaz.

Basetxia zelai berdeetan soilki gordea
neskatx panpoxa kolore gorria irudi
gora bearrez urduri otoika bialduz kea
gau-bidez etortzeko dan izarño maiteari.

Sar eta ikusi! nola Eguzki kiskalez
aize meak gorapean leunkiro bildua
goi-bearrez mardul bizimin muskerrez
arto-gariei sorgor darion lurrin gozoa.

Ikus! Laztan-egarriz agurka Eguzkiari
zein eder!, intz tantoak belardietan dantzari!...
I ere olaxe ez aiz ibiltzen ametsetan
biotza aoratuz pilpil maiteñoaren begietan?

Eguzkik nola igo geroago t'aundiagotzen
or iatozak iraduz aizepean alaiki
solorik solo begiz abiak aukeratzen
lillura-berrietan pospoliñak kantari...

Aberastasun ugariz mendiño bizkarrian
au dok ire amespean gogoko baserri.
Orriak sortutako izkuntz maitagarrian
durundi goxoz atsegintoki ikusgarri!

---

* Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 12-14.

Baña amets-arloko zunetzetan ezarria
geldi egoteko ez aut ekarri, ene lagun.
Ikasi emen nola emoten dan izardia
lurra laztanduz eta maitekiro emonaz mun.

Nekearen berririk etxakik ez nasai-nasai
txol-artean jaun txokorrez bizi oi-danak;
berakautan gauz oro diralakuan egiñak
aukeraz iabik lauskituz amaika bizi-gai...

Lendabizi goizekoz tori! izardiaren
lan-sari, esne-beiaren erro marduletan
eskuz eratsia —edur-antzo— murgilletan
laukoitz iturriaren edari apartsu garden.

Eutsok ba! Au egi eder! Goiz-Argi arnasaz
talo biribil-mearen kirru-orizta beroa
koipetsuka ianen lukainka eta, urdaiez
ok egiñaz ia betetzen ioagun kolkoa.

Gero burdi kirrinkariz bideak agurtuz
garoa erakutsiko aut zegapean narrez
goiak jo-arteko burkada mamintsu biurtuz
azpigar ongarri onena ukullu bidez.

Etor alorrera: ementxe dakuskek eurez
ereindakoa ernemiñez goiruntza beti
aizepean orriz-orri zorgin dantzaketaz
etorkizunaren eskeintz-betea irudi...

Atxurra ere eskuratu sokillak austuz,
jorra mamiñean eiñago eta naiago,
lur leorra sekulakoz maitekiro astinduz
ia pozez loratzen iakuzan biotzerago.

Agurtu basoak, ibilli zeazkiro noranai
arazoai aurrea artuz begi zorrotzez,
soloetako landare egazti ta abereai
berea emonaz ziur eguneroko lorrez.

Gogo-neurriz azkatasun ederrez bizia,
baserri lanak ez iaukek ez, ordu jarririk.
Gentz atsegiñaren soñeko apaleez iantzia
lugiñak eguzkiz ez iaukok gabeukatz[a] bearrik.

---

[a] *Olerti-n* gaubeka

Jatordu bakoitza otoi zerutarrez asiz
eguzkirik eguzkira egunak amai,
sendi-buru, aitonatxo zarrak ipuñai
agurtza-deun ostean txaloak irabaziz.

Loa, buru-makur kukulumutxu sukaldean,
jabetu da gozoro etxeko guztiakin,
izarrak argi-dizditsuz zeruko bidean
albiste berriak biotzeratuz loarekin.

Baiña, urira... Oi! berriz itzuli baño len
ikasi, mendiko zelai eta, aitz-arteetan
bai udaldi pozkor ta, negute gorrietan,
giro guztien aizez, esku txuriak legortzen!

## ILLARGIA...*

Illargia illargi zanean...
Igetargi betia edermin!
Ene amonaren babespean
baikor zan guztia, guztia sorgin!

Unero bizia soiñeratuz,
bide oro elkor zirudin,
gogoari ega-arazituz
zeru guztiak oztin-oztin.

Goizak argi-argi zetorzan,
gau baltzak ere ez illun,
nun zalapart eta nun txuntxun,
oiñak arin, aidean zebiltzan.

Txikia nintzan txiki-txikia,
ume ikusgure ipurtarin,
amonaren eskuz ibillia
ipui ezti gazi-gozoakin.

Bere esaera eder gozoak!
aolko ezti samurrez erein
eta, izarrik izar, jakin-min
nik maitez, altzoan ikasiak.

Ta amets egoetan bidezkari
lamiña sorgin ipuñakin
larrez larre, eta, odei gain
ibilli nindun bai ikarati.

Eta, gero!... Zenbatzu zergaiti
dana aztertu, dana ikus-nai,
beti galderaka ta, izuti,
beti bai eske, erantzun zai.

Oi! bidez-bide ibilliz... zenbatzu
ibil ninduzun zerurik zeru,
bai «mamu» eta, «gona-gorritxuz»
amaika egun eder gatzituz!

Arrezkeroz bai zurekin nazu,
ametsez goi-bideetan barne,
nereagotuz sakon eta, sutsu,
ai! Izadiaren edertasuna.

* Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 15-16.

## ADAR BILLUTSETAN...*

Ai! adar billutsetan aize-ikaraz
orri bakanak daude il-bearrez dardar
ta, txindorrak ere etxe bidea dakar
salto-saltoka eta, txioka egabera...

Negu-aurrean, ozkor, Izadia datza,
dana erdi-lo, dana minbera, iger.
Ta, uluz, aienaka Azilla'k dager
bizitzaren gora-bera, aldakuntza.

Orratio lugiñak eskupean apal
lurrari damaio garia ereiñez
ogia artzeko yasa... Ta, lau egal

soloarenak atxurka jasoaz, garbi,
lurrak zanetan darama ernemiñez,
etorkizunaren emaitz alebizi...

## ARTO SORTU-BERRIZ...**

Arto sortu-berriz iantziak, eskeinkor,
gure soloak... zein musker, eze, gordin!,
bizi-miñez zut, eguzkipean sorgor,
aizean zabal edatuz bere lurrin...

Giroaren eder alai, eta txukuna,
mintzo eztiz goramiñez, Udaberria!
Eta, ze gurari ze maitetasuna,
lore eskeintz emez eskuratuz bizia!

Ega ba, biotzok ega, zeruetara goi
edermin betian ta, pozaren pozez,
ega kantari, alai, ta gogo onez

landaretxo kutun bat biotzian sortuz
ega!, ega betikotasun elburuz
lore eder biurtuz zerutar amets-oi!

---

* Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 16.
** Olerti 4 (1962, 3-4.zenb.) 17.

# 1963

## NEGUAK ALDEGIÑAZ BATERA*

### I

Neguak aldegiñaz batera
bizia dator gañezka, egan,
ibar, soro, zelaietan gora,
ezetasun eme, gartsuz,
orriz-orri, abaroz aurrera
eriotza garaituz,
eguzki epelaren altzoan
biziari agurka,
edertza betean
eskurik-eskura,
biotzak zantzoka, pilpil, aoratuz
anima guztia!

Ta, zerubide zabal-zabal bat
iriki da gauetik goizera,
nortasun bizian
biotzerantz daraman bide alai,
maitasun-elburuzko
elkarmin, itxaropen aundia...
argi bigunezko
gaztetasun bide,
pozez beteriko
ego zeruratze!

Ta, mitxeletak, millaka egaz
lorerik-lorezko ametsetan
jabetu dira bai, lurriñakaz,
eta, txoriak mokoka, aurrez,
goiztari dabiltz kabi-lorretan,
urretxindor dei, abots eztira,
eguzki epel gozo-gozotan...,

marti zozoa dala kantari
azkarrena bide bazterretan!

### II

O[a], ze egaztadak
argi bigunez, goiz ezean,
amets ta, lillura bizian
egaletan gora,
itxaropena dakarten bide
eder, pozgarriak!

Ta, bizitz doñura
unerik unerako arloan,
bai[b] goratze sakonez beteak,
jainkozko betean...
O[c], bai biozkada zoragarriak!

---

* *Bidean gora*, 113-114 *(B)*; Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 36-37 *(A)*.
[a] O *A* Oi [b] Bai *A* ze [c] O *A* Oi.

## GUTXIEN USTE ZANEAN*

Gutxien uste zanean
itz gozo baten bitartez,
biotzak loretu ziran
irripar emez.

Eskuak igurdika
bata-bestearen pozez...
zenbat laztan agiri ziran
ezbaika,
begi-ninietan iges,
zenbat eskeintza
urrezko opariakin,
illargi, izarretan gora,
zerurik-zeru..., amets!

Eta, ezpanik-ezpan,
biotz-ikara bizian,
maitasun estalkiz bildua,
udaberri eze, iantzian,
(betikotasun egarriz)
mundu guztia alai neregana,
mundu guztia pozkiro...
ze pozkiro etorri zan
biotzean sustartua,
aopekotan!

Bideak-bide ibilliz,
emaitza betean alaitasuna,
lore bitxiz, apain, narrez...
lurrinkai gozuakin
dana zan eder,
dana irriparre!

O[a], ze goizak,
ze arratsak alkarrekin...
alkarrekin alkar,
eskuz-esku,
biotzik-biotzera,
Iaungoikoa bitarte!

Ernemin, ezez iantzia
begiarte zoragarrietan
eta, ixil-eleketa samurrez,
mundu guztia zan baikor,
onura zerutarrez betia
biotzetan barna, egakor,
gauzarik ederrenakin
artu-eman bioztietan...
mundu guztia nerea zan,
nerea ta zure... biak batean!

O[a], ze goizak,
ze arratsak alkarrekin,
alkarrekin alkar,
gogoz-gogo,
Iaungoikoa bitarte!

## UDABERRI GOIZEAN**

Udaberri goizean
abar-arteko aize legunez
txorien ego-ots bizi
eta, lorerik lore,
inguma eta erleak,
bideetan itxaropena
begietara zekarren,
zorionezko iturri,
emai zerutsuz bete,
eta, ederraren ederrez,
biotzak aberastuz.

---

* *Bidean Gora*, 96-97 *(B)*; Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 38-39 *(A)*.
[a] O *A* Oi.
** Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 39-40.

Baita, nere atz bizietan,
ainbeste itz eder, sortu berri,
ernemin, egaka zeuden,
zure biotz maitean
sustartzeko gosez.
Eta, zu ziñan dana;
nere itz, nere abesti,
zu ziñan biziaren poz,
eguzki goitiar, sutsu,
eta, nere illargi;
zuri begira noiz neretuko
zuri biotz-begi eta irriparre,
gero nerea zuretuz,
pozik aundienarekin
betiko jabetuz!

## EGUZKI GOIZTARRARAREN GOZOTASUNEZ*

### I

Eguzki goiztarraren gozotasunez,
gau intz, garoaren besoetan,
lurra berotuz dator goiza,
argi-dizdira zerutarrez...
ego ots eta surrumur eztiz,
biziaren artu-emanetan,
bizia edertu eta, goretsiz,
maitezko lor berriketan,
gora-miñezko biotz-katez...

Eta, zelaiak
lorez diran bitartean;
eta, basoak,
itzal gozozko estalpe...
ixil-giro, une eztietan,
bare-bare,
alaia dator aize-artean,
durundi gozoz, izkutatua,
Jaunaren Magalpean narrez,
ederraren edertasunez
dotoretua,
gaztetasunezko odolez.

Oi, ze bideak eta ze zeruak,
begipean bizi, ikusgarri,
argiz beteak,
lore-bitxiz apain eta, eme!

Eta, ala ere,
bizidun bizi
eta landare,
zerbaiten eske,
egarriz daude.

* Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 40-42.

II

Lillurazko bideak dira bai,
eskeintza betean, deadarrez,
banaka eta, arloz,
bakoitzak bere ametsakin
bere estura,
ta, bere poz,
oñazeakin itun edo alai,
biotzik biotzera
amesbera,
eskua luzatuz datoztenak
esku bearrez!
Eta, egarbera,
bideetan barna doa bizia,
beti zantzoka,
zan-min bete-betean,
landare arterañoko
muin, sustarño,
bizidun guzti-guztia,
goraka, aupadaz,
jantzi berri diran
txorikumetxoak bezela,
lendabiziko bildur ikaraz,
lendabiziko kezka arduraz,
luma bigunakin
oztaz-oztaz,
abar-arteko kabi gozoetan,
—utsune bete eziñez—
betiko epeltasuna utziz...
egoz-ego,
aidean aide
ain usu eta eme,
beste kabi eder baten ametsez!

## ETA EGO-AIZE EPEL ARTEAN...*

*Aita Onaindia'ri*
*adizkidetasun sendagarritzat, biotz-biotzez*

Eta ego-aize epel artean,
gau intzaren dizdiratze bustian...
Oi, ze bigun, ze gozoro ta eder
bizia... ze ameskor datorren bai,
lore-biotz kukullutxoetan sormin
eta, eguzkiaren altzoan santzoka,
arrigarrizko emai pozkorretan,
udaberri-ikutuzko durundiz!

Ortze sakon garbietan, laño gabe
gorakunde zerutar, usai emez,
ta, itxaropen arloetan kantari,
izaki txiki, nimiñoenak ere
egoak arro, goitu dira lasterrez,
argi billa ta, maite-muxuketan
bizian sustartuak, eder-goraka,
mirarizko erditze lerdenetan
bizimin intziriz, ezean narrez.

* *Bidean gora*, 60-61 *(B)*; Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 43-44 *(A)*.

Eta, Iaungoikoa dabil ego ikaraz
zelaietan gora, belar ta lorez,
zugatz adarretan barneratua
eskuz-eskuzko izketa gozoetan
biotz-animak, ederrez sakonduz
Iaungoikoa dabil bideratua,
maitetasuna erein ta zabalduz
biziaren gorasarre ta omenez.
Au bidearen ederbide egakor,
bide ibilgarri eta, sakona!

Iaungoikoaren egi ta biotz-eskuz...
zenbatzu izar ta, zenbatzu argi,
zenbatzu lore-bitxi ikusgarri,
goratze bizian datorz bizira,
ezetasun urduriz, goi, egaka
maite-jariozko emaitza betean,
pausu bakoitzean biotza alaituz.
Ai! Baña bizian, unerik une,
bizian eta, egunaren bidez...
biotz esku urdurietan dantzari,
odolaren goramin eta pozez,
eztakigu une geroaren berri,
eztakigu egunak zer dakarren
lore-bitxi eta santzo artean
bere muin, ezkutu ixillean...
eztakigu zer mirari, zer alatz,
zer oñaze zer itun gerta leiken,
eztakigu, biziak zer bizineurri
ta, noiz arteko baimena dakarren.

O, ene Goiko Iaun eta Iauna,
ibil nazu beti Zure Eskutik
ibil nazu beti Zure Bidetik[a],
biziaren goraberatan ta maitez,
bere arantza zorrotz, bere[b] lorez...
—Argi ta Garbi... O, ene Iauna!:
Ibil nazu bai, beti-beti Zeurez,
Zeure biotz magalpean narrez!

## GAU ARGI ZERUTSU BATEAN...*

### I

Gau argi, zerutsu batean,
nere gogozko egote biziz,
begiak zuzenduz goi-gora,
arkitu nintzan zerua dan ederrez,
bere izar eta, illargi,
bere egadun edoi[a] txuri-gorriz,
bere goi argi, dizdikera,
zerutar emaitza pozgarriz,
benetan bai, lilluragarri!

Arkitu mintzan urduritasun lorez,
amaigabeko sakontasunean,
gaudi loretsuan eortzia,
nere eder-nekezko bakartadean
nere biotzaren tristura
eta, bizimin betiraungarria
argi gose eta, egarria...
gogoaren egakada epeletan,
negar-ixillezko intziriz
begietan, biozbera adieraziz.
Eta, nere gogo, nere anima,
nere gurari eta amets dana...,
zeru-lurraen soñekoz iantzi da,
bizitzara narrezka edatua,
bizitzara egarriz bideratua,
eriotzaren laño-dardaraz
eriotzaren bildur-ikaraz,
bizikari bizi... amurratua!

---

[a] Bidetik *A* Eskutik [b] Bere *A* eta.
* *Bidean gora*, 62-64 *(B)*; Olerti 5 (1963, 1-2.zenb.) 45-47 *(A)*.
[a] Edoi *A* laiño

## II

Eta, alik eder biotzeren...,
goibeak biotz-animaratuz,
(bizia baita danetan ederren!)
biziaren muina eskuratuz,
bizia nai nuke osasunez bizi
—apal eta Iaungoikoti—.
Bere goitiar-ikutuz,
nere biotz illa, indar-gorituz!

Ai! bai, aundi, sakonak dira
goietan altsu, zeruetako bideak;
gogoarentzat ain eskuera
eta, ala ere... ain urruti!,
betiratasun-argiz beteak,
ain eder eta, ikusgarri!

Baña nere oñak lurrean dagoz
—lurkeri beltz-illunez bete
eta, zabarkeriz, lañoz[b]...—.
Goiruntza nai eta, zirkinge,
lurraren gerriari lotuak[c]
nere izakera, nere bizia
lurraren aragian sustartuak![d]

Eta, lur gaineko bide ezean
arkitu naiz bai, zugatz-lurrin,
eta, landare guri, lerdenakin,
eder-goratze ikutugarrian...
Ibai arinkari baten ur mean,
berriro ere zeruetan igeri...,
berriro ere goiari begira...
(buruz-bera, uretan zerutua,
ispillu gardenean, ikustari,
goramin ibilgarriz berpiztua
anima guztia, gereka[e], igesi...).

## III

Olaxe... xurrumur egati, gogoz
lizar-azpiko urez, ibaibera...,
biotz-egoak naramate gogoz,
arraitxo bat bezelaxe, urbera,
zugatz biziz iantziriko zeruan...
(pizti kantari, bizidun artean)
bere izar eta illargiarekin,
bere laño txuri-gorriakin
ametsak eralgiz biotz-bera...
(nere zerutxo guztiakin batera)
itxasorako bide egaztarian,
ase eziñezko Iainko-egarriz,
urbide gurenetan gorabera,
ontzikari naramate, betira,
erortz-bildur-ikara dardaratiz!

---

[b] Zabarkeriz, lañoz *A* illunkeriz iantzia [c] Lotuak *A* lotua [d] Sustartuak *A* sustartua [e] Gereka *BA* nereka

## ETA, OLAXE BIDEAN GORA*

Eta, olaxe bidean gora,
nekezko bidean beti aurrerantza,
biotz zauritu, arima mindua
aldapa gora, gau otzaren bildur,
elur-aize minberaz,
arantza artean arnaska
eguzki tantorik gabe,
zauri gorrian dana
arima eta ezur!

Eta, lurraren biotz gerria
nere begipean, oñazez,
billutsik dago negar betean,
gogo nekatuaren sustarretan
amets itun beltzenetan,
alarauka dago negarrez
illuntze tristurati,
illuntze beltzean.

Eta, gora noa, aldaz gora,
(gorputz guztia minbera)
tontorreratzeko ametsez,
aurrera noa itxaropenez
arantza arteko larrosa
eta, izar baten pozera,
mendi gañeratuz... gero...
beste zerudi, beste egun berri,
beste argi baten deira
bizitzeko pozez!

## AUTS ARTERA ERORIZ**

Auts artera eroriz
lurrera datozen orbelakin batera,
gogoa dabil geromin, intziriz,
galdera beltzetan ausnar,
biziaren beeratze bildurgarrian
laño artean, Jaungoiko billa,
ikara bizi-bizian.

Barnean izkutu, biozti,
ederrezko apain, artu-emanetan,
gogo-eiaran egaka dabiltzan
ainbeste maitasun bizi,
ainbeste laztan gozo,
ainbeste amets bero,
eta muxu-dardara egati...
Begi-ninietan gora,
ainbeste zorion-iturri,
ainbeste itxaropen pozgarri...
Eriotzaren itzal, autsa,
ai!, besterik ez ote da?

Autsa[a], autsa ote nere biotzean
sustartu zan abotsaren eztia?
Autsa zure begien irriparre,
zure esku txurik dakarten poza,
autsa, dan-dana... nere animara
argi-dizdiraz iritzi ziran
zure gogoaren biotz dardara,
itz betikorretan, alkar-miñean,
zeruratu zan maitasunaren
eta, laztan guztien goi sakona?

---

* *Bidean gora*, 72; Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 36.
** *Bidean gora* 71 *(B)*; Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 37 *(A)*.
[a] Autsa *A* Eta

## ANGELUS*

Eta, erriko kanpai otsera,
basetxe bazterrean, apal...
Angelus!
Angelus paketsu!
Angelus pozgarri!

O, bai une aingerutar,
onbidezko zerutar ordu,
arimazko bizi!
Arrats-beeratze begikoz
gaua etorkeran,
txapela erantziz
etxera bidean...

Zein ederra dan
otoiaren lurtar,
biotz-zeruratze
Iaungoikogarri!

Illargiaren etorrera argiz
etorrera epel zerutsuz
eta, bere itzal gozoz,
ederrak nauka beretua
biotz eta gogoz...
Iaungoikotasun ikutuz
aragiaren ikara gorria,
ta, artegatasun bizia
otoi apalez,
biotzetik baztertuz.

O, unetxoaren-une,
une zerugarri!
Arimazko bide,
nai betiraungarri!
Angelus paketsu!
Angelus ongarri!
Atozte olaxe...
bai, olaxe beti.

Pentsamentu argi eta garbiz,
atozte goibidez,
atozte, nerekin nerera,
aragi sua itzaliz.
Atozte biotzera
Iaungoikotasun lurriñez,
nereki biziz...
atozte goitasun paketsuan,
—unetxo batez badere—
atozte, zerutar pozez,
soñeko berri urdiñez
ta, apaindura egokiz,
izar-lorezko argidian
atozte, ai!, nere bizi
eta nere izatera,
zikinkeri danak lurperatuz,
eratsi eta baztertuz...
Atozte Iaungoikoz
edertasun betean,
atozte, izar-dizdiratze
anima bizien doñura,
—unetxo batez badere—
atozte, bai, nerera!

Gaur bezelaxe, atozte,
atozte bai, betikoz...
Angelus!
Angelus paketsu!
Angelus ongarri!

---

* *Bidean gora*, 73-74; Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 38-39.

## GOIZA...*

Goiza dator txintalari,
udaberri usañez
egaka eta narrez
bideak betian
dantza-dantzari...

Oi, zein eder,
zein eder datozen bai
txoriak eta txori
goiak-goi,
inguma eta abar,
bizimiñez adarrik adar
ezetasun goriz,
zeruetako ametsez
egunakin bat,
goizian goiz!

Ego-otsian datoz egaka,
egun sentiz biziro, alai
gora-goraka, saltari,
saltari eta maite-miñez
biziaren pozez,
izatekotan, izan!

Ai, ze bide ederrak bidez-bide,
berdiaren berdez,
biotzik biotzera,
eder-min, lorez,
ain usu eta erle!
Izaki guztiak danak-batean,
bultza-bultzaka,
alkarren lei, pozez,
bizia dator bizitzara, goi,
barne-muinetan sutsu,
bai azal eta mamiz,
izatekotan, izan!

Alde guztietan tente,
maite-mizkeriz,
argi lapurketan
goiak-goi,
amesbera betean...

Illargia agurtuz,
bizia dator gañezka,
saltoka, argi-gose,
eta, nabarmen,
txoriakin bat
inguma eder politakin
lorez-lore,
zenbatzu egadun lili!

Biotzik biotzera
egoak zabal,
txinta abar-otsean, egaz...,
bizitzara datorz kantari
kabi lorretan lor,
neke pozkorrez
lurra zeruratzeko asmoz!

Ze lorketa zoragarri
goiberatze bedeinkatu;
aidean aide,
mokoz-moko,
maite begiratze bakoitzean,
mundu berriak sortu
eta, egaraziz!

Eta, bizi-bizi,
mundu oiek argi-dizdiraz,
minbera eta ezti,
goraka eta narrez,
gure aurrian daude ernai,
biziari amore,
biziari eskeinka...
eskeinka eta, eske!:

* Olerti 5 (1963, 3-4.zenb.) 40-42.

zeru-lurretan gora,
xurrumur gozoz,
arnaska, urduri...
bideak aukeratuz,
bideak iriki ta zabalduz,
neke pozkorrez
bizitzara datoz deika
deika eta zai,

besarkada aundi batean,
zeruakin lurra
biozkiro alkartuz,
izan-min betian
izatekotan..., izan!

Belarrak ere
ikusmin berdez, adi-adi,
adi-adi jarri dira
intz-tantoakin dantzari;
dantzari eta tente,
goietara begira,
odeiakin ameslari.

Eta, olaxe,
bidez-bide,
goraka dator bizia arloz,
dei eta, atozte,
txinta, eresi beroz,
zerbaiten gurari,
zerbaiten egarri...
egoz-ego,
mokoz-moko,
bata-bestearen poz,
bata-bestearen nai...:
dana larrosa, dana lore,
geroa zer dan, zer eztan,
maite-lilluraz,
biarko pentsamentu gabe!

# 1964

## BAI BIDEZKAZ ETA BIDEZ BIDE*

Bai bidezkaz eta bidez bide
bizitzan gora ametsak nabilte;
emen erori, an burua iaso
neurtuz dana, zelai ta baso...

Arru, ertz sakonetan goitua
eta, gero izar urdiñetan;
amets ta itxaropen egoetan
ederbera naukate galdua.

Olaxe, irudi egatietan
aizean dabil ni naizana;
nere gogo, biotz egaletan
argimin, ikaraz ni dan-dana...

## GAU-ERESIA**

### I

Aize bigun ezearen egoetan
udako gau argitsuz
ta, zeruetako bidez,
izarbera,
eder-gosez...
O!, Illargia arinketa guztian
(izkutu-mizkutu)
goietatik beera,
aoketa zorgiñez,
erririk-erri
mundua agurtzera iatsi zan,
berri ekarte maitetsuz
biotzik biotzera,
alako ikutu...
laztan-gelgarri,
zerutar usai,
amets baten lorrez.

Eta, zeruz-zeru[a],
bai aundiki
eta galaitsu...
izarpean egalik-egal
bere arpegi zurbillarekin,
odei beltz illunetatik iges,
goitar eskuakin
izpirik-izpi,
agurka...,
ai! intzirika etorri zan bai,
maitebera...
itxasoz-itxaso,
mendirik mendi
biotz deika,
ederrez gaindua!

---

* *Bidean gora*, 129; Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 46.
** *Bidean gora*, 83-85 *(B)*; Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 47-49 *(A)*.
[a] Zeruz-zeru *A* zeruak zeru.

Eta, itxas-uin
eta lur-lore-zale...
Aize egaztariz arrotu zan
bai, ur azal
eta zelaietan;
bere argi emez
ixil-mixil,
txipil-txapalada goxoetan[b]
itxasoa zerutuz
ur bare sakonetan!

## II

Bitartean, eskuz-esku, begipe,
ai! ze notintza! Dan-danak lurrean
itxaropenez zeuden, maite miñez...
O, Illargitxo, Illargitxo goikari!:
danak noiz agertuko ote ziñan
eman gurazko nai, eskeintz betean;
danak biozbera, eresi bizian
ezetasun argiz, goi-giroz munka,
odol gaztearen biotz irakiñez!

Ta, garitza gordiñetan, urduri,
galburuak zibuka zeuden ederrez,
artotza berdeetarantza[c] begira,
aizetxoarekin... esanak esanez...,
ai! nola aotu diran gau argiz,
danak illargimin, zeruetaratuak...
danak xurrumur begikoz galduak
zorion-ikarazko mintzo ixillez![d]

Itzal-argizko biotz-ezetasun
amestegi loretsu ta garbian,
giro epelaren aize bigunez...
alako gurari eder, eme bat,
alako izan-min, gogo aundi bat,
eresiz gañezka nabaitzen zan bai,
dana, egada[e] zerutsuz betea,
dana, ler-zori, kukullutxo emez...

Alere... izar-doñuz, egabera,
egun sentiko[f] itzartze garotsuz,
ta, goizaldeko eguzki sorkeran
danairi... ai! danairi aurrea artuz,
kañaberadi tarteko[g] egadatan
ta, erdi-negarra zan dei alaitsuz
urretxindor baten eres biguna,
zeru bazterrakin nagusitu zan!

# UDAZKENEKOA*

## I

Udazken alaz
negar ulu, intziriz,
zugatzetatik eroriz
osto bakanetan,
azken arnasaz
aizearekin burruka,
ai! ene arima!
Bizia dator lurrera
aize boladatan
eriotz ikaraz.

---

[b] Txipil-txapalada goxoetan *A* eta, txipili-txapala goxoz [c] Berdeetarantza *A* berbetarantza [d] Ikarazko mintzo ixillez! *A* ikara, ta, amets-eskuartez! [e] Egada *A* egadatxo [f] Sentiko *A* sentiaren [g] Tarteko *A* arteko
* *Bidean gora*, 141-143 *(B)*; Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 49-51 *(A)*.

Eta, beeraka, iauziz,
batzuk, lokatz tartean[a]
eortzi dira betikoz;
beste batzuk ostera
—ontzitxoak bezela—
ur gañean doaz poz,
itxasora-bidean
azkenengo aldiz
agurka, biziari.

## II

Eta, zugatzak-zugatz (orri gabe)
goitik berañoko itun, naigabez,
larru gorrian dauden tantaietan
eriodun pentsamentu ikarati
eta mingarrienakin iantzi dira
kabi utsezko adar billutsetan,
eskuak luzatuz arrenka, otoitzez,
begiak zeruratuz irauntza eske,
lañoa ezin urratuz, argibera,
eguzkimin..., bitarterik bitarte!

Ta, adarrez gora, bildur-miñetan
aize gogor ta, ekaitzaren menpe,
bizimiñezko arnas-ots-betean...
ai! ze estutasunez ta, ze larri,
benetan minbera aukat bai, lorrez,
itoinka, igesi duakidan bizi...!
Ai! ze negarbide gogo-gaueratze!:
egun otzaren oñaze, beltzuran,
eriobera ta, tximista-bildurrez
buruauste gerokorretan nabilte.

## III

Alere... sustarrak bere egonean,
negu beltzari arpegi emanaz
ta, lurrera biotz-muiñak sakonduz...
zugatzak, bizimin, itxaropenez...
Bati, itxaropenez! Ederberaz,
deika daude, begiak iturrituz
gau luzearen etorri illunean,
biziari deika, lenaren sor-bidez.

«Nun ote diran betikō estaldu
ainbeste lilluradun gauza bakan;
nun ote diran illargi eta izar,
ainbeste iturriño, emai garbi,
odolaren oinkada ta eskuarte;
nun diran sar ta betiko illundu
ainbeste goiz-gora, egada laztan,
ozkarbi sakonaren irriparre!».

Ai! Biotz! Nora itzul, nora iges,
nun galdu ote zaigu zidar-urrez,
ahapaldi gozo, ederrenetan
zeruratzen zan doñu eta abots;
nun ote dira il ta betikotu,
elkar-bidezko gorakuntza eme,
nun, ainbeste biotz-eskuren anots
eta, egunik egunerako ederpe?

Bizitza aril, atzeraka biziz...
atzeraka eio eta, gogoratuz,
lenaren sua dabil bai, bizigarri,
ioandako zabalune alaitsuetan,
txoriakin lagun —aidean aide—
abesti xamur, egobide eztiz
maitasunezko iturriz-iturri,
oroipen zar ta biotzenak berrituz.

---

[a] Tartean *A* artean.

Ta, Aldi'ren ontzian betikari,
beltzuraz datozten gogai, ametsez...
Ibilliz dabiltz Eguzki ta Illargi,
ta, ibilliz dua bai, gure bizia,
beeratze betean, laño, orbelez...
ibai ertzetan —unerik unera—
erantziz biotz ta arima guztia...
ai! nai eta nai-ezko beera bearrez!!

## IZADIAREKIN ESKUZ ESKU*

Aize,
ego,
lore...
Dana da bizitzan bearrezko arlo,
argibide.

Atozte maite-kutunka eskura
goiz-gora alai, eta arrats-beran
izan zaitezte begipean nere!

Eta, bai,
eraman nazazute argiz-argi,
itzalez-itzal,
zerupe
gogamiñezko egoz
gogai sakon, lillura-amesetan,
bizibidezko iturriz
ederketan.

Eraman nazazute goi, zerura[1],
aize legun ta odei txuri-gorriz
egimin, biotz urduriz
txustar sendoetan gora,
nere billa betikotan.
Zelaietatik ibarretara,
izarrik-izar
zeruraño ko
bizia dan guztia besarka,
danok batera
Iaungoikotan.

Eraman nazazute bidez-bide,
iturriz-iturri,
zugatz-adar artean
argimin, tantoka, zerbait neretuz
eguneroko ekiñean.

Eraman nazazute
zuen billa, nerekin dana...
zuen izkuntz ixil
intziri sakona.
Apurka
biotz-eskuratuz
neregana.

Olaxe...
Eraman nazazute barneratuz
zerudi betean
argiaren pozera
izarretan
eraman nazazute eskuz-esku,
emaitz gorakor
iturrietako ur me gardenetan,
gogoa erantzi, garbitu dagidan...
Zuen berri eta,
zuen izatez
dardaratxo arin ego ikutuz
nere arima illa
betikoz biztu, betikoz alaituz
Iaungoikozko bidean
maite-kutunka, oñeratu dedin!

---

* *Bidean gora*, 67-68 (*B*); Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 52-53 (*A*).
[1] zerura *BA* zeruka

## ANDRAKILLATXOA*

Gure neska, alabatxoak duten
andrakillatxo... O, ze panpiña!
Amets-iturri jaio-berrien
jostallu kutun, pinpiriña!

Beren eskutxo artean, laztan,
muxu-muxuka, ito-bearrean
eder-ederka; gozoro, maite...
irriparre begikoz dabilte.

Eta, aundi izatera, aundi,
bizitza emekiro goxatuz,
jolasean dabiltz bai, andrati,
geroa alai biotz-eskuratuz.

O, amatasun ikasgu goiztar!
(biarko gizonen magal-garbi).
Bizitz arloan iraun-iturri
lore-kukullu, maitasun izar!

Begi sakon, eskutxo garbietan
bizia pozez gañezka dabil;
pozez gañezka eta, egatil,
neskatxoen amets ederretan.

Ta, doai berezizko amaketan
dana da, panpin-ikara ezti,
ezpantxo gazte irripartsuetan
dana, ume-dardara pozgarri.

Begietan gozo, maite-deadarka
ze, poz-ikara, argi goratze;
biotzez goi, zeruari ikutuka
ze, etorri Iaungoikozko bide!

Emetasun bigun, irriparrez
eskutxoak laztantzen dutena...
bai, dana edertzen dute, dana
esakera amati biozkorrez!

## GAZTETASUN BIDEAN**

Udaberri santzo, goiz eme, egun argiz,
egazian dator bai guztia, amesbera
ta, abarrots ezti, maitebide iturriz,
itxaropen betean eskurik eskura.

Gaztetasun mundu goratia agurtuz,
dana dirudi bai berri, zelai loretsu,
izar ta illargi dana, urrezko zeruz,
ibilbide eskurakor, aize gozatsu.

Ta, dana izar-lorez, betikoz iantzia,
elkar-mintzoz zeruari erdi-ikutuka,
biotzeratuz dator bai, arima guztia...

Dana dator berez, odol ezean gora,
biotza zuzenduz edermin, maite-ederka,
alako... bizi-iturri, emai izkutura!

* Olerti 6 (1964, 1-2.zenb.) 53-54.
** *Bidean gora*, 127; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 42.

## NEGUAREN ATEDIAN*

Neguaren atedian
argi brintzakin, tarteka,
eguzkiaren gozoa!

Udazken ala, intziriz,
arratsaldea doa pake osoan,
lañorik eztan une eztietan
ederberazko gogai-biziz,
zerbaiten kezkaz, urduri...
ego aize epelaren ikutuz,
orri orituen erio-beltzuraz
beeratze minkor, geldian,
zenbatzu amets ilberri!

Gero... Zeru, goi aundian
illuntzez datorren gau-aro argia!
Illargi betea gañezka,
zurbiltasun eme, txuri-txurian...
Iaungoikozko bide,
biotz-iturri bizian
maitetasunez deika,
deika, ai! biotza, biotza dutenari!...

Izar urrutiak bakarki ta moltsoz,
gaudi zabalean, tantoka dagoz,
malkoak bezela ederra ixuriz,
zeruarte goi, sakontza guztian.

Eta, argi-dizdira gelgarriz
Iaungoikoaren bidea dakarte,
betikotasun ederrez...

O, ze edertza guri,
goibidezko argi, zerutza sakon,
eldumiñezko eresi!

O, ze bide egakor, bide aundi,
neure goietan-gora,
neure izarretara,
biotzean eguzki!![a]

---

* *Bidean gora*, 148 *(B)*; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 43 *(A)*.
[a] *(Azken lau lerroak A'n ez dira agiri).*

## ILLARGIPEAN*

Illargia, argiz bete-betea
ta, izarrak dizdiz... gau-aro txuri!
Bide bazterretan
bizidun, landare, guztia zan
ikara goikari.

Arto-gara txuri-gorriak eze,
landak orlegi...
dana zan lurrin gozo, usai eme,
dana bizitza guri, bizitza
lerden, biotzkari.

Barne-muinetan gora,
o, ze egazkada lilluragarriak
ederrik ederrera;
eskurik eskurako
ikututxo arin, amets pozgarriak!

Gozotasun eztiz
zure dei ixilla,
esku billa... ai! nereka zetorren
unerik unera,
begi ninietan biotza ager-aziz.

Ni, beste nerean...
nere illargi, nere izarrera
biotztua nengoan,
zure maitetasun sugar bizia,
betiko ez-ikusi ta ezetsiz.

Zure begien eskari samurra,
zure ezpanetako irriparre
itxaropen goria,
gure nai ezberdiñetan aldenduz
ai! eztakit ez, nora itzuli zan.

Nere erantzuna
beste mundu baten pozera zebillen,
beste itxaso, beste ur baten billa,
kidezko iturri, atsegin batean
gogoa nun asetu eta atseden.

## ARGI IAIO BERRIA**

Argi iaio berria
belar bustian izar!
Eta, goietan gora
eguzki eder bizia,
aize epelean gar!

* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 44-45.
** Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 46.

O, ze egun sortze
ta egazkada azkar;
iantzi alai ezean
dana eder-ikaraz,
bai mendi, zelai ta lar!

Dana ler, gaiñezka
eta ametsak loran;
dana goi, maitezka
biotz-ego dardaraz
beatz-esku artean.

O, itxaropenezko bide
biotz-iturri!
Zeru iaio berriak dira
deika biziari!
O, ene ego,
ene oldozkun zerukari...
Zoakidaz egan,
zoakidaz bai, batetik bestera
lorerik lore,
zoakidaz bai, ederretik egira,
bidea emanaz
goi-bearrez dabillen biziari.

## NEURE ESKU DAN BIOTZARI*

Olaxe argi eta garbi, lur loretsuz
iaio zera nirean, gurenda ederrez
loreil ezti, usaikor bezelaxe maitez,
biotzean gora alai, zerua susmatuz.

Itzal gozo, amets ego, argi-iturri...
O, zugatzondo! O, itxaropen begiko!
Artu-eman biozkor, biziz sortutako
landare eskurakor, lerdena dirudi!

Betikotasun dardara emez sortua,
zaude bai, zure biotz-lurrean neretua,
bizitzaren poz, benetako Udaberri!

Zaude bai eguzkitara, biotz zerukari,
alkarren pozera ta, alkarrez leiatua
zaude, beti-betikoz, Iaungoikoz ikutua!

* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 48.

## BIDEARI EMANA*

Egun, bideari emana, goiz-gora,
aizea dabil orri, ego artean
urretxindor ikaraz, argibera,
eguzkiaren epeltasun barean.

Goituz-goituz dator bizia...; dana
sor-berri —lur ta itxaso zabalez—
zerumin dardaraz, dana, ametsez...
aize bigun-legunari emana.

Ta, alako ego, zerbaiten poza
esku artean, gogoz, min-miñetan
ederbera, biotzean nabaitzen da
indar-zerutar Iaungoikoz betea.

Bizitzaren ikutukera garbia,
egalak goi, zerutuz datorrena...
ai!, sutuz gorputz-arima guztia...
poz eder onek zer ote darama!

## BIZIAK GAUR**

Biziak gaur
bere, poz-ikara eder,
bere ikutua dakar alai,
mitxeleta egoetan
ta, eskurik eskura,
argi-lorezko ibilketan...
bata-bestearen poz,
uintxoak bezela egun,
ondartzatan.

Udaberri loretsu,
aize bigunez bete da lurra,
dana, ernemin,
adar ezeetan gora,
bizitza guztia elbarri,
biotz ikara,
amets betean.

Ibaiak ere,
bere bidean
garden doaz lasterrean,
ertzetako
landaretxoak laztanduz,
biziari irripar,
eguzki gozotan.

Bizi-itxaropen argiaren
betiko amets-bideak dira,
emai bizian goibera
egoz-ego, biotz-txustar,
arima-bazterretan...
noiz aletuko[a]
Iaungoikozko bururatze,
egi betean!

* *Bidean gora*, 43; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 49.
** *Bidean gora*, 126 *(B)*; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 49-50 *(A)*.
[a] Noiz aletuko *ez da B'n agiri*.

## UDABERRITARRA*

Egun-senti garbi, ipar-aizez,
sortuz dator eguna, goiz-gora,
ezetasun-itzartze ederrean;
eta, dana da, ego-ots bizi;
dana da, lore, odol-berritze,
Iaungoikozko zerutar-iturri,
poz-alaia darion eskuarte!

Argia goituz ta, lañoa, igesi...
Ai!, bai, amets bero, egun iantzi!:
inguma eta erle eztilariz...
dana da, iturrika datorren
ernealdi, ikaratxo guztien
argiratze... bizi-une pozgarri!

Intza, —izarrak bezela, dizdiz—
iturriak, maramara, arinka;
zugaitzak... O, dana dator egan,
alako, bizi-ikutu gartsuz,
bai zeru ta zelai-bazterretan,
maite-laztanka, biotzak loretuz...
elkarreratze, goraldi betean!

Ta, txorrotxio goigarri, alaiez,
egun argia neureka laztanduz...
txoriñoak naramate egadan,
txoriñoak naramate bai, pozez,
biziaren goratze, ederketan,
danakin batera maite-bidez,
neure biotzaren Udaberritzez!

## ITZ ARGI...**

Itz argi, alaitxo baten eztiz...
Orixe zan bai, gure nai, dana,
eta, etorri zan ezpanetara,
egamin eta, ikara-ikara...
biotzetan irikiz,
amets gurena zan,
zerurik onena!
Geuretza eder-betean, gero...
—txoriak bezela egatu giñan—
betikotasun pozez,
lore-bitxi, izarrak sortatuz,
zeruarte goi garbian...

Eta, maite-ederka,
biotzak oinbideratuz,
gogai itxaropentsu, sakonetan,
bizitzaren laztasun, neke, dana...
bizitzaren arantzak, poztasun...
goraberatxo guztiak kolkoratuz
eskurik-eskura,
elburu-bidean
batak-bestea[a] garaitzara beartuz...
itz argi, alaitxo baten bidez
geureratu giñan!

---

* *Bidean gora*, 101; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 50-51.
** *Bidean gora*, 125 *(B)*; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 51-52 *(A)*.
[a] Batak-bestea A *bata-bestea*.

## GURE AUR, EDER POLITA...*

Gure aur eder polita
ze loretxo argia dan!
Dana da amatxorena,
irripar ezti, gozoetan.

Aragi bigunez egiña,
izarrak ditu begietan;
aurtxo sorgin poxpoliña,
zerbait esan guretan.

Iturrituz ao guztia
topoz dabil bularrean,
amaren bizirik erdia
edanaz, titi beroan.

Ta, eskutxoak jolasti,
O!, ze gauzak oartzen diran
laztanka, begirik begi,
bien arteko zeruan!

Udaberri aize bigun
ta maitezko baratzean
biak ari dira kutun
berriketatxo betean.

Biotz-bularretan beera
ai!, amari bizia dario,
aur laztanaren pozera
dan-dana emango lekio!

## GOIZEKO BELAR...**

Goizeko belar, garo artean,
intza dardaraz dago etzana,
(lur-eguzkitara biotz dana)
eder-argitze bete-betean.

Bizidun guztia dator gora,
indar beroz, bideak-betean...
aize eme, eguzki gozoan,
indar-berrituz, ego-ikara...

O, ze itxaropen, aize eme,
ze argi loratze, ze iturri,
ze biozkada ta aupada eze,
sormin bizian... dana eresi!

Dana dator laungoikozko bidera...
O, bai goraketa ikusgarri!
Lur-biotzez-gain... amets-zeruetara,
maitezko arlo eskuragarri!

Millaka biotz zabaldu dira,
millaka ego, millaka erle...
millaka amets eta lillura,
poztasunezko zerutza bizi!

Maitasun bideak dira bai,
bizitzako itxaropen bide...
biotz-arloak, goraka, alai...
ikututxo eder baten eske!

Ta, bidertzetan loreak daude,
dei ixillean, maite-ikaraz,
noiz etorriko, noiz bere erle...
kukulluz-gain, eztiki, egaz!

---

* Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 52-53.
** *Bidean gora*, 128; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 53-54.

## BILLUTSIK*

Billutsik, burua apalkiro agertuz…
O, zugatzok! Ba'zoazte adarrak erantziz,
ainbeste euri, elur, otz-epel garbiz,
sustarrak negupean gerorako indartuz.

Lurrean datza bai, lena —orbel ustel—,
bizia zor zuenari… ai!, emanaz bizia…
Lengo apaingarriak, ongarri zimel,
aize-uluz, azpiratua guzti-guztia.

Ene amets-orriok, zoazte bai, zuek ere
antzitasunezko illobi sakonera,
zoazte bai, ioan, betiko badere…

Ba, biziak unero deska ongarria,
amets illak, amets berria… Izatera…
O, izatekotan doa gure bizia!

## GARAITZA**

Eztakit nondik nora sortu zaidan! Aize…
aizetxo arin batek bultzatuz narama,
egaltxo ezkutuan iaio dan begibide,
zerupe argi, biotz emai, sen garbira!

Argibera aldatza goituz, nere utsean
eztakit oiñetan ze egotxoak ditudan;
eztakit ze giro, ikutuz datorkidan
nere amets gurena, nola egundu dan.

Gaiñik-gain santzoka, zerutza ederrez,
dana irudi ego, larrosa sorberri,
orri-arteko aize bigun, gelgarri…!

Ta, egun alai, egiñaren gorasarrez,
esku baten pozera neretu naiz dana,
izate berri bati, osoro emana!

---

* *Bidean gora*, 139; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 54.
** *Bidean gora*, 140; Olerti 6 (1964, 3-4.zenb.) 55.

## EPALLA*

Epalla da eta,
itzartzen ari da bizia,
dana, berpizten;
zelaietako intzean
zeru garbia,
eder-ikara,
argiz-iantzi eta ernetzen.

Eta, aurreneko lore
bioleta txuri-gorriak;
aurreneko txori
txindor eta,
zozo bikote,
adar arteko orrimin,
egada pozgarriak.

Dana dator goi-ikutuz
eguzkitara
dana, ler-zori,
dana, bai, lenaren gain,
—urtero bezela—
arnas betean
muin, gogo-biotzetara,
oinbide eta,
amets berriak.

Bai, berriro ere
eriotza garaituz,
aize bigun, epel garbian
dana egatu da,
bizimin itxaropentsuz
biderik-bide,
goiz-gora
Iainko betean...

## BIZI-IKARA**

Ego,
orri,
lore...
Biotz-arimaz
ta,
oinbidez oinbide,
dana da,
goramin,
bizi ikara,
dana da, bizi-bide.
Aizez[a],
egoz,
lur-zerupe...
dana da,
iturriño,
Iaungoikozko urbide;
lur gañean emankor,
zabaldua...
dana da,
amets, gogai, oldozkun,
ta itxaropen erne
azi bedeinkatua;
dana da,
bizimin egakor,
bide loretsua;
dana da,
goi-ikara eder,
iturrika datorren
izamin bero,
aizeratze gartsua;
belar ezean,
eguzki-min, goiz-gora
—izar antzo—
intz-tantoak bezelaxe,
arnas goitua.
Dana, olaxe
itzal-argiz,
ainbeste gorakuntza
ederbidez,
ainbeste biotz-emai

---

* *Bidean gora*, 102; Z-Argia 27 (1964, 54.[55]zenb.) 6.
** *Bidean gora*, 117-118 *(B)*; Z-Argia 27 (1964, 58.zenb.) 4 *(A)*.
[a] Aizez A Aize

iturriz...
Esku-artean dabilgu bai Iaungoikoa,
orriz-orrizko xurrumur gozo,
ikutu alai,
egada biziz.
Esku-artean dabilgu bai, geureka,
bere aunditasunean
guztia edertu
eta iantziz...

## ITXASKARI

Eta, txipili-txapala...
O, ze ipar aize bigun
ze ikutu eme:
urazalean kulunka,
uintxoak uin
dantzari,
bere-berean naukate.

Millaka oial txuri, millaka biotz,
millaka ontzi itxasoratu dira,
millaka arima bizi!
Ni ere,
nere ontzi ta, oialarekin
bizitzan gora,
itxasoz barneratua,
nere uiñak,
nere aizeak
goraberaka urean,
ametsez nabilte.
O, ze arraun ots
ze goramin ta ikaran
ur sakonian
bizitza arloan
biotzaren taupada!

Eta, olaxe
batian poz,
bestian neke...
ibilliz ibilliz
bere eresi, bere doñuz,
bere itzal eta ikutuz
uintxoak uin,
itxasoak betean
naramate...
Ai, ez jakin nora
eta noiz arte!

* Z-Argia 27 (1964, 59.zenb.) 4.

## MITXELETA*

Auxe txirripita, egaztari txinbeleta!:
egadun xomorro, elguma auskor, bizia...
txipilitona, txipiliton, txipilipeta,
ainbeste panpin-izen politez iantzia!

Lore-artean goikari, ezer-ez biguña:
zeruko aingeru, txaketa, pinpilinpauxa,
Iainkoaren mandatari, poxpolintxo ariña...
zu zera aize epel, Udaberriaren poza.

Goiz argian jaioa, gure itxaropena;
mariapanpilloi eder, ederkari kutuna,
lurrin artean egaka, galtzen zaiguna.

Mitxirrita maitetsu eta, sorgin-sorgiña,
bildur-ikaraz argipean, autsez egiña...
zu zera kalaputxi, inguma atsegiña!

## ESKARI**

Biotz-eskuartean neure[a] ametsak estutuz,
bai goiz-gora, eguerdiz, arratsbide mingarriz,
unero[b] neure arima guztia oñeratuz...
Iauna! Zuretu nazazu, Eskura ekarriz!

Eraman nazazu Eskupe, beti, Zurekin,
aita batek bere umetxoa bezela artez;
igeska ba'noa ere pekatu aztunakin,
itzuli nazazu Zurera, maitezko bidez.

Bein ta berriz ai! Zure Izen[c] irainduz
ta, ondotik ere[d] igaroarren ez-ikusiz,
egikera gaizto, okerrezko bide itxusiz...

Zuretu nazazu, neure biotza lokarrituz,
ba, umetxo batek bezela bear zaitu[e] neure...
Zure Eskuaren pozera Iaun[f] eta Iabe!

---

* Z-Argia 27 (1964, 60.zenb.) 6.
** *Bidean gora*, 166 *(B)*; Z-Argia 27 (1964, 67.zenb.) 4 *(A)*.
[a] Biotz-eskuartean neure *A* Bizi-bidez, biotz-eskuartean [b] Unero *A* eta, unero [c] Izen *A* Izena [d] Ta, ondotik ere *A* eta, Zure ondotik [e] Zaitu *A* zaitut [f] Iaun *A* ene Iaun

## IRUDIAK*

### I

Gorostian gorosti
eta, Donostian Donosti...
Bere Igeldo eta Urgull mendiz,
bere ondartza eder zoragarriz,
kale eta baserriz
bai, ipar aize
edo, egoa dan emez...
bere kai bazter,
bere izakera eta odol garbiz
Donosti beti da Donosti,
ekaitz eta bare
itxasoari arpegi emanez...
Eguna zan bai eta,
oñots ugariak zetozten biderik bide,
kale eta mendi bazterrez,
auto eta moto,
zar eta gazte
bai, bultzi eta trolebus beteak zetozten

Tomas Deunaren
egunaren pozez.
Ni ere bai, nerekin nentorren
nere bakartasun eta ametsez
nerekin nentorren bai,
alako tximisgurdi
baztertxo baten...
Leiotik begiratuz,
zugatzak arinka zijuazten,
laster-lasterka,
aizeari arpegi emanez...
Eta, jendea
eta, jendea
emen igo, an jetxi
agurka bideari,
bakoitzak zeraman bai,
bere amets eta berri...
Ni, batzuetan lurrez
edo, odei gañez
eta, aldizka,
egunerokua irakurriz,
mundu-zear eta biotz-begiz
lagun arteko bakartade utsez,
galdua nentorren
ametsak eralgiz...
Eta, jendea
eta jendea,
emen igo, an jetxi
bakoitzak zeraman bai,
bere bidearen berri.
Eta, bateko Kennedy eta besteko Johnsson
De Gaulle dala eta bere Prantzi
Europa berriarekin;
gero, Alemani dala
eta, emengo arazo
eta ango neke, zauri...
eta Kongo dala, Kongo eta Kongo...
beltz eta txuri,
ain ibillaldi geldian
ainbeste munduratze negargarri!

* Z-Argia 27 (1964, 95.zenb.) 6.

## II

Donostira iritziz iruditu zitzaidan,
ainbeste arpel alai, alkandora txuriz,
ainbeste euzkera garbi eta ederrez
oraindik, Euskalerria zala Euskalerri!

Eta, danakin batera
eta, kaleak betean,
iñurriak bezela
baserri-giroz eta, biotzak zabal
alderdi zarrean,
arkitu nintzan
ikusiz... erakusketara ekarritako
ainbeste kapoi eta ollar,
ainbeste barazki
eta, ainbeste igali,
lurraren emai
eta, lanaren sari...
arto eta babatxuri,
bai tipula eta abar,
batzuk urre ziruditenak
eta, besteak zillar.
Eta, jendea
eta jendea,
eta, zozketarako txerria
intzirika, otzez,
baztertxo batean.
Umeak ere,
txirula eta panpiñez;
batzuk bai, txistorra janez
eta, besteak,
begiak zoli, irten bearrez...

Olaxe, eguerdi aldera
(elbiak eztira bezela)
kale-bazterrak, ainbeste
erren eta besomotzez,
ainbeste bizigai eta txistor sundaz
eskalez beteak zeuden,
egunari deiez.
Eta, ainbeste parreirri eta algaraz,
ainbeste alaitasun
eta miseri argalez...
Kristo iruditu zitzaidan
eta, bai, Kristo zala
Kristo berbera zala,
Tomaseri aurkez...
O, bai, Jauna, Jauna
sinisten det, Jauna...!
Baña argialdi bat besterik etzan
eta, berriz ere,
neretik nerera aldendu nintzan
illunpe beltzez...
Gero, ez Kristo ez Tomas,
kalerik-kale,
alaipe nastuan ezeztu nintzan
egunaren txistor sundaz,
biziari oles!

## OLERKARIARENA*

Zar-berriz, irudipen landa zabaletara,
arnas bero goigarriz egungaiak aztertuz,
oñak sendo, arima eskuratze bulartsuz
barnez-barne, egimin... O, atozte bizira!

Atozte ederrean ausnar, bidea betiratuz
argibera, elkarmin, maitezko etorbidez
atorte, esku-zabal begi goseak asetuz
eguneroko txingurri-lan, erletasunez...

Lur, aizez, itxas sakon urdiñaren zabalez,
itxaslari, arrai, uin bare, ekaitzarekin;
bai tresna zar, makina berriakin, ogibidez
atozte, ortzi-zear suziri, egazkiñakin.

Atozte, eskulan sarigarriz langilleakin
bai jostun, arotz, zurgin, nekazari ametsez;
atozte, ikazkin, meazle, argin, artzaiakin,
lantegi aurrerapen, menditar garobidez...

Apurretik aundiraño kolkoa aberastuz,
atozte, biotz-begietara emai pozgarriz;
atozte kantagai, amets-eresiak metatuz
bizikide guztien elburu, unearen zoriz.

Beti, bidez aurrera bizimin, goietan gora,
atozte zantzoka, alai, bidearen pozera,
biotzak ereiñez elkarka maite-ederbera
atozte, ats biziz olerkariaren arlora.

Atozte gogoz, —bai, ordu latz ta alaibidez—
ederrik ederrera, bide garbiak onetsiz.
O, atozte bai, bakoitza bere muin, izatez,
ikaratxo berrietan gogoari egaraziz!

Begiak iriki ta biotzari egoak emanez
atozte, bai, bizitz-ibai, azal-sakonera,
atozte eskuz-esku, ikara betikorrez
argi-une goigarrien zabalkunde betera.

---

* *Bidean gora*, 54-59; Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 14-20. 1964'ko Olerti-jaian Larrea'n lenengo saria irabazi ebana.

Illargia itzul eta, eguzkia mendi gañean
intz, zelaiak besarkatuz datorren bitartez...
Ara ze edertzak! Egun iaio-berri ezean
bizia gañezka, biozbera, gozotasun emez.

O, ibilli gaitezan bai, goiz-gora, arratsez,
egonaren-egonez, gogobide ametsez...
ibilli gaitezan itzal-argiz, gau-egunez,
biotz-begiak Iaungoikoratuz esku zabalez.

Argi-tantoak soñeratuz aizearekin egan,
ai! txoriño bizkor, ingumatxo lore-zaleok!
ai! ene uso arin, ene erle eztikariok!
Agur! Atozte burrunba zoliz, egun garbian!

Atozte egunaren ezti-aldiak miazkatuz,
ikusgai gozoetan mokoka, azkatasunez...
atozte albiste berriakin aizea urratuz,
bideetako loretza, amets-itxaropenez.

Bizitza dan eder! Begiakin, biotz-odolez...
Agurtu bai, barne-muin, izate guztiarekin!
Eguzki-illargiz, zeru-lur, itxasoarekin...
Ai, bizitza... kanta dezagun bai, esker onez!

Kanta nolanai, gaur eroriz, gero ernez,
orri berritze eder, bere illeta orbelez;
bai itzalpe lañotsuz, gero izartza betez
kanta dezagun gozoro betikotasunez.

Iraduz bezela, aldatuz, gauza guztietan
bizia Iaungoikoz dabil bai, itzal-argipean,
eguzki beroz eta bai gaubide argietan,
intzirika dabil goi billa, bideak betean.

Dana da sorbide arin, etorri ixilla,
izadiaren txustar-berritze, emai sakona;
sorgor, abots ezti mintzakorrez, zeru billa
bultzatuz barneki datorren egotasuna.

Dana da eder-soñezko ari, eguzkibide,
kidekoen nai, bata-bestetasuntxo kutuna;
kukulluak aletuz datozten gari, landare...
biotz-lur landu berezietako aidetasuna.

Dana da bai, biziaren gorakunde sortua,
baratzetako lurrin, aizeñoaren aupada;
amets-gain, lore-izarrez gure bideetara
goi-ikutuz datorren arnasa bedeinkatua.

Dana da bai, gurituz datorren mamitasun,
txustar sendoetako sentiera, odol ernetua;
dana da bai, lurraren ore, egokitasun,
barnebide udaberrituen bizi izkutua.

Dana da egoak arrotuz datorren txiotasun,
amaika zerubideren oztiñezko iantzia;
dana maitebera aizeak, orriak bigun,
ikutu goxoz dabillen eskuarte garbia.

Dana da goi sakonetako zeruaren poza,
odei txuri-gorrien zoragarrizko egala;
izarrik-izar, amaika munduren anotsa,
argi-iturrietarako bidetza zabala!

Dana da soinkera gelgarriz, bizitzan gora,
unero eta egunka datorren nai gordiña;
biotz-begipe, amets-iturriz maitebera,
bizi-eskuratze txorotasun atsegiña.

Dana da doñu ixil, argizko mintzaira,
ezkutuka, kutun datorren lurrin-itointza;
muiñez-muin, zanetan borbor, biotz-bizira
ate ioka datorren izamin, betikuntza.

Dana da bizi-bear emaitsuz, lanaren ekin
ta, Iainkoaren Magal, gai betikorrez egiña;
gauzak aldatuz, iraunezko bultzada, zirkin,
bide eskuragarrien abots, aize ariña.

Dana da bai eguzkiaren izpi-berotasun
ibaiaren uberka garden, bere itxasoratze;
dana da illargi zurbillaren emetasun
eta, arratsbide amestien izar-eskuratze.

Dana da bai, ixil-gorazko dei, lur-eresi...
biotzak itsuan beretzen ditun goi-egalak;
maite-giroz eskura datozten mundu berri...
erne-elduan dabiltzan alderdi zabalak.

Bai, bidetu, dezagun bizia bioztasun onez,
batzuetan poz alai, beti, bai, itxaropenez;
bidetu bai, maitez, eskuka, beti elkarrez...
gatzituz dana ederkintza, lanaren pozez.

Ibilli gaitezan goituz, bizitza bazterrak,
eder-iturrituz egungiro, emai pozkorrak;
unerik-unerako zantzo, gazte deadarrak,
ibilli eskuratuz biozbide, zeru-lurrak.

Ba, dana da, maitasunez gatzitutako ore,
Iaungoikoaren emaitza, eskuarte sakona;
Bere Gogoaren sustartza, Bere irriparre,
guztira Bizia darion Argirik Onena.

Bideak dira bai, Iaungoikobide arimatiak,
egun-gorazko nekez eta, amesbera, egati...
lurra aztertuz dabilgun bide zerugarri,
bizitz-ibaian, gure... betirako malladiak!

Bide argi, bide illun bide zabal, estuak...
egizko bideak dira bai, ainbeste ikasgaiz,
ainbeste goiz-arratseratze betiraungarriz,
ainbeste goitasun, gurariz... egunka deituak!

O, bai, etorri, gainik-gain, biotz zabalez,
agurtuz bizia! Eta, aintzaldu bai, dan-dana
edatuz bere lurrin argi, izatearen guna...
dana, goietan gora, dana bai, Iainko bearrez!

Eta, kanta biziaren emai, esku pozkorra,
bere oñots arin eta, aldatz-gora aztuna;
kanta eder-ikara guztien gogo goitarra,
eta amets ukatuen samintasun ituna.

Kanta izar, gaubera, kukurruku dei zoliz,
egunaren iaiotza, goizaren etorrera;
kanta bai, maite-ederka, urretxindor eresiz,
biotzaren arintasun bere, itzartukera.

Kanta zeru oztin garbiaren goi, argiratze,
odei txuri-beltzizkan eurimin, nai apala...
kanta bai, gogotsu, maitasunaren aterpe,
bikote bakoitzaren amesbide zabala.

Kanta goraka, biotz-begiz, eskurik-eskura,
biziaren goraberak... O, kanta bai, betikoz,
kanta bein eta berriz, lur eta itxasoz,
ausnar bizian ametsak zuzenduz betira.

Ederkera guztiak kolkoratuz bidenabar,
kanta iturrituz lurraren emai zerukera;
kanta une bakoitzaren muin, igarokera,
aizeño eskulari, tximist-itsuaren sugar!

Egunaren goi garbiz, arratsalde illunez,
kanta giartsu, begizko diran bide pozgarriz;
bai Udaberri loretsu, Neguaren elurtez,
kanta goiz-gabero, betikotasun etorriz.

Intzaren goramin, larrosatxoaren egarri,
umearen irripar, gaztearen oiu ta zantzo;
kanta neskatx lirain, garbiaren muxu-gorri,
bere amets gorien oinkada, egadatxo gozo.

Kanta bai, aur txikiaren panpintasun guri,
ian-bearka amatxoren begietako eresi;
kanta aiton-amonaren gogo-illobati,
ipui oroiketa berezien emai-iturri.

Kanta poxpolinka, arto-garitzaz belarrez...
egada pozkorretan etorriaren ikutuz;
kanta bai, biotz-arima guztia sustartuz
gauzak dakarten berezko doai ta eskarrez.

Kanta etxeko laratz, suaren berotasuna
mai ondotxoan inguratzen dan sendi batua;
kanta otoitzaren indar, maitezko otordua,
anai arteko elkarbide eta goitasuna.

Kanta unero poztasun, baitura ederrez
egi gordin ta, zuzentasunezko ekarriz;
kanta bai, Olerkari!, sugarra dan illuntiz.
Iaungoikoratze bide, ederdi sakonez!

Kanta bai, kanta betikoz bizitzaren sena,
biotz-begiakin maite dariozko gogoratzez;
kanta goraka, kanta Egillearen Izena,
egarria asetuz Bere Magal Eskuartez!

# 1965

## NERE GOGO*

Nere gogo
eta biotza bezelaxe,
zugatzak erantzi dira
agertuz soñeko akats guztiak,
migura gordin ta, kabi zarrak
tankera beltzean.

Alere, Udamin
(amets-il ta, orri zimel joanak
biotz-erro
lur zabalean osoro eortziz)
adar uts, gorrietan
bultzakor ta, sormin,
kutunki dakarte
kimu berri
orri ezearen sortua.

Amets berriak jaiotzekotan daude
oraindik itsuan,
noiz ler, zabalduko
berriz ere,
egaka aizean.

## IKURRIN**

Gaurkoz
ainbeste poz!

Biotz eskuetara
zelaika datorkit egunaren
eguntza ederra;
aize bigun eta,
soinkera eme, garbiz,
zugaitz adarretako txintada
eta, kabi lorketa,
egada pozgarriz.

Eskura datorkit bai, nere goiz
nere eguerdi...
ai! ze begibide
biotz eresi!
Nere egun-gora
iturriz-iturri,
nerez galdua neretik igesi.

Eskura datorkit maiteka, egan,
amets sorberri;
atz-begietan urduri, loretua,
laztan-laztanka,
ezpan gorridun nere beltzeran:
(intz, larrosa eta aize ariñez
eman bai, ez eman...)
berezko emai
sorbide garbietan.

Bai zeru oztin
eta, egun argiz...
Udaberria da lorez iantzia
ta, nere soñean barneratua,
biotzaren iabe.
Udaberri eta,
neska, ...ai, gonatxo zoragarri!
Gonatxo, gonatxo...

Zu zera bai, biotzaren bide
eta, amets-ikurrin, ikurrintxo,
amets aizekari!
Gaurkoz
ainbeste poz!

---

* Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 20.

** *Bidean gora*, 99-100; Olerti 7 (1965, 1-2.zenb.) 21-22.

## ITXAROA*

### I

Zu etortzeko ziñan biderantza
eta, zuganatzeko amets-egoz...
Itzak esanbera,
aopean nitun bultzaka,
lore sorta eder
eta, bizi-biziak...
maitasunezko lilitxoak ziran
nere ustez, ain dotore
ain usu eta,
eme!
Berarizko eskar, doai xamurrez,
larrosatxoak bezela,
goraka nitun
eres-argikuntza, eskeintza betean,
urduri nitun bai, biotzaren erdian
kukullu antzera
ler-zori,
une batetik bestera,
bere usai gozoa
aizeratzeko pozez.
Goraka nitun bai,
iturrietako uraren antzera,
biotz-begipean maramara...
aizemin nitun eta,
minbera...
zure oñots,
zure oinbide maitearen poz,
noiz emen eta,
bideratuko,
itxas-sakonetarañoko ikara
eta betikotasunezko
asmoz.
Goraka nitun bai,
zu noiz elduko,
zu noiz azalduko,
arako iturri-ondo alaitsu
arako zugazpe
edo kale-bazter txukun,
arako etxera-bide kutun
nun ote zan izango
eta nun,
eta nola,
ai! nola izango ote zan...
illargi ala eguzkitan!
Itzak,
ai!
zu noiz etorriko,
zu noiz azalduko
nere-neretan nitun
aizemin;
zurea zana eta
ain ondo nekin bidea
unero begiztatuz
eta zure irudi ederrez iantzi
eta bidetuz...
Ederbera nitun bai,
ale-bizigarri, kolkokada umaotuak,
gañezka nitun
neretik nerera
millaka ametsezko itxaropenez
eta, bidebera,
bideari ezin eutsiz...
gañezka nitun,
zure irudi sugarriz,
zure pentsamentuz...
neretik nerera,
nere illargi
nere zerurik zeru
ain ibilgarri
eta aingeru!
Eta,
une bereziak aukeratuz
eta zure pentsamentuetan
bidea pausotuz...
Itzak,
ai, ama!:
goxo-goxo
eta, ezpanetaraiño
aizearekin bertanbera,
aizearekin iolaska,
maite-aopekotan nekarzkin,
nere ixil-aitorkuntza

* Olerti 7 (1965, 3-4.zenb.) 23-27.

eta dardara bizietan
nere oin ariñari
egaraziz.

## II

Baña, ai, ene!:
aurrez-aurre
bidean,
arkitu nintzanean
zure ogei urteko
odolaren garrez,
zure ibilkera suge
eta, irripar goxo,
begi eztikorrez...

Olaxe,
une batean,
dan-dana... nere indar, nere adore
nere kemen, nere ausardi goitsua
dana, lurreratu zan, bere illargi,
bere goizabal oztin, izarrakin...
eta illunpean,
eta zirkinge,
muturik lotu nintzan
ta nortasunik gabe!

Ai, ze oñaze
ze illundura
maitezko neke!

Gero... ai, gero!
eskerrak zuri,
egun argiko izar
eder maite!
Zu ari ziñatan itz billa, tiraka,
galdera ezti,
xamurrez...
zu ari ziñan bai,
nere itz epel, eskuragarriak,
nere itz bigun ta, amets gordeak
zure irriparrez,
zure bigiratzez,
arira ekarten
eta,
banan-banan
biotzez,
egan...
Urretxindor zoli, goitiak bezela
kañabera arteko
kabiaren pozez,
itzak maitebera,
begirik begi,
eder-dariozko emaitza bizian
nere baitara,
ur doñu pozgarriz,
etortzen asi ziran...
sakon eta ugari,
emai zerutar,
biozbide eskugarriz
bere zorion,
apain berriakin
goitik beeraño,
bizia iantziz...

Eta, elkar berriketa
amesbide,
eztiaren pozez...
ezpanak ere
urrezko etorriz,
lore-usaitu ziran maite-ederka
eta, eskuetan gora
bizi billa
edatu ziran...
itz gozo eta,
guren baten bitartez
Etorkizun eta Egunaren poza
begietan adieraziz!

## BIDEAN GORA*

Bidean gora, amets!... Izatekotan...
izarrak, iturriak... Bai, bizitza da,
(bizitza itun-alai[a], bizi bidegarri...)
laño beltz, laño arin, txuri-gorriz
bizitza... zugaitzetan aizekari,
zelairik-zelai, ibai, mendiz, egan...
bizitza!... Bizitza[b] oinkari, urkariz
gizona... ai! beti bidearen erdian!

Ta, bideari iarraituz geure gatz,
geure ogi, geure ur, geure ardoz
gaude bizira, kideari lagunduz...
goizeko garo, arratseko itzalez
gaude begi iriki, esku zabalez
biziaren etorri, maitetasunez
gaude bai, —lugiñak azia bezela—
alor goigarrietan, biotzak ereiñez[c].

Gaude ederrera, biziaren pozera,
on apurra, biotz-eskuka irauliz...
gaude egunak benetan egunduz,
irripar gozoenak begietaratuz,
gaude gose-egarriz aldamenean
—pauso arin edo pauso aztunez—
bidean gora, argimin, gu bezela
ogi, ardo... bideka doaztenakin.

Gure ibilbide, betebearretan...
umetxoak bezela emai zerutsuz,
begiak argi ta, biotza garbiago,
itz baikorrakin egia bananduz...
gaude bai, bizira bidea alaituz,
gogo maitetsuz[d] eguzki goritan,
gaude bai bizi-irabazte betean,
ikuitzen degun guztia edertuz.

Biotzak pilpil agurka, goxo-goxo
ta, itzegite argiz begiak irripar,
alkartasunez bideguneak[e] zerutuz...
bizitza!... askozaz eramankorrago,
askozaz maite, alai ta[f] txukunago,
askozaz bidegarri ta ederrago[g],
alaiago litzake gure bizia
ta[h], bidea... O, askozaz bideago!!

---

* *Bidean gora*, 35-36 *(B)*; Z-Argia 28 (1965, 100.zenb.) 8 *(A)*.
[a] Itun-alai *A* itun-alai ta [b] Bizitza *A* bizitz [c] *Bertzo ontako lerroak B'n naastuta dagoz* [d] Maitetsuz *A* eskutsuz [e] Bideguneak *A* bide... uneak [f] Ta *A'n ez da agiri* [g] Askozaz bidegarri ta ederrago *A* bidegarri eta eder-ederrago [h] Ta *A* eta

## UDABERRI ERESI*

Udaberria da bai eta,
bere eguzki, indar berritze
aize epelez,
bere esnatze
lore-iantzizko
txiokada pozgarriz,
biotz deika dator bizia
amets-erroakin
lurrean, gogoz sustartua.

Deika dator bai,
ler-zori... Au, bizi-itzarkera
eder-sorburu eskugarri!
Dana, maitebide
itxaropen ernez,
dana, goiz-gora bigunez
eta, adarrik-adar,
zelai ta[a] larrez...
deika dator guztia
goibideak erletuz,
aize pinportuaren
larrosatasunez.

Eta, bizidun bizi, landare...
danak bat-batean,
eguzkiaren ikutu
etorri gartsuz,
biotz muin, txustarretan gora
lurra ezetuz,
bide-ikara eztia dariote
jorrail argiaren
emai lurrintsuz!

Eta, gazteak ere,
bere gazte ametsez,
bere begirada
argi baikorrez
aidean zeruratu dira,
—aidean aide—
gogozko lorketa betean,
aizearekin aizeka
eta, txoriak bezela
mokoka eta egan!

Deika datoz bai, otoi-eskariz
biozkada goitarretan narrez...
(illargi eta izarrak naste)
laño beltz ta illuna ezetsiz,
oin-arin eta, aopekotan,
eskuz-eskuzko begiz datozte,
eguzkitasun zoragarriz!
Eta, itzartze, otoi beroetan
goituz datorrena amets-argiz...
dana da, gogo, nai aundi bat,
elkarmiñezko aizeratze
ta itxaropen ale eder bat!

---

* *Bidean gora*, 103-104 *(B)*; Z-Argia 28 (1965, 110.zenb.) 8 *(A)*.
[a] Ta *A* eta.

**1966**

## BIDE-IKARA*

### I

Egun bakoitzeko amets-irudi atsegin sortuz,
izadi bitartez kolko, arima guztia suspertuz,
bidera nator biotz-begiak bizitzara itzuliz,
asetu eziñik argimin ditudan gose-egarriz...

O, bizitz aldakor, eriotzaren erro emaigarri:
ementxe oakit ura bezela sortzetik igesi;
ementxe oakit larri, ementxe aramat urduri,
aize arin bat bezela ikutuz, orririk orri!

Ur lasterrak bezela betiko ioan ta etenez,
ementxe oakit beñere berritu ezin dan ioanez;
ementxe oakit nerez-nere, betikotasun miñez,
beiñere berdiña izango eztan bide-ausnartzez.

Ta, bidezko ar-eman, bizigai itun-alaietan,
bai mitxeleta auskor eta, erle eztilariakin,
atea irikiz nabil bai, aizearekin aizetan,
ikara datorkidazan eskuratze goigarriakin.

Arginabar garatsu edo, arrats izartsu, argiz
bere Loreil-ezetasun ta, odol-udaberritsuz;
edo neguaren elurgiro, eragozpen mingarriz,
bere odei-mataza illun, azpitasun orbeltsuz.

Bide alai, bide goibel... Goi-irabazte neketsuz
bideak eta bide! O, bai, anitz gorabera dira,
bere laztan egarri, bere zorion maite-ikutuz,
munka datoztenak irrintzika, biotzaren erdira.

* Olerti 8 (1966, 1-2.zenb.) 69-75.

Arruz-arru ta, zeru goietan gora... izar, laño,
mendi eta zelaiz, iturri garden, emaipe garbiz;
ogia izango dan gariburu, bere ale gorriz
barnez-barne ta sakon-azalez, txikiz-aundiraño...

Gorroto ta maitasunpe, poz eta negar biziz
bere, irripar, itxaropen, begiratze samurrez;
bere esnatze garbi edo eriotasun loikeriz,
bere gurari baikor edo beruntasun baldarrez.

Beti egunari buruz eta, egiari tenka, narrez,
beti, gerokoz, izamin... ai! zer ote bete aldez!
beti, bizia aztertuz bizi billa, muin-barrenez,
beti, bai, amespean, mundua dan itxaso zabalez!

O, biotz! Aldizka, lo-zorrozko negugiro beltzez,
bare-kurkullu antzera, burua estalduta, nekez...
edo, adar iasoakin barazki billa goitasunez
erabat nabilte agurka, Udaberriari oles.

Auxe da bizitza eta, ementxe naiz zauritua,
bidean zutitu, bidean etzan, gogoz nekatua;
ementxe il-ikaraz ta, biziari deika aizetua,
gizalur aztunez ain emen eta urrutiratua.

Eskuak egunera beartu eta, ametsak berrituz
ementxe naiz bidea gozartuz iturriz-iturri;
ementxe bai, egunbera, negar-malkoak legortuz,
iantzi alai bat ezin soñeratuz gogo illari.

Eta, ainbeste ur-azaleratze, borbor ixillez,
ementxe naiz eman-emana, ibai eta zelaiez;
ementxe, egunberri bakoitzari darion ederrez,
ementxe bai, begiakin eleka itxaropen betez.

II

Olaxe egibera, malluka, bizian emaitua...
nere amets, nere gurari, biotztasun apalez,
bideak narama izardi-kezkatan barrendua,
nere egaltxo, bazter batean izateko pozez.

Eta, giza-erlauntzarteko aize bigun, ekaitzez,
bizia dabilkit besape, nere arima bazterrez,
oñetan gilbera, muxu-laztanka, muin-azalez
txustar billa, nun egunduko arratsik izartsuenez.

Eta, izar-erriak ikustatuz munduaren egalez,
egunoroko balbe, egunoroko argi-itzalpez,
bizia dariot kutunki, nekezko zauri gordiñez,
bizia dariot minsor, nere arima ta gorputzez.

Lur amaren egope, on-ederra dan ekin garbiz,
nerezko betean... ementxe naiz esku, bizi billa;
ementxe bai, danez galdua etorri azalgarriz,
ementxe gerokoz, soindu eziñik egiaren zilla.

Eta, biziz-bizi, bere arnas-berritze, sorkundez...
eskura datorkit guztia, aldakuntza sakonez;
eskura datorkit argi-mintzaira, aize zorgiñez,
egun-oñeratze ta, itzal-doñuzko dei kutunez.

Eskura datorkit bai, bere igarokuntza beartsuz,
bidezko diran sasi ta sastraka, esiak garbituz;
ixilpe urduriz datorkit bai, oñots alegintsuz,
biotzaren utsune eta, arima bitarteak betetuz.

Lore-pinportasun eta, ezetasunezko iantziz,
Udaberriak bezela adar utsak orri-berrituz
edo, Udazken antzera, orbel illak oinperatuz,
bidebera nabilte, ametsik onenak erantziz.

Olaxe, egunka... asmo zindo, amets-lillurakin,
bai baserririk baserri ta, bere arto-gariakin;
uriaren kalegiro urduri, neonezko argiakin,
twist ta muist bere zinema eta aurrerapenakin.

Bidean naiz zer neretuko egun, geroari emana,
beti, egi billa nere eguerdi eta, arratsez;
beti arimaz zirkindua beti, bai, neregana,
oinkada bakoitzeko ogi ta egun-irabaztez.

Eta, dana da, argi-unezko ale pozgarri bat,
dana, arpegi ikuste bakan, bizitza berri bat,
dana, utzi-bearrezko doñu igeskor, ildura bat,
dana, eriotz-bildumazko orbeltasun triste bat.

Batzuetan, ai! zerurik argienari —ene baitara—
bere itzal, gautasun, tristura illuna dario;
beste batzuetan gaurik illunerari, maitebera,
nere pozak bere, izar, goirik argiena damaio.

Eta, nere lur, itxaso, biotz-ibarretako lañoak
nerekin datozte bizi-ikara, bide laztantsuz;
nere zelai eta larre, nere alor eta, soroak
nerekin datozte bai, nerea izatera lagunduz.

III

Eta, naizen ezer-ez uts au bizirik naizen arte,
betiko gorabera minkatzez, Izadiz galdezka,
egunik egunera, mintzo ixillean, bakarka,
neretu eziñik, Iaungoikoka, gosez naramate...

Itxasoratuz naramate bultzada ariñetan,
il-dardaraz naramate bai, bizitzako uiñetan,
bere ondar-malko, bere kresal gatzitasunez,
eskura datorkidazan odei-bitarte laztanez...

Eta, arri, zugaitz, ibai, iturri... bai, egiak dira,
beatz-begipean betikoz dabiltzanak neretan;
maldan gora, bidearen utsune, bidearen koskatan
beretuz naramatenak argiaren bide argira...

Egunka naramate bidezko amets-eskuratzez,
egunaren biotza azter ta, gauarena zulatuz,
kilikilitasunez naramate erantzun eskez,
esku minduok otoi, arrenka, egietara beartuz.

Olaxe bidenabar, goi-arimaratze ausnartsuz,
dei ezti, mintzakorrez, gauzak, bai, berean naukate;
barnez-barne itaunka, ene zeru lurrak egatuz,
bere osin sakonera, goituz-goituz naramate...

Nerezko biozkadak dira bai ta, Izadi bitartez
nere itxaso, nere zelai, amets-atedi zabalez,
kezka-arduratan ditudanak albiste min, lorrez...
beti, nekepean, egiaren atzez-atze, deadarrez!

Mintzo ixillez begipe datorkidan igurdi ori...
biziaren iraun, mindura, bidezko nai, alaia da:
biziaren oñaze latz, biziaren arnas suspergarri,
bere gatz ta, berakatzezko oretasun bildura.

Auxe da bai, lor estuz, bizitzako ioan-etorriz
bidearen zauri! Gure aurretik ta, gugaz batera
doana..., argi-itzalpean norezka, gose-egarriz
bidegune bakoitzaren eten eta berbizkera!

Auxe betiko goradi, gau-egun, amets-berritze
biotzaren ikara-eguzkikorrez ernemindua!
Auxe benetako eriotz, itxaropen lurperatze
egunoro iantzi berriz egunoro lokastua!

Baño ezkutuak ixillari eman, biotza irauliz
neretuz nabil bai, zugatzondo, ibai ta belardiz...
alako latsondo, alako bazter, mendi, iturriz,
nere goi-egada argi-ametsak piztu itzaliz.

Neretuz nabil bai, egunaren uneak eskuratuz,
alako bidelagun, alako gizon ta emaztez;
alako ume, zar-gaztez... ainbeste bide bioztuz,
egunoroko begi-irripar, alkar ezagutzez.

Ta, bidezko bidetasun garbi, lagun urkoratzez,
nereak ditut bai, illargi eta eguzkiaren poza;
nereak neguko mindura, elurraren txuri otza,
aldiari dariotenak bere bizi, indar aldatzez.

## IV

Nereak ipar-aize garbi eta itxasoaren orroak,
ekaitz-aldietako zigortasun, negar-intziriak;
nereak, urpeko zeru-berritu illargiz iantziak,
ta, aizepean, eroriz lurrera datozten ostoak...

Nereak orririk orrirako aizearen ibilliak,
odei arinketa eta, eguzki sarrera gorriak;
nereak arginabarreko goi oztin, esnatze garbiak,
poz betea dakarren goiz-ikaratxo amesgarriak.

Nereak goizeko ego-txintada ta, arrats epelak
iantzi-erantzi ezberdiñez bizira datoztenak;
nereak kantari diran txitxarra eta, bai igelak,
maite-aldietan alai, illargiari deitzen diotenak.

Eta, itz dagit bai, barrenki, nere lur, bidezkoakin,
itz dagit nere zelai, nere zugaitz, arkaitzakin;
itz dagit eskua luzatuz, il ziran gurasoakin
eta, nere arima zar ta zeruko izarrakin.

Itz dagiot bai, ni izan nintzan ama maitearen ume
eta ni izan nintzan gazte bizkor ta mutillari;
itz dagiot bai, egunbera, galdetuz nere buruari
nola iaso nitun ainbeste guda eta gurutze!

Itz dagit, eta, itxaroz nabil bizitza betean,
biotz zauriak eguzkitu eta, ezurrak alaituz
itz dagit bai, otoika, oinbidea pozez agurtuz
norberatzerik ta, ederrena dan besteratzean...

Eta, ibilliz daurkit bideari darion ederra,
bai, larrosa txuri-gorriz ta, elorriaren latz, miñez...
bai eremu legor, edo, Iorrail euritsuaren belarrez
ain eskurakor, berez naraman igesi lasterra.

Bide ortaz txakur zital batzuek, amurruz diardute
zaunkari... eta, bare zikin, suge itxusiak narrez,
bideari, ai! bere loitasuna ezarri nai diote,
ainbeste adur-arrastaka, zatarkeri likiñez!

Erabat, au ikuskizun, aldaketa negargarri;
au munduaren itzalpe, gezurtasun, zori-naastua,
au gari ereintza argal, alerik ez dun lastua,
illunbiderik ezezkorrenaren azao sugarri!

Tximist bildurgarriak ere iabetu dira goiakin
ta ekaitzak asarre io gaitu arima izutuan;
ta bein ta berriz emen gera, eurite, ugoldiakin,
gorrotoz inguruturtako lurralde azpituan.

Ondar bigunera datozten olatu beltzak dira,
bata-bestearen gibel, bere erokeri gogorrez,
bits-aparretan, ontziak eraso, iruntsi bearrez...
ai! orroaka datozten pizti, otso maltzurrak dira.

Alere... bizitza, bere goibera, zoztor guztiakin
maitagarri da bai, eta, eramangarri benetan,
bai gaztaro argikor eta, elduaro garaienetan,
berezko orbel erori, lillura igeskorrakin.

Maitagarri osasunezko oñeratze bakoitza,
urregorrizko ari ezez, amets garbiz egiña;
maitagarri Udaberri garatuaren goi aratza,
bere goitasun azal-berritze ta, ego ariña...

## V

Gazigeza diran bizigai ta, ozkarbi legunez
bai, arriaren aztun, egozko bide urdin zabalez...
bidean naiz erori-zutituz, negar atsegiñez,
bidean goramin, egunaren eskukada gordiñez.

Olaxe bizitzako goibera, biozbegi, eskuartez...
betikoz nabil, betirik betira, begiak irikiz
eta, egia zer dan, zer eztan, naizena eskeñiz
bidegune bakoitzak dakarren arimatasunez.

Eta, nere ibilbide, amets-aizeratze auetan,
(oñak lur-zale dirala ta, gogoa izarretan)
gauza guztiak naukate bere muin ta ondarretan,
goi-ikaraz sortutako berezitasun garbietan.

Baño, aldizka, bakar-unezko gogai aztunetan;
bizi-eraso, amets illun ta nekaldi gorrietan,
eriotza datorkit bai, ixilki, belarri ondora:
«ai! zu ere, betiko iaioa ez, betiko ez zera!».

Aurpegi zimur, zurbildua ta, belaunak eratsiz
irudi negartiak dira bai, oldozkun beltzetan
oial illun-illunez datoztenak nere oarketan,
aizeari emanak azkena dan illeta eresiz...

Ta, zearo larritua, odol-izardi otza darorkit
eta begiak aul, belaunburuak askosaz aulago;
ziprez-irudizko bide samingarri bat dabilkit
eta, nerez at, ilkizun beltzari iosia nago...

Zega zorrotzaren ebaki, eriozko il usaira,
arrano erpatsu, bela beltzak etorriko dira
eta, gautxori egada eta, karraxiakin batera,
arrak ere, kirrin-karrankaz, esnatuko dira...

Ara ba, emen nere burua, gorputza zan guztia,
ezerrez dan auts ustel, lur apurño baten biurtua;
ara emen nere odol ta ain maitea zan bizia,
oarkizun mingarriz betiko ixillean bildua.

Eta, oinpean zapaldutako belarra bezela,
ementxe naiz ezin bizkortu, ezin iasoz burua;
ementxe, egoa ausi dioten txoriaren antzera,
negar-irudi beltzenetan lurrera makurtua.

Alere... O, atsegin, pozgarri zait bai, eskuetara
goiz-arratsez datorkidan bizi-oñots, aizekada;
atsegin zait bai, gau ondorengo itzartze algara,
eguna luzatuz datorkidan bizitza dardara!

Eta, izatea dan amets-giro, egun baikorretan,
atsegin zait bai eta, begiak argiz ditudan arte...
ai! nere azken-arnasaldiko il-begiratzean,
egi... ikusterik argiena emango al didate!

## ARRATS BIDEZ*

Aize bultzada zakarrez,
zugaitz adarretan beera,
orri erortze itunean,
eriotza dator lurrera,
negar oñaze betean
bidegunea intziirituz,
amaika amets-orbelez!

Ez argi ez maitetasun...
aize ulutiak dakarren
doñu beltz, doñu itsuan,
adar gorrietako laño
ilduratasun negartian,
kabi zarrak utsik dagoz
bakartade mingarrian.

Neguaren ikutukera,
oldozbide illunetan...
Au azpitasun beltzura,
azken-orri zimeletan!:
Orri batzuk estu dira,
aritxo baten pentzura,
noiz izango ote dan...!

O!, Lenaren bide argi,
bide egakor, bereziak;
bide latz, bide egokiak,
ioandako bide amesti,
bide zabal, bide maiteak...
amaika aldiz, kutunki,
biotz-gogoz laztanduak!

* Bidean gora, 135-136; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 38.

Baña, oraindik bizirik...
bizirik dagoz egaletan;
bizirik maite besarka,
gazteago zan odolaren
irakin, gar kutunetan;
bizirik eder-ikutuka,
amets-gela bazterretan!

Bizirik gogoz, deadarka,
gaztetasun ibilpide,
begiratze samurretan;
bizirik lore dardaraz,
mintzo ixil baikorretan;
Udaberriaren onuraz
egunbide argienetan!

Bizirik arantza artean,
lorerik bikañenean...
bizirik laño-tarteka,
urte aztunak dakarten
lausotasun illunean;
bizirik oroi-edaska,
igaro zan ur garbian.

Bizirik dagoz negarrez
esku, azal ximurretan;
zimendu zarreko orma
t'edergallu berezietan;
bizirik, bai, zer oteka
ibaiaren agurraldi,
azkenengo ur-tantoetan.

Bizirik, malko erori
ta, indar-neurketa makal,
belaunburu zar, auletan;
bizirik ioanak diran
begi lauso, itzalean;
bizirik bai, otz-ikara,
ezur, gerri-gogorretan!

Bizirik landare berri,
ondorengo diran seme
eta, alaba maiteetan;
bizirik bai, ain pozgarri
indartuz datozten mendu,
aingerutxo errugabe,
gure etorri garbietan!

## GORAKUNDE*

Egun garbi eder batean, oñak bideratuz
utza-erditze ikusgarriz, eguzkibera,
ain emea dan goitasun, igarotze legunez
begiak egarbera, Iainko aztarna alaitsuz...
belardi, landa, baso, mendi, arnas berriz
iparra bigun, gozoki dator bai, lurrera,
ur azaletako uin bereziakin itzegiñez,
alako... bizi-ausnartze, egada biotzgarriz...

* *Bidean gora*, 69-70; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 39-40.

Eta, goi, bidari taldeak doazten bitartean,
arnas billa, biderik bide... bai, ondarreta,
zelai, errekondo, itzalpe atsegiñetara,
eguzki ta aize billa doazen bitartean,
ni ere, nereak narama bai, zerbaiten pozez
tantai urtetsu, larre, soro ta, baserriakin
unea, uneka gozartuz, bideari galdetuz,
bideak narama neretua, bere oñots ezez...

Eta, eskurakor dabil aizea egun garbiz
dana, bidetasun goigarri baten doñura;
Izadia zutituz dana, bai, belar, landare...
gogo-elebidezko amets, edertza betean,
ikusgai xamur ta, oargarrienak laztanduz
alako, txori, enara azkarrak bezela,
ioan-etorrizko irriztada arin-ariñez,
gañetarako bulzadatan egoak arrotuz.

T'itxaropenezko egungiro barneminduz,
(igezkorra izanda ere gure etorria)
garo usai oiantsu, bidondo itzalgarriz
begiak argiz bete ta, biotz-oñak arinduz
alako betiratze sakon, geroko munduz
emai intziritsu bat, betimiñez dabilgu,
zerbaiten kezkaz, bizitzako bide estuan
muin-muiñetaraño arima dana zirkinduz.

Bidetasun atsegin, Iaungoikogarria da,
biotz-ikara ezti, egimiñez ernaitua...
eskuz-eskuzko elkarketa, Izadi arloz
dana, begirada, otoi garbietan goitua,
dana, bizi-loratze, betiraunezko gogoz,
dana, txingurri-lan, arranotar egobidez
biziari tenka, aundi-txikiz sustartua,
ainbeste amets arildu, barnezko eiotzez.

Eta, ekiñaldi bakoitzaren argitasunez...
O, ze egonaldi eder, egada urduriak
norberetza betean eguna eskuratuz!
O, ze gogo-aizeratze, bioztasun garbiak,
goi-ikarazko geroratze ixil-ixillean,
betikoz-betiko, Izadiaren muin-barnez
Eleizpe aundienean Iaungoikoa aitortuz,
gorakunde bizigarri baten baitasunez!

## IBAIARENA*

Bidebera, bizia arinka, lasterrez,
apur-apurka, ibai ertzetan emanaz...
O, ze gauzak esaten ditun urak,
xurrumur gozoan eta, bertanbera,
zer bidegai ezkutuak agertzen ditun,
aizearekin aopekotan eskuz-esku,
gau-egunezko zerupe aldakorrez,
itxas aundia besarkatu baño len!

Itxaropenezko emai ibilgarriz,
errekaz-erreka ta, kanta-kantari,
biotza ler, taupaka, eskeintza betean...
O, ene aitzarteko iturburu apal,
mendiaren ugatz, iturriño iturri!:
borborka, sorburu gardenez sortua,
egon eziñezko oñaze, minduraz...
ai! nora oa ain artega, igesi?

Itxasorako bideratze beartuan,
ibai-ondoko lur-bazterrak ezetuz
eta, loreakin ederzale, berrimin,
aurrerantza oa amets ausnarrean,
illargi, laño ta, goiko izarrakin,
bideetako egunkera ezberdiñez,
aurrera oa bai, bizitzarekin kutunka,
betikotasuna darion oiartzunez.

Aurrerantza oa bai, geraka, berez...
dana gibel, dana goi, atzean utziz:
zeure lur, zeure izar eta landare,
unero zeure bizitza igeskorra,
ikutu arin, goraldi munkorretan
txustarrik-txustar, ur-tantoka barnetuz...
beti, urduri, beti, bai, berrizale;
beti aurrera, amets-itxaropenez,
biotzaren edergai, zatirik onenak,
bidezko lore eta, zugatz artean,
betiko erein ta betiko erantziz...

Olaxe, igaropen, oroitz biziakin...
bai goiz-gora alai ta arrats itunez;
orri erortze itun, zeru goibelez,
egun bakoitzaren ioan etorrian.
Ara nire ibilliaren itxasoratze!:
goiz argikor ala, illuntze batean?
...Bizi aldatze, unetxo oargabean
elduko naiz bai, azkenengo nerera,
neure itxaso sakon, Egun Aundira!

## O, UDAZKENEKO ARRATSALDE...!*

O, Udazkeneko arratsalde...!
Bai ibai-ondo, baso ta mendiz,
inguruetako bideak ibilliz,
ikusgaiz beterik naukazute.

---

* *Bidean gora*, 75-76; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 40-41.
** *Bidean gora*, 146; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 42.

Aurrez-aurre bai, Izadiarekin,
zer neretza ta, zer etorbide!
Betikotasun gogoz, izamin...
argi-itzalezko eskuratze...

Zerupe ozkarbiaren pozera,
orriak elkar-elkarka aizepe;
ai! eguzkiaren ikutukera,
epeltasun gozoan nabilte.

Ta, dana elduaroz, ori-ori...
urrezko ale emaitza betean;
dana bai, buruz-bera, itunki,
eriotzazko etorri beltzean.

Oritasun umaotuan, alere...
bakoitzak bere muin ta berri,
bere bizi-egoerazko egarri,
bere biotzondotxoa dagerte.

Ta, nire oinkada bakoitzean,
gogaikizun ezkutuz nakarte,
umaotasun, elduaro nekean
Iaungoikoratuz ene begiarte...

Ai! ze igarokuntza oargarri,
nire eguzki ta orbelakin,
nire amets il, amets biziakin
bidea irikiz ene geroari!

## BIOK BATERA*

Biok batera
eta, eguzkia gora...
Ze irriparre,
goiz emea iagi zan
gure artean!

Ezpanak urrez,
begiak biotzez...
bizitzako arloan
dana, eskurakor,
dana, iaio-berri...

Bidean zegon dana,
bidean maitasuna...
—lore eta eguzki—
udaberri betean
dana, ikara bizi!

O, ze goi eskuratze
ta, edertza ederrak
egunaren bidean!
Dana zan ego, lore...
dana, emai pozgarri;
dana, bata-bestezko
ikuste zoragarri!

...Eta, olaxe geurez...
txoriak bezela egan,
elkarbidezko katez...
Gure goiz argia,
ai!, nola egundu zan!

---

* *Bidean gora*, 98; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 43.

## IBILLIZ*

Ibilliz,
eguna bizi
eta irabaziz...
O, zoaz bai,
zeure ardo,
zeure ogiz
zoaz
zeure bidez...
Baño,
ai! bideari,
egunari
ez itsu,
ez gor egin.

Argi eske,
ogi eske...
Bidean
itsuak,
errenak,
tristeak
oiu ixillez
esku bearrean dagoz
oñazez,
arima zauritu
eta, biotz minduak.

Bai, bidean
bidari zera
eta, bidekoari
ez entzungor,
ez ez-ikusi
ez itsu egin.

Zoaz onez
ta, entzun zeure biotz
ta, urkoari;
entzun negar-malkoetan
aizeak minbera
dakarren dei,
dei laztanari.

Entzun gogoz
entzun,
barrenetako eskari
eta, biziari darion
bizi-nai,
anots estuari.

Ibilliz,
eguna bizi
eta, irabaziz...
zoaz bai,
eta izan zaitez
(arako samaritar ona bezela)
Iaungoikoa bere bide-egintzatan,
egin-egiñean daraman bidazti
esku biozgarri.

---

* *Bidean gora*, 79-80; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 44.

## ITZARKUNDE*

Egoz ego
ta orririk orri,
eguzkiaren ikutura
lotan, illik zegon dana,
esnatu da bai bizira.

Belardi eze,
zelai, bide bazterretan
bioleta bakanak,
erlemin daude
ametsez beteak.
Aizeak ere bigunki dakar
oinbide, biotz egoetara,
ioaldi, gogai ariñetan,
etorkizun sutsu, zerutar
bidearen poza.

Argi-iturrietan
iaio-berri dan izarño,
eskutu alaia;
beatzetan gilbera, ikutukor,
eskuetara emez datorkigun
unetxo gozo,
gogai bultzakor,
itxaropen bizia.

Itzarkunde,
goratze, nai bete-betea da,
(itzal-argi-emez iantzia)
udaberri zantzuz
dana, eskurakor,
dana, ikutugarri;
egaka eta narrez,
bide guztietan agertuz
alako goitasun sutsu,
zorionaren guraria...
batzuetan minbera,
—ezbaiaren ezbaiez—
biotzaren erdian estalia.

* *Bidean gora*, 119; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 45-46.

## OROITZA*

Benetako udaldi ederra zan bai,
eta, egunbera,
arratsalde argi eta, eguzkitsuz,
baserri bideari gozoro iarraituz
ibilliz-ibilliz,
arto-garitzaz,
belardi ezez...
nere soin eta,
biotz-begiak eder-kulunkatuz,
ai! ze nereratze pozgarri,
ipar aize biguna zala
egun garbiaren
arnas bizi!

Oinkada arin eta, itxaropenez,
—bai, bide zabal eta, bai, bide txiorrez—
zelairik zelai...
Ai, ze eguzki
ta, aize garbi!
Nerekin mintzan bai, nere
inguma eta txoriekin;
egada goikorretan,
nerekin nebillan bai,
izatekotan, izan...
nere bidezko bide
eta, ametsik ederrenakin.

Lilluraz nebillen bai,
nere bidezko eguntasun garbiz;
bai enara irritzariz
eta, bai zerupe argi,
ikara pozgarriz...
Bideak neraman bai,
nerez-nerezko eguntza
eta, aize zoragarriz.

Eta, soin arin,
nere lillura,
nere ametsakin...
iritzi nintzan iritzi,
errotatxo baten ondora,
eta, an lotu nintzan bai, geldirik,
abots ezti, pozgarri bat entzunik...
ai! antxe lotu nintzan
bideari iarraitu eziñik!

Ura andaparan
eta, errota zarrak klik eta klak;
eta, errota zarrak klik eta klak.

Ura andaparan
ta, abots zoli eder baten doñura,
antxe lotu nintzan bai,
geldi-geldirik...
ai!, ene biotz,
ez iakin zergaitik!

---

* *Bidean gora*, 109-110; Olerti 8 (1966, 3-4.zenb.) 49-51.

# 1967

## ITZARTZE*

Itzarze berri batera nakarren egun
ta bizitzan gora naraman bitarte au...
betorkit egunkera, etorbide onez,
betorkit bere edergai, bere ondasun,
bere goi-ikutu, bere zador-ikara,
bere itzal-argizko uberka sakonez.

Bideratze sendo, alegin bulartsuenez
begiak argiz eleka ta, eskuok gorestuz
betorkit, biotz-ereintza itxaropentsuz,
betorkit zantzu berri, arnas betikorrez
betorkit, egia oñarritu, egia gainduz,
bein ta berriz oñera nakarren egun au...

Ai! Ez! Egun bat geiago ez bedi izan!
Alperrik ibil, bizi izandako egun,
alperrik galdutako egun uts, illun...
olako egun ezerreztu, egun illik,
olako egun ondatu, egun galdurik,
ez bedi iñoiz olako egunik izan.

Noan bai, geiago egunik ez galtzera
alkarbidezko etorkizun, izatera;
noan bai egia goituz, egiaren aldera,
noan gizabidez gizonaren bidera,
noan biziaren oñaze, pozaldietara,
bere beartasun ta zori ezberdiñera.

Ogi, ardo... Bai, bizia eskatuz nator
bizitz egokiago baten alegiñera;
bizia eskatuz nator biziari deika,
eramankorrago litzaken etorkizun
ta, bizitza argiago, bizitza onago,
bizitza urkoago eder baten bidera.

Bata-bestezko argibide eskugarriz,
gure biotz-gogo, baratz alorrak landuz...
(garisoro burutsu, artoarte goigarriz)
emen nator, ementxe, ogia eskatuz,
ain bearrezko diran bizigai, igaliz,
ementxe bai, gurarik onenak aletuz[a].

Bai, ugaritu bediz gizonaren altxor,
bere zugatz, bere soro, emai garbiak;
ugaritu bere maikide, bere sendiak
bearrezko diran onuraz, tontor ta montor,
ugaritu ogasun, etxeko abereak,
anaitasun bizia dakarren bideak!

Betor bai, onez, gogozkoa dan gurari:
gizonari bide-alkartuz letorkion
argiratze etorritsu, egun eder ori!
Betor ainbesteko goitasuna lekarkion
azkatasun-emai, ur garbizko iturri,
egunik argien, egunik ederren ori!

---

* Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 11-12 *(A)*; *Bidean gora*, 167-168 *(B)*.
[a] *Bertzo au B'n* ez da agiri.

## UDABERRIARENA*

Neguko illundura
eta bere elurgiro
eskuarte otzez;
aize nastuaren ainkada,
gogortasun zakarrez;
bere egun gorrietako
lo-zorro,
eurite,
lei,
izotzez...
bere laño,
bizi azpiratu
goibeltasun gordiñez;
bere gau-egunetako
izar-utsune,
bere egun motz
eta, gau luzez...

Lurra,
gure lur,
euzko lur au...
minbera,
itunik dabil
bere eguzki-gosezko
ixil-aldi,
amatasun bearrez.

Baño,
lurra eztago ez geldirik,
eztago atzera begira
geldi eta illik;
bere loaldi
oñazepean,
lan dagi...
bizia barrenduz
gerokotuz,
izan-naiaren
maite-intziriz,
bere magalean
sor-gor,
ekin ixillean
lan dagi,
eguzkia noiz goituko
bere zeru urdiñean.

Eta,
ara or,
nundik nora!

Eguna luzatuz,
argitzen
itzartzen,
bizia edertuz
berotzen ari da bai.

Egun batetik bestera
ta erdi igerri gabe...
O, Udaberri!:
egalak apainduz,
iantziz...
etorri zatorz bai,
orain orritxo bat
gero beste bat,
bideak argiz bete
eta, pinportuz.
Au bizi-erditze
amesgai goigarri!

Eguzkiaren berotasun epel
aize bigunera,
lurra
ezetuz,
iantziz...
edertuz dator bai,
egunari,
bideari
beste antz,
beste itxaropen,
beste izakera,
beste abiada,

* Olerti 9 (1967, 1-2.zenb.) 39-41.

bizi-nai
gogo berri bat ezarriz.

Dana
elburu
iraun-katez,
Iaungoikozko
mirari aundi bat bezela,
bere goi garbi,
itxaropenezko
garatasun lerdenez.
Dana,
izanetik
izanera;
dana,
izanez-izan
ler-min,
izatekotan...
Dana, goietan-gora,
neskatx pinpirin,
neskatx panpoxa,
neskatx larrosatu
pinportu baten antzera.

O, etorri zatorz bai,
ikara-ikara
eta, bat-batean
izadiai,
bultzaraziz.

Ala ere,
o, Udaberri!:
eztakit
ate-ondo,
biotz danetara
iritziko zeran;
eztakit ez
zure loregiro,
egun-argitze,
itzarkera ederrez...
eztakit langilleak,
beartsuak,
asetuko
alaituko ote diran.

Eztakit ez
zure odol,
arnas-berritze
zure etorrera
eta, bizi-goramindu
bizi sortu-berri oni...

Ai! Eztakit,
eztakit ez,
ainbeste gizon ixil-azik,
ainbeste gizon minberatu,
gizon giltzapetuk...
Eztakit ez,
o, Udaberri!
eztakit
zer arrera,
zer agur,
zer ongi-etorriz
artuko zaitun;
eztakit ez
zer biotzondoz eskertu,
eskuratuko zaitun!
Ai!, eztakit ez...
Gizona gizonduz
biotzeragotuz...
eztakit ez,
nik nai nuken Udaberri ori;
nik nai nuken indar,
gogo-berritze,
nik nai nuken bizi-gorakunde,
nik nai nuken
Udaberririk Udaberrituaneko
alkar-eresi,
gizatasunezko
biotz-bideratze,
edertzarik ederren ori...

Ai! Ez,
eztakit ez
bein ere,
nik nai nuken alker-lorakuntza,
maiatz argieneko

egun argi ori...
eztakit ez,
danentzako lore-txorrotxiotu
eta, bene-benetan Udaberri,
Udaberririk Udaberriena
izatera,
eztakit...
Ai!
eztakit ez,
bein ere iritziko ote dan!

## MAITETASUN*

Bai, olaxe, bai...
ego ganian dator alai,
urrezko iantziz eguzkitara,
ler-zori, eder-ikara,
ezpanetan loretua
irripar ezbai...

Itzik gabeko abotsa da,
begietan ernai;
ele zar baten ikara berria,
betikotasunetan.

## IZARRIK EDERRENA**

Gaurik argienaren
izar guztiakin batera,
itxaropena goitu da.

O, ene maite-maitea!
O, biotz! Zure izena
guztiz eder-ederra da.

Ederretan ederrena,
izarrak baiño gorago,
askoz gorago dagoana!

## AMETSA***

Egunarekin etorri
eta, gauarekin aldegin...
O, ba'neki zer esan, bai!

Ametsa, besterik ez zan:
O, ene biotz erori,
ez eman, ez, negarrari!

Bai, berriz ere, eguna
argi-gozoz iantziko da,
poza emanaz biziari.

Egunarekin etorri
eta gauarekin aldegin...
ai! eutsi gogoz bideari!

* Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 48.
** Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 49.
*** Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 49.

## ONOIMEN*

Aldi eta, bide ioanak gogoratuz
bizi-elduaro umaotuz gainbera,
ille txuriakin, oarkizun itunez...
O, ene maite! Oroitzen al'zera
gaurik argitsuenaren izarratuz,
nola, ai! gure naia egundu zan
egun-senti bigun eskuratienez?

Oñak aidean, bizitzaren egarriz
beatzakin ikutuz zeru ederrean,
erlebide eztikari, gogo ariñez...
eskukada, ale aundienetakoa zan,
ametsak loran, goiz-gora, eguerdiz...
bideratzerik alai, argienean,
biotzari pausoz-pauso egaraziz!

Odol-irakin, iturritza gartsuz
bide ikusgarri, ibilgarria zan
bere apaindura, eskeintza betez,
gaztetasun-giroz egoak arrotuz
ta, aizearekin aizeak, goi barean
alako, goxotasun bat aurkituz
begirik begirako zeruratzean.

Betikotasun-iraun-aleak eioz,
unea... deika zetorren bai, bidetuz
negar-oñazeak, oztopotxoak gainduz,
dana ioanez dana, gero etortekoz,
zeru-lurretan ta, urteak igaroz
eundaka eunkiak, unerik unera
ernemindu zuten azi ta, gogoz.

Oroitzen al'zera oroitu lenez...
gazte-deadar alai, gure zorionez?
Bizia zan bai, geureka bizi-eskez
—malkoak iruntsi, ametsak eralgiz—
begiak ederbidetuz gau-egunez,
bizia zan bai, eskuartean laztanka,
iturriño garden, emai garbienez.

Aldia garaituz ta, bere sorbaldaz
bizia zan begietan gora, betikoz...
belar, intz-zerukari ta garotzaz,
zelai-iturriz, txoriakin zugaitzez,
bizia kalez-kale ta, mendi gañez,
oinkada ariñetan bata-besteka
lenaren oiartzun ta, etorbidez.

Itxaropen-arloak gaurgero landuz,
etorki zai..., —geure egunaren billa—
itzak lermin, biotz ateak irikiz
eskuka, lerden, intziri goigarriz
muinik muin... itzak baiteka zetozten,
begitasun bikain, aize gozatsuz,
muño goi goienetaraño iritziz!

Eguzkiak eta Illargiak bultzatuz
dana, maitezko bidearen pozera,
giartsu, geuretuz zetorren eguna,
argi-lorez eta, eskutik eskura
ikara berrietan aizea alaituz,
gañezka zetorren ta, irrintzika
emai sakon, ur garbiaren doñura.

Abots eztikari, ur biziena zan
mendibide, zelai, biotz egaletan...
karraxika gure muin ta, odolean
deika, goi bearrez, ernai, zabal,
barne-txustarretaraño emaitua,
noiz argiratuko loretza betean,
Izen maitagarri zeru biurtua!

Deika zetorren bai, dardara emez,
gure lur, gure biotz odol ezean;
deika zetorren itxaso ta, aizez
ametsak metatuz gure aldamenean,
deika, berarizko indar, eskuartez
begietan goi, eskeintza ixillean
illun-auste, biderik ederrenez!

---

* Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 50-55.

Bidearen erdi-une, arratsaldera,
giroa zan biotzaldi, eguzkibidez...
—lizar sendoak bezela azal guriz—
gorati zetorren bizia, bultzaka
gogo urduri, aizemin ariñez,
emai gartsu, gurena zan iturriz,
etorkizunezko eguneratzez.

Eta, egun orren pozera, nabarmen,
eskuratuz zetozten urre-bitxiz...
gure amets, gure itzaropenakin,
gogai eme elkartietan ausnartu
eta, lurrin gozo, usai gelgarriz
biotz-eskuzko arimatasunetan,
begien sakonera geuretu giñan.

Ze biozbide ederrak amets-txortaz
eta ze ariñak gure egakadak,
bizitzan gora, biziari agurka,
pozkario xamur, ikutu goxoenaz!
Ze bidetasun, elkar berriketak
gure egonaldi, gure ibillietan
gogozko izar, izenik gurenaz!

T'emakume izate iazekoaren
soinkera garbi eta, goitasunez...
Iainkoak bakarrik eman lezaken
biderik zindo, egun pozkorrenez,
otoitzez edertua azaldu ziñan,
(zugatz-orriak aizearekin bezela,
arima guztiarekin itzegiñez!).

O! Argia zan bai, nereratu zana
—izpi alai, iturriño zerukari,
egunaren irripar legunena—
eskuz-esku, bere deitura maitez
gogo-muiñetaraño barneratuz,
arriak ere, ixillezko egonean
ain begiko eta berea zutena!

Bideratze alai! Biotzez egatuak,
goibeakin iabetu giñan bai, pozez,
lillura ezti, betikoz uztartuak...
nun, nola, zer, noiz..., geuretza betean,
pausorik pausora, ekintza ederrez,
ur arinkaria bezela ibilmin,
gogozko urbide, itxasoratzez!

Ta, egun orren bidez, gaiñik-gain,
ze eguzki-illargiak geuretu ziran,
eskurik eskurako zeruratzez!
Ze, ale bizigarriak sortu ziran
gorputz-arimaz, lillura betean
elkarbide gurenak aizeminduz,
ainbeste asmo berri, eskuratzez!

Ta, bide nola arindu, bidetu zan
geroaren doñu, egal zerukariz,
nola, alde batetik ta bestera,
itxaropenez iantzi, edertu zan
alde guztietan bizi-aupadaka,
naretasun garbi, maitezko zoriz
ta, lorekuntzarik betegarrienean!

Argia bigun ta, aizea bigunago...
Egun-irabazte zerutarretan,
gurekin bat Izadia esnatu zan,
gurekin mendi, zelai, iturriak...
gurekin itxaso, bizidun... dana
ezetasun ta, maite-ariz iosiak
eztei-aupada, eskontza garbietan.

Eta, gurari gurena baieztuz,
biotz-arimaz zantzoka, elkarrez
ta, bidea leunduz unetik unera,
poz-ikara, amesbide loretsuenez...
Ai! Udaberririk Udaberrienean
bata-bestea laguntzara beartuz,
geuretu giñan, Egun baikorrenez!

Neke, oñaze, arazoak leporatuz...
bai, bata-bestezko uneak ziran,
ta, bata-besteka biotzak argituz
bata-besteari eutsi ta, lagunduz...
egunbide ibilgarriak ziran bai,
alai-aldi eta, estutasunetan,
ore goigarriz bizia ianarituz.

Eta, geure gatz, ogi arduratsuz,
egunoroko lor, irabaziakin...
biotzak erein ta, ametsak iorratuz,
bata-bestezko artu-emantxoakin
egunak berritu eta, laztanduz
geureka goaz bai, oinbide narean,
amets-orbelpean burua makurtuz.

Geureka goaz elduarozko bidez,
amaika bizi-aldi sor-berrituz,
amaika gogai, eder-une egunduz;
aurrera goaz geure goiz-arratsez,
geure pozaldi ta, geure naigabez,
bata-bestezko asmo ta iokera,
pausorik pausorako betiratzez.

Aurrera goaz bideari iarraituz
elkar-uztarriaren irauntasunez,
aurrera goaz egungiro bakoitzez,
bidezko argi, emai, bere gogoz
ta, bere ale gorri ta, bere lastoz
biziaren malladi ta, goiberatan
amaikatxo itxaropen lauskituz!

Ta, egunoroko ibilli, ioatez,
bidetasun goigarri, nekezetan,
egunoroko emai, geroratzez
argimin, egitasuntxo urduriz...
geure zori, izatearen egalez
aurrera goaz bai, bide-bazterretan
zerbait kutun ta gurea zana utziz!

Emanez-emanez goaz bai, geurez
bein eta berriz lenera itzuliz...
gure mendi, zelai, itxas-ertzez
alako itzalpe, izkutu gozo,
alako egun eta, alako bide...
alako lagun eta, alako etxe
gure amets-eskuartera ekarriz.

Ai, biotz! Oroitzen al'zera lenez?
—Gaur ille txuri, neguratze otzez...
amets ill, ioanak dira... Orain emen,
gure seme-alabatan berpiztuak,
goramin datoztenak, zorion bearrez
bizialdi berrirantza bideratuak,
egun eskuragarri baten pozez!

Bai, ezti-usaia erleka susmatuz,
gazteak dira bizia daramatenak,
aize iaio-berri ta, amets ernean...
gazteak dira aurrera datoztenak,
zeru garbiko lore ingumatuz,
gazteak dira bai, indar-indarrean
biarko eguntza argiaren iabeak!

Gazteak dira bai, geroaren oñarri
begi argi ta, soñeko azal garbiz,
Udaberri-lorez iantzi diranak;
gazteak dira bai, lorketa pozgarriz,
gure belaun makal, gorputz erori
gure, emaitza emanaren emanak...
orbel ondorengo oztotza berri!

Zantzo alai eta, oñots goikariz
gazteak dira bai, mendu pozgarriz
gure egun beratien eutsigarri;
gure bidetasun ta, gure esku,
gazteak dira gure biziaren bizi,
gure gatz, ore ta, odol berritu
amaika amesetaren iturri!

## ILDURA*

Arima mindu ta ilduratiari bultzatuz,
urrillean gora, orri orbandu, zimelez...
Ego-aize zoro, Udazkeneko ikutuz,
ai! beerati datza bizia, zugaitz adarrez!

O, au bide, barnebide... egada oargarri!
Umaotasun, elduaroz, orbel antzo eroriz,
bidean gora, itxaropen onenak utziz,
gorputz makurtuarekin, ai, biotz, au irudi!

Au soñaren beraldi, azkenbide ituna!:
unero ezkutuki, gogo-muin zañetara,
begipe aul-aulez lausotuz datorkiguna!

Oñerdi, une bat geiago... Ai, gu, zer gera!
Gure indar, arrokeri, gure bizitz, dana...
Aizeak daraman orbel ustelkor, etzana!

## ASKO DIRA BAI**

Itz ezezkor, itz lizun, ustelez...
Bai, asko dira bai, usin garbiak
gizabide gardenak zikinduz,
bizi diranak... asko dira bai,
azpilan biurrizko bideratzez,
lozinkeri legunak arilduz
gorrotoz orbeltzen dituztenak.

Asko dira zitalkeri utsez
iñoren min, iñoren izerdiz,
iñoren odol, lepo bizkarrez
ari diranak... asko dira bai,
iauregi altsu, eliz zuloetan
ardi larruz iantzi oi diranak,
gizona ioputzeko ekiñetan.

Ai! ez ote obe, esku garbi
ta, bata-bestezko beartasunez,
norberaren alegin garbia,
bidezko elkartze argietara,
gure on, ederrari eskeñi?
Ez ote obe esku baikorrez,
lagun urkoaren biotz pakea
eta norberena irabazi?

Gizabidezko egintza onez
begiak urkoarengana itzuliz,
egiari bere bidea irikiz...
alako gizargi maitekorrez,
gizonari gizonkiro lagunduz...
ai! ez ote obe, eskuz esku,
bekoki, goi illunak argituz,
Iaungoikoaren eskuetan bizi?

---

* *Bidean gora*, 144; Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 56.
** *Bidean gora*, 149; Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 57.

## KAIERATZE*

Apar-ubera luze-luze bat,
bere gibel, bere atzean
uretan utziz...
eta,
itxas-txori arro,
kaio
nabarmen batzuek,
txilioka,
bere goi
aldamenean dituala...
ara or,
koxkortzen,
eguntzen ari dan
goiz ederreko,
goiz garbiko
zerupe oztin,
eguzki argitan...
ara or,
Pasai'ko sarrera estuan
kaierantza,
errirantza,
nun azaltzen dan
itxasontzi
zarkote,
aundi,
itxasontzi
apal bat...
bere zorioneko aize-giro
ipar ezearen ikutu
ozkirriz,
bere kresal-sundazko lorratz
ebaki gatzitu askoren
oñaze mingarri
ta atsegiñez...
ara nun datorren
bizi billa,
erri billa,
apaltasun dotorez
bere branka aurrea
txalotzen dion zipili-zapaladazko
ur eme, ur iaukal,
ur barearen ebakitze,
besarkada laztanez.

O, bai, errira dator errira,
bere amets-ondasun,
bere ikurrin ta ezaugarri,
turutots pozgarriz.

Errira dator
atseden eske...
Bizi gosez,
erri gosez,
deika biziari...
O, Iainkoak iakin bai, nundik nora,
Iainkoak iakin nola ibilli diran!
Iainkoak iakin
bakoitzak
bere biotz,
bere muin-barrenean,
bakoitzak
bere gogo,
esku artean...
zer amets-irudi,
zer berri,
onezko dakarren!

Europa, Amerika, Asia, Apirka zear...
bere neke, bere ibilliak
nai dituanak iakin...
bere itxas-bideetako
estura,
larritasunak;
bere munduz zearko
bide latz,
bide ibilgarriak;
bere aize-giro osasuntsu,
aize eder...

---

* *Bidean gora*, 86-89; Olerti 9 (1967, 3-4.zenb.) 58-61.

bere lillura ta berriak
nai dituanak iakin...
ta, ainbeste lurralde,
atzerrietako uri...
ainbeste piñu, aritz, pago,
edo palmondoen arteko
aizetasun begiko,
maite-iolasak,
nai dituanak iakin;
ainbeste ortzipe,
egal zoragarri...
ainbeste aberastasun ta miseri,
ainbeste kezkabide
ta urduritasun urduri,
ainbeste gau-egun triste,
egun galduren
zorion ta berriak
nai dituanak iakin...

O, galdetu,
galdetu bai,
ain ke beltza darion ontziaren
tximini zabalari;
galdetu bere tantai,
erdiko masta nagusiari.
Galdetu bai,
Ipar ta Egoz,
Sortalde ta Sartaldez
ainbeste aize arin,
aize biurriz
bultzatua izan dan ikurriñari.

Galdetu
batez ere,
itxasoarekin bizitz-burruka gogorretan
edo, amets urdiñezko goibide goxoetan,
izarrak gidaritzat ditun gizon orri...

Galdetu
batez ere,
gaur egun argi,
ipar-giro ederrez
bere onerako,
etorri izan dan bezelaxe...
biar ere
ogi billa,
aize billa,
uiñak lagun dituala
itxasoak zear,
amets-kulunka
urrundu,
aldenduko dan itxasontzi
zarkote,
aundi,
apalari...
galdetu biotzez
bere ontziburu ta lemazai,
bakoitza
bere zeregin,
eginbearretan
biar ere,
aldendu,
erbesteratuko dan
itxasgizon,
biotz-buru
bakoitzari...

# 1968

## AIZEAREN KIDEKO...*

Bai, bizi nai degu bai, bizi, ementxe izan,
ta, gero ere izan, egun berri batean!
Izan! Izan! Bai, ni naizen onek dei ta oiu,
oiu dagit neure ezur eta aragipean,
oiu dagit neure izatearen zador oni;
oiu zer ote geran, oiu dagit ta intziri,
neure gizagai, neure gogobide itzaltsu,
barne-muiñetako ari matasa beltzari.

Oiu dagit gure bizitzako ioan-etorri,
gure nortasun, itzal-argizko goi estuari...
oiu dagit gure egun, gure arnasartze,
gure argi-txinpartaren tximist igesi,
gure amets-orbelen eragin, lurreratze,
gure oldozmen, gure ikusmen ikusgarri,
gure ezaumenaren gutasun, argiratze,
«ni» diogun sorburu, gizabide ezkutuari.

Ta, gure biotzaren, gogoaren laño artean,
gure odol, aragiaren sustar barrenean...
deadar ta oiu dagigu Iaungoiko bearrean,
deadar gure bakartaderik bakarrenean,
deadar altzo, magal billa, karraxi batean,
deadar argirik-ezaren utsune-utsean,
gure geroaren sarrera, arrats illunean.

Deadar, oiu dagit bai, leiza-zulo ertzean,
deadar gizonaren goibe, itxaso zabalean,
deadar bere zimaurtza, bere ontasunean...
Gizona dan aingeru, gizona dan belar txar!
Batzuetan onez ta bestetan piztu, xapu zar,
bere ankerkeri ta bere errugetasunean...
ai! deadar dagit ibilli onen gau beltzean,
zer izango arresi orren beste aldean!

---

* *Bidean gora*, 154-158 *(B)*; Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 41-45 *(A)*.

Ta, adin-adiñean, barrenki itzegiñez,
odolaren urmel ezkutu, zurkuluetatik,
odolaren ibaitza, ioan etorrietatik...
bai, emen ari gera bai, geuretu eziñez,
emen ari gera billa, argi aztarrenez,
emen ari gera negar-zotiñez beterik,
ezer-utsezko zabalune gordin-gordiñez...

Ai! zer ote zer, kezkaratzen gaitun bidemin,
zer gure gogo, gure biozgai, izate iaukal,
zer gure gorroto, maitetasunezko itzak,
zer gure arrokeri, gure amets-ausnartze,
zer gure burruka, gure gogai, buru-auste,
zer gure aundigura, gure indar alegin,
zer gure goikeri, gure gezur-irabazte,
gure ondamendizko bizi, buru agertze.

Ta, olaxe une bakoitzeko bidaldietan,
zenbatzu bizi-itxaropen ernetzen diran
abots goxo, abots ezti, abots baten deira...
zenbatzu gora-nai eguzki ta illargira,
zenbatzu erorketa bai usin ta putzura,
bideko arri kaskar, bide lokatz-artez...
bein ta berriz zutituz, beti... izatekotan,
iñoizko egun-sortze, egunik ederrenez!

Ta, gure biotzondo geromindu ezkutuan,
bakar-mintzozko ixil-aldi deigarrienetan,
gure geroaren atedi, barren kezkatsuan,
gure barren-barreneko bitarte estuan...
ai! emen ari gera oldozgai mingarrietan,
(gure bizi-izatearen, geroaren geroan)
emen ari gera billustasun uts-utsean,
izarren bat noiz goituko gure gau beltzean.

Beti zer, nun izango gure aterpe, beti...
Ai, au gauaren gaua! Illunpe bildurgarri!
Emen ari gera geurez, gogai aztunetan,
ementxe biotzeko mami, gure ezurretan,
ai! nola sugarrez erre ta kiskaltzen geran,
odolaren ibai-erreka ta itxasoetan,
nola lur gurenez argi-atxurka gabiltzan,
arimako baratz-soro, egi bazterretan!

Ta geurez-geurezko mintzaldi ta ekiñetan,
bizi-izatezko besteratze, oarpenetan...
Itzak dira bai, itzak, oguzten ditugunak,
lillurazko itz eder, itz bultzakor, ioranak...
biotzez maite-kutunka, egan datozkigunak,
edo, alako... itz illun, itz dollor, zekenak,
gure izakeraren antz ta berri ematean,
gogoz edertu edo zikintzen gaituztenak.

Bai, itza dan itzak..., itz guri, itz giartsuak...
benetako itz sustartsu, itz argi, itz goituak,
nola Iainkoratzen gaitun bere ondasunez,
bere goitasun biozgarri ta bizigarrienez;
ostera, madarikatuzko itz loi, itz gaiztuak,
gure itz biurri, itz aztun ta itsu-itsuak,
nola epotzen gaitun deabrukeri zekenez,
bere muturkeri makur, kopeta illunez.

Ta, itzak itz... gure estura, gogo-oiñazetan,
gure bizitzako ausnartze aldakorretan,
gure oillokeri oillo, ta koldarkerietan,
gure usotasun uso ta biozgarrienetan,
gure maite-girozko lillura bakanetan,
gure gizarteko elkarbide egokietan,
gure gogozko ibillaldi ta egonetan...
ai! zer ote norbaitzen gaitun sugar ori!

Zer ote zer asarreaaren itzalpe aztuna,
zer maitasunaren bularpe goxo, otzana,
zer gure abots garbi, abots sendo, laztana,
zer gure itz arro, gogaikarri ta illuna,
zer gure odolpeko gose eta egarri,
zer gure arnas, gure almen, gure kemena...
O, zer ote zer barnemintzen gaitun illunti,
gutasun onen ezkutapen ta izakuna!

Aizearen kideko, aizearen kideko da bai,
gure ibillaldi, gure biotz-egurasketan,
txinta-txintari, ain begikor ta zoragarri,
muxuz lastantzen gaitun besarkada ori!
Batzuetan larrosatasun, lurrin usaitsuetan
Maiatz-buru, Maiatzik argieneko loregai,
ta, txuri-gorridun odei-ontziz apaindua...
bizi-eskeintzaz betea datorkigu noranai,
bere laztan-mintzozko goi-aldi pozgarrietan,
etorbide emaikorrenez udaberritua.

Beste batzuetan ostera, zigorpean makur,
Otsail illun, Otsail biurri baten antzera,
bere naigabe, argirik-ezaren lor otzez,
bere negar-malko, bere tristura samiñez,
bere illetazko dolumin, illun-illunez,
bere eragozpen mingarrietan erdibitua,
ekaizperik ekaizpe, geroko orren bildur,
il-soñekoz iantzia datorkigu[a], minbera,
gogoaren eriotasun-itzalez negutua.

Ta, odolaren goraldi, burruka bizietan,
gogo deserrituaren soinpe, negar-aldietan,
gure gautasun orbantsu, bidarte latzean...
gure barrunbe erbestetu, esku gabean,
gure amets desegiñetako orbelpetan...
ai! zenbatzu egun-galduzko aize-zirimol
nabaitzen dira gure gogo ta ezurretan,
ta, zenbatzu uskeri utsezko aize ikol,
itxaropenik gabeko ixilpe estuetan!

Olaxe miñez, geure billa gabiltzan arte,
gure barrenbidezko ezkutu ixilletan,
gure itzar-aldi, argibide argienetan,
gure barrenpe, gure goi sakona io arte...
Ai! zenbatzu aize berakor, aize izutik,
zenbatzu aize gogor, aize il ta mingarrik,
astintzen duen gizonaren bitarte ituna,
ioanez-ioan egun bat bezela doakiguna!

Alere... itzal-argizko ogibide latzean,
gure bizi-irabazte, mallukada artean...
zenbatzu goi-egada eder, egun loratze!
zenbatzu izarbide ta lillura ausnartze!
Zutituz, eroriz... egun argi, gau illunez,
gure argalkeri, gure oiñaze, negarpean...
Bai, aizea da bai, bizi-mintzen gaituna:
aize arin, aize bultzakor, aize biguna...

Aizea da bere onbide, bere goi zabalez,
bere ioera begikor, bere ikutu laztanez
besarkatzen eta bereganatzen gaituana...
aize egaztari, aize biozkor, aize lume,
gure pinpirin-pinpirintxo aize kutuna,
Iparretik, Egoatik, nunnaitik datorrena
ta bere oialtasun, biotzondo atsegiñez,
bizitz egoki, on baten poza damaiguna...
aize alaikor, aize loreti, aize erle,
gure aizerik goigarrien, aizerik gurena.

Baita aizea da... aize gorri, aize zekena,
dana sastakatuz, dana, lurreratzen duana...
negar-mintzozko aize gordin, aize ituna,
gure aize lardazkari, biozge ta kirtena,
iñolaz gorets, onetsi ezin daikeguna,
ta, bere indar-aginte, gogorkeri gogorrean,
betiko illerritu, ondatu nai gaituana,
aize berun, aize zital, aize edenduna.

[a] Iantzia datorkigu *B* datorkigu iantzia.

Ikus-ezin nabarmenaren itzal gaiztoko
aize lupu, aize zaputz, aize il, ustela...
argirik-ezaren zimaur ta lokatz arteko
aize naskagarri, aize pozoikor, zikiña,
gure ur geldietako aize likits, zazkala,
gorrotozko aize otz ta firiri-farala...
Negarra ta negarra, odola ta odola,
odola darion aize deunge, aize ergela.
O!, aize on batek ar begi gure eguna,
ioanak-ioan[b], laster batean datorkiguna!

## IBILLALDIA*

### I

Igande,
goiz eder bateko
ipar aize bigunez,
baserri girozko
mendibide osasuntsuz,
bideak geuretuz...

Benetan ibillaldi,
ikuste atsegiñak ziran bai,
bidezko zelai,
latsondo,
zugatzartez...
baserririk baserri,
gure gaztedi alai,
ta bikote ederrakin
zantzo ta irrintziz,
goirik goi,
gero,
egunbera
ene gazte oroimen ioanak
arnas berrituz,
illunabar argiaren
etorrera garbiz.

Eguraste eder,
bidaldi osasungarri!
Egunaren azkenera,
an itxaspe,
urruti-urrutian
eguzkia agurtuz...
Gaua,
gure gau naro,
Udako Gau ederra,
odei arin, txuri-gorri artean...
gautuz-gautuz zetorren
bere izar-tantozko
ixiltasun sakonez...
Gautuz zetorren bai,
bere aopekotasun bare,
bere zador-ikutu,
bere izar-mintzozko
zerudi argi,
zabalaren aunditasunez...
gautuz zetorren,
Illargi beteari eskua eman
ta, gure biotz begietara,

[b] Iona *B* iona.
* ***Bidean gora***, 120-122; Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 120-122.

(ene biotz begietara)
alako egun,
alako ibilbide,
biotzaldi amesgarri baten poza
gogora ekarriz...

## II

Bai.
Len ere
gaur bezela,
eskurik eskurako begiarte
gau-egunak ziran;
bere gurari
ta izan-miñezko
amets-lilluraz sustartuak,
ta, askotan,
egi garratzez
gaur-gero zulatuak...
Bide arin,
bide argi...

O, bai,
gaur ere
urrutikuskin ta irrati,
ainbeste aurrerapen,
iolasbide izanarren...
Gazteak,
beti gazte,
ametsak pillotuz,
ametsak metatuz
bata-bestearen pozera,
lenago bezela
bere kutuntasun,
eskuz-eskuzko
ikusterik baikorrenez,
bai eguzkiz
ta, izar illargipe,
maitari doazte.

Bizia ausnartuz
eskuz-esku...
itz goxo, legunakin,
bidea luzatuz,
bidea betikotu naiean,
geldiro doazte.

Bai,
gazte bideak ziran ta, bideak dira,
ogei urteko gogo,
odol pilpillez...
bizitzan gora,
bizitzan aurrera datoztenak
ametsik ederrenez...

Dana,
maite-girozko itxaropen etorritsu,
eskuarte zoragarriz;
dana,
gazteari,
biotz-begietara datorkion
bizi naitadazko,
zorion egarriz!

## URI BARNEZ*

Uri barnez,
iñurriak bezela kaleak betean,
giza-taldeak aurrera doaz
arinka,
lasterka,
prisaka doaz
askotan
bata-besteari,
ikusi-mikusi
ta entzungor egiñik,
gizabidezko
agurrari.

Aurrera...
bakoitza
bere lan,
zeregiñetara;
bakoitza
bere arazo,
bere iolas,
ibillietara...

Urduri,
geraka,
arin doaz
prisaka...
oñez,
berebillez,
bultziz,
tximistgurdiz
ta, beste olako
tramankulu,
lasterbidez...

Au munduaren gerakatasun
bizi-bear, ibilli estua!
Au, gure geiago bearraren
nabarmenkeri egal itsua!

Nork begiratzen,
luzatzen ote dio
bere biotz,
bere eskua...
menperaturik,
oinperaturik,
min,
oñazpean
ta lurrak ioa
arkitzen dan
lagun urko,
gizaseme zauritu,
eroriari?

O!, ez, ez...
ez degu
ez beta,
ez astirik
oñazepean,
barren-malko,
gogarte itunez...
ez izan,
ez lan,
eskua arrenka luzatuz
argi gosez,
egi gosez
nekepean dabiltzanai
laguntzeko.

Au gizartearen biotzik-ez,
gogortasun, gogo biurri!

Ez degu ez...
ez beta,
ez gogorik;
ez degu
ez adore,
ez kemenik...
egunon goxo pozgarriz,
arratsaldeon egokiz,
gabon zoli aidekorrez,
bidezkoa agurtzeko.

---

* *Bidean gora*, 150-153; Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 49-52.

Ez degu ez,
ez beta
ez astirik,
gure egunetan gora,
bata-besteka
gizarteratuz,
bideak mintzo goxoz edertu
ta, alaitasunak biozturik,
gizon bezela
bizitzeko.

Ez degu ez,
ez anka,
ez bururik,
biotzeko argirik!

Ta, bai ortxe ibilliko da, bai,
ortxe nunbait, ortxe,
gure Iaungoikoa,
bein ta berriz gure billa,
amaika aldiz gurutzetua.
Ortxe dabil bai
guri deika,
itxasoz,
aizez,
biderik bide...
or,
gauzetan murgildua,
noiz itzar,
noiz bereganatuko
ote geran!

Ortxe,
nekazari,
arotz,
argin,
itxasgizon,
izarlari,
txiro ta aberats tartean
ere...
Bai, ortxe dabil,
langille beartsu,
gizon izarditu,
gizon mindu,
oñazetu guztiakin...
ortxe,
bein ta berriz
guri deika,
noiz itzar,
noiz bereganatu,
noiz gizon izatera
bein ta betiko,
iritxiko ote geran!

## MARIGORRINGO*

Uda giroko egun,
goiz garbi eguzkitsu,
goiz eder-ederra zan...
eta, gure mutilla,
mutiko bizkor,
mutiko alai,
mutiko egin-egiña...
goizaren pozez,
landa ta zelaietaz
aizea baño ariñago
bideratu zan,
bizi billa,
bizi billa
ta mamutzetan.

Ta, ain gurea dan Iparra,
bere ortzi oztin,
bere goi zabalez
argi eta garbi,
biderik bide
bere xurrumur ozkirri,
bere ikutu bultzakor,
orriarte atsegiñez...
txirula ta txiruli,
txori ta txirtxillakin
arto garietaz,
goiz-gora zetorren
ain egun ederraren
zorioneko bidez.

---

* Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 53-55.

Eta, mutikoa mutiko,
(salto eta brinko)
dantza dantzari,
aizearekin aizeka
eskuz-esku zebillen
ain gogozko bide,
aizerik ederrenez.

Eta, ainbeste ibilli,
amets-egurastez...
berak nai zuan
gogozko
mamutxo gona gorri,
mamutxo txiki
polit bategaz,
bidean
topo egin zuan
azkenez.

Auxe, auxe mutillaren poza:
Marigorringo, Marigorringo
ia esaten nazun orain,
esaten nazun esan...
—Aize ala euri,
biar zer egualdi,
biar zer egingo?

O, mutiko, mutil!
Ene mutil alai,
ene mutil potingo!
—Putz egiok putz,
putz eta putz...
eta, une batean,
beingo-beingoan,
berialaxe iakingo...

Xomorroa eskuratuz,
gure mutilla bai arro!
Putz eta putz ari zan,
putz eta putz,
ia gure zomorroa,
noiz asiko
goietan gora,
egan!

O, asi ba'zan asi zan...
bere egoak arro-arro,
bere egoak,
zabal zabalik zituala
egada aztun,
baldarrean...

An doa bai, an doa,
oker-okerka
bere ego motzakin
an doa,
egan...
An doa
biar ere,
egun ona,
egun on-ona
izango zala
egaka baieztuz!

## NEGU ONDORENGO ESNATZE*

Loaldi, negu ondorengo
biziratze pozgarri!
Ezetuz,
iantziz,
orriz-orri,
aize ariñez...

O, Udaberri!
Berotuz dator bai, lurra,
bere ekintza goitiar,
esnatze argiz!

* *Bidean gora*, 115-116; Olerti 10 (1968, 1-2.zenb.) 55-56.

Ai, ene biotz,
ene gogo,
ene gorputz aul, zauritu:
biztu zaitez, biztu zu ere,
ametsa darion ernealdi
arnasa betikorrez.

Inguruetan
dana da bai, zirkin,
ikara berria...
dana, aizeak dakarren
bizi xurrumur,
orri-arteko zabalkunde
ikusgarria...
dana da bai,
lorez-lorezko erletasun,
itxaropena darion
goikada alai.

Pozkariozko egoz
egunsortuan mokoka, kantari...
egaka dabiltz txoriak zerukari,
—aidean aide—
deia biziari.
O, au zeruketa
eder, zoragarri!
Ainbeste urretxindor, enara, elai...
mitxeleta arin-ariñak ere bai...

Ta, argia gozoro, zabal, noranai...
bizitzarekin iabetu da ederrez,
ego puntan ta begi-biotzetan gora,
bere emaitzarik bizigarrienez.

O, au etorbide, itxaropen ausnartze!
Au urduritasun zorakor, amets aize!

Txoriak ere gora,
biotzak ere bai...
dana da egada,
berbizte alai!

## BIZI-GORAPEN*

Gora, aupa bizitzaren emaitasuna!
Bai lur,
bai itxasoz
eta bideetako goiz-arrats ibilgarriz,
bizitza dan guztia
norbereka,
atz-begietan
betikoz,
egamin;
bakoitza bere izakera
adur,
bere eresiz;
bakoitzaren biotz-muin,
goi berezia,
amets-ikutuka,
gogora ekarriz.

Betor bai gora-miñez, irauntza pozgarriz,
bere oinbide,
bere zoriz;
betor eguzki epel
eta beroz;
illargi bete
eta lañoz;
Iaungoikozko iturrietan aozpetua,
betikotasun gose,
eskugarriz.
Betor bideari bere goia emanaz,
bere, arantza,
bere lorez;
betor bai,
gizontasunezko egintzaz,
bata-bestezko bideratze
ta, oinkadarik bulartsuenez.

* *Bidean gora*, 105-108 *(B)*; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 53-56 *(A)*.

Betor,
Udaberri eskeinkor, arnas berritu,
Udaberri gaindu, eder bat bezela,
txintadarik baikorrenaz;
betor, argia goituz
maite irrintzika,
bere bizi-nai,
bere zorion egarriz;
betor, bai, gogoz,
Izadiaren berezko bultzada
biztuerarik argienaz.

Betor bai,
liparrez,
egunka...
bakoitzaren sen, gogo, asmoz...
bakoitzaren kezka, arduraz,
bakoitzari
berea emanaz.

Betor bai, onez,
bakoitza bere ele,
mintzaira sakonez;
bakoitza bere goi,
bere lurrera;
betor,
bakoitza bere amesgai,
bere akats-utsune,
gau-egun eder guztien loreiltasun
ikara biozkorrez;
betor noranai,
goiz-gora,
arratsez...
begiak eletuz,
biotzik zabalenez;
betor[a] eder arteko eskeintza,
emaitzarik bizienez.

Baña, batez ere,
betor,
izar,
lore,
odeibide txuri-oztiñez
edo, oinpeko arri kaxkar,
arri ibiltari ta, aitzburu agetu
tinkoenaren egokitasunez;
betor alai,
zugazpe,
ibai
eta zelai-artez...
bakoitza bere biotz on,
bere gogo mardul,
iriñik onenez...
biziari darion izanbide,
emaitzarik ederrenez.

O, Izadi!
O, Bizi!
O, Etorri!

Atozte bai
ale zindo,
ale biziz...
Atoz zu,
zu, ene Gizon!

Begi argi,
esku garbiz
biurrikeririk gabe...
atoz zu,
zu batez ere!

Oñots bakoitzaren bizi-bildura,
gogai, izakitasunez;
bakoitza bere ibilbide
ta oian-etorri,
sakon-azalez...
Betor,
eguna bizi
eta irabaziz,
lenaren gogo, txustar-berritze,
aurrerapenik bultzakorrenez;
betor,
zar-berriz,
bere etorbide
arnas betikorrez,
gizatasuna darieten ongarri,
bere muin-barrutiko bizigai,
iturri gardenez.

[a] Betor *A* eta.

O, bai,
atozte onez,
elkar-girozko eguntasun,
irrintzi goitarrez;
iriñik onenaz landuriko
maite-munkada bizitsu,
orerik garbienez!

## ITXASORATZE*

Millaka ontziak itxasoratuak dira[a],
ta, txipili-txapalaka...
O, au ipar aize bigun,
au ikutu eme!

Ur azalean kulunka
uintxoak uin...
bata-bestearen gain
ta, dantza dantzari,
bere-berean naukate
urduri.

Millaka ontziak itxasoratuak dira,
millaka oial txuri, millaka biotz,
millaka arima bizi!

Ni ere,
neure ontzi ta oialarekin
bizitzan gora,
itxasoz barneratua...
neure uiñak,
neure aizeak
batetik bestera,
urean goraberaka
urduri nabilte.

O, au arraun ots!
Au goramin ta ikara!
Ur sakon,
ur azalez...
bizitza arloan,
goraberaka...

Au, biotzaren estutasun
ta, ederkada![b]
Olaxe, betikoz...
bateko poz,
besteko nekez...
zori ezberdiñez
itxasbera,
ibilliz-ibilliz...
bere eresi
ta bere doñuz,
bere itzal
ta bere argiz,
uintxoak uin,
itxasoak-betean
naramate...

Ai, ez iakin nora
eta, noiz arte!

---

* *Bidean gora*, 90-91 *(B)*; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 56-57 *(A)*.
[a] *(Lerro au B'n ez da agiri)* [b] Ta, ederkada! *B* bateko poz

## OÑEZKOAK GERA TA EGUNIK EGUN...*

Oñezkoak gera ta egunik egun,
goizetik gabera,
bidean
biziari
negarra dario...
Negarra ta negarra,
negar ixil,
negar aztun,
negar samiña...
oñaze
ta, naigabe artean,
odola darion
biotz-barrengo,
urmael ezkutuaren
amets birrindu,
gogamen ituna;
ainbeste neke-ariz
gurutzez egiña;
eskurik ezaren,
argirik ezaren,
miseri arteko goi illuntasun
gaubide miña...

Alere...
O, biziok!:
oñaze,
neke,
arantza ta zauri arteko
amets-zirrikillu,
egun bakoitzeko
argi-une
ta itzartzetan...
Zenbatzu ibilbide ioran
ta[a], ametsaldi sortzen diran!
Zenbatzu laztan-giro eder[b]
ta, itxaropen, bat-batean!

Goiz-arratsetan
egunbera[c],
bideari iarraituz,
bearrezko dan
biotzondo
ta kemenez,
arako
bitarte alai,
zabalez...
noizbeinka
arira datorkiguzan baikortasun,
maite-eguratze eder, ernaikorrak,
bizi-unetxoak dira[d]...
Gure eguzki egunetako bide
bizi-aupada goitarrak!

---

* *Bidean gora*, 16-17 *(B)*; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 58-59 *(A)*.
[a] Ta *A'n ez da agiri* [b] Eder *A'n ez da agiri* [c] Egunbera *A'n ez da agiri*
[d] *Lerro au A'n ez da agiri*

## OGIA*

Ai! ez gero,
ez, bein ere
ez esan,
garitza bat
bere gogozko aize,
aizeño bigun baten ikutura
makurtu
ta uintzen danean...
ez esan,
ez esan[a],
Udalen
goiz garbiko
eguzki intzetan,
buruz-buru,
aizearekin zibu
ta kulunka,
ari diranean...
ez esan,
garitza bat
benetan begiko,
benetan ikusgarri ta ederra,
eder-ederra eztanik!

Lugiñak,
bere eskuetan artu
ta lur landu,
lur garbi ezean
maitasuñez erein
ta, lurreratu zuanean...
ale,
gari ale txiki-txiki bat,
besterik ezertxo,
ezertxo ere eztan...
baña,
«txikia nintzan,
aundia nintzan...
Maiatzean,
burura nintzan».

Ikus orain
lengo,
gari-ale txiki ori,
zein landara ederra dan;
ikus,
ain udaberritsu,
aizearen menera dabillen
ezetasun-itxaso,
burutza eder ori!

Gero,
uzta garaian,
buru mardulezko
lasto bellegi,
ta, urregorrizko alez,
irin *txuri*,
ogi mami...
Iaungoiko Berbera
izatera,
iritziko dan
Betikotasun Mirari!

## MAITEZKO EGADA**

Eta bat-batean
zure eskuakin iabetuz,
neuretu nintzan
arako,
goizbide argi
ezean...
zeru berriak oartuz
zure begi-artean.

---

* *Bidean gora*, 81-82 *(B)*; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 59-60 *(A)*.
[a] *(Lerro au ez dago A'n)*.
** *Bidean gora*, 95; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 62-63.

Bai biozkada goitarrak
biok biotara,
egan!
Olaxe
eskuz-esku
eta,
bizitzan gora...
oinkada bakoitzean
geureagotuz,
barnean ditugun
zeruko illargi
ta izar!

Dana
amets-itxaropen erditzez,
dana, bai, bizimin,
gogozko alkarte
ta nai betean...
arantza ta lorez,
dana, betiraunka,
biok-biotara.

## KEMENA*

Eguneroko biziratze ta eriotasunetan,
itxasoaren ioaldi, eraso ta ekaitzaldietan...
gizona,
ain uts ta billuts,
ain makal ta arroputz
ain argal,
ain ezerrez...
bideko amets ta lillurakizunez
lokatz-zingirazko oñaze ta negar-illunbetan,
itxasoaren gorabera, uin iaso ta nastuetan,
urduritasun kezkatsu, biotz-barrupe mingarriz
egalik egal,
bidebera, argi billa ari dan
gizon itun,
gizon makal orrek...

---

* *Bidean gora*, 164-165; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 63-64.

O, bai zerbait bear du bai, zerbait,
zerbait munduan bizi al izateko;
zerbait bultzakor,
itxaropenkor;
zerbait bai, buru tente, buru zut,
zerbait bai, zerbait, zuzen ta artez,
bidean, gogo sendoz ekin
ta iarraitzeko:
ogia eztan ogi, ardoa eztan ardo bat,
gogoaren iaki ta ianaritzat;
zerbait bai eskutsu ta goralkor;
zerbait gogo betegarri,
zerbait bai, zerbait,
bizialdi urduri,
bizialdi geraka onen sendagai ta burupeko;
zerbait bidegarri, zerbait bultzakor,
eraginkor...

O, zerbait bear du bai, zerbait, zerbait...
gizonak gizon izateko:
arnasondo bulartsu ta oialki berogarri bat
ta itxaropenezko argitada, amets-bultzada
ta eragin iorankor,
gogo aundi-aundi bat,
bide nekegarri, bide aztun onen aurrelari
ta izartzat...
kemena bear du gizonak, kemena,
kemen susperkor,
kemen eusgarri, kemen bizigarri bat;
ta, itxaropena ta itxaropena:
itxaropen ongarri, itxaropen bizi, aundi bat,
bein ta berriz gure arraunai aspergabe eragin
ta, argi iturrietara begiak apalki iasoaz,
bidean aurrera iarraitzeko,
kemena bear du bai, kemena,
kemena munduan munduko,
munduan bizi al izateko!

## NI NAIZEN ONTZI BEARTSU ONI*

Ni naizen ontzi beartsu oni,
itxasoan
zutik,
artez,
zuzen,
gogoz ibil-arazteko,
itxasoan
kemenez,
sendo,
bidez-bide,
gogoz aurrera iarraitzeko
ta ekaitzaldi,
uin-arteko
ur-eraso,
bultzada itsu, gogorrari,
biotzez,
kemenez,
gure bizi-lema maiteari
tinko,
irmo,
gure biziari zuzen eusteko...

O, bai, ortarako
zaintzen,
garbitzen,
txukuntzen,
ortarako berritzen det bai,
ortarako ene ontzi txiki,
ene intxaur-oskol kaskar au;
ortarako, loi
ta zikin artean,
kaskopean itsatsirik,
iosiak ditun
belarki,
lapa
ta
muskulluak kendurik
ortarako bai, ortarako,
garbitzen,
berritzen,
ortarako berritzen ditut bai,
bere abe ustel
ta ol zarrak
aldaturik;
ortarako naiz
arduratzen,
kezkatzen,
ortarako saiatzen naiz bai,
bere saiets ezurrak,
bere goi ta azpiak
breatu
ta margoztzen...
gero... itxasoak zear,
nire biziko ontzi onek,
alik zindoen, alik tinkoen,
txukun ta sendo
azkenerаño iraun dedin!

## AIZEAREN MENEAN**

Udazken zoriz
orri zimelak,
zugatz adarretatik
bai taldeka,
ta bai
banan-bananka,
or-emen
nun-nai,
lurrera erortzen diranean
aizearen menean...

---

* *Bidean gora*, 170-171; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 65-66.
** *Bidean gora*, 169; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 67.

O, bai,
min damost biotzak,
min aizeak,
ni ere
Aldibera
ta Izadiaren
ispillu argi, minbera ortan
orrela ikusten naizenean
kilin-kolonka,
noiz eroriko
aizearen menean...

## AMETS EDER BATEN ANTZERA*

Amets eder baten antzera
arginabarreko
goiz urratze,
egun etorreran...

Eguzkiak
biderik bide,
gozoro dakar
Udaberri goituaren senera,
alako... gazte zantzo
ta, aupada bizigarrien
izamin ernaritu,
zerupe garbienetako
odei arin batzuen,
maitezko irripar...

Ta, baso, muño, zelai-artez,
azkenengo izar nimiñoen
egun sentiko argi gozo,
dizdikera agurkorrez...
bizia nunnai
ugalduz nabaitzen da,
ederrez esnatua,
zerbaiten gurari
ta itxaropenez...

Basa lore
ta bitxi apalenak ere,
eguzkibera,
beren kukullu pinportuetan
arako, maite-lurrin,
arnas gori berri baten
usai gozoa dariete...

Bizitzako bizigune
edergarria da bai,
maite egarrizko ametsez betea;
goitura sutsu, itxaropenkor baten
garatasunezko emai,
bidegiro ezti ta ikusgarria...

Dana da bai,
giza oñots urdurituaren
alkar bearrezko goraldi etorkor,
aupada biozgarria;
Loreil-arnas iantzi berriaren
eskeintza oparotsu
ta bidegarria...
erle ta txiokadazko
bizigintza pozkor,
eskurik eskurako
goraldi arnasgarria...

---

* *Bidean gora*, 111-112; Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 68-69.

## EZBAITASUN*

Lurraren altzo,
gerri zabalean...
amazortzitik ogeirako
gogo,
irudimen,
odolaren
aizetasun ariñez
ta, amets-dariozko
maite-egada betean,
izatekotan... izan!

Ai! ene,
ene biotz!:
zer,
noiz,
nun,
nola izan!
Amets-egoz,
aizeño arin batek ikutua,
goraka nebillen bai,
bere agerkera,
mirari aundi,
pozgarri ori...
nun,
noiz,
nola egituko ote zan.

Olaxe,
izango ala ez izango...
burua bero,
oñak otz...
ai, ene biotz!
Aintzane,
Gorane,
Nekane...
begirik begi,
ainbeste zeru
biotz-bitarte!

Egunak igaroaz
beti,
nun,
nola
gertakizun,
biotzeratze
elkarbide eder ori,
noiz izangotan.

Beti
begirik begirako
lilluramen,
ezbaitasun itsu,
itunez nebillen
norezka
gelditua...

Biderik egoki,
biderik artez,
biderik bideena
zein ote zan
ezin bereziz...

Illargia ere,
beti illargi...
(odei arteko maitale,
zoro garbi)
goietan zurbil,
(tarte-marteka)
esturaz zebillen
odei aztun,
odei beltzari,
nola igesi...

* Olerti 10 (1968, 3-4.zenb.) 80-81.

Alere,
zerudi
goi zabalean,
izarrak nekusan
diztikor,
ain argi!
Batzuk emaitza betean,
besteak ernemin,
ain urruti...
ortziaren azkenik-eza
ta aunditasuna,
adiraziz.

Zein ote zan,
neure begidun begi...
txuri?
urdin?
beltzeran?
Begiak begietan,
bat eta bik
maitezka,
nerezian neunkaten,
biderdi estu,
gurutzetu batean
ezbaitua.

O, biotz!:
ni ere,
neure
maite itzalez,
neure
amets-gurarizko
gazte itxaropenez,
gau-giro bigun
ta aizeño,
argi txuri baten egoetan
bide billa nebillen,
Illargia bezela
odei artean,
bidemin...

Geldi-geldi neunkaten bai,
urrezko biotz-katez esitua;
lurraren arnas gori
ta, bere lore-lurrin
arantza zorrotzez
zauritua...
neure izate,
gogai, itxaropen,
gogo guztiarekin
argi-itzalpean,
gurari bizian
neunkaten,
ain gogo sentikor,
ain gogo arin,
ta biotzondo goigarri,
egatian bildua.

Eta,
ameskor,
eder-goizale ziran atz biziotan
ta dana zorion-apurrez oretua,
bizia zeridan egan,
begietara begira,
maitezko lillura
ta egarri bizian...
ia, neure bide,
neure benetako izar,
neure
bizitzako argi-itzalpe garbia,
biderik bidezkoena zein ote zan!

## LARRA'KO AMARI*

Agur Ama laztan! Agur Karmel'go argi, Larra'ko izar!
Agur, biotz-biotzeko Ama kutun, Amatxu maitagarri!
Gaur Zure koroatze egunik guren ta pozgarrienean,
udagiroko egurats oskarbi, ezetasun goigarriz,
Zornotza'ko erriaren babes, itzalperik ederrenean,
batzuk soñez, besteak gogoz, danok, Zuganako egarriz,
ementxe, aurrez-aurre Zure billa, Zure zai, gazte ta zar.

O, Ama! Ementxe gaukazuz bai, ementxe Zure oñetan,
ementxe Zuri begira, Zuri deiez otoi ta arrenka,
erriko agintari, gotzai, aldun... seme-alaba, danok,
ementxe iñoizko alkarrizketa barrentsu, mamitsuenez;
ementxe itxasaldekoen kresaltasun onura biziz,
ementxe menditarren garobide ta begipe ederrez,
zelairik zelairako zantzo ta irrintzi biozgarrietan;
ementxe kaleko ta baserriko, itxaso ta legorrez,
ementxe bai, Ama, bitartekotzat, bearrezko zaitugunok,
gizaldi barri onen etorri iorankor ta sustartsuenez,
ementxe gaukazuz Zure egun eder onen aintzagarri,
ementxe gorputz bat egiñik eskeintzarik aundienean,
alderdi bietako Euzkalerria Zuganatzeko pozez!

Bai, Ama, Zugana gatoz Zure billa, Larra'ko argitegi,
Zure seme zintzoen gordeleku eztiaren magalera,
Zugana bai, Ama maite, Ama errukior, Ama laztan;
Zugana Zure betikotasunezko bularpe gozora,
Zugana Amarik kutunen, Amarik eder, agurgarrien,
Zugana maitezko besape, launartzerik soingarrienez,
Zugana, Ama, Zure semeon altxor, Zure altzo garbira!

Ta Izadiaren gorakundezko etorraldi ikusgarriz,
Bizkai erdiko zelaigune, biotz-bildegi eder ontan,
gure lur siñismentsu, baratza maite ta bedeinkatuan,
gure lur langille, lur zoragarri, kementsu ta sendoan;
Zugana gatoz bai, Ama, Zugana, itxaropen bizienez,
Zugana, Oiz, Bizkargi, Sollube, Gorbea... mendirik mendi,
begiak ikuste ioranez beteak, gainik-gain, ortzi zear...

* In: [S. ONAINDIA, Zuz.], *Giza-bizia*, Bilbao 1968, 21-23.

gure zelai, ibai, gure arru, gure muño ta ibarrez,
ainbeste mendi-txorta atsegingarrizko gaillur-artez,
arnas-barritze iraunkorretan, gizaldirik gizaldira,
Zure Izen Santuz beteak diran baserririk baserri,
egal batetik bestera... gure Ernio, Aizkorri, Aralar,
Auñamendi alderdi goenetaraiño ta, erririk erri,
zure oroipenezko deitura biziaren gogozko bidez,
ta batez ere Kantauri apartsuaren egal, itxasertzez,
mariñel biotzezko gizon bulartsu ta andra maratzetan,
kresal-sundazko euzkal-bazter zindo, eskugarrienez,
Zugana, Zure bitartez beti-beti bai, izatekotan...

O Karmel'go Ama! Ama kutun, Ama ezti, Ama maite!
Zugana gatoz bai, Zugana, gogoz, Zu besarkatzera:
Zugana osasun bizi eske, Zugana bai bizi billa;
Zugana gure eragozpen, miñaldi ta neke-oñazetan,
Zugana gure ibillaldi, zauri, elbarritasunetan;
Zugana gure arrisku, gure zigorraldi, ekaitzetan;
Zugana bai, Ama, Zugana erruki ta laguntza eske,
Zugana bai, Aldi negargarri, illunbide estuetan,
arantza oker ta gaiztoen batek zulatzen gaitunean...

O, Ama kutun, Ama laztan, Ama agurgarri, Ama bakan!
Gaur Zure aintzamenezko egun, Zure irudi koroatze,
Larra'ko zerupe itzaltsu, alkar untzaguntza emaitsuenean
zure zorioneko zerutar iokabide goigarri ontan,
eskuak laztantsu, zabal-zabal, Biotza askoz zabalago,
zu, ain dizdiratsu, ain eder, ain maitagarri ikustean,
zu, Ama, gugaz izanik ain etxeko ta ain gure-gure!...
Ama! Gure biotzai alako ur-emai, ur bizi bat dario
ta itxaropen baikorrez bizia sendatu, betikotuz,
bildur, txepelkeri ta amets ustelak gugandik uxatuz...

O, Ama, Larra'ko izar, Ama berezi, Ama kutun ori!
Zu, egiaren, onaren, garbiaren eredu ain aintzagarri,
Zu, gure bitartekorik ta laguntzaille aukeratuen,
Zu, gure bizialdiko ibillien euspide ta oñarri.
Ementxe gaukazuz, Ama, Zuri deiez ta Zuri begira,
ementxe izan-miñezko egarriz Zuri otoi, agurka,
ementxe etxe santu, lur ontako Zure seme gotorren
gogo-zuzentzailleen irakasbidez, geroago ta Zureago,
ementxe gaukazuz ta Zaukaguz, Ama ta Erregin Bakar,
ementxe Karmel'go oñarri sendo, gure Larra'ko izar!

Gaur itxasoz, legorrez ta alderdi batetik besteraño,
Euzkalerri osoa daukazu Zuri otoi, Zuri besarka,
ementxe, Ama!, bizi eske, bizi billa, Zuri txaloka,
Zure amatasun magaltsu, maitezko Argiaren Argira!

# 1969

## ARTEAGA*

*Neure umetako ta betiko lagun,*
*Aboitiz'tar Kerarta'ri, adizkidetasun sendagarritzat*

Aurtzaroko arimapean sugar-berrituz bizitza,
araxe noa txustarrik-txustar, ioana orainduz;
araxe artedi, gaztañadi, landa, iitzarik iitza,
ibilbide zarretako egunik gurenak laztanduz.

Araxe neure biotzeko erri kutun, neure lenengo
argiratze, neure iaioterri eder, maite-maitera;
araxe Arteaga artetsu, neure gogo barrenengo
errietan erri, neure Bizkai bulartsuaren senera.

Araxe zortzi, amar, amalau bat urteko egalez...
urte lilluratsu, urte zindo, urterik baikorrenez;
araxe usoa baño usoago, aizeaz bat egiñez,
oinkada goikari, etorkizunik etorritsuenez.

Araxe azi ta ezi ninduten kabi, biotzetara,
Izla Goiko ta Izla Beko, Kurtzeko, Elizondo,
Gaztelu zear, Artia-Artia, Pantxikone, Ozollo,
Agarre ta Labiruz, zeruperik bioztuenetara.

Aldi alai baten bidots ta agur biziak nakarte,
argia argiago zan begi zolien ikuste argira;
arako ume-ibillien itxaro ta ego-zabaltze,
gure lenengo bide-urratze, egaztada garbira.

---

* *Bidean gora*, 130-132; Olerti 11 (1969, 1-2.zenb.) 22-24.

Gaur ez aritz, ez ezkur... piñudi beltzez iantzia
ta aize miñaren ekai-intziriz betea izanarren...
libertadezko nortasun, aberrimin, deadar zolia
mendiz-mendi, oparo datorkigu iñoizko ederren.

Ni araxe noa bai, araxe, neure lenengo lenaren
Ereñozar, Atxarre, Kanala... Kantauri itxasertzez
araxe, amaika Peru ta Mari ipui gatzituren,
sutondo epeletako sendi alkartuen maitasunez.

Araxe arri ezagun, zelai ta landa, zugatzartez...
araxe, arto-garitza, uda giroko mamutz-eresiz;
araxe gaztain, intxaur-azalez esku moskolez,
ainbeste lapurketa ezkuturen, sagasti, mastegiz...

Araxe bizi billa, ioandako bizitz ori berbiziz,
(amaren gonape laztan, amamaren altzo bigunez)
araxe egun igesien billa biderik kutunenez,
arako gau zadortsu, izar-illargipe ikusgarriz...

Araxe gau trumoitsu ta arako Anbotoko zorgin,
ta asaben lamiña ta mamutzar ta galtza gorriakin...
araxe antxume iostari, bildots baten ioranez,
iñuzentzizko begiarte zoragarri ta argienez.

Araxe belaunburu sendo, itxaropen egotuakin,
Argatxa, Galartza, Artebaltz inguruko itzalpera;
araxe kresalezko bustialdi, iauzi ta mustadakin,
gure igeri-toki aukeratu, atsegiñetara.

Araxe ugario, xapu kolonkarien gauezko bidez,
brusezko iantzi ta abarketa zuri ta urdiñakin;
araxe egun txuntxunlarietako suziri otsez,
San Polikarpotako barkillu ta erroska gozuakin.

Araxe gernikar astelen, oñezko ioan ta etortez,
bide alaituetako andra iztun, gizoste lerdenez;
araxe neska-mutillen gaztetasun, mintzo bakanez,
oso gautu baño lenago etxeratzeko ametsez...

Ai, nola edertzen, biotzeratzen zaizkidan izan zana,
berri maitezko besarkada kutun, gorantzi apalez!
Nola pilpiltzen, begiperatzen diran alai, oleska,
orduko amesbide iorantsu, lagunarte ederrez!

Ta, i, Kerarta... oroitzen ete aiz gure iolasakaz,
gure gartza, tronpaketa, gure laster-zeingeiagoka,
gure noizik beingo indar-burruka ta pelotaka,
alkar-arteko ume-kontu, gure egun ederrakaz?

Nola datozen gogora ainbeste izen eta zori,
egunik egunduenetako goiz-arrats, lurrik gurenez...
nola datozen arriz-arri, bizi-lorratz sakonenez,
ainbeste oñots biozturen emai, zorioneko ur bizi!

Antxe ikusten naiz bai, aundi izateko nai bizian,
adiñez urtetsuago ta aundiago ziranai begira
bizarra noiz azi, zigarroa noiz erreko egarrian,
galtza luzeak noiz iantziko gizon egiñez antzera.

Antxe baserri bizitzan, akulu, aidots ta irrintziz,
azpigarri ta bedar-ezezko lurrin, usai bakanez...
antxe Kerixe, Txilintxio, Juan Dios, gizon nabarmenez,
ainbeste errikoseme entzutetsuren egun zoliz!

Araxe noa bai, oroitzaz oroitza, erriaren egalez,
igande arratsaldetako andra muslarien atartez...
Obieta, Mustegi, Galatxu... gure baserri ta kalez,
aintziña-aintziña neuretutako ore errikorrez.

O, Arteaga, errietan erri! Zure luze, zabalean,
betikoz zaitut bai ementxe biotz-arimaz barrutu,
ementxe bai, neure-neurean, magalperik beroenean,
betikoz ainbeste egun ioanen itzal berritu!

## EGIA DA BAI, EGIA...*

Egia da bai, egia,
gaur egunko egi latz, egi aztun, egi gordiña...
Gizona
bere indar-iakiturizko
eskuarterik altsuenez;
bere goietan gorako asmakizun ta almenez,
bere iñoizko suziri, lerkai, aurrerapen eder,
iñoizko tresna ta izkillu ikaragarrienakin,
bere adimen zoli ta irudimen,
bere buru ausartsu ta kementsuarekin
gizona,

* *Bidean gora*, 162-163; Olerti 11 (1969, 1-2.zenb.) 25-26.

aurrera doa bai, aurrera,
aurrera bere griña txar ta oitura gaiztoakin,
aurrera bere aberetasun odoltzale,
bere neurri gabeko indarkeri
eta betiko illunaldi, ikusi-eziñakin,
aurrera doa bai, indarrak bereganduz,
aurrera aizearen ta suaren ta uraren bitartez,
indar ezkutuak iabetu ta eskuratuz...
aurrera doa bai,
arro ta berekoi;
ez maitasunik,
ez gizatasunik nabaitzen eztan nabarmenkeri,
bidegiro bildurgarrietatik,
ain onezko izate ta biotz-barru gutxirekin
gizona,
bide nekezez
goietan gora,
aurrera doa bai,
aurrera ain puztu ta burugoi,
bere ondamendizko nagusikerietan
zeingeiagozko burruka naspildu
ta bere zapuzkeriakin,
bazterrak illerritu
ta odoldurik...
Ai, zenbatzu ta zenbatzu Korea, Biafra, Biet-Nam
ta alako ta olako... an urruti ta, emen bertan!
Zenbatzu erri austu, erri lotu, gizon ioputu!
Danok aundi,
aundi-aundi,
aundi baño aundiago
nai degu izan...
Ta aundi izate orren bidez
ba'dakigu zer dagion,
aundiak txikiari,
katuak xaguari...
O, ez, ez det,
ez det ez, ez det berriz aizeatu ta gogoratu nai
ainbeste zigorkada, menpetasun ta ergelkeri,
zertako aizeatu ondo baño obeto dakiguna,
o, ene Euzkalerri!
Ta, olaxe,
aberekoi,
iñoren lepo ta bizkarrez,
izarbidezko goilari, Aldi arrigarri ontan,
zeingeiagoketarik bulartsu ta ederrenean,

gizona aurrera doa bai illargiari lenengo
zeñek atzeman ta eskuratuko goi-leiaketan...
Bai, bildur naiz bai bildur,
bildur-bildur bai, benetan,
gizonaren zentzun gizonaren gizatasun-ezaz;
bildur, or goietako zabaldi, zabal zabalean,
bonba bildurgarri oiekin beteko ote dituzten...
gero, gutxien uste dan egun tristeren batean,
plast! plast!, sagar ustel, igali elduen antzera
egunen batean goitik beera eroriko diran...
Bai, bildur naiz bai bildur,
gizona ain goraldua ikustean,
bere betiko bekaizkeri ta gorroto,
bere aberetasun ustelkor ta biurriz,
bere okerrerako griña ikaragarriz
ain Iaungoikotua ikustean!

## BEIN TA BERRIZ*

Bein ta berriz
oskietan iasotzen ditugun
lokatzak kendu
ta garbitzen ditugun bezela,
gure gorroto,
ikusiezin,
gure etsaikeri
ta txepelkeriak
baztertzen,
garbitzen ba'genki...
Ai, ze egunsenti eder,
ze goiz ikusgarriak,
zabalduko litzakezen
gure gogo, biotzetan!

Aoko ats txarrak garbituz,
gizonari zor diogun itzal
ta bereganatzeko maitasun
pentsamenturik onenakin...
gure asarre,
gure kezka,
biurritasun[a]
ta ergelkeriak
gugandik urrunduz...
ze biozkada gozoak
ze poztasun atsegiñak,
burutuko litzakezen
gure egunak,
benetan egunduz!

---

* *Bidean gora*, 18 *(B)*; Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 40 *(A)*.
[a] Biurritasun *A* biurrikeri.

## ITURRIA*

Iturria ba'nintz iturria!
Ura ba'nintz ura:
ur eze,
ur garden,
ur gozo,
ur ona,
lurrari emateko
egarri danean,
bear duen ezetasuna,
bear duen gozotasuna!
Iturria ba'nintz iturria!
Ura ba'nintz ura:
ur maite,
ur ezti,
ur laztan,
kutuna...
gizonari emateko
bear duen maitasun
ta argitasuna,
egun berri baten
bizigarri[a], diztirarik argiena!

## AIZEA NORA...**

*«Aizea nora*
*zapiak ara...».*

Bai,
ni ere
bein ta berriz
olaxe,

zugana noa
ene erri maite!
Zugana noa
bai,
odei gañez,
leorrez,
oiñik-oin,
biotzez
besarka...

Zugana noa
bai,
zu ortxe
bakarrik
arkitzen ba'zera
danon bearrez,
ene erri maite!

## TA, EGIZ...***

Ta, egiz,
itxasoa zer dan,
zer ez dan
ondoen ikusteko,
gaindu zaitez
bere asarrean,
olatu aundi ta nastuetako
illuntasun sakonean.

---

* *Bidean gora*, 34 *(B);* Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 41 *(A).*
[a] Bizigarri *B'n ez da agiri.*
** PVV 11 (1976, 120.zenb.) 7; *Bidean gora*, 44; Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 42.
*** *Bidean gora*, 46 *(B)*; Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 43 *(A).*

Gaindu zaitez bai, kemenez,
izarrik gabeko
gau apartsu,
uin-tarte nastuan...
ta arriturik
ta zurtz,
mintzulki
ta nora-ezean
buruz-buru,
Iaungoikoz arkituko zera
bakar-bakarrik,
ekaitzaren erdian[a].

## TA, OR...*

Ta, or...
geroari buruz
odei ta laño tarteko
illunperik illunpe,
neure billa nabil
egun bakoitzeko
eguzki ta aizez;
neure billa
bai, or...
orain ta lenaren,
geroko geroaren gerotan,
nun ta zer ta nola
gero nola, zer
izango ote naizen!

Ta egun bidezko
ioatearen ioatez...
gaur ni,
ni bezela
urduri,
zuek ibilliko zerate bai,
zuek ibilliko zerate
gero,
zeuen billa
zuek ibilliko zerate
nire lorratz ondoren
orain eta lengo,
gaur ta betiko
itaunkera berdiñez?
ia an...
geroaren geroko gerotan
nun ta zer ta nola
zuek ere,
izango ote zeraten!

[a] *Lerro au A'n ez da agiri.*
* *Bidean gora*, 48; Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 44.

## BIDERATU NADIN...*

Bideratu nadin egun-egunera,
onezko, ederrezko, maitezko egun,
alegin biziminduzko bidegintza,
itxaropena darion goiz argira.

Atera nadin gogoz, zintzotasunez,
azkatasunaren bide nekegarriz...
gizarte, aberri, zuzentasun alde,
iñoizko bidegiterik alkartuenez.

Argi ta garbi, maitezko izkilluakin
io ta ke, bideratu nadin bai, pozez;
bideratu nadin gogoz gau ta egun,
ele bizi baten langallu sendoakin.

Ta, ots, ene oñok, ots! Zuzentza bidez
illuna ezetsi, sasiak sutaratuz...
Ots! eskuak alkartu, besoak zabalduz,
bide berritzezko ekite ederrez!

Ots, ene oñok, ots! Kementsu ta sendo
ots! izan-miñezko alkargintza maitez...
Giza-alde, Aberri-alde... iñoizko
bidegite, ereintzarik bioztuenez!

---

* *Bidean gora*, 14; Olerti 11 (1969, 3-4.zenb.) 45.

# 1970

## ZERBAITEK IGES DAGI*

Odei illun ta laño artean ere
oraindik eguzkiak argi dagi
ta izarrak dira agiri;
oraindik ibarrak ibar dira bai,
ibaiak ibai, zelaiak zelai
ta landaz-landa, muño zear,
gure baso ta oian artean
mendiak mendi dira bai;
ta beste ainbeste ta ainbeste,
Gorbea, Aitzgorri, Aralar,
zut-zutik ta goi, zerupean,
ezetasunik ederrenean,
erriaren izate ta gogo,
erriaren oñarriak dira bai.

Alere gugandik, barren-mintzozko
negar-zinkurin minkatzez,
ixilpe bildurgarrian
zerbaitek, bai, zerbaitek iges dagi,
illunduz, aulduz, ostikoperatuz,
bai, iges dagi bai zerbaitek,
iges dagi bere gogo, izatearen
nortasun ederra utziz:
pago mardul, aritz lerden,
zumar eze, arte zindoak ziranak,
iges dagite bai piñudiz-piñudi,
erdel-otsezko aiurri zeken,
aize zakarraren eragin beltzez...
zerbaitek iges, iges dagi bai,
gure mendi, gure ibar ta itxaso,
gure baso eder ta oianetatik
zerbaitek iges dagi bai, zerbaitek,
gure landa, zelai ta ibaietatik,
iges dagi bai zerbaitek
gure artean, alako
gorputz ustu, arima galduaren
ildura triste bat utziz.

## IZKUNTZA**

Izkuntza, Aberria osatzen duan
erriaren bizi, gogo ta izakera,
elkargai biozkor ta bereziena da;
ta, etxetik at, mundu zabalean ere
euskaldunak nunbait arkitzen ba-dira,
izkuntzaren bildura ezti, mamitsuz...
(usteak, ametsak, berriak azalduz)
Aberriak betiraunez iraun dagin
oñarri sendo, egokiena dabilte.

Bai, sendi, kabi, Aberri goxo baten
berotasun bearra du bai, gizonak,
ta, gure lurraldea goxoa da neretzako:
ederrena, txukunena, kutunena,
bere baso, mendi, landa, zelaiakin,
bai ibarrik ibar ta, bai aranik aran,
bere itxaso, bere lats, ibaiakin,
eta batez ere euskera goxoaren
zuztar sendo, bildura bizigarriakin;
goxoa, ederra, maitea da bai neretzako
gogo bizi baten lokarri kutunez,
—lokarri iraungarri, betikorrakin—
atzerrian arkitzen diranak ere
alkartzen ditun mintzo zoragarria.

* Karmel 1970-3, 13; *Esk.* XXII, 19.
** Karmel 1970-4, 26; *Esk.* XXII, 20.

## ZUGARRAMURDI*

*Muxika'tar Imanol'i,*
*alkarraz egindako ibillaldiaren oroigarri*

Domusantu eguneko
goiz garbi eta argia zan,
Zugarramurdi ikusteko
abiatu giñan eguna.
Illerria, elizea,
aren aintziñatiko
zelai, akelarrea,
eta, artzuloak ere iker,
ikusi ondoren,
neukan egarria kentzeko
ardangela batean
sartu nintzan.

Ardangelako
neska gazteño arek,
edan nuan ardoa
ordaindu nionean,
irripar eskertsuz
euskera garbian,
ESKER MILA esan zidan
Baztan'go aranalde,
Zugarramurdi errian.

ESKER MILA
euskel-itz ederrezko
aidetasun anaitsuz
agurtu nindun bai
eta gure izate,
gure mintzo
elearen
alkarbidezko,
eta, poztasunez,
nire kolkoa
gogoz biztu
eta aberastu zan,

mendi-alboetako
baso-oianetako
osto orizkatu
eta iratza eztien
Udazken ikuspegizko
urrezko agerpenez,
ain egun argi
eta ederrean,
neska gazteño arek
euskeraz,
ESKER MILA esan zidanean
irriparrez.

---

* *Esk.* XLIV, 4 (1970-XI).

# «BIDEAN GORA»LIBURUA
# (1970)*

* *Bidean gora*-ko olerkiok liburuan dauken saillean jarriko ditut, baiña *Zeruko Argia* eta batez ere *Olerti* aldizkarietan etab. argitara emonak ez ditut emen barriro jarriko; euron titulua bakarrik emongo dot eta edizio onetan zein orrialdetan datozen esan. Olan irakurleak liburu aretakoen zerrenda osoa aurkituko dau eta emen non daukezan jakingo.

## AGUR*

Bizitzako
margo argi,
ta bikañez;
egiazko
egitura zuzen
ta, ederrez...
(argi ta garbi)
biotzez,
arimaz,
biribildu
ta iantzi nai nituke
ene bizitzako
egunok;
neure lurraren
aldezko maitasun
ta sugarrez;
benetako goitura
maitetsu
ta gogorik zindoenez
egunik egunera,
zintzoki...
bideari oles!

## BIDERATU NADIN

331.orr.

## BIZIRATZE**

Egunaren lipar, une guztiak biziz
biziratu zaitez gogoz, bizi-barrenez
alaitasun itxaropentsuzko ioranez
garatuko zaituzten biotzak irabaziz.

Ez gaiztoz ez itsurik, illun ez ibilli,
aldamenean negar beltza erein-aziz
ez iñor zapal, argikirik ez itzali
gorrotozko ondoratze, mintzo itxusiz.

Bizi, biziaren ondasunak eskuratuz,
bizi bai, emai garden ta eskukorrenez,
lagunak, biotzak, bidebera norberatuz.

Bizi bai biziaren ederrera esnatuz
arako ikuste baikor ta maitasunez,
izateari darion poza zeuganatuz.

---

* *Bidean gora*, 13.
** *Bidean gora*, 15.

## OÑEZKOAK GERA TA EGUNIK EGUN 312.orr.

## BEIN TA BERRIZ 328.orr.

## AZTUNA*

Aztuna bai,
aztuna izango litzake
gure biziaren
egunik egunerako
ioatea;
aztuna,
gaur-gero
aurrera,
gogoz
iarraitzeko
bear degun
bidegitearen
igarotzea...

Aztuna bai,
aztuna izango litzake
pausoak zaituz
ama bat,
arreba bat,
emazte bat,
bidea argitzeko
maitezko
izar,
olakoxe
aingeru zaindari,
biotz lagun bat
olakoxe
zerbait,
ezpagenduke
argitzat.

## GIZONAZ**

Egiz
barrenki,
neurez-neure
gizonaz aurkiten naizenean,
ondo dakit bai, gizonak
ogia, lurra ta abar,
aterpe bat bear dula,
aterpe bat...

* *Bidean gora*, 19.
** *Bidean gora*, 20-21.

Baña ala ere
askotan, itz eskutsu,
itz egoki, itz biozkor,
itz laguntzalle,
itz egiztatu,
itz anaikor,
itz bero bat,
ogia bezin bearrezko da bai,
olako,
anaitasuna darion,
itz ongarri,
itz bizikor,
itz besarkatsu`
eder bat.

Orregaitik,
atozte gizonarengana,
itzik apal,
itzik alkartsuenez
ta gizondu zaiteze,
itz egoki,
egitada anaikorrez...
bere kezka ta eragozpen,
bere illuntze ta gau illunak,
erabat arindu ta argituz...

Ta, zoazte
onginai alegintsu baten bidez
itzik apal, alkarmindu,
egiztatuenez
bidebereko
gauz oro,
gizaminduz...

Zoazte bai,
bai, goizaren goizean
edota, arratsaren arratsean,
arako zelai, zugatzondo, arkaitzakin,
arako odei, illargi, izarrakin,
bakarrizketa ioran,
barrentsuetan,
ikusiz.

Izadiari darion goramin
edertasun ederra,
egalik egalerako aberastasun
maitebide zabala...

## TA GOGO BARRENGO IKUSTE*

Ta, gogo barrengo ikuste
ta sustrairik sustrairako
azterketa,
biotzondo sakonez...
zeure odol,
birika artean
entzun
ta billatu zaitez;
ta zeure este,
gibelondoko
lats, errekaz,
illunpe orren
argaltasun,
aterpe ixillean,
billutsik ikusiko zera
billuts-billutsik,
narru gorrian...
argirik ezaren,
eziñaren eziñezko
gau illunaren
ondamendizko sakosta,
mintzo
ixillezko
bakartade negargarri
eskurik ezaren
lotura,
utsune beltzean.

---

* *Bidean gora*, 22.

## AMONAREN IKASBIDE BAT*

Egun batez
ume nintzala,
amonarekin
baserriko etartean,
babarrun ale batzuk
bere altzotik,
lurrera
erori zitzaizkan
ta, maitez,
gozoki ta laztan,
agindu zidan:
Bai, seme, iaso arren,
lurreko
babarrun oiek;
ba, gizonak.
Iainkoa ukatuz
ain buru zut,
ta ain kirten,
aundia dala
uste izanarren,
arro baño arroago
goiak artuaz
ba'dabil ere,
iakin zazu
o, seme!,
gizona
olakoxe
aletxo bat sortzeko
ez dala duin.

## IÑOIZ**

Iñoiz
ez degu nai genduken bizi
ez itzalperik;
iñoiz
ez degu ez,
nai genduken zabaltasun
ta izaterik;
ez degu ez,
nai genduken berarizko
ibilte ta
bizi-biderik.

Bai, bakoitzari dagokio
bere zori,
bere eresi;
bakoitzari dagokio bai,
bere,
itzal-argizko
egun zenbatuen
eroapen eder
edo, mingarri!

* *Bidean gora*, 23.
** *Bidean gora*, 24.

## ALDIBERA*

Aldibera,
gizona,
abereak,
landareak...
dana doa balberen eskuz,
dana doa bai bide batez,
goiberaka,
betiko ioan-etorri iaukal,
betiko igarotze utsalez
dana doa
bizibera,
agertuz,
estalduz,
betiko bide latzez
erori ta berrituz
amil-amilka
dana doa,
itzulirik ez duan itzalez.

Zugatz-orriak bezela
orbeldu ta gero
berriz ere,
berriak dira sortzen,
aldiberako
udaberri baten;
lillurak,
ametsak
gauzak,
gaurgero
or dakusguz ioan
ta berriz ere
suspertu
ta loratzen,
irripar zoriontsu
edota negar baten.

Gezurra,
ala egia...
dana irudimen bat,
ikusten deguna
amets utsa
besterik ez ote dan,
zalantzazko
kezka,
ezbaitasun aundi bat
barrentzen zaigu
minsor,
biotz-biotzean.

Ametsak,
lillurak,
uste bakanak...
gauz oro
oroimenaren lantzurda
lañopean
galtzen zaigu
Aldiaren goraberazko
ioate etengabean.

* *Bidean gora*, 25-26.

## GURARI*

Egunik egunera
geurez-geure
egi billa,
gizon billa,
lurra
barren-muinetaraño
atxurka,
sakonduz...

Goazen
arako ikuste
arako
bakoitzaren
begiratze,
batabestetasun
alkar-artze,
alegin biozkorrez...
goazen
onez
bidebera...
bakoitzaren
izamin,
bakoitzaren
azterketa
ta biotzik biotzerako
agurraren agurrez...
goazen
argi billa,
gizon billa,
goizetik gabera
itxaropena bananduz...
goazen
itzik itzerako
egun argi eder
edo,
gau illunez...
goazen
geurez-geurezko
gizon egite,
eguneroko burruka
eguneroko ekiñez,
ia or nunbait
eskuz-esku
gizaldien-gizaldiz
eguzkirik ederrenez
biotzak argituz,
ia or, nunbait,
egunen batean
egiñago,
gizonago
arkitzen geran!

## EGUNEROKO ITZ EGOKIAREN BILLAKETA**

Bideko sasipe, bideko zabaldegi ederretan,
oñots urduri, biozpe xamur baten zorioneko egoz,
ogia bezin bearrezko argi, itxaropen-otordoz,
urratuz magal izkutuaren itz-sorgu, gogamen illa...
...O, itz bizimindu, itz sendo, itz egoki, maitemiña,
benetako ate-zabaltzalle argizai bidegarri,
izki alkartuz sortzen zeran itz giar, sorgin sorgiña
aizearen kideko bultzakai, Iainkotiar ats bizi,
mintzogai susperkorrezko oldozbide pinpiriña!

---

* *Bidean gora*, 27-28.
** *Bidean gora*, 29-30.

Ara ni emen, egalik egal zure sustar, goi billa...
O, amets! Geien bear zaitudan illunpe, estualdietan,
bakar-bakarrik neure pentzura uzten ba'nazu ere,
aopeko orma-bazter, oldozmenaren bide, aldapatan
neureak ta bost egiñik... Zure billa nator gaurgero,
bidezko bidegintza, goramiñezko aizerik-aize...
...etxerako, kalerako, munduarte, goi zabalerako
bear zaitudan une bereko itz argi, itz egoki:
Zure billa nator bai, zelai ta larrez, aterik ate,
bizi-karraxitasun ixillez, biotzondorik-biotzondo,
«minduen», «azpiratuen» azkatasun-deadar ta irrintziz,
egizko gizon-gizon, gizon iaukal gizon eskugarriz...
...«ederraren», «onaren» goibidezko etortze baikorrez;
zure billa lan-tresna, gorputz izardituen nekez,
noiz neuretuko, noiz sakonduko, noiz muin-barrenduko,
gizonari gizon bezela, gizonkiro erantzunez;
zure billa, gau-ondoren bakoitzeko egun-berritze,
argi-soindura sointsu ta, maite-itzalpe gurenezko
alkarbide lotuenez... O, itz, adikor, argigai bizi!

Zure billa nator bai, zure doai, zurea dan zurez,
maite-dariozko orokortasun, altxorbide sakonez...
O, ene itz elburutsu, itz sustarkor ta adigarri,
«ni» izateko, egunero bear zaitudan etormen,
ene itz bultzakor, ene abots goimindu ta pozgarri!
Zure billa nator bai, aldi-giroz egun bakoitzaren
goramin erneminduzko eguzki berogarri baten
maite-ikutu aletsu, biotz uztarik begikoenez;
zure billa izar-dizdirazko oskarbi ederretan,
edo, arako trumoi-ots, zeru goibeldu illunaren
zirti-zartazko oñeztu-aldi ta beltzura beltzetan;
zure billa goika, lagundu nazazun gizon izaten,
arako, ni naizen, izan nai nuken, izango nintzaken,
goraltzerik anaikor ta argiratzerik gozoenetan.

Zure billa, txustar argizko sointasun ongarrienez,
ogiari «ogi», ardoari «ardo», bizitza goiberatan,
egia esateko bearrezko dan adore ta kemenez...

Zure billa, oñots urduri, lanbidezko esku latzez,
iñurri langille edo erle biltzalle bat bezela,
bidegintzarik bularkor, ekintza itxarokorrenez...

O, itz egun-mindu, egizale, itz iaukal, argigarri!
Lokatz ta illunbetik burua iasoaz bat-batean,
maite-besarka, eskuz-esku, bide laguntzat enegan,
bear zaitudan argi-orezko bizigai zoragarri...

Zure billa nator bai gogoz, eder-kutunka ta laztan,
biotz-biotzean pilpilka, bero-beroan nai zaitudan
maitasun-intzirizko lorratz argitasun emaigarri;
unerik-unerako, ordurik-ordurako itz bakan;
zure billa gaurkoz-gaurko lenaren sorburuetatik
ta, arako, aur, ume gaztetxo, gazte nintzaneko
egun ibilgarri ta, arako, larrosondo amestuen
lurrintasun maitetsu ta gazi-gezazko bideetatik.

Zure billa betikotu nai nitun, gogoko ninduten
biotz-begietako maitagar, len-oiartzun bizietatik;
zure billa, ederra, ona, zintzoa dan biotz-gogo,
bideko argipe, batabesteratze itzaltzuetatik...

O, itz laztan, itz argi, itz egoki, elegai bizigarri!
Zure billa nator bai, gaurgeroz, egun-eguneko
bideko zauri, eragozpen, bideko goraberatan,
ain bearrezko zaitudan dizpil ta burupeko,
ene lau egun zenbatu, lau egun tristeren eusgarri!

## NIRE IBILLIA DA...*

Nire ibillia da
eguneroko
bizi-bearraren
bidezko
egite
ta zalantza...
eguneroko
ioanaren
ioate
ta, norberazko
ikuste...
muin zarraren
berritzeko
gogo,
ta ikara egundua...
egunik egunerako
ioatearen
ioatezko
ameskizun
bein ta berriz
berritua.

---

* *Bidean gora*, 31.

## EMAN*

Oinkada bakoitzeko oiartzunez
ibilliz-ibilli, maitetsu ta laztan,
ereite ongarri, ereite bakanez,
dagigun bai, dagigun bide... Ta, eman,
eman bideari norberaren arima,
ta, begiak zabal, biotza zabalago
unearen uneko gogai, ikustetan,
artu gogoz bidearen emai ta guna,
oron itxaropen ta onerako
geroaren gerotan zerbait izan gaitean.

## ITZ EGOKI...**

Itz egoki, neurtuz,
zoaz bidez-bidez...
zoaz gizon egiña,
egalik-egal,
zoaz bai, onez
ta gogoaren
barru-barrutik,
billatu zaitez billatu
eguneroko ibilte
ta, oñotsetan.

Billatu zaitez billatu,
bizi-egintzazko txoko,
zeure txustar sakon
ta adar goituetan,
billatu zaitez billatu,
gorroto ta maitasun arteko
zeure goizetik ta gauerako,
ateraldi ta agurretan,
zeure ixiltze ixillenetan
billatu zaitez billatu
besteenganako,
esku luzatze aidetsu
edo bekoki illunetan.

Ezagutu zaitez bai,
ia zein, nor zeran...
ikusi zaitez zeure griñatan
ta zoaz oartuz-oartuz
oñots bakoitzean,
ia egunen batean
gizon bezela
gizon artean
arkitzen zeran...

---

* *Bidean gora*, 32.
** *Bidean gora*, 33.

**ITURRIA** 329.orr.

**BIDEAN GORA** 269.orr.

## KALBARIOA*

*Dana emon biar yako*
*maite dan azkatasunari*
(Lauaxeta)

Danok dakiguna da bai, dakiguna...
gure bidegite ixil neketsuan,
ezin dala, ezin dala itzik egin
ezin dala ez, destaiuz ezer esan.

Erria lozorroan,
lozorroan dakusgu;
erdiak eta geiago,
lotan,
erdiak eta geiago...
ai! guk gutxiok ezin,
iñolaz ezin degu,
erdizka besterik
asko,
gauza asko esan.

Eta, bidebera,
erroiak ta erroiak,
ta ezten gaiztoko sugeak
ezten zorrotzez;
gorrotozko aunitz etsai,
ta, piztiak zirika
albo ta saietsez...

O, au bai, gauaren gautada illuna,
au bidegite kementsu ta aztuna!
Ai ba'zenki bidegite onetan
zenbatzu arantza ta zenbatzu oztopo
zenbatzu izerdi ta odol ta malko,
zenbatzu irain iasan bear diran,
eguneroko ekiñaldi estuetan!

Ba'zenki neke orren poza,
zenbaterañoko poza dan!
Ba'zenki gure odol-tanto,
gure izerdi, malkoetatik
zenbatzu lili ta larrosa lurrintsu
ba'zenki, zenbatzu lore sortzen diran;
ba'zenki gau illunaren ondorengo
arginabar ta goiz argiak,
zein egun iorantsu biurtzen diran;
ba'zenki itxaro-egoak,
alegin bizi, kutunetan,
noraño sustartu, sakontzen,
norano zabaltzen diran...!

Ai, ori ba'zenki, ba'zenki
bizi-emate ori, zein ederra dan,
bide-lagun on bat ziñake
bai, gure Kalbario maitean!

---

* *Bidean gora*, 37-38.

## LOKATZA*

Olerkari aundi batek
ala usterik,
gogo onez
esan ba'zuan ere:
«Udaberriarena zala
lokatzik txarrena»,
lokatz ortaz
egosiko da,
biarko gizona:
gizon anaikor,
gizon lerden,
gizon bikaina.

## ODEIAK**

Odeiak ziran
odeiak ta odeiak...
bat eta bi,
aunitz odei
txuri-gorri...
ta, beltzizkak ere bai,
ontziak bezela
itxaskari
goi sakonetako
ortzipe oztin-argi,
ortzipe garbian.

Odeiak ta odeiak,
odeiak ziran
aizebera,
an, goiko zabaldi
zabalean...
odei txuri-gorri
ta beltzizkak,
egabidezko
ibilte zoragarrian.

O, eztakit ez,
zer lillura,
zer ameskizun,
zer pentsamentu
ta egarriz,
utzi nion ioaten
neure gogoari;
eztakit ez,
nola galdu nintzan
une artako
odeirik politenean!

---

* *Bidean gora*, 39.
** *Bidean gora*, 40.

## EZ DAKIT EZ...*

Ainbeste ta ainbeste
gorroto,
ta nabarmenkeri,
ainbeste
oñaze,
ezbear
ainbeste
txepelkeri ikusiz...

Ez dakit ez,
iñoiz amaituko ote diran
ain sustrai sakon,
aintziñatik datozen gogorkeri
gure aundi naiaren
mundu zabaleko
odol-izurtze,
beltzune ikaragarriak;
arako negar,
min oñazezko
esku lotu,
menperatuen,
ostikopetuen
oiu samin
illunaldi
ta gose-egarriak...

Ez dakit ez,
iñoiz
bukatu al izango diran
umezurtz askoren
azpil utsezko
begirada tristeak;
guraso askoren
nai ta eziñezko
naigabe,
miseri gorriaren
arpegi zurbillak.

Alere,
ekin gogoz
eguneroko burruka
bizi-irabaztearen
beartasun itxaropentsuz,
ekin
gizarte zoriontsuago,
alkartuago baten
onerako;
ekin
esiak,
arresiak
lokarri ta kateak
eten ta apurtuz;
ekin
maitez,
bidebera
egizko
azirik onenak
ereiñez...

Ekin
argirik ezaren
illunaren aurka
besoak zabalduz...
ekin,
biotzez,
maitezko lanketa
egun berri baten argiari;
ekin,
mallu ta zintzelez
gizonaren alorrean
ekiñaren ekiñez,
bat-batean letorkigun
egun senti, egun ederrari!

---

* *Bidean gora*, 41-42.

**BIDEARI EMANA** 250.orr.

**AIZEA NORA...** 329.orr.

## ODEIETAN*

Batzuetan
nola dan iakin gabe,
an,
urruti-urruti,
oso urruti...
norberagandik at,
norberagandik
aldendua,
an...
odeietan
ibiltzen da bat
eztakit nun,
galdua...

O, zein aldendua
arkitzen da bat,
an,
urruti-urruti,
oso urruti,
gogoaren egal
amets-erpiñetan,
bakar-bakarrik
norberagandik at,
norberagandik
aldendua...
oldozkun ezbai,
oldozkun arin,

oldozkun illun
edo pozgarrietan,
urruti-urruti,
oso urruti
arkitzen da bat
an,
odeietan,
eztakit nun
galdua...

**TA, EGIZ...** 329.orr.

* *Bidean gora*, 45.

## NORBERAREN LURRA*

Emenko
ta orko
bide estu,
bide zabalez...
egunik egun
aurrera,
ibilliz;
maite dezagun
zapaltzen degun lurra,
gure ioan-etorrien
oiartzuna.

Maite dezagun maite,
ogia damaigun
zerupe,
lurralde kutuna:
etxe,
mendi,
baratz,
zelai,
alorrak;
kale
ta baserri...

maite dezagun maite
bizi geran lurra:
gure
iaioterri,
aberri kutuna!

**TA, OR...** 330.orr.

## ZU ERE...**

Zu ere,
ai, biotz lagun!
Zeure ibilli
bizi bear estuan,
zeure aldapa
igarotze neketsuan,
bideko arantza,
oztopo artean
zauriz beterik,
miñez errea arkitzen ba'zera ere...
ekin zeure bidegite,
onezko egiñari;
ekin zeure Lur
Aberriari;
ekin
zeure ta besteren
zuzentasunezko
bide alde;
ekin maitasunez
gogo biziz ekin
izkuntza mintzoagotu baten eletasun,
bere zorioneko
bizi alde;
ekin,
io ta ke,
mallu,
atxur,
idazkortz,
tresna egokiakin
bidea leundu
ta edertuz.

* *Bidean gora*, 47.
** *Bidean gora*, 49-50.

Ekin
bidea bidetu
errezagotuz...

Ekin
umezurtzen
txiroen,
menperatuen,
naigabetuen
bideko
biurrikeri guztien aurka;
ekin
alai,
kemenez
adoretsu,
bata-besteenganako
bidegite
sendo,
bulartsu,
itxaropen
zintzoenez...

## IOATEAREN IOATEZ*

Ta,
ioatearen ioatez,
zu,
ni...
emen goaz
bai,
emen goaz
nekez.
Beti,
izateko gogo,
beti izateko
gogai-ametsez...

Gau ta egun,
aize ta lañoz
beti,
bai,
beti
izateko gogoz.

Bideko
gorabera,
bideko
biurkeri,
arazo,
bideko
ibillietan...
amets bat ondatu
ta beste bat
berritu
ta sustartuz...
eguneroko ekin,
buruauste
ta alegiñetan
zutitu
ta berriz ere
eroriz...
emen ari gera
zerbaiten bear
eragozpenetan...
emen ari gera
billa
ta
billa...
emen ari gera,
itzal
illunpean,
eskua luzatu ta luzatu,
luzatu ta luzatu
ain bearrezko
argi bizi
gure izar begiko
izar ori
nun ote dan!

---

* *Bidean gora*, 51-52.

## TA, EGUNEROKO*

Ta, eguneroko bide, biziratzez,
unearen giroz biotz-oñak sustartuz...
bideak narama bai, bere goiberatan
beti arduratsu, goiz-gora, arratsez...
neure billa zut, zer ote, gerokotan,
zugatzarte, zelai, zeru goi, izarrez...
neure billa, itxasoratze betean,
egiari tenka, ai! bidaldi nekezez!

Bideak narama bideari galdetuz,
(belarrean oinkari, txoriekin egan)
bideak narama beretuz-beretuz,
eguneroko bizimin, neureratzez,
begiak ederbera, malkoak legortuz,
egun sortze, itzarkera bakoitzean
bideak narama, ametsak berrituz
ta, goenetako argiune, bazterretan,
bizi-ale tanto eder batzuk neuretuz!

Bideak narama betirako bidez,
egunaren itzal-argi, laño artez...
begiak muin, gogo barruan sakonduz,
biziari laztanka, biziari galdezka
egimin... arantza, arriarte zakarrez,
itxaropen eskuratze, neke-alaietan
bideak narama, gero zer izangoka,
gogo guztia ler-zori, nora-ezez!

Bideak narama bere esku illun-argiz,
Izadiarekin aoz-ao, non zer berri...
lore, osto... bizidun oro bezela,
bidegune bakoitzean zerbait utziz,
bideak narama erantzunge, beerati
lore, otso... landare oro bezela,
eguneroko ekiñaldi bakoitzean,
uraren antzera, ioanaren ioanez,
bidebera noa bai, negar-zotinka,
amets guztiak banan-banan erantziz!

**OLERKARIARENA** 259.orr.

**ETA, EGO-AIZE EPEL ARTEAN...** 233.orr.

**GAU ARGI ZERUTSU BATEAN...** 234.orr.

---

* *Bidean gora*, 53.

## BIZI-IKARA POEMAREN ATALA

Gazigeza diran bizigai ta, ozkarbi legunez
bai arriaren aztun, egozko bide urdin zabalez...
bidean naiz erori, zutituz, negar t'atsegiñez,
bidean goramin, egunaren eskukada gordiñez.

Olaxe, bizitzako goibera, biozbegi, eskuartez...
betikoz nabil, betirik betira, begiak irikiz
eta, egia zer dan, zer ez dan, naizena eskeñiz
bidegune bakoitzak dakarren arimatasunez.

Eta, nere ibilbide, amets-aizeratze auetan,
(oñak lur-zale dirala ta, gogoa izarretan)
gauza guztiak naukate bere muin ta ondarretan,
goi-ikaraz sortutako berezitasun garbietan.

Baña, aldizka, bakar-unezko gogai aztunetan,
bizi-eraso, amets illun ta nekaldi gorrietan,
eriotza datorkit bai, ixilki, belarri ondora:
«ai! zu ere, betiko iaioa, ez... betiko ez zera!».

Aurpegi zimur, zurbildua ta, belaunak eratsiz,
irudi negartiak dira bai, oldozkun beltzetan,
oial illun-illunez datoztenak nere oarketan,
aizeari emanak azkena dan illeta-eresiz...

Ta, zearo larritua, odol-izardi otza darorkit
eta, begiak aul, belaunburuak askozaz aulago;
ziprez-irudizko bide samingarri bat dabilkit
eta, nerez at, ildura beltzari iosia nago...

Zega zorrotzaren ebaki, eriozko il-usaira,
arrano erpatsu, bela beltzak etorriko dira
eta, gautxori egada, oiu, karraxiakin batera,
arrak ere, kirrin-karrankaz, esnatuko dira...

Ara ba emen, nere burua, gorputza zan guztia
ezerrez dan auts ustel, lur apurño baten biurtua;
ara emen nere odol ta ain maitea zan bizia,
oarkizun mingarriz betiko ixillean bildua.

---

* *Bidean gora*, 65-66.

Eta, oinpean, zapaldutako belarra bezela,
ementxe naiz ezin bizkortuz, ezin iasoz burua;
ementxe, egoa ausi dioten txoriaren antzera,
negar-irudi beltzenetan lurrera makurtua.

Alere... O!, atsegin, pozgarri zait bai eskuetara,
goiz-arratsez dakorkidan bizi-oñots, aizekada;
atsegin zait bai, gau ondorengo itzartze-algara,
eguna luzatuz datorkidan bizitza dardara!

Eta, izatea dan amets-giro, egun baikorretan,
atsegin zait bai, eta, begiak argiz ditudan arte...
ai! nere azken arnasaldiko il-begiratzean,
egi... ikusterik argiena emango al didate!!

**IZADIAREKIN ESKUZ ESKU** 245.orr.

**GORAKUNDE** 280.orr.

**AUTS ARTERA ERORIZ** 236.orr.

**ETA, OLAXE BIDEAN GORA** 236.orr.

**ANGELUS** 237.orr.

**IBAIARENA** 282.orr.

## ONTZIAN*

Ta bildurrezko
itxaso nastuan,
barrendurik nago:
(goian zerua
ta azpian ura)
ur aundi, ur sakon,
ur naspil
illuna,
ene ontziaren
aldamenean...
uiñak,
aizea,
bitsa,
gau beltzean
orroaka,
arrotua.
Ai, ene ontzi azal,
ene ontzi kaskar au
ezin da bereratu,
buruaren iabe izanik
ezin du ez
atsik artu,
ezin da ez
atsedendu!
Negar ixil,
naigabe samiñez,
neure erri maitearen
egoera itun
oroimenetan nabil,
begietatik malkoren
bat edo beste,
itxasora ixuriz...
gero'an... be'aldean,
bi iturri
ezberdiñetako,
ur gaziak
nola bat dagiten
ikusirik.

## GOIZERO**

Goizero iltzen zait goiza,
ta arratsero arratsa;
bai, or naiz ni egunero,
urrengo goiz ta urrengo
arratsaren arratsera,
goiz eta arratsetatik
izpiren bat neretzera.

**IBILLIZ** 284.orr.

**OGIA** 313.orr.

**GAU-ERESIA** 242.orr.

* *Bidean gora*, 77.
** *Bidean gora*, 78.

**KAIERATZE** 296.orr.

**ITXASORATZE** 311.orr.

**NESKATIL LIRAIN BATI...** 198.orr.

## BIOTZ ABESTI*

Zure
biotz, gogo,
itzalari esker...
O, dan-dana det bai,
neure...
Dana
izar,
lore,
edertza batean
dana,
bide...

Eta,
munduaren
sen,
gaztetasun,
bizi guztia
soñean daramat
elbarri,
gogai itxaropentsuetan
erlez eresitua;
bion artean
dana,
ain eskurakor
eta
goitua.

Bai egun argiz
eta
gau ixilletan
ere,
biotzaren
dei gozoa,
ezpanetara datorkit
egan,
mendi
eta larrez,
izarrik-izar...
zeru zabaldietako
goiberan,
betikotasunez
galdua...

Zure gogo,
begi,
zure
biotzaren pozera,
dana det
lurrin,
abesti...
gure Iainko Aundia dala
Betiko Iturri!

---

* *Bidean gora*, 93-94.

**MAITEZKO EGADA** 313.orr.

**GUTXIEN USTE ZANEAN** 231.orr.

**BIOK BATERA** 283.orr.

**IKURRIN** 266.orr.

**UDABERRITARRA** 251.orr.

**EPALLA** 254.orr.

**UDABERRI ERESI** 270.orr.

**BIZI-GORAPEN** 309.orr.

**OROITZA** 286.orr.

**AMETS EDER BATEN ANTZERA** *317.orr.*

**NEGUAK ALDEGIÑAK BATERA** 230.orr.

**NEGU ONDORENGO ESNATZE** 308.orr.

**BIZI-IKARA** 254.orr.

**ITZARKUNDE** 285.orr.

**IBILLALDIA** 304.orr.

**DANTZARIAK** 169.orr.

**ITZ ARGI...** 251.orr.

**BIZIAK GAUR** 250.orr.

**GAZTETASUN BIDEAN** 246.orr.

**GOIZEKO BELAR...** 252.orr.

**BAI BIDEZKAZ ETA BIDEZ BIDE** 242.orr.

**ARTEAGA** 324.orr.

## OROITZ-MIÑEZ*

Egungo Udazken arrats batez,
neure aintziñako giro batera,
murgildu nintzan unetxo baten
ta angoxe billera maitean,
gaztetasun santzo ta ametsez
neurez-neure goizetik gabera,
bakar-bakarrik arkitu nintzan
ioana zan lenari begira,
orbel-artean, oroitz-miñez.

**NEGARRA** 202.orr.

**ARRATS BIDEZ** 279.orr.

## ARRATSALDEKO EPELEAN**

Arratsaldeko epelean
leio iriki, zabaletik,
ortzalde eder, oztin argi,
amesgarri bat agiri zan
bere eguzki bigun, odei
zuri-gorri ibiltariakin,
ta berago mendi-mendian
zugatzak orri orizkaz
udazkenak lurreratutzen
ditun orbel zimel, illakin,
niri ere, ai!, eriotzaren
etorri beltza adiraziz.

---

* *Bidean gora*, 133.
** *Bidean gora*, 137.

## ORBEL ARTEZ...*

Udazkeneko
arrats minberatu,
bizi etenean;
zugaitz billoiztuetako
orbel eroriakin,
aizea dabil boladan
zurrunbillozko
naste-borraste,
egoera mingarri
ta errukarrian.

Aldibera,
oro dakusgu zimel,
alako ildura itun,
beera bearrezko
goibeltasun itzel,
egal samiñean.

Ori nola dan,
eguna nola
gau biur litekean...
oldoz dagi ni naizen batek,
oldoz dagi ta eragin,
iñolaz ere
ezer
ezin burutuz,
ioate onen
etorri beltzean.

Oldoz ta oldoz
ezer
ezin iosi,
ezin arilduz...
oldoz dagi bai naizen batek,
aizeak nabarmendutako
ikuste naspil, zabartuaren
orbel artez...

**BILLUTSIK** 253.orr.

**GARAITZA** 253.orr.

**UDAZKENEKOA** 243.orr.

**ILDURA** 295.orr.

* *Bidean gora*, 138.

## AMA BATI*

Bere esku laztan, esku biozkor, esku txukunez...
len neska garbi, eder izana, maitekor ta lirain,
gaur, ama lerden, etxeko andre maratz ta bikain,
bizi-alegin bulartsuetan sendiaren maitasunez.

Unero dakusgu bere arazo, zeregiñetan,
ama, emazte, etxeko buru, aingeru izaten;
unero etxea iaso, etxea txukun apaintzen,
umeak aziz Iainko-ardura pozgarrietan.

Utzi ama orri erletasun zintzo, egokienez,
etxea alaikiro etxetu ta bizia edertzen,
amatasunezko egintza, maitasun sendoenez.

Utzi maite-lorrezko otoitz-giro berogarrietan,
sendiaren eusgarri ta biotz izanik, erregintzen,
utzi ama izatearen ardura zoragarrietan.

## O, UDAZKENEKO ARRATSALDE...! 282.orr.

## NEURE GOGO**

Neure gogo
eta biotza bezelaxe,
zugatzak erantzi dira
agertuz soñeko akats guztiak,
mingura gordin ta kabi zarrak,
tankera beltzean.

Alere, udamin...
(amets il ta orri zimel ioanak
biotz-erro,
lur sakonean osoro eortziz)
adar uts, gorrietan,
bultzakor ta sormin,
kutunki dakarte
kimu berri,
orri ezearen sortua.

Amets berriak iaiotzekotan daude,
oraindik itsuan,
noiz ler, zabalduko
berriz ere,
egaka aizean.

---

* *Bidean gora*, 145.
** *Bidean gora*, 147.

**NEGUAREN ATEDIAN** 247.orr.

**ASKO DIRA BAI** 295.orr.

**URI BARNEZ** 306.orr.

**AIZEAREN KIDEKO** 300.orr.

## BILLAKETA*

Billa ta billa, Zure billa nabiltzu, o, Iauna!
Zure billa biziaren goidura ta sustarretan,
zure billa noiz entzungo Zure Itza egitan,
noiz entzungo Zure deiaren anots, oiartzuna,
kezka-miñezko barrupe urduri, sakonetan.

Izadiaren muin itzaltzu, goibe ikusgarriz,
odei arri, mendi, zelai, latsondo, ibai-ertzez...
Betorkit bai, egiazko lurrin, arnasots biziz,
emai ezkutuzko itzal-ikara ta bitartez,
betorkit bai, egun bakoitzaren argi ta guna.

Betorkit itxasoaren asarre, baretasuna,
zerupe oskarbi edo odei-giro aztunez...
betorkit bidezko eguzki, gautada illunez,
bakoitzaren bizi-lotura ta azkatasunez,
izate oron doaitasun ta edertasuna...

Betorkit oinkadarik oinkadarako oartzez,
begi argimindu, begi barrenduen ikustez,
aizearen kutuntasun, aizearen zabarkerietan,
igarotze ezberdin, egamin arnasgarrietan,
izate bakoitzaren soin ta arimatasuna.

---

* *Bidean gora*, 159.

Betorkit bai ain agiri dan aunditasuna,
zu laztan-besarkatuz ain eskutsu ta aukera,
zu neureganatuz ta sentituz goitik beera,
zu aitortuz egunik egun, biderik bidera,
zure argi izpiren bat neuganatuz, o, Iauna!

Arriaren aztun, odeiaren ibilli ariñez,
uraren ioate etengabe, egazti egadaz,
arantza ta lorez, goi ta be, bizkar ta gallurrez
bai itxaso ta legorrezko bizitzan bakanez,
betorkit egizko ikusterik biozgarrienaz!

Olaxe, gogozko billaketarik maiteenetan,
billa nabiltzu, billa ta billa Zure bidetan,
billa bai, Zure billa, eskaritxo ixilletan,
eskurik-eskurako bidegite, alkarketan,
biok bat noiz egingo besarkada gurenetan!

## EUSKAL ERRIARI*

Maitezko ezaupide sakon, biotzondorik zabalenez,
O, Ama Lur! Ezagutu nai zaitut bai, muin barrenez,
egiazko arnasa, zeure iantzi, arima ederrean,
euskal giarrezko oñarri sendo, betiko sustarrean.

Batabestezko alkartze onez, alik garbi, biotzeren,
Maite zaitut, O, ene Erri! maitasunik maiteenez,
ta ipuirik ez dun Erri on bat bezela nortasunez,
giartsu nai zaitut bai ta, eder, betikoaren betiren.

Illunaldi goibel, ekaitzperik gogorrenetan ere,
—Naiz kaskabar ondatzalleak naiz euriteak izan—
zorigaiztoko ioputasun negar utsezok bizitzan,
eguneroko zuganatze maitez... zurea naiz bai, zure!

Zurea bai, zure aldezko lanbide, seme zintzoakin,
zure seme errimindu, zure seme gertu, apalakin,
mintzo etorritsu eder baten tresna goigarrienakin,
Euskalerri zindo, bizi bat osotu nai dutenakin.

Poza damaikidate bai, egun-argitze oskarbiak,
poza, zure mendi, arru, ibai, zure lats, iturriak,
poza zure itxaso, zure ibar, aran ikusgarriak,
erri baten lautada ta erpin, ikuste gurgarriak.

---

* *Bidean gora*, 160-161.

Bioztasun aldezgarri, maiteratze betegarrienez,
abes dagiot bai, iaio nintzan lur eze, maiteari,
eguneroko ekintza, bidegite iraungarrienez,
naizen apurra gogorik onenaz eskeñiz berari.

O, bai, zugan bizi naiz bai zugan, ene biotzeko Erri!
Zugan bai, biotzez, gogoz, eguneroko lor, zureratzez,
zugan, zureago izateko iorantasun ta ametsez,
biok mintzul, biok eleka, kutun-kutunka alkarri.

Ibarrik-ibar, zelairik-zelai, mendiz-mendi, goraño,
zurekin naiz bategiña, zurekin noraño-araño,
naiz elurra izan, naiz kaskabar, bai eurite ta laño,
zurea naiz naizen-naizena burutik orporaño.

Millaka bitxi, edergarri eder daurkidaz zugan,
millaka elebide maitagarri, ibili eskean,
millaka alor, zelai ta bazter gogozko gutarrean,
iñoizko goramin gartsu, bizinairik bizienez, sutan.

Ta itz dagidate bideberako bizigai guztiak,
mintzo ixil, mintzo ezkutu, alkar-euste argienean,
itz dagidate ibaika, iorantsu, danak bat-batean,
baso, mendi, etxe, landa, gure bideetako arriak...

Itz dagidate alkargintzazko aupada baikorretan,
ta, itzartuz datorren Erriaren poza da nire poza,
egunik-egun, biziago, sendoago nabaitzen dan otsa,
biotzik-biotzerako oinkada, ezagutze ederretan.

Ta, agur itxarotsuz abes dagiot ta gorazarre,
zigorpean aurrera gogoz darraion erri maiteari,
abes maitekiro bere itxas, bere zelai ta larre,
nire biziaren bizia dan oñarri etorritsuari.

**EGIA DA BAI, EGIA...** 326.orr.

**KEMENA** 314.orr.

**ESKARI** 256.orr.

**ITZARTZE** 288.orr.

**AIZEAREN MENEAN** 316.orr.

**NI NAIZEN ONTZI BEARTSU ONI** 316.orr.

## BETI EZIN DA BAI ESAN*

Bizibidezko bildaldi bizimindu, nekezez,
izki-ariz itzak gogoz iosi ta, aizeratuz,
ioan-etorrizko oartasun, goiz-arratsez
amaika ameskizun, gogai-mataza arilduz...
O!, zenbatzu argi-aztarna ta gaubide illun!
Zenbatzu lillura, amesgai, zenbatzu otalar,
aiots ta negar artean... zenbatzu gozotasun
ta unerik unerako diztira, arginabar!
Gun ta izanez gauza bakoitza izentatuz:
goiari «goi» arriari «arri» egunari «egun»
zeru-lurren arimatasun, itxaso sakonez
«otso» «azeri» «illargi» «odei»[1]«laño» ta, abar,
aldi-girozko arabera, gogai ta, oldozkun,
bai udaldi eguzkitsu edo negupe otzez,
eguneroko artueman, bidezko goiberatan,
itza da bai itza bere sustar zabalduratan,
gose-egarrien, nai guztien goiburu ta izar!

Ta itzal-argiz bizia ospindu, gatzituz,
gure eguneroko biziratze etorminduz...
itzak aizearen kideko, antzeko izanarren,
ai! danak eztira aizepean gogoz onartzen,
danak eztira gogoz laztandu, besarkatzen;
batzuk ogi erre berria bezin gozo, bigun,
beste batzuk burni gogorra bezin zakar, aztun,
gorroto negargarriz edo biotz maiteminduz;
bakoitza bere eragozpen bere zoribidez,

* *Bidean gora*, 172-173.

bai egun ozkarbi eder edo laño zabarrez,
asarre edo lagun, itzak egan doaz egan,
abots ezti, abots lerden, abots makur, narratzez...
gizonaren bidezko argialdi, illunbetan,
aizean doaz bizi-ekintza aldakor, ezbaian,
egan, txori antzo, poz-oiuz ta karraxi miñez...
...usoaren, arranoaren, elai azkar ariñaren
edo, beltza baño beltzago dan bele zarraren
egara baldar, il-sundazko kuakots illunez...

Itz totel, itz gogor, itz maite, itz eder zakarrak,
eriotza ta bizia daramaten itzak ta itzak...
aizean doaz aizean, gizonen ibillietan,
eguna poz-berritu edo, itunki goibelduz...
egan doaz bai, bakoitzaren buru ta aburuz,
bakoitza bere ogi-ardura, ioan-etorrietan,
egan... zoritxar illunetako tristura beltzez
edo arako argi urratze, zeru garbiaren
oztintasun pozgarritsu ta gogai alaietan,
egan... bakoitza bere ego, ameskizunakin,
aldibera, biotzak argiratu edo suminduz...

Ta, izbidezko aldigiro ta ibillaldietan,
gizonarekiko artueman illun ta argietan,
agurtasun lagunkor edo otsokeri latzez,
itzik ortzera alkarri eutsi edo zanpatuz,
egunak goizero edertu edo erreminduz...
O, bidezko anai! ta, ni bezela ioan bearreko
lankide, adizkide, bidari... etsai ta lagun;
ta zu, ta zu, ta zu... zenbatzu biozpe erdoitu!

Bide bazterretan zenbatzu bekoki, goi illun!
Maite izan nai zaitut, maite-maite, kutun-kutun,
baña zure itz gaiztoak zitalkeri biurrian,
nagusitasunezko zigor, agintza aztunez
erortzen ba'dira errugabearen bizkarrean
ta, ikusiezin utsa beste deusik ezpadute,
bere agindu ergel ta egintza kaxkarretan...
ta illunkeri garratza, eriotza bai'dakarte
ta iauntxukerizko txakurkeri txakurrenez...
itz aztun, itz zeken, itzik loi ta amurrutuenez,
ortz zorrotzak erakutsirik agurtzen banaute
ta gizona ostikopean ikusiz mallukatua,
ikusirik erria kate gogorrari lotua...

Ai!, nik ori iñolaz ere ezin det onetsi,
ezin det goraldu sugetar azpikeri ori,
ez arranoaren erpatzar ez erroi beltzaren
kuakots illuna... orrenbeste ezin det iasan,
on-zale, biozkor ta maiteberatsu izanarren...
ezin du batek beti, bai esan, olaxen, olaxen...
ezin du ez naitere, ezin, beti, «bai» «bai» esan,
itzak eguneroko bizibidez eskurago,
gizatsuago ta biotzago ezpadira ekarten...
ezin det ez, ezin det beti egin, amen, amen,
ezin zitalkerizko agindu ta ats aztunez,
nagusikeri ioputzalle te lizunezko
gorrotoaren aotsa besterik ezpadakarte...
Ez, ezin da ez, ezin da bat beti ona izan!

## BIDERA ATERATZEN GERAN...*

Bidera ateratzen geran aldi-une,
gaur egungo ikuste
ta oitura bakanetan,
bidean...
gizon itxurazko anitz gizon eme,
anitz ume desorritu,
ume ergel,
ume marrautu;
anitz gizaki txorobil ta kaxkariñez,
anitz muetako gogo bizi,
gogo il... gogo ariñez,
anitz margo ta apainkera
eder ta itxusiz
arkitzen gera.

Orregatik gaurko egun lastermindu,
gaurko egun urduritu,
gaurko egoneziñean
ikusten dezunaz
ezaitez arritu.

Ezaitez ez,
ezaitez atzean,
ezaitez bidean
bildurrez gelditu.

Ogeigarren gizaldi iakin-mindu, aitzindari,
gizaldi nabarmen,
gure mende aurrerakor, arrigarri,

---

* *Bidean gora*, 174-177.

mende ausartsu,
kezkati
ta itsu...
gure mundu elbarritu, ezbai, bidegarritu;
gure mundu lausotu ta argidun
gure mundu odoltsu ta nekegarri,
mundu egatu ta ikusgarri ontan...
gure iakintsuen kosmos bidezko
mirarizko bidegite
ta egunik egunerako
aldaketa,
mundu-berritze ikusgarri
ta aurrerapen sinisgaitzakin,
asi Gagarin ta azkenengo
mundu zearko ta illargi birazko
izarlarien ioan-etorri,
billaldi zoragarriakin
ta arako Barnard ospetsu baten
biotz aldaketak ta onelako
gauza arrigarri, bakanak nun-nai ikusiz,
ezaitez arritu.

Ezaitez arritu, ez,
gaurko kezka,
egonezin,
gaurko argitasun onurakor
ta, basatikeriakin,
askoren uskeri,
billustasun,
egoera orditu
tristeakin.

Ezaitez ez,
arritu,
ille luze ta bizar tximazko gazte baldar
ta, alako agure zar birloratu askoren
ergelkeri ziztrin,
zorongo-morongozko
eroaldiakin;
ez arako
neska pandero,
neska zoro,
emakume batzuen
gona antzeko gonatxo
erakusteakin...

Ta zoaz aurrera,
zoaz bai egiazko egitada, ekintza adoretsuz,
bidea gizonki iantzi ta ibilgarriagotuz,
zoaz gaurkoz, zar-berriz eraberritua,
muin betikorrez bidea irikiz;

zoaz gizonki gizonaren gizonera,
bere zabal ta estura...
zoaz bere gogai,
bere barren-kezka,
bere buruauste,
bere itxaropen,
bere izate
ta agerkera,
bere biotzeko
berearen berera.

Zoaz esku bat, biotz bat,
kideko gogoren bat arkitzera;
zoaz baikor,
bulartsu ta sendo,
bideko arri koxkor
oztopoak kenduz;
zoaz aidetsu,
bioztun,
zoaz bidebera...
entzun,
ikusi,
adituz,
gizarteratuz;
zoaz bakarti,
ta danakin bat
zoaz esku latz, izardituen bide gogor
bide nekezez,

zoaz abegi on
bearrezko dan ardura, itzalez,
zoaz gizonaren bidera;
zoaz bai bere gurari,
bere urduritasun
bere altxor bizira
ta, eguneroko batabesteratze bidegarriz,
eguneroko bidegite, sendagai osasuntsuz,
ta askozaz zoriontsuago,
gizonago arkituko zera.

Ta, ikusiko dezu bai gero, ioran bizian,
alkarmiñezko pilpiltasunik pozgarrienean,
zuk uste zendun mundu gorrotogarri,
mundu desbidetu,
mundu baldar,
illun ori...
ikusiko dezu dizdizean,
eder baño ederrago,
emai argigarri
bete-betean...
ateak,
bideak,
biotzak,
ikusiko dezu argira, nola zabaltzen diran,
ta ain baldar,
ain burugoi,
ain ergel,
ain ero ta kaxkarin,
ain kirten ta zabar ain ustelak ziruditenak,
ikusiko dezu bai goizetik gaberakoan
Udaberriko larrosa ponpox ederrak bezela
usai goxoenez nola biztutzen diran
gizontasunezko itzartze maitagarrienean!

# III

# 1971-1990
# OLERKI-LAN UGARIA
# SARIKETA ETA ALDIZKARIETAN

# 1971

## EGIZ*

Egiz,
biotzez,
maitez,
aurrez-aurre
ta gizonki,
bai udaberritar gozotasun
edo neguaren illuntasun
bidegiroko
bizi-une,
aldi bakoitzean,
esan al ba'litzake esan
gure kezka, oñaze ta abar,
banatzen gaitun
esamesak
zer,
nola diran...

Esan al ba'litzake esan
gogoz-gogo,
eskuz-esku,
batabestetasunezko arkitze
ta zintzotasuni zabal,
biotz-agertze
ederrenean...
esan al ba'litzake esan
itz argi,
itz adikor,
itz apalez,
norbera
egiz,
zein,
nor,
norbera
izatez,
zein dan...
ta zure
ta nire arteko
ibillian,
zer itun,
zer bizinai dabilgun,
begietan dingilizka
agermin,
ezkutu ixillean...

* Karmel 1971-1, 36.

## MUNDU ZABALEAN*

Mundu zabalean diran
lapurketak,
erailketak
eta abar;
ortik
gorako,
erri,
gizonen
menpetasun,
ta gogo
zapalketak,
zigorrezko
oiñarri
ta katezko
ixilpe
ixillean ...

Ai, bidegabekeri
oien berri,
nola ager,
aizeari
nola eman!

Gizonaren gizonarekiko
txakurkeri
gaizto,
mingarriok
egun argiz
zabaltzeko,
ez dago
itzik,
ez mintzairarik,
diran
bezela,
antz eman
eta,
esateko,
egi garratz,
egi gordin
aztunegiak dira bai,
iñor mindu gabe
azaltzeko.
Ala ere,
egi mardul,
biribillok...
beti
illunpean,
ixilpean,
ezin dira
eduki.
Agertu,
zabaldu,
zabaldu egin bear dira bai
guztion onez,
Erria ta Gizona
azkatzeko.

* Karmel 1971-2, 9.

## LENAREN LENETIK *

Lenaren lenetik
ta gaurkoaren gaurkoz
bide aztun,
samiñez,
ariz ari
lokarriz,
emen darraigu
ten-tenean,
bizi izateko
burruka
gogor,
euskera
aldezko
ekintza
etengabean;
gogoz
aurrera
darraigu,
ain gogozko
ta ain nekeza dan
bateratzean;
ona orain
indartsu,
abots berriaren
dardara eztia,
len baño len
izateko,
izangura ederrez,
ona emen
etorriari
gores,
agurka,
batasun karraxi
gerakaz,
ezin oñarrituz,
euskeraren
aldezko
lanbidean;
maitez,
gogotsu,
aurrerakor dakusgu
Erria,
bere oiu larri,
ta bein batezko
elburu
egokira,
iritzi naiean;
biotzak,
eskuak
ona emen
ametsik
ederrenean.

## LENGOA**

Orain ez dago
lengorik,
gaua ta eguna
besterik;
arranoa arrano,
usoa uso,
ta..., ai! ez aztu,
urrea dala urre,
orain eta beti,
munduko nagusi,
munduko iabe...
O, bai, olaxe,
olaxe da bai,
urrea da urre...
baiña ez uste,
aburuak aburu,
adar guztiak
diranik urkulu.

* Karmel 1971-3, 39.
** Karmel 1971-4, 21.

## UDAZKENEZ*

Mendietako iratza, baso, oianez...
Izadiaren oritasun ikusgarri
eta, Aldiari dagokion elduaroz,
bein eta berrizko ioan-etorri,
etengabeko aldatze ta otzberoz,
orbel-illetazko eresi bakanez
Baztan alderdiko lur ta ikuspegi
illuntzetuaren agur zoragarriz...

O, aize emekoi, aize zaratari,
ego-aize egakor ta aldagarri!
Lurra agor ta, erabat pozberotuz,
bideak betezko edadura zabalez...
Aizeak ots dagi, arro, bereziki,
ots, negu-aurreko abots nabarmenez,
zugatzak astindu ta, larrak gorrituz,
aizeak ots dagi bai, zugatz ta larrez,
bultzada ozen, itsuetan, orriz-orri,
errukige bizia makur, erantziz.

Bai zarama eta bai adar lauskituz,
aize bolada eraginkor, zabarrez,
biziak, aldakor... O, bai, iges dagi!
Iges dagi, igeskera betikorrez,
bere egunkera illun edo argi,
egun moztuen bidegiro orbeltsuz
biziak, iges dagi, lasterka, narrez,
Itxaropenak, ametsak obiratuz,
orbel zokoratuen erio ixillez...

## ITZA**

*Errerako euskal ikastolatako andereñoei.*

Aurkitu zazu itz ori:
itz zuzen,
itz artez,
itz egoki,
bakarra.
Gogoa ta biotza
asetzeko
duin dan
egiazko
itza.
Itz erraz,
itz garden,
itz sendo
esanguratsua.
Ez biurrikeri,
ez okergune,
zalantza gabe...
(argi eta garbi)
gozoro,
zuztartzen dan
itz adikor,
ta giartsua;
batari, bat,
biari, bi,
gauzak zuzen
berezei
ta, osoro,
egoki,
gogoa ta biotza
betetzeko,
duin dan
Aldi ta,
une bereko
itza.
Aurkitu.
Aurkitu zazu itz ori.

* KARMEL 1971-4, 31.
** Z-Argia 33[34] (1971, 432. zenb.) 11.

# 1972

## GERNIKA*

Astero bezela gaur ere, gernikar astelena da:
astelen azokatsu, astelen alai, ibilgarria
ta, aspaldiko bider ta gogoz ni ere bai, emen naiz
baserri inguruetako iendetza ta salgaiakin,
zerbaiten bearrez ta «denpora pasa» etor diranakin...
Baiña nik emen ez ba'det zer saldu ta zer erosirik,
zertako ote naiz ni ere zertako ona etorri
neure gaztaroko oroigarri zarrez beterik?

Baserritarrak, tratulariak ta abar ta abar,
bai notintza ugaria Gernika'ren biotzean!
Azoka aitzakiz
demak, pelota-iokaldiak,
ian-edan arin ta nabarmenak
albo errietatik aurkeztu diranen atsegingarri.
Gernikar dendariak, saltzalleak pozik
ta, iatetxe, ardangelak zer esanik ez!
Edanzaleak etengabeko sartu-urtenean
barrik-bar...
Akeita, txola ta txokorra;
ardoa, garagardoa, koka-kola, kas, fanta
eta, zer ez geiago? Schwppes, wissky...
barrik-bar...
Iruña, Nekazari, Bake-Eder, Arrien, Irrintzi,
Las Vegas, Los Pasos, Erreketa, zar ta gazte
barrik-bar...

Emen azaltzen dira Elkano'ren antzera
itxasoz-itxaso eta porturik-portu
munduari bira emandako itxastarrak;
emen kaletar, baserritar, amerikanoak,
munduaren berri zerbait dakitenak
barrik-bar.

O, Mister You! Euskaldun ingeleskari,
artzai menditarra. Nundik izan aiz i?
Idaho, Nevada ala Iainkoak dakin Australi'ko
mendietan?

---

* Agur 3 (1972, 60.zenb.) 7.

Gernika'ko zugatz zar, zugatz bedeinkatuak
itzegiten ba'leki, egiak aitortuko lituzke
ta, zugatz berri onek ere beste ainbeste?

Gaur zugatz ori esipe gogorrean
arkitzen dalarik intziri samiñez...
atzerritarrak zure ezkur eta orriakin
dirua eskuratzen ondo ikasi dute.

Bai, beti bezela gaur ere gernikar astelena da
baña beste astelen illun, mingarri baten
sugar ta ke beltzez ingurututako egun
ta gau beltzago baten oroimen beltza
datorkit, baiña gaurkoz ez det geiago
mingarri dan ezertxo ere aitatu nai...

## MINTZO IXIL BATEZ AOZ*

Mintzo ixil baten aoz,
(azalkiro ta barrenez)
biziaren oñotsik-oñots,
begipean dabiltzen izadiz...
zugaitzak, basoak, ibaiak,
landa zoragarriak...
aizearen eragin gozoz,
(orain etzan, gero iagiz)
itz dagite bai mintzo ixillez:
goizeko intz bustiaren
eguzkimin atsegiñez;
gabeko illargi betearen
izarbide laztanez...
itz dagite beren berez,
adarrik adar, zelairik zelai,
goietako odei, lañoz,
urgain eta ondarrez,
itz dagite xurrumurka
bakoitzaren bakoitzez
beren makurtze, goiberatan,
itz dagite gauza guztiak
bizi izatearen biotz beroz.

...Ta, zeru goi, lur bazterrak
mintzairarik arrigarrienean
aoz-aozko betiratze,
edertzarik ederrenean
nola elekatzen alkarrez.
biziratzen diran ikusiz,
biotzez nabilte eta gogoz,
bai kanpokoz bai barrengoz
dei ixil ta entzungarri orren
izatearen sakontasunean,
ene egoak aizeatu
eta, betirako iantziz...

Mintzo ixil onen edadura
mintzaira ezkutu, zabalean,
biotz-begi urduriak itzuliz...
bai, ni ixillik nago, ixillik,
neure ikuste eta entzutez
ezin geiagoz, zinets eziñik,
ixillik nago, ixil-ixillik,
zugaitzak, basoak, zelaiak
bakoitzaren bakoitzez,
nola elkartzen, ematen,
nola biziratzen diran
bein betirako ikasiz!

* Karmel 1972-1, 9; *Esk.* XXII, 21.

## MAITEZKO BIDEAN *

Biotzeko ixil-mintzo argikor, agurgarriz,
zure begipean nabilzu maitezko pozez,
odolaren berotasun, sugar bizigarriz,
alkar-miñezko ameskizunik ederrenez

deia dan begiratze, izpi gelgarrienetan,
itz dagidazu bai, su-emate zoragarriz
gogoraño barnetzen dan emai, etorrietan,
ibilbide argiena dan biotzaren eskariz,

bide dagigu begiz-begi, maitezko bidez,
alkarganako leiaketa, agur gozoetan,
iolasik ederreneko ariketa maitez.

Amets-aize baten ikutu, aide garbira,
o, biotz! Agurrik gozo, ikusgarrienetan,
zugatzak ere, o, zugana makurtzen dira!

## IZATE**

O, bai,
zu nor zeran
nai nuke iakin,
egunero zakusdan
ori...

O, ez,
ez det nai!
Iakin nai nuke
neure ikusterako
egiaren egiz,
nor naizen ni.

* PVV 7 (1972, 80.zenb.) 5.
** PVV 7 (1972, 81-82.zenb.) 4.

# 1974

## UDABERRI*

Egunak argi, ateak zabal,
goituz datorren bizia da,
ikutu me baten ezkutuz
maite-itxaropenez iaukal
izateari lokarritua,
betikotasun amets gartsuz.

Egal batetik besteraño
ezetasunezko etortez,
lore bitxi ta belar apal
izakirik txikieneraño,
beren izkuntza ixillean
udaberri dala diote
ta, alaxe da izan ere
ain sakonkiko aurkeztu dan
alatz aundi baten bitartez.

Kantu ta eresi artean
—oro goitiar ta iaunkiro—
soñeko ederrez iantzia,
—oro itxarokor ta sendo—
gazte lerden baten antzera
biziro alai, ikusgarri,
goi alai, ikusgarri,
goi billa... ain begiragarri!

Bizi ikaraz, lerroz-lerro,
iñurri langille, ingumaz...
aurrera dator bai guztia
aizea laztanduz maitari,
belardi eze, lora bipil,
burura datozen gariakaz:
ibarrak, zelaiak, mendiak
oro bizi-menduz, txoratik,
itxaropenezko etorriak!

Zugaitz orritu, zelai ezez
oro eder-mintzoz bildua,
txori txiunta, aize ariñez
ta, berein zeru-eskukada
ego-zabaltze atsegiñez,
bizia bizi eske ari da
gogai alaietan gerotua,
urduritasun bioztuenez.

Neguari iges egin dion
goraldi onen barrenean,
betikoaren gogoa datza
biziro indartsu ta sakon,
Aldiari eskeñiz biotza
zitu izango dan lorean!

* Agur 5 (1974, 132.zenb.) 6.

## MINTZOA*

Itzez itz, mintzoa da
alkartzen gaituana gogoz
anaitasunezko erabidez,
lurraren maitetasunean:
mendiak, ibarrak, itxasoa;
amaren, aitaren, arbasoen
anots bizi, gure oin-bidez
aintziñatar abots sendoaren
oñarri biziak pilpiltzen
diralarik biotz barruan.

Euskal gogoaren menduz
edertutako itz bioztuak:
«Ama», «Aita», «Biotza», «Maitea»,
gure bizia etorbidetzen
eta, betikotzen diguten
izkuntza zar maitagarriaren
odolbide betiraungarria;
alkar-bizitzaz ondutako
itzal argidoi, gaurkotua.

## BIDE GOIENEAN**

Aurretik bide gutxi
gelditzen zaiola-eta,
ikusirik gizonak ba'doala...
gogamenaren bidez
atzera eragin nai lekio
aurtzaroko, gaztaroko
amespean igarotako
aldi igestu, ioanari;
berriro ere lengoa
bizi eta pilpilarazi,
ain gartsua zan odolaz
aintziñako biotz zarrari.
Udazken arratsaldetan
negu aurreko orbelaren
zimeltasun eroria
nabaituz gure odolean,
atsegin izan oi zaigu
lenean murgiltzea;
gazte oin ariñakaz
urratutako bide-zear
berriro ere egatzea.

* Agur 5 (1974, 164.zenb.) 4 (ik. *Esk.* XXII, 22).
** G-Argi 15 (1974, 220.zenb.) 2.

## GAUZA APALAK*

Beren gaiki, izate, senez,
gauza apalak ditut maite
eguneroko bizi izatean:
arratsa eta egun sentia,
alkia, maia, leio irikia,
itxasoa, elurra, mendia...
urrutiraño aurkezten dan
izadiaren goibetasunez,
gogo-ikuste ederrean
begiak sakonduz nabilte.

Itxasalde zabaletako
barealdi ta ekaitzaldiak
uin goiberatsu, urduriak,
zugaitzak, zelaiak, ibarrak,
ogia eta ardoa, sagarra,
iratza orlegi, alorrak,
ta, eskua goiruntz iasoaz
kilin-kolo, ibilten oztaz
dakiten ume irriparrak.

Maite ditut baita arako
len izandakoan alikatuz,
alkar-izketa pozgarrietan
berein bizi-aldi oroituz,
eguzki-egun epeletan
ipui-eleka biltzen diran
udazken elduaren orriko
atso-agure urtetsuak.

Udaberri, Udazkenetan
—lorekunde ta orbelpez—
mintzo ixil ta abots leunez,
aldiro goiberatzen diran
zugaitzak, zelaiak, ibaiak,
beren sorgai ta izanbidez
zerbaiten itzal, arrimena,
poz-ikutua dakarkitenak!

Maite ditut gauza apalak,
bakoitzaren biotz-arimaz
eguneroko bizi-lorrean,
lainko Apurño Zoragarriz
ezkutu maitezko ariakaz
ta, ederdura ikusgarriz
bizia goitarazten dutenak!

* Karmel 1974-4, 58.
* *Esk.* XXIII, 159; *Esk.* XXIV, 36. (1974-XI-22).

## DONOSTI*

*Abrisketa-tar Patxi'ri adizkidetasunez.*

Ikusteko begiak dituztenak ikusbezate bai,
Kantuari itxas-aurrean, biziro eder, orlegi;
beso zabalik, arretaz mundura begira, alai,
bere ondar garbi, egurastegiz... gure Donosti!

Urgull'a bere gazteluz ta, Igeldo, ain pinpirin,
Santa Klara ugartea erdi-erdian daukatela
tintoki, lerden, or dakusguz ederra daritela
aldi-oro, itxasoaz ele bizian, ain sorgin.

Egunaz garbia, txukuna, ederra badirudi,
uriaren biotza eta gogoa Urumea delarik...
gauez ain panpin, bitxia da...benetan ikusgarri!

Ta, euskal ekintzaren buru bezela, goitasunez,
Donostia bat bakarra dala gogoan arturik,
erri argi bat mintzo zaigu eredu ta zentzunez!

## BILLAKETA**

Gauzak artu diran diranez, beren emai, beren senez
ta... zoaz, begiratze oargarrietan, itaunduz nor zaran,
—arriaren gogor, egunaren eguraldi, gauaren gauez,
aizearen baretasun ta ekaitzez, alai ta itunez—
Zoaz bai, muin barrutik, begiraturik egaletan,
—batean gora, bestean beera, zori ezberdiñez,
bizia dan eguzki, izadiaren mami, okergunez—

* *Esk.* XXIII, 159; *Esk.* XXIV, 36. (1974-XI-22).
** *Esk.* XLIV, 5. (c.1974).

Zoaz bai, begi-goseak irikiz sakosta ta goi-aldez,
—bidea egokitu, eguna egunduz, oro ausnartuz—
Zoaz negarrak estali, eskua maiteki luzatuz,
ta billatu zaitez bai, bideko gaillur ta sustraietan,
ari ta lokarrizko, betiraunezko neurri, loturatan,
eriotzeari eskua emanik munka diardun goiberazko
ta aldi-unezko ioan-etorriaren izan berean.
Billatu zaitez itzaren susper-aldi, aizearen egal,
ta bide ondoko itur, ibaiaren itxasoratzean;
egoetan, ostoetan..., belaze, baso, oianakin uztartuz,
billatu zaitez bai, ixillaren mintzabide sakonez,
doiñu bizi, adigarriak, goitzen diran argipean,
ta, zoaz illunbeak aizeatuz, argi-une alaietan,
—goizaren goiztada, eguerdi bete, izar-arratsez—.
Zoaz arru, arteka, bizkar garotsu, mendi malkarrez,
gizabidezko alkargintzaz, biotz-eskuratze betean,
—aidetsu, ongarri, zabal, ta ematerik goigarrienetan—.

Ixillaren magalpe ezkutuko zorabio oldartsuz,
orokortasunean eiotako ikustaldi ta gogoetaz...
bideratu zaitez argi izpi, itzalaren magalez,
kantu zarrak eraberritu ta bide berriak urratuz.
Zoaz bai itzaren sorburu, izadiaren altxorrez,
bakoitzaren uraska, muin ta senera urreratuz.
Zoaz bizi-eriodun kate iraunkorraren laiñozko
illunbe ezkutu ezezaunaren zadorpe utsalez.
Zoaz —artertuz, arakatuz, bizia ereiñik gogoz—,
begiperatzen dezun lurbidearen alorretan.

Billatu zaitez zeure igaro-aldi, estu-zabalaren,
zeure ekin ta iardunbide, zeure zauri gordiñetan,
ta zoaz, udaberri baikor, negute gorriaren biotzez
ibar ta arru, landa, zugatzartez ta arriz-arri,
biziz goraberatzen dan gizon mugatuaren oñatzez...

Ta bata-bestezko gau-egunak bizi-itxaropentzen
diran mundu ikusgarriaren azalpe ederretan,
murgil, ta burutu zaitez, gauza nimiño ta aundien,
oar-bidezko ikuste ta izantasun ernalkorretan,
zeure biotza edatuz zorioneko maite begiratzez...

## OROITUZ *

*Aita Onaindia'ri*
*bere omenaldiko 1974.ko*
*Olerti Egunean.*

Gaur ta emen, Larrea'ko Aita Santi'ren omenez,
bere *Olerti* gogoratuz ta ainbat idazlan eder,
Axular'i zor zaion itzal ta, Arana'ri esker,
mintza bedi Euskalerria, betikoaren goimenez.

Mintza bedi ats berbiztuaren edadura sakonez,
egunak lan-bidez egokitu ta gogoz aintzalduz;
mintza bedi seme gurenen sen ta argitasunez,
itxaropenaren ate eder-pozgarriak zabalduz.

Ez dugu aztu ez, indar goimaillatuaren kanpai otsez,
gure lur mindu, aritzaren abar gaiñez, nabarmen,
aizea nola oillartu zan bere zega zorrotzez,
oiukatuz arro, erriaren galera ta ondamen.

Izutua zegon erria, ume negar, ama gaixoen
samin estu, biotz zaurituen illunaldi itunez,
ta ezpata goituen esipe gogor ta gaiztoen
ainbesterano ugaldu zan erbesteri ozenez.

Ezin esan-alako ai-ots amaige, gau luzean,
illobizko ixiltasun minkatz, espetxe lurrunez,
uri, baserri, etxe oro, beltzez iantzi zirean
ezin geiagozko odol-erasoaren goi aztunez.

Desegiña, odoldua gelditu zan bai erria,
beti, «habla en cristiano», aginduaz garrazkeriz,
ainbat eragozpen ta salakuntza, ainbat goikeriz,
ostikoperatu naian betiko, gure etorria.

Izenerañoko guztia ken nai izan ziguten,
lurperatu betiko, erriaren mintzoa, gogoa,
sustraitik atera, ezarri-aziz, ai!... betiko loa.
Baiña ez... ez zuten ondo gure erria ezagutzen!

* *Esk.* XLIV, 6.

Bere orma zar, betiko arnasa ta zimenduz,
itxaropenean lerden, oraindik zutik dirausku,
besoak zabalik, orokorki mundura begiratuz,
gernikar zugatzaren eskurrak ez dira akitu.

Bizi izateak demaion izanbide, altasunez,
ez da il oraindik arbasoen argi, iatorria,
ez da agortu gure erriaren emai, iturria,
baizik ugaldu, izpidezko etormen, goitasunez.

Ixil-ostekazko bidegitez, sator-lan ezkutuz,
(ain beruna dan zigorraren barruti estuan)
erri bizitzarako langaillu berriak eskuratuz,
txingarra ere sugartu zan maitezko ikutuan.

Maite eragin gartsuz, gogoz ari gara lanean,
—lurra landu, sokillak austu, azia ereiñaz, gero—
ondorengoak izan dezaten egun urbil batean,
uztatze on baten gari, bizitzazko opil bero.

Erri-lantze eder oni dagokion leitasunez,
emendiozko izpi apurño ezer baztertu gabe,
mintzoa iantzi, berrituz, bearrezko eguntasunez...
Ekintza au, izan bedi etorrizko sugar, labe!

# 1975

## ABOTSA *

Maitasunezko oiartzunaren
Aralar, Auñamendi, Gorbeatan,
Euskalerriko lur, ibar gañez,
bizi edadura sakonaren
azkatasun oiu, irrintziñez
(abots biurri askoren artean)
sendoro, ezti, aberri miñez,
bere abots gorakor, sutsua,
oñarri sustartsuz gallurtu zan
erriaren gogo eta odolez.

Biotzaren, gogoaren, erriaren
gizaldietako illun-loturaz
urteak-zear, buru-gaindutako
itxitasunaren, gelkeriaren
laño aztun, nagia baztertuz,
arru, landa, ibarretan gora,
euskal gogo makala sendatuz,
bere abotsa goituz zetorren
erria itzartu, biziratuz
egun berri baten arnasaz.

Betikoz, egian sustraitua,
iru margoren ikur, oialpez,
uriz-uri, baserrietaraño,
gogoz erein eta zabaldua...
Lenean, iñoiz entzun ezlako
goidura, berri on bat zekarren
lo zegoana ere itzar-aziz,
bere deadar zoli, argikorrez.

Zai gengozanaren abotsa zan,
beren mindura ta atsegiñez;
biziro sakon zabaldu zana
arru, landa, ibarretan gora,
aritzaren itzal-ondo maitez
Euskalerriko arima billa,
iñoizko biotztasunik sendoenez.

## UDABERRIA **

Bizi-mintzo edergarriz
eguzkiak berotutako
aize epel, euri mamiz,
zerupe garbi, aratzez
ona emen izadia
biziro alai ta gorakor,
egunak luzatuz, sendatuz,
mendietan, ibarretan, zelaitan
lore-ostotza ugariz
gozoro udaberritua.

---

* Agur 6 (1975, 169.zenb.) 4; *Esk.* XXII, 18.
** Agur 6 (1975, 178.zenb.) 4.

Ona ba emen deikada emez
bizia itxarotu, azkortuz,
oin berrien amets-otsez
zoragarrizko lilluramenetan,
zeru goibel, illunak
ta, negu gorri aztunaren
goibelkeria urratuz...

Bat-batean, sugarretan,
ona emen etorria,
soiñeko ezez iantzia
ta, emaikizun eskeintzaz,
pozbide zitukorretan
lore-mintzoz atsartua...

Udaberria da Udaberria,
amets berrien sorburua!
Ori dio bai goizaldeko
argi erraiñu biziak,
ori, bizia gorestuz,
ari diran txori-aldra
ta bikote kantariak.

...Bitartean, beste aldez
gizona biurri, ergel,
bere itsumustuko
egituretan esitua,
odoleztaturik ta miñez
indarrean berekoitua,
biozge eta zimel
or dakusgu gaiztoz,
munduari su emanez.

Ainbeste erraiñu ta ainbeste
gorabidezko eder artean...
ez ote dago gizonarentzat
saloberekeriz ereindako
egurats zikinduen
urbide ta uri kutsutuetako
azi gaizto, txarraren
gorrotoz landutako
itzal garraztua besterik?

Argi-mendu alkartsuz
oi!, ez al-da gizonaren
biotzondo, erraietaraño,
ats anaikor, emaitsuz,
Udaberriaren bizi-alezko
erabide ongarria
bein-betiko burutuko?

## BAI, GALDERA BAT DA...*

Gose-egarrizko gogoetaz enetutako
mintzabidezko ikuste ta amets-egoz,
atzokotik biarkorakoan oretutako
igaro-bearraren bizi nai ta, otz-beroz...

* Agur 6 (1975, 179.zenb.) 5.

Mundu bat datza nire biotz-begipean
arantza ta lorez, atsegin ta naigabez,
odol gorriz bustia ta, malko itunez,
il-biztuzko ioan-etorri, ar-emanean.

Argia ta illuna, ta itzala nastean,
izar-aldi zoragarri batzuen dirdaiez
gau-egunak dabilkuz zadortza betean.

Bai, galdera bat da gure ioan-etorria,
leiza-zulo itzal, emaitza edergarriez,
ezbai ta aldaketaz biziari iosia.

## BA-DEGU BAI NUN LAN EGIN *

Gure Izkuntza, gure Erria ta Gizartea:
Auek dira bai Euskalerria'ren zabaldegiak
baiña, garaiz ez badira erein, iorratzen,
iakiña da bai, berez ez datorrela ezer,
ez arto ez garirik, alperkerian egonaz
soro-bazterrak, lenago ez badira lantzen.

Orregatik, emen ari gara egiñalean
arriak landu, soloak aretu, atxurtuz
odolean dirakigun bizitasun eder
ta, gizaldi zear aragitutako kemenez,
gure izateari dagokion
oitasun ta gogoetaz,
emen ari gara biotzak berotuz
esku billa, gogo billa,
maitasunari darion
sugarpe eztian
indarberrituz gure gogoak.

Emen ari gara sustraiez
egunezko ta, baita gaueko orduetan
arbasoen egonarri ta,
iturburu gardenetan,
len itzaren aztarnaz
emen ari gara lanean,
baztar illunak eguntzen.

* Agur 6 (1975, 183.zenb.) 6.

Emen ari gara gure lur, gure
aritz saminduari maitez begira,
iñoizko ezaupide, ta itzalik aundienaz,
inguratzen duten esiak,
larrak, sasiak ebakiz,
emen ari gara beartsu,
erria, mintzoa biziro aldarrikatuz
ta, gogotsu, sendo, aspergabe, maillaz-mailla
esitzen gaituzten kateak,
lokarri gaiztoak apurtuz.

Eraberritzezko gure bidegite onen
arantzazko bide gogor, estuan...
ba-degu bai lana eta, nun egin!
Ba-degu nun landatu, nun atxurtu,
ba-degur zer aztertu, zer iorratu,
ba-degu bai gogoz, nun io, nun ekin,
erriaren, mintzoaren ta gizarte alorrean
ba-degu bai gerria nun makurtu,
ba-degu bai nun lan egin!

## GAZTETAKO EGOEKIN*

Egun argi eder bati dagokion lez
ta arrokiro astinduaz zure egoa,
txintada alaiez dirikizu mokoa
itxaroz aizetutako ortzi zabalez.

Kabigintzazko lilluramen zoragarriz
ots dagizu garaille, bizitzaz betea,
udaberriaren gorakuntza ikusgarriz
egada alkartietan olestuz maitea.

Abestiaren amets berezko zorabioz
ots dagi biziak inguramen ederrez,
aldiari darion goiturazko pozkarioz.

Oi, txori! Zure egada ta abestiakin
ni ere amesturik nabilzu, sugarrez,
maitez gallendua gaztetako egoakin.

* Agur 6 (1975, 186-187.zenb.) 4-5.

## URRUTIA'TAR GOTZON AITA ZANAREN GOMUTAZ*

Gudaritza bat zan zure etengabeko lana
baiña, legea danez, Balbe'ren eriotz osiñean,
aberriari opalduz bizia ta izate dana,
langille kementsu bat bezela erori ziñan.

Nabarniztarra iaiotzaz, gaiñera euskalduna,
zintasun siñistetsuzko goi-egitada sendoz
euskerea iazotzea zan zure amesgai kutuna,
zuzenkiro aldezturik iainkozko sugar beroz.

Beti aritz gurgarriaren itzalez arnastua
iakin begi Euskalerriak zure goitasun berri,
ainbeste itxaropen ta nekaldiz sustraitua.

Euskal seme gotor, apaiz eredugarri zintzoa,
betiraun ortatik aldeztu zazu gure erri
ta, biotzeko odola bezin maitea dan mintzoa.

## ITSUKERIA**

Atzoko egunetatik gaurkorañokoan
betiko odol-egarri, betiko ondamenaz...,
zergaitik diardu gizonak anai artean
gizaldiz-gizaldi, miseria eta negarra,
bizi ildoetan gorrotoa ereiñaz?

Zergaitik ote gure bizitokia
gure etxea dan mundu au desegin nai izatea?
Izadia zikinduz, lorrinduz gañera,
zergaitik ari gara betiko gutarrean
betiko eztabaida, betiko itsukerian,
bakoitzak gogoko duan erria,
bere gogaiak, bere laterria,
berea aldezten duen bitartean...

Zergaitik ari gara ezin eramanezko
zirikatze ezezkor, gaiztoetan,
zergaitik? Oi, ene gizon! Orain goitua,
izarbidez barrendua zabiltzanean,
aize berrien egopean iñoiz baiño altsuago,
zergaitik ari zara eriogallu berriak
goi aldetara eraman eta oñarritzen?

Zeiñek eta nola geldituko ote ditu gero
mundu onetan, etorkizun urbillean
izango diran erailketak, eta, zeiñek lekarkio
giz-talde bakoitzari bere bakea
eta, baita gizaki bakoitzari?

Ez gaitezen geiegi itsutu, gaiztotu,
ba, ez dugu ez auxe beste bizi-tokirik,
AUXE, BIZI GARANA BESTERIK!

* Agur 6 (1975, 188-189.zenb.) 2; *Esk.* XXI, 70.
** G-Argi 16 (1975, 239.zenb.) 2. (*Esk.* VII, 35: Zerbait ezberdintxoa; ik. 490.orr.).

## TANTAI-ONDO IGERRA*

Begira ezazute, begira,
oraindik zutik datza bai, eta
inguruko biziaren ikutuz
—mindura ta oñazerik gabe—
egunorokoz egurastua,
lorerik ez ostorik ez duan
tantai-ondo igerra dakust bai,
emairik gabe, odol ustua.

Illik dago-ta, bere sustraiak
sakonki barrenduak lurrean,
oraindik poliki eusten die
erori gabe zutik irauten
maitasunaren itzalpe eder
eta, ainbeste kabi alairen
bizi, babes-toki izandako
zugaitz igertu, billustu orri!

Bere bakartade egonean
—txoririk eta lorerik gabe—
ta, egunak ikusiz igarotzen,
zai dago noiz izango ote dan
(udazkenaren desorritez ala,
udaberriaren lorakundean...)
zai dago bai aize erasoren
batek noiz botako dun lurrean.

## ODEIBURUA**

Gertatzen dana bai, sarri,
aize ozkirriz ondutako
ortzi argi, ikusgarriren
egunik eder, zoragarri,
—zuri, gorri, urdin, nabar—, naiz
aunitz margo arin, goituren
bizitasun bitxiz... alako
goibelezko ekaitz sortzaille
diran odei beltz ta illunen
itzala goibidetzen dala,
amets gozoekin sortutako
ikuspegiak laiñotu aziz...

Baita, olaxe gizonaren
gorakunde alai, biotzaren
loretasun ta lurriñezko
atsegiñaldi edergarrien
egunik gozoenetan ere,
usterik gutxien ditugun
aldigune zoragarrietan...

Bai, beti degu zerbait, beti,
kezka, zalantzaren, ezbairen
bat edo beste, biotza mintzen
ta zauritzen, goibeltzen duan
itun beltzez oretutako
ta, ustege, barrentzen zaigun
odeiburu galgarriren bat,
gure amets gozoak ondatzen
dituan naigaberen bat... Beti...

* G-Argi 16 (1975, 240.zenb.) 2.
** G-Argi 16 (1975, 248.zenb.) 2.

## ITZEN INGURUZ*

Eguneroko zeregiñetan bideturik
txaideak zear, gauzen izen artean,
lurrari, itxasoari,
eguratsari namaio
bai gogoetaz ta, itxaro-biotzkadaz,
aldi-aro bakoitzari
darion bizi ikaraz
ene gogoaren, biotzaren
auspoari eragiñaz.

Bitartean, itzekin labeturik
biotzaren, gogoaren
ene urtu-emanezko
ibilliaren antza
damaiet ta itxura,
egunetan gora
iatorrizko mentasun
ta duintasunez,
sakonki barrentzen
ta enetzen diran
usotasun ariñezko
edo, negar-mindurazko
mintzabide, etorriei.

Biziari darion ariz
gauzak ikus-beretuz
aldizka, argi brintza
ta itxaropen goikariz
gozartzen ta samurtzen,
ibil-arazten naute
edo, asarrez irakiten,
beruntasunezko ugolde
ta, biurkeri gogortuaren
eztenkada lotsagarriz.

Bai, olaxen, egunekoz,
ene etxea iaso
ta, bidea ere egiñik,
itzen artean, itzekin iabeturik,
munduko alor ta soroz,
aurrera dagit itzarrik
ausnartze gogotsu, sendoz,
ene margo ta lorratza
maitasunez itsatsirik.

## EGOAK**

Esker-eskubi
edo, erdikoz...
bizi izatearen bidea
aldizka, latza, gogorra,
goibeltsua izanarren
eta, arantzaz betea...

Ezin da beti, ezaren,
utsaren, negarraren
samin-estalki beltza,
zorigaitzaren
atorra illunkorra
itxaropenik gabe
soiñean iantzi;

ezin da beti, argige,
bizia alboratu
ta, negar anpuluzko
illeta eresiz,
bizitzako ateak
betiko itxi.

* G-Argi 16 (1975, 252.zenb.) 2.
** Karmel 1975-3, 59.

Udagiroko eguzki-
egunetan,
doiñu goikari, atsegiñaz,
eztikiro, alai,
abesten dualarik txoriak
ta, ibaietan ere,
ur ibiltariak
goi-oztin argiko
ikuspegiak-eta
bere ertzetan
begiratzen diran
zugaitz zerukariak
ispillutzen ditualarik...

Biziak,
uneroko
aldatze,
goiberaz...
biziak dei dagi,
irudimenari
ateak zabalduz.
Ai, nola ez guk ere
ainbestekoz
gau argi batean
izarño bat eskuratu?

Egoak bear dira bai,
egoak, egan egiteko!

## MUNDUA*

Bere ibilli itsuaren
betiko iraultza eta berritzez,
bola bat dala diote mundua
ta, bira-biraka itsu ortan,
gizona bere buru erailtzalle.
Egunoro dakusgunez
gu bizi garan mundu au,
eztakit noruntz doan abiatua
atomuaren ari etenkorrez,
bildurrean zintzilikatua.

Goi zabaldi azkengabean
eta, milloikaren artean...,
izarbideetako misterioz
itxasoan eroritako
ur tantotxo bat bezala,
betikotasunean galdua...
zeiñek daki geroaren etorri,
betiko ibilli orren
bizitzako ezkutu ta berri?

Nola-nai ere
iarrai bearrean
aurkitzen gara
geure ez-iakin
ta eziñean.

Bitartean,
mintzo ezberdiñezko
bizigune ixil-biziz,
mintzatzen da izadia
eta, era berdiñean,
txiki-aundiz, otz-beroz,
ta, biztu-itzalika,
izate bakoitzaren
ioan-etorri guztia.

Itaunka ari natzaio
ene buru illunari:
zer ordu zer ordu ote
ene ordularian?

Ioanak dira bai urteak,
ioanak..., joan-etorrika,
bai uztak ta udaberriak;
ioanak, bein betiko,
ameskizun zoragarriak.

Ala ere egun bakoitzak
sortzen ditu bai bereak!

* Karmel 1975-3, 59-60.

## EGUNON DIOGU[a] EGUNON*

Eguraldi txar ta onez
euria, elurra, izotza
naiz eguzki-giro eder
egun argia danean,
txeratsu ta aidekor
norbaitekin aurkitzean,
gizatasun itxarotsuz
egunon diogu egunon.

Egunon diogu egunon
mintzabide ta agurrez
elkar-bideak sortzeko
oiturari dagokionez
baiña, ai, ez dakit nongo
odeiburu itzaltsu ta
urruntasun astunetan
ondatzen dan gure itza.

Egunon diogu egunon
egun beltz illunean
naiz eguzki pozgarriak
eskuratzen gaitunean
baiña, tamalez, askotan
gure itz ibilgarriak[b]
ez du biderik aurkitzen
ain laiñope beruntean.

Alaz ere, gizakiro,
egunon diogu egunon.

---

* G-Argi 18 (1977, 326.zenb.) 7 (*B*); Kurpil (1975, 7.zenb.) 20 (*A*).
[a] Egunon diogu *A'n ez dira agiri* [b] ibilgarriak *A* ereingarriak

## ARGIAREN ALDE*

Negar ta odolez ibaikatutako ugola
gaiñeztua dabil uberka negargarrietan,
aizete beltzaren mendean ikusiz nola
mundua gose-errea dagon etsipenetan.

Ainbeste gogorkeri, oñaze ta ezbearrez,
eraman gaitza da bai ziñez gaurko egoera,
atomuaren goraldi, azkortzearen bildurrez
gizarte ezabatuaren itzal, gogakera.

Ongi dakizkigulako izen ta ikurrez
asarrearen sorburua ta, bere etorria,
itsukiro edatua, gorrotope makurrez.

Aldeztu nai dugu gogoz munduaren argia,
abestiakin ta, baitare makilka zigorrez,
nolabait arinduz illunaren izurria.

---

* **Kurpil** (1975, 7.zenb.) 22.

## LEIO IRIKI ZABALEZ...*

Begira nago, begira,
biotz betezko ikustez;
aldamen ta urrutira
lelo iriki zabalez...

Bizitzazko iardunean,
itz barrentsu, ixillakin,
billatuz nabil enean,
or-ementxe igesakin.

Baketsu dakust zerua
goi-alde garbi, oztiñez;
lurra zerbait orbandua
udazkenaren orbelez.

Pentsa nai! Oi, ezin pentsa!
izadiz alderatua,
gogoa doakit galdua
zirkinge, etorrirantza.

Ur, arri, mendi ta zelai,
landa, arru, zugatzetan...
begiak betikoz, ezbai,
lur orlegi, orituetan.

Nun, nola ote da ori,
ain zabal, aundi dakusgun
bizitza onen iturri?
Ai! Nun arki dezaket, nun?

An... zeru, goi-bazterreko
odeibide urratuan?
Ala, landare arteko
alkar-argitze itsuan?

Aizearen ikutu zoroz
astintzen diran ostoetan?
Ala, txori kantari egoz
alaitzen diran bideetan?

Or, ezkutu itzalean,
zerbaiten zerbaitez datza,
eten-ezin illunean,
biziaren sortari latza!

Oi, bai, ikust-une orren
bizi-mintzo, egoeratan;
goizaren ta arratsaren
bitarte aldakor ortan...

Lur orlegi ta orituez...
Bai, zerbait zaigu aldentzen,
zerbait doakigu bai, iges,
iñoiz ez dana itzultzen!

* PVV 10 (1975, 116.zenb.) 4.

## ALDABA*

*Ioseba ta Itziar'i beren eztai eguneko*
*egungiro ederrean*

Ezetasun aro ederrez, udaberriz iantzitako
aldare aurreko leiar-artez dakusgun ikuspegian,
Itziar ta Ioseba'ren ezkontzaz Aldaba da lekuko,
kistar oiturazko alkar baieztutze oroigarrian.

Eskeintza maitagarriz eman zarate bai betirako,
gurasoen etorriz zuengandutako bizi ariari
ta, gizaldi zear gaurkoratutako giza izateari
mendu, odol berria txertatuz aurrera iarraitzeko.

Onartu zaitezte alkarri eutsiz, biziari darion
egunoroko oñaze ta atsegiñetan alkar zaituz,
munduan izanik bearrezko dan bake eta zori on.

Gaurko aintza ta onespen agurgarrian ats artuz
zaitu zuena dan bizia, zuena dan mintzoa, erria,
emai ezkutuaren maitetasunezko bizi oñarria.

## SOKOA**

*Arantza ta Joxe Mari'ri*

Belaze ta arto-soro burutsuz apaindutako
orlegitasun bitxiaren ikuspegi alaigarriz
eta itxasoaren kresal-aidetan doñututako
ikustasun argigarri, egun-aro ibilgarriz...

SOKOA, euskal ereduzko sentasun goralgarriz
panpin-erri bat dirudi bai iatorritasunean
ta, ezagutu dedanez, beren etxe ta baserriz,
betikoz irarria daramat bai ene biotzean.

Arantza ta Joxe Mari'ren eskontza egunean
ontzi ta lemaz, ikur ta berein itxas oroigalluz
ornidutako euskal-kutsudun eleiz politean.

Begiak, biotza doakit bai aberriaren ikustean
Balentzi ta Larzabal'en meza ta otoitz-ikutuz
azke ta, mugarik gabe enegandutako ametsean.

---

* *Esk.* XXIII, 158 (ik.ere 200); *Esk.* XXIV, 108. (1975-IV-28).
** *Esk.* XXIII, 101 (ik.ere 157). 1975-VIII-31.

## ITZALA*

Eguzki gori naiz illargipe itzalez
bere agerkera goibel, illunkorrez,
ixil ta zadorkiro
iantzi oi da itzala bakoitzarenez,
gizirudiz soindua:
batzuetan makur, beste batzuetan aundi
ta, baita ere zoztor
oinpean murgildua,
epotasunez beterik
ezin txepel, makurrago.

Ai enetxo, au irudi!
Itzal bideberatu au, izanik neurea,
ezin nezake iñolaz nigandik baztertu,
ezin alboratu... Baiña ez, ez uste,
ez da museo etxeetan darakusten
arri, egur, margo-irudi muetako itzal illa,
ez da ez edeskizunetako gizaguren,
ez gudazale erri-menperatzalle goituren,
ez gotzai, ez aitasantu bedeinkaturen.
ez iñungo iakintsu, ez azti sorgintsuren,
ez Onnassis antzeko iaun goi, aberasturen,
ez errege ez erregegai, ez beste iñoren
aundizki ta ospetsu izandakoren itzala.

Neurea da soil-soilik,
ene euskal gorpuzturaz...
Ezin izan besterenik!
Nirekin bideberatua dabil, zadorrezko
soñeko illunkor, ezbaia ager-aziz:
etxean, kalean, urbidez, mendiz, zelaiez
baldar, dotore edo, nolanai,
ni nabillen erara dabil
nirekin bateratua
ene langille izatez:
batzuetan goitiar, nabarmen, luze;
beste batzuetan ostera... ain txiki!

---

* *Esk.* XXIII, 160-161. (ik.ere XXII, 120). (c.1975).

Baiña, txiki izan naiz aundi izan,
atzetik, aurretik, untzatu zait bipil
ta, ni nora araxe doa,
ibilte arin, geldiari
edo, ederrari lotua.

Ezin utzi bazterrean
bere itzalki utsean
bein betiko aldendua...
Zer nezake, ¡ai! zer egin
ene lapaki onekin.
Ezin uxa, ezin ken,
aldendu nai izanarren...
Ain dago neretua!

Itzal-keñu bardiñaz ni nora araxe doa,
gelditzen ba'naiz ni, bera ere bai,
makurtzen ba'naiz ni, bera ere bai,
etzaten ba'naiz bera ere bai,
besoak iazotzen ba'ditut, berak ere bai,
oñak luza, begiak itxi... Berak ere bai.

Ai, nik ez iakin zer egin,
nigan giza-sointzen dan
ta, arima dirudin
iarraitzalle onekin!

## KEZKA*

Batek baleki askotan zeren billa, zer nai luken,
batek baleki zer ta nola, geroan zer, norako dan;
batek baleki eguna ta gauaren bitartean
zein ordu, zein une, zein bide dan egokiren.

Bizitzako zori on, zori garratz, zori gogorrez,
bideberako lillura, kezka, atsegin artean,
kosk dagigu geroaren ar orrek, kosk bat-batean
ezin menderatuzko esi, arresipe illunkorrez.

Itzal, laiño artean, bideko argi-lorratz baten
billa ari naiz bai, arriak iaso, lurra arakatuz,
billa, gaudi illun, gure igarotze goibelaren
uinpean, izarño baten aztarnik ezin guganduz.

Batzuetan badirudi argi ori nigan dutala,
nigan bai bategiña, gogo ta biotzaren erdian,
ta, argiaren iabe, argi izpiñoz iantzi naizala
betikotasun gar beroaren magal arnasgarrian.

* *Esk.* XLIV, 56. (c.1970-1975).

Egunoroko ioate, aldapa argige, nekezez...
argi utsala besterik ezer ez daurkit bidean:
naiz arriak iaso, naiz ondarra aztertu itxasoan,
itsuan ari naiz bizi amildegiaren senean.

Beraz, itzal utsa, laiñope ituna dan egalez,
alperrik da ibiltea arriak iaso, ta biraka,
alperrik zer ta nola izangotan, geroari deika,
illak bururik iasotzen ez duten sakon ixillez.

Alaz ere, besoak iaso, biotza baikortu, arinduz,
zalantzak alde batera utzi ta, gogoa sendatuz...
Oi, Iauna! Zugana natorkizu burua makurtuz,
egun zabalgarri orren uste osoan ats artuz!

## OROITZAPEN ZARRAK

Gure arbasoen ondoriozko etorpenaren
–izatez, iokeraz– gure aintziñatiko[a] bertsoak
ta, abesti zarrak, ziran beste doñu batekoak;
gaurko burutapen, ikus-moldez begiraturik,
beren sustrai ta gogo, beren iatordu, iantzietan,
atomu indarrezko mundu onegaz neurturik
beste erabatekoak ziran gure aurtzaroaren
oiartzunak ta oiturak, beste era batekoak,
–txistu ta danboliñ, aurrezku ta dantza azkatuz–
beste era batekoak ziran, lurrean tinkoturik,
mutil ta gaztezaroko agerkera ta gogoak.

Ta, udazkenaren goiera, azken mugaldetik,
bizitzako laiño artean barruturik dabiltzan
gure len-aldi ioan urrun ori gogoratuz,
–oraindik bizirik gagozanok buru zurietan–
igarokizun gazigezak arilduz, metatuz,
emen ari gara bai, gure gomutapen zarrak,
atzokoz atzoko ta, urte ioanen goiberatan,

* *Esk.* XLVII, 119-121 *(B)*, (1975-IX-5); *Esk.* XXIII, 174-176 *(A)*. Olerkiaren amaieran *(B)* S. Muniategik oar au idatzi eban bere eskuz: «1975 irallaren 5an Arteagan adin batekuak ospatu gendun bazkari ondoren irakurtzeko egiña».

[a] gure aintziñako *A* egun aetako

arakatuz, aztertuz gure zelai, baso-larrak,
emen ari gara gogor, begipeturik[b] ioana,
lagun ill ta bizion arteko gaztetako pausuz,
–aurrerako bide laburrean atzera begira–
oroiturik iñoiz geiago guganduko[c] ez dana.

Emen bai, gure Arteaga laioterri maitearen
ezetasun ikusgarrizko mundu ioan aren[d]
arizti, artedi ta gaztañadiz iantzitako
bizi[e] igestu aren ikustapen ederretan,
gogoz aizeatzen giñan goiko ta beko egalez
pelotaka, gartzaka, naiz makurrik atzekunka
edo[f] itsasoaren urgoratan kresaldutako
ibai ertzetako egonaldi ta bustialdietan
igeri ta mustadaka, or udako beroetan
Baraiz, Zarao, Errota Zar ta Barri, Artebaltzez
biziro gogoz iolasten giñan zilipurdika
noizbeinka sagar ta madari batzuk lapurtuz[g].

Ibilliak ta dantzatuak gara bai, aldi artako
gure ioandako munduaren[h] amets-lur bideetan;
ibilliak, gurasoen lugintzazko arazoetan,
arto ta gari solo, bedar-landaz soindutako
basetxearen, berein eginkizun izardituren
lagundu bearrezko gure zeregintxoren batez;
batzuetan itaurreko giñalarik ta, bestetan,
aitxitxeren[i] edo, beste norbaiten agindupez,
asto zamatuaren ondoren (egur naiz bedarrez)
Atxarre baso-zear ta, iitzak barrena ta abar,
aizea baiño ariñago edozein txolartetan,
ametsak txortatuz ibiltzen giñan, bai txoriekaz
ta bai irudimen zoragarrizko goitadatan.

Oiñak arin, itxarozko gure begi argietan,
zorioneko zerupe urdin, lurbide loratsuz,
(etorteko izan egunen ameskizun[f] barruz)
bizia taupaka, aurretik geunkagun bai, ederrik,
–gizon izatearen ibillizko bizi arloa–
aurretik geunkagun urrun, oso urrun oraindik,

[b] gogor, begipeturik *A* bai, azaleraturik [c] guganduko *A* itzuliko [d] mundu ioan aren *A* landaretzapeko [e] bizi *A* mundu [f] gogoz – / – / edo *A* atsartuz, biziro iolasten giñan, egurasten,/ batzuetan pelotaka, gartzaka, naiz atzekuntza; baita [g] biziro – / – / lapurtuz *A* or-emen ostutako sagar, madariak banatuz / atsegin ta pozez, mauka osoan ibiltzen giñan [h] ioandako munduaren *A* mundu galdutakoaren [i] aitxitxeren *A* aitxitxe

an..., «zer etezko» elburubide ikusgarrietan,
gizon egiñaren[k] praka luze ta gogaietan,
beren emai ta ale gorri, beren lakirioekaz
urrun, oso urrun agertzen zan gure «geroa»,
ustekizun zelai aberatsetan atsarturik,
berein egiturazko naikunde, amets-pillakaz[l].

Tamalez, ta ain umetandik ta ain gaztetxorik!
Bizi-aldi iorantsu ta eder, egakor arek[m],
atzerri kutsuzko aginte zorrotz gogorraren
areriotasun, beren alderdi txarra zedukan
gure erriko eskolaren barru erdel, otzean,
Don Celestino Martinez Alesanco, españar
maixuaren arramazkada eta makillakadaz
–buruak tukurruzkuz ta belarriak odoldurik–
Atxarre'n aukeratutako egurrik sendoenaz,
ai!, gure atzamar punta gaixoek ondo zekien
aren zigor ta errukirik-eza zelakoa zan.
Esan bedi bai gure adiñeko Juan Cruz batek!

Geroago... Bai pozik! eskola utziz, praka luzez,
amalau bat urteko adiñez buruturiko
ta, gizontzen ari dan mutillaren ametsakaz[n],
ai!, alperrik ziran amaren oñaze, negarrak,
bakoitzari zegokion elburu ta gogo-arioz,
–errian bertan lanbidetzen, oñarritzen ziran[ñ]
zorioneko gitxi batzuk izan ezik, geienok–
eskutik elduta eroan ginduzan bizi-bearrak,
bakoitzaren izantasun ta bakoitzaren bidez[o],
bai itsas-olatu artean une larriak igaroz
edo, Amerika'ko basamortuetan bakartadez,
zakur bat ta Iainkoa lagun, ardien beekadaz
suge piztiak ta, koioteek ondoraturiko
artzai-gizon mendituaren ixiltzarik aundienez[p].

Urteak aurrera ta[q], gu bizian gora, aurrera...
Ta, egun batez... ai! zorigaiztoko egun batez!:
españar ekaitz gogorraren eragozpen biurriz,

---

[j] ameskizun *A* ikustapen [k] egiñaren *A* adiñaren [l] berein – pillakaz *B'n ez da agiri* [m] Tamalez – / – arek *A* Baiña, tamalez, ain umetandik, ain gaztetxorik! / Zoritxarrez, bizi aldi egakor, eder arek [n] Geroago – / – / – ametsakaz *A* Geroago pozik, eskola utzirik, praka luzez / gizontzen ari dan mutil aundiaren ametsakaz [ñ] -errian – ziran *A'n ez da agiri* [o] bakoitzaren – bidez *A'n ez da agiri*

indarkeri itsuaren goikeri amurratura
–erria zapaltzeko, ondatzeko, ixil-azteko–
gure mendi baketsuak bete ziran guda otsez,
–odola, negarra, eriotza eldu zan batera–
ta, gu, ikurriñaren pozera, euzkal abestiz[r],
–mendietan[s], errietan, itsasoan biziari eutsiz–
aberriaren aldezko burrukan gogo ta biotzez
gure gaztedi ederraren garaipen irrintziz,
azaldurik erri zindo, sendo, bizi bat zala
gure Euzkadi! Azkatasun gogo ta sustraiez![t]

Arteaga'k bere seme bioztun, maiteak emon zitun,
–itsasoz ta leorrez– guk sortu ez gendun burrukan.
Ta, oroipen zarrak atzokoz atzoko, gogoratuz,
guk, adin batekuok ospatzen dogun egun ontan,
–negu ta uda, urte asko igaro ondoren–

guk biziok, atzerantza begiratuz, aintziñako
–aurtzaroko, gaztearoko uraren korrontean–
bizia, aurretik gendun iantziz ikusten gara
lengo gure erribide, mugalde barrutietan
ta, biziokaz batera, beren orduko bizitzaz,
ots dagie bai, ots, illak... orduko gure lagunak!

[p] ardien – / – / – aundienez *A* pizti ta koioteak / urreratzen ziran bitartean azerikadaz [q] ta *A'n ez da agiri*
[r] ta gu *A'n ez da agiri* [s] mendietan *A* mendi ta [t] *emendik aurrera A'n laburrago ta ezberdin agertzen da:*
Arteaga'ere seme bioztun maiteak emon zitun,
–itsasoz ta leorrez– guk sortu ez gendun burrukan.

Guk adiñ betekuok ospatzen dogun egun ontan
guk, biziok, atzerantza begiratuz aintziñako
–aurtsaroko, gaztearoko uraren korrontean–
gure Arteaga zanaren mugalde barrutietan,
gugaz iolasten ta ibiltzen ta dantzatzen ziran
bai mutil-lagun ta ezagun, arteagatar illak,
illak datorkiguz gogora, illak, gure illak...
lengo iantzi, irudi eder edo traketzetan,
beren berbeta, osakun, irribarre, asarrez,
beren aurkezkera, ibilli, aurpegi berberez,
egun ioanen oskarbi edota, ekaitz aldietan,
gugaz batera Iauna artu eben gure illak...
gogora datorkiguz lengo izan, erribidez,
bizia emon eben illak, erriko gure illak,
ta, dei dagizkue gure ikuste, biotz barrenez
gure illak dei dagizkue otoi baten eske!

Bai, gugaz iolasten, ibiltzen ta dantzatzen ziran
gure mutil-lagun, ezagun, arteagatar illak.
Ta, euren berbeta, esakun, irripar, asarrez,
euren iazkera, irudi eder edo traketzez,
euren aurkezkera, ibilli, aurpegi berberez,
illak datorkiguz gogora, illak, gure illak...
gugaz batera bizi izan ziran lagun illak
ta, aspaldiko egunen argipe, illunbean
gugaz batera Iauna artu eben gure illak,
eskua emonik euren atsegin ta naigabez,
gogora datorkiguz lengo izan, erribidez,
guda zelaietan ta, aren oste ta ondorioz
bizia emon eben illak, erriko gure illak...
... betikotasunetik orain guri, dei dagiskue,
dei dagiskue gure illak bai, otoi baten eske!

# 1976

## ZU ERE ENE MAITEA*

*Neure emazteari*

Zu ere maitea, bidean aurkitu zindudan
eta, zoragarrizko mintzaira ixillaren bidez
arako, gure begiak bateratu ziran unean,
zure soin-azal argidoi, ederraz,
bakarrik zuretzako osotu nuan
ene mintzoaren poemarik argiena;
bertan bai, zure begiei eman nien
maitezko eresbiderik goituena;
zure eskuak biziro laztandu nituan
eta ederbidetu ere bai zure oin politak
itxaropenaren ego zabalak;
goi-margo oztin bat eman nion zure abotsari,
izan zedin bai, ene itzezko ikurrin ederra.

Poema ori zuretzat egin nuan
zure gogo, soiñaren goidura aintzagarri apartaz;
zure gogara maite-begipetu ninduzun
iturriño kantari, ibaibide gardenaz,
biotz-tantodun ur biziz goxatua...
Bai, ezer baiño gurago eneganatu zindudan
aziaren antzera ereiñik ene lur
egarritsuaren ildo amesgarrietan.
Orain zaurkidaz osoro barrendua
ene odol urduriaren ibillian,
margo eder eta usai gozoenaz larrosatua!

* G-Argi 17 (1976, 317.zenb.) 24; *Esk.* XXI, 122.

## ARTISTEA*

Zura, arria, eresia,
iakinbidezko
ederlan oro
aztertu, landuz,
artistea
bere eitean
dabil barrendua;
gogartezko,
begi-ziztazko
ausnartze ororen
gogai ta asmo,
uste bitxiak
buru errotan eio
ta galbaetuz.

Artistea,
bakarrik dago
milla sortariz
eundutako
bakartadean,
beren langaillu
ta burutapenakin
ondoriotutako
dorre zabalean.

Bizitzako
deitzen zaion
geientsuenen
ibil-bidezko
irizpen ta,
bizi-moldetatik
urrundua...

Alaz ere,
utsune ori aldizka
betetzeko,
erri arruntaren
oituramenezko
giza korrontean
amiltzen da,
beren barrengo
bakartade itun ori
zerbait arintzeko
moltzozko eragiñean.

Baiña, berriz gero
lenera itzuliz,
beren gogozko
bakartadearen
aize boladatan,
bere asmoari darraio
argimenezko
bilduramen bitxiz
arnas-bideturik
bere ortzi barruko
ingurunea.

* Karmel 1976-3/4, 80-82.

## ERRIAGANDIKO ARNASAZ*

Zigortasun loturazko
oñaze, neke ondoren
ta, lora usai gozozko
udaberritze alaiez,
uste izan gendunean
azkatasun eguzkizko
egun argi, amestuaren
atari, babeseraño
ia, urreratu giñala...

Etsirik gelditu giñan
bat-bateko ekaitzaldi
ezbear ta zorigaitzez,
gure gogo itxarozko
etxe kutun, maitearen
sarrera ate iaukala
berriz ere esitua
aurkitzen zala ikusiz.

Dana naaspillez ta gorri,
oi, bidelagun maitea!
Nola ez, ba, negar egin
ainbeste maltzurkeri
ta, urteetako zauriekin
ain erasotua ikustean
gure biotzeko etxea?

Gogoz dabilgun bidea
aztuna da-ta, luzea.
Baiña noizbait, galburuen
berbizkunde igandez,
alaituko dira biotzak
gure margo maitatuen
edertasun, gorakundez.

Iatorriz, geuretasunez,
—erri, gizarte, mintzairaz—
izerdi larri, odolez
busti, ernemindutako
ameseta ezti, gozoen
ate giltzatu, estua,
berriz ere bai... nola ez!
irikiko dala bai,
zabal-zabal, zorioneko
alegin bateratuaren
erriagandiko arnasaz.

* PVV 11 (1976, 121.zenb.) 8.

# BOST POEMA

## [1]

### OLERKIA*

Samiñ ororen ondoan dago bai olerkia:
erabide sakona. Esitzen ta zauritzen,
giza izakia iraindu ta menperatzen
duanaren aurkako argibide goigarria.

Illun-beltzean alikatzen dan gorrotoaren
aurka iaso dezagun bai, egiaren argia,
ikusmen eder, sendoz, giza eskubidearen
aldezko neurtitzaren oiu agurgarria.

Mendeetako gosearen ta egarriaren aurka,
zurikeri merkearen eresi ioputzallez
oillartzen diran giza amurratuen aurka.

Biotza iaso dezagun esku zabal, maitariz,
gogo azkatzallearen eragin argitzallez,
gizonari opa diogun mentasun pozgarriz.

## [2]

### ARGIAREN ALDE**

Egunsenti batetik besterako etorripean,
etengabeko iarraipen nekegarriaren itzalez,
miñ, miñ damaigu, miñ, ainbeste notiñ ikustean
illunik, kokil, bizitz antzik ez dun bizitzez.

* PVV 11 (1976, 121.zenb.) 9; *Esk.* XLIV, 16.
** PVV 11 (1976, 122-123.zenb.) 8; *Esk.* XLIV, 16.

Beraz, izugarria da zuzentasunik ezaren
munduaren egunpeko nekaldi miñ, lazgarria,
atomuaren zizatze gorriak sortutako gauaren
bideberako kezkatasunaren emai deusgarria.

Ikurrak ta izenak badakizkigu, zoritxarrez,
diranak asarrearen ta oker ororen sugarri,
erre-kixkatzen gaituenak oi dan kezka bildurrez...

Orregaitik abestiz ta burnikiz, baitare biotzez
zainduko dugu bai, argiaren itxaropen goigarri,
egiazko bidea, anaitasun maitezko erriratzez.

[3]

## AGERPENA*

Bai, itz dagit, beraz bizi naiz, biziaren
arnas, zantzu, itxaropenak sortuaziz,
maitatzen ta gorrotatzen dutanaren
bizitzako galbaetan biotza eralgiz.

Nire biotz, gogo-erraietan erre-biziz,
bere izenez deitzen diot aldiari
baiña, deus ez diot eskatzen berari
bidezkoa ez dan sustrai ta karraxiz.

Nire egunoroko nortze, burrukan,
odola dario gogoz ene biotzari,
itxaroz errotutako errigintzan.

Ta, aldiberako gogo-ausnarketan,
zai nabil argi-txintazko etorriari,
egiazko eguna noiz argitukotan.

* PVV 11 (1976, 124-125.zenb.) 9; *Esk*. XLIV, 17.

## [4]
## BETIKO BASERRIA*

Begiak edo bekokia ezarriz zuregan
nire biotzeko errialde, ene baserria,
biziro kutun gogoratzen zaitut enegan,
nire leen urratzen amestegi gurgarria.

Zure gaiki argikorrez egiña izanik,
berriz gaingoratu zait aurtzaroko gogoa;[a]
ta, zugaitz, landa, ibar, oro begipeturik
barrendu zait ene aintzañako erreiñoa.

Uxa ba, nire ondotik, odeirik txikiena,
ta, utzi nazu osatzen zaituen arrietan,
berriz eze enetuz lenik zoragarriena.

Bai, ikus nai dut bai, nola desibiltzen dan
ta, arrotzen dan igarotako aldapatan
nire itzala, ain amets-bide ederretan.

## [5]
## SORKUNA ETA ELBURUA**

Bizkai'ko Kantauri itxaso aldameneko
kresaltasun ta mendietako orlegitasun
eze bizian daurkit neure gogamenezko
iaioterriaren arima; ta, ainbat gaitasun...

Iatorrizko gogai, nortasunez etorrikua,
nire gogoa baserrikoz iantzi, bazkatu zan;
ta, txoria, zugaitza, lastoa, artaburua,
zer ziran ikasi ondoren, egatu nintzan.

Geroztik, maitasunezko argi sugarretan,
erri ta izkuntzaz, aberriz nabil mindua,
biotza ezarriz bere zauri ta negarretan.

Badakit nun sortua ta nungotarra naizen;
zein dan gogoz ari naizen ekin, elburua:
erri alde, beartsu alde, bizia dezaten!

---

* PVV 12 (1977, 126-127.zenb.) 9 (*B*); *Esk.* XLIV, 17 (*A*).
[a] gogoa B egoa
** PVV 12 (1977, 129-131.zenb.) 9; *Esk.* XLIV, 18 (emen titulorik ez da agiri).

## AIETE*

*Joxan Mujika ta Begoña*
*Muniategi'ren eztai-egun oroigarri*

Ene semeak! Egun oro izan bedi bai, zuentzako,
udaberria bezin loratsu, alai, atsegingarri,
begirapenezko alkarbide maitez ondutako
eskontz egun au bezin itxarakor ta amesgarri.

Begietako dirdira eztiaren zoriontasunean,
zuen biotzak, sugar bizigarriz soinburutu bediz
arrosa usaitsuak bezelakoxe gorestasunean,
euskal alorreko zitu, mendu berriak sortaraziz.

Egunari darion gorakuntzaz ta, ederrik emen
Aiete'ko zerupean, ain ikusgarri dan Donosti'z,
alderdirik panpiñena ari gara begiztatzen.

Iazo unearen muiña. Ikasi bateratsu ibiltzen
bideberako gogortada, arantza, amildegiz...
Ikasi aurrerantzean gogo-biotzez bat izaten!

* *Esk.* XXIII, 156. (1976-IV-19).

## ERRETAKO BIOTZAREN SUAN*

Erretako biotzaren suan
zimeldu ziran ene loreak.
Emeki aizeratutako
agoen arintasun gozoa,
edur zuriz iantzitako
negu otzak galdu zituan
baiña, alaz ere, oraindik
iraunbidez, zorionerako
Itziar, Begoña, Arantza.
ta, Xabier'az osoturiko
seme-alaben iarrai bidean
daurkit udaberri zantzoa,
euskal zituz sustartutako
odol bere gaingoratuaren
eskeintzarik ederrenetakoa.

## ARTEAGA**

Beren luze zabalean,
bai Elizondoz ta baita
beren basetxe auzunez.
Ona ba, emen Arteaga,
itsasoaren urbillean,
beren ibar ta ibai,
Ereñozar ta Atxarrez,
muskertasun bitxiz, alai,
erdi atzerritako
beren gaztelu dotorez.

Izla Goikoa, Izla Bekoa,
Orueta ta Zelaieta,
Elizondo, Mendialdua,
Muniategi, Agirreta,
Aberasturi, Obieta,
Errekalde ta Ozollo,
baita Zendokiz, Aldamiz,
Tremoia ta abar... Oi, bai,
egungo bizi anotsez,
inguruko Santimamin
ta aintziñako arbasoen
biozkadaz betea nabil,
maite ditudan lorratzez
auzoz auzo, ene erri!

Arteaga, gure Arteaga.
Lenago aritzez, artez
ta, gaztañondoz iantzia;
orain ordea, bedartzaz
ta, piñu urduri, baltzez,
soiñekotu da bizia.

---

* *Esk.* XLIV, 7. (1976-III-12).
** *Esk.* XLIV, 8. (1976-VIII-4).

Arteaga, gure Arteaga.
Erri euzkaldun iatorra,
biotz barru, sustraietan,
aurrerakuntza alorra
gaztediaren buru-bidez
ta, adiñekoen bitartez,
etorri obeagorako
egokitzen darin erria.

Zure semeetatik asko
itsasoz edatzen dira;
ta, beste asko, munduko
artzaintza ta gañontzekoz
or, lanbideturik gogoz,
Iainkoak bakarrik dakin
Idaho, Nevada ta, abar,
basamortu itzeletan
euzkaldunari darion
zintzotasun ta onkuraz,
aizeatuz ikurriñ antzo
ezaugarri dan txapela.

Agur! Agur ene erri!
Ni urruti bizi arren,
gogoan zaukadaz beti,
ta, ai! ezin naiz erdibi!

## UDAZKEN*

Ioandako ezetasun biziaren
adar oparo ta, txorien abesti
ta, arako kabi alaigarrien
oroipen gozoak, or, aizebera,
bata-bestearen iarrai, ondoren,
or doazi ostoz osto, or doazi,
eroriz-eroriz lur gogorrera,
izar guztien gau illunean ...

Ostoak bezala, bai, gu ere
ordu ez ezagun, itun batean
banan-banan eroriko gara
eriotzapean, or, luze-luze
ai!, guk gutxien uste dugunean.

Ez da iñor altsu geldituko,
—iakitun, aberats, ez txirorik—
baizik, bere goi iakiturian
gure ibilliak ta, bein betiko
gelditzen ditun ori besterik.

* *Esk.* XLIV, 9. (1976-VII-24).

# «ODOLAREN IRAKIÑEAN» (1976)*

* *Esk.* XII. Larreako olerki-sariketara bialduak. Aurkeztu ziraneko saillean doaz. Zein olerki noizkoa dan azpiko oarretan dator.

## ERRIA ALDEZTUZ**

Txikia diteke ama, txikia erria,
aundia bai, biotza, maitetasunez betea,
txikian aundi dalarik gure aberria
ba-diteke gizon argiz iantzia egotea.

Baiña mendiak oñazez, ibarrak ikara,
odolez zauri gorrietan, etsaien zartadaz
gure erria itzal, illunkaratzen ari da
ama gaixoen samindura, negar alakaz.

Itzala, negarra, oñazea, laiño astuna,
ta auen ondoriozko ekaitz gogor, zitalez,
esiturik gogoz noiz etorriko eguna.

Alaz ere ekin esiak apurtu, desestuz,
gizarte alde, erri alde, euskal itzalez
abots bateratsuz egia aldarrikatuz.

** *Esk.* XII, 2. (1976-V-19).

## KUKURRUKUA*

Eguna ta gauaren arteko burrukan,
goizaldeak dakarren erraiñutza biziaz,
ene begiak oarbidetzen dira bat-batean
oillar kukurrukuak duan garrantziaz.

Egoak arro, burua zut, paparra ateriaz
itzala baztertzen ari da deadar zoliz,
bizitasun poza goizero erakutsiaz
beren abots esnatzalle ta mendikariz.

Baserritarrak badaki bai nolakoa dan
ortzi zear, oillar kukurrukuaren deia,
tutuek bezala lanerako ots egitean...

Bai, eguna aintzaltzen duan abots ori,
izan bedi argiaren ta biziaren leia,
euskal arrobiaren sustrai erakusgarri!

## ITSUAN EZ UTZI**

Betiko erori baiño leen udaberria,
biotza sugarrez taupadatzen dan bitartean,
ekin gogoz gizonaren aldezko eitean
goratuz bizia, goratuz zeure erria.

Ta amets utsak ez diran egitasunezko
ekintza etorritu, gogamen aberatsez
bizi-bideak egokituz, ibil gizonezko
ta, emakume aldezko giza-begiratzez.

Iaso abestia, goratu erria ere sendo,
egunberrituz biziro aren etorria,
bizia ta egia aldarrikatuz unero.

Itsuan ez utzi iges egiten argiari,
ta, ez zikindu maitasunezko iturria,
bizia ukatuz orokorra dan biziari.

* *Esk.* XII, 3. (1976-II-4).
** *Esk.* XII, 4. (1976-II).

## IAIO BERRIAK*

Iaio berriak oro du keiñu, oro dantza,
ta, gurasoek atsegiñez maite-irriparka,
aurrari dartuio onen edo aren antza,
seaskatxoa kulunkatuz maitez begiraka.

Aitaren ta amaren alegin, onespenez,
aurrak bere du bizia, berea da geroa,
itxaropenezko ikustasun ongarrienez
maitekiro gaingoratuz bere aurtzaroa.

Izatearen poza, biotz-erraietan daroa
ta, egunoroko gizontzearen nekepean,
zutiturik, aldapaz-aldapa aurrera doa.

Ai, aur oni geroak zer ote dakarkio
zer, bizitzaren goiberazko ezkutapenean!
Uztatze zitu eder ala zauri lakirio?

## GIZONA**

Galdurik lenbiziko urteen iñuzentzia,
gizona al zara? Egitan gizona, ala,
gizontasun ori, soiñekoetan estalia,
ez ote da biurkeri maltzurrezko oiala?

Aundikerizko goidura ta esku agertzez
argiaren aurka birabiratuz lokatzean,
lotsabakeri ausartezko egitada beltzez
iauntxotuko ote zara gizarte aurrean?

Munduari garrazkerizko sua ta egurra
iziotuz bere asarrea goituko ote da
legorkiro ta zeken zure esku igerra?

Ala, ontasun giartsuz, alairik, maite bidez
agertuko ote da zure itzal ederra,
gizon izaterik egoki ta zentzutuenez?

* *Esk.* XII, 5.
* *Esk.* XII, 6.

## LENENGO TXINTADA*

Ta nora abiatu ondo ezenkizularik,
itsurik aurkitu ziñan eguzki errean;
ala, bai ote zan itzalpe gozo atsegiñik
bideberatu ziñan lurralde ederrean?

Lenengo txintada, lenengo begiratzetan,
txori batena lez taupatu zan zure biotza,
ameskizun zoragarrizko ikus-miratan
egoak arro, oro zan aizearen abar-otsa!

Txio, txio ... urbillean; baita aruntzago ere.
Zure lenengo egadak maite-bidetzearen
iorantasunezko lorratz ezea dagerre.

Zelai-arte zabalak ta abaraska gozoak
nabaitu zenduzan an, lenengo bi begiren
dei ixillezko dizdiramenez zeuganduak.

## AURKITZE**

*Allí cerca del cielo*
(Dionisio Aimara)

Begi-ziztazko alkar-eresi gelgarriaren
zeru-alde ederrean. Izkutu ixillean
an, odolak dirakin laztangura biziaren
buruko garaunen bertanberatze maitean.

An, maitasun arloko dirdiramen bitxian,
zeiñetan begiz-begi, eskuz esku, uzten dan
biotza ta gogoa. An muxupeko egonean,
aoak betikotzen diran iturri eztian.

Antxe bai, gure aurkitzea: gure ikustearen
betikotzea. Antxe gogoz egiztatu ziran
ameseta pozgarriak, egun batez bederen ...

Antxe, bi gorputz, ezeren gomuta gabe,
eriotzea gainduz, antxe, izakuntza betean,
lenengoz ta azkenengoz gertu ziran garaille!

*Esk. XII, 7.
** Esk. XII, 8.

## BIOTZA*

Neke ta oñazezko bizi alor guztien
taupadazko lur puska gori, borobilla;
txikitasun aundiko atal, amets-iturrien
irakindedia... Biotza. Bizi-ardatz, gurpilla!

Zure odolean oskatzen da itsasoa,
begiztatze zorrotzez, uin bakoitzean
ederrik alai, edo itunik, or egunean
eguneangoz, eriotzaratuz zure pausoa.

Dizdiraz duzu betetzen gau illuna,
autserreaz estaltzen zure naiaren sua,
biziberako oiñots ororen oiartzuna.

Ta olaxe kutun, maitez, lilluraz betetzen
ta gorrotoz irakintzen zure odol berua,
egunik egun, beti, bizia oiukatzen.

## ATERA ZAITEZ BAI BURRUKARA**

Taupadaz, ekin gogor, ekin biotz, oskatzen
ba, laster ilko da bai, laster, udaberria.
Abotsik gabe ez geldi egon itxaroten
zein ote dan zure bidea, zure etorria.

Maitasunarekin, umeak ere zeuganatuz,
zoaz gizonaren bakartade, ametsakin;
bideak egingo zaitu beren goiberakin,
izerdiaren gazi-geza biziro somatuz.

Biziak darakuskezu gero, bizia zer dan
aldapaz, lautadaz ta, itsasoko orruakaz
ikusiz uiñak bizi, nola dantzatzen diran.

Atera zaitez bai burrukara, gogoa landuz,
izatez ta egitez, benetako ekintzaz
zuk izan nai zenduken gizonari lagunduz.

---

* *Esk.* XII, 9. (1976-VI).
** *Esk.* XII, 10.

## ITSASOAREN SAKONA*

Au da itsasoaren sakona! Urdin-arrezko
ur geraka, ur kresalezko lautada zabala!
Ontziek or ondatzen dira egunetako
itsas-bideetan uinpeturik beren magala.

Au da nekearen, zauri ororen odol gorriz
ta, negar tantadaz kresaldutako itsasoa;
egunik egun, uin arteko giza ibilliz
eriotzazko amildura illunen erasoa.

Itsas osin orretara doa amets oro
mastarik gorenak urperatzen diralarik
usterik ederrenak amilduz egunoro.

Argia ta itzala naastekaturik doazi
gauaz ta egunaz, erabat tartekoturik
beti, ondorioka, beti, begira alkarri.

## KITARRA**

Nongo zugaitzaren biotz zabal, ta, nongo uin
ta, nongo lurrin, ta zein esku iparragirrez
egokitu zaitute ain ederrik ta, ain duin,
mundua eskuratzeko doiñutasun giarrez?

Zure arien beatz-ikutuz, gelgarriturik,
itsas aizeak ots dagi zerupe urdiñez
ta, lorearen begiratze samur, atsegiñez,
maitez argitzen zaitu eresian goiturik.

Egitura bitxizko izate, gorputz ortan,
berein gogai, amets ta esakuntza iturriz,
mundu bat egosten da egungo abestietan.

Askatasun egarriz, espetxeetako aienez
zure ariak oskatzen dira zauriaren zauriz
ta, egia egiz oiukatzen dutenen biotzez.

---

* *Esk*. XII, 11.
** G-Argi 18 (1977, 324.zenb.) 18; *Esk*. XII, 12 (1976-VI-23).

## ISPILLU AURREAN*

Nundik lapurtu zendun —bai, oldozten ari zare
zeure aurpegia ispillu ortan begiratzean—
aurpegikera, keiñu ta, soin-itxura berberean,
ain biziro antzetua... ala, amets utsa ote?

Arnas artzen duzun eresiaren aize egiera
zure misteriozko abotsean soñukatzen da
ta, ez dantzuzu beste deirik, beti zeurera,
arrigarriro dagerkizun mundura begira.

Zure bekokiko ezkutu, itzal orotoro,
iaioz batera illa, —erregai edo sugarra—
gizakia erretzen dana ain nabarmenkiro.

Gaua lotaratzen dalarik zure lepo gain,
erantsirik zure soiñean alako dardarra,
arrigarrizko eleketak sortu dira orain.

## ETSAIAREN**

Etsaiaren ezin geiagozko erasopean,
Euskalerria odoldurik, zauritua dago
kate gogorrezko esipe biurri, astunean,
kezkaz betea, bere burua nola iasoko.

Alere, gogo-biotzez, geure atzapar, ortzakaz,
arerioa koskatuz aurrera darraigu bidean,
odol beroa ixuriz azkatasun eskeintzaz,
erriarenganako itxaropen etengabean...

Odol irakinduaren kirio, biotz barrenean,
negar mindura, egon eziña nabaitzen dugu
ondamen nekagarriaren katigutasunean.

Bai, bizitzazko goraldi, errikuntza betean
bizi nai dugu bai, udaberriz iantzi, iziotu,
anaitasunezko eguneratze eder batean.

---

* *Esk.* XII, 13.
** *Esk.* XII, 14.

## BESTERIK EZIK*

Besterik ezik ta eziñezko ondatzean
bizi aukerarik ezpadago, onda zazu,
gure ibilte onen nekaldizko itutean
izen ondoriorik gabe desegin, triskatu.

Sugar bizia edo autserrea, aldi berean
zara zeruaren zigor edo leiza zuloa,
baiña, oiñik ez duzu ezartzen lurrean,
erabat garbiazirik munduko ukulloa.

Aldi izumendu au da osotorozko gaua,
atomuzko zizagailluena, odoldutako
negargarrikeri suminduz antolatua.

Gaurdaño ez da iñoiz izan ain esitua
gizonaren barrunbea, ukamen gogorrezko
bizi-aurkako etsaikeriz ain dezabatua.

## ITZEGITEN DA BAI...**

Garrazkerizko gizarte, egoera illunean
ondamendizko leizarantza goaz bai amiltzen,
atomuaren erasopean mundua okerkatzen
ta, erio-kutsuz betetzen ari dan bitartean ...

Aundia da guztien biotzik eza, argirik eza,
aundia bai aundizkion, dirudunen almena;
aundia lander ta txiro ezeukien itomena,
munduari darion mindura, azkatasun inkeza.

Irabaziei buruzko banaketa berdintsuago
ta, gizarte onbidetu, alkartuago batetzaz
itz egiten da, itz egin, geroago ta sutsuago.

Mundu berri bati dagokion etor-bidezko
egoera, arazoetzaz ta bakeatzaz ta bakeatzaz
itz egiten da bai, baiña... dana da gezurrezko!

---

* *Esk.* XII, 15. (1976-V-16).
** *Esk.* XII, 16.

## GERNIKA*

Ta, udaberria alai, itzartzen asi zanerako,
doixtar egazkiñez beren erio zama aztunez,
Gernika lerkaiakin erre-austurik, iñundiko
ondamendia sortu zuten bai, alako izumenez.

Astelena zan. Arratsalde argi, peri eguna,
eziñaren oiu, eriotzazko intziri negarrez,
Hitler-semeen okerkerizko eraso gogorrez
ereindako zakur-amurratuen ondorio ituna.

Sumeta soildu, ikaragarri baten sugar biziak
goitu ziran zabal gauaz, Bizkai osoa argituz
ta, ortziraturik inpernutarren lotsabakeriak.

Ixilpe mindu, nagusituaren dardarakizunean
aizeak, ke-sugarretan zeraman biotzak zaurituz
Euskalerriaren naigabea, indarkeri aundienean.

## EZ ZAIT GOGOA LILLURATU**

Ez zait gogoa lilluratu amets utsezko
somaketa, gogai ariñetan barrendurik.
Lur gaiñean ditut oiñak, itxaropenezko
giza arazo alkargarrietan sustraiturik.

Abes dagiot biziari, biziaren aldezkoari,
egia autortuz nun-nai, argizko ikusbidez,
besoak zabal ta, egitazko zintzotasunez
egia oñarritzen gizakiro diardunari.

Inguru esituz, indarkeriaren katepean,
ongi dakit bai gizon soillaren naigabea
barruari ezin eutsiz bere irakiñean.

Nire abotsak egi gordiña oiukatzean
gizona aldezten du ta, bere eskubidea,
buru iabetzaz zor zaion azkatasunean.

---

* *Esk*. XII, 17.
** *Esk*. XII, 18. (1976-III-26).

## ERRI ZAPALDUAK*

Burua iazo eziñik bizi diran enda
aberri oro maite dut, edozein izkera;
alaz ere neurea dut maiterik maiteena,
beren gogo-muin izatearekin batera.

Neure abotsarekin bateratzen dira bai
mundu guztiko arri zapalduen abotsak,
eriotzazko esiturapetan ta, ain deslai
ixil-azitako gizartearen negar-otsak.

Oksana Popovich oro datorkit gogora,
espetxeetako illunbe, deadar errukarriz,
biotza erdibiturik naigabea ematera.

Erri zapaldu oro noiz iagiko ote da
kateak apurtu ta ateak betiko irikiz
esanaz: Anai Erriok, zuekin bat emen gara!

## ODOLAREN IRAKIÑEAN**

Gure erri-amets ta gure gurarien gain,
itxaropenak autserretu ta gainberatuz,
laiño aztun, odeiak iabetu dira orain,
ezin bizizko une larri bat leporatuz.

Artez, zuzen, ezin dugu iarrai, ezin ibil
agirian gure erria aintzal, oiukatuz;
ezin diteke egia aitor, azalduz bipil
biotzaren poza, egun argitan gorakatuz.

Madarikatuzko ospin garratz, zigor ori,
eriotz kutsuz eregitako oñaze zorrotz,
uztarri ori ezin dugu iasan, iruntzi.

Asarre diraki bai odolak ler bearrean
zaiñetan bol-bol, ezin geiagoz ... ene biotz!
atzerri katezko lazdurape gogorrean.

---

* *Esk.* XII, 19. (1976-V-31).
**Esk.* XII, 20 (1976-V-17).

## IZATEZKO OÑAZE GORDIN*

Izatezko oñaze gordin au, bizitzaren
eriotasun au, neke auek ta atsegin auek
autsezko kondarrak izango dira, gauaren
ixillean ekarriko ditunak egun batek.

Sorkune ber-bertatik gauera doa eguna
ta, egun-loturapean gizonaren bizia
itxaroz ta ekanduz goimendutako muina
neke ta oñazeak iasantzeko iakituria.

Ikas besterik ez dago il eta bizien
ondoriotasunezko eratura minduetan
urauntzazko sendaturaz bizia onartzen.

Sustraiturik sakon, argi-emaiak billatuz
gizonak gogotsu darrai itxaropenetan
bizi ariora elbururen bat goiburutuz.

## KRISTO GURUTZETUARI**

Zu, Iainkoaren seme ongille, zitu maitea,
ondatzez zemaitua dagon mundu ergel ontara
etorko baziñake berriro, iraiñez betea,
epaitua izango ziñake gorrotoz, eriotzara.

Ez ba, len bezala, arantza zorrotzezko koroiz
ta, lantza-zauri odoltsuak dituzula saietsean,
baizik bakarrago ta, askoz ukatuago, Zuk iñoiz
uste ez zendun atomu munduaren atzaparpean.

Beraz, apur ezazu dana, nai izanik etorri
Iauna, zatitu osotoro, birrindu bat-batean
oraindik ilzori, odolez darraizun age ori.

Ta asarre, mundua dan eliz eder aundienetik,
atera zigorkatuz gogor, biali bai, erabatean,
merkatari aldra biurriok ebakiz sustarretik.

---

* *Esk.* XII, 21.
** *Esk.* XII, 22 (1976-I-14); *Esk.* XXIV, 113.

## GAUZAK ALDATUZ DOAZ*

Gauzak aldatuz doaz bai bere izanean,
aldatuz doaz ordu lasterren gurpillean
ta, ikusi bai ez ikusiko egiñean,
agur dagizkute agur, egunen batean.

Ur berberak ta ibai berberak dirudite
betiko urbide, betiko dariomenean,
emai urduriz bizia aitortzen digute
etengabeko itsasoratze lasterrean.

Baiña, urberriak dira beti ta, ertzetako
zugaitz, belarkiak aldatu egiten dira,
ikuspegiak ere aldatu, lizar ta pago ...

Bizia loturik doa eriotza berberaz
gau-egunen zorabioan, goizetik gabera,
derrigorrezko amilketa ta etenduraz.

## BEGIRAKUN ZORROTZA**

Txiro ezeukiek, onetik irtendako ugolde
itsuaren eutsi eziñeko zurrunbillo nastua;
negar alaru ixillez goitutako oñaze
naigabe erre-minduaren benetako oiua.

Edatuz doa bai, bizi eziñak sortutako
agin zorrozdun gosearen irrintzi estua;
gizaldietako kirtenkeriz oñarritutako
asarre etengabearen lazdura aunditua.

Etxe barruetako samiña, ogirik ezaren,
iantzirik ezaren, ta etorkizun illunaren
esitura gogorrezko egoera gordin, latza.

Ugaldutako asarre-bide, oñaze guztien
otoitz ta itxarokizunakin asper diranen
ainbesten abots batezko begirakun zorrotza.

---

*_Esk._ XII, 23 (1976-VII).
** _Esk._ XII, 24; _Esk._ XXIV, 63 (1976-IV-8).

## SALAKUNTZA*

Itzetan ats arturik gogotsu diardut bai, sutan,
itxaroz betea, burrukalari, biotza errerik,
maitatzen, gorrotatzen, idazten detan orotan,
neure erri, aberriaren alde ekintzaturik.

Bizi oroimenetan ausnar, erroturik nabil
ta, beren izen illunez deitzen diot aldiari;
baiña, ezer ere ez diot eskatzen txoratil,
baikor[a] ez ditekenik edo erabat bizikari[b].

Betiko burrukan, arretaz neure elburuari,
ez da bakarrik idaz lerro argal, illetatsu
ta, ixiltasun illunean odola darion ori ...

Baita, iragarria dagon egunsenti ortan,
parte artzen du nire abotsak biziro sutsu
salatzekoa salatuz agiri egikorretan.

## EGIAREN IABE**

Egiaren iabe balira bezala, oiukatuz,
idazle izeneko batzuk —gatz ez berakatz—
lerderio bizian oro zikinduz, pozoituz,
ta, oro irauli nairik, goitik beera, garratz.

Or ari dira nabarmenkiro narrasturik
azpikeri gorriz, itsukerizko munduan
itza ere erro onetik atera nairik
erre-aziz gero, beren inpernuko suan.

Lizunkeri zikin ororen gezur-oiala
aizeatuz, beste argirik ta eginkizunik,
beretik at ezer onik ez balitz bezala.

Aberri aurkako mintzo ustelaren lerdoiz
ta munduko negar, oiñazearen oiartzunik
entzun ta ikus ez balute bezala iñoiz.

---

* *Esk*. XII, 25 (*A*); *Esk*. XXIV, 65 (*B*).
[a] baikor *B* ilkor [b] bizikari *B* igeskari
** *Esk*. XII, 26. (*Ik*. 558.orr).

## ETXEPARE*

*Heuskara, ialgi adi plazara!*

Gure euskera maitearen laudorioz kantari,
euskal egoz zelairatu zan itxaropenez,
aren berri ona edatuz alai, munduari,
lenbiziko irrintzi eder, goresgarrienez.

Aintza euskereari, bein batekoz irarria
ta aintza Etxepare'ren abots goituari,
illunpetik, molde berrietan Euskalerria
argibidetu zuan gizon agurgarriari.

Izkera basatia iñork ez zuan uste
izan zezakeanik idatzia ain argirik
baiña orain izarra bezin argi dakuste.

Agur izar, agur zuri Garazi'ko erri,
agur bai, danon aurrean, irarkolaturik
euskerea aurkeztu zendun iainko-seme orri!

## ARANA GOIRI**

Gizaldietako ats berrituaren oiartzuna
Oi, eskerrak zuri! mendietan ta ibarretan
sakontasun sendo, itxarotsuz, edatu zan
aintzalduz, argituz, abenda izun kutuna.

Iñork iñoiz ez bezalako ausardi maitez,
zure gogo abermindua iagi zan sutsu,
egiazko irrintzi ta arranotar abotsez
erriaganaturik osotoro ta errotsu.

Zigor ta eragozpenak ere zure gogoa
ezin izan zuten eratz, ezin azpiratu,
aritz lerdena bezin giartsu ta sendoa.

Ta, gaur azkatasun itza irarria dago bai
odol gorriz, erriaren biotzean betikotsu,
eskerrak zuri, eskerrak, Irakasle Anai!

* *Esk.* XII, 27. (1976-V-18).
** *Esk.* XII, 28.

## LAUAXETA*

*Dana emon bear yako*
*maite dan azkatasunari*

Zure azken abotsean, zure olerkitzaren
gorestasunean daurkidaz ordu miñetako
biotz taupada, maitasunez burututako
larrosa gorriak, lurrin gozoz dirdirtzen.

Gurutzea leporatuz gero, aberrigiñez,
itzaldi gartsu, berein elerbidezko idatziz
egunik egun biotza, bero-beroan ereiñez
abiatu ziñan ziñezko argitada bitxiz.

Erri aldezko langilletasun, ikus-bidez,
ederraren, argiaren ondoren ibil ziñan
euskal barrutian atxurtuz, egiazko pozez.

Gorbea'ko dunbots, gudarien burruka somatuz,
udaberri goizez zure soiña erori zan
lurra aintzalduz ziñopa odol bedinkatuz.

## ENBEITA **

*Lo saludo en la Patria que toda gloria explica.*
*Lo saludo en el vástago del Arbol de Guernica.*
*Lo saludo en el Fuero de la honra y la equidad.*
*¡Pedro de Enbeita el vasco, ¡viva la Libertad!*
Lugones

Bertsolarietan bertsolari. Urretxindorra.
Enbeita-tar Kepa, nekazari euskalduna,
ta gizon azke, eredugarri, ezilkorra,
aberriaren goratzalle errime, bioztuna.

Usparitxa-Jauregiko Bizkaiko Muxikan
iaioa ta, azkatasun irrintzizko abotsez
goi-maillaratu zana bere abestietan
gizonkiro, kistar, neurtizketa aberatsez.

Biotz gartsu baten azkatasun egarria,
erriaganako maitasun, bere sinismena
dira aren ekintza eroren ezagarria.

Betikotasunezko itzal ta edaduraz
zabaldu ziran aren bertsoak ta izena,
itxarozko etorri biziaren ederduraz.

* *Esk.* XII, 29.
** *Esk.* XII, 30. (1976-V-22).

## EGOKI TA EDER *

Iantzi bedi gizona asmamen egintzallez,
gogo aurrerakorrezko emai maitagarriz
lantegiak, ikastolak, etxeak ere eregiz
anaitasunezko alkarguntza argitzallez.

Ta ioan bedi bidebera, maitasunaren
ikurrinpe pozgarriz, biotz-bideak zabalduz
ta, gizartean gizonki, zuzentasunaren
azia gogoz erein, egunik egun atxurtuz.

Egunaz ta gauaz, itxarozko ibilliz
gazteen artean, emakumeen artean, zintzo,
izkuntza anaitsu, argikor bat erabilliz.

Ez dezagun ba, ago utsez itz egin, alper,
ezezkeri illuntsuz ta beti gezurrezko
trikimaillukeriz, baizik egoki ta eder.

## ALEA**

*Jaungoikoari*

Zu zara Jabea, mundua da zure alorra:
ereintzalle zara, gizona da zure azia;
landare loretsu edo arantza ziztorra,
egin bedi nai dozuna, bete zure naia.

Arri artean, sasi artean itzal gorriz
betiko laiñopean, ez zuri ta eguzki,
ala lur sakon, aberats, lur landu ta mamiz,
zein aizek erabagi ete zun nire zori?

Noizbait alorrak, zure itaia ikustean,
bedar-txar ebagi asmoz... Enetxu enea!
azken orduko egun edota gau baltzean...

Uztatze egun ortan, alea nai neuke izan,
danik-eta txikiena izanda be, alea,
gordeko dan zure gari-pil, aletegian.

---

* *Esk*. XII, 31.
** Karmel 1987-2, 105; *Esk*. XXIII, 210.

# 1977

## ALDIAREN ZORABIO ERREAN*

Aldiaren zorabio errean
tuntunkiro ta, ixil-ixilik,
bazterrean dagon alper ori,
(esan ez baiña, zuk bear bada
pentsatu bai, pentsatuko duzu)
ezertarako ganora gabe
dagoala or, denporea galtzen,
bertanbera zure esku artean.

Ameskizun tautik ez dualarik,
zure izerdi tantoen pentzura
ian ta edan, bapo bizi dalarik
lurra eguzkiak beren ibilli
laburrean neurtzen duan itzalez,
zerbait onik azaltzen ezpadu
bizia abetu, biziari eusteko,
alperrikakoa da zure olerkitza!
ba, bazterrean dagon zure itzala da
ai!, zuk noiz ote duzun bultzatuko!

* G-Argi 18 (1977, 326.zenb.) 24.

## IMANOL LEKUONA JAUN ARGIARI*

### I

Gizatasunezko ekintza elburukor, otzanez,
urteetako gorabera, uztarripe aztunean,
euskerearen alorrak azterturik, etengabean
garatu zara betikozko soindura illeziñez.
Begi argien dirdira biotzberatsu, alaiez,
zure masaillak anpolai gerezi edo, marrubi
mamitsu, zuri-gorrien udaberritar edergaiez,
bizitzazko aurpegi aingerukorrena dirudi.
Itzaldi aberasgarri ta idazlan iakintsuetan
emaitu zara egunoroko eskeintza onaren
erriaganako egintzakizun sendagarritsuetan.
Aldi batez Euskalzaindiaren lendakari izana
ta, beti, Iankoaren ta Euskalerri minberatuaren
onerako, argitu nairik gure mintzo laztana.

### II

Beraz, ar ezazu bai, nire olerkari agurra,
zure lorratzak iarraituz egokitasun apalez
danon artean, gogoz, aberriaganako itzalez,
berbizturik betikoz gure mintzoa eta lurra.
Bideberako ibillaldi neketsu, astun ontan,
obaritzat, gugana bedi... Oi, bizitzazko argi!
egiazko sugar alkargarriz, erria iasoko duen
azkatasun eguzki bizikor, maitagarri ori!
Naikun loretsu au uztatu bedi aletza betean,
zorioneko ardo ta ogi, alkar-lan zoragarriz
maitezko izerdiz bustiriko euskal alorrean.
Ta, izan bedi gure Erria Erri —egiazko argi—:
egintzaz, izaeraz, iatorrizko gogo, muin biziz,
mundura begira artez... eskuak emanik alkarri!

---

* In: *Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma*, II, Tolosa 1977, 165.orr. (Kardaberaz Bilduma, 20).

## LABURPENEZ*

Ainbesteko
liburu mardul,
idazti lodi
—luze zabalen—
aundi-maundizko
alperreko
esan-mesan,
itzeteria...

Bearrezko dan
itz egoki
ta mamitsuz,
lau lerrotan
laburkiro,
adierazi
ditekenean...

Zergaitik ez, ba,
irudi bizi
giartsuetan,
gogaiak
argiro
azaldu?

Zergaitik ez
udaberrian
usai gozoz,
burutzen dan
larrosearen
antzera
beren ederra
itz gutxitan
muinkiro
atxiki?

## LABURPENEZ**

Ainbeste liburu
mardul, lodiren
aundi-maundizko
itzeteri utsa.

Lau lerrotan
itz egokiz
laburkiro
adieraz
ditekenean...

Zergaitik ez ba,
gogaiak
gartsuki
irudi bizi
giartsuz,
zergaitik ez ba
argiro
gogo ta biotzez
labur-labur
idatzi?

Usai gozoz
udaberrian
ederrik
buruturiko
arros-lorearen
antzeratsu,
zergaitik ez ba
sakonkiro
itz gutxitan
antolatu?

---

*PVV 12 (1977, 132-134.zenb.) 8.
** *Esk*. XII, 6. Emen olerki, baten idazkera bi.

## BAKARTADE ABESTIZ*

Baserri baketsuaren
goizalderatzean,
gau uxatuaren
oillar kukurrukuzko
papar iagi, goikariz,
eguna aizeatzean
ego zabalezko
abots bizi, zoliaren
aide arro, ederkariz...

Argira
eta
bizira,
itzera dator goiza,
oillar kukurrukuzko
argi zirrintaren
baso egutarazko
bakartade abestiz.

Goizean goiz
piñu, belar usaiz;
aize ozkirriaren
txintada, abar otsez
eguna urratsean,[a]
mintzatzen ari dira
bizidun izakiak,
mintzatzen zelaiak,
errekak, iturriak;
mintzatzen zomorroak
ta, osertzik osertz,
berein margo,
eskutada erraiñuz,
mintzatzen izadia;
kukurruku zoliz
mendiak ere menditzen
ari diran bitartean...

---

* PVV 12 (1977, 135-137.zenb.) 8 (*B*); *Esk.* VI[b], 16 (*A*).
[a] urratzean *A* argitzean

## ABESTU, ABESTU, ABESTU...*

Ta etsipenak alboratuz,
egun hori argituko dan
usterik sendo, baikorrenez,
abestu ezazu, abestu,
bai goizari, bai arratsari,
bizitzako ardatzari.

Abestu ezazu, abestu,
bizia gorestu, ats-berrituz,
bai maiteari ta bai erriari:
abestu bizia baieztuz,
euskerarik agurkorrenez
bizi izakuntza arruntari.

Gizartean, lagun artean,
abestu lurrari, itsasoari;
abestu bihots bateratsuz
izar ere ta ilargiari,
itxarokuntza zabalean,
indar dedin maitasunaren
azia. Abestu bai biziari.

Abestu, abestu, abestu...
pozkariozko irrintzi, zantzuz,
oinarrituz bihotz-ikurra
izan dedin gure goiburu;
abestu ezazu bai, abestu,
egiazko aize osasuntsuz
loretu dedin gure lurra!

## LABAYEN-TAR ANDONI**

Olerkari, musikalari, antzerkilari...
Ona emen gizona, Labayen-tar Andoni!
Tolosar errikoseme errime, iakintsu,
edadura aundiko idazle gorengotu.

Arantza artean, aldibera, lora politez
elorria bere garaiz udaberritzen da.
Zu ere zenbat urtez ederrik iantzi zara
euzkal senezko emaitz, berebiziko alez.

Zure urte goituen udazkentze zorian
betiraunezko bide aurkezte mardulez,
iakin-buruturik zakusgu ekin bizian,
aberri aldezko langintza eder, iaukalez.

Guda ondoko gogortadape izutian
euzko amets ta itxaropen, egintza oro
lur ikara amiltsuaren basatikerian
ondatu nai izan zutenean osotoro.

Ai, eztakit nik, nungo iaungoikozko izurriz
Euzkadi aitatzea ere pekatu zanean,
ta erio zamazko astuntasun nekegarriz
latzkeri itzal ortan erori giñanean ...

Bai, zein ez da gogoratzen alako zapaltze
ta, ixildurapeko egun illun tristeakaz?
Zein ez da oroitzen zein alako dezabatze
euzkerearen aurkako lotura garratzakaz?

---

* *Esk.* XXIII, 103 (1977-XI).
** *Esk.* XXI, 73-74, (1977-XI-20).

Zuk ordea sendoro iarrai zendun baranoan,
tinkoki biotzez eskuraturik idazkortza;
ta gogoz sustraitu ziñan bai euzkal arloan,
biziro eder iziotuz inguru izotza.

Atzerritar otsokeri gaiztoaren menean
zigorrezko esipe latzean murgildurik,
sator antzo zulopez ibil bear zanean
Lur ta Mintzoa nola-ala aldeztu nairik...

Zuk zintzo iokatu zendun bai aberriarekin
ta ez duzu bein ere erri izaria galdu.
Ez zara ez bertanbera lozorro gelditu,
euzkal senaren muiña lurperaturik gaizkin.

Or dagoz landaturik zure antzerki lanak:
Maya, Mateo Txistu, Iparraguirre ta abar;
Kalifornia Kuku ta Galtzaundi (berri ta zar),
or Malentxo Alargun ta euzkal itzulpenak.

Or Agar'en Seme ta Jokua ez da Errenta,
Txinparta Buruzagi ta Petrikillo ere,
erakutsirik zure doaitasun aparta
ta izkuntzarekiko goidura ta zutabe.

Or zure Muñagorri, zori oneko itz lauz
ta iakingarri dan Teatrogintza ta Iakintza,
gure erriari dagokion zentzu ta, arauz,
biziro giartuz euzkera zarraren egintza.

Gaur, emen, Larra'ko mintegi goreskor ontan,
txalo dezagun zure etengabeko lana,
maitaturik beti zure izen ta izana
euzkel barrutiko baratz eta alorretan.

Txalo bai Labayen tar Andoni ta, gorantzi
betikozko agerpen bizi ta maitasunez
txalo bai, egungo berbizte itxaropenez
txalo zuri eta, aberri gogoz irrintzi!

Olerkari, musikalari, antzerkilari...
Tolosar gogoangarri, Labayen-tar Andoni,
agur biotzez ta besarkada aundi bat zuri,
euzkal langille errime, abertzale orri!

## «ESTEBANTXUREN ESKUTIK» (1977)*

* Esk. VI.ª Lenengo «Luaxeta» Olerki Saria-ra (Laukinitz) bialdua. (1977-VIII).

## PAPER ZURIAREN AURREAN*

### 1

Ausarditsu bere birjintasunean
edurra bezin zuri-garden, garbirik,
aurpegi damostan aurreko orrialde,
Paper tentagarri onen bizkarrean.
argiro ta zuzen, irarri nai neuke,
egiazko sointasun antzeratsuenean,
zure bizitz onurakorra. Ementxo,
oi, Lauaxeta, betirakoz iantzirik!

Zure gomutazko ta oroimenezko
egun ontan, zure izena goiturik,
emen, zure olerkari aintzarako,
zure bizi-lorratzatan barrendurik,
gogai argiak nai neukez bai irarri,
azkatasun irrintziz, goi arnasturik,
bizia emon ta, berein bide barri
Aurkezturiko laukariztar sutarri!

### 2
*(Bidea)*

Baiña, zelan eta, nundik nora asi,
edota nun eta nori atea io,
zure izantzaren barri izateko
zein bide aukeratu eta edegi?
Ai, zer egin neike zer zure gogoaren
zure izantza orri antz emoteko,
zein argibide izango egokiren,
zein nire iturri eta edategi?

Zure aurtzaroko illuna uxatuz,
urreratu nadin zure arrobira,
lengo zure bidexka zarrak urratuz
noan olerkitzaren arri bizira,
izpiak txorrokatu eta metatuz
ia ba, poema bat, maitekiro atonduz,
eltzen naizen zure ikuste argira,
zure gogai izakerea eneganduz.

## NOAN...**

Desbaserrituriko
aldi urduri ta gerakaz,
gaurko gaurkoz
egun egungoz
orainduriko
ordu lasterkatu,
une minduok
erabat aztu
ta, gainberatuz,
aurrerapen guztiakaz.

Noan zure umezaroko
izanbide urrunera,
laiak, goldak, arak,
aiotzak, eskuarak,
asto ta zaldi-mako
ogi ta arto-labak,
burdi ta burtolak
ta, ganbara zarrak
ikustera... Noan,
piñu baltzen tristura baltza
erabat baztertu, ta kenduz,
aritzak, arteak, pagoak,
gaztain lurruna ezartzera,
zure errialde maitera.

* *Esk.* VI.°, 2-3.
* *Esk.* VI.°, 4.

## ATOZ, ESTEBANTXU*

### I

Atoz ba, Estebantxu, oroipenezko
Laukaritztar zidor maitagarrietatik,
irudimena sugartu, amesturik,
zure mutil-esku laguna laztanduz,
abiatu nadin zure igarotako
Erriko Taberna, etxe kutunaren
agurgarrizko itzalpe, ataritik,
zure erri maite-maitea aintzalduz.

### II

Izan zaitez ardatz, nire argimutil.
eroan nagizu, zuk ondo dakizun
eliza, eskola, ermitarako bidez,
ume begiakaz, egoak arin, tuntun,
aldiz zaratalari ta, aldiz ixil.
Aize ozkirrizko zelai ta latzinez
kolkoa osasundurik, xalo, bipil,
baserriko lurrun, itxasoko aizez.

### III

Euri sirimiriz ta, garoz beterik,
edota eguzkiaren bero galdatan
arin-aringa eta, izarditurik,
biok ibiliko gara goiz-arratsez,
berarizko lautada ta aldapatan,
iauzi-iauzika ta, atxintxinka, pozez,
kolkoa urre-zidarrez altxorturik,
bizitzazko amets-egunik gurenez.

### IV

Biok ibiliko gara iolasketan,
izadiaren begiakaz edermindurik
berdez iantziriko landa, latzinetan;
biok, marigorri, saltamatxinotan,
gure lur ezearen barruti pozkariz,
inguma ta txoriekaz egazturik;
biok, bai, arto-garizko alderdietan,
bizi-gogo ederrena erakutsiz.

### V

Oroimen zarrak soiñekoturik, kutun,
biok, gogoz, biok bat egingo gara;
zu etorriko zara nire kolkora,
ta, sutondoko epeltasun gozoaren
negu gorriko gau asper ta luzeetan,
ta, betiko otoitzak egin ondoren,
barrenduko gara aintziña orretan,
Peru-Maritxuzko ipuin edeskizun
ta, gaztaña gorringozko gozarketan.

### VI

Akulu eragiñezko oiartzunez,
nekazaritzazko mundu langille bat
aurkezten da, txori-txintadaz batera,
mendietarako, soloetarako bidez;
ta, burdi kirrinkarien ots nabarmena
ortziratzen da ozen..., oillo kakara.
Asto arrantzaz, murrusakaz... Erabat
bakoitzak azalduz bere doaikera.

### VII

Biotzean maiterik untzaturiko
gure mundu aintziñatu, igestuaren
ikuspegizko irudi biziak dira,
beren abarkazko ta bruseterizko
aurpegi aidetsuak, guri begira;
briska eta musez domekaturiko
iai-egunetako amaika laukiren
argazkiak, nekazaritzazko arira.

### VIII

Laia, ara, lauortzezko egunetan
munduratu ziñan sendiaren pozgarri,
Bilbo'ko tximini, soiñuetatik urrun,
—balankari, bolakari, pelotarien—
baserritar ekanduzko alorretan,
aize artean maiterik bizi ziñan.
Maiteetan, maite, umetxu agurgarri!

---

* *Esk.* VI.ª, 5-8.

### IX

Zenbat bioztasun loratuko diran ederrik,
zure iaioterri onen bazterretan
etxetik urrun aurkituko zaranean,
amarik ez aitarik, bakar-bakarrik,
arako Laukaritz'ko mastei zabalak,
erle-madari ta txakala sagarrak
gogo-sabai barru sakon-sakonean,
gozoro txastatuz, ametsez beterik!

### X

Baiña, nik, zentzu osoz begiratuarren
gauzak antz-bidetuz zure irudira,
zelan enegandu zure izatearen
gogai-ispillu, eguntasun berbera,
irudiak illunik estaltzen badira
ta, antzitasun leizara eroritzen
egunik egunera urrunduriko
urte aztunen ixilpe gogorrera?

### XI

Biziz iantzi izan baiño lenagoko
ikusi ez dogun aintziñatik gatoz,
ta, iatorrizko ari orren ondorioz
gu, geurez ezin bagara sortaurreko
izakuntza ezezaunera itzuli,
zelan utsune ezbizi ori soindu
ta, berarizko argitasun laudorioz,
ikus ezdakoa egokiro aurkeztu?

### XII

Etorrizko igidura aldakuntzaz
ta, guk leporatzen dogun oraiñean
aurkitzen gara, munduko lasterrean,
berein bide ta, trikimaillukerizko
lotura estu ta, naste-borrasteko
ustekizun ta eralbide barriakaz,
korapillo bat egiñik lengoakaz,
bakoitzaren nor-nitzezko ar-emonean...

## AURRERAKO BEAR DOGUN ARGIA*

Abiadura onen gerakatasunean,
batzuetan ausartsu, bestetan ikara,
bizitzako ilunbe ta zadorpean,
bai, ibili bearrean aurkitzen gara,
aiko-maiko, zalantza oro itzirik,
egiaren bidez, maitezko ikurpean,
itxaropen bat biotzean izioturik
eltzeko, gure bazkategi larrara.

* *Esk.* VI.ª, 9.

Saiatuz, aleginduz..., elbururako
bide ori egin al daikegu? Ala
buru-makur, ixil bidean etzango?
Oi, Estebantxu! Iarri egingo gara
biderdian eskuak gurutzaturik,
ala, adorez, gogor, iarrai egingo
argiratuz gure baitegi utsala
gure nor-zeintasuna erakutsirik?

Berarizko iñuzentzi aundienean
aurkitzen da aintziñakoz estaldurik,
aurrerako bear dogun argi ori;
gure eskupean dago bai, makurrik,
noiz oratu ta geuganduko maiterik;
or dago ele zarretan bizi-bizi,
iakindurizko egontza ederrean
ta ez dogu esku ezartzea besterik!

## ARGI IAKINDURIZ BURUBIDETZEKO*

Argi iakinduriz burubidetzeko
eldu zan zure garaia! Egun batez,
Laukiz erritxu maiteari agur egin
ta, biotza begietaturik, oroipenez,
aldendu ziñan bai, eskolaratzeko.
Zelako goibeltasun itun illuna
bertanberatu zan goizaren bideetan,
ainbeste besarkada, maite agurrez!

Zugaz zeruazun gogo-biotzeraturik,
lur zelaietako ta, zidorretako,
amaika ibiltze maiteren lurruna;
zugaz txirula ta danbolin soiñuzko
irrintzi ta biribilketa ederrik;
zugaz neska-mutillen aizetasuna
ta, lurraren ezetasun orlegizko
gun ederra, biotzean olerkiturik.

Olaxe sortu zan Maitale Kutuna,
zure neska eder ta ezezaguna;
Olaxe zure «Mayatzeko Gurutza»
«Zelayan», «Udabarriko Autorkuntza»
«Ardua ta Atsua», ta, «Mutxurdiña»;
«Otsokorena», «Mendigoxaliarena»,
baita, «Artzañena» ta, zure «Burtzaña»,
ta, zure goizeko «Neskatxu Gorrizkea».

* *Esk.* VI.°, 10-11.

Olaxe, lur-zelaietako ederrez
zure begiak alaitu ziran, amaika
erle durundi ta, mitxirrika ikustez;
usu ta arro aizeturik, nor-nika,
urrezko artotza, erreka zidarrez;
olaxe, landabide, bitxidor berdez,
aberastu zan zure gogoa, korrika,
berarizko iakituri zabalenez!

Ikuspegi ta len-pausu, urratz oro,
zure biotz kutxatillan altxorturik,
treneratu ziñan ... Aren arrapaladaz,
mendiak, zelaiak, ibarrak, erria ...,
urrunduz ta, geroago ta urrunago
ikusten zenduzen bai, biotzeko penaz;
bakarrik izarrak, odeiak, geroago
ta, urrerago leiotik begiturik ...

## LOIOLA*

Loiola'ko ikastaro, etsipenez,
erri aurkako ta euzkera aurkako,
ainbeste zapalketa ta etsaikeri,
ta, gorroto ikusi, iasan ondoren,
aberriz iantzi ete ziñan, erriaren
izakuntza berezi ta nortasunez,
ordun iantzi ete ziñan benetako
erri ezaguera, erri maitasunez?

Zaitegi, Goenaga, Mujika, Zubiaga,
Ibinagabeitia ta, besteren oldez,
ta, ixil-osteka, irakurririko
liburuxka aberminduaren bitartez
nortasundu ta, zeurez biozturiko
iakintzaz burutu ete ziñan? Ala,
lenagotik zetorren zure sugarra
Ama Lurraren ikuturik beroenez?

Abertzale ikurrin ori iazorik,
gizon egiña zakust gero, ta trebe,
arako gure azken guda-aurrez
idazkortza, aberriz langailuturik,
izlari, ta olerkari ta idazle,
Euzkadi'ren alorrean lanpeturik
zakust, gizarte barriaren eragile.

---

* *Esk.* VI.ª, 12.

## ABERRIA*

Aberria da zure gogai-iturri,
zure bizitzako zutoi argigarri.
Azkatasuna iomugarik gurena,
zure lurrarena ta euzkerearena;
zure iturburu ta zure oiñarri,
Euzkadi deitu edota Euskalerri,
zure gogoa beti izan zan, beti,
Aberri mugage, bat bakarrarena.

Ta, gaztetasunezko eragin, gunez,
biotza ezarririk olerti bideetan,
zure lur, erriaganako maitasunez,
ekintzatu ziñan euzkel alorretan;
ta, beti, benetako zintzotasunez,
errigintzazko abesti ederretan
opaldu ziñan, eskeintzarik beroenez,
baturako zeure bizkaitar berbetan.

Estalduraz gabiltza orain ta illunik,
urte ioanen laiñoburu aztunean,
pekatu balitz lez agertzea lengorik ...
Oi, gazte! Gaurko oraintza lasterrean,
ez al da zuen gogo-ikusmeneratu,
Gernika'ko errautsaren oiartzunik?
Ai!, ez al datzue sekula bururatu
lengo gudariak be, gudari ziranik?

Zelan gogoratu ez, aldi artako
ta, odola emon eben gudariakaz?
Zelan ez alako triskantzak, alako
ekaitz erasozko egun itunakaz?
Zelan aztu zure izena, Estepan,
ta, zure berkak? «Dana Emon Bear Yako
Maite Dan Azkatasunari». Ta, zelan
erantzun ez zure abotsari gero?

Aintzat artzekoak ez al dira ba? Ala,
Elgeta, Lemoa, Bizkargi, Sollubetan,
Artxanda'n, ai, ene! ... Zelai ta mendietan
Euzkadi alde emondako odola
ez al zan odola? Ta sasoi onenean
ildako illak ez al ziran ba, illak,
gaurkoak bezin seme maitagarriak
ama nekaldu bakoitzaren begietan?

* *Esk*. VI.ª, 13-14.

## GERNIKA*

Gernika eriotzez bete, ondaturik,
egazkiñak aldendu ziranerako
sumetatzar aundienak argituriko
gau beltza etorri zan, gaurik baltzena;
eundaka gorputz illez izioturiko
negargarritasunik izugarriena,
Bizkai'ko lurrez zabaltzen ebalarik,
iñoizko samindurarik garratzena.

Negarra agiri zan ama begietan;
negarra lubanetako gudarietan,
negarra arru ta zelai, ibarretan,
negarra neska askoren zotiñetan,
negarra ume ta mutiko biotzetan,
negarra agure ta atso zarretan,
negarra gure aritzaren sustraitan,
Bizkai'ko lur-barru, etxe-bazterretan!

Orduko biziok zelan ez oroitu
ikusizko gertaera izugarriaren,
alako, astelentxu dezabatuaren
gogortada mingotsa, zelanik aztu?
Zelan negargarrikeri ori kendu?
Zelan gaua argitzen eban gauaren
Hiroshimar antzeko sugar aundiaren
erreketa itzala, zelan aldendu?

Burua gorde nairik, taupaka biotza,
ikaraz dardar, erabat kokildurik,
oroitzen naiz zenbateraño gorputza
an, Foru'rako bide bazter batean,
zelan ni, sumindurik aurkitzen nintzan
egazkiñek lerkai eztanda otsean,
batera ta bestera zebiltzalarik
Gernika sutan itzi eben artean ...

Ainbeste dezabatze ta latzkeriren
ikustetara oiturik egonarren,
begietatik negarra zelan urrundu?
Odol-eriotzazko samindura orren
zauri gordiñak, ai!, zelan osasundu?
Guda aingeru baltzak, lubanik luban,
zekarren illeta-otsa zelan kendu,
ain biozturik badagoz gure buruan?

Etxe ta uri, baserri desegiñak ...
Zelan aztu orrelako ondamenak!
Zelan gudari elbarritu ta, illak,
zelan aztu alako gertaera miñak,
zelan aztu gudari otzan, ixillak,
Euzkadi'gaitik dana emon ebenak,
zelan aztu erri baten alegiñak,
gure bizi-etsipen biribillak!

Ta, zelan aztu, zu, Lauxeta, zelan!
Euzkera alorrean, zu bazaitugu
gorengo olerkari ta, iraultzale,
Bizkai'ko laukaritztar seme ospetsu,
abertzale zindo, langille errime,
ta martiri ..., ai, Lauaxeta, zelan zu,
zelan ainbesteraño zelan baztertu,
izanik olerkitzan-eta eredu?

* *Esk.* VI.°, 14-16.

## OTOITZ ANTZERA

### Zure Eriotz Orduak Gogoraziz*

Bagilla bizitzaz betea nabariz,
lora usaizko eguratspe ederrean,
zure azken ordu larriak gogaraziz,
Eriotz-egun itunera natorkizu:
«Goiz eder ontan erail bear nabe»
idatz zendun eriotza urbil ikusiz ...
«Baiña, Jaun Altsu, orain nai nozu»?
Ta, «bildots antzera loturik naukazu
bear nauanian aberriak»? Ai, ene!

Bagillaren goiz bateko arginabarrez
Otoitz biurturik, unearen agonia,
il eben gure laukariztar aundia ...
«Jaunaren maitez ta aberriaren maitez»,
zintzokiro opalduz bere bizia.
Ta, ederrik, aren odol aintzagarria,
lurrean larrosearen gorritasunez
ixuri zan, goraldurik aberria.

## ORDUTIK ONA**

Ordutik ona, ai! zenbat erailketa!
Zenbat ta zenbat gudari iausi diran!
Zenbar ezbear, zenbat lotura iasan
bear izan duan gure erriak. Ta,
zenbat iasan bearko oraindik! Zenbat!
Burrukea ez da amaitu ez, guretzat,
ta, aurrera darraigu gure lorrean,
AZKATASUNERAKO bide luzean ...

Beraz, agur, bai, gorengo olerkari!
Agur aberriaren aldezle goigarri,
Euzkadi'ren ispillu ta oleskari,
Bide Barrien aurkezle agurgarri!
Agur, bai, betikoz, laukaritztar orri!
Beioakizu ene otoitzik beroena.
erriaren gorantzi eta onespena,
bai, Estepan, Estebantxu maitagarri!

* *Esk.* VI.°, 17.
** *Esk.* VI.°, 18.

# «BIZIA BAIEZTUZ» (1977)*

* *Esk*. VII. «José de Arteche Saria»ra bialdutako olerkiak (Urantzuko hiria 1977ko literatur saria).

## OTOITZA*

Bizitasunezko goraldi, lore aroz.
Bemaikit udaberriak beren arnasea;
udaldiak egaztien abesti beroz,
uztatze ugari baten opakundea;
ta udazkenak, urrezko ale, elduaroz,
garairik ederrenaren opakundea;
ta neguak, iantzi zuri, izozturikoz,
bekarkit, nolabait, beren barruzko sua,
ain gogor ez dedin izan, ekaitz-erasoz,
egun ilun-motzez osoturiko GAUA!

## BIZIA BAIEZTUZ**

Itsasoaren kresal arteko
uhin goituen apar zurietan;
naiz belar ezeko intzaren
ur tantoz bitxituriko
eguzkitar zidarterian;
naiz neska-mutilen begizko
alkarbide maitekarietan;
naiz aurraren gosea asetuz
bularra ematen ari dan
ama gazte ta umearen
iostaketa udaberritsuaren
maitetasun laztanezko
alkarbide keinukarietan;
naiz aiton ta amon zaharren
egun ioanen gazi-gezazko
oroiketa bizigarrietan;
naiz uritar giz-erlontziaren
durundi nahasi-nahasian;
naiz zelai, ibar, mendietako
baserritar bakartadean;
naiz bide bazterreko lorean
ta aitzpeko ur kantarian;
naiz ilargi zurbil, betearen,
ta, gau argiko izarterian;
naiz zugaitz ta tantai ederren
aize-mintzozko ostoterian
barrentzen naiz, berein margo
ta, soindurapean goituriko,
izantza ororen sustraibegiz
ene gogoa landu ta argituz
goiz eta arrats bakoitzeko
igaran-bide ikusgarriz ...

Ta, ikusi horren eskutupez
neure oinak aldibera oskatuz,
txiki-aundizko gauza orotan
argi bilakari arrunta naiz,
ta gauzaen izantza hortan,
oinkada bakoitzean bizia baieztuz
ta gizonari antz emanik ...
bizia egituago ta argiago,
askotaz argiago dakust, argiago.

Bai, argi guztia, argi oro, argia da bai,
baina, eskutada ugarizko nire bizitza honen
ikuspegizko uhin aundiz sortzen dan
ur-txorrotada indartsu, bizikari hau
askotzaz ere argiagoa da.

---

* *Esk*. VII, 1.
** *Esk*. VII, 2-3.

Orregaitik dartut nik ortzi zabala
neure alkandora soinekotzat,
ta, eguzkia neure bihoztzat,
izan zaitezen arri legunezko gizon sendoa,
baita itsaso ta, amarizko emakume osoa,
izanik beti, aurtxo txiki, umea,
munduak ederrik aurkezten dun maitasunezko
begi argidun neska, mutikoa.

## ABESTUTZEKO GOGOA*

### 1

Gorrotoz, zitalkeriz,
gaiztozko katepean,
mundua negarturik
odolez ikustean ...

Zuk, bihotzeko Anai,
zuk, arrazoi aundiz,
esan zenezakezu:
nola izan diteke,
ta eduki bizitzeko,
abestutzeko gogoa,
etsipenez ta zauriz
gizona gizartean,
gogorkeri oinarriz
odol irakindurik
minduraz ikustean ...

Ai!, nola, nola, nola
abestutzeko gogoa
ta, bizitzakoa izan,
gizona gizartean
indarkeri barrutiz
ain oinperaturik,
ain erre mindurik
aurkitze danean ...
ai! nola, nola izan
abestuteko gogoa?

---

* *Esk.* VII, 4-5.

**2**
**(Alaz ere)**

Alaz ere nik abes dagit
itxarozko negar-anpuluz
bizitzaren goibeherazko
uhin-arte estu, apartsuz,
ta, goiko zeru zabalez...
Abesten ari naiz abesten.
Abesten neure ametsa.
Neure poza. Neure negarra.
Abesten maitearen betargi,
iragan-egun zoragarri!
Abesten erriaren aintza.
Opa diodan osakuntza.
Abesten, abesten, abesten
gure betiko soka dantza.

Etsipenetan amildurik
naiz itzultzen denaren oihua.
Nire izamenaren sustraia.
Ni naiz ibiltari sugarra
ta zigortutako ezurra.

Aizea da nire baratza
eta goiz argiko inuntza:
Maitasun. Apar. Lainoa ...
Oi, nire ibai urrundua
orduko zure ausardia!
Lora maitekor izan nintzan
zure uberkan barrendua.
Dizdira bat utsi zidazun.
Oraingoz nik neuretzat dartut
ta arrunkiro abes dagit!

## IZTEGIA*

«Nire», «zure», «maite», «atoz»...,
«itsasoa», «lurra», ta, abar,
gizonaren iztegiko
itz soil, arruntak dira,
mende ta gizaldi zear,
bakoitzaren izatezko
gogapen, uste ta asmoz,
egunoroko eitearen
etorri ta arremanean,
diranak or aizeratzen
bakoitzaren aiderazko
bereizgarritasun xaloz.

«Erria», «gizona», «gizartea»,
berarizko sustrai ta ondorioz,
munduko bizi-korrontaren
eragin ta poderioz,
ain ugari dabiltzen itz merke
ezabatuak... Baita gero,
beste askoren artean
«aberatsa» ta «txiroa» ere
beren zori ezberdiñezko
atsegin ta arantzazko
gizabide[a] uztarripean
erantsitako deitura,
adierazpen iakiñaren
bizi-moldeari darraie...

Nik, alderantziz,
beste oguzkera bat,
onetzako[b] beste iztegi bat daukat,
zeiñetan oiek, adiera guztiok[c]
ain ezberdin diran
enezko iantziz:
«Erriari», maitasuna deitzen diot
ta, «txiroari», Anai...

Orrelaz, gero,[d]
nire muin, biotz barrengo[e]
ikusgaitasun ibillietan
uberkatutako giza itzok
aunditzen, ibaikatzen diralarik,
maitasunez ondutako agerpen,
iraultza berri bat da,
ta, beraz, nire iztegia
da, beste iztegi bat...
zeiñetan, itzezko
adierazpen guztiak
ain ezberdiñak diran
biotzez oguzitako[f]
nire barrengo[g]
erabide[h] sakonean.

## EGUNGO GIZONAREN**

Egungo gizonaren
maitasun aldezko
agerkizunetan,
gaurko gizartearen
zuzentasun bila
ari naizenean ...

---

* Karmel 1977-4, 75 (*B*); *Esk*. VII, 6-7 (*A*).
[a] gizabide A gizatasun [b] enetzako *A* bihotzeko [c] guztiok *A* guztiak [d] Orrelaz, gero, *A* Horrelako nehurriz [e] nire muin, biotza barrengo *A* nire gogo, bihotz barruko [f] *(lerro au falta da B'n)* [g] nire barrengo *A* nire gogo barruko [h] erabide *A* ikuskera.
** *Esk*. VII, 8.

Oi, ez uste, Anai,
amets ondoriozko
neure sukar bero
ta, gogo ikustez,
itza ederturik,
eldu bako ale
ta, nahasitako
arnariak dituan
zugaitz ondoraino
nik ekarri nahi
izan zaitudanik
argitasun gabe.

Egungo oinaze
ta, nahigabepean,
munduari darion
larritasunean,
bakarrik nahi nuke
bihotzak iziotu
ta, zure zaurietan
osasunduko zaitun
osto sendagarri
eze bat ezarri.

## LEIOTIK BEGIRATUZ*

Naiz euzkiz jantzita egon,
naiz odeyez izukor,
naiz ilargi geltsuz edo
naiz izarrez dizdikor,
mintzo gozoz poztutzen du
nere gogo gaxua ...
¡eta bere mintzo eske
zabaltzen det leyua!

*Tene*[a].

Zabaldu bai leioa ta so, urbil-urrunez
egun barruz datorkigun anots bakoitzari:
eguzki, euri, elur, naiz laiñope illunez,
gizartean bizi dugun mundu aunitzari.

Oro da lasterketazko ibilli azkarra,
izan naiaren, iritzi naiaren samiña;
geiago bearrezko zalantza ta sugarra;
oro da urduritasunezko bizi-miña.

Egazkin, berebil, etxeko langaillu ta abar,
oro da soiñu durundi, oro motor otsa,
ezinbizizko egunsenti ta illunabar.

Baiña so daigun ortzia goizero begiztatuz
edota, arratsero, irikiz leioa ta biotza,
be aldeko zaratetatik gogoa baztertuz.

* G-Argi 19 (1978, 415.zenb.) 19 (B); *Esk.* VII, 9 (*A*).
[a] *(Tene'ren bertso au B'n ez da agiri).*

## GIZONA*

### 1

Ilunbe garratzezko osin-zulo beltzean,
galderakizunetan murgilik, negar-malkoz,
hona hemen gizona betiko soka-tiran,
begiak argituz, bizia auznartzeko gogoz!

Zer nahi ta, nundik igaro ez dakilarik
hona gizona munduko bidarte guztietan,
armailarik armaila daurkizan eztopoetan,
bizitzako zurubi luzea igon ezinik!

Aldizka ioranez, geldirik, hor nunbaitean,
lurrean pinpilapaux ederrak erein-asmoz,
maitasunezko ibilbiderik bitxienean ...

Aldizka bakarrik, zorioneko liluratan
gelditzen da gizona, betiraunezko egoz,
biziro barrendua ameskizun pozgarrietan.

### 2
### Gizonari Itauna

Suntsitua bizi zara gauaren zadorra,
ez egunaren eresia ezin arildurik:
argian argia besterik ez dakusularik,
nola zentzutu zure adimen ilunkorra?

Egazti abestietan zuk abestia besterik
ez badantzuzu soil-soilik ta, beste guztia,
horrela neurtuz ta, iakin gabe zein zer danik,
ai! nola eskura zeinke munduaren aria?

Gizonen izamena zuzenbidetzen duan
aingeru altsu, sendoa ez dakuzun horrek,
ta, bizi ta, eriotzazko loturak zein diran.

Ta lorean lorea besterik ez ikustean ...
zuk zer egiten duzu ezbazaitu ezerrek
oinarritzen gauzaen ta Iainkoaren bidean?

* *Esk*. VII, 10.

## EGUNA ARGITZEAN*

Goiz argiko eguntzearen intz-zidarteria!
Aizea ozkirri ta zakur bat zaunka urrunan.
Betetzen ari dira bideak oinots bakunan,
osertzetuz eguzkiren urregorriteria.

Itzar gaitean. Beharraren atzaparretan
gizona berebilez, bultziz, baita oinbidez,
gurari utzezko iardunketa, ametsetan,
bidebera galtzen dira ta lurreko autsez.

Hor doazte gogo makaldunak ta gosedunak,
hor zintzorik ta otzanik, ibil-tramankuluz,
ogi irabaztera doazen gogo ilunak.

Baina goiza ederra da-ta, ez kezka izan,
eguzki argia goitu da dizdira gartsuz,
bizi-poza erantsirik giza-bihotzetan.

## NIRE BUZTINKI ARRUNTAZ**

Nire buztinki arruntaz bizia onestuz
etxeak, ikastolak eregi nahi nituzke,
argi dizdirak ta maitezko ikurrak sortuz,
etorkizun ongarrituaren emai ta ale.

Bide ta erri zehar ibiliz irriparka,
argiago izan dedin nire giz-buztinkia,
bizitzako ateak zabalduz laztan-besarka,
anai arteratuz maitasunaren irudia.

Ta, bakeatzaz itzegin, uri ta baserrietan,
leiza ilunak egiaren argiz burrukatuz,
itxaropena ezarriz entzule begietan.

Abestuz zintzo bakearen ta egiaren alde,
bihotzetan maitezko mendu berriak txertatuz ...
Oi, zein izan diteken holako argitzaile!

* *Esk.* VII, 11.
* *Esk.* VII, 11.

## ARANTZA ZORROTZETAN*

Ta arantza zorrotzetan behatzak zulatuz.
Begiak odolez ta bihotza zauriz. Oztopoz,
ertsirik dago bidea. Baina, ekin gogoz,
ekin otak, larrak, sasiak ebaki, garbituz.

Bide berriak iriki. Neketsu izanarren.
Ez daude danak ertsirik. Zirrikiluak
agiri dira tarteka. Ta gau ilun orren
ate-bideak argitzeko artu langailuak.

Alde batera io, baita, io beste aldera.
Bilatu lagunak, adizkideak. Bai, bilatu.
Ez etzanik gelditu, ixilik, bertanbera.

Ots gizasemeari, deitu zure erkideari.
Atera lozorro aztunetik. Ta alkartu.
Bide egoki bat emanik egunsentiari.

## UDABERRI BULTZADEA**

Goitzen ari da maitasuna ta, bizi-poza
dardut belar ezean ta txori kantarian,
lorakuntzazko aizebide ernalkarian,
kantu-ots eztiz alaitzen da ene bihotza.

Goiz intzaren eguzkitako ur zidarteriz
arrigarrizko itzarkunde orokor hontan,
ta, Loreil ederraren mintzaira alaigarriz
Iainkozko agiria dakar begi-ninietan.

Aizea bare ta bazterrak eskeintza betean,
oro gentzatsu, ederrik, bizitza iturriz
ametsak sortuaziz kolkorik makalenean.

Nola estali udaberriaren bultzadea
odoleratzen bazaigu ikutu pozgarriz
arnasaldi itxarokorraren sorbidea?

* *Esk.* VII, 12.
* *Esk.* VII, 12.

## MAITASUNARI ABESTUZ*

Bizitzazko emai, maitasunari abestuz,
agor bedi etsipenduaren malko iturria,
itxaropen alorretan bihotzak landatuz
bazterturik munduaren ezin-bizi larria.

Zergaitik ez diogu ba biziari mun egingo
ta larrosa zuri gorrien eder, usai gozoz,
ta gainontzeko ibar, mendi, ikusgai oroz,
zergaitik ez gara ba atsegin gozartuko?

Aldamenean gogorkeria, negarra danean,
egiz mingarria da egungo egoera latza,
ainbeste eriobide ta ondamendipean.

Baina larrosak usaitsuak, ederrak izanik,
zergaitik ez ba anaikiro lasaitu bihotza
haren ondasun bizigarria laztandurik?

## IAIOTERRI GARBIA **

Maitatzen zaitut zura laztantzen dutanean,
intxaur, gaztainen odol ta aritz gogorrean,
zure iatorri garbiaren egokitasunean,
zure arimazko egitura mardulean.

Hor zakust loratzen udaberritar goimenez,
ta zure gorputzak dirudi intxaurrondo bat,
azal zuri-beltzezko edergai usaitsuenez
urbiltzen nauzunean... ai, ze poza niretzat!

Nire begi-niniz goratzen zaran zuhaitza:
zumar orlegi ta, harako tantai bakarra,
zure igiduraz aizetzen da ene bihotza.

Ta, nire besoak laztantzen zaitue maitez
irikitzen duzunean zure lur emaikorra,
oihan urtetsu bateko usairik gozoenez.

* *Esk*. VII, 13.
** *Esk*. VII, 13.

## ITZEN IZAKUNTZAZ*

Gauzaen izen artean, karrika zehar nabil;
itsasoari ematen natzaio ta, aizeari,
gogoetaz gogoeta, urrundiz ta urbil, ixil,
eraginik azkar gogamenezko egoeri.

Lurra, urte-aro bakoitzaren agerpenez
ta gau-egunen itzal ta, argitasunean,
iatorrizko egituraz azaltzen danean
auznartuzko bihotz-begietako ikuspenez...

Itzekin iabetzen naiz gogozko enegantzez,
—ta, lore, izotz, laino, mendi, naiz ibar—
soinekotzen ditut iraganezko bizitzez.

Egun-goidura sakona damaiet ederrik,
ta itzen izakuntzaz ni barrentzen naiz, bakar,
berein gogo-itxura bakunez ber-iantzirik.

## NIRE AMETSAK**

Bai. Ondartza gorriaren ertzune agerrian,
nire ametsak urrun doaz, bai, lotura gabe.
(Uhinen besoetan kulunkaturik nabilte,
haruntz-honuntzazko apar-ots zoragarrian).

Itxaropena bezin aundia dan itsasoa,
eundu ta deseunduz dari apar zurietan,
gatz minkatzez beteturik nire soin osoa,
urdin zabalaren aizebide ezaunetan.

Nik dakusdan itsasoa ez da aurtzarokoa,
ez gaztearokoa. Aldi ta garai hontakoa da,
siniskor ta eldu gabea. Bihotz gogorrekoa.

Ni laztantzen ta bustitzen nauan ur-piloa
nire eskeintz guztiak altxortzen dituna da
gogo baretsu ta apar zuriz bitxiturikoa.

---

* *Esk.* VII, 14.
** *Esk.* VII, 14.

## ITZ EGINTZALLEAK*

Ixo! Atzera bedi, atzera gorrotoa,
kukumarru estalki ostetik izan ezik,
gizatasunez bulartsu, aurpegi emanik,
ez dakitenak oñarritzen[a] beren erroa.

Atzera zuok, odolzale, illots saltzalleok!
Atzera bai, aundikerizko abots zorrotzez,
euren ona besterik ikusten ez dutenok
suge gaiztoen antzeko ezten pozoikorrez.

Aiztorik ez dugu nai, gariburuak baizik,
munduaren zentzuzko argi-irin mamitsuenez,
gizarte alkartzaille baten oñarriturik.

Itz egintzalleak bakarrik ditugu onartzen,
egitazko giza onura argigarrienez:
bizia dutenak egokiagotzen, biziagotzen.

## EZETZA**

Eman ezetzik borobillena gorrotozko,
odolezko, negarrezko gudaldi ororen
dezabatze, anai arteko, erri arteko
betozko ta, itsutasun gogorrenaren

ondabide illunari. Ezetzik aundiena
erri, izkuntza, giza-eskubideak zapaltzen
ari diran guztiei. Ezetzik gogorrena
suzko eriotz-zizak ugaritu ez ditezen.

Ezetzik gogorrena indarkeri orori,
gudeari diru ta egitez ateak zabalduz,
odola, negarra, miseria dakarrenari.

Holako giza-pizti alenok ar bezate
euren zigorra, lotsaturik, burua makurtuz,
iasan dezaten etsipen gogorraren kate.

---

* *Esk.* XIV, 3 (*B*); *Esk.* VII, 15 (*A*) (1977).
[a] ez dakitenak oñarritzen *A* oinarritzen ez dakitenek [b] bakarrik *A* baizik.
** *Esk.* VII, 15.

## EDOZEIÑENTZAKO*

Garbitu agoa lagun. Ez ibili garratzik
biraoka, asarre... (goikoari[a] ta bekoari)
bazterrak biziro aiñenduz, gaiztoturik,
iraiñik aundiena egiñik zeure buruari.

Zeure ametsak loratu ezbaziran onik[b]
abestu bai, zeure lagun ta maitasunari,
ta, ai!, ez ba'dozu maitasunik ez lagunik,
ene seme!... abestu bada zeure biziari.[c]

Atxiloturik aurkitzen ba'zara, oiñazez,
abestu samiña, negarra, zeure Gau Baltza,
ta orrela dakuskezu gero, atsegiñez...

zelan argitzen dan zure inguru illuna,
zelan alaitzen ta zutuntzen zure biotza,
indar-barrituz zure gogo[e] ta maitasuna.

## ORAIN MAITASUNEZ**

Orain maitasunez abestu egin behar da,
Anaia itza tinkatuz gaizkatu gaitezen
oraindik ederra izanik zeruaren gaua,
eguzkiak agurtzen duan soinekoz... Emen

oraindik zutik etxeak gelditzen diranean,
itxaro daikegu beste aldi bat, Anaia
itza agertuko dana bihotzez idatzia,
etxe, arresi, aho, aurpegi bakoitzean.

Aldi hontako semeak gara ta bekokian
zemaiaren ikur garratza daramagu bai,
ta, min damaigu ainbeste oker ikustean.

Min damaigu bai orriaren egoera ilunak;
umerzurtzenak, ama gaixoenak, ene anai ...
baina, abestu, maite-abesti argidunak!

---

* Zer (1979, [25.] zenb.) 17 (*C*); *Esk. XIV, 14 (B)*; Esk. VII, 16 (*A*).
[a] goikoari *A* bai goikoari [b] onik *A* ere [c] ene seme!...abestu bada zeure biziari [Buruari *B*] *A* abestu beraz zeure biziari...hala fede! [d] zelan argitzen *A* nola egun argitzen [e] indar-barrituz zure gogo *A* berrituz zure bizi-nahi
** *Esk.* VII, 16.
** *Esk.* VII, 16.

## IKASKETA*

Oi, bagenki egun minduratiak zeharkatzen,
ekaitzaldi gogorrari aurpegi ematen;
burua zentzuz argiturik odola baretzen,
bagenki bai, eraso gaiztoari erantzuten!

Uhinak gogor badatoz utzi igarotzen,
zarataka, ozen, arkaitzetan erasotzen;
ikasi maitez, eskuak, egoki biziratzen,
ta, gizontasunez, tinko, buru zut ibiltzen.

Etengabeko ekintzaz biziro saiatuz,
menperatuko ditugu eragozpen oro,
egiazki begiak ta bihotzak argiratuz.

Bizitzako itsasoak bere uhinak ditu
ta arretaz ibili behar dugu, zintzoro,
bizi-ontzia ez dadin betiko ondatu.

## GOIZ-ARRATS BAKOITZEAN**

Goiz-arrats bakoitzean, itxaroz ta laztanki,
baikorkiro irikiz ametsen iturria...
ze lazgarri ta ituna hau, gure bizia,
gauzaen arimaz begiratzen ez bagenki!

Bultziz goazenean zuhaitz, mendi, soro, etxeak,
atzean gelditzen dira arinka, lasterrez,
baina, zeru zabal ta goiko izarbideak
urbilagotzen datozte gau aro ederrez.

Oi, gau-alorreko izargune dizdiratiok,
zidarrezko zabal-aundi ta azkengabearen
munduteri eder, argontzi zoragarriok!

Lurra oinetan dugularik, gogoa argituz,
etsi gabe, elburua urrun eduki-arren,
osatu bidea, otzan, aurrera begiratuz.

---

* *Esk.* VII, 17.
** *Esk.* VII, 17.

## GUDA AURKAKO ZANTZOA*

### 1

Ainbeste odol-iturri, ainbeste eriotza,
ainbeste gudaketa! Ekaitz izu, gogorrez,
odolezturiko irakintasun minkorrez
mundua, itzalduriko negarpean datza.

Sugarrez, izkilupean, bizia deseztuz,
indarkeriaren eskubidez burutzen dira,
gizonaren nortasun ta, usteak zapalduz,
gutxi batzuen aundikeriaren irabazira.

Ez gehiago gudarik, eriotzazko goraberaz.
Ez, ez! Ez gehiago odolik, erailketarik,
ezinbizizko alkar-iltze ta eztenkadaz.

Ez ibili, ez izan gorrotoaren meneko
erriaren kaltetan gizona lokarriturik,
oro min-ospindu ta zakarki ondatzeko.

### 2
### Ondamena

Ez gehiago horrelako izotz begiradarik,
horrelako oihu itzaltsu, ez horrelako
odeiburu aztun, bizitzearen onerako
egun argi berogarririk ez dakarrenik.

Ez gehiago gaua, negar-malkoetan bildua,
gaiztoagotuz gizadiaren izaera ituna,
baizik eguzkiaren dirdira etorritsua,
anai-arteratuz haren ondasun biguna.

Ez gehiago gorrotorik, bizitza sustraiak,
ta, gorputz gazteak moztutzen ditun aize beltzik.
Odola dixuriten negarrezko iturriak.

Ez gehiago biziaren aurkako eromena,
ez sortuazi, ez erein gaitzerako azirik,
aski dezabatuz gizartearen ondamena.

---

* *Esk*. VII, 18-19.

## 3
## Bildurraren Zaldiak

Bildurraren zaldiak bai, hor, lau-anka betean
doaz, soin gazteak erori ziran zelai gainez,
eromenezko izudurarik beltzenean,
aizea urraturik irrintzi nabarmenez.

Erriaren asperenak dantzudaz, eriotzazko
mezu itzalez, egoaldeko etxe-barruetan;
maitasun sutsu ta zindoenaren bizitzazko
oihuak, amaika giza-semeren bihotzetan.

Erioratutako neskutzak zinkurin dagie
euren eskuak gurutzaturik bular gainean;
baina, altsua da oraindik maitasuna ere.

Ospa dezagun ospa bizitza jai-aldia,
ardoaren usai gozo ta ospindurapean
txasta dezagun luzaro, haren iturria.

## 4

Egunak lehen baino minago, garratzago,
askotaz ere eraman ezinagoak dira;
gogorrik, geroago ta ilunago, beltzago,
itsusiago datozte gizonaren bizira.

Edozein eskutara etor litekenean
Hiroshima'ko onto deusgarriaren sugarra,
zergaitik eriotza erein lerderi utsean,
gizartera ekarriz oinazea ta negarra?

Ai, gogorkeriari amor emanik, gizona,
ari bada egungo bizibideak ondatzen
zer ote haren ondorio ta etorkizuna?

Zer kirats artean, bihozkeri bildurgarriz
lora ederrak ari bagara desorritzen,
ezezpen itsuzko bizi auste negargarriz?

## IOSU'REN OROITZAPENEZ *

### 1
### Argia

«Ni Naiz Argia». Begiak goiturik, aizearen
ondar-auts xea zerorkion buru gainera,
ta, arrats usaizko lehen izar, itzalaren
ixiltasun ituna, gau-ontzakin batera.

Oliondozko bidartez haren giza-irudia,
itzalean ostendutzen zan, bakartadean;
bizi-ots ezbaiaren geldura goibeltia
nabaitzen zalarik gaueratze ixilean ...

«Ni Naiz Argia». Ni Naiz... Hau lozorroa. Ni Naiz
BIZIA ... BIDEA... Olibadia ta Zerua ...
Bitartean, harako dei ezti, maitagarriz.

Giza-bideak eratu ta ahots bedeinkatuz
behin ta berriz oihukatuz bere mezua,
gurutz-bidez zetorren aizea, erio doinuz.

### 2
### Izan siniste

Bizitza, burrukatze etengabea izanik,
ez uzti etzaten soin nekaldu, ahulari;
ez utzi bide erdian geratzen gogoari
bildurrez ta, kokil, ai!, «nik ezin dut» esanik.

Izan siniste, izan kemen, izan adore,
ta IOSU uraren gainez zutik ta artezik,
ibili baldin bazan tinkoki ta dotore,
ez izan, ez, aurrera iarraitzeko bildurrik.

Ez izan harako orri utsezko pikondoa
bezala ezertako gatzik ta berakatzik
ez duan gogo antzuzko giza-lapikoa.

Izan argi brintza, ta bizi-ale ongarri.
Zerbait onura ta zerbait eder aurkezturik,
izan munduaren, gizartearen aberasgarri!

---

* *Esk.* VII, 20.

## ASARREAREN SEMEAK*

Aldi suminduaren eragin deseginkorrez
geratu diran asarrearen semeak dira,
odol irakindurik, etorkizun begira,
bizi izaera lasterrak deskaien lasterrez.

Mundu berri bati deika karraxi bizian,
mailu ta izkiluz, dana autsi ta apurtuz,
gizartea erretxin, ika-mika gorrian,
egungo bizi-lazdura gordina azalduz.

Gaur pekatu da bigunkeriz itz egitea;
ez larrosa, ez ur garden, ez izar bitxirik ...
Oro baitago giza-piztien orruz betea!

Itxaropena galduz, egungo garrazkeriz
erotzen, itotzen ari gara kutsuturik,
maitasunezko argi bizigarria itzaliz.

## EREINTZA GAIZTOA**

Gorroto azia ugari erein ta zabalduz,
indarrari indarraz erantzunik... Oi, biotz!
arako «begi ordain begi ta, ortz ordain ortz»,
oiñarri estu ori gogor aldarrikatuz...

Asarrez irakindurik, abere basatiak
bezala eriotzea oiukatzen dugunean
ta, alkarbidezko izar eder dizdiratiak
itzali ta, suntsitu nai ditugunean...

Zer ondorio itxaro dezakegu, zer argi
ta, ze bide berri gizartearen onerako;
zer atseden-estalpe ta, ze bizi-oiñarri?

Zergaitik odolezko bide beltzak iriki
garrazkeripean beti mindurik bizitzeko,
illunkor beti, ez eguzki ta ez illargi?

---

* *Esk*. VII, 21.
*G-Argi 19 (1978, 415.zenb.) 19; *Esk*. VII, 21.

## GURUTZ BIDEAN*

Gizona, deskeilatsu bere gurutz-bidean.
negarrari emana arantzaz, itun daurkit,
argitasunik ezaren autserre, neke artean,
betozko ilunez, etsipendurik datorkit ...

Entzun dut haren samina ta haren zotina,
morroiturik ozkil, euriaren gortasunpean,
bakoitzak zeraman lozorro, oinazepean,
betarreukoturik halako amets sorgina ...

Oi, itomenezko bildura, bizitz iopuok!:
zuen utsak min damait begirada zorrotzez
atzeraka ikustean, argal, zuen gorputzok.

Kiribildurik ots dagi sutan gorrotoak,
lur lorrindu honen zikindura, loi zakarrez,
inolaz bururik iaso ezin duan itoak.

## DEBEKUKERIA**

Debekuaren debekuz, ainbeste esituraz
ze azkatasun gutxi daurkigun gizartean!
Ta, zenbat agindu garratz, lurraren gainean,
karteletan iragarriak, betiko izuduraz!

Bai, «galazirik dago belarra zapaltzea».
«Ez pilotaka egin». Hau dala. Hori dala ...
Bai. «Galazirik dago emendik ibiltzea».
Alde guztietan zenbat legezko hola-hala!

Zenbat iragarki ezezkor ta gebenlari,
gizonak ezartzen dituanak erruki gutxiz,
beti aundikizko erabidez, hau ta hori!

Noiz legetuko iru margodun agerpen bat
gosearen, miseriaren erreinua galeraziz
bake santuz ogia ugaritzeko danontzat?

---

* *Esk.* VII, 22.
* *Esk.* VII, 22.

## ILETA*

Zerupez, eremuan, mendian, ibarrean,
ibaitik urbilean, leiza zulo ertzean,
zeurezko sugar bizi bakar bakarra ziñan,
ta, oinaze ororena, lurraren gainean.

Zutik gizonkiro ondamendiaren erdian,
zure il-zorizko maitasunak bizitzazko
oinarriak ditu ezartzen bideko ibilian,
kementsu burrukatuz gudaren aurkarako.

Zu, gu guztiok zara bai ta inor ere ez,
ta, bakoitzean il ta bizirik zure abotsa
aldarrikatzen da maitezko bide bakarrez.

XX garren mendeko Kristoa erri bihurtua,
gose-egarritan XXI garrenaruntza,
ta, ez iakin noizarte doan honelatua.

## ZINOPAK**

Oi, zerutar eten, eroritako martirien
ta, lorearen ta, suaren ibai garden giartsua,
aintzamenezko goreskunde minduratien
autserre bizikor, gau intzaren galburua.

Odol bolbolatuaren irakintasunean,
nundik norako aizea da, irrintzi zoliz
erne, ta sustraitu dana, bizitza egarriz,
ohiukatuz gogor errigintza ederrean?

Oskatu bediz maitez, kitarra oroitariak,
zinopaen usaiz ta, aberria gorakatuz,
geldiduraz ustel ez ditezen haren ariak.

Ildako martirien argi betiraundua,
maitasunaren bitartekotasun sutsuz
erriaren bihotz, zainburuetan etorritua.

---

* *Esk.* VII, 23.
** *Esk.* VII, 23.

## LOTURIK*

Loturik, esipean, bereak ta bost ikusten,
iasantzen ari da gure erria mindurik;
bereak ta bost ikusten, katea eten ezinik,
odol ituzurazko estualdi gogor baten.

Euzkadi'ko aitama ta seme agurgarriak!
Espetxeak abertzalez. Bihotzak odoletan.
Kaleetan zakur, txapel oker bildurgarriak.
Ta, negarra ta oinazea etxe barruetan.

Ta, itxaropenik ez ote? Bai. Baietz diote.
Goiz intzezko eguzkiaren muxuz laztandurik,
azkatasun irrintzizko dirdira dakarte.

Hau deadar zoli, bihozkorra! Danon artean,
gogotsu ta sendo, ta, orobat alkarturik
ia ba itzartzen garan egun eder batean!

## OINAZEA**

Bihotzaren taupada-otsez, nigan bildurik,
nigan barrendua dutan nahikunde biziaren
maitasunezko oinaze hau. Nire lurraren,
nire aberriaren sustraietan arnasturik ...

Pozaldi labur batzukin bizigarriturik
atzerriko aizearen, olatuaren menean
bizi gara, bihotza ahoan dugularik ...
masailaz masaila zanpatzen gaituztenean.

Hau bidearen beltza! Hau lazdura mingarria
gudari bat eroritzen zaigun bakoitzean,
itsasotuz martirizko odol iturria.

Aldizka ikurrin margozko itxaropen bat,
iraupenezko gurutzbide amesgarrian
loratua gure nekaldi honen obaritzat.

---

* *Esk.* VII, 24.
** *Esk.* VII, 24.

## ZAILTASUNA*

### 1

Ez ahal dakizu, Anai, norberak soinean
irainaren, gorrotoaren zauria daramanean
ta, minduraz, odoletan aurkitzen danean,
ze zaila dan bihotza zabaltzea bat-batean?

Aberriaren maitasunagaitik zanpatua,
atxilotua ta ilunperatua izan danak,
ta, urteak zehar gaitzetsi, madarikatua ...
ta, ainbeste nekaldi iasan ditun gizonak.

Nola nahi dugu gizon horrek zabal dezan
bihotz osoa ta etsaiari esku emanik,
lasai bizi gero ezer gerta ezbailitzan?

Zein da bihotz errimeko giza-guren hori,
—harako Golgota'ko Iainkoaren semea ezik—
barkamen osoa eskeintzen diona etsaiari?

### 2
### Zergaitik

Itzarkundezko goraldirik ederrenean
uxatuz negu luzearen betozko itzala,
udaberrian lorak ta bizi oro bezala
eme ta, indartzen, soin berritzen diranean ...

Zergaitik ez ba, koba-zulo iluna utzi
ta gure begiak alaikiro eguzkiratu,
alkandora zuriz, soineko berriak iantzi
ta, barruko zomorro gaizto hori ondatu?

Ai, zergaitik ez gara zintzoki biziratzen;
bakoitzaren irizmenak, zuzen, argiratuz,
zergaitik ez gara gizonkiro bideratzen?

Egin dezagun ahalegin goralkor hori,
gure itzak, eskuak, bihotzak alkarragotuz
gogo berri bat erantsirik gure munduari.

---

* *Esk.* VII, 25.

## TXARKERIA GOLDATU DUTENEN AURKA*

Txarkeria goldatu ta gaitza erein dutenak,
langile zintzo, gizon mentuaren alorretan,
ta, otsein taldearen bidez baliatzen direnak
nagusitzazgoaren berezikeri bihurrietan.

Arrapatari altsu, betiko arroputzak,
besteen izerdiz hor gizondurik dabiltzanak,
txerrenkerizko gizapizti, abere zaputzak,
betiko odol-zale eta betiko Kain'ak.

Ogasun ugariz lurrinpean murgildurik,
aukeraz bizi diran hoiek ta mizkerian,
ez ote dute gizonezko izpi brintzarik?

Ai, nun da Egilea, baldin bada Egilerik
gehientsuenak uzteko holako miserian,
gutxi aundizki hoiek epaile bihurturik?

## EZIN BETI BURU MAKUR**

Bizkarraren bereak ta bost artu ditunari,
espetxetik erdi ilik atera danari,
iraina besterik iaso ez dun gaixoari
ta maitasun ordez gorrotoa iasotakoari.

Nola esan geldi ta ixilik egoteko?
Etsaiaren aurka eskurik ez iazotzeko?
Nola esan lehen igarana ahantzitzeko
ta berriz ere otzan burua makurtzeko?

Ezin beti buru makur, eroritakoaren
irudi argalez, ezin da beti ibili,
masail bat ta bestea, zanpatua izan ondoren.

Ezin arantzak lore bihur usai ederrik
ta ez intxaurrik eskatu sagarrari,
horretarako ez badie ezarri txerturik ...

* *Esk.* VII, 26.
** *Esk.* VII, 26.

## ERIOTZAK BANATU ARTE...*

*Neure Emazteari*

Elorriaren udaberrizko itzarkundean,
ego berrien pozbide, txintada alaienez,
biziari deika, maitezko itxarokizunez
mokoz-moko, ederrik, edatzen diranean ...

Zu ta ni, urtean zehar ta biok batera
igarotzen garalarik, bideetako zoriz,
euzkiaren udaldi naiz negu kaska-zuriz,
bizitzako txinpart apurrei mun egitera.

Ta biek bat, uztarturik ta alkarri eutsiz
egunik egun, alkar iaso ta, laztandurik,
egiazko maitasunaren atsegin ta zauriz.

Eriotzak banatu arte, darraigun ibiliz,
gure emaiak alkarri opa, eskeindurik,
bihotz-begietako alkarguntza agurgarriz.

## AZKEN EGUNA**

Nire bihotza dardamendurik ta, urduri,
arrimenez betea izadiaren ederteriz:
ipurtargian eguzkia eder dizdirati
ta baso lurrintsu bat larrosearen barrutiz ...

Egunen batean ur gentzatsu, ta betikoak
itsasbidetuko du zure endaitz ezbaia;
suak iziotutako kriselu bizigaia
itzaliko du gau zadortsuaren iainkoak.

Zer otezko izantzan zu ondatzen zaituna
bizia ertsitzen dun erastun bat omen da.
Eriotza. Zelatari dagon begi iluna.

Diteke bai, azken eguna, onena izatia,
ikusko duzu lurretik aldentzean ... nola
goitzen dan olerkiaren betikotar argia!

---

* *Esk.* VII, 27.
** *Esk.* VII, 27.

## BIZI IRAGANKORRA*

Besarkaturik nagolako urbizi bati,
elduta bainoa gurpil igarankorrari,
nahidura gartsuz begiraturik urduri
biziak eskeintzen didan ongarri orori.

Atzo izana, bihar ez da izango berdin
azalduko. Ta, maitasuna? Eutsi bai Hari,
eutsi Haren Ats, ta eguntaro laztanari,
denpora baino lehen, ai, zimeldu ez dedin.

Barre aldia ta baita ere negar aldia,
igaro egiten dira. Bihar erorko da
ni gaur zutitzen ari naizen amets tokia.

Hau alderantzi ezineko ilobi bati
loturik doan bizi-izatearen naigabea!
Beti itzalari so, deusari, utsalari.

## IRIKI, ZABALDU ATEAK**

Utzi argiari sartzen ta aizeari ta, leio
bizitzu hortatik datorren egun berriari;
utzi ortziko goi zabal ta eguzkitsuari,
asi egunsenti argitik gauerartio.

Bakartadea baztertuz, alaitu bai bihotza
ta, urbildu zelai, mendi, baserri aldera,
txoriaren ta kirkirraren ekiñezko poza
zelaitar azkatasun ederrez entzutera.

Ta irudimen egaztariz bidea arinduz,
iatorrizko soinu artean izadiarekin
arnas artu ta, soina ta gogoa osasunduz ...

Iriki, zabaldu ateak ta, iriki begiak
eguzkia, aizea, bizia ere sar dedin;
iriki ametsaren zabaldi zoragarriak!

---

* *Esk.* VII, 28.
* *Esk.* VII, 28.

## EMAIDAZU ESKUA*

Emaidazu eskua, emaidazu bai, lagun
ta, ITZA ere bai, elburuari iarraitzeko,
balio ez dun oro atzean utzi dezagun
gure gogo ta, bihotzak gizarteratzeko.

Utz maitatzeko beharrezko ez zaigun oro:
zure begirada gaiztoa ta, nire aserrea;
utz okerkatzen gaituzten elheak osotoro,
ta, horren ondoriozko laino ta, autserrea.

Egin eskuz esku, egungo gure bidea,
krisailuzko argipean alkarri lagunduz,
iritzi dezagun gure atseden aterpea.

Itxaropen bidezko ekintzaren arabera,
gure pausoak egi aztarnaz bateratuz,
azi gaizto oro iaurti dezagun sasira.

## BARRUKOA**

Ots bihotz, ots! Iaso zure loreil abestia
agertu baino lehen udaberriaren sena.
Ez abotsik gabe gelditu, gogo eroria,
ahulik ta ilunik zure giza barrena.

Eskutik arturik umeen irripar gozoa,
maitasuna, gizona ta bere bakartadea ...
zoaz arretaz, kendurik begiko lausoa,
ba, ibiliz egiten da bizitzako bidea.

Eriotz sortazko ondoriotza bat da bizia.
Atoz ba, ta artu gogoz zure kurutzea,
atsegin ta nekaldi ororen argizaia.

Burruka zaitez arteztuz zeure elburua,
ta iaso ikurriña, zeure gogo, izatea,
deseztuz aldiari darion ezezpen itsua.

* *Esk*. VII, 29.
** *Esk*. VII, 29.

## BIHARKO OLERKARIEK*

Aldatuz ta berrituz, betiko igiduran,
biziak ots dagi gau-egunen etormenez;
batzutan asti aundiz, bestetan abiaduran,
betiko etsipendura ta ameskizunez.

Ta, biharko olerkariek abestuko dute
gaurkuok ezin dugun doinu berri baten,
baina gu bezin itun ta alai, edo aise,
ibilko dira goiko izarrak begiztatzen.

Argi-itzalezko irtenbide latz ta otza,
betiko zadorpe estalkari ta utsalez,
ospin ta zorion apurrez taupatuz bihotza.

Bai. Gure bertsoa ezetsi, baztertuko dute
baina, alaz ere, abesti zaharren auts-artez
ez ote dira ibilko aztarnik bai ote?

## IPURTARGIAK**

Ioan doaz egunak ta, ez dira itzultzen,
beraz, bizitzea nahi-ta nahiezkoa da-ta,
bihar bertan, bihar ilko bagina bezala,
ez utzi egunik ohar gabe gaueratzen.

So, bai, goiz ta arratsezko une bakoitzari,
egunoroko bulko ta bizitza eresiz,
goibeheratasuntza itun edo pozgarriz
bihotzak taupadatzen ditun ordulariari.

Betiraunezko ipurtargiak izanik ere
ia, iziotzen garan maitasunpeko ikustez,
bihotza ta gogoa osasunduz bataz-beste.

Itxaropen alorrak zabal bediz gurean,
gizarte aldezko argibide ta egitez
egia aldarrikatuz egunen ioanean.

* *Esk.* VII, 30.
** *Esk.* VII, 30.

## AHANTZITAKOAK*

Igaro ziran bai, ta inor ez da oroitzen
urrundu zirala euren argi, ametsakin;
ildakoen gau zerrenda iluna betetzen
urrundu zirala gogai-ikuste guztiakin.

Inor ez da oroitzen ez, urrundu zirala
mundu hontako errenkura ta pozbideekin,
urrundu zirala euren liskar, otoitzakin,
utzirik hemen giza ondoriozko itzala.

Ildako il-ilak dira bai, kanposantuetan
ez inolako irudietan oroigarririk
utzi ez dutenak ez inungo paperetan.

Il uts, arruntak, baketsu igaro ziranak
esku latzakin ta otzan, ta ixil-ixilik,
etorri bezin oharge betikora ioanak.

## BAKEZKO IZKUNTZA ARGIZ**

Bakezko izkuntza argiz, egitazko bidez
ekin olerkariok! Ekin zentzuz, gizartean,
lagun artean, bizitzako arantza artean,
eskuak, bihotzak bateratuz anaitasunez.

Ta eman zeure argi-ale, zeure ur tantoa;
maitasunaren eragin ongarri, indartsuz,
eman zeure laguntzazko ahalbide osoa,
giza irripar argitzailez besoak zabalduz.

Abestu bizia ta lorea ... Ederra abestuz
goraldu galburuak ta iturburu apalak.
Abestu zeure bihotztasunak ugarituz.

Itz bakoitzean erein bakea ezkutadaz,
ta ekin olerkariok! Erein zeuen neurtitzak
etorkizun aletsuago baten edertadaz.

---

* *Esk.* VII, 31.
** *Esk.* VII, 31.

## EKAITZALDI GOGORRARI*

Ekaitzaldi gogorrari aurpegi emanik,
ikasi egun oker gaiztoak eramaten;
ikasi burua zentzutuz, odola baretzen,
egokiro erasoari neurriz erantzunik.

Uhinak gogor ba'datoz, utzi igarotzen,
arkaitz artean zarata otsez burrukatzen;
ikasi bai, bide zehar, begiak argiratzen,
gizon bezala egoki, buru zut ibiltzen.

Egunetako gorabeheraz bizia arturik,
menperatuko ditugu eragozpen oro,
bihotz-eskuak gizonarengan bihurturik.

Bizitzako itsasoak bere uhinak ditu;
aldiz gogor, aserretsu ta aldiz gozoro,
eguneroko ogiaren lazdura ta zitu.

## BILAKETA**

Zuzentasunezko eguzki biziaren argiz
zeure egitazko izantzan begiratuz,
ibili zaitez zeure aurkitzezko ibiliz,
zeure zer-nolako gogo hori aztertuz.

Aurkitu zaitez zeure izate barruan,
akatsak argitu ta iluna uxa dedin;
zeure eginkizun ta, gizarte esparruan
laguntzarako beti gerturik, beti arin.

Bilatu zaitez bai eginik zeure bidea,
egiaren, zuzentasunaren argizko eskuz,
ats berriturik zeure egungo arnasea.

Erein itxaropena, erein zabaltasuna,
ahal ditugun oztopoak, txarkeria kenduz,
egun oro izan dedin bizizko eguna.

* *Esk.* VII, 32.
** *Esk.* VII, 32.

## OHARKUNTZA*

Gizartearen zaurietan bihotz ezarriz
ohartuko bagintezke arretaz, sakon,
izadiaren begi-ziztazko aurkitzetan
zelai ta basoz, naiz itsas orroakariz,
loreetan, zugaitzetan, izar-bideetan;
berein margo ta azal ezberdinezko
izantza ororen txiki ta aundietan,
gauzak nola gertatzen diran ikusiz,
bakoitzaren gogaire ta egitamuz.

Uda, Udazken, baita Neguan oro,
argi-izpidun zenbatzu ikasbide!
Zenbatzu argigai eder daurkikegu
ibilietako alor, izakai artean!
Zenbatzu ikusbide, gogai-iturri,
eguzki eguntaroz naiz ilargipez,
iaiotz-eriotzazko izakuntza hontan!
Zenbatzu ortzadar ta bizi-errainu
izadi-aldakuntzazko lorratzetan!

Oi, giza-gaixo hoiek, erdi itsuan,
inorako ez dan gogorkeri otzez
ta nagusiturik landerren munduan ...,
beraiek Iaun Bakar balira bezala,
gauzak onetik atera ta, apurtuz,
gizartearen aurkako egiturapean
arro dabiltzanak, betezko ilunez,
eriogintza deusgarri ta makurrean!

Gu, geure munduaren atomu abiadan
barrendu ta, itsuturik, gizarteari
darion sumindura ta, negar artean,
egungo beharkizun honen izurriz
ezbagara, ai!, deusik ere kezkatzen ...
nola nahi ditugu bideak zuzendu
nola gizona argiz iantzi, burutu,
begietan maitasunik ezbadaruagu?

* *Esk.* VII, 33.

## GAUZAEN IKUSIAN*

Gauzaen ikusian, gure izatearen sena bilatuz,
egin zaitez Gizon! Egunoroko gurutze bidean,
ekin zeure gogo-argitzezko egite zuzenean,
biziaren erakutsizko iturri argian xurgatuz.

Oihuz, karraxiz, abestiz, bizi-iraduzko otz-beroz,
lurraren mami ta azal, ortzipe goibel naiz argitsuz,
gau-egunen zorabioan, betiko etorpen, urte-aroz,
gizaldi-zeharko onuz, gogoa iantzi ta arnarituz.

Meaki, belarki ta bizi-izate ororen anotsez,
arrigarria da bai egungo gizonaren almena,
Adimenaren etengabeko bilatze, argiratzez.
Egunik egun, goi-arnastuz bizitzazko argimena.

Berein margodun gauza bitxi ta, argi-itzalezko
arimaz, begiak mulgiltzen diran ikuspegietan;
itsasoaren uhinpe bare naiz ekaitz egunetako
aizepe eriogarriaren ondabide bildurgarrietan.

Izadi mintzo sustraitsuz ase bedi gure egarria,
(Aizearen egotasun ta Lurraren ernamintasunez)
giza-ildoetan ongarrituz maitasunaren azia,
bihotz argidokoi bati dagokion urduritasunez.

Lorea bezin eder ta, lurrintsua, zugaitz tinkoa
bezin tinko ta sustraitsua izan bedi gure ITZA,
gogai lagunkor ta bihotz zabalez edatutakoa:
mundu anaituago baten sortari, emai aberatsa.

Ta, mintza bedi apalik bere izantza arruntean,
bakoitzaren doaiez norberagandutako elhe biziz;
mintza bedi egiari dagokion abots ongilean,
mundu obeago baten itxaropen-ariak sortaraziz.

---

* *Esk.* VII, 34.

## ITSUKERIA*

Betiko tira-bira etengabe hontan,
atzoko egunetatik gaurkorainokoan,
(gudaketak, asarreak, ikusi-ezinak)
betiko odol-egarri, betiko eztenkadaz ...
zergaitik diardu gizonak anai artean,
gizaldiz-gizaldi, miseria ta negarra,
bizi ildoetan gorrotoa ereinik?

Zergaitik ote gure bizitokia,
gure etxea dan mundu au desegin nahi izatea?
Izadia zikinduz, lorrinduz gainera,
zergaitik ari gara betiko gutarrean,
betiko eztabaida, betiko itsukerian,
bakoitzak gogoko duan erria,
bere gogaiak, bere laterria,
berea aldezten duan bitartean ...
zergaitik ari gara ezin eramanezko
zirikatze ezezkor, gaiztoetan,
zergaitik? ... Oi, ene gizon! Orain goiturik
izarbidez barrendua zabiltzanean,
aize berrien egopean, inoiz baino altsuago,
zergaitik ari zara eriogai berriak
goi-aldetara eraman eta oinarritzen?

Zeinek eta nola geldituko ditu gero
mundu honetan, etorkizun urbilean,
izango diran erailketak eta, zeinak lekarkio
giztalde bakoitzari bere bakea,
baita ere gizaki bakoitzari?

Egunoroko arazo, ioan-etorrietan,
norberekiko iritzi nabarmenetan
ez gaitezen geiegi itsutu, gaiztotu,
ba, ez dugu ez, auxe, beste bizitokirik,
semeen begiradak gaizkatzeko
hauxe, gu bizi garana besterik!

---

* *Esk.* VII, 35. (ik. 396.orr).

# 1978

## OLARIZU'KO LANDETAN*

Biotzez goresturiko euzko ikurrinpean
ederrik, lorantsu, itxaropen giartsu, sendoz,
askatasun egarrizko anaitasunean
maitasunak bultzaturiko aberri-gogoz
egunaz batera,
autobusez, bultziz, berebillez, bideak batean
ta, oiñez..., naparrak, gipuzkoarrak, lapurditarrak,
arabarrak, zuberoarrak, bizkaitarrak,
berarizko zintzotasun, agerkera gozoz,
goiz aurkitu ziran Olarizu'ko bidean
elkarren pozera.

Madrid, Barcelona, Burgos... atzerrietako
aberkideak, gogorik onenaz erriratu ziran:
Mexiko, Argentina, Venezuela'ko euzkotarrak
ta abar, aspaldi bateko amets ederrak betez
biotzak pipil ta, pozaren pozez, anai artean
aurkitu ziran
biziro oiukatuz aberri aldezko deadarrak,
gure erri izantza ta, nortasuna agertzeko,
elkartasun bateratsuz, Araba'ko lurraldean
biotzak pilpil, iñoizko ikuskizunik ederrenez
aurkitu ziran
iraillaren ogeitalauko goiz argi, eder batez.

Olarizu'ko landetan, egia aldarrikatuz
gure ordezkari, gure Aldunen itzaldi beroz,
etsaien guzurra, indarkeria gogor salatuz,
zorioneko billerarik maite, aintzagarrienean
begi-belarri, ta euskal senez gogoa sendatuz,
iñoizko agerkunderik anaikor, baketsuenean,
gure erriaren naimena irrintziz, oiuz ta txaloz
geure geurea dana biotz eta arimaz eskatuz.

* G-Argi 19 (1978, 408.zenb.) 22.

Zentzuzko gizarte, notintza aundi baten aurrean
erriaren izantza ta, gurari bizia agertuz,
Olarizu, Ama Euzkadi'ren biotza gertatu zan
abenda zarraren zaiñetako odola sugartuz...
Bigarren Alderdi Eguneko egun goralgarri
egun eder, egun argi ta, egun alaikor artan;
eguzkia ere, belañoa baztertuz aundikiro
egurastu zan, egun borobil, oso bat arilduz
batzartuen atsegin, ibillirako, ain zoragarri!
ainbeste ikurrin ta, amets goituren aizepean.

Abestiz, dantzaz, bertsoz, ain lagunarte pozgarriz
umore onean, erriaren gizarte sena nabari zan
txistu ta danboliñez, gazte ta zar, alairik,
Olarizu'ko zelai, landa, zugaitz itzalpetan,
zorioneko alkartasun giro bizgarriz
anaiak anaiakin, aberrizko aurkezpenetan
bildu ginduzan eguna ain ederrik ospaturik
euzkal izaerazko abesti ta dantza solasketan.

Barru ta azal,
lantegietako itxuramen, langille oiartzuna
zetorkigun ainbeste esku agurkariren latzez;
baserrietako lurruna ta, itxasoetako guna
ere, kresal usaizko giza agerkera arruntez
zintzo ta apal,
an zekusgun zutik, zindo, erriaren zeintasuna
lanbidez oiñarrituriko doaitasun t'akatsez;
an zekusgun bulartsu, sendo, eskatuz zor zaiguna:
Erri Bat, bizi-premiñaz beretiko agerpenez.
¡Olarizu, oinkada on bat Euzkadi'ren bidean!

## URRILLAK 28 *

Udazken arratsalde oneko larunbatez
urrillak ogeitazortzi, Bilbo'ko urian,
anaitasunezko gurari ta maitasunez
Euzkadi azkatu ta, baketsu baten alde:
—ixiltsu ta sendo ta, begirapen zabalez—
bakezko aurkezte adoretsu, pozgarrian,
erri bat azaldu zan itxarotsu, garaille,
izamenezko erakutsirik ederrenez.

Gizaldietako iasapen gogor, zori gaitzez.
Zein neketsua, zailla dan bakezko bidea,
erri eskubideak eta, oro zapaldurik,
atzerritar esiturazko loturapenez
izkuntza bera ere ondaturik ikustea!
Zein neketsua, katepean, esku-loturik,
ainbeste maltzurkeri eta, eragozpenez,
azkatasunerako bide bat egitea!

* G-Argi 19 (1978, 412.zenb.) 23 (*B*); *Esk*. XLIV, 43 (*A*).

Kezkatsu ta, ezin geiagoz[a] erre-mindurik
odola, zenbat aldiz ote zaigu berotzen
gure gizantza ta biotz bakea galdurik,
zenbat aldiz ari ote gara irakiten
asarre bizian, itzaltsu, betozkoturik
geure gizatasun argimena lokaztutzen;
zenbat aldiz erabide gaizto bat sorturik
geure buruak alperrik iraindu ta erretzen!

Alan ere, mindurazko arratsalde artan,
an... (itxaropenezko gogo ta ondorioz,
ta, azkatasun latzari iarraitzeko asmoz)
millaka notin, aberkideren ametsetan,
zorioneko anai-arte, alkarguntza beroz,
usoak Bilbo'n ikus nitun ertzain eskuetan
eta, beste millaka askoren biotz-begietan,
aberriari eutsi eta euskalduntzeko asmoz.

Ixil ta baketsu, (burua otz, biotza bero)
ibilladi aren oñots entzungarrietara
lanean arduratsu, kemenez iarraitzeko
bioztasun bat edatu zan lau aizetara,
erriaren ta, bizitza ororen aldezko
agerpen abermindu bat, gogo bete-betez,
landu bearreko solo, landa, alorretara
deiturik etendura bako anaitasunez.

Iatorrizko zeintasunaren zentzu ta bidez
izan nai duen Erriaren benetako sena
gainburutu zan bai, Bilbo'ko uri barrena:
etengabeko ekintza ta ardurapenez,
lanerako, errigintzarako, bizirako
bateratu dan gizarterik ikusgarriena,
ainbeste izerdi ta samiñez onduriko
euskal zugaitzaren adarburu ederrena.

[a] Kezkatsu ta, ezin geiagoz *A* Ezin geiagoz, kezkaturik.

## ARANA-GOIRI'TAR SABIN *

*Adiñik gustiz ederrenian*
*ogeta amazortzigarren*
*urtian il zan Sukarrieta'n*
*Euzkadi gaizkatziarren.*
*Nor dala baña, olan il zana?*
*Aita Sabin, euzkotarren*
*Irakaslia etsai gustiak*
*jarten zirala pozarren.*

Enbeita'tar Kepa

### Agur!

Bai, agur dagiogu abandotar seme bioztun,
Euzkadi'ren semerik guren aintzaltsuenari:
Aberri bat, ezaumen barri bat emon euskun
seme gotor ta itzartzalle, Sabin aundiari.

Agur! Zentzuz, iakituriz, ekintza sugarriz
il-zoriturik zegon erriari, odol barri
bat, gogo barri bat, eralguntza goralgarriz
bide barri bat ezarritako gizonari.

Gizon eragille, gizon artez ta zindoa,
gogamen sendo, buru argiz iantzirikoa:
gizon itzaltsu, gizon maitagarri, errikoa,
aritzaren giartasun biziz biozturikoa.

Zugaitik euzkotarrok bizi-itxaropendu
gara ta gogartu, erri baten maitasunez;
zugaitik izantzatu gara ta osasundu,
aberri baten onuragai ta eginkizunez.

* Olerti 1984, 127-130; Zer (1979, 17.zenb.) 13; *Esk.* XXI, 90-93. (1978-VII-5).

Zuk ekarri euskuzun maitezko abotsean,
erri zar baten etengabeko bizi-naia;
zuk ats-barritu zendun, egitazko egiñean
atxurturik aritz endekatuaren sustraia.

Bai, zure adimenak argitu euskun bidea
erakutsirik zeintzuk diran gure etsaiak;
zeintzuk gure alor ta egitazko anaiak,
zein, azkatasunik-ezaren atsekabea.

Zure kolkotik gogor atara zan iñoizko
irrintzi ta oiurik eder maitagarriena;
betiraunezko abotsez ta, indar biziko
mintzoz, iñoiz entzundako deirik goigarriena.

Etsaiari bildurra sartzen eutson abotsa,
erriaren zain-buruz maiteberatzen dana
egibidezko abots zoli, abots zorrotza,
arerio maltzur askorentzako zoramena.

Zure abotsaren ondorioz, zure deiaren
maitasunezko, gogamenezko ereintzara,
aberri suminduaren, aberri zapalduaren
barruan sortu zan, alako gogo-ikara...

Gure erri zarra itzarkundezko eresiz
seneratu zendun egitazko eragiñez
ta, egunik egunera, osasuna irabaziz
azal-barritu zan, egundoko izan-miñez.

Ota larrak garbitu eta, ereintzarako
alorrak izerdiz busti ta, sakon atxurtuz,
uri-baserrietako, erririk errirako
ekintzatan ari ziñan lurra egokituz.

Baikorra, etengabea izan zan zure lana,
Aberrizko ta Iainkozko eratura gogoz,
zure maitezko irrintzipean edatu zana
argikunde eder baten itxaropen osoz.

Aundizki semea izanarren erriaganatu
eta, ekintzatu ziñan gogor, zeure ogasun
zeure iakiturizko adimena iziotu
ta, opaldurik zeure bizitza ta osasun.

Nekearen nekez, ainbat sumindura, naigabez,
Erria-suspertu zendun bai, egunoroko
agerkunde zabal, Erri argitasunezko
eragin arduratsu, zeure gizon izatez.

Zuretzat Maixu, zuretzat bideak ez ziran
garaikundez larrosatu, ez ziran samurtu;
ez ziran zure iragarpenezko bizitzan
arantzak gitxitu, baizik esiak ugaritu.

Zuretzako saldukeriak eta salakuntzak,
oñaze ugari izan zan ainbat kalbarioz,
etsai-bidezko espetxe ta loturakuntzak
zure itzarkundezko abotsaren ondorioz.

Iñundiko errazoi ez iñundiko lotsa,
petral askok indarkerizko loturamenez
estaldu gura izan eben zure abotsa
ondamendizko iokera zital, garratzenez.

Baiña, zuk Sabin, egiaren ispillu garbia
aurkeztu euskuzun ederrik, gizatasunez,
gure lurraren zauri gordin, zauri bizia,
euzkaldun lozorrotu askoren lotsamenez.

Itzarkundezko txirulaz, uri ta baserriz,
zure izantzaren burubide, nortasunez,
egunsenti eder bat nabaitzen zan argi biziz,
askatasun eguzkiaren sorkunde legunez.

Eskerrak zuri Erri bat daruagu biotzean
ta, Erri orren lazdura, oñaze, samiñak
ta, gañontzeko une pozgarri, atsegiñak,
Euzkalerri edo Euzkadi'ren izenean.

Orregaitik agurtu nai zaitut ta, goraldu
aizean ederrik dakusguzan ikurriñez;
orregatik gazteriak maitez ots-egiten du
lurra bustirik azkatasunezko odolez.

Zure belgundari ta zure olerkari abotsa
mendi ta ibarretan gaindu zan, uri-baserriz
urturik euzko gogo-biotzetako izotza,
aberriz sugarturiko irrintzi pozgarriz.

Zuri abestuz aberriari dabestzat Sabin,
euzkeradun Euzkadi bat —mamin ta azalez—
biotz ta arimazko Erri bat izan dadin
anai-arteko alkarguntza, bide zabalez...

Ta zuk opalduriko egoera azkatuan
loratu bedi euzkerea bizitzazko gunez,
usain gozo ta ederrezko emaitasunez,
osasundurik Lurra gizarte sendatuan.

Oi, Sabin! Biziratu bedi gure mintzoa,
egintza zuzenez landuriko alorrean
indartu dadin gure arto, gari soloa,
maitezko gara-burutzarik ederrenean!

## ITZEKIN BAKARRIK*

Itzekin bakarrik,
eskurik ezarri gabe,
ez da iñun ere
etxe berririk iasotzen;
bai egin ordea
argiro ba'da mintzatzen,
ortako bidea.

## BIZITZEKO GOGOZ**

Ta, bizitzeko gogoz, ikuste sendo batera
leioa irikiz eder-ikuspegirik argienean...
(Nekezko gau otz ta illun, gau izargeak ezeztuz).
Ai! eguna sor ba'ledi nai dugun aro ta bidez;
eguna sor ba'ledi norberaren[a] gogoetara,
—egiazko izate, egiazko bizitza bizira—
biotzik-biotz, gizonik-gizon, alkarte betean
begiak, biotza, gogoa maitekiro begiratuz,
ongarrizko zitu, emaibide ibilgarrira!

Itxaro egundu, bizitzazko adar aletsuz
egarria ase ta, biotza alikatu, goituz,
egiazko berritze on, argi-iturri gardenez,

* PVV 13 (1978, 141-143.zenb.) 7.
** PVV 13 (1978, 141-143.zenb.) 8. («Ollozope», izenpean) *(B)*; *Esk.* XLVII, 116 *(A)*.

mendiarte oiantsu, gure zelai, gure ibarrez
iatortasun berezi, goi-mintzairarik gozoenaz
etorriko ba'litz bai[b], eguna, esku zabalez,
bere illun-urratze, bere itzartze ikaraz...

Oi[c], etorriko ba'litz bai, bere eguzki aberatsez,
erriaren neke ta, oiuak, erriaren mintasun,
erriaren negarrak, kezkak, oñazeak uxatuz;
etorriko ba'litz etorri eguna egunduz,
bere bizi-etorbide onuratsu, alaiez,
iñoizko goraldi eta[d] egiazko maitetasun,
gogozko biotz-alkartzerik samur, ederrenez[e],
bizitzazko sugarrik gartsu, onena izetuz!

Oi, etorriko ba'litz umaroko aize, izarrez,
umaroko begirada garbi, lengo bioztasunez
ta gazte-aroko ausardi eder, lilluratsuz,
amets pilpilletan ausnar, aukera ederrez,
egunarekin aurrez-aurre, bizitzaz aupatua...
Oi etorriko ba'litz bai, bizitzaz egatua,
Loreil loretsu, Loreil emaikor, elburutsuenez!

Eta, ezer besterik[g] gabe, eskua luzatuz,
ba'litz eroso ibiltea bide ta bidezkaz,
gauzak norberaturik erreztasun aundienaz,
zorioneko itzalpean[h] gau illunak izartuz!
Ba'litz bai,lena berritzea, lenera itzuliz,
lenean murgil, berriz ere lenean igeriz,
arako mutil-aro, gazte-aldi bedeinkatuz,
ezeren kezka, ardura gabe, zilipurdika,
aizea bezin aize, elkarri agur-gorantziz!

Ta begi[i] garbien iabe izanik, iolas[j]-iolaska,
oi, ba'litz[k] berriz ere sakelak betetzea,
arri edo lorez, sagar ta madari umaotuz;
ba'litz bizitzadun[l] egun aietan barrentzea,
txoriekin ta mitxeletakin gozoro egatuz[m];
ta, gero[n], gazte-ametsez, maitearekin-maiteka,
urregorrizko eskuarte aberats, zoragarriz[o]...
Oi[p], ba'litz bai, unerik onenean gelditzea,
zorioneko malladi atsegiñean ats artuz!

---

[a] eguna – norberaren *A* sor baledi bai norberaren amets ba [b] etorriko ba'litz bai *A* ai!, etorriko balitz [c] Oi *A* Bai – goraldi eta *A* argitze eder [e] egozko – ederrenez *A* ta gogozko alkartze kutun, samurrenez [f] Oi *A* Bai [g] Eta, ezer besterik *A* Ta, beste deusik, ezer [h] itzalpean *A* argipean [i] Ta, begi *A* Biotz-begi [j] iolas *A* ta [k] oi, ba'litz *A* balitz bai [l] bizitzadun *A* gaztaroko [m] egatuz *A* edatuz [n] ta gero *A* geroako [o] urregorrizko – zoragarriz *A* lillura-eskuarte, aberastasun uztagarriz [p] Oi *A'n ez da agiri*

## XABIER'I*

*Erbesteko gudaritzara ioan ondoren*

Zu urrundu ziñanez gero, auxe nekea!
Etxea utsa iruditzen zaigu, uts-utsa.
Bakartade utsaren naigabezko gurutza
zure urruntasun ixil-itunez betea!

Sukaldeko tresnak, gelatakoak ta abar.
Emen dakusguz zutik, lengo gauza berberak;
irrati ta urrutikuskin-ots, agerkerak,
gau-egun bakoitzaren goizalde ta iñular.

Baiña zu, orain, ez zaude gure artean.
Amari irripar edo gogait eragiñez.
Bizia argitzeko zartzaroko bidean.

Ama ta ni, biok, alkarri begiraturik,
biok zu laister besarkatzeko gogo betez
biok bai, zure oroipenetan murgildurik.

## BIDEBERA, EGUNIK EGUN**

Bidebera, egunik egun...
Au bizitzaren garratza!
Ta, igarozko nekaldietan
zerbaitezko uste, pozetan
itxaropendu ezik biotza
zelan bizi ain goibel, illun,
gañean dalarik arratsa?

Bai, bizi gurazko auspoa
betor lillurazko aizez
beren amets, itxaropenez;
betor bai, arindurik gero
gure gogo ta biotzondoa,
beren pozezko sugar bero
maitetasunezko txinpartez.

Argidun asmo, eragiñez
gogor eutsiz asitakoari,
bizi geintekez itxarokor
ekintzapenezko alegiñez
begiraturik elburuari;
gogoz kementsu, sendo, baikor,
eutsiz udabarritar senez.

Bai, bizi-pozari eutsiz,
geure neke-min, latz-aldietan
benetako ekintz, lei biziz
galdu barik amets eroetan
esan geinke geure ongarriz:
«Etorriko da bai Maiatza
eta iango dogu lebatza».

---

* *Esk*. XXIII, 173. (1978-III-9).
* *Esk*. XXIII, 153 (c.1978).

## GAUZARIK EDERRENA*

*Gema Berasain, napar euskaldun zintzoari*

Amets egitea da gauzarik ederrena
zeru bat landuz irudigai arruntenakaz
begiak, biotza ezarriz izadi barrena
ezagutze on baten oldozkun apalakaz.

Amets egiñik jaun ta gabe izango naz
neure begipeko bizitza baten egala,
beren itxuskeri ta maite ederdurakaz
gorria margo zurira aldatuz bereala.

Bidazti egingo gara bai,[a] amets egiñaz
argi ta garbi, gogoz[b] jokatzen baldin bada,
bizian aurrera egiteko[c] alegiñaz.

Nik amets dagit bai,[d] egunik egun, unero,
begi argi zalez eldurik laztan-laztanka
gauzaen muin biotzera, goiz ta arratsero.

## ANE**

*Ane'ri bere lenengo urtebetetzean. Aitonak*

Begirada argietan
zeru osoa zure begi ninietan.
Begoña ta Joxanen aur poxpoliña,
Ane, gure Ane,
mingulin-mangulinka
etxeko iostailu eta erregiña.

Atzo urtebete iaioa
gaur bezalako egun batez,
udagoieneko argi dirdaipean
ama ikaratan, zure ama,
ain Begoñakiro ... ixil-ixilki
zuri eder-maiteka, poz-pozik,
zuri bein ta berriz begira
biotza begietaturik
zoragarrizko lilluramenean,
irripar goxo, eztikorrez,
gero barruko poztasun sakonetan
laztan-laztanka ta, ain maitagarri
zure begietan igeri.

O, neska! Ane! Urtebeteak zugan
negarrezko ta irriparrezko
irureun ta irurogeitabost eguerdi
kopuratzen ditu lur gaiñean;
urtebete edestiari inguruak kopuratzeko
zure ezpantxoek larrosa usaizko
surrumurtxoak oguzten dituzte
zure gurasoen ardurapean
egungo mundu xalo ta berri bat aurkezteko.

---

* *Esk.* XXIII, 154 (*B*); *Esk.* XXIV, 141 (c.1978).
[a] egingo gara bai *A* egiten da bai bat [b] gogoz *A* zintzo [c] bizian aurrera egiteko *A* biotz onberatsu baten
[d] Nik, amets dagit bai *A* Bai, nik amets dagit
** *Esk.* XXI, 71-72 (1978-IX-19); *Esk.* XLIV, 11-12 (Autografoa).

Ane! Gure Ane!
Asi zara pixutzen
ta, aundi-luzez aldatzen,
egunik egunera
goiak ere artzen.

Titili-totoloka
mintzoa erdibituz
itzez iantziko zara
etxea lilluratuz.

Pinpilinpauxa oro
pinpilinpauxa bat da,
bat bakar-bakarra;
abesti bakar bat
ta zu ederrik
egatuko zara,
goiz-arratsak
maitez iziotzeko
zure aita Joxan'i
ta baita zure amari
beti, kezkatsu, arduraz betea
zure zorionerako
itxarokizunetan.

Pinpilinpaux antzo
zoaz egun berrien jardiñ ori
arrosaz, zitoriz,
lorerik ederrenak ereintera
egunsenti bakoitzeko poztasunean
ikuste berri bat emanik biziari
zoaz zeure mintzo
eder, ameskariz
zoaz zeure egun berrien pozera
Joxan ta Begoña'ren
biotzeko Ane, Anetxo maitagarri!

## ZAITEGI GOGOAN*

*Zure esku begidunak*
*dakarten goldea,*
*nire lurrak senti du,*
*Goiko Ereillea.*

Oñati barrena dator bai izpar ituna:
«Zaitegi-tar Iokin il zaigu». Olerkaria.
Gazterik artzai-ontzia opaldu ziguna
euzko bizikera baten irudiz iantzia.

Utsune aundi bat utziz euzkel alorrean,
bildurrezko beren zega zorrotz ta aztunez
balbe'ren erio-otzak betiratu zaitunean
bazterrak bete dira goibeltasun illunez.

Ez dut mintzorik aren gogo aunditasuna,
aren elearen berri ta euzkel gaitasuna,
aren abenda, erriaganako maitasuna
azaltzeko, aren izkuntza bipiltasuna.

Itzak alper dira aren izena goresteko
berarizko neurri eder egoki batean,
itzak aski dira aren sena azaltzeko
emantzak aberats, ain oparoak diranean.

Zenbat lore usaitsu, zenbat izar dirdira
aren gogamenezko alor, aren zeruetan!
Zenbat gogai argitsu, zenbat biotz-iturri
eder-darioka aren oldozgai gardenetan!

Erle langillea zan, lore xurgatzallea,
euzko abendaren soro, larra, bazter orotan
ezti gaiak billatzen zekin euzkera zalea,
iakintzazko gure lurralde maitagarrietan.

* *Esk.* XXI, 94. (c.1978); *Esk.* XVI, 16.

Baekian ederrik, sakon asko goldaketan,
baekian azi ona berezi ta ereiten,
baekian goizero, arratsero, alorretan
gogo guztiz bere biotz-begiak ezarten.

Ikastola Nagusirako itxaroz, asmoz ...
Zenbat lan eder! «Platon'eneko Atarian»,
«Oturantza» «Protagora», «Menon», or, betikoz
egiñak, Aberri-aldezko maitasunian.

## TXIRIBIRIA*

Zelaia dago bedarrez loran
eta, ama-alabak, bertara
abiatu dira, egurastera,
udaberri eguzki gozotan
bizi-poz alaia jazotzera
dana baitago eder, pilpiran.

Ama, ama! Esaidazu, esan,
margo zuri gorrizkaz dakusgun
ta txoria ez dan egaladun
ori ... zer, zer arranopola dan!
Esan amatxo zer izen daukan
lorea dirudin orrek aidean!

Bai, maite. Ederrik ta pinpirin
dabillen egaztaritxo orren
deiturea ezta errez esaten,
izenak dituanez ain ugari ...
Baña, ia ba, ene poxpolin!,
asma zagun zein dan egokiren.

Atsegin al zaizu «mitxeleta»
edo, antzerako besteren bat?
Txipeleta edo, tximeleta
ala, naiago dezu «inguma»
edo, polit dan «pinpilinpauxa»?
Zein aukeratzen dezu zeuretzat?

Mitxirika edo mitxirrike,
txiribiri edo, pitxilore ...
aunitz izen bitxiren artean
ene biotzeko Izarne maite,
politezko ederdura betean
zeu zara ene egodun lore!

Zeu zara bai ta, zu, emen zaude
Udaberria bezin alaikor,
itxaroz betea, polit eder,
emen zaude, biotzeko Izarne,
neure gogo barruan laztankor
askoz ederrago, milla bider!

Izen bat aukera ezazu bai,
baiña, politez txoratuta, ez
ibili, arren!, mitxeletak lez
batetik bestera, zentzu gabe,
albo-alboka baldar ta deslai,
ameskizun utsalez, norage.

* *Esk.* XIX, 2-3. (c.1978).

## NEURE AGURRA*

*Enbeita'tar Kepa. «Urretxindorra»ri*

Agur dagitsat, agur, neure agurrik laztantsuenaz,
Usparitxa-Jauregi'ko muxikatar seme argiari!
Aren omenezko eungarren iaiotz-urtebetetzean
aren emoitza, aren bertsolari sena gogoratuz
agur dagitsat ta, oztikiro daruat bai, biotzean,
euzkaldun izanik, guztiok zor dautsogun gurtasunaz
erri-maitasunaren argizai, oroigarri bat biztuz,
Euzkadi'ren urretxindor, euzkal semerik gurenari!

Egunak, urteak igarotzen dira bai, beingo batean,
bizi izateari dagokon goibe ta loturakuntzak,
ta oroimen oro estaltzen da, betiko illunpean,
izpirik, alerik, emon ez dauanaren izakuntzaz.
Gizaki utsala —zelan etorri alan ioan dana—
itzultzerik ez dauan, eriotzaren osin sakonean
amilduko da, gure gizaldi zearrezko ibilkuntzaz
azturik gero, ildakoaren bizi-aldi ta, zein zana.

Baiña, aren oroimena ta, aintzatasuna, ordea,
ez da il, ez da ilgo, ildako geientsuenen antzean.
Oi, Enbeita'tar Kepa! Usparitxa baserriko semea:
—sortzez, izatez, egitez, gogo ta, biotzez euzkalduna—
berarizko doai eredugarri, goi-eskarrez betea;
zu zaitugu Euzkadi'ren abotsa, Euzkadi'ren guna,
bakez bizi nai dauanaren aberritar alorrean
euzkalduntasunaren eragille gotor ta bakuna!

Bertsolarietan bertsolari autortu nuan bein batez
ta, orixe berbera dautort gurea dan bizkaitar berbaz
esanik, egia dala bai, ez dakinak iakin dagin
aren igaroaren barri; aren ekintza ta kemenaz,
zelan gero, zabaldu ta, ernamindu, zelan ondu zan
arek ereindako azia, zelan sointasun lerdenez
loratu zan gero ta, burutu bazter orotan, arin
aren itz argikoi, aren etengabeko alegiñez.

* *Esk.* XLIV, 13-15. (1978-VII-20).

Bai ete maitezko izkuntza ta oguzkera sugarriz
beste bat, euzkerearen ta aberriaren alde ark aña
egindako bertsolaririk bai ete gure Euzkadi'n
zentzuzko ta biotz-ikutuzko ekintza zoragarriz,
bai ete beste bat, euzkerearen ta aberriaren alde
ederrik ta iainkozko gizabidez ark aña alegin,
arek aña abestu ta idatzi duenik ain dotore,
egunoroko biotz-betezko aurkezte agurgarriz?

Esan zuok, aren barri dakizuenok ta aren sena,
aren etorria, aren abestia zer zan, zuok esan ...,
aren urretxindor abots adoretsu, aren kemena
esan, zenbateraño saiatzen zan euzkal alorrean,
esan, aren bertsuak irakur dozuezanok, egitan
esan, aren iaseko erakuntza, aren etorrizko
baserritar eskolazko beste semerik bai ete dan
aren edadurazko euzkotar leiñuzko baratzean.

Euzkerea zan aren kutuna ta aren maitetasuna;
euzkerea indartu, orokortu nai izan eban, alai,
euzkerea bizi-bidetu erriz-erri, bein betikoz;
ta, orretarako, beti zegon prest, beti zegon ernai,
aizean zabal edaturik abertzaletasun guna.
Sabindarra dogu bai, ta itzetan, aldi-oroz,
euzkerea nagositzen da-ta, beti, jeltzaletasuna
emaztegai garbiaren irudiko eskontza-soiñekoz.

Aldi arteko illunpe ta lozorro negargarrian
bai ote zan beste bat arelako olermen goigarriz,
arelako argibide maitekor, arelako senez
bai ete zan beste bat arelako gaitasun pozgarriz,
arelako aurkezte ta arelako gogai, kemenez,
bai ete zan beste bat aren aldiko Euzkalerrian
arelako biozkera ta itxaropen bizigarriz,
Euzkadi'ri abestu dautsonik arelako zentzunez?

Sar zaitez nekazaritzazko arto ta gari, naiz olo,
ta zarangintzazko aren bizitzara: nirea dan, aren
Bizkai'ko lurrera, aren eskualde eder ta maitetsu,
aren gogozko landa, ibar, beresi, solorik solo;
aren txiribiri, aren txori, aren arima bille...,
sar zaitez, begipeturik orduko zugatz oparotsu,
orduko intxaur, orduko arte, gaztain, aritzondo,
aren gazte denporako antz-irudiz iabetu arte.

Erriaren poz ta atsegin, neke ta samiñak azalduz
argiro ta sendo, doñu ederrez agerturik biotz-sena,
(azkatasun gogozko deadar gorakor ta eztikorrez)
itxaropenezko irrintziz, bein ta barriro abestuz,
geroago ta edatuago ta, betikortasun zabalez,
euzkereari indar emonik goitu zan aren izena
goi-arnasdun panpatar Lugones baten olermenez,
Euzkadi'ren ekandu, iolas, izantza oro aintzalduz!

Bai, odei artean, dizdiz, nabaitzen dalarik eguna ...
Agur dagitzut, agur txeratsu ta, gogorik onenaz
esanik arjentinatar aundiaren izkuntza berberaz:
«Enbeita'tar Kepa, euzkalduna, ¡gora Azkatasuna»!

# DEUSTASUN UTSEAN*

## I

Ixiltzazko deustasun betean
ezerrez uts-utsaren utsean,
iñolazko sorgai ez urgairik
izan ez'balitz tanta bat aña,
illundu utsaren barrenean
ez litzake izango batere
izaite sorgairik ... Aren senean
ez litzake izango izarrik,
ez asto ez mando ez ollorik,
ez litzake izango mundurik,
intxaur ez madari ez gaztaña
kosmos aundiaren usin beltzean
ez litzake izango ezer ere
utsaren utsa, deusa besterik.

## 2

Baiña, bazan usin sakonean
izar-uts apurkiñoz beterik
bazan an, izatasun aurreko
zabaldi utsal, usin aundiaren
ixiltza illunez beteriko
gauaren izkutu neurgabean,
bazan bai, bizia kokaturik,
antzua zirudin gauteriaren
magal ezauge azkengabean,
apurkiñoetan ernamindurik.

## 3

Lurra oraindik ikus eziña
ia utsa zan ta antolagabea,
zutabe izkutuen barrenean,
guzia oraindik eitegabea
baiña, alere eitea arturik,
bizi antolatzalle zan ordea
argiratzeko illundi miña,
azkenik bako igidurapean
mundu ikusgarri bat sorturik
eder-izantzaz bete-betea.

---

* *Esk*. XLIV, 87-90. (1978) Olerki-lan onek (*Esk*. XLIV, 87-90, 91-100) Imanol Mujikaren filosofi-izkuntzalaritzako saio labur bat dau oiñarri... Batez ere bigarren zatiari (Esk. XLIV, 91-100) —eta zati onek erdal-itzulpena ere badau Muniategik berak egiña (*Esk*. XLIV, 101-110)— Agustín González Aciluk musika ezarri eutsan eta 1989ko abuztuaren 27n Iruñeko *Coral de Cámara* dalakoak Nafarroako Jaialdietan abestu eban. Musika-lanaren titulua: *«Izena ur izana»*, egun atarako iragarkiak iñoanez (erderazko testoa baiño ezpadau ere).

**4**

*Gizona*

Lokatz aragituaren izuduran
len-bideetako egunen ioanean ...
illetsu eta erabat basati,
oarmenezko begiztatze betean
adi-adi dago gizona, adi,
izadiaren zarata otsetara
bizia, aldakor ta arrigarri,
ikusirik bere aldamenean.

**5**

Adi gau argiko izartzapean
ikusten duan aurpegi betea
ill deituramenez ta ain zurbillik
dakusan illargi gautari ori
Iainko guztiz altsua ez ote dan
bere zoragarrizko agerraldi,
argitasun emekoi, paregabean,
mundua itzal-lilluraz bildurik.

**6**

Adi, goiko eguzki amandrea
goizero, goiruntza datorrenean
izpi berogarrietan izioturik,
dirdaitsu ta, ederrik ikustean,
bizi-ororen ondasun sortzallea,
berebiziko altasun pozgarriz
egun bakoitzeko goiberatzean
ametsak, itxaropenak sorturik,
etengabeko emai bizigarriz.

**7**

Adi, ortzia illunik, dardarti,
argitasuna zapaldu, erantziz,
izugarrizko goibeltasunean,
zimiztatze azkar ta dizdizariz
erabateko dunbots trumoipez,
goi-aldeak azaltzen diranean
itxurakizun ekaiztatu, beltzez,
ain zaratatsu eta bildurgarri ...

**8**

Adi izadiko eresietara
ta suspertzen, ernemintzen ari dan
udalengo, orlegi berbiztuaren
soñanzki alai, bizigarrietara,
edota, erditze oparotsuetan
emaituriko, udagoieneko
uztatze ugari ta, ogituaren
aletegi aberasgarrietara.

**9**

Negu aurreko gaudura, illetaz,
orbelak zirimolka erortzean
aizearen txistu-ots ta abornadaz,
edo lore-aro garaitsuenean
gizona, adi dago bai, lurraren
aldaketa, gau-eguntze ororen
alderdi on-eder ta gaiztoetara,
inguruak dakarkion eskutadaz.

**10**

Bizitzako igidura bizian,
irikiz, landuz, aurrerapen gogoz,
gizona zutik dago ta, oarkari,
aldapaz aldapa, beti, goi-asmoz,
egunoroko burruka larrian
ateak irikiz oldozkunari
egintzazko indar ta biotzondoz.

**11**

Gogamen azkez arnastuz bularra,
arria, zura, gauzak egokituz
eta etorbidetuz nola-ala,
billa dabil gizona bere kabuz
bizirako bear dan argi, indarra,
billa dabil, ortzak, tresnak zorroztuz
oro azter ta oro arakatuz,
mundu erosoago baten arduraz
billa dabil, karriatuz materiala
oi dan urduritasun ta minduraz.

## [IZENA UR IZANA]*

### ITZA**

Aintziña. Aintziña batean
mundua izan baiño leenago
askotaz leenago, aintziñago,
oraindik gauaren barrunbean
izarren berririk ez zanean
ta argiak, aizeak, euriak
izenik ere ez zeukatenean ...

Izpiz, erraiñuz, betiraun senez,[a]
an zegon bai Itza, toteldua,
itzalezko laiño ta auts artean,
argiratu nairik beren ariak;
an zegon menastan, ernamindua,
izantza iakiñik ez zeukaten
abots izatekoen loturapean;
*illunik* zegon ta bakartadez
egoera ezbaian, nora-eztua ...

Geroaren geroz, ondorioz ondorio,
izadiaren egitamu luzez,
uraren ta suaren ta aizearen
izakaizko indar ta dunbotsez,
ariketa bizizko ekintzaz
utsuneak bete, soindu ondoren,
ona ba, emen, gizoneratua,
malkoz ta odolez bustiriko
gogai t'argibide ernaituaren
eraturatan iakintzaratua ...

---

* *Esk.* XLIV, 91-100. Ik. 507.orr.
** *Esk.* XLIV, 91 (*B*); *Esk.* XLIV, 10 (*A*), (1976-VII-24).
[a] *Lerro au ez da A'n agiri*

**(Izena ur Izana)**

Utsal atsartuaren magaletik
noizbait bizia iziotu zanez,
orain izan orok du izena,
aintzin sorpenetan ur izana,
gerora goi-argiz gauzetatik
gizonak berak zentzuz, oarmenez,
zarata otsen aditamenduz
gizaldi zearrezko ibilian
bizitzako laiñoak urratuz
gizonak berak ematen diena.

Izan orok badu bai izena
ur bizi emaigarri izana,
ondorioz ondorio datorrena.
Aldakuntzazko araudipean
bakoitzak izanik bere sena,
ta bere soindura ta almena;
gauzen ikusmolde iakiñean
zeintasun adirakor ta argiz
gizonak berak dagi izena
berarizko antzemate, graziz.

Ur, lur, elur, egur, ezur, aitzur,
zenbat ikusgai eder ta makur!
Gizona totel-motel oguzten
asi zan bearturik itzak sortzen,
eguzki, illargi, eroi, izar,
gizarterako mintzoa eratzen:
ortzi, itsaso, arkaitz, lats, gaillur
lokatz, zingira, usin ta itur,
izadiaren gogai arabera
billatuz berein ale ta ezkur
oldozkunari ateak zabaltzen.

Argiaren bearkizun ta egarriz,
zentzuzko ekintzaz, gizaldiz gizaldi,
bai, gizonak bere etorria dagi,
egunoroko bizitza arloan
gizarteari bide berriak irikiz;
aldizka ttun-ttun, egalak astinduz
aizea bezala firili-farala,
edota, zentzukiro, gogoa landuz
zarata-otsen antzerakizunez,
aldiberako egite t'ibiliz ...

Izadiazko arremantza bizian,
itzez itz, mintzabide bat eratuz
ta, berarizko izantza lurrunez
alako etormen ikusgarrian,
t'ondorioz ondorio, itzak askotuz,
aintziñatar sustraien sentasunez
euzkera iaukal bat loratu zaigu,
beren iakituri eta almenez,
gizartean gogai berriak sortuz.

## [Asiera]

### I

Asiereak ez du soiñurik,
ezta itxurakizun neurturik
Beltza da-ta margorik gabea
gau luze orren etendurea.
Aldatuz doa bai argirantza
ta, zuri garbi gorbizturantza,
ederrik, zein baiño zein obea;
ortzadarra ta trinkotasuna,
berein itxura eta soiñuekin.

### II

Tringotasunean lendabiziko
irudia zazpi bat izarbelek
antolatua dago egokiro.
Sei izarbel aundi ta, erdian,
Eguzkia ederrik, goikiro,
iziotasunez amandreturik
bizitza emaitza arrigarrian.
Gizonaren lur, egontokiko
izaite oro alikaturik.
Eskerrak zuri amandre Iainko.

### III

Irudi orri bira emanik,
borobil obotua agertzen da
baiña, birunda igidurea
eraldutako legearen bidez
astiro, geldirotzen dalarik,
orra ba, or, obo borobilla
erabat galdurik abiadurea,
nola azaltzen dan laukotua,
agindu izkutuaren indarrez
aldaturik lengo itxurea.

### IV

OBOA antola diteke
lau gizonek moldaturiko
egur-makilla okerrakin;
ta okergunea galtzean
artezik, lerro zuzenakin,
bai, laukoa osatzen dute
zuzen-zuzen, artezkiro,
lengo itxura berdiñean.

### V

Laukoa lau gogo eta lau
izakaiak dira bai, lurra
beren egun-argi eta, gau
egin eraziko dutenak;
meatzki ta belarki, abere
ta iakitezko erreñuakin,
oñarri ta abe direnak,
bizi sostengu ta agurra.

### VI

Ta sorkunde aldarte ortan,
berarizko izantza graziz,
gizona zutik agertzen da
arako Seigarren Egunean,
soiñua garbirik ta argi,
ostadarraren margopean
bizia, egunka ederraziz,
egintzapen etengabean.

## VII

Aleluia, aleluia, aleluia.
Munduko itsaso ta legorretan
eder-ederrik goitu da argia,
ikusgarrizko sorbide bitxietan
ozenkiro erroturik bizia
ama lurraren barruti guztietan.
Aleluia, aleluia, aleluia,
Gizonaren begiak argiturik
ari da bere pentzakizunetan,
betikotasunez zalantzaturik,
ia zer, nola, gerorik ote dan ...

Aleluia, aleluia, aleluia!

## VIII

Soiñuak aozkoenak dira
ta zaratak otskidetuenak.

Aozkoen otsak gogotiarrak
dira izan ta barrukoiak
berarizko antolamenez:

i, e, o, u, a

Oraindik beste bi, sorgeak,
bada zazpi izan ditekez
ta izango etorkizunean,
ein barik aurkitzen diranez
oraindik ta, gordiñ-gordiñik.
Oietatik bat ez ote da
arnasa artzezko H ori?

Aozko i, e, o, u, a,
onela azaltzen dira
erdi-oartuzko barruko
borobiltasun munduan:

o e
i
u a

## IX

Iakituriko mundu baranoan
edo erdizko gizarte egoeran:




Laukoan *o* aozkoa
erdian aurkitzen da,
egiñik eguzki-lana
egungo gizarte egoeran.

Oro tinkotzen ta sendotzen
duan sentimenaren eta
kutuntasun agerpena da,
gure egintzakizunei
balioa ematen diona.

Aozko *I*'k adimena
aurkezten du.

Aozko *o*'k sentimena,
maitasuna eta
bioztasun ororena.

Aozko *e*'k, pirtizkeri
eta mistikarena.
Emetasunezkoa da.

... Orrek esan nai du,
pirtizkeri sentimenak
beraz, uts-utsak dirala;
ez dutela iñolazko
giartasun gogairik, eta
zentzuz ba, ezin ezarri
ditezkela ta azaldu.
Uzkurtzaen antzera
ez dute zertasunik,
iñolazko mamirik,
gatzik ez berakatzik.

## X

Aozko *a* da Indarra,
ta, gizontasun agerpena.
Aozko *u* da itxurarena
eta, menastarena.

Iakiturizko zentzuzko
Aozkari taldeok
beste batzuen artean
auetxek dita:

iao, ioa
oai, aoi, oia,
iaio, aio,
euo, ueo, oeu.

Arnasartuzko *H*'a,
H'a, H'a, H'a ...
Arnasartuzko ots au
ar dezagun fonema bezala
ta, beraz, idatzian,
bere agerpena,
araurik bagea
eta azkea, azkea
bear du bai izan;
ba, munduko atsaren ikurra
dalarik, bakoitzaren
bioztasun izaerari
dagokio *H*'a.

Aozkoen ondoren
datozte konsonanteak:
oñarrizkoak zazpi dira,
zarata otsetatik
antzeratutakoak:

| | |
|---|---|
| 1) z | 4) g |
| 2) m | 5) k |
| 3) rr | 6) b |
| | 7) t |

## XI

### Gurutzea

Bi indarrek eratua
dago gurutzea;
ortzitarra bat,
burutik beera
ieisten dana
eta, oñetatik gora
igotzen duana bestea.

Biotzean iotzen
dute alkar eta
adartzen dira eskumera
eta, eskerrera ...

Ezezkorra
Artzaillea ┼ Egitazkorra
Dendunduna

Goian azaltzen diran
okerguneak,
buru muinaren zentzuzko
iru maillaen
ikurrak dira.

Zortzikoteak
dira bederatzi
egintzadun
bederatzi taldeei
dagozkienak
ta bat geiago
lurrarena;
gizona dan aingeru
eroriarena.

Orra or amar zortzikote.

# «BEGOÑAKO ANDRA MARI»*
# (1978)

* *Esk.* XX.

## BEGOÑA*

Begoña'n oña. Bizkai ezearen
lur epel, gozatsu, ederrean,
maitasunezko santutegiaren
zeruz menduriko lurraldean.

Ta, zein urrun nire gaztearoko
praka motzezkoz nekusaneko
bizia ... Begiak arrimenezko
ikusiz ziranean lekuko ... !

Alden-alde, orduko Bizkaia'n
aritz tantaiak, gaztañondoak
zebiltzen aizearen igurtzian,
biurtuz baso ta zokondoak.

Arto garatuak-eta dantzatzen
ziran gariakaz erdi-batera
ta poxpoliñ kantu-otsetara
egunak ederrik aizeratzen.

Begoña onen ingurumariz
ta eguna argitu baiño len
andrazkoak, esnez ta ortuariz,
arduratsu ziran uriratzen.

Igarotako ikus-molde ori
gaurko abiadura, porlanpean,
ameskeri utsal bat dirudi
atzerrizko egiturapean.

Bai mingarri, egungo zoria,
gaurko igidura lasterrean ...
Oi, Ama maite, Ama guria
erdalduriko gizartepean!

* *Esk.* XX, 1.

## ANDRA MARI*

Begoña'ko Ama, Andra Mari,
Bizkai'ko goitizar ta zaindari,
Ama laztan, Ama maitagarri,
zorionaren zerutar iturri!

Amatasunez soiñanzkiturik
goiduraz zagoz, eder-ederrik
Artxanda lepoz, oiñarritua
biotz-buruz, besoak zabalik,
erri-maitasunak goraldua.

Bazter guztietatik, bideak bide,
aldioro, goiz eta arratsetan,
barriz ez iausteko pekatuetan
osasun edo, zerbaiten eskez,
erromesak zuganatzen dire
zure grazi, laguntzaren pozez
arrenka, otoitzaldi beroetan.

Itxaropenez ta, biotz onez
bai, bazter guztietatik datoze
ta arrizko armaillatan gora
edota, berebilletan, Zure
gozez ta Zure bearrez igotzen,
urbiltzen dira ta, Zuganatzen
Ama, Zuri agur egitera
barru-barrutiko eragiñez.

Nekazariak, arrantzalliak,
aberatsak eta ezeukiak,
Biots arrunt aunitz asko dira
beren gordinkeri ta zauriak,
beren kezka, oiñaze, samiñak,
datozenak Zuri agertzera;
zure bitartezko mezedeak
lorturiko zorion-iturriak
Zuri ezkertzera datozenak.

## BILBO**

Ta, Bilbo, zure oiñetan,
Bilbo, gure Bilbo, Bilbo ...
—Bilbo zar, Bilbo barria,
erbestekeriz iantzia—,
Bilbo, gure Bilbo, Bilbo.

Zure babes, magalpean,
auspez datza tximinizko
kedar ta dardaraz betea,
ainbat labek suturiko
erri aundi, langillea.

Bilbo zar, Bilbo guria,
burdiñakiz gorpuztua,
etorkizun iturria,
Nerbion ibai arroaren
alde bietan tinkotua.

---

* *Esk*. XXII, 2.
** *Esk*. XX, 3-4.

Bilbo zar, Bilbo maitea,
burdiñazko egituraz
ta porlan suminduraz,
aurrerapen agirizko
kutsutasunez errea.

Bizi billa, mendiz gora
zoaz, edozein bizkarrera,
baita ontziz, itsasora,
ausarditsu ta geroka,
munduz bizi izatera.

Ontzietan zabaldu zara
munduko alorretara,
eroanik zintzotasunez
euzkal gogai-egitura,
ikurrindurik txapela.

Bilbo zar, Bilbo maitea,
egungo zurrunbilloan
ez galdu zeure fedea
ta gorde maitasunean
ain gurea dan euzkerea.

Bilbo, Bilbo, gure Bilbo,
Begoña'ko Amarenean
gura zaitugu gorengo,
maitezko osasunean
eredugai izateko.

Bilbo, Bilbo, gure Bilbo,
izan zentzu ederrean
Begoña'ko Amarengo,
ekintzazko gizartean
egi ta zuzen aldeko.

Bilbo, Bilbo, gure Bilbo!

## OTOITZA*

Ain biotzeko dodazan berbeta eta lurrez ...,
agur bero batez natorkizu maitebera,
bizkaitar euzkaldun soil bat, ni naizen apurrez,
Begoña'ko Ama kutun, biotzez eskatzera:

Bizi izatezko poztasun eta bakea,
Gure Aberri laztan, gure anai guztientzat
gugandurik Zeure zeruzko begiradea
nekepean, ain errerik diardun erriarentzat.

Urreratu zaitez bai, erriaren abotsera,
Zeure irribar ta, zabaltsunik gozoenez,
estualdietako samin, negarrak arintzera.

Ta, aintziñako fedez barriro ... bai, Begoña,
aintzalduko Zaitugu bai, biotzik zugartsuenez,
geurekoturik beti-betikoz Zure Oiña.

* *Esk.* XX, 5. (1978-VI-15).

## MAITASUNA*

Giza-biotzaren atsegingarri
ta, berarizko emai pozgarriz
ixuririk beren gozotasuna,
udaberritar goidura biziz
loratu bedi bai, maitasuna,
larrosa antzera, ikusgarri,
ederturik izatearen guna.

Usain gozoz eta margoz apain,
iziotu bedi bai, gizonaren
biotzean, gizonaren eskuan
loratu bedi bai, gizartearen
biotzean, egizko maitasuna,
ederrik ta sendoro, gaiñik gain,
mundu obeago ta barri baten
bizitzazko gogai ta zentzuna.

Bizitzako garraztasunean
ezeren siniste, argi barik,
zer da gizona bere deusean
itxaro zimelez, erroturik
aurkitzen bada azolatasunean?
Zer, ederrezko Iainko izpirik
eta ezpadu maitetasunik
bizitzan oi dan bakartadean?

Itxaropen lorratzak galdurik
zer egin leike, biotz-eskuren
bat edo beste aurkitu ezik
zer egin, egoera illunean
ezpadu Naitasunik, Federik,
ezpadu Amatxu kutun baten
laztan gozozko besarkadarik,
ezpadu bere aldamenean
ezer aintzakotzat artzakorrik?

* *Esk.* XX, 6 (1978-VI-16).

## «BIZITZAKO IBILLIZ»*
## (1978)

* *Esk.* VI[b]. «Lauaxeta Saria»ra bialdutako olerkiak. 1978.

## ONDORIOA*

Lur agor antzua.
Arri koxkor, autserrea, zikiña;
ingurune utsal, deserritua,
esibarru ankazgoratua.

Bizi ezotasun
gutxitxo dakusgu aldamenean.

Dana ordu astun
lazgarri bat bezala, nun
itsuriko giltza,
kakoa aantzitzen dugun:
arrautsa azalak,
poto utsak, zorro utsak,
paperak ta paperak
edo, urresagar bati
ura kendu ondoren
baztertzen dugun igali
ondakintxo bat bezala.

Gizarteak sorturiko
ondoriotasun negargarrian
albora begira, ta ezeren
ardura, ezeren kezka gabe
gelditzen bagara bertanbera
azola gabeturiko
itsukeri ustel, deusgarrian...

Zer egin, zer genezake gero,
beranduko egunon batian
eremu antzu, ondatu orri
begira, zer egin genezake
ollo antzo, gero, aztarrika
gelditzen bagara, ikusirik
poto zarrez, paperez, kiratsez
inguruak gaiñezka, errerik...
Izadiz bizitzen iakin gabe!

## BELTZA**

Aizea zakar
gogoa makar.
Etorkizun itun,
aize baltza
aldamen ingurun.
Lur beltza
eguzki beltza,
ortzia aztun.

Laiño itzalezko azao beltza.
Beltza. Lur beltza, eguzki beltza.
Oiñazea margodun balitza,
samiña beltza izango litza.

Mendi goituen erantzun latza,
aize gogorra, soiñu gogorra:
ai! samiña entzungo balitza,
ori samintasunaren lorra.

Beltza ene begiak lausotuz,
gogorra nire abotsa lotuz...
Nire aragian iosirik, ain
gogor, zergaitik ba, ene samin?

Aizea zakar,
gogoa makar.
Etorkizun itun,
aizea beltza
aldamen ingurun:
lur beltza,
eguzki beltza,
ortzia aztun.

---

* *Esk*. VI[b], 2.
** *Esk*. VI[b], 3.

## TABERNAZ TABERNA*

Naaslikazko
kale gorrietan,
batetik bestera,
atzera, aurrera,
emen sartu,
an atera...

Ardo zuritik beltzera,
beltzetik zurira
tabernaz taberna,
emen sartu,
an atera...

Zarata otsak,
gorizetak
ta agurrak...

Agur, Agur!
Biar arte!
Biar arte?

Beraz, egia ote da ba
bukatzera doala Gaba?

Ardo
zuritik beltzera,
ez gorputzaren ez gogoaren,
ezeren errenkura gabe
batetik bestera,
barre tentel ta lizunakaz
itzal danbulutsu artean...
zuririk beltzera,
lagun antzeko lagunakaz
tabernaz taberna.

—Ori al da ba bizitzea?
Ez dakit ba, ez dakit...
Bearbada nire zuzenbidea
taldetik bialduriko
txori batena izan dikete
ta, iendeak ta eguzkiak, iñolaz
gau-galtze orren errurik ez dute...

Baiña nire gogoa
egunaz gaba ez naastutzea
ai!, orixe izango litzake.

## UGIÑAK**

Ugiñak lurraren biotzaren
taupada otsak dira.
Ta, itxasoak, bertan,
bizikiro azaltzen
du ta, darakus bere ala
ta oñazezko samindura.

Orrela, itxasoaren
kresalezko mezuaren,
aren ibilliaren aidera
ezarririk nire gogoa,
itxaropenez, bertanbera
bultzatzen uzten diot
ugin batetik ta bestera
nire ametsen ontziari,
ba, nik aren atzaparretan
ibilliz zibu-zabukari
ta, oi diran gorabeeratan,
ai, nik ez dut ez, ondatzeko
bildur-ikararik agertzen
bultzatzen nauan itxasoari.

---

* *Esk.* $VI^{b}$,4.
** *Esk.* $VI^{b}$,5.

## EGUN ARGITZE*

Txintadatara, egun argitzen
ari da-ta, eguzkiaz batera,
goizaren bideak irikitzen
oraindik makal, illun-ikara.

Basoetako oiartzuna dator
negu ondoko berbizte alaiz,
aize garbizko usai gozotan
zozo, bidegarroz itxarokor.

Egun argitze eztikor onek
bizi-etorrera ederkorrez,
esan diteke bai, obeagoak
egiten gaitula alabearrez.

Maitezko erantzukizuna da
loreillak dakarrena goibidez,
aurrera kementsu iarraitzeko
egun berrien bizi-ametsez.

Kabigintzazko gozamenean
txoriak bezala nai nuke nik,
alaitasuna erein lurrean
biziari bizi-poza emanik.

## ZUGAITZAK*

Urteetako egonean
ta, sustraietan sendo,
zugaitzak ixillean
autortzen ari dira
bizitzan iasoriko
oroitzapen ororen
aurkezpena... Arako
aintziñaldi batean
ta, maiteminduriko
begirada eztian
bizitasun-dirdira.

Otzak illik neguan
aldiko gogortadaz
ta, kantari udaran,
zugaitzak beren adar
itsaltsu, txori-zalez,
aspaldiko albiste
gordetzailleak dira,
urteetako egonean.

Aldiaren lagunkide
ta goiz ta arrasaren
entzumen, begiak dira,
ta, urrundik datozten
egaztiño nekatuen
babes atsedengarriak,
berarizko aterpe
ta, maitemindurikoen
autorleku gozgarriak.

---

* *Esk.* VI$^b$, 6. (Ik. 665.orr)
* *Esk.* VI$^b$, 7.

## USOAK*

Usoak
azkeak ziran bai,
uriz gain
nora nai
egan egiteko.

Ta, egunik egun,
—bein ta berriz—
egatzen ziran
biziro arin,
alkarren kutun
goietan ibilliz.

Goiz bateko
ortzi oztin
azkenbatean
usoak,
atxiloturik
aurkitu ziran
goietako kaiolarik
aundienean,
ortzi zear osteraka,
iñolaz ezin
atzemanik
alako,
egun gogoangarri baten
egindako
ibilli
ederraren
maitezko
aztarrenik.

## BIDAZTIA**

Bidaztia
eguerdiko
eguzki galdatan
aurrera doa
izerdi patzetan,
maldan gorako
ibilli neketsuan
erdi itoa.

Aizea beroa,
errea da;
kiskalgarria
da bidea...
Baiña, ez!
bat-batean
etsipenez
ez etzan;
elburua
or aurrerago,
gaillurrean
daukazunean...

Ortxe bertan
zerbait
aurrerago,
bada
itzalpea
izerdi ori
legortzeko;
bada
iturria,
asetzeko
zure
egarria.

* *Esk*. VI[b], 8.
** *Esk*. VI[b], 9.

## ESAN*

Alaikiro
edo, itunik,
esan agur.

Esan, kaixo! Kaixo!
Esan begiratuaren bidez
edo, aidetsu, irriparrez
esan, gero arte.

Esan eskua luzatuz,
esan eskua laztanduz,
esan biotza ezarririk,
esan itxaroz beterik,
esan abotsa samurtuz
ta laguntza eskeiñirik:
esan, agur! agur!,
esan, bai, «ba'dakit lagun,
ba'dakit bai zure berri
ene adizkide kutun!»

Ta, esan, arratsalde au
alkarbidezko agur au
berebiziko ederra
pozgarria izan dala,
alkartzallea... ta, ori,
eskerrak, eskerrak zuri.

Esan, baiña keiñurik
ta, itzik gabe, esan
zeure ixillaz bakarrik
aidekor ta maitari,
esan, barrutik esan,
bioztasunez beterik.

## AIZE BOLADA BAT**

Bakar bakarrik bi,
bi orriño zimel
dakustaz zugaitzean,
bi orriño triste
ikara batean,
noiz erorikotan
udazkenaren biotzean.

Gaiñontzekoak
lurrean eroriak
itunik dakustaz
betiko etzanik
aizearen menean.

Bi orri zimel:
Zu ta Ni.
Bi gogo triste,
lur eztunean
noiz eroriko...
Zu ta Ni.
Bi orri,
bi gogo
ildurati.

Biok zai
beste aize
bolada bat
etorri arte...

---

* *Esk.* VI$^b$, 10.
** *Esk.* VI$^b$, 11.

## EURIA*

Euria
maramara
etxe gaiñean:
euria
kalean;
euria
mendian;
euria
itxasoan.

Euria
tanta lodiz,
euria
sirimiriz;
euria
garaztaz;
euria
zaparradaz.

Euria
aize otzez,
euria
aize emez;
euria
goizean;
euria
arratsean;
euria
eguzkiaren
edota,
illargiaren
erraiñupean.

Euria
malkoturik
edota
ederturik
gure begietan.

## EGUZKIA**

Bai goibel
illuna,
eguzkirik gabe
eguna!

Naasimasiturik
odei artean
gelditu ote
estu ta larri
ezin zutiturik
odei artean
gelditu ote
estu ta larri gure eguzkia?

Aize lagun,
aize adizkide,
soaz arengana
zoar azkar,
azkar-azkar,
ta, lenbait-len,
zoaz, aren
burua azkatzen,
betiko antzera
bere egungo
ibillia
bete dadin,
zoaz, arren.

Bai goibel
illuna,
eguzkirik gabe
eguna!

---

* *Esk.* VI[b], 12. (Ik. 926.orr.)
** *Esk.* VI[b], 13.

## LOREA*

Lorea.
Beren lurrin gozo,
beren margo
apain-bitxitan
edertasun
ikusgarria
eskaiñiaz,
odol gaztearen
ta maitasun-
alorretako
ikurra da,
bizitzazko gogo
ta, ameskizun
goikari, iorantzuz
betea.

Bizitza da,
izakuntzazko
gogamenaren
aizeño
ariñean
bildua;
usai gozozko
liraintasun
ederraren
azalpean,
arrigarrizko
alatza da,
bizi-agerpen
zoragarriz
ain dotore
burutua.

## TXAKUR ZAURITUA**

Berebil batek zaurituriko
txakur txiki bat besterik ez da
ta, espaloian erdi illik datza
oiñaze alatan intzirika,
ikus-miran inguraturiko
ainbeste errukiguren artean.

Ikusleei ordea, bost axola,
ori txakur bat besterik ez da;
zakurño bat, eriotzaturiko
txakur arrunt, txakur zauritu bat
aunitz giza-piztiren aurrean
ostikopeturiko txakur bat.

Ez du izenik ez lepokorik
aintzat artzeko, ez du ez,
iabetasunezko agiririk;
ez du lepoko txilin-ugelik,
ez du ez emen agiri danez
batere erruki, iabetasunik...

Txakur bat besterik ezer ez da
lurrean eroria, erdi illik
ta, iñori zer...! bost axola!
ez badu Don Pedro edo Don Juanik
aldameneen aintzat artzeko,
ez zaio egiten iaramonik.

Txakur bat besterik ezer ez da!

* *Esk.* VI$^b$, 14.
** *Esk.* VI$^b$, 15.

## BAKARTADE ABESTIZ 445.orr.

### BIDEA*

«Bidea ibilliz egiten dala»
adierasi zigun bai, gizonkiro,
españar olerkari bioztun batek,
apalik eder, edatuz goikiro,
bere gogo argitsuaren itzala.

Dagigun beraz guk ere gurea,
—lurra leundu, oztopoak alboratuz—
beti irmo, aztartuz, arakatuz,
beti, maitezko argitasun sendoz,
egintzaratuz gure izatea.

Izan bedi egitasmo zabalaz
erriaren, gizartearen, munduaren
okergunak zuzentzeko bidea;
benetako anaitasun izantzaz
eginiko giza libertadea.

### MEZUA**

Gizartearekiko arremanetan
egunerokoak ta aldizkariak,
urrutikuzkiñak, irratiak ere
altsuak, garrantzitsuak izanarren
ta edadura aundi-aundikoak...

zure soin eder ta liraiña, zure
lerdentasun iagi ta otzanezko
anderetasun ori goraltzeko,
aipaturiko albistari guztiak
oso desegoki, *sinpleak* dira.

Begi arteko erraiñu dizdariz
argiro ta sendo biotzez nai nuke
zure izena goietan idatzi;
bai eguzkian ta bai illargian,
odeietan ta goiko izarretan,
iakin-arazteko nire mezuaren
nire biotzaren taupadaen berri,
ain kutuna zaidan nire maitearen
izena ederrik, aizean, odeietan,
nun-naiko bizitzaren magalean
argitasunez beterik irarri,
benetako oiartzun aintzagarriz.

---

* *Esk.* VI$^{b}$, 17.
** *Esk.* VI$^{b}$, 18.

## GURUTZEA*

Bizi izatearen goiberaen
gatz ta ospiñezko eragozpen,
atsegin ta malkoz ondutako
ibillizko, zori ezberdiñen
arantza zorrotz ta larrosaen
usai gozo ta edertasunpean,
ikas dezagun gau-egunezko
ioatearen[b] goiberatasunean,
negu gogor ta udaberriaren
ariora gurutzea eramaten.

*PVV 13 (1978, 138-140.zenb.) 8 (*B*); *Esk*. VI[b], 19 (*A*). [a] ioatearen *A* aldatze

# «BETIKO ITXASOA»*
# (1978)

* *Esk.* VI[c]. Lauaxeta Sariketa'ra bialdutako olerkiak. (1978 ?).

## BETIKO ITXASOA*

Betiko itxasoan beren egizko arraiekin
bideraturik odolaren zentzu barrutietan.
Aldiguneen itxasoa, bizitzako egarriekin
aren anots-antza oskatuz nire abots soiñuetan.

Nire giza-ortzetik zutunik ixil gaiñean
aren itxasoen dunbots gogorra dantzut enegan,
odolaren asieran lez ta itxasoaren gau ontan,
izar argidoiak dakustaz eroritzen sakonean.

Lilluramenezko leiza-zuloz dei dagist itxasoak.
Maiteder liraiñaren abotsak igitzen du aizea.
Alperrik antxetak, ontzi-oialak, esku zapiñoak
etorko dira niri oroitaziz kaia, ugartea ...

Betiko itxasoaz naiz mintzatzen, gogoan urrun
odolak maitez ikus zitun nireak ziran begiekin,
nire odola illunabarreko kai bat zan ordun
maitasuna zetorkidala ontziko abestiekin.

Arrantzalleek itzultzen ziran bokarta, atunekin
ta neska bat atxilloturik zegon sare artean.
Ta andre sarekonpontzalleek ederrik kai gaiñean
ziarduten berritsu beren matasa ta ipuiñekin.

Itxasalde gurena Kontxa inguruz aurkitu nuan
ta, munduan dan ondartzarik politenaren bidez
ainguratuz biotza, alako kresal-aide gozuan
loturik aurkitu nintzan bai maitasunezko sarez.

Beraz nirekin da itxasoa. Ain nire! Biziki
esitzen naualarik kresal saporezko muxuekin.
Gaur eriotzea aipatuz ondamendizko ezpanekin
itxasoa ari da bai nire odolean zapuzki.

---

* *Esk.* VI'. 2.

## ZAPIÑO ZURI BAT*

**1**

Zapiño zuri bat
goitu da aidean
portu zarreko
lagun artean,
or illuntzeko
izarraz batean.

**2**

Maitasun-agiri
eder-ederra da,
amets ta lillura
itxaropentsuen
ego zoragarri.

**3**

Zapiño zuriak
maite-gorantziz,
agur, agur dio
bein ots berriz.

**4**

Ontzia ba'doa
ta ni, an bertan
ontziaz noa
ametsez betea
agur-agurka
ortzi goietan
ipar izarra
agertu danean.

**5**

Itxaro egidazu neska
egunaz ni etorri arte
ba, zuretzat, oi, ene maite!
zeru billa noa, arrenka.

**6**

Ez ba'naiz irizten
egunerako,
ia irizten naizen
arratserako.

**7**

Zapiño zuri bat
goitu da aidean
eta illuntzeko
izarraz batean
goiturik zaukadaz
biotzaren erdian.

* *Esk.* VI[c], 3.

## UR IXILTSUN*

Ur ixiltsu
uberka egarritsua;
oin maitetsu,
begiratu eztitsua.

Alkarren pozez
bidean gora,
aizetuz gogoa
inguru maitez.

Zure begietan
naukazu gozartzen,
gure ibiliak
barrenki ausnartzen.

Urak du betetzen
uberkearen egarria
ta usoek goratzen
egoen ikusgarria.

---

* *Esk*. VI', 4.

## ARRAUNKETA*

Uginberazko
bizi izatearen
egunoroko
ibilli bearraren
igidurapean

Maitasunak
zoragarrizko
lilluramen
itxarokuntzetan

odola iziotuz,
arrigarrizko
lorakuntzaren
urre margozko
izpi arraunak
deskainkiguz.

Begiz begi ta
biotzik biotzera
berarizko
sugar-ikutuz

alkar maitezko
begiradapean
ta itxaso barruz
biok biotara
ugiñak gainduz.

Egin dezagun egin
bein ta berriz alegin,
zorioneko abantean
arraun eta arraun

gure elburua
iaretsi dezagun.

## ABESTI SOILLA**

Zurea da itxasoa
ta, zureak urrundiak;
bits aparraen mintzoa
t'antxetaen ibilliak.

Zurea nire arako
aurtzaroko ugartea
t'abes dagin kurkulluzko
itsas bakartadea.

Zurea maitagarrizko
nire gogo urrundia,
ur urdiñen bein bateko
zorabiozko durundia.

* *Esk.* VI<sup>c</sup>, 5.
** *Esk.* VI<sup>c</sup>, 6.

## LORAILLEKO EGUERDIAN*

Zuri-orlegi-gorrizko
ikurrin agurgarriak
dira bai portu ontako
ontzien agerkariak.

Euzkadi'ko ikurriñak
kresalezko aizepean,
txistu eta danboliñak
oskatzen diran artean.

Ibaia iltzera doan
alderdian bizi zara
ta, ontzirik eltzen bada
maitea dalarik bertan ...

Oi, au biotzetako poza
itxasotik datorrena,
ingurua alaiturik
gure neska-mutillena!

Eguzkia goian dago
Lorailleko eguerdian;
maite-ametsak gorago
alkar-bide pozgarrian.

## LURRAREN BIOTZAREN TAUPADAK**

Orroaka edota bare,
ugiñak dira Lurraren
biotzaren taupadak.
Bertan, itxasoak
azaltzen ditu barruko
samiñ eta erasoak
berarizko legez.

Kresalezko mezuan
ametsen ontziari
loturik nire gogoa,
uzten diot bultzatzen
egungo aizeari,
bada ez dut batere
ondatzeko bildurrik
aren atzaparretan.

* *Esk.* VI^c, 7.
** *Esk.* VI,^c 8.

## EZ DA TXANTXETAKOA*

Ertzetik,
batetik besterako
edadura zabalezko
begiratuan,
ugiñak,
ondartzak,
kaioak
ta itxasoa bera ere
atsegin zaio gizonari
kresal usaiñezko
urdinpe
ta aundi-sakonezko
edadura zabalean;
baiña, alaz ere,
ederrik
erabat
sakon ta aundi,
goiberazko
igidura etengabez
ikusgarria izanarren
itxasoa
ez da ez
nolanai begiratzekoa.

Ez da txantxetakoa
iñolaz ere
itxasoa.

## ORRIALDE URDIÑA**

Bere killeaz ederrik ta dantzari,
dinbili-danbala ontzia uretan,
idazten ari da ba bere maiteari,
kantari arroaren alor urdiñetan.

Ontziari iarraituz, itsaz-sola lauez,
—izurde, txitxarru, bixigu, berdelak,—
irakurriz maitezko lerro pardelak
negar-zorian dakusguz irriparrez.

Neska baten izena dabilte aotan
benetan zoragarria ta kutuna,
lemazaiak maitez azaltzen diguna
uretan idatzitako agurretan.

Ta, arraiok irakurtzen parra eztiz ...
Oi, au itxasoaren orrialde urdiña!
Nork leikean izan ontzi pinpiriña
ibiltzeko neska maiteari idatziz!

* *Esk.* VIᶜ, 9.
** *Esk.* VIᶜ, 10.

## ITSASERTZ EZAGUNAK*

Entzumenerako ain gozatsu
eder izandako itxasoa,
beti biotzera itzultzen zaigu
eskuraturik aren mintzoa.

Ugiñik ugin, lokarri sendoz
kresalezko txinpart ta aparrez,
bizitzazko gora-nai ta erroz
eres-mintzen da sakon-azalez.

Abantean, berarizko gogoz
ta, ezkongai amestu antzera,
ederrik datoz nire biotzera
ikuste pilpilkari ta zoroz.

Bermio, Izaro ta, Antzoraz,
nire Urdibai ibai bazterrez
ta, Gernika'ko aritz-ibarrez
oskatzen dira, ur gazi-gezaz.

Ugin urdurien iauzi gozoz
gogora datozkit, gozamenez,
arako arto ta gari-soloz
ta, Atxarre mendiko goigunez.

Begiko itxasertz ezagunak
itzuli datozkit maitasunez,
berrituz ameskizun egunak
berarizko gozamen lurrunez.

## ETSIPENDUARENA**

Odol gaztearen egun argi loratsuak ziran
ta nire udaberritar aizetasun goriz,
izen bat irarria zegon ene biotzean.

Mintzo ixil, urduriz, enetzen nitun pozez
zure begi urdiñen dirdira ikusgarriak,
iñoiz ez bezalako lillura ta ametsez.

Itsas bedarrak ta arraiñak lekuko dira
zenbat aldiz idatzi nuan zure izena
ondar bustian, biotz osoz zuri begira.

Lekuko dira itxas ortzetako zugaitzak
arein enbor eze ta eder, agurgarrietan,
irarri bainitun leen izkiak ta, biotzak.

Lekuko bai antxetak ere, arein egoetan
goratu bainitun zure ontasun guztiak
nire zorabiozko maitasun-intzirietan.

Inguru orok zekin bai nire egarria,
—arkaitz, zugaitz, txori, ugin ta ondar gorriak—
Ai!, bakarrik zu, itsu ta gor ene maitia!

Eztakit ez, nire deiak nun galtzen ziran.
Bakarrik zuk neska, ederra ba'ziñan ere,
ezekizun oi, biotz! zenbat maite zindudan.

Orrela nire abotsa bein ta berriro
iasorik oiukatzen nuan bai, ene maite ...
Oi, itxaso aundia zu zaitut lekuko!

---

* *Esk.* VI[c], 11.
** *Esk.* VI[c], 12.

## AURRERA TA ATZERA*

Aurrera ta atzera
ugiñak ondar gorriz
iostatzen ari dira
udaldiko goiz argiz.

Neskatxa bat ertzean
busti ala ez busti,
zalantzaz dago geldi
ikaratu antzean.

Itxasoa ontziekin
zipli-zapla dabil
iostaketan txorobil
ur bare urdiñakin.

Antxetak zerukari
ederrik ta txilioka
dabiltz laztan-laztanka
itxaso zabalari.

Aizea bigun-gozo
ta, goiza urre gorri,
bizi naia datorko
osasundun biotzari.

Begiratze samurrez
maitasunak dei dagi
itxaropen ederrez
bakoitzaren maiteari.

## ABESTIA**

Itxasoa neurea da, diot,
nabillen ontzi gaiñetik,
izarrezko gau ederrean
babor ta bai estribortik.

Ta zenbat izar loratu
dira ene abotsean:
itxasoa neurea da, diot,
ta, nai dut besarkatu.

Gauaren ots ixillean
baretuz ene ekaitza,
Iainkoak Berak zeraman
nire abesti endaitza.

Biotz taupadak bezala
zein gozoro da nabaitzen
itxaso urdin zabala
maitebera kulunkatzen!

---

* *Esk.* VI$^{c}$, 13.
** *Esk.* VI$^{c}$, 14.

## ITSASONTZI BERBEREAN*

Ta, biok, itxasontzi berberean
gogoz iorandurik gabiltzanean,
alkarren maitez, alkar laztandurik ...
Atoz maite nirekin karelera,
kresal urdindura zabalean
ugin igestariekin bat egiñik
itxasoa ederrik ikustera
beren sakon aundi paregabean.

Bein ere berriro itzuliko ez dan
ugin igeskor berberari
ikutuko die gure eskuek,
zeiñen igidura artegazko
urdintasun dizdikarian
aurkitzen dira eder-bizi,
zure begiradak ta nire begiradak
eguzkiaren zoragarrian
abestuz gure bizitzaen abestia
ibilbiderik gatzituenetan.

Ugiña ugiñaren ondoren
geruago ta urrunago doa,
itzulirik ez duan ioanean;
urrunduz urrunduz doa bai
betikortasun abestia
iarraiturik bere bidean.

Gaua gaiñeratuko da itzal
ta izarren gidaritzapean
luzatuko da aren agurra,
biotzgunea edaturik zabal
txinpart urruntze urrunean ...

## GOIZAREN ZANTZUA**

Gara. Berarizko izkuntzea
duan munduan murgildurik.
Zure ixillak dagi nerea
gure begiak, argiz iantzirik,
itzegiten duten bitartean
amets urdin bat gogoraturik.

Alkar naikunde bete-betean
itsasoak ditu laztantzen bai
gure oiñak eta, oldozkunak
ugin gaiñez igari dabiltza
erdi itunik edota, alai,
maitezko ikuste ederrean.

Zure irriparak, eztikiro,
nire gogoa betetzen du biotzez
ta, eresi berean, ederrik,
izar-dirdaiez iantzi da zerua
izadiaren argigune zabalez
kaioek dakarzkigutelarik
txio-txioka, goizaren zantzua.

---
* *Esk.* VI$^c$, 15.
** *Esk.* VI$^c$, 16.

## ABOTSA*

### I

Eskeintz ixillean
begiak ederrik
aizearen antzera
gozoro, legunik,
eragin maitezko
ikumen ariñean
biotza izioturik.

Udaberri emaiz
goitu zan enegan
bai, zure abotsa,
itxaropenezko
bideak arturik
gu bion arteko
ibilli maitean.

Itxasoaren antzera
urdin zoragarriz,
zure begi argiak
gogoz tinkaturik
alkarri begira
mintzatzen diranean,
usai on gozozko
larrosa gorriak
dizdiramen biziz
sortzen dira ederrik
zure ezpanetan.

Ederraren ederra
nagusitzen da berez,
alkartze ixillezko
maitetasun deadarrez.

### II

Maite zaitut maite
dio bai itsasoak;
maite zaitut maite
dio baita aizeak,
ikusirik ederrik
dirdiratzen diran
maitezko begiarte
eta, amets-bideak!

Ta zorabiaturik
lillura ioranean
or etzaten gara
itxaropendurik
geure ametsean,

erabat azturik
munduko asperen
ta negar-mindura,
erabat azturik
geurezko pozean.

Itsasoak olatu bizietan
etengabeko eragiñean,
apar-zuriz dantzatzen du biotza
ta nik ordea zure begietan,
dirdai bizikor atsogiñean
daurkit nire bizitzaren gatza,
berarizko egintzapenean.

Ugiñak ta ugiñak iolasean
etengabeko begiratzearen
loturarik maitagarrienean.

---

* *Esk.* VI°, 17-18.

## ISPILLUA*

Begira dezagun
itxas sakonaren
ispillu garbian;
begira bai, kutun,
uraren ioanean
eta, etorreran,
begira, gau ta egun,
aren goiberazko
itxas ardatzean.

Bizia dirudi,
egunen aizean;
asarre ta bare,
itunik ta alai,
egunen etorri,
egunen ioanean
aizea emanik
amets bakoitzari.

Aize berde,
aize beltza
eguntzen danean
asarre bizian
edota, bestalde,
aize bare,
kalma zuri,
itxasoa ederrik
zelaitzen danean
ibilgarri,
urdin arre ...

Olatuz olatu
bizia dirudi;
beren goiberazko
betekizunean:
kukulu-mukulu
amor emanik ta,
gorantzi aizeari
beren urdiñezko
igidurapean.

## AMALAUKOA ITXASOARI**

Ibai ororen ta odeitzar eurikariren
artzalle urduri, osin itzaltsu, aundia;
egun-margozko urtegi urdin altxortuaren
arraindegi aberats, urpe ikusgarria.

Ertzetako ur-mailludun arrijotzalle.
Ontzien ta atunen bizi ta igarobide.
Arraintzalle ta itxas-gizonen ogibide.
Amets urdin ta negar-malko, itun sortzalle.

Auxe da urezko aretotzar arrigarria
nun, betiko errementariak gozatzen duen
abestirik sakonenarentzako meatzkia.

Ez da derrigorrezkoa entzutea aizeari
ta itxasoraño arretaz eldu bein baten,
baietza emoteko munduaren eresiari.

* *Esk.* VI[c], 19.
** *Esk.* VI[c], 20.

# «AINTZIÑAKOZ»*
# (1978)

* *Esk*. VI[d]. Lauaxeta Sariketa-ra bialdutako olerkiak. (1978).

## SEASKA ABESTIA*

Lo ene maite, umetxo laztan,
biotzaren atalik ederrena;
zaude goxo-goxo dingilin dan
ene txiki polit-politena.

Zaude bai goxo-goxo seaskan
ene izar, altxorrik gurena;
zaude ene politik maiteena
ene abesti kulunkarietan.

Ez ba izan ezeren bildurrik
ene biotzeko aurtxo kutuna,
nik uxatuko dut, urrundurik,
zure artegatasun illuna.

Bonbolon bat eta bonbolon bi
ene poxpolintxo maitagarri:
«Patxo» eztiakin ain zoragarri
kulunkatuko zaitut kantari.

* *Esk*. $VI^{d}$, 2.

## PILOTA BAT*

Pilota bat
arat-onat
or ari da
dantzari,
iauzi-iauzika
batetik ta bestera,
gora ta beera,
aurrera ta atzera
esker-eskubi,
poliki-poliki
ibiltari.

Emendik
andik,
zuretzat,
niretzat...
Etorri ta ioan,
pinpirin-pinpirinpan
emen ta an,
an ta emen,
zuretzat,
niretzat,
etorri ta ioan
iauzi-iauzika
pinpirin-pinpirinpan...

Or ari da
eskurik eskura,
zuretzat,
niretzat,
arin ta bizkor
or ari da,
batetik bestera
zoro-zoro,
iauzi-iauzika
dantzari,
aurrera ta atzera,
atzera ta aurrera
bero-bero,
eskurik-eskura
zirt-zart,
arat-onat
zuretzat,
niretzat...
aidean aide,
arin ta bizkor,
pilota bat.

* *Esk.* VI[d], 3.

## TXORIA KAIOLAN*

Kaiolea urrezkoa
naiz zidarrezkoa izan,
ai, txoriño gaxoa
zein nekaldurik bizi dan!

Zinkurinka ari da
burnizko ari mearretan
kanporantza begira
urtenbiderik ote dan.

Euzki-egun alaietan
oro itxaropentzen
ta, oro orlegitzen
diran une goratietan...

Egoak arro, urduri,
or dakusgu txoria,
iauzika ta kantari
aantziz bere zoria.

Ega nai luke ega
zerupe zabalean,
maitearekin batera
alkarrezko izanean.

Etxetxo politean
ta, alez ondo asea
egonarren maitea
aberastasun ederrean,

Etsipenenez bizi da
itunik, kantu kantari,
beti maitez deadarka
kanpoko eguratsari.

## EGUN ONAREN SEÑALEA**

Gizonarentzako, bizitzan,
—onik baldin bada munduan—
ura da gauzarik onena.

Orregaiti ba, aintziñako
euzkaldun iakitun, argiak,
ainzalduz uren ondasuna
biziro onetsi zituan
emai garbizko iturriak.

Bakez, urtezar gaberdian
amabiak entzun ondoren,
—oituretan ikas dugunez—
gure erri-barru askotan,
iturrira ur billa askotan,
etxez-etxe ibilten omen
ziran, negu-gau illunetan.

«Ur goiena, ur barrena,
urte berri egun ona;
etxe onetan sar dedilla
bakearekin ondasuna,
onarekin osasuna».

Betikoz egiztatu dadin,
gure erriaren ta, biziaren
ta, gizartearen onerako
argitarako izan dadin,
guk ere gogoz, maitasunez,
abestu dezagun biotz batez
gure erriaren onerako:
«Emen dakargu ur berria,
egun onaren señalea».

---

* *Esk.* VI[d], 4.
* *Esk.* VI[d], 5.

## MARITXU TELLATUKO*

Oitura ta siniskerien
aintziñatiko abotsez
an, baserri emaitzazko
nire aurtzaro, gaztaro
igestu ta urrunduaren
izamenezko lorratzez
ta, arako arto opil
talo ta, morokillezko
egun bakun, igestuen
oiartzun ta, lillurazko
bizi-aldi bereziaren
oroimen ta, argibidez,
berein gertakizun bipil
datoz bai nire gogora,
lengo txirulak ozkatzen.

Maitez gogoraturiko
ipuin askoren artean,
egikune gelgarri bat
arako, egun batean,
(oraindik mutil bardingo
koxkortu bat nintzanean):
lokaturik neukan agin
ustel bat eror zitzaidan
beatzakin zirikatzean.

Otoitz antzeko letaniz
amonak oitura zanez,
agin ustela eskuan
arturik, iaurtikitzeko
esan zidan labelako
gure tellatu gaiñera,
onela eskatuz gero
eskakizun agurgarriz,
begiratuz tellatura:

«Maritxu Tellatuko
amandre maitagarria,
eutsi ene agin zarra
ta, emaidazu berria,
Maritxu Tellatuko
amandre maitagarria».

---

* *Esk.* VI$^{4}$, 6. (Ik. 1029.orr.).

## APOAK*

Maitezko dantzatan
apoak klin ta klon
dabiltz inguruetan.

Illargi gauetan
klin ta klon kantari,
gaueko orduetan.

Lili usaiñetan
apoak apokari,
gauaz amesetan.

Ain eguratz ezti
ta, ain gauaro on
ta eskuragarri!

Apoak apoka
beti bai, klin ta klon,
alkarri mintzoka.

Gaugiro biguna...
zein ote klin ta klon
maite-min dabillena?

Apoak apoka
ta, zu... ai, or konpon!
illargiari soka.

Loreill-bagilletan
itxusi ez dira
alkarren begietan.

## KATALIÑ GORRI**

Nunbait or uda garaiko
ibillaldiren batean,
aurkitzen bazarate
zomorro txiki, gorri,
borobil baten aurrean...
galdetu egiozue beraz
esku gaiñean arturik
ta, mintzatuz onela:

Zu, ain polita zaran
andere gona gorri,
Kataliñ Katalintxo
esan bada egi-egitan:
Biar euzki ala euri
zer eguraldi egingo?

Baldin balitz euria
egon bai, egon-egonean
ego itxiakin ta, geldi,
baiña, or, zorionerako
aterako balitz euzkia,
zoaz egan, ega ta ega,
bein ta berriz agurka
biotzeko egun argiari!

* *Esk*. VI$^{d}$, 7.
** *Esk*. VI$^{d}$, 8.

## IGELAK*

Ta, igelak igelkari
zingira, usin ertzetan,
(ugazio, igel, txantxikuak
dotoreki izentatuak)
illargizko gau argietan
abotz zoliz, kantu-kantari
ari dira, klin eta klon,
zingiretan, usiñetan,
abestuz beren zortzikuak
udako gau izartsuetan
lei biziz, abestuz zoli,
bakoitzak bere maiteari.

Illargipean zoraturik
klin-klonkada ozenetan,
gau erraiñuz ederturik
alkar-mintzozko autuetan...
Nun olako abesbatzik?
Iardun-ots nabarmenetan
iauzi-iauzika, klin ta klon...
Ai!, askorri loa galaziz
(Oñate'ko Kondeari lez)
batzuk asper, lo eziñik
amurruz ta, gogaiturik,
esaten die bai asarrez:
«Igelok, egon ixillik»!

## LAMIÑAK**

Lamiaran, Lamiako,
Lamikiniz, Laminsoro,
Lamiñarrieta, Lamindano,
Lamiñerreka ta abar,
lamiñ izatearen
siñiskuntza dagerzkute.

Ibaiak, errekak,
urondo bazterrak,
landa ta zelaiak,
Euskalerri barruan
ondo zekiten bai,
lamiñen berri:
gauaz ibiltun,
egunaz lotan...
Euren arraiñ begi,
euren bular zuti
ta, ondo orrazturiko
adats eder, luzez
illargi gauetan,
ibilkera panpoxez
ain omen ziran
lirain ta ikusgarri!

Ta, orra or,
nola, goi aldeko
lamiña batek
ots egin zion
beste be aldeko
lamiña bati:

Aintzañakoek digutenez
beiñola batean
goizean goiz,
arginabarrean
arrantzu tresnakin
itxasorako bidean
omen zioan
arrantzalle gazte bat
ariñ-ariñ,
argitu baiño len...

—Aizan i, Lamiarango!
—Zer nai dona Errosapeko?
—Or doan gazte orri
bota eiona lakirio.
—Nola botako diot ba
nola bota lakirioa
ganbonariz egiña ba'daroa
bere soiñekoa?

* *Esk.* VI[a], 9.
* *Esk.* VI[a], 10.

## ERLEAK*

Inguruak berbizten
asi ziran goiz aro
udalen ederrean
Matxiñeneko Peru
Nagusi Xauna il zan
lurrin ta txintadazko
udalen goiz batean.

Emazte alarguna
asi buruko zapi
ta, oiñetarañokoz,
beltz-beltzik iantzi zan bai,
beltzik seme-alabak
ta, etxeko illobak,
etxe inguru oroz
ederrik eta, alai,
bizitzazko abestia
goituz zetorrenean.

Aren senideak lenik
ta, gero erleekana
abiatu zan zuzenik
ildako barri ematera
ta, zapiño beltz bat
erlontzin ezartzera,
oiñazez itz egiñik:

«Erletxuak, erletxuak,
egizute argizaia,
Nagusia ilda-ta,
elizan bear da argia».

Egunaz bat-batean
erleak landarik landa
gogoz abiatu ziran
lora kukulluetara,
etxeko alargunak
bear aña argizai
izan zezan elizan.

## PINPILINPAUXA**

Txirripita polit, egaztari txinbeleta!
Egadun zomorro inguma arin, bizia...
Txipilitona, txipiliton, txipilipeta;
berein panpin izentxo pirtzilkorrez iantzia.

Lore antzeko lore-gainkari pinpiriña,
zeruko aingeru, txaketa, pinpilipauxa,
Iainkoaren mandatari, albistari ariña,
zu zara egun argien udaberritar poza.

Bizitzako amets urdin, maitasun-lurruna,
Mariapanpilloi eder, egaztari kutuna,
etorri bezin laister or aldentzen zaiguna.

Mitxirrita ibiltun, bitxi sorgin-sorgiña,
itxaro-mendu auskorrez utsalki egiña...
Zu zara, kalaputxi, izakai poxpoliña!

---

* *Esk*. VI[4], 11.
* *Esk*. VI[4], 12.

## EURI EDERRA*

Ortzi zear, noizik bein
odei banaka batzuk
igarotzen ziran bai
etsipena ekarriz;
legortez lurra, deslai,
an euririk ezaren
luzamendu luzean,
zalantzez zegon ezbai.

Orraitio, oi!, goiz batez
ortzia illundu zan
ta, trumoi nabarmenez
orra or nun asten dan
euria mara-mara,
aizearen eragin ezez
lurrari poz ematen
baretasun betean.

Zein eder bat egiten
ta, nola besarkatzen,
nola diran alkartzen
euria ta lurra, nola
diran bai elekatzen,
ain ederrik ta kutun
beren alkar-bearrezko
besarkada maitean!

Soro, landa, baratzak
zein ederrik goresten
itxaropentzen diran;
nola nekazariaren
begiak poz-bidetzen,
biotza nola zabaltzen
dan, ainbeste onespen
ta mesede ikustean!

Esker onez, maitetsu
baserritarrak dio:
Au, euriaren ederra,
au, azaro mamitsu,
ogi bedeinkatua...
lur erdi igerra
asetuz datorrena!

* *Esk.* VI[d], 13.

## MITXIRRITA*

Ta, zibu-zabuka, pinpirin,
ain eder polit! Itxarozko
egun argien poztasunean,
mitxirritatxoek, goiberazko
ibillietan, lorez-lorezko
miaskatze atsegingarrietan
dotore, mingulin-mangulin...

Autsezko ego dotoreekin
eguzkidun zomorro panpin!:
—zuri, gorri, nabar, beltz, urdin-
berein margo, siniskeriren
atorramenduz iantzitako
egun goigarri ta argien
pinpilipauxa albistari!

Pirtzilkerizko deituramen
izen bitxiz apainduriko
txilibili ta txiribiri,
tximirrita ta mitxirrita,
inguma, panpilloi, txaketa,
berein margoz ederturiko
axandillo ta Xainko oillo,
egaztari goiberakari!

Bearbada aintziña batean
zomorrotxo auek ikusiz
ta, aurtxoen itaun, galderai
erantzun ta amor emanik
gure aiton-amonen begiak
gozotasun eztiz ta alai,
iantziko ziran iakituriz
itz berriak biotz barrunbean
maite-kutunka sortaraziz.

Ipuin-ipuinka ta iostari,
mintzo kutunez, potxoloka
adieraziz ume maiteari:
«Zuriak berri ona dakar,
beltzak, zorigaitz, naigabea
ta... Iainko oilloa nolako,
ene kutuntxo lastan ori,
berriak ere arelako!

Ipuiñak ordea ipuin dira
ta, —aintziñakoak aintziñako—
baiña, balira ezpalira,
beltzak uxa bediz betiko.

Ba, ez dugu nai... Ez geiago!
Ondamen gorria lekarken
inguma edo mitxeleta
beltzik etor dadin errira!

---

* *Esk.* VI[d], 13.

## TXINDORRA*

**1**

Apalki, iauzi makurretan
etxearen inguru-minguru,
neguko egun gogorretan
itunik ta, txinta-txintari
ukulluko ate-aurretan
baita leio ta sukaldeetan
(batzuren ustez albistari)
sarri ikus izan zaitugu.

**2**

Negu beltzean dardaritsu,
ai!, zerbat bider ikus izan
ote zaitut bildurrik, gosez,
otz-ikataran, erdi maingu,
gure etxe aldamenetan
egaztada arinkor, motzez...
Oi, papogorri maitagarri,
txoriño polit, bedeinkatu!

**3**

Etxe-bazter ta aldamenean
ikusi nai zaitugu beti,
iauzika, eskuma aldean...
(ori bazan aintziña batez
berri onaren ezaugarri)
egoera eder, apalean
beti, iauzi motzez, txintari,
zorioneko berri ekartez.

**4**

Onetsirik gelditu ziñan
oi, txori maite, papogorri!
Kalbario'ko tristura artan
txepetxak zitalkeri loiez
lotsagabe, Andre Mariari,
altzoa kakaztu zionean
zatarkeri axolagabez,
Ama Birjiñea, tristeki,
bakartadean zegoanean.

**5**

Zapuzkeri loi au ikusiz,
txindortxoak errukiturik
berarizko goitasun argiz
garbitu zion bai magala
ta... Au, mirarietan mirari!
Iosu'ren tanto bat, odola
erori zintzaion papora
ta, bertan, gorriz margoturik
gelditu zan onen paparra
maitezko onespen gurgarriz.

**6**

Maitasunez goresturiko
txori kutun onen izena
edatu da, egalik egal,
gure Euskalherri barrena,
iakiñaziz bein ta betiko
ez dala il bear ez olako
txori bedeinkatu ta apal,
olako txori ongillerik
noiz-beinka, iauzi-iauzika
berri onakin datorrekin.

---

* *Esk.* VI[d], 15.

## MUSKERRARENA*

Egaztari doñuz ederrik, baso ta larrak
muskerra bezin musker artoak lora-garatan
ta goizeko gau-intzez garitzak, belarrak
iparr aizeñoaz dirdaitsu, zibu-zabukan.

Okilla ere kantuz da ari zugaitz gaiñean
egarri dalako, ala ... deika norbaiteri?
Eguzkia eguerdirantza goi zabalean
agur-laztanka, sortuz ainbeste ederteri!

Baiña, bat-batean poztasuna itzalirik
aizepean zoli, emakumezko karraxi:
Zer ote, zein otezka auzunea arriturik
ta gertakizun zalantzan, galdezka alkarri.

Bereala iakin da berri gaiztoa, bereala ...
Atsuna'ko neska lirain eder, galantari,
musker batek aragitik gogor eldu diola,
azkatu eziñik egonik estu la larri.

Azkar atera zaitezke lasterka mutillok
io dezaten sendo, zazpi erriko kanpaiak
ta zuok ere lagundu bai, neska lagunok,
iantzi ditzan oi diran zazpi gona gorriak.

Asi dira kanpaiak dilin-dalanda baten
zein baiño zein zoliago zaratatsu oskatzen;
asi dira landak, alorrak berriz alaitzen
ikusikeran muzkerra izu iges egiten.

---

* *Esk.* VI[c], 16.

## KUKUA*

Eder-aupaka bizitzazko egoetan
berbizkunde aizez datorrenean
bizia ernaraziz basabideetan...
Au, aldiaren orlegitasun poza
berarizko bitxitasun goigarriz
kukua kukuka, lelo ezagunez
udaberria oiukatzen daunean
oi dan itxaropen ta poztasunez,
noraño-araño zabaldurik biotza
egun berrien sorkunde bizigarriz!

Kukuak or artoak erein-garaian
baserritarrak goizik esnaraziz,
kukuka ozenik, epail-iorrailletan
zugaitzik zugaitz, oi duten kukukeriz,
ta, papogorriaren kabi billaketan
aruntz-onuntza dabillen bitartean
zeazkiro arakatu ta ikusiz...
gero, aukeraturiko bakoitzean
arrautzaren bat edo ixilka utziz
txindorrak berea balitz azi dezan.

Eskolan «kuku» itz soilla bakarrik
oztaz-oztaz ikasi bazuan ere,
ez esan txori au argia ez danik.

Gaiñera, oi, ze poza ematen duan
lenengo kuku kantuak entzutean,
gure sakeletan dirua dugularik
urte guztian izateko ustetan!

Bai, ze poz ta atsegiña, iakitean
diru faltarik ez dugula izango
urte osoaren igarotze luzean!

---

* *Esk.* VI[d]. 17.

# «BETIKO ALORREAN»*
# (1978)

* *Esk*. XIII. Nafarroako Aurrezki Kutxak antolatutako «Xalbador» saria lortu eban lana da *Betiko alorrean*. (1978).

## BETIKO ALORREAN*

Izatearen nekepean
abots sendo, bateratsuz;
egunean eguneango
bear dan ogi ta ardoz,
argia ta maitasuna,
bizia aldarrikatuz.

Kanta bateratsu, alai,
biziaren eta egiaren,
gizarte errearen alde,
iñor iraindu ta iñor
itsurik zauritu gabe,
kanta, bizia edertuz.

Kanta bulartsu, kanta bai,
gaixo, espetxeratuen,
aberri alde dagienen
ta, menderatu ororen
samiñak, laztan-besarka,
ia arintzen dituguen.

Kanta bai, argiro, kanta
maitetasunezko mintzoz
udaberri ederrean;
neguan ere negukoz
kanta, alegin betean,
etorkizunezko egoz.

Kanta alai, kanta, kanta
itxaropenezko kantuz,
argizko ekintzapean
kanta, bizia aldeztuz,
gure betiko alorrean
gogoz, alkarri lagunduz.

## EGIAREN IABE BA'LIRA BEZALA**

Egiaren iabe ba'lira bezala, oiukatuz,
egungo iraultzalle aunitz —gatz ez berakatz—
lerde utsean oro loitu, oro pozoituz
zikinkerizko abotsez, itsusi ta lardatz.

Mintzo garbia nabarmenkiro narrasturik
biurrikeri gogorrez, goikerizko munduan
itza ere bere errotik atera nairik
ta, erre gero, irain ta gorrotozko suan.

Eziñaren, errenkurearen ikur-oiala
aizeatu ta, beste eginkizun, beste zerik,
beste mundu ikusterik ez balitz bezala.

Asarre ta itsu. Beti, maltzurkiro, lerdoiz,
munduko oñazearen aztarren ez anotsik
ikus ta entzun ez ba'lute bezala iñoiz.

---

* *Esk.* XIII, 3.
* *Esk.* XIII, 4. (ik. 436.orr.).

## ABOTS DESKEILLADUN[a] GIZONA*

Abots deskeilladun gizona bide ertzean[b]
negarrari emona, laiño itzalez daurkit,
argirik ezaren autserre, arri artean
aren itun illuna begietara datorkit.

Entzun dot aren miña, ikus dodaz[c] notiñak
morroiturik txepel, euriaren gortasunpean,
bakoitzak zeroan[d] lo-zorro, oiñazepean,
betaurreko eguzkitakoen argi itukiñak.

Oi itomenezko bildura bizitz jopuok,
zuen ezak[e] min damost[f] begirada zorrotzez
atzeraka ikustean argal zuen gorputzok.

Ezezkoturik ete[g] dagi sutan gorrotoak
lur lorrindu onen zikindura, loi zakarrez,
eziñezko narraskeri[h] narratsean itoak?

## BIOTZ ONEKOA**

*Lagun on bati*

Biotz onekoa izanik
zuk, munduko egarria
nai zenduke bai asetu;
errotik, maitetasunez,
munduko gosea kendu
alaiturik osasunez
bizitzako ibillia,
agur gozoz laztandurik.

Egiazko arremanean
zure biotzean, ederrik,
maitasuna da nagusi
itxaropena ereiñik
barra-barra... ain ongarri!
gizartearen alorrean
uzta on bat opaldurik.

Maitasunezko aziak
biotzez ernamindurik
egunen poztasunean.
Argi-intziri biziak
onbidez lurreraturik
ametsik ederrenean.

---

* *Esk.* XXIII, 216 (*C*); *Esk.* XXIV, 67 (*B*); XIII, 4 (*A*).
[a] deskeilladun *A* deskeillaz [b] bide ertzean *B* bide erdian, *A* bidearen erdian [c] dodaz *A* ditut [d] zeroan *A* zeraman [e] ezak BA utsak [f] damost *A* damait [g] ete *A* ots [h] narraskeri *BA* argalkeri.
** *Esk.* XIII, 5.

## AZI ONA*

Bateko, ipar otza dala
eta besteko mendebala
edo, alako ego aize
nabarmen, zoroaren egala ...

Zoaz argibera
zauriak sendatuz;
zoaz emanik beti
zor zaion itzala,
zeure buruari
bezala, urkoari.

Izakera alkarkor
laguntzallez,
elbidetu zaitez bai,
ume adiñeko
gogo ta biotzez,
zuzentzazko
bizikera alai,
edertzallez.

Zoaz udaberriko
larrosa gorri
eder baten antzera,
lurriñik onena
ixuriz gizartera.

Billa zazu argia,
maitasuna,
—ona ta ederra—;
billa zazu egia,
—zuzentasuna—
ta, egiazko bizia.

Erein azi ona
munduko alorrean.

## IKUR BEZALA**

1

Ikur bezala
onbideturik,
zerbaiten pozez
iaso biotza
esku zabalez;
iaso burua
argitasunez,
erakutsirik
gogoaren ala,
erraiñuturik
erritar atsez.

2

Aizean zabal
edatu biotza
egalik egal,
etengabeko
maite-ereintzaz,
kenduz alako
mundu gaiztoaren
eragin latza,
maitasunezko
gogo, ekintzaz.

3

Ereintzarako
izan ongarri
Lurraren poza,
egituriko
maitasunaren
gogai-iturri,
sugarturiko
biotz-labearen
lurrin gozozko
esku egoki
ta berarizko
langille iasa.

* *Esk.* XIII, 7.
** *Esk.* XIII, 8.

## ITZ BAKAR BATEZ*

Bizitzako gogoz
gizartean,
lagun artean,
gure egungo
giza arloan,
izakuntza sendoz
bizia landuz
nai nuke ibili,
giza ildoetan
zirri-barra,
maitasuna, maitasuna, maitasuna
ereiñik gogoz
ibili nai nuke
egitazko
itz maitagarri,
benetako
itz bakar batez,
bizitzako gogoz
gizartean,
lagun artean,
gure egungo
giza arloan,
maitasuna, maitasuna, maitasuna
ereiñik biotzez,
egitazko,
benetazko
itz maitagarri,
itz bakar batez.

## BATEKO EURIA, BESTEKO LAIÑOA**

Bateko euria, besteko laiñoa,
egunik egun, bizitzan,
ez da guztia argia izango.
Kale estuetan, zugaitz azpietan
itzala oi da nagusitzen
ta udaldi bakoitzean,
udazkenaren erro zimelak
dira bai ernaltzen.

Anai besarkada ondoren,
Kain gaizto bat dakusgu
bekaizkeri utsez,
aizkora zorrozten.

Ez da guztia argia izango.
Erroi beltzdura beltza
eguntzen da bai, goizaren
erro, urratsetan,
zelatan ta nabarmen
aizearen egoetan.

Bateko euria, besteko laiñoa,
egunik egun, bizitzan,
ez da guztia argia izango.
Izerdiz, tantoz tanto,
errekak gañezkatuko ditun
ugoldeak sortuko dira.

Bateko euria, besteko laiñoa,
ez da guztia argia izango.

Baiña, ederrik, zure eskuetan
beti izango duzu alako,
izar izpitxoren bat
dizdizka, itxaropen berrietan.

---

* *Esk.* XIII, 9.
** *Esk.* XIII, 10.

## ESKUA EMANIK*

### I

Eskua emanik
egitazko biotzez,
ba'dugu zer egin
gure gizartean.

Zer landu, zer erein
bizitz alorrean,
gogorik onenaz
gauzak ederturik.

### II

Ba'da lur gogorrik
bai, nork egingoan,
bustinki tokillez
ongarri gaberik.

Ba'da etsipenez
gogo ill ta aulik,
ezin gogorrean
maitetasun bearrez.

### III

Ba'da gogarketan
maitezko abotsik,
musuratu naiean
ezin ausarturik.

Ba'da baratzean
larrosa gorririk,
bera dan añean
emango litzanik.

## BIDE IBILGARRI BAT**

Argizko bideetara
itxaropenez murgil
ta biotza biotzarekin,
ume antzeko gogoz
irripartsu ta alai,
gizartea igaroz
alkarkiro ta ixil,
gaitzik bako begiekin.

Oi, zenbat poz-iturri
argituak negarrari!

Bai, emaidazu lagun,
eman, zure eskua,
izan gaitezen anai
zabalduz gure mundua
ta itzal-giro sendoz,
biotzak gizarteratuz
egin dezagun, egin,
bizitzaz onduriko
bide ibilgarri bat,
guztien onerakoa.

Zenbatzu edergarri
soñanzkituak biziari!

Zentzuzko bide-lagun
anai-irripartsua:
berebiziko gogoz
zugan datza, ederrik,
betikotasun asmoz
larrosa ederraren
antzeko ezetasun
ta lurrinkai gozua,
bioztasunez beterik.

* *Esk.* XIII, 11.
** *Esk.* XIII, 12.

## EZETZA*

Ezetz.
Ezetz esan bear diot
ta, ezetza damaiot
Nik,
gau-egunak orbanduz
larrosak desorritzen,
urretxindorrak ilten,
bizia dezabatzen,
ondatzen,
zikintzen
ari danari,
nik
ezin neikio
abestu,
iaun-andreok,
nik ezin neikio
eriotzea onetsi,
bizia zapalduz,
gizona oinperatuz
azkatasunaren,
itxaropenaren
aurka
ari denari,
gau-egunak ondatuz
nik,
iaun-andreok,
ezin neikio
abestu.

Ezetz.
Ezetz esan bear diot
ta ezetza damaiot.

* *Esk.* XIII, 13.

## AZKATASUNEZ*

### I

Azkatasunez,
argiaren, biziaren,
etorkizun alde.

Bizi-egitarauzko
asmo sendo, zindoekin,
egia aldezteko
gogorik onenaz,
eskuak ta biotza
Lagun urkoratuz.

Gizonak azke nai du,
azke bai, azke, azke,
azke izan nai luke,
bere buruaren iabe.

Bein ere ez
gizona aldezteagaitik
zigortua;
bein ere ez
erri-maitasunagaitik
baztertua;
uztaillean ebakitako
gari eskukada
azaotuaren antzera
gizonaren eskuz
lokarritua
burutasun itsuz.

### II

Baizik lerden, zindo,
aizeño bizigarri,
aizeño me batek
gozoro
ta ezti,
besarkatzen dualarik
ederrik,
izan bedi
lurrean sendoro
sustraitua,
eguzki ta euri
ongarriz
asetua.

Garia
«aundia nintzan,
txikia nintzan»
Loreil garaian
dakusgun antzera
lasto ezean
eder-ederrik,
burutua.

---

* *Esk.* XIII, 14-15.

## ESKARIA*

Bidazti izanik
arren lagun:
ez ogirik zapal,
ez malkorik
ixuri,
ez egin
gorrotogarrizko
zaratarik
ta aldamenekoak
izan ditezala
zoriontsuak;
eska dezaigutela
bideetako irriparra
ta laguntza;
ez dezatela
alperrik utzi
txoririk ilten,
ibairik kutsutzen,
zugaitzik ondatzen.

Arren dugu
eskatzen, otoizten,
auzoari, kideari,
begiratzeko onez;
lagun orori
ta beartsuari
eskua luzatuz,
ikas dezatela
udaberritar atsez
laztankiro,
biotzez agurtzen.

## ITZALDURA**

Gertatzen zaiguna da sarri,
aize ozkirriz onduriko
ortzi argi, ikusgarrizko
egunik eder, zoragarri,
egunik argienetan ere,
zuri, beltz, nabar, naiz urdin,
berein margo ezbai, goituren
bitxikeripean ..., alako,
bildurrezko ekaitz-sortzaille
diran odei illunean baten
itzala ortziratzen dala,
amets gozoakin zainduriko
ikuspegiak estal-araziz ...

Gizonaren buruzpideko
agerkunde alai, biotzaren
loretasun ta, lurriñezko
atsegiñaldi edergarrien
egunik gozoenetan ere,
usterik gutxien ditugun
eztai, naiz beste onelako
bizi-aldiguneren baten.

Itun-beltzez oreturiko
kezka, zalantza, naigaberen bat,
bizitzan beti dugu zerbait,
biotza erre-mintzen, zauritzen
diguten negar-mindurazko
odei beltzen bat edo beste,
ametsik gozoenak ondatzen
dituen itzalduraren bat.

---
* *Esk.* XIII, 16.
** *Esk.* XIII, 17.

## BIZITZA*

Bizitz-itsasoak dakarren
neke, lazdura, arantzaz
beterik ibilli arren,
atsegin zait bai, bizia,
oi dan ioan-etorriaren
ugin, itsas-goraberaz.

Bai, atsegin zait bai, beren
egitarauzko izantzaz,
egunaren ta gauaren
bildura ikusgarria,
aizeberatzen gaituan
aunditasun sakonaren
zadorpe arrigarria.

Gau-egunen igiduraz
zirkintzen garan mundura
begiak zabal, itzuliz ...
Bai, pilpilkatu gaitezen
ementxe, gure lurrean,
ogiaren ta izerdiaren
bizi-eragin ororen
sustraitasun gogorrean,
udabarri ernaituaren
aizeño ezez, eguzkiz,
ondu eta aseturiko
landare baten antzera,
egiazko poztasunean
biotzak ederrik zabalduz.

Mundu latz ta gogor onen
zorigaiztoko beltzune,
ondabide guztiakin ere
ba'ditu biziak, beren
loreburu ta, emaitzak,
zorioneko eresiaren
dirdiraldi atsegiñak.

## URTEGIRO ATSEGIÑA**

Zure biotza udaberrian
loraturik dago
eta udara da errian;
goazen ba, gorago,
or goiko muñora,
begiratzeko urrutira.

Goazen erpiñera,
zerua asten dan lekura
gogoa zabaltzera,
igarorik arratsaldea
itxaro dezagun izarra,
poztasunez betea.

Udagiroko aizearen
egurats maitariz,
azkatu ezazu adatsa,
ba, mintzaira argiz,
arratsaldeak digu eskatzen
edertasun ororen biotza.

Urregorrizko egutaroz
betetzen ari da
piñudi itzaltia
eta, zu lore, zitu beroz
zaude bai betea,
maitasun laztanezko egoz.

Entzuten ari zara ...
Au pozaren poza!:
atxillotua, arri artean,
ibaiaren abotsa;
lur agortuaren gaiñean
uraren egarria
goietara deika.

---

* *Esk.* XIII, 18.
** *Esk.* XIII, 19.

## MIRARIPEAN *

*Abrisketa'tar Patxi'ri*

Gogozko bideratzez
or, begiak dituanak,
ta begiratzen iakin...
bereak ditu egalak,
barrenki, biotzarekin
argiro itzegiñez.

Izadiaren lorratzez,
egun bakoitza bere
ordu eta egoeran;
zeru ta lurrak ere
betiko etorreran,
ixilbide sakonez.

Ezkutuaren ezkutu!
O, zenbatzu ameskada,
itzal-argi maitetsu!
Ta zenbatzu goikada
aizepean ederka,
izangurazko elez!

Bizia da bizin-min,
bizia lur ta urez,
bizia goi ta makur,
bizia bai, egamin,
inguma ta txoriakin
bidebera, xurrumur.

Itxasoz, zelai-artez,
odeiaren, lañoaren,
mendietako gallurrez...
intzaren, lorearen,
ta millaka biziren
agerpen ta izatez.

O, bai, agertze onen
miraritza betean,
inguruak neuganduz...
Egoa naiz, betiren
zabalpe zabalean
gogoa betiratuz!

## NIREA DAN ZERBAIT**

Nirea dan zerbait ostenduz doakit eguna
arratsalde eguzkigearen laiñope makalez,
etorri goibelaren ikustasun illuna
barruratzen zaidalarik gogamen itzalez.

Alaz ere atsegin zaidan izadiz nabil,
odei arteko argi brintzaen billatzez,
izatearen zentzu-bidezko sakon-zabalez,
aurkitze maitagarrietan enetua ... ain zoratil!

Aizearen ego arin, lorearen lurrin bipil
ta goizeko sorrera eder naiz gau-intzez,
udaberrian goituraz naiz neguan ixil,
bakoitzak berea damaikit gogapen-elez.

Bai, gauzak or dagoz izate apal, ederrez
beren agerkera goibetsu, mintzaira ixillean,
or dagoz bakoitzaren neurri, izantzapean,
izadiari darion emaitasun ta sugarrez.

Ta, aunitz agerbide bitxiren erakustez
gauzak beren gogo, izantza dagerkidate
laztan gozoz. Ta, bizi-ikara samur batez
Iainkozko ezaupide beiñenean nabilte.

---

* Olerti 1980, 69-70; *Esk.* XIII, 20.
** *Esk.* XIII, 21.

## EGUNEN BATEZ*

Biar edo etzi,
egunen batez;
ordu ezkutu,
ordu larriz;
bakoitzak
bakoitzarenez
ordaindu
bearko dugu
geure zorra
ta, ixilki,
beatz puntan,
maltzurkiro
etorriko zaigu
gure Balbea,
bizia
estaltzera,
oial illun
beltzez.

Esan bearrik
ez dago
ba'dakizutela
bai, ondo,
oraindik
iñor ez dala
ioandakorik
etorri
agur egitera,
Aruntzagoko
bizitza orren
berri,
guri ematera.

Utsune ezezaun,
illunpe illun
beltz ori,
ezin dugu
argiz iantzi
ta, zerbaiten gogo
bearkizunez,
guk geuk
betetzen ditugu
geuron buruak,
diran ta
ez diran
ipuiñezko
antolamendu
ta ameskizunez.

Gu geuk
betetzen ditugu
geure burutasun
ta iainkokerizko
egiantz argidoi
ta beltzdura
illunez.

Izan diteke
—diteke bai—
noizbait
gizona,
asmatzez
nekatzen dan
egunean,
utsetik zaigula
asiko,
—berrien berri—
bizi izatearen
egia ausnartzen.

—Erruz ala ez erruz—
gure buru illunetatik
urruti dago ezezauna
ezkutu sakonean
amildua;
urruti dago
oso urruti,
usin beltzean
giltzapetua.

---

* *Esk.* XIII, 22-24.

Alaz ere
lilluratzen gaituzte
begirik urrutienak,
izpi brintzaz
gure ikus-miran
zadorpean
loratzen direnak
ta, gero,
aren ezkutu itzalean
iges dagie iges,
baiña, lurrunpean,
gelditzen da sakabanaturik
aren eresia.

Gizona ezezaunaren
ariak argitu nairik
ari da-ta, beste izarbel,
beste lurraso batzuk ditxaroe
gizonaren lorratza.

Ortziak bearbada
mendeen sakonetik
lilluratzen du
zoragarrizko murmurioz
edota, azkenik ezak
gautegia dan begirada baten imanak bezala
bereganatzen, urbiltzen ditualako izarlariak,
goietako izar, aruntzagoko, betiko Zer otez ...

## EZKUTUPEAN*

Itzalezko ezkutupean
norbait ari zaigu bai, deika,
Gauaren illun sakonetik
norbaitek digu itzegiten
izenak aitatuz, esanaz
zer izan giñan ta zer garan,
gure ibilli betituaren
kondaira osoa emanik.

Norbaitek ixil digu deitzen
eta norbaitek ondo daki
gure bizitzako mindura,
gure nai ta amets guztien,
gure eromen, gure utsaren,
deustasun miseri gorria;
maitetasun ta gorrotozko
egun, ordu, gure bizia ...
Bai, Betikoak ondo daki.

Deika ari zaigu, bai, deika,
Gauaren barru sakonetik ...
Ta, guk, biotz! zer daruntzagu?
Bizi zear, igaroz, ai!, gure
Zoriak, noruntz garamazki?

Mintzo ixillez ta, Gauetik
deitzen digunak ondo daki,
egunen ordu, gure berri!

* *Esk.* XIII, 25.

## ITURBEGI MINKATZA*

Iturbegi minkatzezko
mundu gaitz-bidetuaren
abiadura itsuan,
gaur ez dago
burua nun atseden,
ezta abestiari ere
uberka zuzenez
bidea eman
eta giartsu bizitzeko
erakuntza, tokirik.

Ez dago tokirik
itz iariozko
iardun, ekiñetan,
gogaiak eta gogaiak
ari sendoz lotu
eta mundu ontako
lokatz zingiran
ederrik, udaberriak
margotzeko.

Itzak eta itzak,
ardura gabe
illunki metatuz,
gizona ondatzen
duten egintzak
soin burutuz ...

Noiz izango ote
biziari laguntzeko
mintzo utsa baiño
askoz egokiago
diteken egintza,
maitetasunezko
Argi, eraberritze,
iturbegi eder ori?

Adimen utsa baiño
biotzez aruntzago
doan neurbide egokia,
bere zorion aurka
mundua gizonak
iñolaz, bein ere
ez duana kaltetan
ezer, antolatuko
eskurik iasoko?

Izanbide ongarrizko
alkartasun altxortsuaren
gogamen-bioztu,
erantzun sakona:
arrokeriak,
biurrikeriak,
ikus-eziñak,
bekaizkeriak,
loikeriak
eta, mundu itzean
osatzen dan galmen,
gorrotoa;
bizi-aurkako
erabagi oro
sustarretik ebaki
eta bein betiko
gaiztakeriaren,
gorrotoaren,
odol gosezko
iauntxokeriaren
azi, belar txar ori,
kenduko duanik
ez ote ba, ezer?

---

* *Esk*. XIII, 26-27.

## GIZONARI BURUZ*

Gaur egungo ondorio beltzera begiratuz,
(lur ikarak, ondamenak, eriotzak, gudaketak)
illunaren margo beltza zaigu nabarmentzen
gure bizi-naiaren zorion-menduak, apurtuz ...,
egunkariz, urrutikuskiñez ta irratiz
munduko izpar-ariak geroago ta beltzago,
petrolio sundazko berri gaizto, zatarkeriz,
gizartearen egoneziña, larritasuna,
gizonaren txatxukeria dute aizeratzen.

Etengabeko burruka ta, odol ixuritzez,
betiko, alkar iraintzeko gorrotopean,
betiko, aundi-maundizko kirtenkeri latzez,
betiko, bekaizkerizko burutapen biurriz,
betiko, basatikerizko asarrepean
itsukiro, zentzuge, egikera lapurrez,
orra or, buru goi, ain gangarkiro iagi dan
gizaki aurrerakoi, gizaseme urduria:
Iainkoaren antzeratsu gizon egindako
abereki altsua, gizon deitoragarria!

Negarra ta gosea, azi txarra ereiñik
betiko lerdekeri eztentsu, iguingarriz,
ainbeste Biafra ta Viet-Nam ta, Israelez,
ainbeste Txile ta, ainbeste espetxe-zulo
(etxeko ta kanpoko) ainbeste gogorkeriz,
egungo munduaren egoera itun, beltzean,
anaiak anaiakin alkar ikus-eziñez,
erriak goseak ilten uzten diranean ...

Ba'dirudi gizakia dala otsoki gaiztoa,
lurra ondatu, itsasoak ere kutsuturik,
ortzi goi-aldeak keartzen ditunaz batera
ba'dirudi bai, eriotza zabaltzen ari dan
gizaki biurri, gizaki ondatzalle ori,
abere piztietan aundienetakoa dala...

---

* *Esk.* XIII, 28-29.

Mintzoaren argitasunez apainduriko
gizon-goi-maillaratu, gizon aintzaldu ori,
langaillu berri ta makina zoragarriakin
ta, atomuaren altasunezko indarrakin,
eriotzea or buru gaiñeratzen dualarik
ez ote da ezer gizona onbidetzeko?
Gizona argimen on-bizira ekarri ta,
zentzutuko duanik ezer ez ote dago?
Ez ote dago ba ezer, griña txarretatik,
gizona gaizkatu ta zuzenbidetzekorik?

Zergaitik ari ote da beti ain zetati,
ibaiak, itsasoak, ortzia ere kirastuz
zergaitik, gizona, gizonaren aurka,
ibaiak, itsasoak ta, bazter oro ondatuz,
zergaitik ari ote da gizona ain biurri
zorigaitz ondamena oñarritzen dualarik,
zergaitik beti, aundi-miñez, beti burruka,
izadi, gizarte, bizi-poza ondaturik?

## AURREKOEN BIDE BERDIÑEZ*

Gure egunen ioanean
—batzuk leno, besteak gero,—
eroriz doaz, eroriz,
zugaitzetako orbelak;
eroriz, gau-egunezko
amets-orriño zimelak,
bizi izatearen zoriz.

Ibaia lez itsasora
utzi ioaten, igarotzen,
egunik zenbatu gabe;
bakoitza bere ariora
utzi bai, ioan ioanean
doazen bezala ioaten,
bakoitzaren ibillian.

Noiz izangoari begira
gure orduak zenbatuz,
ez ba, geiegi estutu;
ibilli bai, arnas artuz,
goiz bakoitzeko argira
egunean egunekoz,
datorrena egokituz.

Ixiltasun aize otzez
edatuz bere lurruna,
etorko da bai, etorri,
itzal beltzezko eguna;
ta, ioango gara, ioan,
etorri giñan bezala,
aurrekoen bide berdiñez.

---

* *Esk*. XIII, 30; *Esk*. XXIII, 69.

## ARGIREN BAT BIZTUZ*

Baldin nai izanik, zerbait izan,
abiatu zaitez kementsu, sendo,
ta zoaz buru zut, argiren bat biztuz;
bideko negar, atsegin, aizepean;
bideko arantza, oztopo artean,
zoaz gogoz, etsipenak menderatuz,
zuzentasunezko ekintza argiz
elburu oneskor baten uginpean.

Egokitu bidearen gogorrera,
bidearen aztun, bidearen illunera,
ta zoaz, billaturik zeurez beste,
bidea arindu, bidea errezagotuz;
zoaz, ekaitzaren ez itsasoaren
orro izutiei amor eman gabe;
zoaz, etengabeko iardunean,
mundu obeago baten ametsean;
—erri, sendi, bizitza ororen alde—
egitasun burutsu ta bioztuenez,
zoaz, zarana azter ta, arakatuz;
zoaz, izakuntzazko muin sakonez
egitura eder-onak aintzalduz.

—Aidekor, itxaropentsu, anaikiro—
Zoaz ta, eman zaitez alegin bizian,
zaran apurñozko izantasunean;
zoaz biziaren ona eskuratuz,
zintzo iokatuz egunen ibillian;
zoaz, egunak gozartuz unero,
gizatasunezko arremanean
on diteken zerbait gizarteratuz.

## EUSKARA'RI BAI**

Sendatuz gogo ta sustrai,
nortzen ari da erria;
esnatzen, gizaldietako
egoera beltz, aztunetik,
maite dugun Aberria.

Itzartzen ari zaigu bai,
urteetan buruturiko
gogamen illunetatik,
axol gabetasunezko
zabarkeri utsaletik.

Kaleetan erriaren naia
aldarrikatzen da alai,
Euskalerriaren gogaia
abots batez zabaldurik:
Euskarari Euskarari
Erriak baietz dio, bai.
Bai eta bai, bai eta bai,
maitetasunez beterik
abots batez ozen, lasai,
egia oiukaturik.

Bai eta bai, bai eta bai,
bai diotsa, bai, bai ... Erririk
geiena gogor baiezka,
euskerea sendatu nairik
bai eta bai, arranditsu
ari ba'zaigu maiteka
lau aizetara, bulartsu,
abotsa pozez iasorik ...

Nola ba, nik, ezetz esan
biotz-biotzean daroadan
neure izkuntza maiteari
nola, nola ezetza eman
amaren bular gozoan
xurgaturiko mintzoari?

---

* *Esk.* XIII, 31.
* *Esk.* XIII, 32.

## EUSKAL ARNASA*

Mintzoan, odolean, gogoan, biotz osoz,
naizen naizenez, maite dut bai, neure erria
ta, neuregan daramat betikotasun asmoz,
euskal senez abesturik neure aberria.

Nire abotsa erriarena, gizonarena,
giza-aldezkoa da-ta, olerkari abotsez,
euskerea da bai nire mintzabide gurena,
sustraidun egitura ta, berarizko gatzez.

Erdal izkuntza nagusituaren olerbidez
oskatzen dira ederrik Otero, Zelaiak ...
gorengo izar-antzo dirdir, gogai sakonez.

Aldizka, gogor, «Euzkadi mia» esan arren,
ez dira gure lurraren sustraizko emaiak
euskeraz ez bai'dira iñoiz ere mintzatzen.

## MAITASUNAREN NESKATXA**

Maitasunaren neskatxa aizearekin doa
usai gozo ta eztidun izanik adatsa;
beregandik igesi, bidelari panpoxa,
aizeari ta alorrari damaio gogoa.

Eragin azkar, aizea baiño ariñagoa,
grazi azkatua, arintasun bidekaria,
deus uts biurtuko litzake bera dan osoa
orotaratzearren bere doai oinkaria.

Liliburu ereskoi, urgainkari bakuna,
une bateko zitori, olatuzko soiña,
alaitasun egakoi ta erabat ituna.

Nire inguru dabil aren goi-oiartzuna,
estarrian sortzen ta iltzen zaidan sorgiña,
maitasun erailduaren arintasun aztuna.

---

* *Esk*. XIII, 33.
* *Esk*. XIII, 34.

## GAUA ETA EGUNAZ*

*Algo se muere en mí todos los días*
Eduardo Carranza

Uste ez izanarren gaua ta egunaz
egunero ilten da zerbait nigan: ametsak,
osasun, maitasun, pozaldi ta atsegiñak,
urruntzen dan orduak berarekin daramaz.

Etsipendurik nabil arratseko bidean
oldoztuz: Nun nire sasoia? «Ni au, ez naiz ni!»
Nire izantza nola aldatu da ainbestean
ta alako ioran ta sugar bizia itzali?

Ezezaun bat naiz bai, ene begien aurrean,
ameslari berri bat, lur arroz zebillana
atzo, ain loratsu ta gaur ... otalar gaiñean!

Udazkeneko orbelpean zalantzaz nago,
ezagutuz eriotza laster datorkidana ...
ia ez ote naizen ill baten baiño geiago!

## BI ESKUAK UTS-UTSIK**

Ta udazkeneko arratsaldean,
bi eskuak uts-utsik ...!
Udaberritar zitori, larrosak,
arako lora eder panpoxak
ta itxaropenezko amets sortak,
banan-banan udazkenean,
betiko erori ziran
orbelak bezala aizean.

Ta, noizik bein, bizitzan,
zerbaiteren gozotasun apurra
gelditu bazitzaigun ere
gure esku artean,
gaiñontzeko zorion adurra
ioandako egunen
itzaldurape nekezean
sakabanatu eta estali zan
aize beltzezko igiduran.

* *Esk.* XIII, 35.
** *Esk.* XIII, 36.

## BATZUETAN*

Batzuetan
obe da bai,
oroimen amilduetan
barrentzea;

auzoak, etxarteak,
igaroa gogoratuz
izanean, ioanean
murgiltzea;
aunitz
bizi eragozpen
ta ameseta zoroen
barruti galduetan
atsartzea;
obe da bai,
batzuetan
amiltzea
ioanean.

Obe da bai
azkortzen,
aunditzen
ari dan
bakartadeari
nagusitzen
ustea ...

Egia balitz bezala,
barrua tinkotu
ta, oraiñari
agur egiñaz,
obe da urruntzea.

---

* *Esk*. XIII, 37.

## UDAZKEN ALAZ*

Orbelak eroriz, ituntzen ta minberatzen,
lurra orriz betetzen ari dan bitartean,
urte-aro orail onen mintzo aizetsuaren
berakundezko bizi-ariaren etenbidean ...

Urrillako urretasun margo edertadaz,
goibelkari ari zaigu argia igesten
—ego aizearen, mendebalaren, iparraren,—
soiñularitza urduriaren udazken alaz.

Izadia gorri-makur, gainberatzen ari da
gauza eldu, umaotuen eskeintza ederrez,
ta ispillu ortan so dagigu barrenera,
ioanean doana gu ote garan ala ez ...

Ioatezko zadorraren abotsa datorkigu,
denporearen itza, udazkenaren ao-miñez,
iratzaen ezti-margo, belar orizkatu
ta gauza ororen nun-nai agiri dan urrez.

Denporea dabilgu betikozko ioanean
aizea balitz bezala, ibilli ariñez,
iziotzen garalarik an, gure aurtzaroan,
lenaldiko urteen goitasun txanbeliñez.

Udazkenak urreztatzen du gure biotza
elduarozko ikuste onen norberatzean;
egiazko agerpen, ixil-mintzo sakonean
argiro alkar lotuz: Bizia ta Eriotza.

Bizitzako goiberaen atsegin ta nekeaz
lerroz-lerro, amets gozo ta itxaropenak,
bideberako ustekizunik ederrenak
orbelak balira bezala, zapalduz goaz.

* *Esk.* XIII, 38.

## GOGOAREN NEGUA*

Illunberazko egoera billutsian
adar gorri, utsak, bere elburua
astintzen du gau-aize txistularian.

Negua. Neguko garrastasun otza
aizearen gogorkeriakin naastua,
goi-alde illunaren oinpean datza.

Kaleak ez du itzal beltza besterik
ta zinkurin luzeren baten oiua
dator, erdoitutako ate zarretik.

Azkenez illunezko bakartadea
da, neguaren magalean, otzandua
gogoak egin lezaken kabidadea.

---

* *Esk.* XIII, 39.

**1979**

## ISPILLUA*

Begiratu zaitez aurreko ispillu ortan
zuk egunoro dirakurzun izparringian:
eriotzak, lapurretak, auts-errea inguruetan...
Bai, zenbat ondamendi ezezkor[a] agirian!

Leiar zikiña, lausoa, giza izatearen
eralguntza gaiztoak bizi gaitun eguna;
orrialdez zear azaltzen jakun munduaren
ain ikusmira negargarrizko oiartzuna.

Atsegin gitxitxu daurkigu irakurtean,
ikusirik ainbesterañoko miseria;
lerroz lerro, ezbearra ezbearraren gaiñean,
etengabeko negar-malkodun lazkeria.

Egitura mingarri ontan bizi gara bai
nabarmenkiro, munduak daroan[b] abiadan,
ezin-biziz bizi gara, illunduraz, ezbai,
gogorkeri ta eromenezko dantzaketan.

Orrialde itun, kaxkarrak, odol ixuriaren
zauriz ta, bide esituetako arantzapez;
gertagai garratzak, gizatasunik ezaren
ondoriotasunez nagusitu dan gau[c] baltzez...

Burniki ugari dugu; ordea, garirik ez.
Ta saltzen dira kontzientzirañoko guztiak.
Ez da banatzen ez ogirik zuzentasunez
ondatuz bizitz[d] iturri ta emai garbiak.[e]

Lerro batzuetan abesten dautse[f] itxasoari
aizeraturik itxaropenezko oialak;
udan[g] azaltzen diran ingumatxu[h] apalak
lez,[i] bizi-poz atsegin bat emonaz[j] biotzari.

---

* Zer (1979, [25]zenb.) 7 (*C*); *Esk.* XVI, 2 (*B*); *Esk.* XVII, 1 (*A*). Esku-idatzi onetako (XVI) olerkiak 18 orrialde egiten ditue, eta gitxi gora bera 1979koak dira; orregaitik noiz ingurukoak diran ipinten dot... (c.).
[a] ezezkor *B* deusezkor, *A* negargarri [b] daroan *BA* daraman [c] nagusitu dan gau *A* goitu dan gauaren [d] bizitz *B* bizitzazko [e] ondatuz bizitz iturri ta emai garbiak *A* ondatu bai, bizitzazko sorburu, emaikiak [f] dautse *BA* die [g] udan *BA* udaran [h] ingumatxu *BA* inguma [i] lez *BA* bezalaxe [j] ausegin bat emonaz *BA* bat erantziz.

Eguzkizko argigune pozgarri,[k] laburrak,
laiñoz beteriko egun goibel illunean;
maitezko agerkera, eder-aldi apurrak
dira, etsipenezko egoera garratzean.

## LAGUNTZA*

Bizitzako arantzak
eta garraztasunak,
bizitzako ekaitzak
eta, gogai illunak,
gure igarotzearen
oñazedura latzak
arintzen ta samurtzen
lagunduko ezbalu
egizko maitasunak ...

Nola bakartadearen
illundura, esturak,
ai, nola guk aldendu
amatxo kutunaren,
emazteki maitearen
adizkide on baten
laguntzik ezbagendu
nola neke, arantzak
ai! nola guk baztertu
egizko maitasunak
lagunduko ezbalu.

---

[k] pozgarri *BA* atsegin.
* *Esk.* XVI, 3 c.1979).

## ODOLAREN BESAPEAN*

Karraxi dagin odolaren besapean,
neke, oñaze beraren tantoak dagoz
negar-malko illunezko loturapean.

Aldia leporaturik gurutz bidean
gizon-neurrizko aztutze bat dago
ezinbizizko zadortasun itzalean.

Iosu'ren nekaldizko gomutapenean
aunditasun bat dago erdiragarria,
gizaldi luzeetako igarapenean.

Eta erditzearen inguruko bidean
urduri dagoz noiz ikusiko argia,
etorteko diranak egunen batean.

Itxaropena dago gauaren barnean
ederrik, noiz izango alako eguzki
emailletuaren sorrera gure artean.

## SUSMOA**

Txori urdiñen abesti samingarria
ixillean entzun nuen.
Nire odolak
itundurik
ainbeste eriotzez
nire muiñak zanpatu zituen ...
Udaberri zimel eta samintsu baten
asieran,
esku dardaratiekin
udaberri bat,
zarkituriko udaberri
arre ta erre-min bat.

Galdetu nintzan ze margokoa zan arratsaldea,
eta erantzunik ez nuen izan.
Zuaitzak ez zeuden soñanzkiturik
oiturazko beren margo alaiekin.
Jendea, bidebera, begi ixiltsuekin
eta, arein eskuek ez zuten eskeintzen itxaropenik.
Orduan, neure besoak jetxi nitun
ta, oldoztu: —Azkenengo udaberri bat izango da
bearbada. Biar ilko dira zuaitzak!
Bakarrik geldituko da ibaien oroimena
eta Udaberri itz eder ori!
Bada ni sinistutzen asia naiz
gizona dala bere buruaren iltzaillea!

---

* *Esk*. XVI, 4; *Esk*. XXII, 25 (c.1979).

* *Esk*. XVI, 5; (c.1979).

## ORDUKO EGUNAK*

Areik orduko egunak, egun garratz, latzak,
gudea galduz gero, erori giñanean
gu, euzko gudari gaixuok, ala bearrez,
españar esitura dollorraren menean
areik egunak, egun areik benetan beltzak,
ixeka, irain ta, eriotzazko zigorpean
geuron buruak erre-mindurik ikustean
ama askoren malko, erri baten negarrez.

Areik makilpeko egun latz, ordu garratzak,
izantzazko soin ta gogoz, euzkaldunok lotu,
betiko ondatu nai izan ginduzteneko
egun ixilkari, berankor, egun izotzak;
areik egun otzakil, egun madarikatu,
areik egunak, ezpatazko agintepean,
etsipendurik iarri zituzten gure biotzak
erri-loturazko ain mindura gogorrean.

Areik ondamendizko, areik etsipenezko
egun bildurgarri, egun minbera, goibelak,
udaberri ondatu baten negu antzeko
egun areik, giltzapetuen kezka, negar-alak,
ta, eraildutako martirien odol-usaizko
lorratz mingarria edatu zuten lurrean,
illetazko eresi ta, beltzez iantziriko
etxe askotako kearen larritasunean.

Alan ere, areik egun minbera, minkatzak,
bildur-eragozpenezko ta, etsipenezko
lazdura, indar-gogorkeri ta guztiz ere,
ez ziren ez duin izan euzkaldunon biotzak
sustraitik atera ta, betiko, senik gabe,
frankotiar itzalpean suntsi ta ondatzeko;
ez ziran ez, duin izan, areik egun traketsak
edozein ormatan abenda bat erailtzeko.

---

* *Esk.* XVI, 6 (c.1979).

## BURU JABE*

Buru jabe. Gizon nai zaitut ikusi
illun-oker ororen aurkako senez
gizon nai zaitut, ez makur ta itsusi.

Olerkari argidoi ederzale
bizitzazko iturburuen kantari,
ta onbidezko gauzaen begirale ...

Olaxe zut, zuzentasunezko asmoz
entzutera nator zure abestiak
maitetasun abotsez baldin badatoz.

Zure abestiak entzutera nator
benetako argi ta gizatasunez
baldin badatoz ederrik ta alaikor.

Izar ikutuzko ibilte bakunez
ta, gauaren ta egunaren arteko
bizi izatearen ontasun lurrunez.

Argiaren, egiaren, gizatasunaren
eskutik datorren erraiñu-abotsa
entzutera nator gaur ta beti, emen.

Bizia ta ederra otsegiten duten
biotzezko abesti lilluragarriak,
bizi-poza dutenak aldarrikatzen.

Abots sendodun abesle olerkari
itxarozko ildoetan ontasunez
sustraitzen zaran gogo ameslari!

Ezinbizizko mundu triste, larri bat
zauriz, odolez dakusgun bitartean
biotza eskeintzen dauana obaritzat.

* *Esk*. XVI, 7 (c.1979).

## NEURE BURUARI BURUZ*

Ni, neure buruari buruz mintzatzen ari naiz
ori dalako nik ondoen ezagutzen dutana,
ni naizen gizonatzazko oñaze, ondabidea;
ordea, etsipenduriko gizaseme aunitz asko
nigaitik iardunean ari dira, bai, mintzatzen,
euren buruari buruzko oiturak nik onartuz.

Ikus, mintzatzen ari naiz neure buruari buruz
ta, egia, esan, ez dut zeaztasun eman bearrik
baiña, nire aldamenean begiratzean
dakustaz sekulako ondasunak, eder-bitxiak
zorionerako litekezen ainbeste erabide,
ainbeste altxor, babesleku, aterpe,
ainbeste ur nire egarria ain aundia dan bitartean
ainbeste ogi erretzen okindegietan,
ainbeste aantzitasunezko zergai,
ainbeste menderatzen nauten aitzaki;
leporatzen zait bakartadea eta laguntzarik eza;
logela zelaigunearen ordez,
ta baso, oiana izan bearrean
agiri agergune utsa besterik ez.

Baiña ni murriztu egiten naute,
beste mueta bateko urisemetzat artzen naute
ta betekizunak leporatzen dizkidate
oztaz kabitzen diranak nire beso-artean.
Alaz ere ni neuk moztutzen ditut
neure gogo esturatasun larriak

(ori egia da bai
baiña, nire atzetik
minduraz, erostaka,
gudaloste gosetiak
mundu bat aldarrika
nire kanta berdiña
oikatuz datozte).

* *Esk.* XVI, 8 (c.1979).

## EURIAREKIN*

Zalantzarik gabe euriarekin eskontzen naiz
euri eder, euri lodi, euri zirimiri,
edozein euriz.
Bera izango da nire lagunkidea,
berarekin ioango naiz eskutik
emendik, andik,
berarekin amets egingo dut,
berarekin eskontzen naiz;
zalantzarik gabe euriarekin geratzen naiz.
Maite dut aren soiña,
aren lodi-argala,
aren busti atsegiña;
euriarekin geratzen naiz
ederra dalako,
lorriña dalako,
ustegabea dalako
euriarekin geratzen naiz,
edozein euriz.

Beti nauzu zure laguna. Ur bizi kutuna!
Gaur noruntza ioango gara?
Nun egongo gara gaur? Nundik nora
eta norekin ibilliko gara?
Oi, euri laztan, euri gogor, euri izuna!:
Nun egongo gara gaur? Emen, an ...
urietan,
alorretan,
itxasoetan ...
ta zergaitik, zergaitik ez eremuetan?

Oi, euri, euri ... Bizitzaren Ama!
Urrunetatik etorria ainbat amets sortzeko.
Mendiak, zelaiak, alor oro begipetuz
ibilliko gara, bazter-alde orotan
euri gozatsu ederra opatuz
nun-nai maitasuna sor-arazteko.

---

* *Esk.* XVI, 9 (c.1979).

## NIRE ABOTSA ORTZIAN GELDITU ARTE*

Gure gaitzak kentzeko
osakairik onena
gogo guztiarekin
barre egitea
indartsu
ezurrakin,
urdaillarekin ...
galdutako denporea
gau batean,
egun batean
eskuratu.
Eztago
denpora geiagorik
ba, bearbada
gero,
ezurrak,
urdailla
ikolik
geldituko
dira-ta,
gerta diteke
gauza zarra izatea
barre egitea;
eta, denporea,
denpora geiegi
barriro lengo
senera itzultzeko
gero ...

Orregaitik
dagit,
barre, barre, barre,
barre eta barre
nire abotsa
edaturik
ortzian
tinko,
geratu arte ...

## EREINTZA**

Erein
ogia,
maitasuna,
egia,
erein
bizia.

Eskua,
burua,
biotza.

Erein
bakea,
ondasuna,
osasuna
bizitzeko
gogoa
erein.
Ildako
illik
ez erabilli
gizartean
gorrotoa
ereiteko,
ildako
illik
ez erabilli
agotan
bizia gaiztotzeko
eta gero
ill barriak sortzeko.
Ez erabilli
ildako
illik
eriotza
geitzeko.

---

* *Esk.* XVI, 10 (c.1979).
** *Esk.* XVI, 11 (c.1979).

## BIZITZEKO GOGOA*

Bizitzeko gogoa
atsegin pozezko mozkortasun au eman zidatenak
larrua legun, begiz beteriko aizearen antzera
ikuitzen, laztantzen, dakitenak besarkatzen
ederrik, aundikiro,
zadortasunezko ortzipe, goi-aldeak,
sustrai artean argia azkortzen dan zuloak,
il-zoriko erdoiak eta beste aldi bateko
suntsidura, ondamenak,
eundaka mendeetan daudenak;
alaitasun altsu au eman zidatenak
egoteko emen, zure itzalaren azpian
zure besoak miazkatzen ditun uraren antzerako
egarri ase-eziñezkoa;
maitatzearen antzerako eromenezko
zoraldi zoragarri au eman zidatenak
udako ostoaren eraberakoa izateko
edo osto ori eramaten alegintzen dan txingurriarena:
obeto esateko,
laztantasunez inguratzen nautenak
niri eman zidatena
eta barrutik
daramatena;
indar berezi bat ere eman zidaten
aserrezko ezkutu bat
samintasunari aurpegi emateko
eta baita eman zidaten
bear dan añako
amets kopurua,
gainditutzeko, eta eraman al izateko
ene gaiki ñabar au,
pilpiduraz beteriko illobia,
nun lotu ninduten betirako
soñeratuz alaitasun eta samintasun au
eta izatezko lorrinkeri au,
eta oiuka esatekoarena ixillezko danbatekoz
eriotzazko ate ororen aurka.

---

* *Esk.* XVI, 12 (c.1979).

## BIZIAREN ALDE*

Eresiaz kokildurik gelditzen da arerioa;
eurek ez dakite ezer ere,
erailtzen ere ez.
Guztiz latzak
dira eta
garratzak.
Ordea guk,
badakigu bai, alorren eta pinpilinpauxen berri,
eta aize-kirri ezearena.

Guda erasoak, gogorrak,
suntsigarriak izanarren
gu gara almen aundikoak.
Ori da bai alderantzia,
arein eta gure artekoa;
or datza gure ezberdintasun
ain nabarmen eta nabaria.

Azkatasun ugarte antzeko
lurralde anaikor eta
egintzatu bat nai dugu,
itxasoa bezin ikusgarria
eta doai onez gatzitua,
maitetasunezko olatuz
gure bakoitzaren ontzia
izan dedin bai kulunkatua
eta guztion onerako
gure elbideak bateratuz.

## ORI NAI IZANIK**

Ukatu zaitez ori nai izanik, ta, bein batekoz
murgil, suntsitu zaitez bai bide bazterrean,
sar zaitez illunarekin,
igaro zaitez eguna bezala uraren gaiñean:
lorratz, aztarnik bat ere ez utzi
ezelakorik;
ez utzi zeure irudi
ariñenik ere emen;
itzuli zaitez zeure iatorrizko gaikira,
zeure asarrezko deustasun utsalera
bukatzen duzunean,
baldin ori nai izanik...

baiña, arren, leenago
izan zaitez bai, izan zu,
abestuz ekaitzaren aurka,
baita izan zaitez, izan gu,
eriotzazko ugiñen aurka gogoz abestuz,
izan zaitez izan zu eta eraberean izan gu,
gure narruak miñ ematen dizun arteño
nabaiturik gero zure ezurretan
gure karea, gure alaru zuri-zuria
zure buru ezurretatik erortzen dan poxporu
berbera. Gure ta zure ez-izantza betikaria!

* *Esk.* XVI, 13 (c.1979).
** *Esk.* XVI, 14 (c.1979).

## URTEGIA*

Urtegi bitxia
illargi betearen
aurpegiz iantzia
eder, iñoiz bazen.

Argizko pozetan
izarteriz dirdai,
samurki zakust bai
neure oarpenetan.

Egazti gautari
ta, kir-kir ozenez
gauak ots, ots dagi
zerutasun betez.

Gauzak edertzeko
maitasunak abes
dagi bai, baitezko
urretxindor biotzez.

Uda gentzapean
begira nagotzu,
zugan ikustean
ainbesteko zeru!

Mintzo ixillean
ni naizentxo utsez,
galtzen naiz gauean
zer ote geranez.

* *Esk.* XVI, 15 (c.1979).

## ELURRA ERORTZEN IKUSTEAN*

Gau antzeko eguntaroan
elur malutak maramara
dakusdazanean erortzen,
oroimenak ene gogoan
bat-batean dira agertzen
egun goibelaren menean.

Ta elurra gauzak estaltzen
ari danez, lurra zuritzen,
ezin ba esan oraindio
ezer, ene lurra argitzen
poliki or ari danean
izara zuriz soñanzkitzen.

Ametsa ez dan ametsean,
biotzari alako ikara
mindura bizi bat dario
elur malutak maramara
erortzen dakusdazanean
oroitzapenen arabera.

Gudariak luban barruan
dakustaz egutats otzezko
inguru zuri dunbatuan,
gudariak etsai aurrean
aize beltz otzaren neguko
eriotz-dunbatezko mezuan.

Zuritasunaren gardena,
zuritasun zuri zuria,
ain argi dan elurrarena;
eguna duana irintzen
ta egunarekin batera,
gogoarena ta biotzarena!

Elurrean dakust orbana
odol gogortu gorriarena,
bizitzazko itxaropenez
aberri alde eror dana
ta gure martirien izena
goratzen duana abots batez.

Baiña gudan ibillitako
onek gudeatzaz ez du nai,
gudarik ez du nai geiago,
ez du nai, ondo dakilako
gudea zer dan oi, ene anai,
beste guda bat onartzeko!

Bai, otoi, otoi, dezagun bai
guk danok guztiok batera
eskatuz gogo betez, alai,
eman, indar gutxiago Iauna,
gudarako eta geiago
bakerako, eman kemena.

Ez nastu gure adimena
negarrerako ioka-bidez!

* *Esk.* XVI, 17-18 (c.1979).

## POESIAREN BIDEZ*

*Andres Athilano benezuelatar erdal*
*poeta aundiari*

Anaitasun eragiñezko asmo eta gogoz
ortzibera, uginbera, ederrik ta bipil,
Pucela'ren maite-laguntza ta esku sendoz
zure abotsa, ortzituz, itxasotuz dabil.

Argi billa, eder billa. Bai, zure abotsa
giza senez edatu da urrun, bein betikoz,
agertuz bidebera, zure zaurien biotza,
etsipen garratz ta, ameskizunezko mintzoz.

Sakon, barrengo ikuste eta begiratzez,
aberriko alor, mendi, lautaden izantzaz
iabetu zara, maitez landuriko neurtitzez.

Zure «Duida»ren odei gaiñetiko ibiltez
ta, «Venezuelatar Amalaukoen» edertzaz
guk, alkar obeto dazaugu Poesiaren bidez.

---

* *Esk* XLV, 130. (1979). Olerki au erderara ere itzuli eban (*Esk*. XLV, 131).

## «GIZATASUN ELBURUZ» (1979)*

* *Esk*. XIV, 1979ko urrian Larrako Olerki Sariketara bialdutako olerkiak.

## GIZATASUN ELBURUZ*

Ibiltezko gurutze aztun ta guztiz ere
bakartadea alboratzen ari naiz bidean;
elbururantza pozik ta erabat asarre
bizia errotu nairik gizatasunean.

Arrizko kalea, gogorra, dardarkaria;
zentzurik gabeko ibilladi zar onetan
begietaratu zitzaidan euzki pozgarria,
illunabarraren errañuzko agurretan.

Auxe gizon egoskorraren arnas artzea!
Auxe nekezko poza! Auxe mendi ostean
egun berriaren lorratza, sorkuna nabaitzea!

Biotzari itxarozko argia datorkio
eta, mozturik txarkeri beltzak, bat batean
maitasun etorrizko ur bizia dario ...

## ITXASOA**

Itxasoa, itxasoa, lurraren arbasoa.
Ibilli egin bear da bai, itxas-ur gaiñean;
ibilli ta dantzatu ugiñakin batean
zibu-zabuka kenduz begietako lausoa.

Ibilli egin bear da arraintzarako sarez,
ur kresalezko gatz bizia zer dan ikasiz;
ibilli egin bear da bai gau ta egunez,
egunoroko ogi irabaztearen zoriz.

Urrundietara ere ioan, mundu zabalez,
merkatal ontzietako gure itxastarrakin
bideak urratuz berein ortziren begipez.

Elkano berrien itxasbideetako ibiltez
lurralde bakoitzaren izaera ikusteakin,
begiak nirñirtuz alako gogo ta biotzez.

---

* *Esk*. XIV, 2.
* *Esk*. XIV, 4. (Ik. 688.orr.).

## HOMEINI *

Homeini, egungo «ayatollak» bizarduna,
Iran'go iraulketaren erri-buruzagi
ta, lenbideetako igarle ta aintzindari,
aulkitik bidaldu ondoren Sha bakalduna.

Ebagi nai ditu sartaldez kutsuturiko
usteldura zikiñaren belar txar guztiak;
sustraitik kendu, garbitu atzerrikerizko
gogai-ondorioz sortutako lizunkeriak.

Emakumea beren lengo gonatan sartu
ta liburuak autseratu, betiko kixkali,
iñor ez dedin geiago txarkeriz gozartu.

Koran izan ezik, besteak erre, ostendu,
errotik atera nai ei ditu... Oi, Homeini!
ta, errudunen eskuak ta buruak moztu.

## AMALAUKO IZANKORRA**

Egintzaratu zaitez argiz. Zoaz bidera,
Zeure gogoa, zeure sena erakustera.
Ez geldirik, illik egon abotsge. Atera
zaitez oskatzen dan bizitzazko ertzera.

Maitasunaz, umeak ere eskutik, ikasiz
gizonaren bakartadea ta ameskizunak,
ibilliz egingo zara, izerdia ixuriz,
aurketuz zeure egia ta ustekizunak.

Sortzeaz batera leporatzen da eriotza
ta laster ilko da bai Udaberri pertxenta,
zuk iaso orduko zeure abesti abotsa.

Atera zaitez orain zelaira, burrukara,
arturik zeure gurutza ta zeure ur tanta,
autsa dan aldi-gain egitazko argitara.

---

* G-Argi 21 (1980, 475.zenb.) 3. *Esk.* XIV, 5.
** *Esk.* XIV, 6; XIV, 12.

## SAREAN*

Iñolaz ez dute nai gu izan gaitezen gu,
—malzurkeriz, gezurrez, eskeiñi ta ukatuz—
eskua luzatu orain ta gero atzeratuz—
betiko lelokeriz nai gaituzte atzipetu.

Ume antzera —eman bai, ez eman—, tatika;
aspergarrizko maratilla, luzapenetan,
españar sarearen barruti, mailla estuetan,
ezin azkaturik, aurrera ta itzulika.

Bai, nekeak inguratzen gaitu, oñazeak,
bizi naiak damaigun ezbear, etsipenez,
baiña, argituko dira gure etorbideak.

Beraz, ekin gogotsu, sendo, ekin lanari
esku eta buruz, ekin bai, itxaropenez,
eutsiz gogor Euzkadi'ren alor, etxeari.

## AREN IZENEKO AMALAUKOA**

Argia aitatzeko, lorea ta egaztia,
zure izena beiñena da bai, olerkia.
Goizeko izarra, urretxindor, eresia,
egoa, aizeak ederrik dakin abestia.

Arkaitzpeko ur bizi, iturriño gardena,
izarra egun argi bateko igesian;
illunabarretako larrosa oberena,
amets itxasoetako olatu urdurian.

Urretxindorrak abes dagi zure omenez
ta izarra zure begietan geratzen[a] da bai,
argidun larrosea margorik usaitsuenez.

Zure izena da larrosa bitxien otoitza
ta goizaren etorreran itxarokor, alai,
eres-mintzo baikor ta eder ororen biotza.

* G-Argi 21 (1980, 475.zenb.) 3. *Esk.* XIV, 7.
** *Esk.* XIV, 8 (*C*); XXII, 12.[a] (*B*); XXII, 12 (*A*).
[a] geratzen *BA* gelditzen.

## MENDIAREN BIOTZA *

Ikusi, baso ta oian, mendiaren biotza:
zugaitzak, ur-begi, lats nimiño, mitxeletak,
zador ixillezko durundi, zarata otsa,
aize geldiaren abar-arteko mintzaketak.

Bidebarruak abes dagi, lan aramuak,
atondurik beren garaipenezko sareak;
ta oi nabari dira izantzazko legeak,
berein mailla ta katezko bizi-arauak.

Danak diraki biotz aundi orren barruan
ta gogoak, ederrik, izatearen senezko
goi-ikarea nabaitzen du aren ikutuan.

Ots dagi gauzaen izantzak beuren senean
ta, berarizko geldotasunez etzateko
gogoa sortzen zaigu bai, biotz barrenean.

## AMALAUKOAREN SOINTASUNA**

Argigarrizko adibide iakingarrietan
zentzuzko loturamen, neurri apaingarriz,
amalaukoa burutzen da gogai bizietan
udaberritar urrin gozagarrien zoriz.

Eder-sakonezko amets ta bioztasun oro
aurkezten ditu gogo betezko neurtitzetan,
txairo ta apain, egiztatuak osoro
goi-une oldozbidetsu, aintzagarrietan.

Benetan gartsu amalaukoaren sointasuna,
itz-ale guriz borobildutako bertsoaren
pinpirintasun dizdikor, izantza bakuna!

Bizitzazko gogo, irudimen aberatsez,
neurgai dotorez iziotzen du oldozkunaren
almena, betiko erraiñutasun zabalez.

---

* *Esk.* XIV, 9.
** *Esk.* XIV, 10.

## ARGI ORI *

*Esa luz de esas estrellas*
*es luz de otras edades*
Gerardo Diego

Argi ori argia izan baiño leenago,
deus utsa izan giñanean gu, beste begi
batzuek begiratu zuten gure argi ori
eta itsuturik gelditu ziran betiko.

Urrunak badu bai bere barrukoitasuna
eta iorantasunaren dirdiramenezko
usiñean beti daurkikegu bai, maitezko
izar anaikor ta adizkidetsuaren sena.

Ta argi ori, argi izango ez danean
ta gu, betiko ixilla, gaur deusa diranak
begiratuko dute bai, arrimen betean.

Azkena diran asiera biren izantzapean,
mundu-zear dabiltza bai, bira-biran, danak
bizi-arauzko ibilliaren loturapean.

## UDAZKENA**

Orri erortzean nabaitzen da udazkena,
arratsaldeko aize-egurats minkatzean
itzaltsu ta aztun, maldabera datorrena,
aldiaren lorratza itsatsiz gorputzean.

Illetazko etorri illunaren abotsa
urbiltzen zaigu egun moztuen geltasunez;
bizitza igaroaren orbelteritza otza
berarizko amets eroriren oroipenez.

Biotzak, ikuspegi amillez naigabetuta,
negar dagi zinkurinka ta, malkorik barik,
bizi-arorik ederrenean barrenduta.

Zer izangoaren ixilltzazko zadorrean,
oarpenez izadiaren orbelak iasorik,
atzoko oin-otsak dantzuguz an urrunean.

---

* *Esk.* XIV, 11.
** *Esk.* XIV, 13.

**EDOZEIÑENTZAKO** 471.orr.

## DANOK*

Danok alegintzen ba'gara, danok, alkartzen
sendo ta biotzez, esku ta buru ezarririk
suspertzen ba'gara ta guztiok ekintzatzen,
bai ote iñor erri bat menperatzekorik?

Euzko lurra landuz, bertan azi ona erein
ta maitasunez zintzokiro zainduz alorrak
emaitzatuko dira bai, kenduz ote-larrak,
euzkera maitagarria indarturik bikain.

Danok gogoz ernai, egintzapen bateratsuz
bakoitzaren gaitasun, alegin egiazkorrez,
danok, betikozko erri-sustraiak sendatuz.

Orduan bai, benetan, gure Erria Erri,
odol ta kimu berrizko egintza baikorrez
buru-iabetzazko Erri zar ta Erri berri!

## ERORI, BAI ...**

Nola ez! Eroritzen naiz, baitere zutitu
sekulako alegiñak egiñaz igotzen:
Nire ametsak ta etorkia elburutu
ta, gero, ibai antzera naiz itxasbidetzen.

Erori bai, ainbeste samin ta bakartadez,
eroritzen naiz bideko zulo, oztopoetan,
bizitzako eratura aztunaren nekez
eroritzen naiz nire egungo utsunetan.

Zutitu ere bai, ez izarretara, baizik
egun argitara, bizia nun egiztatzen dan
gezurrezko estalki oialak erantzirik.

Guda onen zergaitia ondo iakin ezarren
egunik egunerako bizi-eriotzetan
ez naiz etsipendurik, bertanbera etzaten.

---

* *Esk.* XIV, 15.
** *Esk.* XIV, 16.

# «GIZONAREN NEKEA» (c.1979)*

* *Esk*. XIV. Sariketarako gertatua da, baiña bialdua izan zan ala ez ez dakit. Olerki askok eskuz igiñiko aldaketa asko dabe, eta emen aldaketa orreik kontuan artu ditut; 1979n idatzia.

## GIZONAREN NEKEA*

Gizonaren nekea:
egin eta desegin,
igarorik bidea,
uste ta ametsakin.

Seaskatik illobira,
—gaur egun bai, biar ez—
gauetik egunera
beti, gaiztora bidez.

Egunetik gauera,
—etsipenez, ametsez—
oi, au gure izaera,
ondamen, zorigaitzez!

Mundua bira-bira,
etenbako ibiltez;
gizona maldabera
beren bizi-eziñez.

Ta, urduritasunez
urrutira begira,
beti zerbaiten eskez,
seaskatik illobira.

## BIZITZ ERRAIÑUPEAN**

Bizitz erraiñupean,
eguzki, izar-anotsez
oartuko bagintekez
igarune bakoitzean,

Zenbat bizi-maitetasun
izadiaren magalean:
zugaitz, egazti, lorean ...
zenbat ikara, goitasun!

Maitatzeko, ikusteko
biotza bear da, begiak,
gogo betez dastatzeko
bizitzazko iturriak.

Itsurik, bideak-zear,
nola ibilli diteke
ezeren oarmen gabe
ain garrazki eta zantar!

Maitasunik ezbadugu
gure biotz-begietan,
zer iaso genezakegu
ametsik bako eskuetan?

Oi! zu, errukarria zu,
agur dagin eguzkian,
erraiñurik ezpaduzu
nabaitzen aren argian!

---

* *Esk.* XV, 2.
** *Esk.* XV, 3.

## GOGO GOLDAKETAN*

*Zaitegi-tar Iokin'en oroiz*

Malkopean ixil,
barrua mindurik...
Zenbat argi-izpil
biziratu nairik;
zenbat ameskizun
ta itxaro bipil!

Bizi izatearen
atsegin - nekezko
bearkuntza gorria;
burua lantzearen
alegin, lorrezko
neke pozgarria.

Auxe gure naia,
euskera aldezko
ekintzapenaren
maillu, aitzur, laia,
gogo-itxarozko
bizinai agerkaia.

Emen ari gara
erri onentzako
argi billaketan;
ernai ta ikara,
mintzo zabaltzezko
gogo goldaketan.

## TILILI ETA TALALA**

Tilili eta talala
kantu guztien ama da
ta nai nuke, nola ala,
abestu neure argala.

Soiñuaren arabera
biotzez kanta eta dantza,
tilili eta talala,
sakonduz neure itzala.

Orekariak orekan,
arrantzaleak arrantzan;
danok gabiltza bizitzan
beartuak gure gauzetan.

Batzuk tilin eta talan,
besteak tarrapatatan;
izan nai ta ezin izan
geure gogo ametsetan.

---

* *Esk*. XV, 4.
* *Esk*. XV, 5.

## IRUDIA*

Leioetako euritearen
tantada otsetara
datorkit aintziñatar
eresia
berein bizi-gogoetaz
bustia.

Igaro ziran urteen
tristura iasanduan
da burua makurtzen
eldutasunezko
barrendura estuan.

Gogoak gelditasunezko
soinberatze ausnartuan
egunen aztarnak
ditu kolkoratzen
ta, da atsedentzen
beren kabuzko
ber-ikuste iorantsuan.

Itunak eta ederrak
dira bai, eraberean,
udazkeneko
ikutu oarpenduaren
orbel minberatuen
bera-bearrezko
azken argitadazko
negar-malkoa.

## EGUTEGIA**

Udazkena
ari da
miazkatzen
urduri
nire odolean.

Une berean
laztantzen dut
ikuspegizko
oarpenez
biotz-barruan
egunaren
berakada
lasterra
eror-miñezko
orbel-ikaratsu
an ta eman bertan
dilindaka
aizearen
ikutuzko
egungo
soka-dantzan.

* *Esk.* XV, 6.
** *Esk.* XV, 7.

## ALPERRIK*

Bizizko beartasunean
alperrik ibilli gara
maillu-mailluka utsean,
beti lurrera begira
norkeritasun betean.

Konturatu garanean
izarrak zeuden ederrik
zadorrezko estalpean,
zerbait adierazi nairik
beren dirdirtasunean.

## IBAIARI**

Euritezko urez
eta gaiñontzeko
iturburuz
ibaia
itxasoan
barruratzen danean,
nola,
nola esan
ibaiari
gelditzeko bidean;
nola,
nola esan
atzera egiteko,
ibaia
itxasoan
bere kabuz
kresalpetu danean;
nola,
nola esan
ibaiari
lengo sena artzeko
itxaso sakonean
ibaia
amildu danean.

---

* *Esk*. XV, 8.
** *Esk*. XV, 9; *Esk*. VIII, 8 (testo onek *nola*-ren ordez *zelan* jartzen dan).

## OLDOZKUNAK*

Adarburu betean
«ian naizuka»
ederrik dagozan
itxura oneko
sagar elduen
antzera,
alaxe dagoz
oldozkunak
eskeinka,
zuri,
niri ...
zentzuzko langille
iakin-zale
edonori.

Bizitzako zugaitzean
ederrik dagoz
emantzatu nairik
zorioneko asmoz
euren zadorpe
ezkutuko
iakituriaren
ondasunak,
ben-benetako
oarkari
eta gogoz
begiratzen
ta auznartzen
saiatzen dan
edozein gizasemeri.

## EREINTZA**

Landuz soro ta lurrik onenak
ereilleak, aukeraturiko
azi bereziak erein oi ditu
aroa eta garaia diranean:
garragar, olo, naiz ogiarenak,
gero, bai lasto ta bai buru,
uztatze ugaria izateko
ustekizun amesgarrienean.

Zuk landuge, nolanai, ordea
azi ona erein bearrean
ereiten baduzu barrabarra
ain kaltegarri dan irakea,
zuk zer itxaro zenezakezu
uzta garaia datorrenean,
bururik nekatu ezbaduzu
ereiñik alako belar txarra?

* *Esk*. XV, 10.
* *Esk*. XV, 11.

## LASAPIDEZ*

Bide luzeetan
(ura oinpean
ta izarrak
buru gaiñean)
itxastar gizona,
beti ari da
amesten
andrea,
pattarra,
erria …

urrutiko
portuetan
edatuz
barruan
daraman
bakartadea;
andrea,
patarra,
erria
amestuz …

noizbeinka
muxuren bat,
abestiren bat,
mozkorren bat
aizeratuz …

egun bakartien
ondoriozko
etsipenaren
lasapidez.

## EGIN DEZAKEGUNA**

Gure mundu lastertuaren
ibillizko gau ta eguna,
bizitz-alorra aundia da
ta danok egin dezakegu
zerbait. Zerbait bai, anaiaren,
gizartearen alde. Aundia,
aundia baita latzkeria,
gizonaren itsutasuna!

Danok dezakegu bai, zerbait,
itxarozko sen anaikorrez
gizartean, lagun artean,
danok dezakegu lagundu
maitasun argi sendakorrez,
danok dezakegu bai, noizbait,
gure munduko alorrean
ongarriren bat bitartetu.

Izpi brintzatxo bat bederen
gogoz biztu, izio dezagun,
maitetasunaren, egiaren,
dirdai atsegin emaikorrez;
gizabidezko gure sena
ereiñik bazterretan, kutun,
egiaren, zuzentasunaren
biotz-atalik oberena.

Itz adizkidezko oiartzun
goxo bat utzirik dilindan
norbaiten oroimen biotzean,
itxaropen dirdai apur bat
berbiztuz begi-malkoetan
edota, aidetsu, edonun
biotza ezarriz laztantzean
etxe-barru ta inguruetan.

---
* *Esk*. XV, 12.
* *Esk*. XV, 13.

## GAUR GOIZEAN*

Gaur goizean
emen ba ni
bakarrik.
Aldamenean
ez badut
andrazko,
gizonezko
adizkiderik,
nigaitik
edo aregaitik
eskua luzatu
ta zerbait egin
lezakeanik.

Ba'dut ordea
zerbait obea,
urrundik
aizean
datorren
lorearen
lurrin gozoa
lasaiturik
urduri dagon
nere kolkoa
eta biotzpea.

## EGUN GOIBELA**

Gaur Eguzkia
ez da atera;
odei artean
nasi-masia,
ostendua
geratu da.

Aize lagun,
zoaz bai, zoaz
zoaz lenbait-len,
zoaz arin,
zoaz odei arteko
nastekuntzatik
eguzkiari
bere burua
atera dedin
zoaz alik ariñen
eguzkiari laguntzen.

Egunoro lez
bere osterazko
ibilladia
egin al dezan
ta, zori onez, gero,
gure mundu au
iziotu dedin
berarizko
maitetasunez.

---

* *Esk*. XV, 14.
** *Esk*. XV, 15.

## ITZAK*

Zertarako
itzak
zertarako
begiratuaren
dirdira
sugarrez
biotzak
begietan,
ispillutzen diranean?

Itzak
zertarako
eskuak alkar
bata-bestez
samur
diranean
laztantzen?
Itzak
zertarako
igaro dan
arratsalde au
guztiz eder
ongarria
izan dala
esateko,
arratsaldean
nigaz batera
maitetsu
zu izan zaralako?

Itzak
zertarako
eskuak
iasota
agurtzen
garanean
urrundik?

## BERTANBERAZKO IBILLIAN**

Begik orlegiz iantziriko
uda giroan murgildurik,
—ortzi zear, egalik egal—
zeru zabalaren urrundiz
eskutik naramate, goiko
zelaietan, ontzi antzera
odei urdin, zuri-gorriekin
ene gogoa nastaturik
oial ameskoi, ederkariz,
bertanberazko ibillian.

Baita, eguzki dirdaipean
garo usaiez apaindurik,
arin doan lats kantariak
beren arabera narama
iauzika, mendibera, larrez,
iaio berria dan uraren
ibilli pilpil kutsugean,
kantuz nire buru gaiñeko
zuaitzean dagon txoriaren
irudi polita, ederrik,
uretan kulunkaturik,
ispillutzen dan bitartean.

---

* *Esk*. XV, 16.
** *Esk*. XV, 17.

## BASOKO LOREAK*

Basoko loreak dira eta
or dagoz bai ederrik asko,
—mendietan bide-bazterretan—
benetako otzantasunean.

Baratzaiñik gabe dagoz
—eurite eta legorteetan—
Iainko Beraren Eskuetan
bizia edertzeko asmoz.

## GAUAREN OSTOAK**

Gauaren ostoak
itzalsuak dira
ta bildurgarriak,
gure bakartadea
zerbait arintzeko
gure aldamenean
maitasunez dirdai,
izarrik ezbadago.

## BILLA GABILTZANAK***

Gogoz, ikuste ta senez
maitasuna, ondasuna
billa gabiltzanak gara,
bizi izan gurarik
aizean idazteko
ametsez beteriko
asmorik ederrenak;
billa gabiltzanak gara
lurrean ereiteko
onkiro ta zentzunez beterik
giza eskubidezko
azirik sendagarrienak.

---

* *Esk.* XV, 18.
** *Esk.* XV, 18.
*** *Esk.* XV, 19.

## «ESAKUNEZKO SOKO-DANTZAN»
## (1979-IX)

## TXERRENARI BURUZ*

«Deabruak izen asko ta danak gaiztoak»:
«Gaizkin», «beste mutilla», «txerren ta txarran», adar,
«prakagorri», «galtzagorri», «etsai», «plaga» ta abar,
danak ondo baiño obeto ezarritakoak.

Ondasunak-eta eskura aixa ekarri
eta etorri antzo aldentzen diranean,
«deabruak emon eta deabruak eroan»
esaten iako orrelako gertakariari.

Beti elizan sartuta dabillen atsoari:
«errosarioa eskuan, deabrua kolkoan»,
ondo emoten dakilako bai mingañari.

Orrelakoetan deabrua onez eukiteko
sartu boskotxezko ta apiozko lakioan»
ta gero... «bi kandelaz argi egiten iako».

## KATUARI BURUZ**

Katua. Ai, ze moñoñokeriak egiten ditun
piztitxo onek beren lenengo iostaldietan!
Katuak katu... Ikus katakumetxoak kutun,
bizitzako beren lengo katakerietan.

Miaukari. «Bene-benetan, katua berbetan».
«Katu baltza etxean, zoriona etxean».
Ordea, gure baserrietako ganbaretan,
arratoiek bai pozik, kanpoan diranean ...

«Katua da oiñik busti barik, arrainzale».
«Katua saguentzat tigre, tigreentzat xagu».
«Katua buztan luze, bera lez besteak uste».

«Katu zarra eznekoi eta sutondokari».
«Katuaren begiak illunean bi poxporu»,
eta... «katu ñaukaria ez ei da eiztari».

* *Esk.* XLVII, 144 (*B*); *Esk.* XLIV, 20 (*A*).
** *Esk.* XLVII, 145 (*B*); *Esk.* XLIV, 21 (*A*).

## GOGOARI BURUZ*

Gogoz egin, gogoz ian, gogoz ibili, gogoz ...
Ta, zer da gogoa? Gizon arima berbera.
Bizi izatearen agerpen[a] ta biotz osoz
adimentzen dan eragin, giza gogaikera.

«Nun da nire gogoa? An da nire zankoa».
Une bereko gogai, ameskizun, naimenez;
odolean dirakin gogo txar, gogo onez
azaltzen dan izantza ustel edo xaloa.

Poz ta atsegin edota mindura bel-beltzez[c]
osoturiko egunen itsulapikoa:
orixe da gogoa bai, buru eta biotzez.

«Gogoa dan tokian iñoiz aldaparik ez».
Bitarteko zaigularik gure Jaungoikoa
bidea erreztuz alako esku zabalez.

## ETXEARI BURUZ**

«Kanpoan lilirita, etxean margarita».
Zenbat bider gure esakunetan dakusgu
elemeleka ta, arro, —ez anka ez buru—
itxuratsu dabiltzanen gogo, ika-mika.

Tentelontzi askoren antzemate mazalak
etxeko laratzak ondo ditunak ezagutzen,
kanpoan irribar ederrez iantziak, apalak
ta etxeratu ezketiño diranak mututzen.

«Kanpoan uso, etxean bela». Au da gero!
Ta, orrela[a]: «Kanpo ederra, etxean gerra»;
izanik: «Auzoan loro ta, etxean moro».

Etxe barruko au bai bizitza gogaikarri!
Zorigaiztoko aurkezte ergel ta makurra:
«Kanpoan barregarri, etxean negargarri».

---

* *Esk.* XLVII, 146 (*B*); *Esk.* XLIV, 22 (*A*).
[a] agerpen *A* jarduntza [b] gogaikera *A* agerkera [c] bel-beltzez *A* nekezez
** *Esk.* XLVII, 147 (*B*); *Esk.* XLIV, 23 (*A*).
[a] orrela *A* beste bat

## ZARTZAROARI[a] BURUZ*

«Zarra izen txarra». Alan da be bizi nai,
zarreriz makaldua, minduraz[b] egon arren.
Mundu onetan[c] bizi nai alik luzaroen
bizi antzeko egoeran bizi-arren deslai.

«Zarrago ta txarrago»[d], «zarrago ta bearrago»[e],
baita[f] sarri askotan, «zarrago ta erreago»[g].
Zarra izen[h] txarra laguntzarik ezpadago,
bakartade utsean geroago ta goibelago[i].

Ezin ibilizko astuntasun, begi lausoz[j],
«zar eroa, gazte zoroa baiño txarrago»
nai ta eziñezko gogotaldi, amets zoroz[k].

«Zarra izen txarra», negu baltzaren goibelez[l]
iñolako laguntza, bururik[m] ezpadago
zartzaroa igarotzeko oi dan itzalez.

## BERBEARI BURUZ**

«Berba esana ta ur ixuria ezin bil».
Zenbat emongo leuken bai askok, berba ori
aizean edaturik ez ikustearren zazkil,
ta barriro lengo uts-utsera erakarri[a].

Ikasi bai[b]: «Berba onena laburrena»,
bizitasun egokiz[c] apalki aurkezturik
bizi-poza edatuz, argiro datorrena
samindurak uxatu ta biotzak nasaiturik.

«Esatea erreza -da baiña- egitea gatx».
Gizartean ben-benetako gizatasunez
onena da agertzea[d] egiz eta apatx.

Ta, «esaleak izan bear dau entzulea»,
berbak aizeratuz adizkidetasun senez
Izan bear dau maitasunaren[e] irulea.

---

* *Esk.* XLVII, 149 (*C*); *Esk.* XLVII, 148 (*B*); *Esk.* XLIV, 24 (*A*).
[a] Zartzaroari *A* Zarrari [b] minduraz *A* minbera [c] mundu onetan *BA* munduan, emen [d] txarrago *BA* bearrago [e] bearrago *BA* txarrago [f] baita *BA* eta [g] erreago *BA* zalago [h] izen *B* guztiz [i] bakartade — goibelago *BA* neguaren ozdura baltza zerbait arintzeko [j] ezin — lausoz *BA* Eziñezko ollarkeri ta ibilli [ibiltze B] eroz [k] nai — zoroz *B* era gangarrian bere oñak ezin iasoz; *A* barregarri gertatu oi dan gogaldi beroz [l] baltzaren goibelez *BA* aurreko orbelez [m] iñolako laguntza bururik *B* biderako laguntzarik ezer; *A* biderako laguntza, bururik [n] zartzaroa — itzalez *B* maitetasunaren seme-alabaren batez...; *A* eroapen sendo baten maitezko igarotzez
** *Esk.* XLVII, 150 (*B*); *Esk.* XLIV, 25 (*A*).
[a] lengo – erakarri *A* utsera al baleukie itzali [b] Ikasi bai *A* ta, jakin zak [c] egokiz *A* burutsuz [d] onena da agertzea *A* agertzea da onena [e] Izan – maitasunaren *A* bizia, maitasunez josteko

## BEARRARI BURUZ*

«Bearra gauza mearra», esan oi da. «Bearra lege».
Zenbat bearkizun munduko muga bazterretan!:
Zenbat miseri, bizi utsune, zenbat gose,
zenbat malko ta arrenkura gogo-biotzetan!

«Bear izanak bear eragin» esaten da, bai,
ikusirik alderdi askotako negarra;
benetan gaixoa lanik egin ez duana nai
eskuan izanik ain aukeramen ederra!

«Bearra lege», ta ala da, «bearra gauza mearra»
Baina[a], bildurgarria begiratzean ostera
lanik ezaren aurpegi zurbil ta lakarra.

Bearra edota mearra. «Bearra irakasle on»
gerta leike[b] bizitzako egun, maldabera,
ta, «beargille gaiztoa ere erakusle on».

## AIZEARI BURUZ**

Aizea firili-farala, gogor ari da,
gogor ari da joten aren buru, egala;
indartsua da bai aren arpegi itzala,
benetan otza, negu gorriz aren magala.

Ez ipar aizeak ez du leku gorderik, ez,
ta pobreak ere ez du adizkiderik, ez,
pobreak bere nekea besterik ez du, ez,
negu gorri eragiñaren aize miñez.

Aize baltza, negu baltza, gosete gorria,
eta negu baltzari aurpegi emon bear,
artuz itxaropenezko ur bizigarria.

Gizartea errea dabil etsaikeri baltzez
ta lan egin bear da bai gogoz —goiz ta iñular—
aize ori baretu dedin maitetasunez.

## AIZEARI BURUZ***

Itxasoa iagi ta ontziak ondoratuz,
aizea nabarmendu da, firili-farala,
erakutsiz negu baltzaren indar itzala
ainbat zugaitz zutidura arro lurreratuz.

Aize iparrak ez, ez du ez, leku gorderik
ta, pobreak ere ez, ez du ez, adizkiderik;
pobreak, ez du ez, bere nekea besterik,
ezaren mingostasunezko zuloz beterik.

Aize baltza, negu illun, gosete gorria
eta, negu gogorrari arpei emon bear
artuz itxaropenezko ur bizigarria.

Gizona erre-min dabil etsaikeri baltzez
eta, beraz, lan egin bear —goiz ta iñular—
aize ori baretu dedin maitetasunez.

---

* *Esk*. XLVII, 151 (*B*); *Esk*. XLIV, 26 (*A*).
[a] Baiña *A* ta [b] gerta leike *A* gertatzen da
** *Esk*. XLIV, 27.
*** *Esk*. XLVII, 152.

## LURRARI BURUZ*

Auxe da marka: lurra zuri, gogoa beltz.
«Lurra zenbat bigunago, arra barrurago».
«Lurrak azi ta lurrak jan bear». Zenbat zunetz
egiztagarri, bata baiño bestea argiago!

Darraigun[a] ba, aurrera. «Lur gitxi aldatz bage».
Eta onako auek[b]: «Lur beran zulo aundi».
Ta [d]«Lur onean bidea gaizto». Au[c] penagarri!
«Lurrak egiten gaitu bai azkenean bere».

«Lurrez al doana, etxez bear doana». Olaxe,
egokiro, lurrarenez bizi bearra dago,
erabat izanik gu aren jaun ta mirabe.

Bitartean, daukanak egin leike bai bon-bon,
urdailla ondo ase ta beteaz[e], ta gero, ...
besteak laneratu bediz bestela, or-konpon!

## ESAKUNAK**

*Esakunak dira erriaren zentzunak*
M.S.[a]

Asteko[b]: «Etxetik urrun, zorionetik urrun».
Olaxe bai, zentzunez, baserri sutonduetan
gurasoek azi ta ezi ginduezan kutun,
sua bitarteko zala negu-gau luzeetan!

Zenbat iakingarri[c]!: «Etxea urrez, boltsa lurrez»;
ta, «etxeko sua etxeko autsez estali»;
«etxe[d] utsa alagarri, betea pozgarri»;
ta, «etxean etxean asarreak elemelez».

Ta, «etxeko ardaoz ez dala iñoiz orditzen»;
ta, arako, «Etxean otso, kanpoan uso»;
ta, «batera ez dira begi guztiak negartzen»

«Etxeko andrea nungo, gure aideak ango»
Zenbat argibide eder, ipuin[e] gazi-gozo
bizi-izate askoren[f] barri azaltzeko!

* *Esk*. XLVII, 153 (*B*); *Esk*. XLIV, 28.
[a] Darraigun *A* Goazen [b] onako auek *A* zer esanik ez [c] Au *A ori* [d] Ta *A'n ez da agiri* [e] ondo — beteaz *A* beteaz oraintxe bertan

** *Esk*. XLVII, 154 (*B*); *Esk*. XLIV, 29. (*A*)
[a] *Au ez da A'n agiri* [b] Asteko *A* entzun bat [c] iakingarri *A* ipuin gozo [d] etxe *A* ta, «etxe [e] zenbat — ipuin *A* bai, zenbat... Zenbat argigai eder [f] izate askoren *A* izakera baten

## ASTOARI BURUZ*

Oi danez ...«bakotxak bere astoari arre»
eta «bakotxak bere mandoari zaldale».
Au dala eta ori dala ... Zenbat asarre
gizartean, zenbat bidelagun ipurterre!

Esakunak diño, «asto askok, lasto asko»,
eta, «asko eta beti astoak buztanpeti».
«Asto bati buztana ken, besteari jarri».
«Asto illari uzkitik zukua emon gero».

Eta, legezko danez, «astoak astoetara»,
baita sarri[a] «asto ioan ta mando etorri»,
eta, «euli gaiztoakaz buztana ikara»[b].

«Astoak iolas bat ta bera ostikadea».
Bai, «enekian banekian, kontuz ibilli
zeuganatu barik aren atzeko aldea».

## IAN-EDANARI BURUZ**

Ian-edanari buruzko zurrut-mamauetan
sartu gaitezen[a] bai euskaldunaren baranoan:
«Ian eta lan». «Ian eta lan ta pakea eman»,
onena baida: «bakea[b] etxean ta auzoetan».

Iakiz ez da iñor betetzen, ez da asetzen.
«Ian-edan gozoa, kontu emote gaiztoa».
«Ian porru ta gero dolu». Eta[c] ondorioa!;
«Urdailla utsik ez da[c] iñoiz ondo arkitzen».

«Ian bako edanak kalte egiten dau» Baiña,
«Ianak ona ei dau edana». Ta, izan[d], kontu!:
«Iaten ba'dok bearra egingo dok», nai aiña?

«Igarri nor dan egarri». Ta arduraz edan.
«On begik ianak, kalterik ez edanak». Aizu,
bai aldakik[e]: «Negarrez bildu ta barrez ian».

---

* *Esk*. XLVII, 155 (*B*); *Esk*. XLIV, 30 (*A*).
[a] baita sarri *A* ta, askotan [b] eta — ikara *A* beren kideko jolas-lagun, ar-emeetara
** *Esk*. XLVII, 156 (*B*); *Esk*. XLIV, 32 (*A*).
[a] sartu gaitezen *A* sar gaitean [b] onena baida: «Bakea *A* bakea ona baida [c] urdailla — da *A* urdaill utsa ez da ez [d] ta, izan *A* beraz, ai [e] bai aldakik? *A* ta, amaitzeko

## TXORIARI[a] BURUZ*

«Txori guztik beren mokoekin iaiotzen dira:
Goizetan txor-txor edo arratsetan txiruli,
ibiltzen[b] dira nora-nai, alor ta mendira,
amor emonik eder dan azkatasunari.

Udaberriko eguzkiz kantuaren ederra!:
Sarri esaten da[c]: «Txori gosea kantari»
Ai, ez ete dabiltz abesten beren maiteari?
Zozo, bidegarru, txindorra naiz galeperra ...

Goiz ta arratsetan, abestuz ederrik[d] alai,
bai, «txori bakoitzari[e] eder bere kabia».
Ta «arranoak lumak bear, epetxak ere bai».

«Zozoak beleari, ipur baltz». Ez ba ikusten
ordea, ez ikusten bere atzeko aldea!
«Txorietan ondo ta asko usoak egatzen».

## BURUARI BURUZ**

«Ez buru ta[a] ez zango». «Buru gazte, ankak zar».
Ta, «burugabea beti lenengo lerroan»;
«buruduna ordea beti azkenengoan»,
ta «bururik ez duanak ankak neka bear».

Beste batzuk[b]: «bururik ez eta txapela nai»,
eta, «bururik ez duanak txapel bearrik ez»;
gero or dabiltz ero, iji-ji ta aja-jai,
buru utsaren astunari eutsi eziñez.

«Ez dau txapel aundienak buru utsik betetzen».
«Txapel baten barruan bi buru ezin sartu».
«Burua duanak badaki neurriz aukeratzen».

«Txapela buruan eta ibilli munduan»
eta, orra ba. «Zenbat buru ainbat aburu».
Bakoitza bebil bai bere buru soka-dantzan.

---

* *Esk.* XLVII, 157 (*b*); *Esk.* XLIV, 33 (*A*)
[a] Txoriari *A* Txoriei [b] ibiltzen *A* igitzen [c] Sarri esaten da *A* norbaitek diño au [d] Goiz - ederrik *A* Txirulika goiz ixillean abestuz [e] Bai - bakoitzari *A* «Txori bakoitzari bai
** *Esk.* XLVII, 158 (*B*); *Esk.* XLIV, 34 (*A*).
[a] ta *A'n ez da agiri* [b] beste batzuk: *A* Batzuek arro,

## c.1975-1980

## BIZITZAKO BIDEAN*

Gizon, egiz izateko
benetako asmo sendoz
egada ixilletan
aurkitzen zaranean,
eman zaitez gogoz
bizitzako bidean,
eta edan betikoz,
bidean daurkizun
goi-une bakoitzeko
gogai ta ameskizun,
txolarte ederrean.

## BASERRIAN**

Begiei argia eman ta ene loa uxatuz
bat batean, baserri giro ixil, apalean,
lo gogorrean erdi amustua egonarren
egunsentiko kukurrukuetara esnatuz ...
—asto arrantza, bei murrusa, oillo kakaraz—
ta, nunbaiteko deadar, berein zomorro otsez
uda garaiko egun sortze, argiratzean,
ene aingeruok! Itzartu nazute ta, ona
orain ni zutik, leio gelakoa zabalduz
eguzkiaren alde beretik ...an, goi-sapaian,
azkenengo dizdiz, gau agurraren goibidez
izarrak ostentzen diran bitartean...
Ona ni! Erdi lotazko ikus begiratuan
urbil urrutietako ikuspegiak enetuz,
bizia aintzatuz datorkidazan oiartzunez.

Kukurrukuz oillarra ta zozoak ere kantari
ta, or-emenko zakurzaunkazko eresbatzez...
Itzar nadin bai itzar osoro ta... noan
aizeño ozkirri iparraren ikutupez,
bizi dariozko egun eder ibilgarrian
ainbeste neke ta maitasunez iasotako
baserriaren orma zarretara begiratuz
noan, aintziñako gizaldi, sendi, anotsez
aldi-bidezko igaroaren oroipenetan
etxe bazterra ta, bizi-lanbideak ikusiz...

---

* *Esk.* XLIV, 42. (c.1975-1980).
** *Esk.* XLIV, 52-53. (c.1975-1980).

Ipuin politak, esakun zarrak alboratuz,
noan egun argiz, egiz burua astintzera,
erantzirik geiegizko argi ta illuna;
noan bai bere landa, belaze, baso, larrez,
noan baratz, soroetako aitzur eta goldez,
eguntaro bakoitzari dagokion lanbidez,
negurako belar metatze naiz bestelakoz,
izerdi latzezko nekazaritza aztunez
bear danean bizkarra gizonki makurtuz.

Noan bai zintzo, bizi aurpegi ematearen
egiñago ta naiagozko bearrak beartuta,
arduratsu, egunik egunera, gaur biarkoz
bere buruari or agintzen dabillanaren
ondoren... (norbera morroi, norbera nagusi)
urtearo bakoitzeko lanbide ta otz-beroz,
oiñetako bustiakin sarri, autsez ipurdi
burua iaso eziñik dabillanaren bidez
noan zintzo, egi latza ausnartzeko asmoz
ain langille errime, apartaren ondoren.

Ta, neke-arian eskuak gogortuta sendatuz
ikus! Ikus zeure buruz lugiñaren bizia;
ikus bere iatorduak, irabaziak zer diran;
ikus obeagotu diteken bere etorria
ta galdetu zergaitik basetxeak uztutzen,
zergaitik diran erori, untzorriz betetzen;
ipui ta zurikeri merkez ta lilluratsuz,
—olerkari, idazleen luma arin, apaiñez
abestutako—: «baserri zuri, zoragarriak»
zergaitik lurreratzen, betetzen diran larrez;
galdetu bai, zergaitik diran ondatzen, galtzen,
atomuaren zirkiñizko erabide berrian,
bealdeko lantegien erosotasun usaiez...
Ia esan egoera ontan zer egin lezaken!

## AZKATASUNAREN ALDEZKO GOGOZ*

Azkatasunaren aldezko gogoz
eman bideari zeure argia;
benetako poztasun, bizi ardoz
eman zeure barruko abestia.

Abestu beti egiak, biziak
ederkuntzazko gogoaren agoz;
abesti alai ta arnasgarriak
bizitzaren bizitzazko goi-asmoz.

Iaso bai apalik zeure abotsa
maitetasunezko esku zabalez;
iaso bulartsu zeure nai beratza
itxaropen sendo baten egalez.

Ez dedilla izan aspergarria,
gogorra, minduratia, itzala;
ez dedilla izan illungarria
zure abestiaren sen, magala.

Baizik emaia, aberasgarria,
argizko emai, ur garden gozoa
eguzki erraiñu berogarria
bizitzaren bizitzazko zantzoa.

Izan bedi Udaberria loran
euri mamizko ezotasunean;
erleak, txoriak, ingumak egan
zure abotsaren goitasunean.

Beartsuen, menperatuen lagun,
abots ezti, aldiz erabat gogor,
izan benetako esku, maitasun
beti erori alde, itxarokor.

## LOREIL**

Loreil. Lora illa, euri mami
ta eguzki gozatsuz egiña,
bizitzako oinkada berrien
itxarozko zirkin goigarri
ta lora usaitsu, politen,
itxaropen lurrin itukiña.

Zelaietako mintzo eztiz,
aroaren etorri emaitsuz,
ta, aldiari berea emanik
eder-meder, goiza agurtuz,
aidean dabil egaztari
egada baldar, goibekariz,
mitxeleta bitxi, panpiña.

* *Esk.* XLIV, 58. (c.1975-1980).
** *Esk.* XLIV, 59-60. (c.1975-1980).

Gure baso ta mendietako
estalki apaingarri, ezez,
emai bizian egundu dan
itzarkunde alai, zabalez,
biziro goitu da izadia
argia darion gorestasun,
bizi-taupada atsegiñez.

Aitzur, golda, zega zorrotzez,
soro bazter ta zelaietan
nekazariaren egitezko
beartasunetan murgildua,
lugiñak bereari darraio,
goiz-goizetik ta gaberañoko
milla arazoren langintza,
bizi-bearretan morroitua.

Lur landuaren emaikizunez
ta, urteroko udaberriaren
indar berritzez, edertua,
egalak argiz iantzi dira,
biotzak ere itxaropenez,
pinportutako lora berrien
ikusgarrizko goitasunez.

Betikoaren ats, altasunez,
izadiari darion edergai
bizi izate alaigarriz,
biziak ots dagi goikari,
ta belarki, izaki orok
barren-muin, sakontasunez,
goitasun eztia darite.

Olaxe, adore indartsuz,
Loreildu bedi gizonaren
biotz-buru ta erraietan,
—egia goretsi ta azkortuz—
ongarrizko bizi-alearen
mundu anaitu, emaikor baten
ben-benetako Udaberria.

## DILINDAN*

Eguzkia dilindan
goizeko intzetan;
osto orlegietan
bizia dirdiran.

Udaberriz lorak
landa, zelaietan;
maitezko ikarak
begi urdurietan.

Mintzo ixilletan
begiak alkarrez,
gogo eta biotzez
begiak begietan.

Biotzetik biotzera
gogo-nai beroak;
itz bako gurkera
eder eta eroak.

Bizitzazko une
itxarogarriak,
biotz-zabalgune
deituragarriak.

Itz bako agerkai
aldiko sugarrak;
argi eta alai
zelai eta larrak.

* *Esk.* XLIV, 63. (c.1975-1980).

## TA ETSIPENEZ BETERIK*

Ta, etsipenez beterik
bizi garan mundu ontan
ez dugu ametserako
bitarterik ez astirik.

Lasterrez, ariñeketan
gabiltza bai, larriturik,
esku artean estutu
ta biotza lauskiturik.

Bildurrez ta makurka
ibilliz kokil esturaz,
espetxeratu antzera
ezinbizizko maluraz.

Euzkipean goaz, aren
erraiñu pozgarrietatik
laño batek estalirik
galduta lez bazter baten.

Ez dugu nai, «bai» borobil
«bai» betegarri bat eman
biotzez beterik, sotil,
gure dana utziz bertan.

Ez, ez dugu esan nai «bai»,
maite ditugun izaki
ta, bazter orotan alai
goitzen dan maitasunari.

Dana dagolako, dana,
indar ezkutuz loturik
ari ta oni emana
azpikeriz suntsiturik.

Usteldura txarkituak
asarratzen ta zoratzen
gaituztenak, minberatzen,
eriotzazko ikutuak.

## LEGORRERATUTAKO ITXASTARRA**

Ezin pausuturik ibilkera
orri zimeldu baten antzera,
orizkatua, baltzizkindua
ta, urte aztunak makurtua ...
arrantzalea, itxas gizona
eldu da bere udazkenera
ta, kai bazterrez, ara ta ona
dakusgu, galdurik lengo kera.

* *Esk.* XLIV, 64. (c.1975-1980).
** *Esk.* XLIV, 65. (c.1975-1980).

Ur zelaietako ugin artez
ibili barik olatubera
ibilteko oiturapen orrek
egin zaitu legorrerako ain
berun ta ain baldarra zeurez,
oraindik ugiñen arabera
igituko baziña lez, urgain,
ezin tinkaturik zure oñek ...

Itxas osertz urrunetara
begiratzeak ospeldu zitun
zure begiak. Orain ikara,
gogoratuz ainbat gertakizun
lengoz amesten ari zara,
itzuliz zeure itxasoetara
ainbat nekebidez, gau ta egun
gozo ta garratz, ibilietara.

Kresal-aizeak eroan ditu
zure kirio ta oldozkunak,
zure aintziñako goitasunak
eta bakarrik gelditzen zaizu
lo egin-ezin arduratsua
ta gaiñontzeko goibeltasunak,
otzituz zure barruko sua
ta ondoriozko ameskizunak.

## NEURE ESKU DAN BIOTZARI*

Olaxe, argi eta garbi, lur loretsuz
iaio zara nirean, gurenda ederrez,
loreil ezti, usaikor bezalaxe, maitez,
biotzean gora, alai, zerua susmatuz.

Itzal gozo, amets ego, argi iturri...
Oi, zugatzondo! Oi, itxaropen begiko!
Artu-eman biozkor, biziz sortutako
landare eskurakor, lerdena dirudi!

Betikotasun dardara emez sortua;
zaude bai, zure biotz-lurrean neretua,
bizitzaren poz, benetako Udaberri!

Zaude bai eguzkitara, biotz zerukari;
alkarren pozera ta, alkarrez leiatua
zaude, beti-betikoz, Iaungoikoz ikutua!

* *Esk.* XLIV, 66. (c.1975-1980).

## ARRIMENA*

Uda-giroz naiz negutez,
egun argiz naiz gau illunez,
izkutapen sortariaren
bizitzazko zirkintasun
ta itzal-argizko ibillian,
oro da bai arrimena
izadiaren barrutiko
izantasun arrigarrian!

Berein margo ta itxurazko
gauzaen berezitasun,
txiki-aundizko muin bizi
ta bakoitzaren azalez...
—loreak, piztiak, abereak,
zugaitzak, arriak, meatzak,
errekak, ibaiak, itxasoak
ta, goietan ernaltzen diran
izarbel, munduteri urrunen
zenbatu eziñalako
galaxi ta galaxien,
sinistu eziñeko
izar zintzilikario,
aunditasun neurgabea!

Adimenaren irizmen
ta begien argibidez...,
izadiari lotzen gaitun
gure deus utsa nabaituz,
apurrari begiratuz...,
gure egoera neurtuaren
barren-muin sakonetan
sortzen dira berarizko
itzik eder, egokienak ...:

Zoragarrizko egitura,
arrigarri, ederraren
etengabeko ariketan
ekintzaturik diardun
gure munduteri onek
baldin ezpadu asiera
ez-ta azken iakiñik...
gure galderakizunak
ez-ba-dute iñolazko
erantzu, argibiderik...
bizia, ai! zertarako,
nola sor, izan diteken
bizia berez, nola dan!

Alde baterantza begira
naiz gero besterantza biurtu ...
Arrimenezko apurkin,
ez-iakintasun utsalez
adimena itzalean,
illunbe urrutian
gau-bideetan galtzen zaigu
eziñezko alegiñez!

* *Esk.* XLIV, 67. (c.1975-1980).

## AIN ARGI EDER ZETORREN EGUNA*

Izpi gelgarrizko aize barean,
gauaren altzo sakonetik, bigun,
itz apalezko emai elburutsuz
ta urrezko ezpan maitari, gozoz,
goiz-goratze maitezko gaillurrean,
ain argi eder zetorren eguna.

Ez dakit nik ez, nola ta zergaitik,
odei illun makurrez, bat-batean
goiak zulatu, argia etenez,
ortzi zearkazko tximizta erasoz,
ez dakit nola alda nitekean,
ain argi eder zetorren eguna.

Itz zikin, zeken, zakar baten erruz
ala, nik ez dakit ez zeren zio,
kaskabar ala euri erasozko
zeren zorigaitzezko etorbidez,
zearo desbidetu ta baztertu zan
ain argi eder zetorren eguna.

Izatekotan goibidetu ziran
uste eder, amets, itxaropenak,
gure aintzatasun gozo, gurenak,
ez dakit nola lurperatu ziran,
ziaro goiberatuz, biotz aldatuz ...
ain argi eder zetorren eguna!

## BIZITZAKO BIDEAK**

*Errera-ko erriari maitasunez*
*bere Koldobika Donearen egun alaietan*

Mendi eta muño artean,
ikuspegi eder askoren
magalpe sakon, babespean,
bultzibide ta bitzabalez
ona emen gure erria,
bideak damaikioten bidez
bizitzarako oñarritua;
ona bai lantegi ta etxez
ekiñalazko ekiñean
mundurantza bideratua.

Bestalde, etorri betean,
erriaren oñetaraño
makurtzen zaigu itxasoa,
bere olatu urduritsu
ta bere kresal sundazko
baretasun ta ekaitzez,
kaioak oiuka, gaurgero,
agurtzen gaituzten agurrez.

Olaxe... —bide auen bidez—
biziari gores ta agurka,
egurats epel edo otzez
itxaro baikortiz gabiltza,
aunitz neke ta buruaustez,
bizitzarako bear ditugun
bideak bakoitzak irikiz,
alkargintzarik ederrenez.

---

* *Esk.* XLIV, 68. (c.1975-1980).
** *Esk.* XLIV, 69. (c.1975-1980).

# 1980

## MAITASUNAZ*

*Tolosa'tar Koldobika adizkideari*

Aizeak
berdin laztantzen
ditu
osto guztiak:
zugaitz
aundiarenak
naiz
belar
txikiarenak.

Beraz
erein
maitasunaz
gero
uztatzeko
alaitasunaz.

Egiten
dezuten
lanei
gauza
guztiei
ezarri
zeuen
nortasuna
zeuen
sena,
gogoa
eta
kemena;
ezarri
zeuen
egitamu
eta
izamena.

* Karmel 1980-2, 84-85;

Aizeak
berdin laztantzen
ditu
osto guztiak:
aundiak
osto guztiak:
aundiak
eta txikiak.

Alperrik
da bai
iakituri
guztia,
gogoz,
biotzez
egiten
ezbada
lana,
egiteko
oro,
dan-dana.

Alperrik
da bai
egitea
lana
maitasunik
ezbada.

Maitasunaz
egiñik
zeuekin
aurkituko
zerate,
baita
ere
besteekin
eta
Iainkoarekin.

Beraz
egiten
dezuten
oro
egin
arduraz
eta
gogoz.

Lan
egitea,
zeuen
biotzetik
arturiko
ariekin
oiala
euntzea
bezala
da,
maitasunaz
lan
egitea.

Eraiki
ezazu
etxea,
bizitzera
bertara
ioango
balitzake
bezala
zeure
biotzeko
maitea.

Bai,
lanaren
bitartez
bizia
onartuz
maitasunaz
ixuritzen
dan
izerdiak
irikitzen
ditu
bizitzazko
ateak,
benetako
sustraiak.

## ERANTZUNA*

Eguzkia argi-bizi, landa, zelaietan,
ta, Udaberri egoetan lorautsak bidazti.
Landu. Erein alea soroan, erein azi
biitegi osoak uztatzeko gero ogitan.

Aizeak eiotzen du larriñeko garia
ta, baldin ona erein izan baduzu goizik,
arratsalderako iasoko duzu saria,
iriñik mamitsu, gozoena eskuraturik.

Itz ongarria ematen baduzu laztanik
itxaroz dagonari opalduz larrosa bat
guztien artean oberena aukeraturik...

Ikus daikezu gero gizonik ankerrena,
urrutiena, nola biotzberatuko dan zuretzat
itzulirik beren argi laztan samurrena.

## ITZ ARTEAN**

Itz artean galdurik
aldibera, zalantzan
ta, ondo iakin barik
bizi izatea zer dan.

Aizeak bultzaturik
goaz bai, ertzerantza,
biziro astindurik
gure gogo izantza.

Ordu igesak dagoz
astelentar kondarrak,
ez diranak oraingoz
igandetar landerrak.

Igeskariari eldu
ta, begiratzen dugu
aurpegi atzokoa,
iges egindakoa.

Ordu aztarna batek
gogoz agurtzen gaitu
ta, biotzean ikutu
berein bizi txinpartek.

Emakume aurpegi
luzenga bat daduka
gure so igesari
ikutu-mikutuka.

Oi, bagenkigu iakin
auxe litz bai iakintza!
Gauak zenbatzu gauza
nabaritzen ez dakin!

Ta, eskerrak, ordea
Eguerdi bat ba'dala
ikusteko bidea
aurrerantza goazela...

* Karmel 1980-2, 86.
** Karmel 1980-2, 87.

## DENPORA ILLA*

Zutik iarri nai dut nire denpora illa.
Ilkutxatik atera aren ezurpil utsa
ta, ariari tenk egiñik ioan aren billa
aizeratuz orduko nire gogo ta biotza.

Ez, nire bizitzako bideak ez dira izan
larrosazko lorategi bitxi, lurrintsuak,
baizik nekezko itxaso ta lur bazterretan
ametsik ametsera emandako pausuak.

Nintzanetara nakizute neugaz ibilten
berriro ildo maiteetan zerbait berbizteko
gogoa murgilduz alako uneren baten.

Egun gazigezen izandakoz nortu nadin
zerbait begigarri, onuratsu txastatzeko
gazte-itxarokor nintzanean ain pinpirin.

* Karmel 1980-2, 88.

## URTE BARRIAREN AURREAN*

*On Pedro Pujana'ri Arteaga»n*

Adarburu zarkituetan, zimur,
erakutsiz neguaren bizarrak
—ainbat itxaro ta etsipenez—
urteak... agur dagisku, agur,
agur egin dausku urte zarrak;
—erabat itun, erabat bildur—
oi dan ameskizun ta, naimenez,
gogaraziz igaran izarrak.

Betiko laiño, eragozpenez,
biurriki, txarkeriz beterik,
egunen illundura astunez
gizona, gizartea, errerik
dakusgun arren, samintasunez...
ez al da bizitzazko argirik
beren egizko izpi, maitasunez,
mundua onbidetuko dauanik?

Aurrean dogu urte barria
beren sorkunezko sorbideetan,
ta, betiko ametsak, betiko
naiak loratuko dira gugan,
itxaropen gogaiz soinduriko
betiko bizi-nai, egarria,
bakoitzaren amets-gurarizko
txirpi barriak barruko sutan.

Aldian aldikoz. Ona emen,
etorkizun egunen eskutik,
—beti bezin eder edo zeken—
bakoitza bere alderditik
gauzak bakoitzarenez ikusten
gaur-geroz, lengo ari beretik,
gizona betiko soka dantzan
gauzak antolatu ta orrazten.

## JULENE AZPEITIA**

**Arritokieta**

*Yo maestra,*
*a veces olvido*
*las palabras*
*y solo escribo*
*AMOR*
*en el tablero.*
María Elena Quintero.

Julene Azpeitia. Irakasle euskalduna,
benetako gogo sendoz ta erritar senez
igaro zan, erakutsi ederrak emonez
azaldurik euskereaganako maitasuna.

Irakasle argia. Zumaiarra sorkunez.
Euskerearen aldezle bioztun ta kutuna;
larogei ta amabi urte luze, astunez,
erroturiko zugatz goilari ta bakuna.

---

* Zer (1980, 29. zenb.) 4.
** Zer (1980, 32. zenb.) 5; *Esk.* XXIII, 121.

«Arritokieta» andra zabal, etxe zalea:
ilbarri dogun aberkide ta idazlea,
emakume itxarokor, apal, dotorea...,
kristau doaitasunezko ekanduz betea.

Ainbat urteren buruz umeak eskolatuz
olbaltzetan zenbakiak ta, Euskalerriaren
arduratasunez gogoak, biotzak argituz,
ta aldibera, azi ona erein ondoren...

Ta, ixilik aldegin badausku be... Bai, zelan
zelan aztu aren izena ta zeintasuna,
bizi-zear irakatsiz, idatziz, ainbat lan
iakingarri ain oparo eskeiñi euskuna?

Maitetasunezko irakasbide apalak
—ipuin, olerki ta idazlan argigarriak—
amets eztiz beteriko berbagai zabalak,
euskal alorrera gogo betez ekarriak.

Argi-izpi eredugarri ta bizi-biziak,
euskerearen sendabidezko itxaropenez
altxorturiko zillar, urregorriteriak,
erriari opalduak benetako maitasunez.

Biotz aundiko «maistra» ori, olerkariak
argira dakar, bizi dedin emen, betikoz,
guk be Ari iarraituz, gogo ta asmo sendoz,
aurkitu daiguzan urrezko ari barriak.

## ANDRA MARI MARTIKO*

Andra Mari Martiko
arrai barriak tatiko;
tatiko ta matiko,
aizez ez naiz biziko.

Eguna gangar, arro,
urak uiol kolore;
euri ta eguzkizko
ezbaidun zeru-arte.

Kaioek mindurati
ta, ozen, ar ta eme,
arkaitzetan urduri
txilioka ari dire.

So nago ortziari,
odeiteri baltzari;
so txorien deiari,
goizari, egunari...

* Zer (1980, 32. zenb.) 7; *Esk*. XXII, 10.

Osertzak illun-arre
ta, ugiñak erre-min;
barruan dot oñaze
ikuspegi baltzakin.

Itsasoa illuna,
gogoa illunago;
ai!, aberri kutuna,
kezkaz beterik nago.

Neuregazko ibilliz
astindurik egoa,
amets batek naroa
biotzeko Euskalerriz.

Nago eta banoa
neure munduz barrena,
goituz neure arrena
Maite-Otoitz Beroa!

## NOR DA...*

Guretariko
nor da
ondartzatako
ondarretan
ez dituana
idazten
beren itzak?

(Zeru
itzaletik
illargi
bakan batek
dauzku begiratzen
eta aize
gogor batek
gabean
ots dagi).

Esan bada:
Guretariko
nor da
ez duana nabaitzen
beren aurka
datorrela
aurrez aurre
datorrenean
itsasoaren
olatutza?

* *Esk.* XXI, 64 (c. 1980).

## BASARRI*

Aritzondo lerdenaren biotz-kiriozko
egituraz gizondutako abotsa dario,
Ikusgarrizko edertasunez ondutako
aboskera giartsuaren gogai ta elorrio.

Plaza gizon egiñaren gutxi bezalako
euskal emaitz gozogarri ta aberatsez,
urteetako ekintza neketsuz iasotako
abots sendoa, beti, erriaren gorasarrez.

Beti kezkatsu, beti, maitezko erabidez
Euskalerri barrutiz, egundoko lanean
beti, mintzoa, iorratuz, etorbide nekezez...

Basarri'k argitasun sakonez, oparotsu,
beren egitezko aurkezpen paregabean,
euskal alorra biziro ongarrituz diardu.

## IZAN SINISTE**

Ez egon ba, beti, makur lurrera
galdurik zeure kemen ta lotsa...
ez dakizula-ta zer egin, nora...
Bizi izatea ez da erreza
oñarridun elburu baten bidez
iarraitzen ezbada gogoz, aurrera,
ezarririk zintzo, sendotasunez
izerdiz ekintzaturiko biotza,
zeure gogo argi ta izakera
gizatiz loraturiko abotsa.

Zu zabiltzan gizarte alorrean
esiak, nekeak ugarituarren,
ez zaitez amil or ezingoaren
barruti, atzaparpe gogorrean,
galdurik zeure ametsen izantza
ta, zeure gogo, etorkizunaren
norbidezko zeure itxarokuntza.
Zeugan izan siniste, zaran orren
Iaungoizko laguntzapenean.

---

* *Esk.* XXI, 68 (c. 1980).
** *Esk.* XXII, 1 (c. 1980).

## EGO BILLA*

Gogozko
ego billa
nabil,
berbaraño
eltzeko
ederrik,
bipil.

Berba ori
berebiziko
berba egoki
eta bizia
gerta dadin.

Euskalduna
berezko
senez;
zorioneko
berba argi,
bioztuna;
aidekor
eta
kutuna.

Maitasunaren,
gizatasunaren
erakuspena;
sustrai
bideetara,
berarizko
argitasunez
urbil leikena.

Egarri dan
baratza,
lurrarentzako
udarako
euri ederra
bezin eder,
onurakorra.

Egiaren,
argiaren
iarraitzalle,
aldezle
zuzena.

## UDABERRIA**

Neguak aldegiñaz batera,
osto berriak eta lora berriak
bizi-ikutu emez biotzera
datozten itxaropen pozgarriak.

Zelaiak, mendiak, bazter oro
iantzi berriz, odol berriturik,
orlegitzen dakusguz, goikiro,
ameskizun berriak sorturik.

Edertasunezko agerpenez...
au bizitzazko gorakadea!
Egun berrien argitasunez,
txori-txintada alaiz betea.

Udaberria da, udaberri...!
Ta, udaberriak, etorriturik,
ama gazte eder bat dirudi
bere aurra besoetan dualarik.

Biak bat. Alkartze amesgarri!
Irripar gozodun mintzo eztiz
keiñu-keiñuka, maitez, alkarri
begira, biotzetako goi-argiz.

Bizi izatearen poztasunean
udaberria udaberritzen
ari zaigu, egunak indartzen
etorri obeagoaren ustean.

---

* *Esk.* XXII, 8 (c. 1980).
** *Esk.* XXII, 11 (c. 1980).

## ITURRIA*

Bai egoki eta pozgarria
mendiaren oñetan iturria;
ur garden eder edangarria
kentzeko bidazti egarria.

Bideak ibiliz maitasunez
bai gozo, edaten bada gogoz,
edaten bada bai, poztasunez,
bideari iarraitzeko asmoz.

Zu eta ni, mendi-gora eta
alkarren lagun, geuretasunez,
gandorrerako elburu-bidez
amets itxarogarriz beteta.

Bizitzako izan, ioanean,
bidea diteke bai luzea;
gogorra ta arantzaz betea
odei baltzezko zerupean.

Diteke baita ona benetan
itur gozoak izanik, an-emen,
bizitzako gure igonetan
alkar-laguntza maitetsu baten.

Argi-iturri bidegarriak
biotzetan ederrik landatuak;
emai gozo, ur bizigarriak
maitasun eskuz bateratuak.

## TERESE AMA**

Gizatasunik ezaren, maitetasunik ezaren
mundu negartu, mundu lasterkaritu itsu ontan,
gorrotozko ta, indarkerizko ta, biurkerizko
erabidez, minduraz betetzen ari zaigunean
ta, odol-dezabakuntzazko asmo izukarietan
bide oro dakusgunean zemai-okerkerizko
biurgunez, ta negar-lazdura minkatzez beterik
alde danak ain zetati, alderakoi nabaitzean
ezinbizizko naastekerietan barruraturik...

Beraz, ez al da pozgarria, an, nunbait ikustea
apalik, goi-maitetasuna erruz edatzen duten
larrosazko eskuak, oasi ederrak, bizitzazko
lorategiak, aize osasundun, usai gozodun
argigune, osategi apartak, unkigarriak
itxarozko urbegi garden, zelai atsegingarriak?
Ez al da aintzakorra orrelako esku bizidun
arima ongille, apal bat munduan aurkitzea
errukarrien zauriak-eta dituana sendatzen?

* *Esk.* XXII, 14 (c. 1980)
** *Esk.* XXIII, 1-2 (c. 1980)

Igaz mundu zabaleko ortzi-alde guztietara
aizeratu zan izpar pozgarriaren berri emanik
natorkizute, aren izen deuna, neure erara
biotzez eskertu, aintzaldu, gorestu, edatu nairik...
Goi-maitasunaz ari nauzute mintzatzen, argiatzaz.
Nobel sari ospetsua ongi irabazitako
Terese izendun lekaime maitagarri batetzaz,
aren lekukotasuna gogoz, emen idatzirik
eta, ekarriz irakurlearen biotz-begietara.

Izparringiak, irratiak ots-egin dute aretzaz
aren gizarte-lan, aren egikuntzak goraipatuz;
aren bizi-zeaztasun, aren goimaitasunezko
gaixo, txiroen aldezko zaletasuna agertuz,
lau aizetara zabaldu ziran bai oroigarrizko
aren zertzelada guztiak, txalorik beroenakaz
aren gogo sendotasun apala, goi-maillaratuz
santutasun bidez goi-gorenetan gorenetako;
eredu agurgarri beren doai ederrenakaz...

Terese Ama! Kalkuta'ko urian, uribean,
—inditar txiro, beartsu-beartsuen ardurapean—
legenardun, elbarritu, zaurituen... iñolako
babes, laguntza, aterperik ez dutenen artean,
an dakusgu buru ta biotzez besteenganatua,
beren iakite ta izerdiz guztiei laguntzeko
miseri aundienetako kaleetan murgildua
etengabeko lanaren otsein morroitasunean.

Terese Ama! Kristoren benetako iarraitzalle!
Kristoren izenean egintzaz, burua ukatuz,
an ari zaigu txiroki, etsipendu danen alde
edozein ordutan emantzatua, esku maitetsuz
beti egintza-lanetan gogoz, Kristoren mirabe!
Beti, egunik egun, eskuak lagun urkoratuz
zein edo nor dan iñoiz asmo txarrez galdetu gabe!

Ainbeste txarkerizko mundu etsaipetu onetan
Kristo da zuretzat, maitatzen duan maitasuna;
ibiltzeko dan bidea, bizitzeko dan bizia,
maitatzeko duin dan maitasuna eta Argia;
Kristo da zure elburu ta Bizi-Sorkuna,
benetako Bakearen ta Zorionaren iturbegia
anaitasunezko sustrai, soin-buru ederrenetan.

## ITXASOA*

Itxasoa beti eder,
egunik egun, aldakor,
ta, beti aundi, zadorkor
txalotua ainbat bider.

Bein be ez ots bakarrezko
beren igitze egoeran,
kresaldura garratzezko
argi ta illunduratan.

Da sakondura altsua,
oztin, urdin naiz orlegi
margoz sarri aldatua
gau ta egun, zoragarri.

Batzuetan lillurakor,
bestetan berun, baldar;
orroakari ta izukor
arkaitzetan gora, gangar.

Arraiñakaz jostaketan
olatuz olatu dantzan
eguerdiko argipean
bertanbera neure baitan.

Oial antzo, aizepean,
oldozkuna goi aidean,
ortzitar ispillupean
itxas-magal sakonean.

Bare-bare naiz orroaka
da ezilkortasun aska,
bizi-izatearen seaska
dabillena goiberaka.

Ipur txuntxurrei eragin
ta, norkiak zoramenduz
or dakusgu kilikari
(batzuetan amurragarri
ta bestetan sorgin-sorgin,)
begiak bereganatuz
eta, gero... barre egin!

Giza-malkoak uskeri
utsa dira bai arentzat
utsezko ezebezkeri
zure zinkurin garratzak
ondoratzen dauzanean
arro dabiltzan ontziak
une galgarri batean.

## BEGIAKAZ**

Begiakaz urreratutzen gara Izadira,
begiakaz doguz ainbat gauza bikain gozartzen,
egun sortzezko ta gaueratzezko bizira
ikuspegiz ikuspegi doguz biotzeratzen.

Oi, Udabarriko orlegitze goigarria!
Oi, Udarako ale-burutza pozgarria!
Oi, Udazkeneko oritasun kezkatia!
Oi, Neguko zuritasun minberagarria!

---

* *Esk*. XXIII, 14-15 (c. 1980).
** *Esk*. XXIII, 138 (1980-V-12).

Egunen joanean, maldan gora, maldan beera,
(mendi, zelai, ibar, ibai ororen arira,
aizeak, geltsu, orriz-orri. Zenbat izkera!

Joanezko egunberatze aldakor, goibetsuz...
Zenbat argi-izpi biotzeratu izan dira,
noizik noizera gure bide ituna argituz!

## MARRAU AURPEGIZKO*

Ez yataz gogoko
marrau aurpegizko
gizonen ixekak;
itxuraz antz-aldatzen
daben ganorabako
agerkera, pariztak;
euren nabarmenezko
aurpegi estalki,
euren keiñu ta margo
ainbat zurikerizko
estalkera baltzak.

Naska damoste,
iguin geien bat
ta asper-asper
egiten nabe;
asper, izadiaz ezer
itzegiten ez dakien
gizaseme petralak:
izarretara
begiratzen be
ez dakien gizonak.

Igo, igo zaiteze
neure zoramenera,
ta ibilli maitezko
bide zuzen, argiz;
gauzaen berezko
goza-leku garbiz
ta, ben-benetako
itur edangarriz...

Igo zaiteze, igo
neure zoramenera,
edergaiz bete
ta, emoiz alikatuko
zaituen egoitza
ain ikusgarriaren
izadi bidezko
norberatze sakonera.

---

* *Esk.* XXIII, 155. (c. 1980).

1981

## NORBERA DAN ZUGATZAN*

Zugaitzak orriz ta desorriz,
urte-aro bakoitzaren ezetasun
edo, zimeltasun orbelduan;
txori ixil edota kantariz,
kabi gabe edota kabidun;
gau ta egunen zori-barruan
bizitza beraren illun-argiz...

Bai atsegingarri ta ederra,
norbera dan zugatzan
osasunez bizi izatea,
itxaropendun adarburuetan!
Eder-ederra, buru argiz,
Izadiazko zentzu arabera,
bioztasunez, maitasunez
begipeturik zeru bazterra,
goiz-eguerditan naiz arratsberan
gauzetan norbera aratzea!

Bai ederra, illargi betea,
odei artetik iges doanean
zurbillik, goietako bidean;
bai oargarria, gaueratzean
zakurren zaunkadak somatzea
edo, gautxori bat egazean
alako geltasun ixillean...

Gogoa oarkari,
argi-itzalezko ortzipean;
bizitzaren taupadea
urrumaka ta ezkutukari,
izaki apalen abotsean
ta, bakoitza berean,
nor-norka, biziari...

* Karmel 1981-2, 77. (*Esk.* XXII, 7).

## BIZI IZATEKO*

*Bizi Izateko*
*bearrezkoa da,*
*amets egitea*
*irauteko.*

Amets ederrak,
amets loratsuak;
ametsak, ametsak...
ezeak, igerrak,
bein ta berriz
aldatuak.
Amets zoroak,
amets gozoak,
iñolako
loturakizun,
katerik gabe
egatzeko
asmatuak.

Ego gabeko egoz
ioateko
urrundiz urrundi,
guztiz urrun
azkatuak,
lurreko
egi garratzari
lotzen gaitun
lotura ori baiño
askotaz asko
aruntzago.

## ARAMUA ETA ELBIA**

Armiarmak bukatu,
amaitu du sarea,
ta, eizatzeko gertu
dago, gogoz betea.

Beren anka illetsu
ta aundi, luzengakin,
an, zelatan dakusgu
begiño zorrotzakin.

Sare erdigunean
maltzurkiro dago bai,
itsumustu batean
erorko diranen zai.

Elbia, zikintsu, loi...
egaka, arrokeriz
ari da, burrundakoi,
erruz, gaitza ixuriz.

Ari meetan geratu
da, azkenik, elbiaren
arinkeri tenteltsu
ta, burrundakariaren

Arrokeri guztia,
aren itsukerizko
eta, zikinkerizko
durun gogaikarria.

Elbi gaxoak, deslai,
negar dagi, zinkurin,
burua azkatu nai
baiña, alperrik... Ezin!

Armiarmak gero, ¡drazt!
elbiarekin beingoan
egin dau mokautxo bat
an, bere zokondoan.

* Karmel 1981-2, 78; *Esk.* XXII, 13.
** Karmel 1981-2, 78; *Esk.* XXII, 9.

## UR TXIKI, UR GUZTIAK*

Sorburuzko bolbolaz
lurreko iturriak,
zerbait bidean utziz
ur txiki, ur guztiak
lats, ibai, ta errekaz,
ur andirantza doaz
edurren ur ta euriz
geituak, ibarretaz...

Ibilizkoan, deslai,
arantzakaz, larrakaz,
ainbat neke, oztopoz
esizko andaparaz
arkituko dira bai,
aldiko goibel, laiñoz
ta egun argiakaz
itxasorantza, alai.

Atzeraka egiñik
etzanda, bertanbera,
itxasoko bildurraz
eztago gelditzerik
ez ego, ez iparraz,
norbere arabera
bertan loak arturik
amets ustelakaz.

Ibili egin bear
eta, aurrera iarrai
bidez-goiz ta iñular-
begiak argi, ernai.
Ibili, negar ta par,
ibili aldanaño
ur andian, bat-bakar,
bat egin arteraño.

## ZAILDURA**

Zailla da bai batzuetan
norberaz bat etortzea
gure ibilbideetan.

Zailla da, zuri, ari
eskua luzatzea,
bat ez datorrenari.

Zailla da bai, benetan,
bidea aurkitzea
laiñope illunetan.

Zailla da bai eustea
bizitzeari, emanik
bakoitzari berea.

Zailla da bai, egitan,
gizon lez ibiltea
gizarteko sareetan.

Zailla bai egunotan
ontasunez beterik
zeintzea mundu ontan.

Zailla da bai, deus utsez,
lagun urkoratzea
ezebez-ezebezez...

Zailla da beti onez
apalik agertzea,
ain gizarte garratzez.

Zailla da bai aurrera
iarraitzea, kemenez,
iausi barik lurrera.

Zailla bai maitasunik
ezbada, goitasunez
ibiltea ederrik...

* Karmel 1981-3, 69.
** Karmel 1981-3, 70.

## ONDORATZEA*

Endaia ankazgora ta, lekutik at, oker.
Ontziari itxasoa sartzen zaio zauritik.
Metaturiko amets gozoak ainbat bider
gero, aizearen zigorrak ebakiak sustraitik.

Intxaur oskola. Deusaren deusa! Ameskeri!
Aldiaren gogortada, indarkeripean
murgiltzen da, aize odolduzko egonean,
erasoaren erasoz oinperatua beti.

Galtzera, ondora doa ametsa. Azkortzen
ari da bai, nabarmen, etsipenezko sena.
Geldiro, il-zori doa beruntz, ondoratzen,
aantzitasunezko amil, urbide barrena...

Berriro asi, orain asi egin bear da.
Asi igotzen ametsen zuaitz zerutura.
Berrien berri asi. Etsipenez betea
gero, itxoiteko urrengo ondoratzea.

## AIZEAK**

Aizeak sua ematen dio suari,
beren bultzadazko indar ezkutuz;
sua, maitaleen begi suartuak lez,
dirdira biziko mintzo ixillez
begiak ñirrean, bata-bestetuz,
guramen bizian deika alkarri.

Aizeka, ikutuka alkartuak...
Sua bai, bizitzazko enborretan,
(gogoz, biotzez, itxaroz aizetuak)
sua, ametsik goragarrienetan,
maitezko txingar goriz, edertuak,
bat egindako egada goituetan.

Aizearen ats bizia, iauzika
sugarrean kixkaltzen, izan naika...

---

* Olerti 1981, 78-79. (Ik. 1017. orr.; antzeko olerkia).
** Olerti 1981, 79.

## ONTZI BAZTERTUA*

Ondarraren gaiñean
baztertuta, or datza
ontzia legorrean;
ankazgora endaitza
egoera makurrean
begira itxasorantza.

Albaleuke itz egin
ontzi baztertu onek,
zenbat zoriren barri,
zenbat poz ta larri,
oroitzapen lekarzkin
orduko gau-egunek!

Aldibera uretan
dinbili danbalaka,
zenbat igitu ote
ugiñen besoetan
eratuz ainbat bide,
irriz edo alaka!

Aize ozkirri, barez,
egun atsegin, argiz
edota, gau izargez,
eriotzea ikusiz
ekaitzpe gogorrez
amaika illun aldiz.

Ametsezko zeruak,
lillurazko izarrez
ederrik oretuak,
edo, neke gogorrez
iasaniko malkoak,
biotzezko negarrez.

Itxasoko gatzaren
ta, berein margozko
eragin, ikutuak;
goiz ta arratsezko
ibili bakoitzaren
gogaiez bizituak.

## ANTZARRAK**

Antzarrak,
itxas-antzarrak
kua, kua, kua...
Ipar-aldetik,
urrundik
oiuka
legorrerantza
gosez datoz bai,
urduri
nekatuak,
neguaren igesi.

Goi-goi,
itunik datoz
kua, kua, kua...
ots egiñik
ta buru bati
bi lerrotan
iarraiki
doi-doi...

Antzarrak,
itxas antzarrak
illunabarrean
nekatuak
urduri
be-aldera
begira
ari dira
osteraka,
lurreratzeko
gogo biziz,
gizonaren
aztarnik
inguruan
ezpalego.

* Olesti 1981, 80.
** Olesti 1981, 83.

## KABITIK ARA*

Kabitik ara,
txori orren arrimena!:
Egoen gain, utsean,
lenengo aldiz
txorikumeak
bere burua bakarrik
ikustean aidean.

Bizia biziz
edota bizi nairik,
lenengo egaztadatan,
ortzibide zabaletan
ari da erdi izurik
txintatuz bere izena
munduaren aurrean
txorikumea.

Asierako ametsak
egoetatik zintzilik
goizaren bidean
ikaraz, dizdiz,
lenengo gorakuntzak
ebaitasunean
zerua urratu naian.

## PABLO ZAMARRIPA GOMUTATUZ**

Iñor izan bada, Zamarripa dogu bai,
euskalduntasunaren eusle ta kantari:
apal, zintzo, (txori-erritar bat bezin alai),
benetako euskal langille, olerkari.

Laredo'n iaio, ta, gero, Sondika'n illa.
Errikoia zan bai, aren gogo, mintzoa,
biotz sugartu baten egur ta subilla,
maitasunezko eskuz edatutakoa...

Bizkai barrutiko berbakuntza sakonez,
eredu gendun, eredu ta argizari;
eredu gendun, bai, eredu, ta gudari,
gudaketarako izkillurik onenez.

Aren idazlerroetan murgiltzen bagara,
itxaropena darion emoi, ur garbiz,
osakai sendo bataz aurkituko gara,
alakoxe errikoitasun bizigarriz.

* Olerti 1981, 86.
** Olerti 1981, 87-88; *Esk.* XXI, 80-81.

Aize bigunak bezin bare... Zein gozoro
laztantzen dauan bai, euskera ta erria,
otoitz ta iardunetan, goiz ta arratsero,
biotzeko zati, Euskadi maitagarria!

Ai, zenbat, zenbat diran Amaren negarrak»,
ots dagizku bai, berak: «Euskaldun kaskarrak».
Noizko, noizko dozuez biotzeko garrak»?
Ta, nik: Zergaitik ez doguz batzen indarrak?

«Erdu, ia, osatutera Euskera biguna»!
Agertuz arenganako maitetasuna...
«Eskeñi, ia, biotzak, loturik alkarri»,
«guztiak izan beitez Amaren kantari».

«Negarrik egin barik, poztasun betean,
Amatxu bizi beite euskaldun artean.
Zein seme biziko da, Amatxu, zu barik?
Zein biziko, Amatxu, umezurtz egiñik»?

«Maite zaitut Amatxu, ez egin negarrik»,
«zeugaz gura dot egon betiro baturik
(Olaxe diño bai berak) «Zugaz egonik,
badaukat lur onetan naiko zorionik».

«Foru ta gure oitura zarrak galdurik.
«Euskaldunak zer dauka yagokon gauzarik»?
(Zer dauka, zer dauka?) Euskera bakarrik».
«Ilten bayaku bera, eztogu besterik»!

Dei dagitso euskaldunari. Dei, ta arren,
ikustean euskerearen eriotz lasterra,
ikustean euskaldun izaera beraren
ardurarik bako kokildura landerra.

Bere sentipenen bidez, olerkariak,
ots dagi, berarizko oiu sakon batez;
ots, azalduz alako egoera gorriak
beren biotz barruko ikuskera maitez!

«Zer baña? Lotan zagoz oraindik, euskalduna?
«Ilten eztozu ikusten Amatxu kutuna?
«Euskera il gura dabe. Ori itsutasuna!
«Ezta naikoa galtzea Lege Zar biguna»?

Bere guztizko aaltasun, bizi-izatez,
argiro mintzatzen zaigu (ederrik ta lau)
benetako bioztasun ta zentzumenez,
euskal olerkari bizkor, ulerterrez au!

Lan gatxa dala badakigu bai, gurean,
«Euskera garbi ta erreza egitea»,
«baiña ein bear da, ein», —zabaldu atea—
euskera nagositu dadin bein batean.

Firi-firika naiz kili-kilika, maitez,
txibizkeri, naiz, txirrimirri egadatan,
egin, egin bear da, benetako egitez,
euskerea loratu dadin ezpanetan!

## PEÑA ALBIZU'TAR XABIER ZANAREN GOMUTAZ*

Iñoizko naste ta bizi izatezko gogoz,
aberri ametsak lorara datozenean...
Euskalerriko erpin, mendirik gorenera
igo zara (mendizale zorroa itxirik),
zeure lurraren, aberriaren maitasunean
igo zara, begiratoki goi argienera,
euskerea agoan dozularik, betikoz,
zeure irakasle sen ederra edaturik...

Betiko igo zara Xabier, Aitarenera,
onbidez ibili danaren atsegin, pozez;
betiraun beti-betiz, bizi izango zaran,
betiraun betizko, mendi gallur, tontorrera.
Apalki igo zara bai, (txapelezko baitan)
lainko Alguztidunaren altzo magalera
igo zara, betiko euskerearen laguntzan,
maitezko irripar aidekor ta loratuenez.

Iñoiz ezlakoxe ikusmira zoragarriz
atsedendurik burua, betikotasunean...
(oianak ta ibaiak, ibarrak ta aranak,
baserri mendikoi ta, ezetasun orlegiz
inguraturiko erri eta, bazter danak)
eskuera dozuz, orain, gogozko begipean,
euzki dirdaitsuz edo, lañope aztunean,
bizi izate beraren akats eta zauriz.

* Olesti 1981, 89-90; Zer ( 1981, 39. zenb.), 12; *Esk.* XXI, 89.

Ikusten ariko zara, biotzeko zenduzan
Uzturre, Txindoki, Ernio, Larun, Kanpanzar,
Oiz, Sollube, Bizkargi, Gorbei, Aralar,
Mugarra ta Atxarre, Unbe ta Ereñozar...
Euskadi'ko mendi txiki ta aundiak,
erri barruz edo itxas ertzez (emen ta an)
opor egunetan gogo alaiz ibiliak,
aberri aldezko ikuste ta ereinketan.

Nerbion ertzetako ke ta laiño artean
itxasorañoko kai luzearen lantegizko
ekiñal ta urduritasun etengabean...
uriaren urbidezko eta merkatalgozko
artu-emonari begira ez ete zagoz
ikusiz zeure lan ta ametsen Bilboa,
munduko zorabioan, bizi ala galdukoz,
zeure euskal bide-gurutzearen ibilgoa?

## BARRI ONARENA*

Barri onaren zantzoa da bai
laiotza baten oiartzunez
ta, ingurua jorantsu, alai,
oi dan ongura, poztasunez.

Kanta ta dantza Gabon gauez
munduari berea emonik
baiña, ez aztu itsurik
aldameneko miñ oñazez.

Ez aztu ez estu ta larri
bizi dan zeure senidea,
ez aztu ez zeure kidea
ainbat biziera negargarri!

Benetako gogo kemenez,
indarturik bakearen sua,
zabaldu, iriki bai biotza,
munduaren aserre gaiñez.

Benetako maitetasunez
lagun urkoratuz eskua,
urturik gauaren izotza
egitazko berotasunez...

Izan anaiaren anaia
gizartearen onuragarri;
izan lurraren aitzur, laia,
gure Aberriaren eusgarri.

Izan ezti ta aberaska,
erlontzi aberats sakona;
gogo argiko usin, aska,
geroaren gozamen eder, ona.

Euskelgintzazko lanean
ekin erlearen ekiñez,
billakuntza etengabean
bizi-ametsik ederrenez.

---

* Olesti 1981, 148-149.

## ZER DA MAITASUNA?*

Esku zabaltze bat da maitasuna; emontza;
urkoarenganako gogo, biotzezko ereintza;
begiratu garbizko dirdira, besterantza;
argi, bizia, laztan gozozko eskaintza...

Benetako negar-malkoa da maitasuna;
benetako biotzondoz ixuritakoa.
Itxarozko agerkunde, poz alaitasuna;
eder-ikutuzko goigunez ondurikoa.

Soñanzki larrosatuz udabarria loran.
Ta, udazken arratsaldezko sakontasuna
aize epelean dirdai, urrezko orrietan
aldarrikatuz ederrik, bizitzaren guna.

Maitasuna bizitza da, biotzaren sugarra.
Da itxasoa, lurra, zerua... Izatearen
lurrin, egoa, lorea, ta aunitz margoren
goiza, arratsa, illun-argizko ortzadarra.

## URTE BARRIKOA**

Urte barri on! —diraustazu— irriparrez
ta, nik be, eskua luzatuz, bardin dirautzut;
ta, urteak lekarken ernaldi bizikorrek,
aldi obeago bat, ikusi nai genduke zut.

Bizi-itxaropenak iñoiz galdu barik,
gizarte ariak ondu bediz, maitasunez,
—zentzuzko ekintza, benetako gaitasunez—
euskal alorrak betikoz osasundurik.

Ez bedi izan, beste galdutako urte bat,
baizik euskerea sendatu, gainduko dogun
urte-aldi oparo bat, gure erriarentzat.

Arduraz erein ta, biotzez indarturikoa,
—galburu betea bezin eder ta ogidun—
guztion alegin ta gogoz ondurikoa.

---

* PVV 15 (1981, 147. zenb.) 9; *Esk.* XXII, 108.
** Zer (1981, 40. zenb.) 6; *Esk.* XXII, 16.

## NEGU BALTZAREN ONDOREN*

Negu baltzaren ondoren
egun goibel, egun motzak,
egun ostendu, izotzak,
ikusirik argiratzen...

Illik, lotan zegon oro
ederrik, indarbarritzen,
orlegitzen, lorabizten,
ikusirik ain sendoro...

Dan-dana udabarrika
bizi-txintada otsean,
etorkizunari deika
ustetsu ari danean...

Zergaitik ba, lagun maite,
etsipenez kokildurik?
Zergaitik zu, ain naigabe,
itxaropena galdurik?

Bizi-sen alaia galdu
ete da zure barruan
ta, negua betikotu
zure biotz nekatuan?

Aberri negarra ete
ikusiz etsaiz betea
ala, euskera maitea
mintzen zaituna ainbeste?

Maitasuna or ari da
bizitzazko bideetan
batetik eta bestera
maitearekiko deietan.

Alaitu zaitez alaitu
bizia gora datorrenez
eta, zu be, zelairatu
bizi izatearen pozez.

## EURI BIZIKORRA**

Euria. Euri bizikorra,
(ibai, iturrien ama)
euri atsegin, pozkorra,
mara-mara, gozo-gozo,
lurra laztan asetzera
datorrena, legunkiro
ta kutun, besarkatzera.

Euri eme, garaikorra,
itxaropena edatuz
belarrera, landarera
egarrituak asetuz
ama lurraren senera
bizi poza dakarrena
eguzkiarekin batera.

Euri eder, emaikorra,
gero, lurra aseturik,
amaika emai, sorburuz,
lats-errekaz, ibaibera
doana, ertzak ezetuz
ta, sortzetik urrundurik
itxasoaren magalera.

Bizitzazko euri, ura,
maitetasun ituzura...
arin-aringa doana
ibaibera, amiltzera,
gizonaren antz-antzera
itxasoetan barrena,
danakin bat egitera...

* Zer (1981, 42. zenb.) 10; *Esk.* XXII, 6.
** Zer (1981, 48. zenb.) 5; *Esk.* XXII, 109.

## URARENA*

Ur zirriztatxoak
darakus iturria.
Olantxe itz onak
gizonen argia.

Urak ekarri,
urak eroan.
Berak al daki
noruntza doan?

Ur emoiakaz
bizia zirriztan,
ibai ertzakaz
autu-mautuetan.

Uretik uretara,
txikitik aundiara,
iturritik latsera,
latsetik ibaira.

Itxasorakotan
ur izpi bat emen,
beste bat an bertan
egoak arrotzen
bat egitekotan.

«Maite aut maite,
etor ba neugaz
or bidebera,
biok alkarraz
azkenerarte».

Aurrera ta aurrera
azi geituzko ura
badoa ibaibera,
iritziz ondarrera
itxaso gatzitura.

Txiri-txiri, txara...
elburu-amets artez,
urez uretara
ta, danak bat egiñez
itxaso aundira.

## EZAREN BILLA**

Mari Urruka
Anboto'ko andrea:
nundik nora dabiltza
nundik nora
zure beste lagun
sorgiñak
galdurik bidea?

Ibarrik ibar,
etxerik-etxe
ezaren billa
ari dira
Euskalerriko bidez.
Ezaren billa
ezari zor zaionez
sakelak betetzeko
ezaren ainbateko
urre ta zillarrez.

* Zer (1981, 49. zenb) 7. (Ik. 683.orr.).
** Zer (1981, 49.zenb.) 7; *Esk.* XXII, 106.

## IZAN ZORI ON*

*Zubikarai-tar Augustin'i Ondarru'n*

Gabon. Gabon Zar
eta, eraberean
Urte Berri on.

Izan zori on
Zubikarai-tar Augustin
idazle trebe, beargin,
bizkaitar gizon.

Izan osasun,
izan munduko egunen
amets jarraidurapean
izan maitasun.

Izan egitekoaren
gogo sendo, edertasun,
izan argimen zindozko
gogai ta zentzun,
izan erritar sustraidun
gatz ta berakatz,
izan berotuko zaitun
su ta laratz,
zeure amets goiduradun
ortzitar izar.

Luma zorrotz ederrezko
ondarrutar seme kutun...
izan adore ta kemen,
euskal alorrak bear dun
egunik egunerako
zure itur emoitzaren
sena ugaritu dedin
euskeraren onerako
izan asti ta atsegin.

Larogeita bigarrenan
izan Kantauri'k ederto
ondu ta gatzituriko
argidura aberatsa,
ondarrutar itxastarren
jakituriz gaituriko
seme eredugarrien
abots egiti, beratza.

* Esk. XLIV, 35. (1981-XII-6).

## GABON ZORIONTSU ETA URTEBARRI

*ZER aldizkariaren idazle eta*
*irakurle guztiei*

GURE bizitzako atsegin, arantzapez,
ainbat goraberazko igaropenean
egunik egun luzatuz, etorkizuna...
Urtea, ba'doa, ba'doa beren bidez
barriturik beren itxaropen lurruna
azken ta asierazko izantzapenean
ixuriz izangozko eskari kutuna
larogeita bigarren zorion-ametsez...

Ai!, urte onek zer ete dakar zorroan:
zillar, urregorri ala berun aztuna
ekintzatu gaitezan euskel alorrean?
Ez bedi oñazez, ez atsegin utsalez
edota bizi apaingai merkez etorri
baizik zintzotasunezko neurri batean
onartzeko bizia. Ta, ortako, Jauna,
bekar osasuna bizitzaren oñarri!

---

* *Esk.* XLIV, 81 (1981-1982).

# 1982

## SHO-SHO ERRIA*

Eundaz gitxi, apurrak,
Amerika altsuaren
barrutiz bizi diran
sho-sho seme zuurrak
ez dituzte ez beren
arbasoengandiko lurrak
saldu nai edozelan
umezurtz geldituren

eremu lur pobreak
—petroliorik ez urik—
miseriz biziarren
bereak dituzte bereak
ta, arrazoiz beterik
izan ezik ba, obeak
nolaz ainbat nekeren
lurrak erabat utzi?

Ez da ori zillegi.
Eriotzadun misilak
deserriko dituzten
gudagai biribillak
nai dituzte ezarri
eremuan lenbait-len
amerikar sotillak
lurrak diruz erosi.

* Karmel 1982-1, 91-92; *Esk*. XXII, 111.

Ara zer dion ango
sho-sho buruzagiak
argituz erriarengo
bai buru ta begiak:
«ez gendun iñoiz galdu
gure arbaso lurra
ta, ez dugu salduko
gure bizi apurra».

«Odolekoa dugunez
ez da iñun dirurik
iankiek asmo txarrez
edota alabearrez,
erbestetu nai gaitun
erri erostekorik,
ain da geurea ta kutun»!

## IZAN*

Galburuaren
garaun mamitsuzko
uruna izan;

azkatasunean
alai txiokatzen
dan txoriaren
abestia izan;

iturburuaren
gardenik doan
emoi ederraren
ur bizia izan;

anaitasunez
ekintzaturik
esku bioztuaren
gogoa izan;

Itxaropenezko
argia, izpia
edo gizarteko
ispillu garbia,
lagunkorra izan.

Bizitzaren
aldezko ekintzaren
esku bat izan.

* Karmel 1982-2/3/4, 175.

## ESKUAK LAZTANDUZ*

Adizkide antzo
eskuak laztanduz
bizitza bidean,
biotz eta gogo
egungo nekean
zerbait izten dot
begiak luzatuz
neure ibilian.

Biotz ta gogo betezko
irripar baten argia;
itz baten urregorria;
edo laguntza onezko
opari bizigarria...

Baita, eraberean,
zerbait jasotzen dot
goiz ta arratsean,
begiak barrenduz
beste begi batzun
gozotasunean,
maiterik ta kutun
eskuak laztanduz.

## LORATAN DAGON ZERUARENA**

Ez dakit goizaldea ala illuntzea dan.
Itxasoaren ala garitza zibuzabua.
Dakitana da lagun bat dagola begian.
Guztiz Aundiaren itzal biziko ikutua.

Azkenik-eza somaturik neure barrengo
ikaraz, ederrik, so dagit aunditasuna
loturik lainkoaren zeruaz, an gorengo
neure biotzeko ikusmira laztan kutuna.

Olinpu bat da loratan! Ogia lorabegin:
(Txibiz, urtegiz, ikur, zintzilikoz, olatuz...)
dana dardakari eta dana ain sinistu-ezin.

Itz barik obeto dabestsat ene zeruari,
neure alegiñen lorean txutxumuskatuz
bakezko ixilgune bat, neurri baga, ezti.

---

* Karmel 1982-2/3/4, 177.
** Olerti 1982, 33.

## ITZAK*

Itzak
aizea
ikututzean
txoriak dirudite
egazean,
goi aldeko
ortzitar
edadura
zabalean;
izarño dirdaitiak
ñirñirrean
zeruetako
argitasunean;
mundu bat
azkuntza betean
eresiaren
alorrean;
itzak
nasi-masian,
egunoroko
ogi-bidezko
bizi-bearraren
kosmos aundiko
ibilliaren
bata-besteko
eragiñaren
bizi-poema
betikorrean.

## VERLAINE GOGORATUZ**

Ezebezko euri tentel. Txiri, txiri, txiri...
Txirtxil baten antzera oskari, etengabe
euria, euria, euria... ain gogaikarri:
euria egunaren oñarri ta zutabe.

Bustitzen dun ala ez, asko ez da nabaitzen
txiri, txiri, euria dagi gogoz poliki,
euria, euria, barruraño zaigu sartzen
euria negargura gozoz ain ildurati.

Arrats gorri aize edo euri. Bai, orrela
margotu zan atzo illunabarra ain gorri
ta, gaur ona emen euria, ixil-ixilla
goibelki... ai, euria ote ala aterri?

Begiak tristuraz itun, gogoa itunago,
eguzkirik ezaren goibelduraz iantzia
eta, busti ez busti, garastatua nago
egunaren arabera arima guztia...

* Olerti 1982, 33-34.
** Olerti 1982, 34-35; *Esk.* XXII, 15.

Miñik ez ta, egungo ogia euki-arren
eztakit zeren nai ta kezkez ari naizen
eztakit zeren auldurapean nabillen
eretxi batean soiña ondo dagonarren.

Gaixo ote dut barruko gibela, gogoa
etenduriko ixillezko arien batez,
gaixo ote dut ene biotzaren izangoa
zauri antzeko ustasun, zerbaiten zerbaitez?

Au itunkera utsal ta ganorabakoa!
Txiri-txirizko euri mear, euri ezbaiez,
txiri-txiri ta, ezebezaren ezebezez
olan zauritzeko nire ametsen auspoa.

## ITXASOA*

Aldakor da itxasoa
aldiz aztun ta gogorra.
Deungea ta izukorra
ekaitz illunen orroa
edota baita leguna
atsegin ta laztankorra
ur-zelai otzan, barea,
erabat sakon, kutuna.

Urpetza zoragarria,
ederra, ezin obea,
goratsu ta pozgarria;
ta, egun ozkirrietan,
zerutasunez betea.

Oiñez ibilteko eran
zelaitasun urdin-arrez
gure ibilte gogoa
amets-eragin sorgiñez
aunditzeko añakoa
egun-sentiz, arrats-beran.

Edo alderantziz, gogor,
itxutasun nabarmenez
txistu-oska ta, bitsetan
inpernutar eragiñez
aizeak erabat mozkor
ontzi eta arkaitz gaiñez
ugiñakin batera, or,
ekiñaldi zorrotzetan
erasotzen dutenean...

Bai garratza itxasoa
alako abordanapean,
osertzik osertz, illuna
gaiñeratzen zaigunean
kokilduz gure gogoa!

Gau-egunen goiberatan
bizitzaren antzekoa:
igikorra ta zoroa,
beren ioan-etorrietan
gizonaren erakoa...

* Olerti 1982, 35-36. (Ik. 694.orr.).

## EGUN ARGITZEN*

Txintada otsez egun argitzen
ari da-ta, eguzkiaz batera,
txoriek egal batik bestera
dabiltz goizari poza emoten[a].

Basoetako oiartzuna dator
udaberritar berbizte alaiz;
bizi-eragin itxaropenkor
eta amesgarriak sortaraziz.

Egun argitze eztikor onek
bizi etorrera ederkorrez
esan daikegu bai, obeagoak
egiten gaitula alabearrez.

Maitezko erantzukizuna da
loreillak dakarrena goibidez,
aurrera kementsu iarraitzeko
egun barrien bizitasunez.

## NESKA GASTEZ**

Goi-bideturik
bere ortzian
maitez, ederrik,
bizi naiean.

Neska gaztea
kantari dabil
erdi txoratil,
gogoz betea.

Kolkoan pilpil
ametsak loran
eta, begietan,
dirdaiak bipil.

Begien erdin
itxaropenez
biotza agirin,
taupada emez.

Orra ba, maitez,
txiruliruka,
txindor abotsez
udaberrika.

Aizea legun
landa, soloetan,
laztanka kutun
osto berrietan.

Auxen gertari
zoragarria,
bizi-iturri
goresgarria!

Begietan biotza
maite mintzoka,
erabat lotsa
norbaiti «soka».

---

* Olerti 1982, 37 *(B)*; *Esk.* XLV, 129 *(A)*. (Ik. 524.orr.).
[a] dabiltz – emoten *A* pozik dabiltz bai, goiza agurtzen
** Olerti 1982, 37-38.

## EMANTZA*

Azkatasunaren aldezko gogoz
eman bideari zeure argia,
benetako poztasun, bizi-ardoz
eman zeure barruko abestia.

Abestu begiz egiak, biziak
ederkuntzazko gogoaren agoz,
abesti alai ta arnasgarriak
bizitzaren bizitzazko goi-asmoz.

Iaso bai apalik zeure abotsa
maitetasunezko esku zabalez;
iaso bulartsu zeure nai beratza
itxaropen sendo baten egalez.

Ez dedilla izan aspergarria,
gogorra, minduratia, itzala;
ez dedilla izan illungarria
bizitzaren bizitzazko zantzoa.

Izan bedi udaberria loran,
euri mamizko ezotasunean;
erleak, txoriak, ingumak egan
zeure abotsaren goitasunean.

Beartsuen, menperatuen lagun,
abots ezti, aldiz erabat gogor;
izan benetako esku, maitasun,
beti erori alde, itxarokor.

## NEUREKERAK**

Ontasunaz ederrera
mundu anaitsuago baten
lagun arte, gizartera.

Maitasunari eskerrak
ederrik loratzen dira
nire egunen iberrak.

* Olerti 1982, 38-39.
** Olerti 1982, 39-40.

Maitasunik ez banuke
goibeldurazko munduan
otzakilduko nintzake.

Soil-soilik ametsa naiz
udaberritar lurriña
itxaropenezko emaiz.

Egun ona zait atsegin
ekaitz gaiztoak ordea
biotzean ematen dit min.

Arako gau sakonetan
so dagit so gaietara
izar argi billaketan

Nik ez dut ez izpiderik
nire oldozkunentzako
oldozkuna naizelarik.

Danik gogorrenik ere
eusten diot biziari
ibiliarren noragabe.

Gari-buru argidoiek
dizditzen dituzte bai
nire gogozko zelaiek.

Bizitzazko neke-pozez
gizabidez, bidebera
darrait egia zer otez.

## UMEZAROKO*

Umezaroko urte goikarietan,
berein nimiñokeri, ezer gitxiz,
poztutzen ziran bai, gure egunak,
baserrietako atari, landetan,
gazi-gezazko amaika istoriz...
(txori txanoz, pelotaz...), begietan
kilikili egiten euskuenak,
izadiko artu-emon barrutiz
geuretutako uskeri kutunak.

Siniskeri edota, sorginkeri,
tentelkeri utsak baziran bere
poz-pozik egoten giñan ta adi,
neguko arratsetan, sutondoan,
epel-epelik, beti ipuin eske,
kukulumutxu amaren alboan
entzunguraz, arrenka ta zer barri
ipuiñakaz iñolaz ezin ase!

Zenbat esakun eder, bitxikeri
entzunak gara alako gauetan
sorgin egada ta, Peru-Marizko
ipuin-aldi gozo, barregarrietan;
zenbat arrats luze moztutzen ziran
egoak emonik irudimenari,
bai eguzkipeko ta gau-zorizko
izakien ibilte t'egiteetan!

* Olerti 1982, 41.

Izadiz bizitzen ikas gendun
negar ta barrez, uda ta neguan,
otz ta barrez, Urtarril ta Abenduan;
ibarretan ta basoaren onduan,
azkatasunezko eragin-otsez
barrendu giñan, alairik ta nekez,
benetako bizitzaren kantuan
iatorrizko argitasun ta senez.

## LORRATZAK*

Miseriaren lorratzak
nabaritzen dira nun-nai;
azpiratuen negar-otsak
erabat nabarmen, deslai.

Ekaitzezko korapillo
ari mataza samiña;
biotzik ezaz egiñiko
inpernutar etekiña.

Eriozpide gogorrak
gizonak egin ditunak;
gosezko altxor, zigorrak,
dezabakeri lizunak.

Aberetzen ari gara,
ososoan lau-ankatzen;
bakoitza bere erara
suari aizea ematen.

Alan be, bai, badira bai,
maitasunezko argiak;
atsegin pozgarri, alai,
loradun une bitziak.

Badira maitasunaren
Ama Teresezko argi,
erakusbide onaren
ainbat izpi bizigarri.

Benetako iturriak,
biotzak poztu ta asetzen
dituztenak, ta legortzen,
malkodun begi gorriak.

Odeipeko euzkiaren
ager-aldi pozgarriak;
amets eder gurenaren
ikutu maitagarriak.

* PVV 16 (1982, 149.zenb.), 10.

## ARRANTZALE ADINTSUA, KAI BAZTERREAN*

Urteetako kresalak mazkaldurik
(orizkatua ta baltzizkindua)
orri erdi-zimel baten antzera
ta urte aztunakaz makurturik
arrantzalea, itxastar gizona
(udazkengo ikutu arabera)
kai bazterrean dakust ezindua
bakartadez, itxasoari begira.

Ugiñik ugin, itxas ur aundietan
ta, ibili barik, olatubera
ibilteko oitura geldo arek
egin au legorrerako benetan
baldar, ain taiu gitxiko berunta,
*ibiliko ba'intz lez albokera,*
itxasoaren arako goiberatan
tinkaturik eure oin nekatuak.

Itxasoko osertz urrunetara
begiratze arek espeldu zitun
zure begi zuriak. Orain ikara,
gogoraturik ainbat gertakizun
lengoz-lengo, amesten ari zara
biurturik itxas-urbideetara
ainbat nekebidezko gau ta egun
igaroren arrantzu lekuetara.

Akiturik zure barruko sua
aize kresalduak eroan ditu
zure kirio eta oldozkunak,
zure gaztetasun giartasunak
ta, orain bakarrik gelditzen datzu
lorik egin ezin arduratsua
ta, oi diran gogo illuntasunak
lengo ats apurrez bizigaitua.

## MENDIKO ITURRIA**

Aurkitze atsegin, pozgarria,
mendiko biotzean iturria:
ur garden gozo edangarria,
bizitzadun emai gurgarria

Maldan gorako nekapenean
tontorrera eltzeko gogoz
oiñak zuzentzen diranean
goi ta beak gozartzeko asmoz...

Zu ta ni ere... bizitzan gora
alkar zaindurik, alkarren babes,
edanik maitetasun onura
geurekiko iturri laztanez.

Bizi-izate, igaranean...
bidea izan leike luzea,
izan leike arantzaz betea
gau-egunen illundurapean.

Izan leike ona benetan
baldin badakigu eroaten
noizik ta bein artuaz atseden
zorabiatu barik ametsetan.

Goizaldetako argi-txinpartak,
illunabarretako dirdaiak;
larrosadun urgune, zelaiak;
bizitzak damoskuzan txaplatak.

Amets-iturri bizigarriak,
gizonen biotzetan landatuak,
itxaropenezko bidaldiak...
norbera bakoitzak eratuak!

---

* Zer (1982, 51.zenb.) 4; *Esk.* XXII, 112.
** Zer (1982, 52.zenb.) 12. (Ik. 837.orr.).

## POZGAI TXIKIAK*

Maitez lurrinduriko
pozgai txikiak dira
biotzaren obariak;
bizitz igaranezko
goigune gelgarriak
datozenak arira.

Esku zabaldurazko
irripar alai baten
laztandura samurra;
anai besarkadazko
erabide onaren
alkartasun agurra.

Bizitz oro bizia
da mendi, ibarretan,
izantz zoragarria
itxaso, ibaietan;
ezkutu gelgarria
egungo goiberatan!

Erein itxaropena
bideko arantz-artez;
erein bai euskal sena
ta, onar aldan bestez
zure anai, gizona,
bakoitzaren izatez.

Kolkoratu egalak
beren eder ta onez,
gauza apal bizien
argitasun izpillak;
Iainkozko zabaldien
emoi ta aintzamenez.

## EUSKEREA ZELAIRATZEKO*

Adimen argiz ekintzatuz
aberria ta gizartea
suspertu, erabidetzeko
eskuak, biotzak bear doguz
gizatasunez jasotzeko
gure ele kutun maitea.

Euskerea zelairatzeko
bere sustraiak osasunduz,
esku ta biotz, benetako
ardura aundi maitekor bat
gure egin-poza azalduz
jarri bear dogu eredutzat.

Bear doguz berba biziak,
etorki eder egokizko
iturri garden ugariak
benetako asmo zintzozko
goi-egitura gurgarriak
edonora aurkeztutzeko.

Itxaropen larrosak loran
berarizko sen usain gozoz,
gure alegiñen baratzan
maitetasun emoitza beroz
sortuak, margo ederretan
bizia alaitzeko asmoz.

* Zer (1982, 55.zenb.) 5.
** Zer (1982, 55.zenb.) 5; *Esk.* XXII, 82.

## EGUN ILLUNAK*

Bizitzan
tarteka,
egun illunak dagoz
ta, batzuetan
odeiz, laiñoz,
negarraren barrunbean
jausten gara
illunpean.

Ez da iñor gogoratzen
bizi garanik be
ta,
biziak kizkurtu,
biziak estutu
egiten gaitu.
Bai,
ba'dakigu
gatxa dala
burua jasotzea,
goizero
gure zanetan
odola
lenera ekartzea.

Izangune baltzak
barrenduak azurretan
edozeiñi
atzerantz eragiteko
añakoak diranak;
egun gogor, latzak,
biziari
esaten dautsenak
ez gagozala etxean
ta, beste egun batean
etortzeko.

## ORBELAK LEZ**

Aizeak daroazan orbelak lez
zirimolka, basaz zipriztinduak
ta, bertanbera jausiak lurrean,
bizidunen oinkada, ostikopez.

Tamalgarria da bai ikustea
ainbesterañoko itsutasunez
inguratzen gaitun gizartea
ain dollor ta zeken, garraztasunez[a].

Gogo zitalezko[b] gogortasunez
biotzak dagoz deungaki[c] izoztuak,
erakutsiz euren errenkurea
gozotasunik barik, etsipenduak.

---

* Zer (1982, 55.zenb.) 15. (1982-II-7).
** Zer (1982, 57.zenb.) 10. (*B*); *Esk.* XXII, 110 (*A*).
[a] Ain dollor ta zeken, garraztasunez *A* ain egokiera doillorta, aztunez [b] Gogo zitalezko *A* Eriotzazko gogo
[c] Deungari *A* deungaro

Azurretaraño dago sartua
munduaren ustel-sunda, kiratsa;
ibaiak, lats, errekak ta[d] bizitza
bera be[e], erroraño ondatua[f].

Gure[g] biotzak ez, ez dira maitezkoz
bizi. Ez dira ederrik apaintzen
ta, alai, udabarritar[h] soiñekoz,
ez dira usaintsu loraburutzen.

Negute edurtu izotzgarriaren[i]
kopeta zimurtuaren betoskoz
antzeratzen dira, illun baltzaren
egun gautuen asarredun margoz.

Zer, zer gertatzen da gure errian,
betiko eztabada[j], gutarrean,
zer gertatzen da zer gure artean
gorrotogarrizko[k] lorrinkerian?

Erauntsi gaingoratuaren[l] antzera
erasotzen dausku bai mendebalak.
Baiña, nundik norakoak ete dira
orren buru, erro eta magalak?

[d] Ta *A* eta [e] Be *A* ere [f] Ondatua *A* galdua [g] Gure *A* Ez, gure [h] Ta, alai, udabarritar *A* udabarritar goitiar [i] Negute edurtu izotzgarriaren *A* Baizik negute negargarriaren [j] Betiko eztabada *A* anai arteko gorroto [k] Gorrotogarrizko *A* ainbesterañoko [l] Gaingoratuaren *A* bildurgarriaren

## MUNDUAREN NEGARRA*

Munduak negar dagi,
oiu eta karraxi...
sutan dago, gar bizi.

Batzuk geiegikeriz
ta, euren aundikeriz,
txilborra erakutsiz.

Besteak aundi naiez
dabiltza, gora-bidez,
euren zorrozkeriez.

Beste batzuk, tentel,
(gura eta ezin el)
erdi iger ta zimel.

Geienak ill ez bizi,
—ta, zenbat zauri gorri!—
negarraren iturri.

Gitxi batzuen ona
(askoren ondamena)
nun ete nun zoriona?

Danok estu ta larri
(alkar ezin ikusi)
ero ta barregarri.

Gitxi batzun indarra
(petrolioaren sugarra)
miseri ta negarra.

Zer gertatukoz bildur,
(ta ez mami ez azur)
maitasunez ain labur!

Ez biotz ta ez buru
(geldorik eta mutu)
gauzak zelan atondu?

## BEREN ATUN TA LEBATZAKAZ**

Beren atun ta lebatzakaz,
au itxasoaren aldakorra!
bixigu, bokart, berdelakaz,
urtegi bigun ta, gogorra.
Itxasoa da bai, beren gatz
ugin goititu ta, bereakaz,
arrantzale ororen baratz
lantegi, bizidun alorra.

Itxasoa izugarria da
beren ekaitz ta olatuekaz,
beren laiño ta aizeakaz
aundia da bai, itxasoa,
beren arrain ederrakaz,
aundia ta baita zoroa,
egun bare ta gorriakaz
ezkutupez beterikoa.

---

* Zer (1982, 58.zenb.) 12.
** *Esk.* XXI, 12 (1982).

Mariñela lugin antzera
bere ogibide arduraz
ur bazterrak arakatzera
doa, Iparrera, Egoara
beren lanabes, ametsakaz,
ur-bideetan dantzatzera
ta, bere izerdi, eskuakaz
etekin bat ataratzera.

Munduko berein itxasoetan
an, Kantauri baiño asago,
zabaldu ziran euskaldunak
emen ezin ta, urrunago;
atunetan naiz makallutan
Izotz-erriz edo berago
billatuz aberastasunak
nunbaiteko erri-aldetan.

## NEKALDI TA GUZTIZ ERE*

Bizitzaren neke, latzdura ta guztiz ere,
lepo-zorrotik urruntzen dot bakartadea,
ta, elburu-asmoz, iatorria aztu gabe,
zabaltzen diardut bai neure ibilbidea.

Arrimenezko kale, kale dardaratua,
nire ibiliaren bideetan gertatu iatan
maitetasunaren erazko begiratuetan
goiztiri argi ta illuntzekoz nabartua.

Au eoskortasuna gizon eoskorrarena!
Au aurkezbide ttunttuna, au alukeria,
esi barrupean dagola iakitearena!

Alaitasun margoz iantzi dot biotza, gogoa,
ta, eskua moztuz kentzen dot gaiztakeria,
ogi-alezko ogasunez edertuz soloa.

---

* *Esk.* XXI, 23 (c. 1982).

## ZELAIA*

Zelaia dago bedarrez loran
ta, ama ta alaba, bertara
abiatu dira, egurastera,
udaberri eguzki gozotan
bizi-poz alaia jasotzera
eder baidago dana, pilpiran.

Bai amatxo! Esaidazu esan,
margo-zuri gorrizkaz dakusgun
ta, txoria ez dan egaladun
ori, zer, zer arranapola dan,
esan amatxo zer izen daukan
lorez lore bitxikiro, sorgin.

Bai maite! Ederrik ta pinpirin
dabillen egaztaritxo orren
deiturea ezta errez esaten,
izenak dituanez ain ugari
baña, ia ba, ene poxpolin,
asma zagun zein dan egokiren.

Atsegin al zaizu «mitxeleta»
edo, antzerako besteren bat,
«txipeleta» edo, «tximeleta»?
ala naiago duzu «inguma»
edo polit dan «pinpilinpauxa»
zein aukeratzen duzu onentzat?

Mitxirrika edo mitxirrike,
txiribiri edo, pitxilore...
aunitz izen bitxiren artean,
ene biotzeko Izarne maite
politezko ederdura batean
zeu zara ene biotzeko lore!

Zeu zara bai ta, zu, emen zaude
Udaberria bezin gorakor
itxaroz betea, polit eder
emen zaude, biotzeko Izarne,
neure gogo barruan laztankor,
askoz ederrago, milla bider!

Izen bat aukera ezazu bai
baiña, politez txoratuta, ez
ibili, arren, mitxeletak lez
batetik bestera, zentzu gabe,
albo-alboka, baldar ta deslai,
ameskizun utsalez norage.

* *Esk.* XXI, 123-124 (c. 1982).

## EDURNETXUREN AMESETEA GABON GABAZ*

Urregorrizko autsezko lorategi batek
edatzen dauz leiar eslatak izar zirriztak.

Izarrak mamu laguntzaille dira biurtzen,
antolatuz lili ta maodun lantegi bat.
Aingeru taldeak dabiltza an jostatzen
ta euren abotsez ederrik datoz bizira
esku trebes egindako jostallu politak:
balusa oialezko untxi ta txakurtxuak;
barre egiten, ibilten dakiten andrakillak;
argidun bultziak, azukerazko txirringak;
jostalluak eta jostalluak gure munduko
ume guztiak bialdutako eskutitzetan
arduratsu, gogo biziz eskatutakoak;
bakoitzak beren gurari ametsen arira.

Ortzadarrari zerrendak ta zerrendak kentzen
mamu laguntzalleek diardue oparien
korapilloak apaingarritzeko dotore,
zamaturik gero kideko ontzi batean
ia askoturiko umetxu batek gaur gabean
ikertuko dauz ume guztiak maite-maite.

Aren oge ondora danean urreratzen
Edurnetxuk artuko dau bere lotaldian
maitasunezko biotz-eragin, bizikor bat
nai izandako amets dana eskuratu dezan
eguntze aintzagarri baten oroigarritzat.

* *Esk*. XXII, 53. (1982).

## UDABARRIA EMEN DOGU*

Gorakuntzazko eztaietan
udabarria emen dogu.
Biziari deika datorkigu
mendi alde ta zelaietan
baña, tamalez, oraindik gu
biotz barruko zauriaren
neguteak zauritzen gaitu,
sustrai minberatsuenetan.

Landa birbiztuetako poza!
Txorien egaztada alai,
izadiaren eder, airosa!
Zugaitzez ta, zelairik zelai
eguzki epelean dirdai
goitu da itxaropenaren
maitetasunezko abotsa,
benetan bizi nai duenai.

Lorez jantzia, zoragarri,
udabarria emen dogu
egoak zabalduz goizari,
emen dogu ezti, maitetsu,
zugaitz, landa, alor danetan...
baña guk itsu darraigu
geure munduko lokatzetan
barrenduak, len bezin kaiku!

* *Esk.* XXII, 70 (1982-III-26).

## BEGIPEAN*

Zenbat bizitza
gure begipean!:
ortzia, itxasoa, kaia,
ugin arteko bits, aparra;
antxetak, argia, mendia
eta, arantzago
bide bazterretan
emen eta an,
tarte-marteka
zelaiak, piñudiak, larrak,
aize ezea...

Irriak, karraxiak,
atsegin eta negarrezko
aurpegi gazigezak;
ibiliz doan gizona
eta emakumea;
mutillak, neskak,
berein bikote talde
eta dantza lekuak;
edaritegiak, mozkorrak,
futbol zelaiak,
berebillak eta berebillak
eta, aruntz-onuntzazko
bizi-ots, taupadea;
aizea,
eguzkia,
odeiak
eta ortik gorako
izantza guztia...
(bakarrezko
eta moltzozko
ioan-etorrizko
bakoitzaren
bakartadea).

Bizi izatearen
urduritasun
eta nekea;
bizitzaren alaitasun
eta irrintzipean
negarra, karraxia...

---

* *Esk*. XXII, 77 (c. 1982), (Ik. 717.orr.).

## «KRESAL ABOTSEZ» (1982)*

* *Esk.* VIII. Ondarroako «Euskal Lore Jokuak» (1982)-sariketara bialdutako olerkiak, eta lenengo saria lortu ebenak.

## SARRERA*

*Irakurleari*

Bidean gorako
izpi argitsu bat
izan bedi zure
egunen lorratza.

Gogo zuzenezko
eragin, anotsa;
esku zabalezko
biotz lorakuntza.

Itxaropenezko
bizitza autorle;
on ta ederrezko
bide jarraitzale.

Ur tanta gozoa
gardentasun osoz
ta, iraupen gogoz
ibaiturikoa.

Egunen joanean
arnas bizikorrez
doana bidean
ainbat neke lorrez.

* *Esk. VIII, 1.*

## KRESAL ABOTSEZ*

*Txomin Agirre ezilkorraren oroitzapenez*

Kresala diñogunean, kantauri itsasoko ur
gazia, ur bizia, ur garratza esan nai dogu:
Txomin Agirre ondarrutarraren begiraleku
ta, aren jatorrizko senaren arrobi ta ikur.

Kresala aitatuz aren izena dogu goraltzen,
ta, aren sorterria gogoz laztantzen, abestutzen;
aren mintzo goitiaren errikoitasuna txalotzen,
ta, aren gatzezko onura bizikorra dastatzen.

Itsas urez gatzituriko zenbat esaera eder!
Zenbat ikasgai jakintsu idatziak apaltasunez,
ta, biotzez sakonkiro aztertuak amaika bider!

Azalpen argi, eredugarriak, erritik jasoak:
Tramana ta Brix ta Kitolis ta Indianoarenez
arrantzu-erri baten izakeraz idatzitakoak!

## ZAINTZAKETA**

Itsasora ba'zoaz ikas otoitz egiten,
ikas igeri egiten iñoiz baldin ba'zoaz,
ikas buru argiz olatubera ibilten,
zeure gizatasun oial sendoa jasoaz.

Euskal txapel ta, itsasgizon eratasunez,
eutsi artez, zuzen, bizitzako endaitzari;
eutsi benetako ardura, zintzotasunez,
Erriaren gatz bizia dan euskera Amari.

Laiño artean norabide sena ez galdu
nabaituarren alako larritasun ikara,
biotzeko izar iparrak argituko zaitu.

Mendabal, enbat eta, ainbat ekaitz aizeren
erasoz ostopotua or aurkituko zara
baiña, jakingo dozu onik lemeari eusten.

---

* *Esk.* VIII, 2.
** *Esk.* VIII, 3.

## IZENA, ABESTIA*

Izena, abestia...
zurea ta neurea,
olatu soiñupean
begiratze gurgarriz
ondartza bigunean
emen gabiltz idazten
biotza aizeratzen,
zurea ta neurea
izena, abestia
itsas-alde orlegiz,
poztasuna edatzen.

Esku maitari batek
ederrik marrazkitzen
dau biotz borobil bat
ondarrean garbiro
ta, guk, laztan-laztantsu,
irribarre dagigu.

Ura gorantz zetorren
ta, suntsi zan urpean
idatziko izena
ta marrazkia.

Ordea, abestia
tinkokiro dirau bai,
bizi-bizi, biotzean
ederrik eta alai,
goiturik eresia
maitezko abotsean.

## KAIOEN EGOETAN*

Kaioen egoetan
an, eguerdi batez,
goiberatu nintzan
itxasoaren ganez,
gogozko joatetan
maitasun abotsez.

Kaioen begiak
nireen antzera,
an ari zirean
euren ikusketan
urari josiak
nireakaz batean.

Kaioek arraintzan
ta, ni amesetan,
aldiz, antxe bertan,
gero, urrunean
neuretza betean,
olatuzko dantzan.

Kresal aizepean,
edertasunezko
txinpartak nekusan
an, egabidezko
amets-ibiliaren
itxas-ortzietan.

Gogoak neroan
ugiñak menpeturik
maitezko egoan,
etorriz beterik
izan-izangozko
amespe gozoan.

---

* *Esk*. VIII, 4.
** *Esk*. VIII. 5.

## URARENA*

Ur zirriztatxoak
darakus iturria.
Olantxe itz onak
gizonen argia.

Txiri,
txiri...

Urak ekarri
urak eroan.
Urak al daki
noruntza doan?

Ura zirriztan
bizi ertzakaz,
itz laztanakaz
autu-mautuetan.

Uretik urera,
txikitik andira;
iturritik latsera,
latsetik ibaira.

Ur zirrizta emen,
ur zirrizta bat, an...
Iturburu batak
diñotso besteari:

Maite aut maite,
ator ba neugaz,
biok alkarraz
azkenerarte.

Txiri,
txiri...

Aurrera ta aurrera,
azi geituzko ura
iritziz ondarrera,
itxaso gatzitura.

Txiri,
txiri...

Elburu alegiñez
uretik urera
ta, danak bat egiñez,
ITXASO ANDIRA.

Txiri,
txiri...

Bidea urari
bere elburura,
itxas sakonera
bidez doanari.

* *Esk.* VIII, 6-7. (Ik. 655.orr.).

**IBAIARI** 605.orr.

## ITXASTAR ABESTIA*

Joan eseritzera itxasoko
arri artean
ta, gogoan izan euren nekea
zure egonean.

Osertzez begiak agor, asetu
egaztiz, zeruz...
olatuz olatu
urruna abestuz.

Olatuekaz poliki itzul gero
urdin ta zuri.

Denporaren zerik barik geratu
euzki ta urez
atseden-aldi
eder batean
amets-lillurapenetan jorantsu
utsaren utsez
biotza gozartuz.

## ARRAIÑA LAKET UREAN*

Arraiña laket urean,
txoria ere aidean;
emazte zurra etxean
nagositasun berean.

Igeritzeko da ura,
egazerako aidea;
bakoitzak bere artea
dau bai ta, izangurea.

Itxasoarena da gatza
ugin artean mendua;
itxasoarena lebatza
ta, gizonena amua.

Gatza ta giza-zentzua
bear dira egaletan,
erabilteko mundua
maitasunezko eskuetan.

Bizitza egintzatua
bere gatz ta bere senez,
ederrik bideratua
eguna eta gabarenez.

Argia eta itzala
amaika amets ta nekez,
erakutsiz bere ala
beren goiberatasunez.

---

* *Esk.* VIII, 9.
** *Esk.* VIII, 10.

## EGIAZKO KOLOREZ*

Ugin gerakaen eragin zital illuntsuz,
itsasoak, noizik bein, orroa dagi, gogor;
beste batzuetan ordea, legun, atsedenkor
azaltzen da, itxura laztangarri, baretsuz.

Itxaso antzerakoa da giza-bizia,
goiberazko negar ta barre, ainbat itomen,
ta, ainbat atsegin ta, amets eder zororen
joan etorrizko aldapadun ibilia.

Bizitz alorrean, bakoitzaren izatekoz
egundutako aldiaren eresi biguna
edota, nekaldi gorri ta zorigaitzekoz
leporatu bearreko gurutzaldi astuna.

Beren udabarritar usain gozo, apurrez,
biotzetan izpi eder, alaitsuak jarriz
edo, alderantzizko negutiar adurrez
izotzmenezko otzikara baltzak ekarriz...

Bizia bizi bear dogu bakoitzak beren
egintzakizun edo alabearraren lorrez:
beren bideko arantza ta izerdiaren
alderdi eroangarri edota gogorrez.

Gogo sendoz, biotzez... norberaren bidea
bakoitzak berak bakarrik argitu legike,
ekintzapenezko alderdi ongarriz bete
t'erabidetuz norberaren izakerea.

Ardura bizigarriz zauriak sendaturik
zerbait egin dagikegu benetako gogoz,
lur onean azi ona erein ta zaindurik
bizitza aletsuago baten uztatze asmoz.

Iturburu, amets barriak sortuko dira
betikotasun sen, bizi izatearen pozez;
inguma barriak urbilduko dira argira,
egunak soñanzkiturik egiazko kolorez.

---

* *Esk.* VIII, 11-12. (Ik. 836.orr).

Beren aize berde, aize kalma, aize zuriz,
itsasoak berean darraike bai, betikoz,
aizeen arabera baretasun pozgarriz
edo, ekatx bildurgarrizko eraso gaiztoz.

## BERA DAN LEZ...*

Bera dan izate
eta legez,
itsasoari
abestutzen
ba'neki
beren bits ta
zipriztiñez,
beren luze
zabalez,
ugin arabera
beren azal
ta sakonez
barruraño,
beren zeruzko
urdin-arre
ta, ortik gorako
ainbat kolorez
baldin nik
ba'neki
abestutzen
aren igidurazko
goiberatze,
aren bizitasun
ikaragarrizko
asarrez
edota, aren
otzantasunez
poema bat idatziko neuke
abestutzen baldin ba'neki
itsasoaren biotzerañoko
negu eta udabarrizko
sugarrez.

* *Esk*. VIII, 13.

## OLERKI GATZITUA*

Itsasondokoa naizenez
nik barrua beterik daukat
munduko itsasoen gatzez.

Munduko olatuak dira
nire gogo albistariak
edota idazketariak
eroan ta ekarten dabezanak
nire mandatu eta ezkutuak.

Eta nire txartel biotzekoak,
(errimiñezko txartelak)
dira olatu gatzituak
itsas olatu gallurretan
bein ta barriro itsas-neskak
zuzenbidetzen dabezanak.

Mundu guztiko karakola
eta, txirla-azur utsetan
atxikirik gelditu ziran
bai, nire maitetasunezko
abesti elburugarriak.

Itsasondokoa naizenez
nik barrua beterik daukat
munduko itsasoen gatzez.

## ITXASONDOKOA**

Itxasondoko arkaitz ganean
jarrita zabal,
udako goiz ederra auznartuz,
bertanbera nago
arnas artuz
kresalezko
aizearen baretasunean.

Urdinkarazko
ur zelaiaren ikutupean
nago bipil, yaukal,
eguna gozartuz
ametsezko
ederdurapean.

Osertzik osertz noa
—txoriak ezlako egoz—
ugiñen bein ta barrizko
igitze goraberatuen
lepo-bizkarrez
noa, gainkari,
bizitzaren poz,
azkaturik egoa
zeruzko ta urezko arloz.

Bitartean,
txilio-milio,
kaioak ari dira egazean,
ta itsasoari
bitsa dario
ari talkaka
nire beragoko arkaitzetan.

---

* Esk. VIII, 14.
** *Esk. III*, 15.

## ITSASOA*

Itsasoa, itsasoa, lurraren arbasoa,
ibilli egin bear da bai itsas-ur ganean;
ibilli eta dantzatu, ugiñakaz batean,
zibu-zabuka kendurik begietako lausoa.

Ibilli egin bear da arraiñetako sarez,
ur kresaletako gatz bizia zer dan ikasiz;
ibilli egin bear da bai, gau ta egunez,
egunoroko ogi irabaztearen nekeziz.

Urrundietara be joan, joan, mundu zabalez,
merkatalgo ontzietako gure itsastarrakaz
ta, bide barriak egin olatuzko itzalez.

Ibilli eguzki ta illargipez, ezagutuz
ainbat lurralde, euren izakera bakanakaz,
itsasoetako berein aizez gogoa sendatuz.

## ITXASOAREN AURREAN**

Itxasoaren aurrean nago ta, uginbera noa
osertzak begipetuz, zeru-ertz batetik bestera;
ur sakon ta ur azalez noa, amutik sarera,
osertz urruna bezin urrun zuzenduz neure soa.

Aizekirri onezkoz jagi da ederrik eguna,
udabarritar egurats loratsu itxarogarriz,
ta, itxasoa, baretasun osoz dago etzuna,
ugin ezebezen txipli-txapla bigun, gozagarriz.

Erria txoriekaz bat esnatu da, txintadapean,
ta, ontziak ur barruratu dira goizaren pozez;
bakoitza bere ogitazko arrain ardurapean
arin edatu dira bai, banaka, berein urbidez.

* *Esk.* VIII, 16 (Ik. 594. orr.)
** *Esk.* VIII, 17.

Zerua oztin-argi dago, odei gorrizka bakan
arin batzuen benetako geldura ederrean,
kaioek ozen, karraxiz diarduen bitartean
egoak astinduz dotore, ertzeko arkaitzetan.

Oñez asteko alako gogoa damost itxasoz
ain baretsu, ain laztankor, ain zelai ikustean;
gogoa damost bertaratzeko ni naizen ososoz
ain otzan ikustean maitezko eskeintzapenean.

Txalupak, ontziak, an itxas barruz ostendu ziran
ain egun argi ederraren itxarozko gozamenean;
ta, ni be, neure amets bizikorretan galdu nintzan
bakezko izate on batek dakarren maitasunean.

## ITAUNA*

Eta, zer da
itsasoa?

Ur sakon ta igiera aundiko
arrain igeritagia, osiña;
beren izate zoragarrizko
ondasun eder ta atsegiñez,
edo, kera zatar ta gaiztoko
aize ekatxaren etekiña
dala diñoe bai, alan bearrez.

Bearbada norbaitek uste leike
zerbaitezko jakintzatasunez
ta, itaunduz gero, esan bere
esaten dabe bai, itsasoa,
ur tanta ernaltsu bakar bataz
ta, gatz tanta baten altasunaz
egiña dala bein-betiraunez
itsaso garratz, itsaso gozoa.

–Bai ete, ez ete? Egitan nik,
ez ba, orrenbeste nik eztakit.
Baiña aundia ta zadortsua
ta, aundi bezin eder, leguna,
atsegiña dala esan geinke
ta, bestetan biurri ta itsua
dala, asarrekoi ta aztuna,
ori bai, ori danak dakite ...

* *Esk*. VIII, 18.

## ITXASOAN*

Neure biotzeko argiz, dizpillaz,
atara nintzan ni, bidebera,
bizitza beraren gorabera
urdurizko eragin ixillaz.

Abia nintzan ezagutzera
itxasoaren zotin, negarra,
aren biotzeko urre, zillarra,
urdin orlegizko igikera.

Urbidezko zelaiz, neurez neure,
berein margozko sakon-azalez,
arkitu nintzan bakar, mirabe,
gazigezazko bits, ugin artez.

Itzalik, lañozko esparruan
arkitu nintzan bai, esitua,
zadorrezko estalki barruan
egunen zoriz etorritua.

Goiz gorri ta, arrats gorrizko
egutaro neketsuz gaindua
arkitu nintzan, negargarrizko
olatu beltzez inguratua.

Itxasoa zan bai, itxasoa,
beren alderdi txar ta onakaz:
eguzkia, euria, laiñoa
egungo aize ta ekatxakaz.

Aizeaz, aizeaz batez ere,
astintzen duan aize gogorraz
arkitu nintzan, an, noragabe,
aldi baltz artako neke, lorraz.

Biziak darakusgu ontzia
zelan erabil, zelan eratu,
ikusiz nungoa dan aizia
oialak itxi edo zabaldu...

Erasoz gogor datorrenari
amor emonaz bear danean
edo, sendo eutsiz endaitzari
porturatzeko poztasunean.

Bizitzako itxasoa, beren
maitasun edota samiñakaz,
amaika itxaro t'etsipenen
argigune eder ta baltzakaz.

Itxaso urdin, itxaso arre,
zure itxasoa ta neurea;
aldiz laztan edota asarre,
ezkutu arrigarriz betea.

* *Esk.* VIII, 19-20.

## ITXASONTZIAK*

*Viene a borrar la muerte las señales*
*que fueron construyendo tus fronteras.*
Pablo Neruda (La muerte).

Gezurra dirudi baina, izan, alan da bai,
itxasoak sortu ditu munduko ontziak.
Beren sabel sakonean ernal zitun alai,
arintzeko bakartadearen larri-aldiak.

Eskeintzapenak ta, itxasbide ezberdinak
agiri[a] dira aurre aldetik, ala bearrez;
su txikiz ereindako goi-alde sorgiñak
dizditzen[b] dira ego-alde ta, ipar-aldez[c].

Uberkak uretan. Kezuloak[d] urduri, ketan,
ta barekiro eder[e] edota, bits aparrez
itxasoak orroaka, gora-goraka, sutan,
dardaratzen ditu ontziak[f] ekaitz zakarrez.

Itxasbazter zabalak[g], ugiñen arabera,
ta, uberkak geroago estu, luzeago,
gau-egunen zoriari askoz lotuago
zer izangotan larri[h] ta urduri, egunik egunera.

Ontzi-enborra geroago ta aztunago
nekez darraikio bere urbide latzari,
urak egindako ainbat zauri erasori
ezin erantzunik ta[i] geroago makalago.

Itxasoaren indar, uginteri zorrotzak
ibiliaren ibillizko ainbat igarotzez[j]
auldu ditu masta goitiak[k], usteldu sokak,
mearturik ontzi-azalak, errerik gatzez.

---

* *Esk*. VIII, 21-22 (*A*); Karmel 1987-3, 108 (*B*).
[a] Agiri *B* agertzen [b] Dizditzen *B* azaltzen [c] Ipar-aldez *B* bai iparrez [d] Kezuloak *B* tximiniak [e] Ta barekiro eder *B* barekiro ederrik [f] Dardaratzen ditu ontziak *B* ontziak dardakiltzen ditu [g] Itxasbazter zabalak *B* Zabalgune itzalak [h] Zer izangotan larri *B* kezkatsu ta urduri [i] Ta *falta da B'n* [j] Ainbat igarotzez *B* gau-egun-beratzez [k] Auldu — goitiak *B* masta goituak auldu ditu [l] Asierako beren utsera *B* erdoiturik, ezebezera [m] Lengoratuz *B* leneratuz [n] *Emen amaitzen da B*

Elburu-bizkar iasoriko muga-bazterrak
lurrera datoz, asierako beren utsera[l],
amaren sabel sakon, amaren magalera,
lengoratuz[m] soiñaren ezurpil igerrak[n].

Burruka gogorra benetan bizitzarena
baiña, ametsak pillatuz ontzi saietsetan,
azpiratu legike olaturik gogorrena
itsasoari amor emonik zenbaitetan.

Alan be, gau-egunen zori, olatu artez,
bizi endaitzari eutsiz jarraituko gara
itsasbide eder edo zerupe goibelez,
ametsak loran dirala edo bildur ikara.

Itsasoz itsaso, azkenengo porturaño,
beren aize zuri, aize baltz, berein ekatxez;
batzutan zeru argi oztin, bestetan laño
bakoitzaren ibilizko gogo ta eskuartez.

## ONTZI BATEN*

Bizitzaren arabera
ontzi baten gabiltzanez,
atoz neugaz karelera,
itxasoa ikustera
beren igidura emez.

Biok bat, lilluratuak...
ugin bat bera ikutuko
dabe bai, gure eskuak,
barriro iñoiz ostera
ez dana guganatuko.

Igesi doan ugiña
zeiñen kolko orlegian,
zure ta nire begiak
maitez ikusiko diran
une gelgarri sorgiña.

An joango da bai, urrun,
gure bizitz abestia,
euzki dirdaipean kutun,
eroanik beren maitezko
ain mezu zoragarria.

Aldenduko da gabean
baiña, bideari dautsa
jarraituko, uginbera,
izarren gidaritzazko
bere azken agurrean.

## ONTZI BATEN**

Bizitzaren arabera
ontzi baten gabiltzanez,
atoz neugaz karelera,
itxasoa ikustera
beren igidura emez.

Biok bat, lilluratuak...
ugin bat bera ikutuko
dabe bai, gure eskuak,
barriro iñoiz geiago
ez dana guganatuko.

Igesi doan ugiña
zeñen kolko orlegian,
abestuko daben gero,
zure begiradak eta
nireak, (biak batera
maitez) gure bizitzako
abesti ain poxpoliña
alkargune berezian.

Betieradun abestia.
Etorrerarik ez duan
euzkipean eroango
dau bere dardar bizia...
Eta, gau illun artean
bere bideari iarraiko
dautso izar gidapeko
azkenengo agurrean.

---

* *Esk.* VIII, 23.
** *Esk.* XLVII, 117. Emen ere olerki idazkera bi, batez ere bigarren zatian ezberdiña.

## ITSASOA*

Aldakor da itxasoa,
aldiz aztun ta gogorra;
bildurgarri, izukorra
ekaitz illunen orroa;
beste batzuetan leguna,
ibilgarri ta pozkorra,
zelai otzan ta barea,
gatz bizidun osasuna.

Urpetza zoragarria,
ederra ezin obea,
atsegin ta pozgarria;
ozkirrizko egunetan
baretasunez betea.

Oiñez ibilteko eran
zeruaren antzerakoa,
zelaitasun urdiñ-arrez
gure ibilte-gogoa
amets eragin sorgiñez
aunditzeko añakoa.

Edo alderantziz, gogor,
lazdura nabarmenean,
txistu-ots, bits-aparretan
inpernutar eragiñez,
ugiñak gaizto, asarre,
ontzi eta arkaitz ganez
zutundurik, erpindurik
ain itsu dakusgunean...

Bai garratza itsasoa
alako erasopean,
osertzik osertz, illuna
ganeratzen yakunean
ainbat kokilduz gogoa!

Itsasoa, itsasoa!
Gau-egunen goiberatan
bizitzaren antzekoa;
ain aldakor ta zoroa
beren joan-etorrietan
gizonaren erakoa...

Ai!, itxasora ba'zoaz
ikas igeri egiten;
ikas otoitz egiten
zeure sinismen osoaz,
ikas biotza jasotzen
gogamen sendo, zintzoaz.

---

* *Esk.* VIII, 24-25. (Ik. 664.orr.).

## EKATXA*

Urteak dira bai Bermio, Elantxobe, Lekitto
eta, abar..., gerta zanetik alako ondamena;
ur gazi, garratzean, ainbat eriotza, ainbat ito,
Kantauri gangartuak ekarritako alamena.

Nork uste zeikean alako goizalde ain emez
ontziak aize kirriz itsasoratu ziranean,
arrantzuzko gogo ta sekulako itxaropenez,
jausiko ziranik eriozko ekatx-atzaparpean?

Bat bateko ur zurrunbillo ikaragarri artan,
(amarik bako erauntsiaren asarre gogorrean)
eundaz arrantzale galdu ziran ontziakaz batean,
amaika zorigaitz sortuz gure itsas bazterretan.

Negar aiene bat ziran itsas ertzeko erriak
ta, negarpean makurtu ziran artoak, gariak;
negarrez amak, arrebak, emazte maitagarriak,
negarrez aundi-txiki ta, umerañoko guztiak.

Illetazko kanpai-ots aztun, eztenkada minkorrak
edatu ziran doiñu baltzezko aize baltzean
ta, Kantauri'ko itsas-erri, mendi, ibar, alorrak
etsipenduak gelditu ziran ezbear naigabean.

Egun baltzak iñoiz iñon egun baltzik izan ba'da,
kaleak ustu ebazan aize baltzaren ondorioz
euskal sendietara ainbat miseri ta gogortada
ekarriz, beren arantza zorrotzezko elorrioz.

Aize ekatxak orrelakoxe agerraldi baltzak
izan oi ditu noizik beiñeko eragin zakarrez,
olatu astiñaldi menditu aztun ta garratzak,
bizi-izateak dakarren goiberazko alabearrez.

Baiña, aztu bearra dago, estaldu, gogotik kendu,
egun garratzen gogorakizun baltz galgarri ori;
al dan bezin arin, laster, zauri gordiñak sendatu
ta, beren goiberatan itzi igarotzen biziari.

---

* Esk. VIII, 26-27.

Ez bediz biotz minduak malkopean betikotu
bizitzaren negu gorrizko izotztasun samiñez;
ez bediz orbeldurik gero, bazterrean zokotu,
letorkezan udabarri goratiai uko egiñez.

Urak bere onera datoz bai, baña ez betikoz,
baizik jarraitzeko beren udalen ta bere neguz
aldiberako eragin ezberdiñezko ikutuz,
bizian oi dan igiera garratzmin edo begikoz.

## ITSAS ASARRETUA*

«Altzak ez dau ez biotzik
ez gaztanberak azurrik»;
ur gangartuan itsurik
ez billatu ez egoitzik.

Zerua goibeltsu, illun,
ta, itsasoa geraka,
asarre dakust orroaka,
erabat itzel ta astun.

Ur zelaiak menditurik
dabiltza galernapean,
ta, bitsez zipriztindurik
ekatx abornadapean.

Ba'dirudi itsas urak
gaillen dirala zeruaz
bardindurik illunduraz
beren arteko goidurak.

Neurtzen dabiltz indarrak
ero, ta... —ero bezin zoro—
zabaldurik euren garrak
zeiñek gogor ta baltzago.

Urak asarre ba'diraz
eztago an jolasterik,
uginteri garratzakaz
joko baltzean sarturik.

Aize etsai gaiztoak
erasotsen dautsonean,
ez dau biotzik itsasoak
beren itsutasunean.

Nor sartu arein artean
aizete bildurgarrian
muturka dabiltzanean
irakintasun bizian?

Dana desegin, apurtuz,
dana zatituz, birrinduz,
dana zeetu ta astinduz,
ainbat ontzi ondoratuz.

Orduan ez dau aitarik,
orduan ez da amarik
ez espiritu santurik
Jaungoikoa bera ezik...

Egunak gaba dirudi
benetan baltz, ondagarri;
izarge ta negargarri,
ainbaten esturagarri.

---

* *Esk.* VIII, 28-30.

Aldendu dira kaioak
ibai-ertz ta erri-barruz,
goituz euren txilioak
legorraldeko esparruz.

Beraz, ez nekin, bai nekin,
itzi aizeari akitzen,
itzi zeruari argitzen
itsasoa baretu dedin.

Itzi ugiñei gozartzen,
legunkiro txiplitxaplatzen,
itzi zelaitzen, baratzen,
bata-bestea laztantzen.

Etor dedilla bai, dana,
beren onezko senera;
izarren argitasuna
maitasunezko bidera.

Ugin gane bizigarriz
abestu begi bai, aizeak,
aizekirri maitalleak
beren abots zoragarriz.

Bizia atsegiñago,
jasanago izan dedin;
bizia amesgarriago,
alik alaikor ta arin.

## EKATXA ALDENDU ZANEZ GERO ...*

Ta ekatxa aldendu zanez gero
aldendu ziran baita odei baltzak
osertzetatik, geldiro-geldiro,
asarre gorriaren lerderi latzak
ta, urdinkarazko atergun emez,
bake santuzko baretasunean
eguzkiaren agerkera samurrez,
barriro sortu ziran esperantzak.

Barriro ortzia argitu zan bai
ta, ezer gerta izan ezpalitz lez,
bizi-gogoz, margo ederrez, alai,
uginkera ibilgarri, apalez,
onkiro seneratu ziran urak
bitsezko zurrumur gozo ixillez,
aztu-araziz lengo garrazturak
egun-aldi barri baten itzalez...

Maitezko aize bare pozgarriz
barriro gentzaldia, atsedena,
olatuen logune zoragarriz;
amets barrien kantu-ots barria
udabarritar biozkada ongarriz
ta, bizitzazko sen itxaropena,
beren eder-ikutu lilluragarriz
barrien barri, guregan jarria...

* *Esk.* VIII, 31.

## UGIN GOIBERATAN IGERI*

Eguzkia an osertzean
gorririk dakust urperatzen
ta, illargia bat batean
aringa dator lekuratzen
argizko zurbiltasunean.

Len izandakoa errege
aunditasun paregabean
zitularik ainbat mirabe,
orain osinpe illunean
ostendu da bai bera ere.

Beraz, ezta arritzekoa,
ainbeste bira ta ostera
emoten ba ditu munduak,
makurturik gaur, buruz bera
ikustea, atzoko arroa.

Udabarriro ederturik
bizia dakusgu loratan,
lilluraturik inguruak
maitasunezko abotsetan,
orlegitasunez beterik.

Gero barriz, udazkenean,
orbelez dakusgu bidea,
berakada nabarmenean
ozenkiro adierazirik
negu aurreko ikarea.

Gogo illunez edo argi,
munduko amesetapean
gizona dakusgu bidari,
egun bakoitzeko nekean
ugin goiberatan igeri.

* *Esk.* VIII, 32.

## UR IZPIREN BAT*

Ur sakon, ur aundietan
ura ezta solasgura;
ezta ur azal txikietan
ezin daikegu igeri
guk nai genduken modura.

Ugiñik ugin, urduri,
gure mundu zar onek
itxaso bera dirudi;
igeri ezin zutenek
ondarrean dira suntsi.

Itxarozko esku, buruz,
egunetako joanean
sendo, gogoz ekintzatuz,
biziari eutsi bearko
etengabeko lanean.

Ibaia itxasoratzean
gu garan iturburuzko
ezetasun ongarrizko
emoitzaren itzi geinke,
ur izpiren bat, ertzean.

Biotz zaurik sendatzeko
osagarri, argigarri
litzaken maitasunezko
edari. Ben-benetako
osakai atsegingarri.

Maitasun lorratz gurena:
ur bioztun, ezti, gozo,
ur bizi, sakon, gardena
bere emontasunezko
gogoa agertzen duena.

Ur tanta garbi, bakana,
ainbat neke jasanarren
egunik egun ta, beren
ibillian, itxarozko
biotza ixuriz doana...

Ur tanta bizi, laztana,
odeien euritez, gero
lurra busti ondoren
amaika sorbidez, gozo,
or itxasoratu dana...

* *Esk.* VIII, 33-34.

## BATERAKUNTZA*

Aizea dantzugu maitari
itsasoko ur zabaldietan;
oialak ametsez urduri,
ibil gurazko gogaketan.

Endaitza ernai ta, bera be
zernorako oldozpenetan,
elburubide baten eske
itxarozko goiz-arratsetan.

Aizetu bediz, bai, oialak,
zentzuzko erabide, neurriz,
arakatuz itsas egalak
betierazko gogo, oñarriz.

Argia biotzeko mastetan
bizitzako olatu ganez;
begiak urrun, osertzetan,
amets-lorarik ederrenez.

Itxaropenezko portuak
ta, ainbat bidegurutzeren
itsas barru, itsas kolkuak,
bear danerako atseden.

Kantauri sakonaren gatza,
eda bedi mundu zabalez;
euskal izantzaren anotsa,
itsastarren gaitasun, senez.

Itziz beren sorburu zola
lats-errekaz, gero ibaiez,
aringa doa ur poxpola
ur Amaren altzora bidez.

Itsasoan bateratzen dan
ur besarkadazko mosua,
Iaungoikozko igiduratan
amiltzeko betiraundua.

* *Esk*. VIII, 35-36.

## NESKA EDER*

Neska eder begi urdin baten antzera
itsasoa beren igidura laztankor
ta baretsuz, ibilgurazko begietara
datorkigu eskeintzapen biziz, zorakor.

Zurrumur eztiz, ixilkiro, dei dagisku
olatu otzankorrezko eskari maitez;
dei dagisku bai, beren urezko ikutu
ta, aize legunen epeltasun bitartez.

Urdinkarazko itsas-osertzen argipez
egunaren goiztasun galanta goitu da
itxaropen sorkari dan eguerdiratzez.

Olerkaria an doa itsasoarenez
olatuz olatu, maitez aberastuta,
beren gogoko urbiderik zabalenez.

## ZURE IZENA**

Zenbat bider zure izen maitea
gogoz entzungo ebelakoan
zenbat bider olatuei, izarrei
oiukatu neutsen zure izena
zure izen laztan ta maitea
biotz betezko jorantasunean
gogoz entzungo ebelakoan
zenbat bider, zure izen maitea!

Baiña, an urrunetara eroana,
beti izan oi da aantzitasuna,
urrun urrunez galduz doana
beti izan oi da ixiltasuna;
bizia jokoa lez, aldakorra
da, erantzunik bako itauna,
ta, ezin arilduriko zadorra
gero, gau otzak itzaltzen dauana.

---

* *Esk*. VIII, 37.
** *Esk*. VIII, 38.

## ARRANTZALEAREN ALORRA*

*Jan nai ba'dok loiña*
*sar zak urean oña.*
Azkue

Beren atun ta lebatzakaz...
atoz arrantzuko solora,
—bixigu, bokart, berdelakaz—
arrats-bidez edo goiz-gora,
zeure tresna ta labesakaz
atoz dagokizun arlora
ta, ekin, buru ta eskuekaz
sarea jaurtiz itsasora...

Atoz bai, ta ikus, beren gatz,
ugin goititu ta bareakaz,
arrantzale ororen baratz,
lantegi, ogidun alorra;
beren zelaitasun aberats
edota, nabarmenkeriakaz,
urean jarri oña apatz
kontu izanik olatuekaz.

Aundia da bai, itsasoa,
beren arrainteri muetakaz
aundi-eder bezin zoroa
beren uda ta neguakaz;
itsaso igikor, sakona,
beren ekatx ta goiberakaz,
beren laiño ta aizeakaz
aldiz bekaizti, aldiz ona.

Beren ogitako arduraz,
betiko gogo eta asmoz
arrantzalea, lugin antzera,
an doa urak arakatzera
beren maoi soñekoduraz
eguzki ta illargibera,
arraintza on bat itxaroz
nekezko ainbat bustiduraz.

Batzutan benetan gogorra
izugarria izan arren,
bestetan atsegin pozkorra
ederra da bai, itsasoaren
besarkada samur, biozkorra,
zerua oztin, urak urdin
agertzen dauskunean beren
emetasun ain zorakorra.

Baldin entzuten, ikusten,
oldozten baldin ba'dakizu
itsasoaren berein abotsez
olatuz olatu datorren
ederrak beretuko zaitu
beren amai bako zadorrez
ta, betierazko ikutuaren
ikara nabaituko dozu.

---

* *Esk.* VIII, 39-40.

## KANTAURIN EZIÑIK*

Kantaurin eziñik, asago,
munduko berein itsasotan,
zabaldu ziran euskaldunak
bai baletan, bai makallutan,
billatuz aberastasunak
Ipar-alde ta, Egokoetan
arago beti, urrunago,
bisigu, lebatz, atunetan...

Gaur ordea ainbat debekuz,
aldi baltz onen katepean
arrantzu bideak estutuz
loturarik gogorrenean,
200 millatan... Oi, Ama Lur!
ikusi zelan dagozan gaur
iñoizko neke aundienean
oizkoetan ezin arrantzatuz.

Larregizko arrain kentzez
itsasoak makartzen, galtzen,
il-zori dakusguz, uztutzen,
ainbat ontziteri ta sarez
itsas bazter oro ondatzen
ta, bizia, geroz latzago,
gogorrago ta garratzago
neurri bagako dezabatzez.

## MUNDU ONEN JOAN-ETORRERATAN*

Mundu onen joan-etorreratan
ta, gaurkoaz bat agertu ezarren,
aintziña be, gaur egungo antzera,
gauza bakan asko ziran gertatzen
gizartearen izate arabera,
ta, orduan be, ez ziran lo egoten
danak, zer egingoka amesetan
edo, supazterrean errezatzen.

Neguko arrats otz, aspergarrietan,
suaren aldamenean gurasoekaz
otoitz egin ondoren, epeletan...
Zenbat ipuin zekien gure zarrak!
An gozartzen giñan euren eleakaz
aztertuz basoko sasi ta larrak
sorgiñen gaukerizko goiberatan
ta, baita urondoetan lamiñakaz.

* *Esk.* VIII, 41.
** *Esk.* VIII, 42-43.

Umetan entzunak, euren gatzdura
ikasgarri ta jakintz onurakaz...
zenbat bider genbiltzan lamiñakaz
urondoz urondo, arein orrazi
ta adats luze ta, arrain begiakaz,
agertzen ziranak lilluragarri
amumak edestutako modura
gizonezkoentzat ain amesgarri.

Gure poz txikiak, Peru ta Marizko
zopita barrekoi ta bestelakoz,
ondutzen ziran gure baserriko
apari osteko atseden gozoz...
...buruz ikas nitun ainbat istori,
lamiñ, sorgin, gabekoei buruzko
ainbat ta ainbat trikimallukeri,
ainbat Petralanda ta Kobazulo.

«An, goizalde batez mariñel gizon
bat, itsasorako bidez atera zan
eta, lamiña batek beste bati
karraxika onela esan eutson:
I,ain eder augun Lamiarangoa...
—Zer gura dona Errosapekoa?
—Or doan itsas-gizon galant orri
bota eiona ba, bota lakirioa».

Ez al dakin ba, Errosapekoa,
ai!, ori ez dala neretzakoa?
Zelan botako dotsonak botako
nik ba, zelan botako lakirioa,
emaztearen eskuz egindako
gabonariz josia ba'daroa
ain egoki datorkon soiñekoa?»

## ITXASONTZIZ IGAROTZEAN*

Bermio Sollubepean,
Izaro aren aurrean;
Elantxobe tentenean,
Ogoño'ren bizkarrean.

Euzkia urperatzean
Matxitxako'k argi dagi,
urbidezko ibillian
lagunduz itxastarrari.

Itxas uraren barea!
Ugintxuak lo antzean
besarka batak-bestea,
aize-giro laztanean.

Ixiltza eder betean
ontzia aurrera doa
bere bearrezko bidean
zearkaturik itxasoa.

Atzean gelditzen dira
nire itxasertz gurenak;
atzean nire naigura
kutun, maitagarrienak.

Itxasoa neurea da
diñot, ontzitik begira:
izarrezko gau zabala
babor ta estriborrera.

Zenbat izar-lili eder
nire gogo abotsean!
Begiratuz ainbat bider
urezko zelai barean.

Ugin geldidurapean
zeru bi dakustaz argi,
goiko antzera urpean
ain eder ta zoragarri!

Udako gabak naroa
txipli-txaplada samurrez,
beterik neure kolkoa
maitezko zidar ta urrez.

Bizi izaten dakinaren
amets-aldi ongarria,
ainbat neke-esturaren
atsegin gozagarria.

* *Esk.* VIII, 44-45; *Esk.* XXII, 105 (laburragoa).

## ITXASOA DANENA ZANEAN*

Itxasoa danena zanean
oialak zabal, aizeratuz,
ugin arabera, bizi gogoz,
berarizko azkatasunean
txalupak noranaitzen zirean,
aize oroz, iparrez nai egoz,
soiña ta gogoa be, kresalduz,
itxasoa danena zanean[a]...

Ugin igitze etengabean
ontzietan bularrak sendatuz,
ta, ainbat egintza gogoratuz
itxasoen azkatasunean,
euskaldun azkea, azkeago
nabaitzen zan olatu ikutuz
izarrezko gau-dirdirapean
edo euzkiari begiratuz...

Lotutako eguzki antzera,
itxastar eskuetan arraiñak
ta, perlak zirean dirdiratzen
gau-egunen zori-arabera,
t'ontzi brankatan berein porturen
ikutu gogor ta atsegiñak
euren istoriz ziran azaltzen
itxasoa danena zanean.

* *Esk*. VIII, 46.

[a] (Bertso au *ik*. 995.orrialdean).

## ATUNETA*

Iparrez, legunkiro ta gozo
ain bizitz eskeinkari datorren
aize kresaltsu emekoiaren
ikutupe ederrean nago,
neurez barrutua, itsasoaren
olasta jostariei begira,
itziz irudimenari joaten
ametsen sorkun urdin argira.

Portuetatik-eta eunda asko
ontzik atunetaratu dira,
joanik, San Juan ta San Pedroz,
ogibidezko ur lantegira
betiko zaletasun ta asmoz,
(onantzago edo arantzago)
joanak dira bai, euren bizira,
bardiñik bako landa ta soloz.

Gertuta arrantzu tresneriak
goizaldeko illunabarrian,
(ikusko banitu lez) zai dagoz
egunaz batera, arrantzariak,
nundik nora agertuko diran
egalabur edo egaluziak,
lenbait-len laneratzeko gogoz
atunez betetzeko ontziak.

Eskuak baldin ba'ditu utsik
eta, eguerdiko ur zelaian
ikusteak atunak dantzari
jauzi-jauzikazko ibilian,
da goserik ezaren agiri,
ta, orrek ezin ekarri pozik
ustekizunezko ametsian
arrantzu on bat ditxaronari.

Ikusgarrizko lillurapean
ta, bizitza betezko ikutuz,
olerkariak kanta leike bai
ta, ori dagi, ederbera, alai,
zerupe argiz ain jostalari
atunteri taldea ikustean
eguzki dirdaipean, goikari,
ain egun otzan ta bedeinkatuz.

Baiña olerkariak be, bai, ba'du
biotza ta, ba'daki zer dan lana
ta, sariturik ikusi nai du
etorri dan ontziteri dana;
ta, itzultzean gero, portura,
etxera dedilla poztasunez
bakoitzaren sendiko zerura,
urrengorako itxaropenez.

---

* *Esk*. VIII, 47-48.

## IRUDIA*

Ontziei, arkaitzei
erasorik gogor,
itsasoa, aizeak
zirimol itsuz
astinduriko
olatu aztunetan
agertzen da izukor
orroaka.

Badaki baita
ederrik ta bere
olata txikiz
legunkiro
txipli-txapla ixiltsuz
beatz-puntan
otzankiro
ezti ta gozo
ur zelaiaren
altzo zabalean
egurasten.

Itsasoak,
onez edota txarrez,
ugin arabera
zutundua asarre
edota geldua
itxura ederrez,
gizonaren irudi
berbera da,
aldiberako
ibiliaren
goraberatzez.

## ITXASONTZIZKO IBILIAN**

Au ene abotsaren poza!:
Illargi bete edermenduz,
itxaspean datza zerua
ene gogoa bereganduz.

Izar bakoitzean dantzari
amets lilluraen erraiñu
ta, itxaspean lasterkari
arraiñak dagizte bai keiñu.

Oro da ezkutapen eder
izar-mintzoz dirdiratua,
uretan amaikatxo bider
ontzibera kulunkatua.

Itxasontzizko ibilian
neuretzat dartut itxasoa
ta, izar-moltzoekaz batean
uginpez, bertanbera noa.

* *Esk.* VIII, 49.
** *Esk.* III, 50-51 (*B*); *Esk.* XXII, 107 (*A*).

Bilduramen jorantsuz, sakon,
Iainkozko ederpe betean
eresiz seaskatua nengon
ortzi bikoiztu, urdiñean.

Begien ikuste sakonez
au da bizi-nai, egarria,
gogozko itxarokizunez
izioturiko pozgarria.

An izartegi urrutietan
abes dagi bai Egilleak;
abes ur andi sakonetan
illundiaren ARGITZALLEAK.

Au ene abotsaren poza!:
Itxasontzizko ibilian
urbidezko zeru-azpietan
kulunkaturik ene biotza.

Maitasuna da ari dana
nire kolkoa aberasten,
zure begi ederrakana
gogo betez dana zuzentzen.

Izarrak loratasunean
goiko zeru illargituan
ta, izarrak dirdir urpean
beko zeru ispillutuan.

Lilluragarria benetan
biotza olakotzen danean
maitezko itxaropenetan
izangoaren poztasunean[a].

## OTOITZA*

Ipar, ego, mendebal...,
legorreko antzera,
itsasoetan zabal
arro edatzen dira.

Aize zakar, aize bare,
aize gordin, aize berde;
aize epel, aize bero,
aize zuri, aize kalma.

Ortzia urratuz,
—uda edo neguz—
nabarmentzen diran
aize txistulari,
firili-faralak...

Ipar aldez, ego aldez
aize asko, aunitz dira
bazterrak astinduz
dabiltzanak ulukari
batetik bestera,
txistu ta zarata otsez.

Beraz, arren, arren Jauna,
itsasoan barrentzeko
igaro al izateko
egin aterri ta kalma.

---

[a] (Iru azken bertsoak ez dira *A*'n agiri)

* *Esk.* VIII, 52.

## ONTZIAREN ONDORATZEA*

Ekatx erauntsiaren erdian
(zerbait minkatza iruntzitzen
dauan gizonaren antzera)
olatu bik, saiets batian
zauritu eben bai ontzia
eta, asi zan ura sartzen...

Areik ziran une garratzak!:
ugiñen gangartasunpean
esturaldi larrienean
uraren eraso bitartez
dezabatuak ikustean
ondatuak euren bizitzak.

Gizonak amilka eroanez
ugintzarrak aldendu ziran
an, ontzia urperatzen,
aize baltzaren begipean
gizonak itsaso barruan
itotzen ziran bitartean.

Ta, ezer izan ez balitz lez,
(amets illun baten antzera
bizitzaren betiko legez)
urak etor ziran lenera,
geldura laztankor, bigunez,
egoitza atsegin barera...

## ITSAS-TXORIERI BEGIRA ZEGON UMEARENA**

Antxetai begira zegon bai, zelan egatzen
zirean ikusiz itsas-txoriak goiturik
zelan ebiltzan alai, zarataka jostatzen,
aldizka ondarrean egoak astindurik.

* *Esk.* VIII, 53.
** *Esk.* VIII, 54.

A zan gozamena! Goiko ortzi lautadatan
egun argiz ibili ondoren, itzultzeko
gero, illuntzeaz batera arin, abiadan,
azkar ta dotore arkaitzetan kokatzeko.

Bein ta barriz, osterak egiñez... arrokiro
ondarrean lorratz politak ederrik itzi
ta, lumak astinduz lasa, poliki-poliki
gaba gero, itsas-zurmurrez igarotzeko.

Umearen amets-ibiltze goitar, pinpiriña,
egazti almenez antzeraturik, goietan
aizeratua, azkatasunezko egoetan
arnasatuz itsas kresal ezearen lurriña!

## ILLUNTZE[a]*

Sartaldeko osertzez, laiño gorri artean,
arratsaldeak dagersku bere urreteria
eguzkia itxasperatzen dan bitartean.

Ortzi zear egazti bat dabil goi aldean[b]
ta, musuzapi dirudin egoz, agur dagi,
lotarako asmoz baso-aldera doanean.

Geitzen ari da ixilla illuntzeratze[c] leunez
ta, ortzian, izar bat edo beste, bakanki,
agiri dira illargiaren goi-aldamenez...

Ontziak ere atseden artuz, kai barruan,
ur geldiz, amesten ari dira kulunkari,
ugintxo ta arrain[d] lotaratuen mezuan.

Bizitza da joan-etorrizko ibilian,
ugiñik ugiñera bezala[e], goiberati,
aldi-aro bakoitzaren igitze-zorian.

Itzala tarteka bizitzako ur gaiñetan;
berein margo ta ameskizunezko osertzak
gizon ororen biotz-barruko egaletan!

---

* Olerti 1983, 182 *(C); Esk.* XLIV, 47 (*B*); *Esk.* VIII, 55 (*A*)
[a] Illuntze *A* Illuntze bat kaian [b] Ortzi zear egazti bat dabil goi aldean *A* Itxas aldetik egazti bat dakust zeruan
[c] Illuntzeratze *A* gaberatze [d] Ugintxo ta arrain *A* portuko arraintxo [e] Ugiñera bezala *A* ugiñerako tartez

## AITZERA IGONGURA ZEBILLEN NESKEARENA*

Geraka, olaturik olatura,
aunditasun zadortsuz betea
aizearen gogo eragiñera,
urduri dakusgu ur kresala
bits zidarretan zatitua
ta, zabalduz bere elpidea,
aitzen ganera ta, ondarrera
eroanik bere goi-ikutua.

Goizaren barruz, bai zozagarri!
neska bat dakusgu igon-gura,
oroldi laban bustidun arri
zabal ta aundi baten ganera;
an ziardun bai, batetik bestera,
ainbat alegin eder egiten
baiña, nundik igo billatuarren,
bein ta barriz jausi da lurrera...

Ingurukoen barre algara!:
elai, antxeta, karramarruak
ta, egadun itxas pottorruak,
neska orren nai eta eziñaz
denak beingoan oartu dira
baita aren gorputz liraiñaz
jabeturik, an, lilluratuak
dagoz danak, neskeari begira.

Oroldi irriztakor labanak
neskeari ez dautso arkaitzera
igoteko biderik errazten;
alan be, nai ori betetzera
beartzen dau barruko «tasunak»,
epelkiro ta, ainbat lasterren,
soiñeratzeko eguzkiaren
ta, aizearen ikutu laztanak.

Goizaren egun argi mazala
ederrik datza, aize ariñez,
kresalezko ospakizunetan
eguerdia urreztatzen dala
kaioen oiu, ego bizietan,
egurats onaren atsegiñez
an, itsasaldeko osertzetan
oskatuz maitasunaren ala.

* *Esk.* VIII, 56-57. (Olerki ia bardiña, ik. 889.orr.).

## MONTERRIOS*

Arretaz[a] itxas ur-goraberatara
Monterrios, Monterrios gizona,
ibai ta errekatako aizeakaz
bere gogara ta[b], bera beratara,
bakarrik, azke bizi izan zana
arreinketarako butroi[c], sareakaz,
beti lan, zeregin bati emona,
amesetan arrain ta izkirakaz.

Biotza lilluraz[d] ta, gogoz beterik,
eztakigu egiazko maitasunez
loraburutu zanik[e] aren ametsik
udabarritar[f] usai, gozotasunez...
Dakiguna da bai[g], urbideturik
bizi izan[h] zala ogiaren[i] katez
urari lotua, ainbat[j] jasanik
egunik egunerako kemenez.

Monterrios, Monterrios bakana,
gizarte elizkoian biziarren
elizarik zapaltzen ez ebana;
ibai ertzetako[k] aize guztiakaz
izadiazko artu-emon[l] betean
beren arraintza esku trebeakaz
ogia irabaziz[m] igaro zana
mutil-zar zoriko bakartadean.

* Esk. VIII, 58 (*B*); *Esk*. XXII, 126 (*A*).
[a] Arretaz *A* Ernai [b] Ta *ez da A'n agiri* [c] Butroi *A* butroi ta [d] Lilluraz *A* pilpil [e] Zanik *A* zan [f] Udabarritar *A* udabarri [g] Bai *A* ze [h] Izan (*ez da A'n agiri*) [i] Ogiaren *A* ogiarekiko [j] Ainbat *A* nekeak [k] Ertzetako *A* ertzakaz ta [l] Artu emon *A* arremantza [m] Ogia irabaziz *A* otoizten ikasiz

## LAÑOA DALA-TA*

Arrantzu ogibidera
autserre margo goibelez,
laiñoa dator gainbera
beren estalki zitalez,
amets asko ondatzera.

Itxasoratzeko gogoz,
kaiaren kolko barruan
ontziak, lotuta dagoz,
danak alkarren onduan
baretasun ezti, gozoz.

Ardandegiz ardandegi
edo, baztertxo batean
mariñel soillak, musean
ari dira bereziki
laiñoak diraun artean.

Ontzi-buruak kai onduan
dabiltza, ingurumari,
urduritasun estuan
begira eguratsari,
itxasorako asmuan.

Ai!, orrela ostentzeko
nun sartu ete Eguzki
errege Jaun andi ori,
itxaro dan Egunari
atea ez zabaltzeko

## INGUMAK ITSASOZ IKUSTEAN**

Udabarriko egun zakar batean,
ain uts ta ezebezak zirudien
inguma mengelai begira nengon
an, Kantauriko itsaso barruan,
Euskalerri alderako bidean
oztaz-oztazko Rezola zeritxon
larogei urteko ontzi zarrean
begira nengon egurats itzaltsuan.

Mitxeletak bee-beetik an etozan
olatupeko uraren errazean,
albo-alboka ta, gora ta beera,
aizeagandik babesteko asmotan.
An etozan bai, al eben erara,
indar ain urrituakaz egazean
etozan bai, eltzeko legorrera
itsas urak igaroz noizbaitetan.

---

* *Esk*. VIII, 59.
** *Esk*. VIII, 60-61.

Arrigarri da-ta, ikustekoa,
lora antzeko inguma sorgiñak
ain zomorro txiki, ain ezebezak,
egiten ari zirean alegiñak
itsasoaren aurka, aizearen aurka
egiten ebena ta egindakoa,
ain margo bitxizko zomorro deusak,
pinpilinpaux polit ta pinpiriñak.

Denpora txoliñak aize zaharrez
ez zemotzen iñungo atsedenik;
ezta ugiñak be, jokera baltzez,
nasaiago ibiltzeko betarik.
Zenbaterañoko nekea ain ego
mengel, ain ego auskorrentzako,
aurrera jarraitzeko gogorik
arein biotz egoetan ezpalego!

Itsaso zabala igarotzeko
ain mengelak izanik ta auskorrak...
nork emon eutsen olako almena,
aldez alde itsasoa zearkatzeko,
nork olako nundik norako sena
ta, ain ego jasantsu iraunkorrak?
Au txikiarekiko aunditasuna,
bizitzako zador ezkutapena!

## URRETXINDORRA ETA ITSAS-NESKAK*

Olatu artean goituriko
urretxindor baten abestia
dantzugu bai, egunaz batean
bizi-bizi, ederrik ta zoli,
maitasunak goi-arnasturiko
lilluragarridun abotsean,
zeruz-zeru doana ain urruti
ta, aingerukiro igorria...

Uraren kresal-zidarterian
bits-aparrezko miraripean,
entzulari dago aldamena
zeiñena eteka estarria,
abestirako alango sena
daukan kantari ezti lerdena,
ain gozatsu ta alaigarria
ez ete dan maitasunarena?

* *Esk.* VIII, 62.

Urretxindorraren abotsera
itsas-neskatxa ederrak, lirain,
ur zelaian ta olatuen gain
asi ziran an, dantza-dantzari...
A, itsasoaren zoramena
kantaririk onenaz batera
ikustean ainbat begi urdin
ainbat neskatx eder maitagarri!

## NASAIKERIZ*

Bide luzeetan
(ura oinpean
ta, izarrak
buru ganean)
itxastar gizonak
beti diardu
amesten
andrea,
pattarra,
erria...

Urruneko
portuetan
edatuz
barruan
daroan
bakartadea;
andrea,
pattarra,
erria
amestuz...

Noizbeinka
mosuen bat,
abestiren bat,
mozkorren bat...

egun bakartien
ondoriozko
etsipenaren
nasaikeriz.

* *Esk.* VIII, 63.

## UR GORA, UR BEERA...*

Ur gora, ur beera,
itsasoa
gure bizitzaren
antzekoa
izan oi da.

Asarrepean
izugarri gogorra;
maitasunean
biguna, laztankorra.

Erabat alai
edo ituna;
arkaitzetan
topeka
edo
ondarretan
laztanka.
Batzuetan aundikiro
arro;
bestetan lagunkiro
apal.

Baiña itsasoak
betierazko bidez
aurrera dagi
beren olatupez
biziro bizi
edota nagi.

## BEGIPEAN**

Zenbat bizitza
gure begipean!:
ortzia,
itsasoa,
kaia...

Ugin artean
bitsa;
antxetak,
argia,
mendia
eta, arantzago,
bide bazterretan,
baso ta mendietan,
tarteka,
zelaiak,
zugaitzak,
ota lorak,
larrak,
aize berdea.

Barreak, karraxiak
abesti ta negarrezko
aurpegi gazigezak.
Ibiliz doazen
ta itzuli datozen
gizonezko ta andrazko
aruntz onuntzazko
bizi-ots,
taupadea.

Aizea,
eguzkia,
odeiak,
illargia...

Bakarrezko
ta, moltzozko
joan-etorria...

Bakoitzezko
ibiliaren
bakartadea.

---

* *Esk.* VIII 64.
** *Esk.* VIII, 65-66. (Ik. 678.orr.).

Bizi izatearen
urduritasun
arimaz betea.

Biziaren zantzo
ta irrintzipean
negarra, karraxia...

Itsaso antzo
olatuzko
gerakatasun
bizi-gose
eta erauntsia.

Aizea,
eguzkia
odeiak
illargia...

## LEIO IDIGITIK*

Leio idigitik
arratsalde igarankor
ta, baketsurako
an, udazkeneko
ortzi zabala dakust oztin
ta, aren be-aldean geraka
ugiñak dantzari ta urdin,
ertzeko atxetan apurtzen
zatitzen diran bitartean
bits aparretan brintzaturik...
itsas txoriak an, txilioka
dabiltza urduri ta txolin.

Erri aldetik
zugaitz orituek
euren orri zimelezko
orbelakaz,
argiro adierazten
ta esaten dauskue
(orain agur egiñik
udazkenari,
abesten ari diran
txoriekaz batera)
ba'doala bai, betiko,
bizi aro eder bat,
agur dagiskularik
ixiltasun betean...
ia joan doanik be
asko igarri barik...

## LEIO ZABALDUTIK**

Leio zabaldutik
arratsalde igarankor
baketsurako,
udazkeneko
ortzia dakust
oztin argi
ta, be-aldean
urrumakor,
ugiñetan
bitsez
arkaitz gaiñez,
itxas gerakea
apurtzen, brintzatzen dan
une berean,
itxas txoriek
txilioka ari dira
urduri...

Legor aldetik,
zugaitz orituek
euren orri zimel,
orbeletan,
argiro dirauste,
(orain
agur egiñik
udazkenari,
abesten
ari diran
txoriekaz batera)

---

* *Esk.* VIII, 67.
** *Esk.* XLIV, 74. Emen olerki baten idazkera bi. Aldakuntza txikiak asko agertzen dira.

ba'doala bai,
betiko,
bizi aro eder bat
agur dagiskularik
ixiltasun betean,
ia doanik be
igarri barik.

## JAKITURIA*

Bizitzako
gau-egunen zoriz,
ugin arabera,
berekiro
ibilli oi gara
argitasunezko
goigune pozgarriz
edo, alderantziz,
aize gogorrezko
eraso galgarriz,
estu eta larri...
ugintzar garratzei
iñundik iñora
ezin igesika.

Ta, azken ordua balitz lez,
itunik, urduri
aurkitzen gara eriotzazko
otz-ikaradun
izardi bustiz.

Ikus ta ikasizko bidez
kolkoraturikoa da bai,
itsas gizonen
jasanpenezko
jakituria...

Ur kresalaren
eraturapean,
kresala iruntsiz
altxorturiko
bizitzadun
zidar eta
urregorria...

---

* *Esk.* VIII, 68. (Ik. 840.orr).

## IKUSPEGI BAT*

Arraiñen itsasoaz ta baita gizonenaz
aurkitzen gara gure bizitzako joanean,
olatuberazko berein zoriren menean
aldi bakoitzeko atsegin ta ondamenaz.

Begiratzen ari naizen egun au, ederrik,
zeru argi ozkirritsuz alaikiro dator
ta itsasoa dago urdin-errez jantzirik
olasta jostalari ariñakaz otzankor.

Biziak ots dagi, bai, egunik luzeenetan,
ta, ur-txori arrantzari bat dotore dabil
an, ibaiak itsasoaz bat dagin ertzetan
ur ganeko egaztada ixiltsuz ain bipil.

Ta, arantzago, bular zuridun aata baltza
bolborina dakust oturuntza mustadatan,
uretan itxirik bere igeri lorratza
sabelak deskatson janari billakuntzatan.

Itsaspean sartzean euzkiak agur dagi
gaubidezko illuntze ederraren oskorriz
ta, egaztiak arin errirantza urduri
abiatu dira bai, arkaitzetara etorriz.

Itsasoa itsastariekaz gelditu da an
beren izar ta illargizko argizariakaz,
lo antzeko igitze zurmurtsu ta barean,
arrainteri mueta ta bere altxor guztiakaz.

* *Esk.* VIII, 69.

# 1983

## ITXAROPENA*

Bai dala ona
larrosazko elburu
naiz nekaldi orotan
gogoz, arduratsu,
(mendietan, zelaietan...)
bai dala ona, guztiz,
arnas artzea
biotzari egaraziz
itxarozko goietan!

Ez utzi itxaropenari
gogo makalezko alamenduetan
bertanbera eroriz
burua galtzen.
Deusezpen uts-utsean
ez ba, ez utzi
erdoituraz usteltzen,
bidea irikiz ondamendiari.
Munduko eragozpen,
bideko sastrakatan
naiz lur ikararik gogorrenetan
ez ba utzi iñolaz,
amor ematen etsipen baltzari.

Itxaropena sartu biriketan
ta, iaso bizitzaren erpiñera,
edo baita edozein amillera;
maitasunez eroan bai, gogotan,
mendiak berrituz, egunik-egun,
eroan lantegira, gizartera,
gizonkiro azaldurik edonun
bizitzako goibera guztietara.

Galtzarpean naiz eskumuturrean
eroan bai, zentzuzko kemenean,
eroan kolkoan naiz sakelean
erabillirik sinistetsu, beti,
zeure biotz, zeure esku artean,
gerta dedin elburuzko ilinti
aldiak opa leiken gau beltzean.

* Olerti 1983, 181.

## MINDURA*

Aize itun, mindua,
bakartiaren gogoan;
(euri, izotz, lañoa)
egalpe illunean;
ez gaurko, ez biarko
itxaropenik gabe,
maitasunik ezaren
utsune aztunean:
argi otzezko negua,
biotzondo zaurituan!

## IZATEAREN MUINEAN**

Izatearen muinean
egun argi, gau beltzez,
naizenaren naizena
iturri garden, maitez,
gogoz dabilt taupaka
biotzaren odolean;
naizenaren naizena
dabilt bai, betiraunka,
izantza ederrean,
egarririk onenez.

## BAIETZA***

Bizi Izatearen ederra!
Aizearen ego, eguratsez,
uraren betiko ioanez...
zelairik zelai, ibarrez,
une bakoitzeko etortez,
itxasoa, zerua, lurra
argi ta margo leiaketan
eguntzen diran betimiñez!

Ai! Nola ez! Bai, nik baietza
baietza damaiot izateari,
baietza damiot biziari,
esker onezko igarotzez
aintziñatearen aintziñatez
bere zauri ta atsegiñez,
aunitz mende ta gizaldien
zuztarpe ta burubidean
izakizunez oñarritu,
ta, biziz, nortzen gaitun arnas,
eguneroko itzartzeari!

* Olerti 1983, 182.
** Olerti 1983, 183.
*** Olerti 1983, 183.

## UDABERRIZ*

O, ene lur ta biotzeko baserri!
So dagitzut so bai, gozoro, zuri.

Lau zugatzondo, beste lau bat soro
ta, Udaberriki iantzia osoro...

Larra ta zelaiak, itxaro-lorez,
intzaren besapetxoan, ioranez.

Zer ote dio kukuak aritzari,
zer papargorritxoak maiteari?

Zer aizeñoak kutunki, loreari,
bai madari eta, bai kerixari?

Zer inguma pertxentak bereari,
panpiña dirudin egaztariari?

Zer izaki bakoitzak ezkutuki,
zer biotzik biotzera alkarri?

Indar berritzerik gozoenean,
oro amets ta lillura danean...

Bere ezkontza, eztaietarako,
ta bere eskaintza gurenerako...

Izadia bai dala eder iantzi!:
oro zillar ta, oro urregorri!

## PUXANA**

Asi nadin diñot eta, eztakit zelan asi
gogoz emandako itzaren zorra ordaintzeko;
baiña, asi egingo naiz bai, euskalkide bati,
neure agurrik beroena biotzez eskaintzeko.

Esakunak diñon lez: «Asiak egiña dirudi»
baiña, nik, egin nai neuke, egin, edertasunez,
zuk dagizun lez ain biziro, maixu agurgarri,
idazkera argikoi baten eredutasunez.

Orretan diardut neure alegiñak egiñik,
edur zurizko paperean biotza ezarriz
eta, bertan, izpi argiren bat irarri nairik
benetako soindurazko oldozgai adigarriz.

Itz bizi, egokiz, alik labur, alik argiren,
benetako azalpen giartsu eta trinkoenez
On Pedro Puxana, Oleta'ko seme zintzoaren
izena nai neuke geratu betikotasunez.

* Olerti 1983, 184.
** Olerti 1985-86, 237-238; Zer (1983, 70.zenb.) 12; *Esk.* XXI, 87-88 (1983-V-15).

Aren euskal senaren sendotasun giartsu,
aren etengabeko ekintzaren goitasuna,
aren abade izatearen errikoitasuna
nai neuke bai, alik egokiren neurtitzeratu.

Jantzi apaiñez soiñekotu, laztanki goratu
aren izena, benetako arduratasun zindoz
nai neuke, egokitasun maitez gizarteratu
aren izena, benetako aintzamen eta gogoz.

Aren umetako Oleta, aren gaztetako
Gasteiz ta Apaiztegi alderantza urreratuz;
aren Eskoriatza, aren Angiozar ta Morga'ko
arimazain-aldiko igaroa gogoratuz.

Orduko baserri nekazaritza eraturaz,
orduko laia ta golde, orduko ikuspegiz
goazen garitza orizkatu, artotza orlegiz
orduko gau-egunen argi eta illunduraz.

Goazen orduko gaztain-arlo, arte, arizpez
gaurko piñuetarañoko munduaren aldaketaz,
ta galdu izandako ameskizun guztiekaz
txerta aundi bat egiñik lengo gatz ta ozpiñez.

Ta, igarobide ortan daurkigu abade bat
gogo-biotzez euskereari betikoz emona;
benetako abade ta benetako gizona
gure elerti eta gure erri maitearentzat.

Orain Arteaga'n darrai aren abade biotza,
aren onbidezko artzaintzaren zuzentasuna,
aren erritartasuneko langintza ta egoitza,
musalditxo batzukaz onduriko gaitasuna.

Arabar jatorrizko gizaseme goralgarri,
euskel alorreko ikastun ospetsu, langille;
benetako euskaldun, benetan gomutagarri,
euskera laztankor ta iraungarriaren lankide.

Gramatikalari degu Bizkai'ko izkelgiaren
aztertzalle sakon, jakituriz oñarritua
eta daukagun lenengoko Bizkai'ko Foruaren
itzultzaille bikain, edergarriz ongarritua.

Beraz, zure egintz neketsu orren argidura
dizdikor, laztan ori eda, iturritu bedi
ta, ur bizi osasungarri orren ikutura
EUSKEREA burutu bedi bai betiraungarri!

## TXIRTXIRRA*

Txir, txir, txir... Txirtxilla ozen
(ostenduta belardietan)
etengabe, ekiñean,
eguzki ta illargitan
kantari ari danean
dei ta dei, bere maitearen
urbil edo urrunean,
udaldiko egunetan...

Txirtxillak badu, txir-txirka
aritzeko, etengabe,
zerbaiten gogo ta uste;
badu, maitezko sena,
zerbaiten itxaropena;
badu «nika» edo «ika»
biziari so, aldarrika,
abestutzeko almena.

Txirtxillak, txir, txir, txir, badu
zerbaiten gose, egarri;
badu zerbaiten berri,
maitasunaren ikutu,
eguzki ta, illargitan,
udako alor, landetan
ari danean kantari
badu bai, zerbait pozgarri.

* PVV 17(1983, 153.zenb) 10; (*Esk*. XXII, 58).

## GAUZAK ETA GURARIA*

Txoriaren mintzoa, lorearena
goiz ta gauez sartzen zaigunean,
sentimenez ta biotz barrena
gauzaen izantasun berean
mundu arruntaren edermena
ixil-mintzozko ele-melean
begipetuz bakoitzaren sena.

Goizeko txintada, abarrotsa,
illuntzez datorren illargiaren
zurbil geldirozko gorakuntza,
gau-giro argi ta gentzatsuaren
izar dirdirazko goi-zolaren
gelgarrizko betiraundar dantza...
Zein ikusgarri atsegiña den!

Bizitzaz kolkoa aberasten
zait ta benetako ondasunez,
gauzaen izpiñoak altxortzen
ari naiz euren zillar ta urrez
ari bat, beste bat artuz gero,
gogotasun sendoz, norberaren
etorkizun bidea euntzeko
maitasunezko urre, zillarrez.

## ASIS'KO PRANTZISKO DEUNARI ESKARIA**

Prantzizko Umbria'koa, doaiez betea,
ur on, lorearen, baita otso gaiztoaren
lagun ongille, eguzkiaren ta illargiaren
anaikide bioztun, santu begiralea...

Zure arrabitaren ots biziak, ederrik
abestiratu eban danen anaitasuna,
abots guztien berezko Iainkotasuna.

Prantzisko, txorien eres entzule, laguna,
ederdurazko zerubideen sortzallea,
apaltasunean erroturiko alduna.

* PVV 17(1983, 154.zenb.) 10; *Esk.* XXII, 63.
** PVV 17(1983, 157.zenb.) 9; *Esk.* XXII, 34 (59).

Sar zaitez gizartean, atoz gure etxera,
zabaldurik maitasunezko alkar-bidea
eta, onegaz bat-batera, gure euskera.

## SAN LORENTZOTAN*

Udaldiko egurats, bizitza ikutura
San Lorentzok dakar, esakunak diñoanez,
«esku batean sua eta bestean ura»
beren kixkaldura edo euri eder onez.

Arte zar ta lodiz gerizpeturiko landan,
Galartza'ren oinpean eta Argatxburu'ren
ondoan dago bas-eliz bat, euskal Fedearen
aintzamenez, Izla Beko deritxon auzoan.

Ibai ta mendipez kresalduriko aizearen
sartun-urtenezko Arteaga'ko lurraldea
dogu, ainbat gizaldi bidezko igaroaren
erakutsi gomutagarri laztantsuz betea.

Izaro aldetik datorkigu itxasoa,
Bermeo, Mundaka zear gure Gernikaraño
ta, aldiko ederkun ederrez erasoa,
inguru begiko au eltzen da biotzeraño.

Nintzaneko beste mundu baten oiartzunez
gazterik nabil bai aintziñako ibilietan,
oinkada bizkor ta begi argizko bideetan
aztu ezindako mutiltasun ain bakunez...

Burdi soñulariz, ainbat azpigarri, satsez,
orduko baserritar akulu ta aidotsez
ortzi zabala, zarata ozen, nabarmenez
betetzen zanean berein astoren agurrez.

Nekazari bizitza asko bezin latzaren
anotsak aspaldi joan ziran bai emendik
baiña, aintziñako gizarte a, (gaur ta emen)
bizirik dabilt gomutapenean oraindik.

---

* *Esk.* XXI, 75-76 (*Esk.* XXII, 91-92). (1983-VIII-10).

Nire amets-lillurak emen aizeatu ziran
lorara zetozan urte ederren goimenez;
emengo baso, solo, landa, ibai ta latsez,
gaztetasuna zorion odolaren baitan.

Bas-eliz ontara (gaurko lez) etortzen giñan,
urterik urterako «Sanlorentzotasunez»
ta, meza osteko txistu eta danboliñez
urtean beingoa zanez gogoz ospatzen zan.

Biziak igarozko beren bidean darrai,
(geroago ta urrunagozko alkar-urruntzez)
gaurko ezinbizizko esturapean, deslai,
gizarteari darion aundikeritasun baltzez.

Nire begiok argia galdu dabelako ete
gizonen egoera au ain baltzik ikustea,
ain berekoitua ta txepelduraz betea
bestearekiko auzotasun ardura gabe?

Ez gari ez arto, dana dakust billuzia,
lurra jotako baserriak jarraipen barik;
dana gazterik bako bertanberan jauzia,
tristura illunezko piñu baltzez jantzirik.

Berebil ederrak aintziñako burdi ordez
ikusten dira bertan ta, Ipar Amerikaz,
Venezuela, Mexiko ta beste urrunetzaz
berba egingo dautsue etxekotasunez.

Urteak igaroz etorri datoz itxasora
ta, atzerrietara urrundutako semeak;
etorri datoz euren lengo Sanlorentzora,
gogoraturik lengo izaeraren bideak.

Emen aurkitzen ta batutzen da urrunduen
ta, (iñoiz iñoratu ez diranen) mundua,
atzerrikoz bizi izan ta bizi diranen
sorlekuko amets-lilluraen iturburua.

Gurasoen lur ikusgarri, lur begikoa,
umetako gure ikuspegiak gortzen ditun
amatasunezko lur aintzatsu, biotzekoa,
benetan ain gogoangarri dana, ain kutun!

## OLLAR ARROA*

Udako argidirian
ollar arroa, ozenki,
goiz ari da egunari
nabarmen kukurrukuka
guztiz ernai ta zoli
zaratatsu, ollo deika.

Ixil ezin egon alda
egazti ain gangar ori
danak esnatuz «ni-norka»
loa kenduz inguruari
dei eta dei aldarrika
osertzetik datorren argiari?

## MARI URRAKA**

Zazpi bat urte Anboto'n ta,
beste zazpi bat Oizko koban;
etxean, sendiko aitamak
ba, bi neba-arreba ziran
bizitzako neke-pozetan.

Beti, Aitak: «Oa elizara»
Mari Urrakatxu maitea.
Baiña, amak, gaiztoz, ordea
kobako andra batengana
eroaten eban alabea.

Ikasketak egin ondoren
abade egin zan nebea
ta, au oartu zan egun baten
elizara ez zala ioaten
ain maite eban arrebea.

Asarratu zan azkenean
ta, burdia antolaturik,
abade Iaunak gogorrean
Mari Gaizto burdiraturik
an doaz eliza bidean...

Ta, atera eldu ziranean
—burdin itxirik arrebea—
estola billa abadea
sakristira zan bitartean
sortu zan alako aizea...

* *Esk.* XXI, 110. (c.1983).
** *Esk.* XXI, 112. (c.1983).

Ekaitz bat gogor danbadaka
sortu zan bai trumoi otsean
ta, an doa, burdi ta guzti,
sugarretan Mari Urraka
ortzi zear, odei artean...

Geroztik, ekaitz-egunetan
azaltzen ei da bildurgarri,
Oiz'tik eta Anboto'rako
inpernutar ibillaldietan
zimizt-artean errukarri.

## UDABERRIAREN ETORRERAZ*

Udaberriaren etorreraz
landaz-landa, zelairik zelai,
eguzki izpidurapean
erleak arduratsu doaz.

Lanera doaz azkar, alai,
eztigai billa, loraz lora,
erletegitik at, kanpora,
bizia gainditzeko pozaz.

Egoak dantzari, aizean,
ta, loraz lora, miazkari
erleak, burrunba otsean,
dabiltz osteraka, urduri.

Erletegiz at, loreetara,
oi-danezko joan-etorriz
dabiltz or, batetik bestera
eztigintza alikagarriz.

Gorakundez dator bizia
orlegitasun eder betean
ta, txoritza txintalaria
jeiki da egunaz batean.

Izateko pozaren pozez
eskeintz ta itzartze bat da,
udaberriaren emai, guna,
beren lorateri gelkorrez.

Maiatz ederra loran dago
ta, ori da bai gozamena,
euri ta eguzkiz gozoro,
indar-berrituz datorrena!

Mundu berbiztuaren abotsa
ederrik ta, erabat lerden
aizeratu da, bai, bein baten,
alaituz izadiaren biotza.

* *Esk.* XXI, 127-128.(c.1983).

Etorkizko itxaropenak
nun-naira eda ta zabalduz
kili-kilika datozenak
zorioneko amets-ikutuz.

Bizitzazko gorakundea!
Ostotza ta belar sor-berriz
soinduriko etorbidea
eres-soiñuketa pozgarriz!

Geiago oldoz, pentsa gabe,
abes dagiskute txoriak;
abes mendiko iturriak,
Maiatz ederraren mirabe.

Gogoz ta begira-begira,
beren lan, eginkizunetan
erleak, tinko, ari dira
goiz argi ta, arratsaldetan.

Erleak erle, lorarik lora,
eztia ta, argizariaren
egille maitekorrak dira,
batez ere, aintziña baten...

Besteak or, txitxar antzera,
lasai bizi diran artean...
Erlea dakusgu lanean
lora gainetan, buruzbera.

## DAR-DAR-DAR'EN IPUIÑA*

Bildutako beren ipuin baten dionez
Aita Miguel Barandian'ek an, Ataun'en,
aintziñako eztakit zenbat aintziñez
etxe bat omen zegon, an, mendi baten.

Eta, autsa bildu eta autsa saldu,
etxe artan anai-arreba gazte bi
bizi omen ziran benetan beartsu
erosokeri gabe estu ta larri.

Autsa pertz batean biltzen omen zuten
ta, pertz orrekin, bakoitzak kirten orren
alderdi banatatik elduta joaten
omen ziren bizimodua ateratzen.

Bein mendin, gizon bat agertu zitzaien
beste bizimodu berri bat eskeñi
eta, eman ere, eman egin zien,
eskupeta bat eta bi zakur aundi.

Eiza arrapatzeko ta saltzeko
esan zion ta, orrela, pozik ta alai,
eizara abiatu zan anaia, gero,
etxean egoten zan arreba, lasai.

* *Esk.* XXI, 129-133. (c.1983).

Bein deabrua joan zan etxe artara
arrebea bakarrik egon zanean
ta, deitu zion zoli ate aurrean.
Ai!, ura zan ura neskaren ikara!

—Dar-dar-dar. Ekatzan, ekatzan eskuingo
lenengo beatza. Azkar, gero bestela...
—Neskak esan zion, ez diat emango.
—Ematen ezpaden joango aut bereala.

Au entzunaz, neska, guztiz bildurtuta
luzatu zion beatza ate zulotik;
deabruak txupatu eta, tximelduta
utzi omen zion zemaikari, esanik:

«Biar ere amarretan etorriko non
bestela jan eingo aut beingo batean.
Esan bezala goizeko amarretan
deabrua ateratu omen zitzaion».

Dar-dar-dar. Ots egin zion atetik:
—emen nauk ta, bigarren beatza ekatzan.
Luzatu omen zion beatza berealan
ta, Deabruak utzi zion tximeldurik.

Neskea geroago itun, tristeago
nabaitzen zuan anaiak ixillago
galdetzen zionean bein eta berriro
zer gertatzen zaizu ola egoteko?

—Ezer, ezer ez! —neskearen erantzuna—
Deabrua antxe urrengo egunean:
—Dar-dar-dar, beti lez, an ate ondoan
otska: Ekatzan beatza, irugarrena.

Luzatu omen zion irugarren beatza
ate zulotik. Deabruak txupatuta
utzi omen zion guztiz tximelduta
baña, neskea, mutu ta ixil, lotsa.

Laugarrena ere, era berdiñean
txupatu ta, beraz, gaxotu neska.
Anaia, jakin gura, beti galdezka
ta, aitortu omen zion azkenean.

Bostgarren egunean deabruaren zai
eiztaria etxe barrun gelditu zan
ta, bi eiza zakurrak lotu zituan
neskatxaren ogeko bi adarburuai.

Eskopetarekin zakurren erdian
eiztaria. Deabruak ots egin zuan:
«Dar-dar-dar» bai, bostgarren ori ekatzan».
—Ez diat, ez diat emango gaurkoan:

—Ez e? Biok jango zaituet orduan!.
Atea apurtuz gero, barruratu
zitzaien deabrua an, itsumustuan
baiña, mutillak, bi txakurrak azkatu.

Ta, Deabruari omen ziotzan axaxatu
ta, bi txakurren artean, txiki-txiki,
xe-xe egin omen zuten amorrotsu
ta, lurrean, ezur odoletan utzi.

Eizean zebillala, bein, mutil orri
mendian gizon bat agertu zitzaion
ta, «goazen neure etxera» esan zion
adeitsu ta, adeitsu bezin maltzurki.

Ta, alan, eraman omen zuan gero
jauregi batera, sartuaziz barrena
ta, gelaz gela, igaro ta igaro
sartu-irtenka, orr amairugarrena.

Ta, galdetu omen zion bat-batean:
Bai al dakik nork il zun nere anaia?
Amairu ateren giltzadurapean
gelditu omen zan mutil eiztaria.

Ordun eiztari mutil orrek beraren
zakurrei indartsu deitu omen zien
baiña, ixilla besterik ez zetorren
alako gelaren ormape beltzian.

Orratio noizbait ixilla urratu zen
an, mendi aldeko urrutiren baten,
zalazkoaren edota ezalazkoaren
oiartzun izpidurapean, argitzen.

Jarraiturik dei ta dei, zakur zaunkazko
ots pozgarria, geroago ta urrerago,
nabaitzen omen zuan askoz zoliago
gogotan, an, zakurrak noiz agertuko.

Ta zakurrak eldu ziran zorionean
palazioko atetara ta, an bertan,
deabrua txikiturik milla zatitan
ta, amairu ateak apurtuz nekean...

Nagusia poz-pozik azkatu zuten
ta, jauregiko ondasunak artuta
txakurrakin batera etxeratu zen
arrebearen ondora aberastuta.

Anai-arrebak txakurrakin batera
lautadako errira aldatu ziren
bizitzako egunak igarotzera
egoera lasaiago ta eroso baten.

Eta, au, alan gertatu izan bazan
sar dedilla sar gure kalabazan,
zorioneko igarotze ongarrietan
bakoitzak bere ametsa bizi dezan.

## ATOZ GOGOZ*

*Magda Stella kolonbiar*
*olerkarime onari adizkidetasunez*

Nik artzeko, emaidazu, lagun eskua
batera egiteko lan, biotzez ta bakean,
betetzeko galburu ugariz ingurua
aren aleak banatuz munduko alorrean.

Gizartean ez dedilla arantzarik izan
lan egiñik garbi ta ontasun betean,
izanik ori elburu bakarra, bizitzan,
leiar dirdaitsu antzeko gardentasunean.

---

* *Esk.* XXII, 68 (1983-XI-25).

Zure indarra nereaz, apaltasun maitez,
alkarri pozez lagunduz gallurra garaitzen,
ezer ez duanaren ekintzapen goizalez.

Atoz gogoz, ixil. Atoz nerekin batera
adizkidetasun ikurrin ona jasotzen
beren amets-leku zabal-argi gorenera.

## GABONETAN GABON*

*Zubikarai-tar Augustin Ondarru'n*

Gabonetan Gabon
ta, daukanak bonbon,
ta, eztaukana egon.

Etorri dator eguna beren ospetasun andiz
ta, etorri eginda beren onguratasunez,
betiko amets, betiko uste, ikuspegiz,
betiko guzur-ipuin ta alaitasunez,
betiko oztasun ta barruko txepelkeriz
etorri egin da agerkera txanbeliñez.

Uria argi-margo dirdaitsuz apaindua
zeru-antzo, ederrik, zugatzez atondua
berein saltokiren jostallu begiragarriz,
ainbat janari gozoren ta gabon opariz
Iaungoiko Semearen jaiotz gomutapenez
ainbat tokitan, uri barruz, seaskatua,
maitasunaren eredu ta eskeintzapenez.

Iainkoaren Semearen jaiotza dala-ta,
anai-arrebak gurasoakaz batuko dira
bazter ezindako oitura batek deituta,
baña, tamalez, ez al gara gomutatuko
munduan beste ume asko, askotan asko,
millaka ta millaka gaur jaioko dirala
ta, gau ontan, otza edota, gosea kentzeko
esnerik ez lastorik ez dabela izango?

---

* *Esk.* XXII, 56 (1983-XII).

Gau ontan millaka gizon espetxeratuko
dabezela, ilgo, zauritu, oñazetuko
millaka ume, millaka gizon, emakume
ta, ondamenaren jakintsu, gizon argiak
zer egiten diardue, ai!, zer egiten dabe?
Azkortu egin dabez eriotzazko lerkaiak
Ezabatzeko, ondatzeko gure mundu au.

Ta, orrexegaitik Aingeruek gaur ez, ez dabe
abestuko gaurko gizartearen guzurrezko
EGUN BARRIAREN ITZ, berbateri maltzurrezko
agerkera mingarri au. Orrek kezkatzen nau!

# 1984

## ZIPITRIA-TAR ELBIRE ANDEREÑOA*

Itsasoarekin artu-eman aundiko
Donosti ederraren zerupea
ainbat ikuspegiren kai aldea,
daukat gogoan, biotzeraturiko
ta, arrantzu emaiz gatzituriko
uriaren portutar ibilbidea.

Bertan, arrantzu ta merkat-ontziak
zamatze ta ustutzezko lanetan;
bertan, igaranezko begirariak,
lilluratuta beingo ikusietan;
kaio zoli ta uso egaztariak
ere bertan, aideko urratsetan.

Etsaiz inguratuak geundenean,
orduan, orduan... Zauriturik
Euskalerriaren bizi izatea
ain loturik ta, oinperaturiko
euskerearen egoera, gurutzea
ain mingarri ta gogorra zanean...

Orduan, an... Negar-malkoturiko
frankokerizko gau-aldi luzean.
Euskerea ain zapaldua zegoenean
aurrez-aurre, Gaztelupe aldean,
euskal mintzo gogoz garaturiko
umez topo egin nuen goizean...

Pozez txundituta gelditu nintzen!
Galdetu nik ta, batek, ain ederrik,
argi ta garbi mintzatzen zirean
aurrak, izkuntza odol berriturik,
esan zidan: Elbire Zipitriaren
ikastolakoak zireala ain zuzen.

Bizi izatezko gogo ta asmoz,
eusko alorreko mendu berriak
ziran bai, udaberriz arnastuak,
iraun-elburuz beti-betirakoz
Elbire'k biotz onez landatuak.

Erakusbide eder orren bidez
nire biotzean kanpaiak oskatu
ta, bira-birakatu ziran alai,
Elbire andereñoaren omenez
ta, biotz osoz eskaiñi nizkan bai,
maitasunezko ainbat loraburu.

* In: [*EUSKERAZAINTZA'K*], *Zipitria'tar Elbire «Andereñoa» Omenaldia*. Tolosa 1986, 171.orr.; *Esk.* XVIII, 1-2 (1984).

## ATSEGIN TXIKIAREN ABESTIA*

*Los arroyuelos murmuran*
*aun cuando nadie les oiga.*
Dora Castellanos.

Latsak, ederrik, badoaz bolboka
iñok entzuten ezbadautse ere...
Zertarako galtzen dozu abotsa?
Nik iasoko dot ta, egingo neure!

Belar apala dakust bai, etzana,
goizeratzen dan arginabarrean...
Ta, ni zure ondoan nago dana
argia lez, egunsentiratzean...

Nire biotzak ikasi eban maitez
bakartadearen eresi sakona...
Bedarra ikusiz dardara betez
nabari da aren taupada sona.

Oinaren gogo guzti-guztia
lora bakoitzean emoten da bai
ni be, emongo nintzake alai,
lora arimaz ederrik iantzia.

Atoz maitetasun, atoz nigana
aizea etortzen iatan antzera,
atsegin txiki nimiño au, dana
el dedin aundi aundi izatera.

## UNEA**

Zure begien ta ikuspegien artean
oroitzamen keiak gora doaz astiro
ta, maitasun batek dabes an urrunean
abes dagi bai, bare-bare, legunkiro.

Aizeak eratsi, baztertu gura ditu
arratsaldearen orbandutako orriak,
udazkeneko orbel itunak ondatu
bizitasun barriz sor daitezan barriak.

Kirkir zoli baten abotsa datorkigu
inguru dana kirkirka astinduz ozen.
Ta, txoriek zer diñoe zeru-zear alaitsu
egaka arin bata-bestearen ondoren?

---

* Karmel 1984-1/2, 49; *Esk.* XXII, 49.
** Karmel 1984- 3/4, 123.

Begien barruan dakusgu nabarmentzen
tristuraren goibeltasun itzal ituna,
indar artzen unez une sakonagotzen
denporaren berarizko orban lizuna.

Alan be zuk abestu egin nai zenduke
ta esateko duin litzaken zerbait esan,
biotzez abestu, len bezin gogotsu, maite,
ederrari bideak edegiz zeure baitan.

Baña, irudi bat eten da... betiko ete?
Bakarrik dantzuzuz orain zeure oñotsak
eta ixillak baieztutzen dauzan zeure
bakartadearen bakartadezko anotsak.

## MAITALEEN SOÑU-ALDIA*

Bateraturiko eskuekaz
mundu guztia eutsi aal izango
ba-leue lez,
egadun sorbaldak alkartuta,
onelaxe
dira euren aurpegiak agertzen
gabaren azken-arnasari,
onelaxe
dira amai bako ispilluan begiratzen,
beren dardara konta-eziñalan,
onelaxe
dabe eratzen
ereskidetasun barri bat
lurreko izaki zerutarreri,
euren azken berean
suntsitzen diran bitartean
eta lotzen dabez beren gorputzak
aaztutzez estaldurikoak,
billatzen ari dira bitartean
euren odolak edo euren gogoak
bat egindakoak dardarakizun bakar batean,
etendura bako sugar bakar batean.

---

* Karmel 1984-3/4, 124; *Esk.* XXII, 72.

## ITSASOAREN AZALA*

Euzkia soiñekoturik
itxas uraren azalak
darakusgu maitearen
begirada, so urdiña,
ta, ugin igiduraren
apar arteko itzalak
bere nai, egon eziña
bizi-bizi agerturik.

Ez, itxasoaren azala
ez da iñoiz sakatu bear
ezpata eztun luzeaz,
bada uts egin ezkero
aren ugiñetan zear
amil zeintekez bai, gero,
ondoratzeko bereala
eriotzazko ur baltzakaz.

## BULTZIA**

Zama aztuna edo ariña
beti da bat aren ibilia,
beti, ioan-etorri bardiña;
geltokiz geltokizko geldiune
neurtua, barriro itzulia,
tran-trakatanezko biboliña
ta, betiko loaldi, utsune.

Burdin otzen edo beroen gain,
arzulo berberatik igaro,
ipar-aldetik ego-aldera
ta, egoatik gero, iparrera,
beti lez, —ez azkar ez astiro—
ordu-lotura berdiñan azpin,
egualdi otza izan naiz bero.

Txistu otsean ta beti deika
batetik bestera, osteraka,
ibarretatik, mendipetatik
beti lez, bagoiak arrastaka,
ordukari begiradapean
ta, orrelaxe begiraturik...
Gizonaren irudi berbera!

* Olerti 1984, 123; *Esk.* XXII, 54*.
** Olerti 1984, 123; *Esk.* XXII, 35.

## BILLUTS-BILLUTSIK*

Billuts-billutsik
dakustaz
zugatzak
negupean.

Narru gorrian
bein bateko
adar jantzien soiñu
ta txintots pozgarriak.

Orratio sustraiak
lurrean sendo
gogor errotuak
baldin ba-dituzte,
ez dira galduko
esperantzak.

Udabarriko
eguzkiak
eta
euriak
sortuko
ditu
orri barriak.

Barriro
bertaratuko
dira txoriak,
kabigintzazko
lillurapean
abestuz
euren
maitezko
txorrotxiuak.

## OLDOZTU NEBAN**

Lur sakon
emankorretan
oldoztu neban
nik.

Aize bare ongarrietan
edergarri ta begiko
diran bizidun gauzetan
maitetasun barrutiko
laztan gozo samurretan
oldoztu neban
nik.

Udabarriko usain on
ikuspegi orlegietan
ta baita zure begietan
oldoztu neban benetan
nik.

Zenbat lan oldozgarri ta eder dagon
orri txiki bakar baten egituran
bizi-ezkutu sakonezko zenbat lan
oldoztu neban
nik.

Ta oldoztu neban bai oldoz neikela
ta amets egin, gai izan nintzakela
ta oldoztu neban bizitza au zala
asi ta azkortzea
ta aurrera joatea.

Baña esan dauskuenean ez
ta agintzen dauskuenean ez
ta ondatzen gaituenean ez,
orain eztakit ez
eztot oldoztutzen
nik.

---

* Olerti 1984, 124. (Ik. 917.orr.).
** Olerti 1984, 125.

## BETI DIARDOGU IGAROTZEN*

Bizitza ontatik joatean ere
txingurria beti izango da txingurri,
ta, elaiak ere ibiliko dira
ortze zear aringa, barriketari,
udabarrian gogo alaiz etorri
ta, umeak azi ondoren, an, gero
udazkenean barriro joan arte
etorri bezin alai, txirripitari
taldetiar batasunean urruntzeko
igesi, ur datorren negu baltzari.

## ILLOTSA**

Zabaldian galdurik
astiro mendian gora
joale otsak datoztaz
urruneko ibarretik.

Intziri itunak dira
isturan eortzirik,
leun datozan erostak
beste ludi batetik.

Joan iataz utsean
itxaropen zoroak
ta, gaur nire amesak
galdu dabez egoak.

Maitasuna erail daust
aldiaren laiñoak,
ixil daridazala
oroitzapen malkoak.

Baratxe sartzen iataz
zabaldiko bakean
joalearen negarrak
biotzaren samiñean.

Lore zimelak dira
joandako urrunean,
asperen isuriak
maitasuna galtzean[a].

* Olerti 1984, 126.
** Olerti 1984, 126 (*B*); *Esk*. XXII, 84 (*A*).
[a] Galtzean *A* agortzean.

## MUNDU ONTAKO TXARKERI ARTEAN*

Mundu ontako txarteri artean
uste dot, esan diñot bene-benetan
gizonaren egi bakarra dala
beren biotzezko dirdirapean
begipetzen dan edertasuna
Iankozko izantzaren magala
aldiz aldiz azaltzen iakuna.

Ta, bai, nik, egin dodan bakarra
orri zar batzuk opaltzea izan da
ta, iztegian itzak billatu
bedar-landa biurtzeko nire larra,
ta osasun gordin minkorrak kendu.
Ori izan da bai nire lana,
egi-aldezko txinpart, sugarra.

O, bai, guk egiten bagenkigu
egiten, urunaren alatza,
ta, ugaritzen ogiaren zitu,
galburu emankor aberatsa
gaur, kale-zear dakusgunean
ainbat ta ainbat erremindu
lanik ezaren estuasunean.

* Olerti 1984, 131.

## URRIL BIDEZ...*

Urril oiartzunezko egoaize epel ta, noizik beingo
ipar-aizearen ezetasun ozkirri, ibilli zabalez,
udazkentzen ari gara orri orbandu, orri zimelez,
gogotsu dabilgun naiaren eguntzea noiz izango.

Irakin dirakin euzko odolaren ezkutu ixillez,
zenbatzu eskuren agur beroa edatzen da aizean
ta, zenbatzu itz adikoi begietako argitasunean,
egarri biziko elebide iorantsu, alkartsuenez!

Bitartean aizeak... (euria erortzen dan bitartean)
ots dagi aizeak, egungiro minberatsu eta aztunez
ots dagi aizeak, ots, zurrumbillo gogor, nabarmenetan
edota samurkiro eguzkiaren ikutupe kutunez.

Erri gogaketaz, amets ikusberatsu, aidekorretan,
gure begiak sortaldez-sortaldez, ipar naiz egoz ere
izan miñezko maitasunaren gogozko agur beroetan
itxaro illeziñaren pozbide zabala dagerskute.

Oi, zenbatzu argibide, zenbatzu gogo, muin goralgarri
nabaitutzen dan gure Erriaren magalpe agurgarrian!
Zenbatzu edertasun, zenbat ezkutu, abots laztangarri
goratutzen diran mendi ta ibarrez egarri bizian!

Aizearekin bat egiñik egatutzen gara, alabearrez,
gorputz artuz gure ibar, zelai, mendietako garopetan,
EUSKAL ERRIARI darion bizi-naiaren abots goitarrez
oiukatzen garalarik azkatasunezko diadarretan.

---

* Olerti 1984, 132.

## URTE JOANKORRAK*

Argizai txikizko errezkada antzera
geroko egunak burua jasotzen dabe
gure aurrean sugar-biziz, legun ta eme
dirdiratuz argizai biztuen errekera.

Joandako egunak gugaz gelditzen dira,
itzalitako argizai errezkada ituna;
urrenenkoak ketan, oraindik, buruzbera,
urturik ta makurtuta, otz, otz beren guna.

Zertako begiratu? Nun da lengo dizdira?
Oroitzapen orreik damoskue miñ etsia
ta, ni, ba-noa, aurreko aldean argizaia
biztuta dagon errezkada orri begira...

Ez dot ez ikusi nai zelan geitzera doan
itzalien argizai-errezkada errea
zelan doazen etenbako betiko joanean
noizbeinka ona izanarren begiratzea.

## 1984**

Gure bizitzako atsegin, arantzapez,
ainbat goraberazko igaropenean
egunik egun luzatuz, etorkizuna...
Urtea, ba'doa, ba'doa beren bidez,
barriturik beren itxaropen lurruna
azken ta asierazko izantzapenean
ixuriz izangozko eskari kutuna
larogeita laugarren zorion-ametsez...

Ai!, urte onek zer ete dakar zorroan:
zillar, urregorri ala beren aztuna
ekintzatu gaitezan euskel alorrean?
Ez bedi oñazez, ez atsegin utsalez
edota bizi-apaingai merkez etorri,
baizik zintzotasunezko neurri batean
onartzeko bizia. Ta, ortako, Jauna,
bekar osasuna bizitzaren oñarri!

---

* Olerti 1984, 199.
** Zer (1984, 71.zenb.) 14.

## URI BI*

*Olazar'tar Martin'i adizkidetasunez*

1

Bilbo
munduko
ibilgo.

Alboko mendiak
burdiñako meatzez
ta, Nerbion ertzak
itsasoko abotsez.

2

Bermio
Solluberen
oinpean
itsasoz
gatzitua,
arrantzuzko
euskal sen
eztitsua.

Dario;
gizaldi
zearrezko
bizitzaren
agiri
ederrezko
pozaldi
ta, elorrio.

## UDABARRIARI BURUZ**

Goietako edurrak-ta urtuz
Negua ba-doala ikustean
beren laiño, ekatx, izotzakaz,
beste bizikera bat usnatuz...,
poztu egiten da ni naizen bat
eguzkiaren alaitasunpean
udabarria lenengo lorakaz
ederrik datorrela nabaituz.

Orrelako bizi-ikutuakaz
poztu egiten da bat benetan
izadien eskeintzapenakaz
baso, landa, zelai orlegietan
eguzki ta euri ederrakaz
zuretzat, niretzat, guztiontzat
udabarriak lorak ereitean
txori-abesti zoragarriakaz.

Baiña, errea ta zauriturik
baldin ba-dozu biotz barrua
arantza zuladuraz beterik
ta, eragozpenez nekatua...,
negu otza ba-litz lez, mindurik
aurkituko zara, ondatua,
udabarritar zantzu ederrez
zuretzat Loreillik ez ba-litz lez.

---

* Zer (1984, 74. zenb.) 2.

** Zer (1984, 74.zenb.) 14; *Esk.* XXII, 32.

## BAKEA*

Odol usain itzalez
aizea garratz dator
ego ta iparraldez
beren ibilli minkor
deungakeri zitalez.

Egungo gizartean
ez al da maitasunik,
ez al da ontasunik
mundu, lagun artean
iñolako zentzunik?

Ez al da ba gizonik,
alkar-anaitasunik,
ez al da bizi pozik
bizitzadun aztarnik
ondamena besterik?

Mundu gudatu baltzez
geituz gure nekea,
itun dator aizea
zinkurin negar otsez
nun eteka bakea.

Bakea nun zagoz
ezpazaitut ikusten?
Deika dabiltz nabarmen
dei ta dei, an ta emen,
eskuratzeko gogoz.

Oi, bai, zu, ene anai
otoi! Eskari ori
ta, askorena dan nai
ori, lorara bedi
maitetasunez, alai.

## URDURITASUNA**

Euskerea goraldurik
ekiñean gabiltza,
gure Erri-izkuntza
indarbarritu nairik.

Eskuan idazkortza
maitasunez beterik
ta, sugarretan biotza
gogoz oñarriturik.

Biziro sendo, argi,
sakon-ederrik jaso
ta, zintzotasun betez
lagundu euskereari.

Gogoan lur, arbaso,
ta zaindu goitasunez
berbeta maitagarri
ori, zaindu zentzunez.

Lengoa aztu barik
egokitu bai, gaurkoz,
geroko doaiturik
sustraia dun eraingoz.

Jantzi betidun asmoz,
biotzez ongarriturik,
ben-benetako gogoz
sendo bizitzaturik.

* Zer (1984, 77.zenb.) 3; Zer (1984, 76.zenb.) 13.
** Zer (1984, 77.zenb.) 3; *Esk.* XXII, 116-117.

Zutik, indartsu, loran,
goratua bedi buruz,
doaitasun betean
betiko adaburuz.

Bedi ludi aurrean
bizi tresna, langailu,
erritar espirituz
eredu ta ispillu.

Izan bedi argizko
itxaropen iturri:
aomen zoragarrizko
berbeta betegarri.

## ELANTXOBE*

Elantxobe
arkaitzpean
gerizpe;
Ogoñoren
bizkarrean
sustraitua,
itsasoaren
mirabe.

Oinpean
portua
ta, burukotzat
illerria,
ta, an onela
irarria:
«OTOITZ BAT ETA GERO ARTE».

## GURE MUNDUA**

Ba-doa, badoa,
igesia doa!

Suziri-ontzi barrun
mamorro antzeko
soñekoz jantzita
gizona ortzibidez

* Zer (1984, 77.zenb.) 3; *Esk.* XXIII, 49.
** Zer (1984, 77.zenb.) 3.

Beren ze-barriko
gogoz urdurituta
ba-doa, ba-doa
mundutik at, urrun.
Mundu barrien billa
igesi doa...

Txikia
iruditzen iako
gure mundua
txikia...

Baña, txikia dala
uste izanarren
biziak dargi emen
edaturik itzala.

Emen datza eundaka
izateren bizia
beti bira-biraka
Egilleak ain eder
ereindako azia.

## BARRE EGITEN DAKIN...*

Barre egiten dakin
lagunik baldin ba-dok
bera datorrenean
dizdiratsu, pinpirin,
ire ingurunean
eguzkia sartu dok.

Nik ba-dot lagun bat
dakina negar egiten
mundu guztiarentzat
zirimirizko euritez
erosta baltzak joten
txistu ta danboliñez.

Nik ba-dot lagun bat
dakizana txori
azkeak margotutzen
ederrik ta bizi
goiak egaztutzen
zuretzat ta niretzat
bideak edertzen.

Nik lagun bat ba-dot
dakina dantzatzen
aurrezku nai foxtrot
egalak alaitzen
emen dok ta an dok
maitez maiteratzen.

Barre egiten dakin
lagunik baldin ba-dok
bera datorrenean
dizdiratsu, pinpirin,
ire ingurunean
eguzkia sartu dok.

* Zer (1984, 77.zenb.) 16; *Esk.* XXII, 80.

## UNAMUNO GOGORATUZ*

Ospakuntza aintzagarriz zure irudia
zure izeneko enparantzan jarri dabe
erdal izkuntzaren eredu eta zutabe
zure Bilbo'k eskeñitako gomutakia.

Zure idazle lana munduratu da zabal,
aundien artean aundi, ezilkor izenaz
goimallaratua olerki, ipuin, nobelaz
edatuz zure jakituria, egalik egal.

Entzutetsu egin ziñen zure pentsakizun,
eztabaidazko bitxikeri ta binper-elez
giartsu ta, sakon, argira emon zituzun
berein erakusbidezko mami ta azalez.

Zure olerkietan agiri dira biotzezko
izatearen barrunbeko gogai lirikoenak;
ta zure aztu eziñeko Bilbo goraltzeko
egindako neurtitz argigarri, laztanenak.

Ez dogu ukatu nai ta, ez dogu ukatzen
erdera-bidez lorturiko zure jakintza,
ez dogu gitxitatzen baizik onez txalotzen,
zure aurrelaritzazko lanbide, ekintza.

Eztabaidakari izan zara bai, benetan,
ta, erdal soñekoz jantzi izan ba-zara be,
euskal ikutu ben-bena daroazu zañetan
lurperatu nairiko berbetearen itzalpe.

Bilbotar ospetsu zaitugu, gizon urtena,
gure erri onen erdal-zaletu artean
ta, erabat zaitugu kaxkarin ankerrena
euskerea makilkatu dabenen alorrean.

Eziñak biurrituta, txatxukeri ergelez
ezetsi zendun Ama Lurraren Izkuntza
ta, erbestekoz alikatu ziñan, tamalez,
euskereari opalduz eriotzazko galkuntza.

---

* Zer (1984, 80.zenb.) 4. Unamuno-ren 120 garren urtebetetzean idatzia.

Alan be, Unamuno, ez zaitugu laidotzen
lotsagarri gerta litzaikigun arinkeriz
zuk destañatsu euskerea iraindu-arren
agurtzen zaitugu erritarkide agiriz.

Zeure Bilbo'n zagoz, jaiotz etxe onduan
Kijote antzera, onen eta aren aurka
ibil izandako ori, beti aldarrika
zeure urdurikerizko gogo esparruan.

Ezin gara aztu arako zure berbakaz
samur, laztan: «Agur arbola bedeinkatube»!
ta, beste itz batzuekaz: «Euskaldunak euskaraz,
arren, eztakijenak ikasi biar dabe».

Zelan aldatu ziran ba zure asmo onak
euskerearenganako zure zaletasunak?
Aizeak eroan ebazan zure maitasunak
aizeak asierako sugar, ameskizunak!

Bai, zenbat eder atsegiñago, pozgarriago
izango zan bai ikustea zure irudia
euskal biotzetan barrurago, maitatiago
oñarritu ba-zendu euskera gurgarria!

## ZUBIKARAI-TAR AGUSTIN*

Idazle ta gizon, Zubikarai-tar Augustin
ainbeste idaz-lan jakingarriren sortzaille,
ekintzatua beti, burutsu ta beargin,
kresal usaindun euskeraren biziratzaille.

Zure lanak Bizkai'ko itsaso bazterraren
senezko amaika aize-joeraz ondutako
emaitzak dira, benetako maitasunaren
egintzapenak, Euskalerriaren onerako.

Bizkaiera ederra landu, osa daroazu
egunik egun, egokiro, ezarriz biotza
antzerkiz, elebarriz, olerkiz, dana giartsu.

Bizitz arabera, ipar eta mendebalez,
lau aizetara eda izan da zure itza
betikoz oñarritua ondarrutar kresalez.

## ARPEZULO BAT IKERTU ONDOREN**

Gaua zirudin bai, geltasunean,
an, arpe zuloko bakartadean
ixiltasun aundi baten illuna
sakonkiro nagositu zanean
ondoriotuz beren lurrun lizuna
gaua zirudin egon-egonean
aizean etorri izan zan arte
bizitzazko zabaldura betean.

Nundik etorri zan ori ez jakin
baiña bai, oskatu zala bat-batean
lenengoko jotaldi eresiakin
ta, beren lenengo aurkezkundean
bizi dardaraz astinduz mundua
txistu-otsezko dei, zaratapean
abiatu zan bitarterik bitarte
lenengo aldiz, zorabiatua...

---

* Zer (1984, 107.zenb.) 7; *Esk.* XXI, 28. (1984-V-28).
** *Esk.* XXIII, 17-18 (c.1984).

Ortik sortu zan bai gure argia
ta munduaren argiazko bizia.
Orroaka asi zan gero aizea
oraindik lo egozan itxasoetan
sortuz olatuzko igidurea
kresaldun bizi-zantzu pozgarria
arkaitzak astinduz apar bitsetan
zetorrena izpiduraz betea.

Eremu aundien ganetik gero
aizea biguntzen, samurragotzen
asi zan lur ingurua laztantzen
azia erein, zabalduz geldiro
ibarrik ibar, mendiartez ederrik
asi zan, mundua izateratzen,
bizitzaren erroa sakondurik
lerroz-lerro indartsu, bizikiro.

Eguzkiak gozoro laztandurik
belarki, abereki ta, besteak...
edonun, barra-barra jaio ziran
baiña, izakuntza arek ezeukan
benetako gatzik esta piperrik
gizona etorri zan arte. Ateak
iriki ta burua argiturik
gizona gizondu zan arte, bertan.

## MAITEZKO IKASLE*

Itxaso zabalez
ibili, ibili,
euskotar txapelez
argi eta garbi.

Olaztaz olazta
itxasbide arrez
ibili, laztanka,
kresaldun osertzez.

Ibiliz ikasi,
bizia, ikaste
bat danez, beti,
azken amairarte.

Iparrez ta egoz,
itxaso ta erriz,
ibili bai, gogoz,
ibilte ongarriz.

On-ederra jaso
euzki ta illargiz,
mun emonik gozo
maitezko opariz.

Ez itxi naiari
naikeri biurtutzen,
ugin makurrari
buru ganeratzen.

* *Esk.* XXIII, 19-20 (c.1984).

Zeuk norabidetu
zeu zaran ontziaren
endaitza, bein baten
zeuk azter, zuzendu.

Itxaso barean
gau argi, ederrez
edo, ekaitzpean,
itzal illunean.

Izan zeure jabe
olatu artean;
zuzentasunean
maitezko ikasle.

## UR TANTATXUA*

Gau intzezko goizean
begi oarkarientzat
zer ete bitxiagorik
eguzki erraiñupean
ur tantatxu apal bat
dirdaitzea lakorik!

Orri busti, ezean,
eguzkiak laztandua...
Ez ete da arengan
Goikoaren ikutua
bizitzazko ikutua
bizitzazko pozean
zadorrez beterik
txori-txintada artean?

(Mutiko baten esku
barrupean dagola
iruditutzen iaku,
maitezko esparruan
ederrik ta, dirdaitsu,
bizi-poza dariola).

Gau intzez sorturiko
bizidun ur bizia,
goizaren sorburuan;
(poemadun iturria)
urdiñez iantziriko
ametsaren barruan.

Au egun argitzea!
Begien pozgarritzat
etorkizun-atea!
Ur tanta, tantatxu bat
gora-bidez betea!

Eguzkiaren sorreran
izarturik ostoa,
(jausi bai, ezin jausi)
gizonaren malkoa
zintzilika dirudi
dagola begipean!

---

* *Esk.* XXIII, 26. (c.1984).

## MENDIARENA*

Dantzatzen ari da mendia
beren ortzipe urdiñean;
dantzatzen aizea, euria
ta, zugaitza be, ekiñean...

Or, arratsaldea kantari
euzkidun adarburu artez;
mosu berozko amets-aizez
mendia zein eder, goigarri!

Mendietako gaueratzea
odei gorrizko arratsaldez;
bizidunen lotaratzea
bakoitza bere joan-bidez...

Izarrezko dantzaketea
artzaiaren txabol ondoan
ta, illargi eder betea
bere aundigura osoan!

Bai jakingarri eder dala
gau-egunen ezagutzea;
berein izateren itzala
ta argia eskuratzea!

Dantza dagigun bada, dantza,
bata-bestezko alorrean
maitasunezko soka-dantza
berarizko poztasunean.

## ORRILLA**

Ikusiz euzkia itxasperatzen,
illuntzeak, gorrizka ta urretsu,
egun eder baten gardena zeukan
amets guztien egoak dirdaitsu
zirala itxasoz urruneratzen.

Itzala ixil-mixilka, jabetzen
ari zan gabaren izarbidean
illargiaren doaiak eskuratzen,
lau osertzetako lillurapean
sorgin maitagarriak abestiratzen.

Orrilla, lora-usaindurapean
Jainkoaz kantari... Orriak bigun
aize kirriaz jolasten zirean,
ats-kidetasunezko doñupean
alkarri lotuta dantzatuz kutun.

* *Esk.* XXIII, 27. (c.1984)
** *Esk.* XXIV, 77. (c.1984)

Eder-bizi, zugaitz adaburuetan
eres-mintzo leguna goratu zan
berein margozko ezetasunetan
aise-aise, begiak izarretan
tinkatuz gogoz, goiko zelaietan...

Bizitzadun goraldi, aurkezpena,
itxaropen ta, izantzazko pozez
ederrik, maitebidez datorrena
udabarritar arnasa baikorrez
elburutzeko bere eginpena!

## TXO*

Itxasoak zear, munduz..., «txo» itzak
olatuz olatu bide aundiak
egin ditu urratuz kresal bitsak
ikusiz munduko portu guztiak.

Amalau bat urteko mutil koskor
ontzietako berengo mallaetako
txiki izatetik etorri yako
deitura ori ain ezti ta kresalkor.

Egun batez, ai, txo! maoizko jantziz
itxasoratu ziñan ogitara,
amagazko kutunkeriak erantziz,
erabat pozik ta bildur-ikara.

«Txo», batak emendik ta, «txo» besteak
andik. Zenbat neke-min zekarzkizun
gizon izateko bide gurutzean,
zenbat txiki-izateazko mentasun!

«Txo» deiturapean, apalik beti,
kapitanetik as ta azkenengo
edozein mutur-zikiñerañoko
zorri-bizturen bat zala oiukari.

«Txo» geienak gizon egingo ziran
edota, ez ziran gizon egingo.
Baña, «txo» euskal deitura, munduan
ez da errez galdu ta desegingo.

---

* Zer (1985, 86.zenb.) 3.; *Esk.* XXIII, 53. (c.1984).

## 1984 URTEBURUAN*

Orbelak lez Udazkendu
ta, gero lurreratzeko
nekez doakigu urtea,
ta barria dago gertu
kezkatasunez betea
aren lekua artzeko.

Baña, zer egingo dogu
olaxen bai da bizia
azalduz uda ta negu
beren zador, miseria.

Joanak joan, datorren
urteaz asiko da bai
itxaropen barri baten
amets-etorbide alai
edo arantzaz josia.

Jaunari eskatzen dautsat
eroan gaizala zuzen
Bere Eskutik goikiro
zaindu daigun zintzokiro
euskera maitagarriaren
etorpena erriarentzat.

Beraz, gogoz, urtez urte
ekin eta jarrai, Augustin,
gure indar apurrakin
aurrera, al dogun arte.

## 1984. URTEBURUAN**

*Augustin Zubikarai*
*Jaunari*

Orbelak lez udazkendu
ta, gero lurreratzeko
bai, ba-doakigu urtea
kezkatasunez betea,
ta bestea dago gertu
aren lekua artzeko
urratu nairik bidea.

Baña, zer egingo dogu
olaxen bai da bizia
beren uda eta negu
azalduz beren nekea
ta beren urreteria
bere zorion ikutu
ta, baita bakartadea.

Joanak joan, datorren
urteaz asiko da bai
beste elburubide bat
arantzaz jantzia edo
ameskizun eztiz, alai,
bizirik an diraunentzat
bizi barriaren agergai.

Bizitzaren eusgarritzat
bere eskutik goikiro
eroan gaizala zuzen
Jaunari eskatzen dautzat
zaindu dagiguzan sendo
euskera maitagarriaren
sustraiak-eta, bein-betiko.

---

* *Esk.* XXIII, 43 (1984).
** *Esk.* XXII, 121 (1984). Idazkera biak emoten ditut, ezbardintasun asko daukelako.

## IZARRA*

Dizdiramen bizian
masta aundienetik
zeru-errainuz[a]
itzalpeturik[b]
jatxi zan izar bat
eta lemariak
an dauka bai, an[c],
endaitzaren aurrean.

Oial aizez puzturiko
nire munduaren biran
itsasoa itzal bat da
gerakea eta baltza,
ontziaren saietsetan
dabillena intzirika[d].

Baña, norabidea
izarra bezin
argia da...

Auzoko portuan egunak[e]
goizeratuko gaitunean[f]
ezta dizdirarik izango
gurpillaren aurrean,
zergaitik ba, orduan
gure izarra
masta aundienatik
ixil-ixilkiro[g]
betiraunezko
ortzi ereskidetsuetara
joango dalako
igesi[h].

---

* *Esk.* XXIII, 55 (*B*); *Esk.* XX, 89 (*A*). (c.1984)
[a] Zeru-errainuz *A* argiz ederrik [b] Itzalpeturik (*ez da A'nagiri*) [c] Bai, an *A* oinpean [d] Dabillena intzirika *A* intziritsu danbadaka [e] Auzoko portuan egunak *A* Egunaz auzoko portuan [f] Gaitunean *A* garanean [g] Ixil-ixilkiro *A* ixil-ixilla [h] Igesi (*ez da A'n agiri*)

## ESKERGARRIA*

Eskergarria da bai,
norbera dan bat
begiak argiz,
osasunaz
goizeratzea;
ainbat ainbat
gogortada
neke ikusiz
aldamenean,
bizirik aurkitzea
egunaz…

Arrigarria da bai,
eskuak, begiak, oiñak, ikuitzea;
bizi-sena osorik izatea
burua argirik,
bizi-gogoz beterik
itzartzea;
urietan, kaleetan, baserrietan,
bidebera,
buru zut ibiliz
itxaropena be nabaritzea,
zaratatsu ta biurri,
ezinbiziz, urduri,
etsaikerietan barrendua
burrukari
dakusgunean gure mundua
erretxin.

Pozgarria da bai,
atzak igitzea
ta, egintzamenezko ikutuz
biotzari eranstea
urkoarekiko maitasunaz
bizitz arnasea,
onik, bizi izaten lagunduz
gizarte erreari.

---

* *Esk.* XXIII, 62 (c.1984).

## BEARBADA BIAR...*

Idatzi egizu poema bat
eta apurtu gero
egoki ez datorrelako,
idatzi barriro be
bein eta barriz orrelaxe,
idatzi idatzi idatzi,
geiago apurtu geiago,
idatzi ezin dozun arte.

Baiña barriz gerora
gogoak emoten ba'dautzu
eta idazten ba'dozu
ikusiz zure olerkia
olerkia ez dala...
Ez zaitez ba estutu
eta, idatzi bai barriro,
idatzi idatzi idatzi
eta olerkiak oraindik
be asko ezpadu balio
zure gogoa ori izanik
jarraitu jarraitu jarraitu
udagoitu baiño leenago
ule-zuritzen ba'zara be
jarraitu jarraitu jarraitu
zeure ameskizun orregaz
bururik makurtu barik.

Baiña or egunen batean
konturatzen ba'zara
zeure alegin eziñean,
ez kezkatu ez orregaitik
eta ulertu iñoiz be zu
ez ziñala izan olerkari
eta ori edozeiñeri
gertatu leikiola gertatu...
Bear ba'da biar lortuko dozu
nok jakin, idatzi egizu
azkenengo aldiz bear ba'da,
nork jakin. Bizia olan da.

* *Esk.* XXII, 44 (c.1984). Ikus urrengo olerkia; idazkera bi ezbardiñak dira.

## BEARBADA BIAR...*

Idatzi egizu poema bat
ta, apurtu egin bear bada
apurtu zeinkezu gero,
aren eratura ta muiña
gogaige ta utsala izanik,
egoki ez datorrelako
apurtu egizu bai bereala.

Idatzi gero, barriro be
bein eta barriz idatzi,
idatzi, idatzi olaxe
ta apurtu egin bear bada
apurtu, apurtu geiago
idatzi ezin dozun arte.

Baiña barriro geroago
gogoak emoten ba-dautzu
nasai ta zabal idazteko
eta, ai!, idazten ba-dozu
konturaturik gero, zure
olerkia ez dala olerki...
ez ba, ez geiegi estutu
eta, idatzi barriro
idatzi, idatzi, idatzi
eta, olerkiak oraindik
egokitasunik ezpadu...

Zure gogoa ori izanik
jarraitu, jarraitu, jarraitu,
ta aurrera beti kementsu
udagoitu baiño leenago
kaxka zuritzen ba-zara be,
jarraitu, jarraitu, jarraitu
zeure nai orregaz oldartsu
biotza adorez beterik.

Baiña, or, egunen batean
itunik, oartzen ba-zara
alegintza orren eziñaz...
ez kezkatu ba orregaitik
eta, ulertu iñoiz be zu
ez ziñala izan olerkari,
ala bai? ta edozeiñeri
gertatu leikiokela ori.

Bear ba-da lortuko dozu,
nork jakin!, idatzi egizu
idatzi eta, bearbada
gure bizia olan da-ta
azkenengo aldiz, nork jakin!
lortu zeinke. Egin alegin!

* *Esk.* XXIII, 212-213 (c.1984).

## BIDEBERAKO AUTSA JASOAZ*

Ibilli nabil ta ortan
daurkit bai atsegiña
gogozko amesetetan
biotzez ondu
ta egiña
neure bideberazko
zeregiña.

Sakonduz doa nire lorratza
pozgarri izanik oldoztea
zerbait neurea
tinkatzen ari dala
ixil ta bala-bala
nabillen bidean
gaindurik
egitan
neurezko eziña.

Bideberako autsa jasoaz
elburura
elduko naizen
ustea
daroat neugaz
uneroko
izerdi-neke
ta biotzaren
taupadaz.

---

* *Esk.* XXIII, 211 (c.1984).

## EGUZKIA ARGI BIZI...*

Eguzkia argi bizi landa zelaietan,
ta udaberri egoetan lorautsak bidazti.
Landu. Erein alea soroan, erein azi,
gero biitegi osoak uztatzeko ogitan.

Aizeak eiotzen du larriñeko garia
ta, baldin ona erein izan baduzu goizik,
arratsalderako iasoko duzu saria,
iriñik legun ta gozoena eskuraturik.

Itz ongarria ematen ba'duzu laztanik,
itxaroz dagonari opalduz larrosa bat
guztien artean oberena aukeraturik.

Ikus daikezu gero gizaki ankerrena,
urrutiena, nola onestuko dan zuretzat,
itzulirik beren argi-izpi samurrena.

* *Esk.* XXI, 13 (c.1984).

## BETETASUN BETEA*

Auxe da betetasun betea,
bat bakar-bakarrik sentitzea!
Ikusle antzera ikusi mundua:
zugaitzezko edoi itzaltsua,
ume geldiak,
gizonezko moskorduraren elea
izka-mizka edaritegi batean.
Bai[a], bean, oso bean dago zerua
ta, gizonak ia bere eskuekaz[b]
ikututzen dauz gogozko[c] iturriak
eurite zemaikor edota gozatsuekaz
ureztatuak[d].

Baiña, nun aterpetuko gara?
Nun sartu gure buru nastua
ezin bada izan menperatua[e]
tximizta batek sortutako ikara[f]?

Eta, amets dagigu bai[g], ames,
bakar-bakarka ta bizibera[h]...
Ametsak[i] amandre Santa Ines,
betorz betorz, onetik onera[j].

Gabetanduriko senar batek
andra eziña dau gogoratzen[k]
ta, mutil batek bereganatzen
dau neska bat. Eztakit zenbatez
jostatu ziran aren eskuek
eztakit ez zenbat ordubetez[l]!

Ta, eskolara dabiltzan neskak
(tabakoz eta amabost urtez)
izketatzen dabez euren zerak,
euren amets, gerri[m], euren ulez
gozaturiko lilluramenak[n].

¡Bakarrik sentitzearen soindura!
Ikusle soil bat izatea.
Oso bean dago bai zerua
begietara euria jatxi da, ura
malkoakaz guztiz bateratua
ixuriz beren samindurea[ñ]!

---

* *Esk.* XXI, 14-15 (*C*); Esk. XXI, 18 (*B*); *Esk.* XXI, 19 (*A*) (c.1984). Emen ikusten da zelan S.Muniategik bere olerkiak landu eta osatzen dabezan.

[a] Bai *B'n ez da agiri* [b] Ija bere eskuekaz *B* berak [c] Gogozko *B* ia [d] Gozatsuekaz/zureztatuak *B* gozoak [e] Izan menperatua *B* menperatu aren [f] Tximizta batek sortutako ikara *B* ametsezko goi iturburua, *A* gau baltzaren berezko ikara [g] Eta, amets dagigu bai *A* Bizitzan ames dagigun [h] Ta, bizibera *A* geuk geuretara [i] Ametsak *B* Ai!, gure [j] Betorz, betorz onetik onera *B* ametsak betorz onez onera, *A* betorz onik gogobiotzetara [k] Andra eziña dau gogoratzen *B* gogoratzen andra ezindua [l] *Azken lau lerro* (ta-mutil-ordu betez): Mutil egin gazte eder batek/beretzen dau neska maitatua.../Eztakit zenbat ordurako, ez! *B*; *azken iru lerro* (Eztakit—ordu betez): Ai, nik eztakit, ez,/zenbat ordurako ta, ain errez!/jabetu ziran aren eskuek! *A* [m] Euren amets, gerri *B* esaten dabez bai [n] Gozaturiko lilluramenak *B* sandwis bataz gozatuz ezpanak [ñ] *Azken 11 lerro A'n ez dira agiri; azken 6 lerro ez dira B'n agiri.*

## ELORRIA LORATAN*

Elorria loratan[a]
ta, artzaia mendi ganean.
Udabarria dala
ezagun da eguratsean.

Larrean ta mendian,
txoriak itzartu diranean
euzki erraiñupean,
gorakunde ikusgarrian.

Txorrotxio ta txipirripi...
Egunari dabestze
ta, euren kutun-maite,
txori laztan begikoari.

Aizea gozo, legun,
zugaitzen orriak samurtuz
datorkigu, bioztun,
maitetasunaren ikutuz.

Maitasuna maitasun,
nabaitzen da nun-nai, ingurun,
begiak samur, kutun,
zenbat amesgai, ustekizun!

Txio ta txio, txorrotxio...
Egun barrien pozez
biziari poza datorkio
kolko bete ametsez.

Aizea aise dabil
orri eta loraburuetan,
arintasunez bipil
gaztetasunezko bideetan.

---

* *Esk. XXI, 20 (D)*; *Esk.* XXIV, 144 (*C*); *Esk.* XXI, 21 (*B*); *Esk.* XXII, 51 (*A*).
[a] Loratan *BA* lorean.

## OSASUNAZ*

Eskergarria da bai, benetan,
norbera dan bat osasunaz
begiak argi, eguneratzea,
ta, bake santuan, gogo onaz,
bizi-poza begietaratzea
itxarozko pentsamentuetan.

Alaigarria da bai, pozgarri,
eskuak, oiñak ikututzea;
eskergarria burua argi
bizitzeko gogoz itzartzea;
uriko kale naiz baserrietan
buru zut, gizonkiro ibili
ta zerbait gogoko izatea.

Zaratatsu ta, erabat biurri,
zurrunbillozko olatupean
ezinbiziz ergel ta urduri
or, etsaikerietan barrendua,
iraultzale gogoz, burrukari
dakusgunean gure mundua
erretxin, minduraz betea.

Benetan eder, atsegingarria
gorputza arinkiro zirkinduz
atzamarrak bere igitzea,
ta, egintzamenezko ikutuz
biotza ta eskuak goratzea
bizi-poza nun-naira edatuz.

## ERDIPURDITASUNEZKO ITZAK**

Kilinki-kalanka.
Erdi ez merdi.
Alaxe-ulaxe.
Kili-kolo.
Dinbili-danbala.
Inku-manku.

Zenbat itz bakun
dantzuguz erriaren aoan
erdipurditasun
tarte uts ori betetzeko
iztegiaren solairupean
zenbat gaitasun
gogai ederrak azaltzeko.

* Karmel 1989-3, 109; *Esk.* XXI, 58 (c.1984).
** *Esk.* XXI, 62 (c.1984).

Ez ari ez irazki.
Ez auts ez errauts.
Ez bere ez besteren.
Ez galdu ez saldu.
Ez gatz ez berakatz.
Ez buru ez isats.
Ez gazi ez gaza.
Ez jan ez lan.
Ez ur ez ardo.
Ez latz ez gatx.
Ez sats ez bats.
Ez gozo ez garratz.
Ez ju ez mu.

Ez uda ez negu.
Ez arto ez lasto.
Ez otz ez bero.
Ez zuri ez gorri.
Zenbat alan-alango,
olako ta alako,
zenbat aiko maiko!
Ez beso ez zango.
Zenbat erdipurdiko itz,
urengañeko bits!
Zenbat itz bakun,
zenbat esakun
daurkikeguz erriaren aoan;
zenbat erdipurditasunezko
erabide jakitun
izan-ez izanezko
makaldura ori betetzeko;
zenbat gaitasun
iztegiaren solairupean
ezbaitasun ori azaltzeko!

«Kilinki-kalanka»
«Erdi ez merdi»
«Dinbili-danbala»
«Alaxe-ulaxe»
«Inku-manku»
«Ez ari ez irazki»
«Ez auts ez errauts»
«Ez bere ez besteren»
«Ez galdu ez saldu»
«Ez gatz ez berakatz»
«Ez buru ez isats»
«Ez gazi ez gaza»
«Ez jan ez lan»
«Ez ur ez ardo»
«Ez sats ez bats»
«Ez gozo ez garratz»
«Ez ju ez mu»
«Ez uda ez negu»
«Ez arto ez lasto».

## MARI BURDUNTZI*

Mari burduntzi, burduntzi,
zomorro arin, polita;
orlegiz dotore jantzita
zabiltza goiz ta illuntzi.

Zanko luzez, ikusgarri,
ur ondoz, iauzi-iauzika
zabiltz bai, lilluragarri,
arro xamar, zut, «nor-nika».

Arinki zabiltz, gainkari,
eguzkidun dirdirakaz
egun argitan, dantzari,
uda garaiko loreakaz.

Zure orlegi zuriaren
ederrak lilluratuta
umeak, zu, eskuratzearren
or dabiltza zoratuta.

Osteka, ixil-ixilka,
arrapatzeko eskuakin,
ernai dabiltz, zure billa,
beren nai ta eziñakin.

Arrapatu gura zaitue
urbilki zu ikusteko
ta, poliki laztantzeko
Mari-burduntzi gurie.

---

* *Esk*. XXI, 95 (c.1984).

## INGUMA BEGIRAGARRIA*

Zearkatuz zelai ta larrak,
ta, lorez lore, bakanduak,
badira beltzak ta txuriak,
badira gorrizkak, nabarrak,
mitxeleta ikusgarriak
politasunak edertuak.

Emen dakust, lorean lore,
mitxirrika eder, txuria,
txiribiri txiribirika
aizebera dakust, dotore,
edur-margoz jira-biraka
Iaungoikoaren mandataria.

Nundik etorri ete da ba
mitxeleta panpox, inguma...
Nun ta nola sortu ete da
egaztari margodun ori
or eguzkiak laztanduta
dakusguna dirdirakari?

Txiki-aundizko berein margoz
ain begiragarriak diran
zomorro pirtzil ta ariñok
ai! nun sortuta ete datoz
ta, zerk dakarz, zer denganiñok
lurra eguzkitu danean?

Baiña, ikusiarren ain usu,
bitxitasun ain politean
lore-txori orrek ba-ditu
landare ondatzalle diran
zomorro kume galgarriak
ainbat lekutan ezarriak.

Nekazaritza alorretan
gizenduriko txiribiri
edota pinpilinpauxaren
umedia dira, ain zuzen,
gure lugin, nekazariari
kalte dagiona baratzetan.

Lipo edo lupu biurtuta
narrazkari izan ta gero,
ain polit eder, zoragarri,
egun batez, soin aldatuta,
gertua egan egiteko
benetan da bai arrigarri!

Ta, egan dakuskezu, egan,
egan ta egan, Udaberriz
naiz Uda ta Udazkenetan
ederrik, kukuluz kukulu
lorerik lore dakuskezu
beren margo begiragarriz.

Beltza edo txuri-txuria,
mandatari deritzana
edo orra, alderantziz,
gaba baño beltzago dana
illundura beltz dirdikariz
izutzera edo etorria.

* *Esk.* XXI, 97-99 (c.1984).

Gorri ta txuri, beltz ta nabar
zein polit ta eder dabiltzan
landaz landa, goiz ta iñular
janaritzazko ibilietan
lorez lore edertuz alkar
biziberako miraritzan!

Mitxeleta, inguma... Ainbat
ta, ainbat izen polit ditun
txiribiria... Ikus aintzat
artzeko dan, gure ingurun
dabiltzan askoren antzera
ezagutuz beren izaera!

## MIRENTXU*

Mirentxu.

Bai al dakizu zer dan itxasoa
ta norañokoa aren ikutu
gogor edota, atsegin gozoa,
bai al dakizu, Mirentxu maitea,
norañokoa dan aren erasoa
arkaitzak jotzen ditunean itsu,
erakutsirik beren asarrea,
edota aren maitasun gogoa
zelaitzen danean bare-baretsu?

Mirentxu,
Bai, jakin ezazu, aundi-txikizko
arrain mueta askoren bizi-leku
ederra ta, osin zoragarrizko
berein koral ta, belarki bitxiren
urtegi aberatsa. Gatz bizizko
bizitzadun bizi-iturburu
ondasuntegi aundiena ain zuzen.

Mirentxu,
Itxas uretan, arrain-isatsezko
arrain-andra, lamiak bizi dira,
gerritik gora, begi ederrezko
izakiak, beti zerura begira...!
Eta, baita bai daude, itxasoko
zalditxo politak, jira ta bira
ibilli oi diranak azkar asko.

---

* *Esk.* XXI, 101-103 (c.1984).

Mirentxu,
baita dakuskezuz bele aundiak,
ugatzadun abere ikusgarriak,
zirriztaz, arradaka, sudurretik
ura isuritzen duten aberiak
eta, askotaz geiago oraindik,
ikus daikezuz gau illargitsuetan
barre ta abes dagien barekorkoil
politak, maitearekin amesetan.

Ta, berein margotako arraintxoak
poz-pozik, eguzkia ikustean
eguneratzen, goiz eder batean
agurtuz itxas-zelai, ur-ondoak,
aren argi izpi, dirdirapean,
dantzari dakuskeguz ta urduri,
eguntze orren gozotasunean
arin-aringa, moltzotuak, igeri,
billatuz alikagai gogokoak.

Mirentxu,
itxasoan ikusgai asko dagoz
ta, beraz, abiatu zaitez bertara,
atunak ta izurdak ikustera
orretarako gerturik ba-zagoz
zoaz, bai, itxas-belar orlegiak
ta, kaioak ere gatzezko egoz
or dabiltza begira uretara
ta, zabal-zabalik euren begiak
txilioka, arrainketarako asmoz.

Mirentxu,
aldiko ugin, aize arabera,
zoaz itxasora, abegi onez
zeure gogoa, biotza zabaltzera,
ur gain sakon, ur aundi, ur azalez
zoaz aren kresala dastatzera,
aldiko ikustapen, eguratsez,
ontziak bezala, olatubera,
dantzari, gau-egunen atabalez.

## NUN DAGO JAUNGOIKOA?*

Amatxo maitia
esaidazu, arren,
esan bai, egia:
Leku dan-danetan,
orotan ote dago
gure Jaungoiko
Jaunaren Argia?

Ene alabatxo,
dan danean dago
Aren Izatearen
lekukotasuna;
guztiz nabaria
da Aren itzala,
Aren goi-argia,
Aren arnas, aala.
—Ikusten ete nau?
—Bai, ikusten zaitu.
—Ta, aurkitzen da lorean?
—Aurkitzen da usainean.
—Baita ere eguzkian?
—Bai. Da Aren aurpegia.
—Ta, aurkitzen da aizean?
—Aren ats, arnasea da.

—Ezin daiket nik ulertu.
—Ori sinismenak, neska,
ulertaraziko dizu.
—Izan, zer da sinismena?
—Da, izpidura gardena;
izar argi dirdiratsu,
zeruetako ederrena.

Illunbea argitzera
ederrik, egun batean
etorriko zaizunean
zure anima barrura...

Bai, nire itzakin baño
argiago, errezago
elduko zaizu biotzera
Aren Itza, laztanago.

Orrelaxe, dan-danean
dago gure Jaungoikoa
ta, betetzen da guztia
Bere Eginkizunean.

Aundia da bai, benetan,
Aren Itzal gurgarria;
argia baño argiago.
Une onetantxe bertan,
Jaungoikoaz itaunduten
ari zaran abots ortan...

Esango neuke edertzen
dagola, usainduratzen
Jaungoiko beraren guna
zure biotz urdurian.

---

* *Esk.* XXI, 113-114 (c.1984).

## UDABERRIKO ARRATSALDEA[a]*

Landaz landa, jolasteko egarriz,
mutil batzuk abiatu ziranean
eguzkiaren laguntzapen pozgarriz,
Udaberriko arratsaldea[a] zan
ipar aizearen ikutu otzkirriz
lañorik bako zerupe argian.

Eze, gordin[b] zegon inguru dana,
berein margoko lore ikusgarriz[c]
ta, txori txintadaz. Alaitasuna
goitua zegon, abesti gelgarriz,
zugaitz ostoen orlegi barrena
ta, errekaz zetorren ur kantariz.

Gaztetasunezko doai, ezpalez,
mutillak batetik bestera, pozik[d],
bildots antzo, jostari ari dira
bai, edozein aberakumetxo lez,
zulipurdika, bizitzaraturik[e]
une orren, azkatasun arira.

A zan bai, egurats-giro beratza[f],
aizeak legunkiro[g] zekarrena!
A zan, egutze eder, aberatsa[h],
landaz landa, Mikel ta Ander'ena,
a zan, aize bigunezko egoitza[i],
egun gozatsu baten[j] gozamena!

---

* *Esk.* XXI, 115 (*B*); *Esk.* XXII, 22 (*A*) (c.1984).
[a] Arratsaldea *A* arratsalde bat [b] Eze, gordin *A* loreildua [c] Ikusgarriz *A* eskeintzariz [d] Batetik bestera, pozik *A* jauzi-jauzika, ederrik [e] Bizitzaraturik *A* ametsez beterik [f] Bai, egurats-giro beratza *A* egurats eder, argi poza [g] Legunkiro *A* ainbat bidez [h] Eguntze eder, aberatsa *A* bai, mutillen bizitz jolasa [i] A zan, aize bigunezko egoitza *A* osasunbidezko ibilte jasa [j] Egun gozatsu baten A a zan bai egunaren

## MERTXEREN ATERALDIA*

Zaldigurdiaren
aurretik
lasterka,
triki-tran, triki-tran
zaldi gorri bat
zijoan,
zaldi gorri bat
arrapaladan
zaldigurdiak
ez arrapatzeko
aurretik
zijoan
lasterka,
triki-tran, triki-tran.

Txiki bezin etxe atsegingarri
dan, Igeldorako bazter batean,
Txokolatene deritxon baserri
apal eta erdi-kaletarrean.
Mertxe, zazpiren bat urte zituan
neskatil potolatxo, pinpiriña,
amona etxeko andrearen eskutik
an, baserriko atari ondoan
jetxi ziranean zaldigurditik
eguerdi bateko amabiak ziran.

Laztan-muxuka, agurtu ondoren
txeratsu, alai barruratu zuten
ta, an zeuden senide, etxeko danak
an, sukaldeko gozotasunean
aundi ta txiki, amona-aitonak
ingurumari, mai aldamenean,
bazkal garaia zanez, itxaroten.

Ta, etorkeran zer ikusi dozu
Mertxe, zer ikusi dozun esaiguzu!
Kaleak zear, Alderdi Zaarretik
kai ondoz, Alderdi Eder barrena
Antiguara bidean, Donostiatik...
Alderdi ori izanik ain eder!
Ondartzara ta ugartera begira
itxasoaren kresala, lurrun artuz
igarotzean, jira eta bira,
zer ikusi dozu Mertxe polita, zer,
uririk politena begipetuz
bein eta berriro, ainbeste bider?

Zaldia, korrika, ariñeketan,
zaldia korri ta korri ari zan
zaldigurdiak ez arrapatzeko
korri ta korri, triki-tran, triki-tran,
zaldia aurretik, arrapaladan,
korri ta korri, laster batean,
triki-tran, triki-tran, arin zijoan
kontxa barrena, lasterka, abiadan,
ez arrapatzeko zaldigurdiak.

---

* *Esk.* XXI, 116-117 (c.1984).

## ABESTIA*

Landan sortu zan bai abestia
ta, landatik igo zan zerura;
zerutik jetxi zan itsasora
ta, gurari biurtu zan gero.

Olatuen igidura-neurriz
zibukatzen zitun oldozkunak
eta biotza zegon itxaroten
bere bare-aldiaren abotsak.

Zure buruko ille kizkurrak
igortzi zituen abestiak
ta, an gelditu zan marraztua
ixiltasun aundiko itzakin.

## ZU BAÑO NI ANDIAGO**

Ni, ni, ni...

Neska-mutillak dira
alkarren ondotxoan
ta, alkarri begira
errenkadan, buru zut,
ni, zu..., zein andiagoka
negurtzen ari dira.

Nik negurtuko zaitut.
Ni, zu, ni... (eztabaika)
zu, zu, ni... Zein andiago?
Orain esango dizut.

Zu Miren, zu Bixente,
jarri buru zut, tente.
Ni, ni... Danak batera
oiuka ari dira:
Andiago, andiago zein?
Danak izan nai dute.

Ni, ni, ni...

Zu baño ni andiago,
zu baño ni andiago,
zu baño ni andiago,
zu baiño ni andiago.

Abots batez gurari au
goitu da berein bidez,
andigurazko abots au
bakoitzarekiko naiez.

* *Esk.* XVIII, 3 (c.1984). Esku-idatzi onetako olerkiok 1984-1985n urte ingurukoak dira.
** *Esk.* XVIII, 4 (1984-1985). Euskerazaintzak Elbire Zipitria-1985n sariketan maiatzaren 25'n saritua.

## EGUZKI EZKONGAIZ*

Gaur arratsaldean
eguzki ezkongaiz
urreztatuta
aizekirri soiñekoak
jantziko ditut alai
ta, bidera irtengo naiz
zu ikertzera.

Iziotuz basa loreak
ta, bidondoko ziiak,
egingo det eskeñitako
ametsen kontaketa
zuzen, artez bat.

Zurrut egingo det zurrut
lur orlegibeltzaren
ezetasun laztankorra
eta, edozein
inguma ezkongarriren
ego meietan
idatziko det
gurarizko abesti bat.

Enara bakoitzagaitik
erabilliko det biotz bat
ta, pilpira bat
ur dardartiaren
zurrumur bakoitzagaitik.

Ez da zerutar ezurdunen
anots bat ere izango
zure izena eramango
ez duanik: Oi, Udaberri!

## UDABERRI GOIZEAN**

Udaberri goizean
txori txilibitariz
zugaitza abeslari;
eguntze nabartuan
dei ta dei egunari
adarpe dizdikariz.

Benetan bitxi dakust
gau intzak utzitako
izar dizdira zuriz,
ederrez betea, zut,
euzkiz zillarturiko
ostotza ameskariz.

Goizean itzalezko
orriak ta adarra;
gero, berde-zurizko
ta, bertan, intz negarrak
tantaz. Eguerdirako
eguzkiaren sugarrak.

Gaba urreratzean
zugaitzak galdu zitun
beren margo biziak
umezurtz gelditzean
osto sortu berriak
itzal artean, itun.

Txoriak ba-doaz iges
gau beltzak izututa
an, norabaitez!
Ai, zenbat aldaketa
orduzko goiberatzez
ta, zenbat bakarketa!

---

* *Esk.* XVIII, 5 (c.1984).
** *Esk.* XVIII, 6 (c.1984).

## UMEAK BEZELA DIRA BAI*

Zerupe argi gorrizkatan
goiza eguzkiz zabaldu zan
egun intzatu eder artan
ta, goizari agurka, bertan,
txoriak txorrotxiotu ziran
an, basoko zugatz-artetan.

Udaberri lilluratsuaren
goramin baikor ikusgarriz
bizia ernaltsu zetorren
lorezko eskeintza pozgarriz
etorki bideak edatzen
amets-iturri zoragarriz.

Belar bigunean aginka,
ardiak dakusguz bazkatzen
ta, bildotsak zilipurdika,
goiz ederrari poz ematen
ari dira iauzi-iauzika
laztan, belazean jolasten.

Umeak bezela dira bai
arintasunez indar neurtzen
udaberri antzera, alai,
itxaropenezko ats berriz
bizia gogoz kolkoratzen
aundi izateko egarriz.

## ARDOA*

Ontzi banatan
emaidak ardoa,
emaidak maite
ire itzetan
lizarra bezin
mardul ta eze,
goietan gora
iasoko nauan
edan gozoko
ire itzaren
mama goxua.

Gure eskuetan
edontzi banaz
eta betiko
itxaropenaz.

Biok batera
agurtuz gero
gurea dan gaba
edan dezagun.

Aokera gozo
maitagarrizko
edari ezti
onesgarria.

* *Esk.* XVIII, 7 (c.1984).
** Karmel 1984-3/4, 122; *Esk.* XVIII, 8.

## BELARRAK*

Aintzin-aintziñako
gizaldiren baten
arrigarria baldin bada ere,
ez al dezu sinizten ene Maite?
Belarrak-eta izketan zekiten
eta, ardiak belazera
beekada otsean
joaten ziranean jatera
belarrak esaten zien
legun-legunkiro
ikaraz, bildurrez:
«Aurrean goxoago»
«Aurrean goxoago».

Baña, ardiak, otzanak
ta, apalak diranarren
belarrarekiko
begiramen onez
ta goseak eraginda,
onela erantzun zuten
eskerrak emanez:

«Bertan goxo»
«Bertan goxo».

## MARI BURDUNTZI ORTZI ARGI BATEN EGURATSPEAN**

Zaldiño, zaldiño polit orlegi,
ibaietako ur ta urmaeletan
egazkintxo antzo, egun beroetan
egabidetzen dan mari-burduntzi.

Leiarrezko egoekin eder, bitxi,
urondoetan goitzen zara bai, pozez,
lo egiñik gero, ain ikusgarri,
adartxo batean udako aizez.

Polita zara bai, lirain polita,
zaldiño baten itxurazko buruz;
ametsezko izaki lillirita
zabiltzana ezetasun inguruz.

Orregaitik neskak eta mutillak
alorrik alor ibiltzen dira bai
zure billa, ume-zotz pirtzillak,
goiz eder bat igarotzeko alai.

Eguzkia dizdiratzen da urez
ta, alorretako dardarapean
neska-mutiltzen da berein abotsez
ortzi argi baten eguratspean.

* *Esk*. XVIII, 9 (c.1984).
** Karmel 1988-4, 109; *Esk*. XVIII, 10 (c.1984). (Ik. 803.orr.).

## AINTZIÑA BATEN*

Aintziña baten gaztetasun aoz
odol beroaren jabe izan nintzan
ta, ibai izateko gogo beroz
benetan laztantsu ta ikarati
nire odol bizia, betikari,
ederrik jariotu zan antxe bertan
itsasoraño irizteko asmoz.
Bizitzaren berarizko ekintzan
nekaldua ta ostopotua izan arren
nire odola, arriak, arantzak zearkatuz,
ametsik amets bazterrak azter, arakatuz,
aurrera zijoan itsasorakoz
ekin eta ekin alik ariñen.
Egunen buruz bidea egin zuan
ta, olaxe, *ibilli* ta *ibilli*,
apur-apurka, noizbait iritzi zan
ta, olatuz olatu ur aundietan barrenduz
ta, kresal igitsuan gorpuztuta,
zeruraño igo zan ta, barriro
jetxi egin zan bai, euri biurtuta
iturburu edankor eder bat lurrean sortuz
ain garden-bizi ta arrigarriro.
Nire odola orain amets ber-bera da bai,
nire izatearen izakuntza, amets zergai;
nire abesti, nire betikozko biotz-emai,
nire euskal senezko iturburu ta gogai.

* Karmel 1988-4, 110; *Esk.* XVIII, 11 (c.1984).

## EREIN AZIA*

Erein azia nekazari lagun
erein bai erein, lur mami landuan,
eguzki ta euriz egurastuan
uztatze on bat eskura daikezun.

Erein azia erein
bai arto, bai gari
zuk nai dezun edozein
ale ogitugarri..
iñor gose ez dedin
erein ogia, erein...

Ogia izan, maitasuna izan dedin.
Erein itxaropena, ondasuna,
miseria uxatzeko beñepein
erein aziak lekarken poztasuna.

Bizitzaren onerako,
erein, erein nekazari,
—arto gorri, gari zuri—
miseria uxatzeko
zeure neke izerdiaz,
erein Jaungoikoak lagun,
ogia uzta daikezun.

## ODEIA**

Bai enetxo
ODEI da nire izena,
goietan sortu ta goietan
arinkiro edo aztun
ibilli oi naizena:
odei zuri, gorri, illun
nabar, oztin ta urdiña;
berein margoko
egaztontzi pinpiriña!
Lañoa naiz aidean

* Karmel 1988-2, 109; *Esk.* XVIII, 12 (c.1984).
** *Esk.* XVIII, 13 (c.1984).

berein aizeren artean
elur maluta gordiña,
zintzilikazko aizexka,
ura ixuritzen duen
ardi zuri
ain garastaillu aundia
udea otzantzen duana
ta, pinport apatz, bigunak
sortarazi oi dituna
ta, ostotxo
argal ta arin-ariñak
bertan gero
urez-gain ibil daitezan
iñurriak.

## EGUN OZKARBIAN*

Egun ozkarbian
goazen ikustera
zer gertatutzen dan
bizidun artean;
goazen entzutera
mamorro izkuntzan
basoan, zelaian
zertan ari diran.

Txoriak kantari
esna dabiltz, alai,
agurka goizari
an, zelairik zelai;
agurka goi sapai
urdin jantziari
ta, ederrik, dirdai
datorren euzkiari.

Goazen ara, Unai
baitere zu, Iker;
goazen guztiok, bai,
ikusiz zein eder
dabillen txoria
alor gañez, lasai,
gozartuz bizia
bein ta amar bider!

* *Esk*. XVIII, 14 (c.1984).

## ONDAEZIÑEZKO GOGAMENEZ*

Urrezkoa naiz zidarrezkoa
kaiola apain ta ederrena,
alez beteena, aberatsena
izan arren urregorrizkoa...

Zer ardura, galdu badu galdu
burujabetza, azkatasuna,
galdu badu bere maitasuna,
ta gizon izatea galdu badu.

Zer ajola, ez anka ez buru
bearrezko dan aize ta ortzirik,
ez iñolako irtenbiderik
argitasunik ere ezpadu.

Eman bidea oldozkunari
gogoa zuzperturik, naimenez;
ez amor eman etsipenari
illuntasunezko eromenez.

Utzi bada negar egiteari
ta utzi aizeratzen, egatzen,
burujabedun jaio zanari
utzi gogoa, biotza jasotzen.

Eten bai gaitzaren lokarriak
aleginduz gogozko kemenez,
egokiturik aalmenberriak
ondaeziñezko gogamenez.

---

* *Esk.* XVIII, 16 (c.1984).

## c. 1975-1985

## ITXASORATZEKO GOGOZ*

Arrantzu ogibidera
autserre margo goibelez
laiñoa dator gainbera
bere estalki zitalez
amets asko ondatzera.

Itxasoratzeko gogoz
kaiaren kolko barruan
ontziak lotuta dagoz,
danak alkarren onduan
baretasun ezti gozoz.

Andandegiz ardandegi
edo, baztertxo batean
mariñel soillak, musean
ari dira bereziki
laiñoak diraun artean.

Ontzi-buruak kai onduan
dabiltza, ingurumari,
urduritasun estuan
begira eguratsari
itxasorako asmuan.

Ai!, orrela ostentzeko
nun sartu ete Eguzki
Errege gure Jaun ori,
atea ez zabaltzeko
itxaro dan Egunari?

## BAKARTADEA**

Gaur goizean
(emen ni,
bakarrik)
aldamenean
iñor barik,
ez andrazko,
ez gizonezko,
ez adizkide,
ez lagunik,
nigaitik
ez zugaitik
zerbait egin
leikeanik.

Ba'dut
ordea
zerbait
obea,

urrundik
aizeak
dakarren
lurrin
lora usai gozo,
pozgarria,
arintzeko
gogoaren
goibeldurazko
nire barruko
bakartadea.

---

* *Esk.* XXII, 4 (1975-1985).
** *Esk.* XXII, 27 (1975-1985).

## MISERIAREN LORRATZAK*

Miseriaren lorratzak
nabaritzen dira nun-nai;
azpiratuen negar-otsak
erabat nabarmen, deslai.

Ekaitzezko korapillo
ari mataza samiña;
biotzik-ezaz egiñiko
inpernutar etekiña.

Odol-bide gogorrak
gizonak egin ditunak;
gosezko altxor, zigorrak,
dezabakeri lizunak.

Aberetzen ari gara,
osotoro lau-ankatzen;
bakoitza beren erara
suari aizea ematen.

Ze itundura illunak
mundu negartu aurrean
aizeak goitzen ditunak
petroliozko usaiñean.

Alaz ere badira bai
maitasunezko argiak;
atsegin ederrez, alai,
loredun une bitxiak.

Badira maitasunaren
Ama Teresezko argi
erakusbide onaren
ainbat izpi arrigarri...

Benetako iturriak,
biotzak poztu ta asetzen
dituztenek ta legortzen
malkodun begi gorriak.

Odeipeko eguzkiaren
agertze bizigarriak;
amets eder gurenaren
ikutu maitagarriak.

## GIZARTE ERREA**

Oiu garratz ta karraxiz
kaleak ere minduta
ari dira, erakutsiz
euren gogo, asarrea,
buru bako indarkeriz,
ta, danak esamesaka,
dirudite ezinbiziz
garrazturiko emaiak.

Aregaitik, onegaitik,
—baiturak eta alaruak—
eskumatik, eskerretik
okerkeriz armatuak,
bide-alde guztietatik
zarataka agerturik
bakoitzak bere asmuak.

---

* *Esk.* XXII, 27. (1975-1985).
** *Esk.* XXII, 41. (1975-1985).

Danak ete erotuak?
Sutan, irakiten dagon
sumendi bizi-bizi bat
dirudi gure munduak:
kirats likitsa darion
gizarte mindu, errea,
gaba arturik eguntzat.

Zer, zer gertatzen da emen?
Nun gure gizatasuna?
Nun gure izate guna,
gure gogo, maitasuna,
gure nortasun, zentzuna,
nun gure indar ta kemen
alkar senidetasuna?

Au ulertu ezin latza!
Au, biotz-argirik eza!
Dana sasi, dana larra,
dana gorroto, iraultza...
dana eriotza, sugarra.
Egoera nastu, baldarra,
nora-ezeko izantza!

## GEU IZANIK*

*Amate a ti mismo.*
Lanza del Vasto

Nortzen, zeintzen,
ikasi dagigun
seneratzen.
Geu izaten.

Maitasunaz
geure buruari
begiratzen;
ikasi zaintzen,
osasunaz
geure gorputza
argiratzen,
geure gogoaren
izangoa,
«zera»
billatzen.

---

* *Esk.* XXII, 42 (1975-1985).

Ikasi
geu
izanik,
izadiarenak,
iainkoarenak,
urkoarenak,
erriarenak
izaten
geu.

Onezko erraiñuz
eskua zuzenduz...
osasunaz,
maitasunaz,
argi eta garbi
biotza
besteratzen.

Bestela
zelan maite izan
norbera lez
lagun urkoa,
geuren burua
ez badogu
maitatzen,
ezagutzen?

## EUROPA'RANTZ DOAN ERRI BAT*

Erri zaar au emen ari da, estu ta larri,
Europa'ko lurretan, izateari eutsi naian
Auñamendiren bi aldetan... Ene Euskalerri!
Gal-zori, menpetasunezko bizi-erauntsian.

Erri txiki bat gara, eskuak loturik dagon
erri argi, aurrerakor, baketsu bat gara bai
beren mintzo t'ekanduz, iraun-sugarra darion
erri bat, Europa'ratua, buru zut eta alai.

Eskuak zabalik beren gaitasuna eskeñiz
erri-arteko betebear eta eskubideakin
bakoitzaren burujabetasunezko oñarriz.

Erri bat gara, beren izan-miña erakutsiz
Europa'rantz doana, gizabidezko ametsakin,
biotz osoz, azkatasun-baldintza bati eutsiz.

* *Esk.* XXII, 50. (1975-1985)

## IXILLEAN*

Bai ba-gara.
Geu-garanezko berbeta
baten munduan sartuta.
Ba-gara bai.

Gure begiak
ixiltasun ostetik
mintzatzen diran bitartean
nire ixillak
dakar zure ixilla.
Gure oñak laztandutzera
dator itsasoa.
Gure oldozkunak
dabiltz itsas ganean;
zure irripar-bidez
nire gogoa da asetutzen
eresi gozo leunez
ta, zeruak ditu izar barriak
dirdai, negar-arazten.

Kaioek dakarskue
beren goizeko abestia.
Iges dagit nik, iges,
ta ondartza dot besarkatzen.

Barriro jaio gara
geurea ez dan mundu baten.

## BIZITZAREN ALDEZLE**

Azkatasunaren aldezko gogoz
emon bideari zeure argia;
benetako alegin, bizi-ardoz,
emon zeure barruko abestia.

Abestu bediz egiak, biziak,
ederkuntzazko gogo ta soiñekoz;
abesti alai ta arnasgarriak,
gizarte ongarri baten goi-asmoz.

Jaso bai apalik zeure abotsa
maitetasunezko esku zabalez;
jaso aidetsu zeure nai beratza
itxaropen sendo baten egalez.

Ez dedilla izan aspergarria,
gogorra, minduratia, mazala,
ez dedilla izan illungarria
zure abestiaren sen, magala.

---

* *Esk.* XXII, 86. (1975-1985).
** *Esk.* XXII, 101. (1975-1985).

Baizik ernaia, aberasgarria,
argidun emoi, ur garden gozoa;
eguzki dizdira, berogarria,
bizitzaren bizitzazko santzoa.

Izan bedi Udabarria loran,
euri mamizko ezotasunean:
erleak, txoriak, ingumak egan,
zure abotsaren goitasunean.

Beartsuen, menperatuen lagun,
abots laztan, ezti, abots sendakor;
izan benetako esku, maitasun...
bizitzaren aldezle itxarokor.

## IBAI BI*

Bai, zu eta ni,
amets bereko
gara ibai bi.

Agerkera
edota, antz
bardiñeko
gogo ta
izatez;
maitasunaren
egopean
diranak aurkitzen

begira
alkarri,
izarrak zeru
zolairu
zabaletan,
dizdira ederrez
ikusgarri
igarotzen diran
bitartean.

Bai, zu eta ni,
amets bereko
gara, ibai bi.

---

* *Esk.* XXIV, 34. (1975-1985).

## BIZITZAREN POZTASUNEAN*

1

Bizitzaren poztasunean
eguzkiak dira bikoizten
bide bazter egaletako
basa loratxu soillenetan.

Mundutza bat dizdirapean
apalki —aundia txikian—
ezkutapenez beteriko
erakunde ederrenean.

2

Zenbat jakintza gure izadian
jaiotza emoteko orri bati,
edozein ardura bakoren
aundi-maundizko arinkeriz,
ostikopean, itsukiro,
zakarki zapaltzeko gero,
lurrean basatuak, narrez,
iñortxo ez garalarik oartzen
aren izate arrigarriz,
eta egitura ederrez!

## JOSTAKETA ZORAGARRI BAT**

Aintziña izan zan ori
ume kondo nintzanean,
josta-guraz egaztari
ameskor nenbillanean.

Eskutatzera jolastuz
ai!, atzo, izeba, nire
billa ibili zan, bule-
buleka, dana aztertuz.

Ate guztiak zabalduz
sukaldean be sartu zan,
bazter oro begiratuz
nun izango ote nintzan.

Ez nengoan maipean,
etxeko gelatan be, ez,
arin alde egitean
an, baratz aldeko atez.

An zebillen bai, gaixua,
kutxa aundi bat edegiz
arakatzeko barrua
eta, oge baten azpiz...

Zenbat joan-etorrizko
miaketazko ibillaldi;
nundik ote nintzazko
billaketa miresgarri!

---

* *Esk.* XXIV, 35. (1975-1985).
** *Esk.* XXIV, 49-50. (1975-1985). Urrengo olerkia antzekoa da, baiña bigarren zatian naiko ezbardiña.

Barreka ito bearrean
ezkutatua nengon ni
izebaren urbillean
zalantzan ta ikustari.

Lepo-bizkar ikustean
arenganatuz azkarki,
egin nion kilikili
gerri eta galtzarpean.

Kilikili-milikili.
Ze ikara uste barik
eman nion izebari
atzeraka zegoalarik!

Zurbil-zurbillik jarri zan
ta, ni be, eraberean,
ikaratu egin nintzan
aren larridurapean.

## JOSTAKETA*

Aintziña izan zan ori
ume-kondo nintzanean,
josta-guraz egaztari
ameskor nenbillanean.

Eskutatzera jolastuz
atzo, ai!, izeba nire
billa ibili zan, bule-
buleka, kukumarrotuz.

Ate guztiak zabalduz
sukaldean be sartu zan
bazter oro begiratuz
nundik nora ote nintzan.

Ni ez nengoan maipean,
etxeko gelatan be ez,
ixilki ateratzean
ni baratzerako atez...

An zebillen bai, gaixua,
kutxa aundi bat edegiz
arakatzeko barrua
baita oge baten azpiz...

Zenbat joan-etorrizko
miaketazko ibillaldi;
nun sar ote nintzanezko
ezintasun nekegarri!

Bai eguntze ederra:
txindorra txintalari
ta, landetan eperra
pospolinka, kantari!

Bai neska ta bai mutil,
goazen lasterka, arin,
zelairik zelai, bipil,
mitxelet politakin.

Zenbat bizitza landan,
egunaz gorakadan!
Maitezko lurrinpetan
zenbat edertu diran!

Ingumak eta, erleak...
Txoriak zugaitzetan
ta, besteak, besteak
lur-barruz, satorketan!

Goazen emendik, andik...
Bizia ernai dago
emen ta, aruntzago,
misterioz apaindurik.

Kukua or ari da
ostenduta goiztari,
arrautzak bat-banaka
jakin nairik nun jarri.

* *Esk.* XXIV, 98-99. (1975-1985).

## OLATUZ OLATU*

Ai, paperezko itxasontzi
eder polit bezin ariña,
oial zuriakaz egaztari
nire iluziñoz eskuetan
ta, itxasoaz bat egiña
olatuz olatu dantzari!

Ai ene seme, egizu lo,
lo, itxasoekaz amesetan
egizu, laztanki, gozoro,
orain zure biotz onean
ekaitz gaiztoen ezelango
ikuturik eztagonean!

Ez al dozu ikusten bide
argitsu, maitagarri ori,
illargiak egindakoa
legun-legun ta zoragarri,
maitez eskuratutakoa
ain egoki dana ta zure?

Negar oñazetatik urrundu,
alboratu zure ontzia
ta, etsipenetik baztertu
zure biotzaren egitura
ongarri, apañez jantzia.
Urrundu ainbat pozoidura.

Kukulutxu baten zeruan
bizi da nire tantatxoa
maitasunezko kukuluan
nire ur tantatxo gozoa.
Ai eguzki, ez, ez eroan
edozein odeira, beroan,
nire ur tanta maitetxoa!

Nire oñetakoak lokatzez
beterik dagoz, lotsagarri,
bideetan jasotako autsez
ta, nire biotzak billakari
diardu oraindik, ametsez,
ta, eztakit zeren egarri!

Ai nire ontziño txikia!
ainbeste amesgaiz betea
doana zabalduz ortzia,
itxasozko olatubera
edatuz bertsoaren bidea
oldozkunaren barrenera.

---

* *Esk.* XXIV, 60-61. (1975-1985).

## GOGOA SENDO, SOIÑA OSASUNTSU*

Egokitu bedi bai, bizibidea;
gogoa sendo, soiña osasuntsu,
eder-ederra baita bizitzea...
Jauna! Gizartean lagunkiago
bizi aal izatea emoidazu;
nire bizitzako egun geiago
biotz-onuraz ederreratzea.

Landara lerden baten antzeratsu,
bizi-poza darion sen ta eznez;
lizarraren arteztasun goratsu
ta, ezetasun garden ta zutunez
nai dot bizi, zeru ta lur arteko
artu-emote sakon, maitasunez,
argiz, bizia bizi, abestutzeko
egunen joanean, itxaropentsu.

Zeru ta lurraren neurkadapean
Udazkena ez dedilla agortu
ain laster, ez dedilla suntsitu
nire landarea beingo batean,
baizik itxi, emon nire oñeri
euren arintasuna ta, biotzari
itxi, bere arraunen abantean.

Eguntze bakoitzaren itzalean
argiratu bedi nire ibilia,
biotzezko egite, taupadapean
ederrik ondasuntzeko bizia,
euskaldunezko ekintzapenean.

Agortuta gogamen iturria,
ez nagizula itzi Urrillako
orria lez, orbeldura baltzean,
edo kea lez, bere ortzipeko
urruntasun, desegindurapean,
lekutik at, galdurik sortaria
sekulako ondamendi itunean.

* *Esk.* XXIV, 78-79. (1975-1985).

## AINGERU-KANPAI OTSEZ*

Arratsa zegon gorri-gorri
itxas ertzean, egunbera
neskatil bat urten zanean
izarrakin jolastutzera
aingeru-soñekoz, urduri,
odeirik odei, zeruetara.

Amak, arrenka. Ai!, alaba...
ene biotzeko laztan maite!
Ez zaitez joan ene ume,
amatxoren poza itzaliz,
ez, ez zaitez joan iñora,
bakartadean ama utziz!

Biotzez amak, otoitz arrenka
ta, negar-malkoak ixuriz
eskatutzen zion zotinka,
neskaren arpeitxoa bustiz
esaten zion bai, muxuka,
mintzaira laztan, errukarriz...

Ez zaitez joan. Zaude emen
biotz loretxo laztanena;
zaude, zaude nerekin, arren!
Udaberritar txaropen
ta, nire ametsik gurena,
ez zaitez urrundu, bein baten!

Biotzeko kutun, neskatilla,
amaren malko, negarpean,
zurbil-zurbil zegon, ixilla...
eta, joan egin zan, joan,
arrats illunabar batean
lur berri eder baten billa.

Anima-egoz joan zan bai,
amatxoren ume sotilla
aingeru-kanpai otsez, alai,
agurtua zan bitartean
joan zan bai, ume bipilla,
ama utziz tristurapean.

Baiña, joan egin zan joan,
begiak itxita betira,
urrundiko izartegira
aren animatxo gaztea
joan egin zan, arratsean,
lau urteko ume maitea!

Neskatxoak lirain zeraman
bere andrazko gorpuztxoa,
dana edurrezko zuritan
eta, larrosazko margoetan,
bere aingeru soiñekoa
maitetasunezko egoetan.

Odei ganez, izarrik izar
besteratu zan dirdaipean
gure aingeru kerubiña.
Ama! Ama! Ez egin negar
ba, zeru-zola ederrean
lekutu da zure panpiña!

* *Esk.* XXIV, 88-90. (1975-1985).

## EZKUTUKO TXINGARRA*

Atzerazko eragin bitartez
barriro, ni, itzuli bearko
banintzake bai aintziñako
igaran leku, zelaietara,
leen baten bizi izandako
bizitaldi gazteagotara,
bearbada poz, alaitasunez
bete-betea iasoko neuke
neure gogo, biotz zorroa
alako egoitza berezi,
amets-aldi urrunduetara.

Baña, ordea, gerta leike,
bere bidez aldentutako
gertakizun, oñazeren bat,
oraindiño autserrepean
an, txingartxu baten antzera
ta, biotz barru-barruko
ezkutuan, itzali gabe
antxe, bizirik aurkitzea
oroitzapen ezaugarritzat.

## BEGIAK**

Amurrai batek begi bi
ta sei eskalluk amabi.
Ene maite! Zure begi
argiok bai zoragarri

Benetako maitasunez
begiz-begizko izpietan
galdu naiz iorantasunez
begirik ederrenetan.

Ixillezko itzegite
mintzaira goigarri baten
zure begiak naukate
lilluraturik zoratzen.

Aizea or ari da bai
orri artean dantzatzen
egunaz ederrik, alai,
amets barriak sortatzen.

Eskeintzapen ugariak
maite-maiteka loratzen;
iturri zerukariak
ur gozoa ixuritzen.

* *Esk*. XXIV, 92. (1975-1985).
** *Esk*. XXIV, 107. (1975-1985).

## ESAKUNEZ ESAKUN*

1

Ur aundietan
arrain aundiak,
ta, ur loietan
eskalluak.

Arrantzuan
ibili oi danak
dakiz olakuak

2

Alda asko
arrain gitxi.
Ez badago
zelan atzi?
Edo
zergaitik
izan
ain
ipurdi
loka?

3

Orekariak
orekan,
arrantzaleak
arrantzan.
Bakoitza
bere soka dantzan.

4

Txalupan nagosi
asko dagozanean
era berean
arrantzu gitxi.

5

Amurraia amutik
arkumea larrutik,
eta gizona nundik
bere itzetik ezik?

6

Arraiak igaro
ta, sareak eda,
ai! mundu onetan
zenbat ganorabako!

7

Arrain aundiak
jaten ditu txikiak
ta gizonak be
al dabezan guztiak.

8

Nik arraiñak
zirikatu,
ik sareak edatu,
ederto lagun
ori ez alda
ba, pekatu?

* *Esk.* XXIV, 110-111. (1975-1985).

## ASTELENDAR OITURAPEAN*

Gernika, astelendar oiturapean,
betiko lez, prest zegon errietako
ikerlariak bere senean artzeko;
prest udabarri egutaro onean
bazetozalako bideak betean,
dendari ta tabernarien pozerako.

Eguerdiz gora, arratsalderatzean,
Gernika biziro pilpildu zanean
bazkal orduetako sartu-urtenean,
ardandegiak ta jatetxeak betez
erletegi durundi baten antzean,
biziak ots zegin, ango kale artez.

Gitxien usteriko azerikeriz
doistar arrano baltzak agertu ziran;
lenengo bat, taldeka gero, etorriz
etenbako eraso izugarrian,
basatikeri aundiena sortaraziz
Jorrail egun ogeitaseigarrenean.

Joan-etorrizko zeregin baltzean...
A zan, a, lerkaizko eriotz zaparrada
jausi zana an ziranen bizkarrera,
bonbazko ta balazko metrallapean!
A zan, a, egazkiñezko danborrada
burutu zana Gernikaren ganean!

Etxeak beera zetozan sugarretan
jausitako ormakaz ta zatarkeriz
edozein alderdi, kale bazterretan
bizien urtenbideak galeraziz;
ondamendizko illerri biurtu zan
ezindurazko aiene ta karraxiz.

Azkatasun osoz goitik ebiltzala
doistar egapeko berein demoniño,
eguerdi ostetik ia gaberaño...
Bai arratsalde odolgarri, luzea,
makur, urratuz Gernikaren magala
ta barra-barra ereiñez naigabea!

Illak ta biziak an uri barruan
atxillo gelditu ziran, eziñean;
etxebizitzak izandako Gernikan,
eriopetuak garrazkiro, itsuan...
An gelditu ziran su ta ke artean,
Jorrailleko astelen odoltsu artan!

Alako erreketa, sugar aurrean
aritza izan zan lekuko, aritza,
zeru bereko izar dirdirapean...
A zan, gaugune ozpin, oñaze baltza,
Bizkai osoko ikusle begipean
gainditu zanean alako sugartza!

---

* *Esk.* XXIV, 116-117. (1975-1985).

## IBILIAN*

Ba-goaz, ba-goaz...
Bidean al gagoz?
Bide zuzenean
benetako gogoz,
benetako asmoz
egiazko bidean?

Nik, nik, eta zuk, zuk...
Zelako araudiaz
autu dozu zeure eguzkia,
zeure azi ona,
ta zelako begiaz
begiratu dozu
zeure elburu ta etorkia,
zelako graziaz
zeure egun aurreragarria.
egun egokia?

Ba-goaz, ba-goaz
bai, izan-miñezko
zerbaiten egarriz;
ba-goaz, ba-goaz
gure ibiltezko
guramen urduriz,
gure ezebezaz...

---

* *Esk.* XXIV, 132. (1975-1985).

## MARI ORRATZ*

Zaldiño polit, zaldiño,
leiarrezko egoakaz
arintasunez ta, alai,
egazkin antzo zabiltzaz
euzkia sartu arteño
ain begiko ta zoragai.

Orlegi margo politez
zakusdaz urondoetako
ziitzadi eta ur ganez,
bedarki batean gero
kuluska bat egiteko
udatiar egun bigunez.

Polita zara, polita,
ta, ori danak dakie
ta, pozik, lilluratuta
neska-mutikotxuak be
urondora joaten dira
zure ederraren bille.

Orra urondoz urondo,
orra, berein ta bost ume
zalapartari ta ero,
—aizeñoa bezin aise—
ederrik ta zoro-zoro...
ai! zomorroa, nun ete!

Ta, azkenik, aurki dabe
billaketazko mirariz
bazter batean dotore
beren ego dizdikariz
egun onaren mirabe
udako eguzki argiz...

Norbaitek txalo-txaloka
aurkitze ori ospatuz
oiuka ta aupadaka
eskuak alai, goratuz
diño, ederberatuta:
auxe zomorro polita!

Eta, danak abots batez
onar, erabagi eben:
iztea zomorro oni
azkatasunez ibilten
orain arte izan dan lez
zomorro azke, goikari.

* *Esk.* XXIV, 156-157, (1975-1985). (Ik. 781.orr.).

## ITURRI GOIKARIA*

Gose-egarrizko gogoetaz eneturiko
bizi-bideetako ikuste, amets-egoz;
atzokotik gaurkorakoan oreturiko
bizi naiaren irin zuri ta ur beroz.

Mundu bat datza nire biotz-begipean,
arantza ta lorez, atsegin ta naigabez,
odol gorriz bustia ta malko itunez,
betiko ioan-etorrizko ar-emanean.

Argi-tantaz, itzala dalarik nastean,
izar-aldi zoragarri batzuen dirdaiez,
illuna nagusitzen da gure biotzean.

Itaunketa bat da gure giza ibillia,
aldizko lore ta emaitza maitagarriez,
ametsez ondutako iturri goikaria.

## ASPALDIKO PARTEZ**

Aspaldiko partez
urdin argi
goitu da eguna
aize kirri
gozo baten
eskupe zabalez.

Ta egunaren
eguerdi aldera
goiko basoan
kukuak kukuka
diardu ozen
zugaitz artean
zelatari...

Adieraziz,
etorri dala bai
udabarria
loreakaz,
txoriekaz
landa eta zelaiz
ateak zabalduz
itxaropenari
lur birbiztuz
ezekiro, alai.

---

* *Esk.* XLIV, 36. (1975-1985).
** *Esk.* XLIV, 38. (1975-1985).

## DINBILI-DANBALA*

Amonak dinbili-danbala,
irripar eztikor, laztanez,
xamur ta gozoro erantziz
eresidun biotz zabala...

Aintziñatiko abots argiz
kantu-kantari, etengabe,
dakidazan ipuin, abestiz
kulunkatuko zaitut maite.

Beteko det zure seaska
berein ta bost larrosa zuriz,
biotza zugana irauliz,
ta neure ezti aberaska.

Kima gorrizka, beilegidun
zaldi bat dizut eresiko
eder-ederrenetariko
potxoka polit, zure lagun.

Ibaiko urak ikustera
eramango zaitun pottoka
zurekin batetik bestera
ibiliko dana saltoka.

Baña, bitartean egin lo,
ene kutuntxu laztan-maite;
orain zuk eta gero nik, gero...
biok aukera izan arte!

Etorko zaizu illargia
goxo-goxo, lo zaudenean,
laztantzen zure aurpegia
maitetasunezko bakean.

Abestuko dizut legunki
nik ikasitako dan-dana,
aintziñatik datorkiguna,
doñu eztiz ain zoragarri.

Orain egizazu lo ta lo,
bestela larrosa zuriak
zimelduko dira, auskalo,
ta, mendira iges, zaldiak.

## ITXAS AURREKO EGONETAN**

Itxas aurreko egonetan
urruti miñez, amesbera,
neuretik at, ur zelaietan
ugiñez noa, bertanbera,
gogoz neurtuz itxasoa
ta, arkaitz auen iasanpena
bai, ekaitz ta bare-aldietan,
igaran mendeen barrena.

---

* *Esk*. XLIV, 40-41. (1975-1985).
** *Esk*. LIV, 76 (45). (1975-1985).

Osertzak gozatsu laztanduz
neurezko baitan, ederkari,
ikusberatasun betean...
diñot: au egun ibilgarri!
kresalezko itxas baretsuz
goizarenez nabil, oarkari,
antxetazko zaratapean
maitez begiratuz biziari.

Egon-ibilizko ioanetan,
(ortzi barrena, urrun-bidez)
naizena bere ia aztuz,
ioan noa, amets egoetan;
oldozbidez noa, zerupez,
egalik egal, neureketan,
gogoa, biotza osasunduz
Iaungoikozko zergaitietan.

Eder-min, bizia gozartuz
ibili banaiz ere ibili
gogozko ikustasunetan,
berriz itzul bear, itzuli,
be-aldera, ametsak uztuz,
sartzeko gero, soin ta buruz,
munduko bizitz lazkerietan
betiko antzera, urduri.

## NAI NUKEANA*

Galburuaren
ale mamitsuzko
iriña izan;

azkatasunean
maitez txiokatzen
dan txoriaren
abestia izan;

iturburuaren
gardenik doan
emai garbizko
ur bizia izan;

anaitasunez
ekintzaturiko
esku bioztuaren
gogoa izan.

Itxaropenezko
argia, izpia
edo gizarteko
ispillu garbia,
eredua izan.

* *Esk.* XLIV, 48. (1975-1985).

## JAUSKERAK*

Ontasunaz ederrera
mundu anaitsuago baten
lagun arte, gizartera.

Maitasunari eskerrak
ederrik loratzen dira
nire egunen iberrak.

Maitasunik ez banuke
goibeldurazko munduan
otzakilduko nintzake.

Soil-soilik ametsa naiz
udaberritar lurriña
itxaropenezko emaiz.

Egun ona zait atsegin
ekaitz gaiztoak ordea
biotzean ematen dit min.

Arako gau sakonetan
so dagit so goietara
izar argi billaketan.

Nik ez dut ez izpiderik
nire oldozkunentzako
oldozkuna naizelarik.

Danik gogorrenik ere
eusten diot biziari
ibiliarren noragabe.

Gari-buru argidoiek
dizditzen dituzte bai
nire gogozko zelaiek.

Bizitzazko neke-pozez
gizabidez, bidebera
darrait egia zer otez.

## IZATEAREN BIZI MINTZOZ**

Izatearen bizi mintzoz
—orri berri, lora berri—
udaberria abots batez
baso ta ibar, zelaietan,
eguzkiaren laztan beroz
—txirula eta txiruli—
itxaropenezko katez
bizira dator kantari.

Lenengo emai, loratzez,
—egun berri, argi berri—
agerpen goragarrietan,
lilluramen zoragarriz
ta, eskutada ametsez,
poza dario bai biziari
ikurriñaren margoetan
biozturiko edergarriz.

* *Esk.* XLIV, 49. (1975-1985).
** *Esk.* XLIV, 51. (1975-1985).

Bai margo ta usai biziz
lenengo larrosak dira;
lenengo ego iasotze
ta munkada urduriak;
lenengo buru agertze
ta biozkada pozgarriak;
etorkizunari begira
maitasunez irarriak.

Berbizte onen itxaroz
izadiarekin batean,
kanta ba, gure erriari,
kanta aberriaren gogoz,
anai-arte zabalean,
kanta bai ikurriñari
etorkizun urbillean
azkeak izateko asmoz!

## LAU URTEARO*

### 1. Udabarria

Izadia ederturik
irriparrez dator gora,
lora-bitxiz apaindurik
ameskizunen kolkora.

Soiñeko eze, orlegiz,
baso ta bazter danetan;
inguma ta txori alaiz
maitezko gorakundetan.

Itxarokizun pozgarriz
mundutza bat amesetan,
abots legun zoragarriz
izangurazko naietan.

### 2. Uda

Zibuzabutuz aizean
garitzak or ari dira
ele-mele legunean
ogia ekarriz arira.

Buru mardul edo mear,
urun usaia dakarre:
batzuk garaun eder bete
besteak utsaren negar.

Or dabillen bitartean
txingurria jo eta ke,
neguko ardurapean
etorkizun begirale.

Udako atseginpean
geroaren ardura barik,
txitxarrak kantu otsean
diardu lilluraturik.

Bitartean or, lanean,
txingurria jo eta ke,
neguko ardurapean
bere janari biltzalle.

* *Esk*. XLIV, 54-55. (1975-1985).

### 3. Udazken

Egunak beerantza datoz
orbelezko zimelduraz
ta, eguzki epel gozoz,
beera bearrezko tristuraz.

Agurrezko ikusgaiak
oritasun orripean;
oldozkide mingarriak
orbelezko ispilluan.

Orain bat gero beste bat
lurrean dakustaz narraz
aizearen jostallutzat
orrek damoskun bildurraz.

Txoriak ixil ta minge
begipetuarren alorra,
badu bai, badu alan be
bere alde alaikorra.

Goizeko laiñoz ibarra
itxaso dakusgunean
edo, zelai, mendi, larra
euzki izpiz dirdaitzean...

Sarrerako odei gorriz
txori-urruntzeren baten
egaztada ixilkariz
garanen gaueratzen.

### 4. Negua*

## AUTSA IASOAZ**

Nabil eta, ortan
daurkit atsegiña,
neure nekezean.

Sakonduz doa nire lorratza
eta, pozgarri iat oldoztea
zerbait neurea
gelditzen ari dala
bidean, egitan,
gaindurik
neurezko eziña.
Eta bideko autsa iasoaz
biotzeko taupadakaz,
elduko naizen
ustea
daroat neugaz.

* Olerki au ez da *Esk.* XLIV'an agiri. Ik. f.654.
** *Esk.* XLIV, 57. (1975-1985).

## LOREIL BIDEZ*

Eguzkirik sartzen ez dan egal, txoko, bazterretan,
itzal-giro bustitsu ta ustelkorrez naastuak,
oraindik orbel zimel, lizun, orbel eroriak dagoz
ioandako negu beltz, gogorrak, erasotakoak.

Alaz ere Izadia itzarraldi alai ta gozoz,
iraduz dator bere bizi-irabazte baikorretan;
iraduz odol berbiztuaren soiñu, biribilketaz,
biotza iasorik gora gogozko itxaropenetan.

Iraduz dator bai, ezekiro ta, maitez-pilpilka,
biotz kokildu ta epelenak ere irabaziz,
beiñ ere berdiña ez dan aldiberako aldaketa,
etorkizun goigarri baten ederra adieraziz.

Argia zabal, edatuz, egun luzeen pozbidez...
biziak, dei dagi! Gurari baten aize-egoetan
dei dagi dei, zilipurdika, odola aberastuz,
aldi ta aroari darion sugar, bereiztasunez.

Eguzkiaren muxu, izpi-besarkada samurrenez...
Ona emen etorkizun-ateak bere zabalean:
ostoak aize kirriaz dantzari, emaitza betean,
mintzo izkutu, ezezaunezko berriketa maitez.

Izaki oro, landara txiki, nimiñoenak ere
zutik diardute lanean, bidegite bultzakorrez
egunaren baitasunean, kidekoakin laztanka,
biotzak eztiki kulunkatuz ametsik ederrenez.

Indar-berritzearen udaberri itxarokor ontan
txiuntada alaikorren maitezko egada argietan,
bizi-gogoa dantzugu zantzo ta irrintziz, oldarka,
berrituzko gora-nai, billatze alkargarrietan.

Begiak gogo-ibiltariz, ikuspegiz ikuspegi,
mendi gallurrez, zelairik zelai, muño ta ibarrez...
gure lurraren ikusgarritasunean ta aldiari
zor zaion beraritasun ta agerkera ederrez...

---

* *Esk.* XLIV, 61-62. (1975-1985).

Itzal-argizko ezetasun-malladi goraminduz,
goiz-arratsetako bizi-ausnartzearen oiartzunez,
begiak gogozko atari, sorburuetan doakiguz
aize berri onen ikuitu, eragin arnaskorrez...

Landarik-landa, biotzeko mendi ta ibarretara
lore-aldi, bizi-gorakunde eder oni buruz
erle antzo, miazka ari gara bai, Iainko berean,
mirari goreskor ta aundi, bizi ontan atsartuz.

Oi, Loreil loratsu, Loreil eder, Loreil goramindu!
Ats ta kimu berriakin iantzitako amets olatu!
Tarteka kaskabar ta laiño, euriteak izanarren
eguzkiaren bizitasun epela... zein gozoa den!

Loreil-aldi berri onek sortutako udalena
ate-ioka dabil, inguruak apainkiro berrituz,
Euskalerriari bere betiko goidura ta sena
erantzi ta giartasun eze batean etorrituz.

Oi, bai, argizko aurreratze bultzakor, itxarotsuz
bekar loreak zitu ta, zituak, ale ederrezko
euskal-mintzo onuragarriaren erri-elburuzko
oñarririk tinkoena, bein loreil burutsuz!

## OLDOZKETA UTSA*

Mendeak zear, gizaldiz gizaldiko etorrian,
soiñean bizia dalarik ta eriotzea odolean...
lau aizetara edatutako giza izatearen
ta, aldendu eziñeko kutsu eriogarriaren
ugin dantzaketa, lur gaiñeko gure ibilliaren
iaiotz-eriotzazko goraldi ta loturapean,
berarizko oñaze min ta, atsegin araberaz
gazi-gezatuko argi-erraiñu, bizi katearen
gau-egunezko kurpiltasun iraungarriaren
nai-ta-nai-ezko burrukatze, ilbear gorrian
bakoitzak bere munduari eraso ta biziaz...

beretarik
sortze sortzetik,
ioanean goaz
ekintza amilperatuaren
gau-egunezko
zoriaren
uztarripean.

Ioanean goaz,
ioan-etorrizko
azkortze, eralgitzearen
bizi-arizko
bildurapean.

Aldiaren
itzal-besape,
ioanean goaz
emai-tantaka
bizia ixuriaz
bakoitzaren
gogamenezko
izerdi tanta
ta igarotzazko
muin, azalaren
zuri ta beltzez.

---

* *Esk.* XLV, 137-140, (c.1975-1985).

Utsik,
etorri bezala
billutsik,
ibaibera goaz
munduaren asieratik eriotzaz
lokarritzen,
kateatzen gaitun itxaso sakon
ase eziñarantza.
Utsik.

Egunen batean alaz ere,
erortzean izarrak
munduaren azkenean,
ez da geiago
iñor ibilliko
ildako izarbelen
arriz egindako
galtzada bidean.

Beraz, au da
itxasoaren
ugiñik ugiñera
bezalaxeko
iarraipen laburraren
une bateko
ibilli lasterra,
bideberako
elburu ororen
eriotzazko
ordain-sari,
nai-ta-nai-ezko
bein eta betiko
ioateran
buru makurtze
ezin igesa!

Iñungo Kreso ez Aita Santuk,
ez aberats okitu ta altsuk,
danik eta gizasemerik
goituena izan
—ala bearrez eta,
zori onean—
ori dugu bai, ori,
iñork diruaz
eros ezindako
eta benetako
neurri egoki,
berdintzallea!

Bai, iakin nai genduke,
iakin, nola dan,
zer liteken
an aruntzago
eriotzaren ostean
zer ote dan...

Tamalez,
ioandako
iñork ere,
albisterik
ez digute
bialtzen.

Olaxe
gogoeta illunezko
oarpenetan,
itsuan gabiltz
erabat oldozkor,
erabat murritz,
galderakizunen
arilpe biurrian.

Aruntzago!
Zer eskeintzen,
zer eskutatzen
aruntzago?

Izan aldi
luze-luzearen
asierea ala,
larrosa triskatuaren
antzerako
ondamendi
bildurgarria?

Zer ditxarogu zer
aruntzago,
dezakegun etorriaren
kutsu, etenik bako
iarraibidea,
ala, autserrearen
ixil geldizko
gau izugarria?

Eriotz ateak
ugiñik ugiñerako
ibilli ostean
betikoz diraute,
zabal zabalik
eta, bakoitzak
bakoitzarenez,
—bein bakar batez—
igaro genezake
betikozko
bizi itxaropen
edo, sinisgabearen
ondamendizko
azken-bide,
itzal utsalez.

# 1980-1985

## BERMIO*

Beren bizi-izaerazko gogo ta ekanduz,
Bermio'ren igaroa edesti luze bat da,
gizaldi zear, ainbat zoriren bide-barruz
negar ta barrezko gazi-gazaz, betiraunka.

Bermio! Zenbat ekaitz-aldi ur zaparrada
jausi dira zure lepo ta bizkar ganera!
Zenbat aize atsegin gozo ta ameskada
itxas barez begiratuz osertz zabalera!

Zenbat illargi bete eta zeruko izar
zerutu izan dira zure itxas uretan
ta, zenbat gau illun ta baltz, —ez ego, ez ipar—
norabide bako odeipe ain aztunetan!

Gizatasunez jantziak, langille jatorrak
mundu zabalez, bermeotar seme asko dira,
euskal seme zintzo erabat atseginkorrak,
gorespena dakarrenak erriaren bizira.

Atzoko ta gaurkoz, itxaso ta leorrekoz,
esku ta buru lanez, beren doaitasunez
ekintzaturik bakoitza beren alorrekoz
illezkor diranak benetako sentasunez.

Ertzilla, Akurio, Eskoikiz, Nardiz'en erri
ta, Ibarluze antzeko gizon kementsuena:
Barrueta margolari ta Nestor andiarena
ta, beste askoren itxasertz gomutagarri!

Aintza bai, iñoiz «Caput Bizkaie», Bizkai Buru
izandako erri bioztun, erri gotor oni;
gaur-egun nagosienetako arrantzu-portu
izatera eldu dan erri eredugarri.

---

* *Esk.* XXI, 65-67. (1980-1985).

Gorespen, itxasoak urratu ebezenai
ontzi txikiakaz bale andiak arrapatuz
ta, gaur makallu, atun ta abar dabiltzanai
itxasoz itxaso, ainbat bazter arakatuz.

Txo —diño batek— Auxe da lanaren Bermio,
Sollube'ren oinpean sendo sustraitu dana,
itxasoa izanik bere lagun ta arerio,
bere betiko itxaropen ta ondasuna.

Izaro eta Ogoño begipean dirala
atalaitik ederrik dakusgun ikuspegiz,
irudimena doa amesetazko ontziz
olatuz olatu, neurtuz uraren azala.

Aldibera noa, eguraldi on ta txarrez,
aintziñako ta gaurko bideetan murgildua,
amu ta sarez, ontzi andi edo txatxarrez,
itxasoaren arridurapean kokildua.

Bermio dot gogoan antziñako lau etxez
basoz inguratua zegon garai batean,
ta gaurko aurrerapidezko anditasunez
ontzi ederrakaz adoretsu ikustean...

Bermio'ren kai, eliza, etxe, bazter bakoitza
lenaren gomutaki bat dala esan geinke,
ainbat jazoera ta egintzapenen oroitza
gizaldietako bizitza barruz guri deike...

Gaur egun itxasoak mugatuak egonarren
Bermio ontzidi eder baten jabe da bai,
gogoz ekintzatzen dan erri langille baten
erakusbide eredugarriaren agerkai.

Benetako euskal sen aberats, bizimenez,
Matxitxako ertzeko itxastar erri onek
bereak ta bost ikusia dala edozeiñek
daki, itxasoaren egunekoz bizi danez...

Zenbat bider itxasoak iruntzi izan dauz
gizonak ta ontziak ta, onekaz batera,
aize gogor deungatuen arrokeri-arauz
ondamena sortuz une batetik bestera!

Nork ez daki arako goiz ozkirri batez
itxasoratu ziran ontzien zoritxarra,
galernaren barri? Nork alako egun baltzez
ondoriotutako aiene eta negarra?

Jorraillaren 20'ko eguerdi bat zan...
ta, bat-batean aize zirimol, erauntsia,
itoak eundaka sortuz Kantauri'ko uretan;
arrantzalle gaixoak! Au ete obaria?

Itxas ogibidearen egun gorri ta latzak.
Baiña, ala bear ta, biziak aurrera dagi
ta, aztu egiten dira gertakizun baltzak
bide barriak zabalduz itxaropenari.

Ta, arpegi emonaz Bermio'k bizitzeari,
—Andra Mariz ta Sandrokez naiz Eupeme Deunez—
otoitz ta abestiz, alai dakusgu dantzari
«Txo» ta, «Alabatxizko» agurkera kutunez.

Mundu zabalera edatutako Bermio'ri
euskal sentasunezko bizi-gatza dario,
kaleratutako anaitasun erakutsi
ta, benetako gizabidearen pozkario.

Erri baten atsegin ta mindurak biotzetan
bata-bestetasunezko eskeintza pozgarriz
loratzen diranak maiatzik usaitsuenetan
eskurik eskurako alkartze lagungarriz.

Bermio Bermio da, bai, bere egintzatan,
aparteko biotz, aparteko gatz ta graziz;
erri alkartua, —estura ta nekaldietan—,
benetako buru-jabetasun aintzagarriz.

Beraz nik, abes dagitzat egitazko neurez
erri onen berezitasun ikusgarriari;
abes dagitzat bai benetako gaitasunez
itxaso ta leorrez nordandu dan erriari.

Erri alai, erri atsegin, erri errikoi,
itxasoaz bizi dan erri apal, otzana;
lerden eta zutunik dakusgun erri goikoi,
bere zanetan itxasoko gatza daroana.

Olatuz olatu doa Bermio'ren zantzua
bixigu, lebatz, bokarte, atun egaluzez,
agerturik bere itxastar izpiritua
benetako zentzu ta jakituri mardulez.

Ainbat nekabideren egitazko abotsa
azaldurik beren kemen ta trebetasuna,
gizaldirik gizaldirako sinizte ta lotsa,
itxasoaganako bildur eta maitasuna.

## BAGILLA AMALAUGARRENA. LIZARRA*

Gogoangarri Bagillaren amalaugarrena
eguzki galdatan zeru urdiñez egiña...
Altza'ko Batzokiak eraturik, goizean,
Herrera'tik Naparroaratu giñanean
Gipuzkoa zear, alai, Urbasa barrena
Lizarra'rañoko bitarte ikusgarrian
ta, auznartuz euzko lur onen ezetasuna
Euzkadi'ren bizitasun musker, atsegiña...

Mendiak, ibarrak, goibeetako ikuspegi
zoragarriak, begietan ederrik barrenduz...
pagoak, lizarrak, garitzak ere orlegi
ogi-alezko burutza, zamadurapean
bizitzaz beteak ta, iainkozko ikutuz
ikus-mikusizko begiratze lasterrean
gauzak berekiko emantzaz., arin doakiguz
bertanbera, autobusaren martxan igesi...

Gero, Lizarra, begipetuz baterakoan
norbaitek pozez dio: «Orra or, eldu gara!»
Ta, alaxe da. Ega ibaiaren ondotxoan
daukagu karlatarren santutegi izana,
nortasuntzen ari dan napar uri... Lizarra!
ben-benetako zintzotasunez, etengabe,
ekintzatuz aberri alde, Euzkadi alde,
gogoz burrukatzen ari diranen izarra.

* *Esk.* XI, 86; XXII, 123. (1980-1985).

Lurrean gara ta, bertako aberkideekin
an goaz bai, Irujo nun datzan ikustera,
aren illobi gañean gogoz, biotzarekin
lora sorta bat utzi ta, otoitz egitera
itxarozko otoitz-eskari iakiñarekin!
«Gure Aita Zeruetan Zarana»... Ta, batera
gero, «Eusko Abendaren Ereserkiarekin»
naparrik aundienetako bat agurtzera.

Biotz eragiñezko ordu iakingarriak
Lizarra'ko aberdideekin bizituriko
orduak. Azkatasun gogoz beteriko
alkarraldi anaitsu ta onuragarriak,
itxaropenezko urbegi argigarriak...
Gauak etxeratu giñuzan ta, an errian
Irujo'ren, Fortunato'ren, Olazar'en
sorterrian Aberri bakar bat goraldu zan.

## LENGO BIDEETAN*

Espetxearen esi, ateak
edegitzeko, zabaltzeko,
beren giltzak, erabideak
dauzka gure irudimenak;
eskuak ta biotza, gogoa,
arinkiro erabiltzeko
oldozkunaren aizebideak
bazter ezkutu, eziñenak
menpetu ta eskuratzeko.

Lengo beste «ni» baten neurez
ikertzera noa, auzoak,
adizkide, lagun, gurasoak;
ioandakoak izanarren
barriro daurkidaz bai, emen,
Aldiak eroandako gauzak,
lengo gogamen, nortasunez
bizi izandako zokondoak.

Oraiñaren eta Leenaren
nire igaroan ibiliz
oroitzak, gomutak, orduko
egunen estuntza, irudiz
dantzatzen dira bai, barruko
nire danbolintxu zaarraren
doñu-aldi ezbardiñezko
norkiak gogora ekarriz...

* *Esk*. XXIII, 64. (1980-1985). Urrengo olerkiaren antzekoa da, baiña ezbardintasun asko ditu, eta olerki onetan aurrekoaren bertso bi ez dira agiri.

## LENGO BIDEETAN*

Espetxearen esi, ateak,
edegi eta, zabaltzeko
giltzak, bere erabideak
ditu gure irudimenak;
eskuak, biotza, gogoa
azkatasunez ibilteko;
oldozkunan aizebideak
bazter ezkutu, eziñenak,
urbildu ta eskuratzeko.

Lengo beste «ni» baten neurez
ikertzera noa, auzoak,
adizkideak, gurasoak;
ioandakoak izanarren
barriro daurkidaz bai, emen,
aldiak eroandako gauzak:
lengo arima, zeintasunez,
bizi izandako zokondoak.

Ta, berarizko alderantziz
(Oraiñaren eta Lenaren)
nire gomutak or berezko
biotzondo, estura, irudiz
dantzatzen dira bai, barruko
nire danboliñ zarkituaren
doñu-aldi ezberdiñezko
ots-bidez, arira ekarriz...

Au ikusi ta a ikusiz,
orduko euskaldun baserriz...
lurra berbera izanarren
ezta nire aurtzarokoa,
ezta iñundik be lengoa,
(au, piñu baltzen soñanzkiz
ta, «a», gaztain pago, ariztiz)
euskaldunaren izangoa...

Igaranez iantziriko lur
onen gorputz, gogo barri bat
dakust, lengoaren ordeztzat
buruzbera, gainbera, makur
ondamendizko eredutzat.

---

* *Esk.* XXII, 2. (1980-1985).

## BERBAK*

Aizea
ikututzean
berbak,
txoriak dirudie
egazean,
aizearen ortzitar
edadura zabalean.

Izarrak dirdiran
goietako zabaldi
amaigabean.

Mundu bat
azkuntza betean
eresiaren
alorrean.

Berbak
naasi-maasian,
egunoroko
ogibidearen,
bizibearraren
kosmos
aundiko
ibiliaren
poema
betikorrean.

## GORAKUNTZAZKO BIDEETAZ**

Loratan
ederrik
eta, zut,
udabarria
goiturik,
aurrean
dakust.

Bizia
goramin,
zantzoka
ernai,
lenaren
sustrai,
emaia.

Bizia
egan,
mitxeletaz
iantzia
alai,
itxaropena
edatuz
txorien
abestietan
goizeko
eguzkidun
bideetaz.

* *Esk.* XII, 17. (1980-1985).
** *Esk.* XII, 26. (1980-1985).

## LAU ARO*

Lau aro ditu urteak,
egungiro gazi-gezak;
atsegiñak ta nekezak,
lokatzak eta urreak.

Neguan otzaldi gogor
ta udaran, lurra idor;
udabarria alaikor
ta, udazkena zimelkor.

Lurtarrok emen, lurrean,
(uste ta amets artean)
maitetasun itzalpean
edota gorrotopean.

Utsa utsaren gañean
lotzen ezpada bizia,
anaizko lokarripean
sortatuz garan guztia.

Argia eta itzala
bizitzaren ardatzean;
goraberadun egala
bakoitzaren izatean.

## IPAR TA EGOZ**

Ipar ta Egoz, sortalde ta Sartaldez
bizia, beren ezker, beren eskubiz,
beren goiko ta beekoz, zuri ta baltzez,
beren Gau ta Egun, Uda edo Neguz,
beren igaranezko aldaketa barruz,
beren betiko lo-aldi ta ernaldiz,
itunik makur edo, sengai noratsuz
bizia, bi ardatzburutan banatua
dago, zeintasunezko izate, zoriz,
beren berarizko guntza ta ezkutuz
berein adarburutan zutabetua...

Jaiotz ta Eriotzazko loturapean
bizia, aurrera doa etengabe
beren lur-ikara, ugolde, sutsarrez
ta, gizonen itsuzko erasopean
kutsaduraz betea ba-dago ere
dardamendua ta, bildur, ikarati...
eguzkiaren laztandurazko sugarrez
biziak, oraindaño, aurrera dagi!

---

* *Esk.* XXII, 33. (1980-1985). (Olerki ia bardiña, ik. 1065.orr.).
** *Esk.* XXII, 38-40. (1980-1985).

Giza-izatearen azal ta barrukoz
egunak, bai ba, egunari darraio
ta..., egunen kopuruan, zenbat arantza,
zenbat odol, zenbat negar ta pozkario,
zenbat neke-min ta biotz esturantza,
zenbat atsegin apur ta lerkario,
bai, gizona beraren oker ta erruz...
munduari zenbat odol-malko dario!

Izu ta bildurgarri, bekoki illun,
ekaitz jokera burrundadatsuz, gogor,
ez da bizia, beti, goibel azaltzen
negu-soñu tximiztatsuz asarrekor,
benetan itzaltsu ta, benetan aztun,
ez dira beti, lei, edurrez zuritzen,
begietarako ain eder, atseginkor
izanarren, be, gaituenak otzakiltzen.

Ona gaur bertan, eztakit zenbat aldiz,
bizia argiratu, eguneratu da
ta, udabarritar eguntze pozgarriz,
goiza ederrik, jagi da iauzika,
Loreil bidezko zelai, txori txiokariz
alai, ta gabaren itzala or datza
erren, egunsentiak alboratuta,
aize bigunezko ametsdun ozkarbiz.

Loreildar goiz onetan, bizidun oro,
maitasunaren bideetan dakusgunez
lora-soñekoz jantzita, ain oparo,
beren itxaro-margo orlegi, ezez...
Bai ene biotz! Besteakaz bat eginda
zergaitik ez zara ba zu zelairatzen?
Ain bizi-poz goikariz, zelan ez zara
zu be, besteen pozera urreratzen?

Lurra iraduz biraka dabilkunez
(negutik udara, udatik negura)
udako egun luze, emoitz ondoren,
Udazkenak, orbelezko zabalkundez,
beren egun motz, laburren bakundura
laztan, ta aize egoz, negurantz dator
ostoak sakabanaturik nabarmen
gizonai pentsa-araziz, ardurakor.

Ez al da aberasgarri, onurakor
bide sendagarri ta argitzallea
aldi-oroz, gauzetan, biotza sakonduz,
norberaz ixil-bakarka mintzatzea
itaunka, zer ta geroz, itxaropenkor?
Ez al da ederra gogoa argituz
gure bizitza ateak zabaltzea
Egille Aundiaren gauzetan ats artuz?

## EGI BILLA*

Aurrean daukat
ezer esaten ez daustan
paper suri bat
dizdiz
ta, eskatzen daust antxe bertan
idazteko zuri garbian
zerbait...

Naastutako gogamena,
zerbait adieraz nai dabena
ez dakiana zer.

Bizia artu nai dot
papera artzen dotan lez,
ta «egiari» eutsi
idazten dotan lumeari
tinko
eusten dautsadan lez.

Noizaldia batu
buruko uleak alkar-batzen
dodazan lez.

Zer diñozu txitxar kantaria
zeure abestian?
Zertaz itzegiten dozu
euriaren aize garbia?
Zergaitik zure osteratan
ez dakarzu nire igaroa?
Zergaitik ez dozu nire porrot
zoritxarra itsasperatzen?

Ekarri zeugaz kaxa itxi bat,
sinistez betea
itxaropena agertzen dauan
animaletxu alai bat,
ta guztiz bear-bearrezko dan
babestasunpea
berak sortu zuan maitearena...

---

* *Esk.* XII, 45. (1980-1985).

## NORK*

Nork,
bai, nork esango
ete dau gero,
nork edatuko,
zabalduko
nire itz, berbak,
ixiltzen
dabena?

Nire
abotsak,
iñoiz
iñun
argitzen
ez dabena;
iñoiz
iñun
agertu
ez dana?

Nork,
bai, nork esango
dau gero
nire gogo
biotz barruko
itz danen
sentipena?
Barruko
naiaren
ezkutapen
ben-bena?

## KEA ETA KEA**

Erretzea
kaltegarri zala-ta
itxi egin neutson bai
erretzeari
noizbaiten.

Mutil bardingo
nintzalarik
asi nintzan
artabizarrak-eta
besterik ezean
erretzen.

Ordutik aurrera
bein ta barriro
erretzeari
emon neutsan.

Kea eta kea...
Ez zan gero
erreza izan
zigarro barik
bizitzea.

* *Esk.* XXII, 46. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 48. (1980-1985).

## NEGU AIRE BALTZA*

Euri eta tximistakaz
ego aize arrotuaren
indarpe nabarmenduan
orbelak narraz dakustaz
jokera zirimolduaren
itsu-aldi negutuan.

Aurreko, begira nagon
aritz-ondo urtetsuari
oraindik orriren batzu
gelditzen dakoz, dardarti,
aizeak astinduak sakon
noiz jausiko minberatsu.

Adar gorri billustuen
azal zaarkitu, utsean,
udazkenak guztiz zakar
—bai mendian ta kalean—
egun ozkildu latztuen
negu aire baltza dakar.

Intziri luze larria
giza argaldurapean
an, gerokoari josia
urbil dan egun-bildurrez,
orbel antzeko soinpean
biotzak ikara, edurrez...

## DAN BEZALAXE**

Itxasoari
abestu al banioke
dan bezalaxe,
ugin arabera
beren apar
ta kresalez;
beren agerkera
urdin-arrez;
beren igitze
sakon ta azalez;
al banioke abestu
beren urduritasun
ta bizitasun bare,
edota, alako
ekaitzaldietako
orroa asarre,
mendi antzeko
ugin-goratze
ta, izugarrizko
eragin beltzez;
poema bat atondu
egokituko nuke
azal eta mamiz,
mariñelen
gatz eta ore,
itxasgizonen
urbideetako
ibilkunde
ta ametsez;
poema bat, gai orri
dagokion aunditasun,
begirune ta itzalez,
biotz eta arimaz,
ederdura guztiz
abestutzen baneki
dan bezalaxe,
ugin araberazko
ioan-etorriz,
itxasoari...

* *Esk.* XXII, 52. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 54. (1980-1985).

## ARGIBIDEZ TA EKANDU ONEZ*

*«Moral y luces son nuestras primeras necesidades».*
Simón Bolíbar

Zoriontsua argibidez ta ekandu onez
eratu dan Erria, izan-min aintzagarriz.
Zoriontsua ben-benetan, biziera zuzenez
gaitu dana sendo, gizatasun maitagarriz.

Benetan aintzaltsu, benetan eredugarri,
argibide orri zuzen darraion Erria,
bizi-arauz ekintzatua, betiraungarri,
zarra izanik bere beti, Erri barria...

Neure Euskalerri, neure Euzkadi maitea!:
Ez galdu ez, zeurekiko zentzumen argia,
zeure iatorrizko gun, izantzadun bidea.

Edatu ederrik, maitez, mundu zabalean,
lanezko, argizko zeure bizi-iturria,
ekintza etorbidetuaren elburupean.

* *Esk.* XXII, 55. (1980-1985).

## TXORIA*

Txoria izatea batzuetan
gogoko izango zitzaidan bai,
euren antzera argizko bideetan
arinkiro eta alai
ibiltzeko egazean,
tellatuz tellatu ta, zugaitzetan,
edo mokoka emen, an,
landarik landa ta, baso mendietan,
abestu al izateko
azkatasunari
eta biziari;
abestu al izateko
azkatasunean
maitasunezko abestiz
zeru argiaren pozari.

## BAKOITZA BERE ERARA**

Bakoitza bere erara
bizi da. Batzuk urrera,
diru utsera begira,
bere aunditasunera.

Nik ezer ez diran gauzak
sartzen dodaz bai zorroan,
ametsezko ondasunak
gañezka neure kolkoan.

* *Esk.* XXII, 60. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 61; *Esk.* XIII, 56. (1980-1985).

## URTEAK LEPORATZEAN*

Urteak leporatzean
edur oztasunaz, aztun…
Ze goibeldurak biotzean,
ze tristurak, zenbat beazun
untzatuak gorputzean
neguko soiñekoz, illun!

Amets lasterkada baten
igaro dira egunak,
egan… Ta, orain, bai urrun!
Udabarri eder aren
gaztezaroko lurrunak
itzultze gabe, ain itun!

## EGUN EDER ON BATEN AURREAN**

Onelako egutaro
egun eder on bataz aurkitu naizenean
argi ta garbi, (gutxitan lez) gaur goizean
ixil-mixil, nerekiro,
begiratuz barrenkiro
aize iparño ezkirriz
emeturiko ortzira,
baikor ari naiz oldozten
ta, biotz-begiz otoizten.

Zergaitik, zergaitik ote?
Onelako ikuspegiak
eguzki-egun argiak
lenago ere argitu izan ba-dire,
zergaitik ni ez naiz oartu orain arte?

Ai!, zenbat egurats gozagarri alboan
baztertua ote naizen!

---

* *Esk.* XXII, 61. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 62. (1980-1985).

Kaxkabar, izotz, edur, euriteak oro
egin izan ditu bai aurtengo neguan
ta, udaberria naiko lorrin, kaxkarin,
erabat goibeltsua gerta izan zaigu
naiko kazkar ta erabe,
lañezarik gabeko loreiltasunean
makurtuta, lañoz ain petral... Baña, orain,
ekainaren egopean eta, illak bi,
illundura ta eragozpen guztien gain
bikain eder, argitasun osean, ezti,
eguna burutu zaigu bai, zoragarri,
amaierazko agur garaikorrenean.

Igaran egunen bidez ta, ainbat bider
gaurkoa bezin gozatsu, atsegingarri
ikus izan ditugu ain bioztun ta eder,
egunak bizitza betean ain orlegi
benetako gei argi, zerutasunean.

Baña zenbat aldiz azalki begiratu
izango nuen, erdikerazko ikustez
ezin nintzalarik izadiz Iainkoratu
gizarte itsuan ain itsu nenbillanez!

## GAUZA ARRUNTEN ABOTSA*

Suzpertuz gogoa, biotza,
nor, nor izan daitekean
gauza arrunten abotsa:
iturriena, itsasoena,
ugin azpiz kresalean
igitzen dan aizearena.

Nor daitekean bai, izan,
izpiño, brintza ororen
betiraundar ats, arnasa,
izadiaren soka-dantzan;
udabarritar ametsa
bizitzako goiberatan.

* *Esk.* 66. (1980-1985).

Landa, zelai, alorrena;
arkaitzpean sorturiko
iturbegi goituarena
zirriztaka, apalkiro
jauzi-jauzika datorren
ur kantari garbiarena.

Bizitzaz txertaturiko
emoia izan, ederrik
ta, biotzez onduriko
abotsa izan, goiturik
sendo, betikoturiko
jakinduriaren bidetik.

## IGANDEA*

Zenbat bizitza:
ortzia, kaia, itxasoa,
antxetak,
eguzkia...
egunaren bide barruan
zenbat agerkera!

Igandea da.
(Udako igandea).
Beroa,
argia.
Ozkarbi
laiñorik gabea.

Notintza.
Aruntza,
onuntza,
dator eta doa;
itxas ertzera,
ondarrera
arrain zidarra
dastatzera;
itxasoaren sena
ugiñik-ugiñ
gozartzera.

Beste asko
beroari iges,
abiatu dira,
eguzki kixkal
errea baiño
obeagoa dan,
zugaitzapetako
itzalpetan
etzatera...

Mendiko
osasunpe
osasungarrian
ats artzera.

* *Esk.* XXII, 74. (1980-1985).

## BIZITZ-LOKARRIZ*

Goibez... Egoan, lorean,
bizitz-lokarriz, ederrik,
begiak bertaratzean
Iaungoikoa arnasturik...
gauzaen izaera, mundua
goi-agerkuntza betean
datorkigu eskeindua
bakoitzaren izatean.

Aintzakotzat ere artzen
ez diran bizidun, gauzak;
goiz-arratsetan begipetzen
ditugun izaki deusak:
inguma naiz mamorro
begipean izanarren
gure gogo usterako
ain dira ba, ezerrezak:

Goizaldea, artaldea...
or dagoz baita osertzak,
baso, soro, zelai, larrak,
kresalezko itxas ertzak;
euzki, illargi, izarrak,
or dagoz bai zadorpean
bizitzaren goi-ardatzak
bakoitzaren labidean.

Benetan samurgarria
bizi-senez, norberaren
begi ta biotz, kolkoa
argi-izpiz betetzea;
altxorturik egunaren
gabaren urreteria
izakuntza berberaren
maitezko ederkuntzea!

## BIZITZ LOKARRIZ**

Bizitz lokarriz, ederrik
nun-nai... Egoan, lorean,
begik ederberatzean
poz-atsegiñez beterik,
gauzaen izaera, mundua
datorkigu barriturik
gorapenez eskeindua
udabarriaren santzoan.

Aintzakotzat ere artzen
ez diran bizidun gauzak;
goiz ta arrats, begipetzen
ditugun izaki deusak:
inguma eta mamorro
begipean izanarren
gure gogo usterako
ain txiki ta ezebezak.

Goizaldea, artsaldea,
baso, solo, zelai, larrak,
euzki, illargi, izarrak
bizi-lorratz, dardarea;
or dagoz itxas osertzak
ta ugin soiñu otsean
bitsez zurituak ertzak,
Jaungoikozko ur bazterrak.

Benetan samurgarria
bizi-senez, norberaren
begi ta biotz, kolkoa
argi-izpiz betetzea;
altxorturik egunaren
gabaren urreteria,
izakuntza berberaren
zadordun erabidea.

---

* *Esk.* XXII, 3. (1980-1985). Emen ere olerki baten idazkera bi ezbardiñak.

** *Esk.* XXII, 78. (1980-1985).

## ZORAGARRIA*

Benetan
zoragarria
aizean
urtutzen dan oro
ez entzun
ez ikustea.

Itxi begiak
ta iruditu
berein bidez
edatzen dan
eresia.

Artu
datorren bezela
ikutu gabe
eskeintzen zaigun
iñetazi zuria
edo
maramara
datorren euria.

## AGUR TA ZORION**

Aldiko berein gertakizunez,
Urteak, agur dagisku, agur,
beren etorkin ta orbelez
neguko edur otzaren bildur.

Bizitzazko ondoriotasunez
azkenera dator buru makur
oi dan Gabon Gau ta Gabonzarrez,
oparo eder edota, labur.

Beren goraldi eta beraldiz,
batzuentzat negar-oñazepean
ta, beste batzuentzat zorionean,
agur dagi izatearen ariz.

Gabonetan ta Gabonzarretan,
bai ba, egunari berea emon,
bixigua dala ezpanetan
San Txilibristo ta Txilibriston.

Beraz, ta, al izanik, Augustin,
ospatu etxekoen artean
talan-talan edo, tilin-tilin,
sutondoko gozotasunean.

Agur ta Zorion urte zarrari
ta, Agur kezka, itxaropenez,
barrien barri datorrenari
betiko nai ta eskeintzapenez!

---

* *Esk.* XXII, 83. (1980-1985).
** Esk. XXII, 85. (1980-1985).

## IGAROTZEN DAN EZEBEZARENA*

Aizeaz doa maitetasunaren neska,
beregandik igesi aizea bezin aise;
usain eder, gozo-gozoz ta azke adatsa,
biziro doa iñungo loturarik gabe.

Putz mengala, aizea baño ariñagoa,
grazi urtua, ezebeztasun bidaria;
deus biurtuko litzake bera dan guztia
danetaratzearren bere grazi beiñengoa.

Eresdun loraburu, ur-gainkari, bakarra,
lili itzal-errez, olatu gorputz kaxkarin,
ariña aztun dan neska-aurreango narra...

Igarotzen dana nire biran ta jasotzen,
nire zintzurran jaio ta ilten dan abots min
ta mirrin. Maitasun erailduaren kedar baltzen.

## IRUN**

*(Tolosa tar Koldobika adizkideari).*

Bai eder ta ikusgarri
urtero San Martzialetan
betiko alaitasunez
uria ain zoragarri!

Kalez kale danbor otsez
txistu ta, tarranpatatan...
erri bat umore onez
beren ospakizunetan.

Danak jauzika, dantzari,
au dek au! Auxe mandinga,
bai ote iñor ezinga
gogo-makal, ezezkari?

Nun oteka itxasoa
napar abestiz, aringa
garden dator Bidasoa
mendi artez, maite-minka.

Ederrik dakusgu Larrun
zerutar zutoiz jasoa
alde bietara ta urrun
begipetuz bere soa.

Gezurrezko muga baten
ondoan dago bai Irun,
erresuma andi biren
lepo-bizkar arrekunkun.

Lautadan iragitako
uri alai, euskalduna;
zintzokiro soindutako
uri gizatsu, kutuna.

* *Esk.* XXII, 87. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 99. (1980-1985).

## EGIZKO KOLOREZ*

Ugin gerakaen eragin sumin, apartsuz,
aldizka itxasoak orro dagi bai, gogor;
beste batzuetan ederrik, bare, atsedenkor
etzaten zaigu, ur-mendi garaiak zelaituz.

Itxasoaren antz-antzekoa da giza-bizia,
goiberazko negar ta barre, ainbat itomen,
ainbat itxaropen ta, amets-bide galduren
ioan-etorrizko ibilliaren gazi-gezia.

Illun eta argi, bakoitzaren bakoitzekoz
egundutako zoriaren eresi biguna
edota nekaldi gorri ta zorigaitzekoz
igaran bearreko ain gurutzbide izuna.

Beren udaberritar usai gozo apurrez
gure gain, izpi eder, alai batzuk ezarriz
edo, alderantzizko negutiar edurrez,
edur zuriaren otzikara beltzak ekarriz.

Bizia bear dugu bakoitzak bizi, beren
agintza ta zoriari dagokion etortez,
beren goigune eder ta amaika nekeren
arantzazko lazdura mingarri, ota-larrez.

Gogo, adimen, biotzez... norberazko bidea
bakoitzak berak bakarrik argitu lezake,
kemenez sendo biotza, on ta ederrez bete
indar berriturik bere sen, izakerea.

Norberetasun egokiz zauriak sendaturik
ta, bizitzari aurpei emanaz bizi-gogoz,
bizia eder genezake, maitezko asmoz,
ustelkerizko amets oro desorriturik.

Iturburu, amets berriak sortuko dira
betikotasun sen, bizi izatearen pozez;
inguma berriak urbilduko dira argira
egunak soñanzkiturik egizko kolorez.

---

* *Esk.* XXII, 100. (1980-1985). (Ik. 685.orr.).

## URAREN IKUSBIDEZ*

Ur zirriztatxoak
darakus iturria,
olantxe itz onak
gizonen argia.

Txiri, txiri...
urak ekarri,
urak eroan;
urak al daki
noruntza doan?

Ura zirriztan
bizi ertzakaz
autu-mautuetan
itz laztanakaz.

Uretik uretara
txikitik aundira
iturritik latsera
latsetik ibaira.

Ur zirrizta emen,
ur zirrizta an...
Iturburu batak
diñotso besteari:

Maite aut maite
etor ba neugaz
or bidebera
biok alkarraz
azkenerarte.

Txiri, txiri...
aurrera ta aurrera
asi geituzko ura
iritziz ondarrera
itxaso gatzitura.

Txiri, txiri...
elburu alegiñez
urez uretara,
ta danak bat egiñez
itxaso aundira.

## MENDIKO ITURRIA**

Zein gozo eta pozgarria
mendiaren oñetan iturria;
ur garden eder edangarria
asez bidaztiaren egarria!

Bideak ibilliz maitasunez
edariaren gozoa! gogoz
edaten bada ta poztasunez,
bideari iarraitzeko asmoz.

Zu eta ni, mendi-gora eta
alkarren lagun, geuretasunez,
gallurrerako elburu-bidez
amets itxarogarriz beteta.

Bizitzako izan, ioanean,
bidea diteke bai luzea,
gogorra ta arantzaz betea,
negar dariozko illunbean.

Diteke baita ona benetan
itur gozoak izanik or-emen,
zorioneko gure igonetan
alkar-ibilli maitetsu baten.

Argi-iturri bidegarriak,
biotzetan ederrik landatuak;
gogo-emai, bizigai gurgarriak,
maitasun eskuz bateratuak!

---

* *Esk.* XXII, 114. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 115. (1980-1985). (Ik. 669.orr.).

## POEMA TXIKIAK*

1

Ni aundi ta zu aundi.
Ai, zenbat alkarren
arteko erokeri!
Bizitzako malkarren
ibilbide galgarri!

2

Ez izan ta bai uste.
Ameseta utsalen
itzalpeko masuste!
Amaika gangarturen
ollar buru-agertze!

3

Zer eta egia?
Lengo esakunez
ta, ikas dogunez,
askoren lotsari
ta erregarria.
Ori da egia.

4

Bataren jaiotza
bestearen eriotza.
Joan-etorrizko
bizitza bidean,
edozein amaiera
gertatu izan oi da
une ber-bereko
barri-aldi, asiera.

5

Bizitzazko atontze
ta ibil-bideetan
jakin bai, bai, orixe,!
bearrak zelan egin,
orduak zelan bete.
Ta, arduratsua izan
zeure gabeko lana
iñoiz gerta ez dedin
egun argiko lotsa.

6

Biotz-egoei eragiñaz
ona da amets egitea
noizik bein gero, munduko
garrazkeri latzak utziaz
zerbait aruntzago joateko
kolkoa beterik larrosaz
ona da amets egitea.

---

* *Esk.* XXII, 118-119. (1980-1985).

## ONDORATZEA*

Ekaitz erauntsiaren erdian
(zerbait mingotsa iruntzitzen
dauan gizonaren antzera)
bi olatuk, alako batian
eriopetu eben ontzia
eta, asi zan ondoratzen.

Areik bai, kresal-une latzak!
Ugiñen gangartasunpean
urezko zaplada gogorrez
dezabatu ebazan ametsak,
estutasunik larrienean
ikara-dardaratuz biotzak.

Lenen ugin bat urrundu zan
gizonak amilka eroanez
aize baltzaren begipean
laster-lasterka, ur barrenez
izugarrizko ondatzean
azken agur zipriztiñez...

Gero, (ta, ezer ezbalitz lez)
amets illun baten antzera
dana igaro zan bein batez,
dana etorri zan senera
geldura laztankor, bigunez,
eguzkipe argi, barera...

Urdinkarazko arpei emez
barriro argia ortzietan
eta, itxaropena dantzan,
bizidunen biotz-begipez
munduko olatu gaiñetan,
beren betiko oiartzunez.

## IZPI BAT**

Ur sakon, ur aundietan
ura ezta solasgura;
ezta ur azal txikietan
ezin daikegu igeri
guk nai genduken modura.

Ugiñik ugin, urduri,
guru mundu zar onek
itxaso bera dirudi;
igeri ezin zutenek
ondarrean dira suntsi.

* *Esk.* XXII, 129. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 130. (1980-1985).

Itxarozko esku, buruz,
egunetako ioanean
sendo, gogoz ekintzatuz,
biziari eutsi bearko
etengabeko lanean.

Ibaia itxasoratzean
gu garan iturburuzko
emaiz, utzi genezake
ezetasun ongarrizko
ur izpiren bat, ertzean.

Biotz zaurik sendatzeko
osagarri, bidegarri
litzaken maitasunezko
edari. Ben-benetako
osakai atsegingarri!

Maitasun urrats beiñena:
ur bioztun, ezti, gozo,
ur bizi, sakon, gardena,
bere anaitasunezko
gogoa agertzen duena.

## JAKITURIA*

Bizitzako
gau-egunen zoriz,
batzuetan
ugin arabera
berekiro
ibili oi gera
argitasunezko
goigune eder bat
biziz...

Beste
batzuetan
ekaitz artean
neke gorriz
ugin gaiztoei
ezin igesiz
estu ta larri
azken ordua
balitz lez
aurkitzen gara
eriotz izerdiz.

Ikusizko
ikasiaren bidez
egindakoa da
itxas gizonen
jasanpenezko
jakituria;
ur kresalaren
eraturapean
kolkoraturiko
bizitza beraren
altxorra;

itxasoak zear
negar eta par,
kresala iruntsiz
eskuraturiko
amaika nekeren
zidarpil eta
urreteria...

---

* *Esk.* XXII, 131, (1980-1985). (Ik. 719.orr.).

## MAKURTU BEAR DANEAN*

Zelaiaren biotz erdigunean
aitonen batek landatuta? Ala,
aizeren batek noizbait ekarrita
erne ete zan udaldi batean?

Beintzat or dago mardul ta zutik,
luze-zabal aundiko alorrean
eskeñiz bere aterpe itzala
adarrak maitasunez zabaldurik.

Bakarrik dago bai an, zabaldian,
aize guztien soiñu otsera
egunik egun, urterik urtera,
ipar aize, ego, mendebalpean...

Batzutan orriak, alkar-laztanka
aizea jostari datorrenean
eresi ixillez, maite-maiteka,
usain gozozko ederdurapean.

Edota negutar erasopean
adarrak orri barik, billusturik,
alkar-joka ikusten diranean
burutik beeraño dardaraturik.

Baiña, bizitz beraren erakutsiz
eutsi dagitso bere izateari
zauriak osatuz, bai Udabarri
ta Udako egurats gozagarriz.

Badaki makurtu bear danean
burua makurtzen, amor emoten;
zauri gogorrezko mindurapean
nekaldi gogor ori igaroten.

* *Esk.* XXII, 33. (1980-1985).

## EGOAK MOZTUARREN*

Biztu egin bear da
arri gogorra;
biztu bai, gogo aula;
ekin aurrera
mallu eta atxurraz
bardinduz
utsunez beteriko
biotz alorra.

Bizi izateak
egoak moztuarren,
izan txoria,
txoria izan
txintaria
ta, aldi bakoitzeko
neke apurraz,
ikasi abestutzen
maitasunaz.

Ibaiko urak
ez dira igarotzen
toki beretik
bi bider
ta, zu be,
(aberats edo lander)
olantxe
igaroz zoaz
itzultze barik
araxe
betiko betira.

## BAKOITZA**

Bakoitza
bere
izantza
ta bizikeraren
araura
bizi da;
batzuk
urrea altxortzen,
besteak ordea
etorri-ala
diardue[a]
dana eralgitzen,
batak
eta besteak
arturik bizitza
guztiz
alderantzira.

---

* *Esk.* XXII, 48. (1980-1985).
** *Esk.* XXII, 223 (*B*); *Esk.* XXIII, 66 (*A*) (1980-1985).

[a] Diardue *ez da A'n agiri.*

## EUSKALERRI ZAURITUARI*

Euskalerri zaurituari negarra dario
etsai erasopean, ainbat eragozpenez,
aultzen dakusgularik gogo ta gorputzez
eta, aulari aulgarria etortzen zaio.

Euskerea sendatu ta Aberria azkatu
nai ba-dogu Euskalerria Euskalerritu,
ekin buruz, ernai, ez albora begiratu
gure erru aundiz ez dedin betiko galdu.

Erria, izkuntza, gogo onez, maitasunez
susper, sendatzea bakoitzari dagokio
geuretzakotu nai ba-dogu betitasunez.

Eskuetan daukagu mintzoaren garaipena,
danok baturik, bakoitzak ekiten ba-dio
indar berritu ta edertzeko aren sena.

## ITZULERARIK BAKO BIDEA**

Itzulera bako bidetik goaz aurrera
egun bakoitzeko gertakizunei lotuta,
ta, geure bidai zorroa leporatuta
egunik egun datoz bai, ametsak lurrera.

Bideko ibili zuzen eta okergunez
barruraturik goaz ordu ta unez une
aldiz lañopean, bestetan eguzkiarenez
azkenengo egun-zar ori etorri arte.

Lautada ederrak be izanarren, elburuzko
bide orrek, aldapa erripeak geiago
askoz geiago ditu bai, zelai loratsuzko
ikuskizun alai, atsegingarriak baiño...

Ikaragarrizko bakartadea sortzen da
bizitzako ibiliaren zelai, aldapatan,
utsaren ortzetan makur gelditzen ba-gara
argirik barik, galduta, oldoz illunetan.

---

* *Esk.* XXIII, 100; *Esk.* XXII, 43. (1980-1985).
** *Esk.* XXIV, 45-46. (1980-1985).

Ez esku, ez argi pozik, ez biotz-lagunik
ezpadogu guk daroagun elburu bidean,
ezpadogu itxaropenezko goi-aztarnik
gure izatearen gogo, muin barrenean...

Zelan uxa ekaitz zurrunbillozko bildurra
baldin josita ba-gagoz itsu, nekalduta,
aizeen arabera, munduari makurtuta
eztakigularik zein dan zerua, zein lurra?

Otza da bakartadezko ibilia, otza...
bidertzetan ez txori txiunta ez lorarik
ezpadaurkigu maitasun maitezko izpirik.
Ez al da ori barrun sartutako izotza?

Bakarrik gagoz geuretik at, bakar-bakarrik
ta, auts artean gelditzen gara, auts artean,
beti, bakarrik bakartadapean tristerik,
burua jaso ezinda illundurapean.

Alan be guregan dago argiaren guna
itxaropenezko izpidurapean, betiduraz,
Jaungoikoak Berak, ederrik, emon dauskuna
benetako sugar, maitetasun eraturaz.

Gu gara itzali dogunok gure argia
gure indarra eta, gure kemena galdu,
baztertu izan dogunok eta lurperatu
bizitzarako ain argigarria dan zuzia.

Ikas daigun ba, bidearen zer norakoa,
zaindu ta babestuz gure izate altxorra,
bidea argitzeko guri emondakoa,
aldizka izanarren neketsu ta gogorra.

## BAKOITZAREKIKOZ*

Barru barrutik begiratu egizu gogoz
gauza guztiak izan oi daben berekikò
izate eta senera, bakoitzarekiko
arimaen egitazko zergai ta zelangoz.

Oarmenezko begiratze argi, barrukorrez,
ta, entzumenaren laguntasun zoli, biziz,
begiratu billakuntza ardurakorrez
biotza onbidez bertanberatu ta irauliz.

Bizitzazko igidurapean dakuskezu
izadiaren aldakuntzazko bizitasuna,
lurtar mundu onen agerpen argitsu
ta gauzaen beren arteko loturamena.

Maite dagigun bizitzazko edergai oro
ikasiz zer bakoitzari darion izkuntza,
udabarri gorakoi edo udazkeneko
orri-jauste itunak dakarren aldakuntza.

Bakoitzak dagersku bere gogai, zertasuna,
(loreak lorearena, aizeak aizearena)
bakoitzaren ezkutapenezko zador, guna,
egunbera eta arratsbera datorrena.

Uginberazko ur aundiz edo, legunkiro,
olastaz olasta gabiltza «nornikaturik»
berein aizeren arabera ta, arrokiro,
bakoitzaren gose-egarriak asetu nairik.

Bakoitzak berean negar edo barre dagi
txoriak lez, goiz-arratsetako agurrean,
etsipenez edota alaitasun betean
euren biotz barrua ustutzean kantari.

Ikasi daigun gauzaetara begiratzen
zugatz zaurituen negar-zotiñak entzuten,
itxas orroen esangura illuna neurtzen
mendietako bizi oiartzunak be bereizten.

---

** *Esk.* XXIV, 102-103 (104-105). (1980-1985). (1987-1988ko *Olerti*'n argitaratzeko).

Ikasi nor danakaz bat norbera izaten,
gauza guztien zergaietara urreratzen,
izadiaren abotsakaz Jaungoikoratzen,
maitasunaz biotza osasundu, aberasten.

Biziak ots dagi bai txikian ta aundian
bakoitzaren elburubidezko almenean;
ots dagi erleak eztigintza durundian
ta, ots, txingurriak be, etenbako lanean.

Orra eguzkia, illargia ta izarrak
mundua berotu, edertuz, emoi betean!
Orra mitxeletak be beren ezebezean
lorarik lora, alaiturik zelai ta larrak!

Zenbat izaki, zenbat bizitza soka dantzan!
Batzuk arrak-jota, besteak ederrik, lerden,
biziera estu edo nasaizko ibilkuntzan
bakoitza bere izan-nai, izateari eusten!

## MARGOLARIAREN ANTZERA*

Agertuz gauzaen doaiak:
orri, zugatz, mendi, osertzak,
goiz-arratsen itzal, odeiak
ta, bits apardun itxas ertzak,
margolariak laukiratzen
bizi-arazten dabezan lez
antz aundiko izantasunez...

Nik ere zuretzat maitea,
idazten dodaz sentipenez
neure biotzeko olerkiak,
zuganako gogoz betea
idazten dodaz maitasunez
neure biotzeko eresiak.

Batzuetan aztu egiten jat
aztu, nor, zertaz nabillen
baiña, itzartzen naiz bai, noizbait
ta, bedarra asi artean,
txingurria dabil lanean
beren lur zuloa egiten.

Osertza be aldenduarren
txoriak, abes dagi, abes,
ta, biar be, garai berean
jarraituko dau bai, abesten;
ni be, orrelaxe ametsen
ontziz noakizu, egabera,
barruko landa ta zelaiez,
olerkiaren sen, magalera.

## MARGOLARI ANTZERA**

Agertuz gauzaen doaiak:
ostoak, zugatzak, osertzak...
margolariak goiz-arratsen
itzal, odei ta itxas[a] ertzak,
irudi biziz laukiratzen,
margotzen dituan bezala,
ene maitea! nik zuretzat
idazten ditut bai, sentipen
nire[b] biotzeko olerkiak,
zuganako gogo, itzala...

Batzuetan aztu egiten zait
aztu nor, zertaz ari naizen
baiña, itzartzen naiz nolabait
ta, bedarra asi artean,
txingurria ari da lanean...
osertza be aldenduarren
txoriak abes dagi, abes
ta, biar be, era berdiñean
iarraituko du bai, abesten,
ni be orrela, ene ametsen
ontziz ioaten naiz egabera
barruko landa ta zelaiez,
olerkiaren sen, magalera.

* *Esk.* XXIV, 115. (1980-1985).
** *Esk.* XXIV, 96 (150) (*B*); *Esk.* XXII, 76 (*A*).
[a] Odei ta itxas *A* ta, iñundiko [b] Nire *A* ene.

## UDAZKENEKO AIZEAREN BILDUR*

Gizona
urte astunak
leporatzean,
udazkeneko
zugaitz-orri
orbelduren
antzera
aurkitzen da
indarga,
etortzeko
dan edozein
aizeren
bildurrean
kokilduta.

## UR TANTA**

Itxasoa
zer dan?

Ur aundidun
osiñ,
arraiñen
igaritegia,
bizilekua
diñoe
dala...

Baiña,
bearbada
uste
izan leike
norbaitek
ur tanta
eta
gatz tanta
bakar
bataz
egiña
dala
itxasoa.

Bizidun
ur tanta
bizigarriz
eta,
argidun
gatz tanta
iraungarriz
egiña.

Egia ete
ori?

* *Esk*. XLIV, 71. (1980-1985).
** *Esk*. LIV, 72. (1980-1985).

## UR ZIRRIZTA*

Amets utsak bailiran
goiberaka ta, erren,
aideko lautadatan
aize egoz, nabarmen,
orbelak egazean
dakusguz boladatan,
berakada betean
udazkengo gorputzan.

Negu. Udabarria...
Izantzazko bidean
aurkezturik bizia,
ur zirrizta txikiak
darakus iturria,
baita era berean
itz on, bizigarriak,
gizonaren argia.

Udate legorrean
zirriztaren darioz
ta euzkiaren bitartez,
erreka bazterrean
altz, urki ta lizarrak
orlegitasun ezez
iantzi dira pozkarioz
txoriturik adarrak.

Bizitz orrialdeak,
ioate ta itzulerak,
bere gatz ta ikutuz,
egunen ardatzburuz
daurkiguzan goiberak,
atsegin ta nekeak,
bakoitzaren iokerak
izatearen ats-barruz...

Urak uraren doai
bizitzadun emaiak
ditu bere ioanean;
gizonak gizonaren
zentzuzko iturriak
bere agerpenaren
erakutsi itsukoi
edo, argigarriak...

## ALDI IOANA IZANARREN**

Aldi ioana izanarren
betikoz emen, biziturik,
neuregan dodaz bai, arako
nire baserri bizitzaren
aurtzaroko, gaztezaroko
ainbat iasokun bereziren
gau-egunen gazi-gezazko
bizi-emoiak buruturik.

* *Esk.* XLIV, 73. (1980-1985).
** *Esk.* XLIV, 75. (1980-1985).

Gizonaren asmakizunak
ez dodaz arira ekarri,
etxe barru ta alorretan
aurrerapen erreztasunak
miraritsu ta zoragarri
ederrik, gure eskuetan
itzi ditun langaillu, tresnak,
erosotasun lagungarri.

Une ontan naiz, arako «a»,
mutil bardingo mardul, sendo,
iostagura, ametsez betea,
maixuaren bildur, eskolako
bidea kezkaz artzen dauana;
mutil egagura, bizkorra,
kezka, min batzuk ken ezkero,
esangiña ta maitekorra.

Udabarriko txorietara
naiz urte-aro edozeiñez,
baserri lanetan esia
itaurrekoz ta, txalmatzera
astoa, betiko bearrez,
ainbat naiz ortan ibilia
baita, aizkora ta atxurrez
ikasiz bizitz eresia.

## EREIN LUR ONEAN*

Ekintzaturik lanean
erein ezazu biotza,
izardi ematearen
gogo onezko nekez;
erein bai, ildoetan,
bizitzadun azia
betikotasun senez.

Erein gizartean
zabaltasun osoz
eta, itxaropenez,
ederraren,
azkatasunaren,
maitasunaren
azi berezia;
lur egokituaren
ildo ongarrituan
erein, pozkiro,
lur landu, gozatsuan,
ez sasipean,
edo arri artean
baizik, egokiro,
gero, alako
zure nekearen saria
galburu ederrez
ugaldu, eta ogi
biurtuko dan
benetako uzta on baten
ziurtasunezko
ustekizunean...
Erein lur onean.

---

* *Esk.* XLIV, 77. (1980-1985).

## ILLUNABARREAN*

Osertzik osertz ta, ainbeste
oldozmenen gogo-bideetan
ondatzen zaigun (odei-arte
zuri-gorrizko) arratsalde
eder onek, beren margoetan
gauaro gozo bat dakarte
euzkiaren azken-agurretan.

Itxas-aldez egan datorren
txori talde bat argazkitzen
egaberatzen da uretan,
eresi bakunez ostoetan
gero, izpiñoak, brintzatzen
diralarik biziro, laztan,
ta, aize ozkirriz dantzatzen,
ongarrizko agerpenetan.

Zadorrezko giltzaduratan
itzala sartzen ari zaigu
arratsaren ateburuan,
(margo gorri, urdin, berdeak
—berein ederdura zolairu—
eta, txoriak, an urrunan
ostentzen diran bitartean
billatuz lotara bideak).

Ta, goietan goi, lasterturik,
Ereñozar mendiaren gaiñez
arpei zurbildun illargia
(basoko egur, piñu artez)
soñanzki zurizkaz iantzia,
gau sortuan, aurrera doa,
izarbidez, amandreturik,
ameslarien begi-biotzez
maitasuneratuz egoa.

## BIZITZAREN ALDAKETA BARRUZ**

Bizitzaren aldaketa barruz
urteak igaro diranarren
ainbat ameskizun erdibituz...
atzoko lez, era bardiñean
iruditzen iaku dala dana,
lengo bizi izan berberean
darraigula, urdiñ egonarren
burua, ule bakan zurituz...

Orduko norberazko izantza
birbizi ta gogoratuz, lantzen
ari gara bai, lengo baratza,
ta, aintziñakoa izanarren
udabarriro da, lorabizten,
barrizturik gure esperantza
dastatuz gero, pozik, aren
usai atsegin ta bizikuntza.

Maite. Orduko begiratuan
zugandua naukazu bai, samur,
biokgandiko zeru, esparruan
ta, gogoz, agur dagitzut, agur,
nire naikun, gurari beroak
eratzen diardun bitartean,
zure narru gorri sugartuan
egoki liraken soiñekoak.

Ametsaren eragin, kolkuan,
len lengo lakoa olatukera
iruditua dabilgu gugan[a],
atzokoaren sumeta berbera,
gogamenezko biotz barruan
irauntzazko eragin, aizera
iraun nai-bidezko ikutuan...
ariratuz lengo izakera.

---

* *Esk.* XLIV, 78. (1980-1985).
** *Esk.* XLVII, 115 (*B*); *Esk.* LIV, 79 (*A*) (1980-1985).
[a] len —/— gugan *A'n ez da agiri.*

## IKUSMIRA*

Betaurreko zuriz
begiratu edo,
betaurreko baltzez,
zailla da ikustea
besteen begiekaz:
zuk dakuszu zeurea
margo bereziekaz,
eta, nik be neurea
neurezko ikuskeraz.

Besteak, zer esanik ez!
bakoitza berenakaz
esakuna dan legez:
«bakoitzak berea»
alderantzizko
gogo ta ikusmirakaz.

## EZER EZ GEIAGO**

Amets bat ezer ez geiago...!
Gero ixillunea,
ta betiko bakartadea areago.

Ez da izango oroi gozoez itzik
ez irripar baten oparirik.

Itzala besterik ezer ez geiago
ez da izango usairik
goiza loretua egonarren.

Ez det gautari abestirik
entzungo
bake ta alaia edatzen duenik

geiago ezer ez det nabaituko
bakarrik ixilluneak
izango nire betiko bakartadeak.

Amets bat besterik ezer ez...!
gero ixillunea,
ta, areago betiko bakardadea.

Ez da izango oroitza gozorik,
ez itzik,
ez irripartxo baten oparirik.

Itzalak besterik ezer ez
ez da izango usairik ere
goiza loretua egonarren

ez det gautari abestirik
entzungo
bake ta alaia edatzen dutenik.

Geiago ezer ez det sentituko
bakarrik ixilluneak
izango nire betiko bakardadeak.

* *Esk.* XLV, 136. (c.1980-1985).
** *Esk.* XLV, 136. (c.1980-1985).

**1985**

## URTE BARRIRA BEGIRA*

*Luis Arostegi olerkari argiari*

Urtea joan da beren
mugerdura ta oskolez,
bizitz berun luzearen
egun argal ta ikolez.

Atzokora joan da bai
ta, joan baldin ba-da,
emen gu, barriaren zai,
onez el dadin argira.

Itxaroz etor dadilla
beren onura ta gatzez;
laztantsu, maitez bilbilla,
ta, ez gogorkeri latzez.

Lorara bedi ogia
Loreik eder eskeinkorrez
opalduz bere saria
uztatze on baten bidez.

Ugari ikus nai neuke
izatearen bizi poza
uxaturik ainbat neke
goseren ezten zorrotza.

Anai arteko bakea
zabal bedi gizartean,
usai gozodun lorea
argitasun ederrean.

## ZORROA LEPORATURIK**

Bidazti zorroa leporaturik
zeu dan-dana izanik itxaropen
eta, gogoz, biotzez ekintzaturik
zoaz zeure bizia irabazten
eta, zabaldu zaitez ereintzara
edegiz gogoa, biotza bein baten:
emon zaitez onezko uberkara
zeure lurraren zeure inguruaren
bizi-taupadak gogoz entzutera
zoaz edermin, biotza zabaldurik...

Ibilia neketsua izan-arren
eldu, elduko zara uztatzera
maitetazunez zuk ereindakoren
gari-ale, biotz-ale eder, onak,
gizon arteko bizitza beraren
urregorrizko atal gozatsuenak
ikasten ba-dozu biotza ereiten
maitez, alde batetik ta bestera,
ikasten ba-dozu bai argiratzen.

---

* Karmel 1985-1, 90. (1985 garreneko urtearen aurrean).
** Karmel 1985-1, 91.

## LORE TXORIA*

### I

Erabat baldarkiro eta sorgin
egan dakusgun lore-txori orri
zuk ze izen aukeratuko zenioke
albo-alboka ta goiberakari
ibilli oi dan orri, udaberrin,
uda, ta udazkenez ain dotore
bere margo ikusgarri, bitxiakin,
zein izen aukeratuko zenduke
ikusiz lorez-lore ain pinpirin
nola dabillen ain begigarri?

### II

Mitxeleta, tximeleta, inguma,
elguma, pitxillota, txipillota,
poxpolin, txiribiri, abokata,
txaketa, kalaputxi, txilpileta,
mariapanpillon, pinpilinpauxa,
ingoma, mitxirrika, txipirrita,
asto arima, zeruko aingeru,
mandatari ta jainkoaren katu,
txirita, txibil-txori, txiribiri.
Ta, apex, sorgin-oilo, atximitxi,
triketa, axandalo, txilipitaña,
makara, txitxu-papa, txilibili,
pinpirrin, sorgin-bitxi, txiripiri,
mitxirrika, tximilot, sorgindara,
matxita, atzalilli, txitximitxi,
txirrita, txinbeleta, mitxirrika,
pirtxillota, txiruliru, panpiña,
Zein da zure gogoko lilirita
mitxelet izenik agurgarriena
zerubidezko zomorro maiteena?
Zein zure ametsen gogai iturri?

### III

Ta, aintziña, baserri atarietan
umeen itaunai erantzun bearrez
itzak maitetasunak edertuak
kuntunkiro, gozoro sortu ziren
aintziñako amonen ezpanetan
berarizko argidura laztanez.
Aunitz eratara antolatuak
izan ziran zintziñako amonen
irudimenari esker. Asetuak
izan ziran umeen egarriak
biotzezko izkuntza maitagarrienez
emanik erantzun argigarriak
uskeri ta ezebeztzat zeuzkaten
zomorro pirtzillak iztegiratuz,
berialaxe asmatuz itz berriak
euskerearen ekarri lilluratsuz.

* Karmel 1985-1, 92. (Ik. 856.orr.).

## LORE TXORIA*

Egan dakusgun lore-txori orri
erabat baldarkiro eta sorgin,
nabardura, zuri-baltz, zuri gorri
edo, antzeko soñekoz, pinpirin
dakusguna egan, bai, Udabarrin,
Uda ta Udazkenez, ain dotore
aidean eder, margo politakin...
aukera izanik, zuk, zein berezi,
izentzat zuk, zein artuko zenduke?

Mitxeleta, tximeleta, inguma,
elguma, pitxillota, txipileta,
poxpolin, txiribiri, abokata,
txaketa, kalaputxi, txibirita,
mariapanpillon, pinpilinpauxa,
ingoma, mitxirrika, txipirrita,
asto-arima, zeruko aingeru,
mandatari edo Jainkoaren katu,
txirita, txibil-txori, mari-txori,
apex, sorgin-oilo, atximitxia,
triketa, axandalo, txilipitaña,
makara, txitxu-papa, txilibili,
pinpirrin, sorgin-bitxi, txiripiri,
mitxirrika, tximilot, sorgindara,
matxitxa, atzalili, txitximitxi,
txirrita, txinbeleta, lilirita...
Zein zure gogoko izen panpiña?

Umeen itaunai erantzun bearrez
itzak, maitetasunak edertuak,
kutunkiro, gozoro sortu ziren
aintziñako amonen ezpanetan,
euskera bigunaren gorasarrez.
Milla eratara ugutzatuak
izan ziran, aintziñako amonen
irudimenari esker. Zeinduak
ta, asetuak, umeen egarriak.

Olaxe, ederrik, aintziña baten
biotzezko izkuntza zoragarrienez
emonik erantzun argigarriak,
euskera kutunez oñarritzeko
orduko euskaldun apal, arruntak,
uskeri, pirtzilleritzat zeukazen
zomorroak. Berezko asmamenez
egokiturik deitura barriak
bein ta barriro be, barriztatzeko.

* *ESK.* XXI, 147. (c. 1985). (Ik. 855.orr.).

## AMAREN AOLKUA*

«Lagun onak ondu,
deungeak deungetu».
Nire ama zanak
ondo zekin ondo
esakun zar ori
ama maite onak:

Bai, seme. Zeu baño
lagun obeagoakaz
ibili zaiz beti
apalik ta zintzo.
Alde, bai, igesi
urrun, bein betiko
lagun txarretatik
alde, aldi-oro.

Izan zeure jabe
ta, ez ibil txuntxun,
galduta norage,
ene seme kutun!

## BEREN LOREIL GURENEAN**

Beren Loreil gurenean
lora usaitsu eder bat baño geiago
begiztanduko zenduan
zutundura mardulean
lizar eder asko baño zuzen ezeago
ta, ainbesteren artean
aukeratu zenduan bat
danetan maitagarriena
ta, eztirik gozoena baño eztitsuago
biotzeko kutun laztana
zuretzat izango zana
alkar batasun betean
bizitzako bidea gero ta maiteago
munduko arantzapean
biziak diraunerano igarotzeko.

* Karmel 1985-2, 100; *Esk.* IV, 32.
** Karmel 1985-2, 100; *ESK.* XXII, 67.

## ABESTU LARROSEARI*

Bai, bai olerkari,
mundu etsipendu
errean bizi ba-gara be
odei arte baltzez
illun ta urduri...
abestu,
abestu egiozu
abestu
maitezko gogo onez
bizitzaren etorbide dan
argiari
eta, larrosa ederrari
usain gozoa dixurin
aren espiritu
atsegingarriari.

Abestu egiozu
baita, egatzen dan loreari,
mitxeleta politari.

Abestu, abestu
arduratasun ben-benez
bizitza eredu
dan izaki edo landare
begiragarri bakoitzari
beuren Jaungoikozko
izantasun ta aintzamenez.

## AIZEA ETA NESKAK**

*Julen Urkiza Jaun agurgarriari*

Pirili parala
azpikeriz,
maltzurki ta zirin
aizea zalea da
ta, edozein garaiz,
neskatxaen gonak jasotzen
indarkeriz,
ikusteko
gona azpian eder ta pinpirin
zer atorramendu dabillen
ain mirabe.

Lasai ta gogarin
orregaitik, neskak,
gonak baztertuta
gizonezko galtzak
jantzirik dabiltz bai,
ji-ji-ji, ja-ja-ja
egiñikan barre;
aize danen aurka
jagi dira ernai,
burua jasota
ji-ji-ji, ja-ja-jai.

* Karmel 1985-3, 108.
** Karmel 1985-3, 108. (1985-VIII-9).

## NUN ZAGOZ GAUR?*

Billa nenbillen zure billa
bazterpe ezagun batean
baiña, autserrea, ixilla
besterik ezertxo ez neban
aurki nire itauntzapean,
urrundietako gogo illa.

Zer gertatu zan bada zugaz?
Osin itsu ta sakonean
jausi ete ziñan minduraz
ala espetxera eroan
ete zinduzten noizbaitean
edota joan ziñan aizeaz
gau-egunen zurrunbilloan?

Nun galdu zan zure sugarra
gaztetasun odol beroa,
nun orduko zure indarra,
amets goriz soindurikoa
nun, zure orduko izarra?

Nun zure egun, gau luzeak,
zure negarrak ta barreak,
zure biurritasun aireak,
nun zure loraldi gardena,
zure larrosazko bideak
nun, zure irrintzi ozena?

* Karmel 1985-3, 109.

## TXORIZ JANTZITAKO ZUGATZ BATI*

Eresizko berein kabiz jantzita
zugatza da txori-kaiola alaia
nundik dan isuritzen, margo ta
musika biurturik, udabarria.

Margo askodun ego garaikorrak!
Moltzozko abesti-ots, parrastadak!
Ostadar apurtu antzeko lirak
edo txiokadazko neurtitz goikorrak!

Bizitasun, zarata ta pozkario!
Bizia margoetako olerkian!
Maitetasuna dirdir, sugar dario!

Olaxe olerkaria, su ta gar,
txintaka, amesturiko bizian
odeirik odei ta, izarrik izar!

## BIZIALDI URRUN BAT GOGORATUZ**

Prakak noiz luzatukoren jorantasun biziz
ta, era berean noiz baltzituko bizarra,
leiatsu negon artzeko munduko andarra
mutilzaroko gizonguratasun urduriz.

Eldu zan bai, eldu zan, txorikume antzera
kabitik urten, egaz egiteko eguna,
lenengotasunezko ikaraz, amesbera,
biziari arpegi emoteko gaitasuna.

Eldu zan ordua, izteko erriko zelai
ibai, ibar, mendi, mutilletako lekuak;
aztu eziñeko aldi eder baten pozgai
arruntak, talo-artogiz zoriondutakuak.

---

* Karmel 1985-3, 112; *Esk.* XXII, 98.
** Karmel 1985-4, 45-47; *Esk* XXII, 102-104. 1985ko Larreako Olerti egunean leen saria lortu eban olerkia.

Biok barruan neroazan errotuak, gogor,
amarengandiko lotura sendo, laztantsuz,
nekazari abotzakaz batera, eztikor,
baserritar senezko lillura ta ikutuz.

Maitasuna leporaturik urrundu nintzan
Claudio Lopez izeneko ontzi zaarrean
atzerriko bidez, olatuz olatu, dantzan
itsasozko sorkaldetar igaro luzean.

Itxas Gorri barrena ta, bai, Indiko zear
begiak ase ezin, barriz barri, begira
sakonki, dana kolkoratu nai, ikus bear
orlegitik orira, oritik orlegira.

Nire oldozkuna piramide ta pagodaz
gerizpeturiko lurralde bakunen atsez
arritua zebillen, ainbeste nabarduraz
ta, ainbeste oitura zadortsu, ezbardiñez.

Berein zeruzko mundurik erdia igaroz,
itsasoen aldizko asarre ta goi argiz,
ametsean goitzen nintzan palmondo dirdariz
ta, Heine'k egokiro abestutako lotoz.

Azkenik Manila'ra eldu zan bai ontzia
ta, jatzi nintzan pilinpindar uriburuan,
aurrera jarraitzeko beste ontzi batean
Bisai ugartean lekutuz nire bizia.

Loratua zegon kañaberazko itsasopez
barrendu nintzanean Bais'ko lurraldean,
egoitzatzeko Basak zerintxon landetxean
sartu nintzanean ametsa zirudin bidez.

Bizitza ezbardin bati asiera emoteko
Malai jatorrizko bisaiera ikastea
izango zan bai niretzat bear-bearrenezko
ta ori egin neban alegiñez betea.

Berbak belarrietara zetorzkidan geldiro
ortaratuta eztagonaren zailtasunez,
isa, duha, tatlo... zenbatutzen ikasteko
ta, gizarterako ain garrantzitsua zanez:

Biziak erakutsi eustan bizi izaten
ta, ango izkuntza ta ango lur maitasunez
nebillen izpirik izpi, biotza aberasten,
Jainkoak ugari ereindako ondasunez.

Etxetik bertantxe neukan Tagmungong ibaia
mendibera, aringa, bolbolka zetorrena
baso-oianen ezkutu itzalez jantzia
basati enda batzuen barri zekarrena.

Ibaian bustitzen ziran babai ta dalagak,
erropak garbituz gero, abesti otsean
samurtzen, astintzen ebezelarik egalak,
eguzkia eguerdirantza zetorrenean.

Eguzki ta euri ederrezko lur emankor
aberatsa, ta Rizal'en aberri laztana,
beren milla ugarte aundi-txikiz, garaikor
Sortaldeko itxaso barruz, aurrera doana.

Nire gogoan zagoz bost urteko egoitzaz
artu bai ninduzun lanbidez zeure senean;
nire biotzean zagoz esker oneko biotzaz
Pilipinas eder! neure gogo barrenean.

Ta, ori ola dala be, orain emen nago
neure Erri ta Izkuntza, biotzeko Euzkadi
izan dadin betikoz azke, euskaldunago
ta, ben-benetako alkartasunaren kabi!

**Iztegia**

Babai = andra, emakumea.
Dalaga = neska.
Loto = lorea.
Bisaiera = izkelgia.

## LUR ORBELDUA*

Bai, gaur mundua
urreztatua
agertu da
egunaz
batera
eguzkipean
dizdiraka
ikus izan
danean
orbel maindiraz
udazkendua.
Bearbada
bart,
aizea
ibiliko zan
bart
arratsean
aizea
zugatzik zugatz
oianak itxiz
billutsik;
aizea
ibilliko zan
bart
asarre biziz...

## ARRESE-BEITIA**

*Euskaldun jaio nintzan,*
*Euskalduna azi,*
*Euskara utsik amak*
*Eustan irakatsi;*
*Euskara maite maite*
*Zabiltz neugaz beti,*
*Euskara ill ezkero*
*Ez dot gura bizi.*
(1881'an)

Euskerearen aldezle sutsu, kantalaria,
auxe dogu gizona, Lorailtar egun batez
an, milla zortzireungo berrogeita batean,
bizi ta eder zegoanean Udabarria
antxe, gure Bizkai eta Araba'ko mugan
jaio zan Arrese-Beitia olerkaria,
Otzandio erri entzutetsuaren lautadan
orduko izadiaren agerkera pozkorrez.

* Karmel 1985-4, 91.
** Karmel 1986-2, 110-111. (1985-X-11).

Neurtitzezko biozkada ta bere esku lanez
erakutsi eban euskal sen argigarria,
etenbako erri-zaletasun, maitasunez,
azaldu eban bere doai zoragarria
olerki eder ta, santu biurturiko zurez,
itxi euskun bai artegintza ikusgarria
egun eta urte zearrezko ekintzapenez
goraldu ta aintzalduz gure Euskalerria.

Euskerea zan bai aren bizitzaren gogoa,
aren negar ta barrea, izate guztia,
itxaropenezko t'etsipenezko aria,
aren betikozko ogi eder ta beroa,
euskerea zan aren edari iturria,
aren biotzeko eder kutun, abes gozoa,
mendi bideetako aize osasungarria,
aren zugatzik gurenaren erro sendoa.

Errikoi ta elizkoi, berein kantu alorrez
edatu zan, bai ikuspegi zantzoa,
ederrik edota, trakets, baña bati laztankor
ixuriz beren poz ta negarrezko malkoa,
beti fededun, baketsu, beti itxarokor,
Foruak goralduz maitetasunezko sugarrez,
beti Jaungoikozko bidez, gizon agurkor,
Euskalerriz Euskalerri goituz bere soa.

Euskerea zan bai aren biotzeko kutuna,
eguneroko artu-emon, joan-etorriz,
aren gogozko janari, aren osasuna,
euskerea betiko goiberatze eta zoriz,
aren barruko tristura, edota zoruna,
usain gozodun larrosa, krabelin, zitoriz
aren benetako maitasunaren lurruna,
gogoz laztandua, egunoro erabilliz.

Goraldu, txalo dagigun bai, aren izena,
antzerako euskal zaletasun ta egitez,
menditar aize, pago, orduko ira sundaz
otzandiotar erara gugana datorrena
alako gogai, berezitasun apartez
bere gogoeta sakonez, zelai ta lautadaz
euskerearen abarrots eztiz dakarrena
noizbeinkako negargura, illeta otsez!

## IRAGARKIAK*

Iragarkiak, txartelak, zenbat paskinteri,
zenbat azpegi ta bular, zenbat lagunabar,
oiuka euria dalako edo aterri
margotu ta ber-margotuz ormaetan baldar.

Angoak, emengoak, zein taldekoak
eguzki erre edota edur otzarenak
zeiñen buruz edo arauz igitzen direnak
zein eskolamendu edo ukullutakoak?

Zaratan kokatu dira ta ortik ametsa.
Azkatasuna billatuz menpekotu dira
oiupean galdurik euren burujabetza.

Atzipeturiko gizaki sinistedunak
aldarrika itsu garrazkeriaren arira
kaleak zear oiuka gorroto astunak.

* Olerti 1985-86, 239.

## ERKIAGA-TAR EUSEBI OLERKARI ETA IDAZLE ARGIARI*

Zure sorterria dan Lekeitio ederraren ikustera
nator, Erkiaga-tar Eusebi, euskal arrobiko «Endaitz».
Agur lagun! Biotzez noakizu zure erri-bideetara,
Lea itxasoratzen dan antzera gogoz, zu agurtzera,
Euskerearen langille zintzo zaran zutoin, arkaitz;
Zugana noa erri barruz, kai-aldez, itsas ertzera.
Zure urrats billa, oraindik an lengorik baldin ba-litz,
Idatzietan ain dizdikor dazalzun urre antzera.

Aurkitu, zu zaurkidaz orduko idatz biotz gaztean,
kresalezlo gatzitasun osasungarriz lurrindua
zeure olerkitz mintzo pinpiriñaren goidurapean
maitasun-txintada otsez lerdenki, udabarritua.
Zenbat itxaropen ta bizi-amets lorara naiean
zure neurtitz ta itz-lauzko soñeko jantzi zoragarriz,
itsas-margodun ats bizi alaikor batez gantzutua,
abertzaletasunaren eraginpe aurreragarriz!

Zure idazle gogai argi gozoaz... Araxe noa!
Zuriñe ta, ainbat arrantzu-bizitzaren itzalez...
Tala, Enparantza, Eskolapea-ta pozez begipetuz,
an noa... Arranegi'ko irudigai eder, poxpolez,
zure bizi-aldiko ainbat ekandu zar gogoratuz;
araxe noa aberasturik neure euskal gogoa
zure Lekeitio maitearen kale-arte ta kai ganez,
itzetik ortzera zure bizkaiera eztia gozartuz.

Olako ele-melerik! Andra aurreskua gogoraziz,
euren orduko gona baltzezko jantzi ta gona gorriz,
orduko buruzapi ta Manila'n egiñiko mantoiz;
zenbat Lekeitio maite! Orduko andra-gizon dantzariz;
orduko pipadun arrantzalle zaarkitu agurgarriz,
«aspertzeke, urrunera begira, itsaso ertzean
pipa zarrari teinka ta, kaioak egan goienean,
olatuz gain... «urrunean begiak, soiña legorrean»...

* Olerti 1985-86, 240-241.

Legatz, atun, bixugu, txardin... itsasoko zenbat arrain!
Ta, ortik gorako aitz-ganetako lapa, magurio...
ortzipe oztin-argi edota lañope goibelen azpin
bizi dan zure sorterri maite-kutun zure Lekeitio
kresalak ekarritako umore on ta latzdurapez,
zure arrantzale erri maite orri gatza dario
ta, nik zeure lengoko artan, orduko bizi-ikustez
olerbidez zakustaz lilluratu ta maite-min.

Bizi izate aren arabera egun zarrak birbiziz,
itxasozko gozamenean kenduz begien lausoa;
orduko alkandora urdin, olatuzko ikuspegiz
laztandu daroazu zure gazte-aldi aintziñakoa,
ainbat ekandu ta ainbat biozkada gogoangarriz
suspertuz zure orduko gaztetasunaren egarriz
sakonduz itsasoa bezin sakon zan orduko gogoa.

Bizi-izate ta olerki alorren mundua, irauli
ta, erabat azpi, baztertua datzan aren lengoa...
eder, argi ta garbi geratu da zure izangoa,
betikozko euskera errotsu ta biziaren iturri
bolboltiaren izladura dizdiratsuz egindakoa;
bizkaieraren zindotasun oñarripe iraungarriz
illundura bako eratze ederrez jasotakoa
unerik unerako ekintzapen baten argiduriz.

Oldozkun giartsuz abestu dautsazu itsasoari
ta, arrantzu erri baten ekandu, bizi-izateari,
ta, baita be, baserrian, aititan bordan, mutikotan
bei zaintzen ta, zortzian beingo labasuzko bizitzan:
«Amagaz, anai-arrebak utzirik kaieko errian»...
Oi, a zan zure «bizarge aroko bizi atsegiña;
orduan zuk ez zekizun ere «zer leitekean miña»!
«Mutikoa izan arren akuluaz gizonen antzean».

Esanak esan, euskerarentzat zure maitetasuna
ezpai-bakoa izan da, gogo aundiz soindutakoa;
atzoko ta gaurko zure biotzaren betiko kutuna,
(guda aurretiko, ixilk ondoko ta gaurkorañokoa)
zure olerkia biziko da betikozko betiren,
desegiñak, apurtuak, ondatuak ikusi arren
itxaropen asko bide luzeko lar, arantzapean
alan be euskera maitagarriak aurrera darraigu.

## ATZOKOAZ MINTZATZEA*

Atzokoaz mintzatzea
ez da berakautako gauza
ez da ez erreza
egunera ekartzea.
Ez da ez erreza
gomutapenen aldi
une igeskor, laburra,
igaranezko une
bizigune laster, joana,
ain deusa ta ain apurra
barriz, atzokoz atzoko
unez une gomutatzea
gure gaurkoraño
ez da ez erreza
ez da berakautako gauza.

Zer oroi, esan zeinke,
zer zure aurtzaroko
zer zure gaztearoko
zer zure elduaroko
egun joaneri buruz
zer mintza, esan zeinke
zure izana begipetuz
zer oldoz, esan zeinke
zer erakarri barriro
zeure izanbidezko
egunen egunezko
ainbat lor ta aburuz?

## ARRAINTZPORTU EUSKALDUNAK**

Goizaz batera
egunero lez,
ta, kai ganera
aizeak
legunkiro edo zakar,
arrain usaiña dakar
itsasoetako onuraz
kaioak,
ontzi ganetan dirala
txilioka gangar,
ego zuridun gelduraz.

Gertu dagoz
erritarrak ta,
ontziak
banan-banan
itsasoetako
ondasunak
ustutzera datoz
egunaz.
Txitxarru ta berdelak;
bixigu ta lebatzak;
antxua ta sardiñak;
egaluze atunak;
kolaio ta amarratzak;
lodiak ta argalak,
ainbat izerdi-nekez
gogoz karriaturiko
itsastar emokunak.

Bai, nik gogoan zaituedaz
Kantaurik gatzituriko
arraintzportu euskaldunak!

---

* Zer (1985, 85.zenb.) 8.
** Zer (1985, 85.zenb.) 8.

## MUNDUA AGURTUZ*

Bai, atzo, oraindik udabarri ederra zan
ta, lorak, usai gozoz ta, txoriak, ego-otsez,
alaitasunezko maite-eskeintzaz zetozan
itxaropenezko margo ta arintasunez,
bizitzaren ateak birpiztu ta zabalduz
euri mami ta eguzki altsuaren bitartez
negu baltzak ozkilduriko lurrak berotuz.

Ta, abes dagi maitetasunak izadiaren
alorretan, berein ta bost abots ernalgarriz
aizea berotuz ortzipe amestuaren
bizi-gogo gora-minduaren atsaldi biziz;
abes dagi, lurreko gauzak ederduraren
lora ta zituzko barrutira erakarriz
emoitz-aldi gurenezko abotsik gozoenez.

Ba-doa udabarria ta, ba-doa uda
ere, beren abesti, beren igali, alez
ta, Udazkena dator beramin. Etorri da.
Emen dago, beren eguzki gozo, epelez,
azkenengo bizi-laztankerietan agurka
beren negu-aurreko amets-kondar, orbelez.

Bai, ixil-mixil, orriak jausten ari dira
ta, zugatz-adarrak buru-soiltzen dakusguz
orriz orri orbelak jausiz itun, azpira,
ta, izandako aztarna lurrean zabalduz
aizean doaz bai, aizean, beste bizira
illeta eresipean mundua agurtuz.

* Zer (1985, 86.zenb.) 7.

## BESTE EGUNETAN LEZ*

Gaur euzkia urten da beste egunetan lez
eta bestetan lez egaztu dira txoriak.
Auzotiar eresiz alaitu dira zelaiak
baso, landa, alorrak, urialdeko anotsez.

Beste egunetan lez. Giltzadura bardiña
erabilli izan dabe betiko erara,
udabarri otsez egatzen dan goramiña
amets barriak ekarriz gizonen bidera.

Zein pozik ibiliko nintzan lagun artean
alkarraz lenago lez; ez al zara oroitzen?
ametsak eralgiz gaztetasun ederrean.

Baña ustege antzaldatua aurkitu nintzan
etenda nire arien soñua bein baten
udazken berakor azkengarriaren orbeltzan.

## BESTE EGUNETAN LEZ**

Gaur euzkia urten da beste egunetan lez
eta bestetan lez egaztu dira txoriak;
auzoko eresiz alaitu dira zelaiak,
baso, landa alorrak, berein ots, soñu bidez.

Beste egunetan lez. Giltzadura bardiña
erabil izan oi dabe gitxigorabera;
ta, agirikoa da izadiaren goramiña,
egun udabarritu onen dei ederrera.

Zein pozik ibiliko nintzan lagun artean
baña, eten zan aria... ez zara oroitzen?
ametsak eralgiz bizitzaren poz betean.

Igaroz igaroz, antzaldatuak aurki giñan,
eten da gure aria... ez zara konturatzen?
Alan be, biok bat, maitez darraigu bizitzan.

---

* Zer (1985, 86.zenb.) 3; *Esk*. XXII, 71. (c. 1985). Ikus urrengo olerkia. Idazkera bi ezbardiñak dira.
** *Esk*. XXIII, 65. (c. 1985).

## ALDATZ GORA*

Aldatz gora,
aldatz beera,
biak nekean
alkandora
eta atorrapean.

Baña bai,
ibiliaren ibiliz
bideak
asko nekatuarren,
bizia
amespe zoragarriz
aurrera doa beren
betiraunezko ariz.

Bakoitzak daroa
bere iaiotzako
izarra;
bakoitzak daroa
beren atsegin
edo negarra;
bakoitzarekiko
zori, izangoa.

Aldatz gora,
aldatz beera,
ola doa
gure denpora.

## EZTABAIDAK**

Gizonak ta gizonak ere ez diranak
aunitz askotan dira bai eztabaidatzen
beren ikuste, gogo itsuz dabiltzanak
edozer mendekeripean goiak artuz
baten ustez katuak ta bestearen ustez
txakurrak otzanago diralako edo
beste orrelako uskeri, zioren batez
gogor eztabaidaka buruak berotuz.

Ba-dakizu, «zenbat buru ainbat aburu»
ta, ortik zortzen dira ainbat aiku-maiku.
Asarreak sortzen dira, gero, burrukak
ere, au dala, ori dala gudak sortuz.
Ta, zer nai dozu? Abere izate ori
odolean sartuta baldin ba-daroagu
gure bizitzan betiko Jaun ta Nagosi?

* Zer (1985, 86.zenb.) 7; *Esk*. XXII, 88.
** Zer (1985, 86.zenb.) 7.

## ONGURA MAITEZ*

Abes dagit bai, mendi ta ibarrez,
bizia deskan erri zaar maitearen
ta, bere berbetearen gorasarrez
indar barritu dagigun bein baten.

Abes dagit ta, biotzez, sugarretan
egarritua nabil aren zoriz,
aren izate ardurapenetan
kezkatuta biotzeko Euskalerriz.

Abes dagit bai abes, gogo onez,
ta, gora dagit abots maitagarriz
euskerearen aldezko gorapenez
neure gogo, biotz osoa jarriz.

Abes dagit abes, euri ederraz
asegarrizko tanta gozagarriz
abes dagit maiatzeko lorakaz
usai gozodun aize egaztariz.

Abes dagit euskerea senda dedin
bizi izanik betiraunez, alai,
udabarri eder goituena bezin
eder ta maitasunezko bizigai.

Etengabeko ekin ta ametsez
neurtitzetan ene biotza ixuriz
arenganako ongura maitez
abes dagit zorioneko egarriz.

## BERBA BAKARRA**

Munduko argi ganera
irauliko ba-giñake,
odolaren ur loa eratzeko,
lurraren esku ganean.

Barruko ixiltasunen
argitasunen ganera
irauliko ba-giñake,
une-aldi bakoitzean
sakonago landutzeko,
ta gizonaren narruaren
iritzia emon gero.

---

* Zer (1985, 89.zenb.) 7 (1985-IV-18).
** Zer (1985, 90.zenb.) 3; *Esk.* XXII, 96-97.

Itxarote orduetara
irauliko ba-giñake,
asmo baten araldiak
iruntzi al izateko,
buruzkeratzen dana lez
bere eres musikara
ur ertzean xurgatzeko.

Irauliko ba-giñake
oldoztuten dakin toki
eta, bere ur ertzean
itxitako aztarnara
lurrari itzultzen dakon
berba bakarra gaizkatuz.

Or aurkituko genduke
bearbada, argi gardena,
gizonaren narruaren
irizpen ta azalpena,
itxarotako eguna
oldozkun, lorratz, aztarna
eta, biotzaren taupada
laburtuta itz bakarran
izate orok bizitzan
gogoz beti ditxarona
ben-benetan... MAITASUNA.

## BIZIA MARTXAN*

Udaberriz arnastuta
onbidetsu dator goiza
eskeñirik beren poza
eguzkiak ernalduta

Bizitzaren mendu, ariz,
goitasunez errotuta
itxarozko egun argiz...
Orra lurra loretuta!

Bizia jarri da martxan,
bizidun oro, ederrik,
soñeko berriz jantzirik
bakoitza bere egintzan.

Sugarra zure eskuetan,
sugarra zure begietan,
sugarra biotz barruetan,
sugarra bizidunetan.

Gabaren ta Eriotzaren
Igaranezko Aldia
egun sortze argiaren
eragiñez itzalia.

Erdian gure euzkia
zutik Aldiaren aurka,
bizitz errañu bizia
egunari so, agurka.

* Zer (1985, 92.zenb.) 7.

## GUZTIOI ZORION*

*Olazar-tar Martin idazle begiko*
*ta argiari, oroitzapen bidez.*

«Dringilin dron, gaur Gabon
eta, Guztiori Zorion».

Gabon da bai ta, dringilin dron,
lapiko artean andrea
sukaldari, orain ta berton;
emen olioa, an koipea,
itxasoko ta legorrekoz
ongiro ospatzeko Gabon.

Sukaldeko eltze, lapikoz,
lurruna emendik ta andik,
ontziak sutan dagoz borbor
ta pilpilka, mairako asmoz,
ainbat jakigai atseginkor
usain ederra edaturik.

Badakizu ene maitea
batzuentzat makallua eder,
besteentzat bixigu, lebatz
edota aragi ta piper.
Zein gatxa dan gatz ta berakatz
danon gogoa egitea!

Baiña, orra, berein guleriz
maia antolaturik ta, apain,
andrazko esku on, mirariz.
Maikoak, orain ez lo egon!
Otoitzak lenengo eta bein
ta, ondoren asiera emon
Iainkoaren esker ta graziz.

Beraz, Zorioneko etorriz
etxeko babespe, bakean,
sendi alkartze maitagarriz,
osasuntsu: «ON BEGI JANAK
(ta, iñoiz) GAITZIK EZ EDANAK»
bizitzeko aldi luzean
alaitasunezko lokarriz.

---

* Zer (1986, 93.zenb.) 4. (1985-XII); *Esk.* XXI, 119-120, (121).

## MIREN LORE*

Goizaz itzartu da
gure Miren Lore
eta, or ari da
batetik bestera,
arin ta dotore
karnaba antzera
kantari, agurka,
udako ikerle.

Zeru oztin zuriz
argi-argi dator
eguna eguzkiz
bigun ta gozakor
benetan gurgarri
ta, neskak alaikor
so ta barre dagi
alako ikusiz.

Zabalduz gogoa
ortzi zear urrun
aizebera doa
edatuz barruko
ezkutu ixilla,
an doa bai txuntxun
urrun-urruneko
ametsaren billa.

Igaroz igaro
ditu eskuratzen
lats eta ibaiak,
ditu begipetzen
mendi, ibar oro,
osertz ozkarbiak
ditu biotzeratzen
legun ta pozkiro
bizi iturriak,
goiz ta arratsero.

Berenean dago
etxalde maiteko
laztandurapean
mats ta sagarrakaz
beren biotzeko
gogai landarakaz
beretza betean
eder-ederrago.

* *Esk*. XIX, 4-5. (c. 1985).

## GIZONAREN JAZARKUNDEAREN ETXAKIDEAK*

Ikus egizu bai
bere ibilian mundua,
zelan dagon sugar artean
etsipenez, deslai,
ondamendirako bidean
autserrez zerupetua.

Ikus egizu bai
eriotz azken-arnastua
autsaren ixiltasunpean
ta, olerkaria,
barriro eskura naiean
larrosa zuria
aaztutzearen iraupenean.

Ikus egizu bai
lurruna erbesteratua
odol barruti sugartuan
ta, ezpatea luzatua
udate latzaren aurrean.

Ikus egizu bai
gizona or arrenkatutzen
jaiotzea eta egunak,
beren lur ganeko
igarotze ta irautean.

Ikus egizu bai
zelan banatuak gabiltzan
esnaldi ta lotaldian,
itxasoen luzadurapean
ta, munduaren aundieran,
gorroto ta naimenaren
ezkutuko austeak sortua.

Ikus egizu bai,
gizonaren jazarkundearen
etxakideak gara.

---

* *Esk.* XXI, 29. (c. 1985).

## BILLAKETA*

Asi zaitez billatzen
zaran gogo barrua,
ikusten, begiratzen
zeure nor ingurua,
aztertzen ta negurtzen
bizitza esparrua.

Barrua begiratuz
ikusko dozu ikus
bizitzaren argala,
beren zador ezkutuz
bizitzaren itzala
ludi onen ikutuz.

Ori jakiñaz gero
gizartean barrenduz
eiñago, gizonago
aurkituko zara bai,
egunak argiratuz
itxaropenez, alai.

Ikasko dozu bidez
eginbearrak betetzen
biziari dagokionez
zuzenkiro eroaten,
biotzez garbi, artez...

Ikasko dozu nekez
gogoa argiratzen,
maitasun eragiñez
begiak biziratzen
benetako zentzunez
biotza gizarteratzen.

## BERBA MERKEAK**

Iruzurkeria da bai ta, aundia,
udabarritar aire poxpoliñez
euritaratutako aterkia,
marrazki ta margo argi, bikaiñez
—gorri, urdin—, bitxikiro egiña
egunari kentzeko beren laiño
euri-illundura tristuratia,
sartuta dagona biotzetaraiño.

Beste gauza asko geiago dagoz
dirdai, denda ta erakus-tokietan,
nikelezko berein ta bost tresneri
ikus-irratiak bezelako margoz,
—apainduraz eder, kilikigarri—
erosotasun atsegingarrietan
bakoitzarekiko eskeintzapenez
salgaituak dagoz eskuragarri.

Bai, ikusi besterik ez dago ez,
itsumustuko martxan berebillak
zein arin eta azkar dabiltzan
geroago ta aundiago diranez,
geroago ta barri ederragoak,
geroago ta arin ixillagoak,
zein azkar dabiltzan zelako martxan.

Ta, gabetasunak txuliatzen ziran
musikaz, soldata igotze txikiz,
berogaillu ta beste onelako
atseginkoi trikimallutxukeriz
jendea naastu, ixil-arazteko
maitekeri ta azkatasunkeriz
ain errezkiro erabillitako
itz, berba merkeak jarririk martxan.

* *Esk*. XXI, 30. (c. 1985).
** *Esk*. XXI, 37. (c. 1985).

## USOA*

Usoa,
bai aldakin
jakin,
nun asi ta
amaitzen dan
itsasoa?

Ur tanta
gatz tanta bakar bataz,
bakar bataz
egiña dala diote
itsasoa.

Usoa,
bai al dakin
jakin,
zer esaten duan zer
itsasoak;
bai aldakin
jakin,
ai! nundik norakoa,
zein dan aren mezua,
ur gainekoa
ta azpikoa,
aren igiduraren
gatzezko ikutua?

—Bai, uretan bustitzeko dio;
ametsak ugiñetan eio
eta, egiztatzeko gero.
Orri dio.

Beraz entzun,
entzun
ugiñik ugin dakarren
erantzun agurgarria.
Entzun gogoz
aren eresia,
aren abestia;
entzun arren
aren
amodioz
sorturiko
itxastar
erantzun
gozo,
loisindaria:

«Ain da polita,
ain da liraiña,
ain da panpiña,
maitagarria
ta begikoa
da, dio,
USOA.

* *ESK*. XXI, 104-105. (*Esk*. XXI, 108: laburragoa). (c. 1985).

## LOIDI-TAR PABEN*

### I

Nor dogu gaur Igeldo'ko erriak, zorionez,
oroitzamenera dakarzkun Loidi-tar Paben?
Jaiotzaz Añorgatarra. Orio'n babestu zen,
umezurtz, bi urte zituala, alan bearrez.

Ikastaroak Andoain, Saturraran, Gasteizen,
gazte-gazterik agertuz olerkari sena,
«Orio'ko Umezurtzaz» astinduz olermena
leen saria irabazitako poema baten.

Eusko Olerkiaren goi mallako olerkari,
guda aurreko EUSKALTZALEAK eraturiko
Zarautz'ko V'garreneko euskal argizari.

Apaizgaietan sorturiko lan aintzagarri
aurrelari ori..., ez ote zan betirako
Olerkitzaren bide eder baten oñarri?

### II

Garaiko euskal egoerak zekarkion gurutzez
begiraleku eder ta, benetan polita dan
zoragarrizko Igeldo ain ikusgarrian,
igaro zan aren bizia, kresaldun aizez.

Txanpaz txanpa osotu zitun beren neurtitzak,
arraunak gogoz sartuta, euskal ur garbietan,
eguneroko leiaketaren arraunketan,
ederkiro ta egoki, neurtuz beren itzak.

Arima zaintzazko lanbide arduratzuan,
biotz irikiz, ekin zion bere lanari,
maitasunez beteriko egiñal gartsuan.

Or datza aren bizi-emoitz sendagarria,
euskal mamizko neurtitz samurretan, kantari,
goralduz barruan zeraman Euskalerria.

* *Esk* XXI, 143-144. (1985-X-23; 26'an Igeldon omenaldi-egunean irakurria).

## ZORION-POZA DAGERREN OLERKI BAT*

Inguru illun baltzean
zorion-poza dagerren
olerki bat idaztea,
ezta erreza, nabarmen,
errian ta gizartean,
ain agirikoa danean
etsipen ta naigabea.

Baiña. Zer egin? Zer egin,
eguzki argiz jantzi dan
egun zoragarri, urdin,
egun alai, eder bataz,
ni jabetzen naizenean
izadiarekiko pozaz?

Dana dala, abestira,
argira, bizira nadin,
maite-bidezko senaren
itxaropen iturrira;
eguzkipean goramin
doan egun eder onen
laztandurak jasotzera.

Baldin ba-iako atsegin
itzi, irakurleak berak,
bere gogo ta zentzunaz,
biotzaz erabagi dedin,
poztuta alako «zerak»
damotson argitasunaz
edota, neketan, samin...

Ai! Nire alaitasuna
masaillako bat ete da
oñazearen gorputzean
ala, denpora barrian
itxaropena daroan
aizekirriño gardena
maitezko agur gozoan?

Izan bedi argi izpi,
ur tanta garden ta ona
bizitzaren lagungarri
bere alegin apurrez,
gogoz, aurrera doana,
asmo sendo, eginkorrez,
biotza zabalduz, kantari.

---

* *Esk.* XXIII, 10-11. (c. 1985).

## BERBA EGITEA*

Zuk be zeure zugatzari
sendokiro daragiozu
ta, asti asko ez dozu
zeure lagun urkoari
so egiteko eztitsu;
eztozu gogo aundirik
beste iñor laguntzeko
zeure onerako ezik.

Bai, azalkeri loratsuz
berba, berba egitea
erreza da, itzak goituz
erreza da esatea
berba eder ta loxintsuz
au ta ori eskeintzea
gogai batzuk ertziratuz
erreza da laguntzea.

Egin egiteko asmoz
egintzatzen ezpagara,
maitetasunezko gogoz
biotzak argiz, benetatuz,
joanik giza baratzara
lagun urkoa aintzalduz...
zergaitik mintzatzen gara
berba loxingak aoratuz?

Izan bedi izan gure
itza barrutik sortua,
ben-benetako egite
maitetasun elburua;
ben-benetako loratze,
biotzez udabarritua.

---

* *Esk.* XXIII, 21. (c. 1985).

## GORA BEGIRA DAGON LURRA*

Benetan egoera tamalgarri, aldi latza,
euririk ezaren bidez sortu izan dana,
ondatuz mendi, ibar, soro eta baratza,
lentxeago ain ikusgarri ta ederra zana!

Gaur etenik, minduraz dago Euskalerria,
abere, landaredi ta gizonaren biotza,
aundia baita sortutako neke, zauria,
estu ta larri utziz, gure nekazaritza.

Lats, errekak ta iturri asko ere agor,
mendibera kantari jeisten ziranak pozez,
gaur egun, il-zori dagoz azaleko urez
orbel loikeripean, almenik gabe, idor.

Udaberriaren orlegitasunetik urrun,
ur eske dago Lurra, maitetasun ur eske,
gora begira dago atsekabez ta itun,
euzki gori galdatuaren otsein, mirabe.

Gora begira dago agertuz beren pena
udako legorte zear, udazken barrena,
gora begira dago egarriz, oso triste,
galdezka, alako odei maitea nun ote.

Amabost urteko neskatil baten antzera
Lurra ain eder, ain begiragarri zanean,
margoa galtzen asi zan andik lasterrera,
beren loreburutzazko garai onenean.

Endekatzen amets ta, lillurakin batera
beren liraintasun apaña ondabidetzen;
zurbillik dakusgu ta zimelik, buruz beera,
itxarozko etorki gurenak kimatutzen.

Egun bat ta beste bat, zerua beti berdin,
igaroz igarozko ainbeste uts ematez,
odei gorrizka ta zurikazko eguratsez
tamalduraz darrai Lurrak, euri eske, sumin.

---

* *Esk*. XXIII, 23. (*Esk*. XIX, 6-8; *Esk*. XXI, 134-136). (c. 1985).

Gora begira, so ta so, batetik bestera,
itxaropenak aultzen ari dira bein baten
orriak lez, ezetasuna galdu ta zimeltzen,
aizeak azpiraturiko orbel antzera.

Nun sartu ote euridun odei maitalea
ain beiñeko dan bizitzadun esku zabalez,
nun sartu estaldu ote eurien jabea
ez agertzeko iñun ez egunez ez gauez?

Zer egin nezake nik odei maite, zer egin,
niganako bidetik aldendua ba-zaude
izar goituen diridirapean, urruti-min,
niganako begirapen ta gogorik gabe?

Benetan mingarri zeru argi eder ori
ikustea bera ukapenezko zikoitzkeriz
ain etsipenkor ikustea, ain kaltegarri,
egunik egun odei illun bako aurpegiz.

Ur tanta lodi gozoz, bigun, lurreratzean
odei aztun beltz illunetik dator euria,
maitasuna darion leguntasun betean
eskeñirik bizitzadun ur onesgarria.

Gorri ta zimel Lurra, negar zotinka dago,
gora begira, otoi-arrenka, gogoz, biotzez,
an, nunbait, odei errukiorrik baldin balego
urrea baño baliotzuago dan ondasunez.

Ur, aize, eguzki... Iru gaiki auek dira
Gure Ama Lurraren ogasun bizi-arazle,
egokiro, neurriz, baldin ba-datoz arira
maitasunez ta laztan, nabarmenkeri gabe.

Ikas dezagun beraz legortearen aurrean
gogoan artuz ura dan ondasun aundia,
altxorrik beiñena munduaren iraunpenean
altxorrik baldin bada, altxor babesgarria.

## ARGINABARREAN*

Arratsbide eder, gorrizkatuan,
eguzkiak agur egin ondoren
illargia ortziratzean
ta, odei zamatuak
negarrez asi ziranean...
ur tanta gozatsuak
itxasoaren sabel ganean
illargi izpiduraz
gozoro dantzatu ziran bai,
ta, orduan itxas ur baretuan
bizi-poz amesgarri
eder ta zoragarri
bat sortu zan ta, alai,
abestutzen asi zan
illargizko zerupe ederraren lillurakizunean
goiz argiaren etorrera zai.

Gabaren orbanakaz
goiza gero, jagi egin zan, jagi,
eguzkiaren soiñekoz bizitua
benetan argi eta gozagarri,
ollarrakaz,
basoetan, zelaietan esnatua
jagi egin zan, jagi,
Maiatzeko lorakaz
bizitzadun abotsez goraldua
benetan ikusgarri!

---

* *Esk*. XXIII, 31. (c. 1985).

## IRU POEMATXU*

I

Egunik egunera
«biar» esaten dogu
ta, «biar» gero ori,
(gure egun amestu,
itxaropentsu ori)
iges, urruntzen iaku
geroz-gero, beti,
ametsak ondatzera.

II

Zertan ari gara zertan
ortzibera, dizdirakor,
ameseta ioranetan?
Zertan ari gara munduz
galduak, okerkerietan,
edo gogorrik, izukor,
inpernuetako ikutuz
oldozbide illunetan,
argi apurrak ondatuz
asarrezko egaletan?

III

Bizi garan guztiontzat
ipar bat dago munduan
eginbide - elburutzat
edota, baita ego bat
gure ametsen zeruan
dantza-arazten dauskuna
gaba arturik eguntzat,
gaurko gizarte nastuan.

## BERBAKAZ**

Berbakaz bete bear dot bai
zentzunez idaztera noan
paper zuri au. Baña, berton,
zer esan, zer idatz neike, zer,
ederrik ta argiro, sakon,
zer adieraz neike, zer gogai,
zer oldozkun, neure kolkoan
une ontan ezpadot ezer?

Zer jarriko dot ene anai
mundu onen ezin-bizizko
abiadan, zerbait alaitzeko
zer bizitzadun, zer sendagai?
Zer amets eratu neike nik
zer, zer esan neike? Egunon?
Ala, illunagoa dan Gabon?
Zer, txarkirik ez lekarkianik?

Alorrak, arantza ta sasi,
larraz josia ba-dakust dana...
Ai!, zer ereingo dot zer azi
argibide bat lekarkiana?
Zer egin neike esku utsik
ezpadot biotza ta burua
maitasunean sustraitua
jakituri tantaz ondurik?

---

* *Esk*. XXIII, 45. (c. 1985).
** *Esk*. XXIII, 46. (c. 1985).

## ITAUNA*

*Puxana-tar Kepari, biotzez.*

Egun laburrezko lañopean
mendi gallurrak edurrez makur
soñekotzen asi diranean
urteak, agur dagisku, agur!

Ezinbiziaren atzamarpean
gose-gorrotozko ereinkari
etsipena dario munduari
zer gertatuko zalantzapean.

Ta gure bizi-osertzak illun
odei baltzez sugarretan dagoz
benetan negargarri ta itun
asarretasunezko betoskoz.

Jaio dan unetxu Jainkoari
zer otoi, zer eskari egingo
dautsegu ta guk zer eskeñiko
urte barriko lagun-arteari?

Zer dopaltzegu geure buruari?
Ondasunezko etorbidea
ala maitasuna ta bakea?
Zer gure euskera ta erriari?

## UDABARRI BIRBIZTUA**

Udabarri birbiztua
bizitzaren abeslari,
loraburuz edertua
ari zaigu agurkari
berein margoz agertua.

* *Esk.* XXIII, 54. (c. 1985).
** *Esk.* XXIII, 58. (c. 1985).

Ara egunak luzatzen
ainbat txintada anotsez
kabiak ere egiten,
berebiziko egatzez
norabideak aurkitzen.

Maitasun agerkundezko
ernamin, bizi-zantzoa;
amets eskeintzapenezko
ustekizun bete-betezko
indar barrien moltzoa.

Bizitzadun ikarea
bazterretan zoragarri;
inguma ta bai erlea
egoetan ain ikusgarri
zabalduz bizitz atea.

Bizitza ariñarena
ta, baita aztunarena.
Bizitza lasterrarena
ta, ain igeskorrarena.
Guztion bizitzarena!

## OLDOZKETA**

Nik lur emankorretan
oldozten neban
aize osasungarri
arnasgarrietan
oldozten neban

bizitzaren aldezko
ederrezko gauzetan
maitasun barrutiko
alkartze laztanetan
oldozten neban

neure udabarriko
egurats-aldi orlegi ezetsuetan
baso, landa, zelaiak ikusgarrizko
gora-nai loratsuz jantzi ziranean
eta zure begietan
maite-dirdira sutsuak sumatzean
bizia ori zala
oldoztu neban,
oartuz zenbat bitxikeri lan dagon
orri txiki bakar baten egituran
zenbat lan izadiko
izate bakoitzean
oldoztu neban,
ta oldoztu neban oldoztu neikela

ta amets egin neikela ta nai izan
ta oldeztu neban bizitza au zala
azkortzea
emen jo an maitatu
aurrera joatea
ibiltea.
Baña esaten dauskuenean ezetz
eta agintzen dauskuenean ezetz
eta ilten gaituenean be ezetz
orain eztakit
eztot oldozten
ezin dot oldoz
ezin dot orain.

** *Esk.* XXIII, 60-61. (c. 1985).

## OLDOZKUN BALTZEZKO GABEAN*

Bizitzea
amets egiteko
izanik,
eriotzea
ez al da
benetan artzeko
elpidea?

Oldozkun
baltzezko
gabean,
ixilguneak
gogo
betillun
dagoz,
olaturik
olaturako
soñanzki
bustiaren
bitartean.

Itsaso aundi
sakonaren
baltzuneak
betikozko
igitzearen
zadorrezko
altzo,
magal bizi
dardaratiaren
geldurapean
zalantzati.

* *Esk.* XXIII, 63. (c. 1985).

## GOIZAREN BARRUZ*

Geraka, ugiñik ugiñera
aunditasun zadortsuz betea,
aizearen gogo, eragiñera,
urduri dakusgu ur kresala,
zidar apartsuetan brintzatua
ta, zabalduz bere elbidea
arkaitzen gaiñez ta, ondarrera
eroanik bere goi ikutua...

Goizaren barruz ¡bai edergarri!
neska bat dakusgu igon gura
itxas-oroldi bustidun arri
erpin ta aundi baten gaiñera;
ari da bai, batetik bestera
ainbat alegin eder egiten
baiña, nundik igo billatuarren
luze-luze iausi da lurrera...

Ingurukoen barre algara!
Antxetak, elai, karramarruak
ta, alako itxas pottorruak...
neskatxa orren nai ta eziñaz
danak, berialaxe oartu dira
aren itxura eder liraiñaz...
danak adi egonik, kolkuak
taupaka, neskatxari begira.

Oroldi irristakor, labanak,
neskeari ez dautso arkaitzera
igoteko biderik errezten;
alan be, nai ori betetzera
barruko egarri, sutasunak
daragitso ta, gero, bein baten
bereganatzeko eguzkiaren
ta aizearen kresaltasunak...

Eguskiz, egun argi zabala
ederrik datza, odei arinpez,
amets urdiñezko eskeintzetan
eguerdi bizia zeintzen dala
kaioen oiu, elai egoetan,
zabalduz gero, poz atsegiñez
itxaropenezlo osertzetan
Maitasunaren abots iaukala.

---

* *Esk*. XXIII, 222. (c. 1985). (Olerki ia bardiña,ik. 712.orr.).

## ITXAS BIRIBILKETA*

Itzi bai, itzi, zugana eldu nadin,
zure urdin ta arrez, dantza-dantzari,
ta, olatu ganeko bits, aparrakin
oialki bat eratzeko ikusgarri[a].

Emoidazuz ur biziak ta argiak,
ta, itzi, ur-bidez jolastu gaitezen
bikote antzera, bai an ta, bai[b] emen,
borobiltzeko gure ibillaldiak.

Zerutar girgil[c] urdiñaren antzera
inguratu nagizu ta, gabiltzan bada
biribilketari, ugin arabera,
ta, gogo onez, alai, biok biotara.

Ni, beti, zure Maritxu izango naiz
eta zu, nire Perutxu begi urdin,
niganatzen ba-zara maitasun garbiz
gure bizia alkarganatu[d] dedin.

Itxasoa urdin-arre, zerua oztin,
zidarrezko apar zurien artean
dantzatuko gara, ederrik ta arin,
uraren bizitasunpe maitalean[e].

---

* *Esk*. XXIV, 137 (*C*); *Esk*. XXIV, 41 (*B*); *Esk*. XIX, 1 (*A*). (c. 1985).
[a] oialki bat eratzeko ikusgarri *B* tul-oial bat eratzeko zuri-zuri; *A* oial bat eratzeko legun ta zuri [b] bai an ta,
(Beste ezbardintasun batzuk ere baditu: utzi-itzi, emoidazu-emaidazu...).
ganeko apar besarkadapean; *A* ur ganeko apar, legundurapean
(Beste ezbardintasun batzuk ere baditu: utzi-itzi, emoidazu-emaidazu...).

## MUNDUKO TXIKIAREN AUNDIA EDOTA MUNDUKO AUNDIAREN TXIKIA*

Munduko txikiaren aundia,
munduko aundiaren txikia
or datza, goiberaka,
agirian, ezkutuan,
iauzika...
goiz eta arratsean,
betikozko ekintza ikutupean.
Lurraren barruan,
eta azalean.
Ixilka ta zaratatsu,
izate beraren
iatorrizko
ariaren arizko
arira...

Egoan, loran,
berein margozko
eraturapean;
etengabeko
aldaketaren aldaketazko
aldi-uneko
igidurapean.

Ariketa zadortsuaren
goiberatze neurtuaren
bizi-legezko
azal ta barruko
betiko etorri
eta ioanari
lotzen gaitun
«Zer»-aren
ezin zertuzko
gau-egunen zadorpean
oreturiko
betiraun betiraunezko
ibili gazigezaren
itzal-argidun
igarotzearen
zeraren zerezko
ingurune baltza.

* *Esk*. XLIV, 80. (c. 1985)

## AURKEZPEN BIRIBILLA*

Ta itzultzen naz
neure urteakaz
asierako
urtenaldi
ber-bertara.

Ni itzal menpetzeko asmotan
ekin ta ekin
gogor ari dan
lañozko obo
birunda oni barre dagitzat.

Baña barre egin
nire odolaren
laño igarankor orri buruz
egiten dot nik.

Ta neure barreaz
itzuli noa
urteerako leku ber-bertara
betikozko
birundaen ikaragarrizko
ixillaren
magalera.

## SEMEAK EGIN NEUTSOZAN GABARI**

Atzoko, gaurko eta biarko
arginabarrean jaioko ziran
ustetan,
semeak egin neutsozan gabari,
emen, an;
berein eskuzko alorretan
bear izan ezkero, gogai, ukubil,
abots, poema bat
emen, an...

Eztakit denporarik izango dodan
nik geien nai dodana egiteko
esku guztiak laztandu,
irribarreari irribarrez erantzun,
batzuen ugaritasuna banandu,
geientsuenen miseria lurperatu,
denporeaz aztu,
aizeari emon biotza,
egoak zabaldu,
gogoa biziratu...

Baiña ezin dot ukatu
ba-dodala denporea
dana egiteko,
al dodan dana
urkoratzeko.

---

* *Esk.* XLIV, 82. (c. 1985).
** *Esk.* XLIV, 83. (c. 1985).

## BAKEZKO GENTZADURAPEAN*

Izan, auxe da mendiaren sena edo biotza:
zugaitzak, errekak, ingumatxo pinpiriñak;
ezku ixiltsuz goituriko abar otsa,
gelgarritasunezko egon-aldi sorgiñak.

Zozoak abes dagi. Armiarma berak ere
egiten diardu garaipen sarea, ederrik,
ta, gauzaen gogoa nabaitzen da bizirik
samurdurazko itzalpean kutun ta maite!

Izantza biotz orretan dan-dana pilpiratzen
da-ta, gogoak bear dun eresia daurki
betikotasunezko mintzoz ederberatzen.

Aingeru batek begiak itxiko baleuskit
oraintxe etzungo litz nire soiña, laztanki.
bakezko gentzadurapean betikoturik.

* *Esk*. XLIV, 84. (c. 1985).

# «BIZITZAZKO GOGAPENEZ»

## (1985)*

* *Esk.* IX. XI.Azkue Sariketara bialdutako olerkiak. 1985.

## SARRERA *

Bakoitza bere erara
bizi da. Batzuk urrera,
diru utsera begira,
bere aunditasunera.

Nik ezer ez diran gauzak
sartzen dodaz bai zorroan,
ametseko ondasunak
ganezka neure kolkoan.

* *Esk.* IX, 1.

## SU BARIK...*

Su barik ezta kerik
diño euskal esakun zar batek
ta, sua biztu al izateko
suzotzen bat edo, orrelako
txispadun sugaillu bat bearko,
sua egin nai badau norbaitek.

Sukarria sukarriz
ta, egurra egurraz berotu
su-txispak sortaraziz,
aizeaz gero, indar-sugartu,
aintziñako irudiz
bai, ori ba-dakigu...

Baña, bizitzan be, argigai bat
bera da bai; maitetasunezko
txingarra edo, ben-benetako
sugardun gogo, izpiritu bat
lizunkiro barruraturiko
griña ustelei ta txarkerieri
atara-bide bat emoteko
loikeriz endekatutzen gaitun
ke baltz itogarriari.

## PAPER ZURIA**

Berbakaz bete bear dot bai,
argiro idaztera noan
paper zuri au. Baña, berton
zer esan, zer idatz neike, zer
ederrik, argi ta sakon,
zer biotztasun itz ta gogai,
zer oldozkun bero-beroan
biotza baldin ba-daukat iger?

Zer jarriko dot ene anai
mundu onen ezin bizizko
abiadan zerbait alaitzeko,
zer itxaropendun sendakai?
Zer amets osatu neike nik,
zer esan neike, zer? Egunon
ala illunago dan Gabon?
Zer, mindura ez lekarkenik?

Alorrak (arantza ta sasi)
larratua ba-dakust dana...
Ai!, zer erein neinke, zer azi,
ondasuna lekarkidana?

Zer egin neike esku utsik
ez ba-dot biotza ta burua
maitasunean sustraitua
jakituri tantaz gaindurik?

* *Esk.* IX, 2.
** *Esk.* IX, 3.

## ON ETA ESKERGARRI*

On eta eskergarri da bai
begiak argiz, osasunaz
txori txintaria bezin alai
lotaldi ondoren, egunaz
norbera dan ni au, bizirik
gogo onez itzartutzea.

Benetan pozgarria da bai
eskuak, begiak, oiñak ikututzea
eta, geure atzamarrakaz
bizi garala sentitzea
itxaropena edaturik
begipeturiko goizagaz.

Pozgarria da bai benetan
bizi garala nabaitutzea
gure biotzaren taupadetan
egun barri bat arnasturik
pozgarri da norberatzea
jarraitutzeko amesetan.

Eskuak, begiak, oiñak ikututzea
pozgarria da bai benetan,
osasunaz ta onik eguneratzea
bizia nabaituz zanetan
on eta eskergarria da bai
bein eta barriro oñak bideratzea.

* *Esk.* IX, 4.

## ERIOTZAPETURIKO EGUNA*

Eriotzapeturiko eguna gora dator
urrundu-aziz gauberazko itzal illuna,
eguzki bitartez ta aizean urrumakor
edatuz zabal gabak ondutako lurruna.

Udabarritar eskeintzapenen arabera
edota aldiko uda, udazken, negutez
egunaren luze ta laburra negurtzen[a] da
zorioneko[b] lurrin edo arantzape latzez.

Egunaren une oro zeruz dira banatzen
beren bizi-ikutuzko kutsadura baltzez,
beren goi-arnasazko izpi legun, ederrez,
danak dira bai egunaz batera aldentzen.

An dagoz itxaroten eriotzaren kateak
betiraunezko galtzairu me eten-eziñez,
ain gogorkiro eratu dauzanak balbeak
beren gauezko ezkutupe ta eragiñez.

Gora dator egun bat ta gora bai beste bat,
egunik egunerako ondoriotasunez;
ta, egun batean artuko zaitu beretzat,
beren besarkada laztantsu, maitekorrenez.

Betiraunezko gaupe ixillaren ixillak
babestuko zaitu eresirik ixillenez,
betikozko atseden baretsu ederrenez
ernaldurik gau sakonaren[c] zil, erespillak.

* *Esk.* IX (*B*); *Esk.* XXI, 59 (*A*).
[a] negurtzen *A* neurtu oi [b] zorioneko *A* zoriondun [c] ernaldurik gau sakonaren *A* ernaminduz beren gauezko

## ETENBAKO ALKAR-JANA*

Ago zabalik gengozan
gure begien betetzez
bizia eder zorakor
biotzeratu gendunean
bata-bestezko ametsez.

Geurez bizi, alikatzen
ta ederberatzen giñan
zure-nirezkoz, alkarkor,
begien ikusi-alan
maitasunez begiratzen.

Arrigarrizko ereintza
gure zeruzko lurrean,
berez-berez, ain eztikor
erne zana bein batean
eze ta mardul goirantza.

A zan bai, begiz-begizko
etenbako alkar-jana,
sugartsu ta laztankor
dirdira bizi-bizizko
argiz betikotu zana!

---

* *Esk.* IX, 6.

## OLERKIARI*

Zure itxasoz nabil azkerik ta lotua
arraiña uretan lez, bizi naiz ta naiz iltzen,
neure oial-ontziaren zori, alabearraren
menean, ugarte antzera inguratua.

Egunak ondotik bazter, urruntzen ba-zaitu
beren galtzairuzko ago ain zorrotz zorrotzez,
gabak itzultzen daust zure izar argitsu
eder-ederra beren dizdira zorakorrez.

Batzuetan urruntzen naiz bai, arro ta zeken,
zure erlontzietatik neure erlontzietara
entzungor egiñaz zure eresiei bein baten.

Orduan erretzen dauan sugarra zara zu
ta, jakitean egarriz nagola, bertara
zure iturburu ur gardena dakartazu.

## ITXASOARI**

Nire olerkiaren gallurretik entzuten
dautzut, oi, itxas egakor, lotura bakoa:
nire entzumenean zure abesak, beren
argi zirriztadez izten dau, beren soa.

Zure ots-kidetasun barrukoi, sakonean,
zerua, arraiña lez, murgil, urperatu da
ta zeure bakartasunez zagoz zaurituta
egunaren biotza zugantzen dan bitartean.

Itzulera bako bideak dira zure ibaiak.
Zure olatuak dabiltza lurraren biran
batzutan gallur, menditurik zure zelaiak.

Gogorra zara batzutan, bigun ta barea,
euskal kresalezko itxas barruti onetan
neure biotzeko ur bizi, itxaso maitea!

---

* *Esk*. IX, 7.
** *Esk*. IX, 8. (1985-VII-31).

## BIZITZAN AURRERA GOAZENEAN*

Bizitzan aurrera goazenean
dan-dana gelditzen iaku[a] urrun,
dan-dana, eriotza ezik, atzean,
datorrelarik ixiltsu, urrun[b],
gure lorratzen jarraipenean
geroago ta urbil, beartuago.

Aldiberako gure joanean
iltzen dira bai amets gurenak;
an gelditzen dira urrunean
aurtzaroa ta oroitzapenak,
murgilduta an[c], osin baltzean,
geroago-ta, ez-ezagunago!

## BARRUKO NEGUA**

Mendi gallurrak ta zelaiak ere
edurrezko soñanzki garbi, zuriz
ederrik, apain dakusguzanarren
ikusgarrizko izara, maindire
argi ori, negu illun baltzaren
lei ta izotz estaldura latz garriz
betea dago eguzkirik gabe...

Baltza da negua aize baltzez
ta otzakilduraz dardaratua
datorrenean aren ikutua
aurkitu ezkero esku utsez;
baltza da negua dakusgunean
izara zuriaren miseripean
gosetez nabarturiko lorratzez...

---

* *Esk.* IX, 9 (*B*); *Esk.* XXIV, 106 (*A*).
[a] dan-dana gelditzen yaku *A* dana gelditzen yaku an [b] ixiltsu, urrun *A* ixil ta illun [c] murgilduta an *A* ondoratuta
** *Esk.* IX, 10.

Baiña, alan ere okerragoa
baltzagoa da bai, illunagoa,
erabat oraindik gordiñagoa
bakoitzaren arimatar negua,
maitasun bako bakartadezkoa
bazterdu izan ba-da Jaungoikua.

## BIDEAN AL GAGOZ? *

Ba-goaz, ba-goaz..

Bidean al gagoz
bide zuzenean?
Benetako gogoz,
benetako asmoz
egiazko bidean?

Nik, nik eta, zuk, zuk...
Zelako araudiaz
autu dozu zeure eguzkia
zeure azi ona
ta, zelako begiaz
begiratu dozu
zeure elburu ta etorkia,
zelako graziaz
zeure egun aurreragarria
egun egokia?

Ba-goaz, ba-goaz...
Zelako asmoaz
zelako gogoaz?

---

* *Esk.* IX, 11.

## UDABARRIA ILL ORDUKO*

Udabarria ill orduko jaso abotsa,
udabarria ill ta lurperatu orduko.
Abotsik gabe ez egon errerik ta geldo,
arantzaz zulatuz eukiarren zeure biotza.

Artu zeure bidezorro aztun ta laztana,
artu gizonaren bakartadea, ta bideko
lagun izan oi dogun neke ta, aldioroko
atsegin apurra, gizonki jasorik dana.

Biziz Eriotz bakoitzaren geiketa bat da
ta, artu zeure bidegurutza ta zoaz bai,
zoaz itxaropentsu, gogoz, zeure landara.

Urten burrukara. Bizitzako alorrera.
Zoaz argira neke oroen lepoz, alai,
zoaz arduratsu bidean gora, aurrera.

## OROITZAPEN GOMUTAKIA **

Oroitzapen oro biziak emondakoz
datorkigu ta, aldi beraren soñekoz.
Oroitzapenak gure odol barruz datoz,
izatearen biribilketa ta zortzikoz.
Oroitzapenak aizto zorrotzak, arantzak
dira, ur-gazidun olatu-goiberantzak!

Baña batzuetan sortzen dira, ederrik,
eguzkiaren agur gozozko dizdirakaz
maitasun-lorak, lurrin eztiz beterik;
laztandurazko gogaketazko irudiak
sortzen dira, urre-zidardun loturakaz,
ameskizun igestarietan gorpuzturik!

* *Esk.* IX, 12.
** *Esk.* IX, 13.

Bai lazgarria batzuetan oroitzapen bat!
Bai zaztakada zaurikorra berarena!
Bai zorrotza aren ezpataren eztena!
Bai sugar latza arek erretakoarentzat!
Bai gogorra arek joten dun arriarena!

Orregatik urrun baztertzen dogu leena,
igarandakoa laño baltzaz dezabatuz.
Ta, sartzen gara datozen egun barrena,
beste amets-etorki batzuk bururatuz,
aztutzeko aldi gaiztoaren oroimena.

Baña, beti gelditzen da oroitzapen bat
ondo gorderiko ezkuturen batean,
urteak itzal ezin daben autserrepean
atzoko sugarraren zorioneko txinpart!

## NABAITZEN AL DOZU?*

Nabaitzen al dozu
ainbat ta ainbaten
gosezko marruma
ta, ortik gorako
oñaze-ikutu
ondorio baltzaren
mundu zabaleko
negar erresuma?

Ez zaitez urrundu
ezer ezpalitz lez,
ez-ikusi otzez...
Ez zaitez barrendu
gogo itzalezko,
gogo makalezko
begitze utsalez,
ez zaitez baztertu.

Eroan egiozu
lanaren poza,
ori al izanik.
Eta, ezpadozu
aberastasunik,
ezpadozu ezer
emon al dozuna,
emon zeure biotza,
zeure maitasuna,
emon amar bider,
emon, al dozuna.

* *Esk.* IX, 14.

## NEGAR IKUSPEGIZ*

Negar ikuspegiz, illunduran
erdibitua dakusgu mundua,
laterri arteko burrukatan
ta, lanik ezak erre-mindua.

Zenbat odol ta zenbat latzdura,
zenbat asarrekuntza ta zauri,
zenbat ta zenbat negar-iturri,
begipeko neke-itundura!

Sasi-larrak lez ugaritu da
drogaren eragin, esparrua,
kutsatu egin da ingurua
gizarteratuz ainbat malura.

Ixilkari, zomorro-zomorro,
aurrera doa gaitza, nabarmen,
aize egoa bera bezin arro
eztena sartuz an eta emen.

Lotsabako giza-ekandupez
indarkeria ta gorrotoa
edatu dira mundu zabalez
galdu-aziz ainbesteren loa.

Berbak subekerizko katean
gogortadaz dabiltza ergel,
gizonaren guzur egalpean
orban ta loiduraz garratz, ustel.

Zenbat ate ainbat maratilla
ta, zenbat buru ainbat aburu.
Auxen gure arteko naspilla!
Zelan zuzen, azkatu daikegu?

Lenago ta bein maitasunaren
azi on ta ugalkorra erein;
zabaldu biotzaren, argiaren
ateak, izanaz egiaren otsein.

Zuzentasun elburu barrutiz
norbere burua egokitu
ta, benetako gogo egiatiz
alik alai ederren zoritu.

Gure irripar, gure laguntza
eroan maitez, lagun artera;
eroan alorrera, kalera,
zuzenbidezko ardurakuntza.

Zabaldu bizi-poza, eroan
eskuetara eta begietara,
itxaropenez lau aizetara
beren eguzkitasun osoan.

---

* *Esk.* IX, 15-16.

## AIZEAK DAROAZAN ODEIAK LEZ*

Aizeak daroazan odeiak lez
bizia igaroz, aurrera doa,
igaroz doa bizia
beren betiko aldatzez
lurreratzen diran orbelak lez
ta itzultzerik ez daukan
igaro bear itunez.

Joan doa bai guztia
berein gertaera alda-bidez
ta, ni be bai, ni be joan noa
igaranezko ur, iturria,
joan noa neure gogo, biotzez
etzateko egunen batean,
lurrera datozen orbelak lez
bizibera leporatu diran
argi-izpi ta orbanez.

## MAITEZKO BAIETZA**

Eguna zabalkeran, lenego argi izpiz
txori txintadakaz txirrizt egiterakoan,
baserri ingurua ezetasun goikariz
Udalen usaintsuz loraburutzen danean...

Bizia biziratzen da leitasun betean
orriz-orrizko aize-mintzaira pozkorrez,
neska-mutillak lez, begietako sugarrean
autortzen diralarik maitasun laztankorrez.

Dana da gorakundezko izate-egarri
landaretan lez errotua biotz-barruetan,
gurarizko erakutsi sendoz, arrigarri!

Bai, argia da, itxaropen, bizi-ametsa,
guraritzen dan bikote agerpenetan
zoro-zoro, aupatzen dan maitezko baietza.

---

* *Esk.* IX, 17.
** *Esk.* IX, 18.

## MAITASUNAREN AURREAN*

Ameskizunen itsasoz nabil itsaskari
oial bako zure ontziaz ta, nabil itsu,
zure eguzkien zerutar izpiz, urduri
nabil urdiñez jantzia, olatuz olatu.

Maitasun, maitasun, zure indarrak naroa
zure bakartade bakarra izanik lagun,
zure doñu lillurapean geituz gogoa
zoragarrizko eraginpean, laztan, kutun.

Eten nai neuke bai, zure kateen lotura
baña, nire besoak auldu egin daustazuz,
nabaria izanik sortzen dan garramura.

Maitasun, maitasun, zaitut t'ezaitut nabaitzen
nun-naiko aize antzera, geldiko ikutuz,
baña, sendoro darrai aunditzen, indar artzen.

## LOREA**

Udabarri jantziz ain sorgintsu
ikusten al dozu lora ori
ta, bestea ere, antzeratsu,
ain bitxi ta eder, ikusgarri
dirdiraz betea, ain goratsu,
benetan zut ta atsegingarri?

Emen izan edota an izan,
lorak politak dira benetan
margo bizi atsegingarrietan
datozenak gure begietara
loraburu lilluragarrietan,
biotzak usain gozoz laztantzera.

* *Esk.* IX, 19.
** *Esk.* IX, 20.

Baña, ordea, tamalez, euren
zoragarrizko soñanzkidura
ikusgarri bitxi-eder orren
ain atsegiñezko eratura
eder orren biotz barruan,
eriotzak ots dagi, zimeldura
abotsezko orban illuntsuan
ots dagi, eder orren azpian.

## URRUNTASUNA*

Urrunago, geroago ta, urrun-urrunago,
urrunez bizi gara, auzokoak izan-arren;
urrun bizi gara, bai etxeko, bai auzoko,
bakartadezko barruti norberakoi baten.

Itxurazko lagun, itxurazko adizkide,
erosokerizko aurrerapenen artean;
bakoitza bere buruaren lagun ta senide,
(otz eta motz), gizarteko artu-emonean.

Irripar dagitzut ta, irripar dagidazu
ta, bakezko deituraz, iakintsuek, jo ta ke,
dakusguz lergaillu barriak asmatzen, itsu.

Bearbada geroko gizonek, alkartuago
anaikorrago bizitzea, bai, ba-leiteke
ondamendiz gero, autspean ezer ba-lego.

---

* *Esk.* IX, 21.

## IBILIZKOZ*

Ibilizkoz nabil
otoika biziari
ameskor, txoratil,
egun bakoitzari.

Olaztaz olazta
itsas urdin arrez,
urari laztanka
biotz sentikorrez.

Ibili, ibili
euzkotar txapelez,
argi eta garbi
ur sakon, azalez...

Ibil ta ikasi,
bizia ikaste
bat danez, beti,
azken amairarte.

Ipar eta Egoz,
itsaso ta erriz
ibili bai, gogoz,
ibili ongarriz.

On-ederra jaso
euzki ta illargiz,
une bakoitzeko
ikutu goigarriz.

Ez itxi buruari
berea egiten;
ugin makurrari
goregi igoten.

## UDABARRIKO LOREA**

Beren usai, margoetan,
eder-ederrik ta lerden,
udabarriko lorea
gure begi ninietan
poz-pozik dogu laztantzen
dalako ain dotorea.

Poz-pozik dogu usaitzen
udabarriko lorea.

Ederra da bai, benetan,
udabarriko lorea
beren usai ta margoetan,
baiña, nire gogamenez
ta, biotzaren ikustez
ederrago da ordea
begi urdin bizietan

* *Esk*. IX, 22.
** *Esk*. IX, 23.

dizdiratsu agertzen dan
maitearen begiradea
bere eskeintzapenetan.

## JOSTAKETA*

Itxasoko urez ta mendi ganez
berebiziko gentzaduraz, eder,
beren zillarrezko arpei zurbillez
illargia gau-bidez dator, laster.

Amaikak, amabiak ta, ordu bata...
Gaur gabean izarrez dirdaituta
ene maite! Emen nator zugana
sugartzeko zure irudimena.

Oi illargi sorgintsu, illargitxu!
Udako egutaro emez, bipil,
atoz bai illargi zuri sorgintsu,
atoz leio-barrena, ixil-mixil...

Jolastu zaitez, jolastu nerekin
arpegi zurbildun maitari sorgin!
Jolastu zaitez bai, alai, pinpirin,
izarpez ereindako ametsakin.

Ordu bata, ordu biak, irurak...
Oso berandu da-ta, illargiak
ezetz diño bai, ezetz, logureak
artuta, illargi igestariak.

Baña, laster agertuko zan arro
euzkia, an, goramin, mendi ostez
egunari dei ta dei, kukumarro,
goizaldeko ollar-abots gangarrez.

Ta, laztankiro, kutun, maitekari...
Ordun, bai, bidenabar jolastu zan,
jolastu, txoriekaz alai, kantari,
goizaldeko arginabar leunean.

---

* *Esk*. IX, 24.

## ALDIBERA*

Aldibera
unez une,
nik sortu-ala
aizeari
damotzadaz nerue
oldozkun ale
garaun batzuk
eta aizeak
bereala
urbil edota
urrun-urrun
daroaz
beren ortzitar
esku zabaletan
eta, nik
ikusirik
aidean
zelan doazen,
irrintzi
pozgarri
alai bat dantzut
bizi-bizi
neure ametsaren
gogoaren
barru-barrun.

## BIZI DIRDIRAN*

Eguzkia dilindan
goizeko intzetan;
orri[a] orlegietan
bizia dirdiran.

Udabarriz lorak
landa, zelaietan;
maitezko ikaraka
begi urdurietan.

Mintzo ixilletan
begiak alkarrez,
gogo eta biotzez,
begiak begietan.

Biotzetik biotzera
maitasun beroak;
itz bako gurkera,
begiratze[b] eroak.

---

* *Esk*. IX, 25.
* *Esk*. IX, 26 (*B*); *Esk*. XXII, 31 (*A*).
[a] orri *A* osto [b] begiratze *A* begiratzea

Bizitzako une
itxarogarriak;
biotz zabalgune
deituragarriak.

Itz bako agerkai,
aldiko sugarrak;
argibide alai,
maitezko abarrak.

## IZADIAREKIKO MAITASUNAZ*

Zugaitz euriztatua
astintzen ba-dozu
lur gaiñean izarrak
dira txirristatzen.

Igalia aginkatu
eta berak emoten dautzu
gozotasunezko atala,
ori izanarren
aren eriotza.

Zelatan zagozan txoriak
or izten dautzu zure
dunbatekoaren ordez
abestiaren oparia.

Illargi ta izar bako
gau illunean,
ipurtargiek, dirdari,
eundaka bider
zulatzen dabe bai, zure
gerizetearen bildurra.

Emengo ta ango miña.
Desegiten ari gara,
desegiten gure lurra
baiña, beti izango da,
tokiren bat atsegiña
arintzeko gure lorra.

* *Esk.* IX, 27; (*Esk.* XXII, 64).

## ZURE IZENA*

Agertu nairik neure maitasuna
izarrak entzungo ebelakoan
oiukatu neuntsen zure izena
baiña, urrundietara eroandako
abotsa beti da aantzitasuna
ta, ortzi zear, iges egindako
ixiltasun utsaren gortasuna.

Bizitza iokoa lez, aldakorra
da, erabat atsegin edo latza,
erantzun iakiñiz ez dun itauna,
ezin arilduriko zadorra,
betiko gabak estaltzen dabena,
amaika amets galduren zaborra
bizi-ats etsipengarri, ituna.

## BIZIA**

Bizia berez latza, garratza
askotan gertatzen danarren,
gaurik illunena bezin baltza
ta, eriotzatua egonarren...

Biziak danik okerrenean
ainbat eta ainbat gaiztakeri
etsipenduraz txarkituriko
igaropen aztun, nekegarri
ta, bizi-ezin gogorrenean
bere, ba-ditu biotz urbegi
atsegin, gogo, edangarriak,
itxaropenez gaindituriko
atseden-leku zoragarriak.

Gogo zindoaren sustrai sendozko
eratasun on, jasangarriak;
bizi-izate baten zentzuzko
zugaitz-adar argiragarriak.

* *Esk.* IX, 28.
** *Esk.* IX, 29.

## EURIZKO ARRATSALDEA*

Eurizko arratsalde
epel-arrea,
itunduraz betea;
ura urtu, zirindua dator bai, emen,
ta, nabaitzen dot neure
gogo-barruan, ixilki, nagositzen[a].

Euria geldiro dator, bertanbera[b] jausiz,
gure amets gaxoak jausten diran lez
gogoan, beren zinkurin ots ixillez[c],
adarren udazken antzeko orban agiriz[d].

Etxarteko lokatzaren estuasunean
il-zoriz dagoz ur-tantatxu basatuak,
lokatza ta obena izanik berean
ur ta doai ondatzalle benetakuak.

Zenbat ur tanta eder alperrikalduak
ibaiko olasta gelkor ta otzanetan!
Iainkoaren doai gardena, orbanduak
gizonaren ibillizko urpe nastuetan.

Euri tantak, ezekiro adaburuetan,
ugalmena lur-aozabal kiskalgarrian
gantzutuko diranak goiz argidirian
lora zabalduen lurrin amesgarrietan.

Egurats itundurape bigun artean
ixuriz darrai zeruak bere altxorra,
lora ta lokatz, ibai ta zugatz artean,
oben ta itxaropen, loi ta nai baikorra.

Eurizko arratsalde
epel arrea[e],
itunduraz betea;
ura, —ezetasun, onespen ta doaia,—
gardenkiro biotz-barruratu da nigan.

---

* *Esk.* IX, 30 (*B*); *Esk.* XXII, 122 (*A*).
[a] ixilki, nagositzen *A* ixil-ixil jausten [b] geldiko dator, bertanbera *A* eroriz dator, geldiro [c] ots ixillez *A* ixil itzalez [d] antzeko orban agiriz *A* sukar-antzeko zoriz [e] arrea *A* arre

## ERLEAK*

Erleak erle,
burrundari
dabiltza
larrez larre,
landaz landa
etengabe.

Ta, lorarik lora
maiteka,
lorazko eresi
biurtu dira.

Bein ta bost bider
eztigai billa
dira edatzen,
landa, alorrak
lora burutzen
diranean eder
sasi ta larrak.

Alkar lanean
dira zabaltzen,
leiatsu, lander,
ezti gozoaren,
argizariaren
zaletasunean.

## JOALE OTSAK**

Zabaldia galdurik
astiro mendian gora,
joale otsak datoztaz
urruneko ibarretik.

Intziri itunak dira
isturan eortzirik;
legun datozan erostak
beste ludi batetik.

Joan iataz utsean
itxaropen zoroak
ta, gaur nire amesak
galdu dabez egoak.

Maitasuna erail daust
aldiaren lañoak,
ixil daridazala
oroitzapen malkoak.

Baratxe sartzen iataz
zabaldiko bakean
joalearen negarrak
biotzaren samiñean.

Lore zimelak dira
joandako urrunean
asperen isuriak
maitasuna agortzean.

---

* *Esk.* IX, 31.
** *Esk.* IX, 32.

## ZUGATZAK*

Billuts billutsik
dakustaz
zugatzak
negupean.

Narru gorrian
bein bateko
adar jantzien
soñuketa
ta goidurantzak.

Orraitio
zuztraiak
lurrean gogor
errotuak
baldin ba-dagoz
ez dira galduko
bizitzeko
esperantzak.

Udabarriko
eguzkiak
eta
euriak
sortuko
ditu
orri barriak.

## POEMATXO BAT TRISTURAKIZUN BATENTZAKO*

Gaur egun, guztiz nabarmen
nabaitzen da gizartearen
barruko sentipen ori,
gaurko gaitz ain ezaguna
daukalarik gosearena,
baita kutsadurearena,
bizi ugaritzearena,
giza bakartadearena,
ezinbetezko naikeri
ta lotsabakokeriena.

Da, lañopean sartzea lez,
igiduradun osertzean
murgiltzea lez, bein batez
edo, baso illunean
galtzea lez, zugaitz artez.

Da, notintza aundi baten
ankapean galduriko
leiar baten irudia
edo, eremu aundiaren
erdian oiukatu dan
dei biziaren, karraxiaren
ixiltasun latzgarria...

* *Esk*. IX, 33. (Ik. 744.orr.).
* *Esk*. IX, 33.

Da, gogo itun, bakun,
an bakoitzaren barruan
bakartadepe itsuan
galdu dan abots kutuna.

## EGUNAK DAGOZ*

Egunak dagoz bizitzan
il-zori, arrastaka diranak igarotzen
oñazezko oinkadak emonaz
gorputzetik dira jausten
euzki itzalien inguru jira-biraka
orrelako egunak dagoz
diranak igarotzen ezebezko utsean
euren betiko igaroz.

Ez da nigana etorri ala bai?
ixillean ondutako egun argi ori
beren benetako pilpiradapean
ez da etorri ala bai?
Eguna
begipetzen doguzan ikuspegien antzera
ez da gurea
aldiak ez dau ez jolastutzen gizonakaz

Sakondura aundienetik
azalenetatik
egunak iausi egiten dira
iausi
iausi
iausi

eta arein onduan
gure gorputz lertuak
gogo nekatuak
iausi egiten dira.

* *Esk*. IX, 35.

## BIZI ONTZIA ITSASOAN*

Zer dakigu geure buruari buruz
emen bai-gabiltza biziaren nekean
ainbeste amesetaren ikutuz
zorion eskuragaitz baten atzean?

Jaio... Ill... Ez ba, itaunik egin.
Bi gertakari besterik ez dira
itsaso erasotsu baten erdin
goiberadun olatu ibilira...

Eroaten izten gara itxarokoi,
ezagutzen ez doguzan indarrak
erasotzen ba-dauskue be, etsaikoi,
erabat makalduz gure sugarrak.

Ez bedi bizi-ontzia bidegetu
bakartadezko arkaitz gogorretan;
ez bedi etsipenak joa ondatu,
zadorraren ondar ain ezkutuetan.

Jarrai begi ontziak bere bidea
elburu bat emonaz endaitzari,
aurrerazko oldozkunez betea
oialak ertsiz aize okerrari.

## LOIKERIA**

Erantsiz gogoaren loikeria
goazen argitasunezko lekura,
garbitutzeko leporatzen iakun
alkar ikusi ezin ituzura,
eriotz ustelduraz lakar ta illun,
minkatz datorkigun lorrinkeria.

Toki emon, oldozkun, gogai zindoz
eltzen dan maitasunezko itzari
beren alkarbidezko laztan sendoz
bizi oñarritzen dabillanari,
egiazko argibide zabalagoz
itxaropena darion mintzoari.

---

* *Esk.* IX, 36.
** *Esk.* IX, 37.

Euskerea ez al da gure mintzoa?
lorrintzen ta zikintzen gabiltzana
ondatuz beren arnas betikoa
lurperatzen alegintzen garana
sendatu bearren aren biotzekoa,
aren muin ta eratura, dana.

Argiak jantzi begiz gure biotzak
anaitasunezko maite lokarriz,
ta, kendu gure zauri ta arantzak,
benetako larrosa naiz zitoriz
lora daitezen euskeldun baratzak
bizitzadun usain atsegingarriz.

## GAUZAEN IRAKAS-BIDEZ*

Aldizka utziz uria, kalea,
sakondurik[a] norberangoa,
atsegin alor, egurastea;
gauzaen izamen[b] bereizgarriz
bizitz goibeak nabaitzea,
aberastuz geure izangoa
gauzaen irakas-bide argiz.

Zer danetan aurkituz bizia
gauzaen gaiki[c] ta arimazko
atzerakizun ta zelangoa;
ur gardenaren ispilluan lez
begiratu geinke aurpegia,
gauzaen sorkunde, sustraigoa[d],
baso, mendi, naiz itsasoetako
bizitzaz itaunduz, zelan etez[e]...

Auznartu nairiko[f] egi ori
gugan datza, gure izatean:
begien aurrean ta oinpean,
alde guztietan erakuslari[g]:
udabarriko gorakundean
naiz[h] udazkenenko orbelpean
aizeak astinduta[i], urduri,
ain agiriko ezkutupean[j].

* *Esk.* IX, 38 (*B*); *Esk.* XXII, 73 (*A*).
[a] sakondurik *A* ta, sakonduz [b] izamen *A* izate [c] gaiki *A* eder [d] gauzaen sorkunde, sustraigoa *A* biziaren etorri, ioangoa (*lerro bi aurrerago*) [e] etez *A* ertzez [f] Auznartu nairiko *A* Gu billa gabiltzan [g] erakuslari *A* dirdirakari [h] naiz *A* ta [i] astinduta *A* astindua [j] ain agiriko ezkutupean *A* bizi-agertze ederrenean

## EGUN ARGIARENA*

Ze poza, ze poza egun argiarena
begipean bizi-mintzoz ikustean
beren usai gozo ezetasunpean
ederpetu diran ainbat lorarena!

Nundik norakoa ete eguzki argi
onen alor gañeko dirdirapena
eta, uretan bertan ain ikusgarri
ispillutzen dan goi-alde garbiarena?

Begiak ikusikoz asetzen dira
ainbeste gauza apalen goitasunez
biotzera datozenak, nire bizira
arrimenezko itaun ta oldozkunez.

Ez al da ba, emen, ederrik nabarri
bizitzari darion ezkutapenez
Iainkoaren eskua, ain arrigarri,
beren ixil-mintzozko aunditasunez?

* *Esk.* IX, 39.

## IRAUPENA*

Atzerabidezko eragiñez ni,
ta, lengoz lengo, barriro itzuli
ioan bear izango ba-nintzake
igarotako aintziñako neure
amets leku eder, zelaietara,
len ibilitako gogo urrundu
gogo zarraren igarozko leku
bizi-aldi igestu, ioanetara,
bearbada alaitasunez, pozez,
pozaren pozez eta gogo onez
zuzenduko, iasoko neuke biotza
neure gogo, neure lengo bizitza,
izandako leku berezietara.

Baña, gerta, gerta izan daiteke
zauriren bat; an, lotan, bertanbera
basterren baten, min-sor egotea
lengo su itzaliaren autserrepe
ezkutuan, txingar baten antzera,
oraindik bizirik an irautea,
aize nork emongotan, minbera.

## IRAUPENA**

Atzerabidezko eragiñez
(gogoz edo gogo barik) or ni
barriro itzuli
ioan bearko banintzake
an aintziñako nire
amets-leku eta zelaietara,
leen ibilitako
aintziñako neure gogo zarraren
bizitza igestu, ioanetara;
bearbada alaitasunez,
poztasunez bete-betea
eroango eta iasoko neuke
bai neure biotza
alako ni izandako
leku berezietara.

Baiña gerta daiteke
bere bidez ioandako
saminduraren bat
oraindik min-sor
eta, bertanbera,
autserrepeko
su itzaliaren
txingor baten antzera
autserrepean,
barruan antxe
bizirik irautea.

* *Esk.* IX, 40. Emen ere olerki baten idazkera bi.
** *Esk.* XXII, 75.

## ITXAROPEN EGINGARRIZ*

Zerua, zurizka-urdin,
odei gorriz tartetua
ta, itsasoan must dagin
eguzkiak agurtua...

Arratsaldea ba-doa
illargiak ordeztua
ta, ni be, beraz, ba-noa
illunak urduritua.

Illuntzeko ikuspegiz
lenengoko izarrakaz
kantari noa gau zuriz
biotzeko maitagarriakaz.

Agur-maiteka erriari
aurrera noa bidean
eskeñia neure ametsari
biotz taupada otsean.

Arantza zulagarriak
biotz barrutik atara
ta, ba-noa aizetara
billatuz sendagarriak.

Itxaropen egingarriz
aberriazko gogaketan
euskaldunezko Euzkadiz
nabil amets pozgarrietan.

---

* *Esk.* IX, 41.

## ORTZIA*

Izarren Aberria. Estalki igikorra,
mugatutzen dauana ortzi azkengabea.
Aingeruen zelaia. Itxas oztin baikorra,
olaturik bako makodun bakartadea.

Lurretik ain goi ta urrean zagozan ori;
mundu atsekabetua dozuna edertzen
jagitzen zaralarik txoriekaz txirulari
ta, odeiak be astindu ta aizebidetzen.

Oztintasun aundi-aundiz loratuta, argi,
zure edertasuna argazkitzen dun urak
beren gardentasun iturria zugan daurki.

Eguna zugan da laztankiro kulunkatzen
ta Gaba atsedenean dago artuta luak
murgilduta arrain antzera zu goraipatzen.

## BIZITZA BAT, POEMA BAT**

Bakoitzaren argi ta gogoz[a]
osasun ta zabaltasunez
edota, tristura illunez[b]
mundu bideetatik igaroz.

Bakoitzaren bizi, poema bat.
Bai ete da gero[c] lorratzik
izten ez dunik agiritzat
olatu arteko aparrik[d]?

Danok izten dogu atzean
neurtitzen bat, olerkiren bat,
bizitzako olatupean
oldozkun argi[e]-izpiren bat.

---

* *Esk*. IX, 42.
** *Esk*. IX, 43 (*B*); *Esk*. XXII, 57 (*A*).
[a] gogoz *A* lañoz [b] osasun — illunez *A* benetako alaitasunez/edo ituntasun makalez [c] gero *A* iñor [d] olatu arteko aparrik *A* zerbaitezko argi laztanik [e] argi *A* gogai

Esku alkartuen ikutu
maitetasun begiratuak,
une bizigarri goititu
baten agerkun[f] eztitsuak.

Euzki dirdira, oskorria,
udabarritar loraburu...;
Ori dana da olerkia,
amets guztien iturburu.

Izatez nire abestia
bizitza berarena da bai,
egungo arazoz josia
amaika nekeren agergai.

Elbururantz urreratzean
gure oinkadaen lorratza,
galdutzat damogu utsean
gure benetako oñatza[g].

Baña, zerbait geldituko da,
gure otoitz, gure arrena,
on egiñaren poztasuna[h]
maitezko lurrin, argimena[i].

---

[f] agerkun *A* biozkada [g] benetako oñatza *A* bizi-izpi urratsa [h] poztasuna *A* lorakuntza [i] argimena *A* egimena

## EURIA*

Euria maramara
an, tellatu ganetan;
euria kaleetan,
euria bai, mendian,
euria ibaietan.

Euria tanta lodiz,
euria sirimiriz;
euria bai garaztaz,
euria zaparradaz.

Euria aize otzez,
euria aize emez;
ta, euria goizean,
euria arratsean.

Euria eguzkiaren
otz epeltasunean,
edota illargiaren
goi zurbildurapean.

Euria malkoturik
begiko ninietan;
euria gatziturik
gure miñ oñazetan,
negar-itxasoturik.

## MAITASUNARI**

Begietan dirdari
ta, masaillak gorri,
lorara datorrenean
ameslari
beren usai ederrez
ezin aterik ertsi
maitetasunari.

Ezin aterik itxi
maitetasunari
bere larrosatasunez
lorara datorrenean
eguna bezin argi
udabarritar ametsez
ikusgarri[a].

Eta, lorak bezin polit
albo-alboka, ederrik,
or dabiltza
mitxeletak egazean
loraen ingurumari
or dabiltza
beren sorgindurapean
margotasunez beterik
ateak zabaldu nairik
ain goiz-goratsu datorren
maitetasunari[b].

---

* *Esk*. IX, 44 (Ik. 527.orr.).
** *Esk*. IX, 45 (*B*); *Esk*. XXII, 124 (*A*).
[a] ikusgarri *A* zoragarri [b] *Azkenengo 11 lerroak A'n ez dira agiri.*

## UDAZKENEKO ITUNDURAPEAN*

Udazkeneko itundurapean
begiratu zaitez, ikusi zaitez
zugaitzetatik lurreratutako
orri zimelen orbeldurapean.

Begiratu zaitez gogo ta biotzez,
eta, oldoztu, oldoztu, oldoztu...
zenbatzu bider ziran lurreratu
zure ameskizun eder gurenak...

Zenbat, zenbat bider ziran ondatu
zu zer zaranaren goidurapenak,
orriak lez, bizitzako ainbat urtez,
iges egindako itxaropenak!

## EMAZTEARI**

Gure maitasunezko begiztatze ondorioz
suaren, gatzaren arduradun egin ziñan;
etxeko andra, buru, sendi baten bizitzan,
orrek dakarren arazo, neke ta pozkarioz.

Bateratuak, biok diardugu bai, ekintzan,
gogoaz bestera gauzak iñoiz egiñarren
guk, egunean eguneango alkargintzan
biotzez diardugu, bidea ibilgarritzen.

Egun bat Udabarri ta urrengoa Negu,
Uda ta Udazken, loturazko egutaroz,
alkarraz darraigu buruz buru, eskuz esku,

Buruz buru, eskuz esku ta egunen zoriz
banatuko gaitun eriotzaraño, betikoz,
biotzik biotzerako geure bizi oni eutsiz.

---

* *Esk.* IX, 46.
** *Esk.* IX, 47.

## MENDIBIDEZ*

Egun onak naroan mendibidez dakustaz
zugatz buruak apal eta, errekak kantari,
basozale diran txorien egaztadakaz
osasun apur bat eskeñiz bideztiari.

Atzean gelditu da bai, erri ta urietan,
be-aldetako edentasun itogarria;
atzean ibaien ustel-ats lotsagarria,
olabidezko kutsadura eriogarrietan.

Gizonaren egitamu, ondorio lazgarri
aurrerapen bidez sorturiko ondamena,
izadiaren eta gizon beraren galgarri.

Ori dala-ta nator ainbat bider mendira
garo-sundazko itur ta, aize garbiarena,
egon-toki arnasgarriak diran bizira.

* *Esk.* IX, 48.

## DEIA*

Entzun egidazue zuok, arren...
Zuk eta arek, arek eta zuk
gaurko, biarko, etorkizuneko
erritar gizon orrek,
entzun egidazu ta zabaldu
zure biotz, gogoa,
izpiritu osoa
zure azurrak ta
zurekiko dana
eta, artu nire esku laztankorrok
olerkariaren gizatasunezko
esku argizale, lagunkorrok,
iñoiz be iñor, naitaz, zapaldu
zanpatu ez dabenak iñongo
gizonaren aurpegia.

Artu egizu bai zintzotasunez,
benetako gogo, maitetasunez
eta, ez josi untzez;
ezta ez gurutzatu
zuek-ganatzen dodazan
ni naizen apurraren
esku adizkidetsu
esku lagungarriok.

Erritar lagun!
Entzun, entzun egidazu, entzun,
zure urruntasun urrun orretan
eta etorri
nire berbaen nire lorratzen billa
ain gutarrak diran illunabarrezko
arratsalde zin bertanberatsu
begikoetan.

Gaurko, biarko, etorkizuneko
erritar gizon orrek
sartu-arazi egizue zauriturik
eta maitetasunez etenik
dagon Jaungoikoa.

Biurtu egiozue bai Jaungoikoari
biurtu emondakoa;
kendu zauria, aren negarra
itundurea eta bakartadea...
Bekokian Berari ezarri dautsazun
lazdura mingarri guzti ori.

* *Esk.* IX, 49-50.

## OROITZAPEN ZEARREZKO BEGIRADEA *

*Miro hacia atrás.*
(Jorge Gillén)

Atzera begiratzea egoki ez dan arren
begiratu egiten dot urteetara, urrun,
euriz, lañoz, eguzkiz, umetako egunen
oroitzapen zear, argikoi edota, illun.

An datza nire aintzindar amesdurapean
egaztadaz egaztadazko elai, txorien
gaur dabiltzan lez, orduko alor irudien
gomutapen bizia, neure biotz-biotzean.

Aldiz aldi igaro zan nire edertaroa,
unez uneko bizi-neke ta ameskeriz
ta, orain, urbil dakust neure azkenzaroa.

Dana dator gainbera, latz, mear, aulago,
adiñak dakarren izate beraren zoriz
baña, nire euskal gogoa zutunik dago.

* *Esk.* IX, 51.

# «NIRE AINTZINDAR OIARTZUNAK»*

## (1985)*

* *Esk.* X. XI. Azkue Sariketara bialdutako olerkiak. 1985.

## NIRE AINTZINDAR OIARTZUNAK*

Aintzindar aize mee batek izanera naroa,
nire bizia oraindik asi barri zanean
ta, ume batena nire baserritar gogoa,
eldu bako gaztetxutako lillurapenean
oi dan gerakatasunezko izamen urduriz
gainditzen zanean, garitzazko ta artotzazko
baso ta zelaiz, inguruko solo ikuspegiz...

Izadia aurrean neukan, neure begipean
agurkari. Bizia egunean eguneangoz
itxarozko eskeintzapenean nabaitzen neban
garitzak lez, an, olatuzko zibuzadapean,
itxaso antzera, buruz-buru, beuren bizar zuriz
menka alkarreri, bakoitzaren bakoitzarengoz
aizean. Ta, artoak, beren gara laztanpean
mardulik ta eze, burututzekotan nekusan
elduaroz gero soinduko ziranak bizar gorriz.

Azkatasunez, ikusi-alan, egalik egal
txori antzera, arin, ibiliarren egabera
orlegi ganez, landaz landa, baterik bestera,
inguruak ziraustan jaio nintzala nekazal
laiakaz, goldakaz, burdiakaz goizetik gabera
ikusiz nekazari mundua beti lanean
lurrak lantzen, mamintzen, korta satsak ataratzen,
ereintzazko edota uztatzezko nekepean
Uda ta Negu beti lanari aurrea artzen.

Domekak jaiak dira bai, Jaungoikoaren graziz;
astelen buru-zuriak be, bai, eztakit norenez,
jaitzat artzen ziran bearrezko zerbaiten aitzakiz,
korain bat, sokaren bat, orduko peri egunez
nekea arindutzeko gero, arrats-askariz.
Gernikara bideak oñezkoz ziran gurutzatzen
(aranzkoz ta onanzkoz), emakumez ta gizonez,
agur-agurka, txeratsu, alkar ezaupidetzen
domeka geigarri zan astelenketa pozgarriz.

* *Esk*. X, 1-3.

Baserri bizitz neketsu bezin arduratsua
euren elizako ta munduko zaletasunez,
atontzen ziranak alkarri luzatuz eskua,
anaidiak-eta sortuz oker aldietarako:
sua, abere galtzeren bat edo, auzo-lanez
laiaketak, lorketak, bideak be, konpontzeko.
Au zan gure nekazari gurasoen mundua,
bata-bestearengo zerbitzu ta bearkizunez
zentzuzko burutapen egokiz antolatua!

Kanpai otsera, albakoz asten zan bai eguna
ta, ortik gorako il-kanpai, su-kanpai ta abar.
Zenbat barri emote, zenbat, goiz ta illunabar!
Aingeruena da illeta-ots alai, ezaguna,
goiak eresituz laztankiro edatzen dana
dilin-dan, dilin-dan, dilin-dan, aizearen bolandan
aingeru baten zeruratzea adierazoz, alai,
erri osoak len-bait-len iakiteko asmotan!
Dilin-dan, dilin-dan, baserri ta zelairik zelai.

Zelan adieraz gizarte ta aldi aren barri
osotasun bete-betezko zeaztasun bizian
urtez-urte joan ba-iaku gugandik, igesi,
biurtzerik iñoiz izango ez dauan itzulian?
Zelan orduko egin-gogo, almen eder ori
alkar-laguntzazko, sendiaganako loturaz
igaro zan gizarte ori zelan biziarazi
lenagoko bake zaletasunezko arnasaz...
Iges egindakoa zelan barriro ekarri?

Negar egin bear al dogu negar, ala barre?
Illargiz-gora, altsu, ortzi-zear, izarbidez
igogallu barriakin ikusiz gizon, bere
gora-nai bizia burutzeko zaletasunez,
(mundua kutsatzen, ero diardun bitartean...)
Zer egin geinke guk, zer egin? Erantzun asarre
ortzia eriogalluz betezen dabillanean
ala, egongo gara nasai, ardurarik gabe
ereintza orren aurrean ez-ikusi egiñez?

## GOMUTAPENA*

Gomutapena,
maitasun ta gorroto alaba,
sugar edo izotzezko laba.
Zuregan bizi dira
aldiaren ertzetan,
aurpegiak, berbak ta ametsak,
soñanzki bigun edota latzak;
gaur egun auts uts diran
izakienak.

Azkortzen zara lorik-ezean
ta, zure gun, izangaiz petuta,
igarokuntzetan barrenduta
zanpatzen gaitu
urruntasunak,
lengotasunak;
zuk birbizten dozuz bai
ta gogoratu,
egun gaurkoratu
adiñak.
Zugandik sortutzen dira gogai,
edesti,
ipuiñak...
erdi guzur,
erdi egi.

Oi, zu, aintziñako gomutapen,
aldiaren arerio
eta kalbario,
gizonaren aintzamen
gaizkatzallea!

* *Esk.* X, 4.

## SORLEKUA*

Oroipen zarretan murgil ta, birbiziz aurtzaroa
nire baserritar sorleku maitearen magalpean,
ni, izan nintzan mutikoaren ibillietara noa,
ainbat bizi-eskeintz, amets gozo aurkituz bidean.

Lurrarekiko artu-emonean ta lurrinpean
bizitzen ikasia oi dan gazigezatasunez
burdiñaraz, labortzez itaurren edo onenean
astoaz egur, bedar billa egungo beartasunez.

Izadiaz bizia biziz ume egazkadatan
aizeaz, txoriekaz, zugaitzakaz ere itz egiñez;
garien oritasun ta arto muskertasunetan
begiak gainberatuz izatearen atsegiñez.

Edo auzoz-auzo Agarre, Gorriene, Matxiñenez
asti unetan tarteka, lagunak nunbait alkartuz
gure irudimena egatzen zan berein bidez
ume pozera nekazari alorrak itxarotuz.

Gorakundezko biozkada ederrak bizi genduzan
utsaren utsez, ezebezez pozturiko egunak
ta, geiago alakorik iñoiz sortuko ez ziran
amets lilluraz bizitako bizialdi kutunak.

Neguko gau luzeetan, gaztañak erre bitartean
arako Marimunduko sorgiñei bizi-araziz
edo Peru-Maritxuzko barregarritasunean
ogera orduko uneak ipui-ipuinka biziz.

Amak ipuin asko zekinan ta amumak geiago
ta, orrela gu, umeok goxo-goxo sutondoan
egoten giñan bein ta barriz, beste bat noiz entzungo
gurasoen maitasunez aparia atontzekoan.

Euriak urturiko Peru'en gatzezko etxeatzaz
ta, «Gaua gauekoentzat» dalako sorgin-ikutuz
odein gaiñez, sasipez, Mari ta Anboto'ko Damaz
gure iakingura, etenbako egarria geituz...

* Karmel 1988-4, 105-106 (*C*); *Esk.* XXIV, 86-87 (*B*); *Esk.* X, 5-6 (*A*).

Gaur norbaitzuek «ovni»ek ikusten dituzten bezala
garai artan ere, tximiztadun arrats[a] illunetan,
Anboto'ko Dama sorgin ori, sugarra zeriola
igarotzen ei zan, Oiz'tik Gorbea'rako bideetan.

Oroipen zarrei darien bitxitasun aintzagarriz
uriko burrunda, zarata otsetatik igesi,
illak ta biziak, egun zarrak gogora ekarriz,
ainbat iakingai daurkidaz enegan, oraindik bizi.

Araxe, nintzanera, baserritar atarietara
gogobidetzen naiz urratuz aintziñatar azala;
araxe, oinbide amesgarrien sorburuetara,
dastatuz gora zetorren bizitza aren itzala.

Araxe, usoa bezin uso, poz-pozik, iauzika,
landa-zelaiez, itxaropendun begirada argiz,
aldi artako bide barruz, ederrik, atxinkunka,
igarotako gauzak barriro neurtu ta ikusiz.

## NIRE ABESTIA*

Nik atzo lez gaur be
abesten dot
eta, nire
abesti zarraren
abotsa
unez une,
egunekoz ari da

betiko apaltasun
ta, bakartadean,
soñu barik
igarotzen dan
aizearen
surrumur antzera,
ixil-mintzoz goiturik.

[a] tximiztadun arrats *A* tximiztazko arratsbide
* *Esk*. X, 7-9.

Len erabillitako
berba bardiñakaz
diardut abesten;
alan be, ezetasun
bizi-ikutu gozo bat
nabaitzen dot,
agor-aldiko
lur egarritua
asetzera datorren
euri ederra bezin
eder ta gozatsua,
alako barritzadun
indar bat sortaraziz
egokiro, euskaldun.

Bai. Atzoko antzera,
une bakoitzaren
eragin, ikutuz,
nire abestia
abestera natorkizue
biotza agertuz.

Bizipenez arnastua
ta, euskaldun,
izate ta zentzuz,
nire ibilizko
otoitz, eskaria
beti da bat,
erri-miñez
edestua
agerkera eztitsuz.

Maitasunezko
gizabidearen
gogo, arabera,
on ta ederraren
bizi-aldezko
bidea artuz
naurkikezue.

Egun batez, ordea,
ez dozue entzungo
nire abotsik.
Baiña, erabereko
beste abots argidoi
batzuk, ederrik
dautzue abestuko
bizitza beraren
etorkun argiz.

Nire gogozko itza
barrituzko kemenez
indartsu goituko da,
bizitz ororen alde,
egitazko sugarrez
zintzo jokatzen daben
gure euskal gizarte
sendoaren ezpanez.

Erriaren mintzoa
sustraituko da beren
betiko aaltasunez;
bizitzadun zantzoa
itxaro birbiztuaren
argi, benetasunez.

## ETXEKO IZANDAKOEN ABOTSAK *

Gogoangarri doguz
gustiz maite, etxeko
izan ziran abotsak;
il eta, lurperatuz,
gugandik betirako
urrundu ziranenak.

Ildako lez, batzuetan
itz egiten dauskuenak,
gau-ordu ixiltsuetan;
umetxu bakan batez
gugana datozenak
lengo gomutapenez.

Bizitza igaranak.
Anots orrein bidetik
gugana datoz beste
anots batzuk, ixilik,
bizitza barruz, gure
lagunkide izanak.

Urbildura urrunak,
eresi olerkitsu
baten gogai antzera,
oñots bare, ixiltsu,
maitez datozkigunak
gure gogo, biotzera.

## BIZITZAKO ITZAL ARABERA**

Bizitzako itzal arabera,
atsegiñez edo malkoz busti[a],
gerta daiteke eragitea
gure lengo danbolin zarrari
ta, igarotakoz ibiltea
egi garratzetik igeskari.

Tokiak lengoak diranarren
gauzak orain ez dira bardiñak;
basetxe asko ondatu dira
ta, ez da lengorik ezer emen
izan ezik ustel ondakiñak
aldiak dakarzenak[b] sasteira.

---

* *Esk*. X, 10.
** *Esk*. X, 11 (*B*); *Esk*. XXIV, 130 (*A*).
[a] busti *A* gorri [b] dakarzenak *A* dakarzkinak

Ez da entzuten ume abotsik
ta, soloetan arto ta garirik
ez dago. Ez da burdi soñurik
piñuen aize baltza besterik;
ta, egon giñakez egon pozik
euskera bizirik nabaiturik.

Eriotzazko ixiltasun latza
sartu da gure baserrietara,
ta, maitasunak beroturiko
kabiak ustuta, urietara
zoro-zororik abiatu dira
bizi erosoago baten billa.

Indar barri zai dagon lurraren
gau-intziri, estutasunean,
negar dagi baserriak, lotsaz;
negar, beren nai ta eziñaren
mindura, alakuntza betean
buru-makur beren arantzakaz.

## IGARO IZAN DAN URAK*

Igaro izan dan urak
ez darabil errotarik,
ta, alperrik da lazunak,
arraiak igaroz gero
sareak uretaratzea;
alperrik bai gure lengo
urrats-aldi zarretatik
utsaren billa joatea.

Ez ete, ez ete litza
bai egokiago izango
aintzin-bideak itzi-ta
egitiago bizitzea,
gaurkoz ainbat gaurkoago
erabilliz gure itza,
argiago ta zabalago
anaitsuago edatzea?

Egira bedi bizia
alkarragotuz eskuak,
jokaturik gizonago
gabaren illun naastuak,
begi baltzak alboratuz
sortu dedin eguzkia
argi-dirdira maitezko
eguntze baten ikutuz.

* *Esk.* X, 12.

## GILTZ BAKANAK*

Giltz bakanak, erabideak
ditu gure irudimenak,
espetxeko esi, ateak
edegi edo zabaltzeko;
eskuak ta biotza, gogoa
azkatasunez ibiltzeko;
bazter ezkutu, eziñenak
geuretu ta eskuratzeko.

Lengo beste «ni» baten neurez
ikustera noa auzoak,
adizkideak, gurasoak;
ioandakoak diranarren
lengo-lengoz daurkidaz emen,
aldiak eroandako gauzak,
lengo nirezko izamenez
bizi izandako txokoak.

Oraiñaren ta Leenaren
bizi izate, ikuspegiz
nabil, nire gomutakien
biotzondo, gogo ta irudiz
igaroz-igaro, barruko
biotz-danbolintxu zarraren
soñuketa ezbardiñezko
izana arira ekarriz...

## KUSTIÑE ZAN AREN IZENA**

Bateratsu igaro ziran
gure umetako gogoak
poztasun eskeintzakorraren
lurralde pozgarritik;
lenengo lillurakizunen
zelai-arte loratsuetatik;
bateratsu igaro ziran
gure ameskizun gozoak,
baserritar iñuzentzian.

* *Esk.* X, 13.
** *Esk.* X, 14-15.

Batera eskolaratzean
ta, batera etxerakoan,
alkarraz beti, jolasean;
alkarraz orduko egunen
arrimenezko zerupean,
auzoko kutun giñanean
goizetik ta, gaberakoan,
landa soloen emoipean.

Iñuzentzizko bizitzan
gerora, biok aunditzean,
bata besteagandik urruntzen
eta, aztutzen asi giñan,
bata besteagandik aldentzen
gaztetasunezko bidean,
unerik une banatzean
ikuste barrien zerean.

KUSTIÑE zan aren izena
eta, orain, oroitzapen bat
da gure umetako lena,
izandako bizi-malla bat
betiko joan, galdu zana,
igaranezko korrontean;
amets eder baten izana
igaranezko igaranean.

Aizeak eroandako aldi
agurgarri baten sugarrak;
egunik egun ta, igesi,
urrunduz joan ziran gure
orri zimel, orri igerrak,
tristura oñazerik gabe
joan ta, aldendu ziranak
beren kabuz, guztiz urruti.

KUSTIÑE zan aren izena,
umetako maitagarriena!

## SEASKA ABESTIA*

Goiz ta arratsetako
eze usain gozozko
gari solo burutu,
artotza muskerrezko
ikuspegi aurrean
Udaz eder, loratsu...

Baserriko atarte
aundi ta zabalean,
amumak maite-maite
dingili-dingili-dan
olezko seaskeari
eragiñik kantari...

* *Esk*. X, 16.

Amaren ama kutun
amumatxu maiteari,
maitasuna dario
abesten dauanean
umetxu laztanari,
dringili ta drangulun.

«Bonbolontena
neure laztan,
ez egin lorik basuan
azeritxuak
maltzur gaiztuak
eroan ez zagizan
erbia zaralakoan».

Lo... lo... lo...

## AGIN ZARRA*

Ipuiña dirudinarren
ez da oraingo ipuin bat.
Ni mutiko nintzalarik
agin lokatu bat eskuz
atara izan ondoren,
neure amaren aginduz
tellatura jaurti neban
labelako tellatura.

Biotzez ta, otoi antzera
onela mintzatu nintzan
begiratuz goi-aldera:
«Ene Mari Tellatuko
amandre gonagorria;
agin zarra zuretzako
ta, emoidazu barria,
amandre maitagarria».

Orduko nire eskaria
ez zan alperrik izan.
Aren ordez, geroxeago
beste agin bat sortu zan
lengo leku berberean
itxura ederragoko
agin barri bat umetan.

Ai! Tamalez zartzaroan
ezta orrela gertatzen,
bearkizunik gorrienean
ni aurkitzen naizenarren
adin onetan ezta ez
orrelakorik izaten
eskatuarren biotz-biotzez!

---

* *Esk.* X, 17.

## JAI-EGUN ARRATSALDETAN*

Zer? Musean ala Briskan?
Briskan egingo yonagu
ba, ori danok dakigu
ta, beraz, asi gaitezan.

Jai-egun arratsaldetan
alaitzen zan etartea,
andrazkoen abotsetan
ugarituz barriketea.

Gaur nire baserrian
ta, urrengoan zurean;
orrelaxe batzen ziran
txandakazko ibilian.

Andresa, Monika, Klara,
buruko zapi dotorez
azaltzen ziran bertara
perkal-soñeko apalez.

Udabarrizko aizean
gariak eta loratzean,
izadiaren goratzean
barritze baten pozean.

Uda ta Udazkenean
gariak jo ta artoak
barruratzen ziranean
poztutzen ziran auzoak.

Egotaldi eztitsuak
domekarik domekara,
atsegiñez barrituak
aste batetik bestera.

Esne guriz egindako
txokolatea artzen eben
ta, burutxaz gozatutako
ura edanik ondoren.

Asten ziran istorietan
itxas ta legorretako
zebiltzanen zebarrietan
ainbat mundu ikertzeko.

Urrundietan galdutako
erriko semeen barri;
urrunez zoritutako
ainbat amets ta egarri!

Eztakin? Kalipornira
doa Argatxako Kosme,
Arjentina, Santa Fe'ra
Agarre zarreko Joxe.

Nebada'tik etorri da
berrogei urte artzaintzan
egin ondoren, Mikala
gazteaz eskontzekotan.

Ta ezkondu egingo da
olako agure zarraz?
—Ezkonduko ez dona ba
aren diru ederrakaz?

* *Esk.* X, 18-19.

## ETXEKO LABALDIA*

Ni mutiko bardingotxu
nintzala, bizkor ta urduri,
itaun-itaunka, barritsu
ta, erabat buru-arin
jakin-miñez, au ta ori,
nenbillanean ain itsu
itaunka edozeñeri...

Ain maite neban amuma,
ez zan etxeko edozein
baizik zan, amaren ama
ta, amamak ondo zekin
bai, aukeratzen eguna,
ogiak-ta labaratzeko.

Beti jakin nai izaten
neban, labelako labea
(ogiz, zagar ta madariz)
noiz izango zan betea
orduko gure guleriz,
poz-pozik nik, laster baten
asetuz gero gosea
gogoko nitun janariz.

Laban erretako angiz-
sagar ta opil beroak,
usain ezti, asegarriz,
ain ziran bai, ain gozoak,
errotatik arakoxe
arto ta, ogi-urun barriz
amumak labaratuak!

Txikitako gomutapen
bizi-aldi urrunak dira,
noizbeinka oldoz-arira
datozenak aintziñakoz;
orduko gure munduaren
zer-barri ta, bizi-gogoz
lurrinduak, eder, beren
ordukotasun begikoz.

---

* *Esk.* X, 20-21.

Baiña zergaitik ibilli
itzalpeko gure egun
lausotuen gogo billa
dana bai-dago ain illun
baztertuta, ain, ixilla?
Zergaitik aize atzetik
lengoratu ain urduri
ezpadauko itzulpenik?

Alan be, ez al da poza,
Oi, ez al da gozamena
entzutea gure abotsa
lengoz lengo datorrena?
Ez al da poza lenaren
orduko izate, sena,
mutiko gomutapena
eskuratzea bein baten?

## DONIANAK*

San Juan, artoa ta ogia kanpoan.
San Juan zelan etorri alaxen joan.
San Juan euli gabe, urtea ogi gabe.
Zenbat esakun nekazaritza arloan,
zenbat siniskeri, zenbat goiz ta illuntze
gazigazatuak, baserritar gogoan!

San Juan San Juan
eztot besterik gogoan.
Lapurrak eta sorgiñak
erre, erre,
artoak eta gariak
gorde, gorde.

San Juan San Juan,
San Juan eldu da,
sorgin begia galdu da,
galdua bada
galdu bedi.
Sekulan be agertuko
ezpaledi!

* *Esk.* X, 22-24.

Zintasunez ta benetan
suak egiten dira bai
gaur be, atzoko eran,
suak gar aundia ta, alai,
Doniane egun bezperan;
suak uri, baserrietan,
euzkia lotaratzean
agurtuz eguna, dirdai.

Sugarrak ikusmiratuz,
(bai atso ta, bai agure;
bai neskatx ta, bai mutil gazte)
jauzika ibiltzen dire
sumeta ganetik, eder,
poz aundiz, nekerik gabe
bat, bi, eta iru bider,
dantzatuz gero su inguruz.

Aintzingo oiturei eutsiz,
suak egiten dira bai,
Doniane bezpera gauez,
oiuka ta irrintzi zoliz
lotuta, eskuzko katez,
suaren inguru ibiliz
aurrezkoan, guztiz alai,
alkarrezko begiramenez.

Sortak arto, gariburuz,
zinta bedar, ereñotzez,
egiten ziran bai, txukun,
elorri edo lizarrez;
baita, larrosa usaitsuz
ta, euzki-lora ederrez
elizara gero, kutun,
bedeinkatzeko eroanez.

Aurtzaroko nire aldi
sorginkoi, bedeinkatuan,
ainbat sasi ta zaragi
aurreko urte, sortakaz,
batera erretzen ziran
txistu ta danbolin soñuz,
txarkeri oro uxatuz
sugarrezko txinpartakaz.

Ateburu ta leioetan,
baita baratz ta soloetan,
benetako maitasunez
kurutzeak jartzen ziran
berarizko zeintasunez
parte txarrekorik bertan
sartu ez zedin egunez
ezta, ez, gau illunetan.

Zenbat eguzki bururen
argipez barritu diran
Euskalerri zar maitearen
egunak, urtez urteko
igarobide luzean,
goizalde-arratsaldezko
gure euzki amandrearen
magalpe maitagarrian!

Ta, zenbat bider illargi
zurbillaen zidarpean
goratu da otoitzean
arridurazko ortzian
barrendurik zoragarri
millaka izar artean
ikusiz Jaungoiko ori
beren aunditasunean!

## PATXI TXIKERRA*

Beste askoren artean
ta, nekazalgo zerrendan,
gizon zal, txiki, igerra
dakart bai zuen gogora
gaur be, bizirik datzana
neure gomutapenean;
bizirik neure lengoan
aren basarri bazterra
eredugarri izan zana.

Patxi txikerra deitua,
lan eragille bizkorra;
gizon sendo, giartsua,
lanari aurrea artuz
udaldi edota neguz,
aro egokiz, zekiana
gariratzen, artoratzen,
aldiko uzta, ereitez
zekiana garaiz ibiltzen.

Etxerako ollo, txarri
ta, zaldi bat zamatzeko
egur, bedar karriorako
ta, bear aña ortuari
etxerako ta, saltzeko
ta, amar bat abelgorri
sendi bizipiderako.

Txakoliña be ugari,
etxean tolaretua
artzen eben —baltz ta zuri—
baita, pitar sagardua,
urterako edangarri
ondotxo begiratua
urte luzerako neurriz.

Aintziñako baserriak
neke izerdiz landuak;
baserri maitagarriak
ain bakarti ta baketsuak,
beren lurretiko emoiz
egokiro antolatuak
baso, soro ta belardiz!

Oroituak izan bediz
bai, orduko baserriak,
etxerakoz bizipetuak
beren ardo eta ogiz
lanaren lanez goituak
gai udan ta negu gorriz
zenbatu barik orduak!

---

* *Esk*. X, 25-26.

## SALDUE GALDUE*

«Saldue galdue»
diño
Bizkai'ko
esakun
zar batek.
Beraz
bai, badakizue:
ez saldu
zaldi
ez etxerik,
orrein
ordezkorik
ezpadozue,
baña,
askok
bearkizun
aundi barik
salduko
leukie,
euren aita,
ama
eta, ortik
gorako
Jaungoiko-
rañoko
guztie.

## BAGILLAKO EUZKI BEROZ**

Bagillako euzki beroz
poxpoliñak poxpolinka
alorretan abesturik,
(garitzatan, bedartzatan)
kabigintzarako asmoz
goizean, agur-maiteka
deitzen ziran bai, ederrik,
biotzetik biotzera, deika.

Garitzak zelan orituz
garaian prest izateko
itaiak zorrozten ziran
urbil zegon egunean
gerriak ondo makurtuz
galburua eltzen danean
errezago, samurrago
ebagi ta uztatzeko.

Garia ebai ondoren
azaoagakaz txurrilloak
egiten ziran lenengo:
eun, berreun, azao pilloak...
geroago ziran metatzen
eguzkidun egun batez
etxeko danen artean
laztankiro maitasunez.

Gariak esan ei eban:
«Ezta ni lako bedarrik».
Baiña, artoak, apalik
erantzuna emon eutsan:
«Emen ni nazan lekuan
ezta izango goserik».

* *Esk*. X, 27.
** *Esk*. X, 28.

## TXIROTASUN ABERATSA*

Antxe, baserriko eskaratzean
beren lur otzezko oinpe umelez
neguko gau gorri ta illunetan,
an, laratzaren begiradapean...

Porrusaldea saieski usaiñez
ta, morokil esne-zopa ondoren
aparitarako ziran prestatzen
negua etortzean otz samiñez.

A izaten zan gure atsegiña
beeko suaren egur-berotasunaz
ta, amumaren kontuak entzunaz
geitzen zalarik gure jakin-miña!

Eztakit nundik norako larrean
begi-belarri ibilten giñanean,
betiko sorgin ta Peru-Maritxuz
gure irudimena aizeratuz...

A izaten zan bai poza! Batez be,
sutaratzen zanean danboliña
bira ta bira; pin, pan, pun, jo ta ke,
edatuz gaztain gorringo usaiña!

Txirotasun aberatsa, benetan,
an, umezaroko tellatupekoa,
otorduoroko otoitz, ipuñetan,
apaltasunez bizi izandakoa.

## URRUNDIKO ABOTSAK**

Igarana neuregan
daroat lengo lenez
oroitz gazigezetan
nekazaridun senez.

Urrundiko abotsak
mutil aroko bidez
taupaka datozenak
iorantasun bakanez.

Baserria kolkoan
batzuetan margoz musker
udabarriz ta udan,
bestetan neguz, muker.

Euri edo aterri
lurraz bizi danaren
ekintza apalaren
zentzuzko agergarri.

---

* *Esk.* X, 29.
** *Esk.* X, 30.

Amaikatxu nekeren
semea da bai, ogia,
itxarote luzearen
lansari pozgarria!

Bederatzi illabete
ereintzatik uztara.
Zenbat euri ta aize
lugiñen bizkarrera!

Gariaren urun zuri
mizkinkerizko ogi;
artoaren urun gorri
talo-esnez gosari.

Ori zan bai gurea
goizetik gaberako
talo ta artogizko
otoi t'asebidea.

## DA...*

Da, oraindik emen ibiliko
ba-lira lez, nire inguruan;
da, oraindik ementxe biziko
ba-lira lez, txapela burua,
bruxez, abarkaz, beren orduko
jantzi, izaerazko munduan,
orduko beren berebiziko
ain bakan, eder zan ikutuan.

Da, oraindik arein berekiko
akuludun abots-esparruan
biziko ba-nintz lez, bizitzaren
an, orduko nekazaritzaren
ekintz gogorrari loturiko
berein arazo ta lanbideren
arto-gariekaz ogituriko
gizarte azke bezin menduan.

Matxiñeneko, Gorrixeneko,
Agarre ta Danboliñeko,
Labiru ta baita be, Goitiko,
Argiñeneko, Andiketzeko,
Argatxetako ta Galartzako,
Argatxburuko ta Larratxuko,
Larra, Galatxu ta Omarreko,
Nabia, Uxarre, Naberango...

* *Esk*. X, 31-32.

Dira, gazte aldiko anotsen
ta, mutil-aidez gozarturiko
igaro-leku maitagarrien
baso-usaiez neuganduriko
biotzeko sorlekuaren atalak;
neurezko ordukotasunaren
lilluraz izanbideturiko
irudi gogoangarri, apalak.

Orduko ainbeste gomutaki
ikusmira bitxiren egalak;
arimaz beteriko soñanzki
erabilliren gogai azalak;
erabat argi edo illunki
igarotako egun mazalak;
nire lenengo urrats agiri
izandako eguzki dirdirak.

Gogapean dakustaz dantzan
izan ziran eta gaur ez diran
ainbat andra-gizon, adizkide,
euren zori eder edo baltzen
nik nekusanezko argazkietan,
ainbat lagun ta erriko seme
alkarraz egurasten, batzen
giñan amets-bide igesietan!

## IGAROZKO ALDAKETA BARRUZ*

Igarozko aldaketa barruz
urteak igesi diranarren
ainbat ameskizun lurperatuz;
atzoko lez, era bardiñean
iruditzen iaku dala dana;
lengo biziera berberean
darraigula, urdiñ egonarren
burua, ule bakan zurituz...

Orduko gizarteko izantza
birbizi ta gogoratuz, lantzen
ari gara bai, lengo baratza,
ta, aintziñakoa izanarren
udabarriro da lorabizten,
barrizturik gure esperantza,
dastatuz gero, pozik, aren
usai atsegin ta bizikuntza.

---

* *Esk.* X, 33.

Maite. Orduko begiratuan
zugandua naukazu bai, samur,
biokgandiko zeru, esparruan,
ta, gogoz, agur dagitzut, agur!
nire naikun, gurari beroak
eratzen diardun bitartean,
zure narru gorri sugartuan
egoki leikezan soiñekoak.

Ametsaren sorleku, kolkuan,
atzokoaren sumeta berbera,
gogamenezko biotz barruan
iraunztazko eragin, aizera
datorkigu maitez edertua
neskatil lirain baten antzera
orduko irudi laukituan.

## TXIKITA ASTOTXOA*

Txiki nintzan mutil denporetan
egurrerako, bedarrerako
edo, beste edozertarako,
zaldiak ta[a] astoak, bearrezko
izaten ziran bai, baserrietan,
nekazari lanak arintzeko;
astoak bear izaten ziran
«arre ta iso» agindukeran
norbera berera ibilteko.

Txikita zan bai gure astoaren
izena. Txikitatxu polita,
—asto bizkor, astotxu apala—
bere lepo edo bizkarraren
ganean baserria zeroana,
ainbat eroate ta ekarteren
zama astunez, gure Txikita,
negu gorri ta udako beraren
mapilpeko astotxu laztana!

Nire eskupe zebillanean
basoko bidez edo landaetan,
nire gogoaren araberean
artaburutxuren bat nemotsan
edo, asarre irakiñetan
zipli-zaplaka astintzen neban,
astotxu polit, txiki, laztana—,
udako egun naiz negukoetan
neure lankide etxeko zana!

---

* Zer (1986, 100. zenb.) 13 (*B*); *Esk*. X, 34 (*A*).
[a] zaldiak ta *A* zaldi eta

## BASERRITAR ARRATSALDEZ*

Ikuspegi zoragarriak
ditu, urdin ozkorrietan,
oldozbidez an galtzen dan
arratsalde eder onek.

Txori aldra bat egazean
argazkitzen da uretan,
begiak an urrunean
dabezala, osertzetan.

Eres-soñuz, abarretan,
(*durundots atsegin, eztiz*),
aizezko ekitaldietan
zugaitzak dardara biziz.

Alderdi urrutietatik
illuntzea zarata bizi,
agur egiñaz ederrik
euzkiaren sarrereari.

Urbil gabaren itzala
ta, *txoriak*, oiu ixillez,
lotara doaz berala
oi dabenezko aterpez.

Illargia izarrakaz
odei tarteturik, bakez,
bere aurpegi zurbillaz
dator, ametsak ereiñez.

## EURI BERERA EDER ONA**

Ta, barra-barra zabalduz aberastasuna
bertan berako euri berera eder ona,
tanta lodiz dator lur egarritu ituna
alaitu ta asetzera, baita be, gizona.

Kezkati zegon nekazaria, bildurretan,
ain legorte aundiaz gero, ezaren ezaz
geldituko ete zan ago bete azurraz,
ainbat izerdi emon ondoren ereintzetan.

Eze usain gozoa beingoan edatu zan
ta, neskatil osasuntsu, pinpirin antzera,
alorrak alai, beren onera biurtu ziran.

* *Esk.* X, 35.
** *Esk.* X, 36.

Itxaro arnas barritua, mozkorrik dantzan,
(arto, barazki, bedar-landak, danak batera
beren bizi-poza erakusten baiezkotan!).

## OLLARRA*

Baserria lo ederrean datza
izar eta, illargizko gaupean,
beren arto-garizko gentzapean
ixuriz, eze-orlegiaren atsa,
ipar-aize jostari baten bidez;
ixil atsedengarri, aberatsa,
jabetu da, gauekoen abotsez
ederragotua illargi betean,
(zakur ta ontzaen zolitasunez
urratua noizik bein, gau argiari
darion udako sorgindurapean).

Gaba iges doa goizaren billa,
bidea zabalduz, ixil-ixilla,
ezbaidun itzal-argi dizdikariz
mendi ostez datorren euzkiari.

Ai, zergaitik itzartzen dira ain goiz
ollarrok, dei ta dei, kukurrukulari,
lo gozoan dagozanak esnaraziz?
Ez al dira ba iñortxoren erruki
lorik egiten be ez izteko iñoiz,
ain atseden bearrezko nekazariari?

---

* *Esk*. X, 37.

## INGUMA*

Goizaren barruz, orra
loratxu bat dirudin
inguma pinpiriña!
Ederturik alorra
nora oa maitemin,
mezulari[a] sorgiña?

Zuri, baltz, nabar, gorri...
Oi, zu berein margodun
inguma[b] lorakari,
ederrik ta bitxi
dakusguna ingurun,
euzkiaren albistari[c]!

Udabarri goizetan
loraz-lora[d], panpoxa,
zelai ta mendietan
goiberatzen danean
ain da polit airosa!

Jarrita dagonean
egotxuak batuta[e]
lora baten ganean...
Ez al dauka, itxita[f],
irakurleak gogoz,
orri-alde gurenean
irakur izandako
liburu itxi baten
irudi antz berbera[g]?

## TXINDORTXUA**

Txindor papargorritxu
txoriño maitagarria
neguaz etortzen ei da
ta, gaur, emen daukagu
baserriko atartean
iauzi-iauzika, ikara,
baso otzetik etorria
edur baltzakaz batean
eskaratzera begira.

* Zer (1987, 107.zenb.) 7 (*B*); *Esk.* X, 38 (*A*).
[a] mezulari *A* albistari [b] inguma *A* mitxelet [c] albistari *A* mezulari [d] loraz-lora *A* ameskor [e] egotxuak batuta *A* egoak alkartuta [f] itxita *A* orrela [g] liburu-berbera *B* liburu baten antza
** *Esk.* X, 39.

Ai, txori laztangarria,
gurasoek ain gurtua;
txori bizkor, txintaria,
benetan bedeinkatua!

Gaur, nire ama maitia
nigaz izan ba-litz emen
zure txintadak entzuten,
txoriño papargorria
olaxe mintzatuko zan:
«txori maite, txori laztan
emen zaukadaz eskuman,
albiste onak ekartzen...
ez al da ori egia
txoriño maitagarria?

## KUKUA*

Kukua, uso baten antzeko
txori zomorro-jale bat dozu,
edozein alor, alderdi agiriz
ibiliarren, da berez basoko
ezkutu-zale ta, kukukeriz,
kukutik kukura datorkizu
kuku ta kuku, udabarriko
bizi-zuzpertze eder, gelgarriz.

Beren arre-baltzezko margoan,
sabelpeko zurian zearkazko
marrak ditu, beren soñekoan
ta, ertz zorrotzko egoak luze,
apaintasun bitxi dotorean
ta, buztana be, luzez alaxe
aizea ebatzen dauanean
arintasun bizkorrez ta, asko...

Kuku eme, kuku gazte batzu
gaztain margo antzekoak dira.
Emeek, arrautzak, bat banaka,
txindor kabi edota, antzeko
txori zomorro jaleen esku
izten dabez umeak asitzeko
ta, emen dator bai onein lorra
janari billa, jira ta bira,
alper-kumeok alikatzeko!

* *Esk.* X, 40-41.

Kukua eskolara gitxitan
joaten ei zan ta, orrexegaitik
ku-ku esaten ezer besterik
ez eban ba ikasi aal izan.
Bañan, aren kuku soñu otsa,
lenengo biderrez entzutean,
begiratu bai, ez izan lotsa,
dirurik daukazun sakelean.

Dirurik baldin ba-dozu zeugan
izango dozu urte guztian;
ezpadozu jarraitu lanean
betiko ameseta bizian;
lugiñak be arto ereitean
amets dagi, izateko gero,
urrezko buruz udazkenean
urterako aña ogi-arto.

Ari kuku eta oni kuku...
Nire umetako txori orrek
zenbat esakun sortu ebazan
ondo zekian Azkue zan batek
idatziz argira zituanean!:
«Kukua etorri, gosea etorri»
«Kukua joan gosea joan».
Zenbat gomutapen jakingarri!

## TXORI BEDEINKATUAK*

Txori kutun, bedeinkatuak dira
edo, obeto esateko «ziran»,
gure basetxe maitagarrietako
nire umezaroko, txikitako,
txori apal, txindor papargorritxo
ta elai alai, txirripitariak
ain gizazale, etxezale diran
txori kutun, txori maitagarriak.

Batez bere gure itxas elaiak
dira bai, benetan alaigarriak;
Uda garaiz, euliak-eta geitzen
beroaz ugaritzen diranean
ibil oi dira bai txirripitari
etxe-inguru oro miraritzen
euli eta eltxoen bildurgarri
zuri-baltzezko nabardurapean.

Epailletik Iraillako eguzkiz
dira egurasten ta egoitzatzen
Euskalerriko malkar eta zelaiz
lengo kabi zarrak barriztatzen
ta, auzoak be, alai ta pinpirin
lengoz lengo dabiltz maitez agurtzen
urterik urterako barrikeriz
itxaropen barri bat sortu dedin.

---

* *Esk*. X, 42-43.

Txipirritari, batetik bestera
joan-etorrika, arin dabiltza
eten bako osteratze azkarrez
kume sor barriak alikatzeko
goi ta be, eskuma ta eskerrera,
arin arin dabiltza maitasunez
kumetxoak ase al izateko
poztuz aizea ta etxe-bizitza.

Txorikumeak an, kabian, zorionez,
lumatzen ari dira ta indartzen
gero, egaz ondo ikas ondoren
beren aita-amen laguntzapenez
elai aldra guztiak alkartuta
bateratsu, bidaidetu daitezen
ta, danak txipirritari bilduta
urruntzeko etorritako bidez...

## SAN MARKOSETAN*

Esakunak diñonez: «San Markos,
artoak ereinda ba-legoz».
Ta, txori kukuaren otsera
nekazariak bearturik dagoz
artorako lurrak lantzera:
«Aida Txuri ta, Aida Gorri»,
Jeurt! Ekin gogoz lanari.

Eguna sortuaz batera
aro ona baldin ba-dago
aurrea arturik bearrari,
auzoak, emengo ta ango,
soloratzen dira urduri
zein baño zein arin lenago,
artoa gogoz ereitera.

Ta egutaro onak, bekar,
urrezko burutza betean
(beren laztangara ta bizar)
gose kentzale izango dan
talo ta artogi sendoa
esne ederraz baserrietan
ain gogoko ta bearrezkoa.

---

* *Esk.* X, 44.

## ARTOARENA*

On dator artoa orlegi ezean,
bizitzaz laztangaratua, buruxka
mardulezko goratze eder-betean
ipar-aize maiteaz kutun-kutunka.

Orriak, ikurrin antzeko igitzez,
solo-jabearen nekazari begietan
poza dagerskue bai, geroko ametsez
koipetuak artogizko mizkerietan.

Da, udako eguzki ta euri-mamiz
satsituriko lurraren obaria,
ainbat lan ta izardiren ordain sariz.

Buru-jabetzazko azkatasunean
da Iainkoaren eskeintza asegarria,
arduratu danaren aldezko pozean.

## ETSERA BEGIRA**

Bai, gariak, etsera begira dagoz
buru makur, garaun ederrez beterik
ta, eguzki beroak urregorriturik,
gero, ogi zuri izateko gogoz.

Larratxoriak aukera ona dabe bai
eta, esakun zar batek diñoan lez:
«Gari ganeko txoriak, goserik ez».
Eta, an dabiltza an, txio-txioka, alai.

Ogitza orri begira nekazaria
itxaropentsu dakusgunarren arro...
Zenbat nekeren semea dan ogia!

Aleakaz an joango dira Dagonillez
errotara, makiña bat gari-zorro
amaika asto ta zaldiren bizkarrez.

---

* *Esk*. X, 45.
** *Esk*. X, 46.

## BASERRIA*

Baserria orma zarraen bakartadean
beso ta indar barik gelditu da, inguru
ixiltsu baten tankera erori, tristean,
ogibide barri billa danak igestean.

Itxasoz, olaetaz ta, mundu zear urrundu
ta sakabanatu dira, bizi erosoago,
errezago baten billa dira bai aldendu,
bizitzeko, uriko antzera bererago.

Noizbait baliteke, tresnaen laguntzapenez,
urietan bezin eroso ogibidetzea,
burua landu ezkero egokitasunez.

Etorki aurreratu baten eskuetan datza
baserriaren ogasuntza, iraunbidetzea
erabarritutzeko gure nekazaritza.

## GANBARA UTSAK**

Lenagoko ezer gitxi dakusgu oñean,
egungo aize, euri, uda ta neguzko
lurralde eremutu onen eguratsean,
lengoratzezko mirarian sinistutzeko.

Ez arto, ez gari alerik. Ganbara utsak.
Baña, apaingarritzat edonun dakuskeguz
laburu ikurrezko aintziñatiko kutxak,
oroigarri lez dabiltzanak kaletar eskuz.

Aldiak, begiramen bako aizez daroaz
orbelak lez, an, aztutasunezko leizara,
ongarri izango ete danezko asmoaz.

Biziak, goraberazko berein aldaketaz
beartzen gaitu, igarozko egoera ortara,
beren eriotzadun aldabide ixillakaz.

---

* *Esk.* X, 47.
** *Esk.* X, 48.

## ITZULERARIK EZ DAUKAN BIDEZ*

Jantzi buruzuridun etsipen ta naigabez,
bidean ainbeste uste amets, itxaropen,
ainbeste gogakizun eder ta goralgarri,
betiko ondatu, azpiratu diranarren
zearo lur jota, buru makur ezin da bizi.
Batzuetan onuragarria da igaroan
oiñak ezartzea, lengo alor ta baratzez
pausoz pauso, «ni zein, ni-norka» barruratzea
oartzeko nire oraingo ta lengokoan
«ni» ori, bera ta bat izan zana auznartzea...

Joan ara ta barruraturik, maitasunez
abaro orlegietan etzandako abestiak
daurkikeguz an, euren ezetasun ta graziz,
oroitzapenezko sorburu maitagarriak,
dauzkuenak itzultzen, berein bide bereziz,
gomutapen pillo bat antxe, abar geldietan
zibukatzen diran aize-eragin maitezko
dirdiramen lilluratsu ta amesgarriak.

Sartaldeak, unez une ta apurka, gero
ertsi, izten dauskuzan bideak, zorigaitzez,
bein bateko biotzaren gure maite-aroko
laztandurazko gozotasun, ameskizunak,
pinpilipaux antzerako soiñeko panpoxez
egatzen diran igaroaren itzal kutunak.
Sartaldeak, igarri barik, beti-betiko
daroazanak itzulerarik ez daukan bidez.

* Zer (1986, 100.zenb.) 13; *Esk.* X, 49.

# 1986

## LOREIL BIDEZKO OARPENAK*

Izadia ederrik, alai, gorakor ikusiz
azpiraturik neguaren latzdura ta nekea,
Loreil bidez igaro izan danak, berein aldiz,
ba-daki zelangoa dan udabarri arnasa,
zelangoa dan aro onen gorakunde jasa,
aize ta euriz, berotzera datorren eguzkiz
lurra dakusgunean orlegi biziz betea.

Bizia soñekotu danean emoidun biotzez
gizona ezinbizirik murgildua dabil
munduari darion garratzdura illun, baltzean
itota, ainbeste larriduraz, mutu ta ixil,
izadia maitasunezko eskeintza zabalez
loratsu dakusgunean, ameskari ta bipil,
bizi-itxaroz erroturiko etorbidean.

Gizona ergel, zaputz ta, alkar artu eziñez,
itsurik darrai, gorrotozko etsaikeripean,
ondamendizko eriotz-ereintza gaizto, lorriñez,
maitasunari bizkar emon ta, norkeripean
burua estalduz, urtenbiderik ezpalitz lez,
bereganduriko loi ta erosotasunpean
sortu izandako aundikeritasun utsalez.

Egia da lurra ederra dala, argiagoa,
odeiak urrunetara aldatzen diranean
ta, txoriak abarrik abar, txintada otsean
dabiltzanean azalduz euren pozkarioa.
Egia da alatza dala lurraren ganean
begiz begi, dirdiratutzen dan maitezko soa,
aizea epel, gozoro, zabukatzen danean...

Alatza da, miraria, Loreillaren biotzean
zitutzera datorren aroa. Lora usaitsuz
ia zelan ta zergaitik be eztakigunean
aurkitzen garala biziaren olako ezkutuz.
Alatza da bai, miraria, sorkuntza betean
ain gorakor dakusguna Betikoaren ikutuz
ta, ederrik, aurreko baso, landa, latzinean...

* Karmel 1986-1, 108-109; *Esk.* XXII, 93-95.

Ta, gu, itsurik, betillun, emen gabiltza narrez,
geure biotz ustelakaz, betiko gutarrean;
emen gabiltza zitaltsu, argaltasun makarrez,
mundu zorabiatu erre onen sumendipean,
zer izango, zer gertatuko ete dan bildurrez,
erasoa buru ganean, bertan dogunean
aundi-maundidun bi laterriren eragin txarrez.

Kutsadura bako mundu garden, gizarte alai
udabarritu bat, beren soindura anaikorrez
opa nai genduke bai; maitasunezko sendakai
osasungarri bat, bere eratura baikorrez
zintzoa ta esku zabala, bizi-pozez, ernai,
opa nai genduke ERRI ARNAS onurakorrez
ekintzatua, gogo ta biotzez ederrik, blai-blai.

Lana ta itxaropena lekarken bizi-sena
ugaritu bedi errotu, biotz jakinduriz
bake ongarrizko anai-arte bat lekarkena,
beren giza-urun egintzakor ta bizigarriz,
aberastuz erriaren izate, altxor beñena,
biotza ta arima, gogoa dan betiko ariz
aintziña urrun batetik etenga datorrena.

## ZADORREZKO URETAN*

Zadorrezko uretan
igeri ari gera
munduko zurrunbilloz
itzaltsu ta ikara
olatuen eskuetan.

Eguneroko biziz
ta itzetik ortzera
atzoko zelaietan
jasoriko irudiz
eiotzen dogu euna
betikotasun asmoz.

Ta munduaren aurrera
naasi-masituriko
argazki il margulez
agertzen gara sarri
gezur-untzaturiko
bizikera utsalez
ez zuri ta ez gorri.

## USTE DOZU UGARTEA ZARALA**

Uste dozu ugartea zarala,
auts pitsa, izpia,
bat geiago,
ontzi izugarriko bidaria.
Ba-zenki nire ixillaren barri
bazenki...
Ixil nago
barrenki
baiña, nire neurtitzen goitar
iñurritegi zabala da
osotoro
jariotzen, isuritzen da
osotoro
jariotzen, isuritzen dana
illargi ta zitorizko murkoak lez
ta, zugatzteri bat da gañezkatzen
nire gogo-ertz bakoitzean
ta eskuetan
iataz jaiotzen

---

* Karmel 1986-4, 105.
** Karmel 1986-4, 106 (*Esk.* XLV, 9).

usain gozodun larrosak
ta dot zure izena egaluntzen
arrigarrizko usoen egoetan
eta, zuk...
uste dozu ugartea zarala,
auts pitsa, izpia,
bat geiago.

## OETIK BATERAKOAN*

Oetik baterakoan itzarrik amesetan
egunaren ordu-zear, laño edo urre,
itsasoz ur kresalean edo leorrean
oldozkunak, nora naroa, nora nakarre
biotza bai dabil lur-jota edo aidean
aldizka alai, aldizka itun, asarre?

Zuri entzunik urrundik, ertzetik ertzera,
euri ikusgaitz baten edo gau-intz antzera,
ikustean zure berbakaz gogor ta legun,
nire egintzatan beti gogo barru-barrun...
Nire izate joan-etorri arabera
nire niaren betikoi nia zu ez al-zera?

Egunaren ordu zear, baita gabarenez,
—gau zikoitza egun ordaintzen diruz diru—
Egunak, bizitza diranak, joanaren joanez...
bizitza! zure itzakin, goi-intzez, eztitsu.
Oi, zu, zure eskuetan ingumadun esparru
zelaia jasotzen dozun ori... unez-unez
berein otsezko bizi-taupadea darizu.

Oetik goizean, orduak zear, egun buruz,
eresia, zure gogo ta esku laguntzaz,
zure igarozko egunetako ekintzaz
bizia landuz, bizia bizi, eroankortuz
zure otoi, zure oldozkunezko emoitzaz
unez une, orduz ordu, ametsak barrituz
biziak ots dagi, bai bakoitzaren zalantzaz.

* Karmel 1986-4, 109.

## KEMPIS'EN ERABIDEZ*

Triste aurkitzen ba-zara olerkari,
aterik ez zabal zeure samiñari.
Munduko aizeeri ez emon
zeure abestirik ederrena
biotza itxuriz ta penagarri
malkoetan urtua datorrena.

Urrunetik begiztatu, begiratu,
gizadiaren zalapart-otsa;
ta, zaitez bakarrik barrendu
zeure bakartadearen gelan,
ostendurik zeure abotsa
negar ta zinkuriñak gorderik bertan.

Zuzendu ametsak gelara
zure izkuntza ta egintzak.
Antxe aurkituko dozu bada
Jaungoikoaren doaitasuna,
bakea eskein, opatzen dauana
neke-miñetan elduko eztan
egun-senti zai dagoenari.

Ixilik landu, betiragandu
barruko lorabaratz txuria
ta, zure baratzeratzen dan
asun latz ta oñazegarria
biurtu egizu loraburu.

Gizonetik, mundutik urrun,
ulertuko dozu zelan dan
Kempis'en eretxi gogorra
EGI GARRATZ, NEGARGARRIA!

* Karmel 1986-4, 110.

## OLERTI*

Bizia maite dauanaren lei, naikuntza biziz
izan-menezko gogoz, irakiten, egarri,
nortasun aundiko pilpira, euskal agiriz,
erri baten biotza da eriotzatik igesi.

Maitetasun abotsa da, Euskalerriarena,
gori, lerden, gogai itxarotsu, ederminduz,
olerkitzaren bide goitarrez datorrena
izkuntzaren bizi osakuntzan parte artuz.

OLERTI: itzezko ezpata, izpi, galburu,
illargi, eguzki, izarrezko dirdaitasun,
oldozkun, gogai, lillura, amets iturburu,
izadiz bizi dan biotz ororen ogasun...

Itzak argitasun, bioztasunezko sugar,
musu bero, usain gozo, begirada samur,
ispillu biurtzen dira, maitetasun ikur,
egiamenezko abestiaren urre ta zidar.

Aldi gogorrenean azaldu izan zara
soñanzki apalez, euskal abotsa edatuz,
munduaren aurrera, itxaropenezko kantuz
bidean gora, izateko asmoz, ikara...

Onaindiaren itzalpe ta olerkari eskuz,
Larrako lekaidetxearen orma babespean
sortu zan, orduko egoera loturapean
gose-egarri ziran euskal alorrak landuz.

Sorkunetik ogeitabost urte eder, luzez,
olertia odol-barritu, landu daroagu,
etsipen bako ekintza aurrerabidetsu
baten egunik egunerako gaurkoratzez.

Benetako poesi altxor ugari, sakona,
dirdiraka udako gau izartsu antzera
euskal elertiaren zeruan, ederbera,
goraka doana, edatuz beren argi ona.

* Karmel 1988-2, 107-108; *Esk.* XXI, 84-85. (c. 1986).

Euskera bizi, betikoi, eder baten alde,
(orrialde mamitsuetan, apaltasun begikoz)
Erri bat mintzo da parnasoan leku eske,
aurrera dagin asmo zindo ta zorionekoz.

Ondasun altxor, miresgarri ori, or datza,
olerki egokietan, maitasunez dirdari,
agertuz ainbat egilleren gogo ta biotza,
udabarriko txoriek bezin alai, kantari.

Bakoitzari berarizko eredutasunez
olerki sugarrezko odol beroa dario,
ele gurearen aldezko goratze, omenez,
eskeinduz usain gozodun larrosa, lirio.

Utsaren trukezko olerkiratze gurgarriz
arrobi ontan askok emon dautse asiera
ta eldu dira bai, trebe, zerbait izatera
egiñaren egiñez ta, ainbat irakurriz.

Txalotzekoa ez al da, OLERTI au eratu
izan dauan erraldoi, gure dan karmeldarra?
Ez al da aintzagarri ederrik eskuratu
izan dauskun gure aldizkariaren izarra?

Mintza bediz olerkariak betierazko argiz,
anaitasunezko barruti zintzo batean,
neurtitzen alkarberazko ortzi zabalean
ain biotzeko dogun euskera maiteari eutsiz.

## UDAZKEN IKUSPEGIZ*

Orrien nabardura, margoekaz
tindatu da ortzi esparrua
ta, Udazken aize boladakaz
buruzberatuak, banan banan,
gainbera dator lengo mundua
orriz orri, etsipen betean,
orbeldura zimel, maskalakaz
etzuteko lurraren ganean.

Arro dabillen aize egoaren
indar, arrapalada egoeran
odeiak, igeskari dakustaz
naastuak, arinketa baten,
eguzkia, azken dirdirakaz,
murgiltzen danean itxasoan,
ainbat odeiño gorrizkaturen
agurrezko begiradapean.

Aizearen eragin ta ikutuz,
lirikoitasun neurri, izariz,
zugaitzak, illuntze loaletuan,
tikili-takalaka dakusguz
ots aundiko eresiak ixuriz
itxasoa, ugin ta kaioekaz,
bakoitza beren ibil-bideetaz
etzutera doazen bitartean.

## GABARENA**

Gabarena da osiña sakon sakonena.
Gudearena da karraxi gogor, garratzena.
Euriarena da negar malkorik aundiena.
Gosearena da asarrekuntza mingarriena.

Dana, biotza naikeriz betea dogulako
maitetasunezko argi-izpi, tanta barik;
bata-bestea ez-ikusikoz iraindurik
odola ixuriz aberetzen garalako.

---

* **Zer** (1986, 93.zenb.) 4; *Esk.* XXI, 100.
** Zer (1986, 95.zenb.) 5 (*B*); *Esk.* XXII, 28 (*4*).

Ugaritzen dakusgu malkozko euritea,
miserizko izurri, ondamendi bat sortuz
mundu zearrezko eriotzadun gosetea[a].

Danetarikoak gara baña, guztiz urrun,
banatuak[b] bizi gara, ogiaren inguruz,
norberazko barrutian itunik ta illun[c].

## POZTU ZAITEZ NEUGAZ*

Poztu zaitez neugaz, poztu zaitez Udabarri,
aurrez aurre, mundua argiz alaitu daigun
ta, bertan, biotz oñarri sendoak ezarri
betikozko lora usain atsegiñez, kutun.

Itzartu zaitez neugaz batera Udabarri
ta, bizitzaren portuan egokitu zaitez
neugaz batera, izadiari darion atsez,
berein goramiñezko eskeintzaz, zoragarri!

Itzartu neugaz len-bait-len, gizona esnatuz,
mundua osotoro odol-ustu baño leen,
itzulera bako bere zeintasuna galduz.

Oñarritu zaitez neugaz argitze zabalez,
olako ixurtzerik gerta ez dedin emen
mundua ondaturik sekulako sekulez!

---

[a] gosetea *A* negar, gosea [b] banatuak *A* berekoikiro [c] norberazko - illun *A* biotzik barik, norberazko barrutian, illun

* Zer (1986, 95.zenb.) 10.

## UNE, TINI...*

Bakoitzarekiko bizigune ezbardiñez
une bakoitzari bere alangoa dario,
bizitza zear poz-atsegin edo[a] samiñez
zorituriko ainbat gertaera, ondorio.

Ordua ordu da, ta, minutua minutu...
danontzako bardiña bere iraun-aldia
ta, bizidun danok neurri beraz neurtzen gaitu
leporatuz eriotzazko elburu larria[b].

Bai, lagun, zuk nik negar dagidan bitartean
barre dagizu bizikiro zoriontsu, alai
edo, alderantziz negar, nik barre egitean[c].

Une, tini... Gure izate onen[d] barruan...
Zenbat eriotasunezko zauri ta bizigai[e],
gure aldiberazko ibillizko munduan!

## BAKOITZKERIA**

Urrunago. Geroago, ta urrun-urrunago,
bakarti bizi gara auzokoak izan-arren;
urrun bizi gara, bai etxeko, bai auzoko,
bakoitzkerizko barruti norberekoi baten.

Itxurazko lagun, itxurazko adizkide,
erosokerizko aurrerapenen artean;
bakoitza bere buruaren lagun ta senide,
—otz eta motz—, gizarteko artu-emonean.

Irripar dagitzut ta, irripar dagidazu
ta, bakezko deituraz, jakintsuak, jo ta ke,
eriogalluak asmatzen erne dabiltz, itsu.

---

* Zer (1986, 95.zenb.) 12 (*B*); *Esk*. XXII, 29 (*A*).
[a] poz-atsegin edo *A* atsegin edota [b] leporatuz - larria *A* erantsiz beren lokatz, beren urregorria [c] nik barre egitean *A* barre dagidanean [d] izate onen *A* bizi-izate [e] bizigai *A* edergai
** Zer (1986, 96.zenb.) 6; *Esk*. XXII, 30.

Betiko lez, gure lurra autserretuz gero,
gizonak obeago izatea ba-leiteke...
baña, jakin-min ibilko dira zer zan leno.

## ORRIAK AIZEAN*

Urteak be, joan doaz bai, orriak aizean,
autsez beteriko bideetan biraka, narraz...
Ba-doaz ta, ba-goaz elburura, bidean
bizitzeak itzi dauskuzan amets banakaz.

Egindakoaren ordain sari, aztutasuna
gelditzen iaku, zimeldurazko orbanpean
ta, aintziñako lillura ondoriotasuna
indarrik barik, odolaren auldurapean.

Baña, ori, jakiñezko gauza bat, ziurra da,
leporaturiko egi garratz gordiñaren
nai ta nai-ezko alan-bear, zama aztuna.

Ametsak, geien batez, amets utsak dirala
badakigu, izatearen ta igarotzearen
ustekizun bitxizko zugatzaren itzala.

* Zer (1986, 97.zenb.) 10.

## SUAREN ETA GATZAREN ARDURADUN*

Gure maitasunezko begiztatze ondorioz
suaren, gatzaren arduradun egin ziñan;
etxeko andra, buru, alkarrezko bat-batan,
orrek lekarken arazo, neke, pozkarioz.

Bateratuak, biok diardugu bai, ekintzan,
gogoz besteratsu gauzak iñoiz egiñarren
guk, egunean eguneangozko elkargintzan,
biotzez diardugu bidea ibilgarriagotzen.

Egun bat Udabarri eta, urrengoa, Negu,
(Uda naiz Udazken), loturazko egutaroz
alkarrez dagigu buruz buru, eskuz esku.

Buruz buru ta, eskuz esku, egunen zoriz
banatuko gaitun eriotzaraño, betikoz,
alkarri lagunduz egungo neke ta ogiz.

## SUPER GAU**

Bizi oiñarrizko egiturak ankazgoratuz
Super Gau berba barria dator indar artzen,
eriotzadun azi txarra erein ta ernalduz
gizon arroaren ustekizunak lurperatzen.

Au da oraingo gizartearen gurutzea!
Gizonak berak, arro, duana leporatu,
izar-asmoz erreztutzeko gorabidea
beste mundu barriren bat daigun eskuratu.

Elburu ausart ta, ona da bai, nai ba-dozu,
baiña, eriotz izerdi odoltsu datorrena
autserrezko odoitzapean, ortzi barrena,
lokarriak apurtuta aizebeta, itsu...

Indarroletan ezbearrak diranean sortzen
gizonak berak, negar dagi bildur-ikaraz
ikusten Izadia ondamendiratzen
atomuaren madarikatuzko kutsaduraz.

---

* Zer (1986, 99.zenb.) 7.
** Zer (1986, 100.zenb.) 4.

Gizonak lokarrituriko indar-tzar ori
onetik urten ta, igesari damotsonean
inpernuko labearen ozalea dirudi
sugar goritan, izumenezko lasterrean.

Gogora daigun Hiroshima'n zer gertatu zan,
gogora azkenengo barri dogun Chernobil
gogora lurbirako ainbeste ixtriputan
eriotzea datorkiguka lapurki, ixil.

Kutsatua ortzi ta, kutsatua lurra,
bizitzadun danak kutsatuak osotoro;
kutsatuak ibaiak ta, kutsatua ura,
gizona, ai! nun babestuko da nun gero!

## BAKARTADEZKO NEKEPEAN*

Maitasunik ez gizatasunik
sinismenik eztagonean,
dana zalantzan jartzen danean,
elburu bat ez daukagunean,
guzur utsez gabiltzanean,
anaia be ez dazagunean,
sinismena galdutakoan,
illunpean sartzen garanean,
geurekoikeri utsal batean
aurkitzen gara bakartadean,
nor barik ilduraz itunik
aurkitzen gara naaspildurik
gizarteko lokatz artean
amilduta etsipenean.
Gizona, erri bat ondatuta
aul ta makal, endekatuta
illik dagoz lizundurapean,
orrela munduko griñapean
buru barik jokatzen danean,
biotzik eta Jaungoiko barik
bat lagunik barik ibiltean
norberazko utsean galdurik...
Izateak ez dauka zentzunik,bakartadezko nekepean.

---

* Zer (1986, 100.zenb.) 32.

## OIU BAT*

Kaleetan oiu bat, karraxi itsu bat dabil
ots gogorrez ta gorrotoz beterik asarre,
aize latzera jasorik amaika ukubil
maitasunik ezaren irakindura labe.

Apurtu, apurtu au ta ori be apurtu
apurtu bizitzazko bizibide, indarrak;
apurtu, apurtu Euzkalerriko bazterrak
ta, anai artean lanik-eza sortu.

Apurtu, apurtu, erre dana ta kixkaldu
gure basoetako piñudi baltzetaraño,
goitu diran dirubide danak lurreratu.

Apurtu, apurtu ta, ixil-arazi dana
Euzkalerriaren izena be zapaltzeraño.
Oi gure Ama euskera, Aberri laztana!

## ORRIZ ORRI**

Bizi izateak dakarrenez,
(gau illuna izan naiz goiz gorri...)
negar oñazez edo, zorionez,
abestu une igeskorrari,
aldiko goraberatasunez
eroankor bezain itxarogarri.

Abestia laztangarri dogu
maitasunaren adierazgarri,
aizean ereindako eresi
ederraren bizi-iturburu
ta, lillurazko amets-ikutu
ororen eragin aringarri.

Orriz orri, zauriz jausiarren
aizeak daroazan orbel antzo,
amor ez emon etsipenaren
orban-ikutu itun-baltzari,
baizik biotza, ederrik jaso
eta abestu Udazkenari.

Udabarria udabarriarenez:
lora, txori... goraldi betean
izadia, gure begipean
eta, Negua be, neguarenez,
berakadazko egun motz, otzez
lotaratua dakusgunean,
abestu gogoeta-ikuspenez.

* Zer (1986, 100.zenb.) 32.
** Zer (1986, 103.zenb.) 12; *Esk.* XXII, 27.

## BEI TXURIA*

Zugaitz bakan baten azpian
aldizka billatuz itzala,
bazkatzen ari da zelaian
nire bei txuri, bei apala.

Nik dei egiten diot, alai:
Txuri, Txuri, ene maitea!
Atoz neuregana, atoz, bai,
bei otzan, etxeko urrea.

Nire abotsera, etorri,
etorri dator bai eta, nik,
bei zuri, ta ain otzan orri,
itz dagiot legun-legunik.

Begiak, Beren begi aundiz,
begiratzen dit samur ta ezti,
apaltasunezko eskariz
muxua urreratuz, urduri.

Ta, nik, ogi koskortxoren bat,
artaburu edo, antzeko
zerbait dakart bai berarentzat.
leitasun ori saritzeko.

Illuntzez, ukulluratzean,
beren lau errodun iturriz
esne ederra, errapean
ekarri oi du, ordain sariz.

Esne osasungarri, ona,
beia, beren aparia askan
jaten ari dan bitartean
aitak edo, jetxiko duana.

Lotara doa ukulloa,
lotara baitere etxea,
lotara bai, sendi osoa
ta, bei txuriaren maitalea.

Etxeko argiak itzaltzen
doaz, itzaltzen, banan-banan
ta, zeruetakoak biztutzen
izarrezko dirdirapean.

Gabeko ixildurapean
egunezkoak lotaratzean,
gautxoriren bat urrunean
dantzugu bai, baso aldean.

Berrien berri, goiztirian
bazkatuko da bei txuria,
etxe ondoko belardian
itxaroz neskatoaren saria.

Beti bazkatu ta bazkatu
erroak esnez bete arte;
begiratu ta begiratu
etxeko maitea nun ote.

---

* *Esk.* XXI, 139-140. (c. 1986).

## KOLONBIA*

*Abrisketa-tar Patxi'ri.*

Kolonbia da Andes mendilerro nabarmen
ta, berein ibai zabal aundizko lurralde
ikusgarri, aberats, ainbat euskal semeren
sorterri, egoitzaleku ta irabazpide.

Euzkoak eundaka asko dira Euzkadi'ri
agur egiñik, azkatasun ta ogi billa,
lur barrietara abia ziranak urduri
iziotuz amets-lillurazko bizi-gurpilla.

Antioki, Kauka, Bogotá, Bolibar ta, abar,
bizibidetu zituzten bai, gizatasunez,
burua jasoz uri, aran, ibarrik ibar.

Urrats argibideak Abrisketa'k damoskuz
liburu eder baten dakarzan abizenez
bigarren Aberri lez, Kolonbia goralduz.

---

* *Esk*. XXIII, 5 (1986-I).

## MANTEROLA-TAR GABIREL-I*

Manterola-tar Gabirel. Zeanuritarra.
Gorbeiaren sorbaldape osasungarrian
sor ta zuzpertu zan aren gogamen goitarra,
baserri lurrunezko erri ikusgarrian.

Aritzak, pagoak, eta gaztañadi ederrak,
goiberatu ziran beren negu ta bai udaz
aren mutil-aroko osertz, etxe bazterrak
orduko artzaingo eta arto garitzakaz.

Bere ikasketak gero, Gasteizen egiñik,
ogeitalau urteko zala abadetu zan
erriaz eta euzkereaz maitemindurik
abadetzazko gurutzea leporatu eban.

Ogeitabi urte luze Eibar'en jaupari,
eta, beste amar bat urrun, an, Ingalandan,
kristautasun eta Aberriaren mezulari
azkatasun itxaropenezko maite-dantzan.

Amaren aoz aren biotzean euskerea
sartu ta betikotu zan errotsu ta sendoro,
amaren laztanpean maitasunez gozoro
ikas izandako arbasoen berbetea.

Argia argitu zan aren gogo argian
ta, sinismenezko indar eta sentipenez
mintzo errikoi ta laztan maitagarrienez
janaritu zan Jaungoikozko iturri garbian.

Ta, euskal senez ekin eutsen lanari, gogoz,
Jaungoiko-Zalen, Ekin'en , Yakintza'n ta, abar,
benetako gogo, zintzotasunez, su ta gar,
euskerea argi ta garbi jasotzeko asmoz.

Adimena argi, biotza sutan, labe gori,
ipuiñak, bertsoak, goi-izpidun arnasaz
idatzi ebazan errezkiro ta ugari,
apaltasunezko bizitasun eder bataz.

* *Esk.* XXIII, 8-9 (1986).

«Aterki» izeneko olerki begikoan
diñoan lez zelan izten dan bazter batean,
erdi aztuta euririk ez dan bitartean...
Arek ez! Euskerea beti zeukan bai, gogoan!

Bere garaiko gizon on abadea dogu
beti, apal, zintzo, Erri ta EUSKERA alde
ta, guk, emen, aren izena aintzaz omendu
txalotzen dogu, emen balego bezelaxe!

Beraz, oroimen agurrezko txalo bero bat
deskatzuet, ill-arte euskeraren gurtzalle,
benetako euskalari eta olerkide,
izandako Manterola-tar Gabirel'entzat!

## ASKOTAN*

Bai. Askotan nai genduke emendi ta andik
ibili, mundua zer dan jakiteko gogoz;
ibili mendi erpin, ibar, zelaietatik,
lurralde ororen barri izateko asmoz.

Ikuspegi bakoitzaren dirdira bat jaso
ta, entzun ta ikusizkoz biotza aberastu,
ibiliz ibai zear, itxasoz itxaso
berein ta bost erriren zelangoa altxortu.

Ia ibili baiño geiago egaz egin
ta, begiek ikus ezin daben itzalpeko
gogai illun zadortsuak argibidetzeko
gogaketa sakon arduratsu bati ekin.

Egaz, egaz... ta, aizearen antzera igaro
norabide jakiñik barik, berein osertzez,
gaur emen, lur zelaian, ta gallurrean atzo
bizitz aldakorrari dagokion berritzez.

Arrano egalez azkatasuna aizeatu
ta, erle langilleteri ta txingurriarenez,
bizitzazko eredu-bide oro gogoratu
izadiari guk zor dautsegun begirapenez.

Alorrez ibili nai genduke landaz landa,
ta, lora artean, ederbera, Maiatzeratu,
ta, ibai baten itxasoratzeari jarraitu
osteraz osteraz, baiña, beti aurrerantza.

Txoriekaz be zugatz adarburu gorenera
alaikiro igo ta, abestu erri artean,
bizia aldarrikatuz egunaz batean
zozo baltz goiztari edo, karnaba antzera.

Itza bebil gogo garbiaren ta biotzarenez
egibidezko zentzumen argi, adoretsuz
gizatasunezko ereintzaz ta, maitasunez
oldozkun oro zuzen ta artez oñarrituz.

---

* *Esk.* XXIII, 36-37 (1986).

Udabarriak alai, abestu begi gugan
asierako bizitzaren gora-nai ausartaz
ta, Neguak be, bere giro illun ta otzaz,
ez begi ez orbanik itzi gure animan.

Jantzi zaitez bai itxaropenezko orlegiz
eta, zanpatu nai zaitun etsipen baltzari
ez amor emon, malko itunen tamalkeriz,
samindura goibelez datorren egunari.

Eskura dagigun bizitzaren irriparra
ta, zabaldu aren ongarri eder, onura,
aren eragiñezko laguntzaren goidura,
aren pozbidezko urregorri ta zidarra.

## ANTZA DANEZ*

Antza danez
eguzkiak, gaur,
«toton» egin dau.
Ene Ama Lur!
Ez da etorri,
ez da ikusi
oraindik emen.

Baiña, zelan ez?
Gure katua
miau ta miau
orain-oraintxe,
sukaldean zan
estu ta larri
gosari eske
ikaratua.

Euzkia nunbait
odei batean
katiatuko zan
ta, antxe bertan
egongo da, bai,
eguneroko
ibillaldia
betetzeko zai.

Aizeren batek
ez ete dautso,
ba lagunduko
andik urteten
bere betiko
eginbearra
egiztatzeko.

* *Esk.* XXIII, 38. (c. 1986).

## UDAZKENA*

Aizea berein kolorezko
orri zarrakaz jabetu da.
Abailduak ta, banan-banan
asi dira lurra betetzen.
Lurrera datoz emen ta an,
inguru oro azpikotzen
orbelez, goizetik gabera.

Mutil biurri baten antzera,
zeruak, goibel, dardartua,
atzamar-buru bigunakaz
ikutzen dau aize ubela
ta, asten da usaingozozko
eresi bat joten, goizaren
urregorrizko osertzakaz.

Urduritasunez zamatua,
ona emen ikuspegia!
Atzartzen ari da, esnatzen,
orri-soñuz dardaratua
nabarmenkiro, zoro-zoro,
boladaz bolada, aizeatzen
egoiaren ibil-lekua.

Ta, eresidun adar-otsez
zugatzak, tikili-takala
ari dira bai, bata-bestez,
latsa, kantari, mendibeera
aurrera doan bitartean
zii eta txaraka artez
aitatuz bere jatorria.

Udazkena ozendu dala
ezagun, ezagun da. O, bai!
Nabarmen ta, erabat deslai,
orbel margulak gainberaka
ikusiz narrez dabiltzala
aidean, negar-zinkurinka...

Itunik, an, eriotzaren zai
bakanki, zugatz adarretan
oraindik gelditzen dirala
bakartadezko nekepean
orriño batzuen itzala
ordua noiz elduko, ernai
larridurazko gogaketan!

* *Esk.* XXIII, 39-40 (1986-XI).

## NUN-NAI*

Nun-nai. Egoan, lorean,
bidebera, ikaratsu,
begiak sakon, izadian
kokatzen doguzanean,
gauzaen izaera, mundua,
begietara datorkigu
mintzaira ixil, betean,
goituz beren ezkutua.

Aintzakotzat ere artzen
zeintzen ez doguzan gauzak;
ezebezkeritzat jotzen
doguzan izaki deusak:
mamorro txiki, ingumak,
biziki utsal, uts-utsak
balira lez, azpiratzen
doguzanak ta zapaltzen.

Goizaldea, artaldea,
itsas-bazterrak, osertzak;
baso, solo, zelai, larrak;
orri dirdiratsuetan
aizeñozko dardarea;
euzki, illargi, izarrak,
urrundizko barrutietan
dana, mirariz betea.

Benetan samurgarria,
bizi-senez, norberaren
adimen, gogo, kolkoa,
argi-izpiz betetzea,
altxorturik egunaren
gabaren urreteria,
bizitzaturik gogoa
eta, gure izatea!

* *Esk.* XXIII, 41-42. (c. 1986).

## ZU*

Zu, ene maitea,
emen zagoz nire
une bakoitzean
ederrez betea.

Emen bai, gogoaren
biotz esparruko
zuretu naiaren
begiradapean.

## BASERRIAREN NEGARRA**

Bizitzako itzal arabera
atsegiñez edo malkoz gorri,
gerta daiteke eragitea
gure lengo dabolin zarrari
ta, igarotakoz ibiltea
egi garratzetik igeskari.

Tokiak lengoak diranarren
gauzak orain ez dira bardiñak,
basetxe asko ondatu dira
ta, ez da lengorik ezer emen
izan ezik arri ondakiñak
oroitzak dakazenak bizira.

Ez da entzuten ume abotsik
ta, soloetan arto ta garirik
ez dago. Ez da burdi soñurik
piñuen aize baltza besterik,
ta egon gintzakez egon pozik,
euskera bizirik nabaiturik.

Eriotzazko ixiltasun latza
sartu da gure baserrietara
ta, maitasunak beroturiko
kabiak ustuta, urietara
zoro-zororik abiatu dira
bizi erosoago baten billa.

Indar barri zai dagon lurraren
gautar intziri, estuasunean...
negar dagi baserriak, lotsaz;
negar, beren nai ta eziñaren
mindura, alakuntza betean
buru makur, beren arantzakaz.

---

* *Esk.* XXIII, 44. (c. 1986).
** *Esk.* XIII, 47. (c. 1986).

## MUNDU ZABALEKO BIDEZ*

Mundu zabaleko bidez
zuzen ta argi ibiliz,
ainbat izardi ixuriz
zeureganako itzalez...

Ikasi al zendun ikas
munduan oiñez ibilten,
bizitzako ametsakaz
zeure kolkoa betetzen?

Betetzen eta ustutzen,
ikasi al zendun ikas
zeure burua iasotzen
zeu gizon bat izanaz?

Ainbat oztopo, arantzaz,
zorionezko egun baten
ikasi al zendun ikas
zeure bidea egiten?

Biotzezko ikuste argiz
lagun urkoa laztantzen?
Maitasunezko ur-begiz
bizia errezagotzen?

Au bizi irabaztearen
guda-bide, neke-lorra!
Bizi-bear lasterraren
iraunbidezko alorra!

Bizia osatzen duten
itxaropenak, ametsak,
azkeneraño dirauten
gure eusgarri, beratzak!

## ABOTSAK...**

Gogoangarri doguz,
guztiz maite, etxeko
izan ziran abotsak.
Il eta lurperatuz
gugandik betirako
urrundu ziranenak.

Ildako lez batzuetan
itz egiten dauskuenak
gau-ordu ixiltsuetan.
Unetxu bakan batez
gero, aitatuz lenak,
amets baten bitartez.

* *Esk.* XXIII, 51. (c. 1986).
** *Esk.* XXIII, 57. (c. 1986).

Bizitza igaranak.
Anots orrein bidetik
gugana datoz beste
anots batzuk, ixilik,
bizitza-barruz, gure
inguru dabiltzanak.

Urbildura urrunak
eresi olerkitsu
baten gogai antzera
oñots barez, ixiltsu,
maitez datozkigunak
betikozko bidera.

## TELLATUZ TELLATU*

Tellatuz tellatu
beste erri batera zijoan
tellatuz tellatu
amesetazko lillurapean.

Txorien egoetan
mendiak zearkatzen ebazan
eta ibarretan
bizia mardul nabaitzen zan.

Lautadeak ibaiak eukazan
ta arraiñak bertan
lo-artuta ango bazterretan
ur bare gelditan.

Akarazko umeak
arresirik arresi ebiltzan
joranez beteak
len baiño len igarotzekotan.

Baiña, arein ametsa mugaldea
zan ta, azken bako osertza,
nun, urrunezko begiradea
zirudin arranoaren jabetza.

Zintak, gomutapenak
agurtzen eben igarotzean
une-aldi etenak
itzultzerik bako bideratzean.

Tellatu bakoitzean
malko baten aztarnak
maitezko negarrean
gorderiko barrenak.

---

* *Esk.* XXIII, 215. (c. 1986).

## UR TANTATXOA*

Zatoz, zatoz bai arin
ur tantatxoa
ba, zugaz nai dot egin
amets atsegiñezko
dantzalditxoa,
legunkiro ta gozo.

Ur tantatxoa:
Emoidan bada, emon,
zure ur, ur margoa
zazpi iluziñotan
ortzadartu dadin
nire maitasunaren
eguzkitar gogoa.

## ILLUNABAR URREZ JANTZIAK**

Illunabar urrez jantziak
gorri, orizka gardenetan,
ameskizun ego guztiak
bereganatuta eukazan.

Illargia izar artean
zurbilduta zetorren eder,
ta, itxaso otzan, barean,
igeri dakusgu Maiteder.

Izaro'tik Ogoñopera,
udako ortzi, dizdirapez,
ta, ontzi batzuekaz batera
amesbera noa ur ganez.

Antzora aldeko ertzean
txirtxirra dabil abots zoliz
ekindura nabarmenean
illuntze gentzatsu gurgarriz.

Egun ta Gabaren arteko
ezkontza betiraungarria!
Atsegin ta poztasunezko
egurats-giro goigarria!

Jaungoikoa dago pilpiran
Izadiaren arimapean,
aize-ikutuzko gelduran
ta lorarik apalenean.

Ots dagi aizeak kantari
udarako etorripean
ta gauza bizien mezuan
agurka, otoika Jaunari.

* *Esk.* XXIV, 75. (c. 1985-1986).
** *Esk.* XLIV, 85. (c. 1985-1986).

# 1987

## ORBELDU BAIÑO LENAGO*

Eguzkiak dirdaituriko udabarridun
zuri-gorriz burutu diran lorateriak
bertsoratu nai neukez egitasunez, kutun,
bizitzaren amets-aldiko ederteriak.

Irriparka dakusguzan izate goitari
berein muetako gauza eder, ikusgarriak,
eze ta zindo, lerdenkiro, ain ameslari
itxaroturiko bedardi, landarateriak...

Bizi igarankor ori beren ederrean
orbeldu baiño lenago, illunpean jausiz,
bertsoratu nai neuke osotasun betean.

Atxilotu nai neukez beren gorakundean
maitasunezko berbetaz, biotzeko eresiz
orriz-orri, alkar-min, Loreildu diranean.

## URRUNDIKO IPUIÑA**

Ume eder txiki ta tolesgabeak,
irakurri nai izaten eban beti,
neska eder txiki irakurtzaleak
beti, nai izaten eban irakurri.

Leiora joaten zan arratsaldean.
An, egoten zan adi-adi, zer barri,
ikusiz oñezkariak beko kalean
joan-etorrizko ibiliz, urduri...

Askok bai, irakurri egiten eben
bidebera, egunerokoa eskuetan
liburuxka edo margodun paperen
bategaz, ibillaldi punterenetan.

Baita igarotzen zan agure bat,
orri askodun liburu mardul bataz
nun aurkituko ebazan laguntzat
gizaki bakunak beren ipuiñakaz.

Neskatoak gauaren antzeko begi
baltz-baltzak eukazan ta, zeruak lez,
izarrez beteak, goietan dirdari,
zoragarrizko argidura politez...

Berandutzen zanean ta, nekaturik
zegola begitandutako ainbeste
gauzaz, ogera gogotsu urbildurik
loguretuta etzuten zan bai, antxe...

Ogea bigun-biguna ez zan arren
begiak izten ebazan, zeru garbia
zearo itxiko ba-litz lez, une baten
illunperaturik izarteri guztia.

* Karmel 1987-2, 103.
** Karmel 1987-2, 104.

Orduan lotan, bere gogo barruko
begi errubakoak zabaltzen ebazan
atsegin gozoz irakurriz ederto
gauak eskuraturiko orrialdetan.

Gauero, aren oge gogor garbiaren
buru aldean, aingeru bi egozan
loa zaindu ta, zeru izarreztuaren
edesgai ederrak irakur egizan.

Jakituriaren eta Maitetasunaren
agerpide sakon ta zoragarriak
tolesik bako ume arima baten
biotz-begietan biziro irarriak.

## ITXASOA*

Neure biotzeko argi dizpillez
or atera nintzan bidebera,
bizitza beraren gorabera
urdurietako eragin bipillez.

Abiatu nintzan ezagutzera
itxasoaren barruko negarra
ta, aren kolko, itxas adarra,
aren, kresalezko igikera.

Zuri, orlegi, urdin ta arre,
berein margozko sakon-azalez
aurkitu nintzan bakar, mirabe,
gazigezazko bits, ugin artez.

Itzal ta lañozko esparruan
aurkitu nintzan bai, esitua,
zadorrezko estalki barruan
ainbeste itxasoz arritua.

Goiz gorrizko ta arrats gorrizko
egutaro odoltsuz gaindua
aurkitu nintzan, negargarrizko
munduaren aiotsez zapaldua.

Itxasoa zan bai, itxasoa,
beren alderdi txar ta onakaz;
eguzkia, euria, laiñoa,
orotariko aize, ekaitzakaz.

Aizeaz, aizeaz batez ere,
astintzen dauan aize gogorraz
aurkitu nintzan an, noragabe,
neure bizi-nai estuaren lorraz...

Biziak darakusgu ontzia
nolaz erabil, nolaz[a] noratu,
ikusiz nungoa dan aizia
iakin gero nola[b] eratu.

---

* Karmel 1987-2, 106 (*B*); *Esk*. XXII, 128 (*A*).
[a] nolaz *A* eta [b] iakin gero nola *A* eta, oialak gero

Oldarka, gogor datorrenari
eman bai amor[c], bear danean
edota lotu[d], eutsi trinkoki,
eutsi bulartsu bai, ten-tenean[e].

## OTOITZA*

Legorreko antzera
itxasoetan ere
aize mueta asko
ortzi-bidetzen dire...
iparra,
egoa,
mendebala...

Berein aize:
aize lagun,
aize zahar,
aize gogor,
aize bare,
aize gordin,
aize berde.

Aizeak aize
aunitz dire...
Aize epelak,
aize beroak,
aize ozkirriak,
aize otzak,
firili-faralak[a],
ta[b], aize kalmak.

Ipar aldez,
ego aldez,
mendebalez...
Aizeak aize
aunitz dire.

Beraz Iauna,
arren,
gogoa[c],
soiña
osasunduz
egiguzu
kresalean
aterri
eta,
kalma.

[c] eman bai amor *A* amor emanik [d] edota lotu *A* edo lotu, ta [e] eutsi - tenean *A* aizearen indar-neurri berean
* Karmel 1987-2, 107 (*B*); *Esk*. XLIV, 39 (*A*).
[a] firili-faralak *A* aize firilifaralak [b] ta (*A'n ez da agiri*) [c] gogoa, *A* gogoa/eta

## ITXASOA DANENA ZANEAN*

Itxaso danena zanean
ontzi-oialak or aizeratuz
ugiñen araura, bizi-gogoz,
berarizko azkatasunean
txalupak egokitzen zirean
eskuak ta gogoa kresalduz
iparreko aize nai egokoz
itxasoa danena zanean.

Itxastar eskuetan arraiña, ta
perlak zirean bai dirdiratzen
ta, loturiko euzki antzera
gau-egunak zituzten edertzen
ta, izar, illargi arabera
ontzi-brankatan berein porturen
ikutu arrigarria zekarren,
itxasoa danena zanean.

## UDAZKEN AIZEAZ**

Emen dakusguz. Au poza! Orri orituak
azkenengo aldiz aintzazko gozamenean
aizeak zelan daroazan bere besapean
lotura guztietatik betikoz azkatuak.

Biraka, goiberaka, aidean azkenengoz
udazkenaren bultzadakaz kanporatuak
kimuetatik at or dabiltz... Oldoz daigun, oldoz!
Ez al dira giza-bizitzarren ereduak?

Ederrik doaz ta, poztu egiten gara bai,
orriak ta aizea, eresia nabaitzen
dogulako oraindik bizi-dardaraz, alai.

Aizeari damotsaguz egungo amets-orbel
ta neke samiñak, doguzanak alikatzen
unerik une, batzuk mardul besteak zimel.

* Karmel 1987-3, 107 (Ik. 706.orr.).
** Karmel 1987-3, 109.

## UDAKO IKUSPEGI BAT*

Udako gau argitsu barean
itxas ederrak lilluratuta
eguzkia itxasperatu da
an, sartaldeko ertz urrunean.

Zoragarrizko izartzapean
murgildu da mustada batean
goiko zerua lez ikustean
beste zeru bat beko aldean.

Jaungoikozko lilluramena
sortu da bai illunabarrean
itzalezko estaldurapean
gaubide sorgintsuz datorrena.

Gentzazko bake santuan nago
ur kresalakaz bat egiten dan
ibaia daukadala an bertan
mendipean, apur bat beerago.

Txirtxillen abestiak dantzudaz
ta, berein zomorroren agurrak,
bakoitzaren abesgai, doñuakaz
eresituz inguruko lurrak.

Biotzari zabalduz ateak
oraindik ba-dagoz bai, munduan,
ametsearako gaiki ta bideak
laztanka, izadiaren kolkuan.

## EGIN AMETS**

Aurkituz ametsean jarraitzeko bidea
jaso dagigun bai bizitzan ain bearrezko
dan gauza txiki ta nimiñoenez egindako
egontoki bat, argi izpiduraz betea.

Norberaren barrunbeko etxebizitzea
babesten gaituana ainbat nekeren aztunez;
ametsetik ametserako barru-aldea,
beren argidura maitagarri, izartsuenez.

Egin amets, ekaitzei aurpegi emoteko
itxaropen bizi batez biotzak izioturik
bideberako zauri gordiñak sendatzeko.

Amets batetik jausiarren jaso bai, beste bat,
egiaz, maitasunaz jantzi, barriztaturik
izan zaitezen, «zu zeu» zeure gogo-bidetzat.

---

* Karmel 1987-3, 110.
** Karmel 1987-3, 112; *Esk*. XXIV, 133.

## ZU NIRE ALBOAN *

Zu nire alboan. Ixiltza utsaren
azalgairik nabari eta argiena,
oñarritzen ari da une gardena
nire biotza dauana taupakatzen.

Ariña zure eskuaren egaztada
nire eskurantza: samurtasun leuna
an, biotz barruan, epelik gordeta
zegoan ixillezko sugartasuna.

Gogoz begiratutzen dautsut sakon
ta, nire so begiratuan sortzen da
berba mutuzko poemarik ederrena
nai neukena zuri betirako emon.

## ZU NIRE ALBOAN**

Zu, nire alboan. Ixiltza utsak
bere azalgai nabari argiena
billatzen ari dan une gardena
taupadakatzen dauana nire biotzak.

Ariña zure eskuaren egaketa
nire eskurantza: xamurtasuna
biotz barruan ederrik gordeta
zegon ixilpeko sugartasuna.

Sakon begiratutzen zaitut sakon
ta nire begiratuan sortzen da
berba mutuzko poema ederrena
nai neukena betikoz zuri emon.

## ABERRIA***

Maitasunezko ekintza bat da Aberria,
eguneroko biziratze ta gorakuntza;
eguneroko alkarbide ta aurkikuntza,
anai-gogoz landutako joan-etorria.

Odola da zanetan bolbol, irakindua,
itxarozko esker onez goratuz bizia;
da, goizetik gabera dariogun izerdia,
malko garratz ta negar samiñez osotua.

Da, izkuntza, arbasoengandik datorrena
mende-luzeetako egun-barritze pozgarriz
gerizpetutzen gaitun aritzondo lerdena.

Euskera miresgarri, argitsu ta gardena,
aintziñatiko sustrai, izamen aintzagarriz
betikotu nai dogun berbeta ederrena.

* Karmel 1987-3, 112. (Emen ere olerkiaren idazkera bi).
** *Esk*. XXIV, 42.
*** Karmel 1987-4, 103.

## SENDOTASUNEZ*

Egokitu bedi bai, bizibidea,
gogoa sendo, soiñua osasuntsu,
eder-ederra baita bizitzea.
Jauna! Gizartean alkartiago
bizi aal izatea emoidazu;
nire bizitzako egun geiago
zuzentasunaren elbidetzea.

Landara lerden baten antzeratsu
bizi emoitzazko gizatasunez,
lizarraren arteztasun goratsu
edo ezetasun garden, zutunez,
bizi nai dot, zeru ta lur arteko
ekintzapen arduratsu, bioztasunez,
biziari gores ta abestutzeko,
egunen joanean, itxaropentsu.

Zeru ta lurraren neurkadapean,
Udazkenak ez daiala agortu
ain laster, ez dedilla suntsitu
nire landarea, beingo batean,
baizik itzi, emon nire oñari
beren arintasuna, ta biotzari
itzi bere arraunen abantean.

Ederpetu bedi nire argia
egunean eguneango etorriz;
langille eskuz egungo ogia
egintzapen apalez, irabaziz;
ez nagizula itzi Urrillako
orri lez, urdindura baltzean,
edota kea lez, goibideetako
urruntze ta desegindurapean,
lakutik at, galdurik sortaria.

## ETSIPENEZ BETERIK**

Ta, etsipenez beterik
bizi garan mundu ontan
ez dugu ametserako
bitarterik ez astirik.

Lasterrez, ariñeketan
gabiltza bai, larriturik,
esku artean estutu
ta, biotza lauskiturik.

* Karmel 1987-4, 106.
** Karmel 1987-4, 107 (*B*); *Esk.* XXII, 5 (*A*).

Bildurrez ta makurka
ibilliz kokil, esturaz,
espetxeratu antzera
ezinbizizko maluraz.

Euzkipean goaz, aren
erraiñu pozgarrietatik
laño batek estalirik
galduta lez bazter baten.

Ez dugu nai, «bai» borobil
«bai» betegarri bat eman
biotzez beterik, sotil,
gure dana utziz bertan.

Ez. Ez dugu esan nai «bai»
maite ditugun izaki
ta, bazter orotan alai
goitzen dan maitasunari.

Dan-dana baitago[a], dana,
indar eskutuz loturik,
ari ta oni emana
azpikeriz suntsiturik.

Usteldura txarkituak
asarratzen ta zoratzen
gaituztenak, minberatzen,
eriotzazko ikutuak.

## EREDUAK*

Zurezko kollarearen gizaldikoak dira
zaar itzalgarri aunitz asko, krisalluaren
aldikoak dira bai, eta antoxiñaren
egunetakoak, beti, aurrera begira.

Doazenak dira, gu lez, euren elburura,
bizitza luzean ainbat ikusi ta jasan
izan dabenak mundu ontako bira-biran
ainbat negar-malko eta zorion onura.

Doazenak dira, oiñak txakil, burua urdin,
udabarriz, udazkenez ta negute zuriz,
aurretik doazenak bidean gora, neke-min.

Ederra baida sen oneko buru zuria
zaarren begietara begirune, itzal aundiz
begiratu daigun ikasiz zer dan bizia!

[a] Dan-dana baitago *A* Dana dagolako.
* Karmel 1987-4, 110.

## MAXIAKETA*

Gaur zuek zaarretaz maxiatzen zarienez
ez zaitezela ez, gero, maxiatuak izan
geiegizko jakinduri ustekizunakaz
ibiliz arro, aurrelari lez gizartean.

Azpijorrazko ollarkeri, aundikeriak,
ez dira on ezeren aurrerapenerako,
ez dira ezta batere onuragarriak
erri baten jakintza gorespenerako.

Ikas dagigun apalik aurrerako bidez
lan egiten ta, begi argiakaz begiratzen
atzekoaren ta gaurkoaren jarraipenez.

Ikas dagigun gauz eredugarri orori
beren baliotasunean neurria artzen,
ateak zabalduz argidun oldozkunari.

## EZ AL DOZU IKUSTEN?**

Ez al dozu ikusten ta nabaritzen
aintziñate urrun urrungoenetik
datorren ori... gauzaen sorkaritik
dakusguna zutzaz dirala mintzatzen
aintziña aretatik datorren sustraiz,
zutzaz dirala betikoz elekatzen
ariz-arizko eguneko aurpegiz...?

Euzkiak argi dagi edo[a] da euri...
eta da ori, zeure entzumenean
lo dagon txori bat zeure barrenean
amets-egoakaz ortziz-ortzi, goiztari...
Orra ba, or, euria zelan dan jausten
lurrari arnas emoten, iraunazten;
ta, orra zugaitzak aurpegi garbitzen
uleak nastutzen, gerria billusten.

* Karmel 1987-4, 111.
** *Esk.*Karmel 1988-3, 98 (*B*); *Esk.* XXIV, 68 (*A*) (1987-XII-3).
[a] Euzkiak argi dagi edo *B* Euzkiaz argi dago [b] betean *B* batean

Orduak izten dabe orri bakoitzean
unez une, beren lorratz iraunkorra
aizeak igituriko izatean,
azalduz bizitzaren egungo lorra
orduz, minutuz, segunduz, unez une,
beti-betirik, barrikuntza betean[b],
sakon datorrena edo erabat aise.

Ur tanta, tanta bakoitzak berberaren
gogamen ta kondaira luze bat dauka
tximiztaren batek edestutakoa,
argi zaurituaren ots, aldarrikuntza.
norabako txori urdin batek beren
txintadakaz gero, zabaldutakoa.

Bizitz-edestia ezin asetuta
bizidunok begipean dakusguna;
gaur uda-zantzoz ta loraz edertuta,
ta, biar, neguz makur datorkiguna
ai!, oar zaitez ori bera zu zarala
ur tanta baten ondoriozko lurruna!

## ORRIAK ETA AIZEA*

Orriak ziran, bizitzadun orri urduriak,
eze ta atseginkor, eguzki dirdirapean.
Orri orlegiak ziran, orri agurkariak,
inguruko ikuspegizko edertasunpean
aizearen laguntzaz sorturiko durundiak
orriz orri, alkarbidezko egaztadapean
soñuturiko urrundi urrunen agiriak.

Orriak eta aizea, itxastar kresalpean
alkar-besarka mintzo eztiz, ta, alkar pozturik,
udaldiko egurats argiaren egoitzapean
bakoitzak azalduz beren amets ta egarriak,
orriz orri dantzari, aizearen ikutupean
oskatu ziran unearen ederra dastaturik.

* Zer (1987, 108.zenb.) 3.

Orriak. Orri talde eze ta soñulariak,
ortzipe urdiñez an, egaztadarearen ertzean.
Orriak ziran bai ta, urrundi albistariak;
orriak ta urrundiak zurrumurruz beteak,
kitarra baten ariak lez, ibilli luzean,
maixuki joten ebazan eres-notak, aizeak.

Aizeaz zetozan bai, urrundietako ipuiñez,
orrietan zurrumurka, lurralde ikusgarriak,
beren mendi ta lautadazko oroitzapen maitez
ta, berein izkuntzazko edesti ta oiartzunez,
beren igarozko zeruetako euri, odeipez
aizeaz zetozan bai, lilluradun irudiak
orri txalopintxalozko egun atsegin batez
eremuz, itxasoz, urrundietatik igorriak.

## PAPER ZURIZKO ITXASONTZIA*

Ai, paper zurizko itxasontxia!
Nire eskuetan eder, jorankiro,
dana biurtutzen jatsu itxaso
kresalezko urbide goigarria!

Ume, egizu lo, or, gozo-gozo,
eta, zoaz itxasoak amesturik,
ba zure biotzean orain ez dago
eraso bildurgarrizko lorratzik.

Argiturik zure norabidea
ai! ez al dozu ikusten maite
illargiak egindako bidea
zu ibilteko nora-nai ta azke?

Kukuluaren zerutxu batean
bizi da bai nire ur tantatxoa,
ai, Eguzki, ez eidazu eroan
edozein oroitara aren soa.

Nire oñetakoak munduko lokatz
zikinduraz bete-beterik dagoz
baiña, nire biotzak, alan be, gogoz
ta, sendo, aurrera darrai argirantz!

Txikia da nire itxasontzia,
(nire bertsoa be ezta aundia)
gura dabena sartu barruraño
oldozkun beraren biotzeraño.

* Zer (1987, 108.zenb.) 14.

## EDURRA*

Mendi ta ibarretan
zuritasun gardenpean edurra
ikusiz burututa,
ikusiz gallurtuta
zuriz soiñekotuta
ain edetasun otzaren ikurra...

Zein baltza, zein baltza dan
izara zuriz jantzitako lurra,
negu gorriaren aize baltz artean
nagositzen danean
aren dizdira biotzge, makurra
goibeldurazko aztundurapean!

Eriotza da eriotza
dauana izoztuten
izadiaren biotza
minduraz ondatuten.

Goseak eta aterperik ezak
ondatu dabez bai txorien pozak,
bizi izatezko itxaropenak
egaz egiteko gogo, almenak.

Orain udabarria laster baten
urre-urrean or daukagunean
itxaropenezko bideak eskeintzen
orri-orrizko amesetapean...
edur izoztuaren atzaparpean
jausi dira betikozko betiren!

* Zer (1988, 120.zenb.) 12; *Esk*. XXIV, 140 (1987-I-19).

## BARRIEN BARRIZ*

Barrien barriz alaitzeko
bizia etorri dator bai;
negutar lo baltza austeko
erabidez[a], zelairik zelai.

Izate poza edatzeko
lora-txintadapean[b], alai,
bizia odol barritzeko
udabarria dator[c] ernai.

Edertasunaren zantzua
euskiaren goratasunean
zeru argiz oiukatua
ezetasun orlegipean[d].

Baiña, ai! bizidun bizia,
ez al da, latseko uraren
arri ganeko ibilia
edo, ibaibera[e] doanaren

igesiko ots kantaria?
Ez al da itxasoratzearen
Pilpilkadazko doñuaren
Igarotze agurkaria?

## OROITZA ZARRAK**

Soiñekotu nagizue oroitzok.
Zartzaro baltzari dario otza!
Ibaiak agortu diranez gero...
Au da au billustasunezko lotsa!

Soiñekotu nagizue oroitzok,
ia ni naizen bezain gorputz zarrak;
urrundik niganantza zatozenok
¡denpora igaranaren sugarrak!

Nire oroitzok bigundu ogea,
azkenengoz lo egingo dotana;
sustraitik dator enbor izatea,
egun batez ni etzungo naizena!

---

* *Esk.* XXIII, 85 (*B*); *Esk.* XXIV, 38; Zer (1987, 110.zenb.) 11 (*A*).
[a] erabidez *A* etorbidez [b] lora-txintadapean *A* udabarritar kantuz [c] udabarria dator *A* etorri datorkigu [d] *bertso au ez A'n agiri.* [e] Edo, ibaibera *A* edota, joan
** Zer (1987, 110.zenb.) 11; *Esk.* XXI, 26.

## GALBURUAK*

Galburuak buruz buru
zein eder ikusten diran
zutik zibu eta zibu
aizezko gozamenean!

Galburu eze, lerdenak,
orlegi ta bizardunak,
itxaroz jantzi direnak:
ogigai eder, kutunak.

Naparroako alorretan
eperrak dabilz kantari
lautada ta malkarretan
kabi-lanetan maitari.

Bizia galburuz pilpil,
—gaur eze, biar beilegi—
eguzkipean goratil,
olatuzko ogitegi!

Azal gorri, barru zuri,
urun biurtuta gero
ogi eta opil bero,
egunoroko janari!

Gizonentzat eusgarri
izan beti, maiko buru,
gosekentzalle nagosi
ogi eder bedeinkatu!

## GALBURUAK**

Galburuak buruz buru
zein eder ikusten diran
alkar ikutuz ikutu
aizezko gozamenean!

Galburu eze, lerdenak
ta, margoz orlegidunak,
biotzez ain nere direnak
ogi alezko kutunak.

Naparroako alorretan
dakuskezuz bai, muxuka,
lautada ta malkarretan
alkarri kutun-kutunka.

Urregorrizko galburuak,
ale guri egikorrez
dakusdazanak elduak
egungiro ain baikorrez.

Galburu orlegi eze
ta, baita elduok ere
neure umeak zerate
dan-danok biotzeko maite!

---

* Zer (1987, 112.zenb.) 6. Ik. 1013.orr.
** *Esk*. XXI, 109. (Emen ere olerki baten idazken bi).

## ITZ ARGIAK*

Itz argiak bear dodaz neure burua
neure adimena argitzeko maitasunez,
neure elburubidea, neure ingurua,
osasuntzeko berarizko gizatasunez.

Ondamenezko gizatearen akulupean
koldarki, erio kutsaduraz, ezingo gara
beti zemaipean bizi bildur ta ikara
giza lorrinkeri onen itzeldurapean.

Drogaren eragiñezko mozkorkeripean,
ezingo gara bizi ustel-sundaz, kiratsez
eskuz-esku, nun-nai eriotza dakusgunean...

Itz argiak bear dodaz egoera baltz oni
egokiro arpegi emoteko, zentzunez,
itz argiak, ibillaldi onen aringarri.

## AMETSAK UME BATENTZAT**

Eskuakaz arrapatuko dogu illargia
laztanduz aren aurpegi biribil zurbilla,
an, izar artean, jaunduriko gautaria,
aldizka lurra dargizkun zerutar dizpilla.

Gau billutsez urduri ibilliko gara
aizearen egoetan ta, gautegiaren goitikoz,
sorgindurazko zelai, itxas-artez, ikara,
Jaungoikoak esku-zabal, maitez ereindakoz.

Ez daitezala ba, begiak, utsik gelditu,
urrundi urrunean barrenduta, an, urrun,
ez daitezala argi bako irudiz galdu
leiza barruan sartuta itunkiro, illun.

Larrosak sortuko dira goiko zabaldian
lora usaintsu bitxi eder ta aunitz asko,
zoragarrizko dirdiramen ikusgarrian
noranaira begiratuz, biotzak alaitzeko.

---

* Zer (1987, 113.zenb.) 5; *Esk.* XXIII, 84.
** Zer (1988, 115.zenb.) 2. (1987.ko Olerti-Egunean, Larrean, aurkeztua).

Udabarriz sorturiko amets-iturriak,
udaran gero, emoi ederrak burutzeko;
lora zuri, gorrizko inguru gurgarriak,
laztankiro gero, gogoz biotzeratzeko.

Munduko ondartzaz ondartza, ondarrik ondar,
umeak, bein eta barriro, olatuz olatu
ibilliko dira zorakor ta lilluratsu,
irudimeneraturiko baztarrik baztar...

Bidazti izan. Lau aizetako begiratzez
biotza erein ta, eder orotara urbilduz
biziari agur egin Egilleari abestuz
gau-egun bakoitzarekiko goraberatzez.

Ainbesteko bizi-eratura argigarri
edota, ainbat uda ta neguteren erdin,
bizitzea ez da beti maitezko ikurrin,
uste dogun bezin onurakor agurgarri.

Bizitzan ota-lar, arantzak be, asko dagoz,
gorrotozko guda, anai arteko ezbearrak;
eztabaidazko irrintzi zoli, deadarrak,
bakoitza bera nagosi izateko gogoz.

Ametsak ondoratzen dauzan itxas alorrean
ni naroan ontzia, olatu arabera
dabil, egunen atsegin edo nekepean,
aizeen joan-etorriz, goizetik gabera.

Ta, olerkariak negar egingo dau negar
baiña, malko bat itxasora isuriarren,
zori onez ez da, ez, olatupean galtzen,
uretan dagozalako ainbat itxas-bedar.

Jausi dan negar malkoa, an, onik dakusgu
itxas-bedar arrunt, orizka baten ganean,
bildur ikarapean baiña, itxaropentsu
oraindik, alako mirari baten aurrean.

## DANBOLIÑ-OTS POZGARRIA*

Sua txingarretan gori
ta, gaztañak gorringotzen
usain gogoz, ta saltari.
bizia itxaropentzen.

Orra zingulun-zangulun
batera eta bestera,
danboliña osteraka
laratzean pin pan, pin pun...

Gaztain gorringo gorringo,
emen gaude bai, gosekil,
noiz ondo erre egingo,
ain janari eder bipil!

Etxeko umeon poza,
aitonatxo ikustean
danboliñaz bristi-brasta
alako zeregiñean!

Baserri bakartadean
Azillako gaur luzeetan
elurra urbil danean
mendi-alde gorenetan...

Sendia su bazterrean
otorduko otoitzean
edota, ipuin pozean
izkirimiri utsean.

Amona zan sukaldari:
saietskidun porrusalda,
arto-esne morokilla
ta, gaztain erre ugari.

Bai ote da iñun orain
alako poza zemaigun
umezaroko danbolin
zarata-otsik gaur iñun?

Oroimenean bizi da
aintzitasun batean
ederrik ta, poz-ikara,
baserri eguratspean.

Otordutza alaigarri!
Gaztain gorringo gozoak,
urrea lez eder, gorri
bigun ta bero-beroak.

Aldibera joan dira
gauza on ta eder asko
lañopeko urrundira,
betirako estaltzeko.

Danboliñots pozgarria,
gure lengoz datorrena
erakutsiz bere sena,
amets-ondo gelgarria.

---

* *Esk.* XXI, 141-142. (1987-VI-6).

## GERNIKA'KO TRISKANTZA GOGORATUZ*

*(1937-4-26'an)*

Zorigaiztoko egun odoltsu zital artan,
Udabarria gorakadan zetorrenean
orlegi ta eder, izadiari bizi antza
emonaz, zeru argiaren laztandurapean
gertatu zan alako basatiar triskantza.

Baserritarrak goiztar, beren lur-lanetara
(goldaketak, ereintzak ta, abar, egitera)
Emaztekiak be, goiz, ortuariakaz azokara,
asto zamatuekaz arin ta bizkor, Gernikara,
eroandakoa saldu ta zerbait erostera.

Astelena zan, gernikar egunik gurena,
«peri» usaiñez mundutza bat dakarrena;
baserritar ta salerosketariak Gernika
kaleak betean, euskerazko «zu» ta «nika»,
alaitzen eben egun buruzuri maiteena.

Nork esan eriotza zegokeanik ain bertan
doistar arrano baltzen egope maltzurretan?
Nork esan Gernika erreko zanik orduan,
triskatua izango zala milla zatitan
bonbaketa baten bidez ta itsu-itsuan?

Aideko «brum-brum-ots» ta turuta deietara,
Gernika urduri jarri zan gora begira
zalantzaz, siñesgarri ete zan genkusana
egia zuzen-zuzen etozala errira
«Goikoetxearen» ondoren, sekulako andana.

Garratz ta gordin buruganeratu iakun
izumenezko erasoketa nabarmena;
arma barik eta, guda-oñetatik urrun
bakean bizi zan erri baten ondamena
ekarri eben eriotzazko tristura itun.

* *Esk.* XXIII, 28-30; *Esk.* XXIII, 112-114; *Esk.* XXIV, 53-55. (c. 1987).

Beren joan-etorrizko jardunketa luzez
egazkiñak an ibili ziran bai, jo-ta ke,
gau ongarri, babesgarria etorri zan arte
an ibili ziran gogor eriotza ereiñez
ta, nasai asko goitik guri egiten barre.

Ogetabost urteko neure begi argiakaz
ikus nebazan Gernikako inpernuketak;
iñoiz aztuko ez diran sugar erreketak,
neure begiakaz ikusi nebazan begiakaz
egazkin bidez egindako eriotzaketak.

Ainbat ordu latz ondoren, amaitu zanean,
ai, zelako negargura, zelako naigabea
gaindu zan nire biotzean, illak ikustean
edozein bazterretan ta, alako sutea
aterpe barik gelditutakoen aurrean!

Ildakoakaz erregaituriko sugarrean
Gernikaren biotza goitara edatu zan,
Bizkai osoa lekuko izanik gauean
begiak ezarrita Gernika ibarrean,
illargi-bete antzeko argitasunpean.

Baiña zutunik gelditu zan arbola zarra,
azkatasun oñarri sendoetan, itzal biziz
gerizpetutzeko jatorrizko Lurra,
arbasoengandiko izamen eredugarriz
onetsia dan biotz onekoen ikurra.

## EGUNAZ NAGO*

*Oi, zein dan ituna*
*beera-bear au!*
*Nik ez nai eguna*
*biurtzerik gau!*
Lizardi-tar Xabier.

Ibaiak, errekak, malkoturik doazenarren
eta, lan ezaren oiu ozen mingarriak
eta, drogazko auleri baltzaren ariak
nabarmenki edatuak dakusguzanarren.

Egunaz nago, egunaz nabil itxarokor
obetzeko bide argirik ikus-ezarren
egun argi baterantza noa gogoz, baikor,
odei illun aztunez osertzak ikusiarren.

Doazen ibaiak ez-badira ere itzultzen
ni etorri obeagozko egunera nago
bide orreri neure naimen osoz laguntzen.

Eguzkia onez dantzatu dedin guregan
eta lurra euriz aseturik gozatsuago
ni egunaz nago bizitzako gogaietan.

## BORDAZURI**

*Zubiri-tar Iñaki gau egungo*
*bizkaierazko elebarrigille on-onari*
*«Bordazuri» irakurri ondoren.*

Egitasmo argitsu ta sendoz eratua:
(Aberri, guda, sendi, erri-barru bizitzaz)
Bordazuri etxaldeko sen ta gatzopillaz,
napar lurralde onen sortariz bilbatua.

---

* *ESK.* XXIII, 90 (1987).
** *Esk.* XXIII, 95[a]-95[b]; XXIII, 94-95 (1987-I-12).

Opari ederra Zubiri-tar Iñakik, maitez,
burutsu eskeñitakoa Euskalerriari;
erribidezko gogai, euskera aberatsez
lotuta Arandibar'ko gomutapenari.

Napar lurraldeko erri txiki begikoa,
euskal izaera ta ekandupean dagerzku
berein edeskizun, gertaeraz borobildu
ta, giartsu, egokiro buruturikoa.

Udabarriko txiruliru ta udagoiko
egoaize ikutupeko epeltasun margoz,
Jon Ander ta aitita, biak, alkarrekiko
laguntzaz dakusguz mendibideak igaroz.

Bizitza beraren atsegin, latzdurapean,
aran, baso, mendietako olergai senezko
Izadiaren oiartzun, aldakortasunezko
ikasbidearen artu-emon ta loturapean.

Martin, Txanbo, Pirmiñ, On Markel, Xanpa, Erramun,
ainbat erritar andra-gizon, gazte ta mutil,
lats-errekak, mendi ta aran, etsai ta lagun,
maixukiro azalduak, ederrik ta bipil.

Irakurlea berein bidez barrendua doa
ariz-arizko edeskizun loturapean,
guda ondorioz ta abar, argituz gogoa,
abertzaletasunezko ekintzapenean.

Eliza txukuna bere dorre ta aterpez;
erritik at muño batean illerri txikia
aldameneko izai gorati ta mardulez,
azken-atseden-leku eder agurgarria.

Naparroako Aralar, Urbasa, Burundako
odolbideak dira amaika errugeren
il-zoriko ainbat ta ainbat lorratz tristeren
ainbeste odol gorri ixuriren lekuko.

Anai arteko gudearen ondorioak dira;
odola ta odola bidertz ta illerrietan
jausi ziranak gure lur maite Euzkadira
lotsagarriro erailduak gau itzaletan.

Unkigarri iaku bideko ama zoroa
gudara joandako ildako semearen zai
dagona, beti, itaunka bideko zugatzai,
arkaitzai, nun eteka seme kutun zintzoa.

Jendeak jaramon aundirik egin ezarren
lora, odei, ta aizeaz beraz be, izketan
jarduntzen zan minberati edota pozarren
semearekiko arduraz goiz ta arratsetan.

Maitasunak be toki berezia dauka emen
Yonan ta Mimiñeren biotzetan loratua.
Nabarra da-ta, Euzkadi da soin oso baten
irakurgai ontan maitez iturburutua...

## GALBURUAK*

Neure ogidun galburuak
¡oi, zein eder ikusten diran
aizeño batek laztanduak
zibuzabu maitagarrietan!

Galburu mardul ta bigunak
olio aran margodunak;
danak dira neure kutunak
geroko ogi oiartzunak.

Ibaiaren solo ertzetan
ederrik dira besarkatzen
aizearen joan-etorrietan
dira gogoz alkarganatzen.

Urre margodun galburuak
oritasun polit ederrez
etxera begira, elduak
dagozanak goiz ta arratsez.

Ogi zuri eder jangarri
biurtzen diran ale gorriak
gure sostengu ta janari
gose-kentzalle ongarriak!

* *Esk*. XXIV, 109. (c. 1987). Ik 1005.orr.)

## TXORI BAKO AIZEPE KANTARIZ*

Adar eguzki maitale ta argi-zaleak
bere egarria asetzeko
azi eginda-ta, besoa jaso dau luze,
beste zugatz-adar, adizkide
batzuen arteko gorabidean.

Eta bai batak eta besteak,
naastekatu egiten dira ta besarkatu
adaburuak bi orri bakarrik
doi-doi daukazanean apaintzeko.

Zugatz taldeari usai berezia dario
negu aurreko zurrumurruzko
intz busti ta aize eragiñezko dardario
eme bat eguzki-tantatxoak gozatzeko.

Landaradiaren negutar maitasun beratza
orri-soñanzki jantzirik baga
baña, besoak alkarka, batuta,
izarreri ta aizeari aurpegi emonik
tinko, zeru ertza be ebagiz
mako antzeratsu loarturiko adarrakaz
txori bako aizepe kantariz
narru gorrian, bizi-zai, ernemin datza.

* *Esk*. XLV, 1. (c. 1987).

# 1988

## DESTAIUZKO EZEZTAPENEZ*

Destaiuzko begirapenez
ez ba, ene lagun, bein ere
ez arbuiatu, ez ezetsi,
olerkitz arrunta, apala;
ez itsurik[a] albora jaurti
ezainduta[b], ardura gabe,
aren egitura argala
destaiuzko ezeztapenez.

An, bertan[c], berekiko jasaz,
aien ta kusku aulenean
legoke[d], lora bat zutik,
ta, egorik mearrenean
egin leike biziak egaz,
aizeari atsegin emonik
beren ibilpide aulagaz
goietaratua, bakarrik[e]...

Olaxe ba, lagun, ez zaitez
alegindu, ez, itz zaputza
edergarritzen ago betez,
bada, itz zuritu, gozoan,
guzur zikin ustela datza
ta arruntaren[f] abotsean
olerkariaren mami, biotza,
emoizko ernamin betean.

Sakonkeri utsal, mazalez,
ez ba, guzur-olerkiz mozkor
aundi itxurazko edatez[g],
ur arrunta dozu edankor
beren sorburu gardenez[h]
ta, aren ibili[i] argian
daurkikezu bai, betirakor[j]
dan edaria[k], ots bizian.

Billatu egizu ba, lagun,
zarata-ots bako poesia,
itxurakizunik ez dauana
ta, bere zentzu arruntean
zure barruan daroazuna
emoi-eskeintzaka[l] ta, kutun,
Udabarria lez, pozgarria,
gorakunde eder-betean[m]...

---

* Karmel 1988-1, 104 (*B*); *Esk*. XXIV, 51 (*A*).

[a] ez itsurik *A* arrozko ez [b] ezainduta *A* nargaturik [c] An, bertan *A* Bai, beren [d] legoke *A* dagoke [e] bakarrik *A* ain bakarrik [f] arruntaren *A* ixillaren [g] edatez *A* illunpez [h] sorburu gardenez *A* betiko etorbidez [i] aren ibili *A* uneko une [j] betirakor *A* dizdirakor [k] dan edaria *A* alaitasuna [l] emoi-eskeintzaka *A* ixil-izkutuka [m] gorakunde eder betean *A* emoi-eskeintzapen betean

## ONDORATZEA*

Endaia ankazgoratuta eta erdi oker.
itxasoa sartzen zaio bai bizkar zauritik;
metaturiko ametsak ain txolin ta eder,
aizearen zigorrak barruraño sarturik...

Intxaur oskola, deusaren deusa, azal eri!
aldiaren indarkeri, gogortadapean
murgiltzen da odol aizetearen menean
erasoaren erasoz minberatua beti.

Galtzera, ondora doa ametsa. Askortzen
ari da bai nabarmen, etsipenaren sena,
geldiro-geldiro doa beruntz, ondoratzen,
antzitasunezko osin, uraren barrena.

Berriro asi, orain asi egin bear da
asi igotzen ametsen zugatz mardulera.
berrien berri asi, etsipenez betea,
gero itxoiteko urrengo ondoratzea.

## UDABARRIKO EGUN BAT**

Illuntzeak gorrizka ta urretsu,
egun eder baten gardena zeukan;
amets guztien egoak dirdaitsu
beren arteko oldozkun burrukan.

Orrilla lora usaindurapean
Jaungoikoaz kantari. Orriak bigun
aize kirriaz jostatzen zirean
alkarkidetasun betean, kutun.

Eder-bizi, zugaitz adaburuetan
eres-mintzo leguna goratu zan
berein margozko ezetasunetan
eurek bakarrik dakien berbetan.

* Karmel 1988-1, 106 (Ik. 647.orr.).
** Karmel 1988-1, 107; *Esk.* XXI, 40.

Udabarri birbitze betean
biotz-begietaratzen zan, alai,
euzki sarrerako eguratspean
altxortuz ainbat maitetasun pozgai.

Eguna gaubidezko gurpillean
sartu zan besoak zabalduz loari,
urrengo egun arginabarrean
bizi-poza eskeintzeko goizari.

## ARGINABARRA*

Arginabarra. Argizko pozkarioa
leiotik begiratzean. Alan be, izan,
gaba da oraindik, gau ondorioa
nire izateak duana arnasartzen
egunari zabaldukeran leioa
ni egunsentiaz itzartukeran.

Maitetasun etorrera argitsua
beren itzaldura igeskoi, lerdenez,
biotzaren barru-barrutik gorestua
berarizko eztitasun samur, bigunez.

Bakarrik nigan da egunargitzen
ikuskera zoragarriaren pozera
zu nirekoz zeranean itzartzen
naroazularik zure egoitzapera.

Egunsenti itxarokoi, ederrena,
zure zerkera alaitsuz datorrena
nire izatea argiz agurtzera
ta zure gogoa nirez batutzera.

* Karmel 1988-1, 109; *Esk.* XXIV, 37.

## BEGI ARGIAKAZ*

Begi argiakaz, itxas ertzean
begira dagon mutil koxkorrak,
itxas txoria nai leuke izan
antxetak lez, alai, egazean
itzalpetzeko ugin goikorrak.

Olatuzko zenbat ots, durundi!
Itxasoa da bai ur barean
igitzen dana ain logurati
udako eguzkipe errean
zurrumurka, urrundiz urrundi...

Abots txiliokor eta kantariz
antxetak goitu, jabetu dira
ortzipeko berein ta bost ariz
itxas ertzean, jira ta bira;
euren begiratutze oarkariz.

Egaz ta egaz diardue, arro,
goitik beerañoko jausikadaz
arraintxoaren bat arrapatzeko
izkira edota, karramarro,
zerbait, bearrezko arduraz...

Mutilla adi dago, ioarankor,
berak be, ai! egoak ba-lenoz
urez gain ibiltzeko laztankor
ta, antxetak bezin dotorekor,
goiak garaitzeko bere egoz!

## ZAZPI ILUZIÑOTAN**

Ur tanta, ur-tanta, tantatxo,
soiñu geldoz jausten zarana:
Emoidazu zure tantana,
ameskizun[a] zoriontsuzko
egitasmoa dakarrena.

Ur tanta, ur tanta apaltxo,
emoidazu zure margoa,
zazpi iluziñotan gero,
lora dedin maitasunezko
nire ortzi-adar, makoa.

---

* Karmel 1988-1, 112.
** Karmel 1988-3, 99 (*B*); *Esk*. XXIV, 43 (*A*).
[a] ameskizun *A* ameskizunen

## A, NUNDIK NORA*

A, nundik nora, aren ondoren nebillen ni,
begiak aren egaztadatan nebazala
aren lurrin, atsa, usaindu nairik, amesti
nebillen, gogoa aren lepoan nebala.

Ibili aisez, eder eta lirain nekusan
gorpuzkera arin sorgiñez, lilluragarri,
neure barrurengo ikusi begitukeran
kilikari, nik nai bezin urbil ta urruti.

Irudi naigarri ori neugaz nerabillen
uneoro eta ez neutson eskurik luzatzen
aren naikuraz maitebera, laztan ibiliarren.

Maitearen maitez, koldar, ez nintzan ausartzen
aren begien eskabideari urreratzen,
ta tamal aundiz itzi egin neutson aldentzen.

## ERIOTZA**

Bai, ill ni ere ilgo naiz. Ori ba-dakit.
Biziak eriotza du zor. Ori da legea.
Maitasun ereintzaz dagit bai bidea
ta, orrela ingurua edertuko zait.

Onbidezko eskuarte, bioztasunetan
barrenduz, bizi-ats ongarriz igoko naiz
arnaska baiña, poz-pozik, mendi ta zelaiz
ereindako aziaren uzta-ametsetan.

Bideko odei, izarrak agurtzen naute
eguneroko arginabar, arratsetan
biotz ameskorra zirkinge lotu arte.

Aizeak ixil deituko du ordu artan:
olerkari bat il da bai. Gero, benetan
norbaitek oroituko al nau otoitzetan.

* Karmel 1988-3, 101; *Esk.* XXIV, 128.
** Karmel 1988-3, 105.

## UDAKO ZERUPEAN*

Joango gara? Ta, joan joan
egin ziran alai, ingumakaz,
bizitzazko amets egoan
joan egin ziran bai, txoriekaz.

Egurastera ta jolastera,
joan egin ziran aizebera;
eguzkia artu, gozartzera
joan ziran bai, zelaietara.

Eguzki ta aize legunakaz
an, zelaian dakusgu Mirentxu
beren jolaskide lagunakaz:
Gorane, Aintzane, Edurnetxu...

Udako zerupean, zoriontsu,
arin-aringa, mitxeletak lez,
egurasten ziran, leiatsu,
zugatz eder batzuen itzalpez.

Ingumakaz, pinpilinpauxakaz
dantzaketa zuri eta gorriz,
dantzaketa baltz eta orlegiz,
dantzaketa nabar, urdiñakaz.

Bizia baretsu, orriz orri,
maitasunezko aize, egoakaz,
izadiaz dabil agurkari
beren gogai, itxaropenakaz.

Loran dago bizia pinportez,
loran neskak irripartsu, bipil,
loran izadia bizikundez,
neskak bezin irrikor, txoratil.

Ta bizitzaren goratze pozez,
ta bizitzaren itxaropenez,
ta udararen maitezko senez
biziak ots dagi zorionez.

Dantza dagi egunak goraka,
dantza aizeak bigun, jostari,
dantza neskak, alai, aupadaka
gaztetasun pozez, ameslari[a].

---

* Karmel 1988-3, 109-110 (*B*); *Esk.* XXIV, 62 (*A*).
[a] *asken 3 bertsoak ez dira A'n agiri (galdutako bigarren orrian?).*

## EGUNERATZEAN*

Gau illuna igaroz gero
sortu oi da egun barri bat,
argi txintadaz egunero
biziaz aurrera doanantzat.

Egun sortze barri onetan
zer izango ete niretzat?
Zer nire gogo oñarritzat
neure eguntar ametsetan?

Osasuna izanik leenen,
alaitasun apurtxu baten
bizi-poz apur bat nai neuke
zoriontasunezko aterpe.

Oi Udabarri! Egizu egin
itxarozko zure lorakaz
maitasuna edatu dedin
aize bigunezko bideetaz.

Itza irribarretu bedi
gure egungo lagunartez,
Izadia bezin orlegi
edertu gaitezan alkarrez.

Biziak ots, ots dagilla bai
landa, zelai eta malkarrez,
txori txintadapean, alai,
goraldi eder, zorakorrez!

## OLERKIAREN OÑATZ, ABESTIA**

Olerkiaren oñatz, abestia, izan bedi,
lurrarenganako maitetasun billaketa,
zaingorrizko sustrai sakonen ukututzea;
zeru-alde ezkutuen azi argigarri
ta, onbidezko gogaietara aurkeztea,
beti, zindoro, maitasunez aurrera beti.

Eskuak begoz beti ernai ereintzarako
gogotasun eraginkorrez prest lanerako;
maitetasunezko ibilbidez begoz beti
gerturik aurrerazko mundu barrietarako,
baldin bada, negar ororen arintzerako.

---

* Karmel 1988-3, 112; Zer (1989, 128.zenb.) [1b]; *Esk*. XXIV, 91.
** Karmel 1988-4, 99; *Esk*. XXIV, 48; *Esk*. XXIV, 125.

Zenbat aldiz dakusgu gure azal, narrua,
bekaizkeri illunkorrez jo ta urratua;
zenbat bider erraiak minduraz odoletan
baiña, gogoz daroagu geure elburua
zati bat itxiarren an bideko arantzetan!

Izan bedi bai, olerkariaren abestia
laguntzapenezko abots maite sendagarri,
gogo goralkor baten bizidun iturria;
eskuak gerturik dirala ta agurgarri
izan bedi erein naiz jasotzeko garia
eskerrak emonaz geure ametsen Lurrari.

## ITXAROZKO OLDOZKUNEZ*

Negar-malkoak begietan ñir-ñir dirala,
oñaze-samiñak sastakatzen ba-gaitu be,
abestu inguruko izadiaren berbizte
alaiari. Ain da itzartze eder ta yaukala!

Uste daigun bada Iaungoikozko baratz ontan
gu be, agerpen eder onen parte garala
ta biotza zauriz eukiarren odoletan,
ez gaitezen etsipendu galdurik itzala.

Izan, ba siniste, geure gogo-almenetan
oraindik, zerbait argigarri gugan ba-dala
ta, beraz, alaitu gaitezen gogoz, benetan.

Gorputzez ezin sartuarren dantzaketan
ta erakutsi gure dan sendagai, aala,
sustraitu biotza itxarozko oldozkunetan!

* Karmel 1989-2, 108. (1988).

## GABAREN ATARIAN*

Itxas ertzean nago
gabaren atarian.
Alde batetik
sartzera doan eguzkiaren
margo odoltsu ta gorria,
ederrik, zoragarri,
gorrizta-bellegizko
odei arin artean.
Eta, bestetik
apar bitsetan,
oinpeko arkaitzetan
zauritutako itxasoaren
odol zuria.
Zuri ta gorriaren arteko
ikuspegi ausnargarrian
arrantzaleak eta antxetak
itxasoaz,
eguzkiaz,
arrantzaleakaz,
ta, antxetakaz...:

Ni
igaro bidezko
begiralea,
an
goiz ta arratsero barritzen
dan
aldaketazko
gertakari aundi baten
betikortasunezko
edertasunpean.

## ARGINABARREZKO SEMEAK**

Atzoko, gaurko ta bai biarko
arginabarretan jaioko ziran
ustekizunez,
semeak egin neutsozan gabari,
emen ta, bai an...
berein eskuzko alor alorbideetan
bear izan daitezken gogai, ukubil,
abesti, poema bat,
emen ta bai an....

Eztakit denporarik izango dodan
nik geien nai dodana egiteko:
euskera eder, gurea, betiraundu,
irribarreari irribarrez erantzun,
batzuen ugaritasuna banandu,

* Zer (1988, 116.zenb.) 13; *Esk.* XXIV, 95.
** Zer (1988, 118.zenb.) 15; *Esk.* XXI, 45.

geientsuenen miseria lurperatu,
esku guztiak laztandu,
denporeaz aztu,
aizeari biotza emon,
egoak zabaldu,
gogoa biziratu...

Baiña ezin dot ukatu
ba-dodala denporea
dana egiteko,
al dodan dana
urkoratzeko.

## EGUN URRATZE*

Lenengo txio txintadapean
urratu da zeruaren itzala
ta, esnaldiko urdin-artean
egunbideak gorpuztu dira.

Landa, ibar ganetan, basoen
lurruna edatu da, gainbera,
ta, an, urruneko osertzean
illargia doa ostentzera.

Ba-dirudi egunaz batera
gure biotzak alaitzen dirala
ta, euzki argia datorrela
guri bizi-poza emotera!

Olaxe argi gozo legunak
bizkortzen ditu gure ametsak,
gure indar ta, itxaropenak,
obeagoturik gure izantzak.

---

* Karmel 1989-3, 108; Zer (1988, 119.zenb.) 15; Zer (1988, 123.zenb.) [1[b]].

## GOGOA*

Nire gogoa ispillu bat
izan oi da, une bereko
irudi arginabarrakaz,
biotza artuta eredutzat.

Egitasun ikuspegizko
oldoz-mintzo, izpidurakaz
jantzia, gurarituriko
gizatasun egiturakaz.

Beti, bai, bizitzaren alde,
beren poz-aldi ta nekeakaz
beti zut, goiz ta arratsalde,
oi diran amets, ardurakaz.

Orra ba, nire izakuntza,
olatubera or dabillen
euskaldunezko gogo baten
itxasoaren ganeko bitsa.

Izangurazko bizimenez
igitzen dan lurrun, abotsa,
gogo bizikor, maitasunez
jaso bai, gora, jaso biotza!

## ONTZA**

Ontza koba ondoko enbor lodiko
arte urtetsu baten adar ganean
egoten zan ixil-ixil, begirari,
sagutxuren bat edo noiz etorriko
eguzki bako gau illun itzalean,
asiera noiz emongo bere lanari.

Ontzaren begi dirdirakoi, bigunak,
eguzki izpirik ezin dabe jasan
ta, orregaitik gabaz dabiltzu eizan
itsurik izten dabelako egunak
ta, alde egin bear gero, berealan
aurkitutzeko estal-leku illunak.

Auzokoaren ollarrak ordea arro,
mirestutako bere ollo aurrean
datorren egunari agur dagitso,
abotsa jasorik arginabarrean
kukurruku zoliz, odeietaraño,
ontza egunaren igesi doanean.

Izartuz dator egunazko mundua
udabarri zantzoz, alai, berein zozo
eta bidegarruen abes, txorrotxiua
edatzen zalarik etxeetako kea
bizitz agerpen, erakusbiderako,
goizeko otorduratzen goibidea.

Urteak, joanak dira urte asko
ta, itzuli naizenean lengo ara,
an, ez daurkit arte lodi urtetsuaren
ontzaren aztarnik, iñundik iñora,
ta, amesetea balitz lez, emen nago
gogoan dodazan ikuspegietara
joandako egun-barruz begiratzen.

---

* Zer (1988, 120.zenb.) 4; *Esk.* XXIV, 152.
** Zer (1988, 121.zenb.) 14.

## IZENA DA ARGITZEA*

«Izena daben guztiak
izatea bere badabe»
Izena eta Izana.
Aundiak eta txikiak
iñoiz argiro, izena
ezarri izan ba-iake...
agertu da aren sena.

Sorraldiko benetako unea
ura izan zan bai, izantzadunei
aal zuanak ezarri eutsoenean
izena, esanik onela: egurra,
zura, arria, astoa, mandoa,
euria, zaldia, izotza, edurra...
bataiatuak gelditu zirean,
argituz gizonaren jakintzapean.

Zenbat gauza oraindik ez dira jaio
bakarrik iñork ezin izendatu
edota izendatu ez ditualako!
Asko ta asko daurkikeguz ordea
gaiki izantzarik izan-ezarren
norbaitek oldozbidez asmatzean
egokiro izentatu zitualako.

Beste batzu or egunen batean
iñolako gomutapenik ez-arren
illunpetik argira ekarritako
liburu zarren baten orrialdetan
berbiztuak izango dira beren
deiturazko sointze, agerpenean...
Aldigune labur ala luzerako?

## EGUERDI ARTAN**

Lorea ederrik bere tokian.
Udabarria bere ormarrian.
Argia dizdiz bere ekainean.
Illuna baztertzeko lanbidean.

Ta, guraria, naitasun bizian,
odolaren irakintasunean,
ta, ongurazko ametsen erdian,
egunoroko goraberapean.

Eztakit ez, zelan ene maitea,
eguerdi artan, ez giñan gu jausi
an, odol beroaren ekaitz erauntsi
sugartu biziaren lillurapean!

---

* Zer (1988, 122.zenb.) 16.
** Zer (1988, 123.zenb.) 5; *Esk.* XXI, 25.

## JOANEZ DOA*

Dana doa lotaratzen,
dana doa bai itzaltzen,
zugaitzak igesi eta
bultzia, txistu-ots zoliz,
arin doan bitartean...
gaba da arentzat, gaba,
arrats-bidezko etorriz
eguzkia dirdai ta oraindik, egunaz egonarren
aren begiak iñoiz ez dabe geiago ikusiko
leio bultzitik alorra,
ez dabe une ori barriro ez dabe biziko
orduko zeru urdiña,
egun-margo pinpiriña,
ez txori ez egaztirik
zelai eta bedartzarik,
baiña izate orren esparru, ortzi barruan dagoz
beren abesti ta egoz,
ortzi lillurakizuna,
alorraren ondasuna,
norberazko amets-ondoz,
orduko zeruz egiña,
eta, tinkokiro sendo eusten dabe aren eskuak
oztopoetan ez jausteko
ta elburura eltzeko,
seguru dabiltza arein burutasun ta pausuak,
amets egindakora elduko dira prisarik barik,
biotzak, sugarretan lez,
bada itsuak izanda be
sugar, txispa ori ez da iñoiz itzaltzen ain errez.

* Zer (1988, 123.zenb.) 9; *Esk.* XXIV, 136.

## MARITXU TELLATUKO*

Ipuiña dirudinarren
ez da oraingo ipuin bat.
Ni mutiko nintzanteko
gertakizun eder baten
egitazko oroitzapen
laztantsu bat da neuretzat.

Agin lokatu bat eskuz
atara izan ondoren
neure amaren aginduz
etxaurreko labelako
tellatura jaurti neban
letani au agoskatuz
neure umetasunean.

«Ene Mari tellatuko
amandre gonagorria;
eutsi bai, eutsi zuretzat
nik oraintxe kendutako
agin zar au zuretzako
ta, emoidazu barria
amandre maitagarria
emoidazu bai beste bat».

Orduko nire eskaria
bai egiztatu egin zan
agin zarra egondako
lengo leku berberean
itxura ederragoko
barri bat atara iatan
benetako miraria!

Baiña, orain zartzaroan
bearkizunik gorrienean
ainbat agin zar, ustelez
aurkitutzen naizen arren
ez da ez, barririk sortzen,
Maritxu, zure bitartez,
baizik geiago usteltzen.

* Zer (1988, 123.zenb.) 16; *Esk.* XXIV, 72. (Ik. 547.orr.).

## SUA*

Sua.
Eguzkiaren seme
agurgarria.

Oraindik
aintziña ez dala,
gure basetxeetan
otoitzak egin ta,
ogeratzekoan
sukaldea jasotzen zan
egur lodi txingartuak
erdian jarrita
autserre artean
estaltzen ziran txukun.

Sua.
Garai bateko
gizonaren
ondatasun gurena;
gurtasunez
egunik egun
aldi luzez
iraunazia.

Esakunak diñoanez:
«Sua batzean
sukalde garbian
aingeruak pozez
sartzen dira etxean».

## ARGIA ETA ITZALA**

Argia eta Itzala
bizitzaren ardatzean.
Goraberadun egala
Bakoitzaren izatean.

Lau aro ditu urteak,
egungiro gazi-gezak:
atsegiñak ta nekezak,
lokatzak eta urreak.

Neguan ekaitza, gogor,
ta, udaran, lurra idor;
udabarria ioranko r
ta, udazkena beerakor.

Eta, gu, emen lurrean
(uste ta, amets artean)
maitetasun itzalpean
edo, itundurapean.

Utsa utsaren ganean,
lotzen ezbada bizia
anaitasun aripean,
maitasunez igurtzia.

---

* Zer (1988, 124.zenb.) 10.
** Zer (1988, 124.zenb.) 15; *Esk.* XXIV, 76.

## GABON GABA*

Gabonakaz dator edurra
ta, lodi, maramara jausiz
zuri-zuri dago bai lurra,
izara garbizko estalkiz.

Mutillak alai, jostatzera
etxe aurrera urbil dira
edur-argitasun bizira,
giza-panpin bat egitera.

Jarri dautse pipa bat ere
ta kartoi gorrizko sudurra,
arrano antzeko makurra
ta, begitzat bi gaztain ale.

Gero, danak ingurumari,
bira-biran, dantza-dantzari,
poz-pozik ta baibelenkari.
abesturik Jesus aurtxoari.

Abestu zuk be, lagun zarra,
abestu daigun biotz onez,
abestu Gabon Gaba danez
biztuz Maitetasun Sugarra.

Pin, pan, pun... gaztañak erretzen,
or dakusgu andra Kattalin,
opari on bat egokitzen,
gogoz, arduratsu, guztiz pin.

Mutillak barruratu dira
ta jarri dira epeletan,
nabaiturik txingar dirdira
usain gozozko pilpiretan.

Azorio ta nai aña gaztaña
ta, morokillez gozatua;
gero, ipuiña ta ipuiña
Peru ta Mariz gatzitua.

Gaba dago illun-illuna
ta, bakarrik, etxe aurrean
gelditu da panpin kutuna
gabeko ixiltasunean.

Abestu zuk be, lagun zarra,
nik abes dagidan antzera
ba, biar jaioko da aurra
gure eredu izatera.

Gabon abesti pozgarriak
oroimenera datozenak;
irudi laztan goigarriak
bizitzako aberatsenak.

* Zer (1989, 126.zenb.) 15; *Esk.* XXIII, 76-77, (1988).

## URTEEN JOANEAN*

Urteen joanean ta orbelak lez, aizean,
joan doaz autsezko bidetik birinbolan,
udazken urreztatuaren zimeldurapean
eriotzazko negu aurreko aize-kirolan.

Joan doaz, orriak beerakada betean,
joan doaz autsezko bidetik narrazean,
azkenengo egada ildurati, baltzean,
itzuli bako lurreratze etengabean.

Urteak igaro dira ta gugaz batera
biziratu ziran gauzak gaztetasunean,
eztakit nun ta noiz jausi ziran bertanbera,
ta, gaur, ai, oroitzapen bat besterik ez dira!

Lurra bein ta barriz ernaldu da-ta, gogoan
doguz ogei urtetako goraldi zoroan
begiztatutako lorak, lillura osoan
udaberritar lerdentasun, usain gozoan.

Amesturiko osertz eder, laztangarriak
ta, urrezko ariz, egunik egun josiak,
Orra or! maitasunezko argimen biziak,
gaztetasun aldiko zillar, urreteriak.

Ikusi, oroituz, lenaldiko joandura
urrunak, autserrepeko txinparta antzera,
oraindik beren eresi, gogai-usaindura
apurrez datozenak gure oroimenera.

Urteak joan dira, bete-bearrezko legea,
bits aparrezko itxasoko olatupean
arkaitzen aurkako burrukatze gogorrean
gain beeraka doa gure bizi izatea.

Oi gazte baratzetako aizeño leguna!
Oi atzo irripar zegin muñope sorgiña!
Oi amaren ama, amuma maite, kutuna!
Oi etorgai loratsuzko goi-sapai urdiña!

* Zer (1989, 126.zenb.) 15. (1988).

Udabarri, Uda, Udazken eta Neguakaz
goazen bizi gozamen eta arantzapean
egun argi, alai ta egun latz trumoitsuekaz
Ori, BERE ESKU DAUKANAK deitu artean!

Bebiltz orriak aizearen euren joan-etorrian,
urteko berein aizeren boladapean,
aize gogor, aize bigunen eraginpean
bebiltz beren emoitzapen ta lorrinkerian.

Bizitzaren joan-etorri artu-emon, arian...
dagigun bidea, goiz-arratsen biotz billa,
gogoa gau-egunetan barrenduz ixil-ixilla,
oldozkunaren iturburu bizigarrian.

Igarozko ameskizunaR, orriak aizean,
lurrera datozenak urteen aztunean
zugatzak-eta billuts gelditzen diranean
ain egoera larri, barru-min ilduratian!

## MAITATU ABESTIA*

Maitatu abestia bai gogoz ta bai biotzez,
maitatu eta abestu azkatasunean,
gogoa zentzuz, bateratuz oldozkunean,
bizi-sen oro abestuz egizko abotsez.

Maitatu iturburu goitietan ta aizeetan,
abestuz abestiaren sen, betikotasuna
ta, maite izan, abestiaren argibideetan
daztatuz barruko gogamen, duintasuna.

Abestia izan bedi munduko mintzoa,
Iaungoikozko argitasun, izki bizikorrez,
izan bedi alaitasun irrintzi, zantzoa.

Abestia izan bedi, larrosa usainkorra,
margo eder ta doñukera ereskorrez,
izan bedi eguntze urdin baten zilborra.

* Zer (1989, 127.zenb.) 16; *Esk*. XXIII, 82. (1988).

## MAITETASUNEZKO EMOITZ LEGUNA*

Maitetasunezko emoitz leguna sortzalle[a].
Arginabarrak abes dagi. Au pozkario![b]
Argitze goiztar[c], eder oni poza dario.
Au gure begi-biotzen goiz-giro, ele-mele!

Izadiak abes dagi Iainkozko abotsez;
abes dagi biziari darion pozean,
abes, ikusiz negua ba-doala bein batez
euzkiaren udabarritar gozotasunean.

Dana da gentz, itxaropenezko gogai[d], mezua,
edatu dana bularrik bular, maitasunez,
ao batez oiukatuz bizi-etorki, zantzua.

Urretxindorrak ezin dau estal bere poza,
erle, txori, ingumazko bizitz-durundi ozenez,
ernaldi barri baten itzarkunde abotsa!

## MAITASUNEZKO EMOITZA**

Maitasunezko emoitza, atsegin sortzaille.
Arginabarrak abes dagi. Au pozkario.
Argitze bare, bigun oni poza dario.
Au izadi mintzozko goiz-giroko ele-mele!

Izadiak abes dagi Iainkozko abotsez,
abes dagi egunari darion pozean,
abes, negua ba-doala ikusiz bein batez
euzkiaren udabarritar gozotasunean.

Dana da gentz baikorra; itxarozko mezua
edatu dana bularrik bular, maitasunez,
ago batez oiukatuz atsegin-zantzua.

Urretxindorrak, Oi!, ezin gorde beren poza
izaki ororen antzera, bakoitzarenez,
jasorik etorbide barri baten abotsa!!

---

* Zer (1989, 127.zenb.) 4 (*C*); *Esk*. XXIV, 153 (*B*); *Esk*. XXI, 56 (*A*). (1988).
[a] sortzalle *B* atsegin sortzaille [b] pozkorio *C* poskori [c] Argitze goiztar *B* Argitze urdin, *A* Egun argitze
[d] gogai *ez da B'n agiri*
** *Esk*. XXI, 51 (1988-VI) (Emen bigarren erredazio naiko berdiña).

## UDABARRITARRA*

Egunaz jagi diran txoriak kantari datoz
aizeratuz euren txio ta txorrotxiuak,
zozo, bidegarroz aizeraturiko egoz,
eguzkiaren sorreran biziro suzpertuak.

Eguna argi ta urdin dator bai, goi-intzez,
udabarritar mintzairazko gorakundean
dirdai, eder-dario, lora ta bedardi mamiñez,
izan-miñezko ernamintze, poztasunean.

Bide barriak, itxarozko belaun gazteetan,
aize, ego, oldozkun barriz elbidetuak
indar barrizko landa, zelai, maitebideetan.

Bizi-ametsez jositako lurra dirudi
lora-eresiz biotz-begietan ernaminduak,
ainbat izakiren abots-mintzo agurgarri!

## LIRIN-LARAN...*

Lirin-laran Udabarria dator kantari
baso eta mendietan, landatan, zelaietan,
txorizko eta mitxeletazko ego barrietan,
zenbat goiz-goradun ots ezbardin eta txio-txi!

Larrosa zuri, gorri eder usaintsuetan
itzar barri dan mundutza bat pozkiro dantzan!
Udabarri goiza, lirin-laran, gorakadan
ta, neska-mutillak begiz-begi, amesetan.

Eguzki izpiduraz euria tantanean
ortzadar baten zazpi iluziñoz dardaran,
landareriaren egarriak asetu naiean.

Euri tantazko muxukatze urdurietan
egunaz batean erleak lander, loraetan,
or eztigai billa, arat-onat, burrundadan.

* Zer (1989, 113.zenb.) 14; *Esk.* XXI, 57; *Esk.* XLVII, 96 (1988).
* *Esk.* XXI, 50. (1988).

## OÑAZEZ*

Oñazez, negar-malkoak begietan dirala
ezbearrak gogor sastakatzen ba-gaitu bere,
abestu, abestu izadiaren gorakunde
alaiari. Ain da bizimen eder yaukala!

Ortzia aunitz egadaz urduritu da
ta, zelaiak jantzi dira berein margozko loraz
nabarmentzen dalarik bedarki usaindura
osasungarri bat zorioneko larrosakaz.

Ikus munduaren samiña, zirika dabillen
eztena, barruraño sartuta odolean,
gorputz mengelak ondatu eta menperatzen.

Ortzi-alde lañotsuak eguzkia estaliz
ari diranak gorrotozko eraginpean
bizitzadun izar, argi bakunak itzaliz.

## OLERKARIA**

Olerkaria
bakarrik bizi da,
bizia dalako
olerkia.

Bertsoz bertso
atonduriko
mezuan
olerkariak
gogaketa gozoak,
—irripar eta malkoak—
batzen ditu,
olerkiaren
kaikuan
lotzen ditu
itzak kateatuz
bertsoz bertso
gogaiak edertuz;

* *Esk.* XXI, 52 (1988).
** *Esk.* XXI, 53. (c. 1988).

eta, gero,
beste gogo batzuentzako
eskeintzen ditu
opari antzo.

Olerkaria bere janari:
goiz eta arratsen
begi eta biotz barruz
berak damotsoz bere egoak;
ta, orduan olerkariak
gogozko egadan
izarrak ditu
eskuratzen,
izarrak ditu
bai, bere baitan
inguratzen
izpidura eder, geltsuz.

## OLERKARIAZ GOGAKETAN*

Ezin ba nik orain azaldu
alaitasuna olerkian,
itzi nebalako atzean
urte gazteetan nik, pozgallu
neban zorioneko txirula
anka ariñen goraldian.

Bakartadea nagositzen
dakust unetxo bakoitzean
ta ximurturiko azala
negutar otzaldi baltzean
ta negar malkodun itzala
tristuraz gogo barruratzen
ile zuridun neurtitzetan.

Agerkera tamalkor ori,
ezta ez nire biotzarena,
ezta be nire gogoarena
baizik gizarte minduarena
egonezin biurriz, nabarmen
diarduna madarikatzen.

Baña ez etsi, olerkari,
ta abestu gogoz biziari,
larrosa eder usaintsuari,
abestu egodun loreari,
mitxelena begiko orri,
ta inguru oroz, orlegi
bitxiz jantzi dan izadiari.

Onbidezko jarraipen pozez,
izan bedi zure abotsa
argizko eragin, lorratza,
—eguzki, euri, goiztar intzez—
maitetasunezko ereintza,
etorbidezko erabidez
baikor taupadatzen dan biotza.

* *Esk*. XXI, 54-55 (1988).

Izan bedi, gaillurrik gallur,
eder oro begipetuz
ortzi zear —zeru eta lur—
Iaungoiko-sena auznartuz,
izan bedi bai osasuna,
ameskizunak alikatuz
barruraño datorkiguna
zorioneko laztan-ikutuz.
Erne bediz zure galburuak
zure ezpan irripartsuetan,
eder ta mardul ogituak
berba gozozko neurtitzetan,
bizitzaz gazigezatuak.

Aizea, illargi, ipar-izar...
izan bediz itxaro, sugar...
argizko egintza, poztasun,
ur garden, iturri garbia,
eskeintzapenezko ortzadar.

Izan bedi bizia bera,
biotzeko kutun, olerkia,
Iaungoikozko izakera
dagerren azur ta mamia,
dana pilpilka, ederbera.

## ORRI JAUSKORDUN ZUGATZAK*

Orri jauskordun zugatzak billutsik dagoz
orri-barritze batera eltzeko ametsean,
barriro be, kabidun txoriak artzeko gogoz,
zeru argi, urdiñen margo ederdurapean...

Ba-doa urtea beren gozamen ta nekaldiz
ba-doa, ainbat egun goiberatsuren barruz,
joandako euri, izotz, euzki kiskalgarriz
oi dan negar-malko, zotin, oiu ta marruz.

Negutar egun latz ta udabarritar pozak
joan egin dira ta, joan doaz azkenera,
beren igaranezko elburua betetzera
unez uneko egun gozo edo, mingotzak.

* *Esk.* XXIII, 73-74. (1988).

Udazkena azkenetan dago Azaroan
neguaz artu-emonetan azteko bidean...
Negua ate-joka emen daukagunean,
Ai! urte barruko gaitzak daukaguz gogoan.

Zenbat gertakizun dollor egunen joanean,
zenbat, zenbat! mundu birinbolakari ontan!
Zenbat ixtripu, zenbat odol mundu zabalean,
joan-etorrizko egunen zori txarrean!

Ugolde, aizete, lur-ikara, guda anker...
Zenbat eta zenbat zorigaitz, negar-iturri,
izadiaren, gizonen eskuzko zenbat oker!
Zenbat odol-ixuritze, jasokun galgarri!

Izadia orrela da; bizia ere bai,
orlegiak indartsu bultzatzen dauanean,
egatzeko gogoz bizikiro eta alai,
itxaropen goigarriz datorrenean...

Dana doa bizitik eriotzara, biraka,
eta eriotzatik barriro bizitzara,
etenbako ariz betikotasun betira,
ni naizenari lotuta maitez aldarrika.

Beti zer barri, beti, zer eteka... nor naiz ni?
Bizi-egarriz, itxaropenari elduta,
bidean gora, beti, ametsetik ametsera,
izan-gurazko oldozkunez norberekari!

## DARDARAZKO AZKENTZE LARRITUA*

Udazkenak jantzi dau urrezko soñekoa,
ego aizearen izkuntza epel jostarian
iratzaen eztizko margoz egindakoa,
mendietako elduaro eder, amesgarrian.

Mendi-bizkar ta alderdi oroz, aizebera,
orriz orri ipuin-eresi elemeletsuz
ta, udabarri atzeratu baten antzera
beren lora ta azken larrosakaz datortsuz.

Auxen da beerakadazko urtearo ituna,
aizearen txori guztiak, azken erabidez
aldarrikatzen eguzkiaren samurtasuna.

Orra ba, bakarrik dira gelditzen zerua,
txoriak, orri orituak, joan bear nekez
agertuz dardarazko azkentze larritua!

## MIRENTXUREN BEGIAK**

Mirentxuren begiak guztiz sakonak ziran
ta, euretan gau izartsu argi batean lez,
zoragarrizko aren begietan galdu nintzan
betikotasunezko sakonduraren ederrez...

Aren begien sakonaz
lilluratu nintzan
ta, aren mintzo legunaz
ederberatu nintzan.

Altxortu izan ez ba-nitu
arek sortzen dauan eres-mintzoa
ta, aren begikera soa,
altxortu izan ez ba-nitu...,
bear bada itxasoaren barealdi ta orroa
sortuko nitun neure gogoan
edo, gau argietako zeru-alde osoa,
betikotu nitun neure kolkoan.

---

* *Esk.* XXIII, 75. (1988-XI-8).
** *Esk.* XIII, 78. (c. 1988).

Baña egiz esateko, nire oroimen munduari
toki gitxi gelditzen iako zeruentzako
aren esparru guztia beterik bai-dago
Mirentxuren begi ederren oroitzapenaz,
izarrez beteriko gau illargitsu bati
neure biotzaren une bat ere eskeintzeko.

## UDABERRIA*

Bizitzazko itzartze orlegiz
udaberria loran dago bai,
maiatz ederrez jantzita, alai,
itxarozko lillura jostariz...

Eguna gaur goizeko bostetan
lekuratu da txintada otsez,
bereinka txoriren abotsetan
baserriko landa, sasi artez.

Goizeko izarrak kuku dagi
ta illargi betearen antzera
ba-doa eder ta ameskari
izarbidezko beste aldera.

Ontza ere argiaren igesi
ba-doa or gauekoen bidez
lotarako asmoz, ixilkari,
baso illuneko egur-artez.

Ba-doaz bai ta etorri datoz
batzuk gauaren itzal illunez;
besteak, euzki argitasunez
bakoitzaren izate ta gogoz.

Izpiz-izpi euzkia ba-dator
goiz-goratasun bizi, legunez,
lurra gozatua dator laztankor
bizidun ororen poztasunez.

Au da bai goiz on baten eguntze
etorrera argikoi, ongarria!
Au da pozkario, biotz-zabaltze
berbizkunde itxarogarria!

---

* *Esk.* XXIII, 79-81. (1988).

Aldiko egutaro, bizikundez,
orra ba, txio-txioka, egamin,
txoriak! egun argiaren pozez
zerua ikustean ain urdin!

Kukurrukada nabarmen, zoliz,
Peruene baserriko ollarrak
ekin dio itzartuz bazterrak,
deikada ozen, arduragarriz.

Olaxe ba, egunari deika
mundu bat —zozo ta bidegarro—
lumak astinduz, txiruliruka,
bideberatu dira bai, arro.

Landa ta alorretara doaz
txio-txorrotxiozko abotsez;
or doaz arintasun azkarrez
sabelak betetzeko asmoaz...

Eskeintzari jaio da eguna
ta biziak abes dagi, abes;
abes dagi zorion ametsez,
gozartuz Maiatzaren lurruna.

Soloak, bai arto ta bai gariz,
etorkizun eskeintza dirudi
nekazaritzazko lan, izerdiz,
dakusgun geroko ogiteri!

Mairako ogi erre beroa
izateko, erein bear
ta, or dago garitza arloa
aize kulunkariz ain itxastar!!

Oi, Udaberri! Egizu egin,
galburu mardul eta loreakin
atsegin-poza edatu dedin
aizeratutako lurriñakin!

## GIZA MALKOAK*

Batzuetan bare, lillurakor
eta, bestetan berunt, baldar,
benetan asarre ta gogor,
goibel, ez eguzki ez izar.

Itxasoa beti da eder.
Bein be ez doñu bakarrezko,
urdin, arre, naiz orlegizko
itxurapean ainbat bider.

Arraiñekaz oar jostaketan
olatuz olatuzko dantzan;
illargizko lotaratzetan
edo egunezko argitan.

Itxasoaren magal ondoan
ta ortzitar eguratspean,
oldozkuna dabil aidean
kresalezko ikutupean.

Oial zuriak be, aidean,
aize bigunaz jolasean
itxasozko norabidean
zipili-zapala joatean.

Etenbarik ta, goiberaka,
ezilkortasunezko atsez
igitzen dana, betiraunka,
orroaka edo abots barez.

Ipur txuntxurreri eragin
eta, norkiak zoramenduz
beren olatuzko ikutuz
barre egingo dautzu sorgin.

Gizonen malkoak uskeri
utsa dira bai arentzat,
ezebezezko utsalkeri
ezebeza itxasoarentzat.

Une tamalgarri batean
ain arro dabiltzan ontziak
ondoratutzen dauzanean
zure zinkurin miseriak.

Uskeri bat dira arentzat,
uskeri bat giza malkoak,
uskeri bat kresalarentzat
zure begietako tantoak.

* *Esk*. XXIII, 86-87. (c. 1988).

## ITXASOAN JAIOTAKO AURRARENA*

Olastaz olasta dantzari,
ontzia zebillen urik ur,
aize barean, zibukari,
itxasoa laztanduz samur.

Urari aterik ez itxi.
Irikia bear da euki;
beraz utzi aizeari sartzen,
arnasgai garbiz osasuntzen.

Urari utzi ba dantzatzen,
utzi olatuz goiberatzen,
ta emango dizut izar bat
zure bizitzako argitzat.

Elur antzeko bits, aparra,
eguzki eta gatzarekin,
olatuen gatz biziarekin
ta itxasoko euzkiarekin.

Olatuek brankan zituala
urratuz gabaren itzala,
euzkia zetorren apala
txoriekin txiruli txirula.

Kaioen txilio artean,
ontzia zijoan azkarra,
amak sortu zinduanean
agurtuz goizeko izarra.

Egunaz ontzia kaiean
lotu zuten. Jaio berria
gurasoen egoitzapean
jasorik ongi etorria.

A zan a, etxeratutako
izar eder, maitagarria;
a zan a, etxearentzako
abe sendo, iraungarria!

Amatxoren aur kutuna,
(txikiena eta maiteena).
Izan zazula osasuna,
bearrezko indar, almena.

* *Esk*. XXIII, 115-117. (c. 1988).

Amak bular, titi gozoa
umetxoari ematen dio
ta amonak, maitezko soa
bere abestietan damaio.

Santa Loa, zuk, Santa Loa,
gure aurrari eman loa;
gauean gau guztirakoa
ta, egunez, ordu bikoa.

Oba, oba... Maite! egin lo,
lo lo, zuk orain ta, nik gero,
ba, biok orain egiteko
eguna guztiz bero dago.

Mariñela izango zara
lenengo, ta gero, kapitan,
egizko gizon izatera
elduko zara itxasoetan.

Bonbolon bat, bonbolon bi,
ainbat itxaso ta portuz,
ibilko zara itxaskari,
euzkaldun txapela aintzalduz.

Gaur itxasoa laño dago
Baionako kai barruraiño,
bai, maite! Ni zurekin nago
nire egunen betiraiño.

Illargiak ta Eguzkiak
argi bedi zure bidea,
kresal arteko ibiltea,
zure gau-eguntze guztiak!

## BIRA BIRAKA*

Bira-biraka dabiltz Gaba ta Eguna
une oroz betikoki, joan-itzulika,
erakutsiz bere argi ta bere illuna,
ortzi zear, sartun-urtenka, zilipurdika.

Biziak ots dagi aldigune bakoitzean,
orri berritze edo, orbelezko gogaiez,
eten bako goizeratze ta gaueratzean
berarizko agerkuntza eder dirdirakorrez.

Aunitz asko gera[a] egoitza leku onetan
gorputzak mengel aulduta, elbarrituta
aurkitzen geranok ospitaleko gelatan,
oñaze ta naigabez, itunki, ezinduta.

Bata zuridunen zaindaritzapean gagoz,
sendagille, erizain ta ainbat laguntzallez,
gure indar galduak ber-eskuratzeko gogoz,
alik lasterrengo oñeratze zuzpertzallez.

Lo egin ezik[b], gaba, luze, gogaikarri
egiten zaigu, pentsamentu aztun, goibelez,
benetan neketsu ta erabat aspergarri,
goiza noiz etorriko argitasun zabalez.

Elbarrituak ¡bai errukarri! Oeratzeko
laguntza bear, baita oetik jeikitzeko,
laguntza, aurpegi, soiña garbitzeko,
laguntza esku-gurdietan ere ibiltzeko.

Udaberria leioetatik argiro dator,
eze, gordin, lorez jantzita, musker, orlegi,
txori-txioz ta, errekatan ura kantari,
itzarkundezko izadiaz, itxaropenkor.

Neure baitan nago begira mirari oni,
Ai, ze poza! Ze poza! egunaz oartzea,
bizia itzartzen ari dala, zoragarri,
izaki aunitz askoren goramiñez betea.

---

* *Esk.* XXIII, 128-129 (=143-144) (*C*); *Esk.* XXIII, 71-72 (*B*); *Esk.* XXI, 31-32 (*A*). (1988-III).
[a] gera *ez da B'n agiri* [b] Lo egin ezik *BA* Lorik ezpada [c] *emen amaitzen da A*

Ai, ze poza! Ze poza! egunaz bat-batera,
oñak, beatzak igitzen dirala nabaitzea,
Ai, ze poza! lurra jota dagon gorputzean
indarrak berbizten ari dirala sentitzea!

Eskerrak, aunitz eman bearrean gara bai,
eziketa arloko buru arduradunai,
eta, arein agindupeko laguntzalleai,
gorputzak laneratzen alegintzen diranei.

Agur, Matia Calvo'ko zuzendaritzari,
Agur, sendagille, erizain ta gañontzeko
serbitzari zaraten, gizon-emakumezko
Ospital eredugarri ontako guztiari.

Agur bero bat, zuri... Agur bai, Marga Peña
eta, beste ainbeste zuri, Jose Luis Aldai,
arintzen dezutenok makiñatxobat pena,
beti, gogo onez, beti, maitekor ta alai!

*Eskerronez ta maitasunez.*
*Matia Calvo Ospital egoitzatik igarotako*
*Muniategi-tar Sabin'ek. (1988).*

## GURARI BATEN ARANTZA*

Zerua zurizka urdin
odei gorriz tartetua,
ta, itsasoan must dagin
eguzkiaz bat-batera,
arratsaldea ba-doa
illargiak ordeztua;
ba-doa illunduz, arin,
lasterka gaberatua.

Betiko alegiñakaz
ta, ain biotzeko euskeraz
bidazti nabil, kantari,
abetuz neure erriari;
bidez, bai, aurrera noa
neure bizkaitar berbetaz
eutsiz neure ametsari
zabalduz euskal arloa.

Ezinduta, nekatuta,
etsaipeko gogortadaz
ikustean makal, lotsaz
erri maitea lotuta,
biotzean neukan sartuta
sakon, barru-barruraño,
gurari baten arantza
zorrotz dirauna gaurdaño.

Bein batean orratiño
atara al izan neban
ta, eztot orain nabaitzen
aren zauri gogor latza
Gaur EUSKEREA ikustean
idartsu loraburutzen.

* *Esk.* XXIII, 145. (c. 1988).

## SINISMENIK EZTAGONEAN*

Maitasunik ez gizatasunik
sinismenik be eztagonean,
ez biotz gozotasun aztarnik
au ta ori ta bestea bere
dana zalantzan jartzen danean
ta ezelako zuzentasunik
uste onik ez daukagunean,
ez adizkide ez anaiengan
susmo txarreko begiramenean
barrua ikoltzen zaigunean.
Geienok geurekeri betean
ta, guzur mintzoz gabiltzanean,
mundu zaletasunez beterik
ta, gogo makalez ta itunik
itxaropena galtzen dogunean,
gaurkoan ta etorkizunean
etsipen laiñoz baltziturik
lur-jota aurkitzen geranean
geure gizarte, lagun artean
egunen poz-alaia galdurik...
Orduan erri bat ondatuta
dago, eroritzeko zorian
ilda geratzeko, endekatuta
munduko griña olatupean
zentzunik barik jokatutzean,
ondatuta dago bai, galduta.

* *Esk*. XXIII, 209. (c. 1988).

## MUNDUKO OÑAZEA*

Munduko oñazea ikus, ingurumari,
kirioz kirio dabillana odolean,
bizitzazko artu-emonetan, taupakari,
maiteki lekuturik dagoena biotzean.

Sedazko ariz euntzen diardun armiarma,
gauzaen muña jan ta xe-xe, xe-xe dagiana,
osotuz bere egoitza eiza-leku ta arma,
euliak arrapatutzeko ain egoki dana.

Ankazgora dator aintzindar gizarte dana,
ainbat izerdi-nekez lorturiko izantza,
euskaldunen arteko etxe-jasotze, lana.

Aize barrien joerazko lorrinkeripean
arrak jota, ustelduta gizadia datza,
norabako amildura, zurrunbillopean.

## MUNDUAREN OÑAZEA**

Munduaren oñazea, ikus, ingurumari,
kirioz kirio dabillena odolean,
bizitzazko artu-emonetan taupakari
osotoro lekuturik dagona biotzean.

Ari zuri sendoz euntzen diardun armiarma,
gauzaen muña jan ta xe-xe birritzen duana
tinkatuz sarezko eiza-tresna, arma;
euliak eta abar an jausiko dirana.

Ankazgora dator aintzindar oitura dana,
ainbat izerdi-nekez lorturiko izantza
mendeetako erri-jazotze, gizarte lana.

Aize barrien eragin, lorrinkeripean
arrak jota, ustelduta, gizadia datza,
loikerizko narrazkeri zurrunbillopean.

---

* *Esk.* XLV, 2. (1988).
** *Esk.* XLV, 3. (1988-VIII). Emen ere olerki baten idazkera bi, aldakuntza azkorekin. Emen ere agertzen da S. Muniategiren olerkigintzako lana.

## GAUZAEN BIZITZAZ GAIN*

Gauzaen bizitzaz gain, zentzuz, oar-ikusiz
ibilko zara gelditasun betegarrian,
barru-mintzozko alkartze onuragarrian
biotza aberaztuz, ain ederra dan izadiz.

Guzti orrek ixil-mintzozko ezkutapenez
zure zentzu, gogamenezko izamen argiz
eroan zagizala, edur zuri gardenez
edo larrosaen usain gozo, margo bitxiz...

Itzi dagiela danak zugan beren aztarna,
irarriz izan-mintzozko berezitasun
ezaugarria, bakoitzaren egitura barna,
bakoitzaren gogakera eta bizitasun.

Igo ta jatxi gallur eta arru barruetara,
ekaitz ta aize bigunez, Egoak, Iparrak
aginpeturiko mendi ta ibarretara,
egurats-aldi onak izan edo, gogorrak.

Sortu bediz zure biotz-arietan, zerutar
izar dirdirazko eres-mintz alai, baikorrak;
izadia laztanduz gogoz, goiz ta iñular,
sor ditzan bizi-amets argitsu ezilkorrak.

Gero, el zaitezen ondartza eder batera
zeure mundu txiki ta egoki-egokian,
biotzeko zeure bertsoak gogoz entzutera
zuzentasunezko oñarri aintzagarrian.

Maitatu zeure burua ta zeu zaran ori,
aztakatuz leiza ta zeruzko ain zeurea
dozun aragi eta gogodun izatea,
otzez kokil edota eguzki beroz gori.

* *ESK*. XLV, 5. (1988).

## BARRUKOZ*

Mintzo apal, ixillez,
bizitzara gaitezen
biotz garbi, maitalez,
norkeri gangar barik
ikasiz begiratzen
adikor ta argirik,
benetako itzalez.

Aolku jakingarriak,
Ai!, zenbat onelako
amumatxoren bidez,
baitabe, amarenez,
suaren inguru, gozo,
kutunkiro ikasiak.

Atez barru, semeok,
etxeko laratzpean
barrutik bizi, danok,
gogo barruz, biotzez,
anaitasun betean
bizitzadun ametsez,
etxekide guztiok!

Neguko orbelduraz
gorroto aize baltza
dabil zurrunbilloan;
aize gogor ta latza
gizartearen barruan
zemaizko igiduraz.

Ate barruz, semeok,
laratzondo ta gogo
barruz, bizi maiteok
apalkiro ta zintzo,
itza geiegi jaso
ta, nabarmendu barik,
mintzo ixiltsu, barez,
bizia laztandurik
zentzuz, gizatasunez.

* *Esk*. XLV, 10-11. (c. 1988-1989).

## OSPITALEKO GELA BATEAN*

Ospitaleko gela batean egoitzatua
sendatuko naizen gogo, ustekizunetan,
itxaropentsu nago, erabat kezkatua,
lenbait-len etxeratzeko ameskizunetan.

Bata zuridunen aolkuetan dago bizia
ta, batez ere dago Iainkoaren eskuetan,
gaitzak jotako soin-auldura ta miseria
dago sendagille, eri-zain, laguntzalleetan...

Epailla goiz-gora dator txori-txintadakin
ta, eguna agurka leioetaratzen zaigu
berbizkunde alai baten ezetasunakin.

Ai, ze poza! Egunaren udaberritzean
eskuak, oñak, igitzen dirala sentitu
ta, nabaitutzea... Ai!, ze poza bat-batean!

* *Esk.* XLV, 73. (1988).

**1989**

## EGUNAZ ESNATUTZEAN*

Egunaz esnatutzean
Ai!, ze atsegin, poza,
udabarri goiz batean
itxaropendurik biotza,
txorien txintadapean.

Bai ze atsegin, poza,
begik argiz nabaitzea,
urrunduz gau illun; otza,
eguzki dirdirapean!

Oi, ze atsegin, ze poza,
eskuak, oñak igitzea
lur-jota zegon gorputza
odol beroz, berpiztuta
bizi-gogoz ikustea
urrundurik eriotza!

Egun batez galdu arte
iñork ez daki ez, zer dan
osasuna. Osasuna
da bai ta, besteak beste
da munduko ondasuna
uda ta udazkenetan
izatearen poztasuna.

Udabarriko garaian,
bedar ta landa orlegiz,
lora-usaindurapean
intzezko ur-tanta bitxiz
euzkia datorrenean
zelaietako zabaldiz.

Biziak irrintzi dagi
goramiñezko lorrean
eder ta begiragarri
ameskizun alorrean.

## MAITEZKO OPARI**

Eguntze bakotxaren itzalean
Izadiazko ikuspegi pozgarriz
argiratu bedi nire ibilia
biotzezko egite, taupadapean,
ederrik ondasuntzeko bizia,
euskaldunezko ekintzapenean
argi-izpitxoren bat irabaziz.

Agortuta gogamen iturria
ez nagizula itzi Urrilleko
orria lez, orbeldura baltzean
edo, kea lez, bere ortzipeko
urruntasun, desegindurapean,
lekutik at, galdurik sortaria
sekulako ondamendi itunean.

Mardul ta aletan bere ugari,
ereindako gariak burutu bediz
itxaropentsu eta edergarri
gero, ogituko dan urreteriz...
Nekazariaren lana ez dedilla
izardi utsetan galdua izan
baizik urrunduko dan urre-pilla
biziari aurre egiteko gogoz,
tartekatzen diran egun baltzetan
sendi alkartu baten amodioz
izan dedilla maitezko opari!

* Karmel 1989-1, 109.
** Karmel 1989-1, 112.

## TXINDOKI'KO MARI...*

Txindoki'ko Mari, Anboto'ko Mari...
Agerkera ongarri edota gaiztoz
Euskalerriaren aintzin-aldi batean
beren «egunekoz edota gauekoz»:
Mari, Maya, Maindi, Maide, edo Mairi,
erroturik zeudenean gizartean
Izadi Amaren loturakizunean
euskereaz bat egiña ain bereizgarri!

Mari. Nork ez du entzun ta nork ez daki
ainbat leiza-zulo ta kobazuloren,
ainbat inpernuko dama ta andraren,
ainbat sorgin landa, egoitzaren berri?
Nork ez daki gurasoz entzundakoaren
zadordurazko ipuin ta gertakari
ainbat gau-aro beltz ta izugarriren
aoz-ao gureganduriko deabrukeri?

Benetan entzutetsuak dituzu bai
Atxorrotz, Baltzola, Supeleor, Anboto
Petralanda, Agamunda, Marizulo,
orduko ele-melezko ainbat bidez:
Aketegi, Akelarre, beren larrez
Zelharburu, Azalegi, Otsabio,
Murumendi... Ai, zenbat erratz, bildur-gai,
neguko gau illun bakoitzari dario!

Mari, esan... Zein ete zure izari,
zure ben-benetako gogai ta ari?
Batzuen ustez, urrez inguratuta
agertzen omen ziñan andre nagusi;
baitere iñoiz gona gorriz jantzita
edo odeietan zear lau zaldizko
zaldiburdi dotore eder batean,
goietan gora gaupean estaltzeko.

Berein eratara ikus izan zara
Euskalerriko koba, zelai ta larrez,
ereiñik alako bildur ta ikara,
batez ere trumoi-egun ostiralez
goiak urratuz, inpernutar asarrez,
an, Gorbeia aldetik... Eztakit nora!
Oiz, Aralar... ala an urrunagora
Erratz gañean eserita sugarrez?

* Karmel 1989-2, 101-102; *Esk*. XXI, 137-138.

An-emengo sineskeri ikuspegiz,
Suge, aari, sai, bele, aker, egazti
abere itxuraz ikus izan zaitue
zezen, zaldi... (berein ta bost aurpegiz)
bigantxa ta, abar. Iñoiz baita ere
aize bolada, zugaitz ta odei zuri
edo ortzadar antzera, zoragarri,
ikus zaitue erriz-erriz ibiliz.

Izadiaz egunoroko burrukan
ari izan dan zerutar erri onen
gogamen aintziñati, guztiz zarrean
sustraituak dauden gure euskerearen
aldakuntzazko bizi-aldi luzean
oñarritu izan diran jazokunen
dirdirak dira, Mari'zko urratsetan
bertanberatuak zadorpe illunean.

## AURRERABIDEZKO EKINTZAZ*

Aurrerabidezko ekintzaz iziotu biotza
ta, zoaz, dagokiozun lantegi alorrean,
itxaropen-gogoz, jasorik zeure abotsa,
biotz zabalezko ereintza maitekorrean.

Landu zure gogoa, ardurapeko lurra,
gero, uzta on baten galburuz ogiturik[a],
gosea erabat kendu edo bazterturik,
zutoitu dedin anaitasunezko ikurra.

Igarozko ameskizun, orria, aizean
lurrera datozenak, urteen aztunean,
banan-banan, zugatzak lez, orriak galtzean.

Noizdanik bako igaro bearreko bidea,
beren neke-neurri luze edo laburrean
alegin gaitez betetzen geure egitea.

---

* Karmel 1989-2, 111 (*B*); *Esk*. XLVII, 95 (*A*).
[a] ogiturik *B* egiturik

## AKESOLO-TAR LIN AGURGARRIARI*

Irudimenaren bitartez, zugana noa
Dima'ko seme jakintsu Akesolo-tar Lin,
maitetasunez gainberaturik nire soa
euskal sen giartsuz olermena biztu dedin.

Menditar seme bulartsu, benetan sendoa
euskal alorreko langille argi ta kutun,
erriaz bat-egindako dimatar txekorra,
or zaitugu gallurrean kementsu ta gordin.

Biziak larrosak baño arantza geiago
eskaiñi izan dautzuz ibilizko bidean
baiña alan be, zuk, egiñago ta naiago
aurrera darraizu opor bako egiñean.

Izpiz izpi bil ta, akilanduriko lana,
unez une ta, eten barik, egunik egun,
berbaz berba, gogo betez eder ta jakitun
urtez urte, euskera alde egin dauana...

Ai! Ez da ba eskertzekoa ori dana?
ixiltasunezko ainbat urteren joanean
etsaikeri guztien aurkako jardunean
agertuz zeure biotz barruko maitasuna?

Karmeldar anaidiko lekaide apal bezin
euskal arrobiko seme zintzo jaungoikorra,
ERRIAZ bat-egindako dimatar txekorra,
or dakusgu gallurrean kementsu ta gordin.

Egunik egun euskerea azter, biziratzen
lerroz lerro, euskerea azter ta eratutzen,
xagu antzera liburu zarrak arakatzen
euskerearen guna dasta da egiztatzen.

Zenbat udabarri eder ta negute gorri,
igaro izandako gau-egunen zorian,
bein betirako joandakoak, orriz orri,
euskal mintzo maitagarriaren egutegian!

---

* Karmel 1989-3, 104-105. Diman Lino Akesolori uztaillaren leenengoan eginiko omenaldian irakurtzeko idatzia, baiña geixoak eragotzi eutsan ara ioan eta irakurtea.

Zuk egindako lanaren neke ta izerdiz
dizdiratsu, eder-ederrik orra ba orra,
argitasunezko aintzamen ain zoragarriz
zure amets bizienak sortutako altxorra!

Zure lanak or dagoz betikora pilpiran
itz-lauz ta neurtitzezko gogaitasun bereziz
maiatzik ederrena bezin eder, dirdiran,
gure euskerearen sakondura argigarriz.

Mañariko lur bazterrak gogoan izanik
ta, zure izenean Lin, agur Bizkaiari,
agur maite dogun biotzeko Euskalerriari,
euzkotartasunez daroaguna betidanik!

## GOIZ NABAR URDIN ONESKORREZ*

Goiz nabar urdin oneskorrez
orrietan musukor ta kantari
aizeak abots laztankorrez
dei dagitso Udabarriari.

Intzez, zelaiak dizdiz dagoz
eguzkiaz maitez, ederrik,
atsegiñezko negar-malkoz
goi-aldera itzuli nairik.

Goiza zutunik alai dago
eguzki besarkadapean,
iñoiz baiño eder, ezeago,
lorazko usaindurapean.

Bizia goramiñez dator
gaztetasun zarata-otsez,
benetan indartsu ta, baikor,
asierako ameskizunez.

Dana dago musker, orlegi,
intz tantaz izarreztatua,
maitetasun gogoz, urduri,
itxaropenez txertatua.

Belaun barrien goraldi
neketsu ta ikusgarria,
berein bizitza arazori
egitada barriz josia.

* Karmel 1989-3, 107.

## BIOTZ-ZUGAITZARENA*

Itz dagit aurreko aurkezte bati buruz,
lur usainduraz sakon dagon sustrai batena;
orri batena zerupeko aize ikutuz,
argitasun urdin-arre, eguratsarena.

Zugaitz baten biotza, bizizko amets-zana
ta egaztadazko bideite gorakorra;
urduri zutundutako biotz on batena,
erabat itzal, itun... Au bizitzaren lorra!

Berba dagit berba, aurrezko izakuntzaz,
eriotz batena argian ta bizi batena,
bere leiza ta gau-egunetako arrikuntzaz.

Indar batena ingurumariz eriopetua,
bizitzen dakusgun biotz-zugaitzarena
munduko ezkutupean ederberatua.

## GORA BEGIRA**

Udako begi beroak gora begira dagoz
goiz ta arratseko zerupe ozkarbian,
euriz zamaturiko odei baltzik ete dan,
lurrari ezetasuna emoteko asmoz...

Lurra kezkati dago ta pena aundiz dago,
euri eder baten maitetasun gogo biziz
gozatsu ta samur, noiz etorriko ete dan
zalantzaz dago, egunik egun minduago.

Orlegiak iges dagi ta, ori, beilegi,
alor oro zimel dakusgu gora begira
noiz etorriko ur laztantsu ori!

Lurrak maitemindu batek lez dau begiratzen
odei bidez letorken eurizko iturrira,
ta gogo aundiz biotza iako zirimiritzen.

* Karmel 1989-4, 109. (1989).
** Karmel 1989-4, 112; *Esk.* XLV, 70. (1989).

## URTEARO BERRIA*

Zein orlegi dagozan Euzkadi'ko mendiak!
Bai zoragarri zeru-alde urdin, argiak!
Zein alaigarri egunsentiko txiruliak!
Bai oneskor basoetako txori-abestiak!

Egun argiko udaberri goiz eder bat zan
Jorrailleko orlegitasunaren menean
eguzkia intzezko izar-dizdirapean
odei urdiñak itxaskari dabiltzanean...

Miren'en begi argiak argiz bete ziran
eguna alako jantzi argiz ikustean,
izadi berbiztua itxarozko gorakadan!

Miren leioan zegon begira-begira
eta, poz-pozik, txori-txintadak entzutean
ederrik, maitasuna zetorrela bizira.

## NEGUKO IPUIÑA**

Itxastarrak dakar gogora:
«A zan bai a gabaren beltza!»
Erauntsi arek, ai! bildurra
zekarren bai gure kolkora,
aizea txistu otsez zakar
tximistapean su eta gar!

Aitona antxe erdi-lotan;
besteak adi dagoz entzuten
baña, ez dabe ezer ulertzen.
Gauaren bildurgarria! Ai, lagunok,
eun urte biziarren bere
ezin aztu izango neuke maiteok,
(Aizeak zorrotz darrai txistulari
atseden barik, jo ta ke,
kanpoan ari da orrulari).

* Karmel 1990-1, 99. (1989).
** Karmel 1990-1, 104-105. (1989-XII-19).

Ni mendiko bakartadean,
gau zaratatsu beltzean,
amesetazko aramu-sarean
ete nenbillen barrenean?
«Beltza» «zaratatsu...» Ia ezta nabaritzen
abots indartsua, ume bat lotan
gelditzen dan lez ta gozartzen
amaren magal, altzo gozoan.

## BIZITZA BERTARA*

Biziaz noa bai, neurekiko bizitz bertara,
biziak berak noizbait jarritako lekura;
gero, or gaituzu, itzal naiz eguzkitara,
jasanik bideberako negar-itusura.

Dabilgun bidean jausi egin garala?
Jakin egizu bizia besterik ez dala,
egotea biziak jarritako lekuan;
olatuz gainberaturiko itxasuan.

Ugari dira aizete ta odei illunak,
gure egunen zoripeko igaropenez
gainditu bearreko beraldi, gogai itunak.

Aurre egin bearra daukagu itun orori,
iñolako makurkeri ta gizatasunez
biotza edermenduz, bizi-alde, abeslari.

* Karmel 1990-1, 106; Zer (1990, 138.zenb.) 5. (1989).

## NEUREA DA BIDEA*

Ez. Ez dot esango ez neurea danik aizea,
ez basabidez datorren txori-txintadea,
ez itxasoaren apar zurizko soñekoa,
ez arrano baltzaren goitik-beerako soa.

Ez, ezin neike esan, aizea ta argia,
neureak diranik ez eguzki ta illargia,
eguna ta gaba, goiza ta arratsaldea
neureak diranik, eztare goiko izarpea.

Ez! Ez! Baña nik aizeaz, itxasoaz nabil
ta, gozoro dantzut txoriño txirripitaria,
udatiar karnabatxu abeslari txoratil.

Ameseta utsa. Baña, neurea da bidea,
gogo-biotzezko goiz-arratsen urreteria,
orokorra danarren barrutik ain da neurea!

## UDAZKENGO EGUZKIA**

Udazkengo eguzkia ostentzera doa
geldiro ta urretsu azkenengo izpietan
ta, urrunan dantzugu itxasoaren mintzoa
illuntzeko olatu-gainberatze bizietan.

Itzala nagosituz dator gau illunera
ta, abotsak naastutzen ari dira ixilki,
moteltasunean jausiz amil sakonera
ortzi goian biztuaraziz ainbat izar argi.

Gaba gabekoz jantzi da soñeko mantarrez
izpirituzko oldozkunetan arnastua,
argirik ezak damoskun berezko bildurrez.

Eguna motzago ta gaba luzeagoa,
biztu bai maitasunez biotzetako sua,
zuzpertuz gure bizi-nai-ta, gure gogoa.

* Karmel 1990-1, 108; Zer (1990, 138.zenb.) 5. (1989).
** Karmel 1990-1, 110; Zer (1990, 138.zenb.) 5. (1989).

## URTEAK*

Lau aro ditu urteak,
egunkiro gazi-gezak:
atsegiñak ta nekezak,
lokatzak eta urreak.

Neguan ekaitza, gogor,
ta, udaran lurra idor;
udabarria iorankor
ta, udazkena berankor.

Eta, gu, emen lurrean
(uste ta, amets artean)
maitetasun itzalpean
edo, illun, asarrean.

Utsa utsaren ganean,
lotzen ezbada bizia
anaitasun aripean,
sortatuz garan guztia.

Argia eta Itzala
bizitzaren ardatzean.
goraberadun egala
bakoitzaren izatean.

## 1989 URTEBARRI ZORIONTSUA**

Urte oso bat orain joana dogu
ta, beste bat, geitzera datorkigu;
aztu dagigun beraz, ildakoa:
ona edo txarra, izandakoa.
Beraz, baketsua izan dedilla
atseginkorra, urte barri onen
igarotzea, benetan on, ixilla,
orduz ordu, elburura gaitezen
gizarte alkargarri baten billa.

Samindura bako igarotzea
izan bedi, urte joate bizitzea,
eragozpen nekeak izanarren
bizitz beraren ainbat arantzaren
egun-ikutu mingarriz betea;
onena da eroapenez artzea,
ikasirik munduko izatea.

Bearrezkoa ogia billatzea,
biar be izan dedin etxean
gari ogi zati bat, bearrezkoa,
langilleteri beartsuentzat, beñipein,
ona da orretzaz arduratzea,
bizi-poza izateko gurekin.

Abestu bada Gabonzar egunez,
abestu baita gogoz, urte barriz,
biotzak pozbidetuz maitetasunez,
egunen gorabera eta zoriz
Iainkoak nai dabena izan dedin,
egin dagigun ba egin alegin!

---

* Zer (1989, 126.zenb.) 16. (Olerki ia bardiña, ik. 823.orr.).
** Zer (1989, 127.zenb.) 4.

## AIZEA*

Aizeak beren esku gogor edo bigunez
bizia dakar bizira, orriz orri, legun
edota asarre, zerupe goibelez, illun,
aldi bereko agergai ta izantasunez.

Almen indartsuzko argidura ta sugarrez,
suari aizeak bizitasuna damotso,
goietan gora doana maitasun txingarrez
edertuta, negutar askoren pozerako.

Aizeak itxasoak astintzen dauz aldizka
olatuak zatitzen dirala arkaitzetan,
bits aparrez bein eta barriro orroaka.

Aizea da izadiaren, gizonaren guna,
odola dirakina zanetan, biotzetan
aize aldakor, gozatsu edota kutuna.

## BARRIRO IZAN**

Jaiotza baten antzeratsu
asi ezkero egin deadar,
barrurantz edo kanporantza
egin alegin eta indar,
bazterren batean burutsu
eraturik zeure egoitza,
ta, ortako toki bat bear
tokitxoren bat bedarrean,
lurgintzarako balio dauan
zerbait. Ta gariburu bat,
ta, entzumenean abes bat
ta, izangaizko guramen bat.

Bai, barriro nik, goiz onetan
asi nai dot neure baitan,
eguzki ta ixiltasunpean
bazterturik nire tristurea
ain sakonki dagona nigan.
Gatx egiten jat esatea
ni neu nazala argitzea.
Gatx, gatx. Baiña aztunak dira
aztunak, gabaren betaiñak,
itzaldura baltzez egiñak
eta, zerbait nire kolkoan
dago erasoka, zutuna.

Ondaretik nai dau bai urten,
barriro izan
ta, sendo eutsi.

* Zer (1989, 129.zenb.) 7; *Esk.* XXIV, 97.
** Zer (1989, 129.zenb.) 7; *Esk.* XXIV, 134-135.

Arri biurtu
aparrezko dorrea
nire kanpai apurtua
eta nire autserrea.

Maitasuna dot eusgarri,
bakar-bakarrik zure aizeak darrai
erasoka bildurgarri
bizi jarraipenaren etsai.

## GOGAMENAREN TXINGARRA*

Atzerazko osteratzez
ni, neure lengo lengora,
barriro itzuli bearko
ba-nintzake igarora,
nire aintziñako gogo
amets-leku, izandakora.

Bearbada orduan, nik,
aintziña ibillitako
aldi zaar, joanetara
jasoko neuke bai biotza,
dastatzeko zoro-zoro,
alaitasunez, poz-pozik,
alako leku, alako
amets-aldi zaarretara
benetako atsegiñez
urtuz, urteen izotza
barriz itzulko nintzake.

Ordea, gerta leike bai,
berez-berez joandako
itunduraren bat, deslai,
autserre artean, antxe
(txingartxo baten antzera)
estalpean, epelkiro,
aintziña baten agergai
oraindik an irautea,
autserre artean, dirdai.

* Zer (1989, 129.zenb.) 7; *Esk*. XXIV, 124. (c. 1985-1989).

## TXANELTXU BAT DAUKAN GIZONA*

Arratsa zearkatuz igarotzeko
gelatzar illun batean
atxikia izan zana,
bein be ezta izango
ugarteko atxilotua,
beste doai batzuen artean
txaneltxu bat daukan gizona.

Gogo sendo, adoretsuz,
lokarri danak azkatuz
jaretsiko dau alde egitea
iñork berari aurkarik
egiten ausartzen ez jakola,
eta laiñoa urratuz
elduko da bai, bakarrik,
egunsenti ederraren
lurralde maite, azkera,
beste doai batzuen artean
txaneltxu bat daukan gizona.

## UDABARRIAREN ERIOTZA**

Etorri egin zan, beti etortzen dalako
itxaropendun soñeko garden, dizdikorrez,
goizean goiz, txori txintadapean, alako
biotz-poza damoskun janzkera alaikorrez.

Baña, itunik ta ixil entzun izan neban
txorien txintots, abesti tamal, mingarria,
berarizko malko, negargura latzgarria
sortu-arazoz nire begi, saiets artean...

Izadia illun-illun, baltzago nekusan
dana ozkil, negu gorrirantza makurtua,
eguzkia makal, txepel, lañopean sartua...
udabarritar aztarnik iñun ez-bailitzan.

---

* Zer (1989, 129.zenb.) 7.
** Zer (1989, [131.] zenb.) 14; *Esk.* XXIII, 148-149. (1989).

Udabarri asiera zimurtsu ta baltzean,
beren esku gaixoti, esku dardaratiakaz,
bizitz ate-joka dabil esku zarkituakaz,
indar bako orri-sortze aul, nekezean...

Itaundu neban nik arratsaldearen margoa
beren egimenezko margoa a ete zan...
—Eta erantzunik ai! ez neban jaso izan,
ori zelakoa zan ta, nundik norakoa!

Zugaitzak jantziz, soñekotuak ez zegozan
ez, beren betiko jaiegunezko margoakaz.
Jendia itzal zebillen begi ixillakaz,
itxarokizun itun utsalezko ezbaian.

Orduan neure besoeri itxi egin neutsen
gogoz, etsipenduta, be-alderantza jausten;
ta, oldoztu neban: Ai!, dirudi orain, emen
azken-udabarri bat ari dala bai, sortzen!

Biar zugaitzak, dan-danak, ill egingo dira
ta ibaien oroitzapen triste bat besterik
ez da geldituko emen, oñazez beterik,
uberka legor, uts, dezabatuen arira...

Eta, Udabarri izen zoragarri ori...
gure kondairatik baztertua izango da
eta, ezabatua ain urtearo gelgarri!
Itxaropenaren sorburu eder, izantza.

Ta, gizon bera da bai, errudun bakarra,
zorigaitz ororen tzarki sortxaille basati;
Izadiaren erailtzalle anker ta izurri,
autserre arteko sasi-gizon ain makarra.

## GABA*

Udara gau bero batean,
euzkia sartu da sartaldean,
itzalak argiaz nastutzean
itxasoaren osertz urrunean.

Gaubidezko ederpe geltsua,
kirkirrak ari dira ozenki,
ta ugario mundu itzartua
klin-klon, osin ertzetan kantari.

Illargizko zerupean nago,
euzkia urperatzera doala
geroago ta urrun-urrunago,
gorrizkaturik osertz egala.

Erriko argiak dakustaz dizdiz,
mendi artean ain ikusgarri,
lotarako bidez zoragarri
atseden-gogoa sortaraziz.

## JAIO NINTZAN ERRI MAITEAK**

Arteaga ni jaio nintzan erri maiteak
dei dagist oldozten dodan bakoitzean,
ta, aren Atxarre-alde ta, Ereñozarpeak,
lilluratutzen nabe gogoz bertaratzean.

Argi izpirik gurenenak dantzatzen dira
nire oroitzamenen ikuste, gogo barruz;
ta, or noa aldizka erriko iturrira,
aintziñako ikuspegietara begiratuz.

Maitezko itzultzea asierako nirera,
goiberadun etenaldi eta negar-malkoz
barriro datorrena izana berbiztera,
orduko lagunkide ta bizi izandakoz.

Orduko gazte-egun ederrak datoz gora,
itxaropenezko ameskizun bidegarriz,
bein ta barriz datoz bai nire biotz altzora,
maitetasunezko eragin gomutagarriz.

* Zer (1989, 134.zenb.) 6; *Esk.* XXIII, 97. (1989).
** Zer (1989, 134.zenb.) 6; *Esk.* XXIII, 98. (1989).

## APURKA*

Apurka nai neuke bai mundua eskuratu,
ikuspegi eder bakoitzetik zerbait artu;
ta, egunik egun, maitasunez zorroratu,
Izadiaren agerpenak sakonki, gogartu.

Ibil baiño geiago nai neuke egin egan,
gure begietatik izkutatzen dan edertasun
ori, pozik biotzeratu, tinkoi ta legun,
goi ta lautadaz Jaungoikoarenean.

Itxas alde, erri orotan, bidari izan,
ta, goiz bakoitzeko zerupe ezberdin baten,
goiz sortze oro, maitez, agurtu neure baitan.

Aizea lez ibili norabako joanean,
orriz-orri, gauzak samurki belarriratzen
eguzki ta itzalpetako gozamenean.

## AURTZAROKO OROITZAPENA**

Aurtzaroa gogoratuz bizi ta naiz ilten.
Ume eldu bat dirudit baiña, ume bat naiz;
zarrapartuta ametsakaz naiz burrukatzen
baiña, ez det aztutzen lengo izana, gogaiz.

Urteak joan doaz ta, lengo lez nai dodaz,
oroimenean betikotuz gauza gozoenak
ta, sakonkiro, bizi-zaletasun orregaz
darrait, begipetuz oroitz aintzagarrienak.

Aurrerazko ibilte oro da itzultze bat,
lora ta txori bakoitza izanik bide bat
itzultzeko kantari, lenengo mosuetarat.

Alan ere or dago eriotzea, unero zai,
ta, aurtzaroa da edandako ardo mozkor bat,
lañopean an urrunan dakustana, deslai.

---

* Zer (1989, 134.zenb.) 6; *Esk.* XXIII, 99. (1989).
** Zer (1989, 136.zenb.) 12; *Esk.* XXIII, 142. (1989).

## UDABARRITAR GOGOZ*

Negu otz gordin gogorrik aurten ez dogu izan,
ta, Udaberria gogoz, or dago ernemin;
lenengo loraz, (zuri, oriz...) poz-pozik, dilindan,
itxarozko bizitz emoikor bat goitu dedin.

Zugaitz billutsak beren soñeko argaletan,
orri barriak noiz ler, biziratuko dagoz,
barriro be dantzatzeko aizearen egoetan,
zomorro zarataz ta txori abesti gozoz...

Elorriak lenen, gero, sagar ta madari
ta, abar..., dan-danak, loraz apainduko dira,
ateak osoro zabalduz maitasunari,
gizarte laztankor, obeago bati begira.

Barritze barri baten gardendura bizikor
ta ale betez buruturiko maitasuna...
gogai sendozko elburu emoitsu, argikor,
ta eder batera garoazan eldutasuna.

Izadian lez lora bediz, gogo-biotzetan
gizatasunezko emoi, ogidun galburu
beteak, gizartean gurutzeko benetan
alkar mairatuko gaitun ogi bedeinkatu!

* *Esk.* XXIII, 127. (1989-II-20).

## JORRAILLEKO EURI, TA...*

Jorrailleko euri ta, Maiatzeko lorapez,
zoaze alai, mendiz mendi, edermin, kantari;
zoaze aize bigun, osasuntsuz, egalari,
begiekaz agur-laztanka ta abestuz biotzez.

Zoaze txoriekaz, goizeko txinta, abar-otsez,
intzezko dizdiramen ta bedar-sunda gozoz,
biziari ateak zabalduz gogo-barrenez
zoaze, egintza ortan parte artzeko asmoz.

Biziak ots dagi bai, udabarritar senez,
ots dagi, goramin, bizidun danak batean
zerbait izateko uste ta itxaropenez.

Bizia loran dago, ezetasun gardenez,
loran, odol barriaren amets-lillurapean
ta, neska-mutillen begizko baterakunez.

## AIZEÑO POZKORREZ**

Etxekotasun aizeño pozkorrez
nabaitutzen dot bizitzako lurrin,
usain gozodun larrosa ederrez
udabarritar eskeintzaz ain lirain.

Ibillizko negar eta barreaz,
—aldiko goratze, maitetasunez,—
datorkit gozamenezko ikutuz,
igaran-egun zarrak begipetuz.

Ba-dakit poztutzen zarala, maite,
nire pozaz eta, ni, zure pozaz,
poz berean biok, biotzez alkarkide.

Arrats izarge edota, goiz argiz,
gurekiko neke ta ametsakaz,
egun bakoitzeko joan-etorriz.

* *Esk.* XXIII, 127'. (1989-V-14).
** *Esk.* XXIII, 126. (1989-V-16).

## BAKEZKOA*

Nire gudaritzazko babestoki, lubana,
ikur zuri-gorri-orlegiz da bakezkoa,
Bakezkoa da bai, nire gudariak zugana
zuzentzen daben, urreratzen daben soa.

Samurtasun maitekor, eztiz egindakoa
aize etsaien illuntasun ororen aurka,
bizturik daukat bizitzadun argi gozoa
itxaropen sendagarriz, ederrik, besarka.

Egunaz goibideturiko gizatasuna,
esku zabal anaikorrez zuzendutakoa,
gogo ameslari zindo baten emoikuna.

Biotzezko norabide laztan, gurenena,
ari sendoz apainki josi ta egindakoa,
mundu alkartuago baten poza dakarrena!

## LARROGEI URTEKO MUTIKO BATI**

Baserria biotzean zendularik, urduri,
oroitzamen zorroa beteta... ¡ene mutil!
urten ziñan, begiak oraindik logurati
etxe-inguru oro auznartuz gero, bipil.

A zan a, urtenaldiko etxeko giroa,
senide danak agur-laztanka, bat-batean...!
Txakurra bere an zebillen erdi-eroa
usainka, an zer gertatzen zan jakin-naiean!

Abeki onena kenduta, zauri gordiñez,
baserria an gelditu zan, bakartadean,
mutiko sendo arek sortzen eban utsunez
bere burua ain ezindua ikustean.

Beren atxur, gurdi, labortz, laia, burdiñaraz...
an gelditu zan baserria bere negarraz,
baso-zelaietako aize zinkurinpean
ainbat jasandako lau orma zarren nekean.

---

* *Esk*. XXIII, 96. (1989-VI-24).
** *Esk*. XXIII, 136-137. (1989). («Mutiko» au Aita Santi Onaindia da).

Zuk iges egin ondoren abitik betiko...
A zan a, etxearen iraupenaren etena!
A zan a, zure Jaungoiko bearrak sorturiko
txertu barri, odolik ezaren ondamena!

Itunik gelditu zan etxea ta, itunik
soloak, landak, baratza ta landare oro,
bakartade mintzul, utsalak menperaturik,
eziñak jota, makal... Ai, zer izango gero!

Mutiko lerden arek, berak eroan eban
kristau eziera on baten goitasuna,
euzkal oñarri sendozko izaera ta guna,
Amoroto'ren maitezko oiartzun bakuna!

Mutiko argi, baserritar senez jantzia,
orra bada orain, gizon ospetsu egiña,
euzkerearen eusgarri sendo, zutoin bizia
bere Aberri aldezko lana bai, bikaiña!!

Asko dira enbor eder orrek, maitasunez
emondako olerti ta itza-lauzko adarrak,
benetako goramiñezko edertasunez
euzkal biziratu diran emoi betikorrak.

Larogei urteko mutiko bat dirudizu
euzkal alorrean sakonkiro sustraitua
ta, olerkide onek, gogoz, txalotzen zaitu
zaralako euzko barrutiko eredua!

## MAITE DOT MAITE*

Maite dot maite, zugaitz barrien Jorrailleko
ezetasuna ta, Udazkenez negar dagin
orri ori beilegien lurreratze samin
ta ituna, biotzez sakonki, begiztatzeko.

Maitegarri zugaitz eguzkituaren dirdira,
beren itzal billuts, argala erakustean,
ta, txoririk ezaren lengotasun pilpira,
urrundutako ainbat egadaren aizean...

Oraindik maitagarriago suak erreriko
garrazta kixkal, zauritua..., itun, aztunki
gelditu zana bizi barri bat zuztraitzeko,

—ez txori, ez aize, erdi illik ta mirabe—
gelditu zana, umezurtz antzo, mindurati,
aztutako maitetasun zar bat bezelaxe.

## UDABARRITAR GAU-INTZ LURRUNEZ**

Izadiazko udabarritar gau-intz, lurrunez,
arginabarreko euzki sorrera bigunez,
berarizko ezetasunezko goizeratzez
biziro ta zoli dakarren goratasunez...

Bizia emeki, ederrik dator, goiz-gora,
eguneratze barri baten lerdentasunez.
Biziak ots dagi bai, txorizko txintadapez,
ta, ikusgarri diran usain gozodun lora!

Argia eda bedi gure biotzetara,
eguna samurtuz onezko etorki maitez;
eda bedi erri-bidezko gogo ta senez,
el gaitezan eskuz-esku, gu geu izatera.

Abestu begi txindorrak bera izakera,
bere barruko maitegar ta bere ikara;
abestu begi kabi barri baten sorkera,
ta, aren ortzitar egoz alaituko gara.

---

* *Esk*. XXIII, 139. (1989).
** *Esk*. XXIII, 207-208. (1989).

Mintza bedi gure etxe ondoko zugaitza,
bere enbor ta adarteri mardul, luzeakaz,
eskeñiz bere urteroko intxaur emoitza
ta, itzal gozoa, bat egiteko txoriekaz.

Mintza bediz landa, zelaietako bedartzak,
mintza bediz soloetako gari ta artotzak,
mintza bediz usain gozodun mao ta larrosak,
mintza bediz gazteen begi argi ta biotzak.

Izadiaz bat elai antzo, zirripitari,
zeru urdin argi zabalez biotza goiturik
edota Udazken berakadaz orbeldurik,
emon bai berea egun-sortze bakoitzari.

Gabak eta Egunak kulunkatzen gaitu bai,
Izadiarekiko igitze betikorrean,
batzutan gogo argitsuz gabiltza ta alai,
bestetan kezkati negutar mindurapean.

Ikasi dagigun bada bizia bizitzen,
geure bide neurtua elbururatzen,
Jaungoikoaren egintza orotan begiratzen
Uda ta Neguz biotza egunekoz jasotzen!

## UMEZAROKO BIOTZEZ*

Umezaroko biotzez bizi eta naiz ilten;
ume bat naiz ume bat gizona itxuratzen.
Ameskizun utsalez burrukan nabil baldar,
ezin azturik orduko neure biotz izar.

Darioka doaz urteak. Ta, lengo antzera,
gozar nai neukez gomutapen gauza eztiak.
Oi, aurrera bide ustetsu, ain maitagarriak,
indar barrituzko egun batetik bestera!

* XXIV', 3. (1989-IX-2).

Lengora itzultze bat da oinkada bakoitza,
garoazana bizi-iturri edangarrira,
batzutan gertatuarren erabat loi, mingotza.

Unero eriotzea gure zai dago beti,
baña, bai lora ta bai txori, bide bat dira,
orduko udabarri usaintsuz ain gelgarri!

## ESKER MILA*

*Musika-ta Imanol adizkideari.*

Domusantu eguneko
goiz garbi ta ederra zan
Zugarramurdi ikusteko
bidaitu giñan eguna.

Eliza ta illerria,
aren aintziñako
akelarre zelaia
ta aitzuloak iker,
ikusi ondoren...
neukan egarria kentzeko
ardandegi batean
sartu nintzen.

Ta, ardangelako
neska jaseko arek
edan neban ardua
ordaindu neutsonean,
irripar aidetsuz
euskera garbian,
esker mila esan eustan
Zugarramurdi errian.

Esker mila!

Euskel itz ederrezko
aidetasun samurrez
agurtu nindun bai,
ta, gure izate,
gure mintzo

elearen
alkarbidezko
biotzondo
ta poztasunez,
nire kolkoa

ziaro biztu
ta aberastu zan,
mendi alboetako
zugaitz-osto orizkatuen

* *ESK.* XXIV', 4. (c. 1989).

ta iratza eztien
Udazken ikuspegizko
ain egun argi
ta ederrean,
neska jaseko arek
euskeraz
ESKER MILA esan eustanean
irriparrez.

## LORKETA*

Zotz, goroldi, basa..., ainbat kabigai ekarriz,
ekiñaren ekiñezko amaika osteraz,
kabigintzako lorketa azkar ta pozgarriz
bikotea urduri dabil goiztar egadaz.

Jorrailleko krabeliñ ta larrosakaz,
itxaropenezko orlegiaren lurrinpean,
bakoitzarekiko goramiñez ta burrukaz
bizia dago ameskizun eztitsuenean.

Bikote zoriontsua: Bai pozik maitebera!:
Kabia amaitu dabe, txukun ta dotore,
ta emea doa kabira ama izatera.

Baña, orra maltzur, mutiko anker gaiztoa!
Arrautzak ostu ta, apurtuz kabia ere...
Ai!, aita-amen negar-intziriz eguna doa!

* *Esk*. XXIV°, 5. (1989).

## ARANO*

Menditar ats bizi, gaindura osasungarriz,
¡bai atsegingarri ta eder Arano erria:
Goizueta, Leiza, Hernani ta Errenteriz
ingurututako Goikerri ta Bekerria!

Tontor-tontorrean eliza, frontoi, Udala
ta bizpairu taberna ta Erroka'ren denda,
gauzarik bearrezkoenez ondo orniduta,
itxuraz zakar baña, ezkeintzariz zabala.

Begiak doakidaz alde oroz, ederbera,
(ardiak, zaldiak, bazkatzen diran artean)
goiz —arratsetako, udaldiko gentz, bakean,
ezkila otsez biotza doakit bedardietara.

Eder Arano mendipeko ZURO auzoa,
baserri bikain batzuen nekazaritzapean,
osertzik osertz doa nire begien soa,
napar erri onen sena kolkora naiean.

Begiak urrutietan sakonkiro ezarriz
Burni, Arri Urdin, edota, Errekaleku,
arbasoen tregu-arri, il-baratz gurgarriz
Unaimuno muño, zabalgunean daukagu.

Pagoen itzal, belaunetarañoko garoz
inguru oro oraindaño ederrik dagoz,
ipar aize legun baten ikutu oparoz
illunabar gaueratze eder baten giroz.

Nire opor egun amabost igaro dira,
ardi otzanen zintzarriz ta zaldi irrintziz,
gentzazko bizia dator bai biotz erdira,
udarako lekukotasun ixiltsu, eztiz.

Bekerri'ko Artetxe'n negon egoitzatua,
seme-alaben etxean amabost egunez
indar-barritutzen neure soin elbarritua,
mendipeko egurats garbiaren osasunez.

---

* *Esk.* XXIV*, 6-7. (1989-VII).

Marizenea, Etxeberri, Mitxelena inguruan
egun alaiak, emazte, alabak ta bi suin,
gure biotzeko illoba maitagarriakin,
Arano Beterri'ko auzoaren esparruan.

Enasti, Ipiña, Xaguxar, Maila, ederrik
ta, beko errekatan ura ixil ta urri;
ez darakuste bestetako sakondurarik
bertaratzen diralarik ainbeste txingurri.

Udabarriko euri gitxiz, zenbat egarri!
nabaitzen dalarik landa eta zelaietan,
ta, ai!, agortuak dakusguz berein iturri,
tamaldurazko negar-malko eriogarrietan!

Zenbat oroitzapen gelditzen diran biotzean,
zenbat ezaupide, adizkidetasun gozo!
Zenbat esku laztantze ta, zenbat agur bero,
ezaupidezko lagun barrien irribarrean!

## EGOAIZEAREN IZKUNTZA EPEL JOSTARIAN*

Egoaizearen izkuntza epel jostarian,
Udazkenak jantzi dau urrezko soñekoa.
Iratzaen eztizko margoz egindakoa
mendietako elduaro eder, amesgarrian.

Mendi-bizkar ta alderdi oroz, aizebera,
orriz-orri, ipuin-eresi elemeletsuz
ta, udabarri atzeratu baten antzera,
Azken-Aldiko lora, usaingeak dakarkuz.

Auxen da berakadazko urtearo ituna,
aizearen txori guztiak azken eresbidez
aldarrikatzen eguzkiaren samurtasuna!

Orra ba, bakarrik gelditzen dira zerua,
Txoriak, orri orituak, aldiko nekez
Agertuz zimelezko dardamen larritua!

* *ESK*. XXIV', 8. (1989).

## ZUGAITZ ITUNA*

Maite dot maite, zugaitz barrien Jorrailleko
ezetasun bizikorra. Ta, Udazkenean,
galtzalle diran orri orizkatu, baltzezko
igesi ituna, aizeberazko joanean...

Maite dot maite, eguzkidun zugaitz ezea,
txoriak-eta, aterpetzen dirana, pozik,
txipirri-txipirrika, alaituz zelaipea,
gorakundezko kantuz paparra arroturik.

Baña, oraindik, maiteago dot sugar biziak
zaurituriko artekia, bide ondoan
gelditu zana igertuta amets guztiak.

Ez aize, ez txori..., utsune gelkor, utsean
endekatuta, maitasun zar baten zorroan,
lur-jota, oroitzapenezko bakartadean.

* *Esk*. XXIV[a], 9. (c. 1989).

## IZARREZKO KEIÑUPEAN*

Ortzi gañetizko ganbarako argontzian
izarrezko keiñupean Jaungoikoak dargi,
dirdirazko ixil-mintzaira zoragarrian,
aize-tximistapeko aneika ipurtargi.

Gainbera datorgu gautiar bakartadea,
zinkurin antzo, olerkariak beragandua,
misteriozko usain eder-gogoz oretua,
illargi zurbillaren igikera tristea.

Itzalez jantzita dago lurbira osoa,
ta, txirtxil-otsa nagositu da bedardietan
zuzpertuz gauekoen bizikuntza gogoa.

Ozenki dabiltz klin ta klon, igelak kantari,
beren ur-putzu edota osin, zingiraetan
jauzi-jauzika, ur-ertzetatik deika kideari.

## IZAMEN ILLA**

Aintziñako gauza zarrak: arasa bat, oe bat,
aulkiak, apaltoki, seaska bat ta, abar...,
jabe bat izan eben arein bearkizunentzat,
gogoraziz ainbat pozaldi eta negar.

Oraindik nabari da sagar, madari usaiña,
baratz biurtuz aretoa. Enborrak su dagi
laratzpeko autserrean, sendi-giro bikaña,
bizi-ametsezko etxekotasun euskarri.

Ta, eskaratzeko orma zarretan, zintzilik,
oriotzapenezko..., zenbat gogai argigarri
dagozan bertan, orduko agiriz beterik!!

Igaroaren lorratz biziak, or, egonean,
gogoz daroaguzanak ta biotzez, maitagarri,
gurasoengandiko aurtzaro laztan batean.

* *Esk.* XXIV', 10. (c. 1989).
** *Esk.* XXIV', 12. (c. 1989).

## URTE BARRIAREN AURREAN*

Zer izangotuak gagoz
Urte barriaren aurrean
gure egunen etortekoz
bizitzazko joan bearrean.

Mindura bako igarotze
baketsu bat izan bedi bai,
euskaldunezko anai-arte
eredukoi baten agergai.

Eragozpen oro jasanduz,
aurreratze sendo, egokiz,
itxaropenean sustartuz
maitetasunezko janariz.

Ogizko bearkuntzarik gabe,
euskera alorrean, gogoz,
lan egiteko asmo zindoz
beti arduratsu, mirabe!

Bat eginda jarrai dagigun
ekintza orren biotz-barruz
danok alkarkiro ta kuttun,
euskera-alde biotzak lotuz.

## ITXURAKIZUNAK**

Itxurakizunak alde batera utzita,
ikasi gizon izaten zintzoki ta zuzen,
anaitasunezko biotz-soñanzkiz jantzita
begiak argi, itxarotsu eguneratzen.

Egunik egunerako ibilian, gogoz,
eutsi eder-onezko oñarri sendo orri
ta, jarrai aurrera, zerbait izateko asmoz,
gure bizi udabarrituz orriz orri...

Iñolaz ez izan etsipenaren abotsa,
ez biurrikeri ororen laguntzalle makur,
izan ez zaitezan ai!, zeure buruaren lotsa!

Eskeñi zeure laguntza, esku laztankorra,
egitazko adizkidetasunaren izar,
argitzalle pozgarri, bizikorra.

---

* *Esk.* XXIV[a], 13. (1989).
** *Esk.* XXIV[a], 14. (1989-XII-19).

## LARROSEA*

Lora guzti-guztien buruzagia zara,
ta, edertasun zoragarriaren erregiña.
Zugan dan-dana da usaindura atsegiña,
margo gorri biziaren goi-eresidun gara.

Samindura ororen osagarri. orea.
Zure kalizan ez dago itzalpe illunik.
Goitasun guna zara bai ta, maite bidea
edertasunaren ildo begiko, gozotik.

Bakezko ikur ongarri bat gizarterako
Loreil baratzetako ikuspegi bakuna,
itxaro urrizko tristura munduarentzako.

Bizitasunezko botoi gorria aizetan;
odolaren margoko agerkari kutuna,
biotzez jantzitako abo maitagarrietan.

* *Esk.* XXIV[a], 15. (c. 1989).

## ZELETA*

Oi!, zu, agur zuri! gipuzkoako lasartear
Zeleta, errikoseme gogoangarriari;
agur, bertsolarien goresle maitatiar,
idazle bioztun ta gizaseme zintzoari!

Gogoan zaitugu, maitez, zure lagunkide,
aldi gogor batean euskaldunezko pozean,
ibilli giñanok euskerearen alorrean
utsaren truke, beti, erri-mintzoaren alde.

Zure idazlan egiti ta jakingarriak,
maitasunezko gogai sakonez oretuta,
benetan ziran eder ta irakurgarriak,
erriaren azkatasun guraz biotzeratuta.

Euskal burujabetzarako neke ta pozak
egunik egunerako lanbide nekezez,
erri-mintzoz edatzen ziran gure abotsak
jeltzaletasunezko gogo, itxaropenez.

Bidegite latza etsai-sastraka artean
esidurazko ain zerupe baltz, gogorrean,
euskal argia, eskuz kanpo zegoanean,
atzerritar ain usain txarreko gizartean.

Euskaldunezko bizi-nai lazgarri orretan
zure argi-lorratzak dizdikari or dagoz
garai artako euskal senezko idatzietan
idaz-lerroak aintzaldu zaituzte betikoz.

Gure arrobiko gizon apal ta zintzoa,
Zeleta bertsozale argi onek ez al du
merezi euskal erritar ororen txaloa
ez al da izango gure etorki elburu?

Euskal langille aspergaitz, bersolaritzaren
goresle ta iztun eredukor... Agur zuri!:
Xenpelar, Txirrita, Uztapide, Basarriren
ta, beste askoren goresle maitekor orri!

* *Esk.* XLV, 12-13. (c. 1989).

Urrezko erri-abots orren anots ori
ez dedilla ur-ekaitz zirimolpean suntsi,
ez dedilla ez iñoiz gure erruz erori,
iñoiz ere ta, ezerk ez dedilla iruntzi.

Aren antzera gogotsu darraigun guk ere,
iñoiz ere ez dedin gure erruz or jausi
gure maitetasunaren biotzeko goi-lore
Euzkadiren berarizko gogo bizi ori!

Osasundu bediz bai, gure biotzak neurtitzez
agoz-agozko ta itz-lauzko errigintzaren
anai-arte sendo ta betiraungarriaren
benetako Euskal-errien gogo ta biotzez.

Zure antzerako bidez gabiltzanok gara
erri-aldezko biotz-erakindura laztanez,
oñezkari apal ta arruntak eder-ikara,
eskuz-esku zuzen jarraitzeko, euskaldunez.

## UR KRESALAREN OSASUNAZ*

Ur kresalaren osasunaz
zein eder Kantauri kolkoa!
Aizekirri epel, bigunaz
zaidana biotz-barruratzen,
gainberaturik nire soa
itxasoaren sakon, zabalez...

Pipa zar bat ta, pattar sundaz
agure bat alboratu zait
itxas-olatuzko izkuntzaz
ta asko ibilia nunbait
ta, nik aren itxas-bideetaz
jakin-miñez poz-pozik darrait.

Bai, aren esanak dantzudaz
ta entzunago ta naiago,
guztia bertanberatua nago
adi ta zur, gogo aundienaz
geroago ta lilluratuago
ainbat pasadizuren gatzaz.

Oi, zenbat larrialdizko ekaitz,
ta zenbat baregune apatz!
Zenbat aldiz, arkaitzik arkaitz,
olatuak orroaka, zakatz,
ain asarrekor ta izukaitz
edota, otzankor ta baratz.

* *Esk.* XLV, 30-33. (c. 1989).

Adi nago buru-belarri
aren begi gatzituera;
adi, aren esanetara,
mutiko antzera, zer-berri
aren edestietara nago,
entzunago eta naiago.

Baña pattarra bukatzean
bukatu dira itxasoak,
ele-mele gazi-gozoak,
bukatu dira ugartetxoak,
izlapurren gorde-lekuak
ta isladura sorgintsuak.

Aztu egiten da danetzaz,
ez itxas-andere ederrik,
ez maluta-neska jolasik,
ez makalluzko arrantzurik;
aztu egiten da orretzaz
aztu, ezpadago pattarrik...

Bebiltz bai, jauzika izurdak
itxas-olatuen azpitik,
arraiñak azaleraturik:
antxoa, txitxarru, berdelak
arrantzaleari lagundurik
sareratzen aal diran danak.

Bebiltz atunakin batera,
ta, ondasunak billaturik
ur bazter oro zearkaturik
bebiltz bizitzaren pozera,
bai ur barru ta bai urganez
mariñel sena agertzera.

Gogora dagidazan beraz
arrantzako itxas-bidaiak,
jarraiturik irudimenaz
jazokun triste ta alaiak,
bizitzazko sen, goraberaz,
euskaldunezko iturriak.

Aberats izan ziranarren
gaur egun, kenduaren kenduz,
itxasoak doaz agortzen
ta, arrantza erabat galtzen
baña, itxas bizia zainduz
barriz letorke ugaritzen.

Gizonaren geiegikeri
ondatzalle, zentzunik eza
norańo elduko ote da?
Lezaken gizonak ar beza
Izadiaren aldezko neurri
egokiak... Au, gure lotsa!

Itxasoa det begipean
beren ur kresaldurapean...
Baña, ai!, nun ete, nun ete
gure itxas-ertzetaraño
edatzen ziran ainbat bale
noizbeinka agurtuz Ogoño?

Bale arrantzuaren lekuko
orra, Bermeo, Elantxobe,
orra Ondarru ta Mutriku,
Lekeitto ere aztu gabe.

Berdin Deba, Pasai, Getari
ta, Bidasoko Ondarrabi,
ta beste ainbat itxas-erri
otoika egungo ogiari.

Egoko ta Iparraldeko
euskaldunak bale ondoren
ibili ziran benetako
trebetasuna erakusten.

Jarraian jarraian bulartsu
eldu ziran Ipar goraño,
Izotz-Erri Lurberriraño
ausarkiro ta adoretsu.

Bale arraintza agortzean
beti ausart ta aurrelari
makillauzko zeregiñean,
ager izan dira nagusi.

Nun sartu ote zait arako
nire mariñel lagun zarra
nun aren pipa ta pattarra
gure erriaren aintzarako?

Itxasoaren kresal ta guna
beren asarre ta bare-aldiz
ugari bedi ondasuna
egunoroko ogiteriz!

## ANTXETAK LEZ*

Antxetak lez ibilteko egan,
poz-pozik mutillak, besoak zabal,
itxas-txoria nai luke izan,
zeru-goiak urratzeko yaukal.

Itxas-ertz, goibeak begiztatuz...
Zein eder, antxeta txiliokariak
egiten ditun joan-etorriak,
azkatasuna aldarrikatuz!

Urdin-arrezko zerupe argiz
udabarritar ezetasunez
ta, goizeko txirula-txiruliz
eguzkiaren goratze bigunez.

Izadia bizitzara dator
aldizka ipar, aldizka egoz,
soñeko orlegi ta begikoz,
aizetik aizera, itxarokor.

Itxasoa loran dago, eder,
edur antzeko bits, apar zuriz,
ta, or dabiltzu gure Maiteder
bere soinkera erakargarriz.

Nola dantzaten diran olatuak
udabarriko igikera emez!
Baita azaleko arraintxuak
uraren goi-aldean zer otez!

Itxasoa orlegi ta urdin
ta, zerua garbi, urdiñago
itxaropenez jantzia dago
ta, dizdiratsu, ugiñik ugin.

Gora igo ta berriz itzuli,
egoz ego, atsedenik gabe,
antxetak or dakusguz urduri,
aize atsegin baten besape.

Mutilla ere begira dago
ta, irudimen egoz doakigu
usoa baño arin, usoago,
besoak astinduz adoretsu.

Mutil! Ni ere zurekin nago
ta, biok, itxas-olatu artez
ta ortziko aize zabalgunez
gure bidea zabalik dago.

Zenbat argi, zenbat edertasun
goizaren eguzkipe ezean!
Zenbat ugin txipli-txiplitasun
txorik ondarrera urbiltzean!

Antxetak ondarreta bustian
arinkiro dabiltz ta dotore,
erpatz marrak utziz ondarrean
aruntz-onuntza janari bille.

* *Esk*. XLV, 34-36. (c. 1989).

Ume izatearen zori ona,
(begi argi eta biotz garbiz)
bizitzari begiratzen diona
laztandura gozo maitagarriz!

Mutilla antxetakana doa
jolastera txalopin-txaloka,
baña, antxetak, jasoz egoa,
mutilla utzi dute lur-iota!

Baña, ez ba, orregaitik kezka,
ni zuen laguna nauzue-eta...
egan ta egan, guk darraikegu,
biok, zuk eta nik, eskuz-esku.

«Argi», «itxaropen» «alaitasun»...
aurrerabidezko goitasunez
biotzean ernalduak... Ain kuttun!,
maitetasunezko zuzenbidez.

Ametsak ederrik, soñekotuz
ibiliko gara alkar-pozera,
goibide berriak aukeratuz
zear-zearka, ertzetik ertzera.

Berein gauza asmako ditugu
ta, almena aundia izanik,
izarrezko zolairuz zolairu
ibilliko gara txoraturik...

Gallurrik gallur, zelairik zelai,
alderdi oro ikusmiratuz,
biok elduko gara noranai
aunitz bitxikeri biotzeratuz.

Udaberritar indarrez, eder,
zernai ta ori izango degu
irudimen bizi bati esker,
Jaungoikoa dala gure esku!

## NESKATIL BATI*

Begi ederrak, ederrik baldin bada, neska!
Barrutiko iturburu goitar, gardenakaz,
ta zeru goi goietako izar-aberaska
gaurik eder argienaren dirdirakaz...

Zure begi gozo ta iztunetan, ameskari,
bizia dagerzu maitetasunez deadarka,
Loreil loratsuena bezin atsegingarri
ezkutuki orren usain ederrez besarka.

---

* *Esk.* XLV, 37. (c. 1989).

Baña begi eder orrein barru, magalean,
ager eziñeko ezkutu aundi bat dago
olerkitzako ixilperik gogorrenean.

Aren sugarraren barri ta zadorrarena,
Jaungoikoak bakarrik daki ta, dau esango:
gau baltza datorren ala egun ederrena?

## ITXASOAREÑA*

Itxasoak itz dagizu gogoz, sakonkiro,
eta, zuk ere, itz dagiozu begirapenez,
aizebera joanik urrutira, ixilkiro,
begiak edurraren zurizko apar ganez...

Barrendiko bizitza, oldoz-ikustez, egan
osertzik osertz, ametsezko ibil-bideetan
itxasozko urruntze eta urreratzetan,
eguzki argi gogoz, maite dan kresalean.

Aldiko baregune ongarri, begikorrez,
olatuz olatu, goiberazko dantzaketan,
urduri nabil kresal-zabaldi urdin-arrez
igeri nabil begipeko ur-zelaietan.

Ama Izadia dogu bai, gure ispillu
buru argitzallerik Jaungoikogarriena,
gure gogo biotzaren ikus-begiragaillu
oargarri zintzo ta, oldozbide egokiena.

Barrendu, makur gaitezen aren argibidez
egunero dagerzkuzan erakutsietara;
aren goiberadun izatearen bizi-senez
erakusgarri diran agerkizunetara.

Itxasoak itz dagizu azal ta barrenez
ta, zuk ere, itz dagiozu laztan, gozokiro,
betikoz zoaz, aizebera, egunen joanez,
itxasoak laztanduta gogoz, zeurekiro.

* *Esk*. XLV, 38-39. (c. 1989).

Aizebera zoaz bai, azkenaldiko atsez
agurka, goiz-arratsen goigune bakoitzari,
gure bizi-oldoz-oarpenetan egalari,
igarozko olatuen oinpeko anotsez.

Zugandik at, mundua, aldakor igitzen da
ta, argi esaten ta esan ere nai dautzu
ameskeri utsetan sartuta zabiltzala
lillurapean zanbuluka ta erdi itsu...

Ta ikusten ez dozuzan zuloetan erortzen,
jausten zarala, minberatsu ta tristurati
ta, zuk, zoritxarrez ez dozu ezer entzuten
ain atxikia zagozalako zeure zer orri...

Mundu ezbardin, zoragarri bat da bai nigan,
edermiñez lokarrituta kantuz dagona
nire ongurazko naiaren sustrai bizian
eskutik dala aurrerazko itxaropena.

Itxi ba itxasoari egungo olatutzan,
beren ortzipeko eguzki ta izarrakin
zure begi malkotuen gatzez ibil dedin
gogor ta orroati edo, legunkiro dantzan.

Bizitz aldakor goiberakari eder ontan,
zenbat sortzen ta eriopetutzen diran
Maiatzeko larrosadun soin ta arimetan
ta, Negu-bidezko udazkentze orbelduetan!

Izadiaren agerkuntza txit jakingarriak,
beren txiki-aundizko izaki munduteriz,
begipetzen doguzan ikusgai zoragarriak
etengabeko ezkutapen, bizi-iturriz...

## EURIA EGIN EBAN ATZO*

Euria egin eban atzo, euri ederra,
legorte luze bat igaroz gero, euria;
eta, gaur be, egunaz dator sirimiria,
indar barritzeko izadi zimel, igerra.

Orlegitzen dakustaz mendi eta zelaiak,
ta poztu egin da poztu landaredi dana;
poztu egin da lurra ta poztu iturriak,
edatuz bizitzadun usain gozo, lurruna.

Egarri-miñetan an egozanak, ur onez
asetu izan dira sustraiak osasunduz
erabateko tantaz-tantako gozamenez.

Irripar dagin neska lirañaren antzera,
mosu baten amets atsegiña kolkoratuz
begiak argi, alai datorkigu biotzera.

## ATZOKO ABESTIAK...**

Atzoko abestiak
eta gaurkoak,
ezbardiñak diranarren
danak daroe
biotzezko naikun,
egitura bat.

Dinbili, dinbili dan,
kanpaiak berriketan
bizi ta eriotzazko
dei-aldi berezietan...

Ibilizko mundua
ari barrietan dantzan,
gogo-zar ta barria
dinbili-dan,
erabat nastua
odol beraren
amets-irakinduratan
gogoz borobildua.

* *Esk*. XLV, 40. (c. 1989).
** *Esk*. XLV, 41. (c. 1989).

## AITXITXEREN IPUIÑA*

Begik lauso, irriparka, urtedun bizar zuriz
jarrita zegon sutondoan, illoba artean,
pipa bat eskuetan —aintziñatasuna ixuriz—
«pafa-pafa», baserriko egoitza apalean
ta, kontu-kontari, bere entzuleak poztu nairik
neguko arrats batez, be-suaren aldamenean
noizbeinka, arteki iger sugartsuak ezarriz...

«Aitxitxe». Beti Peru-Maritxuka ibil barik
esaiguzu (esan eutson Edurnetxuk) zeure bat
itxas ikuspegi ta gertakeriz gatziturik
gaztetan bizi izandako arrainketa lander
edota, mariñel istoriren bat edesturik
zuk dakizun lez, lamiña maitagarriz ain eder...

Buruari atz egin eta, une baten ondoren,
asi zan aitxitxe, gertakizun zar bat barritzen:
«A izan zan a, ekaitzaldi baltz negargarria!
Une batetik bestera, aizeak menpetuta
ta, intxaur oskol baten antzera gure ontzia
asi zan urez betetzen, zeukan indarra galtzen
gau illunaren erdian, norage, ezinduta...

Itxasontzi menderatua aizeak eroanez
ur zirimoldupean bertanbera, alderakor...,
nik eztakit nora, nik neukan bildur, izumenez
(ura azpian, zeru baltza goian) ikarakor
eskuakaz ontziko zerbaiti eutsi neutson gogor,
balbe, erio otza, aurrean bertan neukanez

Ontziko tresneri guztia lurrera zetorren;
lurrera mariñelak be, bein ta barriz jausirik
alako erauntsi gogor, itxas asarratuaren
eraginpean, geure buruari eutsi eziñik
azken ordua, estu ta larri, neban ikusten
neure biziz Iainkoaren eskuetan jarririk».

* *Esk.* XLV, 42-43. (c. 1989).

—Eta salbatzeko zuk, zer egin zendun aitxitxe?
Egin. Zer egingo neban ba, nik neukan bildurraz?:
Otoitz. Ta, Amabirjiñari laguntza eskatuz
gogoratu nintzan aita-amaz, anai-arrebaz
une batean bizitza guztia gogoratuz,
Otoitz egin neban apalik Otoitz. Bai orixe!

Eta, Amabirjiñak, bai, lagundu egin eustan
ontzia galdu zanean age bat eskuratuz.
Ori egiztatzeko ona ni zuekaz berbetan
ezelako guzur kutsurik, ipuiñik ez daukan
aztu ezindako gertaera garratz au azalduz,
jakiteko itxasoa zenbat asarratzen dan,
erruki baga, aizeak erasotzen dautsonean.

## AMETSAK*

Orixe bai,
beti alai!

Zergaitik ez, zergaitik?
Artuko dogu illargia eskuakaz,
ibilliko gara gau billutsetan
aizeaz egazean.
Igesi doazen aizeakaz.
Gure begiak utsik ez bediz gel!
Larrosak aunitz sortuko dira itxasoan
ta, umeak zilipurdika olatuetan
egingo dabe egaz.
Edegiz bizitzazko berein txaramel.
Olerkariak minduraz dabe abestuko
urretxindor naiz igel,
ta euren negar-malkoekaz
suntsiturik urpean dira geldituko
inguru-alde danak
baña, danak itxas-bedar goroldioetan
olastaz kulunkatuak
bizi izango dira.

Beti alai,
orixe bai!

* *Esk*. XLV, 52. (c. 1989).

## BABARRUN AIZE BEROZ*

Udazkena emen da, babarrun aize beroz
ta iratzaen ezti margo ain bereizgarriz
orriak ikusiz eriodun ori-beilegiz,
jausten, negu aurreko itzaldura, lañoz...

Azkenaldiko uztatzetan, nekazariak,
etxeratuko dauz ardura aundiko gogoz,
neguaren igarogarri diran aleteriak
etxeko bizilagun eta abereentzakoz.

Baserri orok bere lanbide ta urtearoz,
etengabe, lanari ekin bear dautso bai,
egunik egunerako atontze ta asmoz.

Azaroan bere ereintza jakiñak dagoz
(gari, arbi, ta abar) nekazariak, alai,
garaiz erein dagizan urrengo urterakoz.

## EURIA**

Lurra egarriak dago ta ago zabalik,
arrakalatua, legor, eriotzazko larriz,
gogoa dauka etsipenez bete-beterik,
lora, bedar-izpi ororen otoitz, eskariz.

Legorte-mindura baltza edatu da, itun,
goietan odeiak alkar-joka gogor dabiltz,
ortzian tximiztak ugarituz burrun-burrun,
edegi diralarik euritezko ainbat giltz.

Azaro ederra. Au mirari! Euria da,
euri gozagarria... Ta, besoak zabalik,
Izadia asetzen ari da bai, au da poza!

Ortzi goiak argitzera doaz, urdin-arrez
eguzkiaren jauntasuna barriro jarririk
Euzkalerriko zeru-gain eder, laztankorrez.

* *Esk.* XLV, 56. (1989).
** *Esk.* XLV, 57. (1989-X).

## UDAZKEN KUTSADURA*

Udazken kutsadura artzen ari da lurra
zugatz-orriak orizka, bera begira dagoz
banan-banan ta bildur-ikaraz noiz jausikoz,
oraindik urrun-samar egonarren edurra.

Udako orlegitasun eze ta txintadak
moteltzen ta ixiltzen dakusguz, itunki,
goiz-arratsetako laño-aldi ta otzdurak
egunak moztutzera doazela nabarmenki.

Egoaizeak azkatutako orriak, mengel,
lurra ongarritzera datoz buruzbera
tarteka pillatzen diralarik ainbat azmel.

Laster letorke bai negu baltzaren zantzua
Urrilleko euri ta tximiztakaz gainbera
nabaiturik itxaso arrotuaren orroa.

## ORRILLEKO LORAPE USAINTSUAN**

Ler bizi dago Izadia soñeko orlegiz
Orrilleko lorape usaintsuan, goikari,
ainbat edur zurizko zelai ta sagastiz,
erlezko burrundadapean ain laztangarri!

Eguzkia soloetan intzez dago dirdari,
poxpolin ta txirtxillezko maite-ereserkiz,
etorbiderik larrosatsuenez, ikusgarri,
agur-agurka, bizitzadun berein alderdiz.

Begiak batetik bestera dabiltz urduri,
erleak lez, zamatuta eztigai bizigarriz
itxaropen-poza edatuz ozen ta kantari.

Auxe emoitzadun aintzamen gozo, gelgarri,
aize, euri, euzko argi, aberasgarriz
ederka, laztanka, bizitza dan Jaungoikoari!

---

* *Esk.* XLV, 58. (1989).
** *Esk.* XLV, 59. (1989).

## UNEAREN LILLURAPEAN*

Unearen lillurapean, begiekaz darrai,
egazti azkar baten egada pozgarria,
ortzi gardenean aundiki doala, dirdai,
euzkiak edertuta aren goi ibillia.

Ortziaz jabetuta zerupe urdiñean
ederrik, Ai! azkatasun ikurra dirudi,
goitasunezko aize-zabaldi argienean
egoak astinduz samur, azke ta biziki.

Goiberatze zabalak dagiz ta da asetzen
urdin argiaren barruz sendoro ta bipil,
zoriontasunezko egoitz amesgarri baten.

Biotzez osoturiko ume ameskizuna,
Lurbira Zoriontsuaren lurraldetatik dabil,
egan dagi egan, amestuz azkatasuna!

## ITXAROPENA ZAINTZEKO DENPORATAN**

Itxaropena zaintzeko denporatan gagoz
arginabarreko bideetatik ibiliz,
amarengana urbiltzeko erritar gogoz
bizi atsa eskatzeko gaitasun pozgarriz.

Garaia da begiratzeko izarretara,
garaia da gelditzen jakun anaiarekin
baserrian baztertutako solo galdura
urbiltzea, ereintzara azi bereziakin.

Egunsentirik onenaren denporea da,
eroapen aundiz etorbidez eguneratzen
bizi-poz bitsetan urdin-argi datorrena.

* *Esk.* XLV, 60. (1989).
** *Esk.* XLV, 61. (1989).

## BERANDUAN*

Gaztea ere izan nintzan bai. Izan nintzan,
neke-min ta poz-aldizko igarobidea.
Gogoa neukan itxitasunakaz betea
aztutzezko ta bertanberazko etorkintzan.

Nire barruko biotz-taupada ezjakiñak,
kirio bakoitzean zebilzen arraunlari.
Gaur, alper-alper dira ibilte-alegiñak
auleriaren auleriz bai-nago ezinkari.

Zoragarrizko umezaroko egazkadak,
ingurumenezko ikuspegi argietara
zuzendutako izpidurazko eskukadak.

Orain arratsalde itzaltsu ta beranduan,
nire odol ganera datorkit bat-batera,
ezbaitasunezko euri-jasa, itsu-itsuan.

## ITZAL BETIKORRA**

Urratsetatik nenbillen ni, baiña, argia
ez zan neurea eta, itzal artean nago,
ezagututzeko gogoz ta ainbat lenago
bizimenezko goitizar dizdiragarria.

Euzkidun sugar, goi-alde oztin pozgarria,
izamen sendozko ur-ganezko aparrezko
gaindura geraka, egitura zindoenezko
eskuartze ameskor, oldozgai arnasgarria.

Biotza begietan, ardurazko izadiratzez,
non-nai daurkikegun edertasun Iaungoikotiz,
egungo lor ta eginbearrak zeazki betez
egin bada bidea, egin, bearrezko neurriz.

Bizigura borobil ta elburugarria,
naimen azkarra, arpegi ta itzalik gabe,
argia argiz obitua datza, soinge...
Bakarrik, ai!, itzalak dargi nire zoria!

---

* *Esk.* XLV, 63. (1989-IX-9).
** *Esk.* XLV, 65-66 (*B*); *Esk.* XLV, 67-68 (*A*).

Eziñaren odeipe illun, samingarria,
gorrotoaren urtenbide sorgor, neketsua,
neguko egunik baltzena bezin illuntsua,
bide galduzko nasi-masi ezingarria.

Ez dago lekurik, ez dago barre alairik,
ez dago ez, zeruetarako bide egiñik;
ez dago norberazko ari mee bat besterik,
ez dago berezko argi-iturri gardenik.

Orri bakoitzena argi dago idatzia
ta[a], guk ere uler ta irakurri daikegu
bere izatearen gai[b], iraunbide guztia,
ta gure bizia ere dago antzeratsu.

Onar[c], bizi dagigun bada gure bizia
egun sortze ta gau etorrizko zoripean,
kolkoratuz unearen sen, izpi gelgarria,
bizia biziz adimenezko argipean.

Lurrak abes daginean abestu zeuk ere
Udabarri txintadapeko ezetasunean,
ta, bardintsu, neguko eguzki epelean
bai, ola, beti izango zara[d] zeure jabe.

Ez ba amor emon etsipen suntsigarriari,
ezezkortasunean amildu nai gaitunari;
ez amor emon ondamendirako bideari,
pentsamentu baltzezko[e] negute itunari.

Goitu abotsa, argizko aize, eguratsez,
ernaminduz biotza udabarritar lur busti,
ongarritu, lur sakon, lur[f] eder, aberatsez,
bizia izan dedin benetan alkargarri!

Bizia jantzi bedi bai gugan egokiro,
gogo-biotzezko gogaitasun neurri batean,
izadiaren ikuspegi, artu-emonean
duintasun aundiz maitekor ta gizonkiro[g]!

oldozkun beeratizko [f]Ongarritu — lur *A* lur ongarritu, lur sakon [g]*Bertso au ez da A'n agiri.*

## GOGAITASUN ALAIKORRA*

Begiratzen ba-dot igaran egunetara
batzuk dakustaz izudura baltz, negargarriz,
gogamenean sakon sartuta, odoletan,
eriotzazko illeta-ots negarti, galgarriz.

Askotan ikus izan dot arginabarretan
zelan, izkutuko mendi-oste itzaltsuenak
zelan dirdaitzen ziran goiz ozkorrietan,
zelan zuzpertzen ziran mendirik illuntsuenak.

Landak ere arpegi gozoz, besarkatuak
ta, ibaiak ikus izan dodaz dizdiratsu,
eguzkiaren indar goitarrez, urreztatuak.

Egunaren goizeratze samur, begikorra,
giza-biotza itxaropenez ederberatu
ta indartzen dauan goigaitasun alaikorra!

* *Esk*. XLV, 75. (1989).

## OLATU ANTZERA*

Ondartzatara doazen olatu antzera,
orduak doaz bai, bata-bestearen ondoren,
aizerik aize, geldiro udazkeneratzen
gaitun gure azkenaldiko atsedenera.

Jaiotzatik dator bizitzazko egarria,
etorki bideetatik maitez oñarritzera;
baña, naikeri ta guramenak orbelak dira,
orriz orri, darakusgula negu gorria.

Itzaltzera doa Udabarri biotzgarriz
ta urretxindor abesti gozoak or doaz,
aizeperatuz bere doñu amesgarria.

Bizia illunpetik illunpera doa bai,
egunberako bere goiz-arrats argitadaz
beti lez, negar-malkoz edo, erabat alai.

* *Esk*. XLV, 76. (1989).

1990

## EPEL ETA EURI-ZIRIMIRIZ*

Urte barria epel ta euri-zirimiriz,
itxaropenez datorkigu gozoro, samur,
lurra emekiro ta legun, apurka bustiz
ta, guk, ur-euri orri agur dagiogu, Agur!

Joana dogun urtearen GABONZAR EGUNA
izan da, BARANDIAREN JAUNAREN EUNGARREN
urtebetetze gogoangarri ta ain kuttuna,
Euskalerri osoak omendua, ain[a] pozarren...

Men dagiogu bai, eten bako jakintza lanez
erri ta euskera aldezko bizi luzean,
gizonki diardun jakintsu onen esker onez.

Argiak argi begi bai, gure biotzak jantziz
eguntze bakoitzaren bizitzazko pozean
anaitasunezko emoitz, ogasun-etorkiz.

## EREINTZA**

Erein egin bear da bai, erein uztatzeko
azi ona, biotz ona, itxaropena erein,
bizia obetu, gizarte bat eratzeko
eskuak batu lan egin bear da egin.

Itz utsak aizeak daroaz itsu-itsuan,
Udazkeneko orbel zimelak lez aidean
sakabanatuz kale gorri ta lur ganean
noragabeko jokabide zurrunbilloan.

Lurra Udabarrin eskeintzari dago loran
ta, Izadia bizira dator indar barriz
Udan ale-burutuko diranak egitan.

Beraz, lan egin bear da biotz-buruz egin,
itxaropenezko ekintza onuragarriz
eder-onez bizia buru-bidetu dedin.

---

* Karmel 1990-1, 107, (*B*); *Esk.* XLV, 54 (*A*). (1990-1-8).
[a] ain *(ez da agiri A'n).*
** Karmel 1990-2, 128; *Esk.* XLV, 77. (1990).

## TXAKOLIN*

Txakolin, txakolin... Oi, gure, gure txakolin:
Bizkaia'ko Bakion izan edo Getarian.
Txakolin zuri, txakolin gorriak on egin
gure bizi-poza biziro alaitu dadin!

Txakoliñaren edangarri, txakoliñaren
urregorrizko gardentasun argi, gozoa,
Gaztelugatxeko arkaitzpeko ta Xaguren
itxas-aizekirri kresaltsuz ondutakoa.

Txakoliñ usaiñera aunitz urbiltzen dira
gazte ta zaar, bertsoetarako zaletasunez
txakoliña dakusgula, eskurik eskura.

Zurrut ta zurrut ezpanak berbalari dabiltz
iñoizko bizkortasun baikor ta oldartsuenez,
txori txirriporru antzo, zoro, itz eta pitz!

---

* Karmel 1990-2, 127; *Esk*. XLV, 80. (1990).

## 1990 URTE ZORIONTSUA*

Urte bat ba-doa bai, ba-doa
ta, beste bat dago sortukeran
biziratu gurarik bere soa.
Bear bada zorioneko urte
oneskor bat etorriko iaku...
Ori, egia izango ete?
Baña, ai!, guk zer egin geinke
itxaron besterik, uste onez
zer izangoren bildurrik gabe
—gaitz okerrak edo atsegiñak—
danetik gerta ez ete leike?
Baña, ai!, guk, guk zer egin geinke?

Igaro izandako urtea
ta, igaroa igaro danez,
ezebezaren zuloan dago
aldenduta beti-betirako;
ta orain beste ekitaldi barri
baten asiera bat datorkigu
bide ezaugetik ibilteko.

Beraz, Iainkoa lagun bekigu,
Aren Esku ta laguntzari
esker, bizia garaitzeko
danok bat, eutsi al-izateko
ain biotzeko dogun Euzkadi'ri!

## EURIAREN GRAZIA**

Urik ezaz Lurra dago arrakalatua,
legortearen legortez, tamalduraz betea,
gogoa zotinka, osoro etsipendua...
ez lora bat, ez bedar izpi baten ezea.

Bat batean goi oztiña odeiez da jantzi
ta poz aundiz euri tantak datoz goitik.
Beraz izan danok itxaropen ta pazientzi,
biotzak lasaituz goramin, ta besoak zabalik.

* Zer (1990, 138.zenb) 5.
** *Esk.* XXIV[a], 11. (1990).

Emen da emen, azkenik, euri eder, gozo...
lorearen ta landare ororen asegarri;
ementxe da bai, atseginkor ta legunkiro.

Lurruna dario lurrari ta, poz bizia
sortu da danetan abots batez, zoragarri
goralduz esker onez, euriaren grazia!

## ZUGAITZ EGUNEAN*

Zugaitz-Egunean zelai, baso, mendietara
eskola-neska-mutil gaztetxo aunitz asko
joan izan dira poz-pozik, guztiz ederto,
bakoitzak zugaitzondo jakin bat landatzera.

Sartutako aritz, intxaur, lizar, gaztain, pago...
biar-etzi aundi izango diranak eder,
itzalpe atsegin bat eskeñiz txorientzako
orriak aizeaz txutxumutxu... Zenbat bider!

Begiko jakuzan erritar zugaitz oparo
orreik, sustraitu bediz sakon gure lurretan,
nai genduken emoitz-aldi luze baterako.

Zaindu daiguzan ba zugatzok, gogoz, benetan,
txoriak be egoak zabal, askatasunean
txirulirutu daitezan txintots alaietan.

* *Esk.* XXIV[a], 16. (1990).

## BIOK BAT*

Ementxe zugaz, gogoan ta oldozkunean
maitezko geltasun ta betikoar lurruna;
zaratots bakotxean kuxu-muxu biguna;
bildur ta arrenkura bagako alkarpean.

Poztasunezko betetasun bete-betean,
goretsi ta, amets dagit oiturazko menez,
bizi-alkartasun sendozko egoitzapean
biok bat, gogozko lokarri eroangarrienez.

Ementxe nigaz, betirakoi; argi ta samur,
neke ta eragozpenak eutsi ta baztertuz,
biok bat, itxaropenezko emoi ta itur.

Egun bakoitzeko sorgai illun edo argiz,
datorrena dan lez onartu ta begipetuz
ni zugan, zu nigan, gaurgeroko gogo biziz.

## GAUZA ARRUNTENEKAZ**

Amets egitearen ederra! Nik amets dagit
gauza arruntenakaz ta, irudimen aundiz,
begirapenez ateak osoro irikia
gogo egalaria, ikus-miratsu doakit.

Amets egitea, izadiaren jaun ta jabe
izatea da, sakelean edukitzea;
mundua itxaroz arnaspetu ta, goi ta be,
da zillarra urregorritu al izatea.

Amestuz bidea errezago egokitzen
ibilte oro ariñago egiten zaigu
apaltasunez burua ba-dogu azaltzen.

Egunero dagit amets, goiz ta arratsero,
maitasuna izanik bizitzeko elburu
aurrera jarraitzeko lanbidez, lerroz-lerro.

* *Esk.* XXIV', 17. (1990).
** *Esk.* XXIV', 18. (1990).

## BETIKO BAKARRA*

Gaba ta Eguna bein batez. Bitartean zer?
Atzoko egi asko gaur guzur utsak dira.
Gaurkoak be, bardin, laster doaz sastegira.
Zenbat oldozkun illun ta burubide oker!

Atzo goraldutakoa gaur oinpean dabil
udazkeneko orbel antzo aizepetua,
zurrunbillezko nasturan —ez ardatz, ez gurpil—,
egunen norabideetan ankazgoratua.

Ta, olaxe gizaldiz-gizaldi, mendez-mende,
aldatuz, erabarrituz dabil mundua,
ustekizun ta gogai, amets barrien mende...

Baña aldi oroz dirau, gazte ta laztantsu,
bai baserrietan ta bai urietan ere gurtua,
maitasunak dargi eder, lerden eta gartsu.

* *Esk.* XXIV[a], 20. (c. 1990).

## ESKU-MAKIL*

Esku-makil bidelari onek ondo daki
nire egun sortze ta illuntze ororen barri.
Beragaz dagurt bizi-zear azke ta argi,
egungo euzki ta izar-arteko illargi...

Makil-buru ganean jartzen dot neure eskua,
biziberako ibillietan, guziz neuretua:
batzuetan aintzamenez ta bestetan nekaldua,
bizitzako negar-malkoz ondo gatzitua.

Makil onen laguntzaz nabil erabat alai,
ta Udazken orbeltsuari arpegi emonez,
begi eskelak doakidaz gogortsu, nora-nai.

Bizigune mengelak baiña, Jaunari esker,
oraindik nenbilke bizi-izatearen poztasunez
goibean begipetuz ainbat gauza eder.

* *Esk*. XXIV', 20. (c. 1990).

## GAUTASUN BALTZEAN*

Oartzen naiz zelan gorputza doan zauritzen
aragi guztia zimurtzen, gogoa dala
oñaze ta samindura ororen magala,
azkatasun egoak dauzalarik indargatzen.

Ta, gure bizitzako gauzetan oldoztean,
itxaropena ankazgora, bidea illun,
aldapatsu ta, neketsuago dakusgunean
biotza, oztaz, kolonka dabil ta guztiz itun.

Mundu oni begira naizenean gelditzen
ikusi barik izten dot erretzen biotza, su,
mingostasun ildotik doa bertanberatzen.

Ez agur laztan bat, ez irripar bat, maitekor,
argi izpi bat ezpadago... zer dagikezu
zer? laguntzera aingeruren bat ezpadator?

## ALAITASUNA ALDARRIKATUZ**

Emoia geitu nai dautsat alaitasunari
ta, lotuarazi samindurazko uberkea
egun bakoitzeko oñazepean tristurati
gogoa nabaitzean tamalduraz betea.

Zapaldu gura dot goibeldura itun ori
biotza jasotzeko goi-gora atsegin gozoz
agoratuz irriparra begietan kantari
eder-onezko bideetan sointzeko itxaroz.

Ikusi gura dot argiaren egun sorrera
nire mundua betetzeko dirdiramenez
egitasmo sendozko egoen arabera.

Itxaropen bizitzagarriz oñarrituta
egunik egun ta benetako gaitasunez
bizia lora dedin illuna baztertuta.

* *Esk.* XLV, 78. (1990).
** *Esk.* XLV, 79. (1990).

## BATASUN EDERREAN*

Zuri, gorri, orlegizko margodurapean
gure Aberriaren lur-soindura ederrezko,
euzkotartasun argikoi ta, euzkaldunezko
bizi-gogo betikoar, sustraidun arnaspean.

Biziak ots dagi udabarritar aurpegiz,
maldan gorako errigintzaren aurrerazko
pausoz-pausozko biotz-buruz eratutako
erri-soinketa zindo baten goiznabar argiz.

Gizon-emakumezko gorabide pozgarriz
bat eginda ta oztopo oro menperatuz
euzko odolaren taupada eragingarriz.

Gorazko bide neketsu au, danon artean
eroangarri izan bekigu biotzak bateratuz
Euzkadi osatzeko batasun ederrean.

## BESTE BAT**

Aizeak biotzeko orri bat daroa... ta, zer?
«Biar izango da» diñot, beste bat amestuz.
Orixe bera gertatzen da ainbeste bider
ta, aurrera darrait ene ametsak lauskituz.

Oi, bai! beste egun batez, beren bizi senez
sortuko dira bai ordezko orri barriak,
aizebera datozen orri zoragarriak,
amesbiderik lurrintsu ta ikusgarrienez.

Ezin gara bidean etzan, ezin gara gel,
ezin gara amil tristurazko etsipenez
Udazken ildurapean kutsatuta, zimel.

Alaitu daigun gogoa ta, barrien barri,
egoak aizeratu, edamen zabalenez
len bezin gogotsu jarraitutzeko kantari...

* *Esk.* XLV, 81. (1990).
** *Esk.* XLV, 82. (1990).

## NEURE SOÑARI*

Bizi naizen soin au zergaitik ez maitatuko?
Apaltasunez, zergaitik ez zaitut gurtuko?
Zugan izan bai-nintzan ume ta mutil gazte,
ta zure eriotz ondartzan sartu naizen arte...

Zure biotza nire garratzaldi minkorretan
nigaitik etengabe taupatu izan bada,
bideberako larrialdi estutasunetan
beti nire lagun zintzoa izan ba-zara?

Gaur azkenik zakust makal ta makurtua,
etsipenak lur jota ta itundura illunez
indarrik ezaren sareetan erdi galdua.

Zergaitik ez zaitut maitatuko zu izanik
nire gogoaren benetako eusgarri babes?
Zu ondatuz gero, ai! zer, zer egingo dot nik!

## SUGAR SUTSUA**

Ta, zerutar izarteriaren dizdirapean
bateratzen dira pil-pil maitaleen biotzak;
txutxumutxuzko itz gozoen eskeintzapenean
loratuz gogozko ustekizun ta ametsak.

Sortu dan logalezko itzal ixiltsua
begiz-begi, eskuz-esku batu dira eder,
biztuaraziz maitasunaren sugar sutsua
joranezko itzartze loratsu bati esker.

Olerkaria, zure eres-mintzozko goituraz
izarren logaletasunezko itzalpean
eguntzera dator eguna goiztar loturaz.

Zure lorratzetan usain berezi bat dago
ta, eres barri bat dator izamen betean
udabarritar senez iñoiz baño jantziago.

---

* *Esk.* XLV, 83. (1990).
** *Esk.* XLV, 84. (1990).

## LILLURAKIZUN*

Itxaso belarri ondora datorkizu
itxas-andere ta kurkulluetan agurkari.
Ta, zuk, ume barriketatxu atsegiñean
poz-pozik, ixil-mixilki berba dagitsazu
ta, olatuberazko mintzaldi bigunean
aizeaz batera kresalkean txutxumutxu,
abesti xamur ta ederrak ikas dituzu
ain lilluratsu diranak ta ain zoragarri.

Kresalaz nasturiko zure gogamenean
ta, olatu bakoitzean egaz, zaldikari,
bitsetan noa neure jorantasunean
ta, zuk kresala malko tantaz gatzitu dozu...
itxasoetan doaz galduta urrun-urrunera
Begiak ñir-ñirka maitezko ikuspenean
zure amets naikari ori biotzez doakizu,
bertaratuko ziran ustekizun betean.
Zoramentsu abes dagiozu itxasoari
zeure lepo-bizkar ta gerria erakutsiz
izan dagin zure txirbazur garbiaren barri
ta, zure adatsarena, urredun agiriz...

Eten zoramen ori, ta, ebagi lokarriak
itxasoak ostu ba-dauz be, zure begiak.

* *ESK*. XLV, 85. (1990).

## ESKARIA*

Oldozkun txar, gaiztoetati azkatu nagizu
Garizumako aldi, asteguren onetan
ta gogo makalduaren biotz-zainburuetan
arnas bizikorrez onbideetara zuzendu.

Gogarte argi zentzudun azterketa bidez
barruko mundu zear alai ta itxarokor,
betiratu nadin bizidun ura edanez
onbidez jarraitzeko tinkoki, onurakor.

Azka nagizu amets txepel izuetatik
eusteko neure maite-burruka eder oni
jausi ez nadin obenaren amildegitik.

Ta, doai orren bitartez, anaitasun gogoz
nire izamen almena erriratu bedi,
alkartasun zintzozko egikuntza ta asmoz.

## ARKAITZEKO ADITZA**

Ipar aizeak gogor erasotzen dau arkaitza
ta, itxasoa arkaitz bizian apur-apur
zatitzen da olatuz olatu, brintza-brintza,
bits-apar zuri-zuriz dakust otzan, makur.

Giza-bularrak be, arkaitz bear luke izan,
kementasun jasankorrez sendo eutsi dedin
ta, alde txarrekoak oinpetu ta desegin,
indar deuseztatzalleak baretu daitezan.

Iraintzen dauana bera lokaztutzen da baldar
ta, zentzudun gizartean ez dauka zer egin,
geratuko litzakelako lur-iota, txatxar.

Ontasuna dozu biderik artez, onena,
anaitasunezko elburubide atsegin
ta edertasunezko larrosa usaitsuena.

---

* *Esk*. XLV, 86. (1990).
** *Esk*. XLV, 87. (1990).

## IZADIAREN ERAKUTSIAK GOGARTUZ*

Izadiaren arnas zindo, bizikor ta beroz,
Udabarria sor-min, beren orri ezeakaz,
beren usain gozodun ustekizun, itxaroz,
soñekotu zana lorarik ederrenakaz.

Lurra zain-barrituz, berezko txalopin-txaloz,
deika jagi da alai, maitezko txirulakaz,
bizitzazko ernaltze ta aurrerazko gogoz
ederrik soñekotuta lora apañakaz.

Euzki ta euri mamiz aseturiko lurra
laster dakuskegu emoi-ale jangarriz
erabat uxako dauana gosearen bildurra.

Udabarri, Uda, ta... or dator Udazkena
orri orizkatuen berakada mingarriz
adieraziz orixe dala gure azkena.

## NI NAZ UDABARRIA**

Eskuak luzatuz nigana esan eustazun:
Tori nire biotza, ni naz Udabarria,
ta nire loreak dira margo eder gorridun
larrosak lez usain gozoz, eskuragarria.

Gorakundez kantari natorkizu bai, alai,
urduritasun sugartsu, zuganako gogoz,
begiak itxaroz argi ta irripar gozoz
maitetasunezko itur gardenetan, ernai.

Udabarria naz ta lora orreik, ederrik,
betikotuak izan bediz gure biotzetan
gure bizi-poz gogoangarriena sustraiturik.

Amets-margo barriakaz biziarazten gaitu:
Udabarri naz diñost, nire loreak laztan
artu egituz bai ta, lenago lez maitatu.

---

* *Esk.* XLV, 88. (1990).
** *Esk.* XLV, 89. (1990).

## IRRIPAR AIDEKORREZ*

Aldi ta egun txarrik ez ordu ezingarririk
ez dago ez gauza on bat gogoz burubidetzeko
lagun urkoari eskua luza, eskeintzeko,
irripar aidekorrez biotza agoraturik.

Eder da dagigun dana ondo egitea,
berbak egoki ta zentzukiro erabilliz,
oguzkera argi ta gogo erakargarriz
barruko lurrin ona sentiaraztea.

Gure ibillia izan bedi egitazko
jardupen egintzalle ta onuragarria,
arginabar oro begi onez ikusteko.

Gogo onez lan egin. Ogia irabazi
Ori da bai, bizi-doai osasungarria
nai ba-dogu buru-jabe izan. Agurgarri.

## OLERKARIAREN BIOTZA**

Gizarteko begirari
ta, gogaitasun ibiltari...
olerkariak negar dagi
maitetasunez biotza
gañezkatzen danean.
Atsegiña ta oñazea,
nork ete dau nabaritzen
itxaropena ta burrukea,
nork dau begiperatzen
Izadiaren zerutar goibea,
begi-biotzak bertaraturik
olako gogo sentikorra,
laztan ta maitekorra;
bein be ezta azke aurkitzen,
munduak daualako soiñekotzen,
daualako bitartekotzen
agertuz eskerra ta eskumea,
oi-danezko euzki, aize, euriakaz.
Bide laguntzalle lez gelditzen
iako giza-bioztasuna
bere zeintasun guztiekaz
egunik-egun dana gogo-barruratzen
azalkeriak bazterturik,
bizitzan gora, nornikari!

* *Esk.* XLV, 90. (1990).
** *Esk.* XLV, 91. (1990).

## BIZIA BERA DA*

Eguzki ta euriz asetuta dakust lurra
udabarritar itzartzearen edertzapean
ta, mendi gallur zorrotz gorenetan edurra,
dago bizitza sor barri baten poz-betean.

Zenbat oñaze ta negar-malko, ibilizko
eguntze bakoitzeko neke-min, arantzapez!
Zenbat gurutz-bide aztun ta izugarrizko
jazokun lazgarri munduaren igaranez.

Bizia bera da bakoitzaren alabearrez,
bidean jartzen gaituna, gurekiko gogo,
gurekiko zentzu ta lanbide betebearrez.

Beti ernai ta, biotzez urkoari begiratuz
ez ibil okerka ta makur, ez ibil arro
ameskerietara zeure oñatzak luzatuz.

## TXIRULA**

Txirula soñu-otsez itzartu da eguna,
aizean barruratuta, euzkipean alai,
dantzatzera deituz lekuko biotz gazteai,
oñak arinduz entzunik alako txuntxuna.

Txirula alaigarri ta erakargarria,
euzkal izakeraren sugar biziaren gogo-
zuzpertzalle, arinkor ta atsegingarria
biotzak alkartzen dabezan gure benetako

nortasunaren eresgaillu bereizgarriena,
aurrezku ta beste aunitz jantza agurgarriz
gizaldiak zear Euzkalerrietan gurena.

Bizitasun eredu, txirula pozgarria,
bereganatzen gaituana oñak egaraziz
begietaratzeko gaztediaren egarria.

---

* *Esk.* XLV, 92. (1990).
** *Esk.* XLV, 93. (1990).

## BIOK BAT*

Nigana etor ziñan ta zuganatu nintzen
ta, zugan bizi izanik atxilo naukazu.
beti maite zaitut esan, beti egiztatzen;
bizitzan zu zara neure biotz, neure esku.

Urteen joanean biok darraigu beti lez,
beti noa zuganantz ta beti ditxarotzut,
buztarripe zintzoan biok bat gara biotzez
bizi-laguntza orren esker ona dagertzut.

Zugan asi ta bukatzen da nire mundua,
oker aldi naiz bizi-poz atsegingarrietan
biok darraigu aurrerazko bide naitua.

Biotza minberatzen ba-iat zuk dozu sendatzen,
egunoroko onbidezko alegiñetan
zu ta ni, biok gara zintzoro bateratzen.

## IRAUPENA**

Atzo izan zan lez dan-dana bardin dalako
ordutik ezerbere aldatu ez dalako
burua dakusgunarren ule zuriz urdin,
biziberako ainbat urteren eragiñez...

gaur, geien ardura iakuna da goitasunez
aurrera jarraitzea;
gure aintziñatiko lorategi zarreko
akara arbazta lantzea,
ba, zarra izanagaitik egunetaraño
udabarria iaku loratzen
ta, ederrik damosku bai, beren
beren aintziñako lurrin, usain
gozoaren barrizte emea,
gure atsegin-pozerako!

Ta, nire buru-errotea
bere oldozkunak eiotzen
metatzen diardun unean

* *Esk.* XLV, 94. (1990).
** *Esk.* XLV, 95. (1990).

dautzat begiratzen
zure sugarretan
dagon billutsari,
nire gurari biziak
jarritako jai-jantzi apain,
edergaiki zoragarriak.

Atzokoaren sutea
gaur betikoi, egi, bizia.

## ATZO*

Atzo. Atzo bakarrik ta, igaran dira
ainbat udabarri ezti ta gaitzez beteak
joranezko eper bat egaz dabil biraka
garitza ganez ta, egin ebazan bereak.

Atzo? Orra bada nire egunerokoan
betikoak dirausku bere gaurkotasuna,
argia gañezkatuz bizitzako kaikuan
galburu ta ildoaren arteko batasuna.

Arratsalde ezea ipar-aize emean,
itxasoa txipli-txapla barez, ameskari
laztantsu dakusgu euzkia urperatzean.

Atzo beren jai-aldi ta agur lasterrean
maitasuna bide-burutu zan ederkari
illargi zurbilla abiatu izan zanean.

* *Esk*. XLV, 96. (1990).

## ITZULTZE*

Gaurtik zure senera ditzult neure ontzia,
zure arira apalki zekiana ibilten
zure magal, gogo barruz, itxaroz betia...
Egun-amai-eziñak, goiz-arratsak lauskitzen!

Ertzak amestu nitun oialak aizeratuz,
bide barriak edei (au dala, ori dala...)
portura eltzean gero... Zein ezbardin dana!
aurkitu nintzan lurrean ametsak lorrinduz.

Orain galdutako iturrira itzultzean
itxaskiak zenbat-eta gogorragoak izan
aintzingo izukarizko gal-zori baltzean.

Apalkiro makurtu dot buru nekatua
ta, ipar-orratz, arraun barik aurkitu nintzan,
begiak itxita eroango nabe galdua.

## UDAZKENEKO AIZEA **

Ikus izan dogu, au alaitasun! Aizea
aintzaltzen beren azken-orri urreztatuak.
Sutan, sugarretan, erretzen mendi-aldea
illunabarraren odei odoleztatuak.

Oldozkun, abil ero, goiberaka, egoz-ego,
gaur Udazkenak azke itzi dauz bere taldeak.
Ez al dozuz nabaitzen urrun, aren oñotzak?
Alorra beilegituz doa, gorritzen arro...

Orregaitik, oraindik, baikor sentitzen gara.
Musika, aizea ta orriak. Au alaitasun!
Orbel-mintzoz barrentzen iaku eriotz-ikara.

Zauritik jariotzen dan odolaren gorria.
Auxe bai barruko bizi-pozezko goitasun!
Bizi-izatearen alaitasun gurgarria!

---

* *Esk.* XLV, 97. (1990).
** *Esk.* XLV, 98. (1990).

## BATERAZKO BEGIPEZ*

Bego zure eskua neureaz bategiña.
Gozo, samur, ezti, biotzezko gogai-ikutuz
gure maitasunaren betikotar lurriña,
igaro izandako sugar-izpiak amestuz.

Biztu bediz gure begiak ordukoxe lez,
zeru-urdin argidoi baten etorbideetan
soñanzki ederrezko goitasun maitekorrez,
biziberako egunen joan-etorrietan.

Igaro zan bai gure soñen Udabarria,
orduko gure gaztetasunaren sugarrez,
beren lilluramenezko goraldi baikorrez
igaro zan bai, orduko aldi pozgarria.

Orain barrenduta gagoz bai, Udazkenean,
orbelterizko zugatz billutzen zinkuriñez
ori-beilegizko berakada itunean
egun batetik besterako ikuste baltzez.

Bide luzea guk biok ibillitakoa,
batzuetan atsegin-posez, bestetan negarrez
baña, baterazko begipez dabilgu gogoa
alkarren laguntzapenezko gogo ta biotzez.

* *Esk.* XLV, 99. (1990).

## BIAR*

Biar orren aurrean zaurik dira samurtzen.
Ta bide onek ez dost ainbeste min emoten,
jausitze ta ametsak ba-dodaz igartzen
argiren bat itxaroten, leioren bat edo.

Ezer ez dedilla uts izan ta, biar ori
izan dedin bide dan-danak begiratutzea,
sortzen dan ibai bat lez ta dodana ikusten
egoak lez itxasorantza leioa argi.

Batera dabiltz nire samin ta itxaropen
txanpon baten aurpegia ta gurutzea lez,
beti bide bat ibilizko nire gozamen.

Zauri ta amets ta, gogaketa berberakaz
ta, azken egunetarañoko eroapenez
elbururatu nadin etsipen bako pozaz.

## IZAN EDO EZ IZAN**

Baserritarra da nire bizi-sen, susterra,
baña, ez uste dan bezin makal, ezebeza,
ezetasun bagako zugatz-adar igerra
ain agirikoa dalarik nire lañeza.

Bakoitzak dau bere gogai, berezitasuna,
ta nik bere olaxe dot neure izatea
ortarako edo artarako gaitasuna
euri bizikor edo eguzkitan errea.

Ni neu izaten jarraituko dot txepel-mepel,
asitako bertsoa argi ta garbi osatzen
egungune batzuk daurkidazanarren goibel.

Dantzugun orain Shakespearen ustekizuna:
IZAN EDO EZ IZAN, ori da bakoitzaren
etsipen-aldi edota adoretasuna.

---

* *Esk.* XLV, 100. (1990).
** *Esk.* XLV, 101. (1990).

## USTEL TA NAGI*

Oldoz-oldoz, bidebera, bakartadean nabil,
gogo barruz oldozkor ta, ikusi-makusi
neurekiko mundu amesetapean, bipil,
gizaldi onen zoramenetatik igesi.

Negar dagi inguru orok ta, lotsagabe,
kale bazterrak zabartuta, loikeriz dagoz
lizunkerizko abots etsipenkor ta zoroz
gainberatua dabil illunpean, io ta ke.

Mundu ergel ganorabako au ikusiz
zarata-otsez eresituta ta, ain itxusi,
lan ta, lanerako gogorik ezaz ibilliz.

Drogazaletuen egikera negargarriz
or dakusguz bizitzarako ustel ta nagi,
asetu eziñeko atsegintar egarriz.

## UDABARRIAREN AURREAN[a]**

Udabarriak dei dagigu atsegin-pozez,
soñanzki alai, orlegiz, eder ta kantari,
txori txintots ta larrosazko bizitasunez[b]
laztan-kutunka zer barri itaunka alkarri[c].

Barrien barri dator bai bizia goiz-gora
eskeintz oparotsu ta gogai argigarriz
itxaropena dakarkigu biotz-kolkora,
begiak bizituz ameskizun kilikariz.

Biotzkadazko goraldi maitagarri ontan
orri barriak dantzari dabiltz aizeagaz
izketa sorgintsuz gogo biziz, barriketan.

Giza naikeri ta ongurazko guramenak
beti lez, nastuko dira aize baltzakaz
ondaturik[d] pozaldi onen sustrai gurenak[e].

---

* *Esk.* XLV, 102. (1990).
** *Esk.* XLV, 103. (1990) (*B*); *Esk.* XLVII, 118 (*A*).
[a] aurrean *A* etorreraz [b] bizitasunez *A* agergai emez [c] zer — alkarri *A* sor barri dan etorkiari [d] ondaturik *A* ondatuz [e] gurenak *A* etormenak

## BIOTZA BAKEAN*

Biotza bakean. Gogoa doakit ameslari,
itxaropenezko, orlegitzazko begipez;
mendiz mendi, ibarrik ibar, Oi, Euskalerri!
biziak ots dagi gañezka edertasunez.

Udabarri diztikorrak, Udazkenak bardin,
ezetasunez jantzita ikusgarri dago.
Biotzean gordeta daroat beti neurekin
egunik egun biotzerago eta maiteago.

Zelan ba izanik gurasoen sorterria...
zelan aztu ene maitetasun kabi bero,
neure seme-alaben lur-bazter gurgarria?

Orrez ganera jaio izan nintzan Gautegiz
erri euzkaldun ori zelan ba aztu gero
aurtzaro ta gaztarako ainbat ikuspegiz?

* *Esk.* XLV, 104. (1990).

## ORRIA ETA AIZEA*

Ain urrian eta ain urrun,
gu zelan bizi izan gara
alkarrentzako ain ezezagun?
Zu erria ziñan ta ni aizea.

Zu lez
aize bolandera,
zu lez
aize ikuskera,
zu lez
aize-aizea.

Egun batez
joranez
zure abotsak itzartu nindun
maitasunez:

«Zugaz joan nai dot» esan zendun
baña, nik, entzungor egin neutzun!
Egon zaitez ortxe ederrik,
txori abestiekaz iztun,
bizi-eresiz aizeberaturik.

Ez nuen nai izan zu bultzatzerik
ta, egaztada batean
neugaz eroan
gero,
bertanbera bazterrean
uzteko lokazturik
orbel antzo,
lurrean.

## J A I**

Zuri, urdin, gorrian,... su dagi landaretza
orlegietan ezekiro jantzi dan laukiak.
Udabarriz egun argitu zan enparantza,
aizeratuz zoli, txistu-ots, soñu alaiak.

Barkillu, izozki ta gozoki saltzallea
ta, umeen begiratu zorrotz, urduriak,
lillurazko kanpai-ots ta suziri zalea
ta, egun-pasako karrousel jolasgarriak.

Egia lez argazkian dakusguna gero,
zaldi zuri indartsu eder baten ganean
mendipeko zelaian bizkor ta jaunkiro.

Ta, iturrian, berein margodun arraiñakaz,
paperezko iru ontzik jaiaren aizean
jaso dabez oialak olatu-goiberakaz.

---

* *Esk.* XLV, 142. (1990).
** *Esk.* XLV, 143. (1990).

# IPUIN ABESTIKOR ARIÑAK

# (1990)*

* *Esk.* XLV, 105-117. (1990).

## BOST ABOSKI*

*(A.E.I.O.U.)*

(A) Ama maitagarri, laztana,
maitasunezko sugar, zama,
biziaren oñarri zaran...
subil, enbor, egur-zarama.

(E) Beti lirain ta beti eme,
apain jantzita, kalez-kale...
(neska, andra... Oi, emakume!
bizitzaren sustrai ta abe!).

(I) Maitetasun argi-iturri,
ur atsegin ta edangarri,
edari garden, asegarri,
biotz ororen argigarri.

(O) Gure eguneroko opil,
ogi zuri eder, borobil,
ta, aurrerapenezko gurpil,
igiarazten gaituna bipil.

(U) Izudurazko negar-oiu,
negutar aize zirimoltsu...
azken-ametsik ez birrindu,
orriak lez ai, ez lurreratu!

* *Esk*. XLV, 106.

## EGIA*

Nire eskuak
amar atz dituzte.
Nire oñak
beste ainbeste:
amar beatz.
Barru aldetik begiratu
edo, bestetik begiratu
amar zenbatuko dituzu.
Bi begi ditut aurpegian,
ago bat,
sudur bat,
eta, entzuteko balio duten
bi belarri.

## TXAKURTXOA**

Buztan luze-luzea
dadukan txakurtxoak
dagiz alegintxoak,
agertuz asarrea...

Bira-biraka dabil
koska nairik itzala,
egiñik egiñala
biraka, ain txoratil!

Mingaña aterata
ta, izerdi patzetan
or dabil bai, lur-jota,
arrapatutzekotan.

Ai, mamuren batena
isats ori ez ote?
Ori isats igeste
ta txakurraren pena!

Biraka guztiz arin
alegiñak alegin,
ibiliarren, ai, ezin,
ezin ba, ezer egin!

Buztan orrek zer dauko
ain azkar ibilteko?
Ai, txakurño gixajo!
Zeri begira ago?

Zure atze aldeko
buztana dek bai ori
ta, ez dek arrapako
ibiliarren urduri!

* *Esk.* XLV, 107.
** *Esk.* XLV, 108.

## KIRIKIÑOA*

Kirikiñoa, trikua,
igali zalea degu
ta arantza zorrotzeko
soñanzki baten bitartez
babesten du bai bizia,
bere larrupe barruan
gordetzen dauala burua.

Igali zalea danez,
dakeskezu sagastietan
baitere gaztañadietan.

Somatutzen badu, bere
etsai, arerioren bat,
pelota lez borobildu,
ixilik da geldituko,
etsaia guztiz urrundu,
bistatik aldendu arte...

Txakur aundi edo txiki,
zein abere ausartuko
koska egiten trikuari?
Kirikiñoaren bizkarrak
orraztoki bat dirudi
ota gogorrezko larrak.

Aunitz arantzaz bildua
orra or gure trikua!:
Trikuaren begiak txiki
nakar eta ebanozko
botoitxuak dirudite
ain eder dizdiragarri!

## ANTXUMEA**

Antxumea bazkatzen,
jauzika dabil, arin,
belardian jolasten
goizeko euzkiarekin.

Nora oa arakin
aizto zorrotz orrekin?
Ai!, au aizearen otza!
Arakin, nun dek biotza?

Ai, antxume, antxume!:
Alde emendik azkar,
arkaitz-gora, urrune,
igaroz zelei ta lar!

Oa, korri ta korri
ta, egon bada, ixil,
arakiña etorri
ez dedin koldar, ozkil.

Zuzentasunez beti
bizitzaren pozgarri,
gizonak joka bedi
lagundurik alkarri.

---

* *Esk*. XLV, 109.
** *Esk*. XLV, 110.

## LEPOLUZEA*

Lepoluze baten jarrai
ibilliz,
oartu naiz
bera,
aundia dala
eta, ni,
oso txikia.
Ai!, al ba-nuke
arek bezala,
lepoa goian jarri,
izarrak
alai
begiratuko nituzke
ainbat
izarpil eder
ikusiz.

## DORDOKA**

Aberen erri baten
dordoka bat
aukeratu zuten
erregiñatzat.

Ain zan lillurakor
ain zan gozo,
ain eder ta polita,
ain samur ta eztikor,
ez dadukana
ere izur bat.

## UNTXI BATEK ***

Lur azpian
jo ta ke,
lurra
kendu ta kendu
aspergabe
lurra
aztarrikatu
ta kanporatuz...
Untxi batek
zuloa egin zuanean
untxime bat
aurkitu zuan.
Geroztik
biak
zoriontsu
bizi izan ziran
untxia zaartu eta,
untximea
urtetsu izan arte.

---

* *Esk.*XLV, 111.
** *Esk.* XLV, 112.
*** *Esk.* XLV, 113.

## TXINGURRIAK*

Emen ta an,
urduri
gauzatxoak billatuz,
janariak etxeratuz,
errenkadan doaz
banan-banan
azkarki
beren papurrakaz,
beti, arduratsu,
(zerbaiten zerbaitaz)
benetan gogotsu.

Negu beltz, gogorra
elduko danean
oso lasai,
etxean
dana gertu dutelako
jan eta lo
atseden artu
lezateke,
zabal-zabal
neguaren bildur gabe.

## PAPARGORRIA**

Papargorria,
txori txintari
maitagarria.

Aintzin baten
baserrietan
uste zuten,
norberaren
eskubi aldera ba-dator
berri ona emen dakar,
jauzi-jauzika, alaikor;
baña, alderantziz,
txintada-ots tristuratiz
ixilkiro eta baldar
dijoanean eskerrera
bai, adieraztera dator
penagarrizko zoritxar.

Oi, txindortxo maitagarri,
txoriño onesgarri,
txoriño maitagarri,
gure Euskalerrietan
ain bedeinkatua
eta, maitatua!

* *Esk*. XLV, 114.
** *Esk*. XLV, 115.

## USOA*

Uso zuriak ba-daki bidea,
gizon aundizki, gizon altsuak,
bake ikurtzat gizon ospetsuak
dabiltena eskatuz bakea.

Oi uso zuri azkar gurena,
bakearen ikur, eder maitea,
mezulari zintzo, egokiena...
Zein da zure gaurko albistea?

Billatu nai du norabidea
baña, gizonak ez dio uzten
goibidetzen bere egadea
ta bere azkatasuna lortzen.

Ordun, gelarazitako usoa,
egazti apal eta zintzoa,
itunik, tristuraz gelditu da
noiz abiatuko goietan gora.

Etxalar'ko goi-alde askotan
sareak jarri dituzte, maltzur,
ta, eiztariak dagoz bazterretan
usoak noiz etorriko, guztiz zur!

## MAITEMINDUAK**

Eguzkiaren isladurapean,
lorabumtxo baten ganean
jarri zan maiteminduta zegon
urretxindorra.

Bere maitasuna opa zion
urregorrizko biotza dadukan
txoriño eder bati[a].

A zan goizaren alaikorra[b]!
Zenbat maitezko txipirripi!
Baña, larrosa gorri ederrak[c],
maitatua izatea nai zuanak,
erreminduta, tristerik[d] dago
txoriñoaren ingurumari
dabillen urretxindorrarekin,
benetan[e] triste eta urduri.

Ori esanez, gero,
eztago
zer esanik geiago,
ba, ipuiña amaiturik dago.

---

* *Esk*. XLV, 116.
** *Esk*. XLV, 117 (*B*); *Esk*. XLV, 44 (*A*).
[a] Urregorrizko —/— bati *A* Txoriño bati/zoragarrizko/biotza dadukana [b] Alaikorra *A* zorakorra [c] Gorri ederrak *A* ederrak/bera [d] Tristerik *A* itunik [e] Benetan *A* tamalduraz

## GURUTZEKO JON DEUNA*

Gurutzeko Jon Deuna. Neurtitz maite-minduetan
agirikoa da aren gogo-goitasuna;
agirikoa aren biotz samurtasuna,
zerutasunezko mintzakera eztitsuetan.

Aren gogai goramindu sugartsuetan dedat
eztitasun gozoz dargigun maitetasuna:
Izadi -bidezko Iaungoikoratze argi bat
ta, orren ondoriozko atsegin, poztasuna.

Dakusan ikuspegi oro ditu kantagai:
«Gau baretsu» «mendi gallurrak», «eres ixillak»,
«bakartade zaratatsu», «aran itzaltsuak»,
«ibai zurrumurtsu», «txori», «oreiñak ere bai».

Fontiveros'en jaio zan Juan Yepes Gonzalez,
karmeldar ordenako Gurutzeko Jon Deuna;
españar idazle ta olerkaria izatez,
biotz argidun ta mistikoetan bakalduna.

Gaztetxo zala Medina'ko ospitalean
sartu zan erizain lez eta Medinan bertan
latiñezko ikaskizunak osotutzean
argitasun aundiz maixutu zan edertietan.

Gogoa zerutar iturburuetan asetuz
olerkaria maitasunez kantari dabilgu
Izadiaren goibeak biotz-begipetuz
ederpean murgilduta maitari ixiltsu.

** *Esk.* XLV, 132-135.
Au da S. Muniategik egin zuen azken olerkia: 1990ko ekainean egin eban; korreoz ekainaren 15an (barikuan) neri bialdu, eta 17an il zan biotzekoak emonda. Olerki au eskatu neutsan Jon Gurutzekoaren laugarren mendeurrena ospatzeko.

Maitetasunak dargitso bai illun-aldietan,
itxaropenezko nortze, bakarrizketetan;
maitetasunak dargitso arazo larrietan,
bizitzako lautada ta aldatz erripetan.

Aurrelari dogu barrikuntza ekintzatan,
karmeldar arteko zatiketa-erauntsietan,
aurrelari zuzentasun alde agertzean
gizonkiro ta zintzo egunik latzenetan.

Atxilo jausi ziñan oskidunen menpean,
odolduta, ogi ta ur utsez, illunpean,
garbitasunik gabeko bakartasunean
bizkarra zauri gorritan, usteltze-zorian.

Soiña zauri gorritan baña, arimaz gogor,
berean darrai, maitasunaren abeslari,
zuzentza bidez beti tinkokiro ta jator
biotza eskeintz-oparituz Iainko Jaunari.

Maitasuna, maitasuna, maitasuna da bai
eleizgizon onen iraungi, lelo gurena,
txiro jaio ta txiro biziarren gogoz ernai,
itxaro-poz bero bat kolkora dakarrena.

Argi billaketazko gora-nai ta eder-nai
arduratsu baten ontasunezko lurruna;
bizitza gizatiago baten maite-lorratzai
darraitson eratzalle aurrerako, bioztuna.

Berak diñon lez: «mendiak gallurrak dituzte».
Mendi oneik nitzat neure Maitea dirade.
Ibai ta aranak daukaguzanak bakantzat...
«Aran auek dira neure Maitea niretzat».

Valladolid, Avila, Duruelo, Salamanca,
Alcala de Henares, Guadalazar, Pastrana,
Mancera, Beas, Baeza, Cordoba ta Granada,
Madrid, Lisboa, Segobia... Aren igarana!

Entzute aundiko egin zan autorle lez,
etengabeko lanean baterik bestera
apalkiro ta zintzo ta geienetan oñez
mojatxoeri itzaldiak-eta emotera.

Gurutzeko Jon Deuna, ortozizko lekaide,
ur biziaren espiritu barriz datorrena;
Teresaren barrutiko lagun ta autorle,
ludiko mistikuetan mistikurik gorena.

Olerkigintza gogotiar baten sortzallea:
«Super Flumina Babylonis», «Gau illun batean»
«Gogo Abestia» ta abar, maitetasunean
oñarritzen dau biotz barruko eresia.

Oi, biotzetiko maitasun, maitasun, maitasun!
Bizitzako ontziaren atzekalde ta branka;
olatutza garratz ororen eztigai bigun,
bearrezko norabidearen ardatz ta palanka.

Egitazko maitasun, maitasun, maitasuna.
Giza-alkartasunerako euskarri sendo,
ekaitz ororen baretzalle ta, benetako
Izar argi bizikorraren edertasuna.

Aran bakarti, gelkor ta, atsegiñak dira,
itzaltsuak ta ur garbi gardenez beteak,
txiruli-txirulika goiz-arratsen arira.

Olerkariak Iainkoa daurki Izadian
gauza danen Alguztidun, Egille Bakarra,
zeru-lurretako pilpildurapen bizian,
loraburuturiko ainbat zelai ta larra.

Oñezko bide-ziorretatik, mendirik mendi,
ibilietako ezetasunpean zakusgu
ibairatzen ikusiz ainbat zalditeri
ta, ainbat ta ainbat borda otzan, ardileku.

Barrurengo oldozbide argitsu, sakonak,
biotzezko ikuste jorantsuz, maitebera,
igarotako aran, ibai itzaltsu, onak,
Iainko-gosez neurtuak zearka ta gainbera.

Maitasuna jarri daigun ba, lenengo mallan,
benetako irripar gozo, esku zabalez
burutu dedin ogi-ale mardul zindoenez
ereindako gure solo ta alor landuetan.

Gurutzeko Jon Deuna izan bedi eredu,
argimen alkarkoi ta kemen eraginkorrez
guk bere maitasuna gogoz erein ta landu
bizitu daigun emoitz-itxaropen baikorrez.

# GEIGARRIA

## NOCTURNO*

Tras las montañas de Occidente
los rayos dorados de Febo
ya se escondieron y el relevo
le toca a la luna naciente,
de aspecto triste, agonizante.

El azul bello y amplio cielo
cúbrese con un negro velo,
llamando y haciendo derroche
sin ningún temor ni recelo
en favor de la obscura noche.

En abismo del infinito
innúmeras estrellas lucen,
cual cirios que su luz ofrecen
a las ánimas que padecen
culpas de un pecado maldito.

Una brisa sonora envía
sobre el paisaje de la tierra
la rarísima sinfonía
de una vibración que en sí encierra
infinita melancolía.

Sin fin de misteriosas voces
escuchan los oídos atentos,
risas suaves o tristes lamentos
que conmueven todas las noches
almas de diversos sentimientos.

Van a dar en altivas rocas
furiosos golpes bravío el mar,
los fríos besos de las olas
que en la playa, jamás, solas,
pudieron un cariño dejar.

* *Esk. C*, 227.
Au da S. Muniategiren jatorrizko erdal-olerki bakarra, 1933-1934n Filipinetan egiña; orduan 21 edo 22 urte eukazan.

Pájaros negros, solitarios,
lanzan sombríos raros cantos
que llenan de pavor a tantos
infelices que en dormitorios
descanso piden a los santos.

Minutos que rápidos pasan,
a la Muerte veloz acercan;
seres que siempre al sueño llaman
la muerte al nombrar se espantan
y pa dormir los ojos cierran.

Si tan dulce es el dormir
de fuerza suave reparador
¿por qué la muerte al ser humano
causa horror, apego al vivir?
¿No es la muerte del sueño hermano?
¿No es del alma héroe libertador?

# OLERKIEN ALFABETOZKO ZERRENDA

## A


A, nundik nora 1020
Aberria 455
Aberria 997
Aberrirantza 144
Abertzale zintzoarena 163
Abesti soilla 535
Abestia 539
Abestia 778
Abestu, abestu, abestu... 446
Abestu larroseari 858
Abestutzeko gogoa 461
Abots deskeilladun gizona 559
Abotsa 394
Abotsa 541
Abotsak... 987
Adar billutsetan... 227
Agerpena 418
Agin zarra 942
Agur 338
Agur ta zorion 834
Agurra 203
Ahantzitakoak 486
Aiete 420
Ain argi eder zetorren eguna 627
Aingeru-kanpai otsez 798
Aintziña baten 782
Aitxitxeren ipuiña 1094
Aitzera igongura zebillen neskearena 712
Aize bolada bat 526
Aizea 1066
Aizea eta neskak 858
Aizea nora... 329 (350)
Aizeak 647
Aizeak daroazan odeiak lez 907
Aizearen kideko... 300 (363)
Aizearen menean 316 (366)
Aizeari buruz 615
Aizeari buruz 615
Aizeño pozkorrez 1073
Akesolo'tar Lin agurgarriari 1059
Alaitasuna aldarrikatuz 1111
Alaba 405
Aldatz gora 871
Aldi ioana izanarren 849
Aldiaren zorabio errean 442
Aldibera 912
Aldibera 342
Alea 439
Alkartasuna 140
Alperrik 605
Ama bati 362
Amalaukoa itxasoari 542
Amalauko izankorra 595
Amalaukoaren sointasuna 597
Amalur 168
Amaren aolkua 857
Amets eder baten antzera 317 (358)
Ametsa 291

Ametsak 1095
Ametsak ume batentzat 1006
Ametsezko itxasoan 174
Amonaren ikasbide bat 341
Andra Mari 517
Andra Mari Martiko 635
Andrakillatxoa 246
Ane 501
Angelus 237 (355)
Antza danez 983
Antzarrak 648
Antxetak lez 1089
Antxumea 1130
Apoak 548
Apurra 1071
Aramua eta elbia 645
Arana Goiri 437
Arana-Goiri'tar Sabin-i 149
Arana-Goiri'tar Sabin. Agur! 495
Arano 1080
Arantza zorrotzetan 467
Ardoa 780
Aren izeneko amalaukoa 596
Argi iaio berria 248
Argi iakinduriz burubidetzeko 453
Argi ori 93
Argia 158 (188)
Argia eta itzala 1030
Argiaren alde 403
Argiaren alde 417
Argibidez ta ekandu onez 828
Arginabarra 1018
Arginabarrean 884
Arginabarrezko semeak 1024
Argiren bat biztuz 573
Arkaitzeko aditza 1115
Arpezulo bat ikertu ondoren 755
Arrain-saltzallea 160 (185)
Arraintzportu euskaldunak 868
Arraiña laket urean 684
Arrantzale adintsua, kai bazterrean 669
Arrantzalearen olarra 702
Arrats beran 178
Arrats bidez 279 (360)
Arratsaldeko apelean 360
Arraunketa 535
Arrese-Beitia 863
Arrimena 626
Arteaga 324 (359)
Arteaga 421
Artistea 415
Arto opillak 189
Arto sortu-berriz... 227
Artoak 222
Artoarena 959
Asarrearen semeak 476
Asis'ko Prantzisko Deunari eskaria 727
Asko dira bai 295 (363)
Askotan 982
Aspaldiko partez 804
Astelendar oiturapean 801
Astoari buruz 617
Atera zaitez bai burrukara 428
Atoz, Estebantxu 451
Atoz gogoz 735
Atsedenaldia 159 (189)
Atsegin txikiaren abestia 741
Atuneta 707
Atzipetuarena 187
Atzo 1120
Atzoko abestiak... 1093
Atzokoaz mintzatzea 868
Aurkezpen biribilla 892
Aurkitze 427
Aurrekoen bide berdiñez 572
Aurrera euzkotarra! 149
Aurrera ta atzera 539
Aurrerabidezko ekintzaz 1058
Aurrerako bear dogun argia 452
Auts artera eroriz 236 (355)
Autsa iasoaz 809
Aurtzaroko oroitzapena 1071
Azi ona 560
Azkatasunaren aldezko gogoz 622
Azkatasunez 564
Azken eguna 482
Aztuna 339

## B

Babarrun aize beroz 1096
Ba-degu nun lan egin 396
Bagilla amalaugarrena. Lizarra 819
Bagillako euzki beroz 948
Bai bidezkaz eta bidez bide 242 (359)
Bai dakit bai 181
Bai, galdera bat da... 395
Baietza 723
Baikortasuna 186
Bakartade abestiz 445 (529)
Bakartadea 788
Bakartadezko nekepean 976

Bakea 750
Bakezko gentzadurapean 893
Bakezko izkuntza argiz 486
Bakezkoa 1074
Bakoitza 842
Bakoitza bere erara 829
Bakoitzarekikoz 845
Bakoitzkeria 973
Barre egiten dakin… 752
Barri onarena 652
Barrien barriz 1004
Barriro izan 1066
Barruko negua 902
Barrukoa 484
Barrukoz 1052
Basarri 637
Baserria 960
Baserrira dei 224
Baserrian 620
Baserriaren negarra 986
Baserritar arratsaldez 953
Basetxea 201
Basoko loreak 610
Batasun ederrean 1112
Bateko euria, besteko laiñoa 561
Baterakuntza 700
Baterazko begipez 1122
Batzuetan 576
Bearbada biar… 763
Bearbada biar… 764
Bearrari buruz 615
Begi argiakaz 1019
Begiak 799
Begiakaz 641
Begipean 678
Begipean 717
Begirakun zorrotza 435
Begoña 516
Bei txuria 978
Bei zarra 171
Bein ta berriz 328 (339)
Belarrak 781
Beltza 522
Bera dan lez… 686
Beranduan 1099
Berba bakarra 872
Berba egitea 881
Berba merkeak 877
Berbak 822
Berbakaz 885
Berbeari buruz 614
Beren atun ta lebatzakaz 673
Beren loreil gurenean 857
Bermio 816
Bertanberazko ibillian 609
Beste bat 1112
Beste egunetan lez 870
Beste egunetan lez 870
Besterik ezik 431
Betetasun betea 767
Beti diardogu igarotzen 745
Beti ezin da bai esan 366
Betiko alorrean 558
Betiko bakarra 1109
Betiko baserria 419
Betiko itxasoa 532
Bi eskuak uts-utsik 575
Biar 1123
Bidaztia 525
Bide ibilgarri bat 562
Bide goienean 387
Bidea 529
Bidean al gagoz? 903
Bidean galduta 145
Bidean gora 269 (347)
Bideari emana 250 (350)
Bideberako autsa jasoaz 765
Bidebera, egunik egun 500
Bide-ikara 272
Bidera ateratzen geran… 368
Bideratu nadin… 331 (338)
Biharko olerkariek 485
Bilaketa 487
Bilbo 517
Billa gabiltzanak 610
Billaketa 363
Billaketa 389
Billaketa 877
Billutsik 253 (361)
Billuts-billutsik 744
Biok bat 1108
Biok bat 1119
Biok batera 283 (358)
Biotz abesti 357
Biotz onekoa 559
Biotz-zugaitzarena 1061
Biotza 428
Biotza bakean 1125
Biotzaren deia 164
Biotzeko gogoa 588
Biotzeko lorak 133
Bira biraka 1046
Bizi dirdiran 912
Bizi iragankorra 483

Bizi izateko 645
Bizi ontzia itsasoan 919
Bizi-gorapen 309 (358)
Bizi-ikara 254 (359)
Bizi-ikara poemaren atala 354
Bizia 914
Bizia baieztuz 460
Bizia bera da 1118
Bizia martxan 873
Biziak gaur 150 (359)
Bizialdi urrun bat gogoratuz 860
Biziaren alde 589
Biziratze 338
Bizitz erraiñupean 602
Bizitz-lokarriz 833
Bizitz lokarriz 833
Bizitza 566
Bizitza bat, poema bat 924
Bizitza bertara 1063
Bizitzako bidean 620
Bizitzako bideak 627
Bizitzako itzal arabera 938
Bizitzaren aldaketa barruz 851
Bizitzaren aldezle 792
Bizitzan aurrera goazenean 902
Bizitzaren poztasunean 794
Bizitzeko gogoz 498
Bordazuri 1011
Bost aboski 1128
Bost poema 417
Bultzia 743
Buruari buruz 618
Buru jabe 584
Burtzaina 169

## D

Da... 950
Dan bezalare 827
Danboliñ-ots pozgarria 1008
Danok 599
Dantzariak 169 (359)
Dar-dar-dar'en ipuiña 732
Dardarazko azkentze larritua 1040
Debekukeria 477
Deia 929
Denpora illa 633
Destaiuzko ezeztapenez 1016
Deustasun utsean 507
Dilindan 623
Dinbili-danbala 805
Donianak 945
*Donosti* 389
Dordoka 1131

## E

Edertasun galduak 142 (191)
Edozeiñentzako 471 (599)
Edurnetxuren amesetea gabon gabaz 676
Edurra 1003
Egi billa 825
Egia 1129
Egia da bai, egia... 326 (365)
Egiaren iabe 436
Egiaren iabe ba'lira bezala 558
Egiazko kolorez 685
Egin amets 966
Egin dezakeguna 607
Egiz 376
Egizko kolorez 836
Ego billa 638
Egoaizearen izkuntza epel jostarian 1081
Egoak 400
Egoak moztuarren 842
Egoki ta eder 439
Eguerdi artan 1027
Egun argiarena 921
Egun argitze 524
Egun argitzen 665
Egun eder on baten aurrean 830
Egun goibela 608
Egun illunak 671
Egun labur ta urte luzeak 194
Egun onaren señalea 546
Egun ozkarbian 784
Egun urratze 1025
Eguna argitzean 466
Egunak dagoz 918
Egunak neguan 141
Egunaren eriotza 182
Egunaz esnatutzean 1056
Egunaz nago 1011
Egunen batez 568
Eguneroko itz egokiaren billaketa 343
Eguneratzean 1022
Egungo gizonaren 463
Egunon diogu egunon 402
Egutegia 604

Eguzki ezkongaiz 779
Eguzki goiztarraren gozotasunez 232
Eguzkia 527
Eguzkia argi bizi... 766
Ekaitzaldi gogorrari 487
Ekatxa 695
Ekatxa aldendu zanez gero... 697
Elaiak 134
Elantxobe 199
Elantxobe 751
Elorria loratan 768
Elurra erortzen ikustean 591
Emaidazu eskua 484
Eman 346
Emantza 666
Emazteari 927
Enbeita 438
Epalla 254 (358)
Epel eta euri-zirimiris 1104
Erantzuna 632
Erdipurditasunezko itzak 769
Ereduak 999
Erein azia 783
Erein lur onean 850
Ereintza 587
Ereintza 606
Ereintza 1104
Ereintza gaiztoa 476
Ereñozar 184
Eriotza 1020
Eriotzak banatu arte... 482
Eriotzapeturiko eguna 899
Erkiaga-tar Eusebi olerkari eta idazle argiari 866
Erleak 550
Erleak 916
Erori, bai... 599
Erretako biotzaren suan 421
Erri zapalduak 433
Erria aldeztuz 424
Erriagandiko arnasaz 416
Esakunak 616
Esakunez esakun 800
Esan 526
Eskari 256 (365)
Eskaria 565
Eskaria 1115
Eskeintza. Neskatil lirain bati... 198 (357)
Eskaintza. Neskatil lirain bati... 198
Esker mila 1078
Eskergarria 762
Esku-makil 1110
Eskua emanik 562
Eskuak laztanduz 662
Eta ego-aize epel artean... 233 (353)
Eta, olaxe bidean gora 236 (355)
Eta orain... 188
Etenbako alkar-jana 900
Etsaiaren 430
Etsera begira 959
Etsipenduarena 538
Etsipenez beterik 998
Etxeari buruz 613
Etxeko izandakoen abotsak 938
Etxeko labaldia 944
Etxepare 437
Euri berera eder ona 953
Euri bizikorra 654
Euri ederra 551
Euria 527
Euria 926
Euria 1096
Euria egin eban atzo 1093
Euriaren grazia 1106
Euriarekin 586
Eurizko arratsaldea 915
Europa'rantz doan erri bat 791
Euskal arnasa 574
Euskal Erriari 364
Euskalerri zaurituari 843
Euskara'ri bai 573
Euskerea zelairatzeko 670
Euzko gudariari 175
Ez al dozu ikusten? 1000
Ez autortu! 161 (185)
Ez da txantxetakoa 537
Ez dakit ez... 349
Ez zait gogoa lilluratu 432
Ezaren billa 655
Ezbaitasun 318
Ezer ez geiago 852
Ezetza 470
Ezetza 563
Ezin beti buru makur 481
Ezkutuko txingarra 799
Ezkutupean 569
Eztabaidak 871


## G


Gaba 1070
Gabaren atarian 1024

Gabarena 971
Gabekua 189
Gaberdiko amesa 157 (190)
Gabon gaba 1031
Gabon zoriontsu eta urtebarri 657
Gabonetan gabon 736
Galburuak 1005
Galburuak 1005
Galburuak 1013
Ganbara utsak 960
Garaitza 253 (361)
Gau argi zerutsu batean... 234 (353)
Gau-eresia 242 (356)
Gau eta egunaz 575
Gauaren ostoak 610
Gaur goizean 608
Gautasun baltzean 1111
Gauza apalak 388
Gauza arrunten abotsa 831
Gauza arruntenakaz 1108
Gauzaen bizitzaz gain 1051
Gauzaen ikusian 489
Gauzaen irakas-bidez 920
Gauzak aldatuz doaz 435
Gauzak eta guraria 727
Gauzarik ederrena 501
Gaztetako egoekin 397
Gaztetasun bidean 246 (359)
Gernika 382
Gernika 432
Gernika 456
Gernika'ko triskantza gogoratuz 1009
Geu izanik 790
Giltz bakanak 940
Giza malkoak 1043
Gizarte errea 789
Gizatasun elburuz 594
Gizona 426
Gizona 465
Gizonaren itzak 220
Gizonaren jazarkundearen etxakideak 876
Gizonaren nekea 602
Gizonari buruz 571
Gizonaz 339
Gogaitasun alaikorra 1101
Gogamenaren txingarra 1067
Gogo goldaketan 603
Gogoa 1026
Gogoa sendo, soiña osasuntsu 797
Gogoaren negua 578
Gogoari buruz 613
Goietako edurra 190
Goiz-arrats bakoitzean 472
Goiz nabar urdin oneskorrez 1060
Goiza... 238
Goizaren barruz 889
Gozaren zantzua 540
Goizeko belar... 252 (359)
Goizero 356
Gomutapena 934
Gora begira 1061
Gora begira dagon lurra 882
Gorakunde 280 (355)
Gorakuntzako bideetaz 822
Gosez 143
Guda aurkako zantzoa 473
Gurari 343
Gurari baten arantza 1048
Gurari utsa 165
Gure aur, eder polita... 252
Gure ikurrinpean... 208
Gure mundua 751
Gurutz bidean 477
Gurutzea 530
Gurutzeko Jon Deuna 1135
Gutxien uste zanean 231 (358)
Guztioi zorion 874


## H


Homeini 595


## I


Iaio berriak
Iaio berriak 426
Iaioterri garbia 468
Ian-edunari buruz 617
Ibai bi 793
Ibaiarena 282 (355)
Ibaiari 605 (684)
Ibilian 802
Ibilizkoz 910
Ibillaldia 304 (359)
Ibilliz 284 (356)
Igandea 832
Igaro izan dan urak 939
Igarotzen dan ezebezarena 835
Igarozko aldaketa barruz 951
Igelak 549

Ildura 295 (361)
Ileta 478
Illargia... 226
Illargipean 248
Illotsa 745
Illun abarrak 148
Illunabar urrez jantziak 989
Illunabarrak baserrian 148 (188)
Illunabarrean 851
Illuntze 711
Inguma 955
Inguma bati 146 (190)
Inguma begiragarria 772
Inguma bateri 146
Ingumak itsasoz ikustean 714
Iñoiz 341
Ikasketa 472
Ikur bezala 560
Ikurrin 266 (358)
Ikusmira 852
Ikuspegi bat 720
Imanol Lekuona jaun argiari 443
Ioatearen ioatez 352
Iosu'ren oroitzapenez 475
Ipar ta egoz 823
Ipurtargiak 485
Iragarkiak 865
Iraupena 1119
Iraupena 922
Iraupena 922
Ire esku txuri... 223
Iriki, zabaldu ateak 483
Irripar aidekorrez 1117
Iru poematxu 885
Irudia 604
Irudia 708
Irudiak 257
Irun 835
Ispillu aurrean 430
Ispillua 542
Ispillua 580
Itauna 689
Itauna 886
Itsas asarretua 696
Itsas-txorieri begira zegon umearena 710
Itsasertz ezagunak 538
Itsasoa 688
Itsasoa 694
Itsasoaren azala 743
Itsasoaren sakona 429
Itsasontzi berberean 540
Itsuan ez utzi 425
Itsukeria 398
Itsukeria 490
Iturbegi minkatza 570
Iturri goikaria 804
Iturria 329 (347)
Iturria 639
Itxaroa 267
Itxaron ama 137 (190)
Itxaron ama 137
Itxaropen egingarriz 923
Itxaropena 154 (186)
Itxaropena 722
Itxaropena zaintzeko denporatan 1098
Itxarozko oldozkunez 1023
Itxas aurreko egonetan 805
Itxas biribilketa 890
Itxaskari 255
Itxasoa 594
Itxasoa 641
Itxasoa 664
Itxasoa 993
Itxasoa danena zanean 706
Itxasoa danena zanean 995
Itxasoan 690
Itxasoan jaiotako aurrarena 1044
Itxasoaren aurrean 688
Itxasoarena 1091
Itxasoari 901
Itxasondokoa 687
Itxasontziak 691
Itxasontzizko ibilian 708
Itxasontziz igarotzean 705
Itxaroratze 311 (357)
Itxasoratzeko gogoz 788
Itxastar abestia 684
Itxurakizunak 1084
Itz argi.. 251 (359)
Itz argiak 1006
Itz argikorrezko 216
Itz artean 632
Itz bakar batez 561
Itz egintzalleak 470
Itz egoki... 346
Itza 379
Itza 509
Itzak 609
Itzak 663
Itzal betikorra 1099
Itzala 406
Itzaldura 565
Itzarkunde 285 (359)
Itzartze 288 (366)

Itzegiten da bai... 431
Itzekin bakarrik 498
Itzen inguruz 400
Itzen izakuntzaz 469
Itzulerarik bako bidea 843
Itzulerarik ez daukan bidez 961
Itzultze 1121
Izan zori on 656
Ixillean 792
Izadiarekin eskuz esku 245 (355)
Izadiarekiko maitasunaz 913
Izadiaren erakutsiak gogartuz 1116
Izamen illa 1083
Izan 661
Izan edo ez izan 1123
Izan siniste 637
Izarra 761
Izarrezko keiñupean 1083
Izarrik ederrena 291
Izate 384
Izatearen bizi mintzoz 807
Izatearen muinean 723
Izatezko oñaze gordin 434
Izena, abestia 682
Izena da argitzea 1027
Izena ur izana 509
Izkuntza 334
Izkuntza ixilla 186
Izpi bat 839
Iztegia 463

## J

Jai 1126
Jai-egun arratsaldetan 943
Jaio nintzan erri maiteak 1070
Jakituria 719
Jakituria 840
Jauntxo 175
Jauskerak 807
Joale otsak 916
Joanez doa 1028
Jon gaztearena 196
Jorrailleko euri, ta... 1073
Jostaketa 795
Jostaketa 911
Jostaketa zoragarri bat 794
Josu 181
Julene Azpeitia 634

## K

Kabi utsa 147 (185)
Kabitik ara 649
Kaieratze 296 (357)
Kaioen egoetan 682
Kalbarioa 347
Kantaurin eziñik 703
Kataliñ gorri 548
Katuari buruz 612
Kea eta kea 826
Kemena 314 (365)
Kempis'en erabidez 968
Kezka 407
Kirikiñoa 1130
Kitarra 429
Kolonbia 979
Kolombo'ko belak 185
Kresal abotsez 681
Kristo gurutzetuari 434
Kukua 555
Kukua 956
Kukurrukua 425
Kustiñe zan aren izena 940

## L

Labayen-tar Andoni 446
Laburpenez 444
Laburpenez 444
Laguntza 581
Lamiñak 549
Lañoa dala-ta 714
Larogei urteko mutiko bati 1074
Larra'ko Amari 320
Larrosea 1085
Lasapidez 607
Lau aro 823
Lau urtearo 808
Lauaxeta 438
Legorreratutako itxastarra 624
Leio idigitik 718
Leio zabaldutik 718
Leio iriki zabalez 404
Leiotik begiratuz 464
Lena eta oraña 147
Lenaren lenetik 378

Lenengo txintada 427
Lengo bideetan 820
Lengo bideetan 821
Lengoa 378
Lepoluzea 1131
Libe 214
Lilitegian 177
Lillurakizun 1114
Lilluratuarena 159 (185)
Lirin-laran... 1035
Loidi-tar Paben 879
Loikeria 919
Loiola 454
Lokatza 348
Lorailleko eguerdian 536
Loratan dagon zeruarena 662
Lore txoria 855
Lore txoria 856
Lorea 528
Lorea 908
Loreil 622
Loreil bidez 810
Loreil bidezko oarpenak 964
Lorketa 1079
Lorratzak 668
Loturik 479
Lur orbeldua 863
Lurraren biotzaren taupadak 536
Lurrari buruz 616

# M

Maitaleen soñu-aldia 742
Maitasuna 519
Maitasunari 926
Maitasunari abestuz 468
Maitasunaren aurrean 908
Maitasunaren neskatza 574
Maitasunaz 630
Maitasunezko emoitza 1034
Maitatu abestia 1033
Maite dot maite 1076
Maiteminduak 1133
Maitezko baietza 907
Maitezko bidean 384
Maitezko egada 313 (358)
Maitezko ikasle 756
Maitezko opari 1056
Maitetasun 291
Maitetasunezko emoitz leguna 1034
Makurtu bear danean 841
Manterola'tar Gabirel-i 980
Margolariaren antzera 847
Margolari antzera 847
Mari burduntzi 771
Mari burduntzi ortzi argi baten eguratspean 781
Mari orratz 803
Mari Urraka 730
Marigorringo 307
Maritxu tellatuko 547
Maritxu tellatuko 1029
Marrau aurpegizko 642
Maxiaketa 1000
Mendiaren biotza 597
Mendiarena 758
Mendibidez 928
Mendiko iturria 669
Mendiko iturria 837
Mertxeren ateraldia 777
Mezua 529
1984 748
1984. urteburuan 760
1984. urteburuan 760
1989. urtebarri zoriontsua 1065
1990. urte zoriontsua 1106
Mindura 723
Mintzo ixil batez aoz 383
Mintzoa 387
Miraripean 567
Miren Lore 875
Mirentxu 773
Mirentxuren begiak 1040
Miseriaren lorratzak 789
Mitxeleta 255
Mitxirrita 552
Monterrios 713
Moskortuak 173
Mundu onen joan-etorreratan 703
Mundu ontako txarkeri artean 746
Mundu zabalean 377
Mundu zabaleko bidez 987
Mundua 401
Mundua agurtuz 869
Munduaren negarra 673
Munduko oñazea 1050
Munduko oñazea 1050
Munduko txikiaren aundia edota munduko aundiaren txikia 891
Muskerrarena 554

## N


Nabaitzen al dozu? 905
Nai 200
Nai nukeana 806
Narkis 179
Nasaikeriz 716
Negar ikuspegiz 906
Negarra 202 (360)
Negu aire baltza 827
Negu baltzaren ondoren 654
Neguko ipuiña 1062
Negu ondorengo esnatze 308 (359)
Neguak aldegiñaz batera 230 (358)
Neguaren atedian 247 (363)
Nekaldi ta guztiz ere 374
Nere gogo 266
Neska eder 701
Neskatil bati 1090
Neska gastez 665
Neskatxarena 201
Neure agurra 504
Neure buruari buruz 585
Neure esku dan biotzari 249
Neure esku dan biotzari 625
Neure gogo 362
Neure soñari 1113
Neurea da bidea 1064
Neurekerak 666
Ni naizen ontzi beartsu oni 316 (366)
Ni naz udabarria 1116
Nire abestia 936
Nire abotsa ortzian gelditu arte 587
Nire aintzindar oiartzunak 932
Nire ametsak 469
Nire buztinki arruntaz 466
Nire ibillia da... 345
Nirea dan zerbait 567
Noan... 450
Nocturno 1141
Noiz-arte?... 143
Nor da... 636
Norbera dan zugatzan 644
Norberaren lurra 351
Norentzat? 200
Nork 826
Nun dago Jaungoikoa? 775
Nun-nai 985
Nun zagoz gaur? 859


## O


O, udazkeneko arratsalde...! 282 (362)
Odeia 783
Odeiak 348
Odeiburua 399
Odeietan 350
Odolaren besapean 582
Odolaren irakiñean 433
Oetik baterakoan 967
Ogia 313 (356)
Oharkuntza 488
Oinazea 479
Oiu bat 977
Olarizu'ko landetan 492
Olatu antzera 1102
Olatuz olatu 796
Oldozketa 887
Oldozketa utsa 812
Oldozkun baltzezko gabean 888
Oldozkunak 606
Oldoztu neban 744
Olerki gatzitua 687
Olerkaria 1036
Olerkiaren oñatz, abestia 1022
Olerkariarena 259 (353)
Olerkariaren biotza 1117
Olerkia 417
Olerkiari 901
Olerkariaz gogaketan 1037
Olerti 969
Ollar arroa 730
Ollarra 954
On eta eskergarri 898
Ondaeziñezko gogamenez 785
Ondoratzea 647
Ondoratzea 839
Ondoratzea 1017
Ondorioa 522
Ongura maitez 872
Onoimen 292
Ontza 1026
Ontzi baten 693
Ontzi baten 693
Ontzi baztertua 648
Ontzian 356
Ontziaren ondoratzea 710
Oñazez 1036
Oñezkoak gera ta egunik egun... 312 (339)
Orain maitasunez 471
Orbel artez... 361

Orbelak lez 671
Orbeldu baiño lenago 992
Orduko egunak 583
Ordutik ona 457
Ori nai izanik 589
Oroitu gaitezan... 191
Oroituz 391
Oroitz-miñez 360
Oroitza 286 (358)
Oroitza zarrak 1004
Oroitzapen gomutakia 904
Oroitzapen zarrak 408
Oroitzapen zearrezko begiradea 930
Orri jauskordun zugatzak 1038
Orria eta aizea 1126
Orriak aizean 974
Orriak eta aizea 1001
Orrialde urdiña 537
Orrilla 165
Orrilla 758
Orrillako lorape usaintsuan 1097
Orrillakua 165
Orriz orri 977
Ortzia 924
Osasunaz 769
Ospitaleko gela batean 1053
Otoitz antzera 457
Otoitza 460
Otoitza 518
Otoitza 709
Otoitza 994
Otsein zoriontsuak 205

## P

Pablo Zamarripa gomutatuz 649
Papargorria 1132
Paper zuria 897
Paper zuriaren aurrean 450
Paper zurizko itxasontzia 1002
Patxi txikerra 947
Peña Albizu'tar Xabier zanaren gomutaz 651
Peru-ren maitasuna 135
Pilota bat 545
Pinpilinpauxa 550
Poema txikiak 838
Poematxo bat tristurakizun batentzako 917
Poesiaren bidez 592
Pozgai txikiak 670
Poztu zaitez neugaz 972
Puxana 724

## S

Sagar ustela 139
Salakuntza 436
Saldue galdue 948
San Lorentzotan 728
San Markosetan 958
Sarean 596
Sarrera 680
Sarrera 896
Seaska abestia 544
Seaska abestia 941
Semeak egin neutsozan gabari 892
Sendotasunez 998
Sho-Sho erria 660
Sinismenik eztagonean 1049
Sokoa 405
Sorlekua 935
Sorkuna eta elburua 419
Su barik... 897
Sua 1030
Suaren eta gatzaren arduradun 975
Sugar sutsua 1113
Super Gau 975
Susmoa 582

## T

Ta, egiz... 329 (350)
Ta, eguneroko 353
Ta etsipenez beterik 624
Ta gogo barrengo ikuste 340
Ta, or... 330 (351)
Tabernaz taberna 523
Tantai-ondo igerra 399
Tellatuz tellatu 988
Terese Ama 639
Tilili eta talala 603
Txakolin 1105
Txakur zauritua 528
Txakurtxoa 1129
Txaneltxu bat daukan gizona 1068
Txarkeria goldatu dutenen aurka 481
Txerrenari buruz 612
Txikita astotxoa 952

Txindoki'ko Mari... 1057
Txindorra 553
Txindortxua 955
Txingurriak 1132
Txiribiria 503
Txirotasun aberatsa 949
Txirtxirra 726
Txirula 1118
Txo 759
Txori bako aizepe kantariz 1014
Txori bedeinkatuak 957
Txori donetsia 193
Txoria 829
Txoria kaiolan 546
Txoriakin bat... 222
Txoriari buruz 618
Txoriz jantzitako zugatz bati 860

## U

Udabarri birbiztua 886
Udabarria alaian 213
Udabarria emen dogu 677
Udabarria ill orduko 904
Udabarriaren aurrean 1124
Udabarriaren eriotza 1068
Udabarriari buruz 749
Udabarriko egun bat 1017
Udabarriko eresia 162 (194)
Udabarriko lorea 910
Udabarritar gau-intz lurrunez 1076
Udabarritar gogoz 1072
Udabarritarra 1035
Udaberri 386
Udaberri bultzadea 467
Udaberri goizean 231
Udaberri goizean 779
Udaberri eresi 270 (358)
Udaberria 394
Udaberria 638
Udaberria 1041
Udaberriaren etorreraz 731
Udaberriarena 289
Udaberriko arratsaldea 776
Udaberritarra 251 (358)
Udaberriz 724
Udako gaba 158 (188)
Udako ikuspegi bat 996
Udako zerupean 1021
Udara garaian... 204
Udazken 422
Udazken aizeaz 995
Udazken alaz 577
Udazken ikuspegiz 971
Udazken kutsadura 1097
Udazkena 598
Udazkena 984
Udazkeneko aizea 1121
Udazkeneko aizearen bildur 848
Udazkeneko itundurapean 927
Udazkenekoa 243 (361)
Udazkenez 379
Udazkengo eguzkia 1064
Ugin goiberatan igeri 698
Ugiñak 523
Ume itxastarrarera 194
Ume-olerkiak. Jostallua 171
Umeak bezela dira bai 780
Umearena 202
Umezaroko 667
Umezaroko biotzez 1077
Unamuno gogoratuz 753
Une, tini... 973
Unea 741
Unearen lillurapean 1098
Untxi batek 1131
Ur gora, ur beera... 717
Ur ixiltsun 534
Ur izpiren bat 699
Ur kresalaren osasunaz 1087
Ur tanta 848
Ur tantatxoa 989
Ur tantatxuak 757
Ur txiki, ur guztiak 646
Ur zirrizta 849
Uraren ikusbidez 837
Urarena 655
Urarena 683
Urduritasuna 750
Uri barnez 306 (363)
Uri bi 749
Uri illa 156 (193)
Urretxindorra eta itsas-neskak 715
Urril bidez... 747
Urrillak 28 493
Urrundiko abotsak 949
Urrundiko ipuiña 992
Urruntasuna 909
Urrutia'tar Gotzon Aita zanaren gomutaz 398
Urte barriaren aurrean 634
Urte barriaren aurrean 1084
Urte barrikoa 653

Urte barrira begira 854
Urte joankorrak 748
Urteak 1065
Urteak leporatzean 830
Urtearo berria 1062
Urteen joanean 1032
Urtegia 590
Urtegiro atsegiña 566
Usoa 878
Usoa 1133
Usoak 525
Uste dozu ugartea zarala 966
Ustel ta nagi 1124

## V

Verlaine gogoratuz 663

## X

Xabier'i 500

## Z

Zadorrezko uretan 966
Zaildura 646
Zailtasuna 480
Zaintzaketa 681
Zaitegi gogoan 502
Zapiño zuri bat 533
Zartzaroari buruz 614
Zazpi iluziñotan 1019
Zelaia 675
Zeleta 1086
Zer da maitasuna 653
Zerbaitek iges dagi 334
Zeugaitik 154 (186)
Zinopak 473
Zipitria-tar Elbire andereñoa 740
Zoragarria 834
Zorakeria 160 (190)
Zorion-poza dagerren olerki bat 880
Zoriona 138
Zorroa leporaturik 854
Zu 986
Zu baño ni andiago 778
Zu ere... 351
Zu ere ene maitea 414
Zu nire alboan 997
Zu nire alboan 997
Zubikarai-tar Agustin 755
Zugaitz egunean 1107
Zugaitz ituna 1082
Zugaitzak 524
Zugatz bati 180
Zugatzak 917
Zugarramurdi 335
Zure izena 701
Zure izena 914